Jakintza-arloa: Literatura

Domingo Agirreren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa

Egilea: **ANA Mª TOLEDO LEZETA**

Urtea: 1989

Zuzendaria: JESÚS MARIA LASAGABASTER MADINABEITIA

Unibertsitatea: UD-DU

ISBN: 978-84-8428-242-3

Hitzaurrea

Besteek egindako aurkezpena norberak egindakoa baino egokiagoa izan daitekeelakoan, tesiaren zuzendaria izan zen Jesus Maria Lasagabaster Madinabeitia irakasleak liburuari egindako hitzaurretik hitzez hitz bi pasarte jasoko ditut:

"Hauxe bait da, hain zuzen, lan honetan lehen-lehenik azpimarratu behar dugun alderdia: metodologiarena. Ez da metodoa absolututzat hartzen, ez zaio berari mekanikoki eusten, ikerketaren behar eta xedeei egokitzen zaien neurrian baizik: diakronia eta sinkronia, ikuspegi genetikoa eta barnekoa, testua eta testuingurua.

Agirreren nobelen deskribapen testuala bezain interesgarria da euskal fikziozko prosa sortarazten duen testuinguru sozio-historiko eta literarioaren ikerketa. Testuinguru honetan gertatzen bait da ulergarria Txomin Agirreren nobelagintza, nahiz haren bitartez berrogei eta hamar urte luzetan zehar euskal nobelaren paradigma eztabaidagaitza izan zen ohiturazko eredua; halaber, testuinguru honen argitan kontura gaitezke zertan den Agirreren nobelagintzaren funtzioa euskal nobelaren garapenean eta bilakaeran, eta era berean zer-nolako akatsak eta mugak dituen euskal prosa narratiboak modernitatearen erronka gainditzeko orduan. Azterketaren azkeneko partean egileak arriskatzen duen hipotesia –Bajtinen teoriaren urratsen bat dagoelarik azpitik– erabat sujerentea gerta dakiguke momentu honetan, euskal prosa narratiboaren arazo nagusiei buruz diskurtso kritiko zorrotz eta aurrerakoia finkatu eta desarroilatu ahal izateko."

LASAGABASTER MADINABEITIA, Jesus Maria (1989), "Hitz bi", TOLEDO LEZETA, Ana Mª, *Domingo Agirre: euskal eleberriaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, XV-XVI. orr.

DOMINGO AGIRRE: EUSKAL ELEBERRIAREN SORRERA

"Domingo Agirreren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa" izenburupean Jesus Maria Lasagabaster Madinabeitia doktorearen zuzendaritzapean burututako doktorego-tesia jasotzen du liburu honek. Deustuko Unibertsitateko Filosofi eta Letren Fakultatean, Donostian, irakurri zen 1989.eko irailaren 27an Apto "cum laude" kalifikazioa mereziz. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak 1989.eko uztailaren 31ko data zeraman aginduz izendatu zuen Epaimahaia, honako doktore hauek osatua: Jean Haritschelhar (Bordeleko Unibertsitatea) mahaiburu, Ibon Sarasola Errazkin eta Jose Azurmendi Otaegi (Euskal Herriko Unibertsitatea), Patxi Altuna Bengoetxea eta Juan M.ª Lekuona Berasategi (Deustuko Unibertsitatea).

Beraz, azterlan hau doktorego-tesia da, izenburu horrek dituen ezaugarri eta mugekin. Ez gehiago, ez gutxiago.

Abagaduneaz baliatuz eskerrak eman nahi dizkiet zuzendari eta epaimahaiko jaunei hartu duten arduragatik eta, batez ere, egindako ohar zorrotzengatik.

Eskerrak, azkenik, Bizkaiko Foru-Aldundiari lanaren berri izanez bat argitaratzeko eskaintza egin eta arintasunez euskal gizartera eramateko bideak zabaltzeagatik.

Ana M. Toledo Lezeta
Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA, Jose Alberto Pradera XIII

HITZ BI, Jesus Maria Lasagabaster XV

O. AZTERGAIA: AUKERA-ARRAZOIAK ETA AZTER-MODUA 1
1. **Azterketa sinkronikoa** 13
1.1. Testuen teoria 16
1.2. Testuinguruaren teoria 24
2. **Azterketa diakronikoa** 29

I. TESTUINGURUA: EUSKAL PROSA NARRATIBOAREN SORRERA 37
1. **Gizarte-egoera** 38
1.1. Egoera soziolinguistikoa 46
1.1.1. Euskara gizarte-alorretan 51
1.2. Euskara batasun bila 64
2. **Prosa narratiboaren sorrera eta garapena: hurbilpen soziologikoa** 67
2.1. Idazlanak 69
2.2. Idazleak 89
2.3. Irakurlegoa 94
2.4. Prosa narratiboaren mezua: mundu-ikuskera 108

3. **Prosa narratiboaren sorrera eta garapena: hurbilpen sozio-literarioa** 129
3.1. Hizkuntzak egin gabeko ibilbidea 166
3.2. Irakurleak ezagutzen ez duen testu-mota 173
4. **Ondorio gisa: baldintza sozio-literarioak euskal fikziozko prosaren sorreran** 193
4.1. Berankortasuna 194
4.2. Tradizio batean txertatua 203
4.3. Testuak 207
4.4. Idazlego-irakurlegoa 221
5. **Poetika** 222

II. AUÑEMENDIKO LOREA: PERTSONAIEN LEKUGUNE ERALDATZAILEA 253
1. **Iraganbidearen lekua** 253
1.1. Lekua: Pertsonaien egoera-aldarazlea 259
1.1.1. Bi sekuentziren paralelotasun funtzionala 269
1.1.1.1. Arnoldoren historia: joskera narratiboa 273
1.1.1.2. Riktrudisen historia: joskera narratiboa 290
1.1.2. Bi sekuentziren aurkakotasun funtzionala 299
1.1.2.1. Portunen historia: joskera narratiboa 300
1.1.2.2. Adalbaldoren historia: joskera narratiboa 306
2. **Auñemendiko Lorea: lekugune literario bat iraganbide baterako: Erbestetik Aberrira** 310
3. **Eleberri historiko-kostunbrista-didaktikoa** 314
3.1. Pertsonaia-tipoak 328
3.2. Helburu didaktiko-morala 352

III. KRESALA: DENBORA ZIRKULARRAREN HAUSKETAZ DENBORA LINEALA 361
1. **Kresala: Borroka eta itxarote baten paralelotasuna** 361
1.1. Bi planotan egituratutako eleberria 363
1.1.1. Protagonista kolektiboaren gain eraikitako mataza: denbora zirkularra 365
1.1.1.1. Protagonismo kolektiboa 372

1.1.2. Protagonista indibidualaren inguruan harilduta-ko mataza: denbora espezifikoa 395
1.1.2.1. Protagonismo indibidualak 414
1.2. Kontalaria: geldirik dagoen denbora, artxidenbora .. 418
1.2.1. Kontalaria 419
1.3. Lekuen paralelotasuna 450
1.3.1. Itsasoa 451
1.3.2. Arranondo 456
1.3.3. Kontzientzia 462
1.3.4. Bilbo 466
1.4. Itsasoak markaturiko erritmoa 468
2. **Kresala: maitasun-historia batetik erlijiotasun transzendente baterako iraganbidea** 469
2.1. Denbora singularretik denbora zirkularrera 470
2.2. Denbora zirkularretik singularrera eta hemendik betikotasunera 475
2.3. Maitasun-historiaren egitura mitikoa 476
2.4. Folletoia egitura mitiko baterako osagai? 483
2.5. Egitura mitiko bat erlijiotasun transzendente baterako 486
2.6. Maitasun-historia, ohiturak, gogoetak: eleberri baterako osagaiak 492

IV. GAROA: KONTALARI BATEN EGINTZAN BERBALDI-ERREPIKAPENA 499
1. **Garoa: kontalari orojakile baten egintza bizimodu bat goresteko** 499
1.1. Kontalari filosofoaren berbaldi diskurtsiboa 504
1.2. Histori kontalariaren berbaldi narratiboa 526
1.3. Kontalaria-pertsonaia dialektika 539
1.3.1. Joanes euskaldunen bizimoduaren paradigma bakarra 544
1.3.1.1. Leku aldakaitzean bizi den pertsonaia 551
1.3.1.2. Denbora aldakaitzean bizi den pertsonaia 557
1.3.1.3. Pertsonaia-protagonista aldakaitza 561
1.3.2. Joanes euskal patriarkaren sinbolo 573

2. Garoaren jarraipena: kontalari orojakile baten nahia, korolario didaktikoa 588
2.1. Aurkakotasuna 589
2.2. Iterazioa 589
2.3. Hiperbolea 592
2.4. Elipsia 593

V. AGIRREREN NOBELEN POETIKA: POETIKA PRAGMATIKOA 597
1. Berbaldia enuntziazio legez 602
1.1. Kontalari orojakilea 603
1.2. Prozesuak ezabatzen dituen joskera 606
1.3. Aurkakotasuna: egoteko modua/iharduteko modua 609
1.4. Iteratzen duen anplifikazioa 613
1.5. Iruditegi topikoa. Mintzaira eskuragarria 616
1.6. Bilakaera nobeleskoa 620
2. Berbaldia enuntziatu legez 633
2.1. Pertsonaia lauak 635
2.2. Ruralismoa 642
2.3. Geldirik dagoen mundua. Mundu tinkoa 646
2.4. Mundu dikotomikoa 651
2.5. Euskaldunaren nortasun-agiria 654
3. Poetika pragmatiko baterako elementu erromantikoak 656

VI. ONDORIO GISA 663

VII. AGIRRE EUSKAL ELEBERRIGINTZAN 681
1. Agirre bide-irekitzailea 681
2. Eleberrigintza euskal letren panoraman 696
3. Euskal letren panorama zabalduz 713

VIII. ERANSKINAK 719
1. Auñemendiko Lorea. Lehen bi argitalpenen arteko hizkuntz desberdintasunak 719
2. Kresala. Lehen bi argitalpenen arteko hizkuntz desberdintasunak 734
3. Tomas Bermingham-ek Antonio Arzac-i igorririko eskutitza 750

IX. BIBLIOGRAFIA 753
1. **Atal bibliografikoaren atarian zenbait xehetasun** 753
1.1. Idazkera 753
1.2. Sailkapena eta mugak 757
1.2.1. Domingo Agirreren testuak 757
1.2.2. Beste zenbait egileren testuak 759
1.2.3. Domingo Agirreri buruzko azterketak 761
1.2.4. Beste zenbait azterketa eta azterbide 763
1.2.5. Aldizkariak 763
2. **Bibliografi zerrenda** 765
2.1. Domingo Agirreren testuak 765
2.2. Beste zenbait egileren testuak 771
2.3. Domingo Agirreri buruzko azterketak 790
2.4. Beste zenbait azterketa eta azterbide 795
2.5. Aldizkariak 835

0. AZTERGAIA: AUKERA-ARRAZOIAK

"'Conócete a tí mismo' es una prescripción que nos llega de la sabiduría antigua que, en nuestro caso, es 'conoce tu pueblo', esta entidad de larga tradición a la que debemos gran parte de lo que somos. Mas para conocer nuestro pueblo actual debemos atender a sus diversos aspectos sin considerarlos nunca como realidades aislables de su contexto humano global. Por eso no es bastante estudiar lo presente, sino que nuestra mirada debe comprender las etapas anteriores de esa realidad viviente que es nuestro pueblo. Porque es indudable que lo pasado gravita sobre nosotros. Debemos, pues, conocerlo, si bien, para lograrlo, habremos de reactualizarlo en cierto modo y vivirlo" (BARANDIARAN, J.M.; "Inauguración" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, 20. or.).

ETA AZTER-MODUA

"De modos diferentes se plasma una obra según sean las modalidades de ejecución (...), la manera en que se planea en relación con la tradición (...) y, finalmente, el público al que se dirige: aristocrático o popular, adulto o infantil, y quizá (no faltan ejemplos) masculino o femenino. Todo este abanico de posibilidades interfiere, como es obvio, en la constitución y el reconocimiento de los genéros (...). La destinación de la obra es, en suma, un factor activo, incluso y sobre todo en el plano formal" [BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. (con la colaboración de A. Blecua, A. Gargano y C. Vaíllo); **Introducción al estudio de la Literatura**, Editorial Ariel, Barcelona, 1988, 117. or.].

J. M. Barandiaranek irakurri zuen aurreko orrialdean aipatutako pasartea, Eusko Ikaskuntzaren IX. Biltzarrari hasiera ematean. Ondoren irakurri zen beste pasarterik ere, gure etorkizuna argitzekotan gure lehenaldia aztertu behar zela esanez (1).

"Domingo Agirre: euskal eleberriaren sorrera" deritzan azterlan honek ere gure lehenaldi hurbila arakatu nahi du; eta bidenabar orainaldiaren alderdiren bat argituko balu, gainezka beteko lituzke bere hastapenetako helburuak.

Aurreko mendean hasiko da euskal literatura fikzioaren esparrua eraikitzen; baina nekez, eskas eta urri helduko da uzta, ongarriztatu gabeko esparru batean legez, harik eta mende-bukaeran edo euskal lehen eleberrigilea itxura hartzen hasten den arte: Domingo Ascensión de Aguirre y Badiola (2), bere bataio-agiriaren arabera. Hiru

---

(1) "La clarificación de nuestros antecedentes próximos es sin duda una imperiosa necesidad crítica para alumbrar nuestro propio futuro". ECHENIQUE, P.M; "Inauguración" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, 25. or.

(2) Egile honen izen-deiturek har zitzaketen aldaera guztiak aurki daitezke bere eleberrien argitalpen desberdinetan. Hona hemen aldaera desberdinak:

Domingo Agirre-koak: "Auñemendiko Lorea" in **Euskalzale**, II, Bilbo, 1898.
Auñemendiko Lorea, Euskalzalen moldagintzan, Bilbon, 1898.
"Kresala" in **Euskal-Erria**, XLV, 1901; XLVI, 1902; XLVII, 1902; XLVIII, 1903; XLIX, 1903; L, 1904; LI, 1904; LII, 1905, San Sebastián.

Domingo de Agirre: "Garoa" in **Revista Internacional de los Estudios Vascos. Revue Internationale des Etudes Basques (RIEV)**, I, 1907; II, 1908; III, 1909; IV, 1910; V, 1911; VI, 1912, París.

Domingo Agirre: **Kresala**, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1906, 2-garren agerraldia.
Garoa, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1912.
Garoa, Arantzazu argitaldaria, irugarren agerraldi obetua, 1956.
Garoa, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 1966, laugarren argitaldia.
Kresala, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 1976, bostgarren argitaldia.
Garoa, Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 1981, bostgarren argitaldia.
Auñemendi-ko Lorea. La Flor del Pirineo, Editorial

eleberri eskainiko dizkigu honek, mende-mugan hasita. **Euskalzale**

Auñamendi, San Sebastián, 1966, 2. argitalpena, bi liburuki.

Domingo Agiŕe: **Garoa**, Euskaltzaleak, Beñat idaztiak, Donostia, 1935, bigaŕen ageŕaldi obetua.

Txomin Agirre: **Kresala**, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1954, 3'garren ateraldia.

Auñemendiko Lorea, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986. (Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano).

Kresala, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986. (Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe).

Garoa, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1987. (Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria).

Kresala, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak Saila, San Sebastián, 1988. (Edizio honen prestatzailea: Jon Arretxe).

Are gehiago: idazlearen izen-deituren idazkera aldatu ere egin daiteke liburuaren azaletik barneko aipamenera. Hau da, esate baterako, **Kresala**ren 3. argitalpenaren eta **Garoa**ren 4.aren kasua: lehenak "Domingo Agirre" dio azalean eta "Txomin Agirre" barnean (ik. Itxaropena Argitaldaria, Zarautz' en, 1954); besteak, berriz, "Domingo de Aguirre" azalean eta "Domingo Agirre" barnean (ik. Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1966). Hemen egindako aipamenetan barnean azaltzen dena jaso da.

Berak idatziriko artikulu edo beste idazlan batzu ikusita, are gehiago zabal daiteke galeria hau: "Domingo Agirre-kua" dute izenpen "Naikua juat" (ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 562-563. orr.) edo "Mariñela" (ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 525. or.) edo "Aritzari eta euskaldunei" (ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 376. or.) edo "Ipuia" (ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 145. or.) edo "On Pedro Novia Salzedo-kuaren jaiotzako lelengo eunkidan" (ik. **Euskal-Erria**, XXII, 53-55. orr.) poemek; eta bera hil ondoan argitaratutakoa bada ere, "Agiŕeko Domingo"-k euskaratua legez aurkezten da A. Campionen **La flor de Larralde**, hiru ekitalditako antzerki-testua (ik. CAMPION, A; "Larralde'ko Lorea" in **Narraciones Baskas, III**, Zabalkunde sorta, 11, San Sebastián, 1935, 78-133. orr.).

Aldaera hauek gehitu egiten dira idazle honi edo bere idazlanei eskaini zaizkien azterlan edo iruzkinetan. Adibide gisa: "Agiŕe'taŕ Domeka"-ri buruz dihardu G. Manterolak (ik. MANTEROLA'TAR, G.; "Agiŕe'taŕ Domeka'ren gorasaŕeari buruz. Agiŕe euskeltzale" in **Yakintza**, II, 1934, Donostia, 323. or.) edo-ta "Agiŕe'taŕ Domeka"-ren **Garoa**ri buruz dihardu "bigaŕen ageŕaldi obetuaren" iruzkin labur bat egiten duen norbaitek (ik. **Euzkerea**, marzo-abril, 1935, 520. or.) eta "Domingo de Agiŕe"-ren **Garoa**ren argitalpen berdinari buruz besteren batek (ik. **Euzkerea**, enero-febrero, 1935, 448. or.) eta "Domingo de Agirre"-ri buruz J.M. Ojarbidek [ik. MUJICA, G., (J.M. de Ojarbide); "Figuras contemporáneas, Domingo de Agirre" in **Euzkadi**, urtarrilla, 28'na egubaztena, Bilbao, 1920]; eta "Domingo Aguirre" aldaera ere aurki daiteke (ik. "Lo que escribió

aldizkariak antolaturiko sariketa literario batean epaimahaiak irabazletzat jo zuen **Auñemendiko Lorea** (3) da lehenengoa. Idazketaren

'Araxes' a la muerte de D. Domingo Aguirre" in **Boga-Boga**, enero-junio, Ondárroa, 1964).

Izen-deituren idazketan —eta izen-deituren idazketan ez ezik baita hainbat idazlanen tituluetan ere— ez da Agirre arazo hauek sortzen dituen bakarra; aitzitik, guztiz nabaria da "aldaera" desberdinen erabilera bere garaiko idazleengan —eta hauen idazlanen izenburuetan—; eta gainera gaur egunerarte heltzen da arazoa. Hizkuntza normalizatu, arautu eta ofizialdu gabeak sortutako eragozpenen ispilu gardena da. Egoera honen aurrean, idazkera bakar bat hautatu dugu Agirre eta bere idazlanen aipamenerako: Domingo Agirre, D. Agirre, Agirre. Bere lehen bi eleberrien lehen argitalpenen arabera, "D. Agirre-ko" izendapena ere egokia zatekeen, berak bere burua izendatzeko zerabilen modua errespetatuz; baina aukera hau konplexutasun-iturri bihurtzen zen morfologi mailan; izan ere, desitxuraturik gelditzen da izena, deiturak lehendik zeukan atzizkiari esaldiaren joskerak hainbat kasu-atzizki eranstea eskatzean. Dena den, "Domingo Agirre" izen-deitura ere erabilia zuen aipatu bi eleberrien lehen bi argitalpen horien aurretik. **Auñemendiko Lorearen** eskuizkribua —**Riktrudis** izenburua daramana— Domingo Agirre abadeak egina da.

(3) Nahitaez erabaki beharrekoa da eleberri honen azterketarako zein argitalpen erabili. Bada arrazoirik lehen argitalpena hautatzea gomendatzen duenik: **Euskalzale** aldizkariak 1898.ean atalka-atalka egin zuena, hain zuzen ere; agerian bait dago argitalpen horrek zenbait "zuzenketa" ezagutu zuela —Agirrek berak eginak edo beste norbaitek (R.M. Azkuek?)— urte berean Euskalzale moldagintzan egindakora (ikus 1. Eranskina). **Euskalzale** aldizkariak zerabilen idazkera-modura batzeko zenbait egokitzapen ortografiko ere izan zezakeen —**Euskalzaleri** buruz diharduela honela diotsa Chomin-ek R.M. de Azkueri 1897.eko urtarrilaren 6an igorritako eskutitzean: "Revista y baskongada y bizkaina y con ortografía que el pueblo no conoce todavía..." (ZUBIKARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, Bilbao, 1969, 540. or.)—. **Euskalzalek** berak ezarritako arau ortografiko batzuri jarraiki, modu bateratuan kaleratzen zituen ale desberdinak. Atal bibliografikoan ikusi besterik ez dago nola aldatzen zen **Euskalzale** aldizkarian argitaratzean euskal festetan saritutako leienden tituluen ortografia edo-ta idazleen izen-deiturena beraiena. Euskal festetako oroimengarrietan edo **Euskal-Erria** aldizkarian modu batean idatzita dauden izen-deiturek, tituluek eta testuek **Euskalzale** aldizkaria bihurtzen denean argitalpen-leku ortografi aldaketak jasaten dituzte. Hala ere, ortografi aldaketez kanpo, gainontzean Agirreren izkribua orpoz orpo jarraiki eginikoa izan daiteke **Euskalzale** aldizkariak eginiko argitalpena; izan ere, ez dirudi zuzenketetarako abagadune handiegirik gelditu zenik eleberria saritu zutenetik argitaratzen hasi zen arte: 1898.eko urtarrilaren 1eko datarekin "Chomin"-ek R.M. de Azkueri igortzen dion eskutitzean bere **Riktrudis** eleberriaz itauntzen dio (ik. ZUBIKARAY, A. de; op. cit., 545. or.), 1898.eko urtarrilaren 6aren datarekin argitaratzen den astekariaren alean ematen da ezagutzera sariketaren emaitza (ik. **Euskalzale**, II, 1898, 8. or.) eta hurrengo aleak berak, urtarrilaren 13koak, argitaratzen du K.

denboratik aitzinatera begira garai historiko bat —VII. mendea— eta

---

Echegarayk eleberriari jarritako hitzaurrea (ik. **Euskalzale**, II, 1898, 12-13. orr.) eta hurrengoa, urtarrilaren 20koa, azkenik, **Auñemendiko Lorearen** lehen kapitulua eskainiz hasten da (ik. **Euskalzale**, II, 1898, 19-20. orr.). Honek ez du esan nahi Agirrek bidalitako izkribua hark bidali bezala argitaratu zenik nahita-ez; atalka-atalka argitaratzen zenez, asteroko maiztasunarekin, bazegokeen astirik tarte horietan zuzenketak egiteko. Baina baldintza hauek ez dirudite zuzenketak egiteko erosoenak; ezta aproposenak ere. Dena den, ez da espekulatzeko kontua, aztertzekoa baino. **Euskalzale** aldizkariak eginiko argitalpenaren eta **Riktrudis** eskuizkribuaren arteko alderaketak eskain dezake argirik.

Liburu gisa argitaratzean atalkako argitalpenarekiko alde nabarmenekin kaleratzen da. Bien bitartean norbaitek "orraztu" egin du testua. Beharbada Agirrek berak. Oso arriskutsua eta arinkeria hutsa izan daiteke R.M. Azkue edo izan zela esatea, beste oinarririk gabe. R.M. Azkueri egotzi izan zaio zenbait zuzenketaren egiletza; hala nola, esate baterako, bere aita E.M. Azkueren eskuizkribuak **Parnasorako Bidea** poema-liburuan argitaratzean eginikoak. N. Alzolak argitara eman zuen E.M. Azkuek 1861. urtean, Bonaparte printzeari bidalitako "Dies irae" kantaren itzulpena (eta eskutitza) —ik. ALZOLA, N.; "XIX'garren gizaldiko euskal izkribuak. Eusebio Maria Dolores de Azkue euskal olerkariak Bonaparte printzipearendako Bizkaiko euskalkira itzuli zuen 'Dies irae'" in **Euskera**, IV, 1959, 57-62. orr.—. R.M. Azkuek aitaren **Parnasoko Bideari** eginiko hitzaurrean esanikoek hartarako bide ematen zutelarik, ez da testu-alderaketarik falta izan, ezta aldaketen egiletasuna semeari egotzi dionik ere. Fr. L. Villasantek honela dio: "Es de advertir que el lenguaje de las poesías, tal como fueron publicadas, ha sido retocado y alterado por el editor, es decir, por el propio D. Resurrección. Las copias que se conservan en el archivo de los franciscanos de Zarauz, así como el predicho libro inédito **Poesía Bascongada** del P. Uriarte, nos ofrece textos auténticos de muchas de las poesías que figuran en **Parnasorako Bidea**". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, Editorial Aránzazu, Burgos, 1979, (berrikusi eta osaturiko 2. argitalpena), 273. or. I. Lakak, bere aldetik, aztertu ditu **Parnasorako Bidea** liburuan baino hamasei urte lehenago J. Manterolaren **Cancionero Bascon** argitaratutako E.M. Azkueren poemak. Horiek alderatu eta desberdintasunen berri eman du honako ondorio honetara helduz: nahiz eta R.M. Azkuek **Parnasorako Bideari** eginiko hitzaurrean esan "Gaurrko iraskeran erakutsiko dodaz beren erezkaiak; eta berak erakutsiriko errderakada bat edo beste euskerazkotuta agerrtutea ona izango da" (ik. AZKUETARR, R.M.; "Arrgibidea" in AZKUETAR, E.M.; **Parnasorako Bidea**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1979, 17. or.), "Bertsio biok alderatuz gero, **errderakada bat edo beste** baino gehiago zuzentzen duela Azkue semeak begi bistan azaltzen zaigu". LAKA, I.; "Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz" in **Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo"**, XIX-1, Donostia, 1985, 219. or. Eta J. Kortazarrek: "Jakina denez, Eusebio Azkueren lana bere semeak, Resurreccion Mariak, argitaratu zuen **Parnasorako Bidea** titulupean, baina bere kasa hainbat aldaera eginaz". KORTAZAR, J.; "Sarrera" in URIARTE, J.A.; **Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino**, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987, (J. Kortazar, M. Billelabeitiak prestatutako edizioa), 10. or. L. Akesolo

gertaera historiko bat —fede zaharra utzi eta kristau federako bidea hartu— aurkituko du. Auñemendi mendiak ditu gertaleku eta bertako lorea protagonista. **Kresala** (4) da bigarrena, Auñemendi mendiak

---

ez dator bat R. Azkuek bere aitaren poemak "ondo orrazturik" argitaratu zituela dioten azalpen hauekin eta, jadanik azaldurik zuen ildotik [ik. AKESOLO, L.; "Azkue aita-semeak. (Jorratzaile batzuk jorratzen)" in **Karmel**, 2, 1979, 26-37. orr.] honela mintzatu da oraintsu: "Azkue aitak bere bertsoen kopia asko zaldu zituela, eta asko oso ezberdinak. Etzan, antza, bein eginiko lanaz oso aserik gelditzen, eta urrengo kopietan ikutu barriak egiten eutsezan eta goiti bera aldaturik itxi". AKESOLO, L.; "Azkue aitasemeak aurrez aur barriro: Parnasorako Bidea eta Poesía Bascongada" in **Karmel**, 4, Bilbao, 1988, 9. or. Dena den, E.M. Azkueren idazlanarekin gertaturikoa eta D. Agirreren **Auñemendiko Lorea**rekin gertaturikoa ez dira agian alderagarri, testu-tipo desberdinak izatean (L. Akesolok dioena, esate baterako, poema-mailan ulergarria izan daiteke, baina ez eleberri-mailan: nola zabaldu eleberri baten kopia asko eta oso desberdinak?). Ez diezaiogun, bada, beste daturik gabe behintzat, R.M. Azkueri agian bete ez zuen eginkizun bat lepora: **Auñemendiko Lorea** orraztu. Hau Euskalzale moldagintzan argitaratu zen liburu gisa, R.M. Azkuek zabaldutako inprimategian (ik. ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección M. de Azkue**, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Colección "temas vizcaínos", año IX, n.ºs 103-104, Bilbao 1983, 52. or.); Azkue eta Agirre adiskide eta lankide ziren, euskararen inguruko auzi-mauzietan jokabide bateratua azaldu zutenak (elkar hartuta azaldu zirenak)...; baina, jakina, honek, besterik gabe, ez du esan nahi R.M. Azkuek **Auñemendiko Lorea** orraztu zuenik.

Atalka-atalka egindako argitalpenetik liburu gisa egindako lehen argitalpenera bada zenbait desberdintasun nabarmen, aldaketa ortografikoez harantza: morfologi mailako, joskera-mailako, nahiz lexiko-mailako (hitzak aldatzen dira) (ik. 1. Eranskina).

Dena den, argitalpen hauetako edozein hautatzeak deserosotasuna besterik ez zekarrenez, argitalpen berriago baten erabilerara jo da: Auñamendi argitaletxeak Donostian 1966. urtean egindakora.

Ez da egin orain artean **Auñemendiko Lorea**ren edizio kritikorik; horrelakorik izan bazen, hori hautatuko zen. Eta azterlan honetan ere **Auñemendiko Lorea** aztertzera hurbiltzean hartuko den ikusgunea ez da kritika testualarena izango.

Euskalzale aldizkariak eginiko argitalpena hautatzeak bazuen alde txarrik: aldizkari bateko ale desberdinetan zehar atalka-atalka argitaratu den testu batek aztergai bihurtzeko dituen desabantailak; horrezaz gain, liburu gisa ezagutu zuen argitalpenaren eragozpen berdinak ere bazituen: eskuragaiztasuna.

Edizio kritiko baten gabezian, eta kritika testuala egitea asmo bihurtu ez delarik, eskuragarriago zen argitalpen baten erabilerara jo da.

(4) **Kresala** eleberria aztertzeko testu-aukera egitean, **Auñemendiko Lorea**rena hautatzean jarraituriko erizpideen arabera argitalpen eskuragarri bat hautatu da: Arantzazuko frantziskotar argitaldariak, Oñatin, 1976. urtean eginiko bostgarren argitaldia.

eta bertako Lorea ez baina Arranondo itsas herria eta beste lore bat gai duena; eta **Garoa** (5) hirugarrena, mendi eta itsas herria utzi eta baserria eta bertako etxejauna aurkeztuko digun eleberria. Eleberri historikoarekin hasi, ohiturazkoekin jarraitu eta berriro ere eleberri historikora itzuli. **Ni ta ni** izenburutzat zeramana ere argitaratzen hasia zen, baina hastapen-hastapenetan utzi zuen (6).

Dena den, **Kresalari** dagokionez, lehen bi argitalpenak alderatu dira: **Euskal-Erria** aldizkariak eginikoa eta "2-garren agerraldi" moduan Florentino Elosuren etxean eginikoa (nahiz eta honek berez lehen argitalpena izan beharko zukeen; izan ere, **Euskal-Erria** aldizkaria ez bait zen eleberri osoaren argitalpena eskaintzera heldu), eta aldeak nabarmentzen dira (ikus 2. eranskina). Baina alde hauek ez dira **Auñemendiko Loreak** urte berean ezagutu zituen bi argitalpenen artekoak bezain "sakonak", nekez ukitzen bait dute morfologiaren edo joskeraren edo semantikaren alorra, salbuespenen batean ez bada. Bi argitalpenen alderaketak erakusten du aldeak soil-soilik ortografi mailara mugatzen direla praktikan.

Aurreko oin-oharrean bertan aditzera eman da: **Euskal-Erria** aldizkariak euskarazko idazkietan jarraitutako eredu ortografikoa ez da **Euskalzale** aldizkariak ezarri zuena bezalakoa. Eta ezinbestez sortzen da galdera gertaera honen konstatazioaren ondoren eta aurretik egin diren oharren argitan: Agirrek berak edo-ta beste norbaitek "egokitu" zuen **Auñemendiko Lorea Euskalzale** aldizkariaren ortografi eredura?, Agirrek berak edo-ta beste norbaitek "egokitu" zuen **Kresala Euskal-Erria** aldizkariaren ortografi eredura? Baina argi eta garbi gelditzen da **Auñemendiko Loreak** askoz ere aldaketa gehiago eta sakonagoak jasan zituela Bilboko **Euskalzale** aldizkaritik Euskalzale moldagintzara (R.M. Azkuek zuzentzen zuenera, hain zuzen ere), **Kresalak** Donostiako **Euskal-Erria** aldizkaritik Durangoko Florentino Elosuren etxera jasan zituenak baino. Zergatik?

(5) Agirreren eleberriak aztertzeko argitalpenaren alorrean jarritako erizpideak jarraiki, **Garoaren** argitalpen eskuragarri batera jo da, eleberri honetaz egin diren argitalpen "obetuetatik" urrunduz bereziki. Honako hau hautatu da: Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, Oñati, 1981, bostgarren argitaldia.

Nahiz eta Agirreren bi lehen eleberrien lehen bi argitalpenen alderaketa aurkeztu eranskin-mailan, ez da egin beste hainbeste **Garoarekin**. Jadanik azaldu denez, azterketa-lan honen helburua ez da eleberrien kritika testuala egitea; ezta argitalpen kritiko baterako urratsak ematea ere. Eranskin horiek honako hau besterik ez dute bilatzen: garai honetako euskal idazkien idazkera-modua mundu gotor batean finkaturik egotetik urrun daudenaren lekukotasuna uztea, Agirre bera —aztergunea— eredu hartuz.

(6) **Euskal Esnalea** aldizkaria hasi zen atalka-atalka argitaratzen: hiru emanalditan barrena bi kapitulu eman zituen ezagutzera. Ikus **Euskal-Esnalea**, VII, 1917, 169-173, 200-203, 210-215. orr. Argitaratze-lanari hasiera ematean aditzera ematen duenez, oraindik bukatu gabe dauka D. Agirrek eleberri hau: "Ez du bukatu, baña nolakoa izango dan gure irakurleak jakin dezaten, zati bat eskatu genion, ta bi bidaldu dizkigu; lenbizikoa eta bigarrena" (ik. **Euskal-Esnalea**, VII,

Hastapen hauetan oin harturik mende erdi luzez eleberria eginez joango den ibilbidea ere ez da askoz erosoagoa gertatuko; urria izango bait da uzta (7); urria eta homogenoa eta uniformea (8).

Ondoko lerroetan fikzioaren lehenaldia dugu aztergai: lehen-lehenik fikzioaren hastapenen antolamendu-modua aztertuko dugu, ondoren lehen eleberrigilearen eleberrien deskripzioari ekingo diogu

---

1917, 169. or.). Beraz, **Auñemendiko Lorea** amaitu ondoren atalka-atalka argitaratutako eleberria bada ere, ez horrela **Ni ta ni**, bukatu aurretik argitaratzen hasitakoa eta bukatu gabe utzia.

(7) D. Agirrek bere lehen eleberria argitaratu zuenetik —1898— Txillardegik **Leturia-ren egunkari ezkutua** —1957— bere lehen eleberria argitaratzen duen arte hamazazpi eleberri edo eleberri izena eman dakiekeen testu besterik ez dira argitaratzen. Horietako bat —P. Lhanderen **Yolanda** oso laburra eta eleberrigile honen bakarra— lehenik frantsesez idatzia; besteren bat —R.M. Azkueren **Ardi galdua**— eskutitz-multzo batez osatua; besteren batengatik —J. Barbier-en **Piarres**-engatik—, berriz, honako hau esan da: "En fin, un corpus de etnología vasca con aire de novela" (ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 305. or.). Eleberriari izaera proteikoa egotzi bazaio ere [ik. BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO C. Y COLAB; (BLECUA, A.; GARGANO, A.; VAILLO, C.); **Introducción al estudio de la Literatura**, 236. or.], ez dago ukatzerik antzerkiarekin zorretan legokeela besteren bat: J. Eizagirreren **Ekaitzpean**. Azterlan hau idatzita zegoela, R.M. Azkueren **Latsibik** ikusi du argia lehen aldiz —ik. AZKUE, R.M.; **Latsibi**, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989 (Edizio-prestakuntza: Mirari Alberdi, Labayru Ikastegiko 'Mikel Zarate' Mintegia)—. R.M. Azkuek berak "gertirudi edo nobelatxo" moduan aurkeztu arren, egin den argitalpenaren azalean (solapan) bertan "podría ser calificada de 'novela' aunque con algunas restricciones" dio. Beraz, ezin esan ia hirurogei urte horien buruan euskal eleberrigintza emankorra izan denik.

(8) Adostasuna nagusitzen da euskal eleberrigintzaren eraberritzea Txillardegik eta Ramon Saizarbitoriak ekarri dutela esatean: "En esa provisional historia de la literatura vasca que se está haciendo en los últimos años, hay unanimidad en señalar a Txillardegi seudónimo de José Luis Alvarez Emparanza y Ramón Saizarbitoria como los primeros protagonistas de ese aire renovador que recorre la narrativa vasca de los últimos veinticinco años" [ik. LASAGABASTER, J.M.; "Introducción a la narrativa vasca actual" in **Antología de la narrativa vasca actual**, Edicions del Mall, Barcelona, 1986, (Testu-aukera eta hitzaurrea: J.M. Lasagabaster), 17. or.]. Eta adostasun hau dela bitarteko ezarri da aurreko oin-oharrean 1957. urtearen muga eraberritze-giro hau markatzeko, giro berri honen adierazle den lehen eleberriaren tituluaren bidez.

Azterlan honetan atal bat eskainiko zaio Agirre bere eleberrigintza garatzen ari den garaian eta bere ondoren egiten den eleberrigintzari. Aipatu atal honetan adieraziko da nola eleberrigintza honek Agirrek markaturiko koordenaden barnean egiten duen ibilbidea, harik eta esan bezala mende honen bigarren erdiaz geroztik eraberritze-bidea hartzen duen arte.

eta gero, deskripzio horiek abiapuntu, lehen eleberrigile horrek eraikitako habe eta zutabeak adierazten doazen munduaren berri emango dugu. Azkenik, labur-labur ikusiko dugu lehen eleberrigile honek eraikitako munduak euskal eleberrigintzan lortu duen oihartzuna; horrela jarriko diogu amaiera mende t'erdian euskal fikzioaren esparruan egindako ibilerari.

Domingo Agirreren nobelagintza arakatzea izango da xede.

Ez dira ondarrutar idazle honi eskaintzen zaizkion lehen lerroak; ezta gutxiagorik ere. Euskal literaturari buruz idatzi diren historietan jaso dituen aipamenez gain, azpimarkagarriak dira 1920. urtearen inguruan eta 1964.aren inguruan egindakoak. Baina literatur obra batek ez du esanahi bera ez garaiko irakurle nahiz kritiko guztientzat, ez urte batzu geroago aztergaitzat har dezaketenentzat (9).

Azterketa-lan honek aurrerago zehaztuko den gaian, eta batipat gaia erabiltzeko moduan, ekarriren bat egitea bilatuko du.

Nahiz eta azterlari gehientsuenek (garaikideek eta beranduagokoek) euskal prosaren historian Agirre modu batera edo bestera kokatu, ezin ukatu K. Otegik esana **Garoari** buruz ari dela:

"Azken aldi hontan, alabaina, akatsik asko ari zaio egozten" (10).

Eta zinez, badirudi azken aldi honetan, ia bere lehen eleberriaren mendeurrenaren atarian —hain hurbil eta hain urruti—, ez duela bere garaikideen artean sortu zuen mirespenik eragiten.

Agirreri eta honen idazlanei buruz egin den kritikak hainbat auzi harrotu ditu, baita zenbaitetan epaiak eman ere; hala nola, esate baterako, bere eleberrietan gailenena zein den auzi bihurtu denean:

---

(9) D.W. Fokkema eta E. Ibsch-ek honela diote R. Barthes-i jarraiki: "La literatura es un sistema funcional en el que 'un término es la constante (la obra) y otro es la variable (el mundo, la época de la obra). El componente variable es la reacción o respuesta (réponse) del lector que trae a la obra su historia, su lengua, su libertad. La historia, la lengua y la libertad están en flujo constante; las reacciones son infinitas; la obra como pregunta (como desafío) queda, las interpretaciones en cambio fluctúan". FOKKEMA, D.W.; IBSCH, E.; **Teorías de la literatura del siglo XX**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1981, 77. or. (Aipamenak ez du ixten ireki duen komatxoa).

(10) OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1976, 71. or.

batzurentzat **Garoa**, beste batzurentzat **Kresala**; eta bada **Auñemendiko Lorea** onentzat jo duenik ere.

Baina azterlan honen helburua ez da Agirreren eleberrietan zein den hoberena erabakitzea, ezta Agirreri euskal literaturan merezimenduz dagozkion tokia eta tratamendua zehaztea ere. Xumeagoa da jomuga, eta honela laburbil daiteke: D. Agirreren mundu nobeleskoa arakatzea, mundu nobelesko honen lerro nagusiak zehaztea idazlea bere garaian kokatuz, irakurlegai batekin harremanetan, euskal fikziozko prosaren hastapenetan. Beraz, Agirrek idatziriko eleberrien deskripzio soila baino harago joan nahi da: nobela bakoitzak bere batasunean eta osotasunean eta bukatu zituen hiru eleberriek batera eratzen duten orobatasunaren bila, historiaren argitan eta garaiarekin elkarrizketan, ikuspegi partzialak (nobelaren aspekturen bati dagozkionak, kapituluren bati, etab.) eta intrintseko hutsak baino harago lekutuz.

Literaturaren atal bat, fikzioarena, dator orrialde hauetara. Eta ez da prezeski euskaldungoak gehien landu duen atala; ezta arretarik handiena erakarri duena ere. Baina eman ditu fruitu konkretu batzu, eta fruitu hauek aztertuko dira sortu zireneko soroan kokatuz.

Hasi aurretik, zehaz ditzagun alderdi metodologikoak. Bi ikuspegi nagusik eskainiko diote euskarria egingo den planteamenduari: batetik, denboraren ikuspegia edo dei diezaiokegunak; bestetik, planteamenduari jartzen zaion markoak.

Denboraren ikuspegi horretan, aldiberekotasunaren ardatzean eta jarraipenaren ardatzean (11) lekutuko da aztergai den gertaera literarioa. Markoaren ikuspegi horretan, berriz, gertaera literario hori sortzen deneko testuinguru-egoeran (12) lekutuko da lehen-lehenik,

---

(11) Honela mugatzen ditu F. Saussurek bi ardatz hauek: "**eje de simultaneidades** (AB), que concierne a las relaciones entre cosas coexistentes, de donde está excluida toda intervención del tiempo, y 2.º, **eje de sucesiones** (CD), en el cual nunca se puede considerar más que una cosa cada vez, pero donde están situadas todas las cosas del primer eje con sus cambios respectivos". SAUSSURE, F. de; **Curso de Lingüistica General**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1973, 12. argitalpena, 147. or.

(12) Testuinguru-egoera zedarritzerakoan honela dio J. Lyons-ek: "Toda expresión (hablada) aparece en una determinada situación espacio-temporal que incluye al hablante y al oyente, las acciones que ellos realizan en el tiempo y diversos objetos y acontecimientos externos". LYONS, J.; **Introducción en la Lingüistica Teórica**, Editorial Teide, Barcelona, 1975, 426. or.

hau da, idazlanak dakarren komunikazioa garatzen deneko leku-denborazko koordenadetan —komunikazio horren igorle eta hartzaileak barne—, baina marko konkretu horren mugaz gaindiko alderaketa baztertu gabe.

Beraz, bi bitartekok lagunduko dute marko orokorragora eramango duen bidea urratzen: batetik, azterketa sinkronikoak eta diakronikoak eta, bestetik, aztergai den gertaera literarioaren koordenada bereziak izan daitezkeenak eta koordenada berezi hauen kokaketak. Izan ere, idazlanak bizitza independente hutsa ez duenez, azterketa sinkroniko soilak ez bait luke ahalmenik idazlan konkretu horrek beste idazlan batzurekin izan ditzakeen harremanen berri emateko (13); bestetik, berriz, bai bait dirudi sinboloak, mitoak, estiloak, estetika eta filosofiari buruzko ikuspegiak, teknikak... ibiltari bihurtzen direla sortu direneko mugak gaindituz.

1. AZTERKETA SINKRONIKOA

D. Agirreren eleberriak aztertu eta deskribatuko dira. Eta eleberri bakoitzaren deskripzioak eskainiko du Agirrek sortutako mundu nobeleskoa karakterizatzen duen ezaugarrien berri emateko aukera (14). Banan-banan eginiko deskripzioetatik helduko da ikuspegi orokorra; izan ere, nahiz eta idazlan bakoitza autonomoa izan maila

---

(13) "Pero es una ilusión creer que la obra tiene una existencia independiente. Aparece en un universo literario poblado de obras ya existentes y a él se integra. Cada obra de arte entra en complejas relaciones con las obras del pasado que forman, según las épocas, diferentes jerarquías". TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, 157. or.

(14) "La tarea de conocer el estilo individual del escritor —independientemente de toda tradición, de toda obra contemporánea y en su totalidad como sistema lingüístico— y su organización estética debe preceder a toda investigación histórica. No se puede dar indicaciones precisas sobre el lazo que une al artista con las tradiciones literarias del pasado, sin hacerlas preceder de una descripción exhaustiva de las formas estilísticas y de sus funciones, sin una clasificación de los elementos del estilo. La descripción y la clasificación son por supuesto estáticas". VINOGRADOV, V.V.; "Sobre la tarea de la estilística" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, (Tz. Todorov-ek aurkeztu eta prestaturiko antologia), Siglo Veintiuno editores, México, 1980, laugarren argitalpena, 81. or.

batean, bai bait du kidetasunik besteekin (15), egile berberaren sortze-lana izaki.

Eleberriak, testuak, hauen antolamendu-modua zedarritzea bihurtuko da lan honen helburu, eta metodo-mota intrintsekoen laguntzara joko da bereziki horretarako, baina metodo-mota intrintsekoen ekarpen soilera mugatu gabe (16), eleberriek osatzen duten hitz-ore horren eraketa-modu (17) posible baten azalpenera murriztuko ez den neurrian azterlana. Izan ere, ondoko lerroak ez dira laburtuko Agirreren eleberriak goberna ditzakeen harreman-sare modu bat atzematera, baizik eta metodo estrintsekoen laguntzara joz, eleberritatik at lekutuz, eleberri horien taxutze-moduan eragin zezaketen hainbat faktore estratestual ekarriko dira bertara: gizartea, hizkuntza, testu-igorle eta testu-hartzaileak...

Hurbilketa-modu inmanentea hautatuko dugu testuak deskribatzeko eta beronen mugen ezagutzaile izanagatik (18) inmanentziaren

(15) "Sin embargo, aunque sólo se tengan en cuenta estos objetivos del análisis estilístico no se puede admitir el aislamiento total de una de las obras literarias de un artista de las otras obras del mismo. Todas las obras del poeta, a pesar de la unidad interna de la composición y por lo tanto de su autonomía relativa, son manifestaciones de una misma conciencia creadora en el curso de un desarrollo orgánico". VINOGRADOV, V.V.; "Sobre la tarea de la estilística" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**", 81. or.

(16) Metodo-mota intrintseko soilaren erabilera aldarrikatzen duten ikuspuntu batzuren oinarrian behintzat W. Shumaker-ek laburtzen duen honako planteamendu hau dago: "La obra de arte literaria (se alega) debería ser analizada como una estructura, con la menor confianza posible en la información externa. Lo que cuenta en primer lugar es lo que es, no lo que llegará a ser; además lo que es en tanto que organismo autosubsistente y autónomo, no como parte de algún cuerpo mayor de experiencia que lo contenga". SHUMAKER, W.; **Elementos de teoría crítica**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, 73. or.

(17) Pragako Zirkulu Linguistikokoek egindako azalpenak jarraikiz, elkarrekin harreman hertsitan dauden unitate linguistikoz eraikitako tramankulua da mintzaira poetikoak bideratutakoa. Ikus TRNKA, B.; MATHESIUS, V.; TRUBETZKOY, N.S.; VACHEK, J.; JAKOBSON, R.; **El Círculo de Praga**, Editorial Anagrama, Barcelona, 1971. (Edizio-prestatzailea: J.A. Argente).

(18) Honela dio Tz. Todorov-ek: "Al leer se traza una escritura pasiva; se agrega y se suprime en el texto leído aquello que se quiere o no encontrar en él; desde el momento en que existe un lector la lectura ya no es inmanente". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1975, 19. or. Ebidentzia hutsa da literatur idazlanak, irakurle batengan, subjetu

barnean adierazi barne-antolamendu hori, nahiz eta honek ez duen ukatzen noiz edo noiz azalpenaren harian, egitura horren deskripzioak berak hizpidea sortuta, testutik at lekutzen den elementuren bati erreferentziarik egingo ez zaionik, baina beti ere testua bera delarik abiapuntu eta abiapuntu honek iradokitako erreferentzi moduan.

Dena den, hurbilketa-modu transzendentea ez zaio arrotza izango azterketa-lanari, testu horiek sortzen direneko eta esanahidun bihurtzen direneko testuingurua —sozio-politikoa, hizkuntzazkoa, testuala, eta abar— hona ekarriko den neurrian eta sustantzia formalizatu hori (19) koordenada horien barnean, eta orohar leku testualetik at kokatzen diren zeinu-multzo desberdinekin harremanean jartzen den neurrian.

Badirudi edozein aurkezpen metodologikotan nahitaezko bihurtu dela, batetik, metodoa aztergai diren idazlanei egokitzen zaiola baieztea eta, bestetik, idazlana ez dela metodo baten frogaleku bihurtzen esatea. Baiezpen topikoa izan ala ez, aztergunera hurbiltzeko egokia izan zitekeen aukera metodologikoa egitea bilatu da.

Eskola eta korronte kritiko desberdinen ekarriak bihurtuko dira azterketa-tresna, nolarebait eklektiko samarra izan daitekeen metodoa egokia izan daitekeelakoan; baina, dena den, habe jakinak dituen metodoa erabiliz.

Hemen hartuko den abiapuntu teorikoa honako hau da: literatur idazlana testuinguru-egoera batean igorle (egilea) eta hartzaile (irakurlea) baten arteko komunikazioa da.

Honenbestez, eta metodologiaren deskripzioak hala eskatzen duenez, esan dezagun laburbilduz oinarrian badagoela testuen teoria bat eta komunikazio eta testuinguru literarioen teoria bat (20).

---

batengan, "gauzatu" behar duela eta, honenbestez, irakurketa ezin izan daitekeela inmanentea.

(19) Errusiar formalisten planteamenduari jarraituz, arte-lana sortze artistikoaren une beretik sustantzia formalizatua da. Ikus ERLICH, V.; **El formalismo ruso. Historia-Doctrina**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1974; nahiz GARCIA BERRIO, A.; **Significado actual del formalismo ruso**, Editorial Planeta, Barcelona, 1973.

(20) T. Van Dijk-i jarraiki: "**Una teoría empíricamente adecuada de la literatura** tiene al menos dos componentes principales: **una teoría de textos literarios** y una teoría de la **comunicación y el contexto literarios**, teorías que están, claro, sistemáticamente relacionadas". VAN DIJK, T.; **Estructuras y funciones del discurso**, Siglo Veintiuno editores, México, 1980, 117. or.

1.1. TESTUEN TEORIA

Kritika Berria deiturikoa abiapuntu, lehenik eta behin **ikuspuntu** bat hartuko da Agirreren eleberrietara hurbiltzerakoan. Eta ikuspuntu horretan oinarrituz aztertuko da eleberri bakoitza eta eleberri guztiak. Hartutako ikuspuntu hori ikuspuntu estrukturalista da; eta, honenbestez, eleberri bakoitza egitura-moduan joko da, baita bere eleberri-bilduma ere.

Narratologia estrukturalista landu duten kritiko-teorikoak oinarri —Propp, Bremond, Greimas, Todorov, Genette...—, elkarrekin harreman hertsitan dauden unitate linguistiko horiek bitarteko, berbaldia eratuz doan narrazio-kodea atzemango da, inmanentziaren erregela gordez maila batean bederen.

Ikuspuntu honek eraikiko du eleberrien deskripzioaren bizkarrezurra. Baina honek ez du esan nahi deskripzioak narratologo estrukturalisten esanen aplikazio mekaniko eta hutsera mugatuko direnik. Deskripzioaren harian korronte soziologikoak nahiz besteren batek idazlanera hurbiltzeko eskainitako tresnak erabiliko dira, baina beti ere osagarri-moduan, bizkarrezurra eratuz doan ikuspuntu horren osagarri-moduan. Izan ere, Kritiko Berriek aldarrikatzen zuten moduan ez bait dago super-kritikarik egiterik, metodo desberdinak justajarriz (21), ikuspuntu edo ikusgune desberdinak batuko lituzkeenik.

Ikuspuntu hau bide, egitura aztertuko da. Elementu desberdinen arteko harremanak eta beraien arteko funtzionamendua ulertzea bilatuko da, honako baldintza hauek betetzea eskatuz:

—Eleberriaren osotasun eta batasunaren berri emateko gaitasuna. Hau da, agerian jarriko da idazlanaren barne-artikulazioa, eta horretarako zatikatu eta atalkatu egingo da batasun bat

(21) "Si l'on pouvait additionner les perspectives et juxtaposer les méthodes pour arriver à une vérité totale, tout serait simple; si l'on pouvait, en superposant des structures partiellement cohérentes, prélevées à des niveaux significatifs différents, aboutir à une structure globale et à une cohérence entière, on pourrait charger une 'super-critique' de ce travail d'intégration. Malheureusement, il n'y a pas plus de super-critique qu'il n'y a de super-vision qui, en accolant les perspectives, finirait par percevoir les six côtés du cube à la fois". DOUBROVSKY, S.; **Pourquoi la nouvelle critique. Critique et objectivité**, Mercure de France, 1966, 78-79. orr.

duen eleberria; baina zatikatze eta atalkatze hori egiten bada, batetik, behar metodologikoak eragina da eta, bestetik, ez da izango zatikatze anarkikoa, desmenbratze bat desmenbratzeagatik egina; ezta algebra egitea ere, edo eskuadra eta kartaboiez anatomi erakusketa bat egitea anatomi erakusketa horrek sor dezakeen liluragatik; bestela baizik: zati eta atal horiek baterakuntza eta konbergentzia bati begira eginak egongo dira. Atomizaziora jo da, baina ez atomizazio asistematiko batera, baizik eta xehetze-prozesu horren bidez agerian utzitako detaileak, gertaera ñabarrak... ardatz zentral baten inguruan artikulatzen direlako ustean; eta ardatz zentral horren inguruan artikulatuta, elkarri hertsiki loturik dauden pieza moduan; baina ez batuketa moduan, baizik eta sintesi moduan. Analisiak bilutsik uzten dituen pieza desberdinek batasungune baten inguruan aurkitzen dute artikulazioa, irakurketa sistematikoa, "au sens où lire est toujours lier" (22), estrukturalki koherentea eta homogenoa eginez. "Integratu" ahalik eta neurririk handienean aztergai duen objetua: Agirreren eleberri bakoitza eta eleberri-multzoa.

—Aztergai duen objetu osoa asetzera, "saturatzera" heldu (23).

Narratologia estrukturalistak eskainitako azterbideak lagun, Agirreren eleberri bakoitzaren eta eleberri-multzoaren irakurketa koherente, bateratu eta aipatu objetua aseko duena bide, ezaugarri horiek izango dituen deskripzioa egingo da, beti ere ahantzi gabe, azterketa-lanean barrena ikuspuntu bat dela bide, ez dela egiten eleberri horien irakurketa, deskripzioa, baizik eta irakurketa bat, deskripzio bat, testuek zilegiztatzen duten irakurketen artean bat, deskripzioetariko bat, beste askoren artean. Irakurketa osoa eta totala egitea bilatuko da, baina ez totalitarioa, esklusiboa, beste modukoak izan daitezkeen hurbilpenak arbuiatzea espreski gaitzesten duena. Agirreren eleberri

(22) DOUBROVSKY, S.; **Pourquoi la nouvelle critique. Critique et objectivité**, 71. or.

(23) Bi baldintza hauek betetzea eskatzen dio R. Barthes-ek mintzaira kritikoari: "de una parte, que el lenguaje crítico elegido sea homogéneo, estructuralmente coherente, y de otra, que llegue a saturar todo el objeto del que habla". BARTHES, R.; **Ensayos críticos**, Editorial Seix Barral, 1977, lehen argitalpenaren bigarren berrinprimaketa, 323. or.

bakoitzaren aktualizaziorako (24) deskodeketa-modua hautatu egin da, baina ez da deskodeketa-moduen alorra agortzen; aitzitik, beste deskodeketa-modu ugarien objetu bihurtzeko zain gelditzen da.

Eta, izan ere, ez zegoen beste jarrera bat hartzerik testuen ezaugarriak bitarteko: mintzaira plural baten bidez aditzera emandakoak, zeinu-sistema konplexu baten gain eraikiak —semiotika konnotatiboa—, sistema modelizatzaile sekundarioz adieraziak, funtzio erreferentziala anbiguo bihurtu dutenak, adierazle-adierazi harremana anizkor bihurtu dutenak (25). Alabeharrez bihurtu da aukera deskodetzea; eta oinarri hauek abiapuntu, ondorio jakina da mintzaira kritiko bat hautatu dela —aukera-ekintza bera inozoa ez bada ere—; beste bat hauta zitekeen. Honenbestez, Agirreren eleberriez egingo den deskripzioa "baliagarritasunaren" kategoriaren barnean higituko da eta ez "egiarenean". Horra hor helburua eta mugak (26).

---

(24) Eco-k dioen bezala: "En la medida en que debe ser actualizado, un texto está incompleto". ECO, U.; **Lector in fábula. La cooperación interpretativa en el texto narrativo**, Editorial Lumen, Barcelona, 1981, 73. or.

(25) Semiotika konnotatiboaren kontzepturako ikus HJELMSLEV, L.; **Prolegómenos a una teoría del lenguaje**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1980, bigarren argitalpenaren lehen berrinprimaketa, XXII. kapitulua. R. Barthes-en ustez mota honetako zeinuez eraturik dago literatur mintzaira. Ikus BARTHES, R.; "Elementos de semiología" in **La Semiología**, Serie Comunicaciones, Editorial Tiempo Contemporáneo, Buenos Aires, 1976, laugarren argitalpena, 62-65. orr.; nahiz egile berberaren "El análisis retórico" in **Literatura y sociedad. Problemas de metodología en sociología de la literatura**, Ediciones Martínez Roca, Barcelona, 1969, 35-36. orr. Y.M. Lotman-engan aurki daiteke sistema modelizatzaile sekundarioaren kontzeptua. Ik. LOTMAN, Y.M.; **Estructura del texto artístico**, Ediciones Istmo, Madrid, 1978. Anbiguotasuna jotzen du R. Jakobsonek bere baitan zentratzen diren mezuen ezaugarritzat. JAKOBSON, R.; "Lingüística y poética" in **Ensayos de lingüística general**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1981, bigarren argitalpena, 382. or. Anbiguotzat jotzen zuen W. Empson-ek bere **Seven types of ambiguity**, Nueva York, 1955, liburuan literatur mintzaira, esanahianizkortzat, berriz, P. Wheelwright-ek bere **The burning fountain. A study in the language of symbolism**, Bloomington, Indiana University Press, 1954, liburuan (ik. AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1975, berrinprimaketa, 19-20. orr.). Eta, izan ere, R. Barthes-ekin batera zera esan daiteke: "porque si las palabras no tuvieran más que un sentido, el del diccionario, si una segunda lengua no viniera a turbar y a liberar 'las certidumbres del lenguaje' no habría literatura". BARTHES, R.; **Crítica y verdad**, Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1981, laugarren argitalpena, 54. or.

(26) Izan ere, S. Doubrovsky-k zioen bezala, egia bilatzen duen kritika egin ahal iza-

Honenbestez, baliagarria izan daitekeen deskripzio bat besterik ez da eskainiko testu hauetaz. Narratologia estrukturalistak deskribaturiko kontzeptuak abiapuntu, literatur mintzaira semiotika konnotatibotzat joz, bere baitan zentratzen den mezutzat joz, funtzio poetikoaren nagusigoa bitarteko funtzio erreferentziala anbiguo bihurtzen duen mezutzat joz, mintzaira desbideratutzat joz (27), konnotazio, sintagma-mailara projektatu diren baliokidetzak eta desbiderazioak bihurtuko dira, lehenxeago esan denez, hemen egingo den testu-deskripzioak bete behar dituen baldintzen euskarri: baterakuntza-faktorea, konberjentzi iturria, kohesio-indarra.

Baina sustantzia formalizatu honen deskripzioaz harantza jo

---

teko, kritika objetiboa egin ahal izateko, behar-beharrezkoa da adostasun hirukoitza: "Il y a donc, en conséquence, un triple accord, qui permet d'instaurer une critique **vraie** et **objective**: accord de ce que l'oeuvre dit et de ce qu'elle veut dire; accord de ce que l'auteur veut dire et de ce que son oeuvre dit; accord entre ce que je pense que l'oeuvre dit et ce qu'elle dit (à condition, bien entendu, que ma lecture soit informée et intelligente)". DOUBROVSKY, S.; **Pourquoi la nouvelle critique. Critique et objectivité**, 32. or.

(27) Estiloa desbiderazio baten fruitu planteatzen duen ikusguneak aldeko asko izan ditu literatur teoria eta kritikaren esparruan. Teoriko eta kritiko askorengan aurkitzen den ikusgunea da, nahiz eta aurkakorik ez zaion falta izan. Errusiar formalismoaren barnean B. Eichenbaum-ek eguneroko mintzaira eta mintzaira poetikoaren arteko alderaketa egin beharra somatu zuenez gero [EICHENBAUM, B.; "La teoría del 'método formal' in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkezturiko antologia), Siglo Veintiuno editores, México, 1980, laugarren argitalpena)], eta alderaketa hau Pragako Zirkulu Linguistikoaren inguruan J. Mukarovsky-k araua/arauaren bortxaketa formulazioaren bidez aditzera eman zuenez gero —MUKAROVSKY, J.; "Apéndice: Lenguaje standard y lenguaje poético" in **Escritos de Estética y Semiótica del Arte**, (Aukera, Hitzaurre, Notak eta Bibliografia J. Llovet-enak), Colección Comunicación Visual, Editorial Gustavo Gili, Barcelona, 1977, 314-333. orr. (aipatu artikulua 1932. urtean argitaratutakoa da)—, arrakasta handia ezagutu du, arau hori —zeinarekiko desbiderazio den estiloa edo literatur mintzaira— mugatzeak buruhausterik sortu badu ere (ikus SPILLNER, B.; **Lingüística y literatura. Investigación del estilo, retórica, lingüística del texto**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1979, 55-78. orr., baita ere DI GIROLAMO, C.; **Teoría crítica de la literatura**, Grupo Editorial Grijalbo, Barcelona, 1982, 25-34. orr.). Metodologiari eskaintzen ari zaion atal honetan begibistakoa da ikuspegi estrukturalistak hartzen duen pisua. Beraz, koherenteena zera dirudi: desbiderazioa ere ikuspegi estruktural batetik planteatzea. Batipat M. Riffaterrek aurkezturiko **desbiderazio** kontzeptuan oinarrituko gara, (RIFFATERRE, M.; **Ensayos de estilística estructural**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1976).

beharra somatu da, baldin eta ez bazen erori nahi "falacia formalista" deitu izan den bekatu horretan. Deskripzio formal hutsetik alderdi semantikora igaroz, zentzuren bat sortzen duen espazio edo lekutzat jo da kontaketa.

Kontaketa-mailak, kontaketa-kodeak eratzen duen sistemaz harantza eta kontaketa-maila honen antolatze-modua dela bitarteko itxuratzen den esanahi-sistema dela-ta, beste sistema batzutara igaroko da azterketa: sozialak, ideologikoak... Berbalditik semiotikara. Testutik mundura igaroz, barne-antolamendu hori esanahi-sorketarako leku bihurtuko da (28), leku testualetik at kokatzen den zeinu-multzo desberdinekin harremanean zentzua hartzen duen zeinu-sistema moduan.

Dena den, oinarri estrukturalista huts batetik oinarri semiologiko bateranzko jauzia egiten bada ere, Agirreren eleberrien deskripziora ez da ekarriko, izendapen-mailako desberdintasunen batekin bada ere (29), eredu honek operatzeko modutzat erabili duen zatiketa hirukoitza, nahiz eta hiru alderdi horiek azterketa-gune bihurtuko diren eleberri desberdinen deskripzioan (30), eta ez gainera edozein

---

(28) Kritika semiologikoaren oinarri teorikoa honako honetan datza: literatur idazlana zeinu-batasun egituratua da; egituraketa hau bitarteko, hizkuntzaz harantza gelditzen den mezu bat igortzen du. Ikus BOBES NAVES, M.C.; "La crítica literaria semiológica" in **Crítica semiológica**, Cátedra de Crítica Literaria, Universidad de Oviedo, Oviedo, 1977, (11-75. orr.). Azken finean, testua zentzu-sorketa baten eraikuntza-moduan ikusten da. Ikus, halaber, TALENS, J.; "Práctica artística y producción significante. Notas para una discusión" in **Elementos para una semiótica del texto artístico. (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, bigarren argitalpena, (15-60. orr.).

(29) Finkotasunik eza nabaria da zeinuak beronen igorle eta hartzailearekin izan ditzakeen harremanak aztertzen dituen atalaren izendapenean. "Pragmática" deituko du M.C. Bobes Naves-ek, esate baterako (ikus "La crítica literaria semiológica" in **Crítica semiológica**, 71-75. orr.), baina "Retórica o Pragmática" J. Romera Castillo-k (ik. ROMERA CASTILLO, J.; **El comentario semiótico de textos**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1980, 2. argitalpen zuzendua eta gehitua, 91-100. orr.) edo "aspecto verbal" Tz. Todorov-ek (ik. **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 56-78. orr.).

(30) Joskera, Semantika, Pragmatika zatiketa hirukoitza aurki daiteke zenbait azterketa semiologikotan. Honelako zatiketa hirukoitza jarraitzen dute zenbait azterketetan M. C. Bobes Naves-ek (ik. BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, Cupsa Editorial, Madrid, 1977) edo J. Romera Castillo-k [ik. ROMERA CASTILLO, J.; "Teoría y técnica del

hurrenkera-motetan; izan ere, alderdi semantikoa azken arreta-leku bihurtuko bait da, beste bi atalak mundu semantiko hori sortuz eta eraikiz doazen bitartekotzat jotzen direnez, hain zuzen ere (31).

Bi atal nagusitan banatu da testu-deskripzioa, behar metodologikoak eraginda. Lehen atal nagusia deskripzio formala edo deituko litzatekeenari eskainiko zaio, nahiz eta muga zehatz eta finkoak ez diren ezarri deskripzio formal honen eta ondoren datorren atal nagusiaren artean (deskripzio formal honetatik abiatuta deskribatzen den esanahi-mundua jasotzen du bigarren atal nagusi honek), azkenean elkarri oso hertsiki loturik dauden bi atal direlako.

Aipatu deskripzio formala lekugune testualean zehar eginez doan ibilbidean (32) agerian uzten joango da bertan gorputz hartuz

---

análisis narrativo" in **Elementos para una semiótica del texto artístico. (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, 2. argitalpena, 113-152. orr.; nahiz egile beraren **El comentario semiótico de textos**, 113-163. orr.]. Eta zatiketa hirukoitz hau kontaketaren azterketara ez ezik, poesiarenera eramango da (ik., esate baterako, BOBES NAVES, M.C., **Gramática del "Cántico". Análisis semiológico**, Editorial Planeta, Barcelona, 1975) edo antzerkiarenera [ik. esate baterako, TORDERA SAEZ, A.; "Teoría y técnica del análisis teatral" in **Elementos para una semiótica del texto artístico (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, 2. argitalpena, 157-199. orr.]. Dena den, begibistakoa da hainbat eta hainbat azterketa semiologikotan zatiketa hirukoitz hori nahiz eta "aurkibidera" ez eraman, oinarri semiologikotatik eginda dauden azterketak direla. Azken hauek "ilunxeagoak" dira bere aurkezpen eta garapenean, edo, bestela esanda, azterguneak eta aztergune hauen arteko harremanak "ezkutuxeago" aurkezten dira. Baina azken finean literatur testu bat osatzen duten zeinuen arteko harremanak dira, zeinu hauek beraien igorle-hartzaileekin dituzten harremanak eta antolamendu-modu hau bitarteko literatur idazlan hori eraikiz doan esanahi-mundua arretagune. Zatiketa hirukoitz hori "aurkibidera" eraman ez badute ere, eredu semiologikoan oinarritzen dira, esate baterako, M. Portal (ik. PORTAL, M.; **Análisis semiológico de "Pedro Páramo"**, Narcea, S.A. de Ediciones, Madrid, 1981) edo A. Vera (ik. VERA LUJAN, A.; **Análisis semiológico de "Muertes de Perro"**, Cupsa Editorial, Madrid, 1977).

(31) J.M. Lasagabasterrek azaldutakoaren ildotik: "Esto quiere decir que en el texto literario todo contribuye al significado y que el nivel semántico es el punto de convergencia de los otros niveles; también el nivel pragmático contribuye al significado, y no es demasiado coherente estudiarlo como en la semiótica filosófica o lingüística, después de dilucidado el nivel semántico". LASAGABASTER, J.M.; "La crítica semiológica en España" in **Mundaiz**, n.º 13, marzo, 1979, 22. or.

(32) Tz. Todorov-ek proposatzen duen irakurketa-modua eginez: "La lectura es un recorrido dentro del espacio del texto; recorrido que no se limita a la concatenación de las letras de izquierda a derecha y de arriba abajo (éste es el **único** re-

doazen konnotazioak, sintagma-mailako baliokidetzak, desbiderazioak, eta bide eraikiz joango da eleberri bakoitzaren deskripzioari eskaini zaion bigarren atalari: eleberri bakoitzak egindako deskripzio formalaren arabera sortzen duen esanahi-mundua.

Eleberri bakoitzak eratzen duen katea sintagmatiko horretan itxuratuz doan konnotazioen errekurrentzia, sintagma-mailako baliokidetza eta desbiderazioen errekurrentzia bitarteko, isotopia (33) bihurtuko da deskripzio formalaren baterakuntza-indar eta esanahi-mundua sortuz doan atomo, esanahi-mundu horren faktore integratzaile (34).

Beraz, mugaketa sintagmatikoa —baina ez sintaktikoa (35)— duen isotopia bihurtuko da konberjentzi iturri.

Izan ere, badirudi literatur testuak ekonomia linguistiko berezi bat jartzen duela martxan, mintzaira-mailako erredundantzia konbentzionalak gutxituz eta gutxitze hauek iterazio berriekin konpentsatuz (36).

---

corrido no plural, por ello el texto no tiene un único sentido), sino que separa lo contiguo y reúne lo alejado, y constituye precisamente al texto como espacio y no como linealidad". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 20. or.

(33) A.J. Greimas-ek "iteración de una unidad lingüística" bezala mugatuko du isotopia. GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1976, bigarren berrinprimaketa, 107. or.

(34) R. Barthes-ek aditzera emandako ildotik: "si llamamos, como Greimas, **isotopía** a la unidad de significación (...), diremos que la integración es un factor de isotopía: cada nivel (integrador) da su isotopía a las unidades del nivel inferior y le impide al sentido oscilar". BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 42. or.

(35) F. Rastier-ek dioen bezala, "Una isotopía tiene definición sintagmática, pero no sintáctica: no está estructurada; en otras palabras, se trata de un conjunto no ordenado". RASTIER, F.; "Sistemática de las isotopías" in GREIMAS, A.J. y AA.VV.; **Ensayos de semiótica poética**, Editorial Planeta, Barcelona, 1976, 110. or.

(36) μ taldeari jarraikiz: "La poésie fait donc, en gros, subir deux traitements opposés aux messages qu'elle élabore: l'un qui en diminue la redondance (écarts), l'autre qui la renforce (conventions). Il est tentant d'y voir un jeu de compensations, ayant pour but de maintenir l'intelligibilité globale des messages". GROUPE μ, (J. Dubois, F. Edeline, J.M. Klinkenberg, P. Minguet, F. Pire, H. Trinon); **Rhétorique générale**, Editions du Seuil, Paris, 1982, 43. or.

Eta, izan ere, badirudi, azkenean, Agirre "écrivain" (37) bihurtzen dela eta eleberri bakoitzean "bere hitza" landuz, ekonomia linguistiko berezi hori garatuz, lekugune testuala transformazio-toki bihurtzen duela mimesitik sinbolorako ibilbidea eginez (38), konnotazio-mailako iterazio, sintagma-mailako baliokidetza eta desbiderazio-iterazio horiek bitarteko. Eta oraindik gehiago sinplifikatu ahal izango litzateke mimesitik sinbolorako ibilbide hori funtzio poetikoaren eragin eta indar soilera mugatuz, konnotazio-errekurrentzia horiek semantika-mailako "baliokidetzak" bestetik ez diren neurrian, desbiderazio-errekurrentzia horiek hizkuntzaren deskripzio-maila desberdinetako (foniko-erritmikoa, morfosintaktikoa, semantikoa) "baliokidetzak" besterik ez diren neurrian. Honenbestez, bada, funtzio poetikoaren bide horrek (39) bihurtuko du anekdota zentzu-sorketarako lehengai.

Laburbilduz, narratologia estrukturalistak kontaketa aztertzeko erabili dituen deskripzio-kategoriak langai bihurtuko dira testu bakoitzaren artikulazioguneak, konberjentzi puntuak, baterakuntza-faktoreak, kohesioguneak atzemateko. Hain da hala eleberri bakoitza batasunean atzeman nahia, koordenada narratibo bat abiapuntu bilatu bait da koordenada honen inguruan deskribatzea. Jakina, honek

---

(37) R. Barthes-ek "écrivain" eta "écrivant" bereizten ditu. Besteak beste, honako ezaugarri hauek atxikitzen dizkio "écrivain" horri: "el 'écrivain' es el que **trabaja** su palabra"; hitz hau "es un poco como una super-palabra, lo real nunca le es más que un pretexto (para el 'écrivain', **escribir** es un verbo intransitivo)". BARTHES, R.; **Ensayos críticos**, 179. or.

(38) I. Aldecoa-ren eleberriak aztergai, J.M. Lasagabasterrek funtzio poetikoa dakusa aipatu ibilbidearen eragile: "es la función poética la que hace transitable —capaz de ser habitado por el sentido— ese espacio entre la mímesis y el símbolo que llamamos texto. Es la función poética la que permite descubrir el secreto de la epifanía del sentido". LASAGABASTER, J.M.; **La novela de Ignacio Aldecoa. De la mímesis al símbolo**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1978, 29. or.

(39) R. Jakobson-ek funtzio poetikoaren kontzeptu honi eman zion mugaketarako ikus JAKOBSON, R.; "Lingüística y poética" in **Ensayos de lingüística general**, 347-395. orr. Hemen, dagoenekoz nabarmen gelditu denez, ez darabilgu funtzio poetikoaren kontzeptu hau zentzu jakobsoniar hertsian, besteak beste, R. Jakobsonek poesiaren alorrerako sortu zuen kontzeptua delako eta hemen eleberriaren deskripziorako erabiliko delako. Funtzio poetikoaren kontzeptuarekin, zehazki, azterlan honetan barrena honako hau adierazi nahi da: sintagma-mailako baliokidetzak.

xehetasunak eta detaileak galtzea dakar. Ebidentzia hutsa da "baliokidetzak" soilik azpimarkatzera abiatzean, detaile marginal bihurtzen direla baliokiderik aurkitzen ez duten konnotazio edo desbiderazioak. Eta, hain zuzen ere, baliokidetza hartzen delako baterakuntza-faktoretzat, funtzio poetikoa jo ahal izan da oinarri erreferentzial-denotatiboa abiapuntu, esanahi-sorketarako iraganbidea gauza dezakeen indar moduan.

1.2. TESTUINGURU LITERARIOAREN TEORIA

Baina ez dirudi aski denik testuen teoria bat (40). Badirudi testua historian lekutu beharra dagoela, sortzen eta esanahidun bihurtzen deneko koordenada horietan. Historiako une batean sortzen den praktika soziala da testua (41), garaikide duen gizarte horrekin nolabaiteko harremanak izanez. Agirrek XIX. mende-bukaeran eta XX.aren hasieran idatzi zituen bere eleberriak; eta eleberri horietakoren batera —**Auñemendiko Lorea**— aintzina jazotako gertaerak badakartza ere, Agirrek bere garaitik idazten du eta bere garaiko irakurlearentzat (42).

Testuinguru literario honen planteamenduak, oso modu apalean bada ere, zentzu bikoitza hartu nahi luke: batetik, Agirreren eleberrigintzaren koordenada propioak eta bereziak izan daitezkeenak zeda-

(40) Honako aipamen hau jasotzen du F. Carrillo-k T. van Dijk-engandik: "Aquellos puntos de vista desde los que se afirma que la teoría literaria debería ocuparse únicamente del 'texto literario' son insostenibles e ideológicos; no sólo las **estructuras** del texto son importantes, sino también sus **funciones**, así como las condiciones de producción, proceso, recepción, etc., según se explican en los estudios psicológicos, sociológicos, antropológicos e históricos". Ik. CARRILLO, F.; **Semiolingüística de la novela picaresca**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982, 33. or. (T. van Dijk-engana zuzen-zuzenean jotzeko, ikus "The Pragmatics of Literary Communication" in **Coloquio Internacional**, San Juan, 1977).

(41) "El carácter idiolectal de los textos individuales no nos permite olvidar el aspecto eminentemente social de la comunicación humana". GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, 143. or.

(42) "Decía que el signo denota un hecho extralingüístico que pertenece a una actualidad del emisor, y puede referirse a un pasado, presente o futuro, pero siempre desde la actualidad del emisor y dirigido a un receptor situado en esa común actualidad". PRIETO, A.; **Ensayo semiológico de sistemas literarios**, Editorial Planeta, Barcelona, 1975, bigarren argitalpena, 29. or.

rrituz eta, bestetik, koordenada propio horiek marko orokorrago baten barnean aurkeztuz. Hau da, testuinguru hurbilena abiapuntu, marko hau zabalduz joango da.

Agirre eta honen eleberriak erdigune izaki, idazle eta testu hauek hizkuntza bat komunikazio-tresnatzat erabiltzea dute amankomun beste zenbait garaikiderekin. Eguneroko elkarrizketetan nahiz sorketa-lanean hizkuntza berbera erabiltzeak lotzen ditu. Baina leku geografiko berbera konpartituz, baditu beste hizkuntza bat darabilten garaikideak ere. Aldamenean dauzka paisaia berbera eta herri berbera osatzen dutenak, baina hizkuntz mailan kide ez dituenak. Eta azkenik, hizkuntzaren eta herriaren hesiak igaroz, hor daude muga geografiko zabalagotan idaztearen ekintza horretan garaikide dituen idazleak.

Beraz, testuinguru literario hau hizkuntza-lekua koordenadetan hedatuz planteatuko da, koordenada espezifikoak izan daitezkeenak zedarrituz eta koordenada espezifiko hauek marko orokorrago baten argitan ikusiz.

Honela, bada, D. Agirreren eleberrigintzari eskainitako azterketa-lan hau idazle honen eleberriak diren errealitate horretan lekutuko da, baina hizkuntza eta hizkuntzaz kide eta garaikide zaizkion idazleak, testuak, hartzaileak eta abar ahantzi gabe. Igorle horren orainaldiaren azterketa agerian uzten joango da nola normalizatu eta normatibizatu gabeko hizkuntza bat hautatzen duen lan-tresnatzat, nola gainontzeko idazle garaikideak bezala idaztea asti-orduetako eginkizun bihurtzen duen, nola bertsogintza eta bertsozaletasuna nagusi zen garaian kontaketari heltzen dion, nola irakurlego urri eta bere hizkuntzan alfabetatu gabea denari zuzentzen zaion...

Era berean, igorle horren orainaldiaren azterketa agerian uzten joango da koordenada sozio-politikoak: nola gerrate baten ondoren idazten duen, nazionalismo-sozialismo sorberri batzuren ondoren, industrializazio modernoaren hastapen-garapenetan...

Garaiaren argitan aztertuko da Agirre, ez bait dirudi bere eleberrigintza sortze-baldintzetatik isolatzerik dagoenik; izan ere, nolabait sortze-baldintza hauek, azken finean, eleberrien itxuratzean bertan parte hartzen bait dute, eleberrien egiturara bertara helduz.

Azalpen honek ez du esan nahi, inondik ere, literatur testua azpiegitura ekonomiko baten isladapen mekanikotzat jotzen denik

(43); ezta talde soziologikoren baten mundu-ikuskera eta Agirreren eleberrien egituren artean homologiarik ezartzera doanik ere (44),

---

(43) Engels-ek berak oinarri eta gainegituraren artean —jakina, gainegituran lekutzen du marxismoak literatura— korrelazio mekanikoa ematen dela ezeztatzea bilatzen du: "De acuerdo con la concepción materialista de la historia, el elemento decisivo en la historia es **a la larga** la producción y la reproducción de la vida real. Ni Marx ni yo hemos declarado jamás más de esto. Por tanto si alguien lo deforma en la afirmación de que el elemento económico es el único decisivo, la transforma en una frase sin sentido, abstracta y absurda. La situación económica es la base, pero los diversos elementos de la superestructura —las formas políticas de la lucha de clases y sus consecuencias, las constituciones establecidas por la clase vencedora tras una victoriosa batalla, etc., (las formas de ley) y después, incluso los reflejos de todas estas luchas concretas en las cabezas de todos los combatientes: teorías políticas, jurídicas y filosóficas, ideas religiosas y su posterior desarrollo hacia el dogmatismo— también ejercen su influencia en el curso de las luchas históricas y en muchos casos predominan al determinar la **forma** de éstas". Honela mintzatzen zitzaion, behintzat, J. Bloch-i 1890. urtean igorritako eskutitz batean, T. Eagleton-ek dioenez. Ik. EAGLETON, T.; **Literatura y crítica marxista**, (Sarrera eta notak: A. Sorel), Editorial Zero, Madrid, 1978, 29. or. Baina, hala ere, marxismoaren esparruan ez da kritikorik falta izan azpiegitura eta gainegituraren artean harreman determinista samarrik ezarri duenik: G. Plejanov (1856-1918). Honi zor zaio I. Ambrogio-ren hitzetan "el primer intento sistemático de fundar una sociología del arte en clave materialista-histórica, marxista, el esfuerzo teórico-estético más importante producido en el ámbito del marxismo de la II Internacional". I. Ambrogiori jarraiki, G. Plejanov, zenbait azterketa kritiko-literariotan eta zenbait soziologorekin izan zituen eztabaidatan, ohartzen da "de las dificultades implícitas en una concepción rígidamente determinista, según la cual, por ejemplo 'inevitablemente' 'el arte de una época de decadencia (o sea, de la decadencia de la burguesía) **debe ser un arte decadente**', o en conclusión, de la imposibilidad de 'deducir' los fenómenos artístico-literarios de la situación socio-económica y de agotar, por tanto, los valores estéticos peculiares en su génesis histórico-social". Baina I. Ambrogiorentzat inpotentzi aitorketa besterik ez da G. Plejanov-ek egingo duen proposamena, hots, "un desdoblamiento del acto crítico-artístico o de una pura y simple yuxtaposición de 'dos actos': de un lado, la traducción de las ideas-sentimientos de la obra '**desde la lengua del arte a la lengua de la sociología**', o búsqueda del 'equivalente sociológico del fenómeno literario dado'; del otro como 'necesaria integración' del primer momento, la 'valoración de la calidad estética de la obra examinada', o sea, el análisis de valoración de las 'peculiaridades de la creación artística'". AMBROGIO, I.; **Ideologías y técnicas literarias**, Akal Editor, Madrid, 1975. (Aipamenak, azalpen-ordena jarraikiz, 14. eta 34. orrialdeetan aurkitzen dira).

(44) Honako hau da L. Goldmann-ek testu-azterketarako proposatzen duen estruktturalismo genetikoa deituriko bidearen abiapuntuetariko bat: "Si toda conciencia individual constituye una mezcla de tendencias diversas y contradictorias hacia

edo eleberri hauek bete dezaketen funtzio soziala argitzera (45)... Ez. Azalpen hau ez doa modu batean edo bestean eleberrien eta soziologiaren arteko harreman soila aztertzera.

Soziologia presente egongo da, baina presentzia hau eleberriak aztertzeko ikusgune bihurtu gabe. Soziologiak eskain dezakeen laguntza, beti ere, eleberriak sortze-baldintza horietan lekutzera mugatuko da edo-ta zeharka azal daitekeen xehetasunen bat argitzera.

Beraz, ez dago eskatzerik atal honetan azterketa-lan zabal eta monografikorik. Apunte batzu besterik ez dira ekarriko: bete nahi duten eginkizunerako egokiak izan daitezkeen zenbait datu, modu laburrean eskainiak. Datu-ugalpena eta datu hauen komentario-luzapena aipatu eginkizun horretarako betetzen duten funtzionalitatearen

---

estructuras coherentes de tipo ideológico global, la obra cultural se caracteriza por el hecho de que realiza a un nivel particular, y en el caso concreto que nos interesa al nivel de la creación literaria, un universo más o menos coherente que corresponde a una visión del mundo cuyos fundamentos son elaborados por un grupo social privilegiado". GOLDMANN, L.; "El estructuralismo genético en sociología de la Literatura" in **Literatura y sociedad. Problemas de metodología en sociología de la literatura**, Ediciones Martínez Roca, Barcelona, 1969, 210. or.

(45) J.P. Sartre-rentzat "engagement" da literaturan hitz-giltzarria. Literaturaren izaera eta funtzioa hiru galderetara dakartza: zer da idaztea?, zergatik idatzi?, norentzat idatzi? Eta galdera hauei ematen dien erantzunak agerian uzten du J.P. Sartrek "engagement" horretara daramala literaturaren funtzio soziala. Ik. SARTRE, J.P.; **¿Qué es la literatura?**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1976, seigarren argitalpena, 45-157. orr.

T.W. Adornok ere funtzio sozial jakin bat ezarriko dio arteari —eta, arte-mota bat denez, honen barnean literaturari—. Honako hau da: "El arte es algo social, sobre todo por su oposición a la sociedad, oposición que adquiere sólo cuando se hace autónomo. Al cristalizar como algo peculiar en lugar de aceptar las normas sociales existentes y presentarse como algo 'socialmente provechoso', está criticando la sociedad por su mera existencia (...). Todo lo que sea estéticamente puro, que se halle estructurado por su propia ley inmanente está haciendo una crítica muda, está denunciando el rebajamiento que supone un estado de cosas que se mueve en la dirección de una total sociedad de intercambios, en la que todo es para otra cosa". Eta orrialde batzu aurreraxeago: "Las obras suelen ejercer una función crítica respecto de la época en que aparecieron, mientras que después se neutralizan, entre otras cosas, a causa del cambio de las relaciones sociales. Esta neutralización es el precio social de la autonomía estética". ADORNO, T.W.; **Teoría estética**, Taurus Ediciones, Madrid, 1980. (Aipamenak, azalpen-ordenari jarraiki, 296. or. eta 299-300. orr.).

baitan egongo da. Hau da, Agirreren eleberrien itxuratze horretan zerikusi estuagoa izan dezaketen elementuak izango dira xehetasun handiagoz emango direnak eta hizpide luzeagoren iturri bihurtuko direnak. Funtsean honako atal hauei dagozkie: hizkuntza —Agirrek erabili behar duen lehengaia—, testuak —Agirrek landu behar dituen tramankuluak—, hartzailea —Agirreren eleberriek potentziaren errainuan bizi beharko lukete hartzailerik ezean (46)—, igorletza-modua —hartzaileengana heltzeko bidea—. Erdigune hau osatuz eta erdigune honi perspektiba emanez etorriko dira beste zenbait alderdik eskainitako datuak, erdigune hau horien argitan ikusi ahal izateko: alderdi sozio-politikoak eskainitakoak edo-ta koordenada sozio-politiko amankomunetan bizi izan eta sorketarako beste hizkuntza bat erabili duten zenbait idazleren hainbat testuk eskainitakoak edo-ta testuinguru zabalagoetako literaturen ikuspegi panoramikoak eskainitakoak.

Ikuspegi honetatik planteatzen da testuinguru literarioa, eta koordenada hauen barnean garatuko da. Beraz, datu gehixeago edo gutxixeagorekin ikuspegi panoramikoa eskainiko da besterik gabe.

Agirreren eleberrien azterketak eskatu du testuinguruaren atal honi ateak irekitzea. Azterketa horrek eskatu du metodo estrintseko eta intrintsekoen arteko elkarrizketa etengabea. Eta elkarrizketa honetatik sortu da Agirreren mundu nobeleskoaren koordenaden ikuspegi osatuagoa eman zezakeen eredua, honako azalpen hau on eginez:

> "En cualquier caso, sólo mediante un diálogo asiduo entre métodos extrínsecos e intrínsecos se construirá un marco teórico capaz de medirse con la historia de aquél género proteico que es la novela" (47).

---

(46) Honela laburtzen ditu H. Weinrich-ek A. Nisin-ek La litterature et le lecteur (Paris, 1959) liburuan jasotako iritziak: "la obra literaria como tal existe sólo en potencia cuando no es leída. Es la lectura la que actualiza esta virtualidad. La obra no existe en las páginas impresas del libro, sino que se 'realiza' como tal en el lector". WEINRICH, H.; "Para una historia literaria del lector" in GUMBRECHT - JAUSS - WEINRICH - KOHLER - KUHN - GRIMMINGER; La actual ciencia literaria alemana. Seis estudios sobre el texto y su ambiente, Ediciones Anaya, Salamanca, 1971, 123. or.

(47) BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. y COLAB. (A. BLECUA, A. GARGANO y C. VAILLO); Introducción al estudio de la literatura, 246. or.

Agirreren eleberrien azterketak eskatu du testuinguru hori zabalduz doazen eraztun moduan planteatzea. Marko berezi batetik idazten du eta ez zaio arrotz marko berezi horretatik at gelditzen dena; baina marko berezi hori alboratuz zuzen-zuzenean marko orokorrago batera jotzen bada, distortsionatu egin daiteke bere idazlanekiko planteamendua.

2. AZTERKETA DIAKRONIKOA

Atal honen helburua aurrekoaren berbera da: Agirreren idazlanak lekutzea; baina oraingo honetan euskal literaturaren historian (48). Historian lekutze hau ere apunte gisa planteatzen da, azalpen panoramiko-moduan eta ikuspegi deskriptibo hutsetik.

Beraz, aztergai diren eleberriak beraien lehenaldiko nahiz geroaldiko zenbait testurekin izan ditzaketen harremanei buruzko zenbait zertzelada eskainiko da eta, funtsean, Agirre euskal praktika testual baten barnean lekutu dezaketen lerro nagusiak markatuko; izan ere, praktika testual honetan kokatu gabe, praktika testual honek bizi izan dituen gorabehera eta karakterizatzen duen zenbait ezaugarriz abstrazioa egiten bada, edo alboratzen badira, euskal literatura eratuz doan testu-multzo horrekiko lotura ahantzi egin bait daiteke, "euskal" adjetiboarekikoa batez ere.

Literatura unibertsal bati eginiko hitzaurrean honela irakur daiteke:

> "Antes de acceder a una **historia literaria universal**, (...) es necesario formular una **historia nacional de cada literatura**. Entre su entidad individual y la totalidad **género humano**, el hombre encuentra una personalidad supraindividual, colectiva, de honda raigambre: la nacionalidad. Existen núcleos humanos homogéneos por razones de cultura y de raza, vinculados a un paisaje materno, y unidos en el común destino de realizaciones ideales. En otros términos: existen unidades de **pueblo y territorio**, entidades intermedias entre humanidad e individuo. Son las naciones. La nación es sujeto de una historia política, previa a la historia política universal.

(48) "La literatura actividad específica del hombre creador de valores, se sitúa forzosamente en el devenir temporal y en el decurso histórico". AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 244. or.

> También de una historia artística o literaria. Y al intentar entender, en toda su amplitud, la historia de la literatura, hallamos —lógicamente— literaturas nacionales, como dato previo a la **Weltliteratur**" (49).

Beste kontzeptu batek ordezkatuko du gure azalpenean pasarte horretan azaltzen den nazioaren kontzeptu politiko hori. Gureak aseptikoagoa izan nahi du, baita gaiari —literaturari— lotuagoa ere: hizkuntza.

Hizkuntza da idazlearen lehengaia. Eta landutako hitza da berea, super-hitza, atzerago esan denez. Eta Agirrek hautatzen duen hizkuntza euskara da, eta euskaraz landu behar du hitza.

Eta irakur dezagun R. Barthes-ek dioena:

> "que los escritores sólo tienen el poder de mezclar textos ya existentes, de volverlos a juntar y a desplegar, y que los escritores no pueden usar sus textos para 'expresarse', sino sólo inspirarse en ese inmenso diccionario del lenguaje y la cultura que 'ya está escrito'" (50).

R. Barthesek arrazoi-punturik badu, badirudi "euskal hiztegi eta euskal kulturak" osatzen zuela Agirrek lehen-lehenik inspirazio-iturri zukeen hiztegia eta kultura (51).

Eta "euskal hiztegi eta kultura" hori ez zegoen osatua hainbeste "jadanik idatzia izan zenaz" nola "jadanik **ahoz** igorria izan zenaz". Eta badirudi hitz-joko hutsa baino harago doala bereizkuntza, azterlanean barrena azalduko denez. Eta, ezinbestean, gogora dakargu atal metodologiko hau irekitzen zuen pasartearen zati bat:

---

(49) O. Taccak aipatua. (Aipamena Ciriaco Pérez Bustamante-ren **Historia de la literatura universal**, Atlas, laugarren argitalpena, Madrid, 1947, obraren hitzaurretik jasota dago). Ikus TACCA, O.; **La historia literaria**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1968, 66. or.

(50) R. Selden-ek dioenez, modu honetan mintzo zen R. Barthes 1968.eko saiakera batean. Ik. SELDEN, R.; **La teoría literaria contemporánea**, Editorial Ariel, Barcelona, 1987, 67. or.

(51) "Lehen-lehenik" badiogu, honako honengatik da: ez zeukalako zertan inspirazio-iturri bihurtu euskal hiztegi eta euskal kultura horrek bakar-bakarrik. Literatura erkatuaren oinarriak ere gogoan hartzekoak direlakoan gaude: "la historia **comparada** funda la suya en la insuficiencia de toda literatura nacional conclusa en sí misma y en las migraciones constantes de mitos, técnicas y estilos". TACCA, O.; op. cit., 66. or.

"La destinación de la obra es, en suma, un factor activo, incluso y sobre todo en el plano formal".

Euskal "hiztegi eta kultura" hori bereziki **entzule** bati zuzendu zaio. Eta badirudi honek "maila formalean" eragina izango zuela. Besteak beste, ondorio honetara heltzen da behintzat azterlan hau.

Eta Agirreren "euskal hiztegi eta kultura" hamaika motatako kantaz osatua zegokeen, ahoz igorririko hamaika poemaz eta hamaika kontaketaz. Ia ziur eta zalantza-izpirik gabe ikusle ez zela izan baiezta badaiteke ere —orain harira ez datozen arrazoiengatik (52)—, Agirreren "euskal hiztegi eta kultura" hamaika antzezpenez osatua zegokeen (53). Eta, azkenik, Agirreren "euskal hiztegi eta kultura" poe-

---

(52) Agirre idazlearen eta bere eleberrien kontalarien artean adostasunik bada ideien mailan, nekez joan zitekeen idazle hori Fray Bartolomé Santa Teresak aipatzen dituen komedia-antzezpenetara, esate baterako.

(53) Antzerkia antzezpenaren bidez dastatzeko egindako testua bada ere, ez dago ukatzerik irakurleak izan dituenik. Baina euskal antzerkigintzak nekez izan zezakeen irakurlerik. Herri-antzerkia deiturikoan, pastoralak kasu, P. Urkizuri jarraiki, 1891. urtean kokatu beharko litzateke lehen pastoral-argitalpena: "VINSON, J.: Saint Julien d'Antioche. Bordeaux, 1891". Ik. URKIZU, P.; **Euskal antzertia**, Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1984, 22. or. Argitaratu-argitaragabeen zerrenda bat 21-25. orrialdeetan eskaintzen du. Ezta antzezleek beraiek ere ez zituzten pastoralak irakurtzen. M. Lecler-ek honela deskribatu zizkion G. Hérelle-ri elkarrizketa batean: "Los argumentos de las obras son viejas narraciones bíblicas o hagiográficas, buenas para entretener a los niños, y **los actores son mozos iletrados**, que vestidos ridículamente, dicen sus papeles con un tono de recitado y gestos desgarbados". HERELLE, G.; "Cómo surgió en mí la idea de estudiar el Teatro Vasco" in **Yakintza**, I, 1933, 351. or. (Azpimarkatua gurea da). G. Hérelle-k berak honela deskribatzen du antzezpenaren prestakuntza: "D'ordinaire, l'initiative des représentations était prise par la 'jeunesse' des bourgs ou villages: les jeunes gens se concertaient entre eux pour apprendre par coeur une 'histoire' et pour la jouer devant les habitants de leur pays. L'impresario, qualifié 'régent' ou 'mestre d'escolle pour le théâtre', était tantôt un prêtre, tantôt un laïque, qui se chargeait de diriger les répétitions et de mettre la pièce en scène". HERELLE, G.; "Etudes sur le théâtre basque. Les problèmes relatifs aux pastorales" in **RIEV**, IX, 1918, 125. or. "Tobera-Munstrak" deiturikotara igarota, berriz, ez dirudi testurik ere zutenik euskarri-moduan. J. Duvoisin-ek honela dio: "La partie scénique de ces fêtes consiste en plaidoyers dont on ne peut reproduire les paroles qui sont toujours improvisées". DUVOISIN, J.; "Comédie des Basques" in **Album Pyrénéen. Revue Béarnaise**, 2.me année, mars, 1841, 210. or. Hegoaldeak ere ez du erakutsi antzerkiaren alor honetan testu-aberastasunik. P.I. Barrutiak izenpeturiko **Acto para la Nochebuena**-z gain ez dirudi antzerki-testu ezagunik utzi duenik XIX. mendearen azken laurdenera arte.

ma batzuz (54), eta batipat prosa aszetikoz, katiximaz, biblia-itzulpenez... osatua zegokeen.

Hau zen, orohar, euskal praktika testualak Agirreri eskaintzen zion altxorra. Baina praktika testual hori adina edo gehiago erroturik zegoen Euskal Herrian —mundu gratuito moduan behintzat— zentzu hertsian praktika testuala ez dena.

Eta "testuartekotasun", "ahozkoartekotasun", bien arteko ezkontza batetik sor daitezkeen "artekotasun" (bertso-paperak, adibidez) horiek ditu Agirrek abiapuntu.

Aipatu oinarri hauek abiapuntu, kokatuko da Agirreren eleberrigintza euskal literaturaren historian, oinarri hauetan bilatuz, halaber, Agirre euskal literaturaren historian kokatu beharraren zergatia; izan ere, azken finean, aipatu ezaugarri orokorrak —azterlanean xehetuz joango direnak— aurkezten zituen "euskal hiztegi eta kultura" batekin topo egin bait zuen, eta horrekin jokatzera behartua bait zegoen alabeharrez: aldatu, irauli, gorde edo hiru aditzek aditzera ematen dutena konbinatu eta denetarik egin, zerbait gorde, beste zerbait aldatu, etab.

Agirrek "euskal hiztegi eta kultura" zukeela inspirazio-iturri esan da arestian. Baina honek ez du esan nahi alor horrek izan behar zukeenik ezinbestez inspirazio-iturri bakarra.

Testuinguru literarioa planteatzean, marko berezi batetik marko orokorrago baterako ibilbidea egin beharra somatzen zen. Antzeko zerbait eskatzen du azterketa diakronikoaren atal honek ere.

Beste mintzaira eta kultura batzutako "hiztegiak" ere bihur zitzakeen inspirazio-iturri.

Euskaldunek beste mintzaira eta kultura batzutako hiztegiekin

---

(54) A. Oihenartek eta S. Arana Goirik prezeptiba-mailan egin zituzten azalpenak komentatu ondoren, honela dio P. Altunak: "Batak nahiz besteak halako kaxkar eritzia edo zieten herri bertsoei eta dotoreagoak, batez ere lotuagoak, nahi zituzten, jendaurrean hitzetik hortzera asmatu eta kantatzeko zirenean ez, baina bai liburuetan agertzeko zirenean. Poesia mota berri bat, alegia, poesia hori landua, ikasia, kultua zenerako". ALTUNA, P.; "Etxepare herri poeta" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, 337. or. A. Oihenartek bere "O.ten gastaroa neurthizetan" barrena poesia landu, ikasi, kultu hori egitea bilatu zuen irakurketaren bidez dastatzeko.

harremanean (55) taxutu dute historian zehar beren "hiztegi eta kultura": "maileguak" jatorrizko mintzairari eta kulturari gehituz eta jatorrizko mintzaira eta kultura horretan integratuz, eta baterakuntza honetatik beren mintzaira eta kulturaren hiztegi pribatua sortuz. Beraz, dialektika honek ez dauka zertan ez jarraitu Agirrerekin. Batetik, "euskal hiztegi eta kultura" horrek osatzen du Agirreren inspirazio-iturri zatekeen altxorra; harreman dialektiko batean "maileguak" jaso baditu ere, jadanik integraturik dauzka bere sisteman eta ez dago sistema horretan jatorrizkoen eta maileguzkoen aurkakotasunik; izan ere, aurkakotasun hau sintesi batera igaro da, bi elementuen fusioaren bidez. Bestetik, Agirreren inspirazio-iturri bihur daitezke beste mintzaira eta kultura batzutako "hiztegiak": Euskal Herrian (uler bedi lurraldezko zentzuan) gazteleraz egin diren zenbait testu, muga hauek gaindituz egin diren zenbait testu, testu hauen eraikuntzara eramandako mota desberdinetako baliabideak...

Honenbestez, atal diakroniko hau ere zabalduz doan eraztun moduan planteatu beharko da, ardatz zut horretan Agirreren eleberriak erdigunean kokatuz.

Agirrek bere sintesi propioa egingo du "euskal hiztegi eta kultura" horrek eskaintzen zizkion "artekotasunetatik" eta beste mintzaira eta kultura batzutako hiztegiak eskainitako testuartekotasunetatik bere testuak eraikiz: bere testuartekotasun propioa sortu.

Honengatik, oso modu panoramikoan bada ere, zenbait lerro eskainiko zaio azterlan honetan Agirrek bere testuen eraikuntzara eraman zezakeen "testuartekotasun" horri.

Argibide batzutara soilik eramango da, esan bezala, bilakaeraren alorrean Agirreren eleberriak "euskal hiztegi eta kultura" honekin harremanetan jartzea. Lan erraldoia litzateke modu egituratu —egitu-

---

(55) Euskal literaturari buruz egin diren hainbat azterketaren gainbegirada hutsak honela erakusten du: euskal idazleen idazlanak beste mintzaira eta kultura batzutako "hiztegien" argitan ere aztertu direla. Horra hor P. Axular-en **Guero** edo J. Tartas-en **Onsa hilceco vidia** edo pastoralak edo P. Topet Etxahun-en poemak edo J.B. Elissanburu-renak edo I. Bizkarrondo "Bilintx"-enak edo F. Arrese Beitia-renak... zerrenda luzeago baten lekuko, eta honako hauek eskainitako "hiztegien" argitan eta harremanean jarri direnak: Fray Luis de Granadaren **Guía de pecadores**, "colportage" literaturako **Livre de bien mourir**, misterio frantsesak, F. Villon-en, J. Rutebeuf-en, Lamartine-ren, Bécquer-en, Zorrilla-ren poemagintzak.

ratze-maila bat bilatu bada ere— eta eshaustibo samarrean eleberri hauek izan ditzaketen harremanak ezartzea; izan ere, eginkizun honetarako ez bait da aski Agirreren eleberriek —ikuspegi estruktural batetik euskal literaturak osatzen duen sistema horretara— ekar dezaketen berritasun-maila neurtzea (56), ez bait dira katebegi bat bakarrik katean eta, besteak beste, beraien lehenaldiko hainbat idazlanekin harremanetan egon bait daitezke (57). Hala gertatzen dela dirudi Agirreren eleberriekin behintzat.

Azterlanean barrena eleberri hauek aurreko "euskal hiztegi eta kultura" horretako zenbait atalekin zenbait puntutan izan dezaketen lotura ere azalduko da, baina, esan bezala, ez modu eshaustibo batean, ezta urrik eman ere; zertzelada batzu ematera mugatuko da soil-soilik.

Dena den, ez da lehenaldiarekiko bakarrik lekutuko. Azterketa-lanak gorde nahi zuen koherentziak geroaldiari ere zenbait erreferentzia egitea eskatu du. Eta azken atal batean bere geroaldiaren argitan ikusiko da eleberrigintza hau. Bertan, oso modu panoramikoan, labur-labur, Agirreren eleberrigintza-moduak geroztikako euskal eleberrigintzan izan duen oihartzuna izango da mintzagai.

Zinez, Agirreren eleberrigintzaren deskripzioak agerian utzitako lerro nagusiek ez dute iraultza handirik ezagutuko etorkizun hurbilean, mende erdi baten inguruan behintzat; aitzitik, hari mehe edo ez hain meheak lotzen ditu.

Aztergai den eleberrigintza bere geroaldiarekin ez ezik, bere lehenaldiarekin ere lotzen du hari gidatzaile batek.

Honela zioen J.M. Lasagabasterrek:

> "La historia de la literatura vasca, la escrita en este caso, es en la

(56) R. Wellek-ek dioenez, Pragako Zirkulu Linguistikoko partaide den J. Mukarovsky-rentzat: "En la historia sólo hay un criterio que interesa: el grado de novedad". WELLEK, R.; **Historia literaria. Problemas y conceptos**, (S. Beser-ek eginiko aukera eta aurkezpena), Editorial Laia, Barcelona, 1983, 32. or.

(57) R. Wellek-ek dioen bezala, "Una obra de arte no es simplemente un factor de una serie, un eslabón de una cadena. Puede estar en relación con cualquier cosa del pasado". **Ibidem**, 34. or.

práctica y no puede menos de serlo la historia del nacimiento, desarrollo y vicisitudes del euskara escrito" (58).

Uste dugu, azalpen hau tesi bihur daitekeela azterlan honen amaieran. Agirreren eleberrigintzaren azterketarako egin den planteamenduak —alderdi metodologikoari eskainitako atal honetan azaltzen joan direnak— ondorio horietara bideratzen du. Euskal literaturaren historia nekez uler daitekeelakoan gaude, euskarak —euskal literaturaren lehengaiak—, eta ez bakarrik euskara idatziak, baizik eta zentzu zabalago batean, faktore desberdinak eragile, Euskal Herriko gizartean (har bedi zentzu geografikoan, lurraldezkoan) eta historian jasan dituen gorabeherei lotu gabe —maila soziolinguistikoan, linguistikoan huts-hutsik.. hizkuntza horren historia itxuratzen joan direnak—. Elementu hauen eraginari jaramonik ez egitea euskal literaturaren historiak erakusten duen konplexutasuna murriztea da. Azterlana bihur bedi (Agirreren eleberrietan berbaldi diskurtsibo-berbaldi narratiboa bikotearen artean gertatzen denaren antzera) egindako azalpenaren frogaleku.

Eta azkenik, ardatz diakroniko honetan, oso modu xumean bada ere, zenbait ohar eskainiko dira, beste mintzaira eta kultura batzutatik har zezakeen "hiztegiaz" eginiko erabileraz.

"Euskal" adjetiboak mugatzen zuen hiztegiaz egin zezakeen erabilerari ez bazaio azaldu diren arrazoiengatik azalpen egituratu eta batipat eshaustiboa eskaini eta apunte batzutara mugatu bada, are gehiago jotzen du ikuspegi panoramikora beste "hiztegiez" egin zezakeen erabilera honek. Eta, izan ere, besterik ez bada ere, egindako planteamenduarekin koherentziarik gorde nahi bazen, hala behar zuen izan: erdigunea Agirreren eleberrigintza, "artekotasun" hauek zabalduz doazen eraztun gisa planteatu dira. Beraz, ikusgunea irekiz doan neurrian galduz doaz xehetasunak, leku-denborazko koordenada zabalagoak ikusmiran jartzean.

---

(58) LASAGABASTER, J.M.; "La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica" in **Mundaiz**, n.º 26, julio-diciembre, 1983, 39. or.

I. TESTUINGURUA: EUSKAL PROSA NARRATIBOAREN SORRERA

> "Le vieux mot Navarre n'est pas un mot. On naît basque, on parle basque, on vit basque et l'on meurt basque. La langue basque est une patrie, j'ai presque dit une religion".
>
> Victor Hugo

Euskal literaturak ez du prosa narratiboaren sorrera XIX. menderarte ezagutuko. Eta XIX. mendean bertan ere lehen urratsak besterik ez dira emango (1).

Ez dago sorrera honen berankortasuna ukatzerik Europako Mendebaleko literaturaren aldean behintzat. Mendetako atzerapenarekin jaioko da literatur forma hau euskaran.

Esan daiteke Domingo Agirre 1898. urtean **Auñemendiko Lorea** eleberriarekin plazaratzean, literatur forma honen hastapenak jartzera datorrela. Eleberriarenak bai behintzat.

---

(1) "Pero es el nuestro un proceso mucho más lento, ya que la prosa narrativa no empieza a surgir y todavía muy tímidamente, hasta el siglo XIX y el género más típico de la literatura narrativa, la novela, es en la literatura vasca un fenómeno del siglo XX". LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Editorial Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, 256. or.

Data horren aurretik oso urriak dira euskal literaturak prosa narratiboaren alorrean eman dituen urratsak.

Urrats urri hauek izango dira ondoko lerroetako mintzagaia: alor honetan "tradizio idatziak" Domingo Agirreri eskaintzen ziona.

Berez gauzak bere senetik ateratzea izan daiteke Domingo Agirreren **Auñemendiko Lorea**ren aurretikako prosa narratiboan dagoen "tradizio idatziaz" mintzatzea; izan ere, "tradizio idatzi" hau Domingo Agirreren idazle garaikideak bait doaz sortzera. Baina idazle garaikide hauen urrats urri hauek aurreratu egingo zaizkio urte batzutan.

Euskal prosa narratiboaren sorreraren testuinguruan ekingo dio eleberrigintzari Agirrek mende-bukaeran. Eusko gizartea gerra batetik irtena da, Lore-jokoak eta euskal festak zabalkunderik handiena hartzen ari dira, aldizkariak ugaltzen...

1. GIZARTE-EGOERA

Lerro hauen helburua ez da Euskal Herriak XIX. mendean barrena jasandako aldaketa politiko-ekonomiko-sozialen azterketa sakon bat egitea; ezta, prosa narratiboaren sorrerarekin duen parekidetasun kronologikoagatik, XIX. mende horren azken herena xehetasunez arakatzea ere. Aitzitik, lehentasunik ezarri gabe eta horietako alor bat gainontzekoen esplikazio-iturri bihurtu gabe, aldaketa horietako zenbait gertaeraren konstatazio hutsa egin nahi litzateke; beti ere, alor literariora eta bereziki prosa narratibo horrekin nolabaiteko harremana izan dezaketen elementuetara mugatuz. Nolanahi ere, gizarte-egoerari atal hau eskaintzeak ez du esan nahi garai honetako literatura gizartearen, eta batipat ekonomi azpiegituraren, isladapen soiltzat jotzen denik. Bestelakoa da gure helburua: idazle-irakurle komunikazioa zein motatako gizarte-egoeratan garatzen den atzematea.

1876.eko uztailaren 21ean, bigarren gerrate karlistaren ondoren, Espainiako Gorteek euskal foruak deuseztatzeko Legea aprobatzen dute euskal diputatu liberalen iritzien aurka. Bere azkenetan daude 1839.eko urriaren 25eko Legeak lehen gerrate karlistaren ondoren "Monarkiaren Batasun konstituzionalaren barnean" utzitako foruak.

1876.az geroztik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara zabalduko da sistema fiskala eta soldaduska egin beharra. Antzeko egoera ezaguna

zuen Nafarroak 1841.ez geroztik. Kontzertu ekonomiko bat, 1878.ean izenpetua (2), geldituko zaie Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari garai batean bizi izan zuten erregimenaren arrasto bakar bezala.

Lehenengo gerrate karlistan bezala, bigarrenean ere euskaldun guztiak ez ziren borrokaren alderdi batean egon. Hala ere, garaiko zenbait berrik aditzera ematen dutenez, inork gutxik nahi zuen 1876.ez geroztikako foruen deusezpena heltzea (3). Dena dela, historiagile guztiak ez datoz puntu honetan bat; bada tartean zalantza-izpiren bat duenik (4).

Maila ekonomikoan (5) Bizkaiak, eta batipat Bilbo eta Nerbioiaren ezkerraldeak, industria modernoaren sorrera (6) ezagutuko

---

(2) Ik. ESTORNES ZUBIZARRETA, I.; **Carlismo y Abolición foral. En torno a un centenario, 1876-1976**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1976, 190. or.

(3) J.J. Solozabalek ildo hau markatzen duten zenbait aipamen dakartza. Horietako bat J. de Ybarrarena da; honela dio Bizkaiari buruz:

"En la defensa de los Fueros de Vizcaya, que fueron abolidos por la Ley de 21 de Julio de 1876, se hallaban de acuerdo todos los vizcainos, fueren cuales fueren sus sentimientos políticos y sin distinción alguna, lo mismo los carlistas que habían sido vencidos en la pasada guerra, y de cuyo amor a los Fueros se tomó pretexto para suprimirlos, como los llamados propiamente fueristas y los liberales que lucharon en el Sitio de Bilbao, fueran republicanos o dinásticos, con sus diversos matices de liberales, en la acepción partidista de la palabra, conservadores, etc". SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, L. Haranburu-Editor, San Sebastián, 1979, 262. or., 92. oin-oharra, edo J.J. Solozabalek berak dioena:

"La Ley de 21 de Julio de 1876 produjo dos efectos principales: en primer lugar un sentimiento generalizado de injusticia y frustración. En segundo término la consecución en el país vasco de la unanimidad en torno a los fueros que hasta ese momento nunca había ocurrido". (Op. cit., 302-303. orr.).

(4) "Los planteamientos de transigentes, intransigentes, carlistas o demócratas son radicalmente opuestos en muchos aspectos, y difícilmente iba a ser el tema foral punto de unión en sectores de filosofías políticas (y extracción social) tan diversas". CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, Siglo XXI de España Editores, S.A., Madrid, 1979, 105. or.

(5) Aditzera emana dagoenez, ez da sarrera labur honen asmoa faktore desberdin hauen arteko lotura politikoak, ekonomikoak, sozialak ezartzea; baizik eta, edozein kasutan, hauek literaturarekin izan dezaketen lotura adieraztea.

(6) "Los primeros intentos de crear en Vizcaya una industria moderna datan de 1841". GARCIA DE CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1982, berrikusitako bigarren argitalpena, 59. or.

du. Zaharkituak gelditu diren olen ordez (7), 1865. urte inguruan Bizkaiko meatz-inguruaren esplotazioa hasiko da, meatz horien inguruan lehen enpresak sortuz gehienbat atzerriko kapitalarekin (8). Batipat Inglaterrara saldutako meatzari esker sortuko da burgesia berri bat berezitasun batzurekin; oso familia gutxiren eskutan gelditzen dira salmentatik ateratako etekinak. Beraz, sortzen den burgesia berria kopuruz oso txikia izaki, esku gutxitan gelditu da Bizkaiko bilakabide ekonomikoaren kontrola. Burgesia honek sortuko du industria handia 1880. urte inguruan, erdi-mailako eta maila txikiko industriari aurrea hartuz (9).

Burgesia hau Madrileko Gobernuaren alde jarriko da eta karlismoaren aurka (10).

Gipuzkoan, berriz, Bizkaikoa baino berankorragoa da industria modernoaren sorrera; 1897. urtean kokatzen dute F. García de Cortazar-ek eta M. Monterok ekonomia ruraletik ekonomia industrialeranzko iraganbidea, eta XX. mendearen lehen urteei legokieke industrializazio horren garapena (11). Berankortasunaz gain industria honen sorrerak badu Bizkaikoaren aldean beste berezitasunik ere: 1) Bizkaikoa ez bezala —Bilbo eta bere inguruetan kontzentratua—, Gipuzkoakoa probintzian barrena barreiatuko da; 2) sarritan industrializazio-prozesu berberatik sortutako erdi-mailako burgesia eta burgesia txikia izango du protagonista, Bizkaian burgesia handia den bitartean; 3) Bizkaikoak industria siderometalurgikoa soilik landuko

(7) "La decadencia del modo clásico de tratamiento del hierro, ferrería, iría aumentando progresivamente —salvando algunos momentos concretos como el año 1828— para llegar al desplome definitivo que se producirá en la segunda mitad de siglo". SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 70. or.

(8) Ik. GARCIA DE CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, 62. or.

(9) **Ibidem**, 63. or.

(10) "Es interesante seguir el comportamiento de la gran burguesía vasca, enemiga del carlismo, apoya a los gobiernos de Madrid, pero ve todavía con mejores ojos la Restauración (la guerra carlista produjo una baja sensible de la producción industrial vizcaina en 1873 y, sobre todo, en 1874, lo cual prueba que no era una consecuencia directa del régimen de Madrid)". TUÑON de LARA, M.; **Estudios sobre el siglo XIX español**, Siglo Veintiuno de España editores, Madrid, 1971, 7. argitalpena, 119-120. orr.

(11) Ik. GARCIA DE CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; op. cit., 83. or.

du, Gipuzkoakoa industria-mota desberdinek osatuko dutelarik; eta 4) Gipuzkoan enpresa txiki eta erdi-mailakoak sortuko dira, Bizkaian handiak sortuko diren bitartean (12). Sorrera-modu eta zirkunstantzia desberdin hauek Bizkaiko goi-mailako burgesiak ez bezalako jarrera politikoak hartuko dituen burgesia sortuko du Gipuzkoan (13).

Arabak eta Nafarroak aldaketa txikiagoak jasaten dituzte, nahiz eta abelazkuntzak eta nekazarien lur-sail eta produktuen kopuruak gorabehera batzu izan. Pirinioetako mugak berezle, industrializazioak ez du Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoan eraginik izango (14).

Aipatutako aldaketa hauek hirigintzaren alorra ez ezik (Bilbo inguruetan batipat) demografiaren alorra ere ukituko dute. 1857. urte inguruan hasitako hazkuntzak datu nabarmenak eskainiko ditu 1877.ean (15). Industriaren sorrera bezala, hazkuntza hau ere Gipuzkoan Bizkaian baino berankorragoa izango da (16). Etorkinek handituko dituzte kopuru hauek.

Bizkaiari dagokionez, bi etapa bereizten ditu J.J. Solozabal-ek etorkinen jatorria dela-ta. Lehen muga 1875-1876an kokatu eta arrazoizkotzat jotzen du urte horietan alboko probintzietatik heltzea jendea Bizkaira; Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Santandertik, hain zuzen. Bigarren aldian etorriko dira batipat gaztelarrak, leondarrak, asturtarrak eta aragoitarrak (17). Beraz, J.J. Solozabal-i jarraiki esan daiteke Bizkaiko lehen proletargoaren gehiengoa Euskal Herrian bertan jaiotakoek osatu zutela. Honek ez du esan nahi gehiengo horrek euskalduna (euskaraduna) izan behar zuenik; izan ere, ordurako Nafarroa-Arabak abiada handiko erdalduntze-prozesuan murgilduta bait zeuden (18).

---

(12) Ik. GARCIA DE CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, 80. or.

(13) **Ibidem**, 84-85. orr.

(14) Ik. BELTZA, (E. López Adán); **El nacionalismo vasco (1876-1936)**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1976, 61-65. orr.

(15) Ik. SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 36. or.

(16) **Ibidem**, 37. or.

(17) **Ibidem**, 44. or.

(18) **Ibidem**, 37. or.

Hazkuntza Bilbo eta bere inguruetara mugatzen da, industrigu-neetara, alegia; Bizkaiko arrantza eta nekazal aldeek ez bait dute halako demografi aldaketarik ezagutuko.

Gipuzkoaren hazkuntza berankorragoa da. Araba-Nafarroak, berriz, ez dute halako etorkin-uholderik ezagutuko; aitzitik, jaitsi egingo da beren biztanlegoa (19).

Demografiari eskainitako sail hau bukatzeko, hirien biztanlego-kopurua eta kopuru honek probintziako biztanlegoan duen proportzioa azalduko dugu, datu esanguratsua izan bait daiteke.

Urteak	Gasteiz	Port.	Donostia	Port.	Iruñea	Port.	Bilbo	Port.
1857	15.569	%16.1	9.484	%6.06	22.702	%7.6	17.649	%10.9
1900	30.701		37.812		28.886		83.306	

(20)

(19) Hona hemen Hego Euskal Herriko biztanlegoaren bilakaera XIX. mendearen bigarren erdialdean:

Urtea	Araba	Nafarroa	Gipuzkoa	Bizkaia
1857	96.398	297.422	156.494	160.579
1877	93.538	304.184	167.207	189.954
1887	92.915	304.122	181.245	235.659
1897	94.662	302.978	191.822	290.665
1900	96.385	307.669	195.850	311.361

Datu hauek INE dute iturri. Ik. GARCIA de CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, 198. or.

Iparraldeko hain datu zehatzik ez dugu. Honako hauek jaso ditugu Euskaltzaindiak argitaratutako **Euskararen liburu zuria** liburutik:

Urteak	Biztanleak
1851	162.365
1881	167.317
1901	173.351

Ik. EUSKALTZAINDIA; **Euskararen liburu zuria**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1978, 279. or.

(20) **Ibidem**, 281. or.

Beraz, 1900. urtean gehitu egin dira portzentaiak, eta zenbait kasutan bikoiztu; izan ere, 1900.ean Gasteizen probintziako %31.8 bizi da; Donostian, %19.3; Iruñean, %9.3 eta Bilbon, %26.7.

XIX. mendearen azken heren honetako ideologi mailako beste bi gertaera aipatu nahi ditugu: sozialismoaren sorrera (21) eta nazionalismoarena (22). Bizkaian sortuko dira nahiz bata nahiz bestea, Hego Euskal Herrian behintzat.

Sarrera labur honetan ez dira bataren eta bestearen ezaugarriak, historia eta abar aztertuko, baina bai biak aurkajarri zitzakeen zenbait ikuspegi azalduko.

"Jaungoikoa ta Lagi-zafa" izaki Sabino Aranaren lema, bi zutabe horien gainean eraikiko du nazionalismoa. Nahiz bata nahiz bestea hasierako sozialismoaren erreibindikazioetatik at geldituko dira.

Hastapenetako sozialismoaren helburua kapitalismoaren injustiziak salatzera eta ekonomi eta politika-alorretan bere burua antolatzera zuzenduko da batipat (23). Sozialistek kapitala/lana kontradizioa jotzen dute kontradizio esentzial eta ia bakartzat (24).

Erabat aurkajartzekoa izango da nazionalismoaren aurrean hartzen duten jarrera (25): "Lagi zafari", arazo foralari, ez diote arretarik eskainiko. J. Corcueraren ustez, sozialista bizkaitarren antinazionalismoa ez da berea bakarrik, ezta PSOErena bakarrik ere; arazoa zabalago aztertuz, XIX. mende-bukaerako sozialismoaren "internazionalismoan" bilatu beharko lirateke arrazoiak. Izan ere, nahiz eta London-en 1896.ean egindako Nazioarteko Kongresu Sozialistan

(21) "En este marco de inmigración y gran explotación se produce la primera organización del socialismo en Vizcaya: el 16 de junio de 1886 se constituye la Agrupación Socialista de Bilbao, inspirada y presidida por Facundo Perezagua Suárez, toledano enviado a Vizcaya por Pablo Iglesias que se mantendría a la cabeza del socialismo vizcaíno hasta ser desplazado, en la segunda década del siglo XX, por Indalecio Prieto". CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, 260. or.

(22) 1894.eko uztailaren 14ean inauguratu zen lehen Batzokia. Ik. CORCUERA, J.; op. cit., 266. or. Lehen Bizkai Buru Batzarreko partaideek 1895.eko abuztuaren 15ean zin egin zuten kargua. **Ibidem**, 417. or.

(23) Ik. SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 177. or.

(24) Ik. CORCUERA, J.; op. cit., 267. or.

(25) Ik. SOLOZABAL, J.J.; op. cit., 188. or.

nazio guztiek autodeterminaziorako duten eskubidea aitortu, badirudi alderdi sozialistak adosago daudela Guesde-rekin —"ez dago naziorik, batipat gaur... klaseak besterik ez daude" (26)—. Sozialistentzat burgesen gaiak dira nazioa eta nazionalismoa.

S. Aranaren beste zutabearen aurrean, Jaungoikoarenarenean, hartu zuten jarrera eztabaidagarriagoa izan daiteke. Bigarren zutabe hori Jaungoikoa bada ere, oposizioa nonbait bilatzekotan klerikalismoa/antiklerikalismoan bilatu beharko litzateke berez: alegia, lehenaren ideologiaren klerikalismoan eta bigarrenen antiklerikalismoan. J.P. Fusik dioenez, 1901.ean antiklerikalak manifestatzen hasi zirenean, P. Iglesiasek (PSOEren sortzaileak) sozialistei ez parte hartzeko deia egin zien. Hala ere, J.P. Fusiri jarraiki, ez omen dago hain argi hori izan zenik alderdikide sozialisten jarrera, nahiz eta hori izan postura ofiziala (27). **La Lucha de Clases** aldizkari sozialistari antiklerikalismoa dario sorreratik bertatik; eta nazionalismoaren sorrerak areagotu egingo du joera hori, J.P. Fusiren ustez (28).

Nolanahi ere, XIX. mendearen azken herenak oso egoera konplexua eta nahasia azaltzen du Hego Euskal Herrian. Badirudi bigarren gerra karlistan bai karlistek eta bai liberalek, biek, defendatu zituztela foruak, bigarren gerra karlista honetan ia euskaldun guztien erreibindikazioa izan zela foruzaletasuna (29); geroztik, 90. urteen inguruan alderdi guztien erreibindikazioa dela, baina alderdi hauetako batek berak ere ez duela benetan bereganatzen foru-arazoa

(26) Ik. CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, 263. or.

(27) Ik. FUSI, J.P.; **Política obrera en el País Vasco (1880-1923)**, Ediciones Turner, Madrid, 1975, 222. or.

(28) **Ibidem**, 223. or.

(29) "Bigarrenean FORUEN defentsa askoz garbiago azaltzen bait da... bai jatorrizko karlistak direnen artean, bai **liberalak** direnen artean ere. Liberalen artean foruzale porrokatuak izango ditugu. Nahiko izango litzateke izen bat aipatzea: Mateo Benigno de Moraza jauna. Ez dirudi Karlismoaren ezaugarri nagusiena Foruzaletasuna denik. Ia euskaldun karlista guztiena bai; baina baita liberal euskaldun gehienena ere. Foruzaletasuna kasik euskaldun guztiek daramate beren barruan. Gertatzen dena zera da: liberal euskaldunek, momentu batetan, aldaketa baten beharra ikusten dutenez, estaduko liberalen eskuetan utziko dutela aldaketa honen direkzioa". URRUTIKOETXEA, J.; **Karlismoa**, Elkar, Donostia, 1984, 115. or.

(30). J. Corcuerarentzat honela labur daiteke foruzaletasunaren egoera S. Arana eszena-toki politikora azaldu aurretik:

> "falta de claridad y de cohesión entre los autodenominados fueristas, grandes reticencias ante la estructura estatal y los partidos de ámbito general, considerados partidos 'maketos', y cierta confusión entre fuerismo, confesionalismo y antirrevolucionarismo" (31).

J. Corcueraren eritziz, liberal/karlista oposizioa beste oposizio batek ordeztuko du 1890-1898. urteen artean: kazikismo/antikazikismo oposizioak. Oposizio honen sorburuan alderdi sozialista indartsu baten sorrera eta inmigrazioa daude; baita monopolio ekonomiko eta politikoaren prozesuak azkenean oligarkia Euskal Herriko gainontzeko alderdi politikoei eta hauek ordezkatzen dituzten sektore sozialei dakarren aurkajartzea ere.

Kazikismo/antikazikismo oposizio hori beste batzurekin osatzen da: batetik, alderdi konfesionalak eta alderdi laikoak edo tradizio liberalekoak aurkajartzen dituena; bestetik, alderdi fueristak eta alderdi zentralistak aurkajartzen dituena.

Egoera honetan maila batean paraleloak diren bi alternatiba politiko eskainiko dira: batak S. Arana eta Goiri izango du buru; bestea, Euskalerria elkartearena, 1876.ean liberal moderatu fueristen adierazpena izan zena. Biek (separatista lehena, matizazio gehiago egiten dituena bigarrena) alderdi nazionalista handi bat sortzea bilatzen dute; alderdi honek sektore tradizionalista zabalak bereganatzea bilatuko luke eta lehengo lema zaharra gordetzea honenbestez: Jaungoikoa eta Foruak; beraz, konfesionalismoaren ildotik bideratuko luke politika (32).

---

(30) "En cierto sentido, y como ocurriera en los años que siguieron a la abolición foral, la causa de los fueros es asumida por todos los partidos, pero por ninguno de ellos en serio". CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, 278. or.

(31) **Ibidem**, 279. or.

(32) **Ibidem**, 300-301. orr. Sabino Aranak Jaungoikoa eta lege zaharra lotzen zituen; A. Campionek, Jaungoikoa eta foruzaletasuna: "Hoy, señores, el fuerismo constituye en Nabarra un núcleo compacto, fogueado en cien combates, que mira con esperanza al porvenir; más importante por la calidad e influencia personal de sus adeptos que por su número. Sus ideas son las del **Lau-Buru**: Dios y Fueros, la tesis católica y la afirmación foral. Marcha al asalto del Estado moderno, omnipotente y centralizador, monstruo abortado por el racionalismo, apoyándose en

1.1. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Gauza jakina da euskararen murriztea hiztun-komunitate baten komunikazio-tresna legez: mendez mende egin du atzera bere hedadura geografikoak. Honela mintzo da L. Mitxelena:

> "El siglo pasado registra un gran retroceso de la lengua en Navarra, en el cual no dejaron sin duda de influir las dos guerras carlistas, retroceso que en Alava debió de ser anterior porque en buena parte se realizó en el siglo XVIII, aunque nos falta información segura sobre los detalles del proceso, lo mismo que para una parte de la zona de habla vasca al oeste del Nervión: sabemos con todo que en Vitoria se hablaba fundamentalmente romance en el siglo XVI, aunque no en los pueblos de sus alrededores, y tal vez conservemos una variedad alavesa en el vocabulario recogido por Landucci en 1562. En contraste con esto, los límites septentrionales de la lengua parecen haberse mantenido constantes desde 1500 hasta nuestros días, y quizá desde varios siglos antes" (33).

Baina XIX. mendeak ez du euskararen muga-murrizketa soila ekarriko; euskararen kalterako izango dira XIX. mendeko aldaketa sozialak ere, gertatu ziren bezala gertatu zirelako.

Aipatu berri ditugun industrializatze-prozesua, etorkinen uholdea eta hiritartze-prozesua ez dira euskararen bizkortze soziala lortzeko moduan desarroilatuko; ezta komunikabideen garapena ere; ez ibiltzeko moduak (trena), ez albisteen berri emateko egunkari eta aldizkariak...; nahiz eta, beharbada paradojikoki, ordurarte ezagutu gabeko neurrian ahalegindu euskarak bizirik iraun zezan, eta inoiz baino ahots gehiago plazaratu euskararen alde.

Zabalera geografikoari dagokionez jaso daitezkeen xehetasun han-

---

la Religión, en el derecho y la justicia. Ningún movimiento puede prosperar en Nabarra si no circula por su tronco la savia católica: Dios es, señores, el personaje más importante de la Euskal-Erria, y renunciaríamos cobardemente a la más augusta y fecunda de nuestras tradiciones, si renegásemos de Cristo y como Judas lo vendiéramos por treinta dineros". CAMPION, A.; "Conferencia acerca del origen y desarrollo del regionalismo nabarro, dada en la Lliga de Catalunya la noche del 3 de Junio de 1891"in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 45. or.

(33) MICHELENA, L.; **Sobre el pasado de la lengua vasca**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1964, 77. or.

diago (34) edo txikiagoak (35) alde batera utziz, bada gertaera azpimarkagarri bat: euskarak Nafarroan jasaten duen atzerakada. Honek lehen planora ekar dezake Araban —batipat Gasteizen— eta Nerbioiaren ezkerraldean jasana. Izan ere, euskal literatura, eta zehazkiago prosa narratiboa, egoera horren erakusgarri izango da, mundu-ikuskera edo ideologi mailan ez ezik, baita produkzio-baldintza soiletan ere. Euskal prosa narratiboaren sortzaileak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Lapurdiko herri txikietan jaiotako idazleak izango dira. Erdaldundutako lurralderen batean sortutako idazlea salbuespena izango da eta euskaldunberria: A. Campion, lekuko. Aldizkarietara igaroz, antzeko egoera azaltzen da. Gasteizen argitaratu zen **Revista de las Provincias Euskaras** aldizkariak darabil euskara gutxien; euskaraz argitaratutako poemaren bat salbu, gainontzekoa gaztelera hutsean osatzen zen. Lore-joko edo euskal festen ospatze-lekuek eta egitarauek ere egoera berbera azalduko dute: ospatze-lekua euskal (euskaradun) herri edo hiria izango da (Donostia, Urnieta, Oiartzun, Sara, Urruña, Markina, Igorre, Elizondo, Bera...), eta horrelakoa ez denean (Gasteiz, Iruñea, Bilbo...), egitarauean gaztelera nagusi, eskainitako sarietako bat edo beste izango da euskaraz idatzitako idazlanentzat (36). Garaiko zenbait iruzkinetan ere irakur daiteke antzeko zerbait.

---

(34) Ik., besteak beste, VV.AA.; **Geografía histórica de la lengua vasca**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1960, bigarren argitalpena. BONAPARTE, L.L.; **Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés**, London, 1863. VELASCO, L. de; **Los Euskaros en Alava, Bizkaia y Gipuzkoa**, Imprenta de Oliveres, a cargo de A. Xumetra, Barcelona, 1879, 479-490. orr.

(35) "Habréis observado, señores, que he usado del adverbio **todavía**. No sin tristeza, ciertamente. Porque indica cuánto temo y recelo que pronto, demasiado pronto, algunos de los pueblos guipuzkoanos apostaten de la lengua propia, y á los pueblos aislados sigan las zonas y comarcas, repitiéndose la lamentable sustitución que ya efectuaron muchas comarcas y zonas de Alaba, Bizkaya y Nabarra: sustitución á la que no han rendido parias, sirviendo de ejemplo y reproche á todos, los territorios baskos situados en Francia". CAMPION, A.; "Discurso en las fiestas euskaras de Azpeitia el día 30 de septiembre de 1901" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, 150. or.

(36) Ik., esate baterako, 1888.ean "Ateneo Científico, Literario y Artístico de Vitoria"k antolatutako Lore-jokoen egitaraua. Bertan eskaintzen diren hamabi sariren artean bat bakarra dagokio euskaraz idatzitako poesiari: "11.ª **Un alfiler de oro para caballero**, al autor de la mejor y más inspirada poesía en bascuence, dedicada al vate bascongado D. José de Iparraguirre. Premio de D. José Ramirez de la Pisaine". Ik. **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 89. or. Era berean, ikus Iruñean 1886.can

Honela mintzo da, esate baterako, Eulogio Serdán:

> "En un espacio de tiempo, relativamente corto, San Sebastián, Durango y Marquina, Guernica y Vitoria, ávidos de reverdecer antiguas glorias y de hacer repercutir en el resto de España los dulces acentos de la pristina lengua euskara, han celebrado sus justas literarias, reservando un lugar, de mayor o menor importancia, según la localidad, á cantar las excelencias del idioma que, en todos tiempos condensará en exacta síntesis las aspiraciones de la Euskal-erria" (37).

Antzerki modernoa deitu den horren sorrera ere Donostian kokatzen da, euskal festen inguruan. Alor honetan ere baldintza geografikoez hitz egin daiteke besteak beste; edo, hobeto esanda, euskararen kokatzeari buruz. Bilbon garatuko den antzerkia ez da euskara hutsean izango; Donostiakoa, aldiz, bai, nahiz eta hemen ere kasuren batean edo beste elebiduna izan. Bilbon XIX. mendearen bukaeran sortuko den antzerkia antzerki elebiduna edo gaztelera hutsezkoa izango da (38).

Hego Euskal Herriko XIX. mende-bukaerako hirietan nabarmena da gazteleraren nagusitasuna: Gasteiz eta Iruñea erabat gaztelatuta, Bilbo prozesu honetan etengabe aurrera —eta Bilbo da Euskal Herriko hiri-kontzentraziorik handiena, bakarra ez esateagatik—, mende-amaieran batipat erdalduna bihurtu arte (39), Donostia gelditzen da hiribururik euskaldunen bezala.

---

ospatutakoaren egitaraua **Euskal-Erria**, XIV, 1886, 303. or. eta hurrengoak, edo Bilbon 1882.ean ospatutakoarena. Azken honetan literaturaren sailean hiru sari eskaini ziren; bata euskaraz idatzitako poema batentzat, beste bat euskaraz nahiz gazteleraz idatzitako poema batentzat eta, azkenik, hirugarrena gazteleraz idatzitako memoria batentzat. Ik. "Fiestas euskaras en Bilbao. Euskal festak Bilboon" in **Euskal-Erria**, VI, 1882, 143. or.

(37) SERDAN, E.; "Los juegos florales en Alaba" in **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 437. or.

(38) "No podemos dejar de señalar la existencia de un teatro vasco en Bilbao y pueblos de Vizcaya. Por lo que respecta a la capital del Señorío, se trata en la mayoría de los casos de teatro en castellano, o a lo sumo bilingüe". LABAYEN, A.M.; **Teatro euskaro**, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1965, 63. or.

(39) Honela mintzo zen Fidel de Sagarminaga 1880. urtean:

> "Es de lamentar (...) que dentro de la villa de Bilbao, en la que (...) en el segundo tercio del último siglo aún se hablaba el vascuence, se haya llegado después a olvidar totalmente". M. Etxebarriak aipatua. Ik. ETXEBARRIA, M.; So-

Egoera honetan industrializatze-prozesuan sartuko da Euskal Herria. Hiriak hazten hasiko dira probintziari dagokion portzentaia baino handiagoan. Biztanlegoaren hiritartze-prozesu honi Bilbon emango zaio hasiera lehenik eta bortizkien: kanpoko jendea (erdalduna) etorriko da hirira eta bere inguruetara lanera, lehendik erdaldundutako alderdietara, hain zuzen ere.

Hiria demografikoki probintziari nagusitzen hasten zaio —ikus jadanik azaldutako datuak—, ordurarte batipat nekazal eta arrantzale-herria izandakoa industriaren abiada hartzen hasten da, lehen-mailako eskolak ugaltzen (40)... Iraultza horretan parte hartzen duten ele-

---

ciolingüística urbana. El habla de Bilbao, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1985, 29. or.

(40) Europari dagokionez, honako hau dio G. Bruun-ek: "Casi todos los gobiernos europeos tomaron algunas disposiciones para crear escuelas públicas gratuitas de enseñanza primaria durante el último tercio del siglo XIX: Austria-Hungría (1868-69), Inglaterra (1870), Alemania (1872), Suiza (1874), Italia (1877), Holanda (1878), Bélgica (1879) y Francia (1878-82). El analfabetismo disminuyó con notable rapidez. Hacia 1900 era de menos de un 5% en Alemania, los países escandinavos, Inglaterra y Francia, con lo que dejó de ser un grave problema en la Europa noroccidental. La Europa meridional y la oriental ofrecían todavía un cuadro menos halagüeño. Un tercio de la población de Austria-Hungría, una mitad de los italianos, dos tercios de los españoles y los portugueses, y cuatro quintos de la población de los países balcánicos y de Rusia no sabían leer ni escribir cuando terminó el siglo XIX". BRUUN, G.; **La Europa del siglo XIX (1815-1914)**, Fondo de Cultura Económica, México, 3. berrinprimaketa, 1979, 183. or.

Estatu espainolari dagokionez, "1857-9-9ko 7. eta 8. artikuluetan, 6-9 urte bitarteko haurrentzat lehen irakaskuntz maila derrigorrezkotzat deklaratu zen". EUSKALTZAINDIA, **Euskararen liburu zuria**, 399. or.

Gipuzkoari dagokionez, honela mintzo da Fr. J.I. Lasa: "En la historia de la enseñanza primaria en Guipúzcoa, nosotros haríamos un corte antes de los principios del siglo XIX y después de esta época, y bautizaríamos a la primera por 'Edad antigua' y 'Edad moderna' y 'Edad contemporánea' la segunda. Las notas dominantes que las distinguen, a nuestro modo de ver, son las siguientes: En la primera vemos mayor y más honda preocupación religiosa (las obligaciones de asistencia a las misas, vísperas, Rosarios cantados por las calles desde la escuela a la Iglesia, de las disposiciones de enseñar a aprender a ayudar en misas, el carácter de la enseñanza más educacional que instructiva). En las escrituras de condiciones se expresaba que el primer objetivo que debía cumplir el maestro era de 'enseñar la buena crianza', y las escuelas se denominaban 'casas de educación', y el plan de estudios era muchísimo más reducido: el 'trivium' vulgar de la Edad Media, leer, escribir y contar que constituían todo el caudal de conocimientos que se exigía al maestro; y ¡qué decir de los niños! (...). Por último, se ignoraba

mentuetatik at geldituko da euskara; baita euskal literatura ere, eta honen barnean prosa narratiboa. Hauek ere, hiriaren bila joan ordez, mendi-baserri-herrietan geldituko dira; industrializazio-prozesua gaitzetsiko dute eta etxe-barneko edo euskal festetako dasta-gai izango dira, eskolatik at.

Honenbestez, Hego Euskal Herriari dagokionez, batipat Gipuzkoako eta Bizkaiko herrietara mugatuko da euskal irakurle potentziala; hauei Nafarroako iparraldekoak eta Arabako bakanen bat batu behar zaie. Hiriekin ez dago ia kontatzerik. Esan daiteke Donostia soilik gelditzen dela, Bilbon ere erdalduntze-prozesua aurrera doa-ta (41).

G. Bruun-ek honela dio, 1881.etik 1898.era bitartean Europan barrena eman ziren aldaketak aztergai:

> "Un conflicto de propósitos dividió a las clases urbana y rural en casi cada país. El trabajador del campo propendía a ser individualista, conservador y ortodoxo en su fe religiosa. El trabajador urbano aceptaba más fácilmente el colectivismo, estaba más dispuesto a ingresar en un sindicato y era más susceptible a las doctrinas materialistas y agnósticas" (42).

---

la intervención estatal y aun provincial de la ordenación de la enseñanza primaria. Esta no trascendía más allá de los límites de los respectivos municipios. A principios del siglo XIX la provincia empieza a ordenar la marcha de las escuelas por medio de circulares, cuestionarios, etc". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1968, 7-8. orr.

J.I. Lasak XIX. mendearen erdi aldean Gipuzkoan eskolaturik zeuden haurren ehuneko kopurua ere eskaintzen du: 1850.ean, %7.42; 1868.ean, %11.89. Eta honako hau eransten du: "Cuanto más nos acercamos a nuestros tiempos, sigue la instrucción en estado de prosperidad creciente". Ik., op. cit., 57. or. Eta 1900. urtean Gipuzkoa Espainiako estatuan zortzigarrena omen zen eskolatutako haur-kopuruari zegokionez; bere aurretik daude bai Araba eta bai Nafarroa.

(41) Honela deskribatzen du C. de Churruca jaunak euskararen egoera 1897.ean: "Es indudable que la lengua bascongada, primera que se habló en España, se va perdiendo más y más cada día, hallándose hoy reducida á las montañas de Nabarra y parte Francesa colindante con las mismas: en Guipúzcoa es más general su uso, pues se habla más o menos en toda la provincia: no tanto en la de Bizkaya, en cuya capital y pueblos de las Encartaciones se habla muy poco, y tan sólo por las personas del interior de la provincia, siendo muy contadas las que en Alaba la conocen". CHURRUCA, C. de; "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XXXVII, 1897, 411. or.

(42) BRUUN, G.; **La Europa del siglo XIX (1815-1914)**, 163. or.

Euskara nekazal klase indibidualista eta kontserbadore horren komunikazio-tresnatzat geldituko da batipat. Euskal literaturak ere hauek goraipatuko ditu, zeren eta nazionalismoak berak ere, nahiz eta F. García de Cortazar-en hitzetan "**desde** y en último término **para** una sociedad industrializada" (43) sortutako ideologia izan, gaitzetsi egingo bait du industrializazio hori bere lehen urratsetan behintzat (44).

Gero beste mota bateko galdera da irakurlego potentzial horren barnean, nekazal klaseentzat idatzitako literatura hori —beraiek bait ziren protagonista eta goraipatuak— kontsumitzen zuten ala ez.

1.1.1. Euskara gizarte-alorretan

Euskararen muga-murrizketaren arrazoiak aztertzerakoan eskola aipatzen da, industrializazio, etorkin-uholde eta abarrekin batera:

> "Ez da dudarik euskararen gutimenaz, Nafarroaren kasuan, ez daitekeela industriaketaren arazoa errudun izan, ez bait da Nafarroa XX. mendearen hirurogei urte aldera baizik industriatzen. Kanpionek beste arrazoin mota batzuk seinalatzen ditu: herriak bere identitatearen kontzientzia duela galtzen; baina hori baino lehen, prozesu baten amaia baizik ez bait da hori, ez daitezke ahantz politik moldeko beste arrazoin batzuk, hala nola erdararen harrapaketa hertsapena indartuz joaten dela 1857an Hezketaz emaniko 'Ley Moyano' famatuaren ondorioz, lehen mailako irakaskuntza obligaziozko gauza ezartzearekin batera, eta foru erakundeei maisu-maistrak izendatzeko eskubidea moztu egin zielarik" (45).

Faktore desberdinen baterakuntza ez zen euskararen mesedetan suertatu. Batetik, bizitza ofizialaren hizkuntza gaztelera izaki, le-

(43) F. García de Cortázar-ek karlismoa eta nazionalismoa alderatzean dio lehena industriaurreko egoera batean sortua eta industriaurreko gizarte batentzat dela; nazionalismoa, aldiz, gizarte industrialdu batetik eta gizarte industrialdu batentzat formulatua. Ik. GARCIA de CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, 57. or.

(44) "La obra de Arana es una protesta contra la industrialización, contra sus efectos y contra sus agentes (...). Sólo al final de su vida, aunque de mala gana, Sabino aceptará la industrialización y pensará en utilizarla a su favor, como un nuevo y advenedizo factor de diferenciación nacional". SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 326. or.

(45) Ik. EUSKALTZAINDIA; **Euskararen liburu zuria**, 293-294. orr.

hen-mailako irakaskuntzan hizkuntza hori irakatsi behar (46). Ahalegin bakan eta xume batzu egin ziren administrazioaren barnean euskarak presentzia izan zezan; hala nola, Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak euskarara itzultzeko erabakia hartuz edo euskarako katedra bat sortzeko erabakia (47). Baina nahiz eta nor edo nork, Jose Pablo Ulibarrik eta abarrek, XIX. mendean bertan ahaleginak egin Batzar hauek eskoletarako elebitasuna onar zezaten, euskarak administraziotik at eta eskolatik kanpo jarraituko du (48). Eskola elebiduna

(46) "El estudio del castellano en las escuelas es lógico que entrase en el plan de la enseñanza primaria. Teniendo presente el espíritu aventurero de los vascos, su contínuo deambular por las tierras castellanas y las exigencias de la vida oficial dentro de la misma provincia —escrituras notariales, libros de Actas de los Ayuntamientos, etc., todo ello en castellano— eran razones poderosas que le empujaban a adquirir algunos conocimientos del castellano". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 27. or.

(47) Honela dio J.I. Lasak J.P. Ulibarrik Bizkaiko Batzarretan euskararen alde eginiko ahaleginak aztertzerakoan: "¿Y no deberán nada a su campaña y esfuerzos los acuerdos de once años más tarde cuando, en 1841, las Juntas Generales del Señorío (en sesión del 4 de abril), tomaron el acuerdo de establecer en el instituto una cátedra de lengua vascongada, y el 13 de octubre, por reclamación de apoderados vasongados, se dispuso que 'diariamente se trajese a la Junta, en lengua vascongada y por escrito el extracto del acta de la sesión precedente, para que así quedasen mejor enterados de sus deliberaciones y acuerdos los que no poseyeran el idioma castellano?'". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 92. or. Edo L. Akesolok: "Con todo, la semilla por él lanzada en el surco fue sin duda la que once años más tarde, el **año 1841, había de fructificar** en el acuerdo tomado por las Juntas del Señorío para el establecimiento de una cátedra de lengua vasca en el Instituto Vizcaino que se proyectaba. Y fue asimismo en el sentido de las reclamaciones tantas veces formuladas de Ulibarri el acuerdo de las mismas Juntas de 'que diariamente se trajese a la Junta en lengua vascongada por escrito el extracto del acta de la sesión precedente'". (Ik. "Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri" in ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua** izeneko eskuizkribuaren facsimil gisako argitalpena, Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarra, Gasteiz, 1975, IX. or.; nahiz **Euskera**, XVI, Bilbao, 1971, 42-43. orr.).

(48) J.P. Ulibarri Okondon (Araba) jaio zen 1775.ean; eta berak dioenez, garai-modu honetan euskaraz irakasten zuten eskolarik bazen bai Okondon eta baita beste zenbait herritan. Honela dio L. Akesolok: "Pero otra afirmación hay en el **Gutunliburua**, que tal vez a muchos suene a peregrina: la afirmación de la existencia de dos escuelas vascas en Oquendo en la infancia de Ulibarri, una por cada parroquia. Dos escuelas vascas, y en el centro del pueblo una tercera, castellana ésta, para quienes la prefieran, frecuentada principalmente por jóvenes con propósitos de emigrar". (Ik. "Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri in ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua**, VI. or.; nahiz **Euskera**,

sortzeko Ulibarrik eginiko proposamen hori bera ez zen ontzat hartzera iritsi (49). Agian J.P. Ulibarrik zeuzkan motibo berdinak ez ziren izango A.P. Iturriagarengan eragin zutenak, baina 1830. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek hartutako erabaki bat bitarteko, batzorde bat eratzen da (50) eta batzorde honek eskatuta (51), A.P. Itu-

---

XVI, 37. or.). Eta aurreraxeago: "Afirma asimismo Ulibarri que las escuelas vascas estaban dirigidas por los sacerdotes del pueblo y en ellas la enseñanza (ésta es su característica) se impartía toda en vascuence. Es afirmación que Ulibarri hace en otras ocasiones extensiva a otras poblaciones vascas, citando casos concretos de personajes conocidos de su época, como el vizcaino José de Murga, que a través del vascuence, ya había, para los ochos años, aprendido el latín". (Op. cit., VI. or. eta 38. or.). Baina, hauek horrela izanik ere (kasurik baikorrena), ez du lege aldetik euskarririk eta ez dirudi, gainera, egoerarik hedatuena izan zenik.

Dena den, erantsi beharra legoke J.P. Ulibarrik aipatzen dituen kasu bakan horiek —euskara bitarteko latina ikasi dutenena— jadanik XVIII. mendean Aita A. Cardaberazek ere —beste kasu bakan batzu, jakina— ezagutzen zituela: "Gramaticaco Maisu famatu bat gure egunean izanzan Latin gauzac ere Euscaraz eracusten cituena: ta Frances Euscaldunai Gramaticaco Erreglac Euscaraz adieraci, ta eracusten diezcate" dio Aita A. Cardaberazek. Ikus CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac**, Antonio Castilla-ren echean, Iruñean, 1761, 18. or.

(49) "Muy tempranamente el juntero José Pablo Ulibarri se había propuesto lograr el apoyo oficial de las Juntas vizcaínas en pro de la cultura vasca y de la implantación de escuelas vascas en las que se diera entrada a la lengua del país. Para ello mantuvo Ulibarri activa correspondencia con las personas más destacadas de la vida pública vizcaina y asistentes a las Juntas de Guernica. Asistió personalmente a las sesiones de la primavera de 1830 pero surgió lo imprevisto.

Nos dice el P. Lino Aquésolo (que ha investigado los papeles de Ulibarri), que ese 'es el año de la caída que sufrió en las escaleras de su casa intencionadamente provocada, al parecer, por alguien que tenía bastante entrada en élla' (...).

Este accidente no solamente le impidió continuar asistiendo a las sesiones de Guernica, sino que le retuvo alejado de toda actividad pública por dos años, (...). 'Se habían ido al trasto sus ilusiones puestas en las gestiones que proyectaba llevar a cabo ante los representantes máximos de Vizcaya". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 91. or. Ik., halaber, "Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri" in ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua**, VIII-IX. orr.; nahiz **Euskera**, XVI, 42. or.

(50) "En las Juntas Generales celebradas en Mondragón en el mes de Junio de 1830, se acordó la creación de una Comisión auxiliar de la Diputación de Guipúzcoa para el fomento de la industria, comercio y de la lengua vascongada". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 147. or.

(51) "Los Sres. Conde de Monterrón, Joaquín de Michelena, Balzola y Arteaga fueron nombrados como miembros de la citada Comisión. Estos, como es lógico,

rriagak txosten bat aurkezten du (52). Txosten honetan, besteak beste, bereziki arrazoi pedagogiko-didaktikoetan oinarrituz (53) eus-

---

acudieron a los técnicos en la materia para asesorarse, según consta en el Archivo General de Guipúzcoa. Secc. 1.ª, Neg. 21, leg. 133". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 148. or.

(52) Bada Memoria bat "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" titulutzat daramana eta Zacaríasen zita baten bidez hasiera ematen zaiona, J.I. Lasaren ustez A.P. Iturriagarena dena: "Se incluyen en el legajo cuatro trabajos que se refieren a las siguientes materias: (...). Y una Memoria relativa a la conservación de la lengua vascongada. Lleva un texto de Zacarías: 'salutem ex inimicis'. Carece de firma pero una lectura detenida de su contenido nos aclara sin confusiones su autor: Agustín Pascual Iturriaga, beneficiado en Hernani y bien conocido fabulista vasco. Este ilustre escritor nunca firmaba sus trabajos, o simplemente se limitaba a consignar sus iniciales: D.A.P.I.P.". **Ibidem**, 148. or.

(53) Ik. "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 150-160. orr. Txosten osoan barrena azaltzen dira arrazoi pedagogiko-didaktiko horiek. Guk pasarte labur bat besterik ez dugu aldatuko hona, esandakoaren argigarri gisa: "es claro que los niños han de aprender con más facilidad a leer en vascuence que lo entienden, que en el castellano que no lo comprenden". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 156. or. Ikus, halaber, J.I. Iztuetari igortzen dion eskutitz batean: "Orain dala zazpi urte —dio 1826'gnean, 1820 inguruan, beraz,— orain dala zazpi urte umetxoakin denbora iragotzen nubenean, ezagutu nuben zer erakeria andia egiten dan emengo Eskoletan gazteai erderaz irakurtzen erakustearekin, izanik milla bider errezago euskeraz ikastea eta erakustea. (...). Beti naigabe andi batekin ekusten ditut gure mutiltxoak irakurtzen erderazko Liburuak Monjak latiñezkoak bezela, zer irakurtzen duten ez dakitela, eta adiñik onena —edaderik onena— ezer ikasi gabe iragotzen zaiotela". "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. Kondaira (D)**, Kardaberaz bilduma-27, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, 533. or. aipatua. Eskutitz hau kontsultatzeko ikus daiteke, halaber, GARMENDIA, J.; **Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamentos)**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, 178-180. orr. Batetik bestera (M. Lekuonak jasotakotik J. Garmendiak jasotakora), badago alderen bat aldaketa ortografikoez edo inprimategi hutsez harantza: J. Garmendiak eskutitz osoa jasotzen du, ez horrela M. Lekuonak, lehenak data eransten dio: "Agorrillaren biya", ez horrela bigarrenak. Dena den, erantsi beharra legoke, aipatu eskutitzaren testuingurua oso desberdina dela bi liburu hauetan: M. Lekuonak eskutitz horren atal bat zita moduan jasotzen du berak eginiko azalpena argitzeko. J. Garmendiak, berriz, J.I. Iztuetari igorritako eskutitz-bilduma bat eskaintzen du.

kara eskolara eramatea proposatzen du (54). A.P. Iturriaga gaurko ikastolen "Aurrenesku" eta "Protagonista" jo izan da (55).

Dena den, honelako eskaria eginez bere ahotsa Batzar Nagusietara eraman ez bazuen ere, jadanik XVIII. mendean bertan Aita A. Cardaberazek aldarrikatu zuen euskara eskolara eraman beharra.

A. Cardaberazek A.P. Iturriagak salatzen duen eskola-egoera berbera atzematen du:

> "Erdaraz icasten dute: ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ezduten, beren Erri, edo Echeetara biurtcean, alde gucietara barregarriak oidira: ta eguiaz esan oida: Gaztelania ez icasi, ta Eusquera bai aztu" (56).

Egoera honi jarri beharreko sendabidean ere ez dago zalantzarik:

---

(54) Ik. "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 150-160. orr. Txosten osoan zehar eskatzen du euskara eskolara eramatea, baina guk pasarte bat besterik ez dugu aldatuko hona: "Haciendo en nuestras escuelas de primeras letras todo lo contrario de lo que hasta ahora se ha hecho, habremos conseguido el doble objeto, que nos proponemos, es decir, la destrucción de una práctica perniciosa a nuestra lengua y la introducción de otra, que le sea favorable. Enséñeseles a leer en bascuence. ¿Se le ha obligado a hablar el castellano sin preparación alguna anterior? No se les obligue a hablarlo hasta que tenga copia suficiente de voces y frases castellanas". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 155. or. Ikus, halaber, "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri, Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. kondaira (D)**, 533. or. M. Lekuonak A.P. Iturriagak J.I. Iztuetari igorritako eskutitz bat aldatzen du orrialde horretara. Eskutitz horretan argi eta garbi azaltzen du A.P. Iturriagak bere iritzia: "Ala, bada, iduritzen zat, euskerazko liburuetan bear litzakela gure Eskoletan erakutsi irakurtzen, erderazkoetan asi baño leen". Aipamen hau berau zenbait aldaketa ortografikorekin ikus daiteke, baita ere, J. Garmendiaren **Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamentos)** liburuan, 179. or.

(55) "Bañan, ikus-begi ta orientazio praktiko ortaz gañera, Iturriagaren Ernani'ko Eskolak, ba zuan gure arirako oraindik garrantzi aundiago zuan beste ikus-begi ta orientazio garrantziagoko (sic) bat: bere Eskolari Euskeraganako eman ziona. Itz bitan, Iturriaga gaurko Ikastolaen (sic) 'Aurrenesku' ta 'Protagonista' jator egiten duana; eun da berrogei bat urte aurreko Protagonista. Oiu garratza egin bait zuan gure ernaniarrak ume euskaldunai Eskolatan 'euskeraz' erakutsi bearrez...". "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri, Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; op. cit., 532-533. orr.

(56) CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac**, 18. or.

rriagak txosten bat aurkezten du (52). Txosten honetan, besteak beste, bereziki arrazoi pedagogiko-didaktikoetan oinarrituz (53) eus-

---

acudieron a los técnicos en la materia para asesorarse, según consta en el Archivo General de Guipúzcoa. Secc. 1.ª, Neg. 21, leg. 133". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 148. or.

(52) Bada Memoria bat "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" titulutzat daramana eta Zacaríasen zita baten bidez hasiera ematen zaiona, J.I. Lasaren ustez A.P. Iturriagarena dena: "Se incluyen en el legajo cuatro trabajos que se refieren a las siguientes materias: (...). Y una Memoria relativa a la conservación de la lengua vascongada. Lleva un texto de Zacarías: 'salutem ex inimicis'. Carece de firma pero una lectura detenida de su contenido nos aclara sin confusiones su autor: Agustín Pascual Iturriaga, beneficiado en Hernani y bien conocido fabulista vasco. Este ilustre escritor nunca firmaba sus trabajos, o simplemente se limitaba a consignar sus iniciales: D.A.P.I.P.". **Ibidem**, 148, or.

(53) Ik. "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 150-160. orr. Txosten osoan barrena azaltzen dira arrazoi pedagogiko-didaktiko horiek. Guk pasarte labur bat besterik ez dugu aldatuko hona, esandakoaren argigarri gisa: "es claro que los niños han de aprender con más facilidad a leer en vascuence que lo entienden, que en el castellano que no lo comprenden". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 156. or. Ikus, halaber, J.I. Iztuetari igortzen dion eskutitz batean: "Orain dala zazpi urte —dio 1826'gnean, 1820 inguruan, beraz,— orain dala zazpi urte umetxoakin denbora iragotzen nubenean, ezagutu nuben zer erakeria andia egiten dan emengo Eskoletan gazteai erderaz irakurtzen erakustearekin, izanik milla bider errezago euskeraz ikastea eta erakustea. (...). Beti naigabe andi batekin ekusten ditut gure mutiltxoak irakurtzen erderazko Liburuak Monjak latiñezkoak bezela, zer irakurtzen duten ez dakitela, eta adiñik onena —edaderik onena— ezer ikasi gabe iragotzen zaiotela". "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. Kondaira (D)**, Kardaberaz bilduma-27, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, 533. or. aipatua. Eskutitz hau kontsultatzeko ikus daiteke, halaber, GARMENDIA, J.; **Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamentos)**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, 178-180. orr. Batetik bestera (M. Lekuonak jasotakotik J. Garmendiak jasotakora), badago alderen bat aldaketa ortografikoez edo inprimategi hutsez harantza: J. Garmendiak eskutitz osoa jasotzen du, ez horrela M. Lekuonak, lehenak data eransten dio: "Agorrillaren biya", ez horrela bigarrenak. Dena den, erantsi beharra legoke, aipatu eskutitzaren testuingurua oso desberdina dela bi liburu hauetan: M. Lekuonak eskutitz horren atal bat zita moduan jasotzen du berak eginiko azalpena argitzeko. J. Garmendiak, berriz, J.I. Iztuetari igorritako eskutitz-bilduma bat eskaintzen du.

kara eskolara eramatea proposatzen du (54). A.P. Iturriaga gaurko ikastolen "Aurrenesku" eta "Protagonista" jo izan da (55).

Dena den, honelako eskaria eginez bere ahotsa Batzar Nagusietara eraman ez bazuen ere, jadanik XVIII. mendean bertan Aita A. Cardaberazek aldarrikatu zuen euskara eskolara eraman beharra.

A. Cardaberazek A.P. Iturriagak salatzen duen eskola-egoera berbera atzematen du:

> "Erdaraz icasten dute: ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ezduten, beren Erri, edo Echeetara biurtcean, alde gucietara barregarriak oidira: ta eguiaz esan oida: Gaztelania ez icasi, ta Eusquera bai aztu" (56).

Egoera honi jarri beharreko sendabidean ere ez dago zalantzarik:

---

(54) Ik. "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 150-160. orr. Txosten osoan zehar eskatzen du euskara eskolara eramatea, baina guk pasarte bat besterik ez dugu aldatuko hona: "Haciendo en nuestras escuelas de primeras letras todo lo contrario de lo que hasta ahora se ha hecho, habremos conseguido el doble objeto, que nos proponemos, es decir, la destrucción de una práctica perniciosa a nuestra lengua y la introducción de otra, que le sea favorable. Enséñeseles a leer en bascuence. ¿Se le ha obligado a hablar el castellano sin preparación alguna anterior? No se les obligue a hablarlo hasta que tenga copia suficiente de voces y frases castellanas". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 155. or. Ikus, halaber, "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri, Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. kondaira (D)**, 533. or. M. Lekuonak A.P. Iturriagak J.I. Iztuetari igorritako eskutitz bat aldatzen du orrialde horretara. Eskutitz horretan argi eta garbi azaltzen du A.P. Iturriagak bere iritzia: "Ala, bada, iduritzen zat, euskerazko liburuetan bear litzakela gure Eskoletan erakutsi irakurtzen, erderazkoetan asi baño leen". Aipamen hau berau zenbait aldaketa ortografikorekin ikus daiteke, baita ere, J. Garmendiaren **Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamentos)** liburuan, 179. or.

(55) "Bañan, ikus-begi ta orientazio praktiko ortaz gañera, Iturriagaren Ernani'ko Eskolak, ba zuan gure arirako oraindik garrantzi aundiago zuan beste ikus-begi ta orientazio garrantziagoko (sic) bat: bere Eskolari Euskeraganako eman ziona. Itz bitan, Iturriaga gaurko Ikastolaen (sic) 'Aurrenesku' ta 'Protagonista' jator egiten duana; eun da berrogei bat urte aurreko Protagonista. Oiu garratza egin bait zuan gure ernaniarrak ume euskaldunai Eskolatan 'euskeraz' erakutsi bearrez...". "Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri, Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; op. cit., 532-533. orr.

(56) CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac**, 18. or.

"Ala ez Escolan, ta ez Gramatican Euscara beñere utci bear ezta" (57).

Ez dirudi J.P. Ulibarriren eta A.P. Iturriagaren proposamenek oihartzun handiegirik erdietsi zutenik, euskararen eskola-egoera aldatzeko bitartekoak jartzeko ahalmen handiago eta txikiagoak zituzten erakundeen aurrean. Beranduago ere, foruak galdu ondoren, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Diputazioek ez dute euskararen alde aparteko ahaleginik egingo (58). Bestetik, eta administrazioan euskarak zuen balio eskas hau arrazoi txikiena izango ez zelarik, euskararen prestijiorik eza dago: Euskal Herriko klase ilustratuek destainaz begiratzen diote, baserritar eta ez-jakinen hizkuntza da (59) eta hauek sarritan, klase ilustratu horiek imitatuz, gaztelerak duen prestijioari eta honen abantailei lotuko zaizkie, euskarari uko eginez (60).

(57) CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac**, 18. or.

(58) "Araba, Gipuzkoa eta Bizkai probintzi ahizpak, foruak nola birreraikiko zebiltzelarik, gaineratiko eginkizun guztiak hurren mailara igaro ziren. Halatan, beraien organo ordezkariek ez dute, ez sentsibilitaterik ez denborarik, irakaskuntza, literatura eta jatorrizko hizkuntzarekin zerikusirik duenaz arduratzeko". EUSKALTZAINDIA; **Euskararen liburu zuria**, 393. or.

(59) "Pero llega tarde; el bascuence está acorralado; es inútil para todos los usos oficiales, las clases ilustradas del país prácticamente lo desdeñan, valiéndose siempre entre ellas del castellano; es el lenguaje de la gente rústica é ignorante que, considerándose en condiciones inferiores para luchar por la existencia, aprende gustosamente el castellano en cuanto tiene ocasión de ello". CAMPION, A.; "Las lenguas y las nacionalidades" in **Euskal-Erria**, XIII, 1885, 488. or. Euskararen prestijio-falta hau ez da mende-amaiera honetan batpatean sortzen. XIX. mende honen lehen laurdenean bertan, esate baterako, J.I. Iztuetak salatzen zuen. J.I. Iztuetak 1824. urtean argitaraturiko **Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira** (...) liburuan honela zioen: "Jakinduriaren-billa erbesteetan urteac igaroric, joan ziradenean aimbatekin, edo guchiagorekin, jaioterrira biribillatu oi-diraden üanditu oen galanteoric aundiena da, echera sartu bezain laister, beren guraso, eta senidai esatea ezic, **Eh, callad, no habléis más esa gerigonza propia sola de salvajes o de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo también soy de turris eburnia**". IZTUETA, J.I.; **Viejas Danzas de Guipúzcoa. Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, 96. or. Aipatu argitalpen hau "la Edición bilingüe, hecha con arreglo a la segunda euskérica aparecida en Tolosa el año 1895" da. Oin-ohar honetara aldatutako zita lekutzen deneko orrialde osoan zehar azaltzen dira prestijio-falta hau ezagutzera ematen duten adierazpenak.

(60) Azken ideia hau baiezten duten hiru adibide eskainiko ditu A. Campionek "euskararen etsairik haundienari" buruz diharduela, 1903. urtean: bat Nafarroan,

Eta badago halako susmo bat XIX. mendearen bigarren erdian eta are gehiago 1876. urteaz geroztik euskal literaturak eta orohar euskara eta Euskal Herriari loturik dagoen edozein alorrek ezagutzen duen berpiztearen inguruan: erdi-mailako jende ikasi baten nahiari erantzuten diola, erdal munduan ibiltzeko beldurrik eta oztoporik ez duen gutxi batzuren erreibindikazio dela euskara, euskaldunentzat sortutako mugimendua gehiago zela hauen euskaltzaletasuna pizteko zegoen eskariari erantzuteko baino; hitz batean, gehiago dela "inteligentzia" baten mugimendu herri-mugimendu baino.

Eta esan beharra dago gogoz eta gogor ekin ziotela lantegi honi. Hizkuntza gizartean gehiago heda zedin, irakaskuntzara, kaleko errotuluetara, bizitza ofizialera eta abarretara eramaten saiatu ziren. Irakaskuntzaren alorrean euskarako katedrak eskatu zizkieten Diputazioei, eta Nafarroatik hasita banan-banan helduko zaizkie katedra hauek zabaltzeko eskaerak. Nafarroan "Asociación Euskara" deituriko elkarteak egingo ditu (61) lehen eskaera eta projektua, nahiz eta urte

---

beste bat Bizkaian eta hirugarrena Gipuzkoan gertatuak dira. Nafarroakoa bakarrik aipatuko dugu, beste biak antzekoak bait dira. Euskaraz ez zekien maisu bat izendatu zuten Iturenerako. Hau dela-ta, bere ez-adostasuna azaldu zuen Aranzadi jaunak egunkarien bidez. Iturendik honako ohar hau igorri zioten Aranzadi jaunari erantzun gisa:

"Este Ayuntamiento, Junta local y padres de familia, han recomendado siempre á los maestros que no permitan nunca que sus discípulos hablen el vascuence dentro ni fuera de la escuela, pues desengañados estamos que lo que necesitan los jóvenes es saber castellano, idioma universal de España y América, que es donde los hijos de este pueblo han de desenvolverse en el estudio de sus carreras y profesiones". CAMPION, A.; "Discurso en las fiestas euskaras de Irún el día 27 de septiembre de 1903" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, 177. or.

(61) Honako hau irakur daiteke elkarte honek 1881.eko urtarrilaren 2an egindako batzarre-agirian: "Tambien se dió cuenta de la reforma del Reglamento y de un proyecto para la próxima creación de una cátedra de lengua vascongada bajo los auspicios de la Excelentísima Diputación foral y provincial, siendo aprobados el uno y la otra por unanimidad". Ik. **Revista Euskara**, IV, 1881, 4. or.

Euskal-Erria aldizkariak honela jaso zuen berri hau: "Hoy nos cabe la satisfacción de ampliar aquella noticia, y de manifestar á nuestros lectores que en el **Batsarre** ó Junta general celebrado por aquella útil Asociación el día 2 del mes de Enero último, se dió cuenta del proyecto —que fué aprobado por unanimidad— de creación de dicha cátedra, BAJO LOS AUSPICIOS DE LA EXCMA. DIPUTACION FORAL Y PROVINCIAL DE NABARRA.

Gracias á la iniciativa y los esfuerzos de dignos miembros de la Asociación Euskara, Nabarra será, pues, probablemente la primera provincia á la que cabrá

batzu igarota ere oraindik projektu gisa jarraitu (62).

Arabako Diputazioak, berriz, euskarako katedra bat sortzeko dirua sartzen du 1883an bere aurrekontuetan (63); hala ere, projektua ez da urte horretan gauzatuko (64), ezta beranduago ere (65).

Hainbat eta hainbat gizon ospetsuk 1885. urtean honako eskaera hau egingo diote Gipuzkoako Diputazioari:

> "Suplican que se digne acordar la instalación y apertura desde el próximo curso de una cátedra de lengua bascongada en cada una de las localidades que esa Ilustre Corporación estime oportuno, separada del cuadro de enseñanzas oficiales, voluntaria y gratuita para todas las clases y edades, y de acuerdo con las demás Diputaciones y con los Municipios que quieran establecerlas, para que haya la debida uniformidad en los Reglamentos, métodos, programas y asignaciones y para el más cumplido servicio de tan patriótica institución" (66).

---

la honra de crear una cátedra de lengua bascongada, y excusamos decir cuanto nos alegraría el ser secundado por las provincias hermanas tan útil y provechoso ejemplo". Ik. **Euskal-Erria**, II, 1881, 95. or. Berri honen arabera pentsa daiteke erabaki hutsean gelditu zela 1841.ean Bizkaiko Batzar Orokorrak euskarako katedra bat sortzeko hartutako erabakia.

(62) "En breve será ya un hecho el establecimiento de la cátedra de lengua euskara, acordado por la Diputación foral y provincial de Nabarra". "Cátedra de Bascuence en Navarra" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, 404. or.

(63) "La Diputación provincial de Alava ha consignado en sus presupuestos para el próximo ejercicio de 1883 á 1884, la cantidad de 3.000 pesetas para la creación de una cátedra de lengua bascongada en el Instituto de 2.ª Enseñanza de Vitoria". Ik. **Euskal-Erria**, IX, 1883, 63. or.

(64) "El **Anunciador Vitoriano** se lamenta de que no se haya realizado para el presente curso el proyecto, acordado oficialmente de creación de una Cátedra de bascuence en aquel Instituto provincial, y ruega á quien corresponda se apresure á ponerlo en práctica". Ik. **Euskal-Erria**, IX, 1883, 355. or.

(65) Honelako ondorioa atera daiteke **Euskal-Erria** aldizkariak 1886. urtean eskaintzen duen komentariotik:

"Bueno sería que la elevada conducta iniciada por las Diputaciones de Guipúzcoa y Nabarra, fuera también secundada por las de Bizcaya y Alaba, á la primera de las cuales ha dirigido una excitación en este sentido nuestro apreciable colega bilbaino **La Unión Vasco-Nabarra**". Ik. "Cátedra de Bascuence en Navarra" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, 404. or.

(66) Ik. "Creación de Cátedras de Bascuence" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, 129-134. orr.

Diputazioak ildo honetan egiten duen ororen alde agertzeko erabakia hartzen du Donostiako Udaletxeak (67).

Gipuzkoako Diputazioak Donostian sortu duen euskarako katedra horretan edonork izango du 1886. urtean debalde matrikulatzeko eskubidea; baita Jose Gaspar de Oregui apaiz jaunaren eskolak jarraitzekoa ere (68).

Bide-urraketa lehenagotik bazetorren ere (69), Bizkaiak 1888. urtean izango du euskarako katedra. Eta lehen katedratiko, R.M. Azkue. Horretarako, 1887.eko azaroaren 8an egingo dio eskaera Bizkaiko Diputazioari Gernikako barrutitik Diputatu den Aureliano Galarza jaunak (70).

Katedra hauek sortzea euskararen zabalkunderako eta ezagutarazorako egindako ahaleginetariko bat besterik ez da. Hauen ondoan beste zenbait ere aipa daitezke: hala nola, errotuluak euskaraz jartzen dituzten merkatariak txalotzea (71) edo "eraztuna"-ren prozedura

(67) Ik. **Euskal-Erria**, XIV, 1886, 192. or.

(68) Ik. **Euskal-Erria**, XV, 1886, 252. or.

(69) Ikus 47. oin-oharra. Bizkaiko Batzar Nagusiek 1841. urtean onartu zuten euskarako katedra bat sortzea.

(70) Ik. ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección María de Azkue**, 19-20. orr.

(71) Honela zioen **Diario de San Sebastián**-ek:

"En la planta baja de una de las casas construidas en la prolongación de la calle de Oquendo, correspondiente al nuevo barrio de la Zurriola, se ha abierto un establecimiento de comidas, muy bien servido, en el cual se ha puesto un rótulo en bascuence que dice: **Donostiarretako ostatuba**.

Nos complace mucho que vaya cundiendo la buena práctica de adoptar y usar denominaciones en nuestra querida lengua, que debemos procurar difundir por todos los medios posibles". **Euskal-Erria** aldizkariak aipatua, XVI, 1887, 255. or.

Aldizkari honek honako hau erantsiko du: "Aplaudimos y hacemos nuestras estas frases de nuestro apreciable colega, y consignamos gustosos que hay también otros establecimientos que siguen tan laudable práctica, entre ellos uno en la Avenida, que tiene por rótulo **Irurak-Bat**, otro en la calle de Andía, en el que se lee **Oyala merke**, y otro en el de San Jerónimo, que dice **¡Onera!** Honelako beste berri bat aipatzearren honako hau aipatuko dugu: "En distintas ocasiones hemos consignado en las páginas de nuestra Revista la costumbre laudable y digna de imitación adoptada por varios establecimientos, de estampar sus rótulos en lengua euskara. Hoy tenemos el gusto de consignar asimismo que en las cajas de sobres procedentes de una de las fábricas de papel que hay en Guipúzcoa, se lee:

salatzea (72).

Eraztunaren prozedura edo, orohar, euskara hitz egitea galerazteko erabilitako bideak ez dira XIX. mendearen azken laurden honen patrimonio pribatua. A. Cardaberazek jadanik XVIII. mendean salatuak zituen prozedura hauek: "Gendeen artean beste lenguageric Eusquera baño dicha gabeagoric ezta icusi, ta gure jatorrizco, edo jaiotzaco izquera ezbaliz bezala, guiza artetic quendu, ta lurpean ondatu naidute, ta Escoletan sortija, edo siñaleaquin, azote ta castiguaquin eragotcinaidute. Cer eraqueria itsuagoric au baño?" (73).

A.P. Iturriagak ere, XIX. mendearen lehen erdian salatu zuen:

> "Apenas han aprendido algunas palabras sueltas en castellano se les obliga a hablar en esta lengua, y por consiguiente a que vayan olvidando su corto diccionario bascongado. En otra edad, en que sienten más la necesidad de poseer el castellano, se aperciben de las dificultades, que para aprenderlo les pone el vascuence, y este conocimiento junto con el recuerdo de los fatales anillos y los castigos, que a ellos siguieron, hace que aborrezcan su lengua nativa" (74).

Euskal-paper egintza.
Gañ-gañeko klaseak
100
Kartestalki

Digna de aplauso, como todo lo que tienda á la conservación del venerable idioma bascongado, es la conducta de los que así ostentan, en la esfera comercial, la manifestación más genuina del país en que se hallan instalados". Ik. **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, 380. or.

(72) Honela dio **Lau-Buru** egunkariak: "La última denuncia que ha llegado á nuestras manos presenta todavía mayores caracteres de odiosidad. El procedimiento empleado es, como siempre, el del **anillo**, pero el maestro que lo aplica, no se contenta con que el signo denunciador, corra por la escuela, sino que ha conseguido hacer forzosa su circulación fuera de ella, por las calles, por las plazas, por el hogar doméstico mismo. Así es que la hermosa y venerable lengua de los iberos, que no lleva el sello de la servidumbre que celtas, latinos, godos y árabes impusieron á la mayoría de los habitantes de España, esa lengua que es el testimonio más fehaciente de una independencia nacional jamás domeñada, no encuentra, en el pueblo á que nos referimos, un asilo donde pueda ser hablada libremente". Ik. GOROSTIDI, M.; "Importancia de las lenguas regionales" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, 135. or.

(73) CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegiteco Erreglac**, 17. or.

(74) ITURRIAGA, A.P.; "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales

Lehen-mailako irakaskuntzan euskararen egoera zertxobait hobetzen ere saiatu ziren. XIX. mende aurretiko berriek diotenez, lehen-mailako irakaskuntza udal bakoitzaren eskutan zegoen eta aldaera desberdinak ematen ziren herriz herri Gipuzkoan (75). Hala ere, honako hau dio J.I. Lasak laburpen gisa:

> "El Catecismo se aprendía en vascuence. Pero el estudio sistemático del vasco en las escuelas creo que no se practicó. El P. Villasante, buen conocedor de estos problemas, es de esta opinión, según me ha indicado" (76).

Erretratu berbera eskaintzen du A.P. Iturriagak ere euskarak lehen-mailako irakaskuntzan duen presentziaz:

> "Pues tan pronto como entran en ella, se principia por ponerles en las manos la cartilla castellana. Luego que han aprendido a leer en ella, se les da sucesivamente el **Astete, el Catón**, y otros libros, todos castellanos, y si se les hace leer y aprender la doctrina cristiana en vascuence es porque los más de los párrocos acostumbran preguntársela públicamente en la parroquia para la instrucción de los fieles" (77).

Orain arte esandakoa Gipuzkoari badagokio ere, badirudi egoera hau Hego Euskal Herriko beste hiru probintzietara zabal daitekeela, hauetan ere antzeko ibilbidea egin bait zuen lehen-mailako irakaskuntzak; baita euskarak ere honen barnean (78).

Donostiako Udaletxeak behar diren kudeamenduak egin ditzala eskatuko dio 1895. urtean Gipuzkoako Diputazioari, "á fin de obtener de los Poderes públicos que, ó bien, respetando los derechos adquiridos, confieran a los Ayuntamientos la facultad de nombrar á los

---

de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 152. or.

(75) Ik. Fr. J.I. Lasak **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco** liburuan Gipuzkoari eskaintzen dion kapitulua.

(76) **Ibidem**, 31. or.

(77) Ik. "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 152. or.

(78) "Sufrió parecidas vicisitudes que en Guipúzcoa, Alava y Navarra, tanto en como tal enseñanza primaria como en su relación con el vascuence". LASA, J.I. y COLAB.; op. cit., 94. or.

Maestros y Maestras de Escuelas públicas obligatorias que hayan de desempeñar en lo sucesivo sus cargos en las de Guipúzcoa, ó bien se exija como condición indispensable á los aspirantes, en las oposiciones para dichas escuelas, la de poseer el idioma bascongado" (79).

Eskaera honetan bi data gogarazten dizkio Donostiako Udaletxeak Diputazioari, eta hauetan beste hiru Diputazioekin batera hartu zuen jarrera: bata 1857.ekoa da, bestea 1885.ekoa. Lehenengoan urte berean argitaratutako "Ley de Instrucción pública" delakoaren puntu batzu lau euskal probintzia hauetan ez aplikatzea eskatzen diote Isabel II.a Erreginari. Lege horrek irakaskuntza ofizialetik at uzten zuen gaztelera ez zen hizkuntza oro. Maisu-aukeraketari zegokionetan ez aplikatzea eskatzen zuten Diputazioek, hauen ustez nahitanahiez ezagutu behar bait zuten euskara Euskal Herrian lehen-mailako irakaskuntzan arituko ziren irakasleek. Euskal Lore-jokoen Bilgumaren eskaerari erantzunez, Gipuzkoako Diputazioak 1885. urtean Araba, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioetara zuzentzea erabaki zuen, garai hartan ateratzeko zen "Ley de Instrucción pública" berrian euskara eta beste hizkuntza "errejionalak" galerazten zituen puntua ken zedila lauek batera eskatzeko (80).

Gipuzkoako Diputazioak ontzat jo zuen Donostiako Udaletxearen eskaria 1895.eko azaroaren 12an. Hurrengo urtearen hasieran Nafarroako Diputazioak gutun bat igorriko dio Gipuzkoakoari bere adostasuna azalduz eta bere erabakiaren berri emanez: "Ha acordado gestionar cerca del Gobierno de S.M. la declaración preceptiva de la enseñanza del bascuence en las Escuelas del territorio bascongado" (81).

Gestioek ez dute fruiturik emango (82).

---

(79) "Euskal-Erria. El bascuence en las escuelas. Diputación provincial de Guipúzcoa. Dictamen presentado á la misma por la Comisión de Fomento y aprobado en sesión de 12 de Noviembre de 1895" in **Euskal-Erria**, XXXIII, 1895, 450. or.

(80) Ik. "Euskal-Erria. El bascuence en las escuelas. Diputación provincial de Guipúzcoa. Dictámen presentado á la misma por la Comisión de Fomento y aprobado en sesión de 12 de Noviembre de 1895" in **Euskal-Erria**, XXXIII, 1895, 450. or.

(81) Ik. "Euskal-Erria. El bascuence en las escuelas. Un acuerdo patriótico" in **Euskal-Erria**, XXXIV, 1896, 54. or.

(82) "Desgraciadamente, fueron infructuosas las diligencias encaminadas á la consecución del propósito". Ikus "La primera enseñanza. Instancia. Excmo. Ayuntamiento de la Ciudad de San Sebastián" in **Euskal-Erria**, VL, 1901, 215. or.

Beranduago irakasle-eskolen sorrera zela-ta, Euskal Herrian bertan irakasleak izendatzea eskatzen da komunikabideetan (83), hartara maisu-maistrek euskaraz jakingo bait lukete (84). Diputazioek izendatutako irakasle euskaldunak jarriz, probintzia hauetako herrietako eskoletako bakanteak betetzeko aurrerantzean hiriburuetan oposiziotarako deialdiak eginez, poliki-poliki lehen-mailako irakaskuntzara euskara hurbiltzeko modua ikusten da (85).

Gipuzkoako irakasle-eskola 1899.ean hasiko da eskolak ematen. **Euskal-Erria** aldizkariak egiten duen lehen balorazioa baikorra da:

> "Puede decirse que la nueva Escuela empieza con buenos auspicios, pues han sido nombrados profesoras de la misma, aunque con el carácter de provisionales, señoras bascongadas" (86).

Labur-labur hauek dira XIX. mendearen azken herenean euskararen presentzia gizartean hedatzeko egin ziren ahalegin batzu, batipat irakaskuntza dutelarik kezka nagusi, hasi lehen-mailako irakaskuntzatik (87), jarrai erdi-mailako irakaskuntzan jarri ziren kate-

---

(83) Honela komentatzen du **Euskal-Erria** aldizkariak **El Noticiero Bilbaino**ko artikulu bat: "La tesis razonada que sostiene el articulista es la de ya que el gobierno nos dice que tengamos una Escuela Normal y que la paguemos, pidamos con toda lógica que el personal lo nombremos nosotros. No hay necesidad de encarecer que el personal habría de ser bascongado, y que era preciso además conseguir del gobierno que, por lo que afecta á estas provincias, se exigiera el estudio y la implantación de una cátedra de bascuence". Ik. "El bascuence en la enseñanza. (A las Diputaciones Hermanas)" in **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, 372. or.

(84) "La importancia de ésta proposición es grandísima, pues naturalmente los maestros y maestras que salgan de éstas escuelas, para á su vez explicar en otras de éstas provincias, sabrían bascuence, y harían que nuestro idioma no se perdiera como (por desgracia) acontece en la actualidad". Ikus "El bascuence en la enseñanza. (A las Diputaciones Hermanas)" in **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, 372. or.

(85) **Ibidem**, 373. or.

(86) "La Escuela Normal de Guipúzcoa" in **Euskal-Erria**, XLI, 1899, 319. or.

(87) Aipagarri dateke, baita ere, euskaraz irakurtzen ikasteko ere katoiren bat argitaratu zela: **IRACURTZAREN asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat** G.Z. moldatuac. Tolosan, P. Gurruchaga, 1875. Ik. VINSON, J.; **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque, 1***, Caja de Ahorros Vizcaína, Departamento Cultural, Colección Bibliográfica, Bilbao, 1983, 358. or., 457 zka.; nahiz BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, VIII, Editorial Auñamendi, Estornés Lasa Hnos, San Sebastián, 1978. "ZALACAIN, Gerónimo" sarrera, 329. or.

drekin eta irakasle-eskoletara; tartean, besteak beste, aipatu gabe gelditu da gau-eskola mailan euskararen bidez irakatsi zela (88).

Eskola izango da A. Campionen ustez euskararen muga-murrizketa honen agentea, deseuskalduntzea eskolaren bidez dator eta hemen jarri beharko dira sendabideak (89).

1.2. EUSKARA BATASUN BILA

A. Campionek gazteleraren eta euskararen egoera soziolinguistikoa agerian uzten du bata eta bestea adjetibatzerakoan: gaztelera "lengua sabia, administrativa, literaria, política" da; euskara, berriz, "lengua rústica y puramente familiar" (90). Egindako ibilbidearen ondoren, izan ere, horrela helduko dira XIX. mende honen azken herenera. Gaztelerak lehen prosazko idazlanak XIII. mendean ezagutu zituen (91); euskarak XVI. menderarte ez. Eta aurrerantzean ere, XIX. menderarte, prosa erlijiosora mugatuko da prosa literarioari dagokion alorra. Euskara eskolako ikasketetatik at gelditu eta kristau-ikasbidea erakusteko bakarrik erabiliko da. Administrazio-bizitzan ere ez du parterik izango. Beraz, honenbestez, ezin argiagoa eta logikoagoa izan A. Campionek egiten duen kontrajarpena.

---

(88) "El Consistorio de Juegos Florales euskaros de esta Ciudad ha elevado en atenta exposición al Excmo. Ayuntamiento el homenaje de su gratitud y de sus plácemes, por haber acordado, á petición del concejal D. Ricardo Bermingham, el empleo del idioma bascongado, como medio de instrucción de los alumnos matriculados en las escuelas nocturnas de adultos". Ik. **Euskal-Erria**, XIII, 1885, 383. or.

(89) "¿Cuál es la actitud que los patriotas euskaldunas han de adoptar respecto á la enseñanza castellana á que vive sometido nuestro país? Combatirla por todos los medios, incluso el extremo, donde quepa racionalmente, del absenteísmo escolar, limitándonos al cumplimiento estricto de las leyes vigentes, sin facilitar su implantación ni extender sus efectos, y reclamar tenazmente, por medio de las Corporaciones provinciales y de la representación en Cortes, la enseñanza primaria bilingüe, por lo menos, procurando, mientras se obtiene y el Estado no lo prohiba, la apertura de escuelas libres donde se enseñe en baskuenze". Ik. "Discurso en las fiestas euskaras de Irún el día 27 de septiembre de 1903" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, 201-202. orr.

(90) Ik. "Las lenguas y las nacionalidades" in **Euskal-Erria**, XIII, 1885, 490. or.

(91) Ik. ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. Edad Media y Renacimiento**, I, Editorial Gredos, Madrid, 1975, bigarren argitalpen gehituaren bigarren berrinprimaketa.

Baina kontrajarpen hau normalizazioaren ildotik egiten da eta aipatutako emaitzak ditu. Eta badauka euskarak XIX. mende honetan beste arazo bat: normatibizazioarena, hain zuzen, bera inguratzen duten hizkuntzak dagoenekoz badutena.

Batetik, idazleek euskalkiren batean idatzi dute; gipuzkeran, bizkaieran, nafarreran... Eta hauetako bat ez zaie besteei nagusitu. Alegia, ez da heltzen une historiko bat zeinetan idazleek euskalki bat hautatzen duten idazteko; sintesi-biderik ere ez da bilatu, euskalkiren bat edo batzu hautatuz oinarri gisa. Bestetik, euskalki bakoitzean ere ez dago batasunik ortografia, morfologia eta abarretan.

Frantziak XVII. mendean sortu zuen Akademia frantsesa, **A l'immortalité** lemapean; Espainiak, XVIII.ean, **Limpia, fija y da esplendor** lemapean. Euskal Herrian, berriz, XIX. mende honen azken heren honetan hasiko da kezka hau han-hemenka azaltzen. **Euskal-Erria** aldizkariak 1880. urtean katalanisten kongresuak katalanaren Akademia sortzeko erabakiaren berri ematen du, eta abagadunea aprobetxatuz euskararena noiz sortuko ote den galdetzen du (92).

Aristides de Artiñanok "Proyecto de Academia Bascongada" aurkeztu zuen 1886. urtean Durangon ospatu ziren euskal festetara. Akademia honek, A. de Artiñanok projektuaren lehen artikuluan dioenez, "tiene por principal objeto los estudios históricos referentes al País Basco-Nabarro y cultivar y difundir el idioma euskaro" (93).

Dena den, mendearen azken urte hauek baino lehenago ere egin zen mota honetako proposamenik.

J.B. de Erro Azpirozek (94) euskararen gordelari eta argibide izango den Elkarte bat eratzea eskatzen du (95). J.P. Ulibarrik,

---

(92) Ik. **Euskal-Erria**, I, 1880, 226. or.

(93) Ik. "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, 481. or.

(94) Andoaindar bitxi samar honen —besteak beste, Astarloaren oinordeko eta Don Carlos Maria Isidroren ministrari— bizitza eta idazlanei buruzko hainbat zertzelada ezagutzeko, ikus TOVAR, A.; **Mitología e ideología sobre la lengua vasca**, Alianza Editorial, Madrid, 1980, 129-131. orr.; halaber, ikus daiteke, LEKUONA'TAR, M.; "Juan Bautista de Erro eta Azpiroz" in **Idaz-lan guztiak, 6. kondaira (D)**, 507-527. orr.

(95) Jadanik azaldu den legez, 1830. urtean Arrasaten ospaturiko Batzar Nagusietan Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaile izango zen batzorde aholkularia sortzea erabaki zen. Honela jarraitzen du J.I. Lasak:

halaber, euskara gorde, zabaldu eta duinduko lukeen erakunde bat lortzea nahi luke (96).

Sabino Aranak begi onez ikusten du Akademia baten sorrera, bai historiarena, bai hizkuntzarena. Azken honi honako helburu hau jartzen dio: "resuelva y elida las formas y vocablos alienígenas, perfeccione las indígenas, deslinde las formas degeneradas de las primitivas, determine el método fundamental y aún el didáctico y forme voces nuevas que correspondan á los nuevos significados que en la actualidad se presentan" (97).

C. de Churruca jaunak euskararen Akademia sortzea proposatzen dio 1897. urtean Gipuzkoako Diputazioari. Bederatzigarren puntuan dio: "Empezará sus trabajos la Academia por hacer el Diccionario de la lengua euskara de la manera indicada anteriormente" (98). Hamaikagarren puntuan ondorengo lanak zehaztuko ditu: "Terminado el Diccionario, se harán también, por la misma Academia, la Gramática y ortografía bascongadas, para lo cual es indispensable la base de aquel, que fijará la significación y modo de escribirse de cada palabra" (99).

"Los objetivos que abarcaría el programa se referirían, primordialmente, a la industria, comercio y ciencias y artes, sin que entrase en los objetivos perseguidos un capítulo o apartado especial relativo al fomento de la lengua vasca. Pero el ilustre representante de Zumaya, don Joaquín Francisco de Berroeta y Aldamar hizo presente en las Juntas cómo el Exmo. Sr. don Juan Bautista de Erro, distinguido hijo de la Provincia y Consejero de Estado de S.M. y autor del 'Alfabeto de la lengua primitiva de España' y del 'Mundo primitivo', le había manifestado el deseo de que se formase una Sociedad que procurase la conservación e ilustración de la lengua vascongada". LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, 148. or.

(96) "Ulibarri abogó asimismo por la creación de una especie de Academia de la Lengua Vasca. La idea no había nacido en él precisamente; la tomó de Erro. Pero él la hizo suya y se movió y trabajó por verla realizada con el apoyo de las Juntas de Guernica. Habría de constar de 24 miembros y sería una verdadera **Euskaltzaindia**, con la misión de velar por la conservación del Euskara, de difundirlo y dignificarlo". AKESOLO, L.; "Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri" in ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua**, IX. or. nahiz **Euskera**, XVI, 43. or.

(97) ARANA Y GOIRI, S. de; "El proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, 364. or.

(98) Ik. "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XXXVII, 1897, 413. or.

(99) **Ibidem**, 413. or.

Gipuzkoako Diputazioak erantzuten dio esanez badagoela prozedura azkarrago bat Churruca jaunak proposatzen duena baino: Churruca jaunak Akademia horren sorreran inplikatzen dituen ordezkariekin zuzenean gaia tratatzea (100).

Hendaian 1901.ean bilduko dira "los amantes de las letras euskaras para tratar de la unificación de las reglas ortográficas del bascuence y evitar el que cada región y cada escritor emplee en adelante una ortografía caprichosa y distinta como ahora sucede" (101).

Bilera honetan Bidasoaz bi aldetakoek G. Adema "Zalduby"ren lehendakaritzapean (102) "Federación literaria de los Bascos" elkartea sortu eta batzorde bat eratuko dute, elkarte horren araudia idatz dezan. Batzorde honi hala nahi luketen bazkide guztiek aurkez diezazkiokete euskararen ortografia batzeko proposamenak. Gero elkarteak eztabaidatuko ditu. Elkartearen helburua "será cuidar del estudio, conservación y propagación de la lengua" (103). Urtero irailean Hondarribian eta Hendaian txandatuz biltzeko erabakia hartzen dute.

Hauek dira XIX. mendearen bukaeran euskararen Akademia baten sorrerarako eta euskararen batasunaren bila emandako urrats batzu.

2. PROSA NARRATIBOAREN SORRERA ETA GARAPENA: HURBILPEN SOZIOLOGIKOA

Mendeetan barrena erlijioaren esparrua edo hizkuntzarena garatu duen euskal prosak XIX.ean irekiko dizkio ateak fikziozko prosari. Izpiritu berri baten azaleratzearen aurrean gaude L. Mitxelenaren esanetan:

> "Entre nosotros hay que situar en el último decenio del siglo pasado las primeras señales manifiestas de la aparición de un espíritu

(100) "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XXXVII, 1897, 415. or.

(101) Ik. "Congreso Basco en Hendaya" in **Euskal-Erria**, VL, 1901, 242. or.

(102) "Hacia 1900, cuando empezaron a establecerse contactos entre los vascos de ambas partes a fin de conseguir una mayor unificación literaria, Adema fue elegido presidente del organismo que se creó al efecto con el título de 'Federación Literaria Vasca'". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 194-195. orr.

(103) "Congreso Basco en Hendaya" in **Euskal-Erria**, VL, 1901, 242. or.

> nuevo —prefigurado ya en unos cuantos precursores— que había de transformar en muchos aspectos las características de la literatura. Ya no es la poesía el único género cultivado desinteresadamente; desaparece el antiguo predominio de las obras de edificación y formación religiosa, aunque desde luego el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico" (104).

Odurarte sermoien, liburu aszetikoen eta dotrinen bidez kristau-sinismenaren "**egiak**" kontatu dituen prosari beste prosa-mota bat eransten zaio mende honetan. Aurrekoak ez bezala, beste prosa-mota honek kontatuak ez dauka nahita-ez egiazkoa izan beharrik. Baina, hala ere, ez da aurreko prosaren irakatsi beharretik aldenduko; izan ere, kristau-sinismenaren kanonik ortodoxoenen barnean higituko bait da, beti ere, kristau zintzo izaten jarraitzeko arauak emanez. Aurreko prosa bezain funtzionala ez bada ere (esan nahi da funtzio praktiko bat duena, hau da, kristau-sinismenean hezitzea), probetxuzkoak diren ikasgaiak emango ditu fikzioaz baliatuz.

Poliki-poliki erneko eta haziko da fikziozko prosa hau; izan ere, batetik, prosa erlijiosoak zama izugarria inposatuko balu bezala, ez bait da inoiz kristau-legetik urrunduko, moral jakin baten berri eman beharrari lotua; bestetik, koordenada narratiboek ere —lekua, denbora, ekintza, pertsonaiak— helburu didaktikoen menpe jarraituko bait dute, nahiz eta mendean barrena duten garapenean konplexuago bihurtu.

Fikziozko prosaren sorrerarekin euskal literatur prosaren "sekularizazio" bateranzko lehen urratsak ematen dira. "Sekularizazio" kontzeptua gehiago erabili da egin zen literaturgintza-motagatik idazleen egoera zibilagatik baino. Hala ere, egoera zibilari begira ere nabarmen daiteke "sekularizazio" hori; izan ere, "leiendagilerik" gehienak ez bait dira apaizak izango: K. Echegaray, A. Arzac, T. Alzaga, A. Campion, M. Gilbeau..., nahiz eta hauen ondoan R.M. Azkue eta Domingo Agirre apaizak egon; azkeneko hau lehen eleberrigilerik emankorrena. Baina lehen urrats horiek literatur formarik moralizanteenetako batekin emango dira: alegiekin, hain zuzen.

Argitalpen-urteari begira, Bizenta Mogelen alegi itzulpenek inauguratuko dute prosa narratiboa, 1804.ean.

---

(104) MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, Ediciones Minotauro, Madrid, 1960, 141. or.

2.1. IDAZLANAK

Alegigile eta alegi itzultzaile zenbaiten ondotik (gehienetan bertsoz landuko dituzte), leiendagileak ezagutuko ditu euskal literaturak, nahiz eta alegigintza edo alegi itzulpengintza ez erabat baztertu.

Badirudi leiendagintza honen sorrera Donostiako "itz-jostaldietan" jarri behar dela.

Urruñan, 1853. urtean, A. d'Abbadiek eman zion hasiera Lore-jokoak antolatzeari, baina Lore-joko hauetan poesi idazlanak bakarrik saritzen ziren literaturaren sailean, soilik hartarako deialdia egiten bait zen. Beranduago, 1873. urtean, nahiz eta literatur saila prosara ere zabaltzea erabaki (105), argitalpenek erakusten dutenez, bertsoz idatzirikoak izan ziren saritutakoak 1879. urtera bitartean behintzat, Donostian **Euskal izkribatzalleen indar neurtzean** "irakurgaiak" saritu eta argitaratu bitartean.

A. d'Abbadiek 1873. urtean Saran antolatutako Lore-jokoetan Hergarayen-en izenpean aurkeztutako "Bildotcha eta Oxoa" eta "Belea eta acheria" idazlanek eraman zuten lehen saria. Bertsoz idatziriko bi alegia dira (106). Hurrengo urtean ere, 1874.ean, bertsoz idatziriko idazlanak nagusituko dira Saran; baita argitaratu ere. Biscaitarrac izenpean aurkeztutako "Jaungoicua ta errija" poema satirikoak eramango du lehen saria, eta Sempertarrac aurkeztutako "Betiri-Sanx"-ek bigarrena (107). Hurrengo bi urteetan ere, 1875.ean eta 1876.ean, bertsoa nagusitu zen Saran (108). Saratik Donapaleura igaroko da

---

(105) "Después de veinte años de concursos de poesía vasca se preguntaron los organizadores si no convendría ensanchar el campo literario admitiendo también trabajos en prosa. A partir, pues, de este año de 1873, se deciden a hacer la nueva experiencia. Se admitirían en adelante, composiciones en prosa, apólogos, recitaciones, narraciones, discursos, etc., según el gusto de los concursantes, pero siempre que su extensión no sobrepasase tres o cuatro páginas en 8.º". **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B. Literatura**, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1978, 3. argitalpena, 451-452. orr.

(106) Ikus **1873. Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan garhait saria eraman duten bi kantuak Hergarayen izenean ekharriak**, Bayonne, Imprimerie Lamaignère.

(107) Ikus **1874. Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan**, Bayonne, Imprimerie A. Lamaignère.

(108) Ikus **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B. Literatura**, I , 459-462. orr.

1877. urteko ospa-lekua, eta berriro ere poesia izango da garaile (109); baita hurrengo urtean, 1878.ean, Saran (110) eta 1879.ean Elizondon ere (111).

Honenbestez, "irakurgai" laburren sorrera Donostiako **Euskal izkribatzalleen indar neurtzeak** 1879. urtean egitarauean egindako deialdian eta deialdi honek izandako erantzunean aurkitu behar. Hona hemen deialdia:

> "LEMBIZIKO SARIA.—80 PESTACO BURNIZKO TINTONTZI GAÑ URREZTATU BAT BERE LUMAREKIN, **Uri ontako Bilguma chit geidiatiak eskeñia**, eta beraren **Bitezarra** edo agiria, kondairen baten ezagualde labur bat, irakurgai bat, edo gure oitura oroitgarriren baten gañean ongien izkribatzen duenari".

Bost "irakurgai" aurkeztu ziren, eta horietako lauek saria edo aipamenen bat erdietsi zuten. Lehen saria "¿Zer nitzan? ¿Zer naiz?" irakurgaiarentzat izan zen. Lehen sariaren "aldeerá" "Antiguako Ama Virjiña"-k eraman zuen. Lehen aipamena "Liburu bateko pasarte bat" zeritzanarentzat izan zen eta bigarren aipamena "Jesus-en lagunkidako Aita Manuel Larramendiren bizkontaera"rentzat. Epai-mahaiak saritutako gainontzeko idazlanekin batera argitaratu ziren laurak (112).

Hurrengo urtean, 1880.ean, ospatu ziren "euskarazko itz-jostaldiek" ere sari bat eskaintzen zuten "euskarazko irakorgai edo gure aurrekoai aditutako kondairen bat, euskal-errietan usatzen diran edozeñ izkeran obeto ipintzen duanarentzat jakiñaren gañean jarririk ezen, berdiñen artean aukeratuko dala sariztatua izateko, ez beste

---

(109) Ikus **1877. Berxutako gudua Done Palioco Bestan**, Bayonne, Imprimerie Lamaignère.

(110) Ikus **1878. Berxutako gudua Sarako Bestan**, Bayonne, Imprimerie Lamaignère.

(111) Ikus **1879. Neurtizlarien gudua Elizondoko Bestetan**, Bayonne, Imprimerie Lamaignère.

(112) Ikus deialdia, epaimahaiaren erabakia eta saritutako idazlanak **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza**, Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879. Kontaketak beranduago **Revista Euskarak** ere argitaratu zituen. Ikus **Revista Euskara**, II, 1879, 260-264. orr., 264-268. orr., 268-270. orr. eta 270-272. orr.

izkuntzaren batetik moldatutako izkribua ez pada lan osotoro sortu berria dana" (113).

Urte honetatik aurrera egitaraua bi hizkuntzatan argitaratzen da, euskaraz eta gazteleraz; eta bertan ikus daiteke euskaraz "irakorgai" hitzarekin izendatzen dutena gazteleraz "tradición ó leyenda"-rekin ematen dela.

Bost "irakorgai" aurkeztu ziren 1880.eko "itz-jostalditara" (114), baina inork ez zuen eskaintzen zen "zillarrezko koroa" erdietsi. "Aipamen onragarria" M. Gilbeau jaunak jaso zuen lapurteraz idatziriko "Orruel arpeko zuhurra" zeritzan "irakorgaiagatik". Aurkeztutako bost irakurgaietatik aipamen hau jaso zuena besterik ez zen argitaratu (115); saritutakoak edo aipamenen bat jasotakoak bakarrik argitaratzen bait ziren.

Bost izango dira 1881. urtean aurkeztutako irakurgaiak ere. Bost hauetako hiru argitaratuko dira: lehen saria eraman zuen Arturo Campionen "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" (116) eta aipamenak jaso zituzten Gregorio Arrueren "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" (117) eta J.L. eta A.-k izenpeturik aurkeztutako "Irakurgaya"-k (118). J.L. eta A. hau Joaquin Larreta eta Arzac

---

(113) Ikus **1880. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria. 1880. Juegos Florales en San Sebastián. Memoria**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 4. or.; nahiz "Euskarazko itz-jostaldiak Donostian" in **Euskal-Erria**, I, 1880, 43. or.

(114) Ik. **1880. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 11. or.; nahiz "Euskarazko itz-jostaldiak Donostian, 1880. Batzar epallearen egintza" in **Euskal-Erria**, I, 1880, 127. or.

(115) Ik. **1880. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 23-25. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, I, 165-166. orr.

(116) Ik. **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-28. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, V, 1882, 33-36. orr. eta 65-69. orr.; nahiz **Euskalzale**, I, 1897, 295. or., 302-303. orr. eta 306-307. orr.

(117) Ik. **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 29-35. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, V, 1882, 97-101. orr.; nahiz **Euskalzale**, I, 1897, 343-344. orr., 356-357. orr.

(118) Ik. **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 36-40. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, V, 1882, 129-132. orr.; nahiz **Euskalzale**, III, 1899, 33-34. orr., 42-43. orr. eta 53-54. orr.

zen, garai hartan injeniaritza ikasketak Bartzelonan egiten ari zen gaztea (119).

Jaitsi egingo da 1882. urtean irakurgaien sailera aurkeztutako idazlanen kopurua. Deialdiari erantzun zioten lau idazlanetako bi seinalatuko ditu epaimahaiak. Gregorio Arrueren "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" kontaketak (120) eraman zuen lehen saria, eta aipamena Karmelo Echegarayren "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera"-rentzat (121) izan zen.

Berriro ere bost kontaketa aurkeztuko dira 1883.ean. Zilarrezko koroa Arturo Campionentzat izango da "Okendoren eriotza"gatik (122). Lehen sariaren "aldeera" Karmelo Echegarayk eramango du "Andeka"-rekin (123). Eta aipamen bat eskainiko zaio Antonio Arzac-en "Pachi ta Konchesi"-ri (124).

Karmelo Echegarayren "Gurasoaren zigorra" irakurgaiarentzat (125) izango da lehen saria 1884.eko euskal festetan, eta "aldeera" Gregorio Arrueren "Zarauzko ondekidatzea"-rentzat (126).

Hurrengo bi urteetan sail honek ez du arrakasta handiegirik izango: 1885.ean saritu gabe, "jabegabetua" (127) geldituko da;

---

(119) Ik. "Juegos Florales euskaros" in **Euskal-Erria**, IV, 1881, 259. or.; nahiz "Juegos Florales euskaros. Acta del Jurado" in **Euskal-Erria**, IV, 1881, 282. or.

(120) Ik. **1882. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 35-45. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, VII, 1882, 549-557. orr.

(121) Ik. **1882. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 47-50. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, VII, 1882, 561-563. orr.; nahiz **Euskalzale**, III, 1899, 269. or.

(122) Ik. **Euskal-Erria**, IX, 1883, 517-525. orr.; nahiz **Euskalzale**, I, 1897, 227-228. orr., 252-253. orr. eta 268. or.

(123) Ik. **Euskal-Erria**, IX, 1883, 549-554. orr.

(124) Ik. **Euskal-Erria**, X, 1884, 7-14. orr. eta 33-37. orr.

(125) Ik. **1884. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 17-22. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XII, 1885, 368-372. orr.; nahiz **Euskalzale**, III, 1899, 251-253. orr., 263. or.

(126) Ik. **1884. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 23-27. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XII, 1885, 471-474. orr.

(127) Ik. **1885. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren

1886.ean bi "irakurgai" aurkeztu ziren, baina berriro ere "jabegabetua" gelditu zen lehen saria, nahiz eta "aipamen onragarri" bat eman zitzaion Franziska Ignazia Arruekoari "Euskaldunen bikaiñtasuna" (128) zeritzan kontaketagatik.

F.I. Arruekoari lehen saria ez ematearen arrazoia ez da bere leienda gaztelaniatik itzulita egotea, baizik eta honako hau: "berak azaltzen dituen gertaerak ez diran kondairatiyak, ez ere egirudiak. **Batzarreak** ez dio ematen bestela emango zion gallaldi goyentsuagoa" (129).

Azken bi urteetako beherakadak ez du aparteko eraginik antolatzaileengan, itxuraz behintzat; izan ere, oihartzun eskas hori jasoagatik, 1887.ean ere irakurgaiak izango bait du euskal festen barnean bere saila aurreko urteetan bezala.

Bi urte hauetako "isilune" edo beherakadaren ondotik, ez dator sortzaile berririk: lehendik euskal festen sail honetan ezaguna zen Karmelo Echegarayk eramango du lehen saria "Malko bedeinkatuak" irakurgaiarekin (130). Urte honetako egitarauean, dagoenekoz ohizko den irakurgai-sail honi eskaintzen zaion sariaz gain, badago beste bat ere aipatu nahi litzatekeena:

> "9.º UN OBJETO DE ARTE, ofrecido por la Sociedad local **Unión Artesana**, al autor de la mejor descripción, en prosa ó verso, de la fiesta de Noche-Buena en una familia de artesanos" (131).

---

semeen moldizkiran, Donostian, 67. or.; nahiz "Euskal itz-jostaldiak, Donostian, 1885. Bilguma bereziaren egintza" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, 112. or.

(128) Ik. **1886. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-24. orr. Halaber, **Euskal-Erria**, XVI, 1887, 196-201. orr.

(129) Ik. **1886. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 86. or.; nahiz "Euskal-itz jostaldiak Donostian, 1886. Bilguma bereziaren egintza" in **Euskal-Erria**, XVI, 1887, 47. or.

(130) Ik. **1887. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-27. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, 46-50. orr. eta 88-92. orr.; nahiz **Euskalzale**, II, 1898, 189-190. orr., 198-199. orr. eta 204-205. orr.

(131) Egitarauean euskaraz eta gazteleraz idatzita azaltzen da atal hau. Gaztelerazkoa hautatu bada, euskarazkoan ez dakarren hitz bategatik izan da: "descripción". Euskaraz "nolakoa izaten dan" batez bait dago aditzera emana, eta hitz hori

Azpimarragarria da sari hau, batetik, deialdian eskatzen den kontatze-moduagatik, deskripzioagatik (132), eta, bestetik, kontatze-modu horren bitartez azaldu behar denagatik: Gabon-gaua igarotzeko modua.

Kontaketa orok darabilen kontatze-modu hau (133) leienda eta tradiziotan barrena ere erabiltzen zen, baina atal honek deskripzioa azpimarratu eta prozedura honen desarroilo handiago baterako oinarriak jarriko ditu. Hizkuntza deskripzioaren bidea egiten haste hau beti ere lagungarri izango zaie eleberrigintzari hasiera emango dioten idazleei, eta zer esanik ez, kasu honetan behintzat, deskripzioak jorratu behar duen alorragatik: gabon-gaua, XIX. mendeko idazleen gairik kuttunenetakoa, nahiz bertsoz nahiz prosaz ohiturazko koadroak sortzeko (134).

Union Artesanak eskainitako sari honen irabazlea A.M. Zabala izan zen prosaz idatziriko "Gabon gau bat Euskal-erriko baserri batean" zeritzan (135) ohiturazko koadroarekin; "aldeera", berriz, I. Ruiz de Arbulok prosaz idatziriko "Gabon"-entzat izan zen.

---

azpimarratu nahi bait litzateke hain zuzen. Ik. **1887. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, VIII-IX. orr.

(132) "Narración se llama, preferentemente, a la representación puramente lingüística de la alteración de determinadas personas, situaciones y circunstancias, en el curso del tiempo. Descripción, en cambio, es según este uso, la representación de aspectos inalterados de las cosas, permanentes, momentáneas o recurrentes, o de los hechos sin mayor duración". MARTINEZ BONATI, F.; **La estructura de la obra literaria. Una investigación de filosofía del lenguaje y estética**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1972, 53. or.

(133) "Todo relato comporta, en efecto, aunque íntimamente mezcladas y en proporciones muy variables, por una parte representaciones de acciones y de acontecimientos que constituyen la narración propiamente dicha y por otra parte representaciones de objetos o de personajes que constituyen lo que hoy se llama la **descripción**". GENETTE, G.; "Fronteras del relato" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, 198. or.

(134) Eusebio Maria Azkuek "Gabon afari bat" poema eskaini zion (ik. AZKUETAR, E.M.; **Parnasorako Bidea**, 91-95. orr.), K. Echegarayk 1891.ean "Kontu Zarrak" leiendan Gabon gaua Arizti baserrian deskribatuko du, D. Agirrek **Garoan** "Eguberri txarrak" deritzan kapituluan kontaketa etengo du gau hori deskribatzeko, etab.

(135) Ik. **1887. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 43-57. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXI, 1889, 488-498. orr. eta 534-538. orr.

"Gabon" hau ez zuten osorik argitaratu, luzeegia zeritzotelako (136).

Karmelo Echegarayk eramango du berriro ere lehen saria 1888.ean, sariketara aurkeztu zen irakurgai bakarrarekin: "Antziñako gertaerak" (137).

Urte honetan beste deskripzio bat ere argitaratu zen prosaz, ohorezko aipamena jaso zuen Franzisko Lopez eta Alenen "Donostia" (138), egitaraueko honako atal honi erantzunaz:

> "2.º UNA PLUMA DE PLATA SOBREDORADA, al autor del mejor trabajo biográfico en prosa ó verso, sobre **Easonenses ilustres**; ó de una descripción de la Ciudad de San Sebastián como punto veraniego" (139).

Hirura igoko da 1889. urtean aurkeztutako irakurgaien kopurua. Sariaren irabazlea F. Lopez eta Alen izan zen "Lezoko Santo Kristoren eleizachoa"-rekin (140); "aldeera", berriz, Toribio Alzagarentzat "Iziar"-ekin (141).

Aurkeztutako idazlanen kopurua mantendu egingo da 1890.ean. Eta berriro F. Lopez eta Alenek eramango du lehen saria "Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat" titulutzat zeraman irakurgaiarekin (142); "aldeera", berriz, Karmelo Echegarayk jaso zuen "Euskaldun bikaiñ bat"-ekin (143).

---

(136) Ik. **1887. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 59-64. orr.

(137) Ik. **1888. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-24. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XX, 1889, 7-12. orr.; nahiz **Euskalzale**, II, 1898, 255-256. orr. eta 259-260. orr.

(138) Ik. **1888. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-30. orr.

(139) **Ibidem**, 25-30. orr.

(140) Ik. **1889. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-24. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXI, 1889, 568-571. orr.

(141) Ik. **1889. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 23-26. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXI, 1889, 573-575. orr.

(142) Ik. **1890. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-24. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXIV, 1891, 81-86. orr.

(143) Ik. **1890. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-30. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, 362-367. orr.

Hurrengo urtean, 1891.ean, hasierakoetara helduko da berriro aurkeztutako idazlanen kopurua, bost irakurgai aurkeztuko bait dira. "Zillarrezko erramu adarra" Karmelo Echegarayrentzat izan zen "Kontu zarrak" leiendagatik (144); Union Artesanak eskainitako "Artez edo manoro egintako zerbait gauza", Toribio Alzagarentzat "Okendo" leiendagatik (145); eta "aldeera", R. Murga Mugartegirentzat "Arrechinaga" leiendagatik (146).

Urte bateko susperraldia besterik ez da izango. Hauek dira Donostiako "itz-jostaldi" eta "euskal festen" inguruan sortutako azkenengo leiendak. Ondorengo urteetan "jabegabetua" geldituko da edo egitarauetik at. Alabeharrez gelditzen da "jabegabetua" 1892. eta 1894. urteetan; urte horietan ez bait zen leienda bat bakarra ere aurkeztu (147). Tartean gelditzen den urtean, 1893. ean, ez ziren ospatu; ezta 1894.ean ere.

Donostia ospa-leku zeukaten festa hauek Gipuzkoan barrena barreiatuko dira 1896.etik aurrera, urtero herri desberdin batean. "Deszentralizazio" honekin batera azkena helduko zaio "irakurgaiaren" sailari.

Atal hau ez dute jasoko ez 1896.ean Arrasaten ospatu zirenek (148), ezta 1897.eko Oiartzungoek ere (149).

Zestoan 1898.ean ospatutakoek ere ildo beretik jarraituko dute,

---

(144) Ik. **1891. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 19-23. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXV, 1891, 553-557. orr.

(145) Ik. **1891. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-28. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXV, 1891, 529-532. orr.

(146) Ik. **1891. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 29-31. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, 19-21. orr.

(147) Ik. **1892. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 67. or. eta **1894. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 107. or.

(148) Ikus egitaraua, **1896. Euskal-festak Mondragonen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, I-IV. orr.; nahiz "Euskal festak Mondragonen, 1896" in **Euskal-Erria**, XXXIV, 1896, 365-369. orr.

(149) Ikus egitaraua, **1897. Euskal-festak Oyarzunen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 4-8. orr.; nahiz "Euskal festak Oyarzunen, 1897" in **Euskal-Erria**, XXXVI, 1897, 375-379. orr.

hots, irakurgaien saila egitarauean sartu gabe (150); are gehiago, Zestoako euskal festa hauek "izkribatzalleen" arteko "indar-neurketarik" gabe gelditzeko arrisku bizian egon ziren (151), baina azkenean "izkribatzalleen" arteko "indar-neurketek" ere izan zuten lekua (152) ganadu-txapelketa lehen aldiz sartu zuten festa hauetan.

Zumarragan 1899. urtean ospatutakoek (153), Zumaiako 1900. ekoek (154) eta Azpeitiko 1901.ekoek (155) irakurgaien sail hau deialdian ez sartzea ohitura bihurtu dela erakusten dute. Donostiako itz-jostaldi eta euskal festak antolatutako sariketei esker sortu ziren leiendarik gehienak.

Mendearen azken hogei urteetan hainbeste hedatu ziren gainontzeko euskal festa eta Lore-jokoetan ez zuen oihartzun handirik izan. Batzutan egitarauaren barnean ez zegoen (156); beste batzutan

---

(150) Egitarauaren berri izateko, ikus **1898. Euskal-festak Zestua-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 4-8. orr.; nahiz "Euskal festak Zestuan, 1898" in **Euskal-Erria**, XXXVIII, 1898, 272-277. orr.

(151) "Diputazio chit goituak, ill onen I.ko eguneko billaldian erabaki zuen 'egiñ dadilla Zestua-n nekazaritza eta ganaduen bilkida, eliza-festa, utsakiñ, asiera emanik datorren Agorraren II-n'.

Ez dira, bada egingo izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzak; eta nola artu baitiran lan batzuek, jakiñ erazten zaye egilleai berenganatu ditzatekiela, ala nai balute, eskaturik, datorren Agorraren I.ko eguna baño len, Euskal-itz-jostaldien Goarpelari jaunari". Ik. **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, 10. or.

(152) "Diputazio chit goituak, ill onen 24-ean izantako billaldian, erabaki du baimena ematea Zestuako urkondear batzuen eskaerari, zeiñari lagundu dion Donostiako Euskal-itz jostaldien Batzarreak.

Egingo dira, bada izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzak, eta bere denboran agertuko degu nolakoak izan diran". Ik. **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, 190. or.

(153) Egitarauaren berri izateko, ikus **1899. Euskal-festak Zumarraga-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 4-8. orr.; nahiz "Euskal festak Zumarragan" in **Euskal-Erria**, XLI, 1899, 10-15. orr.

(154) Egitarauaren berri, **1900. Euskal-festak Zumaya-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 5-8. orrialdeetan.

(155) Ikus egitaraua, **1901. Euskal-festak Azpeitiya-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 3-8. orr.

(156) Ikus, esate baterako, 1880. urtean Beran ospatutakoen egitaraua, "Berako Besta. Euskarazkoak. Fiestas euskaras de Bera" in **Euskal-Erria**, I, 1880, 6-9. orr. edo Begoñan ospatutakoena, "Certámen de Begoña" in **Euskal-Erria**, I, 1880, 9. or.

egitarauak aukera eskaintzen zuen idazlana prosaz nahiz bertsoz aurkezteko, eta kasu hauetan bertsoz idatzirikoak atera ziren garaile. Horrela gertatu zen, esate baterako, 1883. urtean Iruñean; eta baita Markinan ere. Iruñeko sariketak "un premio, consistente en una **pluma de Oro**, al autor de la mejor composición en vascuence, en prosa ó verso, inspirada en las glorias históricas navarras, en sus tradiciones ó en los hechos de algunos de sus héroes" (157) eskaintzen eta eskatzen zuen. Saria bertsoz idatziriko idazlan batek eramango du (158). Berdin gertatzen da Markinan. Hemen "para la mejor poesía lírica de unos 50 versos ó para la mejor narración corta en prosa" eskaintzen zuten saria (159). Oraingoan ere K. Echegaray izango da irabazlea, baina ez erlatu labur batekin, baizik eta poema batekin: "Zertako" titulutzat zeraman poemarekin (160). Aukera-mota honen adierazle diren beste zenbait adibide ere aipa daitezke, hala nola, 1884.ean Iruñean ospatutako sariketa (161) edo 1885.ean Durangon ospatzeko zena eta 1886.era atzeratu zena, zenbait zirkunstantzia zirela bitarteko (162).

---

edo 1881.ean Irunen ospatutakoena, "Juegos Florales euskaros" in **Euskal-Erria**, III, 1881, 215-216. orr. edo Bilbon 1882.ean ospatutakoena, "Fiestas Euskaras en Bilbao. Euskal festak Bilboon" in **Euskal-Erria**, VI, 1882, 143-146. orr.; nahiz "Fiestas euskaras en Bilbao" in **Revista Euskara**, V, 1882, 117-119. orr.

(157) Ik. "Programa del certámen científico, literario y artístico que por acuerdo del Excmo. Ayuntamiento de Pamplona, ha de celebrarse en aquella capital en honor de su glorioso Patrono San Fermín, en la primera quincena del mes de Julio próximo" in **Euskal-Erria**, VIII, 1883, 368. or.; nahiz "Certámen científico, literario y artístico que en honor del glorioso S. Fermín patrono de esta Ciudad, se celebrará en la misma por acuerdo del Excmo. Ayuntamiento con arreglo al siguiente programa" in **Revista Euskara**, VI, 1883, 77. or.

(158) Saritutako idazlana K. Echegarayren "Pedro Beretarrakoari" da. Ikus **Revista Euskara**, VI, 1883, 177. or.; nahiz "El certámen científico, artístico y literario de Pamplona" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 42. or. Bi aldizkariek argitaratu zuten poema hau. **Revista Euskaran** aipatutako urte eta zenbakian 176. or. eta hurrengoetan aurki daiteke. **Euskal-Errian** aipatutako urte eta zenbakian 172-174. orr.

(159) Ik. "Fiestas euskaras en Marquina. Con permiso de la autoridad competente" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 119. or.

(160) Ik. "Fiestas euskaras en Marquina" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 258. or.; nahiz "Fiestas euskaras en Marquina" in **Revista Euskara**, VI, 1883, 254. or.

(161) Ik. "Certámen científico, artístico y literario de Pamplona" in **Euskal-Erria**, X, 1884, 252. or. eta "Certámen científico, artístico y literario de Pamplona, en 1884. Dictámen del jurado" in **Euskal-Erria**, XI, 1884, 362. or.

(162) Ik. "Fiestas euskaras en Durango" in **Euskal-Erria**, XII, 1885, 281. or. eta "Fies-

Azaldutako egoera honegatik edo egitarauek atal hau jaso arren "jabegabetua" gelditu zelako (163), bizpahiru besterik ez dira izango Donostiako euskal festetatik at beste sariketa batzutan saritutako eta argitaratutako irakurgaiak.

Bat "Miluzeko zubiya" da, J. Larreta eta Arzac-ek 1882. urtean Iruñean ospatutako sariketara aurkeztu zuena. Sariketa honek "una escribanía de hierro con incrustaciones de plata y oro" eskaintzen zion "al autor de la mejor leyenda inspirada en la historia o tradiciones navarras" (164). Ezin esan arrakasta handirik lortu zuenik sail honek, leienda bat bakarra aurkeztu eta berari eman bait zioten saria (165). Deialdiak hain harrera eskasa jasotzeari beste datu bat ere erantsi behar zaio: "Miluzeko zubiya" (166) ez zen idazlan orijinala izan, baizik eta Juan Iturralde y Suit-ek aurretik gaztelaniaz idatzita zeukan "El puente de Miluce"-ren itzulpen libre bat. "El puente de Miluce" 1870. urtean J. Iturralde y Suit-ek "El País Vasco-Navarro"-n argitaratu zuen otsailaren 23an, baita "Miluzeko Zubiya" bera **argitaratu** baino urtebete lehenago **Revista Euskaran** bertan ere (167). Joaquin Larreta eta Arzac-ek Iruñeko sariketara "Miluzeko zubiya" aurkeztean ez du bestearen itzulpen libre bat besterik egiten (168).

Beste bat "Aztua" da, Antonio Arzac-ek Nafarroako Elkargoak eta Bilboko Euskalerria Elkarteak 1883.ean Hondarribian antolatu

---

tas euskaras de Durango" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, 101. or. Aipatutako azken urte eta zenbakiko 454-457 orrialdeetan argitaratu zen saritutako idazlana: F. Arrese Beitiak bertsoz idatziriko "Astarloa asko yakinari alabantzak".

(163) Gernikan 1888. urtean ospatutako sariketarako deialdiak jasotzen zuen atal hau: "3.º Leyenda histórica bizcaina, en bascuence y en prosa. Premio: un objeto de arte". Ik. "Fiestas euskaras en Guernica" in **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, 347. or.; baina ez zen saritu. Ik. banatutako sariak **Euskal-Erria**, op. cit., XIX, 1888, 268-269. orr.

(164) Ik. "Certámen literario en la ciudad de Pamplona" in **Revista Euskara**, V, 1882, 146-148. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, VI, 1882, 219. or.

(165) Ik. **Revista Euskara**, V, 1882, 283. or.; nahiz "Certámen literario de Pamplona" in **Euskal-Erria**, VII, 1882, 74-76. orr.

(166) **Revista Euskara** eta **Euskal-Erria** aldizkarietan argitaratu zen. Ik. **Revista Euskara**, VI, 1883, 243-247. orr. eta **Euskal-Erria**, IX, 1883, 225-228. orr.

(167) Ik. "El puente de Miluce" in **Revista Euskara**, V, 1882, 325-333. orr.

(168) Ik. **Revista Euskara**, VI, 1883, 243. orrialdeko oin-oharra.

zuten sariketara aurkeztu zuena. Bi leienda besterik ez ziren bidali (169) Nafarroako Elkargoak eskaintzen zien sarira (170). "Aztua" zeritzan leienda izan zen sari-irabazlea eta, horrenbestez, argitaratu zena (171).

Lehiaketa desberdinetatik kanpo ere argitaratu ziren irakurgai oso labur gutxi batzu. Hauek ez ziren argitaratu, besteak bezala, lehiaketaren batean sarituak izateagatik. Kontaketa hauen egileak Lore-joko eta euskal festetako lehiaketetan parte hartzen dutenak dira gehienetan. Hauen artean daude A. Campion "Agintza" kontaketa oso laburrarekin (172), F. Lopez eta Alen "¡Arrantzalia!" kontaketa oso laburrarekin (173) eta K. Echegaray "Maieko bedeinkaera" (174) eta "Euskal-Erria" (175) kontaketekin.

Izen hauei prosa narratiboaren alor honetan lehiaketetan plazaratu gabe zeuden Domingo Agirre, R.M. Azkue eta B. Echegaray erantsi behar zaizkie. Lehena "Buruazurra" (176) kontaketa laburrarekin plazaratzen da, bigarrena "Peru Matraka ta Pedr'Anton"-ekin

---

(169) Ik. "Fiestas y juegos florales en Fuenterrabía" in **Revista Euskara**, VI, 1883, 240-241. orr.; nahiz "Fiestas en Fuenterrabía. Dictámen del Jurado" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 266. or.

(170) "Trabajos en prosa y bascuence.Medalla de Plata. Premio de la Asociación euskara a una 'Leyenda histórica ó tradicional del país euskaro en prosa y bascuence, dejando el asunto á elección del autor'" irakur daiteke **Euskal-Erria**, IX, 1883, 121. orrialdean. Ikus: "Juegos Florales en la ciudad de Fuenterrabía. Euskal-pestak Ondarribiko urian (Gipuzkoa)". Egitaraua **Revista Euskarak** ere jaso zuen. Ik. "Fiestas euskaras en Fuenterrabía" in **Revista Euskara**, VI, 1883, 159-160. orr.

(171) Ik. **Revista Euskara**, VI, 1883, 293-295. orr.; nahiz **Euskal-Erria**, X, 1884, 158-160. orr.

(172) Ik. **Euskal-Erria**, XVI, 1887, 29-30. orr.

(173) Ik. **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 148-150. orr.; nahiz **Euskalzale**, III, 1899, 26-27. orr.

(174) Ik. **Euskal-Erria**, XII, 1885, 313-314. orr.

(175) Kontaketa hasi aurretik K. Echegarayk berak dioenez, Henri Conscience-ren **La Vierge de Flandre**-ren antzera egina dago. K. Echegarayren kontaketa lehenbizi **Euskal-Erria**, XXV, 1891, 1-4. orr., 33-37. orr. eta 65-68. orrialdeetan argitaratu zen; gero **Euskalzale**, II, 1898, 271-272. orr., 273-275. orr. eta 285-287. orr.

(176) Ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 276-278. orr. Halaber, **Euskalzale**, I, 1897, 354. or.

(177) eta hirugarrena "Irakurgai chiki bat"-ekin (178).

Nahiz eta euskal prosa narratiboaren hastapen hauetan alegien ondotik leiendak kokatu, ahantz ezinekoak dira leienda hauen sorreraren aurretik argitaratutako beste zenbait testu: elkarrizketa batzu eta J.B. Daskonagerreren **Atheka-gaitzeko oihartzunak**, 1870. urtean argitaratua. **Atheka-gaitzeko oihartzunak** euskal lehen eleberritzat jo da (179), baina euskaraz ezagutu den lehen argitalpena frantsesetik itzulita dago.

J.B. Daskonagerreren eleberria lehenbizi frantsesez argitaratu zen **Les échos du Pas de Roland** izenburupean, aditzera ematen zuelarik euskaraz idatzitako orijinal baten frantses-itzulpena zela. Jarrera hau honela justifikatu zuten euskarazko lehen edizioan:

> "Norbaitek galdegiten balu zertako hain sarri iguriki dugun hau inprima-arazi gabe, ihardetsiko ginioke iduri zitzaukula itzultze frantsesa errexki eta lasterrago saldu ginukela" (180).

Euskarazko orijinala eskatu zenean, orijinal hori azaldu ez eta, sortu egin behar izan zuten eskaerari erantzunez, frantsesetik euskarara itzuliz. J.B. Daskonagerrek Larreguy apaizari eskatu zion itzulpena, baina ez zuen osorik itzuli. Edmond Guilbert-ek itzuli zuen osorik; baina, itzulpen honek kontsultatutako aholkulari guztien oniritzia jaso ez eta, beste bertsio bat egitera jo zuten. Azkenean 1870.ean argitaratu zen zenbait aldaketaren ondoren.

B.A. Mogelek plazaraturiko **Ipui onac** alegi liburuaren ondotik euskal XIX. mendeak alegigile franko ezagutu zituen; J.A. Mogelek **Peru Abarca** idatzi ondoren ere, hau argitaratu gabe zegoelarik

---

(177) Ik. **La Abeja**, I, 1889, 30-32. orr.; II, 1890, 55-60. orr.; III, 1890, 92-96. orr.; IV, 1890, 126-128. orr.; V, 1890, 156-160. orr.; VI, 1890, 188-192. orr. R.M. Azkue kontaketa hau atalka-atalka hasi zen argitaratzen **La Abeja** aldizkarian, baina ez zen bukatzera heldu; lehenago iritsi zitzaion heriotza **La Abeja** aldizkariari.

(178) Ik. **Euskal-Erria**, XXVIII, 1893, 509-510. orr.

(179) "Lafitte saluda esta obra como la primera novela que se haya escrito en vasco" dio Aita Villasantek. Ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 169. or.

(180) "Euskalduneri" in DASKONAGERRE, J.B.; **Atheka-gaitzeko oihartzunak**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., San Sebastián, 1970, 15. or.

—nahiz eta esku-izkribuzkoak ziren kopiei esker (181) ezaguna izan—, zenbait autu edo elkarrizketa idatzi eta argitaratu ziren; hala nola, A.P. Iturriagaren **Diálogos basco-castellanos, para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa** (1842), edo J. Duvoisinen **Laborantzako liburua** (1858), aita-seme batzuen arteko elkarrizketa, edo J. Bermingham-ek 1868-1870 urteen artean argitaraturiko elkarrizketak.

Autu edo elkarrizketak eta **Les échos du Pas de Roland**-en itzulpena alegietatik leiendetara doan tarte horretan kokatzen dira prosa narratibo idatziaren barnean, edo, behintzat, horiek dira tarte horretan, alor honen kutsu edo zantzuren bat gordez argitaratzen diren testuak.

Beste itzulpenen bat ere egin zen, hala nola, J. Duvoisin Kapitainak Fénelonen **Les aventures de Télémaque**ren (1699) lehen hamabi liburukiez egin zuena; baina ez zen argitara eman. Askoz beranduago **RIEV** aldizkariak "Calipzoren harpea" zeritzan ataltxo bat argitaratu zuen (182). Egile beraren **Baigorriko zazpi liliak** kontaketak argitalpen mailan ezagutu zuen zoriaren antzerakoa ezagutu du itzulpen honek ere: ez du argirik ikusi XX. mende honen bukaera arte (183).

"Itz-jostaldiek" eraginda sortzen diren lehen leiendetatik bost-sei urtetara, 1884-1885 urteetan, dator euskal literaturara enmarkaturik dagoen kontaketa laburren bilduma bat nobela labur moduan edo irakurri ahal izango litzatekeena, J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** (184); handik gutxira, besterik esan bada ere, 1888.ean

---

(181) A. Villasantek dioenez ere ezaguna zen, argitaratu aurretik, garaiko euskaltzaleen artean:

"Y aunque tardó tantos años en publicarse, la obra no era desconocida de los vascófilos, pues por el país se difundieron diversas copias manuscritas de la misma". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 211. or.

(182) DARANATZ, J.B.; "Une page du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXII, 1931, 555-558. orr.

(183) FENELON-DUVOISIN; **Telemake. Ulisen semearen gertakuntzak**, Elkar, Donostia, 1988.

(184) Honela dio J. San Martinek: "Nork uka lezaioke eleberritasuna? Dena dela, era horietako narrazioetan aintzindarien artean agertzen zaigu. Ez die zorrik joan zen mendearen hondarretan egin ziren eleberriei". SAN MARTIN, J.; "Aintzin sola-

(185), aurrekoarekin egituratze mailan kidetasunik gordetzen duen eta lehen ipuin luzetzat ere jo izan den (186) J.B. Elissanbururen

---

sa" in DUVOISIN, J.; **Baigorriko zazpi liliak**, Elkar, Donostia, 1987, 12-13. orr.

(185) Zenbait lekutan 1889. urtea irakur daiteke **Piarres Adameren** argitalpen-urtetzat. Ikus, esate baterako, GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1983, 27-28. orr. edo URKIZU, P.; **Lengua y literatura vasca**, Luis Haranburu editor, San Sebastián, 1978, 146. or. edo LASAGABASTER, J.M.; "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, 357. or.

Hala ere, besterik dio J. Vinson-ek **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque**, 1**, Caja de Ahorros Vizcaína, Departamento Cultural, Colección Bibliográfica, Bilbao, 1983, liburuan 640. or., 653-10 zenbakian. Hemen honako hau irakur daiteke: "PIARRES ADAME Saratarra. Zenbait hitztorio lapurdiko eskuaran.— J.B. Elissanburu. **Pau**, impr. Garet, 1888". Urte hau berau irakur daiteke J. Bilbaok eskainitako bibliografian: **Piarres Adame Saratarraren zembait hitztorio Laphurdiko eskuaran**. Pau: Garet, 1888 (86 pp., 16 cms.). Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, III, Editorial Auñamendi-Estornés Lasa Hnos., San Sebastián, 1973, 119. or., Elissanburu, Jean Baptiste sarrera.

Xehetasun gehiago eskaintzen du **Piarres Adameren** argitaratzeari buruz Frédéric Batiste Larzabal-ek; pasartea luzea izan arren, osorik dakargu urtearen datuari beste berri batzu ere eransten dizkiolako: "Iduriz lehen aldikotz, 'Piarres Adame' 'feuilleton' bezala agertzen da Donibane Lohizuneko 'La Nivelle' deitu aldizkarian.

'La Nivelle' 1883-ko ekainean sortu zen. Idazle nagusia zuen J.B. Deluc. Errepublikanoên aldekoa, gorria, 1884-ean Guilbeau-ren herriko gizon-zerrenda sustatu zuen. Pau-eko bibliotekan den 'La Nivelle' 47-garren alean bukatzen da. Bainan 1886-ko Urriaren 10-ean arrapizten da, Jules Louit duela buru. Urriaren 14-ean hasten da 'Piarres Adame'-ren argitaratzen. Bainan Pau-eko seria 1886-eko hazilaren 14-ean bukatzen da. Orduan 'Piarres Adame' bostgarren kapituluan da.

Beti 'feuilleton' bezala 'Piarres Adame' 'Le Revéil Basque' Berdolyren astekari errepublikanoan agertzen da. Hasten da 1887-ko ekainaren 26-an eta 1888-ko martxoaren 18-an bukatzen. 'J.B.E. Saratarra' izenpetua da.

1888-an beti, 'Garet' imprimerian, 'Piarres Adame' argitaratu zuten". Ik. "J.B. Elissanburu eta Oxalde, bi gorri. I. Elissanburu" in **Ekaina. Revue d'Etudes Basques**, Editée par l'Association culturelle Amalur, n.º 15, 1985, 161-162. orr.

(186) G. Garatek **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko, Piarres Adame** eta **Bein da betiko** aztertuz hasi du, baina berak dioenez praktikotasunari zor zaio jokabide hau: "Guk, halere, pratikotasunari begira, Elizanbururen eta Azkueren ipuin luzetxo horiek ere aztertuko ditugu, euskal elaberrigintzaren lehen aintzindariak bait dira". GARATE, G.; op. cit., 28. or.

Piarres Adame argitaratuko da. R.M. Azkuek, berriz, **Bein da betiko** (187) eskainiko du 1893.ean. Tartean Antero Apaolazak **Pachicu Cherren** (188) argitaratzen du 1890.ean; Truebaren **El judas de la casa**-ren adaptazio bat da (189).

Azkenik, 1898. urtean argitaratuko da **Euskalzale** aldizkariaren orrialdeetan euskal lehen eleberritzat jo den (190) Domingo Agirreren **Auñemendiko Lorea**. Aldizkari honek bere sorreran, 1897.ean, eleberri-lehiaketa bat antolatu (191) eta **Auñemendiko Lorea** izan zen irabazlea (192).

Hainbat eta hainbat erizpide desberdin erabili da, eleberria gai-

---

(187) **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, Imprenta de la Casa de Misericordia, Bilbao, 1893.

(188) **Pachicu Cherren**, J. López, Vergara, 1890, 66 orrialde.

(189) Ik. MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 155. or. nahiz SAN MARTIN, J.; "Itz-aurrea" in APAOLAZA, A.; **Patxikó Txerren**, Auspoa Liburutegia, 8, Tolosa, 1962, 15-19. or.

(190) "Hortaz, **Euskalzale** aldizkariak, **Auñemendiko Lorea** nobelak eta Agirre nobelariak marratzen dute, hemeretzigarren eta hogeigarren arteko mende-mugan, euskal nobelaren sorrera" dio J.M. Lasagabasterrek. Ik. LASAGABASTER, J.M.; "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 358. or. Ondorio horretara heltzeko erabilitako erizpideak aipatu orrialdean zehar aurki daitezke. Eta nahiz eta artikulu honetan zehar 1898. urterarte egiten den euskal prosa narratiboaren ibilbide horretan ez den espreski aipatzen J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** (harrigarria ez dena, bestalde, oso ezezaguna izan den testua delako 1987. urtean liburu gisa argitaratu den arte), hor ezartzen diren erizpideen arabera ezin izango litzateke **Baigorriko zazpi liliak** honetan jarri euskal nobelaren sorrera. Edo-ta "lehenbiziko euskal elaberria (eskasa bada ere) 1898an idatzi izan zela esan beharra dago: Txomin Agirre-ren **Auñemendiko Lorea**" dio G. Garatek. Ik. GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 28. or.

(191) Honako dei hau zabaltzen du **Euskalzale** aldizkariak, eleberriaren eta antzerkiaren alorretan euskal literaturak jasaten duen hutsuneaz jabeturik:

"EUSKALZALEK, adiskide batzun laguntasunaz, gure liburuteri urri banakatua ugaldutearren, eta euskereak, beste berbeta edo izkeraak daukezan lako irakurtekoak euki daizan dei bat egin nai dautse euskeraz eskutiztuten dakienai.

Lan bi sarituko dira batzaldi onetan. Lenengoa: Biltoki edo teatrorako lan bat, musikea ezarri leiona.

Bigarren lana: Erderaz **novela** edo **roman** deritšon lako liburu bat". Ik. "Batzaldia" in **Euskalzale**, I, 1897, 8. or.

(192) Ik. "Batzaldia" in **Euskalzale**, II, 1898, 8. or.

nontzeko erlatu-motetatik bereizteko; hasi luzeraren datu hotzetik (193) eta segi pertsonaiek jasotzen duten tratamendura arte (194). Hala ere, ez da gogobeteko zedarripen batera heldu (195).

J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak**, J.B. Elissanbururen **Piarres Adame** eta R.M. Azkueren **Bein da betiko** dira itzulpenak edo adaptazioak izan ez eta **Auñemendiko Loreaz** aurretik euskaraz idatziriko erlaturik luzeenak. Hala ere, ez dute nobela deitura jaso. J.B. Elissanburuk **Piarres Adame Saratarra. Zembait hitztorio laphurdiko eskuaran** (196) izenburupean argitaratu zuen; R.M. Azkuek, berriz, **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko** izenburupean.

Auñemendiko Lorea "**novela** edo **roman**" bat eskatzen zen sariketa literario batera aurkeztu zen; baita sariketa hori irabazi ere. Baina argitaratu "irakurgai" izenburupean argitaratu zuen **Euskalzale**

---

(193) Hona hemen Abel Chevalley-ren nobelaren definizioa: "una ficción en prosa de cierta extensión". Gehixeago zedarrituko du E.M. Forster-ek, luzerari dagokionez: "Esto nos basta, aunque tal vez nos atrevamos a añadir que la extensión no debe ser inferior a las cincuenta mil palabras". FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, Editorial Debate, Madrid, 1983, 12. or. Julia Kristevak ere ez du muga zehatzagorik ezarriko: "Todo relato que supere el marco de la epopeya o del cuento popular ha podido ser llamado novela mientras fuera suficientemente largo, sin que fuera dada a sus particularidades una definición precisa y satisfactoria". KRISTEVA, J.; **El texto de la novela**, Editorial Lumen, Barcelona, 1981, bigarren argitalpena, 19. or. M. Robert-ek bere **Novela de los orígenes y orígenes de la novela** liburuaren lehen atala "El género indefinido" titulupean eraikitzen du. Ik. ROBERT, M.; **Novela de los orígenes y orígenes de la novela**, Taurus Ediciones, Madrid, 1973, 7. or.

(194) J. Souvagek Ian Watt-ek egindako bereizketa bat jasotzen du: "Llegados aquí podemos considerar brevemente dos de las principales características por las que, según Ian Watt, la novela se distingue de otros géneros y otras formas anteriores de la narrativa, a saber, 'la cantidad de atención que habitualmente presta... a la individualización de sus personajes y a la detallada presentación de su entorno'". SOUVAGE, J.; **Introducción al estudio de la novela**, Editorial Laia, Barcelona, 1982, 113. or.

(195) Ipuina eta eleberria bereizteko egin diren hainbat eta hainbat saioren laburpena jaso du E. Anderson Imbert-ek, beti ere azpimarratuz badaudela ipuinak nahiz eleberriak teorikoek ezarritako ezaugarrietatik ihes egiten dutenak. Ik. ANDERSON IMBERT, E.; **Teoría y técnica del cuento**, Ediciones Marymar, Buenos Aires, 1979, 43-52. orr.

(196) Ik. VINSON, J.; **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque**, 1**, 640. or., 653-10 zenbakia.

aldizkariak, sariaren irabazlearen berri ematean **novela**-ren euskal ordez "irakurgai" ematen duelarik:

> "Oraintše urte bete dei bat egin geutsan euskalzaleai, irakurgai edo **novelak** eta iostirudi edo **komediak** eskatuten geutsazala" (197).

"Irakurgai" terminoaren esanahiari buruzko eztabaida posibleak alde batera utziz, ikus daiteke **Euskalzale** aldizkariak izenburu horren azpian gaur egungo sailkapenean leku desberdinetan kokatuko liratekeen idatziak biltzen dituela, nahiz eta "nobela" eta "irakurgai" terminoak elkarren ordezko gisa erabili **Euskalzale**k nola sariketarako deia egitean, hala sariketaren emaitzaren berri ematean ere.

Leienda laburrak, biografiak, monografiak, **Auñemendiko Lorea** "novela" eta abar **irakurgai** izenburuaren azpian biltzen ditu **Euskalzale**k urte desberdinetako "aurpidetan" (198). Honako ondorio hau

---

(197) Ik. "Batzaldia" in **Euskalzale**, II, 1898, 8. or.

(198) Lehenengoak, 1897.eko aleak, esate baterako, aurretik Donostiako Lore-jokoetan leienden sailean saritu dituzten eta "oroimengarrietan" nahiz **Euskal-Erria** aldizkarian argitaratutako "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" (**Euskalzale**, I, 1897, 295, 302-303, 306-307. orr.) eta "Okendoren eriotza" jasotzen ditu (**Euskalzale**, I, 1897, 227-228, 252-253, 268. orr.); horiekin batera, askoz luzeagoak direnak eta erlatu historikoak ez direnak ere badaude: hala nola, **Batši guzur** (**Euskalzale**, I, 1897, 131-132, 140-141, 155-156, 165-166, 172-173, 189-190, 221-222, 309-310, 317-318. orr.).

1898.eko aleak, esate baterako, honako hauek jasotzen ditu "irakurgai" titulupean: erlatu labur historikoak, **Antšiñako gertaerak** bezalakoak (**Euskalzale**, II, 1898, 255-256, 259-260. orr.); **Arakiztain-en geigarria**, hiztegi bat (**Euskalzale**, II, 1898, 344, 352, 360, 368, 376, 392, 400, 416-420. orr.); biografia bat, D. Agirreren **A. Larramendi-ren bizitzaren berri labur bat**, hain zuzen, 1890.eko Donostiako Lore-jokoetan sari bat irabazi zuena biografien sailean (**Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1890, 67-83. orr. Halaber, **Euskalzale**, II, 1898, 388-389, 397-398, 421-424. orr.); **Auñemendiko Lorea**, oinarriak ezarritako arauen arabera irabazle izan den nobela historikoa...

1899.ekoak ere "irakurgai" kontzeptuak zer biltzen duen ez du gehiegi argitzen. Izenburu horren azpian aurki bait genitzake "Irakurgaia" leienda, Larreta-Azelaingo Joakinena (**Euskalzale**, III, 1899, 33-34, 42-43, 53-54. orr.); "Ama Birgiña Aranzazu-koaren kondaira", Donostiako euskal festetan "Ama Birjiña Aranzazu-koaren kondaira" titulupean 1890.ean monografia historiko tradizionalen sailean saritu zutena, J.K. Gerra-koarena, (**Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1890, 53-66. orr. Halaber, **Euskalzale**, III, 1899, 14-15, 19-20, 35-36, 56, 59-60, 71-72. orr.); **¡Arrantzalia!**, 1888.ean **Euskal-Erria** aldizkarian argitaratu zena, kontaketa batetik baino deskripzio batetik hurbilago dagoena (**Euskalzale**, III, 1899, 26-27. orr.).

atera daiteke: batzutan "irakurgai" hitz konposatua bere zentzurik zabalenean hartzen dute eta beste batzutan zentzu murritzagoarekin darabilte, hots, nobelarenarekin. Era berean, ondorio berdina atera daiteke **Auñemendiko Lorea** aldizka argitaratzeari hasiera ematean, Euskalzale izenpetzen duen batek (199) idazten duen oin-oharretik:

> "Auše da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia. Au baiño aurrerago iaio direnak, batzuk erdiz erdizean baiño eztira agertu (**Batši guzur, Peru Matraka ta Pedranton** da besteren bat); beste batzuk irakurgaia baiño irakurgaitšuaren izena egokiagoa edo aiutuagoa dabe" (200).

Zalantzarik gabe **Euskalzale** aldizkariaren "aurpide"-tan aurki daitekeen "irakurgai" kontzeptuaren erabilera baino murritzagoa da honako hau.

R.M. Azkuek "lenengo irakurgaia" izatearen ohorea eskaintzen dio **Auñemendiko Loreari**. Berak dioen bezala, **Batši guzur**, agertzen duen egitura irekiagatik —agerraldiak—, bukatu gabekotzat jo daiteke, nahiz eta bederatzi agerraldi argitaratu zituen **Euskalzale** aldizkarian bertan, **Auñemendiko Lorea** 1897.ean argitaratzen hasi aurretik. Egitura ireki horri esker nahi adinbat agerraldi erants zekiokeen, bakoitzean Batši guzur-en abentura berri bat sartuz.

Peru Matraka ta Pedr'anton, Batši guzur-en egile berberarena, R.M. Azkuerena, **La Abeja** aldizkarian hasi zen argitaratzen 1889. urteko abenduan "Ezti-abauak" goitizenez izenpetuta (201).

"Erdiz erdizean" eginak direla dio, eta hala dela aitor daiteke, baldin eta arestian esan den bezala **Batši guzur** jarraipena izan zezakeen kontaketatzat hartzen bada; izan ere, **Peru Matraka ta Pedr'anton** "Iarraituko dau" batez gelditzen bait da **La Abeja** aldiz-

---

(199) Euskalzale goitizenez izenpetzen duena R.M. Azkue bera da. Honela dio J.A. Arana Martijak: "Allí —**Euskalzale** aldizkariaz ari da— firmó don Resurrección trabajos con los seudónimos **Eketa, Basozale bat, Euskalzale, Tsirrist, Vascófilo**". ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección María de Azkue**, 50. or.

(200) Ik. **Euskalzale**, II, 1898, 12. or.

(201) Ezti-Abau horren azpian ezkutatzen dena R.M. Azkue da, bera jotzen bait du J.A. Arana Martijak **Peru Matraka ta Pedr'anton**-en egiletzat. Honela dio: "Era en 1889 cuando en esta revista publicó Azkue sus primeros trabajos, uno de ellos la narración amena **Peru Matraka ta Pedranton**". ARANA MARTIJA, J.A.; op. cit., 49. or.

kariak azkenengo alea, seigarrena, 1890.eko maiatzean argitaratu zuenean.

Hauek dira "erdiz erdizean" argitaratutako irakurgaiak titulu bidez izendatzen dituenak; hauei "besteren bat" eransten die. "Besteren bat" honetan J.B. Elissanbururen **Piarres Adame** ezkuta daiteke, zeren eta argitaratu zuenean "lehen zathia" besterik ez bait zuen argitaratu (202). "Besteren bat" honen azpian nekez ezkuta zitekeen J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak**. Izan ere, R.M. Azkuek lerro hauek **Euskalzale** aldizkarian idazten dituenean, ez bait zuen ezagutuko **Baigorriko zazpi liliak**. Honela dio J. San Martinek:

> "Broussainek 1911. urteko azaroaren 20 eta 29an Azkuei idatzi zizkion gutunetan aipatzen da. Azkuek, urte bereko abenduaren 4an **Baigorriko zazpi liliak** delako hori berak eskuratze nahia agertzen dio eta 1912.eko urtarrilaren 1ekoan erantzuten dio Broussainek ipuiori buruz, lortuko zituela eta buruz buru berak irakurri ondoren igorri J. Urkixoren bidez" (203).

R.M. Azkueren azalpen honetan deigarria da, besteak beste, nola berak 1893. urtean argitaratu zuen **Bein da betiko**ri tituluaren gainetik "lenengo irakurgaia" jarri zion eta orain 1898.ean ohore hori **Auñemendiko Lorea**ri eskaintzen dion. Eta ez da; izan ere, **Bein da betiko**, "erdiz erdizean" argitaratutako irakurgaia, osorik liburu gisa "Imprenta de la Casa Misericordian" argitaratu bait zen Bilbon. Badirudi, luzeraren erizpidea erabiliz, **Auñemendiko Lorea**ren aurkezpena egitean nahiago izan duela "irakurgaitsuarekin" bataiatzea bere **Bein da betiko** eta ordurarte, 1898.erarte, argitaratutako beste zenbait kontaketa.

Lehen euskal nobela zein den erabakitzeko ahaleginean eztabaida antzu samar batean erortzeko arriskua dago; izan ere, gaur egun literatur teoriaren barnean balio deskribatzailea ematen bait zaio "genero" kontzeptuari eta ez erromantizismoaz aurretik orohar eman zaion

---

(202) "Liburuak berak dioenez, Elizanburuk bigarren zatia argitaratzeko asmoa zeukan. Axular bezala lehenengoarekin gelditu zen, kontakizuna, dena dela, akitu gabe dago". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 49. or.

(203) SAN MARTIN, J.; "Aintzin-solasa" in DUVOISIN, J.; **Baigorriko zazpi liliak**, 14. or.

balio arautzailea (204). Nolanahi ere, datu konstatagarriak dira **Bein da betiko**ren eta **Piarres Adame**ren laburtasuna; azkeneko hau amaitugabea da gainera.

Prosa narratiboaren presentzia **Euskalzale** aldizkarian ez zen mugatu lehiaketa horren antolamendura eta bertatik sortutako eleberri-garailearen argitalpenera soilik. Hastapenetatik bertatik "irakurgaien" eta ipuinen argitalpen-leku izan zen: lehendik argitaratuta zeudenena (205) —euskal festetan saritutako zenbait kontaketa hor berrargitaratu ziren (206)— eta berriena (207). Hala, XIX. mendearen bukaeran hiru urtez (1897-1899) erlatu-argitaratzaile behinena bihurtu zen; horrek bete zuen prosa-mota honek euskal festetan jasandako beherakadaren ondorengo hutsunea.

2.2. IDAZLEAK

Badirudi euskal literatura "sekularizazio-prozesuan" abiatu dela nola produkzioan hala produzitzaileen aldetik ere.

Gogoan dira, bai, XVIII. mendeko elkarte zientifiko-literarioak eta hauen eragileen status soziala eta zibila: apaizak ez direnak literaturgintzara hurbiltzen dira. Baina, idazleen egoera zibila aztertuz, esan daiteke XIX. mendea dela euskal literatura idatziaren historiak ordurarte izan duen menderik sekularrena.

Lehen-mailako ikasketak gainditurik, erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak egindako idazleak datoz euskal literatura idatziaren es-

---

(204) "La moderna teoría de los géneros es manifiestamente descriptiva. No limita el número de los posibles géneros ni dicta reglas a los autores (...). En vez de recalcar la distinción entre género y género, le interesa —después del hincapié romántico en la unicidad de cada 'genio original' y de cada obra de arte— hallar el común denominador de los géneros, los artificios y propósitos literarios que comparten". WELLEK, R.; WARREN, A.; **Teoría literaria**, 282. or.

(205) R.M. Azkueren **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko, Euskalzale** aldizkariaren 1898.eko ale desberdinetan atalka berrargitaratu zen.

(206) "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" eta "Okendoren eriotza", esate baterako, berrargitaratu zituen 1897.ean "irakurgaien" sailean.

(207) "Batši guzur", "Kristobal andia" (**Euskalzale**, I, 1897, 92-93, 99-100, 109-110. orr., "Batši guzur" bezala egilearen izenik gabe) eta abar argitaratu zituen, esate baterako, 1897.ean "irakurgaien" sailean eta ipuin-mordoska ipuinen sailean.

parrura. Goi-mailako ikasketa horiek ez dira Teologiakoetara mugatzen.

Sekularizazio honen hainbat eta hainbat adibide aurki daitezke prosa narratiboaren hastapenak jarri zituzten idazleen artean: A. Campion legegizona da; M. Gilbeau, medikua; J. Larreta eta Arzac, injeniaritza-ikaslea; A. Apaolaza, medikua... Noski, egia da ia anekdotikoa dela hauetako gehienek —guztiek ez esateagatik— euskal prosa narratiboaren alorrean duten presentzia. A. Campionek gehiago landu zuen prosa narratiboa gazteleraz euskaraz baino; M. Gilbeauk gehiago landu zuen poesia prosa baino (prosaren alorrean bere "Orruel arpeko zuhurra" lau-bost orrialdetako leienda besterik ez da aipatu); J. Larreta eta Arzac-ek ez du bi "leienda" (bat gainera itzulpena) beste arrastorik utzi euskal literaturan; A. Apaolazaren idazlanen artean **Pachicu Cherren** adaptazioa besterik ez da ezagutzen gaur egun.

Baina arazoa ez dago goi-mailako ikasketak egin dituztenen artean bakarrik. Goi-mailako ikasketa horiek egin dituztenei Teologiakoak egin dituztenen izenak gehitzen bazaizkie —R.M. Azkue, D. Agirre, A.M. Zabala, P.M. Urruzuno— eta erdi-mailako ikasketak egin dituztenetara igaro —G. Arrue, K. Echegaray, F. Lopez eta Alen, A. Arzac, T. Alzaga, J.B. Elissanburu Napoleonen armadako Kapitaina, J. Duvoisin Aduanetako Kapitaina—, arazoak lehenean dirau: G. Arruek itzulpena landu zuen batipat; T. Alzagak, antzerkia; A. Arzac, F. Lopez eta Alen, J.B. Elissanburu eta K. Echegaray poesiari lotu beharko, literatur testu-motaren bati lotzez gerotan; J. Duvoisinek hainbat alor desberdin lantzeko erabili zuen luma, baina kontaketaren atalean oso urri azaldu zen.

Zinez, emandako idazle-zerrendan R.M. Azkue izango da joriena, XIX. mendeko prosa narratiboaren produkziogintzari begira; nahiz eta prosa narratiboa ez izan bere idaz-ekintzan arretarik gehien jaso zuena. R.M. Azkueren ondoan D. Agirre aipatu beharko litzateke joritasunaren ikuspegitik, nahiz eta erlatu laburrei XIX. mende honen barnean eleberri bat besterik ez dien erantsiko. P.M. Urruzuno ipuinlari bezala ezaguna bada ere, ez dago ahazterik bere produkzio ia-ia osoa XX. mendeari atxiki behar zaiola. A.M. Zabalari buruz esan behar da erakuskari bat besterik ez zuela utzi aztergai dugun prosa narratiboaren atal honetan.

Beraz, idazle-kopurua ugari samarra da; baina idazlan bakan batzu besterik ez zizkioten eskaini fikziozko prosari.

Idazle guzti hauek ez dute ezaugarri amankomun gisa batipat prosa narratiboa lantzea, baizik eta beste produkzio-mota ugariago baten ondoan noiz edo noiz prosa narratiboari erakuskariren bat edo beste eskaini izatea (208). Eta ez dira, alor zabalago bat hartuz, literatur genero tradizionalen alorrera ere —epika, lirika, dramatika— mugatzen. Ez. Nahiz eta beren produkziorik murritzena epikaren barnean kokatu —prosa narratiboa— eta zabaltasun handiagoz beste literatur generoak ere landu —lirika kasu batzutan, dramatika beste batzutan—, genero hauetatik kanpoko idatziek osatzen dute gehiengoa. Hor daude, besteak beste, gramatikaren alorrean A. Campionek, R.M. Azkuek eta M. Gilbeauk XIX. mendean bertan egindako lanak edo eliz liburuen itzultzaile gisa G. Arruek edo F. Lopez eta Alenek egindako estudio historiko-artistikoak.

Hauetako inork ere ez du literatura ogibide. Ez. Idazle guzti hauek ez dira Lore-jokoetan irabazitako sarietatik bizi —Donostiakoetan opari bat, objetu bat; D'Abbadiek antolatutakotan gehienetan dirua ere bai—; ezta argitaratutako idazlanen errentetatik ere; baizik eta literatur eginkizunetatik at gelditzen den lanbide batetik: apaizgoa, medikuntza, artxibaritza, bibliotekaritza...; nahiz eta denak "profesio liberalak" deitzen diren horien artean sar daitezkeen. Literatura asti orduetako eginkizun dute.

Idazle hauen idazlan literarioak Lore-jokoen gertaerari edo aldizkariren batzuren argitalpenari lotuta azaltzen dira.

Dagoenekoz esana dago zein argitalpen-modu izaten zuten Lore-jokoetan saritutako idazlanek. A. d'Abbadiek antolatzen zituenetan egunkarietan edo aldizkariren batean (209) jasotzen zituzten aipame-

---

(208) Agian, XIX. mendearen hesia igaroz gero, idazlearen bizitzako produkzio osoari begira D. Agirre eta P.M. Urruzuno utzi beharko lirateke baiezpen honetatik at; baina baiezpenak bere horretan jarraitzen du XIX. mendeari soilik lotzen gatzaizkion bitartean.

(209) **Revue des Basses-Pyrénées et des Landes** aldizkariak Lore-jokoetan saritutako zenbait poema argitaratu zituen; hala nola, J.B. Elissanbururen "Apecha eta Lorea" 1862.ean Urruñan saritua (ik. **RBPL**, I, 1884, 231-232. orr.) edo M. Gilbeauren "Enadac, edo Sor Herriaren oroitçapena" Donibane Lohitzunen 1872.ean saritua (ik. **RBPL**, I, 1883, 66-67. orr.). Eta aldizkari hau da, hain zuzen ere, J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** argitaratuko duena.

nez, nahiz eta noizbehinka argitalpenez gain —**Le Courrier de Bayonne, Le Messager de Bayonne, L'Avenir des Pyrénees** bezalako egunkarietan argitaratu ohi ziren—, Baionako inprimategi batzutan ere —Lamaignère, Lasserre— argitaratzen ziren. Inprimategi hauek saritutako edo aipamenen bat jasotako poema argitaratzen zuten orri bakar batean edo bitan, emandako sarien edo aipamenen eta idazlanen luzeraren arabera.

Hegoaldean ospatutako Lore-joko eta euskal festetako idazlan sarituek ere antzeko argitalpen-modua izango dute: aldizkarien bidez —**Revista Euskara** (1878-1883), **Euskal-Erria** (1880-1918), etab. (210)— edo bilduma bezala, Donostian antolatutakoak lekuko.

Aipatutako idazleen kontaketa batek ez beste guztiek argitalpen-modu hauek ezagutuko dituzte.

Leienden sorrera Donostiako "itz-jostaldiei" lotuta dagoenez, leienda horiek "oroimengarrietan" argitaratuko dira, saritutako idazlan gehientsuenak —saritutako antzerki-obrak ez bait dituzte jasotzen— argitaratzen dituzten bilduma horietan. Bilduma horietara egitaraua, epaimahaiaren akta eta abar ere eramango dira, A. d'Abbadieren mezenazgopean antolatutako Lore-jokoetatik sortutako argitalpenetan ez bezala.

Argitalpen honetaz gain, aldizkarietakoa ere ezagutuko dute. Ia denak argitaratuko ditu **Euskal-Erria** aldizkariak. **Revista Euskarak** ez zuen aukera handirik izan, bere bizitza laburra izaki, leienden sorreratik laster hil bait zen.

Lore-jokoen gertaerari lotuta dauden idazlanek bi argitalpen-modu horiek ezagutu zituzten. Gertaera honetatik at daudenek, berriz, aldizkariena bakarrik ezagutuko dute, lehenik behintzat. **Euskal-Erria** aldizkariak argitaratuko ditu idazle hauek sariketetatik at idatzitako kontaketa labur urriak. Gero, 1897.ean, **Euskalzale** aldizkariaren jaiotzarekin beste argitalpen-leku bat sortzen zaio euskal fikziozko prosagileari.

---

(210) Gasteizen argitaratzen zen **Revista de las Provincias Euskaras** aldizkariak ere Lore-joko eta euskal festetan saritutako poemaren bat edo beste argitaratu zuen; baina ez kontaketarik. Argitaratu zituen poemen artean dago Elizondon 1879. urtean aipamena jaso zuen Darroupe-Harluz-en "Amerikarik bidalia" (ik. **RPE**, III, 1879, 183-186. orr.).

Euskal-Erria eta **Euskalzale** aldizkariek jasoko dituzte batipat kontaketa hauek; nahiz eta **La Abeja** aldizkarian edo **La Nivellen** edo **Le Revéil Basquen** edo **Revue des Basses Pyrenées et des Landesen** ere baten bat argitaratu: **La Abejan** R.M. Azkueren **Peru Matraka ta Pedr'anton, La Nivellen** J.B. Elissanbururen **Piarres Adame** (hasiera, ez bait zen bukatzera heldu; **Le Revéil Basquek** argitaratu zuen lehenik osorik), **Revue des Basses Pyrenées et des Landesen** J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak.**

R.M. Azkueren **Bein da betiko** salbu, liburu gisa argitaratu bait zen lehenik, aldizkariak izango dira idazle hauen kontaketen argitalpen-leku.

Arestian esan bezala, idazle hauen literatur produkzioa ez zen genero bati atxiki; baina ezta literaturari (zentzu hertsian behintzat) soilik eta hizkuntza bakar bati ere.

Jatorriz maila sozial desberdinetakoak badira ere (211), Seminarioan, Unibertsitatean edo erdi-mailako eskoletan denek izan dute lehen-mailako ikasketak gainditzeko aukera. Gero, lanbideak berak —nahiz lanbideak utzitako abagaduneak— letren mundura hurbildu zituen. Letren mundu honetan narratibagintzan oso emankorrak izan ez baziren ere, lirikarekin nahiz dramatikarekin aberastu zuten literatur produkzioa. Produkzio hau oparoagoa bihurtzen da, "literatura" terminoaren gaurko zentzua utzi eta lehengora itzuliz gero (212);

---

(211) Oroit D. Agirre eta R.M. Azkue, adibidez. Hauen ikasketak direla-ta, honela mintzo da Aita Villasante:

"Apaizgai batzuk, diru-faltaz, karrera motx batekin ordendu oi ziran, eta gero, jakiña, ematen zitzaizkien karguak ere alakuak izan oi ziran: ots bigarren edo irugarren maillakoak. Ortik bereizkuntza edo desberdintasun usai txarreko bat sortzen zan apaizen artean. Batzuk beti zokoan egon bear.

Domingo Agirre familia pobre bateko semea zan, eta ongille baten laguntasuna izanarren, karrera motx batekin etsi bear izan zuen. Azkuek, berriz, askoz karrera obea egin zuen, eta tituluz ornituago atera zaitzaigun, etxe obeko semea zelako, noski". Ik. "Bizi-xehetasunak. Domingo Agirre gizaki aldetik" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, 19-20. orr.

(212) "Les acceptions actuelles du mot **littérature** sont d'apparition relativement récente. Il existait en latin un mot **litteratura**, calque du grec grammatikê, mais, pour Cicéron, ce n'était encore que l'art de savoir tracer des lettres. Plus tard, le mot en est venu à designer la science, la culture, voire la condition du lettré. C'est le sens qu'il avait encore au début du XVIII[e] s.". ESCARPIT, R.; "Q'est-ce que la litterature" in **Littérature et genres littéraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, Paris, 1978, 7. or.

izan ere, egunkari eta aipatutako aldizkarietan mota desberdinetako artikulugile izango bait dira, zenbait kasutan liburugile ere bihurtuz.

XIX. mendeko erlatu laburgile hauek ez zuten euskara soilik erabili idazterako garaian. Neurriak bereizten baditu ere —R.M. Azkue eta D. Agirre adibidez, nahiz A.M. Zabala eta A. Campion—, behin edo behin kasu batzutan, sarritan beste batzutan, gehientsuenek jo zuten erdarara idazlanetan. Baina A. Campionek ezik, gainontzekoek erdarara jo zutenean, gaur egun literatur alorretik at kokatzen diren idazlanetarako erabili zuten: gramatika, historia, biografia, euskaratik egindako itzulpen batzutan, etab. Euskal Herria eta beronekin lotuta zeuden gaiak zituzten aztergai erdaraz, baina gaur egun literariotzat jotzen diren alorretarako utziz euskara.

Elebakarra ez zen komunitate batean prestijiorik txikiena zuen hizkuntza hautatu zuten alor literariorako, merkaturik txikiena eskaintzen ziena.

Hizkuntzaren muga geografikoek atzeraka jarraitzen duten mende honetan, euskara bizienik gordetzen den herriak izango dituzte idazle hauek sorleku. Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdiko herrietan jaiotakoak dira: K. Echegaray, Azpeitian; G. Arrue, Hernanin; A.M. Zabala, Ezkion; A. Apaolaza, Urretxun; F. Lopez eta Alen, A. Arzac eta T. Alzaga, Donostian; P.M. Urruzuno, Elgoibarren; R.M. Azkue, Lekeition; D. Agirre, Ondarroan; M. Gilbeau, Urruñan; J.B. Elissanburu, Saran; J. Duvoisin, Ainhoan, nahiz eta ia haurtzaro osoa Ezpeletan igaro zuen, etab. A. Campion da salbuespena; euskara galdua duen Iruñean jaioa bait da; baina isladatuko du egoera hau: bera izango da euskara etxean ikasi ez duen bakarra, gaztetan euskaldundu zen idazlea eta idazle-multzo honen barnean euskaraz gutxien idatzi zuenetarikoa.

2.3. IRAKURLEGOA

Erlatu labur hauen irakurlego potentziala aldizkarien harpidedunetan bilatu beharko da, baina horretara mugatu gabe. Arestian esan denez, erlatu labur hauen historiaren hasiera XIX.mendearen azken hereneko Lore-jokoetako sariketei lotuta dago, eta saritutako idazlanak urtez urte argitaratuz joan ziren aldizkarietan eta bilduma berezietan. Beraz, aldizkarietan irakur zezaketenen kopuruari liburusketan irakurtzen zutenen kopurua ere gehitu beharko zaio.

Irakurlearen azterketa zehatza egitea oso zaila da, hainbat eta hainbat datu beharko bait dira: aldizkarien tirada, harpidedunen kopurua, harpidedunez aparte izan zezaketen salmenta, harpidedunen interesak, etab. Baina datu guztien bildumak ere ez luke erlatu labur horien irakurlegoaren berri zehatzik emango, lehenik eta behin ez zirelako erlatu labur horiek bakarrik argitaratu (213); ezta erlatu labur horien bildumarik ere. Lore-jokoetako idazlan sarituen bildumen erosleak ez zeukan zergatik erosi erlatu laburrak irakurtzeko; beste interes batzurengatik ere eros zezakeen: poesiagatik, etab. Aldizkari desberdinetako harpidedunek ere izan zezaketen erlatu laburrez gain beste arrazoirik harpidetzari eusteko, aldizkari kulturalak bait ziren, literaturara bakarrik mugatzen ez zirenak. Beraz, ez dago erlatu laburren irakurlegoa zehazterik.

Kontaketa labur hauen irakurlego potentziala atzematera mugatu gabe, zenbait hurbilpen zabal egin daitezke, ordea, euskal literaturaren berpizkunde-garai honek irakurlegoan —edo entzulegoan— izan zuen oihartzunera.

J.M. Lasagabasterrek dio Lore-joko hauen bidez euskal literaturak estatutu sozial berri bat lortzen duela, ordurarte ez zuena (214). Eta estatutu sozial berri horren adierazle dira aurkezten ziren poeten kopurua (215), jaiak erakartzen zuen jendetza, saritutako idazlanen argitaratzeak, etab. Hala ere, estatutu sozial berri hori ukatu gabe,

---

(213) Kontsiderazio hauetatik at gelditzen dira liburu gisa argitaratu ziren ipuin luze edo eleberri laburrak: **Piarres Adame, Bein da betiko, Pachicu Txerren** adaptazioa, **Atheka-gaitzeko oihartzunak** itzulpena.

(214) "Y sin embargo, los certámenes iniciados por D'Abbadie y repetidos más tarde en San Sebastián por iniciativa de Manterola, son, vistos desde una perspectiva histórica, un momento importante y una contribución decisiva al desarrollo de la literatura vasca en general y al de la poesía en particular.

Los certámenes y fiestas poéticas dan al quehacer literario, aunque sea el de versificadores aficionados, un estatuto social que hasta entonces no había tenido.

La sola convocatoria de los concursos supone la existencia de una conciencia más o menos generalizada pero ciertamente colectiva de la importancia cultural y social de un quehacer 'gratuito' y poco transcendental como el componer versos". LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 275. or.

(215) Lehen urtean bertan —1853— 37 idazlan jaso ziren. Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 408. or.

zenbait datuk ez dute literaturarekiko egoera hain baikorra azaltzen. Batetik, egitarauak berak literaturatik kanpoko ekintzak gainezarri zizkion sarri askotan ekintza propioki literarioei. I. Sarasolak seinalatu duen zentzu folklorikoa (216) agerian gelditzen da; eta ez bakarrik A. D'Abbadiek antolatzen zituenetan; baita, beste maila batean, Donostiako "bilgumak" antolatzen zituenetan ere, non literatur sariketaren ondoan musikalariena nahiz danbor-joleena aurki bait zitezkeen (217). Eta gehiago: mendearen bukaeran Donostian ospatzen ziren Lore-jokoak Gipuzkoan barrena barreiatzean areagotu egingo da jokabide hau, ganadu-txapelketei sarrera emanez (218).

Ez da gure asmoa euskal Lore-jokoak ezaugarri eta norabide hau hartzearen arrazoiak zeintzu diren aztertzea, baina bai honako galdera hau egitea: egitarauek sortu zuten ildo hau ala Euskal Herriaren soziologi egoerari erantzuna zen? Beste modu batera esanda, egitarauak antolatzaileek bakarrik egiten zituzten ala eskaera sozial bati erantzutea bilatzen zuten eta orduko euskaldungoarentzat erakargarria izan zitekeen egitarau baten bidez literaturaren alorrean, xede praktikorik ez duen eginkizun horren alorrean, irakurlego-entzulegoa hezitzen hastea bilatzen zuten? Modu bateko nahiz besteko erantzunak guztiz partziala izateko arriskua du.

Arestian esandakora itzuliz, J.M. Lasagabasterren Lore-joko hauen bidez euskal literaturak lortzen duen estatutu sozial berri horren ideari ñabarduraren batzu erantsi beharko litzaizkioke. Euskal literaturak ez du ezagutu, ez, XIX. mende honen bigarren erdi hone-

---

(216) I. Sarasolak dioen bezala: "Euskal lore-jokoak gertakari folkloriko bat izan, eta euskal kulturak planteamolde oker honen ondorio guztiak pairatu behar izan zituen. Poemak eta bertsoak txistera-partidekin, laisterketekin, ganadu-xapelketa eta irrintzilariekin nahasten ziren D'Abbadieren sariketetan. Manifestazio folkloriko hauetan, gainera, literatur aldeak ez zeraman, ez, parterik hoberena. Hau egiaztatzeko nahikoa da sarien dirua nola banatzen zen ikustea: 1869.eko sariketan banatu ziren 830 liberetatik soilik 80 izan ziren bertsogileentzat eta beste horrenbeste bertsolarientzat". SARASOLA, I.; "Hitzaurrea" in **Gabriel Aresti. Obra guztiak (1). Poemak (1)**, Luis Haranburu Editorea, Kriselu, Donostia, 1976, 16. or.

(217) Ik., esate baterako, **1882. Euskal Festak Donostian. Oroimengarria**, IV-XV. orr.

(218) Ik., esate baterako, **1898. Euskal-festak Zestua-n. Oroimengarria**; nahiz **1899. Euskal-festak Zumarraga-n. Oroimengarria**.

tararte horrelako egoerarik; baina lehen esandako zerbait errepikatu beharko litzateke. Esan dugu ez dakigula erlatu laburrek zein-nolako erakargarritasuna zuten, ez bait ziren eurak bakarrik argitaratu, baizik eta aldizkarietan eta bildumatan gainontzeko idazlan sarituekin batera. Era berean esan behar dugu, I. Sarasolak Lore-jokoez ari dela hauei erantsitako "zentzu folkloriko" horregatik, ez dakigula zein mailatan Lore-joko horietan "literatura" bera erakargarria zen; alegia, literaturak zeraman jendea festetara ala literaturarekin batera ospatzen ziren ekintzak.

Azken finean, komunikazio-egoerak baldintzatu zituen Lore-joko hauek: batetik, poesiari dagokionez, eta A. d'Abbadieren inguruan antolatutakoak bederen, oinarrietatik bertatik baldintzatzen zutelako idazlea eta, bestetik, saritua entzulego bati zuzendu behar zitzaiolako, festa-giroan zegoen entzulegoari, hain zuzen. Duvoisin kapitaina ohartu zen baldintza hauetaz (219), komunikazio-egoera honek poe-

---

(219) Duvoisin kapitaina honela mintzo da idazleei buruz A. Campioni eginiko eskutitz batean:

"On n'a pas été plus difficile sur la question des noms d'auteurs. Les pseudonymes abondent toujours. Une fois les lauréats proclamés, les auteurs se font connaître. Il y en a eu qui, voulant rester inconnus, ont designé des oeuvres charitables pour profiter des prix. On a respecté les motifs délicats de leur conduite et ont s'est conformé à leur désir. Si la presse de vos contrées faisait connaître cet usage, vous auriez peut-être des concurrents capables qu'une fausse honte retient en arrière". DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 1930, 348. or.

Egitarauak ezartzen dituen oinarriek eta hauek sortzen dituzten baldintzek ere eragiten diote zenbait buruhauste Duvoisini; eta festa-giroan kantatu beharra ez da txikiena. Honela mintzo da A. d'Abbadieri eginiko eskutitz batean:

"Je ne sais s'il ne faut pas chercher l'une des causes secrètes de la faiblesse de la plupart des poésies présentées aux divers concours, dans l'obligation de faire des compositions propres à être chantées sur la place publique, devant le populaire assemblé en jour de fête locale. On peut dire à cela que rien n'empêche le poète de s'élever jusqu'aux plus grandes hauteurs; mais il n'en est pas moins vrai que la situation, sans aider à l'essor de l'esprit, l'a souvent détourné vers la satire et vers la poésie facile". **Ibidem**, 339-340. orr. Oinarriek sortutako baldintzei buruz, berriz, honela mintzo zaio A. Campioni:

"Il y a près de 30 ans que nous avons ici des solennités de ce genre. L'expérience nous a appris qu'il faut laisser aux poètes le choix des sujets que chacun veut traiter. Ils ne sont pas assez exercés pour les soumettre à des règles plus rigoureuses. L'objection tirée de la difficulté de juger entre des pièces de genres très-divers était spéculative et n'a pas résisté à la pratique. La supériorité perce toujours". **Ibidem**, 348. or.

siari zekarkion galeraz; baina ez zen azaleko aldaketaren bat besterik egin, eta lehenean jarraitu zuten.

Kronikek diotenez, jende ugari biltzen zen festa hauetara (220), bai Bidasoaz handik nahiz hemendik egindakoetara. Hala ere, arrakasta hau ospakizun-egunetara murriztu beharko da batipat (221), zeren eta argitalpen-mailan izan zuten arrakastak berpizkunde literario honen neurriak xumeagotu egiten bait ditu. "Festako entzulea irakurle" bihurtzen denean edo festara joan ez denarentzat produktuak irakurtzeko ordua heltzen denean, idazlan hauen tiradek ez dute poesiarekiko aparteko zaletasunik azaltzen: 250 ale argitaratzea (222) ez bait da arrakasta handiaren lekuko. Nolanahi ere, esan behar da 250 ale hauek Bidasoaz handikoentzat argitaratzen zirela eta seguruaski ez zutela merkaturik izan Bidasoaz honantza, harik eta A. d'Abbadiek eskua Hegoalderantz luzatu arte. Zinez aitortu behar da A. d'Abbadieren laguntzarekin Elizondon ospatu zirenean lehen aldiz Hegoaldean, 1879.ean, argitalpen-tirada ere gorantz joan zela milaraino (223). Honi gehitzen bazaio **La Semaine de Bayonnen** ere argitaratu zela mila eta bostehuneko tiradan (224), esan daiteke 1879. urte honetan zabalkunde arras handiagoa izan zuela F. Arrese Beitiaren poemak, zenbateraino irakurri zen jakiterik ez badago ere.

Edonola ere, zenbaki hauek ez daude zentzu hertsi batez hartze-

---

(220) Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 444. orrialdean 1869.ean Saran ospatutakoei buruz dioena.

(221) Ospakizun-egunetako jende ugaritasuna ere erlatiboa da; Donostian ugaritasun honek Antzoki Zaharra betetzea besterik ez bait du esan nahi.

(222) Duvoisin kapitainak honela dio A. Campioni egindako eskutitz batean:
"Ici, les communes qui obtiennent l'avantage d'un concours pour leur fête se chargent de l'impression des pièces. On en tire 250 exemplaires. Votre appel à toutes les provinces semblerait demander un supplément, qui serait expédié de divers côtés". DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 349. or.

(223) Duvoisin kapitaina L. Bonaparte printzeari eginiko eskutitz batean honela mintzo da 1879.ean Elizondoko festetan saritu den F. Arrese Beitiaren poemari buruz:
"Son chant a été tiré à 1000 exemplaires, de même que celui de la mort de Roland". **Ibidem**, 359. or.

(224) Duvoisin kapitainak F. Arrese Beitiari ematen dio honen berri: "Guziagatik, zure eresia atheratu da mila kopiatan eta gero Bayonako Semenan 1500 kopiatan, Frantsesezko bihurtzarekin batean". **Ibidem**, 363. or. **La Semaine de Bayonnek** 1879.eko abuztuaren 6an argitaratu zuen "Ama euskeriari azken agurrak", frantsesezko itzulpena aldamenean zuela.

rik, hurbilpen-modu gisa baizik. Izan ere, "Berxutaco guduak" 250 aleko tirada besterik ez bazuen ere, honi urtean urtekoa arakatuz gehitu beharko litzaieke, kasu batzutan bederen, egunkarien bidez jaso zuten zabalkundea (225) eta beranduago aldizkarien bidez jasotakoa (226).

Datu hauek baldin badira A. d'Abbadieren mezenazgoan antolatutako Lore-jokoei inprimategi mailan eskaini zitzaien arretaren lekuko, pentsa daiteke Donostian antolatutakoak ez zirela zenbaki hauetatik gehiegi urrunduko. Donostiakoak, hain zuzen, bereziki aipatzen dira, hauek izan zirelako jorienak erlatu laburren sortze-lanean, dagoenekoz azaldu denez.

Saritutako idazlanak liburuska txiki batean bildu ziren Lore-joko hauek jaiotzean (227). Hurrengo urtetik aurrera liburuskak ez ezik, **Euskal-Erria** aldizkariak ere argitaratuko ditu. Liburuska horien tirada ehun ingurukoa zen; beraz, "Berxutaco guduak" baino txikiagoa. Ehun memoria argitaratu zituzten bai 1884. urtean eta bai 1885.ean (228) ere baina salmenta eskasagoa izaten zen. Prezioz merkeak izanda ere —1880.eko memoriak hiru errealetan saldu ziren—, ezin esan asko saltzen zirenik: 1882.ean 16 pta. atera zituzten salmentetatik (229), 1888.ean 13 pta., 1889.ean 3 pta (230). Esate baterako,

---

(225) **Le Courrier de Bayonnek, Le Messager de Bayonnek, L'Avenir des Pyrenéesek...** zenbait urtetan argitaratu zituzten saritutako poemak.

(226) **Revista Euskarak** (1878-1883), **Euskal-Erriak** (1880-1918) A. d'Abbadiek antolatutako Lore-jokoetan saritutako hainbat eta hainbat poema jaso zituzten.

(227) **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza.** Ik., halaber, **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad por su Comisión directiva el día 10 de setiembre de 1885**, Imprenta de los Hijos de Ramón Baroja, San Sebastián, 1885, 13. or.

(228) **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros, de esta ciudad por su Comisión directiva el día 10 de setiembre de 1885**, 13. or.

(229) Ik. **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad por su Comisión Directiva y leída en Junta General del día 2 de setiembre de 1883**, Hijos de I.R. Baroja, San Sebastián, 1883, 10. or.; nahiz **Euskal-Erria**, IX, 1883, 212. or. Berez 18 pta. atera zituzten, bi pta. komisio gisa ematen dutelarik.

(230) Ik. **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad por su Comisión directiva el día 2 de julio de 1889**, Hijos de I.R. Baroja, San Sebastián, 1889, 7. or.

1882.ekoa bera erreferentzi puntutzat hartuz, esan daiteke Antzoki Zaharreko sari-banatzeak arrakasta handiagoa izan zuela (231) "oroimengarrien" salmentak baino.

Noski, **Euskal-Erria** aldizkariaren bidez ere ezagut zitzaketen idazlan horiek. Baina **Euskal-Erria** aldizkariak berak ere ez dirudi irakurlego handiegirik izan zuenik, nahiz eta batipat bi hizkuntza erabiltzeak (euskara eta gaztelera, behin edo behin frantsesa) berez publiko zabalago bati iristeko erraztasun gehiago eman. Hala ere, mende honetan sortutako aldizkarien artean bizitzarik luzeena izan zuena izan zen, ez urte gutxigatik gainera.

Edonola ere, ez bizitzarik luzeenak, ez gutxienez bi hizkuntza erabiltzeak, ez zion irakurlegoaren arreta berezirik ekarri. Datu zehatzik ezean, 1910.ean J. Maria Donostyk zioena irakurtzea besterik ez dago. Honek irakurle-kopurua zehaztasunez ez daukala neurtzerik dio bere artikuluan, baina seirehun baino gehiago ez direla izango. Horren ondoan urtetan barrena, aldizkaria sortu zenetik urte honetararte, zein gutxi aurreratu den azpimarkatzen du (232).

Honek, 1897. urterarte, **Euskalzale** aldizkaria sortu zen arte, erlatu laburrek (Lore-joko horietako egitarauaren atal bat) gainontzeko idazlan sarituekin batera irakurlearen aldetik jaso zuten ongi-etorriaren berri ematen du. Balorazio azkar bat eginda, agian azkarregia, pentsa dezakegu Lore-jokoen mugimendu honek, pisuan jarriz gero, ez ote dion gehiago erantzuten idazle edo euskararen suspertzaile gutxi batzuren nahiei eskaera sozial bati baino gehiago; hala eskatzen delako, egin-nahia eginbeharrari gainezarriaz, nolabait esateko; kultura mailan euren burua gidaritzat hartzen dutenen boom-a aintzakotzagoz hartuz eskaera soziala baino.

Sarrera honen helburuetatik landa gelditzen da XIX. mendeko aldizkari piloek irakurlearen aldetik jaso zuten harrera aztertzea. Irau-

---

(231) "El acto se verificó con gran animación y numerosa concurrencia". Ik. **Euskal-Erria**, VII, 1882, 598. or. Antzokirako sarrera "oroitzak" baino garestiago izanik, arrakasta handiagoa izan zuen. Sarreren prezioak ikus daitezke **1882. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**. Aipatutako prezio horiek 1'5 pta., 1 pta., 0'75 eta 0'50 ptakoak izan ziren, leku desberdinen arabera.

(232) "¿Qué número de lectores contará esta Crónica? Yo no lo sé, ni quiero averiguarlo; pero seguramente el número no pasará de media docena de cientos, lo cual, á mi entender, es muy poco lector". DONOSTY, J.M.; "Literatura. Crónica y comentarios" in **Euskal-Erria**, LXIII, 1910, 49. or.

penari dagokionez, luzaroan irauterik izan ez bazuten ere (233), ez da txantxetako kopurua alor honetan ezagutu zuena, batez ere XIX. mendearen bigarren erdiak; mota desberdinetako aldizkari ugari argitaratu bait ziren Euskal Herrian bertan edo atzerrian Euskal Herriari buruz.

Aztergai den euskal literaturaren irakurlego potentziala neurtzeko, **Revista Euskara** eta **Euskalzale** aldizkaria lirateke garrantzizkoenak, dagoenekoz aipatu diren argitalpenez eta **Euskal-Erria** aldizka-

---

(233) Erakuskari gisa honako hauek aipatuko ditugu: **Aurrerá, Gure Izarra**, eta **Bai, jäuna, bai**. Hauetako batek ere ez zuen lortu urtebete irauterik. **Bai, jauna, bai**, aldizkariak sei ale argitaratzea besterik ez zuen lortu. Eta aurrera ez jarraitzearen arrazoia argi eta garbi azaltzen du: bizi izateko behar zuen adinbat harpidedun ez lortzea. **Euskal-Erria** aldizkariak honela jaso zuen berria: "Hemos recibido el número 6 del Semanario bilingüe **Bai, jauna, bai** que según indica en nota final, suspende su publicación 'por no haber conseguido reunir el número suficiente de suscritores para pagar la mitad de los gastos de impresión'". **Euskal-Erria**, VIII, 1883, 161. or.

Aurrerá aldizkaria Madrilen argitaratu zen. Argitaratzera zihoanaren berri **Euskal-Erria** aldizkaritik jasotzen dugu: "Según carta que recibimos de Madrid, varios jóvenes basco-navarros, residentes en la Corte, han acordado la fundación de una revista científica, artística y literaria, ilustrada con grabados de vistas y monumentos del país euskaro, á la defensa de cuyos intereses se consagrará la nueva publicación, que parece llevará el nombre de Aurrerá". **Euskal-Erria**, VIII, 1883, 161. or. Aldizkariko tomo berean jasotzen dugu aldizkariaren heriotzaren berri: "la revista euskara titulada **Aurrerá** que se publicaba en Madrid, ha cesado en su publicación. Deploramos la desaparición del apreciable colega". **Euskal-Erria**, VIII, 1883, 451. or.

Gure Izarra Parisen argitaratu zen 1888.ean euskara hutsean. Aldizkari honi ere eman zion ongi etorria **Euskal-Erria** aldizkariak: "Ha comenzado á ver la luz pública en París un periódico semanal titulado **Gure Izarra**, escrito en nuestra amadísima lengua euskara. El nuevo colega, dedicado exclusivamente á las comarcas francesas y españolas que constituyen la Heptarquía euskara, merece desde luego las simpatías de todos los vascongados". **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 446. or. Baina J. Vinson-ek dioenez, ale bakarra besterik ez zen argitaratu: "GURE IZARRA, euscalerrico berriac astean bein. 1en Urtea. Urriaren 30ean. 1888an. 1en Numeroa".

J. Vinson-ek aldizkaria deskribatzerakoan zera dio: "seul numéro qui ait paru". Ik. VINSON, J.; **Essai d'une bibliographie de la Langue Basque**, 1*, 406. or., 652. zka. Hauei erants geniezaioke **La Abeja** aldizkari zientifiko-literarioa. Honek ere sei ale besterik ez zituen argitaratu. Ik. VINSON, J.; **Essai d'une bibliographie de la Langue Basque**, 1**, 642. or., 666-5.º zka.; nahiz ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección María de Azkue**, 49. or. **La Abeja** aldizkari zientifiko-literarioa hileroko maiztasunarekin argitaratzeko asmoa zuten. Sei ale horiek 1889-1890 urteen artean argitaratu zituzten.

riaz gain. Horiei esker izango dugu erlatu laburren irakurlego potentzialaren berri, ez zehatz-mehatz, baina bai hurbilpen gisa. Noski, murrizketa honek hurbilpena laxoagoa egiten du, beste aldizkari eta, batipat, egunkarietan ere argitaratu bait ziren euskal idazlanak eta, zer esanik ez, idazlanei buruzko iritziak. Hor daude, esate baterako, Bilboko **Beti bat** egunkariak aldika egin zuen **Peru Abarcaren** argitalpena edo **Le Messager de Bayonne, Le Courrier de Bayonne, L'Avenir des Pyrenées et des Landes, La Semaine de Bayonne** egunkariek (234) argitaratu zituzten Lore-jokoetan saritutako poemak edo **La Abeja** aldizkariak argitaratutako erlatu laburra edo **L'Ariel** aldizkariak argitaratutako poemak edo **Revue des Basses Pyrenées et des Landesen** argitaratutako kontaketa eta Lore-jokoetan saritutako poemak edo **La Nivellen** edo **Le Revéil Basquen** eginiko literatur alorreko argitalpenak.

Baina eshaustibotasunera heldu gabe aski errepresentatiboak dira hurbilpen bat egiteko; aldizkarietan aipatutako hiru horiek jaso bait zituzten beren orrialdeetan erlatu laburrik gehienak.

Esan daiteke euskal literaturak ordurarte inoiz ezagutu ez zuen bezalako zabalkundea izan zuela aldizkarien eta egunkarien bidez (235). Inoiz baino eskuragarriagoa eta dastatzeko errazagoa izan zen.

---

(234) Zerrenda hau luza daiteke. Egunkari gehiagok ere poema banaka batzu argitaratu bait zituzten; hala nola, Baionako **L'adour**-ek, Bilboko **El Basco**-k, Bordeleko **Le Courrier de la Gironde**-k.

(235) Konparazio gisa, esan genezake **La Semaine de Bayonne** egunkariak 1.500eko tirada zuela; **Euskalduna** Bilboko astekariak, 1895-1909 urteen artean argitaratu zenak, 1.500ekoa, Sabino Arana Goirik dioenez (ik. ARANA-GOIRI'TAR, S.; "El partido carlista y los fueros vasko-nabarros" in **Obras Completas de Arana-Goiri'ťaf Sabin**, II, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, 1112. or.); eta Toribio Alzagaren **¡Aterako gera!** antzerki-idazlanak, 1889.ean, 500ekoa. (Ik. "Caja del Consistorio de Juegos Florales euskaros" in **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad por su Comisión directiva el día 2 de julio de 1889**, 9. or.) edo "Bi ichuak" komediak 1885.ean 150ekoa (Ikus **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales de esta ciudad por su Comisión directiva el día 10 de setiembre de 1885**, 14. or.).

Konparaketa honetan behintzat egunkari eta aldizkarien tirada liburuenen gainetik gelditzen da. Gehienetan hala izango zen, zeren 1901.ean bertan ere Sabino Arana zor haundiagotan sartu zuen **Euzkadi** aldizkariak berak ere 500eko tirada behintzat bai bait zuen. (Ik. ARANA-GOIRI'TAR, S.; "Nota final" in **Obras completas de Arana-Goiri'ťaf Sabin**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, 2012. or.).

Une haietan, hala ere, euskaldungoak ez zuen literatura idatziarekiko aparteko zaletasunik agertu. **Euskal-Erria** aldizkariaren bizitza-modua aipatu da; baita Donostiako Lore-jokoen "oroimengarrien" arrakastarik eza ere. **Revista Euskara**ra hurbilduz gero, berriz, honako hau irakur daiteke argitaratzea utzi aurretxoan, J. Iturralde y Suit zuzendariaren eta Arturo Campion erredaktorearen dimisio-eskutitzean:

> "Hoy, por más que nos sea sensible el hacerlo, insistimos en nuestro propósito de un modo definitivo, pues ni nuestras ocupaciones nos permiten dedicar la atención conveniente á la publicación que nos fué encomendada, ni podemos ver sin pena la indiferencia con que se mira á la REVISTA, no por ciertos elementos opuestos a nuestras ideas —elementos cuya hostilidad ha sido y es para nosotros por el contrario, motivo de estímulo— sino por queridos amigos cuya valiosa colaboración se nos había prometido y hemos esperado en vano.
>
> Esta decepción, aminorada en gran parte por el aprecio, los inmerecidos elogios y el concurso que nos han dispensado personas tan eminentes como el Príncipe Bonaparte, el P. Fita, D'Abbadie, Trueba, Duvoisin y otras, ha sido causa de que pesase sobre nosotros esclusivamente la difícil tarea de sostener el interés de la REVISTA, dentro del reducido círculo en que por su índole puede girar, y este es el motivo principal de que renunciemos nuestros cargos, deseando que las personas que nos sustituyan dén nuevo impulso á la publicación y acrecienten su importancia" (236).

Dimisio hauekin bukatuko da **Revista Euskara**ren bizitza, irakurlegoaren urritasunak eta idazlegoarengandik jaso ez duen uste adinbateko babes-ezak ekarria.

Nolanahi ere, **Revista Euskara**ri dagokionez, hasiera batean behintzat indartsu plazaratu zela esan beharra dago: 4.000 aleko tirada propagandistikoarekin. Baina jasotako erantzuna ez zen galga berdinekoa izan: Nafarroako Elkargoari hogei bazkide berri besterik ez bait zizkion ekarri (237). Elkargoak berak ere ez darama oso bizitza

---

(236) Ik. **Revista Euskara**, VI, 1883, 319-320. orr.

(237) "La tirada y repartición de cuatro mil ejemplares del número-programa de la REVISTA por el país vasco-navarro, apenas trajo veinte asociados, mientras que el resto se debe a la propaganda individual: este dato es demasiado elocuente para que necesite encarecerlo". Ik. "Discurso leído por el Sr. Presidente de la

dizdiratsua: bazkide berriak ez dira nahi bezain ugari heltzen (238) eta aldizkaria, **Revista Euskara**, Elkargoaren organo ofiziala argitaratzeko orijinalen faltan eta zentsura mailako arazoekin aurkitzen da (239).

Aldizkariak berak baino bazkide gehiago erakarri zituen Elkargoko zenbait pertsonaren ospeak. Hala ere, 1878.eko uztailetik 1879.eko urtarrilera larogei eta hemeretzian besterik ez zen gehitu bazkide-kopurua; larogei eta hemeretzi horietatik hirurogei eta bost Antonio Trueba poetaren propagandari zor zaizkio (240).

Beranduago **Euskalzale** aldizkariak izango duen arazoa sortzen zaio **Revista Euskarari** hasiera-hasieratik: bazkideei kuotak kobratzea (241). Eragozpenez betetako ibilbide honi 1883.ean emango zaio bukaera, arestian aipatutako dimisioekin eta aldizkariaren amaierarekin.

Azkenik, **Euskalzaleri** buruz bi hitz. Honek hiru urtez iraun zuen; **Revista Euskarak** iraun zuenaren erdia, hain zuzen. Heriotza Gobernadore Zibilaren eskutik heldu zitzaion. Lehenbizi, euskal idaz-

---

Junta Directiva, D. Salvador Castilla, en el Batzarre de 15 de Julio de 1878" in **Revista Euskara**, I, 1878, 148. or.

(238) "El número actual de asociados efectivos es de 272; de modo que desde el Batzarre del 11 de Enero en que la actual Junta Directiva entró en funciones, ha recibido la Asociación un aumento de 192 asociados. Dada la importancia de la idea que nos anima el resultado obtenido es mezquino y no corresponde a nuestras esperanzas". **Ibidem**, 148. or.

(239) "Esta REVISTA tiene que luchar hoy con los inconvenientes de la poca abundancia de original, y con las disposiciones vigentes sobre imprenta que la obligan a velar sus pensamientos, a atenuar sus pretensiones, y a sostener nada más que a media asta, la patriótica bandera de la Asociación". **Ibidem**, 148-149. orr.

(240) "Desde la fecha del 11 de julio pasado hasta hoy han ingresado en la Asociación noventa y nueve Asociados más, de los que sesenta y cinco nos han sido presentados por el ilustre poeta vizcaino D. Antonio de Trueba, nuestro consocio honorario, respecto á quien creo interpretar los deseos del Batzarre, haciendo público su proceder, en testimonio de nuestro profundo agradecimiento". Ik. "Memoria del Sr. Presidente de la Asociación Euskara de Navarra leída en el Batzarre de 12 de Enero de 1879" in **Revista Euskara**, II, 1879, 6. or.

(241) "Aún con el número actual de asociados podrían cubrirse perfectamente las obligaciones económicas de la Sociedad, si el cobro de las cuotas mensuales hubiese llegado a regularizarse". Ik. "Discurso leído por el Sr. Presidente de la Junta Directiva, D. Salvador Castilla, en el Batzarre de 15 de Julio de 1878" in **Revista Euskara**, I, 1878, 148. or.

lanak erdal itzulpenik gabe euskara hutsean argitaratzeagatik 100 pezetako isuna heldu zitzaion. Handik hilabete gutxira aldizkariaren tirada eskatu zion Gobernadoreak; R.M. Azkuek, zuzendariak, ez zuen zenbaki hori eman eta, honenbestez, **Euskalzale** argitaratzea utzi zuen (242).

Gobernadore Zibilari eman ez zion datua ez ezagutu arren, esan daiteke **Euskalzale**ren bizitza ez zela aldatsik gabekoa izan (243). Behin eta berriz gogarazi beharko die harpidedunei harpidetza ordaintzeko (244).

Harpidedunak bilatzea oso erraza izango ez zen garai batean, R.M. Azkuek argi jokatzen jakin zuela esan daiteke: **Euskalzale**ren hasierako zenbakiak hainbat eta hainbat "harpidedun potentzialei" bidali zizkien eta ondoren honako ohar hau jarri zuen aldizkariaren zazpigarren zenbakitik atzera:

> "Gei au atzera bialdu nai eztabena, euslatzat eukiko dogu" (245).

Aurrerago ere ohar bera irakur daiteke astekariaren "XX. geiaren" amaieran, XXVII.aren hasieran (246), etab.

Nahiz eta harpidetzak kobratzeko ere arrakasta handiegirik ez lortu, argitasun berbera erakutsi zuela esan daiteke: harpidedunek

---

(242) Ik. ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección María de Azkue**, 51. or.

(243) Bere sorreran bertan behintzat, ez dirudi D. Agirre oso baikorra denik aldizkariak lor dezakeen oihartzuna neurtzerakoan. Zentzu honetan oso adierazgarriak izan daitezke "Chomin edo Tsomin"-ek R.M. Azkueri 1897.eko urtarrilaren 6an eginiko eskutitzean aldizkariaren etorkizunaz iradokitzen dizkionak: "Lo que no sé si se podrá hacer es vender por las calles esa revista baskongada. No cuesta hacer ensayo, pero presumo que ha de ser inútil. Revista y baskongada y bizkaina y con ortografía que el pueblo no conoce todavía... En fin, mándame números y se hará lo posible". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, 540. or.

(244) "¿Nok esango leuke? Igazko euspena bialdu bako eusle asko daukaguz; aurtengoa ordaindu bakoak, geienak.

Kamaleon deritšon aberetšua legez aize utsez bizi izatekoa balitz, EUSKALZALE elitzake inoiz euspen-eske asiko.

Au olan dala, leiatu beitez ezer zor dabenak ainbat ariñen kitatutera". **Euskalzale**, II, 1898, 208. or.

(245) Ik. **Euskalzale**, I, 56. or.

(246) Ik. **Euskalzale**, I, 160. or. eta 209. or.

ordain zezaten, etxerik etxe mandatari bat bidali zuen herri batzutan bederen:

> "Aste onetan edo bestean elduko da erri batzuetako eusleakana geure lagun bialdu bat. Au diñogu guzurrezkotzat artu eztaien, beste erdalerritar batzukaz iazo dan legez" (247).

Hala ere, metodo hauek emandako emaitzak ez zituen gogobeteko. Izan ere, bazituen astekaria jasotzen zutenak, baina ordaintzeko garaian jaramonik egiten ez ziotenak; baita aldizkaririk ez zutela nahi adierazi ez ziotenak ere, hartarako aukera eman zienean.

> "Lenengo ta bigarren urteko EUSKALZALE-n amaika bidar esan genduan, eusle edo **suskritore** izan nai ezebenak mesede egiteko atzera bialdutea; eta bialduten ezeuskuenak eusletzat eukiko genduzala. Eta askok, euron artean gitšien uste genduan adiskidetzako ta euskaldun on izeneko batzuk, irakurri egiten izan dabe, orri barruko obari ta bezuza edo **erregalotšuak** artu bere bai, atzera bialdu ez, ezta eusle izan nai bere" (248).

Nahiz eta **Euskalzale**k honelako "harpidedun arduragabeak" izan, ez ziren gutxi izan aleren bat jaso ondoren harpidetza baieztatu zutenak: 322 adina konta daitezke astekarian barrena (249). Hirurehun eta hogeita bi hauek erantzuna eman dutenak dira; horietako batzuk erantzunarekin batera harpidetza ere ordaindu zuten.

Euskara hutsean argitaratzen delarik, ez dirudi **Euskalzale**k harrera eskasa izan zuenik, erlatiboki behintzat, nahiz eta egoera honek agian zorrak sortu R.M. Azkueri.

Mila bederatzirehun eta batean, hau da, bost urte beranduago, Sabino Aranak argitaratu zuen **Euzkadi** aldizkariak (250) ez zuen hainbeste harpidedun lortu, elebiduna izanik ere: berrehun eta berro-

---

(247) Ik. **Euskalzale**, I, 416. or.

(248) Ik. **Euskalzale**, III, 56. or.

(249) Ik. **Euskalzale**, I, 24. or., 32. or., 40. or., 56. or., 64. or., 80. or., 111. or., 160. or., 168. or., 184. or. Zenbaki horretara heltzeko, 64. or. hogeitamazazpi kontatu ditugu. Hau da, "Bergara... B.M.tarra Ordaintuta lau euspen" dioen lekuan lau kontatu ditugu, eta ez bat.

(250) EUZKADI. Revista trimestral de Ciencias, Bellas Artes y Letras. 1901.ean lau ale atera zituen; baina zorrak sortzen zituelako lau ale hauekin amaitzen da lehen etapa hau. Gero, 1905.ean, kaleratu zen berriro.

geita hamazazpian gelditu zen (251).

Honenbestez bukatzen dugu atal hau, astekariaren diru-iturriak hausnartu gabe (252) eta tirada gutxienez bostehunen bat alekoa

---

(251) Sabino Aranak aurkezten duen balantzean irakur daiteke 219 harpidetza kobratu dituela, 38 ez dituela kobratu eta 81 ale harpidetzatik at saldu dituela. Ik. ARANA-GOIRI, S.; "Nota final" in **Obras completas de Arana-Goiri'taf Sabin**, III, 2.012. or.

(252) Sabino Aranak Ramón de la Sota y Llanoren dirua eta agintea zekusan R.M. Azkuek zuzentzen zuen **Euskalzale** aldizkariaren atzean. Behin eta berriz egotziko dio aginte hau:

"Puedo añadir que, según pública voz, el periódico (**Euskalduna** aldizkariari buruz ari da) es órgano de la sociedad regionalista titulada **Euskalerria**, y que se asegura que periódico y círculo, **Euskalduna** y **Alkartasuna**, están sostenidos por el acaudalado minero y naviero de la villa D. Ramón de la Sota y Llano, natural de Castro Urdiales, provincia de Santander. A la esplendidez del mismo capitalista se deben, según se dice, otras dos fundaciones: el periódico euskérico que ha comenzado a ver la luz hace poco y se titula **Euskalzale** (Vaskófilo), y el teatro que en la calle de Jardines tiene su local y lleva el modesto nombre de **Euskaldun Biltokia** (Almacén Vasko), dirigidos periódico y teatro por el fecundo euskerólogo D. Resurrección María de Azkue, Presbítero". ARANA-GOIRI'TAR, S.; "El partido carlista y los fueros vasko-nabarros" in **Obras completas de Arana-Goiri'taf Sabin**, II, 1.085 nahiz 1.180. orr.

Oin-ohar batean aipatutako zita honetan baino tinkoago azalduko da S. Arana, aurreko horretan zerabiltzan "diotenez" horiek baztertu eta baiezpenera igaroz: "**Euskalzale**, dirigida por el Sr. Azkue y sostenida por el Sr. Sota". ARANA-GOIRI'TAR, S.; op. cit., 1.116. or.

Honelako zurrumurruengatik edo beste arrazoiren batengatik, behin behintzat garbi gelditzen da R.M. Azkuerengan diruaren jatorria argitu nahia: Bizkaiko Gobernadore Zibilak jarritako isuna ordaintzeko moduan, hain zuzen. Isun hau nolabaiteko kolekta baten bidez ordaindu zen, hainbat —eta ez gutxik— borondate onekok luzatutako diruari esker.

Seirehun eta hamabik erantzungo diote isun-ordainketa honi, **Euskalzalek** izan zitzakeen harpide-kopuruak baino gehiagok. (Ik. dirua eman zutenen zerrenda eta bakoitzak emandako diru-kopurua, **Euskalzale**, III, 320. or., 328. or., 336. or., 344. or., 352. or., 360. or., 376. or., 384. or.). Borondate on honi esker, isuna ordaindu ez ezik, 28,25eko hobaria gelditu zitzaion R.M. Azkueri aldizkariarentzat, isunak eskatzen zizkion ehun pezetak ordaindu ondoren. Isun honen ordainketa dela-ta, azpimarkatu nahi genuke ez dagoela diru-emaileen artean alde handirik emandako diru-kopuruari dagokionez; noski, badago tartea batzurengandik besteengana —bi muturrak 0'05 ptak eta 0'50 ptak markatzen dute—. Baina ez dago inor eskainitako diru-kopuru handiagatik bereziki nabarmentzen denik. Irakur bedi ez dagoela inor emandako diruarekin ia isuna ordaintzera heltzen denik, aldizkariarekiko "hurbiltasun" handiagoa agerian utziz.

Azkenik erantsiko genuke apaizek eta apaizgaiek ez zutela R.M. Azkue ba-

izango zela susmatuz. Bereziki **Euskal-Erria, Revista Euskara** eta **Euskalzale** honek irakurlearen aldetik jasotako harrera ikusi dugu; aldizkari hauek argitara bait zituzten hain zuzen erlatu laburrak.

2.4. PROSA NARRATIBOAREN MEZUA: MUNDU-IKUSKERA

Esan da prosa narratibo idatziaren hastapenetan leiendak (253) datozela kronologikoki alegien ondotik. Leienda hauen bidez erromantikoek hain gogoko zituzten "aintzinako denborak" deskubrituko dituzte euskal leiendagileek, euskal lurraldean bertan atzera begira jarrita. Atzera begiratu eta horra hor euskal historia gizon ospetsuz, ausartez, zintzoz, askatasunzalez beteta; eta figura horiek ibilaldi berri bat hasiko dute euskal leiendetan denboraren joanean ia ahantzirik bazeuden ere. Hala plazaratzen dira Aitor, Andeka, Orruel arpeko zuhurra, Lekobide, Zara, Okendo, Elkano, Areizaga..., lehenaldiaren handitasunaren lekuko. Horiek eta horien antzeko beste askok ehotuko dute loriaz betetako euskal aurrehistoria eta historia.

Leiendagileengan aurkituko du ahotsa eta luma orainaldiak lur jota utzitako talde soziologikoak, lehenaldia orainaldiak eskainitako ezbeharren aterpe bilakatuz. Lehengo euskaldunen askatasunarekiko maitasun handia azalduz gozatuko da Foruak 1876.ean galtzearen samina; lehengo eredu onak aurkeztuz samurtuko, oraintsu arte gordetako ohitura onen gainbeherakada... Orainaldiak ukatutako baloreen eta nahien bila doaz lehenaldira egoera saminetik ihesi...

"Orobat zuek ere bizi zaizte bethi Jainkoaren beldurrean, eta libertatearen besoetan" (254) esango die Orruel arpeko zuhurrak VIII. mendeko euskaldunei. Eta dei horrek idazketaren denboran balio osoa gordetzen du; edo, bestela esan, XIX. mende-bukaerako

---

karrik utzi une hauetan; hogeitazortzi seminarista eta berrogeita hamar apaiz konta bait daitezke zerrenda horietan.

(253) "La leyenda está entre la historia y la ficción. Nadie la da por cierta. Aún quienes creen en ella no se atreven a probar su veracidad". ANDERSON IMBERT, E.; **Teoría y técnica del cuento**, 41. or.

(254) Ik. GUILBEAU, M.; "Orruel arpeko zuhurra" in **1880. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 24. or.

egoerak eskatu dio idazleari hitz horiek Orruel arpeko zuhurraren ahoan jartzea.

Erromatarrak euskaldunak menderatu nahian hurbiltzean, honela erantzungo die Begain Arrakill-ek:

> "—eta nere guraso eta aurrekoak beti bizi izan gera uztarririk gabe mundua mundu danetik, eta nik, era berean, nai det ill".

Koru gisa errepikatuko dituzte batzarreko gainontzeko euskaldunek:

> "Bai, bai, Begain Arrakill. Guk ere zuk bezala uztarririk gabe nai degu bizi ta ill" (255).

Antzeko erantzuna emango diete euskaldunek erromatarrei beste batean. Lekobide buruzagiak galdera hau egingo die batzarrean bildutako euskaldunei:

> "Ene anáyak! ¿eskeñtzen zagun pakearen alde irten nai duen iñor bada?
>
> —Iñoiz ere, sekulan ere, guziak ao batez oju egin zuten" (256).

Fabularen eskutik mendeetan atzera jo da erromatarrekin izandako gerrateetaraino. Baina istorioak, euskaldunen aukerak eta esanak kontatzen dira, euskaldunen askatasun-arrastoak deuseztatu diren une hauetatik: juxtu askatasunaren aztarnak galdu berritan uzten du agerian askatasun-nahia XIX. mende-bukaerako idazleak.

Askatasun-egarria ez ezik, Jaungoikoaren egarria ere izan du euskaldunak, besteak beste, mairuen aurka borroka eginez, Gurutze Santuaren izenean (257).

Baina askatasun-egarria eta kristautasunarekiko atxikimendua agertu duen herri honekin ez dute beti leial jokatu ez erromatarrek, ez erdaldunek. Horrela diotse Aitor-ek lobei Pelaio Kantabriako

---

(255) Ik. CAMPION, A.; "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 22. or.

(256) Ik. ARRUE, G.; "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" in **1882. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 41. or.

(257) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Andeka" in **Euskal-Erria**, IX, 549. or. eta hurrengoak; nahiz ARRUE, G. de; "Zarauzko ondekidatzea" in **1884. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 23-27. orr.

dukeari ostatua eman eta honengandik euskaldunak errespetatzeko agindua jaso eta gero:

"nere semeak, **Erdaldunaren** agintzak gezurrak dira" (258).

Ideal noble hauek gidaturik bizi izandako euskaldunen artean bada, bai, gerizaren bat ala beste, hala nola, Ahaide Nagusien arteko gerrak Erdi Aroaren bukaera aldera (259) edo gipuzkoarrak Gaztelakoekin bat eginik nafarren aurka borrokatzea (260). Baina horiek historia garbi bat zikintzen duten jazoera bezala aipatzen ditu kontalariak, espreski gaitzetsiz.

Beranduago, J.S. Elkanok (261), Okendok (262), Areizagak (263) erakutsiko diote munduari euskaldunen ausardia eta trebetasuna itsasoan.

Badirudi euskal erlatugileek, 1876.az geroztik sortu zaien egoera etsipengarriaren ondoren, Europan barrena ahitzen ari den mugimendu erromantikoaren azken hatsak hartu eta erlatu historikora jo dutela errealitateak ukatzen dienaren bila, gerra galdu dutenen oihartzun bihurtuz. Eta, bidenabar, lehenaldi horretan bilatzen dute gerra horren justifikazioa, zergatia; hausnartu dituzten sustraiek erakusten bait dute euskaldunek askatasuna maite izan dutela, emandako hitza bete dutela, leialak izan direla...

Egile desberdinei zor zaizkie erlatu horiek: K. Echegaray, A. Campion, T. Alzaga, G. Arrue... Eta euskaldungoak ere ez du multzo homogeneo bat osatzen; ez dago ikusi besterik aipatzen ari garen gerra horretan euskaldunen artean izandako talde desberdinak. Are

---

(258) Ik. CAMPION, A.; "Agintza" in **Euskal-Erria**, XVI, 1887, 30. or.

(259) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Kontu zarrak" in **1891. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 19-23. orr.

(260) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Euskaldun bikaiñ bat" in **1890. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-30. orr.

(261) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Aintziñako gertaerak" in **1888. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 19-24. orr.

(262) Ik. CAMPION, A.; "Okendoren eriotza" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 517-525. orr. Baita, ALZAGA-KO, T.; "Okendo" in **1891. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-28. orr.

(263) Ik. "Euskaldun bikaiñ bat" in **1890. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25-30. orr.

gehiago: mendearen bukaeran heterogenotasun handiagoa helduko da nazionalismoaren sorrerarekin. Baina badirudi politikak eskatzen duen konkretutasunetik at gelditzen dela literatura, literatura anbiguagoa dela; eta politikan elkarrekin ez daudenak ere erlatu batek ager dezakeen mundu-ikuskerarekin bat letozkeela. Horrelako zerbait pentsatzera garamatza S. Aranak A. Campionez dioenak:

> "Ni suponga que por ser autor de leyendas y novelas y discursos que **caben** en periódicos patriotas, hayan de ser consideradas sus obras como nacionalistas y él como patriota. Hay muchos libros de hijos espurios de Euzkadi que **caben** en la prensa nacionalista. Aquellas leyendas y novelas, lo mismo **caben** dentro del regionalismo vasco más extranjerista como dentro del nacionalismo. Y, además, ¡hay tanta diferencia entre el hombre literato y el hombre político! ¡Suele haber tanta entre la poesía y los actos públicos de su cultivador, entre la imaginación y el sentimiento!" (264).

Esan daiteke idazle-talde honek Euskal Herriaren historiari begiratu eta bertan aurkitu zuela helburu politikoez landa, talde soziologiko garrantzitsu batek eskatzen zuena, behin edo behin benetako paralelismoak jarriz lehenaldiaren eta orainaldiaren artean:

> "Gaba zan. Egun argan (sic) berean lege gogor, kaltegarri eta bidegabe batek, zoriontasun eta onorea Euskaldunai kendu izan ziezten. (...) ¡Ay! —nigan esaten nuben tristiró— gaur dena galdu da; danbolin-soñuak, artzai-irrintziak, neskach-panderoak, erromeri-tuntunak, ola-dunbotsak, betiko isildu dira Euskal-erriko mendietan. Onen ordez, ama guziyak ikustean beren seméak urteoro lapurtu dizayeztela, esango dute: —¿Nun dira orain fueroak?— Eta nik, orregatik, galdetzen det orain: ¿Nola salbatuko gera, Jaun-Jaungoikoa, gu Euskaldúnok?".

Aurrerago kontalariak, erromatarrak euskaldunekin borrokan ari ziren garaira hurbilduta, honako hitz hauek jarriko ditu Octavio enperadore erromatarraren mandatariak daraman mezuan:

> "Euskaldúnak Erromako Enperadoreari emango dizkiote urteoró zortzireun mutill azkar eta berreun neskach eder" (265).

---

(264) ARANA-GOIRI'TAR, S.; "Apuntes" in **Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, III, 2.082. or.

(265) Ik. "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 19. or. eta 22. or.

Paralelismoaren bidez agerian gelditzen da XIX. mendeko azken hereneko arazoen projekzioa lehenaldi urrunean.

"Leienda" izenburupean aurkeztu ziren mirarien mundura gehiago hurbiltzen gaituzten erlatuak ere; hauetan Ama Birjinak hartzen du lekurik gehien. Erlatu hauek ere lehenaldian dituzte sustraiak, aintzinako denbora zehazgabean; eta zerbait gordetzen da orainaldian gertaeraren lekuko. Antiguako Ama Birjina, Begoñakoa, Itziarkoa, ekarriko dira erlatuetara.

Lehenengoa, Antiguakoa, bere elizara lapurretara sartutakoak higitu ezinik utzi eta kanpaiak jotzen hasiko da, aldiberean herritarrak etorri arte (266). Gertaera horren eraginez zenbait gizonek eskopetaz zaintzen dute eliza lapurretaren egun horretan; lapurren jantziak ere gordetzen dira.

"Irakurgaya"-n (267) irakur daitekeenez, berriz, Begoñakoak berari otoitz egiten zion neskatxa baten arima libratuko du arima salduta zuen deabruaren atzaparretatik. Kadagua ibaiaren gainean, han dago zubi bat lekuko. Erlatu honek Erdi Aroko erlatuak gogoratzen ditu: Ama Birjina eta deabruaren arteko borrokak; garaile beti lehena ateratzen da. Euskal Herriko ahozko tradizioak jasoa da erlatua; hala aditzera ematen du kontalariak bizkaitar batek kontatu ziola dioenean.

"Iziar" (268) erlatuak Ama Birjina honen agerraldia kontatuko du eta Berak eskatutako elizaren eraikitzea. Erlatu hau leienden barnean dago kokatuta Lore-jokoen sari-banaketetan; baina badira beste Ama Birjina batzuren historiak sail honetan sartu gabeak; esate baterako, "Ama Birjiña Aranzazu-koaren kondaira" (269).

Erlatu mariano hauen ondoan, beste batzuk gizakien jokabideek nolakoak izan behar duten irakastera joko dute, gaiztakeriak mundu honetan bertan zigortuz, bizitzarako arauak ezarriz. Gurasoei zor

---

(266) Ik. "Antiguako Ama Virjiña" in **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza**, 21-25. orr.

(267) Ik. "Irakurgaya" in **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 36-40. orr.

(268) Ik. "Iziar" in **1889. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 23-26. orr.

(269) Ik. **1890. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria.** "Ama Birjiña Aranzazu-koaren kondaira" monografia historiko-tradizionalen sailean sartzen da.

zaien errespetua eta obedientzia bihurtuko da kontagairik jorienetakoa eta kuttunenetakoa, gurasoen esana lege eraikiz.

Erlatu hauetan ere idazketaren denbora baino lehenagoko garaietan kokatuko da kontalaria ikasgaia kontatzeko. Hor ditugu "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" (270); "Pachi ta Konchesi", zeintzu, elkar maitatu arren, gurasoen oniritziaren zain egongo diren ezkontzeko, Arantzazuko Ama Birjinaren eskutan utzita euren etorkizuna (271); "Aztua" (272), non gurasoekiko maitasunaren ondoan, karitatearen alabantza egiten den; "Gurasoaren zigorra" (273), "Malko bedeinkatuak" (274)...

Euskaldunei aintzinatik datozkien ohitura onak gordetzeko deirik ere ez da faltako; hala irakasten dute Arimen egunean, azaroaren bian, ohitura zaharrei kasu egin gabe, itsasoratu ziren ondarrutar arrantzaleek: arrainik ikusi ere ez, eta buruhezur batekin portura (275).

Azkenik, Lore-jokoen eta **Euskal-Erria** aldizkariaren inguruan sortutako erlatu-sail honi bukaera eman aurretik, esan ditzagun bi hitz K. Echegarayren "Euskal-Erria" erlatuari (276) buruz.

Erlatu hau, batetik, aipatutakoetatik luzeena da zalantzarik gabe eta, bestetik, anbiziosoena, agian. "Euskal-Erria" erlatu alegorikoa da eta honen egoera agertzen du hilzorian dagoen Amaren bidez: hau "seme nastu", "gauza berrien zale" eta abarren eskuetan dago, bukaera itxaropentsuaren zain; lo zeuden semeak esnatuko bait ditu azken erasoak. Iratzartzea, ordea, ez da gerrarako deia izango, baizik eta sinismenerakoa. Alegoriaren bidez Euskal Herriaren erretratua eskaintzen du, eta etorkizunerako ibilbidea markatu: sinismena, ohitura onak, nobletasuna.

Aipatutako erlatuetan, eta aipatu ez diren beste gutxi batzutan,

---

(270) Ik. **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 29-35. orr.

(271) Ik. **Euskal-Erria**, X, 1884, 7-14, 33-37. orr.

(272) Ik. **Euskal-Erria**, X, 1884, 158-160. orr.

(273) Ik. **1884. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 17-22. orr.

(274) Ik. **1887. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 19-27. orr.

(275) Ik. AGIRRE, D.; "Buruazurra. Ichas aldeko irakurgeya" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 276-278. orr.

(276) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Euskal-Erria" in **Euskal-Erria**, XXV, 1891, 1-4, 33-37, 65-68. orr.

behin eta berriro errepikatzen dira leitmotiv bezala euskaldunen askatasun-nahia, kristautasuna, ausardia, leialtasuna, ontasuna... Geriza txiki batzu gorabehera, balore hauek aurkitu dituzte XIX. mendeko azken hereneko idazleek aintzinako denboretara eginiko bidaian; hain zuzen, beren garaian galdu diren edo galtzen ari diren baloreak. Iragan denborarekiko nostalgia lagun, badirudi azken ahalegina egin nahi dutela norabidea erakus dezaketen eredu onei idatziaren bidez eutsiz eta eredu txarrak baztertuz.

Idazle hauen kezka ez da beren garaikoa eta "historia" kontatzea, baizik eta loriaz betetako aintzinatetik eredu horiek ateratzea beren garaikideen ezagutzarako; baita gidari ere izan ditzaten, beraiek errepresentatzen dutena galtzen ari den mementu historikoan. Ez zaizkie aintzinate horretako gizonak gizaki bezala axola, beren ahuleria eta mugekin; bestela baizik, izaki "ahalguztidunak" sortuko dituzte, hauen existentziari lotu gabe, esentziak gainezarriz.

Agerian uzten dituzte erortzen ari den mundu baten ahuleziak, juxtu-juxtu ahulezia horiek ez zituzten izakiak aukeratuz. Eta horretarako fikzioak eskainitako baliabide garrantzitsuena erabiliko dute: historia errealetik, benetan gertatu zenetik, irtetzeko aukera. Hala, beren nahien arabera historia erreala fikzionalizatu eta eredu bikainak eskainiko dituzte: ahuleziarik gabeko izaki irmoak, tinkoak, ziurrak, eredugarriak.

Galduta edo galzorian dauden baloreak sostengatzen dituen talde soziologiko zabal baten oihartzun, baserrietan entzungo dituzte kontalari hauetako askok erlatu horiek, juxtu-juxtu hiria baserriari nagusitzen hasten ari zaion une historikoan. Askatasuna aldarrikatuko dute, foruak —askatasun horren zaintzaileak— galdu direnean; kristautasuna, ateismo modernoaren atarian; familia eta honen barnean gorde behar den hierarkia —aitona, aita, semea—, balore hauek kolokan jartzen ari diren unean.

Nolanahi ere, Euskal Herriaren lehenaldira kontaketa historikoen bidez begiratze hori ez da euskararen esparrura mugatuko. Izan ere, Euskal Herrian egindako gaztelerazko literaturak —eusko literaturak (277)— atzemana bait zuen lehenaldi hori euskal prosa narrati-

(277) L. Mitxelenak "eusko" eta "euskal" hitzen artean aditzera emandako bereizkuntzari jarraituz. Ik. MICHELENA, L.; "Los vascos y su nombre" in **RIEV**, enero-junio, 1984, 11-29. orr.

boak baino lehenago eta euskal prosa narratibo hori sortzen ari zen garaian. Juan Venancio Araquistain (278), Vicente Arana (279), Antonio Trueba (280), Francisco Navarro Villoslada (281) dira balore tradizionalei lotuta ihardun zuten idazleetariko batzu. Baina, seguruaski, euskaraz egindako kontaketak lotzen zaizkie hertsien balore tradizionalei. Izan ere, euskaraz idazten duenak gazteleraz idazten duenak ez bezalako mugak ditu. Euskaraz ezin konta daiteke edozein gauza, euskara ezin izan daiteke edozein mezuren igorle; hizkuntza garbia, mantxarik eta "biraorik" gabea delako. Honela dio "Pachi ta Konchesi" erlatuaren kontalariak:

> "Eta ¿zérk gordeko dizkigu oitura oek? ¡A!... Oen kucha miragarria da Ama Euskera, zeiñaren barruan arkitzen eztan itz arneguzko edo blasfemiaskorik; eta gure aboak, sugeak pozoia bezela, blasfemiasko itza bota bear badu, aztu dezagun bertatik gure izkuntza betiko; eztezagula Ama iltzera ekarri ta gero, bere eriotzean mezprezatu ¡ai!... pozoi ikaragarri orrekin zikindu ta lotsaturik! Ill bear badu ill bedi mancharik gabe" (282).

---

(278) J.V. Arakistainen leienda eta kontaketa historikoen artean **El Basojaun de Etumeta. Novela histórica vascongada**, Tolosan, 1882.ean argitaratua, **Tradiciones vasco-cántabras**, Tolosan, 1866.ean argitaratua, bezalako tituluak aurki daitezke.

(279) **El Basojaun y la Maitagarri. Recuerdo del Duranguesado**, 1878. urtean **Revista de las Provincias Euskaras** aldizkarian argitaratu zuen (ik. **RPE**, I, 1878, 43-46, 66-72, 93-96, 117-120, 140-144, 185-192, 213-216, 237-240, 256-264, 279-288. orr.). **Jaun Zuria o el caballo blanco. Leyenda histórica, original del siglo IX**, Revista de Vizcaya-ren inprimategian, Bilbon, 1887.ean argitaratu zuen. **La leyenda de Lelo**, 1880.ean, **Revista de las Provincias Euskaras**-en (ik. **RPE**, IV, 1880, 63-72, 102-106, 183-191. orr.). **Los últimos iberos. Leyendas de Euskeria**, Madrilen 1882.ean. Hauek V. de Aranak kontaketa historikoari eskaini zizkion obra batzu besterik ez dira.

(280) Antonio Truebaren idazlan literarioen sail zabalean ere zenbait titulu leienden barnean kokatzen dira, hala nola: **La cruz más santa. Leyenda vizcaina del siglo XV, Ilustración Artística** aldizkarian, 1885.ean argitaratua, beranduago **Euskal-Erria** aldizkariak argitaratuko du. (Ik. **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 144-147, 179-182, 200-203, 462-468, 489-495. orr.).

(281) **Amaya o los vascos en el siglo VIII** da bere eleberri historikorik ezagunenetakoa. Lehenbizi **Ciencia Cristiana** aldizkarian argitaratu zen 1887.ean, bi urte beranduago, 1879.ean, liburu gisa Madrilen.

(282) Ik. ARZAC eta ALBERDI, A.; "Pachi ta Konchesi" in **Euskal-Erria**, X, 1884, 37. or.

Fikziozko prosa honetan ez ezik, poemetan ere aurkituko du oihartzunik euskararekiko ikuspegi honek (283).

Honek hizkuntzatik bertatik ezartzen dizkio mugak kontaketari, baita "Irakurgaya" kontaketako kontalariak dioenak ere. "Irakurgaya" kontaketako galaia (deabrua) gazteleraz mintzatzen da, kontalariak dioenez: "izanik zana ezin zitekian mintzo gure izkuntz pare gabean" (284). Euskara ezin izan daiteke edozein igorleren komunikazio-tresna. Mundu-ikuskera honekin edo, zehazkiago, hizkuntzarekiko eta hizkuntza horren hiztunekiko horrelako ikuspegiarekin, ezin konta edozein gauza; ezta edonork ere. Hizkuntzaren ikuspegi honek berak errazten zuen gertaera nobleak kontatzeko erabiltzea; gertaera hauen subjetuek hizkuntza paregabe horretan mintzatu beharko dute eta pertsonaia duinak izan.

Hala arakatu dute Euskal Herriko aintzinatea kanta apokrifoek (285), Leloren kantak, 1835. urtean argitaratu zen "Altabizcarreco cantua"-k (286), eta eusko leiendagile eta eleberri historikogileek kanta horietaz egin zuten erabilerak (287); baita kanta horien erabileratik kanpoko eusko eleberri historiko eta leiendek eta beranduagoko euskal leiendek ere.

Eta, urte batzu beranduago, Domingo Agirrek **Auñemendiko**

---

(283) Ikus, esate baterako, 1879.ean Elizondon ospaturiko Lore-jokoetan lehen saria eraman zuen F. Arrese Beitiaren "Ama Euskeriari azken agurrak". Poema honetako ahapaldi bat aldatuko dugu hona egindako azalpenaren argigarri. Honela dio 14. ahapaldiak: "Zuaz mundutik orban bagarik,/ Zuaz mundutik garbia,/ Zuaz mundutik adorau baga/ Ez idi eta ez beya;/ Beti gorrotau, beti zapaldu/ Zenduan idolatria,/ Ta oraiñ zagoz Jaunari emoten/ Fedian zintzo bizia". Ahapaldi hau bakarrik aldatzean hona, poemaren osotasuna hautsi eta osotasun horrek eskaintzen duen ikuskera partzialki jasotzen da; hala ere, izan bedi poema horren tonu eta euskararekiko pentsamoldearen erakuskari. ARRESE BEITIA, F.; **Olerki Sorta bat**, Elkar, Donostia, 1987, 37-42. orr.

(284) Ik. LARRETA eta ARZAC, J.; "Irakurgaya" in **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 38. or.

(285) Ik. JUARISTI, J.; **El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca**, Taurus Ediciones, S.A., Madrid, 1987.

(286) **Ibidem**, 56. or.

(287) Ik. ARAQUISTAIN, J.V.; **Tradiciones vasco-cántabras**, Imprenta de la Provincia, Tolosa, 1866, 480-498. orr. eta 452-456. orr.; NAVARRO VILLOSLADA, F.; **Amaya o los vascos en el siglo VIII**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976.

Lorea idazteari ekitean, ez zeukan eredu bila kanpora jo beharrik: bazuen non aukera Euskal Herritik higitu gabe, nahiz euskaraz nahiz erdaraz.

Honela mintzo da **Auñemendiko Lorea**ren oin-ohar batean, "Ill-gaua" kapituluari hasiera eman aurretik:

> "Ataltxo au nere Riktrudis-en ipiñiko dotan edo ez dotan abagune andian egon naz gogartuten. Villoslada iaunaren **Amaya** izeneko liburu ederra edo Araquistain iaunaren **Tradiciones Vasco cántabras** deritxona edo biak irakurri dituanari nire **Ill-gaua** guztizko txiro ta narrasa irudituko iako, baiña ez neritxan ondo zerbait ez ipinteari, ta emen dago atal au, dana dan langoa" (288).

Hala ere, sor ziezaiokeen buruhausterik nobela egin beharrak; izan ere, euskal leiendak ez bezalako egitura, pertsonaien tratamendua, eta, orohar, elementu erretorikoen erabilera eska bait ziezaiokeen ordurarteko euskarazko narraziogintzan eredurik gabeak.

Auñemendiko Loreak aurki zezakeen aitzindaririk literatura idatziaren barnean, urte batzu lehenago idatzitako euskal leienda, erdal leienda eta nobela historikoetan; baita **Bein da betiko**k ere. G. Garatek euskal eleberriak sailkatzean, "Barre-kontakizunak" deitzen duen sail baten barnean sartzen du **Piarres Adame**rekin batera (289). Barre-kontakizun hauek aztertzen hasten delarik honela dio:

> "Alde batetik gauza harrigarri iduri lezake, hitz lauz agertu diren lehenengo bi liburutxoak barre eragitekoak izateak. Bestaldetik, ez,

---

(288) AGIRRE, D.; **Auñemendiko Lorea**, II, 20. or. Ohar, oin-ohar horretan "Ataltxo au nere Riktrudis-en ipiñiko dotan" dioela. Seguruaski Riktrudis hori **Auñemendiko Lorea**z ordezkatu gabe gelditu zitzaion; izan ere, **Riktrudis** bait zen eleberri honek zeukan titulua kaleratu aurretik. R.M. Azkueri igortzen dizkion zenbait eskutitzetan, "Chomin" ez da mintzo **Auñemendiko Lorea**ri buruz, baizik eta **Riktrudis**i buruz. Honela dio, esate baterako, 1897.eko irailaren 3an igortzen dionean: "¿Dirás que trabajo poco? Más que nunca: estoy entregado todos los ratos libres a mi novela **Riktrudis**". Edo-ta 1898.eko urtarrilaren 1ean: "¿Qué hay de **Riktrudis**?". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, 1969, 544. or. eta 545. or. Zinez, **Riktrudis** izenburua eramango zuen Agirrek **Euskalzale** aldizkarira bidali zuen irakurgaiak. Bada behintzat Azkue liburutegian **Riktrudis. Bizkaiko euskeran Domingo Agirre abadeak egindako irakurgaia** eskuizkribua.

(289) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 36. or.

ordea. Euskalerrian beti izan da ziri-sartze, eztenkada eta umore onerako gogo beroa" (290).

Bein da betiko sailkatzeko orduan "Barre-kontakizuna" terminorik aproposena den ala ez alde batera utzita, uste dugu beste osagai bat erants dakiokeela, G. Garatek berak aurrerago markatzen duen ildotik, hain zuzen; alegia "Azkuek haurtzaroan entzundako legenda bati zenbait pertsonaia berri eta Lekeitioko giro pixkat erantsi dizkio" (291), horretan oin-harturik (292).

Deabruak, sorginak, lamiak, arimak eta gertakizun harrigarri orok izan zuen lekurik ahozko literaturan ez ezik, leiendetan ere, agian haren eraginez. Hor ditugu, adibidez, "Antiguako Ama Virjiña" (293), non Ama Birjinak Elizara lapurretara joandakoak mugitu ezinik utzi, eta kanpaiak jotzen hasten den herritarrak etorri ziren arte; "Irakurgaya" (294), non deabruak galai-jantzian egiten duen Alonsotegiko zubia neskatxa maitemindu baten arimaren truke, hau San Josek salbatzen duelarik azken mementuan Begoñako Ama Birjinaren eskariz; "Buruazurra" (295), non azaroaren bian itsasoratu ziren ondarrutar arrantzaleek ez zuten arrainik ekarri eta hauen ordez buruhezur batekin porturatu zen txalupa bat; "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" (296), non ekaitz-egunetan Jose Chikiren arima haizearekin batera ibiltzen den, etab.

Beraz, hau eman nahi da aditzera: R.M. Azkuek **Bein da betiko** egiteko behar zuen edo hautatu zuen "material"-mota erlatu laburretan ere erabilita zegoela, nahiz eta material honen tratamenduak gero irri eragin (edo ez) eta Barre-kontakizun gisa sailkatu (edo ez).

---

(290) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 45. or.

(291) **Ibidem**, 102. or.

(292) Edo aurreraxeago dioen bezala: "**Bein da betiko**-k berriz, nolabait Lekeitioko giroa berpizten badu ere, legendan oinarritzen da eta supernaturaleko alorrean sartzen zaigu". **Ibidem**, 108. or.

(293) Ik. **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza**, 21-25. orr.

(294) Ik. **1881. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 36-40. orr.

(295) Ik. **Euskal-Erria**, XXII, 1890, 276-278. orr.

(296) Ik. **1881. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 29-35. orr.

Nolanahi ere, G. Garatek berak Barre-kontakizunen sailean sartu arren, moralizatu nahirik ere aurkitu du **Bein da betikon. Piarres Adame**rekin alderatzerakoan honela dio:

> "**Bein da betiko**-k ideologia zama handiagoa du erlijioari eta erdaldunei buruzkoetan, adibidez, itxuraz moralizazio urri egon arren" (297).

Aurreraxeago honela laburtuko du G. Garatek irakurgai honen mezua:

> "behin da betiko ikusi zuen Txilik deabrua bakean utzi behar dela eta ba direla errespetuz ez ezik beldurrez ere tratatu behar diren gauzak" (298).

Mezu hau seriotasunez beteta dago, barre eragite soila urrun gelditu delarik. Eta seriotasunez beteta daude aipatutako XIX. mendeko erlatu laburrak; azkenean txantxa guztiak garaiko balore-krisiak irensten bait ditu. Kontaketak, berriz, kolokan jartzen ari diren baloreen alde eta zerbitzuan daude.

Aurrerago ikusiko dugunez, eta mundu-ikuskerari dagokionez, **Bein da betiko**k badu kidetasunik XIX. mendeko erlatu laburrekin, nahiz eta beste egitura bat eta ez hain pertsonaia heroikoak izan eta bestela landua egon... Erlatuetan bezala, kristau-sinismenak garaituko ditu gaizkiaren indarrak —deabrua, kasu honetan—. Eliza (299) eta errosarioa izango dira garaipen hau lortuko duten sinboloak, hala bait diotsa Deabruak Txiliri:

> "—Tsili (beren erraietako orroi arrigarri batez esan eutsan orduan Damututzakoak), Tsili: beste bein baketan laga eiok inpernuko deabruari. Neu nauk. Ona emen ezaugarria. Neurea intzan, neurea. Ezkerrak emon eiozak eskuetako orri ta agon lekuari" (300).

---

(297) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 109. or.

(298) **Ibidem**, 110. or.

(299) "Su simbolismo posee diversos significados y reviste formas diferentes. En su acepción más general, es la Casa de Dios, y también representa el Cuerpo de Cristo; a veces, recibe el nombre de Arca, ya que su fin es la salvación de todos los fieles". PEREZ RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, Editorial Tecnos, Madrid, 1980, bigarren argitalpenaren berrinprimaketa, 248. or.

(300) AZKUEKO, R.M.; **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, 100. or.

Txili orduantxe sartu da Oibarko elizatxoan, auspez jarri eta "Antiguako Ama Maria, bildur nai" esan du, eskuan errosarioa daramalarik.

Badirudi, beraz, **Bein da betiko** garaiko erlatu laburrei lot dakiokeela, garaiko kezkei, erlatu labur horiek sostenga ditzakeen talde soziologiko berberaren oihartzun bihurtuz. Erlatu labur horiek ez bezalako modua badarabil ere, mundu-ikuskera berdina azaltzeko "material" bila hasten denean, ahozko kontaketan (301) eta geroztik zenbaitetan honen altxorrean iturria aurkitu duten erlatu labur horietan oin hartzen du. Izan ere, "Irakurgaya" (302), "Gurasoekin

(301) "Eusebio Erkiaga lekeitiar idazleak oroitarazi dit Azkuek berak **Euskalerriaren Jakintzan**, bigarren alean, 26. ipuinean, kontakizun honen legenda hutsa berridatzi eta nondik jaso zuela esaten digula.

Gaztetxo zela legenda hori lekeitiar bati entzun omen zion, ale horretan bertan agertzen den baino pixkat laburtxoago". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 111. or.

Eusebio Erkiagak Gotzon Garateri esan bezala, R.M. Azkuek ipuin luzeen barnean **Bein da betiko** kontatuko du **Euskalefiaren Yakintzan**. Bukaeran zera dio: "Gazte gaztetxoa nintzala, Lekeition bertan, Jose Francisco Maruriren ezpanetatik eldu zan nire belafietara, laburtxoago". AZKUE, R.M.; **Euskalefiaren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)**, II, Espasa Calpe, Madrid, 1966, bigarren argitalpena, 87. or.

R.M. Azkuek Jose Francisco Maruriri laburtxoago entzundako kontaketa liburu honetan 79-87. orrialdeetan kontatzen du; orrialde bakoitzaren ezkerraldean euskaraz doa erlatua eta eskuinean erdal itzulpena.

Esan daiteke R.M. Azkuek bi aldiz landu duela **Bein da betiko** kontaketa: lehenik J.F. Maruriren kontaketa **Euskalefiaren Yakintza** liburura eramateko, bigarrenik **Bein da betiko** 1893.ean argitaratutako liburura eramateko. Horrela, R.M. Azkuek gorpuztu eta landutako oinarrizko materiala da J.F. Maruriren kontaketa.

(302) J. Larreta eta Arzac-ek Alonsotegiko zubiaren historia kontatu aurretik dio historia hau kontatzera doala Azelaingo zubiaren historiak gogora ekarri diolako. Ik. **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1881, 36. or. Honela ematen dio hasiera "Irakurgaya" erlatuari:

"Nere erritarretan iñor guchi izango da iñoiz ere entzun bagerik nola deabrubak egin zuben, lengo denboretan, Azelaingo zubi zarraren erdiya; Labaindik eskutik eskura arriya, Akelarreko eun milla sorgiñen laguntzarekin ekarrita.

Baita ere badakite geyenak nola, zubiya egiñazi zubenak, bere anima deabrubaren atzapar zorrotzetatik atera zuben, ollarrari kukurruku egin azita, zubiya bukatutzeko arri bat jartzia baizik palta etzanean".

R.M. Azkuek **Euskalefiaren Yakintzan** jasoko du kontaketa Hernaniko Maria Marcaren ahotik. Ik. AZKUE, R.M.; op. cit., 381-382. orr.

zu nola, zure umeac zurekin ala" (303) eta "Iziar" (304) bezalako erlatuek badute ahozko literaturaren oihartzunik. Belaunaldiz belaunaldi kontatutako sineskera eta sineskeriak, orain sarritan komunikazio idatzira igaroko dira ahozko kontaketen teknikaz landuta, aurrerago aztertuko denez.

Piarres Adameri festa-giro handiagoa dario, baina hala ere ez dio moralizatu beharrari ihes egin; horretarako erabili ditu "istorioen" amaierak: bihurrikeriek dagokien ordaina jasotzen dute. Festa-giro hori dela-ta, arintasun, intranstzendentzia eta jolas-giro handiagoa igortzen dute istorioek; hauek orijinalak dira gehienetan, zahar eraberrituak besteren batean (305), beti leienden mundutik urrun.

Testuinguruak eman diezazkiguke zenbait argibide J.B. Elissanburuk egin zuen aukera zertxobait ulertzeko, bere "lerratze" honen

---

(303) Gregorio Arrueren erlatu honetan ere aurki daiteke zenbait ahozko kontaketaren sineskerien zantzurik. Jose Chikiren arima eguraldi txarreko egunen gauerdian agertzeak negarrez izan dezake aitzindaririk J.M. de Barandiaranek "Arimen agerkundiek" deitu dituen kontaketa horietan. Ik. BARANDIARAN, J.M. de y COLAB.; **El mundo en la mente popular vasca (Creencias, cuentos y leyendas)**, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1960, bigarren argitalpena, 71. or. eta hurrengoak.

(304) Donostiako Lore-jokoetan 1891.ean akzesit bat irabazi zuen Toribio Alzagaren "Iziar" erlatuan ere soma daiteke ahozko tradizioaren eraginik. Hona hemen erlatuaren pasarte bat, Ama Birjinaren agerraldien eta honek eliza eraikitzeko emandako aginduaren ondoren datorrena:

"Orduban bear asi ziran kunplitzen Birjiña-ren erregu doaintia; bañan nola agertutako lekua zan desberdiña, pensa zuten beste lur zuzenagoko batean, Zabaleta izena zuenean, egitia.

Asi ziran bada eramaten ara, arri, zura eta gañerako gauzak bañan izér gauza arrigarriya! urrengo goizian arkitu-zituzten agertze doaintia izan zan lekuan". **1889. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 25. or.

Pasarte honek badu kidetasunik 1924. urtean Astigarribiako Luis de Usobiagak J.M. Barandiarani kontatutako beste pasarte batekin, nahiz eta aurrerago gertatzen denaren bertsioak desberdinak izan. Hona hemen pasartea:

"Itziar'en oiñ eleizia don baño bero asi ei zien eleizia eitten.

Ta denpora askoan eunez eittentzuena gabaz Ama Berjiñeak eaman". BARANDIARAN, J.M. de y COLAB.; **El mundo en la mente popular vasca (Creencias, cuentos y leyendas)**, II, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1972, bigarren argitalpena, 29. or.

(305) Maiz agertu da literatur tradizioan Don Patxeko eta doña Inkarnazioni buruzko ixtorioa: Erdi Aroko fabliaux-ak, Molièrek eta Fernández de Moratinek erabilia. Ik. GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 50-53. orr.

arrazoi posible batzu atzemateko. Batetik, J.B. Elissanburu Iparraldeko idazlea da, aipatutako gainontzeko erlatugileak ez bezala —M. Gilbeau bakarrik da Iparraldekoa—. Hegoa gerra batetik atera berria da. Zehaztasunetan sartuz gero, bereizkuntza gehiagorik ere egin beharko litzateke: gerra honetan Jaungoikoa, fueroak eta Erregea izan dira alde batekoen ikurrak. Eta Hegoaldeko euskal prosa narratiboa ikur horiei edo horietako baten bati lotuko zaio eta balore horiek edo horietakoren bat edo beste defendatu dituztenen mundu-ikuskera azalduko du, mimesi handiago edo txikiagoarekin, literatura egiteak eskainitako anbiguotasun handiago baterako posibilitateekin. Aipatutako gerran euskaldun guztiak ez dira alderdi horretan egon, baina euskal prosa narratiboa balore horien edo horietakoren bateren baten gain eraikiko da.

Iparrak ez du bizi izan gerrate hori; ezta gerrate-aurrea ere. Baina Hegoaldeko egoeraren oihartzunak helduko zaizkie eta Errepublika daukate gobernu-modutzat.

F.B. Larzabalek honako berri hauek eskaintzen ditu Iparraldeko XIX. mende-bukaerako egoera politiko-ideologikoari buruz:

> "Hemeretzigarren mende ondarrean bereziki, Ipar Euskal-Herrian izan da gorri mota guzietarik. Norbait, errepublikanoa zen ber, gorria zen. Errepublikanoetan ere orotarik ba zen. Batzu gorrailak, besteak gorriak, zenbait gorri-gorriak ere, denak apezetaz gaizki ikusiak, apezeria gehiena erregtiarra (sic) ta bonapartista zelakoan.
>
> Errepublikanoak liberalen alde, erregetiarrak eta bonapartistak, hots, 'xuriak', karlixten sustatzaile, zer kalapita bideak! Denen artetik, euskara zen naski irabazdun ateratu.
>
> Ordurako neurtizlarietarik biga bederen gorriak ginituen: J.B. Elissanburu eta Oxalde" (306).

Tirabira politikoak Lore-jokoetara helduko dira.

Horrelakorik soma daiteke A. d'Abbadiek 1874. urtean antolatutako Lore-jokoetako epaimahaiaren erabakiak M. Gilbeaurengan sortu zuen haserrea eta haserre hauen arrazoiak irakurtzean. Epaimahai horrek "ilunbetsu" kalifikazioa jasoko du M. Gilbeaurengandik; are gehiago, urte honetan, 1874.ean, gehiago nahasiko du egoera bes-

(306) LARZABAL, F.B.; "J.B. Elissanburu eta Oxalde, bi gorri. I. Elissanburu" in **Ekaina**, n.º 15, 155. or.

te faktore berri batek: politikoak (307). Lehen saria "Biscaitarra" bezala izenpetzen zuen batek eraman zuen "Jaungoicua ta errija" poemarekin (308). Bigarren saria "Sempertarrac" izenpetzen zuen (309) "Betiri-Sanx" kantarentzat (310) izan zen. Lehen saria eraman zuen poemak Espainian agintzen zuten liberalen aurka egiteko gerrarako deia dakar; bigarrenak, "Betiri-Sanx"-ek gosea pertsonifikatzen du eta Frantziako Errepublikaren aurkako satira gogorra da. M. Gilbeauk gertaera honen aurrean galdetzen du:

> "por qué mezclar a los carlistas en nuestras fiestas públicas? Preferimos —dice— la tranquilidad de los campos al trepidar de las armas y a la sangre fracticida (sic) que se derrama al otro lado de los Pirineos" (311).

Poema hau, gainera, kaxkarra da M. Gilbeaurentzat, bai gaiaren aldetik, bai formaren eta balio literarioaren aldetik.

Baina, itxura, 1874.ean arazoak hasi besterik ez ziren egin, edo lehendik zeudenak bizkortu. Bi urte beranduago, juxtu 1876.ean, "Biscaitarra" ez baino Piarres Uxaleguy Senpereko ikazkina aurkezten

---

(307) Auñamendi argitaletxeak argitaratutako **Literatura**, I, liburutik jasotzen dugu: "El fallo del jurado indignó sobremanera a M. Gilbeau. Dice este señor que los concursos fundados por D'Abbadie han venido desnaturalizándose paulatinamente. En sus comienzos se trataba de elevar la literatura vasca. Los poetas acudieron en abundancia durante los primeros años. De ellos salieron, según Gilbeau, verdaderas obras maestras en su clase. En esa época todo se hacía a la luz del día; se rendía cuenta de los fallos anualmente estimando el valor de cada poesía y el de otras que merecían una mención honorífica. Pero, después, sigue Gilbeau, un jurado tenebroso, que guarda el más riguroso incógnito, a pesar de las interpelaciones dirigidas a él, se encierra en el mayor mutismo. Esto ha provocado cierta frialdad entre nuestros poetas populares. Pero, todavía este año, ha venido a sumarse un nuevo factor perturbador: el político". **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 454. or.

(308) Ik. **1874. Neurtiztarien gudua. Saraco bestan**, Inprimerie A. Lamaignère, Bayonne.

(309) "Sempertarra" goitizen honen azpian badirudi G. Adema "Zalduby" ezkutatzen dela, Larresoroko ikastetxean J.B. Elissanbururen ikaskide izandakoa.

(310) Ikus **1874. Neurtiztarien gudua. Saraco Bestan.** Kanta hau G. Adema "Zalduby"-ren kanta moduan jasotzen du **Enciclopedia General Ilustrada del País Vascok, Literatura**, Iek, 457-458. orrialdeetan. G. Adema "Zalduby"-ren beste zenbait kantarekin batera **RIEV** aldizkariak argitaratu zuen "Autres poésies profanes" sailaren azpian. Ik. **RIEV**, III, 1909, 227-229. orr.

(311) Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 454. or.

da (312) "Biba Errepublika" izenburutzat duen poemarekin (313), Pariseko gobernu errepublikanoaren satira garratza eginez. Lehiaketara hamabiren bat aurkeztu baziren ere, epaimahaiak hau besterik ez zuen jo sarigarri. Epaimahaiak, konpromezu honen aurrean, lehiaketaren sortzaileen esku uztea erabaki zuen sariketaren emaitza. Hauek saririk ez ematea erabaki zuten (314).

Hegoaldean ospatuko dira 1879.ean Lore-joko hauek; Elizondo izango dute ospakizun-leku. Hemen ere ez zen arazo-faltarik izan. Felipe Arrese Beitiaren "Ama Euskeriari azken agurrak!!!" jo zuen berez garaile epaimahaiak, baina esan daiteke isilpeko garailea izan zela.

Festa hauek uztailaren 25etik 28ra bitartean iraun zuten. Sariketa literarioaren berri 28an eman zen:

> "El premio de 125 pesetas á la mejor composición poética, escrita en sério, sobre el tema **Euskaldunen gauzik maiteena**, resultó haberse adjudicado á D. Felipe de Arrese y Beitia, de Ochandiano (Vizcaya), y el de 80 pesetas y un (sic) makila plateado á la mejor composición poética, escrita también en sério, que constara á lo ménos de 50 versos, lo obtuvo K. Ramón Artola, de San Sebastián, habiendo acordado además el Jurado, que se constituyó en Bayona el 4 de Julio, se diesen dos menciones honoríficas, para otras dos composiciones que también se han impreso y circulado, las cuales, así como las arriba mencionadas, insertamos en el presente número de la REVISTA" (315).

Hala ere, beste erreferentzia batzuk gardentasun hori zalantzan jarri eta F. Arrese Beitiaren poema "debekuen" mugan ibili zela aditzera ematen dute. Duvoisin kapitainak honela dio 1879.eko uztailaren 25ean, hots, epaimahaiaren erabakia azaldu baino hiru egun lehenago, Louis-Lucien Bonaparteri zuzentzen dion eskutitzean:

---

(312) "Piarres Uxaleguy" goitizen honen azpian badirudi G. Adema "Zalduby" ezkutatzen dela. Ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 196. or.

(313) Ademaren beste zenbait kantarekin batera **RIEV** aldizkariak argitaratu zuen "Autres poésies profanes" sailaren azpian "Errepublika" titulupean. Ik. **RIEV**, III, 1909, 229-233. orr. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 462-463. orrialdeetan ere jasota dago.

(314) Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 462. or.

(315) Ik. "Las fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo" in **Revista Euskara**, II, 1879, 236. or.

"Comme le Pays Basque-espagnol est sous le régime de l'état de siège, nous n'avons pas jugé á propos de publier que M. de Arrese est premier lauréat au concours d'Elizondo, (de peur de faire interdire ces concours á l'avenir), mais on lui fera parvenir le prix" (316).

Sariketa literario honen desarroilo bereziaren lekuko da, baita ere, ospatu eta handik ia hilabetera, abuztuaren 25ean, Duvoisin kapitainak F. Arrese Beitiari igortzen dion eskutitza:

"Atzo ikusi dut Murde Abadie eta harritu nau erran darotadanean, Iruñatik ez duzula jakin berririk batere. Hango Jaunekin solas egin dudanean, errana izan zen etzela Elizondon erantzunen zure eresia ederrak eraman zuela hitz negurtuetako lehembiziko saria, zeren Nafarroak egun gaitzak ikusten dituen.

Eta nola asko haro tchar baitzerabilan gizonen artean, ziotenaz Gobernua khechu zela Elizondon atherako ziren gauzez eta debeku emanen zuela armadako buruzagiak, Elkargoako jaunak goan ziren buruzagi haren gana eta erran zioten Elizondon etzela politikazko solasik izanen.

Aria hortaz, ez da erantzun deusere orduan hitz neurtuetako sariaren gainean. Bainan Iruñar jaunak erran zuten, gutun batean zerorri buruz ezagutaraziko zarotzutela zure eresiak irabazi zuela lehembiziko saria" (317).

Eta argitalpenek ere Duvoisin kapitainak azaltzen duen ildoa markatzen dute, eta ez Elizondoko Lore-jokoetan Nafarroako Elkargoko idazkari izan zen Eusebio Rodriguez Undianok **Revista Euskaran** ematen duena.

F. Arrese Beitiaren poema argitaratu zen, bai (318), ordurarte Lore-jokoetako poemek ezagutzen ez zuten bezalako tirada handiarekin (319), baina ez dirudi irabazle ofizial bezala argitaratu zenik. Eli-

(316) Ik. DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 358-359. orr.

(317) **Ibidem**, 363. or.

(318) **Ibidem**, 359. or. eta 363. or.

(319) Ordurarte 250 ale inprimatzeko ohitura zeukaten. **Ibidem**, 349. or. F. Arrese Beitiaren poemarenak, berriz, milako tirada ezagutuko du aldizkarietakoaz aparte.

zondoko festa hauek zirela-ta, Baionako Lamaignère inprimategiak ateratako orriek izenburu hau zeramaten:

> "1879. Neurtizlarien gudua. Elizondoko Bestetan garhait saria eraman duen kantua Ramon Artola, Donestiakoak (sic) egina. Altabizkarko kantua".

Berez bigarren saria eraman zuena, hain zuzen. **Revista Euskarak** ere argitaratu zituen. Argitaratzean, kontraesan batean erortzen da. Lehenbizi, Elizondoko festen berri ematerakoan, F. Arrese Beitiarèn poema ematen du irabazletzat, eta poema hau berau argitaratzen du lehenengo "Composiciones premiadas en el certámen de la Asociación Euskara de Navarra celebrado en Elizondo en Julio de 1879" (320) titulupean. F. Arrese Beitiaren poema bukatuta, hurrengo poemari honela ematen dio hasiera:

> "1879. Elizondoko Bestetan garhait saria eraman duen kantua Ramon Artola, Donestiakoak egina. Altabizkarko kantua" (321).

Nahiz eta Duvoisin kapitainak F. Arrese Beitiaren poema gogobetekoa izan, eta Elizondoko epaimahaiak aurkeztutakoetan onena dela uste, ez datoz denak bat Elizondoko gertaerekin eta sariketaren emaitzarekin. Hori soma daiteke behintzat 1879.eko abuztuaren 7an Duvoisin kapitainak J. Manterolari bidalitako eskutitzean:

> "Ne me plaignez pas, Monsieur, de l'incident fâcheux d'Elizondo; je n'ai de peine que pour les personnes qui étaient en cause. Il faut oublier tout cela. Cependant un méchant article, offensant la vérité et la bonne littérature, a été lancé à ce sujet par un méchant journal de Bayonne, l'**Avenir**. Le mieux serait de lui répondre par le mépris du silence" (322).

Gertaera hauek agerian uzten dute jazoera politikoek eta ideologikoek ukitua dutela literaturaren esparrua. Honi literaturari buruzko ikuspegia erants dakioke; M. Gilbeauk, esate baterako, zelai-soroetako bakea kantatu edo kontatzea hobe litzatekeela dio, eta horrela poetika mailako arazo bat ere planteatzen du.

Oraingoz XIX. mendeko azken hereneko poetikaren nondik-no-

---

(320) Ik. **Revista Euskara**, II, 238. or.

(321) Ik. **Revista Euskara**, II, 244. or.

(322) Ik. DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 361. or.

rakoak aurreragorako utzita, honako hau esan dezakegu: 1897. urterarte, hain zuzen, **Euskalzale** aldizkaria argitaratzen hasten denerarte behintzat (323), Hegoaldeko idazleen kontaketak ahitzen ari den mundu bati eusten saiatzen dira, mundu horren oinarrizko baloreak indarberritzen eta mundu horri iraun arazi nahi diotenen mundu-ikuskera ematen.

Napoleon III.aren ejertzitoko kapitaina zen J.B. Elissanburuk M. Gilbeauk hobetsitako bidea hautatzen du bai poesian eta bai prosan. Ogibidez gerrari lotu zitzaionak, bakea aukeratu zuen literaturarako, Y. Etxaidek dioen bezala:

> "Elizanburu poeta bukolikoa dugu batez ere. Arrigarria! Bere bizia gudari igaro zunak, nekazaritza, artzaingoa eta baserriko bizibide paketsua autatzen dizkigu kantagaitzat" (324).

A.M. Labayenek ere "Elizanburu es ante todo un poeta bucólico" (325) esango du. J.B. Elissanburu poeta, Lore-jokoetan hainbat bider bere poemak saritzearen ohorea jaso zuena, ildo horren barnean higituko da (326), nahiz eta noiz edo noiz, "sentimendu patrio-

---

(323) Urte hori erreferentzi puntutzat hartzen dugu **Euskalzale** aldizkarian ipuinak eta irakurgaiak argitaratuko direlako: batzu lehendik argitaratuak, beste batzu berriak. Berri hauetan leienden mundua utzi —"Maritšu", "Batši guzur"— eta gaiak zertxobait zabaldu egiten dira, nahiz eta funtsean didaktizismoaren barnean higitu besteak bezala.

(324) ETXAIDE, Y.; **Amasei seme Euskalerri'ko**, Editorial Itxaropena, Kuliska sorta, 19-20 zka., Zarautz, 1958, 30. or.

(325) LABAYEN, A.M.; "Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras" in **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1978, 46. or.

(326) G. Adema "Zalduby"-k Lore-jokoetara aurkeztutako kantek "Betiri-Sanx", "¡Biba Errepublika!" bezalako tituluak badaramatzate; honako hauek izango dituzte J.B. Elissanburuk aurkeztutakoak: "Apecha eta lorea", "Nere etchea", (**1862. Urruñaco Eliza-Besta. Coplarien gudua**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe), "Artzaingoa" (**1865. Sarako Eliza-Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère, Bayonne), "Maria" (**1866. Sarako Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère. Bayonne)... Zelai-soroetako bakea eta maitasuna ditu Elissanburuk kantagai. Aipatu kantak, eta aipaturiko ordenari jarraikiz, egiletza-modu honen azpian eta sari-modu hauen irabazle moduan aurkezten dira: M. Elizamburu (garhait-saria), hiru izartxo (aiphamena), Joanes Berjes (garhait-saria), J.B. Elissamburu (garhait-saria). A.M. Labayenek aipatu kanta guztien egiletzat J.B. Elissanburu jo du; bere ustez, goitizen askoren azpian aurkeztu zen poeta. Ik. LABAYEN, A.M.; op. cit., bereziki 157-163. orr.

tikoak" edo eraginda, "Biba Frantzia" bezalako poemaren bat idatzi; eta prosara igarotzen denean ere, **Piarres Adame** idatziko du, eta ez gerrarako deirik; ez du galdutako libertateen nostalgiarik ekarriko, ez du Hegoaldekoak bezain moral hertsia azalduko; agian, A.M. Labayenek dioen bezala, kristau sakona zelako, baina ez klerikala (327). Beharbada, guzti honegatik dario **Piarres Adame**ri Hegoaldeko erlatuei ez bezalako festa-giroa.

Jakina, lerro hauetan zehar mintzagai izan diren Iparraldeko XIX. mendearen azken hereneko tirabira hauek ez dira heltzen J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** eleberri laburrera, 1832. urtean bildutako ipuiez osatua (328) dagoen neurrian behintzat.

Baina, dena den, hastapenetako euskal prosa narratiboaren patua balitz bezala, Baigorriko zazpi liliek kontaturiko kontaketa desberdinetan ez da moralizatu beharrik faltako. Baigorriko lili horietako batzuk kontaturiko zenbait ipuinek titulutik bertatik erakusten dute aipatu norabidea: "Azeria, belea eta mandazaina", "Hartzak nola galdu zuen buztana"... Ez dirudi J. Duvoisinek euskal XIX. mendeak azaldu zuen alegizaletasunari muzin egiten dionik; prosara darama mende honetako idazleek batipat bertsoz landu zuten testu-mota. Beste zenbait liliren kontaketek alegien mundua uzten dute, baina ez moralaren edo/eta erlijioaren alorra: "Athano", "Karitatea". Eta azkenik, ez zaio falta, ezta ere, Hegoaldeko luzera handiagoko edo txikiagoko kontaketek aurkezten duten beste osagai bat: ahozko kontaketetan ondo ongarritutako eremua aurkitu zuten lamia, jeinu, etab. Hala erakusten dute "Tartaroa", "Birtartaroa", "Ithurralaba"... ipuinek.

Azkenik, eta bukatzeko, Donostian ospatu ziren Lore-jokoen inguruan sortutako prosazko beste idazlan batzu aipatuko ditugu. Behin edo behin deskripziorik hoberenarentzako saria eskaini zen. Jatorri hau dute "Gabon gau bat Euskal Erriko baserri batean", "Gabon" eta "Donostia" idazlanek. Leienden oinarria ekintza bazen,

---

(327) "Su espíritu profundamente cristiano pero no clerical, está imbuido del sentido de la sana democracia vasca". LABAYEN, A.M.; "Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras" in **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, 72. or.

(328) "Obra hau, frantsesez daroan hitzaurrean dionez, 1832. urtean bildutako ipuiez osatua da". SAN MARTIN, J.; "Aintzin solasa" in DUVOISIN, J.; **Baigorriko zazpi liliak**, 6. or.

deskripzioaren bidean abiatzen da prosa idazlan hauekin; eta deskripzio-gai bihurtuko dira Euskal Herrian Gabon-gaua igarotzeko modua, otoitzak, afaria eta berau osatzen zuten jakiak; Donostia udatiarren bizileku, etab.

Aipatutako titulu horietan ez ezik, ohituren deskripziorako lehen urratsak soma daitezke Lore-jokoetako sariketetakoak ez diren beste idazlan oso labur batzutan ere; hala nola, K. Echegaray-ren "Maieko bedeinkaera" izenburua daramanean edo A. Arzac-en "¡Arrantzalia!" deiturikoan.

Leiendetako mundu-ikuskera berdina azalduko dute, baina erlatu historikotik aldendua eta ohituren deskripziorako iraganbidea eginez. Hala zabaltzen diote atea XX. mendearen hastapenetan D. Agirreren **Kresala** (1906) eta **Garoa** (1912) eleberriekin euskal nobelagintzan nagusituko den ohiturazko eleberriari.

3. PROSA NARRATIBOAREN SORRERA ETA GARAPENA: HURBILPEN SOZIO-LITERARIOA

Euskal prosa narratiboaren lehen urratsak XIX. mendearen hastapenetan kokatu dira jadanik. J.A. Mogelen **Peru Abarcak** ekarri zituen (329) euskal literaturaren alorrera ordurarte landugabe zeuden elementuak. **Peru Abarca** 1802. urtea baino lehen idatzi zen, A. Zelaietak dioenez (330), nahiz eta 1881.erarte ez argitaratu

(329) Nahiz eta erantsi beharko litzatekeen jadanik XVII. mendean Rafael Micoleta bilbotar apaiz doktoreak elkarrizketatxo elebidun batzu eskaini zituela 1653. urtean idatzi zuen **Modo breve de aprender la lengua vizcayna** liburuaren atal batean. Dena den, gramatika-saio baten itxura edo hartzen duen liburu honek ere, **Peru Abarcaren** antzera, ez zuen zori oso onik ezagutu argitalpenari dagokionez. Liburua —eta honenbestez, liburuaren bukaeran datozen aitonen seme eta beronen morroiaren arteko elkarrizketak— ez zen 1880. urterarte argitara. Urte honetan Salvador Sampere Miquel-ek Bartzelonan **Revista de Ciencias Históricas**-en eman zuen ezagutzera. Beranduago, Dogson-ek, 1897.ean beste argitalpen bat egin zuen Sevillan. Ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 99. or. eta MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 63. or.

(330) "Gauza bat, behinik behin, zihur dakigu: 1802.eko Otsailaren 26a baino lehenago egina zuela. Izan ere, fetxa honetan Vargas Ponceri bidali zion gutun batetan hori adierazten zion". ZELAIETA, A.; **Peru Abarcaren berrirakurtzea**, Kriselu, Donostia, 1979, 7. or.

(331). Baina, XIX. mendearen hastapenetan idatzia izanagatik, ez du ia mende-bukaera arte (332) zabalkunderik ezagutuko; bitartean gutxi batzurengana besterik ez da helduko eskuizkribuei esker (333).

Argitalpen-urteari begira behintzat, alegiek inauguratuko dute euskal prosa narratiboa, Bizenta Mogelen (334) **Ipui Onac** liburuaren eskutik (335). Horrela helduko da euskarara XVIII. mendeak

(331) Larogei urte inguru argitara gabe egote honi buruz eman dira esplikazio batzu. Aurrerago itzuliko gara honetara. **Peru Abarca, Beti bat**, Bilboko egunkarian hasi zen argitara ematen 1880.eko ekainaren 15ean; handik ia bi urtetara, 1882.ean Durangon argitaratu zen D. Julián Elizalderen inprimategian. Hala ere, edizio honek 1881.eko fetxa darama. Ik. ZELAIETA, A.; **Peru Abarcaren berrirakurtzea**, 15-17. orr.

(332) **Peru Abarca** hainbeste urtetan argitaratu gabe egon izanaren arrazoiak bilatu nahi izan dira. A. Zelaietak "Argitaratze hauzia" titulupean atal osoa eskaini dio bere **Peru Abarcaren berrirakurtzean**. Bertan gai honen inguruan azaldutako zenbait hipotesi jasotzen ditu eta berea jartzen. Zentsura-arazoan legoke gakoa; baina, orohar, A. Zelaietak jasotzen dituen hipotesiek zentsura-arazo horren faktore sortzailetzat gehiago jotzen dute darabilen kodea bera —euskara—; berak, berriz, testuaren edukin linguistikora bertara darama zentsura-arazoaren faktore eragilea. **Ibidem**, 7-22. orr.

(333) **Euskal-Erria** aldizkariak **Peru Abarca** salgai dagoela liburudendetan dioen berria ematerakoan, liburuaren deskripzio labur bat egiten du. Deskripzio honetan honako hau irakur daiteke: "El extenso prólogo en castellano debido al autor de la obra es un trabajo literario importante, y en cuanto al texto euskaro, que ya es conocido por las muchas copias manuscritas y generalmente imperfectas que corrían desde el primer cuarto del presente siglo en que se escribió, es amenísimo". Ik. **Euskal-Erria**, VI, 1882, 94. or. Jadanik azaldu denez, A. Villasantek ere aditzera ematen du **Peru Abarca** ezaguna zela garaiko euskaltzaleen artean zenbait kopiari esker. Ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 211. or.

(334) Bizenta Mogel, Juan Antonio Mogelen, **Peru Abarcaren** egilearen iloba da. Azkoitian munduratu zen 1782.ean, baina aitaren heriotza zela medio, laster joan ziren anai-arrebak Markinara bizitzera J.A. Mogelen babespean. Abandon hil zen 1854.ean. Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 604-607. orr.; nahiz ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, Etor, Bilbo, 1973, 70-74. orr.

(335) **Ipui onac** liburuak Bizenta Mogelen alegiak ez ezik, bere osaba Juan Antonioren batzu ere jasotzen ditu, Bizentak berak aitortzen duenez. J.A. Mogelen hauek bertsoz idatzita daude. Honela dio: "Esan nuan len berso ipuizko oiek ez dirala nere burukoak. Pillo andi bat dauka eginda nere osaba jaunak, ta pillotik artuak dira emen ekusiko diran gutxi batzuek. Saiagarri bat da au, ta ez geiago". MOGEL, B.; **Ipui Onak**, Auspoa liburutegia, 28. zka., Donostia, 1963, 3. argitalpena, 129. or.

hain gogoko izan duen generoa, Euskal Herrian bertan gazteleraz idatzi dutenen ondoren (336).

Emakume honek prosazko lehen alegiak eskainiko dizkio euskarari, Esopo alegigile grekoaren alegia batzu itzuliz. Horrela atera zuen elizatik eliz atarira eliz liburuetan eta hizkuntzazkoetan soilik landutako euskal prosa. Berak eman zituen lehen urratsak erlijio-gaiei lotuta egondako euskal prosa bide laikoetara eramaten, nahiz eta mende osoan zehar idatziko denak guztiz moralizante, didaktiko eta katolikotasun hertsienaren barneko izaten jarraitu.

Bizenta Mogelek kontatuko du lehen aldiz zerbait euskal prosa idatzian, kontatze hau oso sinplea eta primarioa bada ere. Eliz liburuek ere gauzak kontatzen zituzten, baina hauen kontaketek arimak salbatzea bilatzen zuten zuzen-zuzenean, irakurlea erlijio-gaietan jakitunago egitea, bidenabar bizitza kristauagoa eraman zezan.

Eliz liburuek ez zuten elementu berri bat dakarte Bizenta Mogelen alegi itzulpenek: fikzioa. Alegietan hitz egiten duten animaliek ere probetxuzko gauzak erakusten jarraitzen dute, baina desberdina da kontatzen dena eta kontatzeko modua bera. Kontatzen denak ez du egiazkoa izan beharrik; kontatu, berriz, marko narratibo baten bidez kontatzen da, marko hori oso sinple eta primarioa bada ere: badago ekintza bat, badaude egile batzu (gehienetan animaliak: otsoa, bildotsa, ardia, zakurra...). Ekintza hauek leku-denborazko koordenada batzutan garatzen dira, nahiz eta oso gutxi deskribatu —ozta-ozta aipatu— eta oso zehazgabeak izan. Gertaerak "ibai batean", "gauez aberats baten etxean", "basoko larre batean", etab. jazotzen dira.

(336) Felix Maria Samaniego arabarra da hauen artean ospetsuena. Laguardian jaio zen Peñaflorida kondearen loba-iloba hau 1745.ean. Kondeak sortu zuen "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País" Elkargoko lehen zenbakizko bazkideetako bat izan zen 1765. urteaz geroztik. Elkargoak antolatutako ihardunaldietan gogotik parte hartu zuen. Peñafloridak eraginda alegia batzu prestatu zituen Historia eta Arte Ederren sailerako, eta aurrerantzean literatur genero honi lotu zitzaion. Ik. ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. Siglo XVIII**, III, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 530-534. orr. F.M. Samaniegok bezalako ospea lortu ez bazuten ere, beste izen batzu erants dakizkioke XVIII. mendean Euskal Herrian gazteleraz egindako alegigintzari: José Ibáñez de la Rentería, hau ere oso lotuta Bergarako Seminarioari (ik. ALBORG, J.L.; op. cit., 92. or.), Angel Casimiro Govantes, Ramón de Pisón, Pablo de Jérica. Ik. ALLENDE SALAZAR, A.; "Carácter general de la literatura vasca. Discurso presentado al claustro de la Universidad Central de Madrid en 1878" in **Euskalerriaren Alde**, V, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 554. or.

Helburu didaktikoen menpe daude alegietako ekintzak, ekintza hauen egileak, lekua, denbora...

Eleberriak mendetako historia dauka XIX. mendean literatur testu-mota bezala. Eta orduan ematen ari da euskal literatura fikzioaren lehen urratsak literatur testu-mota moralizanteenaren bidez, alegi itzulpenen bidez.

Ez dirudi fikzioa euskaldungoaren irakurketa-motarik kuttunena izan denik. Ez dago Orixek berak XX. mende honetan bertan esandakoa gogoratu besterik. Honela dio **Jainkoaren billa** liburuaren sarreran:

> "Erriak zure (sic) gose daude, dakitela ez dakitela. Gure erri txiki au, len Zuri eratsiago zala, etzebillen ipui berri billa. Edozein liburu berri argitara zanean, esaterako **Sagastiak nola garbitu?** au galdegiten zuten: 'Bai al du azkenean Meza entzuteko modua?'. Ezean, etzuten erosten. Neronek ikusia. Orain, ostera, pixka bat berrizaletu gera. Ipui berri oietako bat eskatu didatenak ere badira, bearra omen baitago. Beste batek egin dezala lan ori. Nik ba-daukat aski egitekorik, erri geienak eskatzen didanarekin" (337).

Helburu pragmatikoak gidatzen du itxuraz euskal irakurlea, eta bereziki eliz gaiak. Nahikoa da ikustea eliz gaiei eskainitako zenbait liburuk izandako harrera eta fikziozko prosari XIX. mendean bertan eskainitakoa. Esate baterako, J.A. Mogelen **Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteak** (...) idazlanak izandako harrera dela-ta, honako hau aipatzen du Fr. L. Villasantek:

> "En el prólogo a su **Confesino Ona** dice Moguel, refiriéndose a ésta su primera obra, que se han despachado unos mil ejemplares de ella por Navarra, Guipúzcoa y Vizcaya; que muchos curas la leen en sus iglesias y no pocos particulares en sus casas" (338).

---

(337) ORMAETXEA, N. (Orixe); **Jainkoaren billa**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1971, 19-20. orr.

(338) VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 210. or. J.A. Mogelek dioena zinez horrela bada, ezin esan emaitza eskasa denik. Izan ere, **Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac** (...) 1800. urtean argitara da eta **Confesiño Ona** (...) 1803. urtean (ik. BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, V, Editorial Auñamen-

Nolanahi ere, bada J.A. Mogelen idazlan katekistikorik, inprimategi mailan behintzat, arrakasta handiagoa ezagutu duenik XIX. mende honetan bertan: **Confesiño Ona** (...) (339) eta, zer-esanik ez, Asteteren Katiximaz egin zuen itzulpena (340).

Baina ez dira J.A. Mogelen obra katekistikoak bakarrik. Euskal literaturaren historiagileek aho batez onartzen dute F.I. Lardizabalen **Testamentu zarreco eta berrico condaira** (...) dela euskal libururik irakurrienetakoa. Datu zehatzik gabe, baina ñabardura gehiago edo gutxiagorekin, hala eman dute aditzera Orixek (341), Fr. I. Omae-

---

di, San Sebastián, 1974, 458-459. orr.; nahiz VINSON, J.; **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque, 1***, 253. or., 148 zka. eta 255. or., 154 zka.). Beraz, ondorioa guztiz agerikoa da: hiru urteren buruan saldu ziren mila ale horiek. Dena den, aipatu **Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac** (...) ez du berriro argirik ikusiko, harik eta Tolosan F. Muguerza-k berrargitaratzen duen arte, 1884. urtean (ik. BILBAO, J.; op. cit., 459. or.). Baina J. Vinsonek ez du aipatu ere egiten argitalpen hau; honen ordez, 2. argitalpentzat Tolosan bertan baina Lopez-ek 1885. urtean eginikoa jasotzen du (ik. VINSON, J.; op. cit., 253. or., 148. b zka.).

(339) Idazlan hau 1803. urtean argitaratuko da F. Larumbe-ren etxean Vitorian, gero 1853.ean Bilbon J.E. Delmás semeen etxean, berriro 1854.ean Bilbon Hijos de J.E. Delmás-enean; baita 1897.ean ere Euskalzalen Moldagintzan, tituluan bertan zenbait eraldaketa ortografiko jasanda (ik. BILBAO, J.; op. cit., 458. or.). J. Vinsonek, berriz, Vitorian 1803.ean eginiko argitalpena aipatu ondoren, honela dio: "Ce livre a eu, paraît-il, cinq réimpresions succesives. Je n'en connais aucune édition". VINSON, J.; op. cit., 255. or., 154 zka.

(340) "Se ha editado muchas veces este libro, no siempre con el mismo título" dio Fr. L. Villasantek. Ik. VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 221. or. J. Bilbaoren bibliografiak J.A. Mogeli eskaintzen dion sarreran, eta argitalpen-urteari nahiz argitalpenei dagokienez XIX. mendearen mugen barnean, sei titulu desberdin irakur daitezke: lehenak zortzi argitalpen ezagutzen ditu; bigarrenak, sei; hirugarrenak, hiru; laugarrenak, hiru; bostgarrenak, bat eta seigarrenak, bi. BILBAO, J.; op. cit., 459. or.

(341) "**Testamentu zarreko ta berriko kondaira**, nork eztu ezagutzen?, nork eztu irakurri bein baino geiagotan? (...). Gipuzkoa'n noizbait ere maiz irakurtzen zan. Orain eztakit ainbeste". ORMAETXEA, N. (Orixe); "Euskal-literatura-ren atze edo edesti labuña" in **Euskal Esnalea**, XVII, 1927, 231. or.

chevarriak (342), L. Mitxelenak (343), S. Onaindiak (344), Fr. L. Villasantek (345), I. Sarasolak (346)... Eta argitalpenei dagokionez, bi bider argitaratu zen XIX. mendean bertan (347).

Orixek ez ezik, L. Mitxelenak ere azpimarratu du fikzio-zaletasun falta; hona hemen bere hitzak:

> "La ficción no ha tenido gran cultivo entre nosotros, más allá del relato oral" (348).

Idazlego-irakurlegoak fikzioari emandako tratamendu hori euskaldunen izaerari leporatu zion A. Allende Salazar-ek XIX. mendean bertan:

> "La novela, considerada hoy también como un género poético compuesto, es de todas las manifestaciones literarias la que menos conviene a la índole y genio del pueblo bascongado. Fingir, inventar, hallar en los recursos de la imaginación y de la fantasía elementos

(342) "Pocos libros han sido leídos por el público general tanto como éste, lo cual significa algo a su favor". OMAECHEVARRIA, Fr. I. (Fr. L. Villasante); **Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco**, Editorial Icharopena, Zarauz, 1959, 246. or.

(343) "Agertu ezkero ederki zabaldu zan Gipuzkoa'n barrena **Kondaira** au, beste edozein euskal-liburu baiño geiago bear bada". MITXELENA, L.; "**F.I. de Lardizabal**, TESTAMENTU BERRIKO KONDAIRA EDO HISTORIA. Euskal Idaz-lanak Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1957" in **Egan**, 3-4, 1957, 233. or. **Historia de la Literatura Vascan**, berriz, honela dio: "Es probablemente la obra que ha sido más leída en Guipúzcoa en los últimos cien años" (111. or.).

(344) "Aspertu gabe irakurri du gure erriak: ni txikitxo nintzala, igande arrastietan batez ere, sendiko guztiak sukaldean edo zugaztipean bildu ta aitak irakurtzen zigun zati bat". ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 271. or.

(345) "Por otra parte, si para juzgar del mérito o valor de un escrito cuenta algo el saber la aceptación que su obra ha merecido por parte del público, pocos libros han sido tan leídos como éste por el público euskaldun". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 261. or.

(346) "Gipuzkoan liburu oso irakurria". SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, Lur editoriala, Donostia, 1971, 110. or.

(347) Andres Gorosabel-ek Tolosan 1855.ean eta Eusebio López-ek Tolosan bertan 1887.ean. Ik. VINSON, J.; **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque, 1***, 306. or., 269.a eta 269.b zkak.; nahiz BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, IV, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1974, 593. or.

(348) MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 155. or.

para narrar sucesos que no han acaecido, repugna al temperamento, al carácter, á la **Idiosincrasia moral** del euskaro, que, amante apasionado de la verdad, persigue cruelmente la mentira" (349).

B. Mogelen **Ipui Onac** alegiek, itzulpenak izanik ere, hori dakarte, fikzioaren lehen zantzua, alor hau oso berankorra eta arrakastarik gabea duen literatura batera.

Prosaz itzulitako alegia hauen ondoren makina bat alegigile ezagutuko du euskal literaturak XIX. mendean. Batzutan itzulpenak, bestetan orijinalak, aurrerantzean bertsoz idatziko dira batipat.

Ia euskalki guztiek izango dute alegigileren bat: Juan Mateo Zabala bizkaitarra (350), Leonce Goyetche lapurtarra (351), Jean B. Archu zuberotarra (352), Jose Antonio Uriarte bizkaitarra (353),

---

(349) ALLENDE SALAZAR, A.; "Carácter general de la literatura vasca. Discurso presentado al claustro de la Universidad Central de Madrid en 1878" in **Euskalerriaren Alde**, V, 525. or.

(350) Bilbon jaio zen 1777.ean eta Zarautzen hil 1840.ean. J.M. Zabalak bizkaieraz idatzitako alegiak R.M. Azkuek Pariseko Liburutegi Nazionalean aurkitu zituen A. d'Abbadierenak ziren liburuen artean. Hemen zeuden alegi bilduman hogeitabi jo dira J.M. Zabalarenak, hamaika J.A. Mogelenak, bat Bizenta Mogelena eta beste bat Salaberryrena. (Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 575-578. orr.; baita ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 60-65. orr.).

(351) Leonce Goyetche lapurtarra da, Urruñan jaioa. Baionan 1852.ean argitaratu zuen **Fableac edo aleguiac**, La Fontaine alegigile frantsesaren alegia batzuren itzulpena, bertsoz eta lapurteraz egina. (Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura. Cuerpo B**, II, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1970, 703-704. orr.; baita ONAINDIA, S.; op. cit. 147-148. orr.).

(352) Jean B. Archu 1811.ean Aussurucq-en (Zuberoan) jaio zen. Aurreko biak —J.M. Zabala eta L. Goyetche— elizgizonak ziren; hau, berriz, laikoa da eta lanbidez eskoletako inspektore. La Reolen (Girondan) 1848.ean **La Fontainaren aleghia-berheziak neurthitzez franzesetik uskarara itzuliak** argitaratu zuen, La Fontaineren alegia batzu, zubereraz jarriak. (Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 662-663. orr.; nahiz ONAINDIA, S.; op. cit., 148-150. orr.).

(353) Arrigorriaga 1812-Zarautz 1869. Poesi antologi baten egilea, antologia honetan zenbait alegia ere bildu zituen. Bere alegiak J. Manterolak argitaratu zituen **Cancionero Basco**-n. Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 636-639. orr.; ONAINDIA, S.; op. cit., 79-83. orr.; KORTAZAR, J.; "¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Mogel?" in **Fontes Linguae Vasconum**, N.º 35-36, Pamplona, mayo-diciembre, 1980, 253-257. orr.

Ramon Etxezarreta bizkaitarra (354), Augoustin Etcheberry lapurtarra (355), Agustin Pascual Iturriaga gipuzkoarra (356), G. Adema "Zalduby" lapurtarra (357), Ramon Artola gipuzkoarra (358), Jose Artola (359), Rosario Artola (360), etab.

(354) Durango, 1808-1879. Honen alegien aipamenerako ik. KORTAZAR, J.; "¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Mogel?", 253-257. orr.

(355) Augoustin Etcheberry-ren bizitzaren eta obraren xehetasun gutxi batzu jakiteko, ikus **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 666. or.; eta ONAINDIA, S.; **Euskal literatura. XIX.mendea**, II, 192-193. orr. Liburu horietan aipatzen diren poesiez gain, A. Etcheberryk alegiak ere landu zituen. Ik. "Chorien besta" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1888, 51-53. orr.

(356) Hernaniarra (1778-1851). Donostian 1842.ean argitara zuen **Fábulas y otras composiciones en berso bascongado dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos.** Ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 598-604. orr.; nahiz ONAINDIA, S.; op. cit., 260-265. orr.

(357) Senpere 1828-Baiona 1907. G. Adema "Zalduby"-ren poema asko hil ondoren argitara ziren, batipat **Eskualduna** eta **RIEV** aldizkarietan. Alegiak **RIEV** aldizkarian aurki daitezke "Fables" izenburuarekin eta "Artzain Belcharen neurthizak" azpitituluarekin, II. tomoan, 1908, 757-774. orr. G. Ademaren bizitzaren zertzeladei eta obrari buruzko zenbait berri jasotzeko ikus daitezke **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, II, 157-164. orr.; nahiz ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. Bi menderen artean, 1895-1920**, III, Etor, Bilbo, 1974, 303-313. orr.

(358) Tolosa 1831-Donostia 1906. Bere bizitza eta obrari buruzko zenbait erreferentzia ikus daitezke **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, II, 122-125. orr.; baita ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 287-288. orr. Ramon Artola oso ugaria izan zen poesigintzan. Bere poemarik gehientsuenak J. Manterolaren **Cancionero Basco**-n eta **Euskal-Erria** aldizkarian aurkitzen dira, geroztik bildumaren bat argitaratu bada ere —**Sagardoaren graziya ta beste bertso asko**, Auspoa liburutegia, 1, Tolosa, 1961—, gehientsuenak barreiaturik daude. R. Artolaren zenbait alegia aurki daitezke **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1884, "Euskarazko Ipui berriyak" izenburupean, 41-58. orr.; **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1885, "Ipuiak" izenburupean, 27-59. orr.

(359) Donostia 1864-1929. Bizitza eta obraren zertzeladatarako ik. **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, II, 407-411. orr.; nahiz ONAINDIA, S.; op. cit., 224-226. orr. Idazle oparoa, bere produkzio zabalaren barnean alegia ugari ere idatzi zuen. Hauetako batzu Donostiako Lore-jokoetan saritu zituzten. Ik. "Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1886, 55-66. orr.; "Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1887, 37-42. orr.; "Bizi bedi Euskera" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1888, 39-49. orr.; "Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1889, 51-56. orr.; "Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1890, 33-42. orr.

(360) Ramon Artolaren alaba eta Jose Artolaren arreba zen Rosario Artolak ere idatzi

Testu-mota hauekin zabalduz doa euskal literatura idatziaren esparrua: idazleek beste testu-mota batzu eskaintzen dituzte eta irakurlegoa hain xede praktikoa ez duten testuak irakurtzera "ohitzen" hasten da.

Kronologikoki behintzat, alegien ondotik datoz leiendak euskal literaturara, tartean **Atheka gaitzeko oihartzunak** eleberri-itzulpena, esana dagoenez.

Leienda hauek malgutasun-prozesu bateko partaide bailiran datoz, piskanaka-piskanaka helburu praktikoak ez dituzten testuak idaztera eta irakurtzera geroz eta gehiago joko balitz bezala, nahiz eta XIX. mende osoan, eta beranduago ere, moralizatu beharrik ez den faltako.

Nolanahi ere, alegietatik leiendetarako tarte horretan elkarrizketa batzu idatzi ziren, formaren aldetik **Peru Abarca** gogarazten dutenak, nahiz eta hau artean argitara gabe egon: A.P. Iturriagaren **Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa** (1842), J. Duvoisinen **Laborantzako liburua edo Bi aita semeren solasak laborantzaren gainean** (1858), J. Bermingham-enak (361) izan daitezkeen **Mañubel eta Pachicu, Terescharen zucaldea,**

zuen alegiaren bat edo beste, nahiz eta bere literatur produkzioa urria izan. Ikus, esate baterako, "Ipuiyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1892, 31-36. orr.

(361) Elkarrizketa hauen egiletza eztabaida-iturri da. S. Onaindiak honela dio zazpi "idaztiñoen" (ez bosten) izenburua, argitalpen-lekua eta argitalpen-urtea eman ondoren: "Zazpi liburutxo auek Donosti'ko Bermingham jaunak bere arduraz ta diruz argitara zitun". ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 162. or. Baina noren diru-laguntzarekin argitara ziren jakiteak ez du egiletzaren jatorria konpontzen. S. Onaindiak berak dio Agustin Jauregi Berrezueta (1838-1905) izan daitekeela liburu horien egilea: "Gorago aitortu dugunez, Prantziako matxañada aldian liburuxka batzuk argitaldu ziran Baiona'n, orduko gora-bera latzak zigorkaraziz: **Patxiku eta Mañubel**, eta abar. Idazkeratik agiri danez gipuzkoar baterenak ote diran esan da; baita ba litekela Agustin Jauregi'k egiñak izatea ere. Bozas Urrutia'k, ordea, Birmingham jaunarenak dirala diosku, Vinson'ek dioenez agertazari ez-ezik, idatzi ere donostiar orrek egin zizkigula. Egia ote?". ONAINDIA, S.; op. cit., 310. or.

Jon Bilbaok ere Joaquin Bermingham (1815-1885) jotzen du liburuska horien egiletzat. Ik. BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia**, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1970.

Guk gure aldetik honako hau erantsi nahi genuke: Tomas Bermingham-ek 1901.eko abenduaren 9an Antonio Arzac jaunari igortzen dion eskutitz batean bere aita jotzen du egiletzat; hobeto esanda, ez du zalantzarik ere agertzen pun-

Bi ganbarac, Pello Mariren ganbara, Mañubelen eta Pachicuren bigarren berriqueta (362).

tu honetan: "Hace ya 32 años —esto ocurría en 1869— que mi difunto padre (q.e.p.d.) escribió 5 folletos en vascuence, los cuales fueron repartidos gratis, por toda la provincia de Guipúzcoa". (Ikus VIII. atalean 3. eranskina).

(362) Tomas Bermingham-ek A. Arzac-i igorritako eskutitzean bost liburuska aipatzen ditu; eta hain zuzen, eskutitzean dioenez, bost hauek bezuza modura eskaini zizkion: "pues tengo el mayor gusto en regalarle un tomito que contiene dichos folletos". (Ikus VIII. atalean 3. eranskina).

Bost horiek honako hauek dira:

Mañubel eta Pachicu, argitalpen-lekurik gabe, 14 orrialde.

Terescharen zukaldea. Pachicu, Mañubel, Teresha, D.° Pablo eta Josche Domingo, alcarrequin berriquetan, Bayonne, Imp. de Veuve Lamaignère, 32 orrialde.

Bi ganbarac, Bayonne, impr. E. Lasserre, 16 orrialde.

Pello Mariren ganbara, Bayonne, impr. E. Lasserre, 16 orrialde.

Herejien eta bezte gauza batzuren gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta, Impr. Veuve Lamaignère, 32 orrialde.

Ez du batek berak ere argitalpen-urterik; aldiz, J. Vinson-ek eta J. Bilbaok bakoitza bere argitalpen-urtearekin ematen dute; urte horiek aipatzean erabilitako ordenari jarraiki, honako hauek dira: 1868, 1869, 1869, 1870, 1869.

J. Vinson-ek eta J. Bilbaok emandako erreferentzia bibliografikoak ere ez dira berdinak. Hona bien arteko desberdintasunak:

• J. Bilbaok J. Vinson-ek baino liburuska bat gehiago aipatzen du: **Herejiac escaldunen artean.** —Bayonne: Vve Lamaignère, 1868— (14 pp., 14 cms.). **Herejiac euskaldunen artean.** —Bayonne: Vve Lamaignère, 1868— (16 pp., 14 cms.). T. Bermingham-ek A. Arzac-i bidalitako liburuan, titulu hau, urte berean bi argitalpen ezagutu zituena, **Mañubel eta Pachicuren** kontrazala besterik ez da.

• Jon Bilbaok **Erligio eguiazcoaren siñaleak eta protestanteen liburuak iracortzeko debecua. Tartean ejemplo batzuequin** liburuskaren bi argitalpen aipatzen ditu, J. Vinson-ek bat. J. Bilbaok J. Vinson-enari zera eransten dio: Donostian, Roman Goñi, 1869 (17 pp. 20'5 cms.).

Bi titulu hauei **Josché Miguelen ganbara** —Bayonne: E. Laserre, 1869— (16 pp.) erantsi behar zaie guk aipatutako bost liburusketatik J. Vinson-ek aipatutako zazpietara eta J. Bilbaoren zortzietara heltzeko.

A. Allende Salazar-ek sei titulu aipatzen ditu: hain zuzen, **Pello Mariren ganbara** falta da J. Vinson-en zazpietara heltzeko.

Azkenik, **Mañubel eta Pachicu**-k ere gutxienez bi argitalpen ezagutuko zituela erantsi nahi genuke. Bai J. Vinson-ek, bai A. Allende Salazar-ek, bai J. Bilbaok **Pachicu eta Mañubel** tituluz ematen dute; aldiz, T. Bermingham-ek A. Arzac-i emandakoaren titulua **Mañubel eta Pachicu** da. Ik. VINSON, J.; **Essai d'une bibliographie de la Langue Basque**, 1*, 343-344. orr., 385-391 zka.; ALLENDE SALAZAR, A.; "Carácter general de la literatura vasca. Discurso presentado al claustro de la Universidad Central de Madrid en 1878" in **Euska-**

A.P. Iturriaga Basilio maisuaz eta honen ikasle Antonioz baliatuko da gai desberdinei buruzko ihardunaldiak emateko hogeitahiru "jolasetan": nekazaritza, izadia, etab. Basilio eta Antonioren elkarrizketagai bihurtuko dira ingumak, erleak, gurin, olio eta gaztaren elaborazio-modua, idi, zezen, behi, arkume, zerri, untxi, hodeien sortze-modua, etab. J. Duvoisin, berriz, aita-semeen arteko elkarrizketaz (363) baliatzen da laborantzari buruzko ihardunaldiak eskaintzeko; berrogeitalau kapitulutan lurrak, ganadua eta arbolak bihurtzen dira elkarrizketagai, nahiz eta agian "bakarrizketagai" terminoa egokiagoa izan, semea noizbehinkako hizpidea sortzen duten galdera edo komentarioez gain, entzule sotil izatera mugatzen bait da, aita hizlari bikain den bitartean. J. Bermingham-ek liberalek defendatzen zituzten printzipioen aurka joateko idatzi zituen elkarrizketak (364); eta Gipuzkoa osoan behintzat debalde banatu ziren (365). **Peru Abarcak** bezala, 1868.etik 1870.era bitartean argitaratutako liburuska hauen egileak ere egokitzat jo zuen elkarrizketa-forma bere baitan zuen helbururako: ideia batzuren alde propaganda egin.

---

lerriaren Alde, V, 525. or.; BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia,** I, 566. or.

(363) P. Altunak dioenez, A.P. Iturriagaren elkarrizketek erne zezaketen J. Duvoisinengan **Laborantzako liburua** idazteko nahia: "Londresen 1857an Iturriagaren **Euskal jolasak** edo ('Dialogues basques') argitaratu zuen Bonapartek; ez, ordea, hark idatzi bezala gipuzkeraz bakarrik, baizik bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz ere bai, eta gainera gaztelerazko eta frantsesezko itzulpenez osaturik, guziak liburu bakarrean eta orrialdez orrialde elkarren ondoan sei testuak ezarririk. Lapurterazko itzulpena edo moldaketa Duvoisinek prestatu zuen, bai eta frantsesezko itzulpena ere, eta Intxauspek zubererazkoa. Hori dela eta, askok esan izan dute liburu horren ezagutzeak ernarazi ziola apika **Laborantzako liburua** idazteko gogoa. Badu uste horrek egi antzik, noski, eta ez bien argitalpenek urtebeteko aldea baizik ez dutelako bakarrik, ezpada bi liburuen edukia eta gaia alde askotatik txit antzekoa delako ere bai". ALTUNA, P.; "Duvoisin" in DUVOISIN, J.P.; **Laborantzako liburua edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean,** Kriselu Editoriala, Donostia, 1986, 24. or.

(364) "Elles avaient pour but de faire une propagande active contre les principes libéraux et contre la liberté des cultes accordée à la suite de la Révolution du 29 septembre 1868". VINSON, J.; **Essai d'une bibliographie de la Langue Basque, 1*,** 344. or.

(365) "los cuales fueron repartidos gratis, por toda la provincia de Guipúzcoa" dio T. Bermingham-ek A. Arzac-i igorritako eskutitzean. (Ikus VIII. atalean 3. eranskina).

J.A. Mogelen ispilu, Luis Vives balentziar ernazentistaren (366) elkarrizketak izan baziren, hiru hitz giltzarrik liluratuta: "ikasteko", "erakargarri", "elkarrizketa" (367); horiek beroriek izan daitezke A.P. Iturriagarengan, J.P. Duvoisinengan eta J. Bermingham-engan lilura sortu zutenak (368).

Zer esanik ez dago, J. Bermingham-en liburuskek ere ez zutela sakondu **Peru Abarcarekin** hasitako elkarrizketa lantzeko bidea. Elkarrizketa, nahiz luze batzutan, nahiz labur bestetan, zuzen-zuzenean abiatzen da helburua lortzera: "herejiei" borroka egin. Horretarako bitartekorik minimoenak erabiliko ditu: elkarrizketak eskatzen dizkion pertsonaiak soilik; xede hori betetzeko sobran ditu gainontzeko koordenada narratiboak: lekua —kasuren batean tituluan bertan egongo da, **Terescharen zucaldea**-n, esate baterako; edo sarrera gisa dagoen akotazioan, **Bi ganbara** deritzanean— nahiz denbora —sarrera gisa dagoen akotazioren batean, **Bi ganbarac** titulutzat daramanean, esate baterako—; elkarrizketa espazio-denborazko koordenada batzutan lekutzeko besterik ez du erabiliko, beti ere elkarrizketen jomuga helburu. **Peru Abarcan** lekua Peruren zerbitzutan eta Maisu Juanen galeratan zegoen bezala, Peru "maisu" izan daitekeeneko lekuetan bakarrik ibiltzen bait dira, liburuska hauetan ere, **Bi ganbarac** deitutakoan, esate baterako, elkarrizketaren helburuaren zerbitzutan egongo da: sagardotegia leku aproposa bihurtuko da familia erakunde gisa defendatzeko, baita azken honen aurrean hartzen den jarrera ere, sagardotegian hartzen denari kontrajarria; oso desberdinak dira Josché Miguelen "ganbara", etxea, eta Josché Inaschiorena. Denbora ere

---

(366) Xehetasun gehigotarako, ik. ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. Edad Media y Renacimiento**, I, 627-628. orr.

(367) Honela dio A. Zelaietak J. Antonio Mogelen **Peru Abarcari** buruz diharduela:

"Hitzaurrean ere garbi asko uzten du zein ispilutan begiratzen duen eta zein literatur genero hartzen duen:

'el célebre Juan Luis Vives dió a luz su aplaudida obra del ejercicio de la lengua latina, con el designio de que se exercitasen los jóvenes en el buen gusto de ella (...). Se valió para el efecto del atractivo que trae de sí el diálogo' (...).

Hiru hitz ditugu, beraz, klabeak: 'aprendiese', 'atractivo', 'diálogo'". ZELAIETA, A.; **Peru Abarcaren berrirakurketa**, 80. or.

(368) Dena den, jakina da elkarrizketa ez dela Ernazimenduaren aurkikuntza, nahiz eta ez den batere harrigarria aldi honetan elkarrizketa lantzea, kontuan izanik lilura bizia sentitu zuela mundu klasikoagatik. Grezia Klasikoak elkarrizketa erosotasunez landu zuen, gizakia alor batean edo bestean jazteko.

balore horien defentsaren funtziotan egongo da: Josché Miguel berandu erretiratzen da etxera, halamoduzko giroa dagoen etxera; Josché Inaschio, berriz, goizago, bakea eta ohitura onak gidari dituen bere etxe atseginera.

Ideia baten arabera eraikiak, mutur batean ala bestean kokatzen dira pertsonaiak; ez dituzte berez ekintzen bidez azaltzen beren kualidadeak eta ezaugarriak; aitzitik, esakuntzek, esaten dituztenek, determinatutako pertsonaiak dira: esaten dutenaren subjetu dira ekintzen subjetu baino gehiago (369).

Euskal prosa narratiboaren sorrerako ibilbide honetan, leiendek emango dute kronologikoki hurrengo urratsa. Batipat Donostiako Lore-jokoen inguruan sortuak, Lore-joko hauen "oroimengarriak" eta aldizkariak izango dituzte argitalpen-leku.

Peru Abarca eta alegietan hastapenak ezagutu dituen marko narratiboak garapen konplexuago baten lehen urratsak emango ditu leiendetan eta, batipat, eleberri laburretan eta lehen eleberrian XIX. mendearen azken laurdenean.

Xehetasun handiagoz jantziko dira alegietan ozta-ozta aipatutako ekintza garatzen zeneko koordenadak. Gehiago deskribatuko dira leku-denborak, deskripzio honi kontaketan funtzionaltasuna bilatuz, gainontzeko elementuekin batera elementu esanahitsu bihurtuz, pertsonaiak ñabardura handiagoarekin karakterizatuz...

Edonola ere, leiendetan eta eleberri laburretan **Peru Abarcan**, eta zer esanik ez alegietan, ikusitako joerak jarraituko du: helburu didaktiko batzuren menpe jartzen da marko narratiboa. Leiendei eta eleberri laburrei zerbait iradokitzea baino gehiago esatea eskatzen die morrontza horrek: ahalik eta gehien agortzea zalantza-iturriak, anbiguotasun-iturriak.

Narrazioa ekintza sinple batzu kateatzera zuzentzen da batipat, eraikiz doan matazaren berri ematera, matazaren guneak kontatzera. Honek ondorio bat dakar: pertsonaiak txotxongilo huts bihurtzea,

(369) J.M. Lasagabasterrek **Peru Abarcako** pertsonaiei buruz esanikoa bete-betean aplika dakieke liburuska hauetako pertsonaiei: "Ekintzarik ia ez dugu, eta horregatik pertsonaiak, ekintzaren, enuntziatuaren, gertariaren sujeto, eragile bezala baino, enuntziapenaren, narrazioaren sujeto bezala askoz gehiago agertzen dira". LASAGABASTER, J.M.; "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 354. or.

ezaugarri baten edo biren arabera eraikitako txotxongilo, gizaki legez izan dezaketen konplexutasunik gabeak; eta gertaeren iraupenaren denbora bereziki gune horiek kontatzeko erabiltzea.

XIX. mendeko euskal kontalariek ekintzak behar dituzte, ekintza eta jokabide eredugarriak, edo bestela zigorrak jasoko dituzten gaiztakeriak edo eskarmentua jasoko duten bihurrikeriak; mundu manikeo bat, hitz batean. Ez dago tarterik, ez dago erdibiderik.

Aurreko alegiek —Bizenta Mogelenak, prosan— eta elkarrizketek eskainitako marko narratiboaren hastapenak garapen txiki bat ezagutuko du leienda hauetan.

Orohar esan dezakegu —edozein orokortze-prozesuk mugen ñabardurak izkutatzea bait dakar— leiendetan ez dela hain erabatekoa aurreko testuen koordenada narratiboen funtzionaltasuna; ezta hain osoa ere, testuaren helburuekiko menpekotasuna edo hain aitzakia huts, testuen xedearekiko lotura. Txikia bada ere, testuak badu nolabaiteko jomugekiko autonomiarik eta nortasun handiagoa hartzen du elementu iradokitzaile bezala, nahiz eta behin eta berriz errepikatutako erlatibotasunaren kontzeptura jo beharra dagoen; izan ere, aurrerapausua ematen dutela baieztatzen den une berean esan behar bait da ez direla iristen —ezta urrik eman ere— mundu autonomoaren sortzaile izan daitekeen elementu izatera. Euskal baserria, euskal mendiak, euskal itsas portuak; bizitza oso bat, gertaera batek irauten duen denbora; pertsonaia onak eta pertsonaia gaiztoak subjetu dituzten ekintza noble eta ekintza arbuiagarriak... izango dira leienda hauen osagai. Hauek erabat modu manikeoz erabiliz, zenbait identifikaziotarako aproposak bihurtuko dira.

Nolanahi ere, berrikuntzaren ezaugarri dira kontalari baten presentzia —elkarrizketek ez zuten, nahiz eta B. Mogelen alegi itzulpenetan azaldu—, lehen itxura batean "ezertarako balio ez duen hitz-orea" testuratzea, leku-denboren koordenadak, pertsonaiak, ekintzek izango duten desarroiloa..., nahiz eta oraindik oso urrun dagoen euskal prosa narratiboaren xede didaktiko ororekiko autonomia.

Beraz, oraingoz behintzat, jomuga didaktikoen zerbitzutan jarraituko du marko narratiboak.

Leienda hauek eraikitzen hasitako prozedura narratiboen ildotik etorriko dira euskal erlatu luzeagoak: eleberri labur edo eleberriak.

Peru Abarcako, leiendetako, eleberri laburretako eta lehen eleberrietako pertsonaien ekintzak ez dira hirietan garatuko. Pertsonaia horiek mendietan, baserrietan eta herrietan bizi dira, eta hor kokatuko dira beren ekintzak.

Zenbait leienda historikotan, "Orruel arpeko zuhurra", "Andeka", "Zarauzko ondekidatzea" eta abarretan, egiantzekotasuna gorde nahiak eska zezakeen lekutze-modu hori; izan ere, leienda horiek kontatzen dituzten ekintzak VIII. mendean gertatzen bait dira eta euskal gizartea lekugune horietan bizi bait zen orduan.

Egiantzekotasuna eta gertaera historikoekiko fideltasunik izan nahiak eragin dezake jokabide bera mende batzu beranduagoko gertaerak ere kontatzen dituzten leiendetan; hala nola, jazoerak XV. mendean kokatzen dituzten "Euskaldun bikaiñ bat" edo "Kontu zarrak" leiendetan.

Dena den, zenbait zehaztasun erantsi beharko litzaioke esandakoari: pertsonaiak, hauen ekintzak, ekintza hauek jazotzen direneko lekua eta garaia elkarri hertsiki loturik eta elkar baldintzatuz dauden lau elementu dira.

Leiendetan Euskal Herriaren une historiko garrantzitsuren batean bertan sortutako hainbat gizon ospetsuren bizitza kontatzen da, leienda izateaz baliatuz: kontatzen denak nahitanahiez horrela gertatutakoa izan beharrik ez daukanez, egilearen esku gelditzen da jazoera historiko zehatzen "fikzionalizazioa", datu historikoari orpoz orpo jarraitu gabe.

Leienda historiko hauetan Euskal Herriaren "historiaren" hainbat eta hainbat pasarte irakur daitezke: bere "sorrera" —"Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera"—; erromatarrekin eta Karlomagnorekin izandako gerrateak —"Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste", "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak", "Euskaldunen bikaiñtasuna" (itzulpena), "Antziñako nafar-mendiko oroitz bat"—; mairuen etorrerako zenbait gertaera —"Zarauzko ondekidatzea"—; Erdi Aroan Ahaide Nagusiak protagonizaturiko zenbait gerrate —"Kontu zarrak"—, etab.

Aipatutako leienda guzti hauetan elkarri estu lotuta daude pertsonaiak, hauen ekintzak eta ekintzak garatzen direneko lekua eta garaia. Horrela, "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera"-k, Aitorrek Ararateko mendietatik Euskal Herrira heldu bitarteko ibi-

laldia kontatzen du eta honako hauek dira gertaeren kokaleku: bidaia luze horretako zenbait geldiunetako espazioak —Kaukasoa— eta Pirineo mendietan sustraiak bota arte egindako bidekoak. Erromatarrekin eta Karlomagnorekin izandako gudek, berriz, euskal mendiak izango dituzte gertaleku: "zelai bat basoz eta mendiz inguratua" (370), Hernioko tontorra (371), Nafarroako mendiak (372), etab. Erdi Aroan mendietatik baserri ala dorre-etxeetara jaitsiko dira gertaerak —"Kontu zarrak"—.

Mendia bihurtzen dute gertaleku pertsonaiek [euskaldunek eta hauen buruzagiek: Lekobide, Otzoal (373), Aitzondo, Osiñalde (374), Lekobidi, Zara (375) eta abarrek], hauen ekintzek (kanpotik Euskal Herria zapaltzera datorren arrotzari eman behar zaion erantzuna erabaki eta ondorengo gerraren desarroiloak) eta jazoeren garaiek.

Erdi Aroan —"Kontu zarrak"— euskal gizartearen bizilekuaren eta bizimoduaren eboluzioarekin, aldaketak soma daitezke bai pertsonaietan (Ahaide Nagusiak, olan lan egiten duen Juan Antonio, etab.), bai ekintzen gertalekuetan (baserria, dorre-etxeak, herriak).

Historian aurrera, herriek eta euskaldunen bizimoduan garrantzi handia izan duen itsasoak eta itsas ertzetako herriek kenduko diote protagonismoa mendiari: Zumarraga, Areizaga etxea, eta etxe honetako seme baten ibilerak itsasoan Ameriketara bidean —"Euskaldun bikaiñ bat"—; Getaria, Elkano, eta honen ibilerak itsasoan —"Antziñako gertaerak"—; Donostia, Okendo, eta honen ibilerak —"Okendoren eriotza", "Okendo"—.

Hemendik aurrerako mendeek, XVII.ak, XVIII.ak edo XIX.aren hastapenek, ez zituzten XIX. mende-bukaerako leiendagi-

---

(370) Ik. CAMPION, A; "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 1881, 20. or.

(371) Ik. ARRUE, G.; "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1882, 35-45. orr..

(372) Ik. LOPEZ eta ALEN, F.; "Antziñako nafar-mendiko oroitz bat" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1890, 19-24. orr..

(373) Ik. ARRUE, G.; op. cit., 35-45. orr.

(374) Ik. ARRUEKO, F.I.; "Euskaldunen bikaiñtasuna"in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1886, 19-24. orr.

(375) Ik. CAMPION, A.; op. cit., 19-28. orr..

leak liluratu, ez bait dira, ez, mende horietako gizon ospetsuen ekintza loriosoak, ez orohar euskaldunenak kontatuko; bai, ordea, euskaldun arruntaren gertaerak, aparteko ospea emango ez dion ekintza loriosorik egin ez duenarenak —ez bada zintzotasunez bizi—. Gertaera hauek baserria, ola... izango dute jazoeren gertaleku, nahiz XVII. mendekoak izan —"Pachi ta Konchesi"—, nahiz XVIII.ekoak —"Malko bedeinkatuak"—, nahiz XIX.ekoak —"Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala"—, nahiz denboran kokatu gabeak —"Gurasoaren zigorra"—.

Nabaria da leienda historikoetan historiaren denboraren eta idazketaren denboraren arteko aldea. Eta diferentzia honek justifika ditzake gertaeren eszena-lekuak. Baina horren ondoan leiendagileen jokabidea azpimarratu behar da: ez dute hautatzen idazketaren denborako gertaerak kontatzea, ezta lehenaldi hurbilekoak ere; aitzitik, urteen aldea bilatzen dute bi denboren artean, eta honek, noski, baldintzatu egiten du gertaeren eszena-lekua. Baina idazketaren denbora zehazten ez denean ere, aipatzen diren gertaerak lehenaldi hurbilekoak izan daitezkeenean ere —"Gurasoaren zigorra"—, baserria hautatzen da.

Ildo beretik etorriko dira euskal eleberri laburrak eta eleberriak: idazketaren eta historiaren denboren artean alde handiagoa nahiz txikiagoa egon.

R.M. Azkuek **Bein da betikon** itsas ertzeko herri bat dakar; J.B. Elissanburuk **Piarres Adamen** Olhetara egindako joan-etorria eta festa-giroan dagoen herri hori; D. Agirrek **Auñemendiko Lorean** "Auñemendi" mendiak. Hogeigarren mendearen hastapenek egoera berbera erakusten dute. D. Agirrek Arranondon, itsas ertzeko herri batean, lekutuko ditu gertaerak **Kresalan** (1906); beranduago baserrian **Garoarekin** (1912). J.M. Etxeitak ere ez dio uko egingo arrantzale nahiz baserri-giroari **Josechon** (1909), ezta ere artzain-giroari **Jaioterri Maitian** (1910).

Euskal Herriko gizartea transformazio sakonetan murgilduta dago leienden idazketa-garaian, eleberri laburren idazketa-garaian, lehen eleberrien idazketa-garaian. Aipatuak ditugu industrializazioaren sorrera eta honek eragindako aldaketa ekonomikoak eta sozialak, eta industrializaziotik sortzen den burgesia eta proletargoa; baita inmigrazioak dakarren industriaguneen hazkuntza demografikoa eta lehen sektorean lan egiten duten guneen beherapen demografikoa

edo hazkuntzarik eza ere. Baina, aldaketa horien garaian idatziak izanda ere, euskal leiendek, euskal eleberri laburrek eta lehen eleberriek ez dituzte fikziozko prosara transformazioak eramango; baizik eta "iragandako denborak", "iragandako pertsonaiak", "iragandako ekintzak" eta "iragandako lekuak". Transformazio berriei uko eginez, "ahitzen ari diren denborek", "ahitzen ari diren pertsonaiek", "ahitzen ari diren ekintzek" eta "ahitzen ari diren lekuek" izango dute protagonismoa kontaketa historikoetan eta behin edo behin lehenaldi hurbilean kokatzen direnean: **Kresala, Garoa**, etab.

Nolabait, leiendekin eta eleberriekin euskal gizartearen "historiaren" zertzeladak kontatzen hasi ziren leiendagileak eta eleberrigileak. Ekialdetik ekarri zuten Aitor gizarte hori sortzera, mendietan bizitzen jarri zuten euskalduna, nekazal eta arrantzale-herrietara jaitsi zuten; baina ez zuten hirira, industriaguneetara, eraman.

Euskal baserrian —"Pachi ta Konchesi", "Gurasoaren zigorra" etab.—, euskal mendietan —"Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak", "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera", etab.—, euskal itsas portuetan —"¡Arrantzalia!", "Buruazurra", etab.—, euskal herrisketan —"¡Aztua!"—, lekutzen diren leienden ildotik lekutuko dira euskal eleberri labur eta eleberriak ere euskal baserri-mendietan —**Auñemendiko Lorea**, beranduago **Garoa** (1912)—, euskal itsas portuetan —**Bein da betiko**, beranduago **Kresala** (1906)—, euskal herrisketan —**Piarres Adame, Peru Matraka ta Pedr'anton**—; noiz eta hiria, batipat Bilbo eta bere inguruak, herriei nagusitzen hasten zaien garaian, industria eta meatzetako lana, nekazaritzari, arrantzari eta olei nagusitzeko lehen urratsak ematen ari denean. Leku horietan bizi edo gertaeraren baten protagonista diren pertsonaiak toki horiek bere-bereak dituzten ekintzen subjetu edo jasale dira: gurasoen baimena behar dute ezkontzeko; baimena lortzean ezkontzen dira; kristau-bizitza bizi behar dute eta kristautasunean seme-alabak hazi eta hezi, baserrian gogotik lan eginez.

Ontasun-, bake- eta kristautasun-giroan sortzen da noizbehinka gatazkaren bat: gurasoei zor zaien errespetuan eta kristautasunean heziagatik, seme-alabak eskortatik ateratzea; Ama Birjinaren laguntzaz ekaitzetik onik irtetea edo bizitza galtzea; pobrezian bizi beharra arrantza gutxiko garaian; pasadizo irrigarriren bat, kontagarriren bat... Eta kontalariek kontatu egingo dituzte. Baina azkenean ontasunak gaiztakeria menperatuko du, berriro oreka lortuz. Eta irakurleak

aukera izango du horren lekuko izan eta bere bizitzarako probetxuzko ikasgai bat ateratzeko.

Leiendek kontatzen dizkiguten ekintza-mota hauek igaroko dira eleberrietara. Horra hor **Piarres Adame** eleberri laburrean Piarresek Olhetara-ko bidean bidailagun duen mutikoari kontatzen dizkion pasadizoak; edo **Bein da betikon** Txantoni sartzen dioten ziria, Txilik jasotzen duen eskarmentua eta ondoren onartzen duen alabaren ezkontza; edo **Auñemendiko Lorean** Riktrudisek hainbat komeriaren ondoren atzerritarrarekin ezkondu eta senarraren heriotzaren ondotik hiltzaileari barkatzea. Ontasun-, bake- eta kristautasun-giroan, sortzen da gatazkarik; esate baterako, Piarresek kontatzen dituen istorioak; Txantoni sartzen dioten ziria; Riktrudis atzerritar batekin, frankotar batekin, ezkontzea euskaldun zenbaitek ez ametitzea. Baina ontasunak gaiztakeria menperatuko du azkenean: Piarresek bere istorioetako bihurrikeriak ordainduko ditu, Txantonek eta Txilik eskarmentua jasoko dute, Kattalinek lortuko du mandazainarekin ezkontzea, Riktrudisek lortuko du Portun kristautzea. Berriro oreka lortuko da eta irakurleak izango du bere bizitzako jokabideetarako probetxuzko ikasgaia ateratzeko aukera.

Ekintza sinple horietan ari da garatzen euskal prosa narratiboa, protesta-oihurik atera gabe; noiz eta euskal baserritarra bizi ahal izateko etxetik irten beharrean aurkitzen denean (376), sektore primarioa eta honetan lan egiten duten euskal herrietako bizilagunei eta artisauei industrializazioa irenstera datorkienean.

Denboraren tratamenduari dagokionez, berriz, inoiz ez da den-

---

(376) MOVIMIENTOS DE POBLACION 1850-1920

1. ZONAS DE POBLACION AUMENTADA
   Zona costera:
   BILBAO-GALDAMES ..... 456 por ciento
   BILBAO 527
2. ZONAS DE POBLACION DISMINUIDA
   Guipúzcoa y Vizcaya rurales ..... 11 a 17 por ciento

"Entre los campesinos de Guipúzcoa y Vizcaya la disminución de la población no fue mayor porque buena parte de los caseros pudieron seguir habitando en el caserío gracias a las nuevas industrias locales: trabajando en ellas, aportaban al caserío dinero para sostenerlo, que compensaba la crisis en la producción agrícola". BELTZA, (E. López Adán); **El nacionalismo vasco. 1876-1936**, 64. or. Biztanlegoaren mugimenduei buruzko datuak ez ditugu guztiak hartu; aipatutako liburuaren 63. orrialdean ikus daitezke.

bora psikologikorik testuratuko. Oso desberdina da leiendetan, eleberri laburretan eta eleberrietan gertaeren iraupena. Batzuk urteak eta urteak irauten dute —"Gurasoaren zigorra", "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera", "Pachi ta Konchesi"—, beste batzuk hilabeteak —"Okendoren eriotza"—, edo egun bat —"Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala"—.

Oso urriak dira denbora-markak orohar. Eta salbuespen bakarren bat salbuespen, ez dago ekintzek edo gertaerek zenbat denbora irauten duten zehazterik.

Gertaerek iraupen luzea dutenean, egun zehatz batzu aipatzen dira batzutan. Data zehatz hauek aparteko xehetasunekin kontatzen dira eszenaren eta pausaren erabilerara joz, laburpena nagusi duten kontaketa horietan. Gertaeren iraupen luze horretan kontalariak hautatzen dituen egunak jazoera bereziak eta eredugarriak erakusteko aproposenak izaten dira: "Okendoren eriotza" leiendan, Corpus-Christi eguna; "Pachi ta Konchesi" leiendan, agorraren zortzia; "Malko bedeinkatuak" leiendan, San Juan txiki eguna; "Antziñako gertaerak" leiendan, San Anton eguna; etab.

"Okendoren eriotza" leiendako gertaerek hilabete eta egunen bat irauten dute. Egun zehazgabe batean Okendo Donostiara heltzen da. Egun hau luzatuz doa narrazioan, pausa, eszena eta kontaketa erretrospektibo bat erabiliz. Maiatzaren egun zehazgabe hori deskribatuz hasten da kontalaria. Ondoren Dama Maria de Lazkanoren, Okendoren emaztearen, eta neskamearen arteko elkarrizketa etorriko da; bertan neskameak berria ematen dio: Okendo Donostiara heldu da. Okendori egindako ongi etorria Donostian, etxean, Manteo-tolare etxean; Migel de Hormak Iruñeko kapitainak Okendoren itsas ibilera loriosoez egindako kontaketa erretrospektiboa... horrela "betetzen" da leku narratiboa "Okendoren eriotza" kontaketa osatzen duten zortzi orrialdeetatik sei ahitzeraino. "Illabete bat igaro zan" (377) esaldiak Corpus-Christi egunera darama kontaketa. Elipsi esplizitu horren ondoren, berriro ere pausa eta eszena datoz: Coruñaren deskripzioa, Okendo hilzorian dagoen gelaren deskripzioa, Okendok azken orduetan Aita Henaorekin dituen elkarrizketak. Kontalariak denbora-epe horretan bi egun hautatzen ditu "zabal erakusteko", gainontzeko egunak elipsira eramanez; zerbait "berezia" gertatzen dene-

(377) Ik. CAMPION, A.; "Okendoren eriotza" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, 522. or.

ko egunak dira, gertaera eredugarriak erakusten dituztenak. Eta isilean gordetzen du ezer "berezirik" jazo ez deneko hilabetea —Okendo Donostiatik Coruñara doa—, ez bait du gertaera "eredugarririk". Berezia da denbora luzea itsasoan igaro ondoren Okendo Donostiara heltzen deneko eguna; eredugarriak eskaintzen zaion harrera eta itsasoan egin dituen ibilerak; berezia eta eredugarria heriotz-eguna, kristau-sinismenean tinko hiltzen erakusten bait du kontalariak Okendo.

"Malko bedeinkatuak" leiendan hilabete batzutakoa da gertaeren iraupena: negu batetik (1756.ekoa) abuztuaren 29rarte, San Juan Txiki egunera arte, irauten du ekintzak. Baina kontaketa honetan ere negu horretako gau batek, "Basotarra" baserri batera heldu zenekoak, eta San Juan Txiki egunak hartzen dute luzerarik handiena narrazioan, pausaren, eszenaren eta kontaketa erretrospektibo bat direla bide. Nahiz batak nahiz besteak gertaera "eredugarriak" erakusten dituzte: neguko gauak, Basotarra heltzera doaneko baserriko giro langilea, baketsua, Basotarrari egiten dioten harrera ona...; ondoko egunak eta hilabeteak, berriz, labur-labur ekarriko dira narraziora, Basotarrak inguruko basoetan zeraman bizitza misteriosoa kontatzeko anekdotaren batekin edo besterekin; eta San Juan Txiki egunean berriro "luzatu" egingo da narrazioa, pausaren, eszenaren eta Basotarrak egindako kontaketa erretrospektiboaren bidez. Gertaera "bereziak" eta "eredugarriak" egun honetakoak: inguru haietako beste askorekin batera Hernio gainera doa Basotarra, eta hemen, Gurutzearen aurrean, itxuraldatu egingo da: lehengo tristurak eta eraman ezinak, alaitasun eta eramankortasun bihurtuko dira. Transformazio honen ondoren, gauean, bere bizitza kontatuko die ingurukoei: zerk sortzen zion lehengo egoera eta nola lortu duen Hernio gainean aldaketa.

Aipatutako gainontzeko leiendetan ere nabaria da joera hau: narrazioa luzatu egiten da fikzioak irauten duen denboran, gertaera "bereziak" eta/edo "eredugarriak" erakusteko; eta gertaera "berezi" eta "eredugarri" horien arteko tarteak elipsi esplizitu nahiz inplizitura eramaten dira edo laburpenaren erabilerara. Zerbait gertatzen deneko uneak dira bakarrik kontagarri.

Jokabidea antzekoa da gertaerak horrelako zehaztasunarekin lekutzen ez direnean ere. "Zarauzko ondekidatzea" leiendan, esate baterako, gertaerak 741. urtean kokatzen dira, udako arratsalde batean Landerbide eta Elizamendi etxejaunek duten elkarrizketarekin;

mairuak baletoz, Zarautzek zailtasun handiak lituzke eraso honetatik defendatzeko, eta badaezbada Dorretxea eraikitzea erabakitzen dute. Dorrearen eraikitze-lanak bizpahiru lerrotan emango dira, baita hurrengo egunak ere, harik eta mairuak heltzen diren arte. Mairuak heltzean dator berriro eszena kontaketara, Zarautz defendatzen ari zirenen ausardia eta garaipena erakustera.

Ekintza-gosea, ekintza eredugarrien gosea nabari da leiendetan. Eta gainontzeko elementu erretorikoen erabilera ekintza-behar honi menperatzera heltzen da. Behin mendietan, baserrietan eta abarretan kokatuz gero, pertsonaiak eta hauen ekintza eredugarriak kontatu edo erakutsiko dira. Pertsonaia hauen izaera bizpahiru hitzetara mugatuko da: onak, kristauak, askatasunzaleak... Eta honetan iraungo dute leienda bukatu arte. Denbora, markatua ala markatu gabea, ekintza eredugarri hori kokatzeko balio duen elementua besterik ez da. Deskripzioek ekintza eredugarri hori inguratuko dute. Ekintzatik ekintzarako tartea ia isilune edo hutsune bihurtuko dute.

Ez da erakutsiko ekintza eredugarria ez denik. Behin edo behin kontatu da, baina labur-labur, gaitzetsiz eta zabalera handiagoko ekintza edo egoera eredugarrien ondoan. Deigarria da, esate baterako, "Kontu zarrak" leiendako kontrastea: Arizti baserriko bizitzak narrazioan hartzen duen luzera eta zein labur kontatzen den bertako seme Juan Antoniok Ahaide Nagusien gerretan parte hartzea.

Denbora-epe oso desberdinak daramatzate leiendetara. Eta honek, noski, baldintzatu egiten du gehienetan bostpasei orrialdetakoa den narrazioa. Leienda guzti hauetan ekintzek narrazioan hartzen duten lehentasuna azpimarra daiteke, joera nagusi bezala. Fikzioaren denbora, gutxiago edo gehiago zehaztua, ekintzen berri ematera zuzenduko da narrazioan, eta matazaren garrantzia nagusituko zaio beste edozein elementuri.

Joera bera atzeman daiteke lehen eleberri laburretan eta eleberrietan ere. **Piarres Adamen** ixtorioen kontaketak "betetzen" ditu nagusiki Olhetara egindako joan-etorriaren orduak; pertsonaien ezaugarri bakar baten gain, izutia/ez-izutia izatea, eraikiko da **Bein da betikoren** mataza, ezaugarri honek gertaerak bata bestearen ondotik ekarriz; saltoka-saltoka antolatuko da **Auñemendiko Loreako** fikziozko denbora "zerbait berezia" gertatzen denean kontatuz, tarteak isilunera eramanez, etab.

Fikzioaren denbora narraziora eramatean egindako aukera horrek itxuratzen du prosa narratiboaren sorrera. Ekintzak kontatzeko erabiltzen da batipat, teknika-modu desberdinez baliatuz hauek zabaltzeko: eszenara, pausara, kontaketa erretrospektibora, eta abarretara joz. Ekintzak ordu batzu, egun bat, egun batzu edo urtebete iraun, beti berdin jokatzen du kontalariak: epe horretan gertaturiko jazoerarik garrantzizkoena elkarrizketaren bidez eszenaratu edo xehetasun gehiagorekin kontatu, gainontzekoa elipsi edo laburpenera kondenatuz. Gertaera harrigarria, deigarria eta bitxia kontatzera joko dute, eta lehen planora ekartzera; gainontzeko denbora-epea beharrezko diren iraganbide-esaldi edo esaldietara laburtuko da. Ekintzaren berri ematera joko dute zuzen-zuzenean. Eta bigarren bat balego, laburpen baten bidez emango dute tartearen berri, berehala hurrengo ekintza kontatzeko.

Sekuentzia elementalez osatu da leiendetan barrena atzeman daitekeen joskera, nahiz eta behin edo behin sekuentzia konplexuren bat garatzen den. Gunetik gunera doan erlatua antolatzen dute, hiru funtzio kardinalen gain eraikitako erlatuek; "tarteak" hitz-orerik gabe utziz, matazaren berri ematera bideratzen dira zuzen-zuzenean. Ekintza kokatzeko oreka-giroaren deskripzio labur baten ondoren, prest dago kontalaria mundu horretan desoreka sortuko duen lehen funtzioari sarrera emateko, gertaera-modu batzuren garapenari ateak irekiz. "Orruel arpeko zuhurra" erlatuan (378), ekintzaren leku-denboren berri ematen duen sarrera labur baten ondoren, berehala azaltzen da elementu desorekatzailea: "Erdaldun leinua nausitzen hasi zela, Eskaldun aintzindarien askasian eta ethorkian" (23. or.).

Hurrengo lerroan bertan hasiko da arazo honentzako irtenbide bila, bigarren funtzio kardinalari sarrera emanez.

> "Bada bildu zen azkenean Eskaldun biltzarra, izendatzeko ghizon zuhur batzuek Orruelako morturat egortzeko" (23. or.).

Labur-labur kontatutako prozesu baten ondoren, Orruel arpeko zuhurrak emaniko aholkua betez, "hautatu zuten, eta izendatu Eskal-herriko **lehen nausi eta aintzindari**, Semein Garziaz" (25. or.).

Sosegua eta bakea ekarri zuen aukeraketak. Oreka berri bat lortu da prozesu labur batez aurreko egonezina gaindituz.

---

(378) Euskal-festak Donostian. Oroimengarria, 1880, 23-25. orr.

Horrelako joskera da nagusi leiendetan. Bata bestearen ondoren datozen funtzio kardinalen gain eraikia, gune batetik bestera doa, "tarteek" beteko lituzketen katalisi, zantzu eta informaziorik gabe. Mataza da gailen, noski; baina mataza eta mataza bakarrik. Izan ere, mataza gailen izanda ere, bai bait dira mataza hori ehotzeko moduak, bere garapenerako lagungarri diren beste narrazio-elementuekin. Baina leienda hauetan zuzen-zuzenean matazaren berri ematera bideratuko da kontalaria, eta bilutsik dauden kontaketa batzuren inpresioa sortzen dute irakurlearengan.

Dena den, egile eta leienda desberdinei buruz ari gara, eta ezin orohar jardun xehetasunak baztertu gabe. Izan ere, aurki genitzake leienda batzu, guneen arteko "tarteak" zertxobait gehiago "betetzen" dituztenak; edo funtzio kardinal bakoitzean zertxobait gehiago "geldituz", gune hori gehiago "hedatuko" dutenak edo hasierako oreka-giroa gehiago deskribatuko dutenak, desoreka heltzean kontrastea biziagoa izan dadin.

"Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" erlatua (379) arestian aipatua baino luzeagoa da. Bertan kontalariak hasiera-hasieratik desoreka-giro baten berri ematen du, Lekobide zeritzan gizon baten tristura deskribatuz —tristurarik bada, ez dago orekarik—; gero Lekobide bera deskribatuko du, eta hau dagoen tokira Otzoal zeritzan bat helduko da. Bien arteko elkarrizketak utziko du agerian Lekobideren nahigabearen iturburua. Baina ez hori bakarrik. Elkarrizketan zehar agure hauek ñabardurak jasotzen doaz hainbat eta hainbat zantzuren bidez: zer izan diren, zer egin duten, zer pentsatzen duten, non bizi izan diren, etab. Hala "erakusten" zaio irakurleari, goibeltasunaren jatorria ez ezik, euskaldunek erromatarren eskutan erortzeko daukaten arriskua ere. Eta hurrengo funtzio kardinalaren hastapenak prestatzen hasiko da. Arazoari irtenbidea emateko irekiko den prozesua ez da batpatean, ustegabean, aurkeztuko: gerrarako gai ez diren agureek nork bere buruaz beste egiteko erabakia bizitza osoan askatasuna maite izan duten bi pertsonaiaren erabakia da, askatasuna galtzeko arriskuak goibel jartzen dituen pertsonaia batzurena. Pertsonaiek elkarrizketaren bidez hartutako karakterizazioak "bete" du hurrengo gunera arteko "tartea", lehen funtzio kardinala "osatuz" eta bigarrena prestatuz. Bigarren gunea ere ñabardurak jasoz joango da: Lekobidek eta Otzoalek

(379) **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1882, 35-45. orr.

gizon zaharrak bakarrik deituko dituzte batzarrera; inguru-giroa ere atxikiko zaio ["Hernioko tontorretan guzia isill dago" (40. or.)] batzarre horren dramatikotasunari —gizon zaharrak euren burua hiltzea proposatzera bait doaz, gazteek gerran ihardun bitartean janaria izan dezaten—. Prozesuak aurrera jarraitzen du, ez bait dute erromatarrek eskainitako bake-mota onartu. Gerrarako eguna heltzen da. Egun hau zantzuz betea deskribatuko zaigu: "goibel eta illuna"; "Hernioko baso, zelai eta arkaitzak lañoz estaliak zeuden, eta eguzkiaren argirik ara sartzen etzan" (41. or.). Eguratsaren itxurarekin bat datoz gizonen aurpegiak ere: "Biotz andiko gizon ayen begietan negarrik agiri etzan; baña beren ezpañak ere barrungo pozik agertzen etzuten" (41. or.). Hala girotzen da datorrena: gizon zaharren suizidioa eta gazteen borroka sutsua erromatarren aurka. Gertaerak garatzera doazeneko eszena-tokia prestatuz doa kontalaria: gizon zaharren egun hartako mugimenduak jarraitzen ditu, gerrari gazteen galderak testuratu, eszena-tokira arterainoko bidea egin, zaharrek hartu duten eta daramaten bidea kontatu. Behin eszena-tokia prestatu denean, eta gerrarako arrazoiak azaldu, Lekobideren ahotik helduko da suizidio kolektibo hori, gerrari gazteak sutan jarriz. Eta erromatarrek ikaratuta alde egitean helduko da oreka berria.

Bada erlatu honetan aurrekoan ematen ez den "bete-lan" funtzional eta esanahidunik: lehen funtzio kardinalaren aurkezpena; bigarrenerako bidearen prestaketa; bigarren funtzio kardinal honen garapenak kontaketaren aldetik azaltzen duen dosifikazioa, hitz-orez "betez" bigarren hau eta heriotz kolektibo horretara heldu aurretik egoera dramatikoaren gailurra prestatuz, ondorengo hirugarren funtzio kardinalaren laburtasunarekin kontraste bizian. Guzti horiekin, aipatu erlatua aurrekoan azaltzen ez zen "bete-lan" funtzional eta esanahidun baten lekuko bihurtzen da.

Dena den, erlatu laburra da leienda hau. Bere "hedapenak" ere laburrak dira, sekuentziak elementalak. Baina, aurrekoaren aldean, aberatsagoa da ñabarduraz, inolako zalantzarik gabe.

Leienda gehientsuenetan hastapenetako oreka-giroa laburkiro deskribatzen zela esan da arestian. Baina, puntu honetan ere, badago alderik leienda batetik bestera, nahiz eta orohar guztietan oso laburra izan. "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" erlatuko kontalariak ez dio lerrorik eskainiko oreka-giro horren deskripzioari: lehen-lehenengo esalditik deskribatzen du

desoreka-giroa. "Zarauzko ondekidatzea"-ren kontalariak (380), berriz, aski izango ditu zazpi-zortzi lerro gertaerak leku-denborazko koordenadetan kokatu eta pertsonaiak aurkezteko. Honenbestez, besterik gabe, pertsonaien kezkak elkarrizketaren bidez azaltzen hasiz, zabaltzen dio bidea lehen funtzio kardinalari.

Nolanahi ere, leienda batzuk luzatu egiten dute hastapenetako oreka-giroaren deskripzioa; honi edozein guneren eta bere inguruko hedapenei adinako luzera edo handiagoa eskaintzen diote. Adibidez, "Gurasoaren zigorra" (381) deritzan erlatuaren kontalariak hiru ataletan banatu du kontaketa: lehena beste biak baino zertxobait laburragoa da eta gatazkak sortu aurreko egoera baketsuaren deskripzioari eskaintzen zaio; beste bietan azaltzen da gatazkaren sorrera eta garapena, baita garapenaren prozesuak bukaera gisa eskainitako emaitza ere. Kontaketa osoari begira luzetzat jo daiteke giro orekatsu horren deskripzioa. Gatazka-giroa ekarriko duten funtzio kardinaletara heldu aurretik, "hedapen" luzea eskaintzen du kontalariak; baina bertako katalisi, zantzu eta informazioak ez dira alferrikakoak izango. Izan ere, lehen atalean hainbeste ñabarduraz deskribatutako Pello Egibarkoaren bizitza zoriontsua arras bestelakotuko bait da gatazkaren garapenean, juxtu-juxtu aldrebesko bihurtzeraino. Honela oreka-giroaren deskripzio xeheak funtzionaltasuna eta esanahia hartuko du kontaketaren barnean, gatazkaren garapeneko deskripzioaren kontraste gisa.

Erlatu bakoitzak, ikus daitekeenez, baditu bere ezaugarri propioak, bere batasuna. Baina, hala ere, badute joera nagusi amankomunik ere: sarrera legez lerro batzuren bidez kontaketa lekutu eta pertsonaiak aurkeztu ondoren, hiru funtzio kardinalen garapenera jotzen da, eta funtzio horien azalpenera zuzentzen da batipat kontaketa, "hedapenen" galeratan.

Badira kontaketa bakan batzu ere, sekuentzia konplexu bat desarroilatzen dutenak. "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" (382) deituan, esate baterako, jarraipenez sortutako sekuentzia konplexu bat atzeman daiteke. Lehen gunearen sortzailea erromatarrek euskaldunei eskainitako bakea da, hauentzat askatasuna galtzea esan nahi duen

(380) Ik. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria, 1884, 23-27. orr.

(381) Ik. Ibidem, 17-22. orr.

(382) Ik. Euskal-festak Donostian. Oroimengarria, 1881, 19-28. orr.

"bakea". Ikuspegi desberdin horrek bigarren funtzio kardinalari irekiko dizkio ateak, euskaldunek eman behar duten erantzuna aztertzen hasten direnean. Azkenik amaiera dator: euskaldunek eskaintza onartu ez eta gerra egitea erabakitzen dute. Prozesuaren emaitzak, hirugarren funtzio kardinalak, beste sekuentzia baten sorrera zilegiztatuko du; izan ere, erabaki honek Uchin Tamayo, euskaldunen buruzagietako bat, erromatarrei aurre egiteko daukaten eragozpen handienaz jabetzera bait darama: euskaldunen arteko elkartasunik ezaz. Eta funtzio berri bati emango dio sorrera. Ondoren, lehen funtzio kardinal honetatik bigarren batera igaroko da kontaketa, euskaldunak batasuna lortzeko prozesuan abiatzen direnean. Eta, azkenik, prozesu honen emaitza legez, hirugarren funtzio kardinala dator: euskaldunen arteko batasuna. Grafikoki honela eman daiteke aditzera:

S1:
- Erabaki behar den auzia (Eskaintzen den bakea onartu ala ez)
- Erabakitze-prozesua
- Erabakiaren emaitza (Gerra)

S2:
- Konpondu behar den arazoa (Euskaldunen elkartasuna)
- Konpontze-prozesua
- Konponketaren emaitza (Euskaldunen elkartasuna)

Kronologikoki lehen leiendak baino beranduago baina oraindik ere leiendak idazten ari ziren garaian argitaratzen den **Piarres Adamek** ere badu kidetasunik leienden joskera narratiboarekin. **Piarres Adame** erlatuaren kontalariak Piarres Adame zeritzan batekin Olhetako jaietara egindako bidaia hartuko du aitzakia, bidailagunak kontatutako ixtorioekin **Piarres Adame** kontaketa osatzeko. Leiendak baino luzeagoa eta landuagoa izanik ere, Piarres Adamek mutiko bati kontatutako ixtorioek osatuko dute eleberri labur honen gorputza: ixtorio-mota desberdinak eta independenteak dira, nahiz Piarres Adameri berari, nahiz beste batzuri gertatutakoak izan. Bidaia da ixtorioei batasuna ematen dien elementu bakarra: bidaiako orduak eta egunak dira "betegai", aipatu "ixtorioak" bidaiako gorabeherekin nahasiz. **Piarres Adamen** bidaia erakusten da gutxien, ixtorioek beteko bait dute denbora. Horrela, bidaiak sortzen duen batasunaren azpian, berez ixtorio batzu kontatzen ditu **Piarres Adamek**. Nahiz eta batasun honek leienden aldean egitura konplexuago bateranzko urrats bat eman, ezin uka "joskera"-modu honen primariotasuna; azken finean, ez bait da ixtorio batzuren bilduma besterik, bidaia "juntagailu".

Ixtorio bakoitza aztertuz, leienden joskera narratiboari buruz esanikoa errepikatu behar. Ixtorioak gunetik gunera doazen kontaketa bezala daude antolatuta, eta bakoitzak sekuentzia elemental bat du egituratzat: funtzio kardinalen kontaketara zuzenduak, hauek bata bestearen atzetik elkarren segidan eta elkarren gainean etorriko dira, "hedapenentzako" tarte txikia utziz.

Nolanahi ere, nahiz eta ixtorioak laburrak izan, nabaria da horietan leku-denborazko koordenadetan ekintza kokatzeko egiten den ahalegina (383) eta funtzio kardinal bakoitza garatzen deneko zirkunstantzien berri eman nahia (384), gertaera eta beronen desarroiloa hobeto uler dadin. Gunetik gunera doan kontaketaren eskematismotik urrundu egin nahi da, ixtorioa "jantzi", xehetasunak narraziora ekarri, berri-emate soila gainditu.

Leiendetan bezala, **Piarres Adamen** ere badago alderik ixtorio batetik bestera, baina beti joera nagusi berarekin: kontaketaren eskeletoa eta hezurdura azaltzea.

Beranduxeago argitaratuko den **Bein da betikok** ere ez dio hastapenetako euskal prosa narratiboak hartutako norabide horri ihes egingo. Joskerari dagokionez, **Piarres Adamek** ez bezalako egitura badu ere, ez da orain arte esandakotik gehiegi urrunduko.

Batetik, **Bein da betikok** gutxienez bi historia kontatzen dituela dirudi lehen inpresioan: Txantonena eta Txilirena. Hauek badute loturarik. Gotzon Garatek honako hau seinalatu du:

> "Bi sekuentzia nagusi hauen arteko isotopia izua klasemaren bidez lortzen da" (385).

Maila semantikoan izua isotopiak lotzen dituen bi sekuentziak juntagailu adbertsatibo edo kontrajarle batek lotuko ditu maila morfosintaktikoan: aldiz, aitzitik, berriz...

Txantonen izaerak zilegiztatzen du lehen sekuentziari hasiera

---

(383) Ik. "Don Pacheco eta Doña Incarnacion" in ELISSANBURU, J.B.; **Piarres Adame**, 35-39. orr.

(384) Ik. "Piarres Adameren haurreko istorio bat" in ELISSANBURU, J.B.; op. cit., 15-18. orr.

(385) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 116. or.

emango dion funtzio kardinala. Kontalariaren esanak (386), pertsonaien esanek (387) eta elkarrizketetan Txantonek berak dioenak (388) agerian uzten dute bere izaera ganoragabea, berritsua eta batipat izutia.

Izaera izuti hau izango da gertaeren sortzaile, izaera honetan oinarrituz azalduko bait dio Errokek —Txantonen lagunak— Maripari —Txantonen emazteari— bere asmoa:

> "Alkarri 'gabon' esanda gero 'Tsantoni burutik zorgiñak kentziarren' okerreridsaren bat eiñ biar dsakola esan eban Errokek" (389).

Kontaketa batera murriztuko da Errokek Mariparekin Txanton eskarmentatzeko prestatzen duen "ekintza", Mariparen kidetasunarekin Erroke "esanaren subjetu" bihurtuz eta Txanton "esanaren hartzailea" (390). Sorgin-ixtorio honen kontaketak gauzatuko du bigarren funtzioa, Txantonen gaisotzea ekarriz, prozesua ixten duen funtzioaren emaitza gisa. Une hauetan Txilik, lehendik ere gai honek izurik ez ziola sortzen esana zuenak (391), gertaeren eszena-lekura azaldu eta beste desafio bat jaurtiko du:

> "—Ona, Erroke (ukabilaz maiari ots eraginaz esan eutsan Tsilik): ire aitaaita baizen sendoa enauk; onelan da guzti bere inpernuko

(386) Honela aurkajartzen ditu kontalariak Txanton eta honen emazte Maripa: "Tsanton burugina itzan. Maripa 'burutsua; Tsanton 'barritsu ta erausle utsa, Maripak' isila izan ezarren' minari baino eskuai gogo obeaz eragiten eutsen; ak beren egimen edo egitade guztietan zirimaratso bat irudian; onek beronenetan' emakume ganoraduna ta oartua itzana agiri euan; bildurkor bildurkorra itzan Tsanton, Maripak Iaunari baino besteri ezeutsan bildurrik erakusten; senar gonaduna itzan bata, bestea'ia kaltzadun emaztea; zorgin lamia ta pamerialak zer-esan asko emoten eutsen Tsantoni, Maripari ostera 'baldin beren itzak siniztu bear badauguz' orretariko umekeriak ezeutsen ardura ta aizola andirik emoten". AZKUEKO, R.M.; **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, 10. or.

(387) Ikus, esate baterako, bigarren kapituluko elkarrizketak (23-43. orr.).

(388) **Ibidem**, 23-43. orr.

(389) **Ibidem**, 57. or.

(390) J.M. Lasagabasterrek **Peru Abarca** aztertzerakoan dioenaren antzera: Pertsonaiak gehiago taxutzen dira narrazioaren subjetu moduan ekintzaren subjetu moduan baino. Ikus atal honetan bertan 369. oin-oharra.

(391) "Tsimizta gorria: betorkiguz mundu onetako ta besteko zorgin guztiak, iarri ai gero eurokaz eu edozein tsalupatako alderdi batean, neu bestean iarriko nauk; eta emenditsek bat batera asi ta **kala**raino abantean garaituko banenduzu' naroela eurakaz betiko" esana zion Txilik Txantoni kai gainean izandako elkarrizketan. Ikus AZKUEKO, R.M.; op. cit., 28. or.

deabrua bera Damutu-iantziaz agertuko balitzakit, eta iarraituteko esango baleust bere enintzake bildur izango, eneuke atzera egingo" (392).

Aurkajarriz lotzen zaio sekuentzia berri hau aurrekoari. Aurrekoaren bukaerari —Txanton beldurraren beldurrez gaisotu da— desafio hori eransten dio bigarren sekuentzia hasteko. Horregatik esaten zen arestian juntagailu adbertsatibo edo kontrajarle batek lotuko lituzkeela elkarren jarraian datozen bi sekuentzia hauek.

Txilik, aipatutako desafioaren subjetuak, esanaldi horren bidez eraikiko ditu prozesu baterako posibilitateak, deabrua "damutu-iantziaz" agertzean gauzatuko direnak. Gauzatze-prozesu horretan deabruak beteko du subjetuaren funtzioa, Errokek Mariparekin Txantonekiko betetzen zuena. Eta Txili izango da ekintzaren hartzaile, baina ez aurrekoan bezala esanera soilik mugatzen den "ekintzarena", Oibarko elizatxoraino eramango bait du deabruak. Hemen Ama Birjinaren aurrean beldur dela aitortzean itxiko da prozesua.

Aitorpen horrek berdintzen ditu bi sekuentziak bukaeran. Txanton sekuentziaren amaieran beldurraren beldurrez gaisotu bada, Txili ere berdin, "—Antiguako Ama Maria bildur nai—" (393) esateraino. Honela, juntagailu kopulatibo bihurtu da lehen sekuentziaren azkenengo funtzioa eta bigarrenaren lehen funtzioa lotzen zuen juntagailu adbertsatibo hura: Txanton beldurtu egin da eta Txili ere bai.

Bi sekuentzia hauei paraleloki eraikitako sekuentzia batek osatuko du **Bein da betiko**. Hirugarren sekuentzia honi Kattalinek, Txiliren alabak, eta Fernandez mandazainak elkarrekin ezkontzeko dituzten oztopoekin hasiera emango zaio: Txilik Fernandezek Kattalinekin ezkondu nahia adieraztean, ez dio ez baiezkorik, ez ezezkorik erantzun. Jokabide hori dela-ta, Fernandezek Kattalin ebatsi eta berarekin Errioxara eramatea pentsatuko du; baina asmo hutsean geldituko da. Hala ere, gau honetantxe garatuko diren gertaerei esker lortuko du Kattalinekin ezkontzeko Txiliren baimena: Txilik eta deabruak egiten duten bidaian atzetik jarraitu eta Txili erabat beldurturik dagoenean, honengana hurbildu eta honek han egoteagatik nahi duena eskatzeko aukera emango dio; mandazainak Kattalin eskatuko du.

---

(392) AZKUEKO, R.M.; **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, 80. or.

(393) **Ibidem**, 100. or.

Hirugarren sekuentzia hau paraleloki eraikitzen hasten bada ere, beste bi sekuentziei lotuko zaie azken funtzio kardinalari esker; kateatu egiten bait dira bigarren sekuentziaren eta hirugarrenaren ixte-prozesuak.

Hiru sekuentzia hauek osatzen dute **Bein da betiko**ren hezurdura edo eskeletoa.

Arestian esan da joskeraz ez zela gehiegi urruntzen hastapenetako euskal prosa narratiboak hartutako norabidetik. Izan ere, nahiz eta **Bein da betiko** sekuentzia konplexu baten gain eraiki, gunetik gunera doan erlatua bait da, "tarteak" hitz-orerik gabe utzi eta zuzen-zuzenean matazaren berri ematera bideratuz.

Leiendak baino "jantziagoa" azaldu arren, nabaria da matazaren gailentasuna. Mataza hori funtzio kardinalek eraikitako zutabeen gain irekitzen da, hedapen orori tarte txikia utziz, nahiz eta hedapen hauek leiendetakoak baino zabalagoak izan.

Gertaerak kokatzen dira, baita pertsonaien izaeraren berri eman ere, dela kontalariaren ahotsaren bidez, dela bakoitzaren esanek utzitako zantzuei esker; ez, ordea, hauen ezaugarri bat funtzional bihurtu gabe: izutia/ez-izutia. Ondorengo kontaketa guztia iturri horri zor zaio. Gertaerak bata bestearen ondoren etorriko dira epe laburrean (eguerdian hasten den kontaketa hurrengo eguneko goiz aldera amaituko da), ezaugarri horretatik jalgitako kontaketara mugatuz ia-ia eta kontaketarako mintzaira gardena erabiliz.

Hirugarren sekuentzian, berriz, ezer gutxi "erakutsiko" da. Egiantzekotasun handiegirik gabe, Txiliren erabaki ezetik (honen arrazoirik azaldu gabe), kasualitateak erabakitako baimenera igarotzen da, batetik besterako prozesua Txiliren une bateko egoera psikologikora murriztuz.

Bai leiendetan, bai erlatu labur hauetan eta baita euskal lehen eleberritan ere nabaria izango da joskera-mota hau: funtzio kardinal batetik bestera doan "tartea" elipsira kondenatzen da eta zuzenean matazaren berri ematera doan joskera erabiltzen.

Erlatu laburretan ez ezik, euskal lehen eleberrietan ere ezaugarri berdinak aurkitzen dira, "ezer berezirik" gertatzen ez deneko une horiek kontatzeko ahalmenik gabe edo irakurlea aspertzeko beldurrez.

Euskal leiendetan historiatik at kokatzen den kontalari bati zor zaio orohar kontaketa. Kontalari honek hirugarren pertsonan kontatzen du historia. Kontatzen duen historiak ez du alderdi izkuturik kontalariarentzat. Ezagunak ditu pertsonaien izaera, pentsamenduak, etab. Are gehiago: zenbait unetan zantzu batzuren bidez ondorengo gertaera-moduak ere iradokitzen ditu; baita jazotzen ari diren ekintzei buruzko iritziak eman ere. Eta zenbait bider kontaketaren bukaeran sententzia gisa erakutsiko du kontaketatik atera behar den ikasgaia. Kontalari orojakilearen atribuzio guztiez baliatzen da.

Esate baterako, lehen-lehen lerrotik atzeman daiteke "Gurasoaren zigorra" leiendako kontalariak kontaketarekiko hartuko duen jarrera-modua. Honela ematen dio hasiera:

> "¡Zér bizitza gozatsua eta garbiya, Pello Egibar-koarena!" (394).

"Imparfait consuétudinaire" bezala sailkatuak izan diren aditz-formen bidez (395), kontatze-modu iteratibora joko du Pello Egibarkoaren bizitza zoriontsuaren berri emateko: "irtetzen zan", "echeratzen zanean", "irteten zitzayozkanean", "inguratzen zutenean", etab. (396). Baina lehen atal honen amaieran kontalariak berak zorion honek ezbeharren bat jasango duela iradokitzen du: laino batzu helduko direla Pello Egibarkoaren bizitzara, laino hauek historian heldu aurretik:

> "Ala pensatzen zuen Pello gizagajoak, oroitu gabe, nonbait, gizonaren pentsakizunak dirala, aizéak daramazkien udazkeneko osto igárrak, eta eguzkiyaren igesi dijoazen arratseko laño mé-méak diran modukóak; berenez ezerézak, eta danik eta gauzik utsenarekin desegintzen dirának!" (397).

Kontaketan barrena behin eta berriz kontatzen ari denari buruzko iritziak eman dituen kontalariak errematea eman nahi izango dio bukaeran, leiendaren irakurle erreal batentzako oharra utziz:

> "Aditzeko belarririk duenak, aditu eta ikasi dezala" (398).

---

(394) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; "Gurasoaren zigorra" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1884, 17. or.

(395) Ik. LAFITTE, P.; **Grammaire basque. (Navarro-Laburdin Littéraire)**, Elkar, Donostia, 1962, 370. or.

(396) Ik. ECHEGARAY-KO, K.; op. cit., 17. or.

(397) **Ibidem**, 18. or.

(398) **Ibidem**, 22. or.

Nolanahi ere, kontalari bakar baten presentzia ez ezik, birena ere atzeman daiteke leienda hauetan: lehen pertsonan kontatzen hasten den kontalariak kontaketan barrena ezagutu duen pertsonaiaren baten esku uzten du hurrengo ixtorioa, fikziozko pertsonaia hori kontalari bihurtuz; atzera, pertsonaia honek kontatutako ixtorioaren ondoren kontaketara etortzeko. Kontaketa markodunak dira.

Behin baino gehiagotan erabiliko dute kontaketa markodunaren teknika, oso modu sinplean erabili ere, pertsonaia bakar batek kontatutako ixtorio bakar bat "enmarkatuz". "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala", "Andeka" eta abarretan aurki daiteke. Lehenengoan kontalariak bera eta bere aita protagonistatzat izan zituen ixtorio bat kontatzen du lehen pertsonan. Baina ixtorio hau eten egingo da olan zeudela olagizonik zaharrenak Jose Chikiren ixtorioa kontatzen duenean. Ixtorio honen bukaeran hasierako kontalariak lehen pertsonan bukaera emango dio berak eta bere aitak bizitako abenturari. Beraz, lehen ixtorioko fikziozko pertsonaiak kontatutako Jose Chikiren ixtorioa enmarkaturik gelditu da, lehen ixtorioak enmarkatua.

"Andeka"-ren kasuan ere, aurreko horretan bezala, enmarkatuta gelditzen den ixtorioak berak ematen dio izena leiendari. Lehen pertsonan berak bizitako abentura kontatzen hasten da kontalaria. Eta gauez baserri batera heldu ondoren bertako etxejaunari entzundako ixtorioa transkribatuko du zuzen-zuzenean: Andekarena, hain zuzen. Eta transkripzioari "Eta au da echeko jaunari aditu nion kondaira" perpausarekin jarriko dio markoa.

Era berean, kontaketa markoduntzat jo daiteke "Antiguako Ama Virjiña" deritzana. Hemen ere enmarkatutako ixtorioak emango dio titulua leiendari. Eta honako desberdintasun hau du aipatutako bi aurrekoen aldean: enmarkatutako ixtorioa lehen kontalariak berak kontatzen duela, amonari entzundako ixtorioa dela esanez; baina amonak berak kontatuko balu bezala, nahiz eta ixtorioa kontatzen den lekuan ez egon. Horretarako lehen kontalari horrek komatxoen erabilerara joko du bere txikitan amonak kontatutako ixtorioa honen hitz berberekin gordetzeko.

Kontaketa markodun honek badu beste aldaera bat ere: "Antziñako nafar-mendiko oroitz bat" leiendak aurkezten duena. "Gurasoekin zu nola, zure umeac zurekin ala" eta "Andeka" leiendetan lekukoa den kontalari-protagonistaren ixtorioak jartzen zion

markoa fikziozko pertsonaia batek kontatutakoari. "Antiguako Ama Virjiña"-n ere kontalari-protagonistaren ixtorioak jartzen zion markoa amonaren hitz berberak errespetatuz lehen kontalari horretxek kontatuko duenari; kontalaria txikitan izan zen ixtorio horren entzulea; ez historiaren denboran, aurreko bietan gertatzen zen bezala.

"Antziñako nafar-mendiko oroitz bat" leiendan, ordea, ez dago lekukoa den kontalari-protagonistaren ixtoriorik beste ixtorio baten marko gisa funtzionatuko duenik. Lehen kontalariak hirugarren pertsonan hasten du leiendaren kontaketa kontalari orojakile gisa; ez lehen pertsonan, aurrekoetan bezala. Eta fikzioko pertsonaia batek kontatzen du enmarkaturik gelditzen den kontaketa.

Kontaketa markodunaren beste aldaera bat "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" aurkezten du. Leienda honetan aingeru batek aintzinako denboretara eramango du lehen pertsonan ixtorioa hasten duen kontalari-protagonista. Kontalari honetxek hirugarren pertsonan kontatzen du **ikusi** zuena, bere aurrean ikusten duenaren lekuko gisa. "Orra emen, Aingeruak erakutsi didana" eta "**Aditzeko belarririk dituenak, aditu dezala**" sententziak (399) jarriko diote markoa, kontalaria bera lekuko eta kontalari izan duen ixtorioari.

Lehen eleberri laburrak eta eleberriak leiendetan atzematen diren egitura-modu hauetaz baliatuko dira oinarrian, nahiz eta eleberri labur eta eleberrien egitura konplexuagoa izan.

Hirugarren pertsonan kontatzen duen kontalariak ematen dio hasiera **Piarres Adame**ri. Kontalari honek mutiko bat aurkezten du objetiboki. Aurkezpen honetan, besteak beste, dio mutiko hori orain idazten ari dena berbera zela. Eta honen berri eman ondoren, lehen pertsonara igaroko da, mutikotan bizitako jazoerak kontatzeko. Mutiko honek, Pellok, gizon bat aurkituko du Olhetako jaietara joateko hartutako bidean: Piarres. Piarres honekin egingo du joan-etorria; eta Piarres izango du festa-lagun Olhetan. Pello da bidaia honen kontalaria: berak transkribitzen ditu bere pentsamenduak, Piarresekin izandako elkarrizketak eta Piarresek bidaian kontatutako ixtorioak. Bidaia honetako pasadizoak behin eta berriz eteten dira, Piarresek ixtorio bat kontatzen duen bakoitzean. Horrela, enmarkaturik gelditzen dira ixtorio hauek —batzuk Piarres bera dute protagonistatzat—,

(399) Ik. CAMPION, A.; Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 1881, 28. or.

Olhetara egindako bidaia marko dutela. Kontalariak ezagututako pertsonaia bat —Piarres— bihurtzen da ixtorio horien kontalari; eta ixtorio hauek "betetzen" dute Olhetara egindako joan-etorria.

Kontalari orojakile batek kontatzen du hirugarren pertsonan **Bein da betiko**, baina fikzioko pertsonaia baten esku —Errokerenean— geldituko da Txantoni kontatzen dioten sorgin-ipuina. Horrela, ipuin horren kontalari bihurtzen da pertsonaia, eta enmarkaturik gelditzen den ipuinak aparteko funtzionalitatea izango du marko gisa daukan kontaketan.

Piarres Adamen Piarresek kontatutako ixtorioak bideko orduak "betetzen" doazen ixtorioak dira. Kontatzen dituenak konta zitzakeen beste batzu; ez bait dute harreman berezirik marko gisa daukaten kontaketarekin, Olhetarako bidaiarekin. **Bein da betikon**, ordea, askoz harreman estuagoa du kontaketa enmarkatuak markoarekin; izan ere, kontaketa enmarkatu honek ekintza batek beteko lukeen funtzioa betetzen bait du, kontaketa-markoarekiko ondorioak ekarriz: Txanton gaisotzea.

Auñemendiko Lorea, Kresala eta **Garoa** eleberriak ere hirugarren pertsonan kontatzen duen kontalari orojakile batek kontatuko ditu. Baina hiruretan aurki daiteke kontaketa enmarkaturen bat edo batzu: Pedro Marik, Mendiola baserriko morroiak, kontatutako ipuina **Auñemendiko Lorean** edo Mikolen eta Kitolisen kontaketak **Kresalan**, edo Joanes artzainarena **Garoan**.

Pertsonaia hauek baserri, mendi, itsas portu eta herrisketako bizilagunak izaki, kristautasunari, ohitura onei, askatasun-nahiari eta pasadizoei lotuak biziko dira eta balore horien inguruko hiztegia erabiliko dute elkarrizketaren bidez eszenaratzen diren une laburretan. Kontalaria ere ez da gai horick sortzen dioten hizpidetik aterako, baserriren bateko aitona zaharra edo besteren bat izan.

Kontalariak ahalegin berezia egiten du batzutan hizkuntza lantzen —"Malko bedeinkatuak", e.a.—, konparazio, kontraposizio eta beste zenbait figura erretoriko erabiliz. Natura izango dute alderaketa-iturririk gogokoena, pertsonaiaren egoerarekin edo ekintza hartzera doan norabidearekin harremanetan jartzeko. Horrela, euskal leiendak eta euskal eleberriak esparru mugatu batean utziko dute euskal prosa narratiboa, ahitzen hasiak diren eta soziologikoki geroz eta garrantzi gutxiago izango duten giza multzoei, bizilekuei eta ekintza-mo-

tei lotua, eta kontaketara dakartzaten material linguistikoak eta hauen erabilera ere horiei uztartuak. Ondoren datozenek ere ez dute urte askotan bide berririk urratuko. Euskal prosa narratibotik at geldituko dira hiria, industrializazioak sortutako proletargoa, erdi-mailako kapa sozialak, burgesia, eta hauen kezkak, aspirazioak, psikologia, etab. Horrela hutsune handira kondenatzen da espazio-pertsonaia-ekintza desberdinek eskatzen zuten tratamendu-modua, hasi hiztegi mailatik eta perpaus mailako joskerara.

Ekintza hauen subjetu edo jasale diren pertsonaiak pertsonaia lauak dira, hiru-lau ezaugarritara mugatuak, barne-gatazkarik gabeak, banako bezala baino pertsonaia-tipo bezala gehiago taxutuak, hasieratik bertatik kontalariak ezartzen dizkien ezaugarrien barnean heltzen direnak erlatuaren amaierara.

Leiendetako eta eleberrietako pertsonaiek pertsonaia-klaseak errepresentatzen dituzte. Pachi —"Pachi ta Konchesi"— honela aurkeztuko du kontalariak:

> "Etzan Pachi, gaurko egunean asko bezela, edozeiñ moduz jai! azitako umia, baizik Dotriña chikitatik ondo ikasia, bere lenbiziko Komunio Santua ondo egintakoa, ta gurasoak maite ta errespetatu bear zirala ongi zekiena" (400).

Pachi pertsonaia-tipo honen arrastoan sartuko da eta pertsonaia-tipo honi dagokion bezala jokatuko du. Piarresek —**Piarres Adame**— zirikatzaileen pertsonaia errepresentatuko du, ateraldi xelebreak dituztenen pertsonaia-tipoa; Txantonek —**Bein da betiko**—, beldurti ganoragabekoena; Riktrudis-ek —**Auñemendiko Lorea**—, euskaldun fededunarena, etab. Hala ere, erantsi beharra dago leiendek ekintzen berri ematera jotzen dutela, pertsonaien deskripzio edo estudioan gelditu gabe.

Euskal leiendak eta eleberriak pertsonaia-tipoak lantzen ari dira, noiz eta errealismoak literaturan bere sarrera egin duenean, industrializazioak eta sortu duen klase sozialak, burgesiak, gizakiaren banakotasuna aldarrikatzen duenean.

Koordenada narratiboak —lekua, denbora, pertsonaiak, ekintza— irakurlego potentzialari zerbait irakastera bideratzen dira. Helburu pragmatiko batek gidatzen du euskal idazlea, sarri askotan helburu

---

(400) ARZAC eta ALBERDI, A.; "Pachi ta Konchesi" in **Euskal-Erria**, X, 1883, 7. or.

pragmatiko hori leienden bukaeran sententzia batez esplizitatzeraino.

Leienda historikoetan begiak aintzinatera itzuliz garai haietako euskaldun buruzagien jokabideak erakutsiko dituzte, jokabide horiek erakusteko ekintza aproposenak aukeratuz.

Mendietan, baserrietan eta itsas ertzeko herrietan bizi diren pertsonaia hauek askatasuna, kristau-fedea, bakea, leialtasuna, etab. maite dute. Fikzioaren denbora gizon hauen balore hauekiko atxikimendua erakusteko erabiliko da, narrazioaren denbora ahalik eta bihurgune txikienekin horretara eramanez.

Hori erakutsiko duten koordenada narratiboak hautatzeaz gain, kontalaria orojakile izateak emandako ahalmenez baliatuko da eta behin eta berriz emango ditu iritziak leiendak bideratuagotzeko, norekin dagoen eta norekin egon behar lukeen irakurle potentzialak adieraziz.

Behin eta berriz errepikatuko da esanekin edo ekintzekin "Orruel arpeko zuhurrak" VIII. mendeko euskaldunei adierazia:

> "Orobat zuek ere, bizi zaizte bethi Jainkoaren beldurrean, eta libertatearen besoetan" (401).

Jaungoikoa eta libertatea leienda hauetan elementu isotopikoak bihurtuko dira jasotzen duten errekurrentziari esker.

"Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" leiendan honako mezu hau dakarte erromatarrek euskaldunentzat:

> "Jainkóak nai dute Enperadore jainkozkoen aginte-pean bizi dedilla mundu osoa" (402).

Euskaldunen erantzuna: "Ill, ill!" (403).

"Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste", "Euskaldunen bikaiñtasuna", "Antziñako nafar-mendiko oroitz bat", "Andeka", "Zarauzko ondekidatzea", "Agintza" leiendetako elementu errekurrentea izango da.

---

(401) GUILBEAU, M.; "Orruel arpeko zuhurra" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 1880, 24. or.

(402) CAMPION, A.; "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 1881, 21. or.

(403) **Ibidem**, 23. or.

"Gurasoaren zigorra" leiendak daraman lema ("Onra zazu gurasoa") izango da leienda hauen beste ikasgai errekurrente bat. Hala ikas daiteke "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala", "Pachi ta Konchesi", "Malko bedeinkatuak", "Kontu zarrak" leiendetan.

"Okendoren eriotza", "Euskaldun bikaiñ bat", "Okendo", "Antziñako gertaerak" leiendak zenbait euskaldunek Euskal Herriko mugetatik at egindako ibilera "umanten" lekuko izango dira, Euskal Herriak munduari egindako ekarriaren erakuskari: Okendok, Areizagak eta Elkanok euskalduna bere herriko mugetatik kanpo ekintza ausartak egiten erakusten dute.

"Gabon gau bat Euskal-Erriko baserri batean", "Gabon", "Maieko bedeinkaera" eta "Buruazurra" leiendek, berriz, euskal baserrian edo itsas porturen batean gordetzen diren ohitura onak erakutsiko dituzte.

Lehen eleberri laburrak eta eleberriak ere ez dira didaktizismo honetatik urrunduko. Neurri handiagoan edo txikiagoan presente egongo da irakatsi beharra Piarresek Pellori kontatzen dizkion ixtorioetan **Piarres Adamen**, edo-ta Txantonek eta Txilik jasotzen duten eskarmentuetan **Bein da betikon** eta, zer esanik ez, **Auñemendiko Lorean**. **Auñemendiko Lorea**ko azken hitzak guztiz esanguratsuak dira:

> "Baiña eztaigun aztu euskaldunak garala esanda beste barik ezkarala zeruetan sartuko" (404).

Leienda bakoitzaren anekdota hutsa gaindituz, iragandako denborez edo iragaten ari diren denborez sentitzen duten nostalgia ageri da. Asetzen ez dituen orainaldi batek daramatza lehenaldian murgiltzera, eta hemen aurkitzen dituzte nola jokatu erakusten duten ereduak.

3.1. HIZKUNTZAK EGIN GABEKO IBILBIDEA

Nobela izan da literatur generoetan berankorrena (405). Eta

(404) AGIRRE, D.; **Auñemendiko Lorea**, II, 184. or.

(405) "En la sucesión histórica de los géneros literarios en Grecia —épica, lírica, drama, relato histórico y filosófico—, la novela ocupa un último lugar". GARCIA

euskal literaturan berankortasun horrek neurri askoz handiagoak ditu, praktikan XX. mendera arte ez bait da sortzen. Euskaldunak lehenagotik sentitu zuen kontatu beharra edo nahia (406). Baina kontaketa horiek ez ziren idatzi. Belaunaldiz belaunaldi ahoz bakarrik igorritako narrazioak ziren. Gero, etnologoen lana bihurtu da kontaketa horiek biltzea.

Benetan harrigarria da inguruko hizkuntzek Erdi Aroaz geroztik ezagutzen zuten testu-mota honetan euskal literaturan nabari den hutsunea. Esana dagoenez, A. Allende Salazar-ek euskaldunaren izaeran aurkitu nahi izan zuen esplikazioa. Orixek ere, askoz beranduago, konstatatu zuen fikziozko kontaketekiko zaletasunik eza.

Berankortasun hau esplika dezaketen hipotesien alorra alboratuz, esan daiteke XIX. mendera arte, mende horren azken herenera arte, euskal literaturak ez zuela, argitalpen mailan bederen, fikziozko prosarik ezagutu. Euskara inguratzen duten hizkuntzak, testu-mota horretan mendetako ibilbidea ezagutu ondoren, XIX. mendean genero honen boom-era heltzen direnean (407), euskarak lehen urratsak egin beharko ditu: testu-mota berri honen eskakizunak lantzen hasi beharko du, hizkuntzari dagokionez bederen eredurik gabe. Kanpoko obrek eskain ziezaieketen laguntzarik, ikus zezaketen beste hizkuntzek nola taxutzen zituzten eleberriak; baina horiek ezin eskaini hizkuntza lantzeko modua. Eta euskara, nahiz eta su-bazterreko ahozko kontaketetan aberatsa izan eta sagardotegiko edo plazetako batpateko

---

GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, Ediciones Istmo, Madrid, 1972, 25. or. Zazpi mendetako aldea dago Greziako literaturan Homeroren epikaren eta lehen eleberrien artean. Diferentzia kronologiko hau askoz ere txikiagoa da Erdi Aroan; baina, hala ere, hamarkada batzuren aldea somatzen da. Ik. GARCIA GUAL, C.; op. cit., 56. or.

(406) B.A. Mogelek berak 1804.ean "Irakurle euskaldunari" eskainitako hitzaurrean honela dio: "Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen zoro zororik, ta pozez erotuta, atso ipuiak". MOGEL, B.A.; "Irakurle euskaldunari" in MOGEL, B.A.; **Ipui Onak**, 37. or. Are gehiago: aipatu hitzaurrean aurreraxeago dioenez, berak eskaintzen zituen alegiek norbaiti entzuna zion honako helburu hau bete zezaketen: "Aitu diot ondo dakian bati ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko nekazarien etxeetatik ipui oker, ta zatarrak". MOGEL, B.A.; op. cit., 39-40. orr.

(407) Ik. AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 205. or. J.I. Ferrerasek XVIII. mendeko eleberri ingelesa erraldoitzat jotzen du, mende batean atzeratuz adjetibazio hori eleberri frantsesarentzat. FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, Taurus Ediciones, Madrid, 1973, 307. or.

bertso-ihardunaldietan erabilia, malgutasunik gabe zegoen prosa narratibo idatzia lantzeko. Izan ere, kontaketa horietarako balio zezaketen formulek ez zeukaten erabateko aplikaziorik erlatu idatzitara igarotzean. Euskal kontaketagilea bestela kontatu beharrean zegoen testu batean, forma artistiko baten bidez gauzatze honek lekarkeen aldaketa kualitatiboarekin: egiletasuna gorde, kodeketa-moduak berak hartzen duen garrantzia (408), etab.

Erlatu idatzi hauetan, nolanahi ere, ez zuten ahozko tradizioak eskain ziezaiekeen altxorra baztertu, material edo langaietatik beraietatik hasita. Kontatu zituzten hainbat istorio jadanik ezagunak ziren ahozko igorpenari esker (409). Jatorri hori dute zenbait leiendatan, eleberri labur edo eleberrietan beraietan, azken hauetan kontaketa markodun gisa gehienetan, aurkezten dituzten zenbait istoriok, nahiz eta elementu horiek beste egitura bateko partaide bihurtu eta zenbait eraldaketa edo transformazio izan sistema batetik bestera igarotzean. Deabruak, sorginak, lamiak, arimak eta orohar naturaz gaindiko gertaerek aurkitu zuten lekurik, ahozko kontaketetan ez ezik, edo agian horren eraginez, mintzagai diren leienda (410), eleberri labur edo eleberrietan (411). Zenbaitetan esan ere esaten zaigu haurtzaroan edo beste abagaduneren batean entzundako kontaketak direla (412). Baina alderaketarik azalekoenak berak erakusten du ez

---

(408) F. Lázaro Carreterrek mintzaira literalaren aldaera berezitzat jotzen du literatur mintzaira. Mintzaira literala izango da dagoen-dagoenean atzeman behar den eta era berean gorde behar den komunikazio-mota. Ik. LAZARO CARRETER, F.; "El mensaje literal" in **Estudios de lingüística**, Editorial Crítica, Barcelona, 1980, 149-171. orr.

(409) Ikus atal honetan bertan 301. oin-oharra.

(410) Ikus atal honetan bertan 302. eta 303. oin-oharrak.

(411) Ikus, esate baterako, J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** eleberri laburrean "Ithurralaba" deritzan kontaketa enmarkatua, edo-ta R.M. Azkueren **Bein da betikon** Errokek Txantoni ezagutzera ematen dion kontaketa, edo-ta D. Agirreren **Auñemendiko Lorean** Mendiola jauregiko Pedro Marik kontatzen duena, edo-ta D. Agirre beraren **Kresalan** Mikolek kontatzen duena.

(412) "Nai nuke bada ikusi, oroitzen naizen gure itzkuntz ederrean izkribuz ezartzeko albanuke, (...) Alonsotegiko zubiyaren eginkisun eta egilleen gañean, orain dala urte asko, bizkaitar batek esan zizkidan pasarteak" dio "Irakurgaya"-ren kontalariak. (Ik. LARRETA eta ARZAC, J.; "Irakurgaya" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 1881, 37. or.). J. San Martinek J. Duvoisinen **Baigorriko zazpi liliak** eleberri laburrari eginiko hitzaurrean honela dio: "Obra

direla kopia hutsa, baizik eta landu egin dituztela, forma artistiko bat emanez (413) eta zenbait kasutan moraleja atereaz.

Era berean, ez zuten baztertu, seguruaski, ahozko tradizioak fikziozko prosa honen antolamendu-modura egin zezakeen ekarriren bat (414). Esate baterako, leienda askotan baserriko aitonaren ahotan jartzen da kontaketa. Eta irakurleari kontatzen dion kontalaria ez da aitona edo beste norbaiten entzule besterik. Honek gero hori idatzi eta irakurleari eskainiko dio, narrazio-markoa deitu denaren teknikaz (415). Teknika hau, ahozko kontaketen oihartzuna duena, leienda zenbaitetan ez ezik —"Antiguako Ama Virjiña", "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak", "Gurasoekin zu nola, zure umeac zurekin ala", "Andeka", etab.—, **Piarres Adame** edo **Baigorriko zazpi liliak** eleberri laburretan ere aurki daiteke.

Baina zuzen-zuzenean gertaera batzuren berri ematera bideratzen zen ahozko kontaketetan ezin aurki zezakeen idazle honek pertsonaien azterketa psikologiko baterako materialik, ezta pertsonaia

---

hau, frantsesez daroan hitzaurrean dionez, 1832. urtean bildutako ipuiez osatua da, baina ez zen argitaratu 1884-1885. urteetara arte". SAN MARTIN, J.; "Aintzin solasa" in DUVOISIN, J.; **Baigorriko zazpi liliak**, 6. or. Entzun duen ipuin-bilduma moduan aurkezten du J. Duvoisinek bere **Baigorriko zazpi liliak**.

(413) Ikus, esate baterako, **Bein da betiko Euskalefiaren Yakintzan** edo R.M. Azkuek eleberri labur gisa eskainia.

(414) Fikzio honen sorrerara ez ezik, denboraren harian honen aurrekoa den euskal prosa aszetiko eta katekistikora ere ekarriren bat egina izan zitekeen ahozko tradizio hori. Honela mintzo da J.M. Lekuona XVI. eta XVII. mendeetako prosa-mota honi buruz: "Urtealdi hauetan ahozko literaturak zuen garrantzi estadistikoa azpimarratu ondoren, adierazi behar da, baita ere, argitaratutako liburuak, helburu pastorala zutenez gero, askotan jendaurrean aldarrikatzen zirela eliz batzarretan, liburu sakratu nahiz katekesiakoak ziren arabera. Eta liburuok batzarretan irakurtzeko zuzendurik zeudenez gero, egileek idazteko orduan helburu pedagogikoak hartzen zituzten kontuan; esan nahi da, ahozko literaturaren ardatzek eragin berezia izan zutela, bai textuak idazterakoan, bai hauek ulertzerakoan". LEKUONA, J.M.; "Bi literatur Estilo Gurean" in **Mundaiz**, uztaila-abendua, 1985, 30 zka., 61. or.

(415) María Jesús Lacarrak honela mugatu du narrazio-markoa: "Una narración-marco puede definirse como un conjunto narrativo compuesto de dos partes distintas pero unidas entre sí. La historia principal se ve interrumpida en su desarrollo por la inserción de relatos contados por los personajes de la narración inicial. Esta última engloba a las anteriores como un marco encierra una pintura". G. Garatek aipatua. Ik. GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (I). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 53. or.

horren deskripzio fisikorako edo leku baten deskripziorako ere. Eta, noski, narrazio-koordenaden erabilerak kontaketa osoa baldintzatzen duenez, aitzindari bihurtu beharra zeukan XIX. mende-bukaerako idazleak, elementu horiek lantzeko behar zuen tresna —euskara— egin gabeko ibilbide batean abiatzen zelako; izan ere, ahozko kontaketak eskaintzen ez ziona ez bait zion idatziak ere eskaintzen. Euskal literatura idatzian eliz gaiak tratatzeko langaiak aurki zitzakeen, baina ez fikzioak bere ezaugarri propioekin eskatzen zizkionik.

Hizkuntzak berak egiten zion desafio honi, idazleak ahozko kontaketetatik hurbil egon daitezkeen erlatuak sortuz erantzungo du; hala dio arestian aipatutako narrazio-marko horren erabilerak ez ezik, koordenada narratiboek orohar hartzen duten tratamenduak. J.M. Lekuonak dioenez, sistematikoki aztertu gabe dago herri-kontaeren literatur balioa gaur egun (416). Hala ere, azterketa estilistiko batek eskatzen dituen zehaztasunetara heldu gabe, aski da ahozko tradiziokoak diren (417) R.M. Azkuek **Euskalefiaren Yakintzan** bildutako kontaeretara jotzea, kontaera horien barne-egituran (418) zenbait ezaugarri orokor atzemateko: hala nola, joskera narratiboari dagokionez, funtzio kardinalak edo guneak kontatzeko joera, gunetik gunera doan kontaketa-mota antolatuz eta "tarteak" hitz-orerik gabe utziz; edo zenbait elementu erretorikoren erabilerari dagokionez, kontatzeko moduan ekintzen narrazioak deskripzioaren ondoan hartzen duen lehentasuna, honek erritmoari buruz dakartzan ondorioekin.

Noski, erlatu laburren alorrean gaude, bai ahozko tradizioari dagokion kasuetan, bai leienden kasuan. Eta hauek beren egitura daukate, eleberriek ez bezalakoa, matazak hartzen duen garrantziagatik, erritmo azkarragoagatik, etab. (419). Baina euskal lehen elebe-

---

(416) Ik. LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, Erein, Donostia, 1982, 237. or. eta hurrengoak.

(417) "Las tradiciones orales son todos los testimonios orales, narrados, concernientes al pasado". VANSINA, J.; **La tradición oral**, Editorial Labor, Barcelona, 1968, bigarren argitalpena, 33. or.

(418) "La mayor parte, por no decir todos los textos orales, están sometidos a reglas que determinan su disposición interna. Su contenido no se presenta revuelta y confusamente, sino que es expuesto siguiendo ciertas reglas que permiten clasificar de nuevo la literatura oral según tengan una u otra estructura interna". **Ibidem**, 72. or.

(419) Eleberria eta eleberri laburra bereizten ditu C. García Gual-ek. Honela kontra-

rritzat jo daitezkeenek ere antzeko ezaugarriak azalduko dituzte egituratzerako orduan, nahiz eta luzeagoak izan. Aurrerago azalduko denez, eleberri horietan ere, nahiz historikoak izan —**Auñemendiko Lorea**—, nahiz ohiturazkoak —**Kresala, Josecho, Garoa**—, gunetik gunera doan kontaketa-modua antolatuko bait da; pertsonaiak ezaugarri batzu dituzten tipoak besterik ez bait dira izango, ñabardurarik gabeak; pasadizo interesgarrienak kontatuko bait dira, horien arteko tarteak, urteak batzutan, elipsira edo laburpen handi batera eramanez, etab.

Mundu-ikuskera konkretu bat adierazi nahiak, sinbolo batzu sortu nahiak, eraman zezakeen euskal idazlea aukera horiek egitera. Baina izan zitekeen beste arrazoirik ere: hizkuntzak sortzen zituen arazoak, nahiz ikuspegi soziolinguistikotik, nahiz linguistiko hutsetik.

Ikuspegi soziolinguistikotik prosa narratiboaren bideari euskaraz heltzeak zer suposa zezakeen atzemateko, C. García Gual-ek aintzinako eleberriei buruz esanikoa ekarriko dugu hona:

> "Que las novelas antiguas se escribieran en griego, cuando sus autores no eran de esa nacionalidad, no es extraño ni accidental. El público al que estas obras van dirigidas participa de esa cultura universal, que se expresa en el griego de la **Koiné**, por encima de la diversidad de razas, religiones y creencias, en todos esos pueblos del ámbito oriental del Imperio Romano, la lengua griega expresaba una cultura común, que había calado con mayor o menor profundidad en el espíritu particular de la región, con tanto vigor como lo hacía el latín en el mundo occidental mediterráneo, por lo menos" (420).

Mendebaldean kokatuz, jakina da latinak kultur hizkuntza legez zuen prestijioa alde batera utzita, hizkuntza erromantzeetan idazten hasteak zer-nolako aldaketa suposatu zuen. Horrelako zerbait aplika

---

jartzen ditu: "Sin embargo la diferencia entre ambos tipos de relato no estriba en una mera cuestión de tamaño; o, si así se prefiere, una cuestión de tamaño en una obra literaria no es una cuestión exterior, sino que determina su estructura, es decir, inseparablemente, su forma y contenido". Aurrerago honela mintzo da eleberri laburraren egiturari buruz: "Su estructura debe ser simple y precisa en sus detalles; mucho más clara y cerrada que en la novela. Su ritmo es rápido y decidido, frente a la lentitud y meandros de ésta; no admite interludios ni digresiones; importa la trama en sí y no sus personajes". GARCIA GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, 15-16. orr.

(420) **Ibidem**, 22. or.

dakieke XIX. mendeko euskara eta euskal idazleei ere. Euskarak XVI. mendean bertan izan zuen idazle batek, Etxeparek, "Heuskara ialgui adi cãpora, plaçara, mundura, habil mundu gucira" dei egin zuen, baina ondorengoek ez zuten zuzia hartu. Eta eskolatik eta administrazio-bizitzatik at, egoera diglosikoan dagoen euskara literaturara ere diglosiadun zabalduko da, poesia eta prosa erlijiosoa izaki praktikan lantzen dituen alor bakarrak. Bizitza sozialean mugatua eta literaturan mugatua. Beraz, badirudi berriro beste dei baten zain jarria zegoela euskara mugak gainditu eta esparru zabalagoetara hedatzeko. Eta, kronologikoki behintzat, ezin uka izan zuenik; prosa narratibora jaio aurretik, eskolara eramateko lehen urratsen aurretik —euskarako katedrak lekuko—, euskarak bere apologistak ezagutu zituen: Larramendi, J.A. Mogel, Astarloa, Erro. Hauek prestijio handiagoa emango diote, eta honen bitartez hesiak hausten hasiko dira.

Hala ere, bide berriak urratzeko oztoporik franko bazuen, ibili gabeko bideetan abiatu beharra bait zeukan: hainbat alor aurretiaz jorratu gabeak —zientziak, giza zientziak, administrazioa—, hizkuntzaren altxorra jende ez-ikasiaren esku —apaizak salbu—, eguneroko bizitzako harremanetara mugatua...

Euskal eleberrigileak aurrez aurre ditu mugak: eleberriak egiteko behar duen tresnak, hizkuntzak, kasurik hoberenean euskalki mailan bakarrik du batasuna; baserri, itsas portuetako, herrisketako bizitzaren berri eman dezake, horiek bait darabilte eguneroko harremanetan euskara, euren girorako, beharretarako eta gorabeheretako hizkuntza landua, balio adierazkorrez eta konnotatiboz jantzia. Eta honetaz gain, eliza gelditzen zaio idazleari, eliz gaietan euskarak egindako ibilbidea. Baina alor hauetatik at, euskara landu gabeko hizkuntza da, erabili gabea, hiztegi eta joskera mailan bideak urratu beharrean dagoena.

Euskal idazlea mundu-ikuskera baten oihartzun bihurtzen zela esana dago, bere erlatu laburrak baserri, itsas portu, herrisketan kokatzen zituela, modu sinple batez garatzen diren ekintzetako pertsonaiak bizpahiru ezaugarrirekin karakterizatuz. Honela jokatuz, euskal idazleak biderik errazena hautatu zuen; izan ere, esate baterako, euskal eleberriak industrializazio-guneetan edo hirietan kokatu izan balira, hizkera berri bat asmatu beharko bait zuten; baita pertsonaien estudioa matazari gainezarri izan balie ere. Hala, maila batean, XX. mendearen bigarren erdira arte hasiko ez diren bideak urratzen hasi beharko zuen.

Maila soziolinguistikoan, linguistikoan, literarioan —prosa narratiboaren tradiziorik eza— zituen baldintzei aurre egingo die euskal idazleak, eta hizkuntzak egin gabe zeukan bidean lehen pausoak ematen hasiko da. Baina Euskal Herri "euskaldunean" kokatuko da, eta pertsonaien kanpo-ekintzak barne-prozesuei nagusitzen zaizkie. Batetik, mundu-ikuskera konkretu bat azaldu beharrak hala eskatzen bazien ere, bestetik, ez zuten hizkuntzaren egoerarekin hautsi, euskara fikzioaren bidez ordura arte erabili gabe zegoen esparrutara eramaterakoan; aitzitik, mota honetako hausturarik gabe, fikzioan ere lehendik zeuzkan ohizko alorretan higituko da.

3.2. IRAKURLEAK EZAGUTZEN EZ DUEN TESTU-MOTA

Euskal irakurlea ohituta dago eliz liburuak euskaraz ezagutzen; baina ez XIX. mendeak eskaintzen dizkion idatzi berriak. Bai alegietan, bai Lore-jokoetako erlatu laburretan bestelako produktuak eskaintzen zaizkio euskaraz soilik hitz egiten duenari.

J.M. Lasagabasterrek Lore-jokoen garrantzia azpimarkatu du euskal literaturaren instituzionalizazio-prozesuan:

> "A pesar de la discutible calidad de las composiciones presentadas, los concursos poéticos contribuyen decisivamente a la institucionalización de la literatura —aunque sea una versión tan coyuntural y plana de literatura como hacer versos— y a dar al quehacer literario —creación y consumo— un estatuto cultural y social que hasta entonces no tenía, al menos de un modo explícito" (421).

Irakurleari eskainitako atal honetan, literatur kontsumoari lotuko gatzaizkio, literatur gertaerari eskaintzen zaion harrerari.

Erlatu laburrek eta beranduago eleberriek ez bezalako tratamendua jasoko dute Lore-jokoetan saritutako poesiek. Lore-jokoetan epaimahaiak garailetzat jotako poemak kantatu (422) nahiz irakurri

---

(421) LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 275. or.

(422) Urruñan 1855.ean ospatutako Lore-jokoak honela komentatzen ditu **Le Messager de Bayonne**-k: "Le bâton orné, donné, comme toujours, par Ustaritz, et l'once d'or, dont Urrugne fait les frais, furent remis par Mme. Albert de Larralde-Diustéguy. C'est le privilége des poètes d'être couronné par le main de la

(423) egiten ziren jendaurrean festen barnean.

Agian, esan daiteke euskal irakurlea gehiago zela entzule irakurle baino; alegia, ohituagoa zegoela liburuetan irakurtzen baino beste batzuengandik entzuten eguneroko gorabeherei lotuta dauden elkarrizketak eta funtzio sozial praktiko bat daukatenak ez ezik, baita T. Van Dijk-ek hizketa-ekintza ritualak deitu dituenak ere (424). Bate-

---

beauté; et le lauréat, M. Leon Eliçamburu, brigadier des douanes, dut se consoler d'être ensuite moins heureux dans la partie de **rebot**. On sait que le sujet donné était **sur les femmes qui boivent du vin**. Voici la pièce couronné: elle fut chantée, seance tenante, par un choeur de Basques". **Le Messager de Bayonne**, 1885, XII, 6; edo Saran 1869.ean ospatutakoak J. Vinson-ek: "La pièce de poésie classée par le jury au premier rang, parmi les poèmes écrits qu'on lui avait envoyés, a été chantée sur la **place** le lundi matin, à neuf heures, avant le commencement de la grande partie de **pelote**, par des chanteurs que le maire avait designées **ad hoc**; puis les quatre-vingts francs et le **makhila** argenté ont été remis au vainqueur, M. Augustin Etcheverry, de Sare même". VINSON, J.; "Concours de poésie basque a Sare" in **Revue de Linguistique et de Philologie Comparée**, Paris, 1870, 368. or.

(423) Donostian 1888.ean ospatutako Lore-Jokoen sari-banaketaren jaialdiari buruz honela mintzo da **Euskal-Erria** aldizkaria: "La noche del 26 del corriente se celebró en el Teatro Principal de esta Ciudad la fiesta de distribución de premios á los autores laureados en el certámen del presente año, organizada por el Consistorio de Juegos Florales euskaros.

A esta fiesta genuinamente bascongada, acudió un público numerosísimo, que llenó todas las localidades del coliseo municipal.

Dió comienzo la función con la fantasía de aires bascongados **Reca i miei sospiri**, ejecutada con precisión por la orquesta. (...).

Siguió la lectura del acta del certámen, que nuestros lectores verán en este mismo número, y la de varias de las composiciones premiadas, hecha con sentimiento y corrección por nuestros colaboradores y amigos los Sres. Otaegui y Lopez Alen". **Euskal-Erria**, XIX, 1888, 565. or.

Antzerako kronika aurki daiteke 1889.eko Lore-Jokoen sari-banaketari buruz, aurrekoak bezala jendetza handia bildu zuen Donostiako Antzoki Zaharrera. Egitarauean, lehenbizi sinfonia bat entzun zuten, hau esan ondoren honela jarraitzen du **Euskal-Erria** aldizkariko kronistak:

"A continuación se leyó el acta del certámen, á que tenemos el gusto de dar cabida en este mismo número, y varias de las composiciones premiadas.

El público prodigó buena cosecha de aplausos á autores y lectores, siendo estos últimos nuestros colaboradores y amigos los señores Lopez Alen y Echegaray". Ik. **Euskal-Erria**, XXI, 1889, 566. or.

(424) "Entonces, pragmáticamente, el discurso literario pertenece a una clase de discursos que tienen en común el rasgo de ser definidos frecuentemente en términos de la **evaluación** de los lectores/oyentes: el hablante/autor quiere que al oyente/lector le **guste** el discurso. A estos actos de habla los vamos a llamar

tik, ahozko kontaerek osatzen zuten ekintza ritualen altxorra, eta hauen artean, besteak beste, J.M. Lekuonak "entretenigarri diren kontaerak" sailean sartzen dituenak. Hauei buruz honela mintzo da:

> "Gehienetan, zaharrak eta adineko pertsonak izaten dira kontaera hauek beren seme-alabei eta bilobei kontatzen dizkietenak. Beste batzuetan, negu parteko zenbait lanaldi izaten ziren kontu zaharrak luzaz emateko egokialdiak: Artazuriketak, linarien lanak, eta abar" (425).

Bestetik, batpateko bertsolaritza dago, hau ere jendaurrekoa, XIX. mendetik hona ezaguna, aurreko garaiak ilunago baldin badaude ere (426).

Bidenabar, esan dezagun, Lore-jokoetako festetan ere gehienetan parte hartzen zutela batpateko bertsolariek (427), Lore-jokoetako festetan egitarauaren zati bat osatzeraino.

---

rituales. No hay ninguna intención de cambiar el conocimiento, los intereses, las actitudes o los planes del lector más allá del **contexto actual** de la comunicación ritual". Aurrerago ñabardura gehiagorekin azalduko du irakurlearenganako hizketa-ekintza ritual hauek hartzen duten jarrera: "Sin embargo, la situación es más compleja. Aunque en general, y hasta algo normativamente, podemos decir que los tipos de discurso rituales no tienen como **intención** funciones prácticas como la de ampliar los conocimientos o provocar cambios de opinión, de necesidades y de objetivos, puede que el discurso literario lleve a cabo tales resultados de manera **indirecta**". VAN DIJK, T.A.; **Estructuras y funciones del discurso**, 134. or.

(425) LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, 240. or.

(426) "Bertsolaritzaren historia zail da egiten, behar den xehetasunaz behintzat, XIX. mendetik honantz ez bada. Gertatzen dena da, edo ez ditugula ezagutzen zuzenean bertsolarien textuak, edo oso pusketa huts direla oroitzapen kolektiboak gorde dituen bertsoak. Horregatik esango digu A. Zavalak, 1801a baino lehenagoko denboretan 'dena ilundura dela gure gaian', bertsolaritzaren historian". **Ibidem**, 95. or.

(427) Adibide gisa bat edo beste aipatuko dugu, horien artean Saran 1869.ean ospatutakoak. Honela dio J. Vinson-ek: "La séance d'improvisation a commencé à quatre heures du soir le mardi 14 septembre; elle a duré trois heures entières. Un grand nombre de curieux etaient massés sur la **place** (emplacement pour le jeu de paume) et sur les galeries où des siéges réservés étaient occupés par les autorités locales et par quelques étrangers privilégies. Quatorze concurrents se sont présentés; succesivement, deux à deux, ils ont pris la parole, discutant l'un avec l'autre, sur les sujets que le président, M. d'Abbadie, leur indiquait à mesure". VINSON, J.; "Concours de poésie basque a Sare" in **Revue de Linguistique et de Philologie Comparée**, 367. or. Berdin 1879.ean Elizondon ospatutakoetan;

Kopla zaharrak, erromantzeak eta abar ahozko tradizioan txertaturik ezagutu ditu euskaldunak. Eta tradizio honetan kontaerak eta batpateko bertsolaritza aipatu dira bereziki maiztasun handiz, beti entzulego bati zuzenduta daudelako: familia dela, auzokoak direla, herritarrak direla...

Eta ez dirudi ahozko igorpena ekintza ritual hauetara soilik mugatu zenik. Gogoratu nahi genuke J.M. Lasagabasterrek oin-ohar batean jasotzen duena ere:

> "Debo al gran historiador y amigo que es José Ignacio Tellechea el dato de que las obras del P. Mendiburu eran leídas por los párrocos en las reuniones de los Cofrades del Sagrado Corazón. Esto nos demuestra dos cosas: que la recepción superaba con creces el marco de la lectura individual y que no era literaria, sino específicamente religiosa" (428).

Aipamen honetan zera azpimarkatu nahi da: liburuak berak, irakurketa indibidual bat zilegiztatzen dutenak, batek bakarrik irakurriz talde bati zuzentzen zitzaizkiola.

Aita Mendibururen idazlanek jasotzen duten harrera-modu hau, gainera, ez da harrera-modu isolatua (429).

Beraz, badirudi XIX. mendera arte, prosa narratiboa jaiotzen den arte, hizketa-ekintza ritualak entzumenaz jasotzen direla batipat, eta ez irakurketa indibidual baten bidez; are gehiago, zenbait eliz liburu ere talde bati irakurtzen zitzaizkiola. Honenbestez, esan daiteke euskaldunak ez zuela euskaraz irakurtzeko ohitura handirik, eta irakurtzen zuenak ere funtzio praktikoa zuen zerbait irakurtzeko ohitura zuela: santitate-bizitza osoagoa bizitzen lagun ziezaioketen liburuak.

---

honela dio egitarauak: "Elcargoac emanen du 80 pezataco saria Biltzar batec berechico duen gayaren gañean cantuz berso oberenac egiten dituzten bi bersolarieri". Ik. **Revista de las Provincias Euskaras**, II, 1879, 290. or.; nahiz **Revista Euskara**, II, 1879, 154. or. Berdin Donostian XIX. mendearen barrena ospatu ziren guztietan.

(428) Ik. LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 255. or.

(429) Ikus jadanik aipaturik dauden LEKUONA, J.M.; "Bi literatur Estilo Gurean" in **Mundaiz**, uztaila-abendua, 30 zka., 61. or. eta ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 271. or.

Etxepare berak ere kantarazi egiten omen zituen bere bertsoak:

> "Aita Lafittek Oihenarten **L'art Poétique Basque** argitara zuenez geroztik, ordea, badakigu Etxeparek kantarazi egiten zituela bere bertsoak. Honela dio Oihenartek: 'Ie collige tant de la qualité de sa rime, qui est foible et imparfaicte, que du ton et de lair auquel il faisoit Chanter ses Vers...'" (430).

Honenbestez, bi puntu azpimarkatu nahi lirateke.

Batetik, J.M. Lasagabasterrek irekitako ildotik, literatur gertaerak Lore-jokoen barnean lortzen duen estatutu kultural eta sozial berria seinalatu nahi dugu, funtzio praktiko bat zuzen-zuzenean ez duen komunikazio-motekiko hurbilpena, hain zuzen. Baina poesiaren eta erlatuen artean desberdintasun bat egin beharra dago: saritutako poesiak jendaurrean kantatzen edo irakurtzen zirenez, jaietan bertan zeukatela lehen kontsumo-gunea, agian kontsumo-gunerik garrantzizkoena, batez ere kontuan hartzen bada poesia hauek idatziz zeukaten tirada; bitartean, aldiz, erlatuak irakurketa indibidual baten zain gelditzen ziren, irakurle potentzialak "oroimengarrietan" edo aldizkariren batean irakurri zain, alegia. Euskaldunari, lehen une batean behintzat, modu desberdinez heltzen zitzaizkion poesiak eta erlatuak: lehenak ahoz, bigarrenak idatziz.

Bestetik, azpimarratu nahi dugu euskaldunak komunikazio ritualak entzumenaren bidez dastatzeko zeukan ohitura, entzumenaren bidez eta taldean; eta ez bakarrik hizketa-ekintza ritualak, baita aipatu diren zenbait kasutan liburu erlijiosoak ere.

Planteamendu honen bidez, joera eta hipotesi gisa honako honen alde agertuko ginateke: hizketa-ekintza ritualekiko euskal irakurlearen sorreran gaudela. Hau ez dago absolutuki ametitzerik, XIX. mendea baino lehenago ere idatzi bait zen poesiarik —hor dago **O.ten gastaroa neurthizetan**, esate baterako—; baina bai erlatiboki. Honako hau esan nahi da: batipat komunikazio-mota ritualen entzule zenari, komunikazio ritualen irakurle bihurtzeko aukera heltzen zaiola prosa narratiboaren sorrera honetan. Izan ere, Lore-jokoetako poesiak idatziak izanda ere, hel bait zitzaizkiokeen ahoz; ez horrela giro horretantxe —Lore-jokoetan— sortutako leiendak, eleberri

---

(430) ALTUNA, P.; "Etxepare herri poeta" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 325-326. orr.

laburrak eta eleberriak, nahiz eta batzuk behintzat ahozko kontaketak izan oinarri.

Fikziozko prosaren sorrerari buruz ikertzaileren batek dioenez, hasiera haietan kolektiboa izan zitekeen errezepzio-modua. C. García Gual-ek hori ematen du aditzera oin-ohar batean:

> "Aunque hablo de lectores, había seguramente audiciones públicas, y el público en su mayoría oía las novelas en esa audición, oída para deleite personal" (431).

Baina mende askoren jauzia dago literatura grekoan eleberri laburrak sortu zirenetik —Kristo aurreko lehen mendetik Kristo ondorengo IV. mendera—, euskal fikziozko prosaren sorrerara. Eta mende horietan, besteak beste, inprimategiaren sorrera ezagutuko du gizarteak, honek liburuak zabaltzeko dakartzan abantaila ikaragarriekin.

Beranduagoko nobelagintza aztergai, C. García Gual-ek berak dio **Primeras novelas europeas** liburuan: "La novela está dedicada a una lectura en privado" (432). Eta euskal fikziozko prosa sortzean, pentsa daiteke irakurketa indibidualari lotuko zitzaiola.

Guzti honegatik diogu funtzio praktikoa ez duen komunikazio-mota bat irakurriko duen irakurlearen sorrera ezagutuko zuela euskal literaturak prosa narratiboaren sorrerarekin. Irakurle berri hori kontaketa mailan nahiz poesia mailan hizketa-ekintza ritualak ahoz ezagutzetik idatziz ezagutzera pasako da, kontaketei dagokionez behintzat, nahiz eta ahozko tradizioa idatzizko lehen erlatu hauekin eta eleberriekin ere ez den ahitzen (433).

Euskal irakurlea bere hizkuntzan idatziz ezagutzen ez duen testu-mota batzuren aurrean dago. Eta ezin esango da harrera arra-

---

(431) GARCIA GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, 41. or.

(432) GARCIA GUAL, C.; **Primeras novelas europeas**, Ediciones Istmo, Madrid, 1974, 21. or.

(433) "En el pueblo vasco existen todavía en gran número relatos de este género. A pesar del periódico, del cine, de la novela y de la afición a la vida materialista que irradian las poblaciones modernizadas tendiendo a borrar toda tradición en el pueblo, aún es posible hallar en rincones apartados de nuestro país ricas floraciones de cuentos y leyendas". BARANDIARAN, J.M. de; "Cuentos y leyendas" in **Obras completas. Eusko Folklore**, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, 239. or.

kastatsua izan zutenik eta idazleei eskutatik kendu zizkietenik; aditzera eman da zenbakitan zer-nolako harrera izan zuten.

"Oroimengarri", Lore-jokoetako sari eta aldizkariek, argitaratzen zituzten erlatuetatik edo-ta liburu gisa argitaratutakoetatik ez zen sortu ogibidetzat erlatuak kontatzea eduki zezakeen idazlerik; ezta urrik eman ere.

Hizkuntzaren egoera normalizatu batean, uste dugu zaletasun piska batek zilegizta zezakeela idazleren batek erlatugintza ogibidetzat izatea.

Hurbilpenez saiatuko gara posibilitate hori azaltzen. Horretarako erabiliko ditugun datuak ez ditugu zehaztasun osoz alderatuko, baina joera bat azaltzeko nahiko izango direlakoan gaude.

Ladislao Velascok 1867-1868 urteetan 471.000 pertsonetan jartzen du euskaldungoaren (euskaradunen) kopurua (434). Luis Luzien Bonaparte printzeak garai beretsurako 800.000 zifra darabil (435). Penintsula Iberikoan 1857. urtean Madrilek 281.170 biztanle ditu eta Bartzelonak 178.625 (436). Bi hiri hauen artean Ladislao Velascok euskaldunentzat (euskaradunentzat) ematen duen kopurua

(434) L. Velascok honako datu hauek eskaintzen ditu:

Urtea	Araba	Nafarroa	Gipuzkoa	Bizkaia	Iparraldea
1866 Biztanleak					123.000
1866 Euskaldunak					80.000
1867 Biztanleak	120.494		176.297	183.098	123.000
1867 Euskaldunak	12.000		170.000	149.098	80.000

Nafarroarako ez omen du hain datu zehatzik. Bere ustez 60.000 lagun inguruk osatuko zuten bertako euskaldungoa. Batuketak 471.000n jartzen du euskaldungoaren kopurua. Ik. VELASCO, L. de; **Los euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya**, 479-490. orr.

(435) Ik. EUSKALTZAINDIA; **Euskararen liburu zuria**, 295. or.

(436) VICENS VIVES, J.; **Historia de España y América. Burguesía. Industrialización. Obrerismo. Los siglos XIX y XX. América independiente**, V, Editorial Vicens Vives, Barcelona, 1961, 53-54. orr. Aipatu orrialdeetan estatuko hiriburuen biztanlegoaren kopurua eskaintzen du, 1857, 1900 urteei dagozkien taulak eskainiz.

osatzen dute ia; batuketak 459.795eko zenbakia ematen bait du (437).

J.I. Ferreras-ek dio Madrilen eta Bartzelonan saltzen dela aldizka-aldizka argitaratzen den eleberria (438), eta gutxi gorabehera 10.000 bat irakurlerentzat argitaratzen zela astero (439). Aurrerago egiletza arakatzen hastean (440), esango du Espainian ez duela ezagutzen eleberri-fabrikarik Alexandre Dumas-ek Frantzian sortutakoa bezalakorik, baina badirela egile ezagunentzat lan egiten duten "langileak". Aldizka-aldizka argitaratzen zuen eleberrigile zenbaitek irabaz zezakeena 1.000 erreal inguruan kokatzen du 1868. urtea aurretik (441).

Nahiz eta alderaketarako erabilitako terminoak ez izan guztiz homogenoak, J.I. Ferreras aldizka-aldizka argitaratzen ziren eleberriei buruz ari da, astero-asteroko argitalpenak aipatuz. Eta hori ezin aplika dakieke euskarazko narrazioei berdintasun osoz. Ez da guztiz homogenoa ere Madrile eta Bartzelona bezalako bi hiri handitako biztanlego-modua batipat herri txiki eta baserritan sakabanatuta bizi den euskaldungoarekin alderatzea.

Nolanahi ere, euskal kontaketek ezagutu dute aldizka-aldizkako argitaratzerik, nahiz eta maiztasuna desberdina izan. Hor daude lekukotzat **Peru Abarca** (442), **Beti bat** Bilboko egunkarian; Lore-jokoe-

(437) Noski, agerian gelditzen da datu-konparazio honetan hamar urteko aldea dagoela batetik bestera eta hamar urte horietan demografi aldaketak egon direla. Baina lehen esan den bezala, konparazioa ez da zehatza izango.

(438) Ik. FERRERAS, J.I.; **La novela por entregas, (1840-1900)**, Taurus Ediciones, Madrid, 1972, 35. or. Nolanahi ere, lehenago baiezpen hau matizatu egiten du: "las entregas parecen destinadas a los lectores de estas dos ciudades en primer lugar, y en segundo lugar a los lectores de provincias", 23-24. orr.

(439) **Ibidem**, 31. or.

(440) **Ibidem**, 79. or.

(441) **Ibidem**, 83. or.

(442) **Peru Abarca** testuaren inguruan egon den auzietariko bat zein literatur generotan sailkatu behar den eztabaidatzerakoan sortu da. Baina zilegi bedi hemen **Peru Abarca**ren argitaratze-modu hori aipatzea, zehaztasun handiago edo txikiagoarekin prosa narratiboaren alorrera hurbildu dutenen iritzietan oin-harturik: L. Mitxelenak, "En cierto modo es, en forma dialogada, el primer conato de novela en vascuence" esan du. (Ik. **Historia de la Literatura Vasca**, 108. or.). J.M. Lasagabasterrek esan du "Egitan **Peru Abarca**'k badu lauki edo marko narratibo

tan saritutako zenbait erlatu labur (443) eta Lore-jokoetako sariketetatik at idatzi eta argitaratu zirenak (444); **Piarres Adame**, lehenbizi Donibane Lohitzuneko **La Nivelle** aldizkarian (lehen bost kapituluak besterik argitaratu ez bazituen ere), gero **Le Revéil Basque** astekarian liburu gisa argitaratu aurretik; R.M. Azkuek berak **Bein da betiko** liburu gisa argitaratu ondoren, **Euskalzale** aldizkarian argitaratu zuen aldizka-aldizka (445); **Euskalzale** aldizkarian bertan argitaratutako hainbat eta hainbat "irakurgai" (446); **Auñemendiko Lorea** bera

---

bat, ttipi ttipia bada ere". Ik. "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 354. or.

(443) Lore-jokoetan saritutako leiendak benetan laburrak ziren, lau-bost orrialdetakoak edo gutxiagokoak gehientsuenak. Hala ere, kasuren batean luzexeagoak izatean, argitaratzen zituen aldizkariak ale desberdinetan argitaratu zituen; hala nola, "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak", **Euskal-Erria**, V, 1882, 2. alea, urtarrilaren 20koa, 33-36. orr.; eta erlatuaren jarraipena **Euskal-Erria**, V, 1882, 3. alea, urtarrilaren 30ekoa, 65-69. orr., edo "Pachi ta Konchesi", **Euskal-Erria**, X, 1884, 126. alea, urtarrilaren 10ekoa, 7-14. orr., eta erlatuaren jarraipena **Euskal-Erria**, X, 1884, 127. alea, urtarrilaren 20koa, 33-37. orr.; edo "Malko bedeinkatuak", **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, 271. alea, urtarrilaren 20koa, 46-50. orr., eta erlatuaren jarraipena, **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, 272. alea eta urtarrilaren 30ekoa, 88-92. orr.; etab.

(444) **Euskal-Erria** aldizkarian K. Echegarayren "Euskal-Erria" erlatua aurki daiteke aldizka-aldizka argitaratua. Ik. XXV, 1891, 396. alea, uztailaren 10ekoa, 1-4. orr.; XXV, 1891, 397. alea, uztailaren 20koa, 33-37. orr.; XXV, 1891, 398. alea, uztailaren 30ekoa, 65-68. orr.

La Abeja aldizkarian, Ezti-Abauak-en (R.M. Azkue), "Peru Matraka ta Pedr'Anton" kontaketa aurki daiteke aldizka-aldizka argitaratua. Ik. 1. alea, 1889.eko abendukoa, 30-32. orr.; 2. alea, 1890.eko urtarrilekoa, 55-65. orr.; 3. alea, 1890.eko otsailekoa, 92-96. orr.; 4. alea, 1890.eko martxokoa, 126-128. orr.; 5. alea, 1890.eko apirilekoa, 156-160. orr.; 6. alea, 1890.eko maiatzekoa, 188-192. orr.

(445) Ik. **Euskalzale** aldizkaria, II, 1898, irailak 1, 276. or.; II, 1898, irailak 8, 283-284. orr.; II, 1898, irailak 15, 290-291. orr.; II, irailak 22, 301-302. orr.; II, 1898, irailak 29, 312. or.; II, 1898, urriak 6, 318-319. orr.; II, 1898, urriak 27, 342. or.; II, 1898, "zemendiak" 3, 350. or.; II, 1898, "zemendiak" 17, 366-367. orr.; II, 1898, "zemendiak" 24, 373-375. orr.; II, 1898, "lotazillak" 8, 390-391. orr.; II, 1898, "lotazillak" 29, 413-414. orr. Ia asteroko maiztasunarekin argitaratu zen, nahiz eta, ikus daitekeenez, erdi alde ingurutik aurrera maiztasun hori hautsi egiten den.

(446) Lehendik Lore-jokoetako "oroimengarrietan" eta **Euskal-Erria** aldizkarian argitaraturik zeuden zenbait "irakurgaiz" gain **Euskalzale** aldizkariak ordura arte argitaratu gabe zeudenak ere argitaratu zituen aldizka-aldizka ale desberdinetan zehar. Ez luzatzearren ez dugu aipamen zehatzik emango; baina, besteak beste,

ere, nahiz eta bukatuta zegoela hasi zen argitaratzen, aldizka-aldizka argitara zen (447); XX. mendea hasi eta gero **Kresala, Euskal-Erria** aldizkarian argitara zen (448)...

J.I. Ferrerasek hirietako langilego proletarioa jotzen du produktu hauen kontsumitzailetzat (449). Baina euskal kontaketei dagokionez, ez dugu uste hor aurki daitekeenik irakurlego potentziala; eta hori hainbat arrazoirengatik. Arrazoi horien artean, hizkuntza aipa daiteke.

Euskal Herrian Bizkaia eta Gipuzkoa izan dira industrializazioaren gunerik garrantzizkoenak; azkenekoa sorreraz berankorragoa, egituraz sakabanatuagoa (450).

Euskal Herria industrializazioaren sorrera-garaian (451), emi-

---

Euskalzale aldizkariaren ale desberdinetako orrialdeetan "Anton Betozko", "Kristobal andia", "Batši guzur", (I, 1897), "Maritšu" (II, 1898), etab. argitaratu ziren.

(447) **Auñemendiko Lorea**, 1898.eko ale desberdinetan zehar argitaratu zen "irakurgaien" sailean.

(448) **Kresalak** lehen aldiz **Euskal-Erria** aldizkariaren orrialdeetan ikusi zuen argia. Nolanahi ere, ez zen heldu osorik argitaratzera. **Euskal-Errian** hitzaurreaz gain lehen 24 kapituluak aurki daitezke. Aldizka-aldizka argitaratzerakoan gehienetan aldi bakoitzerako kapitulua hartzen badu ere, ez da beti hala gertatzen; esate baterako, 5.a, 20.a eta 21.a bi emanalditan banaturik daude, eta 23.a eta 24.a emanaldi batean bilduta.

(449) "La novela por entregas se vende en Madrid y en Barcelona, entre un proletariado obrero que gana de 50 a 60 reales semanales; este jornal se cobra el sábado, día del reparto de la entrega (a veces este reparto tenía lugar el lunes).

La novela por entregas no se vende en el campo, en el que el proletariado obrero cobra salarios de 3 a 5 reales diarios, los días que trabaja, que no son muchos al año". FERRERAS, J.I.; **La novela por entregas, (1840-1900)**, 35. or.

(450) "Las dos regiones vascas en que la vida industrial se ha desarrollado con mayor intensidad son Gipuzkoa y Bizkaia. En Gipuzkoa, la industria se presenta muy diseminada por sus villas y valles; en Bizkaia, en cambio, la ría de Bilbao ofrece un aspecto de concentración industrial sin igual en todo el país". THALAMAS, J.; **Aspectos de la Vida Profesional Vasca**, Beñat Idaztiak Editor, Donostia, 1935, 59. or.

(451) "La evolución industrial moderna comenzó en nuestro país a mediados del siglo pasado". THALAMAS, J.; op. cit., 158. or. Antzerako zerbait dio J.J. Solozabalek ere: "En tanto el despegue vizcaino puede datarse firmemente desde 1857, el guipuzcoano tarda en producirse unos años más". SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 37. or.

gratzera behartuta egongo den jende-multzo baten bizileku bada ere, batzuk nahiago izan zuten atzerria industrializazioak sortutako lanpostuetara igarotzea baino (452), nahiz eta aurreko emigrante-kopurua jaitsi egiten den mende-bukaeran (453).

Bilbo eta bere inguruetan XIX. mendearen bigarren erdian garatutako industrializazio-prozesuak sortzen duen langilego-proletargoa Euskal Herriko mugetatik kanpokoa da batipat, gehienbat Gaztela, Asturias eta Galiziatik lanera etorria. Lan horietara hurbildu den euskaldungoak erdaldun inmigratuen heren bat besterik ez du osatzen (454). Egoera areagotu egiten da inmigrazioaren neurriak aztertzean;

---

(452) "Entre las causas de la emigración vasca Lefèvre indica las siguientes: en primer lugar el excedente de nacimientos en la zona montañosa de nuestro país; en segundo término, la evolución industrial moderna que dió muerte a los innumerables oficios locales en los cuales se empleaban los no herederos; muchos prefirieron ir a las Américas antes que decidirse a convertirse en proletarios de ciertas factorías donde se prefería a la gente extraña". THALAMAS, J.; **Aspectos de la Vida Profesional Vasca**, 132. or.

(453) "La emigración comenzó a descender desde fines del siglo pasado, debido a que aumentaron de una manera considerable las facilidades para dedicarse a labores fabriles y también gracias a los medios de locomoción que permitieron a muchos trabajadores desplazarse hacia las factorías sin verse obligados a vivir en los centros industriales". **Ibidem**, 132. or.

(454) C. del Riok **El Liberal** egunkarian 1903. urteko azaroaren 18an idazten zuen artikulu baten aipamena jasotzen du J.J. Solozabalek. Honako hau: "Si investigárais en las minas la naturaleza de sus trabajadores, os encontraríais tal vez sorprendidos con que son los vascongados los que en número menor figuran en las listas de las explotaciones, hasta el punto que la cifra que en ellas aparece de vizcainos, de guipuzcoanos, de alaveses y de navarros, es por lo escasa, insignificante. El mayor contingente de operarios lo prestan los gallegos, lo prestan los sorianos, los leoneses, los naturales de Zamora, por este mismo orden (...). Son los naturales de las comarcas más pobres y atrasadas, los que acuden a efectuar todos esos trabajos, supliendo los brazos que las gentes del país no prestan, o prestan en número insuficiente". SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 129-130. orr.

J.J. Solozabalek gertaera berbera seinalatzen duen beste aipamen bat ere jasotzen du: "Los obreros vizcainos, dice Juan Puyol y Alonso en el **Informe referente a las minas de Vizcaya** del Instituto de Reformas Sociales, están en exigua minoría, hasta el punto de que bien puede afirmarse, sin temor a incurrir en equivocación, que más del 70 por 100 de los operarios que trabajan en las minas proceden en su mayor parte de las provincias de Coruña, Lugo, Orense, Pontevedra, León, Soria, Oviedo, Palencia, Zamora, Salamanca y Burgos, siendo las seis primeras las que proporcionan el mayor contingente". **Ibidem**, 128. or.

kontuan hartu behar da jende gaztea zetorrela, ezkontzeko eta familia izateko adinean zegoena. Beste hizkuntza bat, ohitura, bizitzeko modu eta abar zeuzkan herri batean nekez integratzen ziren, euskaldunak (euskaradunak) ez zirenen arteko ezkontzak sortuz batipat. Hauengandik jaiotako seme-alabak Euskal Herrian jaiotakoak izango dira, baina nekez euskaldunak (euskaradunak), Bilbo eta inguruetan inmigrazio-datuek agertzen duten hizkuntz egoera larriagotuz (455).

Zehaztasun handiagoko edo txikiagoko datuek azaltzen dutenez (456), XX. mendearen hasieran industriguneetako proletargoaren jatorria nagusiki etorkina da; beraz, ezin izan daiteke proletargo hau aldizka-aldizka argitaratzen ziren euskal kontaketen irakurlea, ez bait zuten hizkuntza ezagutzen.

Baina hizkuntza ez da hesi bakarra. Egia da proletargo erdaldun honek ezin izango dituela euskal kontaerak irakurri; baina kontaera hauek ere ez dute industrializazio-gune horietako langileen historia eta aspirazioak kontatuko. I. Sarasolak XIX. mendeko azken herenean eta XX.aren hasieran Bizkaiko Nerbioi ibaiaren ezkerraldean jazotako aldaketa demografiko-sozial-ekonomikoei buruz zenbait datu azaldu ondoren, honela dio literaturaren alorrera igarotzean:

> "Garaiko euskal literatura estudiatuz gero, ba dirudi guzti hau ez dela egia, beste Euskal Herri horrek ez duela esistitzen, guzti hori ez dela Euskal Herri" (457).

Ez dago XX. mendearen hastapenetara heldu beharrik honelako datuak aurkitzeko. Lehenagotik zetorren. Hala, 1887.erako, Sestaon, Barakaldon, Trapagan, Santurtzin, Portugaleten eta Bilbon gizonezko inmigratuen kopurua bertako gizonezkoena baino handiagoa zen; aldiz, Gernika bezalako nekazal herri batean inmigratuen kopurua oso txikia da; 1900. urtean, esate baterako, beste nonbaitetik (Euskal Herria bertatik edo kanpotik) etorritako jende-kopurua %2'67 besterik ez da: 47.696 biztanletatik 1.276. **Ibidem**, 31-44. orr.

(455) **Ibidem**, 44. or.

(456) "El año 1903 trabajaban en la región minera 9.472 obreros, la inmensa mayoría de regiones extrañas; en 1910 había 13.000 mineros, entre los cuales los vascos no pasaban de los tres mil". THALAMAS, J.; **Aspectos de la Vida Profesional Vasca**, 171. or. Urterik aipatu gabe kopuru hau berau ematen du J. de Posse y Villelgak: "De 13.000 que se empleaban en las labores de las minas, sólo 3.000 eran vascongados". POSSE y VILLELGA, J.; **La vida social en el País Vasco. Lecciones pronunciadas en la VI Semana Social de Pamplona**, Imp. y Lib. de Florentino de Elosu, Durango, 1914, 19. or.

(457) Ik. SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, 59. or.

I. Sarasolak baiezpen honen oinarriak ondorengo orrialdeetan azalduko ditu zabalago, leku berezi bat eskainiz **Garoa** eleberriari eta honen barnean eleberri honek XI. kapituluan Nerbioi inguruari eskaintzen dion deskripzioari; jakina denez, alderdi horien gaitzespena osoa da (458). Baina **Garoa** idatzi aurretik ere, aurki daitezke adibideak, zeintzuetan industrializazio-gune horiek eta bertako biztanleek eragiten zizkieten jarrerak azaltzen diren. Lekukotzat K. Echegarayren "Malko bedeinkatuak" aipa daiteke. Hernio mendi gainetik ikusten dena eta bertako gurutzea deskribatzean, kontalariak I. Sarasolak aipatzen zituen "bi Euskal Herri" horiek kontrajartzen ditu:

> "eta an Ifar-aldean ageri da itsaso zabala, eta bere ertzean Kantauriako itsaso onek muñ-egiten dien uri guztietan ederrena, Donostia, chorikume bat amaren egopean bezela, Urgull mendiaren azpian bildua. Eta oen guztien gañean, emen ageri da, besoak zabalik, Gurutzea, mundu guztiak ikusi dezan, mendiaren gañean jarria. Besóak zabal dauzka, alde denetara mesedeak zabaltzeko, salbatuaz: orkoak, Nafar-aldetik datorren ekaitzetik; angoak Bizkai-aldean dabillen izurri charretik; eta itsaso zabalaren gañean dabiltzanak, urikal guztietatik" (459).

Leiendetan industrializazio-guneek eta hauetan bizi diren pertsonaiek hartzen duten tratamendua jarrera baten lehen zantzuak besterik ez dira, eleberrietan jarraituko duena. Euskal lehen eleberrietako pertsonaiak ez dira leku horietan bizi, eta zenbaitetan toki horiek eleberritara ekartzean gaitzetsi egingo dira; baita bertan bizi diren pertsonaiak ere.

Arestian etorkinen integrazio-falta aipatzen zen. Orain erants dezagun euskal prosa narratiboa ez zela horientzat idazten eta horiek ez zirela irakurle potentzialak; hizkuntza hesi bait zuten eta euskal prosa narratiboak azaltzen zuen mundu-ikuskera arrotz.

Batipat Madrilen eta Bartzelonan saltzen zen aldizkako eleberri horren irakurlego potentziala zedarritzeko ahaleginetan, J.I. Ferrerasek analogiak ezartzen ditu idazlanen eta irakurleen artean, honako hiru irakurlego-multzo hauek bereziz: emakumeak, langile eta artisauak, burgesia txikia.

---

(458) Ik. SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, 59-63. orr.

(459) ECHEGARAY-KO, K.; "Malko bedeinkatuak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, 1887, 24-25. orr.

Hauetako talde bakoitza aldizka-aldizka argitaratzen ziren obra-mota batzuren irakurletzat joko du, emakumeak gai sentimentalak garatzen dituzten eleberrienak, langile eta artisauak sozialismo utopikoaren ildoan kokatzen direnenak, burges txikiak (artisau, irakasle...) abentura historikoenak (460).

Aldizka argitaratzen den euskal fikziozko idazlanetara nahiz irakurlegora hurbilduz gero, ezin aurki daiteke antzeko egoerarik.

Euskal prosa narratiboan aurki daiteke abentura sentimentalik, baina euskal prosa narratiboak ez ditu abentura sentimental horiek erakusten. **Bein da betikoren**, **Auñemendiko Lorearen** eta **Kresalaren** fabuletan ere azalduko da maitasun-historia, azkenengo bietan lehenengoan ez hainbeste, baina jasotzen duten tratamenduagatik oso maitasun-historia bereziak dira, ikuspegi moralistatik bizitzarako pautak erakusten dituztenak. Eleberri horietan ez da maitasun-historiaren garapena bera erakusten, baizik eta maitasun-historia hori dela-ta, inguruan sortzen diren arazoak. Emakumeak protagonista izaki —Kattalin, Riktrudis, Mañasi—, hauek maite dutenarekin ezkontzea erdietsi arte biziko dituzten eragozpenak kontatuko dituzte, maitasun hori sentitzeak berak sortzen dizkieten kontzientzi arazoak, maitasun hori kontsumatzeak bizi diren inguruan sortzen dituen tentsioak, maitasun-historia hauen garapena balore batzuren irakaspenaren zerbitzutan jarriz: kristautasuna, etnia, arraza, aberria, gurasoei zor zaien obedientzia...

Maitasun-historia baten garapena bilatu nahi duenak eragozpen batzuren garapena aurkituko du; protagonistek maitasun baten lorpenerako nolako bitartekoak darabiltzaten ikusi nahi duenak ez du bitartekorik aurkituko, ez bada gizakumea hurbildu arte itxarotea; kontrolik gabeko sentimentuek eragindako ekintzak aurkitu nahi dituenak guztiz kontrolpean daudenak aurkituko ditu.

Kontaketa hauek ez daukate irakurlego potentziala bereziki emakumeengan aurkitu beharrik; izan ere, nahiz eta kontaketa hauek emakume zintzo eta onentzat zorioneko etorkizuna iradoki eta ezkontza on batera heltzeko bidea erakutsi, era berean matazaren garapenak euskaldun gizaki-talde handi baten kezkak bait dakartza, eta kezka hauei gizaki-talde handi baten mundu-ikuskeratik emandako erantzuna, kolokan jartzen ari diren balore tradizionalen balioa

(460) Ik. FERRERAS, J.I.; **La novela por entregas, (1840-1900)**, 27-30. orr.

erakutsiz eleberri horiek idazten diren garai horretan bertan: Jaungoikoa, apaizak, gurasoak, autoritatea, euskaldunen izaera...

Arestian esan den bezala, fabula kontatzeko erabiliko diren baliabideak maitasun-historia bat kontatzera baino askoz gehiago zuzenduko dira balore horien berri ematera: kontalari orojakile bat balore horien zerbitzutan jarriko da nabarmen; fabulak irauten duen denboran gertatutako jazoerak kontu handiz aukeratuko dira, eszenak balore horien zerbitzutan jarriz eta hori hain garbi adieraziko ez luketenak laburpenera edo elipsira kondenatuz. Mataza, kontalaria, lekua, denbora, kontatzeko moduak ... era jakinean antolatuko dira: balore batzu arbuiatzeko eta beste batzu goraipatzeko.

J.I. Ferrerasek bigarren irakurlego-multzo bat seinalatzen zuen: "sozialismo utopikoaren" inguruan eraikitako eleberri-motak irakurriko zituzkeena.

Sozialismoa dotrina politiko legez XIX. mendeko euskal kontaketetan esplizituki presente ez badago ere, XX. mende hasierakoren batean gehiago esplizitatuko da: hor dago, esate baterako, **Garoa**, XIX. kapituluan zeharo gaitzetsiko duena, Eibarko mitinlariak ridikulizatuz (461).

Euskal kontaketek gaitzetsi egin dituzte industrializazio-guneak konta-leku bezala; azaltzen direnean, kontaketen kokaguneei —baserria, itsas portuak, mendiak, euskal herriskak— kontrajartzeko azaltzen dira, dela leku fisikoaren eta pertsonaien deskripzioan, dela hauen ekintza eta izaeretan. Industrializazio-gune hauek dira sozialismoaren haziaren ernetokirik garrantzizkoenak (462). Baina lekuak nahiz sozialistak arbuiatu egingo dituzte euskal kontaketek, espazioz, ogibi-

---

(461) AGIRRE, D.; **Garoa**, 290-293. orr.

(462) "En 1903 las agrupaciones de la zona minera encuadraban a un 50 por 100 de los 1.992 miembros de la Federación Socialista de Vizcaya; la Arboleda, con 491 afiliados, sólo superado en la región por Bilbao (568 afiliados), era una de las fuertes agrupaciones socialistas del país". FUSI, J.P.; **Política obrera en el País Vasco (1880-1923)**, 102-103. orr. Eta 103. orrialdeko oin-ohar batean datu zehatzagoak jasotzen ditu; bertan irakur daiteke Ortuellak 125 partaide zituela, Gallartak 68; Las Carreras-ek 299; Musques-ek 68. Honenbestez, PSOE-ren afiliatuen hiru laurdenak Bilbo eta Nerbioi ibaiaren ezkerraldean zeuden.

Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan sozialismoaren sorrera berankorragoa da eta neurriz txikiagoa. Ik. POSSE y VILLELGA, J.; **La vida social en el País Vasco. Lecciones pronunciadas en la VI Semana Social de Pamplona**, 17-24. orr.

dez, bizitzeko moduz, mundu-ikuskeraz... "beste Euskal Herrian" daudelako, euskal kontaketetatik at dagoen hartan, hain zuzen ere.

Hizkuntzaz batipat erdaldun, jatorriz batipat etorkin (463), kokalekuz industrializazio-guneetako biztanle, euskal kontaketak ez dira sozialistentzat idatziko, ez industrializazio-gune horietako proletargoarentzat (464). Langile/ugazaba aurkakotasunik ez da azalduko; bai, ordea, ugazaba/morroi/langile adiskidetasuna, hauek leialak direnean —**Auñemendiko Lorea, Kresala, Garoa**—. Arazo hori ez da

(463) Ez dago ahazterik, esate baterako, sozialismoak Eibarren euskaldunen artean izan zuen arrakasta. J. Posse y Villelgak 1900. urtean kokatzen du sozialismoaren sorrera Eibarren. Ik. POSSE y VILLELGA, J.; **La vida social en el País Vasco. Lecciones pronunciadas en la VI Semana Social de Pamplona**, 21. or.

Sozialismoak ez zuen gaztelera soilik erabili propagandarako: "La propaganda socialista se hacía en castellano y en euzkera y también se propagaron folletos conteniendo el programa socialista en las dos lenguas". THALAMAS, J.; **Aspectos de la Vida Profesional Vasca**, 179. or.

(464) Sozialistek euskal eleberrian jasotzen duten tratamenduak beranduago ere sortuko du arazorik. Aipatu dugu dagoenekoz **Garoak** nola ridikulizatzen dituen sozialistak. Seguruaski, D. Agirrek ez zuen idatzi Eibarko sozialisten artean irakurleak bilatzeko asmoz; baina 1956. urtean A. Iturriak hauengan ere **Garoaren** irakurleak bilatu nahi zituen. Arrazoi honengatik edo sozialistek jasotzen zuten ridikulizazioari gehiegizkoa zeritzolako, 3. argitalpena prestatzerakoan jatorrizko testua "obetu" egin zuen, besteak beste, D. Agirrek sozialistei emandako tratamendua zertxobait leunduz. A. Iturriak berak dio hitzaurrean ez duela D. Agirreren jatorrizko testua jarraitzen: "Ona, bada, emen 'Garoa' liburuaren irugarren argitaldia. Au egitean, bigarrena izan degu begien aurrean, bigarrenari atxiki gatzaio, Lekuona Apaiz euskalzaiñak moldatu ta Lopez Mendizabal'dar Ixakak argitara eman zunekoari, alegia. Badakigu bigarren argitaldi ori, azaldu zanean, naiko maxiatua ta gaizki ikusia izan zala. Ez gera gu ortan sartu ... Egia da, kritikoen begietatik ikusi nai izan ezkero, obe zala aurreneko argitaldiari jarraitzea. Baña guk eztegu edizio kritiko oietakorik egin izan nai; ezta ori gure asmoa izan. Erriaren begietatik ikusi nai izan degu; ta orregatik aukeratu degu bigarren argitaldia, erriak ezagunagoa ta irakurriagoa zulako, errian zabalduagoa zegolako". A.I.; "Itz bi" in AGIRRE, D.; **Garoa**, irugarren agerraldi obetua, Aranzazu argitaldaria, 1956, XVII. or. L. Mitxelenak salatu egin zuen jokabide hori. "Obetzea" salatu zuen orohar, XIX. kapituluari, Eibarko mitina kontatzen denekoari, arreta berezia eskainiz eta aldatutako zenbait esaldi aipatuz; besteak beste, sozialismoaren jatorrizko tratamendua gozatzen dutenak. Ik. MITXELENA, L.; "**DOMINGO AGIRRE. GAROA. Irugarren agerraldi obetua**. Aranzazu Argitaldaria, 1956" in **Egan**, 5-6 zka., 1956, 145-147. orr.

L. Mitxelenak 1956.eko argitalpenari eginiko salaketa 1935.ean A. Irigaraik 2. argitalpen "obetuari" eginikoari lot dakioke; horra hor bi ahots, neurririk gabeko desproposito honen aurrean. Ik. A. Irigarairen iruzkina 1935.eko "bigafen agefaldi obetua"-ri **RIEV** aldizkarian, 1935.ekoan, XXVI. zkan., 196-197. orrialdeetan.

euskal eleberrira heldu; euskal eleberriek zerbait agertzen badute, juxtu da bien arteko harremanetako problematikotasunik eza.

Azkenik, J.I. Ferrerasek bereizten duen hirugarren taldeari lotuko gatzaizkio; abentura historikoen irakurle potentzialari, burges txikiari. Saihets ditzagun oraingoz J.I. Ferrerasek berak beste liburu batean, **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)** liburuan, sorrera erromantikoa duen eleberri historikoaren, abenturen nobela historikoaren eta abentura historikoen eleberrien artean (465) ezartzen dituen desberdintasunak. Euskal narrazio historikoen alorrean soma daiteke hain heterogenoa den burgesia txiki hori izan daitekeela irakurle potentziala; are gehiago, burgesia txiki hori joko genuke hipotesi gisa, euskal leienden, eleberri laburren eta eleberri historikoen eta beranduagoko ohiturazkoen irakurle potentzialtzat.

J. Juaristik Euskal Herriko hiritar oligarkia erdalduntzat jo du (466); berdin M. Etxebarriak burgesia bizkaitarra (467). Honenbestez, klase sozial hau baztertu egin beharko litzateke orohar euskal kontaketen irakurle bezala, proletargoa orohar baztertu den bezala.

K. Echegarayk ere ez zuen uste goi-mailako klaseek euskara sal-

---

(465) Ik. FERRERAS, J.I.; **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)**, Taurus Ediciones, Madrid, 1976, 105-208. orr.

(466) "Ez dago honetan ezpairik. Hiritar oligarkia erdalduna izan zen betidanik. Euskara nekazal hizkuntza bat izatera kondenaturik gelditu zen, eta oinarririk gabe dirudite Beñat Etxeparekoren hitz optimista haiek:

'Prince eta jaun handiec oro haren galdia Scribatus halbalute iqhasteco desira!'.

Errealitateari hurbilago dirateke erdal eskritore PEREZ de MONTALVAN-ek 'La toquera vizcaína' izeneko obraren pertsonai baten ahoan ipini zituen hitzak:

Lisardo.—¿Cómo, siendo vizcaína,
hablas tan bien nuestra lengua?
Dña. Elena.—Porque es en vizcaína mengua
y entre los nobles mohína,
hablar vascuence jamás
sino fino castellano.

Oligarkiaren politika euskaldun populua bizi publikotik marginatzera zuzendu zen". JUARISTI, J.; **Euskararen ideologiak (1)**, Kriselu, Donostia, 1976, 37-38. orr. J. Juaristik hemen jasotzen duen bigarren aipamena A. Legardaren **Lo vizcaino en la literatura castellna** (sic) liburukoa dela dio.

(467) "y la burguesía vizcaína había sido desde siempre y más particulamente desde el siglo XIX, castellanófona". ETXEBARRIA, M.; **Sociolingüística urbana. El habla de Bilbao**, 81. or.

batuko zutenik, baizik eta nekazariek, arrantzaleek, artzainek eta ikazkinek, XIX. mendearen azken heren horretan irakurtzen ez dutenek, hain zuzen. Hitzez hitz hori ez badio ere, hori uler daitekeelakoan gaude:

> "Si el bascuence se ha de salvar y mantenerse por largos siglos en nuestras abruptas montañas, no lo salvarán seguramente las clases superiores, las cuales se muestran de ordinario demasiado sujetas á los efímeros caprichos de la moda, sino los que labran la tierra, los que pastorean, los pescadores que luchan diariamente con la fuerza del Cantábrico, y los humildes carboneros de cara tiznada pero de corazón sano y limpio como el agua cristalina de las montañas.
>
> Los que escriben en bascuence han de procurar estar cada día más cerca de los que no leen, pero que debieran leer" (468).

A. Campionek ere azalduko ditu arazo hauek, bai goi-mailako klaseek euskara baztertzearena (469), bai herri soilaren axolagabetasuna jasaten ari zen erasoen aurrean (470).

Izan ere, seguruaski, euskal nekazariak bazuen nahiko lan bizitzearekin, arazo filosofiko, politiko edo literarioetan murgiltzeko astirik eta dirurik gabe:

> "El aldeano trabaja duramente durante todo el año él y su familia, mujer e hijos y obtiene como único rendimiento una comida mo-

(468) ECHEGARAY, C. de; "Revista de libros. Bein da betiko" in **Euskal-Erria**, XXXI, 1894, 336. or.

(469) "El día que las clases elevadas de nuestras provincias cesen de avanzar en el camino emprendido del menosprecio y olvido del idioma indígena, una de las causas más poderosas de la disminución gradual de ésta habrá desaparecido". A. Elorzak aipatua. Ik. ELORZA, A.; **Ideologías del nacionalismo vasco (1876-1937). (De los "euskaros" a Jagi Jagi)**, L. Haranburu Editor, San Sebastián, 1978, 47. or.

(470) "Los bascongados, en relación á la supervivencia de su idioma, se dividen en tres grupos: los entusiastas, los indiferentes y los enemigos. El primero y el tercer grupo —selecto aquél, degenerado éste— constituyen minoría; el predominante es el segundo. Compónese de personas que hablan el euskara porque lo aprendieron en la cuna, y aun de hecho le (sic) prefieren para las conversaciones familiares á cualquier otro que posean. No les pidáis más; su mentalidad es incapaz de acoger la idea de que la pérdida del lenguaje es hecho de trascendencia suma en la vida del pueblo que le (sic) habla". CAMPION, A.; "Discurso en las fiestas euskaras de Azpeitia el día 30 de septiembre de 1901" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, 154. or.

desta, puramente vegetariana en muchos casos y quizás el producto de parte de algún ganado que cría y que ha alimentado probablemente con pastos comunales. De manera que el propietario absorbe todo lo que produce la tierra excepto la parte que es estrictamente necesaria para alimentar pobremente a los que la cultivan" (471).

Badirudi, beraz, euskal kontaketen irakurlea, esklusioz, burgesia txikian aurkituko litzatekeela, Espainiako gobernuak Euskal Herriarekiko hartu zuen jarrera ametitzen ez zutenen artean, erreibindikazio politiko mailan denak ados ez egonda ere, Euskal Herriaren une horretako egoerak —1876.az geroztikakoak, batipat— amorroa, frustrazioa, haserrea, tristura eragiten zuen haiengan. Orohar jende eskolatua zen hori, estuasun ekonomikorik gabe bizi zirenak, kleroa, profesio liberaletako jendea, baserri edo lur-sailen jabeak, etab. (472).

---

(471) BELAUSTEGUIGOITIA, R. de; **La cuestión de la tierra en el País Vasco**, Bilbao, 1918, 35. or. J.J. Solozabalek aipatua **El primer nacionalismo vasco** liburuan, 256. or.

(472) Erakuskari gisa, Luis Arana Goirik "Kizkitzari" igorritako eskutitz batean dioena azalduko dugu. Bertan ikus daiteke nazionalismoak zein motatako jendea biltzen zuen: "Reuníanse el 30 de Noviembre, día de San Andrés, los nacionalistas, en la isla de Txatxarramendi en Sukarrieta, celebrando el triunfo glorioso de Arrigorriaga. Me escribía D. Luis de Arana Goiri...'Nos reunimos 45 patriotas de distintos pueblos, (...). Allí había médicos, abogados, labradores, jauntxus... menos sacerdotes que no podían asistir por ser tarde la cena y ser domingo el día siguiente". ARANTZADI, E. de (Kizkitza); **Ereintza: Siembra de nacionalismo vasco (1894-1912)**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1980, 29. or.

J. Corcuerak "Euskeldun Batzokijaren" azterketa soziologiko bat egiten du eta laburpen gisa honako hau eskaintzen: "En resumen y sin despreciar la presencia de individualidades pertenecientes a las 'familias conocidas' (a las que pertenecerían algunos de los que figuran ahí como comerciantes), la gran mayoría de los socios están fuera del mundo de la industria y los negocios que revolucionaba el Bilbao de fin de siglo: Arana no había conseguido atraerse todavía ni al fuerismo '**jauntxo**' ni a la nueva burguesía industrial que, encabezada por Sota, le había invitado a la cena de Larrazábal. Sus seguidores no se diferencian apenas de la pequeña burguesía carlista retratada por Unamuno en su **Paz en la guerra**". CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, 240. or. Baina, ez dago Sabino Aranak sortutako nazionalismora hurbildutako jendera mugatzerik irakurle potentzial hori atzematerakoan. Gutxienez aipatu beharko lirateke, Hego Euskal Herriari dagokionez, Bilboko **Euskalerria** elkartea eta Nafarroako "Asociación Euskara", alor politikoan ere biziki parte hartu zutenak. J. Corcuera **Euskalerria** elkartearen partaideen konposizio soziologikoaz honela mintzo da: "Larronde los define como, en su mayoría, 'gentes de posición social acomodada, pertenecientes a la media y alta burguesía industrial y financiera de Bilbao, caracterización que consideramos

Horiek ireki zuten ildoa, dirua emanez edo idatziz, edo idatziz eta irakurriz, euskal leiendak idatz zitezen; horiek bultzatu zituzten orohar beste genero batzu, lirika eta dramatika besteak beste, Lore-jokoen antolamenduari esker; horiek argitalpenei lagundu, aldizkarien edo argitaletxeen bidez; horiek idatzi Lore-jokoetarako nahiz aldizkarietarako; horiek izan sarritan aldi berean idazle eta irakurle. J.J. Solozabalek dio 1876.eko egoerak bereziki "inteligentsia"-n izan zuela eragina (473). Guk erantsiko genuke "inteligentsia" hori izango dela euskal kontaketen irakurle potentziala, maila politikoan batasunik izango ez duen "inteligentsia", baina literatura den alor anbiguoagora igarotzerakoan batasuna errazago lortzen duena (474).

---

no del todo correcta. A nuestro entender, y conscientes de los peligros de excesiva simplificación que esta opinión comporta, los euskalerriacos, del mismo modo que los euskaros navarros, son los herederos de los liberales moderados que controlaron las Provincias hasta 1876, y que no consiguen introducirse en un principio en el mundo de la alta burguesía industrial y financiera". CORCUERA, J.; op. cit., 141. or.

Euskalerria elkartekoak "fomentarán la cultura vasca no sólo a través de su sociedad, organizando y promoviendo muy diversos actos, sino desde sus puestos en los ayuntamientos y más particularmente en la diputación. Ahora bien, su actuación en la corporación provincial no parece responder a análisis y propuestas nacidas del grupo, sino a iniciativas particulares de sus diputados. Afirmamos esto, en base a la falta de una política cultural sistemática por parte de los mandatarios fueristas, y a la inexistencia de acuerdo entre ellos en determinados casos: sirva de ejemplo la oposición de Sota a que entre los requisitos exigibles al cronista-archivero figurase la posesión del vascuence, o a la aprobación por parte de algunos fueristas de la desaparición del cargo de cronista de Vizcaya, manteniéndose únicamente el de archivero". CORCUERA, J.; op. cit., 152. or.

Nafarroako "euskaroak", **Euskalerriakoak**, Donostiako euskal festen "Bilguma berezia", euskararen eta euskal literaturaren zabalkunderako hiru zutabe nagusi izango dira. Nafarrek, besteak beste, **Revista Euskara** argitaratuko dute, **Euskalerriak** "trabaja en la difusión del euskera a través de la prensa, creando en 1897 un Semanario en vascuence (**Euskalzale**)". CORCUERA, J.; op. cit., 155. or. J. Corcuerak, esan daiteke, Sabino Aranaren susmoak konfirmatu egiten dituela, Sota jaunaren dirulaguntza somatzen zuenean **Euskalzale** aldizkarian. Orrialde bereko oin-ohar batean R.M. Azkue bera lotzen du J. Corcuerak **Euskalerria** elkartearekin. Honela mintzo da **Euskalzale** aldizkariari buruz: "Editada en la librería del euskalerríaco Astuy y dirigida por R.M. de Azkue, por aquél entonces también vinculado a la Euskalerria".

Donostiako euskal festen agerkari nagusia **Euskal-Erria** aldizkaria izango da.

(473) Ik. SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, 309. or.

(474) Anekdota moduan esan daiteke Sabino Aranaren bi anaiek **Euskalzaleri** Bizkaiko Gobernadore Zibilak jarritako isuna ordaintzeko aldizkariak zabaldu zuen sus-

4. ONDORIO GISA: BALDINTZA SOZIO-LITERARIOAK EUSKAL FIKZIOZKO PROSAREN SORRERAN

Literatur teorian eta kritikan hainbat eta hainbat kontzeptu eztabaidan daude une hauetan; baita historia literarioaren barnean ere. Historia literarioan eztabaidan dagoen kontzeptuetariko bat literatura nazionalarena da (475). O. Taccak honela planteatzen du:

> "En nuestro tiempo, la vigencia del mismo interés por la historia de la literatura nacional encontraría su ilustración en dos tipos dominantes de interrogación. Por un lado, en la relación dialéctica **nacionalismo-cosmopolitismo literarios**, tema de tantos congresos de literatura comparada. Por otro, en la frecuente preocupación de las literaturas por señalar los propios caracteres o —más radicalmente aún— en literaturas jóvenes como las hispanoamericanas u otras que pertenecen a vastas comunidades lingüísticas, a través de la clásica pregunta: '¿Existe una literatura nacional?'" (476).

J. Juaristik kezka hauek euskal literaturaren alorrera ekarri ditu modu honetan formulatuz:

> "No obstante, la expresión **literatura vasca** arrastra connotaciones que rebasan el idioma en que se escriben las obras y las circunstancias biográficas de los literatos: Apunta, en cambio a una intertextualidad privativa o, lo que es lo mismo, a una tradición propia de los vascos. Y esto es ya más discutible: ¿Hay algo en común, fuera del uso de una misma lengua, entre Dechepare, Oihenart, Barrutia, Moguel y Lizardi? O, en otras palabras, ¿es acaso más estrecho el vínculo que une a Gabriel Aresti con la escuela de Sara que el que le liga a autores no vascos como Bretch, Eliot o Hikmet, por ejemplo?" (477).

Sarrera honen justifikazioa honako honetan legoke: gure ustez, euskal fikziozko prosaren sorrerak baditu berezitasunak, "euskal"

---

kripzioan parte hartu zutela. Juan de Arana eta Luis de Aranaren izenak irakur daitezke bata bestearen ondoan **Euskalzale** aldizkariaren 3. tomoan, 1899.ekoan, 352. or. Bigarren deiturarik azaltzen ez denez, beste Aranatar batzu izateko arriskua badago, baina kasualitate handia litzateke.

(475) Ik., esate baterako, WELLEK R.; WARREN A.; **Teoría literaria**, 57-65. orr.

(476) TACCA, O.; **La historia literaria**, 68-69. orr.

(477) JUARISTI, J.; "La literatura vasca: polifonía de intertextualidades" in **Muga**, n.º 38, diciembre 1984, 68. or.

horrek determinatu behar adinakoak, nahiz eta helduko zaizkion "cosmopolitismoaren" eraginak, ohi bezala berankorrak.

Mota desberdinetako faktoreek —politikoak, sozialak, linguistikoak, testu-tradizio batekoak, etab.— baldintza zezaketen modu berezi batez euskal prosa narratibo horren sorrera.

4.1. BERANKORTASUNA

Fikziozko prosa dugu literatur manifestazioetan berankorrena. Eta hala izango da euskal literaturan ere. Baina berandu helduko zaio sorrera: Europako Mendebalean Erdi Aroaz geroztik mendetako ibilbidea egina duenean, inguruko hizkuntzetan zabalkunde eta garapenik handienera heltzen denean: XIX. mendearen azken herenean.

Euskal nobela, idazle eta irakurleak hasiera horretan ez daude ez Kristo garaiko Grezian, ezta Europako Mendebaleko Erdi Aroan ere; sorrera den heinean garai hauekin izan dezakeen kidetasuna XIX. mendean kokatuta egotearekin nahasten da.

Mende-bukaerako euskal idazleari, teorian behintzat, lehen urratsak nola eman da planteatzen zaion arazoetariko bat. Batetik, hor ditu edozein hizkuntzak sorreran izan zitzakeen arazoak: hizkuntzak egin ez duen ibilbidea hartu behar du, alor honetako testu-tradiziorik ez bait du, eta testu-mota hau irakurtzera ohituta ez dagoen irakurleari zuzendu behar zaio, gainera; bestetik, berriz, XIX. mende-bukaeran inguruko hizkuntzetara begiratu eta hizkuntza horietan zer idazten zen ikusteak sorrera batetik urrun dagoen zerbait erakusten zion.

Euskal idazleak kontaketa historikoak hautatuko ditu plazaratzeko, inguruko hizkuntzetako kontaketekiko anakronian eroriz: eleberri errealista-naturalisten garaian, erlatu eta eleberri historikoak egingo ditu; erlatuei eta eleberriari autonomiarik eman ezin eta, moralizatu eta irakatsi egin beharko du, horrek dakarkion remorarekin; heroe demoniako eta problematikoen garaian, heroe tinko eta irmoak sortzen ditu, ia epopeia epiko batekoak izan zitezkeenak.

G. Lukacs-entzat, Hegelentzat bezala, eleberria garai burgeseko epopeia da (478). Honela kontrajartzen ditu bi genero hauek:

(478) SEFCHOVICH, S.; **La teoría de la literatura de Lukacs**, Universidad Nacional Autónoma de México, México, 1979, 87. orrialdean aipatua.

> "La epopeya forma una totalidad de vida acabada en sí misma, la novela busca descubrir y edificar la totalidad secreta de la vida" (479).

Horregatik, Lukacs-ek eleberrietako heroeei buruz esango du "esos héroes están siempre buscando" (480), heroearen sorreratzat joz kanpoko munduarekin duen alteritatea edo bestetasuna (481). Eleberriko heroea, gizabanakoa, indibiduo epikoa da. Honen aurrean, epopeiarena ez zen inoiz gizabanakoa; epopeiaren ezaugarri esentzialtzat jo da bere objetua komunitate baten xedea izatea, eta ez gizabanako batena (482).

Gainontzeko literatur generoen ezaugarri esentziala forma bukatua aurkeztea da, baina nobela prozesu bezala aurkeztu da, eginez doan zerbait bezala (483).

Lukacs-ek eleberriari buruz egiten duen planteamendu honi bukaera emateko, oso argia izan daitekeen kontrajarpen hau jaso daiteke:

> "La novela es la epopeya de un mundo sin dioses; la psicología del héroe novelesco es demoníaca, la objetividad de la novela, la viril y madura comprobación de que jamás el sentido puede penetrar de lado a lado la realidad y que no obstante, sin él, ésta sucumbirá en la nada y en la inesencialidad" (484).

Besterik da epopeia:

> "La seguridad interior del mundo épico excluye toda aventura en el sentido riguroso del término: los héroes de la epopeya atraviesan una serie abigarrada de aventuras, pero está fuera de duda que están destinados a triunfar en cuerpo y alma" (485).

Aro modernoan jaioko da euskal nobela. Burgesiaren garapen,

---

(479) LUKACS, G.; **Teoría de la novela**, Edhasa, Barcelona, 1971, 63-64. orr.

(480) **Ibidem**, 64. or.

(481) **Ibidem**, 69. or.

(482) **Ibidem**, 69-70. orr.

(483) **Ibidem**, 76. or.

(484) **Ibidem**, 94. or.

(485) **Ibidem**, 95. or.

horrek determinatu behar adinakoak, nahiz eta helduko zaizkion "cosmopolitismoaren" eraginak, ohi bezala berankorrak.

Mota desberdinetako faktoreek —politikoak, sozialak, linguistikoak, testu-tradizio batekoak, etab.— baldintza zezaketen modu berezi batez euskal prosa narratibo horren sorrera.

4.1. BERANKORTASUNA

Fikziozko prosa dugu literatur manifestazioetan berankorrena. Eta hala izango da euskal literaturan ere. Baina berandu helduko zaio sorrera: Europako Mendebalean Erdi Aroaz geroztik mendetako ibilbidea egina duenean, inguruko hizkuntzetan zabalkunde eta garapenik handienera heltzen denean: XIX. mendearen azken herenean.

Euskal nobela, idazle eta irakurleak hasiera horretan ez daude ez Kristo garaiko Grezian, ezta Europako Mendebaleko Erdi Aroan ere; sorrera den heinean garai hauekin izan dezakeen kidetasuna XIX. mendean kokatuta egotearekin nahasten da.

Mende-bukaerako euskal idazleari, teorian behintzat, lehen urratsak nola eman da planteatzen zaion arazoetariko bat. Batetik, hor ditu edozein hizkuntzak sorreran izan zitzakeen arazoak: hizkuntzak egin ez duen ibilbidea hartu behar du, alor honetako testu-tradiziorik ez bait du, eta testu-mota hau irakurtzera ohituta ez dagoen irakurleari zuzendu behar zaio, gainera; bestetik, berriz, XIX. mende-bukaeran inguruko hizkuntzetara begiratu eta hizkuntza horietan zer idazten zen ikusteak sorrera batetik urrun dagoen zerbait erakusten zion.

Euskal idazleak kontaketa historikoak hautatuko ditu plazaratzeko, inguruko hizkuntzetako kontaketekiko anakronian eroriz: eleberri errealista-naturalisten garaian, erlatu eta eleberri historikoak egingo ditu; erlatuei eta eleberriari autonomiarik eman ezin eta, moralizatu eta irakatsi egin beharko du, horrek dakarkion remorarekin; heroe demoniako eta problematikoen garaian, heroe tinko eta irmoak sortzen ditu, ia epopeia epiko batekoak izan zitezkeenak.

G. Lukacs-entzat, Hegelentzat bezala, eleberria garai burgeseko epopeia da (478). Honela kontrajartzen ditu bi genero hauek:

(478) SEFCHOVICH, S.; **La teoría de la literatura de Lukacs**, Universidad Nacional Autónoma de México, México, 1979, 87. orrialdean aipatua.

> "La epopeya forma una totalidad de vida acabada en sí misma, la novela busca descubrir y edificar la totalidad secreta de la vida" (479).

Horregatik, Lukacs-ek eleberrietako heroeei buruz esango du "esos héroes están siempre buscando" (480), heroearen sorreratzat joz kanpoko munduarekin duen alteritatea edo bestetasuna (481). Eleberriko heroea, gizabanakoa, indibiduo epikoa da. Honen aurrean, epopeiarena ez zen inoiz gizabanakoa; epopeiaren ezaugarri esentzialtzat jo da bere objetua komunitate baten xedea izatea, eta ez gizabanako batena (482).

Gainontzeko literatur generoen ezaugarri esentziala forma bukatua aurkeztea da, baina nobela prozesu bezala aurkeztu da, eginez doan zerbait bezala (483).

Lukacs-ek eleberriari buruz egiten duen planteamendu honi bukaera emateko, oso argia izan daitekeen kontrajarpen hau jaso daiteke:

> "La novela es la epopeya de un mundo sin dioses; la psicología del héroe novelesco es demoníaca, la objetividad de la novela, la viril y madura comprobación de que jamás el sentido puede penetrar de lado a lado la realidad y que no obstante, sin él, ésta sucumbirá en la nada y en la inesencialidad" (484).

Besterik da epopeia:

> "La seguridad interior del mundo épico excluye toda aventura en el sentido riguroso del término: los héroes de la epopeya atraviesan una serie abigarrada de aventuras, pero está fuera de duda que están destinados a triunfar en cuerpo y alma" (485).

Aro modernoan jaioko da euskal nobela. Burgesiaren garapen,

---

(479) LUKACS, G.; **Teoría de la novela**, Edhasa, Barcelona, 1971, 63-64. orr.

(480) **Ibidem**, 64. or.

(481) **Ibidem**, 69. or.

(482) **Ibidem**, 69-70. orr.

(483) **Ibidem**, 76. or.

(484) **Ibidem**, 94. or.

(485) **Ibidem**, 95. or.

hastapen eta desarroiloaren garaia da (486). Euskaraz prosa erlijiosoa soilik irakurriko ez duen irakurlego bat sortzen da, oso murritza bada ere; argitaldariak ugaltzen hasten dira, aldizkari mailan ez ezik, baita liburu mailan ere; prosa-mota hauetan idazteko prest dago idazle-multzo bat (487)... Badirudi aro modernoko eleberriaren oinarrian egon daitezkeen baldintza soziologikoak heldu direla euskal nobela sor dadin. Eta sortu, sortuko da; baina ez dugu uste sortzen den "zer" hori Lukacs-ek aipatzen duena denik.

J. Juaristiren hitz batzu jasoko ditugu ondoren, nahiz eta euskal (euskarazko) eleberriei eta eleberrigileei buruz ez, baina Euskal Herrian jaio eta gazteleraz idatzitako nobela eta nobelagileei buruz ari. Euskaraz XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran idatzitakoei aplika dakieke:

> "En un reciente ensayo, Ramón Buckley sostiene que la novela vasca en castellano —Unamuno, Baroja, Campión, Pinilla...— se desliza constantemente hacia un género narrativo prenovelesco, la epopeya. Según Buckley no existiría propiamente una **novela** vasca. Los protagonistas de **Paz en la guerra, Zalacaín el aventurero, Sancho Garcés o Las ciegas hormigas** no serían personajes novelescos, es decir, héroes demoníacos, rupturales, enfrentados a su universo histórico, sino representantes de una colectividad, del Pueblo Vasco. Los vascos, que nunca han escrito, su poema épico, su **Chanson de Roland** o su **Cantar de Mío Cid**, han compuesto, sin embargo, **romances épicos** en prosa. Una nostalgia de los orígenes heróicos, nunca poetizados, de la raza habría impulsado hacia las formas propias de la epopeya a buena parte de los novelistas vascos contemporáneos" (488).

(486) L. Goldmann-ek, G. Lukacs-en **Teoría de la novela** eta R. Girard-en **Mentira romántica y verdad novelesca** abiapuntutzat hartuta, homologia bat ezarriko du eleberri klasikoaren eta ekonomia liberalaren artean. Homologia hau elkartrukearen gain eraikitzen da. Ik. GOLDMANN, L.; **Para una sociología de la novela**, Editorial Ayuso, Madrid, 1975, bigarren argitalpena, 15-16. orr.

(487) J.I. Ferrerasek Espainiako XIX. mendeko eleberriaren sorrera aztertzean honako hau dio: "Un lectorado, femenino sobre todo, una industria editorial y una buena red de distribución de libros por toda la península, nada falta para que la novela pueda producirse..., sólo novelistas". FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 80. or.

(488) JUARISTI, J.; "La literatura vasca: polifonía de intertextualidades" in **Muga**, n.º 38, 74. or.

Oinarri historiko sendoagoekin edo fikzionalizazio handiagoarekin, "Orruel arpeko zuhurra", "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak", "Aspaldi ajetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste", "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera", "Okendoren eriotza", "Andeka", "Zarauzko ondekidatzea" bezalako "leiendetako" pertsonaiek (eta beranduago **Auñemendiko Loreako** pertsonaiek) hartuko duten tratamendua ez da gizabanakoari dagokiona; aitzitik, baizik, gizatalde baten ezaugarri eta xedeen ordezkari dira, euskaldunena: gizon zintzoak, kristauak, askatasuna maite dutenak, etab. "Heroe" hauek —soinekoa handiegia izan badaiteke ere— ez daude etengabeko bilaketa batean murgilduta; aitzitik, badakite argi eta garbi zer nahi duten, ziurtasuna darie; oztopoak aurkituko dituzte, baina garaile aterako dira zalantzarik gabe.

Zentzu honetan esan daiteke nobelaurreko genero batean gaudela: "kontaketa epikoarenean" (489), urtetan —gero **Kresala, Josecho, Garoa**, etab. etorriko dira— XX. mendean jarraituko duen testu-mota batean.

Honela dio J.I. Ferrerasek Espainiako XIX. mendeko nobelagintza aztergai duela:

> "De nada sirve comprobar el **retraso** de la novela española con respecto a la novela europea, porque esta comprobación no demuestra nada; de la misma manera se podría comprobar el **adelanto** de la novela española con respecto a la novela de otros países de la misma época, muy numerosos para poder ser citados aquí" (490).

Guk euskal nobelaren sorreraren berankortasuna azpimarratu dugu. Oraindik urte asko igaro beharko dute XX. mendearen erdi ingurura arte euskal eleberriko "héroe demoníaco" edo problematikoa ezagutu baino lehen. Baina agian, J.I. Ferrerasek dioen bezala, ez du zentzurik atzerapenaz hitz egiteak. Atzerapena/aurrerapena kontzep-

---

(489) Honako zentzu honetan: "La confrontación con la épica nos permitirá comprender mejor esta naturaleza proteica de la novela. 'El mundo del relato épico es el pasado heróico nacional, el mundo de los 'comienzos' y de las 'cumbres' de la historia nacional, el de los padres y los ancestros, de los 'primeros' y de los 'mejores'". BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. Y COLAB. (BLECUA, A.; GARGANO, A.; VAILLO, C.); **Introducción al estudio de la Literatura**, 236. or. Egindako azalpena aipatu egileak Bajtín-i jarraiki aurkeztua da.

(490) FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 310. or.

tuak saihestu eta beste hizkuntza eta naziotako eleberriekin alderaketa bilatzera garamatzaten terminoak alboratuz, gera gaitezen euskal gizartean eta gizarte honetan sortzen ari den prosa narratiboan. Honako formulazio hau egin dezakegu: XIX. mende-bukaerako eta XX. mende-hasierako euskal irakurlego eta idazlegora ez da munduaren ikuspegi indibidualizatua heldu (491), ikuspegi burgesa, gizarte-geruza honek indibidualismoa erreibindikatzen zuen mailan behintzat.

"Cantares de gesta" edo gisa bereko poema epikoak ez idatzi izanaren nostalgia edo XIX. mende-bukaerako egoerak sor zezakeen sentsibilitatea edo-ta sorrera izateak berak planteatzen zituen arazoak... egon daitezke hastapenetako prosa narratiboaren ezaugarrien azpian. Beti da arriskutsua gertaera baten oinarriak aztertzea; batetik, mila faktorek parte har dezaketelako gertaera horren konfigurazioan eta gutxi batzu besterik aipatu ez; bestetik, mekanizismo huts batean erortzeko arriskua dagoelako, gertaera hori sortu duen konplexutasunetik urrunduz.

Hemen, bakar-bakarrik honako hau apuntatu nahi da: egoera sozio-politikoak eta arestian aipatutako baldintza soziologikoek eskaintzen zutela norabide baterako nahiz beste baterako azpiegiturarik.

Burgesiaren garapenari erreferentzia egin zaio, baita honek dakarren indibidualismoaren kontzeptuari ere; baina Euskal Herriari dagokionez, esan da ez dela euskalduna izan eta ezta ere, seguruaski, ikuspegi indibidualista horren sortzaile euskal fikziozko prosan.

Karlistek jasan duten porrotaren ondoren, 1876.az geroztik, azken foru-murrizketarekin tristura eta haserre-giroa gelditzen da, eta honekin batera herri bezala nortasun propio batekin historian

(491) J.I. Ferrerasek XIX. mendeko Espainiako nobelari buruz dioena jasotzen dugu: "La novela ha de encontrarse en la visión del mundo de esta clase media, ya como visión novelesca, ya como materialización artística que hemos llamado novela. El lectorado y el autorado (y también el traductorado si se quiere) de estos años, conquistan la visión individualizada del mundo, la visión desgajadora también de una sociedad cerrada, en la que todo valor tenía su número de orden, clasificación, jerarquía. Contemplar novelescamente el mundo, en este sentido, significa ante todo contemplarlo por uno mismo, al nivel del lector; ascender a ese terreno independiente, en el que el protagonista logra un cierto grado de libertad". FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 312. or.

jarraitu ahal izango ote den zalantzak. Arazo hau bizi dutenen mundu-ikuskera azalduko du euskal prosa narratiboak, Euskal Herriaren "alde horretan" kokatuz eta ez "beste Euskal Herrian", esan denez.

Euskal idazleek kezka horiek eramango dituzte erlatuetara, "nor izan gara?", "nor gara?" galderei erantzun nahian; desagertzeko arriskua ikusiko balute bezala eta, besterik ez bada ere, herri bezala igaro izanaren lekukotasuna utzi nahiko balute bezala.

Beste maila bateko arazoa da erreferenteak idazleari horrelako Euskal Herria eskaintzen zion ala ez: erlatu eta eleberrietan orohar agertuko den mundu idilikoa: hain gizon-emakume onak, kristauak, zintzoak... Aitortzen bait zaio nobelari kanpoko errealitatea aldarazteko eskubidea (492).

Idazle hauentzat ez zen seguruaski poema epikoak idazteko garaia. Baina O. Taccak aipatutako nazionalismo-kosmopolitismoa harreman dialektikotik ikus zezaketen euskal hizkuntzatik at beste hizkuntza batzutan lehenago (493), lehentxoago (494) eta ia orduan bertan (495) hurbilago edo urrunago argitaratzen ari ziren testu-motak: horien artean eleberri historikoak. Hau ezin hobekiago zetorkien atzera begira jarri eta aintzinatean euskaldun "ospetsuak" aurkitu eta euskaldunen ekintza ausarditsuak kontatzeko, euskal nortasunaren ezaugarriak finkatuz. Hori da eleberriak bete dezakeen funtzio bat, Euskal Herriaren eta euskaldunen izaera agertzeko erabiliz gero (496).

---

(492) "Maupassant señala así, y muy efectivamente las transformaciones sucesivas que sufre la realidad exterior cuando, en primer lugar, es aprehendida por la conciencia del novelista y se carga de elementos subjetivos, y, en segundo lugar, cuando se la traduce en palabras". BOURNEUF, R.; OUELLET, R.; **La novela**, Editorial Ariel, Barcelona, 1981, bigarren argitalpena, 138. or.

(493) W. Scott-ek, esate baterako, XIX. mendearen hasieran argitaratu zituen eleberri historikoak.

(494) "**La novela histórica de origen romántico** aparece entre 1823 y 1830, y se desarrolla hasta la década 1840-1850, siempre aproximadamente". FERRERAS, J.I.; **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)**, 99. or.

(495) J.V. Araquistainen **El Baso Jaun de Etumeta**, esate baterako, Tolosan argitaratu zen, Fr. Mugerzaren etxean 1882.ean.

(496) M. Zéraffak honako hau dio R. Barthes-en "la novela, identificada por sus rasgos más concretos, es un acto de sociabilidad: instituye la literatura" esanetik

Nolanahi ere, kausa-efektu harremanak ezartzeak badu arriskurik. Gerra karlisten eragina aipatzen genuen eta honek sortutako egoera. Hala ere, itzul gaitezen arestian erabilitako nazionalismo-kosmopolitismoa harreman dialektikora. Kontuan hartu nahi lirateke garai honi buruz G. Garatek esanak:

> "Hor dugu, adibidez, maiz entzun ohi den baiezpena: Euskal literaturaren berpiztea gerra karlisten galerak ekarri zuela. Euskaldunek, gudua galdu zutenez gero, ihardokitzez literaturari ekin ziotela".

Eta aurreraxeago:

> "Egia da, bai, gudu karlisten ondotik euskal kulturaren eta euskal literaturaren zuzperraldia gertatu zela. 'Post hoc, non propter hoc', baina. Euskaraz esanda, gudu karlisten ondoren gertatu zen piztaldi hori, bai, baina ez karlistek gudua galdu zuten esker.
>
> Pizkunde hori, Europa osoan gertatu zen abertzaletasunaren ondorio izan zen. Gudu karlistak beraiek ere, aldez behintzat, abertzaletasun hori zela eta gertatu ziren" (497).

Dena den, badago zer erantsirik honako hauek direla-ta: euskal nobelaren sorreran seinalatu den "epizismoa"; euskal gizakiaren esentzien berri eman nahia eta ez beronen existentziarena; heroe problematikoaren falta; indibiduo protagonista baten falta, honen ordez giza multzo baten ezaugarriak adieraztea; pertsonaia banako bezala ez aztertzea eta ezaugarri orokor batzutara mugatzea; eta, azkenik, erlatu historikoak egokitzat jotzea une horietan gizarte horretako talde handi baten arazoak plazaratzeko.

Erlatu historikoa lehenik eta ohiturazko eleberria gero egokiak izan zekizkiekeen une historiko horri erantzuteko (498). Era berean

---

abiatuta: "Esta 'sociabilidad' de la novela habría de conferirle espacio y funciones culturales, políticas e ideológicas considerables. Más aún que el poema, la novela servirá para expresar, por ejemplo, las ideas de nación y de resurgimiento nacional en los países colonizados o que han obtenido recientemente su independencia". ZERAFFA, M.; **Novela y sociedad**, Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1973, 21. or.

(497) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 11. or.

(498) "Toda forma literaria está dirigida a un público determinado, con una intención expresiva que se adecua a los intereses y a los afanes del mismo. En cierta manera, pues, refleja los gustos y las preocupaciones de un momento y de una socie-

ezagut zitzaketen mende horretan inguruko hizkuntzetan idatzitako testu-mota batzu: eleberri historikoak; alegia, beste hizkuntza horietan baino beranduago, baina horien oihartzuna hel zitekeen, nolabait garaiari —berandu samar, baina— zegokion eleberri-mota bat eginez, euskal giza multzo baten adierazpen-modu ere izan zitekeelako. Dena den, Euskal Herritik bertatik higitu gabe aurki zezaketen lehengairik eleberri hauek taxutzeko: kanta apokrifoak, hileta-kantak... Euskal leiendagileek kanta hauek euskal "historiaren" zenbait gertaeraz eskainitako bertsioa eramango dute beren leiendetara. Kanta horiexek erabiliko dituzte zuzenean edo zeharka: euskal leiendagile eta eleberri historikogilearen aurretik eusko leiendagile eta eleberri historikogileek kanta horietaz eginikoaz baliatuko dira. Jadanik ezagunak ziren eusko literaturan Lekobide, Zara, Otzoal, Uchin Tamayo, Aitor, Andeka... pertsonaien gestak edo-ta "ill-gauen" rituala; eta beren ibilbidea egina zuten euskal leiendagileek erlatugaitzat hartu aurretik. Gero euskal leiendagile hauek transformazio handiagoa edo txikiagoa eraginez eramango dituzte beren testuetara (499).

Honako harreman hau behintzat egiazta daiteke eusko/euskal literatura alderaketa honetan: eusko alegigileen ondoren etorri zirela euskal alegigileak, eusko leiendagile eta eleberri historikogileen ondoren euskal leiendagile (500) eta eleberri historikogileak, eta eusko kostunbrismoaren ondoren datorrela euskal kostunbrismoa.

Planteamendu horrekin ez da, ordea, aditzera eman nahi euskal erlatugileek erabilitako langai guztiak arestian aipatutako iturriek edo

---

dad, aunque pretenda huir de ese momento". GARCIA GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, 60. or.

(499) Ez da itzulpen zuzen-zuzena, baina K. Echegarayren "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera" leienda F. Navarro Villosladaren **Amaya o los vascos en el siglo VIII** eleberriko Amagoya pertsonaiak hilbete batean kontatzen duen kontaketa da. Ikus NAVARRO VILLOSLADA, F.; **Amaya o los vascos en el siglo VIII**, 131. or. Eleberri hau Madrilen argitaratu zen **Ciencia Cristiana** aldizkarian 1877-1879. urteen artean, eta 1879.eko urte honetantxe liburu gisa Maroto argitaletxean.

(500) Kronologikoki konstata daitekeen gertaera da: eusko leiendagileek leiendak argitaratu ondoren, lehengai berberak edo berdintsuak hartuz taxutzen dituzte leiendak euskal leiendagileek, nahiz eta leienda konkreturen batean, salbuespen gisa, erdal bertsioren bat euskarazkoa baino berankorragoa izan. G. Arrueren "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" leienda 1881. urtean argitaratu zen; istorio berbera kontatzen duen Sotero Manteliren "José Chiki. Un cuento guipuzcoano a la media noche", berriz, 1905. urtean.

jadanik azaldutako ahozko kontaketek eskainiak direnik (501) eta Euskal Herritik at idatziriko mota honetako testuak ezezagunak zirenik; beraz, langai mailan euskal fikziozko prosaren hastapenak ez du berea eta berea bakarrik den testuartekotasuna (502) izan behar nahitanahiez, hots, testuartekotasun pribatu hutsa. Esan nahi da euskal kontaketagileek erabilitako lehengaiak jadanik ezagunak zirela Euskal Herriaren muga geografikoen barnean; eta, honenbestez, planteamendua baliagarria izan daitekeela, nahiz eta ez dagoen ukatzerik aldi berean muga hauetatik at idatziriko idazlan erromantikoak inspirazio-iturri bihur zitezkeenik. Epigonala izanik ere, mugimendu eta izpiritu erromantiko baten barnean lekutu beharko litzateke sorrera hau. Leiendekin eta eleberri historikoarekin jaiotzen da euskal eleberria, eta ohiturazkoarekin jarraitzen du. Herri hau gizatalde berezi legez mugatzen dituen ezaugarriak ezarri nahi dira; gizatalde honen banakotasuna, gizatalde honen nortasun agiri nazionala, zedarritu nahi da (503). Leiendek eta eleberri historikoek herri honen sorrera eta sorrera honetako gizakien ezaugarriak aztertuko dituzte; ohiturazko eleberriek, berriz, euskaldunak nolakoak diren esango digute, nahiz eta berez nolakoak diren baino gehiago nolakoak izan beharko luketen esan eta gizaki hauen jokabide moralen aztertzaile edo deskribatzaile baino gehiago arautzaile izan.

Beraz, mugimendu eta izpiritu erromantiko baten barnean lekutu beharko litzateke sorrera hau; eta Euskal Herrikoak ez ziren idazle erromantikoen ezaguera ere bazuten (504). Honenbestez, uler daiteke Europako Mendebaleko historiaren trenera igotzen zela euskal literatura batpatean, bere ezaugarri propioekin "kosmopolitismo-

(501) Ikus "Hizkuntzak egin gabeko ibilbidea" atala.

(502) "Testuartekotasun" terminoa badarabilgu ere, termino hau ez da aproposena; izan ere, testualak ez diren elementuei erreferentzia egin bait zaie: ahozko igorpena izan duten elementuei.

(503) Ikus 496. oin-oharra.

(504) Victor Hugo edo Fernán Caballero ez ziren ezezagunak izango. K. Echegarayk R.M. Azkueren **Bein da betiko**ri egiten dion iruzkin batean dio: "El diccionario de Victor Hugo es incomparablemente más rico que el de Racine" (ikus ECHEGARAY, C. de; "Revista de libros. Bein da betiko" in **Euskal-Erria**, XXXI, 1894, 332. or.).; A. Campionek Victor Hugo hil ondo-ondoan **Victor Hugo** liburutxoa argitaratzen du; J.J. M.-k Fernán Caballeroren ipuin bat itzultzen du "Aita-besoetakoa ta ume-besoetakoa" titulupean (ikus J.J. M.; "Aita-besoetakoa ta ume-besoetakoa" in **Euskalzale**, I, 1897, 397-398. orr.).

rantz" abiatuz. Hau da, garai horretan idazten ziren inguruko hizkuntzetako nobela-motekin harremanetan jartzen da euskal literatura, bere-berea lukeen testualtasunetik beste hizkuntzetako testuekin harremanak izatera zuzenduz, euskal gizartea bera ere nagusiki nekazal gizartea izatetik ateratzen ari den une honetan.

Baina euskal fikziozko prosaren sorrerak, XIX. mendean gertatua izan arren, badu kidetasunik eleberriaren hastapenekin; baita Europako lehen nobelekin eta ordu arteko euskal literatur testuekin ere.

Eleberriak hastapenetan jaso zituen eraginak aztertzean, C. García Gual-ek erlijiosoa jasotzen du besteak beste (505). Europako nobelaren sorrerari buruz egiten duen azterketan, euskal fikziozko prosaren hastapenak izango dituen bi ezaugarri atzeman daitezke: eleberria erlatu historikoaren forman azaltzea lehenbizi, gero independizatuz joateko, eta lehen eleberriak epikatik hurbil egotea, gaietan isladatzen denez (506).

Bestalde, ezin uka daiteke ordu arteko euskal prosaren irakurleak ezagunak zituela hastapenetako euskal fikziozko prosak azaltzen duen irakatsi beharra, moral hertsia, etab.; euskal prosaren tradizioak erakutsiak bait zituen. Euskal fikziozko prosak prosa erlijioso horretatik askatu ezinik dabilela ematen du.

Faktore guzti hauen konkurrentzia posibleek euskal fikziozko prosaren sorrera fenomeno konplexu bezala azaltzen dute, azken finean bere dinamika propioa izan duen gertaera bezala.

4.2. TRADIZIO BATEAN TXERTATUA

Inguruko hizkuntzetakoen aldean, euskal kontaketa historikoak berankorrak badira ere, esan daiteke mendetako atzerapena jasan ondoren fikziozko prosa "eguneratzen" hasten dela prosa narratiboa-

(505) "Aún cuando su propia intención sea la del entretenimiento, las novelas pueden añadir un objetivo propagandístico, el mostrar que los dioses, en contra de las apariencias, velan sobre sus protegidos y posibilitan, para aquellos que se muestran fieles, un 'happy end'". GARCIA GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, 182. or.

(506) Ik. GARCIA GUAL, C.; **Primeras novelas europeas**, 21. or.

ren alorrean urte batzuren aldearekin, atzerapen hori batpatean edo epe laburrean konpontzera balihoa bezala.

Hala ere, euskal erlatuek ez dirudite kanpoan ikusitakoaren kopia hutsa edo transposizio soila; euskal gizartean txertatuak, tradizio literario baten jarraitzaile dira hein handi batean.

Prozesu luze baten emaitza dirudite. Larogei urte inguru igaro dira **Peru Abarca** idatzi zenetik lehen erlatuetara. Bien bitartean, alegiak eta elkarrizketak (A.P. Iturriaga, J. Duvoisin, T. Bermingham) landuz joan dira **Peru Abarca**n azaltzen diren koordenada narratiboak; xume-xumeki, bertsoz batipat alegien kasuan, baina gertaerak leku-denborazko koordenada batzutan kokatuz. Larogei urte beranduago, kontatzea ez da nobedadea modu absolutuan euskal literatura idatzian; fikzioa ez da berria "egiak" azaltzen zituzten testu batzuren ezaguera bakarrik zutenen aurrean. Baina soma daiteke aurrerabiderik **Peru Abarca**tik **Auñemendiko Lorea**ra, tartean alegiak, leiendak eta abar ditugula: koordenada narratiboen garapen neketsua, lekuak deskribatu edo ekintzak kontatu ahal izateko, fikzioak idazten "ibili gabeko" hizkuntza batenak.

Azaldua dagoenez, erlatu hauetan atzeman daitezke ahozko kontaketen oihartzunak, hain hedatuak euskaldunen artean. Lehengai mailan ez ezik, ahozko kontaketa hauek izan daitezke zenbait teknika narratiboren prestatzaile ere, jadanik azaldu den moduan (507).

Nolanahi ere, ez dago zentzu hertsian hartzerik ahozko kontaketek euskal fikziozko prosaren antolamenduari eginiko ekarri posiblea; izan ere, D. Agirreren eleberrietako elkarrizketa luzeetan (**Auñemendiko Lorea**ren elkarrizketak, esate baterako, elkarrizketa baino gehiago erantzuna jasotzen duten bakarrizketa luzeak dira) edo pasarte komentatibo luzeetan edo ohitura-deskripzioetan... nekez soma bait daiteke ahozko kontaketen oihartzunik; oihartzun hau nabarmenago edo zabalago somatzen da kontaketa laburragoetan, leienda edo eleberri laburretan —**Baigorriko zazpi liliak** dela edo **Piarres Adame** (508) dela—.

---

(507) Ikus "Hizkuntzak egin gabeko ibilbidea" atala.

(508) "**Piarres Adame** herri-ahozko literatura moetan sartu behar dugula ez da dudarik" dio G. Garatek. GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 67. or.

Dena den, ez dirudi aski litzatekeenik ahozko kontaketen ekarri posiblera mugatzea soil-soilik. D. Agirreren eleberri kostunbristetako zenbait kapituluren egituratze-moduan, M. Zaratek zioenez, garai bateko Apaizgaitegietako ikasketa-moduen arrastoak somatzen dira: Eskolastikarenak. Arrasto horiek kapituluak tesia-argumentazioa-korolario moduan antolatzean zekusan (509). Guk gehiago esango genuke: Agirrek eleberri kostunbristetara ez ezik, bere eleberri historikora ere badarama egituratze-modu hori. Are gehiago, zenbait kapituluren antolatze-modura baino urrutiago daramala uste dugu: eleberria eraikitzeko oinarrietara bertara, eleberria eraiki dezakeen hezurdurara alegia, printzipio egituratzaile bihurtzeraino. (Honelako ikusgune batetik deskribatu ahal izango litzateke behintzat bere eleberriren bat: **Garoa** eleberria deskribatzeko ikusgune aproposa izan daiteke. Aurrerago —**Garoa**ren deskripzioari eskainitako lerroetan— ikusi ahal izango da zenbateraino izan daitekeen baliagarria aipatu ikusgunea eleberri horren batasun eta osotasunaren berri emateko).

Eta ez da euskal erlatugileetatik Agirrek bakarrik darabilen teknika-modua. Teknika-modu honen arrastoak soma daitezke besteak beste R.M. Azkueren **Bein da betikon** eta J.B. Elissanbururen **Piarres Adame**n kontatzen den istorioren batean (510).

Sinplifikatuz, egituratze-modu hau, tesia-argumentazioa-korolarioa hirukotera laburtuz deskribatuko genukeena, ez zaio arrotza euskal tradizio idatziari. Aitzitik, poemak paratzeko modutik prosa aszetikoa antolatzeko modura ere eraman da: XVI. mendeko Etxepareren poemaren batean (511) soma dezakegu; baita ere XVII. mendeko

(509) ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak**, Leopoldo Zugaza Editor, Bilbao, 1977, 24-27. orr.

(510) ELISSAMBURU, J.B.; **Piarres Adame,** Euskal Editoreen Elkartea, Elkar, Donostia, 1986, 61-62. orr.

(511) Ikus "Amoros sekretuki dena" in DETXEPARE, B.; **Olerkiak**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1978, 110-111. orr. (Lehen argitalpena: **Linguae Vasconum Primitiae**, Franciscum Morpain, Burdigalae, 1545). Lehen ahapaldiaren anplifikazioa eratzen dute hurrengo bost ahapaldiek, azkenak ondorioak ateratzen dituelarik.

P. Axularren **Gueron** (512) edo XIX. mendeko Eusebio M. Azkueren poemaren batean (513)...

Euskal tradizioak eskain ziezaizkiokeen kontaketagileari deskribaturiko elementu egituratzaile hauek, eta erabili ere erabili zituzten asko edo gutxi kontaketa desberdinen arabera. Baina, jakina, ez dauka honek derrigorrez euskal tradiziotik jasotako herentzia izan beharrik, edo idazleen ikasketa-modu edo jasotako igorpen kultural modutik hartua. Ebidentzia hutsa da elementu egituratzaile guzti hauek ez direla euskal tradizioaren ondare pribatua; aitzitik, unibertsala dela. Dena den, euskal tradizio hori dute hurbilen idazle hauek eta jasotako ikasketa-modu eta igorpen-modu kulturala.

Bestalde, batipat erlijioaren alorrean higitu den literatura idatzi honek ez du zilbor-hestea batpatean eteten. Kontaketek probetxuzkoak izaten jarraitzen dute. Erlijioak irakasten dituen egiak azaltzen ez badituzte ere, bide zuzenaren eta ereduaren berri ematen jarraituko dute.

Fikzioa ez da mundu autonomo legez sortzen, helburua bere baitan lukeen unibertso moduan: helburu didaktiko baten menpe dago. Orain arteko euskal prosa idatziak ere helbururen batera bideratu ditu eskainitako testuak: irakurlegoa alor filologiko edo kristau-sinismenean hezitzea bilatu du. Orain ere hezitzea bilatuko da fikzioaren bidez: nolakoak izan ziren gure arbaso eredugarriak, nolakoa izan behar duen euskaldunak... Eta bidenabar edo ez, euskaldunak bere hizkuntzaren ezagueran aberastea ere bilatzen zuten.

Orain artekoan bederen euskal testuen tradizioak idazle-irakurlegoari nolabaiteko identifikazioa eskaini dio: testua zerbaitetarako balio duen tramankulua da, nork bere burua alorren batean jantziago egin dezan erabil daitekeena. Eta fikziora jaiotzen denean ere, euskal literaturak ez du tradizio hau erabat etengo. Probetxugarritasuna izan-

(512) Kapituluen tituluek azaltzen dute frogatu behar den tesia. Argumentazioa, kapituluen arabera, baliabide desberdinetara joz egingo du eta azkenean ondorioak aterako ditu. Ik. OTERMIN, A.; **Aproximación al ritmo de la prosa de Axular**, Memoria de Licenciatura, Universidad de Deusto, 1973, 28-60. orr.

(513) Ikus, esate baterako, "Astoak... arrantzea" in AZKUETAR, E.M.; **Parnasorako Bidea**, 53-55. orr. Aipatu poemaren lehen ahapaldian tesia ezartzen du, hurrengo sei ahapaldietan barrena exenplifikazio baten bidez argumentazioa eskainiko du eta azken ahapaldian ondorioak aterako.

go da elkarrekin lotzen dituen zilbor-hestea. Hori bai, orain fikzioaren eta "anekdoten" bidez modu arinagoz erabiliko da. Baina badirudi prosa narratibo honek ezin duela zilbor-heste hori eten (edo ez duela eten nahi).

Horrela, nahiz eta ereduak kanpoan bilatu edo ez bilatu, nahiz gizarte horrek literatur mota hori eskatu edo idazleek egindako aukera izan, euskal fikziozko prosa euskal literaturaren tradizioak eskaintzen zizkion baliabideetatik abiatu zela esan daiteke, hausturarik gabe, aurreko manifestazio-moduekin erabat eten gabe, manifestazio-modu hauek eskain ziezaizkiokeen baliabideak erabiliz eta "egingabeko bideak" zekarzkion oztopoei aurre emanez.

Erlatu historikoekin emango zaio hasiera euskal fikziozko prosari. Baina ez dira erlatu historiko soilak izango, baizik eta "euskal erlatu historikoak", bereziak, baldintza sozial, politiko, linguistiko, literario —tradizioa— propio batzutan jaioak. Puntu honetan oso grafikoa izan daiteke J.M. Lasagabasterrek **Peru Abarca**k Rousseau-ren **Emilio**rekin izan ditzakeen harremanei buruz esana:

> "Aztertzaile batzuk, Peru baserritarrarengan Rousseau'k, bere novela **Emilio**'n eman zuen buensalvaje delako pertsonaiaren euskal irudia ikusi nahi izan dute; nere ustez, Peruren naturalismoa ez da Ilustrazioneko ideolojiatik iragazi; Basarte da, noski, Peru baserritarra hazi eta hezi duen unibertsitate bakarra; Mogel'ek asmatutako pertsonaia ez da Rousseau'renaren anaia ttipia, baizik ehun edo urte beranduago euskal ohiturazko nobelaren mundu idilikoan emeki biziko diren baserritarren anaia zaharrena" (514).

Esan nahi dena zera da: Euskal Herriko mugetatik at egiten zen literaturaren eragin posibleez gain euskal prosa narratiboaren sorrerak bere testuinguru propioa izan zuela, bai soziologikoa, bai linguistikoa, bai literarioa eta giltzarri hauek gabe ezin direla, seguruaski, ez sorrera, ez sorrera horretako fikziozko prosaren ezaugarriak ulertu.

4.3. TESTUAK

Esan daiteke euskal fikziozko prosaren sorrera testu unidimentsionalek markatzen dutela. Ez dago aldi berean sailkapen batean

(514) LASAGABASTER, J.M.; "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 354. or.

gizarte-geruza desberdinei erantzun diezaiekeen erlatu desberdinik. Bai, sailkapen batean hitz egin daiteke "barre-kontakizunei" buruz edo leiendei buruz eta hauetan historikoak direnak eta ez direnak berezi edo eleberri historikoari buruz, etab... Baina ez dira amankomunean duten mundu-ikuskeratik urrutiratzen; barre eraginez, nahiz aintzinako gertaerak kontatuz, didaktizismoan eroriko dira; Euskal Herriaren alde batean kokatuko dira; irakurlego-mota berdinari edo berdintsuari zuzenduko zaizkio... Ez dago aldi berean "espezializaziorik" (515).

Irakurle euskaldunari ez zaizkio euskaraz eleberri antiklerikalak eta klerikalak helduko. Aukerarik gabe, guztiak klerikalak izango ditu. Honela, euskara mundu-ikuskera bakar baten igorpen-tresna bihurtzen da. Hortik at gelditzen denak beste hizkuntza batera jo beharko du.

Idazlanaren unibertsoaren egituren eta zenbait talde sozialen egitura mentalen artean homologiarik ezar badaiteke (516), honako ondorio hau atera beharko genuke euskal prosa narratiboaren sorreraz ari garelarik: edo-ta talde "euskaldun" bakar bat zegoela mundu-ikuskera mailan edo-ta, besterik baldin bazegoen, horiek ez zutela idatzi.

Baina beharbada beste zerbait ere erantsi eta ametitu beharrean gaude: euskal "literaturak" bi "tradizio" edo ezagutu dituela, bata ahozkoa eta bestea idatzizkoa.

Testuinguruari eskaintzen zaion atal luze honetan zehar behin eta berriz eta modu batera edo bestera aditzera eman da bi "tradizio" horiek ez dutela guztiz bizitza paralelo bat egin, eta zenbait unetan elkarrekin topo egin dutela: mintzagai izan da ahozko tradizioaren ekarri hipotetikoa, nola euskal fikziozko prosaren sorrerara hala prosa aszetikora bertara egin zezakeena ere.

---

(515) Fikziozko prosaren alor zehatzaren barnean bederen ez da gertatzen R. Wellek eta A. Warren-ek jasotzen duten harako hura: "Como afirma Ashley Thorndike, la 'característica sobresaliente de las publicaciones impresas del siglo XIX no es su vulgarización ni su mediocridad, sino, antes bien, su especialización. Estas publicaciones no se dirigen ya a un público uniforme y homogéneo: están divididas entre muchos públicos y, por consiguiente, en muchos temas, intereses y fines'". WELLEK, R.; WARREN, A.; **Teoría Literaria**, 118. or.

(516) L. Goldmann-ek homologia honetan oinarritzen du literatur sorkuntzaren kolektibotasuna. Ik. GOLDMANN, L.; **Para una sociología de la novela**, 226. or.

Baina puntu honetara iritsita, sarritan eta zenbait aztertzaileren hitzetan bi tradizio horien artean egin den bereizketari heldu eta ezin uko egin azalduz joan garen datu desberdinen argitan zenbait gogoeta egiteko tentazioari.

Hainbat bider esan da euskal "ahozko literatura" herriaren gorabeheretatik askoz hurbilago egon dela literatura idatzia baino.

Euskal fikziozko prosa literatura idatzi horren ezpaletik sortzen da, horri lotzen dio zilbor-hestea, nahiz eta azaldutako moduan zenbait ekarri egin ahozko tradizio horrek.

Jadanik azaldutako datuen arabera eta datu hauetaz egin den irakurketa eta interpretazioa ontzat ematen bada, honako hau esan daiteke orohar: euskaldunak ahozko igorpen baten bidez jasotzen zituela bereziki hizketa-ekintza ritualak eta ahoz zetozkion hizketa-ekintza ritual hauen bidez erantzuten ziela bere behar literarioei; literatura idatziaren errezepzioan ez ziela behar literarioei erantzuten, beste mota batekoei baizik: dela filologikoa, dela erlijiosoa (eta batipat azken honi).

Eta euskal fikziozko prosaren sorreran jarrera honek bere hartan dirau orokor. Fikziozko prosa literatura idatzi horren sustraitik ernetzen da, eta bestearen ekarriak goitik-behetik, hark du pisurik handiena eta ez du lortzen probetxuzkoa izan behar horretatik askatzerik.

Aurrerago esaten zenez, normalizazioaren eta normatibizazioaren ikuspegitik hizkuntz egoerak ez du erraztasunik eskaintzen (517) fik-

(517) Eta normatibizazio-falta hori eragozpen bihurtzen da. Euskaldunak bertsoak ere ez omen ditu irakurtzen, kantatzen diren bertsoekiko zaletasuna omen du bakarrik. K. Echegarayk egiten duen baiezpena da. Eta irakurlegoak hartzen duen jarrera hau aztertzera igarotzen denean, honela dio: "La razón de ese desvío del pueblo está, a mi juicio, en varias causas. Es una de ellas el empeño que ha habido de cambiar radicalmente de ortografía, sustituyendo la vulgar, que era idéntica a la castellana, por otra, mucho más racional, mucho más científica, pero a la cual no se hallaban acostumbradas las masas. Y como en vez de introducirla poco a poco, se quiso establecerla de golpe, el vulgo de los lectores vascongados se resistió a admitirla (...). No pocos de los que la aceptamos con mayor entusiasmo, hemos tenido que reconocer la inutilidad de nuestros esfuerzos, al ver que mientras nos valiésemos de aquel sistema ortográfico, escribíamos para nosotros solos, y no para el pueblo". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, VI, Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López, Tolosa, 1901, 39. or.

zioaren garapen zabal eta aberats baterako. Hala ere, irakurleen aldetik zaletasun piska bat azaldu bazen, zaletasun honek zilegizta zezakeen testu-mota honen bizimodu arrakastatsuagorik, jadanik azaldu denez. Baina ez zen horrelakorik gertatu.

Beti da arriskutsua gertaeraren baten kausez galdetzea; are gehiago, literaturarena bezalako alor batean. Euskal fikziozko prosaren sorreran badira hainbat eta hainbat faktore sorrera hori une zail moduan itxuratzen dutenak: hizkuntzak ez du biderik egin orain artekoan prosa narratibo idatzian; hirietan, eleberrien kontsumogune nagusienean, ez dago ia euskaldunik; euskalduna alfabetatu gabea da bere hizkuntzan; hizkuntza ez dago normatibizaturik, ez normalizaturik... Faktore hauek eta gehiago izan dira mintzagai aurreko orrialdeetan. Baina oraingo honetan honako hau erantsi nahi litzateke: euskal fikziozko prosaren sorrerako testuak beste modu batekoak izan balira, agian lortuko zuketen izan zuten bizimodua baino erosoagorik.

Izan ere, mendeetan zehar dakarren bideari jarraiki, historiak **kontatzen** jarraitzen du euskaldunak eta kontaturiko historiak dastatzen; baina gogo onez eta atseginez dastatzen dituen kontaketak ez dira euskal fikziozko prosa deitu den sail horrek eskaintzen dizkionak. Orain aipagai diren historia hauek euskal fikziozko prosak eskainiak izan balira, izango zuketen aipatu bizitza erosoago hori.

Fikziozko prosazko testuak ez bezala, sarritan **enkarguz egiten diren, saltzen diren** eta **irakurtzen eta aldarrikatzen diren** testuak bertso-paperak dira (518).

Zer-esanik ez dago oso testu-mota desberdinak direla fikziozko prosaren barnean lekutu direnak eta aipatu bertso-paperak. Agian

---

(518) "A veces el bersolari componía sus estrofas porque se lo pedía el espíritu" dio A. Zavalak. Baina hurrengo orrialdean bertan eransten du: "Pero otras veces las composiciones se hacían por encargo". ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1964, 52. eta 53. orr. Ik. halaber, ZAVALA, A.; "Bertso paperak" in **Jakin**, 14/15, apirila-iraila, 1980, 120-122. orr. Eroslerik ere ez zaio falta: "Que había compradores, es inútil decirlo. Todo este mundillo no podía ponerse en movimiento sin un público que se interesara por las hojas y las hiciera rentables. Incluso hemos visto que algunos tomaban la redacción o venta de los 'bertso-paperas' como solución o ayuda de sus economías". ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 62. or. Ikus, halaber, ZAVALA, A.; "Bertso paperak" in **Jakin** 14-15, 125-126. orr.

amankomunean izan dezaketen ezaugarri bakarra kontaketaren ekintza hori besterik ez da —eta gainera, seguruaski, kontaketa-jario malguagoa darie bertso-paperei—.

Baina bertso-paperak euskaldungoaren talde zabalago batek dastatu nahi izan zuen produktua eskaintzen zuen, fikziozko prosak ez bezala.

Bertsogintza-modu narratiboaren ildotik, bertso-paperak egunerokotasunean jazotzen ziren jazoerak kontatzen zituen, fikziozko prosan lekurik hartu ez zuten historia haiek: porrot egindako ezkongaigaiak, demak edo demei buruzko komentarioak, estropadak, auzi pertsonal edo kolektiboak... (519).

D. Agirreren **Garoako** Joanesek ere han aurkituko ditu Urkiolan salgai bertso-paperak, baina ez die jaramonik ere egingo. Ez da harritzekoa: elkarrengandik urrun dauden bi mundu dira (520). Herriaren "grinak" asetzeko tramankulu bikainak izan daitezke, baina ez Joanesen izpiritualtasun-egarria; herri-kontsumorako gaia izan daiteke, baina ez Joanesentzat, nahiz eta baserritarra izaki eta status

(519) "Pero no sólo se hacía así por cuestión de noviazgos. Se empleaba el mismo método para mil otros asuntos: desafío de apuestas o comentarios de ellas, pleitos personales o colectivos, regatas, recuerdo de misiones populares, peregrinaciones, intereses políticos,...". ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 54. or. Ikus, halaber, ZAVALA, A.; "Bertso paperak", in **Jakin**, 14-15, 118-119. orr.

(520) Gogor astintzen ditu bertso-paperak K. Echegarayk. Oso jarrera desberdina erakusten du bertso-paperak epaitzean eta D. Agirreren **Auñemendiko Lorea**ri hitzaurrea egitean. Honela dio bertso-paperei buruz: "Si pudieran reunirse todas las hojas volantes que, por espacio de tres cuartos de siglo, se hayan difundido, con nombre de versos vascongados, por los hogares de la región euskara, se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosáica, y en un lenguaje incorrecto y plagado de castellanismos. Alguna vez, las faltas en que incurren los que escriben tales cosas, tienen más honda transcendencia, y ofenden no ya el sentido estético, sino el sentido moral". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 35. or. Besterik dio **Auñemendiko Lorea**ri buruz eleberri honi eginiko hitzaurrean: "Ondo egiña iruditu zaidala Agirre Jaunaren lan polita, esan bearrik ez da. Gaizki iritsi banion, ez nuen itzaurre au moldatuko. Nik deriskiotanez, Agirre Jaunak gauza egokiak gogoratzen dizkigu, eta ez bakarrik egokiak, baizik egoki esanak, zer esaten duen eta euskeraz mintzatzea zer dan ederki dakianak bezela". ETŠEGARAI-KO, K.; "Itzaurrea" in **Euskalzale**, II, 1898, 13. or. Bi mundu dira eta K. Echegarayk garbi uzten du bi mundu horietatik zein aukeratzen duen.

sozial mailan herri horren partaide izan; izan ere, herri hori osatzen duen gizataldearen hezur-haragiek ematen duten itxuratze-moduaz desjabeturik igaro bait da fikziora.

Ametitua dago bi testu-mota oso desberdin direla fikziozko prosakoak eta bertso-paperak, eta lehena kultoagoa dela bestea baino. Baina, hainbat alderdi bitarteko direla, ezin uka daiteke lehenak tesiak eraman zituela kontaketara pertsonaiak eraman ordez, ideal batzu euskaldunaren eguneroko kezkak eraman ordez; eta beste mota bateko fikzioarekin edo, bertso-paperek bete zutela fikziozko prosak bere dimentsio-bakartasunean utzitako lekua.

Luzerak, formak, lantze-moduak, egituratze-moduak..., errezeptzio-moduak berak ere bereizten ditu bi testu-motak, baina bien arteko alderaketak honako hau erakusten du: bertso-paperak erakarri egin zuela bezeria (521), fikziozko prosak ez.

Bertso-paperak herritarrak ziren eta herria zuten kontsumogune nagusi; fikziozko prosak ez (522). Fikziozko prosa oso urrun zegoen herritik, bai bere testuetara eraman zuen hizkera-mailagatik, bai kontatzen zituen istorioengatik. Izan ere, istorio horiek oso urrun zeuden seguruaski herri horren kezka, eguneroko bizitza, desio eta abarretatik, hots, herri horrek egunero bizi zuen historiatik eta entzun nahi zituen historietatik; ez horrela bertso-paperak (523).

---

(521) "Es ésta, sin duda, la modalidad literaria vasca que más ha hecho trabajar a las imprentas. El espíritu vasco se nutrirá en adelante del 'bertso-papera' más que de cualquier otro libro religioso o profano, más que de toda poesía culta". ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 45. or.

(522) Erabatekoa da herriaren eta euskal fikziozko prosa landu zutenen arteko dibortzioa. Baina dibortzio hau ez da mugatzen, itxura, herri eta euskal kontaketagileen artera: "Si todos en la intimidad confiesan y reconocen que las letras vascongadas no se difunden lo que debieran, por el aislamiento en que intelectualmente viven los que las cultivan y porque de ese aislamiento nace una atmósfera artificial en que se carece de los elementos esenciales para la vida, es necesario decirlo en alta voz, para que todos lo oigan, y los llamados a ello pongan remedio al mal que lamentamos" dio K. Echegarayk. ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 45-46. orr.

(523) "El 'bertso-papera' ha sido nuestra primera publicación informativa, tanto de asuntos mundiales como locales o personales, nuestro mejor órgano de difusión de la opinión de nuestro pueblo y manifestador de sus sentimientos, instrumento a veces de justicia popular, y el más fiel retrato del alma vasca". ZAVALA, A.; op. cit., 45. or.

Beste gertaera batek ere argi ditzake egindako azalpen honetan markaturiko lerro nagusiak. Bertsoa utzi eta berriro prosara igaroz, bada XIX. mende honen azken herenean itzulpen hagiografiko edo leiendazko bat, fikziozko prosa horren aldean arrakasta handia ezagutu zuena: Cristobal Schmid-en Brabanteko Jenobeba Santuaren bizitza abiapuntu, G. Arruek Tolosan 1885.ean (524) argitaratu zuen itzulpena.

(524) Bai Fr. L. Villasantek, (ik. **Historia de la Literatura Vasca**, 278. or.), bai L. Mitxelenak (ik. **Historia de la Literatura Vasca**, 130. or.) hitz egiten dute 1885. urtean Tolosan argia ikusi zuen argitalpenaz. S. Onaindiak (ik. **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, 276. or.) bi argitalpen aipatzen ditu: Tolosan bertan 1882.ean eta 1885. urtean eginikoak. Baina Lino Akesolok prestaturiko edizioak portada faksimila dakar eta bertan honako hau irakur daiteke: **Santa Genovevaren vicitza antziñaco demboretaco condairen ederrenetaco bat; persona prestu guztientzat; baña berezquiro amacquin beren seme-alabentzat era egoquian Zarauzco escola-maisu D. Gregorio Arrúec ipiñia**, Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren moldizteguian, 1868garren urtean. (Ik. ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, Euskal Editoreen Elkartea, Erein, Donostia, 1987). Argitalpen-urteari dagokion gakoa abiapuntu moduan hartuta, L. Akesolok eginiko hitzaurrean dioena askatu beharko da. Honela dio: "Arrue idazleak berak ere bere liburu onetan santa izena eman bazion ere, amazazpi urte geroago eskualdi berria emanik argitara zuenean, santa izena kenduta, Brabanteko Jenobeba izen soilla eman zion". (Ik. AKESOLO, L.; "Gregorio Arrue idazlearen santa Jenobebaz zerbait" in ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, 21. or.). Badirudi G. Arruek Brabanteko Jenobebaren bizitzaren bi bertsio edo eskaini zituela. Bata, 1868. urtean, aipatu titulua zeramalarik, eta badirudi —"badirudi" diogu, J. Vinson-ek "2.e édition, non indiquée" dioelako— honek beste bi edizio ezagutu zituela: 2. argitalpen bat P. Gurruchagaren moldiztegian eta Tolosan bertan 1882. urtean (ik. VINSON, J.; **Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque**, 1*, 342. or., 380. b zka.; nahiz BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia**, I, ARRUE REZOLA sarrera, 325. or.) eta 1889.ean. Azken argitalpen hau ez du J. Vinsonek jasotzen, baina bai J. Bilbaok; eta nahiz eta honek ez duen espreski aditzera ematen 1889.eko hau 3. argitalpena denik, aurkezteko moduagatik halakotzat jo daiteke (ik. BILBAO, J.; op. cit., 325. or.). Eta oraindik egoera zertxobait gehiago iluntzeko, M. Lekuonak dio 1868. urteko argitalpenak beste bi berrargitalpen izan zituela, bata 1882.ean eta bestea 1892.ean: "En 1882 publicaba la misma casa otra edición con idéntico título, y otra en 1892". LEKUONA, M. de; "Prólogo" in **Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain**, Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore, argitalpen-leku eta argitalpen-urterik gabe, III. or. Zer ote da 1892.eko hau? Errata? Ala 1868. urteko edizioaren beste argitalpen bat? J. Bilbaok emaniko 1889. urte hori ote errata? Bestea 1885. urtean argitaratzen du honako titulu honen azpian: **BRAVANTERCO Genovevaren bicitz arrigarri miragarria, Cristobal SCHMID-ec eguiñ eta eusquerara itzulia d. Gregorio ARRUE-C...** Argitaletxez aldatzen da oraingoan: E. Lopez; baina ez argitalpen-le-

Ez daukate galbiderik F. Arocenak itzulpen honi buruz esanikoak:

> "Supo en su versión prender el alma popular y traerla a mandamiento en una prosa de gran fluidez y abiertamente asequible. El éxito tenía que acompañar, necesariamente a la empresa, y el resultado fué que no hay quizá texto euscaro más divulgado que el de esa vida popular de la santa" (525).

Edo L. Mitxelenak esanikoak:

> "Ez dira horrenbeste gure artean jende arruntaren eskea (eta gehienok izan gara arruntak arlo honetan) biztu duten irakurgaiak. Gipuzkoan gelditzen naizelarik, Lardizabalen **Kondaira** datorkit gogora, edo Arrueren Brabanteko Jenobeba edo, geroago, G. Muxikaren Pernando Amezketarrarenak" (526).

L. Mitxelenak bere **Historia de la Literatura Vasca**n azaldua zuen ideia da:

> "Su vida de Genoveva de Brabante (1885) es importante como libro muy leído y como fuente de más de un bersolari" (527).

Eta nahiz eta beranduago J.K. Zapirainek bertsoz (528) Brabanteko Jenobebaren bizitzaz eskaini zuen bertsioak agian zabalpen handiagoa erdietsi (529) (gertaera harrigarria ez dena, bestalde, hizke-

---

kua: Tolosa (ik. VINSON, J.; op. cit., 394. or., 606 zka.; nahiz BILBAO, J.; op. cit., 325. or.; J. Vinson-ek jarritako titulutik J. Bilbaok jarritakora dagoen alde bakarra Bravanterco/Bravante-co da).

(525) AROCENA, F.; "La versión guipuzcoana del **'Peru Abarka'**, de Moguel. Exámen preliminar" in **Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País**, Año IV, Cuaderno 2.º, 1948, 170. or.

(526) MITXELENA, K.; "Liburu sorta zaharberritu baten atarian" in ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, 11. or.

(527) MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 130. or.

(528) J.K. Zapirainen bizitzari buruzko berriak nahiz bere **Brabante'ko Jenobeba'ren bizitza**ren sorrera-modua ezagutzeko, ik. LEKUONA'TAR M.; "Aozko literatura Errenteria'n. Juan Krutz Zapirain" in **Oarso**, 1973, 51-52. orr.; nahiz LEKUONA'TAR, I.; "Dijoazkigunak. Zapirain'dar Juan Krutz" in **Yakintza**, II, 1934, 403-406. orr.

(529) Badirudi urtebeteren buruan lau argitalpen ezagutzera heldu zela: "Guk dakigularik, lenengo aldiz Gasteiz'en, **Eusko-Folklore** aldizkarian, agertu ziran (...). Santa Jenobebaren bertso auek, 1928'eko Garagarrillean asi ziran argitara ate-

ta-ekintza ritualen altxorra batipat herri-tradizioari, entzulego bati loturik (530) ezagutu duen euskal literatura bezalako batean), ez dago mezpretxatzerik prosazko bertsioaren arrakasta. Nekez aurkituko dira euskal literaturan, hogeitaka urteren buruan bertsio-modu desberdinak izanik ere, lau edo bost aldiz argitaratu diren testuak (531). Bere hizkera-moduagatik edo/eta Santu honen bizitzak zeukan leiendazko osagaiagatik edo leienda hutsa zelako (532) edo/eta bere hunkigarritasunagatik —herriarentzat erakargarriak izan zitezkeen

---

ratzen, eta 1929'eko Urrian bukatu. Gasteiz'ko **Montepío Diocesano**'ren Irarkola'k egin zuan moldiztegi-lana.

Urte berean, 1929'an alegia, bertso guziak batera bildu ta liburuxka bat osatu zuten. (...).

Beste argitaraldi bat ere izan zuten bertso auek urte berean, 1929'an, Gasteiz'ko **Montepío Diocesano** orrek berak egindako liburuxka batean. (...).

Urte berean, 1929'an au ere, beste argitaraldi bat ere bada. Urtea badakar, bañan moldiztegi-izenik ez. Gure iritzirako, Errenderi'ko Makazaga'k egingo zuan". ZAVALA, A.; **Zapirain anaiak. Juan Krutz (1867-1934), Joxe (1873-1957)**, Auspoa Liburutegia 123-124-125, Tolosa, 1975, 70-71. orr. Agian 1929.eko urte hau baino lehenago ere izan zuen argitalpenen bat: "Juan Krutzen seme Bizentek berak esan digunez, lenengo Iruñe'n argitaratu ote ziran-edo, aditu omen du. Ori entzunik, Iruñe'ra joan eta ango Diputazioko liburutegian galdetu degu; bañan ez da olakorik ezer azaldu. Beraz, agertu bitartean beintzat, ez daukagu aintzat zer arturik dudazko argitaraldi ori". ZAVALA, A.; op. cit., 69-70. orr. Dena den, 1929.eko urte hori baino lehenago ezaguna zen J. K. Zapirainen **Brabante'ko Jenobeba** "kaier-kuadernotxoei" esker: "Juan Krutz'en lana, emazteak idatzia, etzan joan zuzenean iñungo Irarkoletara. Erreal biko kaier-kuadernotxo batean kuriosoki birridatzia, erriko jostundegi batera etorri zan". LEKUONA' TAR, M.; "Aozko literatura Errenteria'n. Juan Krutz Zapirain" in **Oarso**, 1973, 52. or.

(530) Ez dago ahazterik beti urria izan dela euskal irakurlegoa —zentzu hertsian bederen—. Bertsoak erraztasuna damaio igortzen zaiona entzumenaren bidez gorde behar duenari. J.M. Lekuonak dioen bezala, "Oroipenaren euskarriak azkartzeko eta sendotzeko, hain zuzen, errimaren, erritmoaren, musikaren eta dantzaren laguntza oso baliagarri gertatzen da horrelakoetan. Textuari iraungailuak ezartzea bezala litzateke artifizio erritmiko hori". LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, 28. or.

(531) Ik. 524. oin-oharra.

(532) G. Arruek 1885. urtean egiten duen edizioan 1868. argitalpeneko "Santa Genovevaren vicitza", "Bravanteco Genovevaren bicitz" bihurtzen du santutasunez desjabetuaz. M. Lekuonak leienda bati buruz hitz egiten du eta ez santu baten bizitzari buruz: "No sabemos en qué fecha se introdujo en la literatura oral vasca la bella leyenda alemana de Genoveva de Bravante". LEKUONA, M.; "Prólogo" in **Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain**, III. or.

ezaugarriak— edo/eta beste ezaugarriren batzurengatik (533) jakin egin zuen talde zabal batekin konektatzen, aztergai den fikziozko prosak ez bezala.

Azken finean, igorleen status kulturalak, igorletza-moduak, hartzaile eta hauen status kulturalak orohar bi mundu berezi eta seguruaski loturarik gabekoak egiten ditu: euskal fikziozko prosarena eta bertso-paperena (eta azken hauekin batera, G. Arrueren itzulpenarena ere bai).

Bertso-paperen egileak oso eskola gutxikoak dira (534); euskal fikziozko prosa landu zutenak, berriz, erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak eginak (Teologiakoak gehienetan), azaldua denez. Euskal lehen eleberrigiletzat jo dena, maila apalean bada ere, poetika- eta erretorika-irakasle da (535). Fikziozko prosa ez bezala, bertso-paperak feria eta merkatuetan, festa eta erromerietan saltzen dira (536); baita meza-ondoetan ere (537). Saltzaileek aldarrikatu egiten dituzte,

(533) Kasualitate hutsa ote testu hau hain erakargarri bihurtu izana euskaldunentzat eta testu honen iturriak ahozko kontaketetan egotea? Honela dio L. Akesolok: "Azkeneko azterketek diotenez, Jenobeba onen bizitzak Frantzialdeko beste aoz aozko ipui zarrago batean omen du jatorria, **Frantziako Erregiña eta Mariskal ezkontzauslea** izeneko ipuian, alegia. Oso antziñakoa omen da ipui au. Or oiñarriturik, amairu-amalaugarren mendean fraide asmatzaille batek egin zuen aldaketa". Eta aurreraxeago: "Gaiñerakoa geroko idazleek egingo zuten". AKESOLO, L.; "Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait" in ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, 21-22. orr. Eta kasualitate hutsa ote testu hau hain erakargarri bihurtu izana euskaldunentzat eta hauek G. Arruek liburu moduan taxutu aurretik jadanik bizitza hori ahozko tradizioaren bidez ezagutzea?

(534) Batzuk ez irakurtzen, ez idazten ikasi dute; besteren batzu ozta-ozta heltzen dira horretara... Ikus ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 50-52. orr.

(535) Honela mintzo zaio "Chomin" R.M. Azkueri 1897.eko maiatzaren 31n igorritako eskutitzean: "Y dicho esto (...), te doy la noticia de que ayer acabé con la serie de pláticas de mayo y hoy terminarán las lecciones de latín y castellano, retórica y poética a ciertos muchachos que mañana van a ser examinados en el Instituto de San Sebastián; y esto me proporciona poco desahogo para trabajar otro poco para 'Euskalzale'". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, 543-544. orr.

(536) Ik. ZAVALA, A.; "Bertso paperak" in **Jakin**, 14-15, 125-126. orr.; nahiz ZAVALA, A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 57. or.

(537) Beranduagoko lekukotasuna bada ere, ik. UZTAPIDE, (M. Olaizola); **Lengo egunak gogoan**, I liburukia, Auspoa Liburutegia, Tolosa, 1974, 43. or.

eta batzuk, dirurik ez dutelako edo irakurtzen ez dakitelako, aldamenean jarri eta entzun egingo dituzte, buruz ikasi arte (538). Besteek, erosleek, berriz, irakurri, buruz ikasi eta beren bertso-altxorra aberastu, non edo non kantatzeko (539). Hartzailegoa baserritarrak, eskola gutxiko herri xeheak, osatzen du (540).

Fikziozko prosak eskainitako testuek irakurketa pribatua eskatzen dute. Nola irakurri publikoan **Auñemendiko Lorea** edo **Kresala** edo **Garoa**? Hizkera-maila, tonuak, deskripzioak, pasarte komentatibo luze horiek eta azken batean, zergatik ez, kontatzen dituzten historia ahul horiek nola igorri ahots-gora? (541). Baina, bertso-paperak ez ezik, badirudi prosa ere eraman zela entzute publikora. Honela mintzo da M. Lekuona J.K. Zapirainek nola ezagutu zuen **Brabanteko Jenobeba** azaltzean:

> "Bañan, Jaunak ala nairik, gure Mikaela'k, orduan eskutik eskura zebillen 'Brabante'ko Jenobeba'ren bizitza' —erriak 'Santa Jenobeba' esaten zuanaren bizitza— eskuratu zuan nunbait —Schmid batek alemanez idatzi eta Arrue ernaniarrak euskeratua—. Eta orduan baserrietan oitura zan bezela, neguko gau luzeetan, afal-ondoan

(538) Ik. ZAVALA, A.; "Bertso paperak" in **Jakin**, 14-15, 126. or. Jadanik M. Lekuonak azaldua zuen: "Todo el mundo sabe además que la extraña avidez con que el aldeano analfabeto escucha el canto de los **bertso befiak** pregonados por los vendedores ambulantes, se traduce de parte de él, sin más, en una perfecta captación de todas las estrofas que ha escuchado, muchas en número y bien largas no pocas veces". LEKUONA, M. de; "La poesía popular vasca. Itzaldi, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean, Bergara'ko Udaletxean, 1930" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak 1. Aozko Literatura**, 216. or.

(539) Hona hemen Uztapideren aitorpena: "Ari kanta-papela erosi ta ardizaira joaten bagiñan, goizean artutako papela eguardirako buruz dana ikasiko genduan; da, arratsaldean, papela etxean utzita ere kantatuko genduan.Bertsotarako nere asiera ortitxik izan zan batik-bat. Beintzat, nik zortzi urte nituanean ikasitako bertsoak, gogoan dauzkat oraindik. Pentsatu besterik ez dago: zortzi urterekin asi ta amaseirekin-edo tabernara joaten asi giñanerako, burua dana bertsoz betea gendukan guk". UZTAPIDE, (M. Olaizola); **Lengo egunak gogoan**, I. liburukia, 44. or.

(540) Ik. ZAVALA. A.; **Bosquejo de historia del bersolarismo**, 61-64. orr.

(541) Eleberriak irakurketa pribatua eskatzen duela baieztean adostasun handia ageri da testu-mota honen aztertzaileen inguruan. Oraintsu honako hau irakur zitekeen: "la novela se destina a una lectura silenciosa e individual, mientras que todos los géneros precedentes habían nacido en previsión de una lectura oral y pública". BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. y COLAB. (A. BLECUA, A. GARGANO y C. VAILLO); **Introducción al estudio de la Literatura**, 245. or.

gure Mikaela'k liburu bitxi ura irakurtzen zuan, eta gure Juan Krutz'ek entzun" (542).

Beraz, eta bukatzeko, zera esan daiteke: euskaldunak XIX. mende-bukaeran kontaketak dastatzen zituela; baina dastatzen zituen kontaketak batipat bertsoz eta, bereziki, "ahoz-irakurriz" konbinazioaren bidez heltzen zitzaizkiola. Badirudi euskaldungoaren gehiengoa halako trantsizio garai batean edo dagoela ekintza ritualen harrera-moduan: orain artean, batipat ahoz igorri zaizkio eta entzun egin ditu kantatzen, errezitatzen edo esaten zuen esatari bat bitarteko; orain, berriz, aipatu tradizio horri amaiera eman ez bazaio ere, beste bat hasten da hedatzen (543): askok entzuten jarraitzen dute, baina esataria irakurle bat da. J.M. Lekuonak erdi-ahozkotasun izendapenez (544) ezagutzera eman duen harrera-modua da.

Bertso-paperak eta aipatu itzulpen hagiografikoa, batetik, eta fikziozko prosa, bestetik, berezirik dauden bi mundu dira. Bakoitzak bere egileak eta bereak bakarrik ditu (545); testuak nahiz gaiaren aldetik nahiz gaia tratatzeko moduarengatik bereizten dira; hartzailego bakoitzak ere bere espazioa du azkenean eta bakoitza bestearen existentziari jaramon handiegirik egin gabe bizi da.

Mutur batean bertso-paperak daude, beste literatura batzutan "literatura de cordel" edo "littérature de colportage" deitu izan dena (546); kontsumoko herri-literatura da (547), kalitate handirik gabea

(542) Ik. LEKUONA'TAR, M.; "Aozko literatura Errenteria'n. Juan Krutz Zapirain" in **Oarso**, 1973, 52. or.

(543) Izan ere, jadanik azaldu denez, testuak publikoan aldarrikatzea bertso-paperak sortu aurretikoa da. Beraz, honenbestez, ezin esan daiteke une historiko hauetan tradizio bati **sorrera** ematen zaionik.

(544) Ik. J.M. Lekuonaren Euskaltzaindian sarrera-hitzaldia: "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz". Argitaratu gabea.

(545) Salbuespenen batean ezik. G. Arrue eskola-maisuak, esate baterako, zenbait leienda aurkeztu zuen Donostiako euskal festetan, hala nola, "Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" 1881.ean edo "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" 1882.ean edo "Zarauzko ondekidatzea" 1884.ean. Euskal festa hauetara aurkeztutako gainontzeko leiendak bezala oso harrera-modu eskasa jaso zuten irakurleengandik; baina ez horrela herriaren gogoko izan zen **Brabanteko Jenobebak**.

(546) Ik. CARO BAROJA, J.; **Ensayo sobre la Literatura de Cordel**, Círculo de Lectores, 1988, 68. or.

(547) "Kontsumoko herri-literatura bat hasten zaigu bertso-sorta idatziekin. Eskuizkri-

sarritan (548), agian subliteratura (549), bere teknika propioekin (550), zeinetan ahozko tradizio hutsaren ekarria guztiz garrantzizkoa den (551), hagiografiari (552), gerren kronikari, pilota-partiduen kronikari, krimenen kronikari, estropaden kronikari... eta dekoroaren, gusto onaren, moralaren eta abarren izenean fikziozko prosak biderik gabe zeuzkan zenbait gairi irteera eman zien bertso-paperak. Beste muturrean fikziozko prosa dago kortse estu baten barnean, gizon-emakume ospetsuz, ohitura onez, historiarik gabeko maitasun-historiaz... hornitua.

Bertso-paperetan aurkitu zuten lekua fikziozko prosan lekurik aurkitu ez zuten eguneroko gertaerek, eguneroko bizitzak eta gorabeherek, grinak eta aseezinak, gorrotoak eta sentimendurik ezkutuenek. Batean debeku zena, bestean ez. Beranduagoko adierazpena bada ere, eta bertso-paperek erabili zuten gai ugarien artean bakar bati buruzkoa, guztiz adierazgarria izan daiteke lekuko legez Uztapidek egiten duen aitorpen bat:

---

bu izan behar zukeen pieza horrek, erosleak ditu, eskabide bat dago, eta handik eta hemendik eskaintza bat egin behar zaie erosle eta irakurleei". LEKUONA, J.M.; "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz", 7. or.

(548) "Baina beti kontuan edukiz, kontsumoa adiago dagoela testuen eskabideari berauen kalitateari baino". **Ibidem**, 15. or.

(549) Oso zaila da literaturaren eta subliteraturaren arteko mugak ezartzea, literaturaren muga zehatzak ezarri ez direnean. Dena den, aipatu bereizkuntza mintzagai duelarik, honako balorazio hau egiten du M.A. Garrido Gallardok: "La literatura de cordel o el folletín decimonónico aparecido al socaire de la prensa periódica alcanzan a veces cotas artísticas muy estimables. Por otra parte, dentro de la ingente producción de Lope de Vega, por ejemplo (y se trata de un 'clásico'), hay abundante número de comedias que presentan las características típicas de la sub-literatura". GARRIDO GALLARDO, M.A.; **Introducción a la teoría de la literatura**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1975, 69. or.

(550) "Eta aurkezpen jakineko produktoa eskaintzen da: kantatua, estrofa luzeetan idatzia". LEKUONA, J.M.; "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz", 8. or.

(551) "Esan beharra dago, baita ere, idatzizko ederlana ahozkotasunaren eremuetan onartua izango bazen, estiloz idazki horrek ahozko eredu, prozedura, teknika eta gustamoldetatik hartu beharra zeukala, benetako txertaketarik egingo bazen. Idazkiak zail du ahozko munduan sartzea, estilo honetako osagai asko eta asko erabiliz ez bada". **Ibidem**, 17. or.

(552) "Literatur kalitatearen aldetik ez liteke zuzeneko ekarri haundirik espero, literaturakoak ez diren piezetatik. Baina agiografiaren herri-onarpenean ez dago ahazterik, jendeek leienda unibertsalen egitura estetikoa aurkitzen dutela, batez ere Erdi Arotik datozen eskema mentalen zantzu estetikoa". **Ibidem**, 20. or.

"Ark —bertso-paper saltzaile bati buruz dihardu— bertsoak berdeak izaten zituan. Guk uraxe nai. Bestela erosiko ez bagiñuzen ere, berdeak baldin baziran segituan erosiko giñuzen, da bai ikasi ere" (553).

K. Echegarayk dioenez, zenbait bertso-paperetan gertaera labain edo lizun samar baten berri ematen bada, bertsogileak "lo relatará con crudeza que hoy llamaríamos naturalista" (554). Ez da horrelakorik gertatuko fikziozko prosan: idilio historiko-kostunbristak ordezkatuko du gordintasun naturalista.

Dimentsio bakarrekoa da euskal fikziozko prosa, talde soziologiko bakar baten ahots. Baina ikuspegi soziokritiko batetik ondorioa ez da, seguruaski, talde "euskaldun" bakar bat zegoela mundu-ikuskera mailan eta besterik bazegoen beste horiek ez zutela idatzi, baizik eta gutxienez badela beste talde soziologiko bat kontaketak dastatu zituena, batipat bertsoaren bidez, erdi-ahozkotasunaren estiloaren barnean: ahotsa herri-literaturaren formetan aurkitu zuena.

J. Souvagek eleberria kontzientzia modernoaren produktutzat jotzen du eta estu loturik ikusten munduaren ordena feudaletik ordena berrira dagoen jauziarekin; jakina denez, ordena berria gizabanakoak diren pertsonen arteko harreman sozialetan oinarritzen da. Ordena berri honen etorrera XVII. mendearen bukaeran kokatzen da, erdi-mailako klase sozial profesionalen gorakadarekin eta erdi-mailako irakurlegoaren azaleratzearekin batera (555).

J. Souvageren planteamendua ontzat ematen bada, eta planteamendu hori euskal gizartera aldatu, zenbait alderditan honako itxuraldaketa hau jasaten du: erdi-mailako klase sozial profesionalek ez dute **euskaraz ikasi** eta ez dira **euskaraz bizi;** erdi-mailako irakurlego hori ez da **euskaraz azaleratu** eta ez du **euskaraz irakurtzen.** Azken batean, baldintza soziologiko horiek badira nobelaren euskarri, ez da harrigarria euskal fikziozko prosaren hastapenek ezagutu zuten bezalako harrera-maila eskasa ezagutzea. Horiek ez badira euskaraz bizi, nekez joan daiteke horien mintzaira eleberrira (profesio desberdinetako mintzaira berezia, argot ñabarra, klaseari berari legokiokeen

(553) UZTAPIDE, (M. Olaizola); **Lengo egunak gogoan,** I liburukia, 49. or.

(554) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel,** 35. or.

(555) SOUVAGE, J.; **Introducción al estudio de la novela,** 109-110. orr.

mintzaira-maila...); horiek ez badute euskaraz irakurtzen, nekez izan dezake euskal eleberriak irakurlego sendo samarra.

Nahiz eta euskaraz ez ikasi, bakanka bada erdaraz alfabetatua izan eta euskaraz bizi dena: baserritarra, arrantzalea...; herri xehea da eta ez da fikziozko prosaren irakurle bihurtzen. Honek bereziki bertso-papera hautatzen du. Han daude, batetik, bere gogokoak diren kontaerak: estropada, pilota-partidu, krimen, gerra, ezkontz hitz-hauskeeta, santu-bizitza eta abarren kronikak; eta, bestetik, bakanka eta erdaraz alfabetatua izan denak ezin erraztasun handiz euskaraz irakurri: erdi-ahozkotasuna nahiz estilo-moduan (testuan hartzen duen gorpuzte moduan, forma moduan) eta honi hertsiki loturik harrera soil moduan (556) inposa daiteke. Alegia, euskaldun hau euskarazko komunikazioen entzule bikainagoa da irakurlea baino, eta testua norbaitek irakurtzen badu ere, irakurtzen du besteek entzun dezaten (entzupen publikoak) edo norberak buruz ikas dezan (gero nonnahi aldarrikatu ahal izateko): erdi-ahozko harrera-modua da eta, jakina, igorletza-hartzailetza modu horri egokitzen zaion estilo-modua.

Azken batean, nobelaren desarroiloari faktore estraliterarioek laguntzen diote; hala nola, esate baterako, erdi-mailako klase sozial profesionalen gorakadak, erdi-mailako irakurlegoaren azaleratzeak, orohar kulturaren eta irakurlegoaren hedatzeak, aldizkarien ugalpenak... Faktore estraliterario horiek itxuratze berezia hartzen dute euskal gizartean.

4.4. IDAZLEGO-IRAKURLEGOA

Euskal erlatugileek ez dute erlatuak kontatzea lanbide izango. Erlatuak kontatzea asti-ordutako lana besterik ez da izango, nork bere ogibideko eginkizunak bukatu ondorengoa. Idazleak eskolan

(556) "De modos diferentes se plasma una obra según sean las modalidades de ejecución, la manera en que se planea en relación con la tradición y, finalmente, el público al que se dirige: aristocrático o popular, adulto o infantil, y quizá (no faltan ejemplos) masculino o femenino. Todo este abanico de posibilidades interfiere, como es obvio, en la constitución y el reconocimiento de los géneros. La destinación de la obra es, en suma, un factor activo, incluso y sobre todo en el plano formal". BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. y COLAB. (A. BLECUA, A. GARGANO y C. VAILLO); **Introducción al estudio de la Literatura**, 117. or.

ikasi ez duen hizkuntza batez baliatu behar du, eta irakurleak eskolan ikasi ez duen hizkuntza batean irakurri. Bestalde, batari eta besteari zalantzak sortzen dizkie arautu gabeko hizkuntzak ortografi, morfosintaxi eta hiztegi mailan (557).

Hizkuntza ahoz bakarrik ezagutzen zuen irakurleari zuzendu behar zitzaion idazlea, testu-mota horiek euskaraz irakurtzen ohitu gabe zegoenari; eta ez zuen arrakasta handirik izan.

Baldintza hauek ere konfiguratuko dute euskal prosa narratiboaren sorrera. Arazo hauen lekuko dira idazleek idazlanei egiten dizkieten hitzaurreak edo, R.M. Azkueren kasuan bezala, euskalki bat eta aldamenean beronen aldaera bat erabiltzea (558). Komunikaziorako tresna bera dute problema, nahiz alde batean kokatzen direnek —idazleek— nahiz bestean kokatzen direnek —irakurleek—.

5. POETIKA

XIX. mendearen azken herena ez da guztiz homogeneoa literaturari buruzko ikuspegian, nahiz eta kontaketa guztietara helburu didaktikoa eramango duten, neurri handiago edo txikiagoan.

Idazle-multzo batek defendatu egingo du idazlan literarioa aberriaren, ideologiaren eta hizkuntzaren zerbitzutan jartzea, bai modu esplizitu batez, egunkari nahiz aldizkariren bateko artikuluak horretarako erabiliz, bai modu inplizitu batez, balore batzuren zerbitzutan jarriz idazlan literarioa.

Aurreko orrialdeetan azaldu denez, A. d'Abbadiek antolatzen zituen Lore-jokoetara 70. hamarkadan heldu ziren lehen eztabaidak. Hamarkada honetako hiru urtetan, 1874.ean, 1876.ean eta 1879.ean, sortuko dituzte esamesak Lore-jokoetan saritutako edo-ta aurkeztutako poemek.

1874.ean M. Gilbeauk azalduko du saritutako poemekiko ez-adostasuna; 1876.ean epaimahaia izango da "¡Biba Errepublika!" poema

(557) Leiendek sarritan oin-oharrak eramango dituzte, baita eleberriek ere. Oin-ohar horietan idazleak irakurleak ezagut ez ditzakeen hitzen esanahia argitzen du, sarritan erdal itzulpena emanez. Ikus, esate baterako, R.M. Azkuek **Bein da betiko**ren amaieran sartzen duen "Aclaración de voces menos usadas".

(558) R.M. Azkuek **Bein da betiko** argitaratzerakoan alde batean Lekeitioko hizkera erabiliko du, bestean, bizkaiera.

saritzera ausartuko ez dena; 1879.ean Baionako **L'Avenir** egunkariak kritikatuko ditu Elizondon izandako Lore-jokoak.

Hiru data hauetan eztabaida-iturri diren poemek honako ezaugarri hau amankomunean dute behintzat: idazleek bizi duten eguneroko errealitateari guztiz atxikiak daude eta jarrera konkretu bat hartzen dute poemetan, "konprometitu" egiten dira: 1874.ean "Jaungoicua ta errija" poemaren egileak, "Biscaitarra"-k, liberalak jarriko ditu gaitz guztien iturri; bigarren saria eraman zuen "Sempertarrac" "Betiri-Sanx" poeman Errepublikaren satira egingo du, gosea pertsonifikatzen duen Betiri-Sanx-en bidez —garai haietan gose-urteak igaro zituzten Iparraldean—; 1876.ean epaimahaiak sarigarritzat jo zuen baina saritu ez zuten "¡Biba Errepublika!" poema Errepublikaren beste satira bat da; 1879.ean "Ama euskeriari azken agurrak" poemak foruen iraupenari lotzen dio euskararen bizitza.

Garaiko gatazkak, bai Iparraldekoak, bai Hegoaldekoak, poemetara heldu dira, nork bere ideien zerbitzutan jarriz poemak.

Politika eta literaturaren arteko harremanak Hegoaldean ere izango dira eztabaida-iturri. Poesiaren baliagarritasuna, poesia edertasunaren kanonen menpe bakarrik egotea, etab. dira kontrajarriko diren ikuspegiak (559).

Dena den, prosa narratiboari dagokionez, neurri handiagoan edo txikiagoan, harako **prodesse et delectare** hura nagusituko da.

---

(559) J. Javier Granja Pascual-ek "Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana" artikuluan, **La Unión Vasco-Navarra** egunkarian Antonio Arzac-ek eta Arturo Campionek izan zuten eztabaida baten berri ematen du. Sariketa literario baterako deialdiak sortzen du eztabaida. Carlos Borboiaren Bizkaiko ordezkariak 1889.ean antolatu zuen "Certamen literario y artístico para conmemorar la jura de los Fueros, so el Arbol de Guernica, por nuestro Augusto Señor D. Carlos de Borbón". **La Unión Vasco-Navarra**-ra igorritako eskutitz batean euskal poetek ez parte hartzearen aldeko azaltzen da A. Campion, euskal musek alderdi baten zerbitzutan jartzea dakarren neurrian; A. Arzac-ek, berriz, beste eskutitz bat bidaliko du parte hartzea defendatuz, edertasunaren kanonen esku bakarrik dagoen poesia hutsa suspertzea zekarrelako. Sabino Aranak honako erantzun hau emango die:

"Pero la poesía, Sr. Campión, es un medio muy accesorio y superficial de unión euskeriana; la poesía, Sr. Arzac, nada vale en sí misma y sólo tendrá alguna importancia cuando sirva como medio, en verdad siempre débil, de algún fin positivo, cuando se revista del carácter de utilidad verdadera". Ik. aipatutako artikulua in **Fontes Linguae Vasconum**, n.º 43, enero-junio 1984, 157-158. orr.

Epaimahaiak (560), irakurle kualifikatuak (561), kontaketa bati saria ematean Aberria defendatzearena izan zen erabili zuen erizpideetako bat (562); hizkuntza irakastea idazlea kontaketak idaztera bultzatzen duen arrazoi bihurtu zen (563); kontaketetan barrena edo kontaketa-amaieran irakurle errealari deiak zuzentzen zaizkio lekzioa ikas dezan. Idazleak, testuak eta irakurle kualifikatuak bat datoz: idazlana helburu bati menperatzen zaio, jomuga batekiko bitarteko bihurtuz.

---

(560) Epaimahai baten existentziak berak nahitaezko bihurtzen du azken finean kritika-lana, sakona edo ez hain sakona izan. J.M. Lasagabasterrek dioen bezala, "Hay además en la acción de los jurados que deciden los premios, aunque sea mínimamente, una reflexión sobre el hecho literario, una crítica literaria, aunque seguramente la expresión resulta demasiado pomposa todavía, prácticamente inexistente hasta entonces, si se exceptúa a Oihenart en sus juicios sobre la poesía vasca precedente, o, de algún modo, a Etxeberri de Sara cuando propone a Axular como maestro y modelo para los escritores euskéricos". LASAGABASTER J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 275. or.

(561) D. Alonsorentzat idazlanaren ezagueran mailak daude. Lehen ezaguera-maila batean lekutzen du irakurlearena; baina bada bigarren ezaguera-maila bat ere: "Existe un ser en el que las cualidades del lector están como exacerbadas: su capacidad receptora es profundamente intensa, dilatadamente extensa". Irakurle kualifikatu, berezi hau, kritikoa da D. Alonsorentzat. ALONSO, D.; **Poesía española. Ensayo de métodos y límites estilísticos**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1952, 203. or.

(562) "Para optar al primer premio ofrecido á la mejor leyenda inspirada en la historia ó tradiciones de Navarra, se ha presentado una composición intitulada **Miluze'ko Zubiya**. La corrección y pulcritud del lenguaje que en ella por lo general campea, el espíritu altamente patriótico que la informa: el no escaso conocimiento literario del euskara léxica y gramaticalmente hablando que revela, así como el interés ya que no la novedad del argumento, mueven el ánimo del Jurado á proponer á V.E. se digne conceder el premio á esta leyenda". Ik. "Informe presentado al Excmo. Ayuntamiento Constitucional de Pamplona por el Jurado del Certámen literario en la sesión pública del 13 de Julio de 1882" in **Revista Euskara**, V, 1882, 283. or.

(563) "Egia esan, **Bein da betiko** eratzean, Azkuek batez ere bere ikasleentzat irakurgaia prestatzeko asmoa zeukan. Asmo didaktikoz idatzia da". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 45. or.

Ezaugarri hauek M.H. Abrams-ek "teoria pragmatikoak" (564) deitu dituen horietara hurbiltzen ditu euskal prosa narratiboaren hastapenak, mugimendu erromantikoaren barnean sartzen duen "teoria espresiboetatik edo adierazkorretatik" (565) urrunduz.

Hala ere, ez litzateke guztiz bidezkoa kontaketetan barrena soma daitekeen "izpiritu erromantikoari" entzungor egitea.

Jakina denez, makina bat saio egin da mugimendu erromantikoa mugatu nahian. Mugimendu honetako idazle bakoitzak bere buruaren irudimen-prozesuari ematen dion garrantziagatik berezia egiten du bere idazlan bakoitza eta bere obra orohar. Idazle bakoitzarekin hasten diren berezitasun hauek jarraipena dute nazio bateko idazleengan. Azken batean, erromantizismoak zekarren filosofiak berak, gizabanakoaren eta beronen obraren berezitasuna azpimarratuz, zailtasunak jartzen ditu mugimendu honetan ezaugarri amankomun batzu atzemateko.

Horrela, oso iritzi desberdinak aurki daitezke erromantizismoaren aztertzaileen inguruan: mutur batean, batzuk mugimendu honen existentzia bera ere ukatu egiten dute (566); beste muturrean, berriz, Europako erromantizismoak ezaugarri amankomunik baduela ametitzen dute beste batzuk eta ezaugarri horiek mugatzeko zenbait erizpide ezartzen dituzte (567), idazle bakoitzaren berezitasunak eta

---

(564) Ik. ABRAMS, M.H.; **El espejo y la lámpara. Teoría romántica y tradición crítica**, Barral editores, Barcelona, 1975, 33-45. orr.

(565) **Ibidem**, 44-53. orr.

(566) Arthur O. Lovejoy-k 1924. urtean argitaratu zuen **On the Discrimination of Romanticims** liburuan honako ondorio hau ateratzen du: "erromantiko" hitza oso modu eta esanahi desberdinekin erabili dela eta horregatik ez duela ezertxo ere esan nahi; komunikazio-zeinu bezala betetzen zuen funtzioa galtzera heldu dela. Itzulpen libre bat eginez ideia horiek honako liburu honetatik jaso dira: WELLEK, R.; **Historia Literaria. Problemas y conceptos**, 124. or.

(567) "Si examinamos las características de la literatura existente que a sí misma se llamó o fue llamada 'romántica' en todo el Continente, encontramos a todo lo largo de Europa las mismas concepciones de la poesía y de las obras y naturaleza de la imaginación poética, la misma concepción de la naturaleza y de su relación con el hombre, y, básicamente, el mismo estilo poético, con un uso de la metáfora, del simbolismo y del mito evidentemente distinto al empleado por el neoclasicismo del siglo XVIII". **Ibidem**, 147-148. orr.

mugimendu honek nazio bakoitzean dituen ñabardurak ukatu gabe (568).

Bi muturretan kokatzen ziren A.O. Lovejoy-ren eta R. Wellek-en arteko eztabaida hartu zuen abiapuntutzat Morse Peckham-ek 1951.ean argitaratutako artikulu batean: "Towards a Theory of Romanticism" (569). Artikulu honetan "dinamismo organikoaren" kontzeptua darabil erromantizismoa mugatzeko; eta, honenbestez, ametitu egiten zituen R. Wellek-ek zedarriketa horretarako zerabiltzan naturaren kontzeptua eta irudimenarena, ez horrela sinboloarena eta mitoarena; hauek baztertu egin zituen (570).

J.L. Alborg-ek ontzat jotzen du M. Peckham-en definizioa. Honela mintzo da J.L. Alborg, M. Peckham jarraiki:

> "El giro radical que experimenta el pensamiento europeo en esta época consiste en desplazarse desde unas ideas filosóficas que conciben el mundo como un mecanismo estático a otras que lo conciben como un organismo dinámico: estático en cuanto que todas las posibilidades de la realidad estaban implícitas desde el comienzo de las cosas y organizadas en series completas y jerárquicas, desde Dios hasta la nada" (571).

Aurreraxeago honela jarraitzen du:

> "La naturaleza deja de verse como un mecanismo perfecto y se concibe como un organismo (un árbol es la nueva metáfora), cuya primera cualidad es no ser algo **hecho**, sino algo **haciéndose** o creciendo. Tenemos con ello una filosofía del devenir en lugar de una filosofía del ser" (572).

---

(568) "Prefiero no ser llamado el 'campeón del concepto del romanticismo paneuropeo'. No sería comprendido si se creyese que menosprecio o ignoro las diferencias nacionales o que olvido que los grandes artistas han creado algo único e individual". WELLEK, R.; **Historia Literaria. Problemas y conceptos**, 193. or.

(569) Geroztik Morse Peckham iritziz aldatu dela dio R. Wellek-ek. Iritzi-aldaketa saiakera berri batean eman du aditzera, 1961.ean argitaturiko **Towards a Theory of Romanticism. Reconsiderations** liburuan. **Ibidem**, 178. or.

(570) **Ibidem**, 178. or.

(571) Ik. ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. El Romanticismo**, IV, Editorial Gredos, Madrid, 1980, 16. or.

(572) **Ibidem**, 17. or.

M. de Riquer eta J.M. Valverde-k ere antzeko ideak darabiltzate erromantizismoa mugatzean:

> "El Romanticismo vuelve del revés la posición del escritor. Ya no hay firmamento de estrellas fijas; lo que importa es lo que de hecho vive, tal como vive. El nuevo criterio de verdad y belleza reside en el manadero del corazón" (573).

Ez da hau hastapenetako euskal prosa narratiboaren erromantizismoa, ez jarrera filosofiko bezala, ezta jarrera estetiko bezala ere, baldin eta R. Wellek-ekin batera mugimendu erromantikoaren interesa "por el simbolismo y la mitología, y por un simbolismo y una mitología que sean individuales y privados, que descansen en una visión personal" (574) horretan jartzen bada. Ez da seguruaski XIX. mendeko euskal poesiaren erromantizismoa ere (575), nahiz eta baiezpen honetara heldu aurretik hainbat eta hainbat erizpide finkatu beharko litzatekeen; zeren eta seguruaski R. Wellek-en ikuspegi hori zuzen-zuzenean XIX. mendeko euskal poesigintzari aplikatzean, arazoaren redukzionismo handi batean eror bait daiteke, alderaketa-modu mimetiko eta mekaniko huts bat dela bide.

---

(573) RIQUER, M.; VALVERDE, J.M.; **Historia de la Literatura Universal. Del Romanticismo a nuestros días**, III, Editorial Planeta, Barcelona, 1971, hirugarren argitalpena, 4. or.

(574) WELLEK, R.; **Historia literaria. Problemas y conceptos**, 189. or.

(575) J.M. Lasagabasterrek XIX. mendeko zenbait euskal poetaren berri eman ondoren —Pierre Topet "Etxahun", Jean Martin Hiribarren, Indalecio Bizkarrondo "Bilintx", Jean Baptiste Elissanburu, Jose M. Iparragirre— honako galdera hau egiten du: "¿qué puede querer decir hablar de romanticismo a propósito de la poesía vasca del siglo XIX?". Itaun honi ematen dion erantzunetik lau paragrafo jasotzen ditugu:

"Parece desde luego claro que no se quiere significar una unidad de escuela o de tendencia entre los diferentes poetas.

Ni la adscripción consciente a un sistema de convenciones estéticas, culturales e ideológicas que se identifica y conoce comúnmente como romanticismo.

Tampoco, por fin, la adhesión a una actitud romántica conocida y aceptada, y vigente en otras literaturas.

De cualquier modo resultaría apresurado y poco riguroso tomar como modelo cualquiera de los momentos o corrientes que hoy se distinguen en el movimiento romántico y aplicarlo mecánicamente a la descripción de la literatura vasca decimonónica". Ik. "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 274-275. orr.

Aipatu arazoaren redukzionismoa honetan legoke: R. Wellek-ek eginiko baiezpena testu-mota batzuren formari buruzkoa da, baina ez dio inolako erreferentziarik egiten testu-mota horien sortze-moduari, egite-moduari, igortze-moduari, harrera-moduari... Ikuspegi intrintseko hutsetik egindako baiezpena da, nahiz eta "literatura instituzionalizatuaren" kanal eta kanalizazio-moduek erabilitako testu-tipoez diharduela suposa daitekeen. Eta zilegi ote da literatura eta honen barnean poesia "instituzionalizatu" baterako erabilitako erizpideak hain instituzionalizaturik azaltzen ez den poesia-modu bati aplikatzea? Alderaketa batean parekatutako terminoen artean ez ote da homogenotasun handiago bat behar, alderaketa horrek balioren bat izan dezan?

Euskal XIX. mendeko poesigintza aztergai hartzean, zerrenda luze samarra aipatzen da: P. Topet "Etxahun", J.M. Iparragirre, E.M. Azkue, I. Bizkarrondo "Bilintx", J.B. Elissanburu, F. Arrese Beitia, etab. Eta bertsoz eskainitako konposizioengatik aipatzen dira.

Baina aurrera jarraitu aurretik, zehaztasunari zor zaion errespetuagatik erantsi beharra legoke aipatu idazle horiei buruzko iritzietan ("etab." horretan lekutu direnekin berdin) "bertsolari", "koblakari" edo "poeta"? izendapenak erabili direla. P. Topet "Etxahun" bertsolari-koblakarien artean lekutu da (576), J.M. Iparragirrek baluke hurbiltasunik bertsolaritzarekiko (577), E.M. Azkue ez da bertsolaritzatik urrun ikusten (578), I. Bizkarrondo "Bilintx"-i ere egingo litzaio-

---

(576) "pertsulari ou koblakari" dio J. Haritschelharrek. Ik. HARITSCHELHAR, J.; **Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)**, Société des Amis du Musée Basque, Bayonne, 1969, 384. or. J.M. Lasagabasterrek "bertsolari más que poeta" zioen. Ik. LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 273. or.

(577) Oso adierazgarria da J.M. Lekuonak bere **Ahozko Euskal Literatura** liburuaren barnean atal bati ematen dion titulua: "Iparragirre eta bertsolaritza". Aipatu liburutik hona aldatzen dugu aztergai den puntu honentzat interesgarrientzat jo daitekeen pasartea: "Hemen-honetan, bi bertsogintza sistema kontrajartzen edo dira: batetik dago, Xenpelarrek bapatean asmatzen dituela bertso guztiak, ofizio sendoz, eta Iparragirrek, berriz, lehen prestatuak oinarri, zenbait bertso bapatean ere kantatzen zuela". LEKUONA, J.M.; op. cit., 191. or.

(578) "Izan bere, bertsolari eskolatua baiño geitxoago da; baiña olerkari jatorra izateko bere zer bat falta jako" zioen M. Zaratek. ZARATE, M.; **Bizkaiko euskal-idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera. 1580-1968**, Derioko Seminario-Ikastetxea, Bilbo, 1970, 95. or.; nahiz eta honen aldamenean esan beharra

ke lekua bertsolaritzaren historian (579); J.B. Elissanburu eta F. Arrese Beitia direla-ta, berriz, I. Sarasolak eginiko honako adierazpen hau aski adierazgarria izan daiteke: "Ondorioz, ez da erraz bertsolaritzaren eta poesia landuaren arteko muga nondik pasatzen den erabakitzea, garaiko poeta kultoenen obran ere bertsolaritzaren elementu asko aurki bait daiteke, are haien artean garaiena izan zen Jean-Baptiste Elissanbururen obraren zenbait zatitan eta Felipe Arreseren prosaismo poetikoan" (580).

Ondoko lerro hauen helburua ez da bertsolari-koblakari-poeta hirukotearen artean legozkeen desberdintasunak zehaztea, baizik eta honako baiezpen hau onartzea abiapuntu moduan: deitura desberdin horiek ez zaizkiola nominalismo huts bati zor, baizik eta gertaera-moduren baten adierazle direla.

Izan ere, eta berriro hariari helduz, badirudi testu-mota baten azterketan ez dagoela alde batera uzterik bere sortze-moduak, egite-moduak, igortze-moduak, harrera-moduak eta abarrek testu horren itxuratzean hartzen duten partaidetasuna.

Horietako inork ez du poema-libururik eskaini, batasun baten azpian aurkeztutako poema-sortarik (581). Poema solteak paratuz joan ziren bizitzan zehar, gero biltzeko. Bertso-paperak, azken batean, sarri askotan (582) egitez banan-banan eta elkarrekin lotura

---

dagoen "poeta" izendapena ere erabili dela: "Don Eusebio es un poeta depurado, sin dejar de ser popular". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 272. or.

(579) J.M. Lekuonak "Bilintxen bertsogintza" deritzan atalaren azpiatal bat titulu honen azpian eraikitzen du: "Bilintx, bertsolaritzaren historian". LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, 186. or.

(580) SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, 40-41. orr.

(581) Dena den, aipatu poeten artean ez bada ere, bada XIX. mendean poema luzeren bat: J.M. Hiribarrenen **Escualdunac** (1853), bost bat mila bertso-lerroz osatua.

(582) Zer dira bada, argitalpen-moduari begira behintzat, "Berxutaco guduak"? Eta orri solte horietan argitaratzen dira A. d'Abbadieren mezenazgopean ospatutako Lore-jokoetan sariren bat edo aipamenen bat jasotako poemak. Horrenbestez, orri solte horietan aurkitzen dira, Dibarrat zapatagilearen edo "Oxalde" abarketagilearen poemen antzera, Larralde edo J.B. Elissanbururenak. Bilintxen beraren poema asko bertso-paperetan argitaratu ziren. Ik. BILINTX, (I. Bizcarrondo); **Bertso ta lan guziak**, Auspoa Liburutegia, Donostia, 1962.

hertsirik gabe sortuak, bildumetan eskaini izan dira (583) sailkapen batzuren azpian.

Horietako inork gutxik zuzendu dizkio bere poemak irakurle bati; inork gutxik eskaini du poema, hartzailea irakurlea izango dela pentsatuz eta bere poemaren harrera-modua irakurketarena. Bestela, baizik, kanta edo errezitazioaren bidez dastatuko zelakoan aritu ziren (584), nahiz eta zehaztu beharra dagoen: ez poeta baten produkzio

(583) P. Topet Etxahunen bertso-bilduma bat J. Haritschelharrek eskaini du: **L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun**, Bilbao, 1970; J.M. Iparragirrerena, berriz, J.J. Belaustegik eskaini du: **Ipafagife'ren olefki-eresien bilduma ta efti-iritzi labufa**, Koldobika Rodrigez'en moldistegia, Oñati, 1933. E.M. Azkuerena, bere seme Resurreccion Mariak eskaini zuen: **Parnasorako Bidea**, Astuitar J.-n moldagintzan, Bilbon, 1896. J.B. Elissanbururena A.M. Labayenek: **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak**. "Bilintx"ena, A. Zavalak: **Bilintx. Indalecio Bizcarrondo. 1831-1876. Bizitza eta bertsoak (Vida y poesías)**, Colección "Izurun", Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1978; Aita S. Onaindiak F. Arrese Beitiaren olerki-sail handi bat eskaini du: **Olerkiak**, Euskal Idazleak Euskaltzaindia'ren ardurapenean, Gráficas Bilbao, Bilbao (1956?).

(584) Agian, E.M. Azkuek zuzen ziezaizkiokeen bere poemak irakurle bati, eta honek beronek ere ez beti (esate baterako, **Parnasorako Bidea** liburuan "Pozgarriak" sailean dagoen "Gabon-kantaak" poema). J. Manterolak dioenez, 1860. urtean idatziko omen zuen Gabonetan Lekeitioko elizan kantatzeko: "Estos **Villancicos** debieron ser expresamente compuestos por su autor en 1860, para ser cantados en la Iglesia de Lequeitio". MANTEROLA, J.; **Cancionero Basco**, IV, Segunda série, Imp. de J. Osés, San Sebastián, 1878, 64. or. (Aipamena, Sendoa argitaldariak, Donostian, 1981.ean, egindako argitalpen faksimiletik egina dago eta argitalpen honetako 2. tomoan aurkitzen da). Baina, dena den, ez da egoerarik orokorrena eta hedatuena XIX. mendean. J. Haritschelharrek bere **Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)** liburuaren atal baten azpiatala "La musique des chansons d'Etchahun" titulupean eraikitzen du (ik. op. cit., 398. or.). J.M. Iparragirreren bertsogintza kantagintzari lotuta dagoela aski gai jorratua eta ezaguna da; baina, hala ere, jakingarria da bere garaikide J. Manterolak eta Xenpelarrek ziotena. Honela zioen J. Manterolak: "y recorrió ántes y después los pueblos del país vascongado, acompañado de su inseparable guitarra, cantando en los teatros, improvisando en las plazas y romerías". MANTEROLA, J.; **Cancionero Basco**, I, Primera série, 5. or. J.M. Iparragirre eta Xenpelarren arteko bertsogintza-modu desberdinak sortu zuen zeresanik (ik. LEKUONA, M. de; "La poesía popular vasca. Itzaldi, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean, Bergarako Udaletxean, 1930" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 1. Aozko Literatura**, 230-232. orr. eta ZAVALA, A.; **Xenpelar bertsolaria**, Auspoa Liburutegia, 88-89-90, Donostia, 1969, 118-122. orr.). Eta zeresan hauek bitarteko, hona hemen Xenpelarrek J.M. Iparragirreri zuzendutako bertsoa: Ipafagife abila dela/ askori diyot aditzen.../Eskola ona eta musika.../ori oyekin serbitzen./Ni enazu ibiltzen/kantuz dirua biltzen/komeriante moduan;/debalde pesta preparatzen

osoa (585), ez XIX. mendeko euskal poeta guztiena dago salbuespenik gabe zuzendua kantatua edo errezitatua izateko (586).

Testuan eragiten ari diren faktore hauek kontuan hartu beharko dira euskal poesiaren erromantizismoaz hitz egiterakoan. (Zeren eta, esate baterako, nola jo metaforaren, sinbolismoaren eta mitoaren erabilera berri batera, herriak ezagutzen ez dituenetara? Nola jaso ahal izango ditu herri horrek ahoz igortzen zaiolarik? Eta nola eramango

---

det/gogua dedan orduan/.Eta hurrengo ahapaldia: Eskola ona eta musika/bertsolariya gañera.../gu ere zerbait izango gera/orla ornitzen ba-gera./-Atoz gure kalera, baseítar-legera/musika oyek utzi-ta; /Efenteriya'n bizi naz eta/ egin zaidazu bisita". Ik. LEKUONA, M. de; op. cit., 231-232. orr. Bilintx-en poemei musikalari desberdinek jartzen diete doinua: J.J. Santestebanek, F. de Furundarenak eta abarrek. Ik. ZAVALA, A.; **Bilintx. Indalecio Bizcarrondo. 1831-1876. Bizitza eta bertsoak (Vida y poesías)**. Bilintxek berak B. Jamarri aitortua da kanta daitezkeen bertsoak egiten zituela Mourlane Michelenak dioenez: "'No soy —le decía a Jamar— un maestrillo. Yo hago versos que se pueden cantar esas tardes de otoño, con la primera sidra en las cubas'". MOURLANE MICHELENA, P.; "Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX. Fragmentos de un ensayo" in **Primer Congreso de Estudios Vascos**, Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, Bilbao, 1919, 625. or. G. Adema "Zalduby" dela-ta, honela mintzo da Fr. L. Villasante: "Pero la popularidad de Adema se debe sobre todo a sus versos o cantos, pues todos sus versos han sido hechos para ser cantados. Era a la vez músico y él mismo adaptaba la música correspondiente a sus versos". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 194. or. Jadanik azalduta dagoen bezala, A. d'Abbadieren mezenazgopean Iparraldean antolatu ziren Lore-jokoetan saritutako poemak —sari-banaketaren egunean, sari-banaketa hori dela bitarteko antolatzen zen festaren egitarauaren barnean— kantatu egiten ziren festara bildutako jendearen aurrean. Honenbestez, esan daiteke J.B. Elissanbururen poemarik gehientsuenak harrera-modu hau ezagutu zutela lehen harrera moduan. Eta Iparraldean kantatu bezala, Hegoaldean ospatutako Lore-joko eta "itz-jostaldietan" errezitatu egiten ziren antzeko testuinguruan (Donostian ospatzen zirenetan Antzoki Zaharrean egiten zen festan). Beraz, F. Arrese Beitiaren hainbat poemak errezitazioa izan zuten lehen harrera-modu.

(585) Bilintxen poema guztiak, esate baterako, ez daude kantatzeko paratuta. J.M. Lekuonak, Bilintxen bertso-neurkeraz zerbait oharteraztera doalarik, honela dio: "kantatzekoak direnak hartuko ditugu gogoan". LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, 183. or. Beraz, garbi dago ondorioa: Bilintxen poemagintzan badirela kantatzekoak ez diren poemak. Hona hemen harrera-moduan kantara zuzen-zuzenean bideratzen ez diren zenbait poema: "Kanta", "Somaketa", "'Al Cefiro'", "Dolores-i", "¡Begirozute Pikadoriak!", "Arotz bati ziyoten"... Ik. BILINTX, (I. Bizcarrondo); **Bertso ta lan guziak**, 90. or., 91-92. orr., 110-112. orr., 114. or., 144-145. orr., 148-149. orr.

(586) A. Arzac-en poema bat aipa daiteke, adibiderik deigarrienetakoa izan daitekeelako: "Baga" (ik. **Euskal-Erria**, XXIII, 1890, 202. or.), poesia espazialean urratsa.

ditu kantara baliabide horiek, "tradizioz" ezagutzen ez dituelarik?) Edo-ta, bestela, alderaketara ekarritako terminoek homogenoagoak izan beharko dute behintzat; hots, euskal poesia erromantikoaz hitz egiterakoan "literatura instituzionalizatuaren" kanal eta kanalizazio-moduak erabili dituzten poesi idazlanak izango lirateke bakar-bakarrik alderagarri.

Beraz, aipatu erromantizismoa ez da euskal poesiaren erromantizismoa; ezta euskal dramatikarena ere (587). Teatro "berria" deitu dena (588), prosa narratiboaren hastapenak bezala, Donostian ospatzen ziren euskal festei loturik ernetzen da praktikan (589), besteak beste (590), sariketa hauek 1882. urteko egitarauetik aurrera idazlan-mota hauei sari bat eskaintzen dietelako (591). Eta nahiz eta

---

(587) Tradizionalki literaturaren alorrean berezi diren hiru genero handietan aztergai den garaiko euskal literaturak egindako ibilbidearen norabidea zertxobait marratzeko dramatikaren atal honi erreferentzia egingo zaio. Dena den, gogoan daukagu bereizkuntza hirukoitz hau auzitara ekarri dela azken urte hauetan: "Es sólo en los últimos quince años o así, que los críticos alemanes del 'Este' y del 'Oeste' parecen haberse cansado de la división tradicional de la literatura, ya sea en los géneros lírico, épico y dramático, o en las tres actitudes correspondientes". HERNADI, P.; **Teoría de los géneros literarios**, Antoni Bosch, editor, Barcelona, 1978, 26-27. orr. Bada "laugarren genero" bat eskatzen duen aztertzailerik ere.

(588) Ik. MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 138. or.; nahiz URKIZU, P.; **Euskal Teatroaren Historia**, Kriselu, Donostia, 1975, 89. or.

(589) Praktikan Donostiako euskal festen inguruan sortzen dela esan da; izan ere, ez dago hori modu absolutu batez ametitzerik: 1882. urtea aurretik M. Soroak aurkeztuak zituen **Iriyarena** (1878) zartzuelatxo elebiduna, **Gabon** (1880), **Euskal-Erria** aldizkariak Zubiri-ren omenez antolatu zituen ospakizunetarako, eta **Anton Kaiku** (1882) 1479.eko **La Pharse du Maître Pathelin**-en moldaera. Serafín Barojak, berriz, **Pudente** (1879) hiru ekintzetako opera eta **Hirni, ama alabac** (1882) argitaratuak zituen.

(590) "Besteak beste" diogu, antzerki-testu-sorkuntza ez delako aski antzerkigintzaren sustapenerako. Antzerkia, beste literatur testu-tipoak ez bezala, antzezteko egina den testua da, eta bigarren osagai hau gabe hankamotz gelditzen da. Azken finean, antzerkian testua osagai bat besterik ez da, antzezpenean ahots bezala presente dagoen osagaia; batzurentzat osagairik garrantzizkoena izan daiteke, beste batzurentzat hori ere ez.

(591) "Zillarrezko koroi bat" eskaintzen zuten 1882.eko egitarauean "itz-neurri edo larrietan, jostiruditar saiorik onena eskaintzen duanari. Lan onek izan bearko du berriya eta argitaratugabea, baña izan liteke jostirudiko edozein motakoa, ala trajedi, drama edo komeditarra, nola musikarekin egitekoa". **1882. Euskal festak Donostian. Oroimengarria**, VI. or.

egitarauera eraman zen urte horretan ez zen inor aurkeztu, aurrerantzean ezagutuko du zori hobeagorik atal horrek (592), eta ez bakarrik Donostian (593). Antzezpenak ere hedatzen hasiko dira. Donostian Santo Tomas egunez Antzoki Zaharrean sariketa literarioaren berri ematearekin batera egiten ziren antzezpenez gain, Gipuzkoan barrena zabalduko dira emanaldiak: Urnieta, Oiartzun, Tolosa, Zumarraga eta abarretan. Baina antzerkigintza hau nekez koka daiteke filosofia eta estetika erromantiko baten barnean (594).

Nolanahi ere, berriro erromantizismoak zekarren filosofiaren haria hartuz, zera erants daiteke: erromantizismoak bere filosofiarekin, gizabanakoa egia ororen sorburutzat jotzean, mugimenduak norabide asko hartzeko aukera ematen zuela, sarri askotan kontrajarriko diren norabideak. Hemendik dator erromantizismoaren itxura kaotiko hori. Erromantizismoa bere higiduran ez da lerro bat edo plano bat markatzen duen mugimendua izango, poliedro bat baizik; bere aurpegiak oso posizio desberdinetara orientatzen dituen poliedroa. Planteamendu honetatik bi ondorio garrantzitsutara hel daiteke: batetik, erromantizismoaren batasuna kontraesanetan eta diso-

---

(592) Hurrengo bi urteetan M. Soroak eramango ditu sariak **¡Au ostatuba!** eta **Alkate berriya** egintza bakarreko komediekin.

(593) M. Soroaren **Urrutiko intxaurrak**, esate baterako, 1886. urtean Durangon ospatutako euskal festetan saritu zuten.

(594) M. Soroaren "juguetes cómicos"-i buruz eta honen zenbait imitatzaileren obrei buruz (J. Artola, E. Gorostidi, V. Mocoroa, R. Illarramendi, J.I. Uranga, etab.) honela dio L. Mitxelenak: "Este teatro simple e ingenuo, realmente primitivo, oscilaba entre el disparate cómico y el drama lacrimoso, pero su éxito da fe de que era buscado con afán por un público sin complicaciones espirituales". MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 138-139. orr. P. Urkizu ere ez da urruntzen aipatu ikuspegi honetatik, M. Soroaren antzez-lanak epaitzerakoan: "El teatro de Soroa se halla dentro del sainete costumbrista, oscilando entre el disparate cómico y el drama lacrimoso, de estructura simple y desarrollo ingenuo, cuya finalidad es hacer pasar un rato agradable, es decir, que el público se lo pase en grande, sin parar de reir. Su comicidad se fundamenta además y sobre todo en juegos lingüísticos". URKIZU, P.; **Lengua y Literatura Vasca**, Luis Haranburu editor, San Sebastián, 1978, 134. or. Dena den, L. Mitxelenaren hitzetan Toribio Alzagak "ha conseguido elevar la calidad del teatro guipuzcoano sin quitarle su carácter popular"; eta honela zehazten du kalitate-hobekuntza hori: "Tenía para escribir comedias agradables un gusto mucho más depurado que sus predecesores, sentido teatral, vis cómica y acierto en la caracterización de los personajes" (op. cit., 139. or.).

nantzietan oinarritzea; bestetik, ez nazio batek eta ez erromantiko bakar batek ere poliedroaren aurpegi guztiak hartzea.

Kontraesan eta disonantzia horregatik azaltzen da erromantikoaren gatazka: etorkizunerako amets utopikoen ondoan, iragandako denboren nostalgia; joera nihilistak, fedearen bilaketaren ondoan; erlijiotasun tradizionalaren goraipamena, edozein sinismenen ukazioaren ondoan. Baina poliedro honek beste aurpegi asko ditu: kosmopolitismoa, nazionalismoaren aurrean; espazioan eta denboran ebasioa, intimismorik baztertzaileenaren aurrean; optimismoa, aseezin iraunkorraren aurrean. Shenk-ek dioenez, formula bakar batek ezin du erromantizismoaren esentzia oratu.

Ez nazio bateko idazle erromantikoek, eta ez idazle erromantiko bakar batek ere, ez zutelako poliedroaren aurpegi guztiak hartu, oso norabide desberdinetako bideak eginez izan zitekeen erromantiko, norabide batek bestea ukatu gabe, norabide bakoitza bere aldetik joan daitekeelarik (595).

Arestian esan denez, hastapenetako euskal prosa narratiboak ez zuen ez erromantizismoak zekarren jarrera filosofikorik, ez estetikorik; izan ere, oraindik euskal idazleak baditu "izar finkoak ortzian", naturako elementu oro dauka "eginda dagoen elementutzat". Euskal prosa narratibo honetan euskal kontalariek sortuko dituzten pertsonaiak, esate baterako, "eginda dauden" pertsonaiak dira, "eginez doanaren" antitesia. Euskal erlatugileentzat munduak "geldirik egoten" jarraitzen du.

Baina, era berean, ezin uka daiteke aipatutako poliedro horren aurpegiren bat landu ez zutenik.

Lore-jokoetan saritutako zenbait kontaketa laburretatik hasita, narrazio historikoak egin zituzten; lehen eleberria bera ere, **Auñemendiko Lorea**, eleberri historikoa da.

Eleberri historikoa dugu "la novela más típicamente romántica" (596). Forma literario honen bidez, nahiz kontaketa laburragoen

(595) Ideia hauen desarroilorako ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. El Romanticismo**, IV, 20-22. orr. erabili dira.

(596) Ik. RODRIGUEZ MARIN, R.; **La novela en el siglo XIX**, Editorial Playor, Madrid, 1982, 89. or.

bidez, euskal idazleek historiaren iraganera itzuliko dituzte begiak arbasoak ezagutzeko, arbasoen izaera eta jokabideak atzemateko. Forma literario hori bihurtuko da erromantizismoak dakarren abertzaletasunaren lekuko narratibo.

Arte klasikoan ez bezala, euskal idazleek ez dute erromantizismoak dakarren literatur genero eta orohar elementu heterogenoen nahasketa gaitzetsiko (597); ezta hizkuntzaren erabilera tolesgabea ere (598).

Hizkuntzaren erabilerari buruz dituen iritziak azaltzeko aitzakia bihurtuko zaio K. Echegarayri R.M. Azkueren **Bein da betiko**ri egiten dion iruzkina. Nabaria da erromantizismoarekiko duen atxikimendua eta neurri berean klasizismoaren gaitzespena:

> "Uno de los escollos de que debe apartarse quien se dedica al cultivo de una lengua, es el de alejarse sistemáticamente de toda expresión vulgar, y encastillarse en una especie de torre de marfil á donde nunca lleguen los ecos de la voz del pueblo. Así lo hicieron los franceses en el siglo de Luis XIV, y con haber tenido dramaturgos y poetas tan admirables como Corneille, Racine y Molière, y oradores de tan altos vuelos y fama, tan universal como Bossuet, Fénélon, Massillon y Bourdaloue, no hicieron más que empobrecer el idioma. Y para enriquecerlo de nuevo, y hacer entrar en el campo literario voces gráficas y pintorescas que, so pretexto de una meticulosa ley de buen gusto, estaban desterradas de él, tuvo que venir la revolución romántica, que en esta parte fué realmente gloriosa, y borró la arbitraria distinción de palabras nobles y plebeyas. El diccionario de Victor Hugo es incomparablemente más rico que el de Racine" (599).

---

(597) Ik., esate baterako, "Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" leiendan Otsoak, Aitorren alabak, kantatzen duen kantua (ik. **1881. Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, 27-28. orr.); edo Maripak bere haurrari kantatzen diona (ik. **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, 17-21. orr.), edo Peru Padarrak kantatzen dituen koplak (ik. **Auñemendiko Lorea**, I, 58-60. orr.).

(598) Honela dio Afranio Coutinho-k, **Introduçao à literatura no Brasil** liburuan:
"Sin renunciar a la sintaxis ni a la disciplina poética, el romántico reaccionó, en general, contra la tiranía de la gramática, combatió el estilo noble y pomposo, que consideraba incompatible con lo natural y lo real, y defendió el uso de una lengua libre, sencilla, sin énfasis, coloquial y más rica". AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura** liburuan aipatua, 341. orrialdean.

(599) ECHEGARAY, C. de; "Revista de libros. Bein da Betiko" in **Euskal-Erria**, XXXI, 1894, 332. or.

Zenbait euskal idazlek erabili dituzte erizpide hauek, eta aurrerantzean ere, euskal idazlea bide honi lotu beharko litzaioke, K. Echegarayren ustez:

> "La misma índole de la lengua euskara, tan popular y rústica, tan maravillosamente conservada por las clases bajas, mientras las que se dicen altas la miraban con desdén, si no con desprecio, exige un estudio más asiduo y constante de los modos de decir de que se vale el pueblo, en quien hay que buscar el nervio, el genio del idioma, como lo buscó Moguel cuando escribió su delicioso **Peru Abarca**, como lo buscó Iztueta, cuya lengua es más rica que la de ningún otro cultivador del bascuence, como lo ha buscado el Sr. Azkue para trazar un interesantísimo cuadro de la vida de nuestros bravos y heróicos pescadores" (600).

Hauek dira **prodesse et delectare** horrekin batera euskal prosa narratiboaren hastapenak itxuratzen dituzten ezaugarri batzu; literatur testu mailan oinarritutakoak batzu, idazleen iritzietan besteak.

Azken finean, arau horaziarra da prosa narratiboaren garapenaren eragile; eta nolabait, arau horaziar honek "eragozten" du mugimendu erromantikoak zekarren filosofia eta estetikaren desarroiloa. Edo beste modu batera esanda, arau horaziarra eta Erromantizismoa ezkontezinak dira, bateraezinak. **Prodesse** horrek, besteak beste, dekoroa zaintzea eskatzen du, eta pertsonaia tipifikatuak, modu dikotomiko batean eraikiak, eginda daudenak sortzea, leku-denborazko koordenadak ez singularizatzea, eta mintzaira eskuragarria eta iruditegi topikoa erabiltzea..., geldirik dagoen mundu bat itxuratzea. Erromantizismoak, berriz, askatasun sortzailearen izenean hautsi egingo ditu **prodesse** horrek ezartzen zituen hesiak, ezabatu irakurlearekiko morrontzak ezartzen zituen mugak, eta idazlea bera bihurtuko du produktu artistikoaren eta bera epaituko duten erizpideen erdigune: mintzairak ez du derrigor eskuragarria izan behar, iruditegiak ez du nahita-ez topikoa izan behar...; ibili dabilen munduak ordezkatuko du geldirik dagoena. Artistak berak derizkiona eta derizkion gisan **sortzeko** eskubidea du, inolako morrontzarik gabe —ez bada bere barnearekikoa—.

Poesigintzan ematen den produkzioaren zatirik nagusiena "literatura instituzionalizatuaren" kanal eta kanalizazio-moduetatik kanpo

(600) ECHEGARAY, C. de; "Revista de libros. Bein da Betiko" in **Euskal-Erria**, XXXI, 334-335. orr.

gelditzen da. Honek testua osatzeko moduan du eragina. Nola gorde askatasun sortzailea zentzu absolutu batean, nola egin idazle banakoarena eta honena bakarrik den sorkuntza, baldin eta kantuaren bidez igorri behar bada, edo igorri nahi bada, edo horrela igortzea bilatzen bada?

Antzerki "berria" deitu dena bere hastapenetan dago eta nekez jaio zitekeen gotorki; gehiegi eskatzea zatekeen (601). K. Echegarayk begi onez ikusten du drama historikoa (602) lantzea, baina besterik da XIX. mende-bukaerako antzerkigintzak eskaintzen diona:

> "sería medio muy á propósito el cultivo del drama histórico, inspirado en los anales de la tierra vasca. (...). Claro es que para dedicarse á escribir dramas históricos, se necesitan facultades más salientes y soberanas que para trazar comedias de costumbres contemporáneas, ó pasillos cómicos sin más finalidad que la de producir la hilaridad del público; porque la perfección de aquel género de obras teatrales consiste en transportar al espectador á la época en que se desarrolló el cuadro que el autor ha concebido, y hacerle

(601) K. Echegarayk dioen bezala, "De profundos análisis psicológicos, de ese andar por los laberintos y sinuosidades del alma y mostrar al exterior los más complicados estados de conciencia, no se hable, pues sería realmente demasiada exigencia pedir tales maravillas á un teatro que todavía está, y debe estar, en su infancia, porque no es posible que formas de arte como ésta nazcan adultas, ni que en veinte años recorran el espacio que otras más adelantadas han recorrido en siglos". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 50. or.

(602) Victor Hugok 1827. urtean bere **Cromwell** idazlanari eginiko hitzaurrean antzerki-forma berri baten defentsa egiten du: dramarena. Bere ustez, tragediak eta komediak, genero zeharo desberdinak izaki, ez dute ahalmenik bizitzaren eta gizakiaren anizkuntasun eta antinomien berri emateko. Drama, aldiz, gai da errealitateak azaltzen duen polimorfismoa adierazteko: "En el drama, todo se encadena y se deduce como en la realidad. El cuerpo desempeña aquí su papel lo mismo que el alma, y los hombres y los acontecimientos, movidos por este doble agente, pasan ya burlescos, ya terribles, y, a veces, terribles y burlescos al mismo tiempo...". Dramak tragediarenak eta komediarenak odarenak eta epopeiarenak diren hainbat ezaugarri biltzen ditu bere baitan, gizakia bere gizatasunaren handitasun eta miseriekin itxuratuz. Ik. AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 169. or. Drama historikoa da drama erromantikoak landu zuen motetako bat; Erdi Aroan eta Aro Modernoaren lehen garaietan lekutzen diren gertaerekiko zaletasun berezi bat azaltzen duelarik aipatu drama historikoetan. Ik. LAPESA, R.; **Introducción a los estudios literarios**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, 162-164. orr.

sentir por los personajes que desfilan ante él, la simpatía y el interés que experimentamos por los vivos; pero de que sea difícil una cosa, no se sigue que sea imposible ni mucho menos" (603).

K. Echegaray da, hain zuzen ere, han-hemenka idatzitako idazkietan zehar azaltzen duenez, euskal testuak bide erromantikoetan barrena ibiltzen ikusi nahi dituenetariko bat. Ezbairik gabe bide erromantikoak hartzea aholkatuko du. Bihotzetik ernetzen den poema eskatzen du eta ez burumuin hotzak eskain dezakeena, eta bihotzetik ernetzen den poemaren falta somatzen du euskal poesigintzan:

> "Falta el nervio, falta la intensidad de la visión poética, falta **vivir** el asunto, sentirlo en lo más profundo del corazón, y luego dejarse llevar del arrebato semidivino de la Musa. De las églogas del siglo pasado se dijo que eran églogas de salón y de abanico" (604).

Erromantikoekin bat eginez, artea sorkuntza dela (605) —eta ez

---

(603) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, op. cit., 51. or.

(604) **Ibidem**, 40. or.

(605) Honela mintzo da R. Wellek: "Si nos desentendemos de las cuestiones de autoconsciencia y de apelación reflexiva al credo romántico, estimo que para poder hablar de un movimiento romántico generalizado y común a toda Europa, es precisa la visión panorámica y el tomar como común denominador de todos ellos el repudio unánime del credo neoclásico. Ahora bien, los síntomas de cambios decisivos en la historia de la crítica —concepción emocional de la poesía, punto de vista histórico, abolición implícita de las teorías de la imitación, los géneros y las reglas— se manifiestan propiamente en el siglo XVIII, más que en los umbrales del XIX". WELLEK, R.; **Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). El Romanticismo**, II, Editorial Gredos, Biblioteca Románica Hispánica, Madrid, 1962, 8. or. Aipatu azterketa-lan horretan zehar aztergai hartzen diren hainbat pentsalari, filosofo edo kritiko erromantikoren ideietan behin eta berriz azpimarratzen da poesia sorkuntza dela. Honela dio Jean Paul-ek: "Al interpretar a su modo el mundo, la poesía crea otro mundo en miniatura, el que el espíritu ha hecho renacer". Ikus WELLEK, R.; op. cit., 120. or. Erromantiko alemaniar desberdinengan azaltzen den ideia da. Honela dio R. Wellek-ek Solger filosofoaren **Erwin** (1815) obra komentatzerakoan: "A veces, sobre todo en **Erwin**, esta afinidad entre creación divina y artística se concibe como identidad casi completa, dando pie así a la más delirante glorificación del artista como profeta y creador". (Op. cit., 335. or.). Honako hau dio, berriz, Hegelen pentsamendua azaltzean: "una obra de arte es una totalidad, organizada en cada uno de sus detalles, creadora de un mundo autodelimitado y carente de propósito externo". Ikus WELLEK, R.; op. cit., 358. or.

mimesia (606)— aldarrikatuko du K. Echegarayk, eta poeta izatea "zeruaren dohaia" (607), jaio egiten da poeta:

> "El arte es, á su modo, una especie de creación, y no puede crearse dos veces una misma cosa. La Musa Lírica es de suyo huraña y voluntariosa, y sólo concede sus favores cuando le place, y no se los otorga más que á contados mortales. Quien no nació poeta, quien no siente en las reconditeces más arcanas de su alma aquel ritmo interior que compone, armoniza y expresa poéticamente las ideas, vale más que no escriba un verso en su vida, y cultive con noble empeño la prosa, procurando manejarla con soltura, limpieza y facilidad" (608).

Dena den, berak defendatzen duen Erromantizismoa ez litzateke elitista izango, herritarra eta popularra baizik:

> "Mas no se crea por esto que entendemos nosotros que el poeta debe aislarse por completo del vulgo y encastillarse en su torre de marfil. Lejos de ello, nuestra opinión es que la literatura euskara debiera ser más verdaderamente popular de lo que es" (609).

---

(606) Aristotelesek lekutu zuen **poesia** "imitazio-arteen" barnean. Aurrerantzean Poetika eta Erretoriken historian oihartzun handia izango duen ikuspegia da. Hain da hala, arestian aipatutako R. Wellek-ek Erromantizismoaren etorrerari lotzen bait dio imitazio-teorien indargabetze inplizitua. Baina, dena den, Aristotelesek ez zuen, itxura, behar adinbat zehaztu kontzeptu hau, eta hori dela-ta ez da falta izan eztabaidarik. Honela dio D.L. Garasak: "A la imitación aristotélica (**mímesis**) se le ha adjudicado alguna vez el sentido de **copia** o **remedo**, sentido que subalterniza el poder creador del artista". Nolanahi ere, D.L. Garasak berak modu honetan ulertzen du Aristotelesen **Poetika**ko "mimesi" kontzeptua: "Es decir que la **mímesis** tiene su valor cognoscitivo, y el artista, en cierto modo, crea la realidad o al menos la transforma". GARASA, D.L.; **Los Géneros Literarios**, Editorial Columba, Nuevos Esquemas, Buenos Aires, 1971, bigarren argitalpena, 72-73. orr.

(607) Chateaubriand-ek **Memoires d'outre-tombe** idazlanean estiloari buruz azaltzen duen ikuspegiaren antzera: "En vano —expresará— nos sublevamos contra la siguiente verdad: la obra mejor compuesta, exornada con retratos de legítimo parecido y llena de otras mil perfecciones, ha nacido muerta si le falta estilo. El estilo —y los hay de mil clases— no se aprende: constituye un don del cielo, es el talento". Ik. GUIRAUD, P.; **La estilística**, Editorial Nova, Buenos Aires, 3. argitalpena, 39-40. orr. aipatua.

(608) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 42. or.

(609) **Ibidem**, 38. or.

> sentir por los personajes que desfilan ante él, la simpatía y el interés que experimentamos por los vivos; pero de que sea difícil una cosa, no se sigue que sea imposible ni mucho menos" (603).

K. Echegaray da, hain zuzen ere, han-hemenka idatzitako idazkietan zehar azaltzen duenez, euskal testuak bide erromantikoetan barrena ibiltzen ikusi nahi dituenetariko bat. Ezbairik gabe bide erromantikoak hartzea aholkatuko du. Bihotzetik ernetzen den poema eskatzen du eta ez burumuin hotzak eskain dezakeena, eta bihotzetik ernetzen den poemaren falta somatzen du euskal poesigintzan:

> "Falta el nervio, falta la intensidad de la visión poética, falta **vivir** el asunto, sentirlo en lo más profundo del corazón, y luego dejarse llevar del arrebato semidivino de la Musa. De las églogas del siglo pasado se dijo que eran églogas de salón y de abanico" (604).

Erromantikoekin bat eginez, artea sorkuntza dela (605) —eta ez

---

(603) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, op. cit., 51. or.

(604) **Ibidem**, 40. or.

(605) Honela mintzo da R. Wellek: "Si nos desentendemos de las cuestiones de autoconsciencia y de apelación reflexiva al credo romántico, estimo que para poder hablar de un movimiento romántico generalizado y común a toda Europa, es precisa la visión panorámica y el tomar como común denominador de todos ellos el repudio unánime del credo neoclásico. Ahora bien, los síntomas de cambios decisivos en la historia de la crítica —concepción emocional de la poesía, punto de vista histórico, abolición implícita de las teorías de la imitación, los géneros y las reglas— se manifiestan propiamente en el siglo XVIII, más que en los umbrales del XIX". WELLEK, R.; **Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). El Romanticismo**, II, Editorial Gredos, Biblioteca Románica Hispánica, Madrid, 1962, 8. or. Aipatu azterketa-lan horretan zehar aztergai hartzen diren hainbat pentsalari, filosofo edo kritiko erromantikoren ideietan behin eta berriz azpimarratzen da poesia sorkuntza dela. Honela dio Jean Paul-ek: "Al interpretar a su modo el mundo, la poesía crea otro mundo en miniatura, el que el espíritu ha hecho renacer". Ikus WELLEK, R.; op. cit., 120. or. Erromantiko alemaniar desberdinengan azaltzen den ideia da. Honela dio R. Wellek-ek Solger filosofoaren **Erwin** (1815) obra komentatzerakoan: "A veces, sobre todo en **Erwin**, esta afinidad entre creación divina y artística se concibe como identidad casi completa, dando pie así a la más delirante glorificación del artista como profeta y creador". (Op. cit., 335. or.). Honako hau dio, berriz, Hegelen pentsamendua azaltzean: "una obra de arte es una totalidad, organizada en cada uno de sus detalles, creadora de un mundo autodelimitado y carente de propósito externo". Ikus WELLEK, R.; op. cit., 358. or.

mimesia (606)— aldarrikatuko du K. Echegarayk, eta poeta izatea "zeruaren dohaia" (607), jaio egiten da poeta:

> "El arte es, á su modo, una especie de creación, y no puede crearse dos veces una misma cosa. La Musa Lírica es de suyo huraña y voluntariosa, y sólo concede sus favores cuando le place, y no se los otorga más que á contados mortales. Quien no nació poeta, quien no siente en las reconditeces más arcanas de su alma aquel ritmo interior que compone, armoniza y expresa poéticamente las ideas, vale más que no escriba un verso en su vida, y cultive con noble empeño la prosa, procurando manejarla con soltura, limpieza y facilidad" (608).

Dena den, berak defendatzen duen Erromantizismoa ez litzateke elitista izango, herritarra eta popularra baizik:

> "Mas no se crea por esto que entendemos nosotros que el poeta debe aislarse por completo del vulgo y encastillarse en su torre de marfil. Lejos de ello, nuestra opinión es que la literatura euskara debiera ser más verdaderamente popular de lo que es" (609).

---

(606) Aristotelesek lekutu zuen **poesia** "imitazio-arteen" barnean. Aurrerantzean Poetika eta Erretoriken historian oihartzun handia izango duen ikuspegia da. Hain da hala, arestian aipatutako R. Wellek-ek Erromantizismoaren etorrerari lotzen bait dio imitazio-teorien indargabetze inplizitua. Baina, dena den, Aristotelesek ez zuen, itxura, behar adinbat zehaztu kontzeptu hau, eta hori dela-ta ez da falta izan eztabaidarik. Honela dio D.L. Garasak: "A la imitación aristotélica (**mímesis**) se le ha adjudicado alguna vez el sentido de **copia** o **remedo**, sentido que subalterniza el poder creador del artista". Nolanahi ere, D.L. Garasak berak modu honetan ulertzen du Aristotelesen **Poetika**ko "mimesi" kontzeptua: "Es decir que la **mímesis** tiene su valor cognoscitivo, y el artista, en cierto modo, crea la realidad o al menos la transforma". GARASA, D.L.; **Los Géneros Literarios**, Editorial Columba, Nuevos Esquemas, Buenos Aires, 1971, bigarren argitalpena, 72-73. orr.

(607) Chateaubriand-ek **Memoires d'outre-tombe** idazlanean estiloari buruz azaltzen duen ikuspegiaren antzera: "En vano —expresará— nos sublevamos contra la siguiente verdad: la obra mejor compuesta, exornada con retratos de legítimo parecido y llena de otras mil perfecciones, ha nacido muerta si le falta estilo. El estilo —y los hay de mil clases— no se aprende: constituye un don del cielo, es el talento". Ik. GUIRAUD, P.; **La estilística**, Editorial Nova, Buenos Aires, 3. argitalpena, 39-40. orr. aipatua.

(608) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 42. or.

(609) **Ibidem**, 38. or.

Eta zinez, badirudi halako Erromantizismo popular bat defendatu zuela: Euskal Herriaren historia, ohiturak, hizkuntza... testura eraman; hitz batean, gizatalde honen banakotasuna letren esparrura eraman jende-multzo zabal batentzat eskuragarria litzatekeen mintzaira batean. Hau egin zuen funtsean garai honetan hain ospetsua, irakurria eta txalotua izan zen Truebak. K. Echegarayk dioenez, irabazia du merezimendu hau:

> "el de haber dado a los usos y costumbres del país vasco carta de ciudadanía, que ya nadie les ha de arrebatar, en la república literaria del Universo, en la que Goethe hubiese llamado literatura del mundo. Merced al humilde poeta encartado, lo más genuino de la manera de ser de nuestra gente de campo fué conocido en todos los países en que se habla la lengua castellana, y aun en muchos otros en que corrieron de molde traducciones de las obras (...). En este concepto (...) el servicio que Trueba prestó a su tierra es parecido al que Walter Scott prestó a Escocia" (610).

Eta guzti hau mintzaira eskuragarri batean, M. de Unamunok dioenez (611) eta K. Echegarayk onartzen duenez:

> "siempre se propuso Trueba escribir para todo el mundo, y aspiró a arrancar lágrimas dulces y franca risa a los sencillos y humildes, a los limpios de corazón, apiñados en torno del hogar para leerle" (612).

Zinez, euskal idazleen idazlanek, edozein genero-motatakoak zirela ere, ez zuten Truebaren idazlanek ezagutu zuten bezalako zabalkunderik ezagutu; ezta gazteleraz idatzi zuten beste bizkaitar batzuren adinakorik ere. Adibidez, D. Agirreren **Kresala** edo **Garoak** ez dute, esate baterako, Oscar Rochelt-en **El Alcalde de Tangora-**

(610) ECHEGARAY, C. de; "Trueba" in **De mi país. Miscelánea Histórica y Literaria.** Imprenta del Corazón de Jesús, Bilbao, Primera serie, 278. or. Artikulu honek jasotzen du 1914. urteko martxoaren 22an Bilboko "Campos Eliseos" deritzan Antzokian irakurri zuen hitzaldia; idazle bizkaitar honen heriotzaren mende laurdenaren urteurrena gogoratzen zen.

(611) Ik. UNAMUNO, M. de; "Anton el del pueblo" in **De mi País. Descripciones, relatos y artículos de costumbres**, Espasa Calpe, S.A., Colección Austral n.º 336, Madrid, 1964, 5. argitalpena, 123-124. orr. Aipatu artikulua **La Vasconia** zeritzan aldizkarian, Buenos Aires-en, 1895.eko martxoaren 10ean argitaratu zen.

(612) ECHEGARAY, C. de; op. cit., 286. or.

rena bezalako erantzunik jasoko (613); eta hau aipatzen dugu lehenengoetatik hurbil egon daitekeen eleberri bat delako (614).

Baina, dena den, jadanik azaldu den moduan, euskal idazlanek Euskal Herrian bertan egindako erdal idazlanekin kidetasunik gordetzen badute ere, mundu berezi bat osatzen du euskal idazlanen munduak.

Prosa narratiboa oso gutxi lantzen da, nabarmenki gutxi, aurreko orrialdeetan azaldu eta garaikideren bat ere ohartu zenez (615); eta produkzio-urritasun honi irakurle-urritasuna lotzen zaio gainera. Nahiz eta prosa narratiboaren ondoan bertsoaren ugaritasuna nabaria izan, bertsoak ere ez du irakurleengan sustrairik hartzen, bertsoa ere ez da irakurtzen: herriak kantatzen diren bertsoak dastatzen jarraitzen du (616). Antzerkiak ikusleak eta ikuskizun publikoak dakartza bera-

---

(613) **El Alcalde de Tangorak Euzkadi** aldizkarian 1905-1909 urteen artean ezagutu zuen argitalpenaz gain, 1906.ean eta 1910.ean argitaratu zen Bilbon liburu gisa (bi argitalpenak Imp. y Enc. de Eléxpuru hermanos-en); eta 1910. urte horretan bertan beste argitalpen bat izan zuen Madrilen. J. Bilbaok ez du aipatzen 1910. urtean Bilbon ezagutu zuen argitalpena, baina "3a. edición" dio Madrilekoa aipatzerakoan. BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, VII, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1977, ROCHELT, Oscar sarrera, 281. or. Besterik dira **Kresala** edo **Garoaren** argitalpenak: **Kresalak** lehenik **Euskal-Erria** aldizkariaren orrialdeetan ikusiko du argia aldizka-aldizka, bukaeraraino heltzen ez bada ere; gero liburu gisa 1906. urtean argitaratuko da; baina ez da berrargitaratuko 1954. urtera arte; **Garoak** antzeko bidea egingo du: lehenik **RIEV** aldizkariaren orrialdeetan ez da amaierara heltzen; gero liburu gisa argitaratuko da 1912. urtean; baina ez da berrargitaratuko 1935. urtera arte.

(614) "Aguirre, es, sin embargo, además de **laudator temporis acti**, un magnífico pintor de costumbres y de caracteres, más próximo al vizcaíno Oscar Rochelt (**El alcalde de Tangora**, 1910) que a Pereda". MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 156. or.

(615) Gertaera honek ez dio K. Echegarayren behaketari ihes egiten: "A esa abundancia de verso, no acompañó igual abundancia de prosa. Por el contrario, la prosa, salvo contadas excepciones continuó reducida á los libros piadosos, y cuando en un concurso cualquiera se dejaba en libertad de presentar sobre un tema trabajos escritos en prosa ó en verso, el verso era siempre el preferido". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 38. or.

(616) "No obstante la gran cantidad de versos vascongados que cada año se produce, el pueblo por punto general no los lee, y sigue manteniendo su afición innata á

rekin eta ez du irakurlerik eskatzen; eta, honenbestez, testua-irakurlea harreman honetatik at gelditzen da.

Azken batez, horrelako zerbait soma daiteke euskal letren inguruan aztergai den garaian: euskal letren irakurlegoa herri soilean lekutu beharra dago —hortik at kokatuko litzatekeen irakurlegoak ez bait du maila testimoniala gainditzen—; eta irakurle horrek ez du prosa narratiboak eskaintzen dizkion testuekin sintonizatzen: kultuegia delako eta kultutasun honetan herriak hain gogoko dituen bertso-motak ere mezpretxatzen dituelako (617), berak gogoko dituen historiak kontatzen ez dituelako... Musika da bertsoaren zabalkunde-bitartekoa, eta inor gutxirengana heltzen da musikaren bitartez zabaltzen ez den edo zabal ezin daitekeen poema (618).

Beraz, badirudi euskal idazleak bere idazlanen hartzailego unidimentsionalari zuzendu beharra daukala, gizarte-geruza bakarrekoari, **publiko-modu homogeno eta uniforme bati** (619) —beste hizkuntza

---

los versos que se cantan" dio K. Echegarayk. Ik. ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 38-39. orr.

(617) Jadanik azaldu da nola Joanes pertsonaiak, **Garoako** ereduak, ez dien inolako jaramonik egiten Urkiolan saltzen ari diren bertso-paperei. Baina, dena den, aipatutakoa ez da adibide bakar eta isolatua. D. Agirreren eleberrietan mezpretxua ageri da herriak gogoko zituen bertso-motekiko; hala da herriak gogoko zituen bertso-mota batzurekiko behintzat. **Garoa** eleberrian, Arrasaten egindako azoka eta demaren ondoren, baserritarren batek ostaturen batean dema horren gainean kantatu duen bertsoa transkribatzen du kontalariak, eta transkripzioaren ondoren honako komentario hau eransten: "Etziran neri batere **alegrantzirik** eman aien aoetan euskereak zeukan gorniak" (**Garoa**, 102. or.). Peru Odolkik bere ezkontza Oñatiko Moxolo Potoloren ardandegian ospatzen duenean ere, ez da bertsorik falta. Peru Odolkik berak A. Meagerrek ardoari eskainitako bertsoak kantatuko ditu. Kontalariak aipatu bertsoak testura ekarri eta oin-ohar batean honako komentario hau egingo du: "A. Meager'en itzak. Ezagunak diran bezela, garbixeagoak eta obeto neurtuak balira nai nuke" (**Garoa**, 259. or.). Nolanahi ere, ez du jarrera berbera hartzen herriak kantatzen duen kanta edo bertso ororekiko. **Kresala** eleberrian "Aterpen" dauden arrantzaleak kantaturikoek —"Amar Aginduak" eta "Berrio-Otxoaren bizitza"— ez dute mezpretxuzko komentariorik sortzen kontalariarengan; ezta honen bozeramaile bihurtzen doan "Itxasgizona" pertsonaiarengan ere. Ikus **Kresala**, 103-104. orr.

(618) "El instinto musical es aquí innato, y no hay verso popular que no se cante, (...) la música sería irreemplazable elemento de vulgarización de la poesía euskara". ECHEGARAY, C. de; op. cit., 54. or.

(619) Ikus "Ondorio gisa: Baldintza sozio-literarioak euskal fikziozko prosaren sorre-

batzutako idazleak ez bezala: Truebak gazteleraz idatziz "bere publikoa" izan zezakeen (maila soziologiko konkretukoa), baina honek ez luke esan nahiko gazteleraz idatzi zuten beste idazle erromantiko batzuk beste publiko-mota bat izan ez zezaketenik, beste maila soziologiko batekoa (kultuagoa, esate baterako)—. Eta honenbestez, edo-ta honen gustoetara egokitu beharra dauka (baldin eta bere idazlanak irakurriko edo kantura eramango badira) edo-ta K. Echegarayk proposaturiko bidetik hasi beharko du irakurlego hori "hezitzen", idazle horrek duen kanon estetikora piskanaka-piskanaka erakarriz (620), edo-ta, bestela, bere idazlanak irakurlego testimonial batengana bideratuko ditu.

Publiko bakar baten jirabiran dabiltza euskal idazlanak, eskola gutxiko edo ezertxo gabeko publiko bakar baten jirabiran, eta eskola gutxi hori bera ere bere hizkuntzan jaso ez duen publiko baten jirabiran. Orohar, letra urriko idazleak dituzte egile —eta letra urri horiek ere, berena ez den beste hizkuntza batean hartu dituzte gainera—, nahiz eta nabarmena den orohar letra-aberastasun handiagoa prosa narratiboa landu zutenen artean. Normalizatu eta normatibizatu gabeko hizkuntza dute lanabes eta igorpen-bitarteko batzuk, eta harrera-bitarteko besteak. Tradiziorik ez da prosa narratiboaren alorrean. Ezta praktikan ere, tradiziorik ez da antzerkiaren alorrean, herri-antzerkiaz kanpo. Eta badirudi berbaldi-egoera honek (621) eragin behar duela testuen itxuratzean.

---

ran" atalean 515. oin-oharra. Bertan honako ideia hau jasotzen da: XIX. mendeko idazlanak ez zaizkiola **publiko homogeno eta uniforme** bati zuzentzen, baizik eta XIX. mendean **publikoak** daudela, mende honetan heterogenotasuna heltzen dela hartzailegora.

(620) "Y así se contribuye á la educación artística de las masas, y se despierta en ellas un vago instinto de la belleza, y se les enseña á conocerla, y se les va acostumbrando á la contemplación estética". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 43. or.

(621) Honela mugatzen du O. Ducrot-ek berbaldi-egoera: "se llama **situación de discurso** el conjunto de las circunstancias en medio de las cuales se desarrolla un acto de enunciación (escrito u oral). Tales circunstancias comprenden el entorno físico y social en que se realiza ese acto, la imagen que tienen de él los interlocutores, la identidad de estos últimos, la idea que cada uno se hace del otro (e inclusive la representación que cada uno posee de lo que el otro piensa de él), los acontecimientos que han precedido el acto de enunciación (sobre todo las relaciones que han tenido hasta entonces los interlocutores y los intercambios de

Prosa narratiboaren alorrean leiendak deitutako sailean "historiko eta ohiturazko" kalifika edo muga daitezkeen idazlanak eskaini zituzten. Eleberri historikoarekin jaiotzen da nobela euskal literaturan eta ohiturazkoekin emango zaio jarraipena urte luzeetan zehar. Ez dago zalantzarik: Erromantizismoak landu zituen motakoak dira.

Antzerkiaren alorrean, drama historikoa landu ez bazuten ere (622), "sainetes costumbristas" (623) edo "comedias de costumbres contemporáneas" direlakoak landu zituzten.

Poesigintzaren alorrean ere guztiz nabaria da mugimendu erromantikoak ekarri zituen hainbat alderdiren presentzia (624). Gogora ditzagun hasteko Barkoxeko P. Topet "Etxahun" "euskal poeta madarikatuaren" zorigaitzetik ernetako poesigintza (625), folklore-adie-

palabras donde se inserta la enunciación". DUCROT, O.; TODOROV, Tz.; **Diccionario enciclopédico de las ciencias del lenguaje**, Siglo Veintiuno argentina editores, Buenos Aires, 1975, bigarren argitalpena, 375. or.

(622) Nahiz eta libreto moduan besterik gerta daitekeen. Honela dio L. Mitxelenak: "El primer drama musical es **Pudente** (1878), ópera en dos actos, con música de Santesteban y libreto de Serafín Baroja, cuya acción se desarrolla en las minas de Riotinto durante la época romana". MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 139. or.

(623) Ikus atal honetantxe 594. oin-oharra.

(624) J.M. Lasagabasterrek honela mugatu du 1700-1876 urteen arteko euskal poesigintza: "La poesía vasca entre el cuadro de costumbres y el lirismo existencial". LASAGABASTER, J.M.; "La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, 273. or. Jarraian aipatuko diren egile guzti horiengan nabaria da alderdi hauetakoren bat lantzea beren zenbait poematan.

(625) J. Haritschelharrek Etxahun aztergai duelarik honako izenburu honen azpian eraikitzen du kapitulu bat: "Romantique sans le savoir"; eta kapitulu honen azpisail bat, berriz, beste izenburu honen azpian: "Un type romantique". Halaber bere poesigintzaren atal bat "La poésie du 'moi'" deiturapean eraikitzen du. Modu honetako baiezpenak egiten ditu aipatu atal honetako pasarte batean: "Plus que tout autre dans la littérature basque, Etchahun s'est montré le poète du 'moi'. Nature violente et passionnée, il passe par diverses phases qui sont en apparence contradictoires. Mais loin d'être des contradictions, elles représentent avant tout des étapes d'une vie tumultueuse". HARITSCHELHAR, J.; **Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)**, 322. or. Guztiz nabarmena da Etxahunengan "ni"-aren presentzia, "ni"-aren exhibizioa —bizio erromantiko ezaguna—. Bere poema autobiografikotan "ni" apasionatu, gogor, errebeldea gorputz hartuz doa. Giza barnearen hustuketa, giza subjetibitatearen ikusgunea eta indarra darama bere poemetara. Hartarako sarri askotan baliatzen da hizte-

razpenak biltzeari ekin zion J.I. Iztueta zaldibitarra (626) eta lehen karlistadaren ondorengo kontzientzi egoera kolektiboarekin lotura hertsia lortu zuen J.M. Iparragirre urretxuar koblakaria (627). Eta ja-

gi-modu estremosoaz, muturrekoaz; hiztegi latza eta gogorra da berea, moderazio eta neurririk gabea. Adierazpenak sarri askotan modu superlatiboa hartzen du: sarkasmoa, ironia, burla, antitesia... Nabariak dira Etxahunengan Erromantizismoan atzematen diren zenbait adierazpen nahiz adierazpen-modu.

(626) J. San Martin ez dator bat Erromantizismoa Euskal Herrira berandu heldu zen ustearekin; bestelakoa da bere iritzia: "Erromantikoen mugimendua ez zen berandu heldu, baina bai ordea berandura arte iraun. Gure herriak garaiz asetu ez zituen gogoaren eragina ote? ala dirudi...". Eta J.I. Iztueta jartzen du erromantikoen artean aitzindari: "Lehen lehenik ere adierazia nuen Iztueta folklore lanez erromantikoen artean aintzindarietan jartzekoa zela, Penintsulan behinik-behin beste inor baino lehen hortan aritu zenez". Halaber, idazle honen olerkiak bere erromantikotasunaren lekukotzat joko ditu. Ik. SAN MARTIN, J.; "Romantizismoaren lekukotasuna Euskal literaturan. Iztueta erromantikoa" in **Literaturaren inguruan**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1980. Artikulu hau lehen-lehenik Donostiako "Hoja del Lunes"en argitaratu zen 1978.eko urriaren 9an eta 16an. Aipatutako ohar testualak 82. or. eta 70. or. aurkitzen dira.

(627) "Iparragirre erromantikoa" titulua ematen zion J. San Martinek Donostiako "Hoja del Lunes"en 1981.eko apirilaren 6an argitara zuen artikuluari. Ikus **En el centenario de su muerte. Iparragirre. Bere heriotzaren mendeurrenean**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Donostia, 1982, 222. or. Iparragirre izpiritu erromantiko baten adierazpen bihurtzen du bere bizitza bohemioak, munduan zehar Euskal Herriarekiko sentitzen duen herri-mina kantatuz ibiltzeak, eta bere kanten bidez talde soziologiko oso zabalekin lortzen duen sintoniak —hauen sentipenak azaltzean bere kantek lortu zutelako talde soziologiko zabal baten bozeramaile izatea—. Erdietsi zuen sintonia handi horren erakuskari izan daiteke bere "Gernikako Arbola" kantak izandako harrera-modua: Mr. Cénac-Moncaut-ek "nazional" adjetiboarekin kalifikatzen du eta J.Manterolak berea egiten du adjetiboa. Jendez gainezka zegoen **Café de San Luis** zeritzan kafetegian Madrilen, aurkeztu zuen lehenbizi 1853.ean, entzulegoaren txaloak lortuz. J. Manterolak honela dio: "El Zortzico se repitió una y otra vez entre los más espontáneos bravos y aplausos; aquella misma noche lo aprendieron de memoria todos los vascongados que asistían á la memorable velada, y á última hora, el Arbol de Guernica era cantado en coro por cincuenta, sesenta ó mas voces, é Iparraguirre y Altuna eran objeto de una verdadera ovación". MANTEROLA, J.; **Cancionero Basco**, tomo III, Segunda Série, 77-78. orr. Hurrengo urtean Euskal Herriratu eta hemen maiz egiten diren erromeria horietako batean izugarrizko jendetzaren aurrean eman omen zuen ezagutzera "electrizando de entusiasmo á los concurrentes y promoviendo una pacífica manifestación, que movió al Gobierno á extrañar del suelo vascongado al poeta y al cantor, cuya permanencia en él juzgaba peligrosa para la pública tranquilidad". MANTEROLA, J.; op. cit., 78-79. orr. (J. Manterolaren ohar testual hauen aurretik Mr. Cénac-Moncaut-i egin zaion aipamenerako, MANTEROLA, J.; op. cit., 75. or.).

rrai dezagun beren poemak izpiritu erromantiko baten hatsak bultzaturik eho zituzten honako idazle hauekin: jarrera lirikorik hartu gabe, batipat kanpo-gertaeren berriemaile zorrotza bihurtzen den Eusebio Maria Azkue lekeitiarrarekin (628); satira eta umorea ez

(628) Honela zioen M. Zaratek E.M. Azkueren idazlanei buruz ziharduelarik: "oso aberatsa dogu folklore aldetik. Ikusi, esate baterako: 'Gazteen batzarrak'; 'Ezkontzak baserrian'; 'Baserritarren errromeria'; 'Arrantzaleen kantea'; eta abar". Ik. ZARATE, M.; **Bizkaiko euskal idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera. 1580-1968**, 97. or. Eta Orixek bere aldetik: "Euskal-oiturak gai artzen ditu askotan: 'Mundaka'ko afain-saltzalia', 'Bermeo'ko astodunai', 'Mundaka'ko emakumia', 'Basefitafen jai Domeketako batzafak eta a.". Ik. ORMAETXEA, N. (Orixe); "Euskal-Literatura'ren atze edo edesti labufa" in **Euskal Esnalea**, XVII, 1927, 236. or. Fr. L. Villasantek ere ildo berbera azpimarkatuko du: "Sabe describir con colorido los cuadros de la vida vasca". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 272. or. J. Kortazarrentzat nabaria da kutsu klasikoa: "Hala eta guztiz, Azkueren poesiak kutsu klasikoak dituela ezagutzeko ez da ulermen askorik behar"; baina honekin batera honako hau ere badio: "Topiko eta pentsamolde erromantikoak argiak direla bere lanean ukaezina da (...). Dizdirak bezala agertzen dira bere jokera erromantikoak bere lanean. Horregatik nahiago dut honelako formula bat: Azkue Erromantizismoaz arduratzen den lehendabizikoetariko euskal idazlea dugu, baina ez du osotasunez agertzen mundu ikuspegi bat, eta erromantizismoaren topikoetaz arduratuz nahikotzat jotzen du bere lana". KORTAZAR, J.; "Eusebio Azkueren poesiagintza" in URIARTE, J.A.; **Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino**, 27. or. eta 31. or. Baditu, bai, E.M. Azkuek bere **Parnasorako Bidean** poema kostunbristak, baita historikoren bat ere, ez asko: bere zenbait poema paratzeko gizatalde baten banakotasuna, berezitasuna —orohar, euskaldunena— gaitzat hartzea gogoko du E.M. Azkuek; iragandako denborekiko mina ere adierazi du, nahiz eta ez den hori bakarrik azaltzera mugatu. Poema hauek nahiz **Parnasorako Bidea** osatzen duten gainontzekoak paratzerakoan ez darabil neurri-modu bakar bat, homogeneo bat —gertaera harrigarria ez dena, bestalde, poema-sorta bat den neurrian eta ez titulu baten azpian elkarri hertsiki loturik taxutu den poema-saila—; kantak sartzen ditu lelo gisa bere hainbat poematan; euskara eta gaztelera nahastera heltzen da poemaren batean (ik. "Mundaka'ko arrain-saltzailiak")... Baina izpiritu honen aldamenean, beste izpiritu bat ere ageri da: poema erlijiosoetan barrena fedea bizi izateko oso modu tradizionala eta konbentzionala azaltzen du: ez du pasio edo grina moduan bizi, ez du bere erara bizi fede hori, bere subjetibotasunak eskatzen dion gisara, banako moduan, baizik eta jasotako tradizioaren arabera, kristau-dotrina ezagutzen duenaren arabera. Poema mitologikoak dakartza, baina data hauetan ia inork ez du aintzinakoen Mitologian sinesten eta Mitologia desagertu egiten da poema erromantikoetatik; bere ordezkaritza "benetan" esperimentatzen ziren sinismenak eta ez-sinismenak hartuko dute: kristautasuna edo-ta agnostizismoa edo-ta ateismoa (ikus BOUSOÑO, C.; **Epocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Epoca contemporánea**, I, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1981, 35. or.). Alegiak dakartza, eta hauek ere mundu Neokla-

ezik, poesia intimista bateranzko urratsak eman zituen I. Bizkarrondo "Bilintx" donostiarrarekin (629); lanbidez Napoleon III.aren armadako kapitaina izatera helduagatik, poesiaren lanbidean bukolikotasunik falta ez zaion J.B. Elissanburu saratarrarekin (630); besteak beste, euskaldunen eta hauen ohituren gorespena egingo duen J.M. Hiribarren azkaindarrarekin (631); erretorizismo, zarata, grandilokuentzia

---

sikora hurbiltzen dute. Eta bere maitasun-poemetan ere ez dio pasioaren adierazpenari, grinaren indarrari leku handirik utziko: neurriz jokatuko du. Maitasun-poema hauetan barne-sentimenduen isuria badakar ere —gertaera azpimarragarria, bestalde, Etxeparez eta Oihenartez geroztik barne-sentimenduak ezkutatzea bilatu duen literatura "idatzi" batean—, kontrolpean dauden barne-sentimenduen isuria da.

(629) L. Mitxelenarentzat Bilintx da "la voz más auténticamente romántica de la literatura vasca". MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 132. or. J.M. Lekuonak bere **Ahozko Euskal Literatura** liburuan Bilintxi eskaintzen dion atalaren azpiatal bat "Bilintx, poeta erromantiko" izenburupean irekitzen du. Ik. LEKUONA, J.M.; op. cit., 171. or.

(630) A.M. Labayenek poema erromantikotzat jo ditu J.B. Elissanbururen zenbait maitasun-poema ("Aingeru bati", "Maite zaitut"...) edo mina darien poemak ("Gazte hiltzera dohana", "Solferino'ko itsua"). Eta zinez, maitasun-poemetan dakarren sentimentaltasun garbi eta eskuragarriak, estridentziarik eta erretorizismorik gabeak, edo-ta zorigaitza kantatzen deneko poemetan egiten den sentimenduen balorazioak Erromantizismoaren oihartzuna dakarte J.B. Elissanbururen poesigintzara. "Gazte hiltzera dohana" poemako gazte umezurtz horren negarrak, beste maitasunik ikusten ez duelako Heriotzari dei egiten dion gazte horren negarrak, poeman barrena gaztearen porrot existentzialaren prozesua garatuz eta porrot horren aurrean egiten duen aukerak —heriotzak—, portaera edo etika erromantiko bati erantzuten dio. Titulutik bertatik iragartzen da heriotza eta poeman barrena indartuz doa heriotz nahia: heriotza da desiratzen den bakea, heriotz nahiak garaitzen du bizitza nahia. Edo-ta "Solferino'ko itsuan" zorigaitzaren aurrean une batez itsuak azaltzen duen errebeldia (nahiz eta hurrengo ahapaldian bertan barkamena eskatu) jarrera erromantiko baten adierazpen izan daiteke. Eta Elissanbururen poemagintzak Lamartine poeta frantsesa ekarri du gogora. Honela dio A.M. Labayenek "Gazte hiltzera dohana" poemaz diharduelarik: "Lamartine eta aren eskolako zantzuak alakoxeak ziren: belaxkeri soberaz kutsutuak. Andere Poesi arras egin zuten biotz-bera... eta gure saratarra barne...". LABAYEN, A.M.; "Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras" in **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, 29. or. Eta honela zioen L. Mitxelenak: "Junto a la suave melancolía lamartiniana, que no tuvo por qué ser mero contagio del ambiente". MICHELENA, L.; op. cit., 134. or.

(631) Honela mintzo da Fr. L. Villasante **Escualdunac** poemari buruz: "En él se cantan las glorias legendarias del país. Es una mina de datos pintorescos sobre las costumbres, juegos, personajes, etc. Denota una gran facilidad, erudición extensa,

nabariarekin iragandako mundu batekiko mina adierazi zuen F. Arrese Beitia otxandioarrarekin (632); batipat erlijioa baina baita Euskal Herria, honen ohiturak eta historia ere kantagaitzat hartu zituen G. Adema "Zalduby" senperetar koblakariarekin (633), eta abarrekin.

---

patriotismo ardiente". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 166. or.

(632) A. Petralandak "Arrese poeta erromantikoa" deitura erabili du, modu honetan mugatuaz: "Poeta erromantikoa dela esaterakoan zera esan nahi da: Euskal Erromantizismo garaian kokatu ahal dugula". Aurrerago dioenez, benetako erromantizismoa alemaniarra eta ingelesa da, beranduago heldu zen Frantziara eta hemendik Espainiara. Bere ustez, Euskal Erromantizismoa berankorra da eta Espainiakoaren ildotik doa. Ildo honetan lekutuko litzateke Arrese Beitiaren erromantizismoa. Ik. PETRALANDA, A.; "Felipe Arrese Beitiaren estiloa" in **Euskeraren Iker Atalak**, 3, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Aurrezki-Kutxa, Bilbo, 1985, 190. or. S. Onaindiak "kantu errikoiak" saila (ik. ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. Bi menderen artean, 1895-1920**, III, 33. or.) osatuz ezagutzera eman zituen poema horiek eman zioten bere garaian osperik handiena. Poema hauetan barrena iragandako denboraz azaltzen duen minak, bigarren karlistadaren ondoren datorren foru-galtzearekin zapuzturik sentitzen den kolektibitatearen izpirituarekin lortzen duen loturak, bere kantek garai horretan ezagutzen duten arrakastak, itzultzen dituen poeta espainolen izenak (Zorrilla, esate baterako) izpiritu erromantiko baten adierazpen bihurtzen dute. Zinez, Arrese Beitiak bizi zelarik ezagutu zuen ospe handia. Duvoisin Kapitaina, esate baterako, honela mintzatzen zitzaion 1879.eko abuztuaren 6an igorririko eskutitzean "Ama euskeriari azken agurrak" poema dela-ta: "Zure burutik atheratu da, Jaun maite-maitagarria, eskara zaharrak duen eresiarik ederrena; eta ez bihar, ez gero, ez menderen mendez, Euskaldunik izanen deno, ez da galduko gure mendi ibarretan". DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 1930, 360. or. Edo A. Arzac honela mintzatu omen zitzaion Mourlane Michelenari: "Lee, sobre todo, el 'Azken agurrak'. ¡Aún hay poetas en el mundo!". MOURLANE MICHELENA, P.; Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX. Fragmentos de un ensayo" in **Primer Congreso de Estudios Vascos**, 630. or.

(633) **RIEV** aldizkarian argitaraturiko "Pilotariak" sailean (**RIEV**, II, 1908, 90-94. orr.) edo "Chants patriotiques" sailean (**RIEV**, III, 1909, 396-400. orr.) Euskal Herria, honen ohiturak eta egoera hartzen ditu kantagaitzat. Euskal XIX. mendeko poeta askok bezala, iragandako denborekiko mina azaltzen du. Lehenaldi hobe bat aurkajartzen zaio zorigaitzezko orainaldi bati. Desengainoa sortzen duen orainaldiaren aurrean lehenaldira jotzen da babes bila. Euskal poesigintzaren kritika egiten zuelarik, honela zioen B. Jamar-ek: "Nuestros poetas, nuestros mejores poetas, cantan un mundo muerto". JAMAR, B.; "Sobre la poesía vascongada" in **Euskal-Erria**, LV, 1906, 407. or. Hildako mundu bat kantatzen dute, hildako mundu hori dute babes eta amets. Eta, izan ere, kronologikoki hilda badago ere, gogoan eta ametsean bizirik dirau.

Baina, batetik, kontaketa-prosak ez du euskal prosaren tradizioan sustrai sendoak zituen helburu bat etengo: prosak erabilgarria izan behar du. Eta, bestetik, ez du izan zezakeen irakurlego zabal bakarrarekin konektatzea lortzen.

Antzerkiaren hastapenek ez dakarte konplexutasun handirik beraien itxuratze-moduan (634), baina lortu zuen arrakastarik antzerki-ikuskizunean olgatzea bilatzen zuen ikuslegoan: gogo onez ikusi zuten.

Poesigintzaren alorrean, kantaren bidez igorri ziren eta igor zitezkeen poema haiek izan ziren entzutetsuenak eta bigarren mailan errezitazioaren bidez igorri zirenak, eta horietan, jakina, talde soziologikorik handienekin konektatzea lortu zutenak, J.M. Iparragirreren zenbait kantarekin gertatu zen bezala. Besteek irakurlego testimonial bat besterik ez zuten izan.

Honelako berbaldi-egoera batean nekez sor daiteke poesiaren eta artearen ikuspegi sinbolikorik orohar; nekez azpimarka daiteke artean beste mundu bat, autonomia duen beste mundu bat sortzen dela, Wasserman-ek dioenaren eta R. Wellek-ek Erromantizismoari buruz duen ikuspegiak ontzat ematen duenaren antzera: "la creación de un poema es también la creación de una totalidad cósmica que da significado al poema, y cada poeta debe forjar, independientemente, su propio cuadro del mundo, su propio idioma dentro del idioma" (635).

R. Wellek-ek erizpide batzu ezartzen dituenean, Europako mugimendu erromantikoa joera bateratu moduan ulertzeko, hizkuntza alemaniarreko, ingeleseko, frantseseko edo italierako idazle, kritiko,

(634) "Ergelkeria galanta litzake komerigille gaillenen ereduaz baliatzea Soroa'ren jostirudi oek maxiatzeko. Etzuen ark iñongo mugaz gaindi egan egin nai izan ezta ere iñoren markarik autsi. Bere erritarrei, orduko donostiarrei, parre-algara lasaia eta ajolakabea eragin nai zien ezkero, etzuen bere egitekoan utsik egin". MITXELENA, L.; "Gabon" in **Egan**, 1-3, 1961, 143. or. Eta zinez, **Anton Kaiku** edo ¡¡**Au ostatuba**!! (azken hau 1479.eko **La Pharse du Maître Pathelin** idazlanaren moldaera) egintza bakarreko komediak ikusi besterik ez dago M. Soroak oso egituratze-modu sinpleko antzerki-idazlanak eskaintzen dituela atzemateko. Ik. SOROA, M.; **Gabon**; ¡¡**Au ostatuba**!!; **Anton Kaiku**, Auspoa Liburutegia, 2, Tolosa, 1961.

(635) R. Wellek-ek aipatua. Ikus WELLEK, R.; **Historia Literaria. Problemas y conceptos**, 189. or.

pentsalari edo filosofoengana jotzen du erizpideak garatzeko (636). Eta, honenbestez, esan daiteke baita ere aipatu guzti horiek badituztela beste zenbait ezaugarri amankomunean: tradizio luze eta zabala idazlan literarioetan, idazlan literarioak bide eraikiz joan den teorizazio eta kritika literarioa, irakurlego zabal eta heterogenoa, normalizaturiko eta normatibizaturiko hizkuntza... Hitz batean, euskal literaturak ez bezalako komunikazio-egoera; arras bestelakoa baizik. Literatura sendo baten garapenari laguntzen dioten edo, are gehiago, literatura baten garapen gotorra zilegiztatzen duten faktore horiek ernetzen besterik ez dira hasi praktikan euskal literaturan; edo hasteko daude oraindik.

R. Wellek-ek berak honela dio Ekialdeko Europara bertara begiratzen duenean:

> "Los demás países eslavos —juxtu aurretik Errusiari buruz mintzatu da— adaptaron igualmente a su especial idiosincrasia las doctrinas románticas germanas. Los polacos se dejaron ganar, en general, por el misticismo y el mesianismo, dos variantes del romanticismo fuertemente sentimentales (...). Los checos, en cambio, apenas si fijaron la atención en el lado místico-simbólico del romanticismo; su teoría poética, marcadamente herderiana, predica la vuelta al pueblo y a la poesía popular, hallando en el nacionalismo su fuente de inspiración" (637).

Mugimendu erromantikoa euskal literaturan planteatzean ere "egokitzapenetan" pentsatu beharko da eta "egokitzapenetatik" planteatu. Edo bestela esanda, mugimendu erromantiko paneuropearrik bada (638), mugimendu honen argitan azaldu beharko dira euskal

---

(636) Ikus WELLEK, R.; **Conceptos de Crítica Literaria**, Universidad Central de Venezuela, Ediciones de la Biblioteca, Caracas, 1968, 125-152. orr.; nahiz WELLEK, R.; **Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). El Romanticismo**, II.

(637) WELLEK, R.; **Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). El Romanticismo**, II, 378. or.

(638) Atal honetantxe jadanik azaldu denez, bada kritikorik mugimendu honen existentzia bera ukatzen duenik. Ikus 566. oin-oharra. R. Wellek bera deitu dute 'campeón del concepto del romanticismo paneuropeo', nahiz eta berak nahiago duen horrelako deiturarik ez jaso, modu honetako izendapen batek desitxura ditzakeelako berak eginiko planteamenduak. Ik. 568 oin-oharra; nahiz WELLEK, R.; **Conceptos de Crítica Literaria**, 168. or.

literaturako mugimendu erromantikoaren berezitasunak eta berdintasunak.

Honela omen zioen Victor Hugo atzerriko erromantiko ospetsuak:

> "Le vieux mot **Navarra** n'est pas un mot. **On naît basque, on parle basque, on vit basque et l'on meurt basque. La langue basque est une patrie, j'ai presque dit une religion**" (639).

(639) J. Azurmendik aipatua. Bereak dira aipatutako testuan azaltzen diren azpimarkatuak. Ik. AZURMENDI, J.; "Euskaldunen aberria euskara dela, eta beste gauza batzu. Victor Hugo Euskal Herrian" in **Jakin**, 37, urria-abendua, 1985, 148-149. orr.

II. AUÑEMENDIKO LOREA: PERTSONAIEN LEKUGUNE ERALDATZAILEA

"Baiña eztaigun aztu euskaldunak garala esanda beste barik ezkarala zeruetan sartuko" (**Auñemendiko Lorea**, II, 184. or.).

1. AUÑEMENDIKO LOREA: IRAGANBIDEAREN LEKUA

Iraganbidez egina dago **Auñemendiko Lorea**, Domingo Agirreren lehen eleberria. Egoera batetik beste baterako iraganbidez osatua: eliz ataria, eliz aurrea eta eliz inguruak iraganbide hauen leku-sortzaile dira.

Arnoldo, Mendiolako etxejauna, euskaldunen buruzagi ospetsua dugu hasieran, herri-saltzailea bukaeran; Riktrudis, Mendiolako alaba bakarra, "aingeru", "Auñemendiko Lore" hasieran, herri-saltzailea bukaeran; Portun, Ozinbeltzeko seme nagusia, kristauen etsaia hasieran, kristaua bukaeran...

Jakinaren gainean edo ez, nahita edo nahi gabe, agente izaki edo jasale, aldatuz doa pertsonaien egoera. Pertsonaiak egoera batetik beste batera pasako dira, eta Aitz barrengo hilerria, eliz aurrea edo beste eliz atariren bat edo eliz aurreren bat izango dira aldaketa hauen eragile.

Eleberrian barrena eliz ataria eta Aitz barrengo hilerria eraikiz doaz Auñemendi mendietara negarrak eta pozak ekarriko dituen lekugune gisa, heriotza eta bizitza berriaren iturri bezala.

Eliz atarietatik eta Aitz barrengo hilerritik datozen berriek ukituko dituzte Mendiola eta Ozinbeltz etxeen oinarriak, eta astinduko Mendiolatarrak eta Otxoatarrak.

Nahiz eta berbaldia (1) ez eliz atarian hasi, **Auñemendiko Loreak** kontatzen duen historia Aitz barrengo eliz atarian hasiko da: hor ditugu borrokan, alde batetik, Ozinbeltzeko seme nagusia den Portun euskalduna bere laguntzaileekin eta, bestetik, Adalbaldo frankotarra bereekin. Historia amaitu, berriz, Aitz barrengo hilerrian amaituko da: Aitz barrengo hilerrian helduko da anekdotaren bukaera, azken korapiloaren askaera, nahiz eta gero azken albisteak "Guena" deritzan azken kapituluak eman epilogo (2) gisa (horien artean, Aitz barrengo hilerrian Portunek eta Riktrudisek izan duten elkarrizketak eragindako iraganbidea: Portunen kristautzea).

Oso mugagabeak azalduko dira eleberrian barrena berebiziko garrantzia hartuko duten lekuak, nahiz eta lekugune katalizatzaile, historia-higierazle, eta mataza-sortzaile izan. Kontalaria (3) ez da lekugune horiek erakustera "geldituko"; ezta pertsonaiak ere lekugu-

---

(1) "En el nivel más general, la obra literaria ofrece dos aspectos: es al mismo tiempo una historia y un discurso. Es historia en el sentido de que evoca una cierta realidad, acontecimientos que habrían sucedido, personajes que, desde este punto de vista, se confunden con los de la vida real (...). Pero la obra es al mismo tiempo discurso: existe un narrador que relata la historia y frente a él un lector que la recibe. A este nivel, no son los acontecimientos referidos los que cuentan, sino el modo en que el narrador nos lo hace conocer". TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 157. or.

(2) "El desenlace da cuenta del final de la anécdota, y el epílogo da cuenta de las circunstancias del desenlace, de sus efectos en personajes secundarios o principales, de las valoraciones que se han hecho, etc". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 206. or.

(3) "El narrador es el sujeto de esa enunciación que representa un libro (...). Es él quien dispone ciertas descripciones antes que otras, aunque éstas les precedan en el tiempo de la historia. Es él quien nos hace ver la acción por los ojos de tal o cual personaje, o bien por sus propios ojos, sin que para ello necesite aparecer en escena. Es él, por último, quien elige contarnos tal peripecia a través del diálogo de dos personajes o bien mediante una descripción 'objetiva'". TODOROV, Tz.; op. cit., 185. or.

ne horiek deskribatzera (4). "Aitz-barren" izen propioak bakarrik karakterizatuko ditu.

Berdin gertatuko da "tartean" dauden eliz atariekin ere. Aitz barrengo eliz ataritik Aitz barrengo hilerrira doan kontaketa honetan badaude beste bi eliz atari, Aitz barrengoa bezala, hauek ere, mataza-sortzaile eta historia-higierazle: pertsonaien egoera aldatu eta egoera batetik bestera iragan araziko diete. Baina hauetan ere ez dira ez kontalaria eta ez pertsonaiak "geldituko": Aitz barrenek baino karakterizazio txikiagoa izango dute eta izen propio baten jabe izatera ere ez dira helduko. Determinatuta daude, bai, badaramate mugatzailea, baina izen arruntaren jabe izatetik ez dira igarotzen. Pedro Mari Mendiolako morroi leialak esango du "eliza-atean egozan danak" (5) jo dutela Mendiolako jauna, Arnoldo, herri-saltzailetzat; baina ez du tokia gehiago zehazten, gehiago mugatzen, gehiago deskribatzen. Kontalariak dio "Eliza-aurreko enparantzan" (6) Mendiolatarren alde hitz egin zuen bakarra Peru Padarra izan zela; baina ez du tokia gehiago zehazten, gehiago deskribatzen.

Gertaera hauek ez dira denboraren ardatzean xehetasun handiagoz jantziko.

Kontaketa "in medias res" hasi eta pertsonaia baten ahotsaren esku gelditzen da, Riktrudisenarenean hain zuzen, hastapenetako egoeraren berri ematea, desoreka sortu duen gertaera adieraztea.

Azalpen atzeratu (7) honi hasiera ematean, Riktrudisek estilo

---

(4) "Or, cette excessive disproportion entre une durée nulle de la fiction et un étirement correspondant du texte tend à faire apparaître, dans une espèce de pureté, l'écriture elle-même". RICARDOU, J.; **Problèmes du nouveau roman**, Editions du Seuil, Collection "Tel quel", París, 1967, 165. or.

(5) **Auñemendiko Lorea**, I, 174. or. Jadanik aditzera eman da deskripzio honetan zein argitalpen erabiliko den: bi liburukitan banaturik Auñamendi argitaletxeak 1966.ean eginiko argitalpen elebia.

(6) **Auñemendiko Lorea**, II, 80. or. Oin-oharren erabilerara jo zuen Agirrek argibideak eskaintzeko. Deskripzio honetan jasotzen diren testu-aipamenetara, erosotasuna erizpide, ez dira ekarriko, ez markatuko —eten-puntuak edo beste baliabideren bat bitarteko— ez berak testu mailan eginiko deiak, ezta oin-ohar horiek ere.

(7) "Pero el comienzo suele también asumir otra forma que convendría llamar 'inicio ex-abrupto': el relato empieza con la acción ya en curso y sólo ulteriormente el autor nos dará a conocer la situación inicial de los personajes. En tal caso se

zuzenean transkribatzen ditu Amando apezpikuak esanak, desorekaren iturria den gertaera: Portunen eta Adalbaldoren arteko borroka Aitz barrengo eliz aurrean; baina ez da denboraren ardatzean zehazten. Honela dio Riktrudisek, Amandok berari esanak transkribatzean:

> "Lengo baten, prankotar agintari batek eta Ozinbeltzeko Portun seme-nagusiak, Aitz-barrengo Eliza-aurrean eztabaidaren bat izan dabe" (**Auñemendiko Lorea**, I, 32. or.).

Jadanik esan denez, gatazka-sortzaile den lekugune hau ez da deskribatzen. Berdin gertatzen da denboraren koordenadetan kokatzean ere. Eleberrian barrena hain garrantzizko bihurtuko den egun hori mugarik gabea da: "lengo baten".

Hasieraren parekoa da leku horrek eta hor gertaturiko jazoeren denborazko kokamenduak historiaren bukaeran jasoko duten tratamendua.

Kontalariak dioenez Riktrudisek

> "Adalbaldo il da gelditu zan tokia bere begiakaz ikusi gura eban, bere senarra lenengo sartu eben tokian arren da agur batzuk egin gura izan zituan, da orretarako Aitz-barreneruntz ioan zan; da an, azken agurrak esaten ezin asperturik, egun batean, da bian, da iruan, kurutze baten onduan belauniko, ordu luzeak igaro ebazan. Begoan bein, bakarrik ain zuzen, negarrez, zotinga ta arrenetan, beti legez, da sartu iakon bitartean ixill-ixillik illerrira euskaldun menditar bat, Portun berbera" (**Auñemendiko Lorea**, II, 176. or.).

Epilogoak kontatzen duena ere (Portunen kristautzea, Riktrudisekin izandako elkarrizketaren eraginez), nahiz eta hain garrantzizkoa izan, "begoan bein" gertatzen da, mugatu gabeko egun batean.

Beste hainbeste jazotzen zaie tartean eliz atarietan esaten direnei ere: ez dira ez lekuz mugatzen, ez denboraren ardatzean kokatzen modu zehatzean. Pedro Mari Mendiolako morroiak "eliza-atean" entzundakoen eta gertaturikoen berri ematean Arnoldo Mendiolako etxejaunari, ez da denboraren ardatzik zehazten. "Eliza-ateko" jazoe-

---

trata de una exposición retardada". TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, Editorial Siglo XXI, México, 1980, laugarren argitalpena (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), 208. or.

ren berri etxejaunari ematea "Pedro Mari atzamarkadaz betea etxeratu zan egunean" (8) gertatuko da.

Antzeko tratamendua dute Mendiolatarren alde hitz egiteagatik Peru Padarra "eliza-aurreko" enparantzan hiltzen duten uneak eta Lope Nagik gertaera honen berri Riktrudisi ematen dionekoak. Honela ematen die hasiera kontalariak Peru Padarra heriotzara daramaten gertaerei:

> "¿Mendiolakoagaitik nok aterako eban arpegia? Etzegoan Auñemendin orretarako ausardirik eukan gizonik. Bat bakarra izan zan, Padar Koblakaria. Eliza-aurreko enparantzan, gizon aserre askoren erdian, asi zan Peru, Arnoldoren egitada andiak esaten" (9).

Beste hainbeste gertatzen da Lope Nagik Riktrudisi jazoera hauen berri ematen dionean:

> "Onetan egozan Ostrabentora baturiko euskaldun eztegulariak, ia etxerako bideak artzeko asmoetan, eurak egozan mandiotaraiño eldu zanean, atz da putz da bero ta lurruntsua, gorputz guztitik izerdia eriola, bero andirik ezegoan baina, menditar gizakote narras baldan bat" (10).

Auñemendiko Loreak aurkezten duen "intrigaren" (11) garapenean ez dira narrazio-guneen leku-denborazko koordenadak zehazten, ez da kontaketa "luzatzen" "arrisku-une" horiek hedatu eta tentsio-uneak azpimarkatzeko; bestela baizik, arestian deskribatuko eran azaltzen dira, oso modu zehazgabean.

Bi gertaerek bakarrik daramate egutegiaren egun zehatzaren data. Bi lekugune deskribatzen dira bereziki.

Horra denboraren ardatzean zehazkien kokatzen diren egunak: Adalbaldo frankotarren dukea hiltzen duten eguna eta Andre Luziaren heriotz-eguna. Lehen gertaera dator kontaketara zehaztasun handienarekin: seirehun eta berrogei eta hamabigarren urteko otsailaren bia. Bigarrenaren hilabetea eta hilabete horretako egunaren berri ere

---

(8) **Auñemendiko Lorea**, I, 172. or.

(9) **Auñemendiko Lorea**, II, 80. or.

(10) **Auñemendiko Lorea**, II, 84. or.

(11) "El desarrollo de la acción, es decir, el conjunto de los motivos que lo caracterizan, se llama la intriga". TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 207. or.

ematen da: irailaren zortzia, Ama Mariaren Jaiotzako eguna. Andre Luziaren heriotz-urtearen berri ematen ez bada ere, kontaketaren hariak denboraren igarotzeaz eskaintzen dituen zenbait zantzuk urte hori zehaztea zilegiztatzen dute: eleberrian barrena kontatzen diren gertaerak hasten diren urte bera (seirehun eta hogei eta hamazortzigarrena).

Ezarritako oinarri teoriko-metodologikoei erantzunez, hemen ez da **Auñemendiko Lorea**ren irakurketa objetiboa egitea bilatzen —hau jadanik ezinezkotzat jo delako—, baizik eta baliagarria izan daitekeen irakurketa bat: eleberriak eratzen duen osotasunari eta batasunari erantzun nahi liokeen irakurketa baliagarria.

Lehen lerro hauetan jadanik irakurketa horren lehen oinarriak jarri dira. Oinarri hauetan zehazten ez den denbora batean esandakoak eta egindakoak jo dira eleberriaren hezurdura osatuz eta eraikiz joango diren gertaeratzat.

Eta, zinez, abiapuntu honetatik egindako irakurketan Andre Luziaren pertsonaia zeharo bigarren mailako pertsonaia legez itxuratzen dela ikusiko da; are gehiago, autonomiarik gabeko pertsonaia moduan, horma (Arnoldo, bere senarra) euskarri duen huntzaren gisa. Pertsonaiaren ekintzek hori erakusten dute. Andre Luziaren bizitzak eta heriotzak ez dute aparteko esanahirik hartuko eleberrian, nahiz eta **Auñemendiko Lorea**ren mundua osatzeko beren ekarpena egiten duten, ekarpen xumea baldin bada ere.

Ezin beste hainbeste esan Adalbaldori buruz. Eleberriaren protagonista gisa eraikitzen ez bada ere, matazaren garapenak nahitaezko pertsonaia moduan itxuratzen du Adalbaldo. Bere ekintzek eta heriotzak berebiziko garrantzia hartuko dute.

Nabarmen gelditzen dira bi data konkretu horiek denboraren koordenada narratiboaren erabilerak gainontzean jasotzen duen tratamenduarekin. Gertaerak zehaztu gabe, edo gutxi zehaztuz eraikitzen da eleberria. Bi data horiek, berriz, arau horretatik kanpo gelditzen dira, koordenada narratiboak itxuratuz doazen testuingurutik at (12).

Bi lekugune deskribatzen dira zertxobait, xehetasun handiarekin

(12) "El contexto estilístico es un patrón lingüístico quebrantado por un elemento imprevisible, y el contraste resultante de esta diferencia es el estímulo estilístico". RIFFATERRE, M.; **Ensayos de estilística estructural**, 70. or.

ez bada ere: Ozinbeltz, Otxoatarren jauregia, eta Mendiola, mendiolatarren jauregia. Bi lekugune hauen deskripzioak erabat kontrastatzen du eleberrian barrena azaltzen diren gainontzeko lekuguneekiko kontalariak hartzen duen jarrerarekin. Fikziora datozen lekurik gehienak ez dira deskribatzen: Aitz barrengo eliz ingurua, Aitz barrengo hilerria, historiaren garapenerako garrantzi handia hartuko duten zenbait eliz inguru, Amandoren etxea, Uberoren etxea...

Deskribatzen ez diren eliz inguruetan, batzutan izen propiorik ere ez daramaten eliz inguruetan, zehazten ez den denbora batean, esandakoen eta egindakoen gain eraikiz doa **Auñemendiko Lore**aren mataza.

1.1. LEKUA: PERTSONAIEN EGOERA-ALDARAZLEA.

Seirehun eta hogei eta hamazortzigarren urtetik aurrera Auñemendi mendietako Aitz barrengo elizaren inguruetan edo beste elizaren baten inguruetan esandakoek eta egindakoek erabat aldatuko dituzte Mendiolako eta Ozinbeltzeko, Ostranbetoko eta Erbesteko zenbait bizilagunen bizitzak.

Pertsonaien izaera bera ez da aldatuko, batena izan ezik. Portun da salbuespen hori. Ozinbeltzeko seme nagusia kristautu egingo da, eta kristautze honekin batera baztertu egingo ditu aurreko harrotasunak. Gainontzekoek gertaerak hasi aurretik ziren bezalakoak izaten jarraituko dute: hasieran bezain euskaldun zintzo edo frankotar zintzo, euskaldun fededun edo frankotar fededun. Baina eliz inguruetako esanek eta ekintzek aldatu egingo dituzte beren bizitzak.

Arnoldo eta Riktrudis, Mendiolako aita-alabak, Portun Ozinbeltzeko seme nagusia eta Adalbaldo frankotarren dukea pertsonaia lauak (13) dira, konplexutasunik gabeak, ideia baten edo gutxi batzuren arabera eraikiak; pertsonaia ez-problematikoak (14). Kontalaria-

(13) "Lo normal en la novela del siglo XIX es el personaje 'plano', unilateral, sólidamente construido y que, por ello, se recuerda con gran facilidad". AMOROS, A.; **Introducción a la novela contemporánea**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, hirugarren argitalpena, 60. or.

(14) Euskal eleberrigintzan urte asko igaroko dira harik eta lehen heroe gatazkatsua sortu arte. Heroe gatazkatsu baten deskripzioa eskaintzen du K. Otegik, Txillar-

ren menpe bizi diren pertsonaiak dira, izpiritu errebelderik gabe kontalariaren esanetara daudenak.

Eleberria garatu ahala "egiten doan" pertsonaia eleberrigintzak aspaldidanik ezagutzen badu ere, XIX. mendeko beste zenbait eleberrigilek bezala (15), Domingo Agirrek ere ez zien aukera hori eman ez **Auñemendiko Loreako** pertsonaiei, ez bere gainontzeko eleberrietako pertsonaiei. Izan ere, pertsonaia lau hauek, aurrera ahala egiten ez diren pertsonaia hauek, badaukate abantailarik (16), batipat, kasu honetan bezala, zerbait irakatsi nahi denean, tesi-eleberri bat (17) egiten denean.

Konplexutasun psikologiko handiegirik gabe eraikitako pertsonaia hauek funtzio desberdinak betetzeko moduan egituraturik dau-

---

degiren **Leturia-ren egunkari ezkutua** eleberriaren pertsonaia-protagonista aztertzean (Ikus OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 119. or.). J.M. Lasagabasterrek: "Euskal nobelaren lehenbiziko 'héroe problemático'-a, Leturia dugu, noski" esan du (ikus "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, 364. or.). Argitaratu zen urtean bertan, 1957.ean, L. Mitxelenak egin zion hitzaurrean somatu zuen eleberri honek zekarren aldaketa: "Nik eztut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta **Leturia'ren egunkari ezkutua** gizaldi berri baten eta gizaldi orren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit". MITXELENA, L.; "Sarrera-itz batzu" in TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturia-ren egunkari ezkutua**, Leopoldo Zugaza, editor, 2. argitarapena, Durango, 1977, 13. or.

(15) "Aunque ya el autor de **El Lazarillo de Tormes** presentó el 'hacerse' del personaje, fue Cervantes quien dio el espaldarazo a esta forma de crear los personajes novelescos. De Amadís, personaje de una sola pieza, arquetipo, pasamos a través de Lázaro a don Quijote, el hombre y el individuo. El ilustre hidalgo se va formando en su relación con los demás y con las circunstancias del mundo en que se mueve. **Fernán Caballero** no supo ver esta lección; o no la comprendió, o no la quiso entender. Dividió a sus personajes en blancos y negros, y el color no variará, ni se desvanecerá por muchos y muy diversos que sean los contactos y accidentes a que se vean sometidos". GULLON, G.; **El narrador en la novela del siglo XIX**, Taurus Ediciones, Madrid, 1976, 36. or.

(16) "Para un autor es una ventaja el poder dar un golpe con todas sus fuerzas, y los personajes planos resultan muy útiles, ya que nunca necesitan ser introducidos, nunca escapan, no es necesario observar su desarrollo y están provistos de su propio ambiente: son pequeños discos luminosos de un tamaño preestablecido que se empujan de un lado a otro como fichas en el vacío o entre las estrellas; resultan sumamente cómodos". FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, 75. or.

(17) "No suelen encontrarse en la novela personajes unilaterales que vivan por y para una pasión, si exceptuamos las novelas de tesis". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 132. or.

de, eta elkarrekin (18) eta **Auñemendiko Lorea**ren gainontzeko elementuekin harreman-sare estu bat eratzen dute (19).

Azterketa estruktural bat abiapuntu gisa hartuz esan daiteke pertsonaia horiek ekintza desberdinetan parte hartzen (20) ematen direla ezagutzera eleberrian barrena; horrela sortzen da pertsonaiaren funtzioa (21) deskripzio xehe batean; baita aktantea ere (22) abstrazio eta integrazio-maila handiagoko deskripzio batean (23).

Auñemendiko Lorean atzeman daitekeen eredu aktantzial posible baten aurkezpena, A. Ubersfeld-ek eskaintzen dituen zenbait oharren argitan planteatuko da:

a) "Nos procédures actuelles de détermination du modèle actantiel sont largement artisanales et intuitives. Rien d'autre parfois que

(18) "Cualquier personaje novelesco, aun Don Quijote, aun Mr. Pickwick, es pieza en un mecanismo, función en una estructura. Es más, desde luego, pero es eso, ante todo". GULLON, R.; **Psicologías del autor y lógicas del personaje**, Taurus Ediciones, Madrid, 1979, 70. or.

(19) "Llamo **función** constructiva de un elemento de la obra literaria (en tanto que sistema) a su posibilidad de entrar en correlación con los otros elementos del mismo sistema y en consecuencia, con el sistema entero". TINIANOV, J.; "Sobre la evolución literaria" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, Editorial Siglo XXI, México, 1980, laugarren argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), 91. or.

(20) "El análisis estructural, muy cuidadoso de no definir al personaje en términos de esencia psicológica, se ha esforzado hasta hoy, a través de diversas hipótesis (...) en definir al personaje no como un 'ser', sino como un 'participante'". BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 29. or.

(21) Honela definitu zuen V. Propp-ek funtzioa: "Acción de un personaje definida desde el punto de vista de su significación en el desarrollo de la intriga". PROPP, V.; **Morfología del cuento**, Editorial Fundamentos, Madrid, 1977, hirugarren argitalpena, 33. or.

(22) A.J. Greimas-ek Tesnière-rengandik jaso du "aktante" terminoa. Honela definitzen du kontzeptu hau: "Para nosotros, un actante se construye a partir de un haz de funciones y un modelo actancial se obtiene gracias a la estructuración paradigmática del inventario de los actantes". GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, 289. or.

(23) "una función sólo tiene sentido si se ubica en la acción general de un actante; y esta acción misma recibe su sentido último del hecho de que es narrada, confiada a un discurso que es su propio código". BARTHES, R.; op. cit., 15. or.

l'intuition ne justifie la présence de tel 'personnage' dans telle ou telle case actantielle. Jusqu'à présent un critère essentiel: l'action, les possibilités d'action telles qu'elles apparaissent dans la suite des épisodes de la 'fable', résumable; ainsi l'adjuvant est celui qui aide dans l'action" (24).

b) "Par voie de conséquence, tout progrès dans la précision de l'analyse actantielle est conditionné par son examen non pas dans la totalité du texte, mais diachroniquement dans la suite des séquences; seule l'étude de l'évolution des modèles de séquence à séquence permettra par exemple de voir les transformations du modèle ou de comprendre comment évoluent les combinaisons et les conflits de modèles" (25).

Beraz, **Auñemendiko Lorean** barrena garatzen diren gertaeren igorleak ez dira argi eta garbi lexikalizaturiko elementu batzu, baizik eta nolabaiteko motibazioak; esate baterako, maitasuna. Maitasun horrek izari desberdinak hartzen ditu: mutur batean oihartzun pertsonala soilik duen maitasuna, maitasun ez-egokitua; bestean maitasun transzendentea, sinismen batzuk sortzen duten maitasuna; eta tartean herri batekiko atxikimendua eta maitasuna (26). Igorle honek bidalitako ekintzen hartzailea Portun izango da, ekintzak bere helburuen lorpenerako egiten dituen Portun.

Ekintzen subjetutza Portunek darama. Subjetutza berezi samarra da Portunena. Izan ere, Domingo Agirreren beste bi eleberrietan bezala, **Kresalan** eta **Garoan**, subjetutza honi ez bait zaio lotuko eleberriaren protagonista bihurtzea. Protagonismoa beste paper aktantzialen bat(zu) betetzen duen pertsonaiaren batek bereganatuko du, inoiz ere ez aktante-subjetuak. Protagonistek ekitera bultzaturik sentitzen ez diren eleberri hauetan besteren esku uzten dute ihardu-

(24) UBERSFELD, A.; **Lire le Théâtre**, éditions sociales, Paris, 1982, laugarren argitalpena, 95. or.

(25) **Ibidem**, 95. or.

(26) Igorlea/hartzailea bikotea da bikoterik anbiguoena A.J. Greimas-en eredu aktantzialean. Honela mintzo da A. Ubersfeld: "C'est probablement le couple le plus ambigu, celui dont les déterminations sont les plus difficiles à saisir, dans la mesure où il s'agit rarement d'unités clairement lexicalisées, notamment de personnages, fussent-ils collectifs: le plus souvent, il s'agit de 'motivations' qui déterminent l'action du sujet (étant bien entendu que ce mot motivation n'a aucun sens psychologique intériorisé)". **Ibidem**, 66-67. orr.

letza. Eta **Auñemendiko Lorean**, Portun da, guztiz agerian edo ezkutuan, garatzen diren gertaeren eragilerik garrantzizkoena.

Bere nahiren bat betetzea bilatuko du etengabe, ez daukan zerbait lortzea (27); dela frankotarren aurka borroka egitea, dela Riktrudisen maitasuna.

"Orden teleológico" deritzan mailako (28) harreman bat ezartzen da subjetu honen eta beronen objetua den Riktrudisen maitasuna lortzearen artean.

Mota desberdinetako baliabideak erabiliz, esakuntzaren subjetu izanez edo esakunearen subjetu izanez, bere nahiak betetzen saiatuko da Portun, bere nahiak gauzatzen (29).

Agerpen honetan agerian gelditzen denez, aktante-subjetua eta aktante-hartzailea aktorego (30) berdinak osatzen du. Aktanteen azalpen sinkretiko bat aurkezten du eleberriak (31).

Bi aktante-zirkunstantek (32) osatzen dute eredu aktantzial hau.

---

(27) "On ne peut considérer comme sujet du désir quelqu'un qui veut ce qu'il a ou cherche simplement à ne pas perdre ce qu'il possède; la volonté conservatrice n'engage pas facilement une action, s'il manque la force dynamique et conquérante du désir. Le héros 'conservateur' peut être un opposant ou à la rigueur un destinateur, pas un sujet". UBERSFELD, A.; **Lire le Théâtre**, 72. or.

(28) Honelakoa da A.J. Greimas-entzat subjetu vs objetu harremana. Ik. GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, 205. or.

(29) "La particularidad más interesante del esquema actancial es la realización de las modalidades: **saber**, en la línea emisor-receptor; **poder**, en la línea ayudante-opositor, **querer**, en la línea sujeto-objeto. El **querer** se convertirá después, mediante el desarrollo de la acción, en un **hacer**". SEGRE, C.; **Las estructuras y el tiempo**, Editorial Planeta, Ensayos Planeta, Barcelona, 1976, 69. or.

(30) Aktantea artxi-aktoretzat eta erlatuaren unitatetzat jo du A.J. Greimas-ek; aktorea, berriz, paper bat edo gehiago har ditzakeen indibiduotzat eta berbaldiaren unitate lexikaltzat. Ik. GREIMAS, A.J.; **En torno al sentido. Ensayos semióticos**, Editorial Fragua, Madrid, 1973, 298-299. orr.

(31) A.J. Greimas-ek ametitzen duen egoera da aktanteen azalpen sinkretikoa. Ik. GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, 271. or.

(32) A.J. Greimas-ek izendapen honen azpian ezagutzera ematen ditu "las formulaciones hipotácticas del actante sujeto". **Ibidem**, 275. or. Aktante hauen artikulazio kategorikoa asmatzea zailagotzat jotzen badu ere, A.J. Greimas-ek honako hau eransten du: "Reconocemos, sin embargo, sin dificultad, dos esferas de actividad y, en el interior de éstas dos tipos de funciones bastante distintas:

Portun aktante-subjetuak zenbait laguntzaile aurkituko du bere nahiak lortzen lagun diezaion; hala nola, Lope Nagi Mendiolako morroia eta, gezurraren bidez eta ez jakinean bada ere, euskaldungoaren gehiengoa, Portunek bere nahiak estaltzeko erabili duen maskarari esker.

Portunen objetu-bilaketak aurkakoak ere izango ditu: modu batera edo bestera Riktrudisen maitasuna eta honekin ezkondu nahian oztopoak jarriko dizkioten aktoreak; hala nola, Riktrudis bera, zeini Portunek beldurra eta ikara besterik sortzen ez dizkion; Adalbaldo frankotarra, zeinekin ezkontzen den Riktrudis; Arnoldo, Riktrudisen aita, zeinek ematen dion baimena Adalbaldorekin ezkon dadin, euskaldunen artean ere halako gizonik aurkituko ez duelako... Aktante-aurkakoa da Portunen nahien lorpenari aurkajartzen zaiona.

Nolanahi ere, aktante-zirkunstanteen atal honetan zenbait ohar egin beharraren premia somatzen da. Aktante-laguntzailea eta aktante-aurkakoa sortuz doan aktoregoa zeharka bakarrik aurkajartzen zaio edo laguntzen dio Portuni bere objetua erdiesten: Riktrudisen maitasuna. Izan ere, sarri askotan, beste zerbaiten azpian estalita aurkeztuko da bilaketa hori. Honela, auñemenditarren gehiengoak herri-saltzailetzat jotzen du Arnoldo eta ez daki Portunen mendeku bati erantzuten dionik, hain zuzen, Lope Nagi aktore-mandatariaren bidez Riktrudisi igorritako mandatuak honengan sortu duen jarrerak eragindako mendekuari; jakin ere ez daki Riktrudisen ezkontzak sortzen duen gerraren azpian mendeku bat dagoenik: Riktrudisekiko maitasun ez-egokitu batek sortutako mendekua.

Euskaldungoaren gehiengoa ez jakinean bihurtzen da Portunek bilatzen duen objetuaren laguntzaile. Auñemenditarren gehiengoak sinetsi egiten ditu Portunen hitzak, zerk bultzatzen duen hori esatera galdetu gabe. Honenbestez, nahiz eta zuzen-zuzenean aktante-subjetuaren aktante-laguntzailea osatuz doan aktorego moduan ezin jo,

---

1. Las unas que consisten en aportar la ayuda operando en el sentido del deseo, o facilitando la comunicación.
2. Las otras que, por el contrario, consisten en crear obstáculos, oponiéndose ya sea a la realización del deseo, ya sea a la comunicación del objeto.

Estos dos haces de funciones pueden ser atribuidos a dos actantes distintos, a los que designaremos con los nombres de

Adyuvante vs Oponente

Ik. GREIMAS, A.J.; op. cit., 273. or.

zeharka bederen hor koka daiteke: ez jakinean bada ere, azkenean aktante-subjetuaren helburuen laguntzaile bihurtzen dira.

Euskaldungoaren gehiengoarekin batera, Lope Nagi aktore-mandatariak betetzen du aktante-laguntzailearen funtzioa. Lope Nagi mandatari-papera bera betetzen hasi aurretik eta mandatari-paper horretan noren aginduetara egongo den ikusi aurretik iragartzen da. Portunen bakarrizketan, honen gogoetetan, eta hauen bidez, dator lehen aldiz Lope Nagi kontaketara eta une hauetantxe, oraindik inongo ekintzetan parte hartu ez duenean, iragarri egiten da jadanik hartuko duen bidea:

> "Riktrudisen barriak iakiteko ostera, or daukat Lope Nagi. ¡A ze morroitxoa Mendiolako Jauregian daukazuen ori! Neu nagusi izaten banaz a..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 82-84. orr.).

Portunek iragarritako paperari lotuko zaio Lope Nagi, haren eskaerari erantzunez. Eta paper hau betez gorantza doan linea markatuko du, klimax-a markatzen duen mandaturaino jarraituz. Lehenik, Riktrudisek nola erantzun dien Portunen eta Adalbaldoren gorantziei jakin eraziko dio bere mandatu-emaile den Portuni; azkenik, eleberrian esan baino gehiago sujeritu eta iradoki egiten den mandatu bat heleraziko dio Portuni, Adalbaldoren hilketa zilegiztatuko diona, Riktrudisen traizioaren objetua izan denarena, Riktrudisen senarrarena.

Esan baino gehiago sujeritu egiten dela esan da arestian. Izan ere, eleberrian ez da erakusten Lope Nagi nagusitzat duen Adalbaldo salatzen eta traizionatzen; baina iradoki, iradokitzen da.

Adalbaldok mandatari bat eskatzen duenean Euskal Herrira joan dadin, Lope Nagik bere burua eskaintzen du:

> "Burgaiñen sartu baiño lenago, —'Mutillak'— esan eban dukeak —oraintxe da garaia, ta euetako batek Euskalerrira barrura Amandogana ioan bear iok'.
>
> —Neu ioango nintzateke pozarren, iauna, aspaldian neure erritarrak ikusteko gogoagaz nago-ta —erantzun eban Lopek" (**Auñemendiko Lorea**, II, 160. or.).

Adalbaldo Burgaiñetik Aitz barrenera ehizerako asmoarekin joaten denean, hau hilgo duten Portunen lagunen artean dago Lope Nagi: "euren artean egoan Lope ondo ardaoz betea, barrez-barrez..." (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Adalbaldoren mandatua betetzeko, Lope Nagik hura utzi eta harik eta Aitz barrengo pinadian Portun eta honen lagunekin lekutu arte gertaturikoak isilune bat dira narrazioan. Tarte horretan kontalariak Adalbaldok eginikoak kontatzen ditu, baina ez Lope Nagik eginikoak.

Nolanahi ere, Lope Nagik bete duen papera erakusten ez bada ere, ez dago ahanzterik Adalbaldok Ostrabentoko bere etxetik bidaia luze honetarako irten aurretik bidailagunak hautatzen dituela: "—Lope ta beste iru edo lau otsein eroango dodaz". Aukera honen aurrean Riktrudisen hitzak jadanik susmo txarrez beterikoak dira, Lope Nagiren inguruan giro jakin bat sortzen hasten direnak: "—¡Lope! Lope ori ezta neure naigurako morroia, baiña zeuk gura badozu..." (**Auñemendiko Lorea**, II, 144. or.).

Historiaren hasieran Portunen bakarrizketan iragarri egiten da Lope Nagik beteko duen funtzioa: giroa prestatzen hasten da mandatari-papera asumitu aurretik. Hemen ere berdintsu gertatzen da: Riktrudisen hitzak giro-prestakuntza dira; klimax nagusia Adalbaldo salatzean iritsiko da, honen mandatari ez baina Portunen mandatari bihurtuz.

Lope Nagi aktore-mandatariak jakinaren gainean dihardu aktante-laguntzaile funtzioan, euskaldungoaren gehiengoak ez bezala: jakinaren gainean hautatzen du aktante-subjetuari laguntzea, honek eskainitako ordainaren (ardoaren) truke.

Aktante-subjetuak baditu aurkakoak ere, baina behin edo behin eta ez-jakinean bihurtzen dira aurkako aktore. Hau da, esate baterako, Adalbaldo aktore-pretendentearen kasua; Adalbaldok ez bait daki Portun Riktrudisez maitemindurik dagoenik.

Pedro Mari aktore-mandatariak aktante-subjetuaren nahien aurka baino gehiago egiten du Riktrudis bere etxekoandrearen alde. Eta neurri honetan, Riktrudis aktore-emailea (Arnoldo bere aitarekin batera Portun aktorearen bilaketaren giltza daukana) Portunen nahien aurka dagoen neurrian; baita Pedro Mari mandataria ere.

Arnoldo eta Riktrudis aita-alabak aktore-emaile bihurtzen dira: beren esku dago Portunen bilaketari amaiera ematea eta honen bizitzara oreka ekartzea. Arnoldok jakin ere ez daki Portun Riktrudisez maitemindurik dagoenik; kontaketan barrena behintzat ez dago besterik suposarazi dezakeen zantzurik. Portunek ere ez dio Riktru-

disi ezkontzarik eskatu; ezta horretarako baimenik ere Arnoldori. Horiek horrela, modu honetan zuzentzen zaio Arnoldo aktore-emailea heriotzaren aurrean:

> "—Adalbaldo orrek... iñoiz aitatuko baleutsu ezer... baietz esan eikeozu. Ona da bera ta... norbait bear izan ezkero... bera baiño oberik eztozu billatuko" (**Auñemendiko Lorea**, I, 202. or.).

Horrela mintzatzean, Arnoldok subjetu-aktantearen bilaketaren aurka baino gehiago egiten du bere nahi baten alde. Bidenabar, nahi hau subjetu-aktantearen nahiaren aurkako bihurtzen da ez-jakinean.

Riktrudis bakarrik aurkajartzen zaio jakinaren gainean subjetu-aktantearen bilaketari aurkako aktoregoa osatzen duen aktorego honetan. Badaki Portun maitemindurik daukala.

Riktrudisek eta Arnoldok osatzen dute aktore-emailea, E. Souriau-ren eskema aktantzialaren arabera zazpigarren funtzioa eraikiko lukeena: erabakitzailearena edo arbitroarena. Bien nahiak bat datoz Arnoldoren heriotzaren aurrean, Adalbaldo senar egokitzat jotzean; eta neurri honetan subjetu-aktantearen nahiari aurkajartzen zaizkio.


Hona hemen, bai aktante-laguntzailea bai aktante-aurkakoa osatzen duten zenbait aktoreren ezaugarria: ez-jakinean eraikitzen dute funtzio hori, kontziente izan gabe iristen dira eleberrian funtzio konkretu bat betetzera.

Aktante-aurkakoa honen azalpenean ere agerian gelditzen denez, bada aktore bat, Riktrudis, nahiz funtzio aktantzial honetan nahiz objetuarenean partaide dena. Beste sinkretismo bat (33) da eleberriaren deskripzio honetan.

Honenbestez, honako eskema honetara laburbil daiteke **Auñemendiko Lorea**ren eredu aktantziala:

---

(33) A.J. Greimas-ek onartzen du bai arestian aipatutako sinkretismoa, bai beste sinkretismo hau ere (aktore bat zenbait aktantetarako). Honela mintzo da A. Ubersfeld puntu honi buruz: "Mais Greimas, qui a d'abord cru, comme nous venons de le voir, que l'acteur était une particularisation de l'actant a dû reconnaître que 'si un actant (A1) pouvait être manifesté dans le discours par plusieurs acteurs (a1, a2, a3), l'inverse était également possible, un seul acteur (a1) pouvant être le syncrétisme de plusieurs actants (A1, A2, A3)". UBERSFELD, A.; **Lire le Théâtre**, 97-98. orr.



Eliz inguruetan eta zehazten ez den denboran garatzen diren ekintzek maitasuna dute elementu eragile, higierazle eta motore. Subjetuaren objetu-bilaketa honetan nahasi egingo dira maitasun-mota desberdinak. Portunen helburua Riktrudisen maitasuna eta honekin ezkontzea da; bidean, ordea, gurutzatuz joango dira, batetik, herri batenganako maitasuna, Euskal Herriarenganako maitasuna, maitasun patriotikoa, izari sozial bat duena, eta, bestetik, maitasun transzendentea. Beraz, hiru ardatzeko gurpil dugu maitasunarena. Eta hiru ardatzeko gurpil horrek sortzen du anekdotan narratibitatea; berak egiten dio aurrera berbaldiari.

Pertsonaia batek Jaungoikoari eskaintzen dion maitasunak sortuko du "lehen gertaera apartekoa", batipat abentura izango den zerbaiti hasiera emateko. Edo agian hobeto legoke alderantziz: beste pertsonaia batek Jaungoikoari eskaintzen ez dion maitasunak sorrera emango die aparteko gertaera horiei.

Epilogoak ematen dituen azken berrietan aurkakotasun-mota honi ere amaiera heltzen zaio. Tartean eraikiz doa **Auñemendiko Lorea**, Portunen nahia izaki (Riktrudisen maitasuna eta honekin ezkontzea) hari gidatzaile gatazkatsu eta honekin gurutzatuz maitasun patriotikoa.

"Maitatu" aditz predikatzaileak eramango ditu pertsonaiak ekintza eta esan desberdinetara: bere eraginez aldatuko dira Mendiolako eta mendiolatarren egoera, Ozinbeltzeko eta ozinbelztarren egoera, Erbesteko eta erbestetarren egoera... Bestalde, aditzak forma desberdinak hartzen ditu, eta forma horietako batek motore moduan funtzionatzen du, indar-sortzaile moduan.

Eliz inguruak aldaketen gertaleku edo aldaketa-sortzaile diren gertaleku, denbora zehazgabea aldaketa horien sorrera kokatzerakoan, maitasuna ekintzen eta esanen elementu-sortzaile, pertsonaien egoera-aldaketa ekintza eta esan hauek direlarik bitarteko, **Auñemendiko Lorea**ren hezurdura osatuz doan marko narratiboa eraikitzen hasten dira.

1.1.1. Bi sekuentziren paralelotasun funtzionala

Auñemendiko Lorean barrena paraleloki eraikiz doaz Arnoldoren historia eta honen alaba Riktrudisena.

Euskaldunen buruzagi ospetsua da Arnoldo. Ospe hori bizitzan zehar Euskal Herriaren askatasunaren alde egindakoari zor dio Mendiolako nagusiak. Euskal Herria zapaltzera zetorren etsaiaren aurkako jokabideek eman diote izena.

Auñemendiko Lorearen garapenean galdu egingo du ospe hori. Eta galdu ez ezik, beste muturrean ikusiko dugu: herri-saltzailetzat hartuko du euskaldungoaren gehiengoak Arnoldo. Azkenean, hain goratua izandako buruzagia bakardaderik handienean helduko da heriotzera: emaztea eta alaba, ahaideren batzu, koblakaria ..., besterik ez dago "Ill-gauan" buruzagi ospetsu izan zena agurtzeko.

Hauxe da Arnoldok **Auñemendiko Lorea**n egiten duen ibilbidea —zuzenagoa litzateke Arnoldori **Auñemendiko Lorea**n egin arazten dioten ibilbidea esatea—: euskaldunen buruzagi ospetsu izatetik heriotzeko bakardadera doana (tartean herri-saltzailetzat joko dute).

Sekuentzia bat bakarra (34) aski da Arnoldori buruzko ikuspe-

(34) Bost proposizioz osatzen da Tz. Todorov-ek proposaturiko sekuentzia. Honela mintzo da Tz. Todorov: "Las proposiciones no forman cadenas infinitas; se organizan en ciclos que todo lector reconoce intuitivamente (se tiene la impre-

gia mutur batetik bestera hel dadin.

Auñemendiko Lorean kontatzen diren gertaerak 638. urtean hasten dira. Une hauetan euskaldungoaren gehiengoak onartzen du Arnoldoren buruzagitza. Baina laster hasiko dira Arnoldo herri-saltzailea dela dioten zurrumurruak. Hauek Arnoldoren ezaguerara iritsi eta larrialdi eta estuasun handian jarriko dute bere egoera animikoa, bakardadean heriotza ekartzeraino.

Arnoldoren alaba bakarra den Riktrudis "aingerutzat", "Auñemendiko Loretzat", daukate auñemenditarrek. Bere baitan biltzen ditu edertasuna eta birtutea.

Riktrudisen historia bere aita den Arnoldorenari paraleloki eraikiko zaio **Auñemendiko Lorean**. Auñemendi mendietako gizarteak ukatu egingo dizkio Riktrudisi atributu horiek; ukatu ez ezik, aita legez herri-saltzailetzat joko dute. Eta azkenean, komentu bateko bakardadea hautatuko du bere bizitzako azken urteak igarotzeko.

Hauxe da Riktrudisek **Auñemendiko Lorean** egiten duen ibilbidea —aitaren kasuan bezala, zuzenagoa litzateke Riktrudisi **Auñemendiko Lorean** egin arazten dioten ibilbidea esatea—: "Auñemendiko Lore" eta aingeru izatetik bakardadera doana (tartean herri-saltzailetzat joko dute).

Arnoldorekin gertatzen den legez, sekuentzia bat bakarra aski da Riktrudisi buruzko ikuspegia mutur batetik bestera igaro dadin. Auñemendiko Loreak frankotarren dukea den Adalbaldorekin egiten duen ezkontzak herri-saltzailetzat jotzen duten zurrumurruak ereingo ditu Auñemendi osoan zabaltzeraino. Auñemenditarrak aho batez iritsiko dira ontzat ematera Riktrudisi buruzko ikuspegi hori. Auñemenditarrek hil egingo dute Riktrudisen traizioaren objetua: Adalbal-

---

sión de un todo acabado) y que el análisis no tiene demasiada dificultad para identificar. A esta unidad superior se la denomina **secuencia**, el límite de la secuencia está marcado por una repetición incompleta (preferiríamos decir: una transformación) de la proposición inicial. Si, para mayor comodidad se admite que esa proposición describe un estado estable, de ésto se sigue que la secuencia completa está compuesta —siempre y únicamente— por cinco proposiciones. Un relato ideal comienza con una situación estable que una fuerza cualquiera viene a perturbar. Esto produce un estado de desequilibrio, por la acción de una fuerza dirigida en sentido inverso el equilibrio es restablecido; el segundo equilibrio es muy semejante al primero, pero ambos no son nunca idénticos". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 95-96. orr.

do frankotarra. Eta honela bakardadea egingo da Riktrudisen bizitzaren jabe.

Nahiz bati, nahiz besteari, eliz inguruetatik datozkie herri-saltzailetzat jotzen dituztela dioten albisteak. Portunek sortu ditu albiste horiek, Riktrudis maite eta berarekin ezkontzea nahi duen Ozinbeltzeko seme nagusiak, alegia. Pertsonaia batenganako maitasunak —Riktrudisenganakoak— darama Portun Mendiolako aita-alabei beste maitasun bat ukatzera: Euskal Herriarenganakoa. Izari pertsonal bat duen maitasunak izari soziala duena ukitzen du; lehena da Portunengan eragiten duen motiboa bigarrena Arnoldo eta Riktrudisi uka diezaiotela bilatzeko.

Eliz inguru horietatik datozen berriek aldarazten dute Arnoldoren egoera; baita Riktrudisen egoera ere. Hor emandako epaiek ekarriko dute bakardadea Arnoldoren eta Riktrudisen bizitzara.

Bi sekuentziak, bi mikro-erlatuak, Arnoldoren historia eta Riktrudisen historia ehotuz doaz eta tesi-antitesi-korolario moduan antolatuta daude. Egituratze-modu hau bere eleberritako zenbait kapituluren osagarri diskurtsibora eta, zenbait kapitulutara ez ezik (35), egitura haundiagotara ere eraman du Domingo Agirrek; hala nola, **Auñemendiko Lorea** honetan historia bat kontatzeko modura bertara, eleberria antolatzeko modura bertara.

Eleberriaren hastapenak behin eta berriz iltze berean jotzen duen mailuak bezala errepikatuko du "Arnoldo euskaldunen buruzagi ospetsua da"; horretarako pertsonaia desberdinen esanetara eta kontalariaren esanera jotzen du eta kontatze-modu desberdinak erabiltzen ditu.

Hurrengo, hori aldarrikatu duten gehienek —Arnoldoren emazte eta alabak, kontalariak, Peru Padarra koblakariak, Pedro Mari morroiak eta beste gutxiren batzuk izan ezik— "Arnoldo herri-saltzailea da" aldarrikatuko dute. Nahiz bata —tesia—, nahiz bestea —antitesia— defendatzeko frogak ere azalduko dituzte. Batetik, frankotarren aurkako borroketan Arnoldok bere bizitzan hartu duen jokabi-

(35) Domingo Agirreren ikasketen aztarnak ikusi ditu M. Zaratek egituratze-modu honetan. Egituratze-modu honen lekukotzat **Kresala** eta **Garoa** eleberritako zenbait kapitulu aipatzen ditu. Ik. ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak**, 24-25. orr.

dea: gerra frankotarrari, Euskal Herriaren askatasunaren izenean. Eta, bestetik, eleberriaren fikzio-denboran frankotarren aurrean hartu duen jarrera: Euskal Herria saldu. Korolarioa ere argi dago: bakardadea lehenik, heriotza bakardadean berehala, antitesia defendatu ez duten gutxi horiek bakarrik lagun.

Behin eta berriz goraipatuko da Riktrudis, pertsonaia desberdinen esanetara edo kontalariaren esanetara joz eta kontatze-modu desberdinak erabiliz. "Aingerua", "Auñemendiko Lorea" atributuak erabiliko dira bere izaera determinatzeko. Baina Auñemenditik atzerriratzen denean frankotarrarekin ezkontzeko, euskaldungoaren gehiengoarentzat "Loreak" Auñemendikoa izateari utzi egingo dio, eta herri-saltzaile izango da. Nahiz bata —tesia—, nahiz bestea —antitesia— defendatzeko frogak ere azalduko dira: Riktrudisen edertasuna eta ontasuna, gurasoekiko begirunea, neskame-morroiekiko jarrera, elizkoitasuna... Baina Adalbaldo frankotarrarekin ezkontzen da eta hori gehiengoarentzat Euskal Herria saldu duen ezaugarri da. Traizioaren objetua den frankotarra hiltzeak bakarrik aseko du Auñemendi. Eta honekin, korolario moduan, bakardadea dakarte Riktrudisentzat.

Bi historia paralelo moduan eraikiz doaz eleberrian Mendiolako aita-alaben historiak. Bi historia hauek jasoko dute **Auñemendiko Lorea**n hitz-orerik gehien. Eleberriko berbaldia bi pertsonaia hauen historia kontatzeko edo erakusteko erabiliko da batipat. Tituluak berak, **Auñemendiko Lorea** (36), bi historia hauetako baten pertsonaia nagusiaren izendapena bera azaltzen du, zein historiaren kontaketa den garrantzizkoena azpimarkatuz. Eleberriak Riktrudisen historia kontatu eta erakusten du batipat, eta neurri apalagoan Arnoldorena, azken finean kontaketa bi bizitza eredugarri azaltzeko erabiliz. Baina mataza-sorketaren ikuspegitik, protagonismoa ez dagokie hainbeste Arnoldo eta Riktrudis pertsonaia ia omnipresenteei, Portuni baizik; narrazioari dagokionez ia ausente bat den pertsonaia "gezurti"

(36) Nahiz eta **Euskalzale** aldizkariak berak atalka-atalka egin zuen argitalpenean bertan, lehen argitalpenean, **Auñemendiko Lorea** titulua daraman (ik. **Euskalzale**, II, 1898, 12. or.), Domingo Agirrek R. M. Azkueri igorritako zenbait eskutitzetan ikus daiteke **Riktrudis** titulupean ezagutzera ematen duela bai egiten ari zelarik, bai egin ondoren ere. Eta **Riktrudis** izenburua darama, hain zuzen ere, Azkue liburutegian aurkitzen den eleberri honen eskuizkribuak. Ikus I. ataleko 288. oin-oharra.

horri, aktante-subjetua bihurtuko den horri; eleberriaren "heroea" izango ez bada ere (37).

1.1.1.1. *Arnoldoren historia: joskera narratiboa*

a) Oreka: Arnoldo euskaldunen buruzagi ospetsua

Leku baten plano orokorra eskainiz ematen zaio hasiera kontaketari. Plano orokor hori erakusten ari den kontalaria bere ikusgunea murriztuz doa, ahalik eta "iauregi-antzeko" etxe bat lehen planora ekarri arte: Mendiola.

Kanpoko itxuraren deskripzio laburraren ondotik, ikusgunea gehiago murriztu eta "gizategi andi batean" kokatzen da kontalaria; gizategian, berriz, ikusgunea gehiago murriztu eta bi pertsonaiaren deskripzioa eskainiko du agerrera-ordenan: Andre Luziarena eta Riktrudisena.

Mendiolako ama-alaba hauen arteko elkarrizketaren bidez beste pertsonaia bat hasten da sortzen eta gorputz hartzen: Arnoldo, Mendiolako etxejauna. Batipat Andre Luziaren berbaldia hasten da berreskuratzen Arnoldo bere senarraren lehenaldia, analepsiz 638. urtean kokatzen den historiaren denbora baino aurreragokotara joz.

Lehenaldi honen errekuperazioa guztiz funtzionala bihurtuko da eleberriak aurkezten duen matazaren garapenerako.

Analepsiari esker euskaldunen eta Arnoldoren aurrehistoria dator narraziora: euskaldunek aurrehistoria horretan frankotarrekin izan dituzten harremanak, frankotarren erasoen aurrean euskaldunei askatasuna gordetzea zenbat odol kostatu zaien, Arnoldok zein jarrera eta erantzunkizun hartu dituen gerrate horietan...

Eleberriari hasiera ematen zaion astelehen arratsaldean hiru egun daramatza Arnoldok etxetik kanpo. Gertaera hori dugu Andre Luzia-

(37) A. Ubersfeld-i jarraiki, kasu honetan behintzat testu dramatikoari buruz dioena testu narratibo honentzat ere aplikagarria delakoan gaude: "Si dans un texte dramatique, nous comptons le nombre d'apparitions d'un personnage, le nombre des répliques, voire le nombre de lignes de son discours (dans le cas même où la pondération des trois chiffres donne une solution incontestable), encore aurons-nous trouvé le personnage principal, le 'héros' de la pièce, pas nécessairement le 'sujet'". UBERSFELD, A.; **Lire le Théâtre**, 71. or.

ren elkarrizketagai. Eta hortik abiatuko da euskaldunen eta Arnoldoren aurrehistoriarako "atzerabegirada".

Aurrerago ikusiko denez, eleberri honen hainbat eta hainbat pasarte kontatzean, ikuspuntu orojakilea hartuko du kontalariak. Baina, hala ere, objetibitate handiagoaz jokatu nahian edo, elkarrizketara, eszenara, jo du aurrehistoria azaltzeko, pertsonaien gain utziz frankotar eta euskaldunen arteko gerrateen aurkezpena eta Arnoldoren jarreraren balorazioa. Fikzioak sortutako pertsonaiek dute hitza. Kontalariak ez du erantzunkizunik hartzen aurrehistoria horren aurkezpenean.

Formaren ikuspegitik elkarrizketa izaki, solaskideek elkarrizketaren haria jarraitzen dute. Baina parte hartze bakoitzak, sarri askotan, galdu egiten du elkarrizketa batean espero daitekeen bizitasuna, dela luzeragatik, dela bertan egiten diren azalpen historiko, doktrinal etab.engatik (38). Solaskidearen berbaldiak irakaskuntzara bideratutako ihardun baten itxura hartzen du maiz. Honelako elkarrizketek esan arazi diote G. Garateri, **Auñemendiko Lorea**ri buruz diharduela:

> "Pertsonaiak astunak badira, elkarrizketak usu aspergarri. Oso luze eta motelak" (39).

Andre Luziak, aurrehistoria horren errekuperazioaren abiaburuan, matazaren garapenean garrantzizko izango diren hiru gertaera azalduko ditu. Bat frankotarren eta euskaldunen arteko harremanei dagokie. Luze mintzatuko da Andre Luzia harreman hauei buruz, xehetasun historiko ugari emanez. Baina aurretik perpausa batean bilduko du harreman-modu hau:

> "Eun urte oneetan guda bat amaitu orduko beste bat asi oi daroa-

(38) "Frente a la seriedad y mesura de la prosa científica, el diálogo se caracteriza por su agilidad y, con frecuencia, por su falta de propósito didáctico (dejando aparte diálogos peripatéticos, profesionales y moralizadores)". Aurreraxeago I. Paraíso de Leal honela mintzo da elkarrizketaren formaz: "Respecto a la forma son característicos los **párrafos muy breves**: de una sola oración a menudo, en su vivaz recortamiento se reducen a veces a un solo vocablo —interjecciones, por ejemplo—, o bien a oraciones inacabadas". PARAISO DE LEAL, I.; **Teoría del ritmo de la prosa**, Editorial Planeta, Barcelona, 1976, 261. or.

(39) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1985, 72. or.

gu, or beeko prankotarragaz, gu menderatu ta euren legeen azpian ipiñi gura gaituelako" (**Auñemendiko Lorea**, I, 16. or.).

Jarrera konkretua hartu du Arnoldok historiaren denbora baino lehenagoko gerrate hauetan:

> "Ganera, Mendiolako etxe-iaunak euskaldun lurragaitik naikoa egin dau orain-artean. Ia bere bizitza guztian euskaldun gizonen nagusi izan da, ta Arnoldok bere sanetako odolagaz ortxe busti dau sarritan gure lurra ta ortxe nunbaiten ikusi ditu iausten bere seme morrosko biak, Ioanes da Iñigo, banan banango mutillak, eure anaiak, Riktrudis!, eure gurasoen poz da atsegiña ziran ondorengoak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 12. or.).

Lehenalditik orainaldira ez da egoera aldatu. Andre Luziak antzeko hitzak eskaintzen dizkio orainaldiari, fikzioa garatzen hasi deneko denbora honi:

> "Guda barri bat ostera, gure artean, guztiz erraz sortuten dan gauzea da" (**Auñemendiko Lorea**, I, 16. or.).

Historiaren denbora honetan ere frankotar eta euskaldunen artean gudarik balego, han joango litzateke Mendiolako Arnoldo euskaldunen guda horretara:

> "—Alperrik diardun, Riktrudis. Esan dozan da esango dozan gizon guztiak baiño izen andiagokoa da ire Aita, ta orregatik, eta zartasunari emen gordeten iakon begiruneagaitik, berak nai badau, euskaldun gerralarien zuzentzaillea Mendiolako Arnoldo izango da" (**Auñemendiko Lorea**, I, 16. or.).

Andre Luziak ez ezik, beste pertsonaia batek ere, Amando apezpikuak, Mendiolako etxeari ospea aitortzen dio auñemenditarren artean. Riktrudisi mintzatzen ari zaiolarik frankotarren eta euskaldunen arteko borroka berri bat eragozten lagun diezaion eskatuz, honako hitz hauek dauzka Mendiolarentzat:

> "Mendiolako-etxea izen andikoa da Euskal-errian, da etxe orretakoak nai izan ezkero..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 34. or.).

Aurreraxeago kontalariak, Andre Luziak, nahiz Amandok esanikoak bereak egin eta "Mendiolako Arnoldo ospetsua" (**Auñemendiko Lorea**, I, 48. or.) adierazpena erabiliko du, oraindik eleberriko bi pertsonaia horiek ez bestek aitortu dionean ospe hori. Kontalariak kualifikazio honen erabileraren bidez baieztu egiten du pertsonaien esana. Pertsonaiak huskorrak, falibleak, izan daitezke; ez, ordea, kon-

talari orojakile hau. Eta, honenbestez, irakurleak ontzat eman ditzake pertsonaiek Mendiolari eta hau ordezkatzen duen Arnoldori ezarritako atribuzioak, nahiz eta oraindik fikzioaren denboran ez erakutsi atribuzio hori merezi duen, ez ekintzen, ez esanen bidez.

Nolanahi ere, zalantza-izpirik geldi ez dadin, euskaldungoa bera etorriko da eszenara kontalariak eta pertsonaiak Arnoldori aitortutako atribuzioak sendotzera (40). Arnoldok galderak egin ahala, Ozinbeltzen batzarrean bilduta dauden euskaldunek aho batez deklaratuko dute ospe hori:

> "—Euskaldunak, ¿ezagututen nazue ni?
> —Bai, iauna, —erantzuten dabe danak batera.
> —¿Euskaldun ontzat naukazute?
> —Bai, iauna. ¿Zein obea?
> —¿Ukatu deutsat nik iñoiz Euskalerriari nire beso ta nire odola?
> —Ez iauna, iñoiz bere ez" (**Auñemendiko Lorea**, I, 48. or.).

Azkenik eta, orain arte bezala, Arnoldori aitortzen zaion atribuzio honek berbaldian duen agerpen-ordenari jarraiki —lehena Andre Luziarena da, bigarrena Amandorena, hirugarrena kontalariarena, laugarrena Ozinbeltzeko batzarkideena—, Portunek bere bakarrizketan egiten duen baiezpena ere aipagarria dateke. Portunek berak aitortzen du Arnoldok ospea duela euskaldunen artean:

> "¿Ta gaur illuntzean Arnoldok esan dabena? Milla aiñaniñuen agurea! Bere eskuetan egoan ba dana. Berak esan baleu 'igudara!', euskaldun guztiak gudara ioango ziran; baiña berak ezetz esan dabelako, ezetz beste guztiak bere. Iakiña da emen. Izen aundikoa izan da beti ta..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 74. or.).

"Arnoldo ospe handiko gizona auñemenditarren artean" esakunea behin eta berriz errepikatzen da pertsonaia desberdin eta kontalariaren esanetan aldaera estilistiko desberdinekin. Berbaldi errepetitiboa da (41). Puntu berean jo eta jo egiten da. Andre Luziaren

---

(40) Ozinbeltzeko batzarrean Uberok Aitz barrengo gertaeran (Portunen eta frankotarraren arteko borrokan) arrazoia frankotarraren aldean dagoela esaten duenean, garraxiak eta deiadarrak entzuten dira batzarkideen artean. Baina Arnoldok hitz egitean frankotarrari arrazoia emanez, ez du inork hitzik ere egingo, eta batzarkideak sakabanatu egingo dira (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 46-50. orr.). Honek berak aitortzen du Arnoldoren izena ospetsuagoa izaki, honen esana guztiek ontzat ematen dutela.

(41) "J'appelle évidemment ce type de récit, où les récurrences de l'énoncé ne répon-

esana, Amando apezpikuarena, kontalariarena eta hauek jarri duten tesiaren froga Ozinbeltzen batzarrean bilduta zeuden euskaldunek azalduko dute. Eta korolarioa azkenik Portunek jarriko dio. Baina Arnoldo bera ez da kontaketan azaldu kualifikazio horien jabe egin zezaketen ekintza hipotetiko batzuren subjetu. Historia hasten deneko denbora baino lehenagokoei zor zaie balorazio hori, eta irakurlearri modu labur batez azaltzen zaio analepsiaren bidez.

Berbaldi-errepetizio hau azpimarragarria da testu osoari begira, kontrastatu egiten bait du hainbat unetan kontalariak egiten duen ekonomizatze narratiboarekin. Denbora-marketan, leku-marketan, elipsi inplizitu eta espliziturtuetan... hainbeste narrazio "aurreratu" duen kontalariak ez du narrazioa "xahutzeko" ardurarik izan, Arnoldok euskaldunen artean daukan ospea azaltzean.

Narrazio-modu selektiboa da **Auñemendiko Lore**arena, **Kresala**rena eta **Garoa**rena izango den bezala.

Errepetizio hau funtzionala bihurtuko da matazaren garapenari begira; izan ere, berbaldi-errepetizio honetan pertsonaia desberdinek eta kontalariak jarri dioten atribuzio hori galdu egingo bait du Arnoldok. Ez kontalariarentzat, ezta izen propio baten jabe izan —Andre Luzia, Amando, Portun— eta atribuzio hori eskaini dioten zenbaitentzat ere. Baina bai Ozinbeltzeko batzarrean zeuden gehienentzat. Bizitzan zehar Euskal Herriarekiko azaldu duen maitasuna, analepsiaren bidez kontatua eta aurrehistoriako ekintzetan sustraitua, elebeerrian barrena kontatzen den historiaren aurrehistoriako eta historiaren hastapenetako sentimenduan soilik gelditzuko da; izan ere, mataza garatzen ari delarik une konkretu batean ukatu egingo bait zaio orainaldi horretan Euskal Herriarekiko maitasuna; eta, honenbestez, galdu egingo du lehen zuen ospea. Baina maitasun hori ez zaio ukatzen bere jarrera aldatu duelako edo bere sentimenduek eboluzioren bat izan dutelako, baizik eta zenbait zantzu eta zurrumurru direla medio. Zurrumurru hauetan oinarrituz aldatu da jarreraz bere bizitzan sorterriaren alde egindakoez irabazitako atribuzioaren euslea: euskaldungoa.

Oso egun gutxiren buruan gauzatzen da berbaldi-errepetizio hau. Astelehen arratsalde batean hasten da kontaketa eta astelehen

---

dent à aucune récurrence d'événements, récit **répétitif** ". GENETTE, G.; **Figures III**, Editions du Seuil, Paris, 1972, 147. or.

talari orojakile hau. Eta, honenbestez, irakurleak ontzat eman ditzake pertsonaiek Mendiolari eta hau ordezkatzen duen Arnoldori ezarritako atribuzioak, nahiz eta oraindik fikzioaren denboran ez erakutsi atribuzio hori merezi duen, ez ekintzen, ez esanen bidez.

Nolanahi ere, zalantza-izpirik geldi ez dadin, euskaldungoa bera etorriko da eszenara kontalariak eta pertsonaiak Arnoldori aitortutako atribuzioak sendotzera (40). Arnoldok galderak egin ahala, Ozinbeltzen batzarrean bilduta dauden euskaldunek aho batez deklaratuko dute ospe hori:

> "—Euskaldunak, ¿ezagututen nazue ni?
> —Bai, iauna, —erantzuten dabe danak batera.
> —¿Euskaldun ontzat naukazute?
> —Bai, iauna. ¿Zein obea?
> —¿Ukatu deutsat nik iñoiz Euskalerriari nire beso ta nire odola?
> —Ez iauna, iñoiz bere ez" (**Auñemendiko Lorea**, I, 48. or.).

Azkenik eta, orain arte bezala, Arnoldori aitortzen zaion atribuzio honek berbaldian duen agerpen-ordenari jarraiki —lehena Andre Luziarena da, bigarrena Amandorena, hirugarrena kontalariarena, laugarrena Ozinbeltzeko batzarkideena—, Portunek bere bakarrizketan egiten duen baiezpena ere aipagarria dateke. Portunek berak aitortzen du Arnoldok ospea duela euskaldunen artean:

> "¿Ta gaur illuntzean Arnoldok esan dabena? Milla aiñaniñuen agurea! Bere eskuetan egoan ba dana. Berak esan baleu '¡gudara!', euskaldun guztiak gudara ioango ziran; baiña berak ezetz esan dabelako, ezetz beste guztiak bere. Iakiña da emen. Izen aundikoa izan da beti ta..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 74. or.).

"Arnoldo ospe handiko gizona auñemenditarren artean" esakunea behin eta berriz errepikatzen da pertsonaia desberdin eta kontalariaren esanetan aldaera estilistiko desberdinekin. Berbaldi errepetitiboa da (41). Puntu berean jo eta jo egiten da. Andre Luziaren

---

(40) Ozinbeltzeko batzarrean Uberok Aitz barrengo gertaeran (Portunen eta frankotarraren arteko borrokan) arrazoia frankotarraren aldean dagoela esaten duenean, garraxiak eta deiadarrak entzuten dira batzarkideen artean. Baina Arnoldok hitz egitean frankotarrari arrazoia emanez, ez du inork hitzik ere egingo, eta batzarkideak sakabanatu egingo dira (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 46-50. orr.). Honek berak aitortzen du Arnoldoren izena ospetsuagoa izaki, honen esana guztiek ontzat ematen dutela.

(41) "J'appelle évidemment ce type de récit, où les récurrences de l'énoncé ne répon-

esana, Amando apezpikuarena, kontalariarena eta hauek jarri duten tesiaren froga Ozinbeltzen batzarrean bilduta zeuden euskaldunek azalduko dute. Eta korolarioa azkenik Portunek jarriko dio. Baina Arnoldo bera ez da kontaketan azaldu kualifikazio horien jabe egin zezaketen ekintza hipotetiko batzuren subjetu. Historia hasten deneko denbora baino lehenagokoei zor zaie balorazio hori, eta irakurlearri modu labur batez azaltzen zaio analepsiaren bidez.

Berbaldi-errepetizio hau azpimarragarria da testu osoari begira, kontrastatu egiten bait du hainbat unetan kontalariak egiten duen ekonomizatze narratiboarekin. Denbora-marketan, leku-marketan, elipsi inplizitu eta esplizituetan... hainbeste narrazio "aurreratu" duen kontalariak ez du narrazioa "xahutzeko" ardurarik izan, Arnoldok euskaldunen artean daukan ospea azaltzean.

Narrazio-modu selektiboa da **Auñemendiko Lore**arena, **Kresala**rena eta **Garoa**rena izango den bezala.

Errepetizio hau funtzionala bihurtuko da matazaren garapenari begira; izan ere, berbaldi-errepetizio honetan pertsonaia desberdinek eta kontalariak jarri dioten atribuzio hori galdu egingo bait du Arnoldok. Ez kontalariarentzat, ezta izen propio baten jabe izan —Andre Luzia, Amando, Portun— eta atribuzio hori eskaini dioten zenbaitentzat ere. Baina bai Ozinbeltzeko batzarrean zeuden gehienentzat. Bizitzan zehar Euskal Herriarekiko azaldu duen maitasuna, analepsiaren bidez kontatua eta aurrehistoriako ekintzetan sustraitua, eleberrian barrena kontatzen den historiaren aurrehistoriako eta historiaren hastapenetako sentimenduan soilik geldituko da; izan ere, mataza garatzen ari delarik une konkretu batean ukatu egingo bait zaio orainaldi horretan Euskal Herriarekiko maitasuna; eta, honenbestez, galdu egingo du lehen zuen ospea. Baina maitasun hori ez zaio ukatzen bere jarrera aldatu duelako edo bere sentimenduek eboluzioren bat izan dutelako, baizik eta zenbait zantzu eta zurrumurru direla medio. Zurrumurru hauetan oinarrituz aldatu da jarreraz bere bizitzan sorterriaren alde egindakoez irabazitako atribuzioaren euslea: euskaldungoa.

Oso egun gutxiren buruan gauzatzen da berbaldi-errepetizio hau. Astelehen arratsalde batean hasten da kontaketa eta astelehen

---

dent à aucune récurrence d'événements, récit **répétitif** ". GENETTE, G.; **Figures III**, Editions du Seuil, Paris, 1972, 147. or.

arratsalde horretan azalduko dio Andre Luziak Riktrudisi euskaldunen artean zein izen haundikoa den Arnoldo. Astelehen goiz horretantxe, gauza berbera adierazi dio Amando apezpikuak Riktrudisi. Honek analepsira joz Amandorekin goiz horretan izandako elkarrizketaren berri emango dio Andre Luziari, analepsi horretan zuzen-zuzenean transkribatuz apezpikuarekin izandako elkarrizketa.

Ez dago jakiterik Ozinbeltzen batzarrean daudenen esanek zein-nolako denbora-harremana duten aurrekoekin. Ziur esan daitekeena hau da: kontaketan ez ezik, historian ere aurrekoak baino beranduago ematen direla; izan ere, Mendiolako "gizategian" Andre Luziaren eta Riktrudisen elkarrizketa "entzun" ondoren Ozinbeltzeko batzarrera abiatuko bait da kontalaria. Baina ez du aditzera ematen zenbat denbora igaro duen "bidaia" horretan. Batzarkideek Arnoldori bere ospea aitortzen dioten egun bereko gauean aitortuko dio Portunek. Beraz, pentsa daiteke oso denbora-epe txikiaren barnean ematen dela berbaldi-errepetizio hau.

Auñemendiko Lorean fikzioak irauten duen denbora —urteak— kontaketara eramatean, kontalariak batipat sekuentziak eraikitzen dituzten proposizioak kontatzeko edo-ta erakusteko erabiltzen du. Ez horrela proposizio batetik besterako "iraganbidea" kontatzeko edo erakusteko. **Auñemendiko Lorean** ez da proposizio batetik besterako "prozesurik" eramaten kontaketara. Kontaketa hurrengo proposizioan kokatzen da. **Auñemendiko Lorearen** kontalariak fikzioak irauten duen denbora narraziora eramatean duen jokabidea honako bi hauetara labur daiteke orohar:

a) Sekuentzia osatzen duten proposizioak kontatu edo-ta erakutsi.

b) Zenbait proposizio errepikatu, zenbait pertsonaia desberdinek darabiltzaten aldaera estilistiko desberdinetan oinarrituz. Errepikatzen diren proposizio hauek ez dira proposizio atributiboak soilik. Aditzezko proposizioak (42) ere errepikatzen dira; hala nola, esate baterako, Adalbaldok eta Portunek Aitz barrengo eliz aurrean izan zuten borroka.

Jokabide honek proposizio batetik besterako "tarteetan" isilune luzeak —gehienetan inplizituak— dakartza kontaketara.

(42) Tz. Todorov-ek atribuziozko proposizioak eta aditzezko proposizioak bereizten ditu. Ikus TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 26. or.

Fikzioak irauten duen denbora ez da erabiltzen narrazioan "prozesuak" kontatzeko edo erakusteko —nola hasten den Portunengan Mendiolako Arnoldo mendekatu nahia, zein barne-prozesu daraman horretara heltzeko, Adalbaldoren maitemintze-prozesua, Riktrudisek gurasoak hil ondoren egunez egun bizi duen bakardadea ...—; gertaerak udaberrian, udan, udazkenean etab. kokatzen dira. Mugagabetasun erlatibo honek biziki kontrastatzen du kontalariak behin udaberri, uda edo dena delako garaian hautatzen duen egunen bat narraziora ekartzean hartzen duen jokabidearekin: hainbat eta hainbat bider "hautatutako" egun horretan orduak ere zenbatu egiten ditu. Berbaldia udaberriko astelehen arratsalde batean hasten da Andre Luzia eta Riktrudisen arteko elkarrizketarekin. Elkarrekin mintzatzen ari diren une hauetan Riktrudisek esango du: "Lau ordu badira Pedro Marik Ozinbeltzerontz neure aginduz urten dabela" (**Auñemendiko Lorea**, I, 22. or.). Ozinbeltzeko batzarre biharamunean —udaberriko egunen bat— Riktrudis eta Arnoldo Amandorengana joatean, hau Adalbaldorekin dago; eta honi buruz, besteak beste, honako hau esango die Amandok: "Neu ikustera etorri da, oindiño ordu bete eztala" (**Auñemendiko Lorea**, I, 96. or.). Udazkeneko egunen batean gogoetetan murgildurik dabilen Riktrudisek elkarrizketa labur bat izango du Portunekin "ordekan". "Ordekatik etxera ioan da ordu bete inguru geroago" (**Auñemendiko Lorea**, II, 58. or.) helduko da Amando Mendiolara albiste garrantzitsu batekin.

"Arnoldo gizon ospetsua" proposizio horren berbaldi-errepetizioa ez da zehatz-mehatz kokatuko denboraren ardatzean, proposiziorik gehienekin gertatzen den legez. Baina, dena den, honako garrantzi hau besterik ez du: bai gertaeren kronologiari dagokionez eta bai berbaldian agertze-ordenari dagokionez, hurrengo proposizioa baino aurreragokoa izatea.

Besteek Arnoldori ezarritako ezaugarri hau bihurtuko da ezaugarririk funtzionalena matazaren garapenerako. Baina honen aldamenean badira beste zenbait ezaugarri ere Arnoldo karakterizatzeko, nahiz eta funtzionaltasunez zertxobait apalago azaldu matazaren garapenean. Ezaugarri hauek eremu semantiko desberdinak hartzen dituzte:

—maitasuna familiari, bereziki Riktrudisi;
—maitasuna Euskal Herriari (hau da ospe horren sortzailea);
—maitasuna Jaungoikoari.

Arnoldok familiari eta bereziki alabari eskainitako maitasuna behin eta berriz errepikatuko da berbaldian, pertsonaia desberdinen ahotan eta aldaera estilistiko desberdinez. Arnoldok Riktrudisi dion maitasuna aitortzen ere Andre Luzia da lehena:

> "Gure semeak il ziranezkerotik, Aita zarrak zankoa loturik dauka etxean, zu ikustean dauka bere poztasun bakarra, ta eztau etxetik urteten zeregiñ andi ta premiñazkoren batek deitu ezik" (**Auñemendiko Lorea**, I, 14. or.).

Riktrudisek berak ematen du ontzat amaren ikuspegi hau:

> "Zeuk esaten deustazu, Ama, nire Aitak maite nabela, ni ikustean daukala bere poztasun bakarra, neuk bere badakit Arnoldo zarraren biotz leiñargiak zenbateraiño naben maite, bere mingoztasunen eztigarritzat naukala, bere aingeru iagole zerutarkotzat, milla bidar adierazoten emon deustanez" (**Auñemendiko Lorea**, I, 22. or.).

Orain arte bezala jarraiki, aitorpen honek berbaldian hartzen duen agerpen-ordenaren harian, buka dezagun enuntziatu-errepetizio hau eta Amandorena aipatuz. Euskaldunen eta frankotarren artean gerrarik egon ez dadin, Apezpikuak Riktrudisen laguntza eskatzean honela mintzo zaio Amando, gero Riktrudisek Andre Luziarekin duen elkarrizketan egiten duen analepsiari esker ezagutzera ematen duenez:

> "Zure Aitak zure begietatik ikusten dau" (**Auñemendiko Lorea**, I, 34. or.).

Azkenik, badu Arnoldok hirugarren maitasun-gune bat bere ikuspegitik lehena eta garrantzizkoena: Jaungoikoa. Maitasun-gune honek bereizten ditu euskaldunak kolektibitate legez. Batzu Kristoren jarraitzaile dira; beste batzu, berriz, "fede zarrekoak", Portunen hitzak jasoz (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 76. or.). Berbaldi-errepetizioaren bidez Arnoldok berak joko du bere burua kristautzat. Ozinbeltzen batzarrean, Portunen eta Adalbaldoren arteko borroka dela-ta, frankotarren aurka gerra bati ekin ala ez erabakizun, honela mintzo zaie Arnoldo batzarkideei:

> "Ozinbelzko iauregia ezta Kristoren siñizmenekoa, beste euskal etxadi asko eztiran legez, da iauregi orretako semeak prankotarra kristiñaua dalako iraindu dabenean, ni iraindu nau ta bezte kristiñau asko iraindu gaitu, kristiñau bizi kristiñau il nai dogulako" (**Auñemendiko Lorea**, I, 48. or.).

Edo Adalbaldori Amandoren etxean:

> "Iesusen sinizmenekoa nazanari eskerrak: sinizmen orrek ipinten dau nire biotzean ezti pizka bat, gero neure semeakaz bat egingo nazala erakutsirik; sinizmen orrek agintzen deust neure areriua maitetuteko, ta maitetuten dot, ustez" (**Auñemendiko Lorea**, I, 104. or.).

Bi maitasun-gune hauek ere, arestian esan denez, funtzionalak bihurtzen dira matazaren garapenean, nahiz eta funtzionalena Euskal Herriarekiko maitasuna izan. Beste bi maitasun-gune hauek zantzuen mailan (43) kokatuko lirateke eta, honenbestez, funtzio integratzaileen mailan. Izan ere, aurrerago azalduko denez, Arnoldok Riktrudisi dion maitasunak eta bere kristau-sinismenaren eraginez Adalbaldo frankotarrari Amandoren etxean ematen dion besarkadak eramango dituzte euskaldunik gehienak Arnoldo herri-saltzailetzat jotzera. Maitasun-gune bi horietatik sortutako zantzuak izango dira hirugarren maitasun-gunearen ukazioaren oinarri.

Hiru maitasun-gune horien mugetan, kupidagabe errepikatzen diren hiru maitasun-guneetan, hasiko da Arnoldoren abentura; hobeto esanda, Arnoldori egin araziko dioten abentura; berak ez bait du bilatuko abenturarik, baina bai beste norbaitena jasan beharko. Orekan dagoen Arnoldoren bizitzara perturbazioa helduko da.

b) Perturbazioa: herri-saltzaile salaketa

Maitasun-historia ez-egokitu batek dakar perturbazioa edo asaldura Arnoldoren bizitzara. Maitasun ez-egokitu honetan dago Portun ekintzara bultzatuko duen motiboa.

Arnoldok jasango du, gertaeretan partaide izan gabe jasan ere, Riktrudisek Adalbaldo frankotar kristaua Portun euskaldun ez-kristaua baino atseginagoa izatea.

Berbaldi-errepetizioaren bidez behin eta berriz entzungo da per-

---

(43) "En cuanto a la segunda gran clase de unidades narrativas (Los Indicios), clase integradora, las unidades que allí se encuentran tienen en común el no poder ser saturadas (completadas) sino a nivel de los personajes o de la narración; (...) sin embargo, es posible distinguir **indicios** propiamente dichos, que remiten a un carácter, a un sentimiento, a una atmósfera (por ejemplo de sospecha), a una filosofía, e **informaciones**, que sirven para identificar, para situar en el tiempo y en el espacio". BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 21. or.

tsonaia desberdinen ahotsetan "Portun Riktrudisez maitemindurik dago" esakunea, aldaera estilistiko desberdinekin.

Berbaldian hartzen duen agerpen-ordenari jarraiki, Riktrudisek berak adierazten dio Andre Luziari:

> "Zeuk badakizu —iarraitu eban emen Riktrudisek, dana lotsakarturik, arpegia sugarretan eukala— badakizu Ozinbeltzeko seme nagusiak... Iñoiz ezteutsat arpegira begiratu, egundo eztau berba bat nire aotik entzun, kristinauen areriua dalako" (**Auñemendiko Lorea**, I, 24. or.).

Eten-puntuek adierazgarri egiten dute Riktrudisek esana, hurrengo Ozinbeltzeko batzarra amaitu ondoren etxerantz doan donibanetar baten ahotsean errepikatuko dena.

Ozinbeltzen bildu den gizon-aldra horretatik oso gutxi dakartza kontalariak narraziora izen propioarekin, karakterizazio minimoarekin. Izen propiodunak euskaldunen "nagusi ta buruak" dira: Arnoldo Mendiolako jauna, Ozinbeltzeko Otxoa, Portun, Otxoaren semea, Diego Etxalar, Ubero Ezpeletako jauna. Gainontzekoak gizon-aldra horretako partaide soilak dira, gutxienezko indibidualizaziorik gabeak.

Euskaldunen "nagusi ta buru" izan gabe, bi pertsonaia etorriko dira gizon-aldra horretatik kontaketara izen propioarekin: bata, Peru Padarra koblakaria, aurrerantzean kontaketan bere lekua irabaziko duena; bestea, Manuel. Manuel kontaketara behin bakarrik etortzeko egiten da izen propioaren jabe. Bertan "Portun Riktrudisez maitemindurik dago" enuntziatua errepikatzeko da, bere bidailagun erkidearen galderari erantzunaz:

> "—Zergaitik deitzak, Manuel, ain umill da itz bigunekoa egon dala gaur Portun, berez aiñ arro putza izanda?
>
> —¿Ez aldakik? Urteak dira gizon ori Riktrudisen atzean dabillela-ta..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 52. or.).

Azkenik Portunek berak baieztuko du laugarren kapitulu osoan barrena daukan bakarrizketan:

> "Bai, Riktrudis maitea, Riktrudis gurgarria, bai: nai dozun guztia egingo dot zugaitik: auspeztuko natxatzu, umilduko natxatzu ta..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 82. or.).

Ezagutu zuen une berean maitemindu zen Portun Riktrudisez.

Bi urte igaro dira ordutik Ozinbeltzen euskaldunek egiten dute batzarrera. Portunek bere bakarrizketan analepsira joz kontatuko du egun hura batzarra bukatu denean. Gerokoaz Portunek dio:

> "Eztot geiago, orduan baizen ondo, neure aurrean billatu, amaika bidar Mendiolako aldean ibilli naz baiña. Beti Arnoldo, beti andre Luzia, beti arpegi illuna, beti txoria gordeta ta azkenean ateak itxi. Ta ori neuri bakarrik, bada edonoiz dagoz Mendiolako ateak zabalik, edozeiñek arkituten dau etxe atan abegi ona: erbestekoak, eta euskaldunak eztiranak bere bai" (**Auñemendiko Lorea**, I, 80. or.).

Orain, fikzioari hasiera eman zaion denbora honetan, gerra-oihartzunak euskaldunak Ozinbeltzen bildu dituenean, Riktrudisek Pedro Mari morroia mandatari legez bidaltzen dio Portuni: "nigaitik ezer egin nai badau Portunek, amatau daiala gudarako sua edo gitxienez, egin daiala zerbait nire Aita gudara ioan eztediñ..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 24. or.).

Mandatu honek galderaz eta itxaropenez betetzen du Portun:

> "—¡Maitetuko etenau bada! Au gozotasun guztien iturburu amaibagakoa izango litzateke niretzat. Irudituteagaz bakarrik pozaren-pozez zoratu bear iat" (**Auñemendiko Lorea**, I, 78. or.).

Esperantzak ekitera bultzatuko du Portun. Eta Riktrudisen mandatua jaso duen egun horretan bertan gorputz hartuko du loak baino lehenago ekitera igaroteko lehen asmoak:

> "Riktrudisen barriak iakiteko ostera, or daukat Lope Nagi" (**Auñemendiko Lorea**, I, 82-84. orr.).

Bakarrizketan adierazitako asmoa hurrengo egunean bertan gauzatuko du. Eszena batek erakutsiko du Portun eta Lope Nagiren arteko elkarrizketa eta lehenak bigarrenari egiten dion eskaera: "Mendiolako barriak neuri noizean bein ekartea, ta neureak, bear bada, Riktrudisi eroatea" (**Auñemendiko Lorea**, I, 122. or.). Elkarrizketa berean lehen eginkizuna jartzen da: "—Lenengo egin bear deustakana da, etxera oanean, gorantziak emon Riktrudisi, ta ikusi ondo zelango arpegia ipinten daben berak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 122. or.). Baina eskaera honek hizpidea sortuko du, eta Lope Nagik adieraziko dio Portuni beste batek —Adalbaldok, hain zuzen— gauza berbera eskatu diola. Berri honek beste eskaera bat egitera bultzatzen du Portun:

> "—Emon gero Riktrudiseri prankotarraren eskumunak eta entzun ondo zer esaten daben" (**Auñemendiko Lorea**, I, 126. or.).

Kualifikazioak eta egoera bati buruzko aurkezpenak bukatzean, berbaldi-errepetizioa ere amaitu eta kontaketa singulatibo bat (44) hasten da.

Gertaerek izugarrizko abiada hartuko dute. Iluntze horretan bertan beteko du Lope Nagik Portunek eginiko eskaera, eta kinesikari (45) esker igartzen du Lope Nagik Riktrudisen jarrera bere pretendenteekiko.

Lope Nagik, Mendiolako morroiak, Riktrudisen aurpegian somatutakoa Portuni adierazi orduko, Riktrudisek gogokoagoa duela frankotarra Portun bera baino, hasiko dira Arnoldoren aurkako erasoak.

Aktante-subjetuaren funtzioa betetzen duen Portunek porrota jasoko du bere objetuaren bilaketan, Riktrudisen maitasunarenean. Eta horrek beste ekintza batera bultzatuko du, nahiz eta ekintza hau "esanera", zerbaiten esakuntzara mugatu. Portunek enuntziatzen duenaren subjetua Arnoldo da; eta subjetu horri iratxekitako atributua, "herri-saltzailea"rena. Riktrudisengan bere sentimenduak nahi bezalako oihartzuna ez izateak, hirugarren pertsonaia baten aurkako "ekintzak" sortuko ditu: Arnoldoren aurkakoak. Bi pertsonaien arteko maitasun ez-egokitu batek ekarriko du hirugarren bati sorterriari dion maitasuna ukatzea. Hau da Portunen erantzuna Riktrudisen jarrera hotzari eta jarrera hotz honek berarengan sortu duen egon-eziari.

Beste zenbait unetan bezala, kontalariak utzi egiten du historia kontatzeko zerabilen hirugarren pertsona, eta lehen pertsonan eta ziurtasun osoz eskaintzen du Arnoldoren aurkako erasoaren iturburua, galdera erretoriko baten ondoren:

> "Nondik baiña urten eteeban Arnoldoren kontrako salgaista oker bidebagakoak? Ezta beti errez izaten, olango ipuin dongeak bere

(44) "je l'appellerai désormais récit **singulatif** —néologisme transparent j'espère, que l'on allégera parfois en employant dans le même sens technique l'adjectif 'singulier': scène singulative ou singulière". GENETTE, G.; **Figures**, III, 146. or.

(45) "La semiótica del gesto o kinésika, permite una interpretación de los comportamientos humanos en cuanto dejan huella visual en la apariencia sensible de los personajes y en cuanto que alguien percibe esa huella y la transcribe en signos lingüísticos". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 112. or.

iturburu ta abia nun eukiten daben erantzutea, baiña oraingoan badakit nik. Portun da Loperengandik etorren dana" (**Auñemendiko Lorea**, I, 170. or.).

Eta Ozinbeltzen Arnoldoren ospea eta honen Euskal Herriarekiko maitasuna aldarrikatzen zutenak bere traidore-izaera aldarrikatzen hasiko dira:

> "Asi ziran ienteak ortik eta emetik bata ta bestea esaten: batzuk, lotsagaldukoenak edo biotzik baltzenetakoak, salkindaria zala Arnoldo; beste batzuk, alabea ezkontzeagaitik prankotarren adiskide zala; norbaitek, Mendiolakoa, beti izan zala arro andi bat, eta oraiñ, bera ezertarako gauza etzanean, prankotarrakaz gudarik ezebala nai, bere izenaren argitasuna iñok illundu ezeian" (**Auñemendiko Lorea**, I, 166. or.).

Hiru ezaugarrik karakterizatzen zuten Arnoldo pertsonaia: familiarenganako maitasunak —batipat Riktrudisenganakoak—, Euskal Herriarenganakoak eta Jaungoikoarenganakoak. Bigarren maitasun-gunea ukatzen zaio, baina ukazio horretarako zantzuak beste bi maitasun-guneek sortzen dituzte.

Jaungoikoarenganako maitasunak darama Arnoldo Ozinbeltzeko batzarrean frankotarrari arrazoia aitortzera. Jaungoikoarenganako maitasunak hurbiltzen ditu Adalbaldo eta Arnoldo Amandoren etxean. Baina, bai filosofian eta bai literaturan tradizio handia duen egiaren eta itxuraren arteko jokora joz, beste interpretazio bat jasoko dute Arnoldoren jarrera horiek, Portunen eta Lope Nagiren azpilanari esker. Hor daude gertaerak: Ozinbeltzeko batzarrean Arnoldok frankotarrari ematen dio arrazoia eta ez du gerrarik nahi, eta Amandoren etxean Adalbaldorekin elkarrizketatu da. Horietan oinarri dute euskaldun kolektibitatearen esamesek. Baina egiak besterik dio.

Auñemendiko Lorearen kontalariak egia zein den erakutsi dio narratarioari (46): behin eta berriz errepikatu dio nolakoa den Arnoldo pertsonaia desberdinen ahotsetan, eta behin eta berriz errepikatu du bere ahotsean zer gertatu zen Aitz barrengo eliz aurrean Portunen eta Adalbaldoren artean.

---

(46) G. Prince-k darabilen zentzuan. Ik. PRINCE, G.; "Introduction à l'étude du narrataire" in **Poetique**, IV, 1973, bereziki 178-180. orr. **Auñemendiko Loreako** kontalariak lehen lerrotik bertatik bidailagun hartzen duen fikziozko izaki horrek pertsonaiak baino askoz gehiago daki.

Aitz barrengo eliz aurrean gertaturikoak sortzen du Ozinbeltzeko batzarra. Gertaera hau lehenik Riktrudisek Andre Luziari kontatzen dio, Amandok kontatu dion bezala, Amando beraren ahotsean (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 32-34. orr.); bertsio honen laburpen bat eskaintzen dio Pedro Marik Arnoldori eszenaren bidez Ozinbeltzen (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 42. or.); azkenik, Adalbaldok —gertaeraren protagonistetako batek— Amandori azalduko dio analepsira joz, Portunek eta berak gurutzatuko hitzak zuzen-zuzenean ekarriz. Hiru bertsioak bat datoz, xehetasun gehiagorekin edo gutxiagorekin jasoak direla. Aldaera estilistiko desberdinekin "Portunek kristauak iraindu ditu" proposizioa errepikatzen da.

Era berean, kontalariak erakutsi dio narratarioari Amandoren etxean Adalbaldok eta Arnoldok izandako elkarrizketa. Bien elkartzea kasualitate hutsa izaki, elkarrizketak agerian utziko du Arnoldo ez dela saldu.

Nahiz eta "guzurrak egiaren itxurea eukan da egia balitz legez ebillen aotik aora" (**Auñemendiko Lorea**, I, 172. or.), Arnoldoren jokabideek sortutako zantzuengatik narratarioak badaki itxurak egia estaltzen duela, ateratako ondorioak faltsuak direla.

Narratarioak du berririk gehien, kontalariak hartutako ikuspuntuari eta kontatze-moduei esker; eta, honenbestez, badaki zeri zor zaion Portun, Lope Nagi eta gainontzeko zurrumurru-zabaltzaileen jokabidea.

Arnoldoren bi ezaugarrik —kristautasunak eta Riktrudisekiko maitasunak— hirugarrena ukatzeko zantzuak jartzen dituzte, eta ezaugarri horiekiko lotura-motaren bat dutenen artean bilatuko du ernetzeko lurrik aproposena Portunek ereindako haziak:

> "Orretarako gogoratu iakon errez da ugari billatuko zituala laguntzailleak gudarako gogoagaz egozanen artean, Riktrudisen eskua ukatu iakuenen artean, Kristoren legekoak nagusitzat ezin ikusi zituenen artean, Arnoldoren aginpideagaitik ondamuz beterik bizi ziranen artean, argitasun gitxiko iente sinizkorren artean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 170. or.).

Euskaldungoaren gehiengoak ontzat emango du Portunek dioena, eta kolektibitate legez etorriko dira berriro ere narraziora kontalariak hauen jarreraren laburpena egitean. Arnoldoren ospea defendatzeko inor gutxi gelditzen da; izen propioarekin azaltzen diren gutxi batzu: Ubero, Pedro Mari, Amando.

Azkenean Arnoldoren ezaguerara helduko dira zurrumurru hauek, bere bizitzara desoreka-giroa ekarriz. Pedro Mari alabeharrez izango da mandatari. Kontalariak eszenaren erabilerara joko du matazaren garapenean hain garrantzitsua izango den une hau azaltzeko, une singular hau erakusteko.

"Eliza-atetik" datoz Pedro Marik Arnoldo ugazabari ematen dizkion berriak. Han jo dute Arnoldo herri-saltzailetzat eta han jasotako albisteak damazkio Pedro Marik elkarrizketaren bidez Arnoldori.

Esamesak aurretik ere baziren. Nonahi zebiltzan ahoz aho. Baina "eliza-atetik" dator matazaren garapenean funtzionala bihurtuko den berria. Han defendatu du Pedro Marik ugazaba, eta han gertatutakoaren berri emango dio.

"Pedro Mari atzamarkadaz beteta etxeratu zan egunean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 172. or.) emango dio berria, egun zehazgabe batean. Eta Arnoldok "Zeiñek esan deusk" galdetzean, "Askok, eliza-atean egozan danak" erantzungo du (ik. **Auñemendiko Lorea**, I, 174. or.). Eliz ateak bakarrik zehazten du berriaren jatorria. Eta eliz atea bera ere ez da gehiago zehazten: ez non dagoen, ez zein izen propio duen...

Egun zehazgabe horretan eta eliz ate horretan Pedro Marik bakarrik defendatzen du Arnoldo.

Arnoldoz euskaldunek zuten iritzia aldatu egin da, berak iritziz aldatzeko ezer egin ez badu ere. Ozinbeltzeko batzarrean hartu zuen jarrera eta Adalbaldorekin izandako elkarrizketa dira iritzi-aldaketa prestatzeko erabilitako zantzuak.

Arnoldo "esanaren ekintzen" bidez jo dute aurreko proposizioan euskaldunen buruzagi ospetsutzat: Andre Luziaren, Amandoren, euskaldungoaren, kontalariaren, Portunen... esakuntzek karakterizatu dute. Proposizio honetan ere "esanaren ekintzen" bidez jotzen dute herri-saltzailetzat: Portunen, Lope Nagiren eta euskaldungoaren esakuntzek hori diote.

Zehaztu eta deskribatu gabeko egun batean, "iai bazkal-aurre" batean, zehaztu eta deskribatu gabeko eliz ate batetik datorren berriak ukatzen dio Arnoldori sorterriarenganako maitasuna. Beste maitasun-mota bat da ukazio honen eragilea: Portunek Riktrudisi dion maitasuna eta honek hark nahi lukeen erantzuna ez izatea. Ukazio honek kristauak ez direnen artean jasotzen du oihartzunik han-

diena. Maitasun-historia ez-egokitu bat hari gidari, maitasun patriotikoa eta maitasun transzendentea gurutzatzen hasi dira, Arnoldoren bizitzara desoreka ekarriz.

c) Desoreka: Arnoldoren ospearen heriotza

Herri-saltzailetzat jotzen dutela jakitean, atsegabe handia hartuko du Arnoldok. Hala dio kontalari orojakileak:

> "Lotsea, bekaitza ta arimako samintasun zakon bat neurribagea irakurri ziran Arnoldoren arpegian, berbakaz ezer ezeban agertu baiña. 'Otordua da ta iaizue'— esanaz, igo zan mandiotara ta an asi zan batera ta bestera bere gogamenakaz guda bizian" (**Auñemendiko Lorea**, I, 176. or.).

Hilerri bihurtzen da Mendiola. Kontalaria bera ere "gelditu" egiten da une batez, Mendiolak hartutako hilerri itxura deskribatzeko. Isiltasuna da nagusi.

Berriro, bigarren aldiz, heriotz honen iturburua errepikatzen da. Kontalariak esana zuen "sinizmen gaiztokoak zirala okerrenak Arnoldoren kontra" (**Auñemendiko Lorea**, I, 166. or.). Orain pertsonaiek —"buru argikoenek"— seinalatuko dute iturburu hori: "eriotzea Ozinbeltz-aldetik dator, sinizgaiztokoen eskuetatik" (**Auñemendiko Lorea**, I, 176. or.).

Honenbestez, Portunen asmoa bete da: har zezakeen "dxastadarik andiena" hartu du Arnoldok. Buruzagi ospetsu izatetik osperik gabea izatera igaro da; are gehiago, euskaldunik gehienentzat traidore izatera.

d) Indar-ekintza: ospearen berpizte bila

Bi pertsonaiek hartzen dute galdutako ospearen bila abiatzeko asmoa, nahiz eta ez batak eta ez besteak lortzeko behar adinbat denbora ez duten izango.

Riktrudisek berriro ere Pedro Mari morroia bidaliko du mandatari Ozinbeltzera aurrekoaren antzerako mezu batekin:

> "Bada Ozinbelzko mozoloagana ioan bear dozu, ta esan nik diñodala berak egin daben kaltea berberak aguro desegin daiala, nik iñoiz arpegira begiratutea gura badau" (**Auñemendiko Lorea**, I, 178. or.).

Arnoldok, bere aldetik, bakarrizketaren bidez azalduko du bere asmoa:

"Baiña nik eztaukat zergaitik lotsatu, ta gaur arratsaldean enparantzaren erdira urtengo dot, gizonik geien dagoan tokira, ta etxerik-etxe ioango naz gaiñera neure bekoki garbia erakusten" (**Auñemendiko Lorea**, I, 178. or.).

Kontalariak errepikatuko du asmo hau:

"Albistea artu barrian enparantzara urteteko asmoa eukan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 188. or.).

Azkenik, Arnoldok asmo hau Riktrudisi azalduko dio:

"Iolas-zelaira ioan bear dot, eta andik bekoki garbiagaz natorrenean, artuko dot gura dodana" (**Auñemendiko Lorea**, I, 188. or.).

Ospearen berpizte-bilaketa honetan bi aldetatik eragiten da: batetik, desorekaren sortzailearengana jotzen da —Portunengana—, desoreka sortutako berberari oreka bideratzeko eskatuz; bestetik, berriz, Arnoldo berak hartzen du bere burua defendatzeko erabakia.

Nolanahi ere, "indar-ekintza" hau asmotan soilik geratuko da: Arnoldo hil egingo da "iolas-zelaira" joan aurretik, Arnoldo hil egingo da Portun "Riktrudisi poztasun pizka bat emoteagaitik egiñalak" egiten hasi aurretik.

e) Oreka: heriotza bakardadean

Urteek eta jasotako atsekabeek heriotza dakarkiote. Eliz atetik etorritako berriak bizkortu egiten du heriotzaren etorrera. "Euskaldun-piztiak" aurreratu egin du heriotz hori. Andre Luziak "ill-gaua" kapituluan abesten duen eresiaren ahapaldi batean, euskaldun piztiei leporatzen die Arnoldoren heriotza:

"Zeiñek ian deutsaz, orma zarrari,
Zeiñek ian deutsaz azpiak?
Ez prankotarren balenka motzak
Ezpada euskaldun piztiak"
(**Auñemendiko Lorea**, II, 26. or.).

Familia eta Amando apezpikua bakarrik lagun hilgo da Arnoldo. Hil ondoren ere, familia, Pedro Mari morroi leiala eta Peru Padarra koblakaria besterik ez ditu izango gorpu aurrean ereslari. Arnoldo euskaldunen buruzagi ospetsua izandakoak ez du gainontzeko euskaldunen buruzagien agurrik jasoko. Herri-saltzailetzat jotzeak bizkortu du bere heriotza, eta herri-saltzaile bati ematen zaion tratamendua eman diote euskaldunen buruzagiek eta senitartekoek hil ondoren.

Pedro Mari morroiak eta Peru Padarra koblakariak bete behar dute hutsunea, Arnoldok aberriagatik egindakoak kantatuz.

Bizi arazi dioten abentura horrek Arnoldo pertsonaiaren egoera aldatu egin du, baina ez bere izaera... Arnoldok lehenean dirau eta heriotzaren aurrean ere, bizitzan zehar izandako hiru maitasun-guneak aitortuko ditu, nahiz eta euskaldunek herri-saltzailetzat jo duten:

> "—¡Maite!
> —¿Zein maite, aitatxo? —itaundu eutsan alabeak
> —Zu... ta ama... ta... euskaldunak.
> —¿Eta Iaungoikoa?
> —Iaungoikoa... geiago... eztirudi baiña" (**Auñemendiko Lorea**, I, 192. or.).

"Ill-gaua" kapituluan, gorpu aurrean ez du ereslari asko izango. Baina eresi desberdinetan ereslariek Arnoldoren hiru maitasun-gune hauek gogoratuko dituzte.

Riktrudisek berari eskaini dion maitasuna gogoratuko du:

> "'Aita bat neukan nik lurrean.
> —Maite ninduan, egunak eguzkia maitetuten daben gisara, gauak zeruko izarrak maite dituan antzera'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 28. or.).

Jaungoikoari eta Euskal Herriari eskaini dion maitasuna abestuko du Peru Padarrak, batipat Euskal Herriarenganakoa:

> "'Aitor il zanetik ona, ezteutsa iñok nire sorterriari zuk beste ondo egiterik emon'
>
> 'Kristiñau bizi ta kristiñau il zara'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 32. or.).

Arnoldok konstante gisa gorde ditu bera karakterizatzen zuten ezaugarriak euskaldungoak herri-saltzailetzat jo aurretik eta ondoren: maitasuna familiari, Euskal Herriari eta Jaungoikoari. Kontaketaren hasieran eta heriotza heltzen zaionean pertsonaia bera da Arnoldo: ezaugarri berdinak ditu, ezaugarri horietan tinko dirau.

1.1.1.2. *Riktrudisen historia: joskera narratiboa*

a) Oreka: Riktrudis, Auñemendiko Lorea

Kontalaria hasten da Riktrudis karakterizatzen, bere deskripzio

fisikoa eginez. Jadanik deskripzio fisiko horretan azaltzen dira aurrerantzean, nahiz konparazio moduan nahiz metafora moduan, Riktrudis izendatzeko maiz erabiliko diren bi izendapen:

> "Neskatilla gazteak zeruko aingeruen antzeko arpegi biribill gozo leuna eban; (...) ¡ta begi baltz batzuk bai!, eztitsuagoak ziran Mondarrain-mendiko lorarik eztitsuenak baiño" (**Auñemendiko Lorea**, I, 10. or).

Kontalariak deskripzio fisiko honetan Riktrudisen aurpegiaren konparazio-gai hartutako "zeruko aingeru" hori erabiliko da kontaketan barrena bere pertsona osoa izendatzeko. Bere begi beltzen konparazio-gai hartutako "Mondarrain-mendiko lorarik eztitsuenak baiño" hori erabiliko da bere pertsona osoa izendatzeko: lorea, nahiz "Auñemendiko lorea", nahiz "Euskalerriko lorea" metaforak.

Lehen kapituluan bertan doa karakterizatuz Riktrudis Andre Luzia eta Riktrudisen arteko elkarrizketan zehar, bai berak dioenari esker bai Andre Luziak alabari buruz dioenari esker. Andre Luziak mota honetako adierazpenak darabiltza Riktrudisi buruz: "beastun bagako usakumetxoa" (**Auñemendiko Lorea**, I, 26. or.), "kutuntxoa" (**Auñemendiko Lorea**, I, 28. or.), gurasoei gorde behar zaien errespetua gorde duena: "bein bere ezton, Iaunari eskerrak, gurasoen onerako eztan gauzarik egiñ" (**Auñemendiko Lorea**, I, 24. or.).

Andre Luziak elkarrizketan barrena egindako karakterizazio honek jarraipena du Portunen bakarrizketan: "eztia baiño gozoago dan neskatilla liraiñ" (**Auñemendiko Lorea**, I, 76. or.), Portun bera "beste munduetako gauza bat ikusi" balu bezala beldurtu egin zen Riktrudis ezagutzean.

Kontalariak ere Riktrudisen izaera deskribatzean bat egiten du pertsonaiekin:

> "Aiñ zan txukuna, aiñ zan garbia, aiñ zan begiratua, aiñ zan ona, aiñ zan burutsua, aiñ zan besteak ez langoa iaten, edaten, ibilten, itxuran da izketan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 130. or.).

Arnoldoren gorpu aurrean, "ill-gauan" zegoen atso batek ere honela zioen:

> "¡Ze bigun da eztitsu agertzen dituan aingerutxu orrek Iesusen legeko erakutsiak eta bere biotzeko gurari doneak!" (**Auñemendiko Lorea**, II, 30. or.).

Portunek berak Arnoldo herri-saltzailetzat jo ondoren ere ez du Riktrudisekiko ikuspegia aldatuko. Honela mintzatuko zaio Pedro Mari Mendiolako morroiari:

> "¡Riktrudis! ¡Riktrudis! Ori da bada kristiñauen artean daukazuen usain gozozko lorea, lora bakarra" (**Auñemendiko Lorea**, II, 8. or.).

Amandok eta Uberok "Euskalerriko Lorea" eta "Auñemendiko Lorea" metaforak darabiltzate bera izendatzerakoan.

Fikzioaren munduko pertsonaiek eta berauen sortzaileak pertsonaia paregabetzat jotzen duten Riktrudis, bere aita bezala, hiru maitasun-guneren arabera eraikita dago: familia, sorterria eta, hauen gainetik, Jaungoikoa. Hala dio berak behin eta berriz:

—Familiarenganako maitasuna:

> "Orixe da miñik andiena emango leuskidana, neure aita ta neure amagaitik zerbait esatea. Esan daiela nigaitik gura dabena, ezaindu daiela nire izena, il naiela ni, gura badabe; baiña itxi daiuela bakean nire gurasoen izen onari. ¡Ain dira onak! ¡Ain ditut maite!..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 152. or.).

—Sorterriarenganako maitasuna:

> "Beste edozeiñ emakume bestean euskalduna naz ni: neure sanetan neure anaia maiteen odola daroat, Mendiolako etxeko andrearen odola: ez neuke bildurrik izango euskaldun guztien aurretik, Aitaren ordez edo Aitagaz batean, neure erriko etsaien kontra, aizkora bat eskuan dodala ioateko, gure lurra, gure izkuntza edo gure izatea zematuaz baletoz; etsai ugariak ikusiarren nire aurrean, ezlitzateke orduan ikaratuko nire biotza, ez neuke dardararik izango nire besoan iente arrotzaren buruak erdibituteko" (**Auñemendiko Lorea**, I, 26. or.).

—Jaungoikoarenganako maitasuna:

> "baiña len, oraiñ, gero ta beti, Iaungoikoa lenengo, Iauna Lurbirako ondo izate ta maitetasun guztien aurretik, eta Iaungoikoari zor deutsadan maitetasuna galerazoteko balira lurbirakoak, egundaiño ez agertuteko eran ito ta ondatuko nituke, aterako neuke erraietatik kanpora neure biotza, ta zapalduko neuke neure oñazpian Iauna baiño geiagoan gizonik maitatu baiño lenago" (**Auñemendiko Lorea**, II, 50-52. orr.).

Matazaren garapenean barrena egiaztatzen du besteek berari bu-

ruz diotena eta berak bere buruaz dioena, esanen, keinuen eta ekintzen bidez.

b) Perturbazioa: herri-saltzaile salaketa

Auñemendiko Lorea herri-saltzaile bihurtuko da euskaldunik gehienentzat. Maitasun-historia egokitu batek dakar perturbazio edo asaldura Riktrudisen bizitzara.

Maitasun-historia ez-egokitu batek bezala Arnoldoren bizitzara, maitasun egokitu batek dakar perturbazio-giroa Riktrudisen bizitzara.

Riktrudis Adalbaldo duke frankotarrarekin ezkontzen da. Bi pertsonaien arteko maitasunak beste maitasun-gune bat ukituko du: izari soziala duen maitasun-gunea; izan ere, ezkontza hau dela medio, ukatu egingo bait zaio Riktrudisi Euskal Herriarenganako maitasuna:

> "'¡Egundo olangorik! —entzuten zan edonun— Riktrudis orrek esne epela zirudian baiña, berotu zan esnea, ta irakiñ da gaiñez egin bere bai Erriaganako maitetasunaren su-garra amatau arteraiño'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 78. or.).

Adalbaldo frankotarrarekin ezkontzeagatik, euskaldunek herri-saltzailetzat joko dute Riktrudis.

Arnoldoren historian bezala, izari pertsonala duen maitasunak izari soziala duen maitasunaren ukazioa dakar.

Riktrudis pertsonaia, bere aita bezala, hiru ezaugarrik karakterizatzen dute: familiarenganako maitasunak, Euskal Herriarenganakoak eta Jaungoikoarenganakoak. Hiru maitasun-guneak presente daude Riktrudisengan, Adalbaldoz maitemindu aurretik, maitemintzen denean ezkondu aurretik eta baita ezkondu ondoren ere.

Adalbaldoz maitemintzean bere egingo ditu Amandoren aholkuak eta Adalbaldorekin elkartzea, Euskal Herriarentzako ez ezik, kristau-sinismena indartzeko ere onuragarri bezala ikusi:

> "¡Baiña ori gauza andia zan! ¡Ainbat andia! Gizaldi luzeetan alkar ikusi eziñik egozan arraza biak, batak bestea ondatutea baizen beste gauzarik gogoan ezeuken erriak, ¡alkartu!
>
> Ta ona zana ezin ukatu zeitekean. Gizon guztiak aita baten semeak baziran, zerurako iaioak, danak anaiak legez bizi izatea bidezko gauzea zan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 148. or.).

Gurasoenganako maitasuna ere azalduko da Riktrudisen gogoe-

tetan une hauetan. Riktrudisek aurrez iragartzen du Adalbaldorekin ezkontzeak zer-nolako kalteak ekar diezazkiokeen bere etxadiari. Samintasun hauetatik kanpo utzi nahi ditu gurasoak:

> "Erri guztiari agergarri on bat emon behar iakola diño Amandok. ¡Ai, Amando, Amando! Agergarri orrek euskaldun askoren uko ta pukoak ekarri leikez nire gaiñera ta neure etxadi guztira bere bai. Orixe da miñik andiena emongo leuskidana, neure aita ta neure amagaitik zerbait esatea" (**Auñemendiko Lorea**, I, 152. or.).

Baina herri-saltzailetzat jotzen dute Adalbaldorekin ezkontzeko Mendiola uzten duenean. Ezkontza hau da salaketaren arrazoia. Maitasun pertsonal egokitu batek sortzen du izari soziala duen maitasunaren ukazioa.

Begien bistan gelditzen da Arnoldoren bizitzara asaldura edo perturbazioa dakarren gertaerarekiko aldea. Arnoldok jasan egiten ditu beste pertsonaia batzuk iharduletzat dituzten ekintza batzuren ondorioak, Riktrudis Portunez maitemindurik ez egotetik sortzen direnak, azken finean. Hemen Riktrudis bera da jasalea, Riktrudis jotzen bait dute herri-saltzailetzat; baina, bera da, izan ere, kualifikazio horri sorrera ematen dion gertaeraren subjetuetariko bat, Adalbaldo frankotarrarekin ezkontzean.

Berbaldi-errepetiziora joz, kontalariak behin eta berriz jarri du Riktrudisen ahotsean nahiz beste pertsonaiaren batenean honen Euskal Herriarekiko maitasuna, nahiz eta Riktrudis ez den kontaketara etorri maitasun hau frogatuko lukeen ekintza hipotetiko batzuren subjetutzat.

Arnoldoren historian bezala, Riktrudisen historia honetan ere, berau pertsonaia legez eraikitzen duten gainontzeko bi ezaugarriek —familiarekiko maitasunak eta Jaungoikoarekikoak— jartzen dituzte hirugarrena ukatzeko zantzuak.

Berriro ere, Arnoldoren historian bezala, Riktrudis herri-saltzailetzat jotzen ari den euskaldungoaren multzotik, izen propiorik gabe narraziora datorren aldra handi horretatik, ahots bat nabarmentzen da kontalariak horien jarreraz egiten duen laburpenera murrizturik gelditzen den ikuspegitik: Portunena. Bere hitzak, bere salaketa, zuzen transkribatzen du kontalariak, eta salaketa horretan agerian gelditzen da Riktrudis karakterizatzen duten beste bi maitasun-guneen eragina, Euskal Herriarenganakoa ukatzean haren ezkontza dela bitarteko:

"'Nik esan nituan gauzak urten dabe argitara, —zirautsan Portunek etxerik-etxe— Arnoldo salduta egoan da bere Sorterria saltzeko prest, eriotzea etorri iakonean. Bakotxari berea emon bear iako, ta nik ezagututen dot gaztetan Errizalea izan zala; baiña zartzara, bere alabeagaz txotxinduta, Riktrudis andi ikusteagaitik, errege-usaiñekoakaz ibilteagaitik, eta eliz-gizon arrotzaren esandeak entzunda, edozetara iarri zan. Da Aita ta Ama illarren, Riktrudis petralak eztau gero aztu gurasoen erakutsia, ta ekarri deutsa orain Euskalerriari izugarrizko lotsaria ta kaltea'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 78. or.).

Portunentzat Riktrudisen ezkontzaren erantzunkizuna Arnoldori dagokio. Honek aitaren esana jarraitu besterik ez du egin.

Honela, bada, auñemenditarrek Arnoldo herri-saltzailetzat jotzera eraman zituen arrazoiak luzapena izango du Riktrudis herri-saltzailetzat jotzerakoan; azken finean, Riktrudis Arnoldoren "ioskaiñea" besterik ez bait da.

Euskaldungoaren gehiengoak ontzat emango du Portunek dioena. Iñor gutxi gelditzen da Riktrudis defendatzeko. Bere aita defendatzeko gelditu zirenak baino gutxiago; Uberok ere ez bait du onartzen Riktrudisek egina.

Salaketa Arnoldoren ezaguerara heldu zen bezala helduko da Riktrudisen ezaguerara ere, desoreka-giroa ekarriz bere bizitzara. Beste morroi bat da mandatari: Lope Nagi Mendiolako morroia (Arnoldori berria Pedro Mari Mendiolako morroiak ematen dio). Arnoldoren historian bezala, kontalariak eszenaren erabilerara joko du matazaren garapenerako hain garrantzitsua izango den une hau azaltzeko.

"Eliza-aurreko enparantzatik" datoz berriak. Han defendatu ditu Peru Padarrak Mendiolakoak eta han hil dute Padarra koblakaria herri-saltzaileak defendatzeagatik.

"Ostrabentora baturiko euskaldun eztegulariak ia etxerako bideak artzeko asmoetan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 84. or.) zeudela heltzen da Lope Nagi, egun zehazgabe batean, Riktrudisi berria emateko. Riktrudisek "eztaukala gaur Mendiolan ez etxerik, ez abererik, ez solorik eta ez basorik" (**Auñemendiko Lorea**, II, 36. or.) dio Lope Nagik; ezta defendatuko duenik ere.

Auñemenditarrek Riktrudisez zeukaten iritzia aldatu egin da Adalbaldorekin ezkontzeagatik.

c) Desoreka: Auñemendiko Lorearen heriotza

Amandori Adalbaldorekin ezkonduko den hitza ematean, honela dio Riktrudisek aurrerantzean eramango duen jokabideaz:

> "Naroian tokira naroiala patuak edo Iaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz toki guztietan. Neugaz izango dira erririk-erri Euskalerria, bere izkerea ta bere ekanduak; euskerea erakutsiko dot non-nai, neure erritarren lege zarra adieraziko dot, al dotan giñoan. (...). Arima barruan gorderik gurari andi bi ditut: Mendiolara natorrenetan, euskaldunakgaitik egingo ditudan lan guztien sarigarritzat, menditarren aldetik arrera on bat aurkitutea: Iaun zerukoak Beregana deituten deustanean, fede ta lagun-urkoaren alde Lurrean erabilli ditudan arazo ta lanbide guztiakgaitik, zeru ederretan abegi on bat izatea" (**Auñemendiko Lorea**, II, 68-70. orr.).

Auñemendiko ateak itxi dizkiote Riktrudisi, bere gurarietariko bat ezereztuz eta bere Auñemendiko Lorea izate horren heriotza ekarriz.

Auñemendi eta Riktrudis jarrera kontrajarri batean daude, lehen ez bezala. Bat zetozenak aurka jarri dira:

> "Riktrudisen biotzak: '¡maitea! ¡neure maitea!' esaten eutsan Auñemendiri... ta Auñemendiko basoetatik erantzuten iakon: '¡madarikatua zu, ta madarikatuak zureak!'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 118. or.).

Honenbestez, Riktrudis Auñemendiko Lorea izatetik herri-saltzaile eta traidorea izatera heldu da.

d) Indar-ekintza: galdutako atributuaren bila

Zenbait pertsonaia abiatzen da modu batera ala bestera Riktrudisek galdutako atributuaren bila, oreka berri baten asmotan. Lope Nagik dakartzan albisteak entzunaz bat, Amandok bere asmoa azalduko du:

> "Arutz noa gaur bertatik, billatuko ditut biotz oneko gizon guztiak, danai berba egingo deutset, eta gauzak zerbait ondutea itxaron neike, fedegaiztoko gizon kurrukari baten iritzi ta gogoari ezin leiueke iarraitu euskaldun kristiñauak, eta ezteutse iarraituko" (**Auñemendiko Lorea**, II, 90. or.).

Asmo honi Riktrudis lotuko zaio: "—Neuk lagunduko neuskizu pozik, Adalbaldok gura izan ezkero— diño andra gazteak" (**Auñe-**

mendiko Lorea, II, 90. or.), nahiz eta gero egokiagotzat joko duten ez Riktrudis eta ez Adalbaldo joatea; azken honek "indarrean, gogorrean, guda soiñuan" joan beharko lukeelako.

Nolanahi ere, Adalbaldok beste proposamen bat egingo du sortutako desoreka honetatik irteteko. Honela mintzatuko zaio Riktrudisi:

> "—Zure Auñemendiko ondasun guztiak Euskalerriko landerrentzat istea, neureakaz naikoa ta geiegi daukagu-ta. Orretara ikusiko dabe zure erritarrak zure ondasunen billa eznazala ibilli, orretara ezagutuko dabe Euskalerriko agintaritzaren zale ez nazala. ¿Zer diñostazu, Riktrudis? ¿Zer diñozu, Amando iauna?" (**Auñemendiko Lorea**, II, 92. or.).

Proposamen hau eramango du Amandok Auñemendira. Begi onez ikusiko dute Ubero zaharrak eta bere seme Gaixparrek, eta jarreraz aldatuko dira Riktrudisengan sortutako desoreka hautsi eta oreka berri batera heltzeko. Honela mintzatuko da Ubero, Amandok Riktrudisek Auñemendin daukan hazienda behartsuentzat utzi duela adieraztean:

> "—¡Milla aingeruak! Ori alan bada, ta izango da zuk diñozunean, eztaukagu gudetan zergaitik asi. Geienez bere, Auñemendik emakume on bat galduko dau; baiña ez lurrik eta ..." (**Auñemendiko Lorea**, II, 108. or.).

Amandok eransten duenak lehengo lekuan utziko ditu Uberoren aurrean Riktrudisi dagozkion atributuak, ezkondu aurretik zeuden lekuan: "—Ezta emakumerik bere. Euskalerriko alabea, euskera zalea ta euskera zabaltzaillea izango da edonun" (**Auñemendiko Lorea**, II, 108. or.).

Amandoren esan hau Riktrudisek Adalbaldorekin ezkontzeko hitza ematen dionean esandakoan oinarritzen da, orduan euskaldun legez bizi izateko ematen duen hitzean.

Baina, nahiz eta Amandoren esanak ontzat hartu Ubero buruzagiak eta honen seme Gaixparrek, indar-ekintza honetatik ez da Riktrudisen bizitzara helduko oreka.

Arnoldoren historian, behin hau herri-saltzailetzat jo eta salaketa bere ezaguerara heldu, bi aldetatik eragiten da ospearen berpiztearen bilaketan. Batetik, desorekaren sortzailearengana jotzen da, Portunengana: desoreka hori hautsiko duen ekintza bideratzeko eskatzen dio

Riktrudisek. Bestetik, Arnoldok berak, salatuak berak, hartzen du bere burua defendatzeko erabakia; nahiz eta, Arnoldoren heriotza bitarteko, ez batak eta ez besteak izan hartutako determinazioak gauzatzerik.

Riktrudisen historia honetan ere bi aldetatik eragingo da berriro oreka eskuratzeko. Batetik, Riktrudisek, Amandok, Adalbaldok beraien ustez aproposenak diren urratsak ematen dituzte. Bestetik, Portunek beste urrats-modu batzu proposatuko ditu:

> "Aitorren-seme altza behar gara danok, agiñak erakutsi bear deutsaguz arrotzari, eztau emen erbestekoak oiñik ipiñi bear" (**Auñemendiko Lorea**, II, 78. or.).

Portunek proposaturiko bidetik helduko da berriro oreka, oreka berria, hastapenetakoa ez bezalakoa, frankotarren aurkako borrokan traizioaren objetua den Adalbaldo hiltzen dutenean auñemenditarrek, Portunek azken aizkorakada ematen dionean.

e) Oreka: bakardadea

Traizioaren objetua den Adalbaldoren heriotzarekin amaituko dira tentsio-guneak. Riktrudisek frankotarrei hala esaten die:

> "Bere odola gura eben; oraiñ bere odolez ase dira, ta bakerako iñoiz baiño bide obean billatuko dituzue, Adalbaldok zerutik lagunduko deutsueta" (**Auñemendiko Lorea**, II, 174. or.).

Bizi izan duen abenturak aldatu egin du Riktrudisen egoera: bere senar eta seme-alabekin bizi izatetik bakardadera igaro da; komentu bateko bakardadea hautatzen du eta han biziko da heriotz bitartean. Baina Riktrudisen egoera aldatuagatik, bere izaerak lehenean dirau: bere bizitzaren hari gidatzaileak abentura bizi aurretikakoak bezalakoak dira. Herri-saltzailetzat jo badute ere, bere aberriarenganako maitasuna aitortzen jarraituko du. Aitz barrengo hilerrian honelako erantzunak ematen ditu Portunek galdetu ahala:

> "—Zeure erria eztozu maite?
> —Bai, baiña beste bat maiteago.
> —¿Prankotarrena?
> —Ez: Zerua.
> —¿Ta or lurpean dagoan ori maite zenduan?
> —Biotz guztiagaz. Berari bizitzea emoteagaitik itxiko neuke neurea" (**Auñemendiko Lorea**, II, 178. or.).

Konstante gisa gorde ditu Riktrudisek bera karakterizatzen zuten ezaugarriak: maitasuna familiari, Euskal Herriari eta Jaungoikoari; eta gorde, euskaldungoak herri-saltzailetzat jo aurretik eta jo ondoren, euskaldunek senarra hil aurretik eta hil ondoren.

Ezaugarri gutxi batzuren arabera eraikitako pertsonaia da Riktrudis: pertsonaia laua eta aldaketarik gabea bere historiaren garapenean; nahiz eta urteak igaro, nahiz eta urte horietan barrena gertaera bortitzak bizi.

1.1.2. Bi sekuentziren aurkakotasun funtzionala

Auñemendiko Lorean barrena aurkakotasunez eraikiz doaz Portunen historia eta Adalbaldorena.

Portun Ozinbeltz jauregiko Otxoa euskal agintariaren seme nagusia da. "Fede zarrekoa" da Ozinbeltz jauregia, kristau-sinismena ez bait da artean bertakoengana heldu.

Eleberrian garatutako gertaerak bitarteko, batipat eleberriaren bukaeran Riktrudisekin izandako elkarrizketari esker, Portun, "fede zarra" utzita, kristau-sinismeko egingo da, epilogoan esaten zaigunez.

Portunek **Auñemendiko Lorea**n egindako ibilbidea euskaldun ez-kristaua izatetik kristau bihurtzerainokoa da, tartean emakume batenganako maitasuna, Riktrudisenganakoa, eta frankotarrekiko harremanak eragile.

Adalbaldo frankotarren dukea da. Adalbaldo, eleberriko gertaerak bitarteko, heriotzera helduko da. Euskaldunek hil egingo dute.

Adalbaldok **Auñemendiko Lorea**n egiten duen ibilbidea —zuzenagoa litzateke egin arazten diotena esatea— heriotzera daraman ibilbidea da. Emakume euskaldun batenganako maitasuna, frankotarra izatea eta kristaua izatea bere ehorz-lekua eraikiz doazen ezaugarriak bihurtzen joango dira.

Portunen historia eta Adalbaldorena aurkajarriz gorpuztuko dira eleberrian. Aitz barrengo eliz aurretik Aitz barrengo hilerrira aurkajarriz helduko dira. Emakumea —Riktrudis—, aberria eta fedea dira aurkajartze honen hiru geziak.

Aitz barrengo eliz aurrean Portun eta bere lagunek Adalbaldori egiten dioten salaketa frankotar lapurra eta kristaua izatearena da.

Frankotarrek euskaldunei egindako erasoek eta eraso hauetan "kendu iakoezan lurrak" sortzen dute lehen salaketa; fedeak bigarrena.

Berriro ere aberriarenganako maitasuna, izari soziala duen maitasuna, eta maitasun transzendente bat dira salaketa-iturri, tentsio-sortzaile, desoreka-ekarle, aurkakotasun baten eragile.

Beste tentsio-gune bat ere erantsiko zaie aurrekoei Aitz barrengo eliz aurretik Aitz barrengo hilerrira: emakume batenganako maitasuna, Riktrudisenganakoa, izari pertsonala duen maitasuna. Adalbaldo hil aurretik, Portun eta bere lagunek hirugarren salaketa gehituko diete aurreko biei: "alaben ostutzaillea" izatearena.

Aitz barrengo eliz aurrean ikusten dute lehen aldiz elkar; Aitz barren inguruetan ikusiko dute bigarren eta azkenengo aldiz elkar. Aitz barrengo eliz aurrean hasiko da Portunen abentura eta Aitz barrengo hilerrian amaituko; Aitz barrengo eliz aurrean hasiko da Adalbaldoren abentura eta Aitz barrengo hilerrian amaituko. Bi eszenaleku horiek ditugu pertsonaia horien egoera eta izaeraren aldarazle.

Aurkajartzen doazen bi historia legez eraikiz doaz eleberrian barrena Portunen eta Adalbaldoren historiak. Modu batera ala bestera bi pertsonaia hauek dira tentsio-sortzaile, desoreka-sortzaile. Nahita ala nahi gabe, bilatuta ala bilatu gabe, desoreka sortuko dute, eta honekin batera narratibitatea.

1.1.2.1. *Portunen historia: joskera narratiboa*

a) Oreka

Portunen historiak ez du oreka-girorik ezagutzen, ez bere historiaren hastapenei dagokionez, ez narrazioari dagokionez. Azken honek ere ez du historian atzera eginez Portunen aurrehistoria orekatsu bat jasotzen.

Portunen eta Adalbaldoren arteko borrokak ematen dio hasiera **Auñemendiko Lorea**ren historiari Aitz barrengo elizaren aurrean. Borroka honek hizpidea sortu eta zenbait pertsonaia Portun karakterizatzen hasiko da.

Lehenik, narrazioan duen agerpen-ordenari dagokionez behintzat, Riktrudisek emango ditu Portuni buruzko lehen berriak, matazaren garapenerako guztiz funtzionalak bihurtuko diren bi ezaugarri aditze-

ra emanez; Portun Riktrudisez maitemindurik dago eta Portun ez da kristaua; are gehiago, hauen etsaia da.

Amandok xehetasun gehiago eskainiko du Portun karakterizatzeko: jadanik Riktrudisek ezarritako ezaugarri bat errepikatuko du —"sinizte bagea"— eta beste bat, berria, erantsiko du —"arroxko samarra"— (**Auñemendiko Lorea**, I, 32. or.).

Ozinbeltzetik etxerantz doazen bi donibanetarrek ez dute ezer berririk ekarriko Portunen karakterizazio honetara, baina jadanik azaldutakoren batzu errepikatuko dituzte. Horrela, pertsonaia desberdinen artean Portuni buruz hitz egiterakoan adostasun bat badagoela adierazten da eta Portun pertsonaia bizpahiru ezaugarritara murrizten, pertsonaia orok izan dezakeen konplexutasunetik urrunduz. Donibanetarrek diotenez, "arro putza" da Portun eta "Riktrudisen atzean" dabil (**Auñemendiko Lorea**, I, 52. or.).

Pertsonaia desberdinek Portuni eskainitako atribuzio hauek berak baieztuko ditu bostgarren kapituluan barrena daukan bakarrizketa luzean. Bere aitorpenak, zentzu honetan, beste berbaldi-errepetizio bat dira, aipatu pertsonaiek esanak egiaztatzeko ñabardura gehiago erantsiz.

Eleberriaren hastapenetan egiten den karakterizazio hau, Portunek berak baiezten duena, tentsioak sortuz joango da eleberrian barrena, mataza-sortzaile bihurtuz. Guztiz funtzionalak bihurtzen dira Portun karakterizatzeko erabiltzen diren ezaugarri gutxi horiek.

b) Perturbazioa

Perturbazio-giroak ematen dio berez hasiera eleberriaren historiari. Horregatik, hain zuzen ere, ez dugu ezagutzen Portun oreka-giroan. Kontaketa hasten denean, Mendiola jauregian Riktrudis eta Andre Luziaren arteko elkarrizketan denboran atzera begiratuz, une hauetan bizi duten kezkaren sorburua azalduko da: Portun eta Adalbaldo frankotarrak Aitz barrengo eliz aurrean izan duten borroka.

Behin eta berriz pertsonaia desberdinen ahotsetan —Amando, Ubero, Adalbaldo— ñabardura gehiagorekin edo gutxiagorekin errepikatuko da jazoera.

Portunek bi salaketa egiten dizkio Adalbaldori Aitz barrengo eliz aurrean. Adalbaldo beraren bertsioa jasoz, bata frankotar lapurra izatearena da. Baina Adalbaldok berak dioenez, ez zen izan salaketa hau asaldura-sortzailea:

> "Eneban iaramonik egin, zerren bat batera gogoratu iatazan gutarrak euskaldunai egindako lur-ostute ta beste dongakeriak, eta alderen batetik egia ziñoala neritxon" (**Auñemendiko Lorea**, I, 90-92. orr.).

Bigarren salaketa izango da tentsio-sortzailea. Bi bider egingo dio Portunek Adalbaldori salaketa. Bigarren honetan honela mintzo zaio:

> "Zure siñiztea ta zure gisakoena guzurra dala diñotsut, guzurra Iesukristo ta guzurtokiak zuen Elizak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 92. or.).

Sinismenak aurkajartzen ditu Portun eta Adalbaldo: bata kristaua izatea eta bestea ez izatea. Honela, bada, Portun karakterizatzen duen ezaugarrietariko bat funtzionala bihurtzen da matazaren garapenean, asaldura sortuz Portunengan lehenik eta honengandik abiatuta tentsioa ekarriz Auñemendira.

c) Desoreka

Adalbaldorenganako gorrotoa sortzen du Portunengan pasadizo honek. Mendekua bilatzen du eta horretarako biltzen ditu euskaldunak bere etxean, Ozinbeltzen, frankotarren aurkako gerra berri bati ekiteko.

Aitz barrengo gertaeraren kontaketa pertsonaien esku utzi du kontalariak. Erretrospekzioaren erabilerara joz, gertaera horretatik Ozinbeltzeko batzarrerako tartea isilunera eraman du. Ozinbeltzen agerian gelditzen da Portunen egoerak desoreka-giroan jarraitzen duela; honen harrokeriak ez bait du mendekua besterik eskatzen.

d) Indar-ekintza

Oreka berrira heltzeko Portunek lehen-lehenik frankotarren aurkako gerra bat proposatuko du, baina proposamen honek porrot egiten du. Tartean, porrotera heldu aurretik eta porrot horretara heltzeko, Riktrudisek parte hartu du, bere aita Arnoldori Aitz barrenen gertaturikoa jakin eraziz eta Portuni gerra hau ez bultzatzeko eskatuz edo, gutxienez behintzat, Arnoldo gerrara ez joatea lortzeko erregutuz.

Riktrudisen eskaerak garaipena erdietsi eta Portunen asmo horrek ez du aurrera jarraituko honenbestean. Baina bide honek porrot egin orduko, prest dauka beste bide bat Portunek, Ozinbeltzeko batza-

rrean bertan jadanik irudikaturik daukana. Honela zuzentzen zaio Arnoldori:

> "Ta gaiñera prankotarragaz ezta-baidak arautu ta zuzentzeko neure besoa da naikoa ta geiegi" (**Auñemendiko Lorea**, I, 50. or.).

Egun horretako gauean bertan Portunek gehiago zehaztuko du bere bakarrizketa luzean zein asmo izango duen aurrerantzean Aitz barrenen berarekin eztabaidatu zuenarekiko: hura hiltzea.

> "Nigaz aurrez-aurre iarri zan gizontxu orrek, ni bizi nazan artean iazango dau arerioa ta gudarako bidea. Ikusiko dogu alkar. Bera be, egia esateko, ezta motel itxurakoa; baiña itximistak ezpaituk! ikusiko dogu zeiñek lenago lurpera ioan bear daben. Goitik eta betik, aurretik eta atzetik, gabaz da egunaz nire geziaren bildur izan leiteke. Ta biotzera ioango da gero, biotzera zuzen-zuzen. ¡Aupa! ¡Zer poza nirea gorputz illak oso-osorik lurra ioten dabenean, bere burua arkaitzen baten kontra zatituten iakola! Bene-benetan dala bai mendeka osoa Iaungoikoen atsegintasuna" (**Auñemendiko Lorea**, I, 82. or.).

Portunen harrotasunak honelako irteera bilatzen du Aitz barrengo jazoerarentzako. Portunen bigarren ezaugarri hau ere, horrela, funtzionala bihurtzen da matazaren garapenerako. Pertsonaiek Portuni buruz esandakoa fikzioaren desarroiloa frogatzen ari da. Pertsonaiek jarritako tesia frogatzen ari da historiaren nondik norakoa.

Ozinbeltzeko batzarrean entzundako azken hitzetan irudikatzen du Portunek berari aurkajarri zitzaion frankotarrarekin aurrerantzean hartuko duen jarrera. Gau horretan bertan gehiago zehaztu eta biharamunean bertan (47) hasten da mendeku bila, hartarako egokiera sortzen zaiolako batpatean, kasualitateak eraginda. Baina ez du lortuko mendekua gauzatzerik.

Adalbaldorekin ezkontzeko Auñemendi uztean Riktrudisek area-

---

(47) Biharamunean bertan koka daiteke mendeku bila haste hau. Nahiz eta kontalariak ez duen esaten zenbat denbora igaro den Arnoldok eta Riktrudisek apezpikuaren etxean Adalbaldorekin izan duten elkarrizketatik azken honek Lope Nagirekin duen elkarrizketara, kontaketak agerian uzten du Lope Nagik Riktrudisi emandako gorantziak, Adalbaldo eta Portunen mandatuak jarraituz, Riktrudis "Goizean Aitagaz Amandogana izan zan egunean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 130. or.) eman zizkiola. Honenbestez, Ozinbeltzeko batzarre biharamunean bertan koka daitezke Adalbaldo hiltzeko asmoaren lehen urratsak.

gotu egingo da Portunen desoreka eta indar-ekintza berri bati hasiera emateko proposamena egingo du:

> "Prankotarren kontra guda-gogorra, eten bagea, betikoa, asteko ordu ta garaia etorri zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 76. or.).

Ozinbeltzeko batzarrean lortu ez zutena lortuko dute oraingoan Otxoatarrek: euskaldunen oniritzia frankotarren aurkako gerrari ekiteko. Portunek eta Adalbaldok Aitz barrengo eliz aurrean izan zuten borrokak sortutako desorekak Portunengan erdietsi ez zuen indar-ekintza eskuratuko du Adalbaldoren eta Riktrudisen ezkontzak: euskaldunen batasuna, gerra hori ontzat jotzean.

e) Oreka

Adalbaldoren heriotzak ekarriko du oreka berria Portunen bizitzara. Bake bila doan Adalbaldoren heriotzak aseko du Portun.

Hil aurretik hiltzaileek egiten dizkioten salaketak Aitz barrengo eliz aurrean Portunek eta bere lagunek egindako berberak dira. Hauei beste bat eransten zaie. Hiltzaileek honela diote:

> "'¡Bera da! ¡Bera da! ¡Dukea! ¡Prankotarra! ¡Kristiñaua! ¡Lapurra! ¡Gure alaben ostutzaillea!'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

"Gure alaben ostutzaillea" da erantsitako salaketa, fikzioaren garapenak zilegiztatu duen salaketa berria. Historiaren hastapenetan izari soziala duen maitasuna eta izari transzendentea duena ziren salaketaren oinarri eta desoreka-sortzaile. Matazaren garapenean, berriz, elementu desoreka-sortzaile berri bat gehitu zaie, izari pertsonala duen maitasunaren gain eraikia.

Salaketa aldiberean epai bihurtzen da: "ta Adalbaldoren gorputza inguru guztietatik iaurtiriko gezi ta geiagok iosi-iosi eginda itxi eben" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Azkenean eskura etorri zaio Portuni mendekua betetzeko aukera. Auñemenditar talde batek hiltzen du Adalbaldo. Baina Portun aurreratu egingo da izen propiorik gabeko multzo horretatik, Adalbaldoren heriotza bilatzen zuen banako legez azken kolpea ematera:

> "Dukea ordurako ondo ilda egoan, baiña ondo ill bagako aberea eiztariak amaituten daben legez, Portunek aizkorakada batean dukeari burua erdibitu eutsan, da 'beiñ edo beiñ tximista orrek nire eskuetan iausi bear zenduan' esanaz, gorpuaren gaiñean oin bat

ipiñirik, Ozinbelzkoak deadar egin eban menditarren zanzoa" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Portunen deiadar horrekin batera hasiko da bere bizitzara oreka etortzen; beste oreka bat, berria. Deiadar horrekin Aitz barrengo pinadian emandako urratsak jarraipena aurkituko du Aitz barrengo hilerrian.

Nahiz eta Aitz barrengo pinadian Adalbaldo hil eta Aitz barrengo eliz aurrean sortutako desoreka amaitu, beste zauri batek irekita dirau Portunengan; Riktrudisenganako maitasuna ez bait da itzali. Eta itzali ez den maitasun honek eramango du Portun orekara eta "jaiotaraziko" bizitza berri batera. Maitasun horrek "berrerosiko" du Portun, bizitza berri bati hasiera emanez aurrekoarekiko heriotzaren ondorioz.

Aitz barrengo hilerria du gertaleku transformazio honek, "jaiotze berri" honek. Han esaten dio Riktrudisek non maitatuko duen bera, Portun. Honen galderari ("—¿Eta zeru orretan guztiak alkar maitetuten dabe?") Riktrudisek erantzungo dio: "—Guztiak. Ara bazatoz, an maitetuko zaitut. Agur" (**Auñemendiko Lorea**, II, 178. or.).

Epilogoak ematen du Riktrudisen hitz hauek Portunengan izan zuten eraginaren berri: "eta Portun, emakume donea azkenengo ikusi ebanetik laster bere erruak ezaguturik, kristiñau egin zan, da arako done Pablo baten gizara, zar-zarra zala bere, erririk-erri ebillen Iesukristoren legea zabaltzen, bere gaztetako gaistokeri guztiak aitortuaz. Riktrudisegaz gura eban bizi zeruetan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 182. or.).

Auñemendiko Lorea eleberriaren hasieran izari pertsonala soilik zuen maitasuna honela maitasun transzendente baterako bide bihurtzen da. Maitasun transzendente honi esker, izari soziala zuen maitasuna ere —euskalduna/frankotarra— beste tratamendu bat hartzeko bidean jartzen da.

Azken finean, Riktrudisenganako maitasuna bihurtzen da Portunen gorroto guztien hausle, bere desoreken apurtzaile, oreka berri baten ekarle. Riktrudisenganako maitasunaren azken emaitzak deusezta egiten du Aitz barrengo eliz aurrean Adalbaldorekin izandako borrokaren zioa; baita aurrerantzean Portunek beste kristau batekin eduki zezakeen borroka hipotetikoa ere. Portun bera kristautzean

gotu egingo da Portunen desoreka eta indar-ekintza berri bati hasiera emateko proposamena egingo du:

> "Prankotarren kontra guda-gogorra, eten bagea, betikoa, asteko ordu ta garaia etorri zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 76. or.).

Ozinbeltzeko batzarrean lortu ez zutena lortuko dute oraingoan Otxoatarrek: euskaldunen oniritzia frankotarren aurkako gerrari ekiteko. Portunek eta Adalbaldok Aitz barrengo eliz aurrean izan zuten borrokak sortutako desorekak Portunengan erdietsi ez zuen indar-ekintza eskuratuko du Adalbaldoren eta Riktrudisen ezkontzak: euskaldunen batasuna, gerra hori ontzat jotzean.

e) Oreka

Adalbaldoren heriotzak ekarriko du oreka berria Portunen bizitzara. Bake bila doan Adalbaldoren heriotzak aseko du Portun.

Hil aurretik hiltzaileek egiten dizkioten salaketak Aitz barrengo eliz aurrean Portunek eta bere lagunek egindako berberak dira. Hauei beste bat eransten zaie. Hiltzaileek honela diote:

> "'¡Bera da! ¡Bera da! ¡Dukea! ¡Prankotarra! ¡Kristiñaua! ¡Lapurra! ¡Gure alaben ostutzaillea!'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

"Gure alaben ostutzaillea" da erantsitako salaketa, fikzioaren garapenak zilegiztatu duen salaketa berria. Historiaren hastapenetan izari soziala duen maitasuna eta izari transzendentea duena ziren salaketaren oinarri eta desoreka-sortzaile. Matazaren garapenean, berriz, elementu desoreka-sortzaile berri bat gehitu zaie, izari pertsonala duen maitasunaren gain eraikia.

Salaketa aldiberean epai bihurtzen da: "ta Adalbaldoren gorputza inguru guztietatik iaurtiriko gezi ta geiagok iosi-iosi eginda itxi eben" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Azkenean eskura etorri zaio Portuni mendekua betetzeko aukera. Auñemenditar talde batek hiltzen du Adalbaldo. Baina Portun aurreratu egingo da izen propiorik gabeko multzo horretatik, Adalbaldoren heriotza bilatzen zuen banako legez azken kolpea ematera:

> "Dukea ordurako ondo ilda egoan, baiña ondo ill bagako aberea eiztariak amaituten daben legez, Portunek aizkorakada batean dukeari burua erdibitu eutsan, da 'beiñ edo beiñ tximista orrek nire eskuetan iausi bear zenduan' esanaz, gorpuaren gaiñean oin bat

ipiñirik, Ozinbelzkoak deadar egin eban menditarren zanzoa" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Portunen deiadar horrekin batera hasiko da bere bizitzara oreka etortzen; beste oreka bat, berria. Deiadar horrekin Aitz barrengo pinadian emandako urratsak jarraipena aurkituko du Aitz barrengo hilerrian.

Nahiz eta Aitz barrengo pinadian Adalbaldo hil eta Aitz barrengo eliz aurrean sortutako desoreka amaitu, beste zauri batek irekita dirau Portunengan; Riktrudisenganako maitasuna ez bait da itzali. Eta itzali ez den maitasun honek eramango du Portun orekara eta "jaiotaraziko" bizitza berri batera. Maitasun horrek "berrerosiko" du Portun, bizitza berri bati hasiera emanez aurrekoarekiko heriotzaren ondorioz.

Aitz barrengo hilerria du gertaleku transformazio honek, "jaiotze berri" honek. Han esaten dio Riktrudisek non maitatuko duen bera, Portun. Honen galderari ("—¿Eta zeru orretan guztiak alkar maitetuten dabe?") Riktrudisek erantzungo dio: "—Guztiak. Ara bazatoz, an maitetuko zaitut. Agur" (**Auñemendiko Lorea**, II, 178. or.).

Epilogoak ematen du Riktrudisen hitz hauek Portunengan izan zuten eraginaren berri: "eta Portun, emakume donea azkenengo ikusi ebanetik laster bere erruak ezaguturik, kristiñau egin zan, da arako done Pablo baten gizara, zar-zarra zala bere, erririk-erri ebillen Iesukristoren legea zabaltzen, bere gaztetako gaistokeri guztiak aitortuaz. Riktrudisegaz gura eban bizi zeruetan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 182. or.).

Auñemendiko Lorea eleberriaren hasieran izari pertsonala soilik zuen maitasuna honela maitasun transzendente baterako bide bihurtzen da. Maitasun transzendente honi esker, izari soziala zuen maitasuna ere —euskalduna/frankotarra— beste tratamendu bat hartzeko bidean jartzen da.

Azken finean, Riktrudisenganako maitasuna bihurtzen da Portunen gorroto guztien hausle, bere desoreken apurtzaile, oreka berri baten ekarle. Riktrudisenganako maitasunaren azken emaitzak deusezta egiten du Aitz barrengo eliz aurrean Adalbaldorekin izandako borrokaren zioa; baita aurrerantzean Portunek beste kristau batekin eduki zezakeen borroka hipotetikoa ere. Portun bera kristautzean

gotu egingo da Portunen desoreka eta indar-ekintza berri bati hasiera emateko proposamena egingo du:

> "Prankotarren kontra guda-gogorra, eten bagea, betikoa, asteko ordu ta garaia etorri zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 76. or.).

Ozinbeltzeko batzarrean lortu ez zutena lortuko dute oraingoan Otxoatarrek: euskaldunen oniritzia frankotarren aurkako gerrari ekiteko. Portunek eta Adalbaldok Aitz barrengo eliz aurrean izan zuten borrokak sortutako desorekak Portunengan erdietsi ez zuen indar-ekintza eskuratuko du Adalbaldoren eta Riktrudisen ezkontzak: euskaldunen batasuna, gerra hori ontzat jotzean.

e) Oreka

Adalbaldoren heriotzak ekarriko du oreka berria Portunen bizitzara. Bake bila doan Adalbaldoren heriotzak aseko du Portun.

Hil aurretik hiltzaileek egiten dizkioten salaketak Aitz barrengo eliz aurrean Portunek eta bere lagunek egindako berberak dira. Hauei beste bat eransten zaie. Hiltzaileek honela diote:

> "'¡Bera da! ¡Bera da! ¡Dukea! ¡Prankotarra! ¡Kristiñaua! ¡Lapurra! ¡Gure alaben ostutzaillea!'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

"Gure alaben ostutzaillea" da erantsitako salaketa, fikzioaren garapenak zilegiztatu duen salaketa berria. Historiaren hastapenetan izari soziala duen maitasuna eta izari transzendentea duena ziren salaketaren oinarri eta desoreka-sortzaile. Matazaren garapenean, berriz, elementu desoreka-sortzaile berri bat gehitu zaie, izari pertsonala duen maitasunaren gain eraikia.

Salaketa aldiberean epai bihurtzen da: "ta Adalbaldoren gorputza inguru guztietatik iaurtiriko gezi ta geiagok iosi-iosi eginda itxi eben" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Azkenean eskura etorri zaio Portuni mendekua betetzeko aukera. Auñemenditar talde batek hiltzen du Adalbaldo. Baina Portun aurreratu egingo da izen propiorik gabeko multzo horretatik, Adalbaldoren heriotza bilatzen zuen banako legez azken kolpea ematera:

> "Dukea ordurako ondo ilda egoan, baiña ondo ill bagako aberea ciztariak amaituten daben legez, Portunek aizkorakada batean dukeari burua erdibitu eutsan, da 'beiñ edo beiñ tximista orrek nire eskuetan iausi bear zenduan' esanaz, gorpuaren gaiñean oin bat

ipiñirik, Ozinbelzkoak deadar egin eban menditarren zanzoa" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

Portunen deiadar horrekin batera hasiko da bere bizitzara oreka etortzen; beste oreka bat, berria. Deiadar horrekin Aitz barrengo pinadian emandako urratsak jarraipena aurkituko du Aitz barrengo hilerrian.

Nahiz eta Aitz barrengo pinadian Adalbaldo hil eta Aitz barrengo eliz aurrean sortutako desoreka amaitu, beste zauri batek irekita dirau Portunengan; Riktrudisenganako maitasuna ez bait da itzali. Eta itzali ez den maitasun honek eramango du Portun orekara eta "jaiotaraziko" bizitza berri batera. Maitasun horrek "berrerosiko" du Portun, bizitza berri bati hasiera emanez aurrekoarekiko heriotzaren ondorioz.

Aitz barrengo hilerria du gertaleku transformazio honek, "jaiotze berri" honek. Han esaten dio Riktrudisek non maitatuko duen bera, Portun. Honen galderari ("—¿Eta zeru orretan guztiak alkar maitetuten dabe?") Riktrudisek erantzungo dio: "—Guztiak. Ara bazatoz, an maitetuko zaitut. Agur" (**Auñemendiko Lorea**, II, 178. or.).

Epilogoak ematen du Riktrudisen hitz hauek Portunengan izan zuten eraginaren berri: "eta Portun, emakume donea azkenengo ikusi ebanetik laster bere erruak ezaguturik, kristiñau egin zan, da arako done Pablo baten gizara, zar-zarra zala bere, erririk-erri ebillen Iesukristoren legea zabaltzen, bere gaztetako gaistokeri guztiak aitortuaz. Riktrudisegaz gura eban bizi zeruetan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 182. or.).

Auñemendiko Lorea eleberriaren hasieran izari pertsonala soilik zuen maitasuna honela maitasun transzendente baterako bide bihurtzen da. Maitasun transzendente honi esker, izari soziala zuen maitasuna ere —euskalduna/frankotarra— beste tratamendu bat hartzeko bidean jartzen da.

Azken finean, Riktrudisenganako maitasuna bihurtzen da Portunen gorroto guztien hausle, bere desoreken apurtzaile, oreka berri baten ekarle. Riktrudisenganako maitasunaren azken emaitzak deusezta egiten du Aitz barrengo eliz aurrean Adalbaldorekin izandako borrokaren zioa; baita aurrerantzean Portunek beste kristau batekin eduki zezakeen borroka hipotetikoa ere. Portun bera kristautzean

betiko hausten da orduko salaketa, orduko borrokaren arrazoia bera: frankotarra kristaua izatea.

Azken emaitza horrek berak ematen dio irteera Portunen bigarren desorekari ere; Riktrudisenganako maitasunak ere honengandik jaso bait du erantzuna: zeruan maitatuko du. Honela, bada, Portunen kristautzeak honen arazo guztiei ematen die soluzioa. Epilogoak eleberri itxi bat (48) eskaintzen du, galderarik gabekoa; arazoek jaso dituzten soluzioek ez bait dute zalantzarentzat zirrikiturik utzi. Eleberria bukatu da eta nekez eskainiko luke jarraitzeko modurik.

Honenbestez, irakurketa-mota hau egin ahal izateko, guztiz garrantzizkoa bihurtzen da "Guena" deritzan azken kapitulua, berari esker ixten bait da eleberria.

Portunen kristautzea gordetzen du kontalariak azken kapitulurako, modu oso sinplean bukaera itxi bat eskainiz.

1.1.2.2. *Adalbaldoren historia: joskera narratiboa*

a) Oreka

Asaldura batek eleberriari hasiera ematen dion neurrian ez da ezagutzen asaldura horren aurretik Adalbaldoren bizitza. Kontalariak egiten duen deskripzio laburrean honako xehetasun hauek eskaintzen ditu:

> "Adalbaldo dukea, done Jertrudisen loba ona, prankotarren erregetxeko semea, Sijeberto ta Ernulfo kondeen da Alando Reims-ko Lenapezpikoaren anaia. Gizon iakintsua zan Adalbaldo au, guztiz aberatsa, Iesukristoren lege zalea ta onoidade andiakaz apaindua" (**Auñemendiko Lorea**, I, 88-90. orr.).

Xehetasun hauei esker aurkezten da Portunekin Aitz barrengo eliz aurrean borrokan ihardun duen gizona. Aurkezpen honetan azaltzen da Adalbaldo Portunekin borrokan egitera eraman duen ezaugarria: "Iesukristoren lege zalea" da. Adalbaldo pertsonaiaren ezaugarriak, bera karakterizatzen duen tasun batek, darama borroka

(48) "Por el contrario, una estructura novelesca cerrada se caracteriza por su imposibilidad o, al menos, dificultad de continuación". BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**, Editorial Planeta, Barcelona, 1975, hirugarren argitalpena, 190. or.

horretara, eta ez pertsonaiaren barne-karakterizaziotik at gelditzen den zerbaiten nahiak.

Norbere ideien defentsa biolentoak ekarriko du perturbazioa bere bidean bakean zihoan Adalbaldoren bizitzara.

Auñemendiko Lorearen gainontzeko pertsonaiak bezala, Adalbaldo ere pertsonaia laua da, ezaugarri gutxi batzuren arabera eraikia; Amandok aipatutako hiruetara mugatzen da: jakintsua, kristaua eta birtute handitakoa. Pertsonaia konplexuak sortzetik urrundu eta, Domingo Agirrek pertsonaia ulerterrazak eta sinpleak sortzea hautatu du. Pertsonaia bakoitzari ezartzen dizkion bizpahiru ezaugarriak funtzionalak bihurtzen dira matazaren garapenerako.

Adalbaldo ez da salbuespen izango pertsonaien galeria honetan. Sinpletasun honekin Adalbaldo ere eleberriaren helburu didaktikoari lotuko zaio: irakurleari zalantza, noraeza etab. sor diezaiokeen edozein elementutatik urrun dago.

Arnoldoren ekintzak edo esanak ezagutu aurretik fikziozko beste pertsonaia batzuk honi buruz diotena frogatu du gero fikzioaren garapenak. Riktrudisi buruz kontalariak egindako deskripzioa ere fikzioak frogatu du gero, Portuni buruz pertsonaia desberdinek diotena ere frogatu duen bezalaxe. Eta Adalbaldo ez da salbuespena izango. Adalbaldok ere frogatu egingo du fikzioan barrena Amandok jarritako tesia: beti gizon jakintsu, kristau eta birtute handitako legez jokatuko du.

b) Perturbazioa

Perturbazioa Adalbaldorengan instante batera murrizten da: Amandori bisita egitera doalarik jasandako asaldura hasitako leku berean amaitzen da.

Portun da asalduraren sortzaile. Bera karakterizatzen duten ezaugarriei erantzunez —harro samarra eta kristau-sinismenik gabekoa da—, Adalbaldo erasotzen du. Kristau izanik, honek iraintzat jotzen ditu Portunen esanak, eta kristau-sinismena lehenik eztabaida bihurtzen da eta gero borroka.

Bigarren asaldura ere sortuko du Adalbaldoren bizitzan Riktrudisekin ezkontzeak. Portun da berriro asaldura honen sortzaile, Riktrudisez maitemindurik dagoen Portun, hain zuzen.

c) Desoreka

Aitz barrengo eliz aurreko gertaerak gorrotoa sortzen du gertaeraren eragilearengan: Portunengan; baina ez horrela Adalbaldorengan.

Lehenak bere etxean, Ozinbeltzen, bilduko ditu auñemenditarrak frankotarren aurkako borrokari ekiteko, Aitz barrengo gertaeraren mendeku. Hala eskatzen du bere harrokeriak. Bigarrenak, berriz, ahaztu egingo du. Eta pasadizo hau dela medio, kontalariak aurkezpenean ezarri dizkion birtuteak azaleratzen hasiko da Amando apezpikuak eginiko galderari erantzunez:

> "—¿Da aztu iatzu? ¿Eztaukazu gorrotorik?" galderari honela erantzungo dio: "—¿Aztu diñozu? Berealaxe, iauna, berealaxe. ¡Naigabe bat badaukat nik ordutik ona! Bear bada, bigunago itz egin baneutsa nik gizon ari, bere biotza Iaungoikoarentzat irabaziko neban edo ipiñiko neban irabazteko bidean. Da orain, neure erruz, neure gorrotoan egongo da, ta neure Iaungoikoaren gorrotoan bere bai. Egunero eskatzen deutsat Aita zerukoari, orduko nire arrotasuna parkatu daidala ta ikutu daiola Portun orri bere biotzean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 92-94. orr.).

Portunengan ez bezala, Adalbaldorengan ez du desorekarik sortzen Aitz barrengo gertaerak: bata gorrotoak sutu, besteak pasadizoa ahaztu. Honela, Portunengan irekirik jarraitzen du prozesuak; itxi egiten da Adalbaldorengan.

Bigarren asaldurak, ordea, bai dakarrela desorekarik Adalbaldoren bizitzara. Ez lehen asaldurak Portunengan sortutako gorrotoak honengan bultzatu dituen asmoak gauzatzera iritxi direlako, honek ez bait du Adalbaldorengan eraginik izan. Baina bigarren asaldurak Portunengan gehitutako gorrotoak jalgitako asmoak gauzatuz joango dira, Adalbaldoren bizitzara desoreka ekarriz bere nahien aurka.

d) Indar-ekintza

Adalbaldok ez du indar-ekintza beharrik oreka berririk lortzeko; izan ere, Aitz barrengo eliz aurreko gertaera bukatuz bat honek sortutako desoreka ere amaitu egiten bait da berarentzat.

Baina bigarren asaldurak Portunengan sortutako desorekak eragiten dituen indar-ekintzei ezin iruzur egin eta behartu egiten dute nolabait neurriren batzu hartzera orekara heltzeko.

Portunen jarrera "indar-ekintza" hartzea da. Adalbaldok, ordea, "bake-ekintza" hartuko du jarrera moduan. Kontrajarriz jarraitzen dute, beren izaerak determinatuko balitu bezala: bataren harrotasuna mendekua eske, bestearen birtutea bakezko konponbideak. Bi pertsonaiek gauza bakarra daukate amankomunean: Riktrudisekiko maitasuna.

Harrotasunak Portuni mendekua eskatzen dio; Adalbaldori birtuteak, bakezko konponbidea. Oreka berri bat lortzeko Amandok Auñemendira daraman mandatuak honela dio:

> "Riktrudisek Auñemendin daukazan ondasun guztiak euskaldun beartsu edo txiroentzat geldituko dira" (**Auñemendiko Lorea**, II, 108. or.).

Uberori ematen dion berri honen eragilea ere nor den agerian utziko du Amandok hartarako egokiera ematean Uberok, hau jakitean egindako galderari erantzunez:

> "—Egia da: neuk diñotsut. Riktrudisek nai dau. Adalbaldok berak agindu deutsa emon daiala dana, esan-mesan gaiztoen apukoa kentzeko" (**Auñemendiko Lorea**, II, 108. or.).

Baina "bake-ekintza" honek ez du arrakastarik lortuko. Eta bide honetatik ez da orekarik helduko ez Portunen bizitzara, ez Adalbaldorenera. Lehenak gerran jarraitzen duen neurrian luzatu egiten da, alabeharrez, desoreka-giroa Adalbaldoren bizitzara.

e) Oreka

Portunek gainontzeko auñemenditarren laguntzarekin frankotarren aurka ekindako gerra amaitzeko aginduko dio frankotarren Erregek Adalbaldori.

Besteren aginduz, baina bake bila abiatuko da Auñemendira Adalbaldo, Klobis II.ak esana betetzera:

> "Noiz edo noiz euskaldunakaz darabilgun gudea amaitu nai neuke, ta zeuk zure ta Amandoren izenean sarritan esan deustasun esondea gogoraturik, erabagi dot ioan zaitezela zeu gurien artera, ta begiratu daizula prankotarrak urten eztaien beren errietatik kanpora, ta Amandok barriz zabaldu daiela menditarren artean albistea: eztogula guk geiago euskaldunakaz gudarik nai ta baketu daitezela" (**Auñemendiko Lorea**, II, 140. or.).

Adalbaldok behin eta berriz errepikatzen duenez, "bake soiñuan" doa (**Auñemendiko Lorea**, II, 154., 166. orr.).

Erregeren aginduak bete ondoren "eiz-antzean" hurbilduko da Aitz barrenerantz; han ikusi zuen lehen aldiz Portun, han egin Portunekin borrokan. "Seireun da berrogeta amabi-garreneko Otsaillaren bigarren eguna zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 166. or.). Denbora-marka hau zehazten da gehien matazaren garapenean; ez dago besterik data konkreturik daramanik. Ez Aitz barrengo eliz aurreko borrokak, ez Arnoldoren heriotzak, ez Riktrudisen ezkontzak dute halako zehaztasunik denboraren ardatzean (49). Horregatik, kontrastez da markatua Adalbaldo hilgo duteneko eguna.

Alde batek, Adalbaldok, oreka berrira heltzeko eskainitako bideak porrot egiten du; eta beste aldeak, Portunek, eskainitakoa nagusitzen da. Heriotzean aurkituko du Adalbaldok oreka berria.

2. AUÑEMENDIKO LOREA: LEKUGUNE LITERARIO BAT IRAGANBIDE BATERAKO: ERBESTETIK ABERRIRA.

Behin eta berriz errepikatu da iraganbidez egina dagoela **Auñemendiko Lorea**. Arnoldori egin arazitako iraganbidea deskribatu da; baita Riktrudisi egin arazitakoa eta Adalbaldori egin arazitakoa ere. Eta azkenik Portuni ere iragan araziko zaio. Aurreko hiruen iraganbideen sortzaile izan den Portunek ere iragan egingo du azkenean, Riktrudisi dion maitasunak eraginda.

Erbestetik Aberrira egiten dira iraganbideak; eliz inguruak, hilerria dituzte iragan-leku. Tartean, iraganbide hori egiteko, pertsonaiak zeukan ezaugarriren bat edo bestek pertsonaiari ezarritako ezaugarriren bat galdu egin du.

Arnoldo hiru ezaugarriren arabera eraikitako pertsonaia da: familiarenganako maitasuna, Euskal Herriarenganakoa eta Jaungoikoa-

(49) Nolanahi ere, erantsi beharko litzateke badagoela eleberrian beste data bat ere ia-ia zehaztasun berdinekoa: Andre Luziaren heriotzarena. Andre Luzia Ama Mariaren jaiotegunean hil zen: irailaren zortzian. Heriotzaren urtea ez da mugatzen, baina fabularen garapenak historia hasitako urtean bertan hil dela aditzera ematen du: 638. urtean. Andre Luziaren heriotz-eguna horrela markatzen bada ere, ez dirudi aparteko funtzionaltasunik duenik data honek eleberriaren egituraketan; hemen egiten ari den irakurketan ez behintzat. Elizak ospatzen duen egun seinalagarri bat da eta egun seinalagarri hau hautatu du —besterik gabe?— Andre Luziaren heriotz-egun moduan.

renganakoa. Matazaren garapenean Euskal Herriarenganakoa ukatu egiten zaio eta herri-saltzailetzat jotzen dute. Eliz ingurutatik dator albistea; eliz inguruek ematen dute transformazio honen berri. Eliz inguru hauetatik dator aurreko bizitzarekiko Arnoldoren "heriotza":

> "¿Eriotzea alda bada, edo gaixo aldiren bat? —ziñoan bere artean Arnoldok—. Eta berberak erantzuten eban: bai, eriotzea: erriak gisa orretan iarritakoan, eztira berealakoan beste aldera biurtuten: urteak bear dira orretarako, ta ni eznago urteetarako ta gitxiago bere" (**Auñemendiko Lorea**, I, 178. or.).

Atributu honetaz desjabeturik, aberriarenganako maitasunaz desjabeturik, hasten da Arnoldoren bizitza berria: Aberrirako bidea.

Riktrudis hiru ezaugarriren arabera eraikitako pertsonaia da: familiarenganako maitasuna, Euskal Herriarenganakoa eta Jaungoikoarenganakoa. Matazaren garapenean Euskal Herriarenganakoa ukatu egingo zaio eta herri-saltzailetzat jotzen dute. Eliz ingurutatik dator albistea; eliz inguruek ematen dute transformazio honen berri. Eliz inguru hauetatik dator Riktrudisen aurreko bizitzarekiko "heriotza". Auñemenditarrek eman dute epaia: "etxakon geiago Euskal-errian sartzen itxi bear" (**Auñemendiko Lorea**, II, 78. or.). Traizioaren objetu den Adalbaldo hiltzean altxatuko dute zigorra auñemenditarrek. Portun da bozeramailea, bozeramaile errepresentagarria. Uberoren seme Gaixparrek dio "Portunek esaten dabenera iarrita dagoz danak" (**Auñemendiko Lorea**, II, 110. or.). Honela mintzo zaio Portun Aitz barrengo hilerrian:

> "—Zeu ikustera etorri naz, Riktrudis, da Auñemendiko bideak zabalik daukazuzala esatera.
> —Eskerrikasko, baina eztaukat oraiñ Auñemendira ioan bearrik.
> —¿Zeure erria eztozu maite?
> —Bai, baiña beste bat maiteago.
> —¿Prankotarrena?
> —Ez: zerua" (**Auñemendiko Lorea**, II, 176-178. orr.).

Traizioa dela bitarte, eliz inguruetatik etorritako berriek aberriarenganako maitasuna ukatzen zioten Riktrudisi. Aitz barrengo hilerrian, traizioaren objetua hil ondoren, beste transformazio-leku batean kendu egiten zaio desjabetze hori. Baina Riktrudisek orain ez du hautatzen eskaintzen zaion aberrirako bidea, baizik eta Aberrirakoa.

Portun hiru ezaugarriren arabera eraikitako pertsonaia da:

harroa, kristau-sinismenik gabea, Riktrudisez maitemindua. Ezaugarri hauek dira eraginkorrak matazaren garapenerako; hiruak baturik edo banaka fikzio-sortzaile bait dira. Euskal Herria, aberria, maite du, baina bere modura; izan ere, azken finean, aberriarenganako maitasuna gehiago bait da bere nahiak betetzeko aitzakia beste ezer baino.

Matazaren garapenean, hau azkenetara heltzean, bere bi ezaugarriz desjabetuko da Portun: kristau-sinismenik ez izatetik kristau bihurtzera helduko da, eta harrotasun guztiak galduko ditu. Aitz barrengo hilerriak eragiten du transformazio hau; Riktrudisi dion maitasuna da faktore bultzagilea. Aitz barrengo hilerrian aurkitzen du "heriotza" Portunek, Aberrirako bideari heltzeko. Aberrira daraman bizitza berriari hasiera ematen dio Aberri horretan, Riktrudisekiko maitasuna maitasun egokitua bilaka dadin.

Adalbaldo bost ezaugarriren arabera eraikitako pertsonaia da: jakintsua, aberatsa, kristaua, birtute handitakoa eta Riktrudisen senarra. Bost ezaugarriek izango dute funtzionaltasunen bat matazaren garapenean. Jakinduria eta birtute handi horiek, fikzioak erakusten duenez, elkarrizketa-gizona, bakea bilatzen duen gizona, bakoitzari berea ematen dakien gizona egin dute. Baina auñemenditarrek birtute handi horiek ukatu eta lapurtzat, gezurtitzat... jotzen dute. Aitz barrengo eliz aurretik dator Adalbaldoren aurreko bizitzarekiko "heriotza", Portunek zin egin bait du mendekatu egingo duela.

Birtute handitako gizona atributuaz desjabeturik hasten da Adalbaldoren bizitza berria. Bere nahien aurka, bizitza berri hori areagotu egingo da Riktrudisekin ezkontzean. Aitz barrengo pinadian "Iesus" batekin helduko zaio amaiera bizitza berri horri, Aberrirako bideari hasiera emanez Aitz barrengo hilerrian.

Auñemendiko eliz inguruak, Aitz barrengoa eta hau baino gutxiago zehazten denen bat(zu), Aitz barrengo hilerria, heriotz eta bizitza berrien ekarle bihurtzen diren lekugune gisa eraikitzen dira eleberrian barrena. Elizarekiko hurbiltasuna eta hilerria transformazio-iturri bihurtzen dira (50).

---

(50) Elizaren sinbologiari buruz honela mintzo da J.A. Pérez-Rioja: "Su simbolismo posee diversos significados y reviste formas diferentes. En su acepción más general, es la Casa de Dios, y también representa el Cuerpo de Cristo; a veces recibe el nombre de Arca, ya que su fin es la salvación de todos los fieles". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 248. or. Hilobia, berriz, J.A. Cirlot-ek

Eliz inguruak, hilerria, lekugune isotopiko gisa gorpuzten dira, heriotz eta bizitza berriak dakartzaten espazio moduan. Modu batera edo bestera, bizitza berri horiek norabide bat bakarra hartzen dute: Aberrirako norabidea. Oinarri amankomun bat daukate hor eragindako aldaketa guztiek: kristau-sinismenean sendotu edo kristau-sinismenera bihurtu pertsonaiak. Azken finean, Arnoldori bere aberriarekiko atxikimendua ukatzen zaio; Riktrudisek Auñemendiko, Euskal Herriko, aingerua izateari utziko dio; Portunek Euskal Herriko buruzagirik ospetsuena izateari utziko dio, herririk herri bere gazte denborako bekatuak aitortzen joateko... Eliz inguruak, hilerria, metafora bilakatzen dira eleberrian behin eta berriz, nahiz konparazio moduan, —"'Erbeste' ipiñi eutsan etxeari izena, zeren, lurra gizonentzat erbestea dan legez, erbestea zan Riktrudisentzat prankotarren erria" (**Auñemendiko Lorea**, II, 120. or.)—, nahiz metafora moduan —"Zeruak zure doskañia ikusi dau, ta Abraanena lenagoetan saritu eban legez, erbeste onetan saritu gura deutsu" (**Auñemendiko Lorea**, II, 62. or.)—, Lurra izendatzeko erabiltzen den **erbeste** horretatik **Aberrirako** iraganbide-leku legez. Azken finean etengabe errepikatu den eleberriaren azken perpaus hau berau berrindartu besterik ez dute egiten:

> "Baiña eztaigun aztu euskaldunak garala esanda beste barik ezkarala zeruetan sartuko" (**Auñemendiko Lorea**, II, 184. or.).

Egitura isomorfikoa eratuz eraikitzen diren Arnoldoren eta Riktrudisen historietan, aberriari izandako atxikimendua ukatzen diete eliz inguruetatik datozen berriek. Desjabetze honekin, hau da, aberri lokalizatu batekiko atxikimenduaren desjabetzearekin, hasten da Aberrirako bidea: arrazarik, hizkuntzarik... bereizten ez duen Aberri baterakoa, gizaki guztiak biltzen dituen Aberrirakoa.

Biek daramate Aberri horretara heltzeko beharrezkoa den agiria: kristau zintzoak izatea.

Aurkajarriz eraikitzen diren Portunen eta Adalbaldoren historietan, lehenak Aitz barrengo hilerrian utziko du bere aurreko izaera Aberrirako agiria hartzeko; bigarrena, berriz, Auñemendin egindako "lapurretaz" desjabeturik abiatuko da Aberri horretarantz.

"lugar de las transformaciones" gisa jotzen du. Ik. CIRLOT, J.A.; **Diccionario de símbolos**, Editorial Labor, Barcelona, 1981, laugarren argitalpena, 452. or.

3. ELEBERRI HISTORIKO - KOSTUNBRISTA - DIDAKTIKOA

Gaur egun eleberri historikora hurbildu den hainbat eta hainbat kritikok ametitzen duenez, izenburu horren azpian oso joera desberdinetako eleberriak biltzen dira (51) oinarri amankomun bat izaki: gertaera historikoak edo-ta pertsonaia historikoak (52).

Auñemendiko Lorea eleberri historikotzat jo daiteke, baldintza hori betetzen duen neurrian: gertaera historikoak eta pertsonaia historikoak dakartza narraziora. Are gehiago, Domingo Agirrek azaltzen ditu zeintzu diren eleberriaren alderdi historikoaren iturriak, bere dokumentazio historikorako erabili dituen liburuak.

Dokumentazio historiko hori abiapuntu, eraikitzen da eleberria.

Eleberriak heroe bat dauka, beste heroe-mota bati baino heroe epiko bati edo (53) gehiago hurbilduko litzaiokeena: Riktrudis, Auñemendiko Lorea, eleberriari titulua ematen diona.

Riktrudis, **Auñemendiko Lorean** barrena, heroe eklektiko moduan edo eraikiz doa, nolabait esateko, filosofian "eklektiko" kontzeptuak hartzen duen zentzuan. Izan ere, Riktrudisengan nabaria da halako epikotasun bat, baina nolabaiteko kostunbrismoarekin batera.

---

(51) "Debe entenderse, pues, que bajo la denominación de **novela histórica**, en la cual se engloban novelas que sólo tienen en común el hecho de situar su acción en épocas distantes, se acogen relatos de muy diversas tendencias y propósitos". ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. El Romanticismo**, IV, 661. or.

J.I. Ferrerasek berak, Espainiako eleberri historikoaz diharduelarik, hiru aldi bereizten ditu honako izenburu hauen azpian: novela histórica de origen romántico, novela histórica de aventuras, novela de aventuras históricas. Ikus FERRERAS, J.I.; **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)**, 99. or.

(52) "Kondaira elaberriaren definizio asko eman litezke, baina ia kritikalari denak elkarri loturik dauden bi puntu ekartzen dute ezaugarri. Gertakari historikoak eta pertsonaia historikoak agertzen omen ditu kondaira elaberriak". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 10. or.

(53) G. Lukacs-entzat epopeiak heroe totalizatzaile eta positiboa dauka, eleberri historikoak erdi-mailako heroea, eta eleberri errealistak heroe degradatu edo demoniakoa. Ik. FERRERAS, J.I.; op. cit., 30. or.

Riktrudisen asmoak garbi daude; bere hitzetan:

> "'Euskalduna nazan aldetik, euskaldundu, kristiñaua nazan aldetik kristiñautu': ori da nire oinkada ta ibillera guztietarako daukatan azalkai ta gogo errimea" (**Auñemendiko Lorea**, II, 68. or.).

Baina Riktrudis eleberrian barrena ez da gorpuzten heroe-subjetu moduan, ezta ideal horrek eraginda etengabe ideal horien gauzatzea bilatzen duen pertsonaia moduan ere. Riktrudis egon dagoen pertsonaia moduan eraikitzen da, harik eta norbaitek gatazkaren bat sortu arte; orduan hasten da higitzen Riktrudis, helburu horiek gidari. Bestela esanda, Riktrudis gehiago da ideal batzu defendatzen dituen pertsonaia, ideal horiek gauza daitezen ofentsibara jotzen duena baino.

Beraz, ezin esan Riktrudis heroe erabat pasiboa denik, parte hartu egiten bait du eleberrian barrena jazotzen diren gertaeretan; baina ezta heroe ihardulea denik ere, besteak higitu ondoren higitzen bait da beti bera.

Portunek sortzen du lehen gatazka eleberrian, bere harrotasunak eta kristau-sinismenik ezak eraginda. Gatazka sortu ondoren parte hartzen du Riktrudisek, Portunek gatazkari bilatu nahi dion irteera galerazteko; "kristiñau legez" Riktrudisek ezin onar bait dezake ez gatazka-sortzailea izan den arrazoia, ezta Portunek eman nahi dion irteera ere.

Adalbaldoz maitemintzean egon egingo da Riktrudis. Itxaron egingo du, maitemintze horrek sortutako desorekarentzat beste erremedio-motarik jarri gabe. Riktrudisek **Auñemendiko Lorean** itxaron egingo du, noiz norbaitek edo zerbaitek desoreka horri irteera bilatu, Mañasik **Kresalan** egiten duen bezala.

Aitorrentzulea duen Amando apezpikuak irakasten dio honek maitemintzeak sortutako kezkak azaltzean, ezkontza onuragarria izan daitekeela bere idealak lortzeko:

> "¿Ezeutsan bada Amandok esan, Adalbaldo ta bera, Riktrudis, alkarrentzako iaiorikoak legez zirala, ta biak alkartutea errientzat guztiz ona izango litzatekeala? Prankotarrak euren nagusi bat euskaldunagaz ezkonduta ikusi ezkero —esan eutsan Amandok— euskaldunai obeto begiratuko deutse; ta euskaldunak, Arnoldo izen andikoaren alabea ta Adalbaldo bat eginda ikusitakoan, eztira auzokoen kontra aiñ amorratuak egongo.

¡Baiña ori gauza andia zan! ¡Ainbat andia! Gizaldi luzeetan alkar ikusi eziñik egozan arraza biak, batak bestea ondatutea baizen beste gauzarik gogoan ezeuken erriak, ¡alkartu!

Ta ona zana ezin ukatu zeitekean. Gizon guztiak aita baten semeak baziran, zerurako iaioak, danak anaiak legez bizi izatea bidezko gauzea zan. Batak besteari egitada txarrak parkatuteko agindu baeban Iesusek, alkarri parkatu bearrean egozan euskaldun da prankotarrak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 146-148. orr.).

Bere idealekin bat datorrenez, egokitzat joko du bide honi jarraitzea, ideal horiek lortzen laguntzen duelako; baina Riktrudisek itxaron egingo du, harik eta Adalbaldoren ezkontz hitza datorkion arte. Ez da bera aurreratuko helburua bilatzen. Zain geldituko da.

Aita duen Arnoldo herri-saltzailetzat jotzean higituko da berriro Riktrudis. Aitz barrengo gertaerakoan bezalaxe, desoreka horren sortzailearengana joko du, Portunengana, ez duelako bidezkotzat jotzen aitagatik esaten dutena. "Euskaldun eta kristiñau legez" Riktrudisek ezin onar bait dezake gatazka hau, egiari erantzuten ez diolako. Baina berriro ere besteren ekintzek sortutako desorekak bideratzera bakarrik mugatzen da.

Adalbaldorekin ezkontzeak Auñemendin sortutako desorekaren aurrean ere erantzun egingo du.

Bere ekintza batek sortu du desoreka, baina bere nahien aurka. Ez zegoen bere asmoan horrelako erreakzioa sortzea, baizik eta juxtu-juxtu aldrebeskoa. Desoreka honen aurrean ere "euskaldun eta kristiñau legez" jokatuko du: Auñemendiko bere ondasunak txiroentzat utziko ditu; otoitz egingo du bakea lehenbailehen hel dadin eta etsipenez jasango du Jaungoikoaren nahia delakoan, noiz edo noiz errudun sentitzen bada ere.

Riktrudis heroeak bere idealen arabera bizi besterik ez du egiten: exenpluarekin eta hitzekin erakutsi nola bizi behar dugun; Pedro Mari morroiak kontatutako ipuinaren moraleja atera, ipuinaren entzuleek ikas dezaten; Erbesten (Ostrabentoko bere etxea ezkontzaz) "euskaldun eta kristiñau legez" bizi, euskaraz hitz eginez, seme-alabei euskara irakatsiz, gudatik zauriturik zetozenak sendatuz...

Baina, hala ere, heroe honek ihardule moduan jokatu gabe lortuko du "hazaña epikoa", jesta epikoetan bezala, zoriona ekarriz Auñemendira, Euskal Herrira, herri osoarentzat onuragarria izango

den zerbait erdietsiz: Portun kristautzea. Nor kristautu eta Portun, honen izenak "beste Euskalerriko guztiak illunpetan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 112. or.) dauzkanean, Auñemendiko buruzagi ospetsuena den Portun. Hori lortuko du Riktrudisek. Eta sinbolikoki behintzat, baliabide sinekdotikoa erabiliz, Portunen kristautze honek Euskal Herriarena adieraz dezake. Baita, "Guena" kapituluan adierazten denez, bakea ere ekarriko du Riktrudisek: "Auñemendin bake osasungarriaren argi ederra agertu zan noizbaiten, Riktrudisen arrenari eskerrak" (**Auñemendiko Lorea**, II, 182. or.). Heroe epiko baten moduan dakartza bakea eta kristautasuna Auñemendira, baina ez helburu hori erdiesteko mataza etengabe ehotzen joan delako —mataza beste norbaitek ehotzen du: Portunek—, baizik eta beste zerbaitek edo Norbaitek hala nahi izan duelako Riktrudisen bidez.

Portun eleberrian barrena saiatu da Riktrudisen maitasuna erdiesten trikimailu desberdinak erabiliz —ez da hemen eztabaidagai trikimailu horiek bere helburua lortzeko aproposenak ziren ala ez, kontalariak eleberria horrela egituratzea erabaki bait du—, baina porrot egin du; bere azken saioa Aitz barrengo hilerrikoa izango da. Hemen erantzun zehatza jasoko du; zeruan maitatuko du Riktrudisek Portun, hara joaten bada. Riktrudisen maitasuna lortu nahiak darama Portun kristautzera. Miraria Riktrudisi eskaintzen dion maitasunak erdietsi du edo Riktrudisen edertasun osoak —bere birtute handiak, bere banakotasunak...—.

Azkenik, bakea ekarriko dute Auñemendira Riktrudisen otoitzek: urteak eta urteak iraun duen frankotarren eta euskaldunen arteko borrokaren amaiera. Heroe pasibo honek, aktiboa baino gehiago bait da pasiboa, azkenean jesta heroikoa lortu du: kristautasunaren eta bakearen zoriona dakarkio bere herriari.

Baina epizismo honen aldamenean, heroe epiko batera hurbiltzen duen ezaugarri honen ondoan, Riktrudisek badu eleberri kostunbristak sortzen duen pertsonaia-tipoarekin ere kidetasunik. Badirudi bi muturretan koka daitezkeen pertsonaia-moten sinbiosia bilatu nahi izan zuela D. Agirrek.

Riktrudis pertsonaia geldia da, "emakume indarbagako zirzill"tzat joa. Ez du bere barnean aparteko deirik sentitzen, ekintza handi eta epikoak egitera bultzatzen duenik. Gero gertatuko da horrelakorik bere birtute paregabeei esker:

"¿Zer egin daiket nik?" galdetu ondoren honako erantzun hau ematen dio bere buruari:

"Ez naz izan urria al dodana egiten Iesusen izena ezagutua ta maitetua izan dediñ: orretan igaro ditut oraiñ arteko egunak: neure ezagun da adiskideen artean alegiñak egin ditut nik, eta aurrerantzean bere zerbait egiteko gogoa daukat" (**Auñemendiko Lorea**, I, 152. or.).

Riktrudisek ez du bere burua Auñemendiko egoera itxuraldatzera deitua ikusten, frankotarrekin urteetan barrena izan dituzten gorabeherak heroe epiko baten moduan konpontzen edo Auñemendi ekintza haundien bidez kristautzen. Bere bidea bestelakoa da: apaltasunarena.

Eleberrian barrena ez du aldaketarik jasaten. Bizi edo bizi arazi dizkioten abenturek ez dakarte aldaketarik Riktrudisengana. Auñemendiko Lorea zen eleberriaren hasieran eta Auñemendiko Lorea izaten jarraitzen du amaieran. Heroea tipo bihurtzen da (54).

Riktrudis ez da eraikitzen eleberrian bere buruarekin edo-ta inguruarekin borrokan dagoen pertsonaia moduan. Matazaren garapenean barrena bi unetan ikus daiteke zalantzan: batean, Adalbaldoz maitemintzeak sortzen dizkion kontzientzi arazoak direla medio, baina Amandok bidea argitu eta zalantza deuseztatu egingo da; bestean, bere ezkontzak sortu duen frankotarren eta euskaldunen arteko borrokak errudunaren kontzientzia sortzen dionean, "baiña bere senarrak eta eliz-gizonak kenduten eutsen burutik bere gogartea, bada euren eritxiz, Portunek eukazan erru guztiak" (**Auñemendiko Lorea**, II, 138. or.).

Bere inguruko munduarekin ere bakean bizi da Riktrudis. Ez da behintzat Auñemendiko gizartea aldatu nahian higitzen, nahiz eta berak Auñemendi kristaua nahi, eta ez berak bizi duen erabat kristautu gabeko Auñemendi.

Riktrudisek dioenez, ahaleginak egin ditu adiskideen artean; etxeko neskame-morroiei ere irakatsi egingo die bere bizitza paradig-

---

(54) "Son obras costumbristas aquellas en las que el protagonista no sufre ninguna transformación a lo largo de la supuesta 'historia' narrada; de aquí que el héroe se convierta en **tipo**, de aquí que el universo se transforme en **cuadro**". FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica, (1800-1830)**, 133. or.

matikoarekin eta etxean sor daitezkeen abagaduneez baliatuz. Ezkondu ondoren Erbesten ildo hau berau jarraituko du, baina **Auñemendiko Lorea** ez da eraikitzen Auñemendiko egoerak Riktrudisi sortzen dion desorekaren gain eta desoreka honi erantzun gisa. **Auñemendiko Lorean** etengabeko desorekan Portun bizi da. Portunek dihardu etengabe borrokan oreka berriaren bila. Riktrudis inguruarekin bakean bizi den pertsonaia legez eraikitzen da, pertsonaia-tipo moduan (55); izan ere, ez bait da Auñemendiko egoera alda dadin ekintzara igarotzen; ez bait du egoera honek berarengan desorekarik sortzen, ekitera bultzatzen duen desorekarik ekartzen; bakar-bakarrik Portunek eragindako gatazkei erantzutera mugatzen bait da.

Baina bere izaerak lortuko du jesta heroikoa, bere egoteko moduak, bere bizitzeko moduak, bere otoitzak. Riktrudis hutsik gabeko pertsonaia da; izpirituaren edertasuna lotzen zaio bere edertasun fisikoari.

Riktrudis aingerua da. Hauen antz fisikoa du, kontalariak dioenez:

> "Neskatilla gaztiak zeruko aingeruen antzeko arpegi biribill gozo leuna eban" (**Auñemendiko Lorea**, I, 10. or.).

Portunek honako inpresio hau jaso zuen lehen aldiz ikusi zuenean:

> "Amesetan iruditu geinkean gauzarik zoragarrienaren antzera agertu zan. ¡Axe da sarrakiua sartu eustana! Bildurtu egin nintzan, beste munduetako gauza bat ikusi baneu legez. Bai, edertasunak badaroa beragaz gizonak konkortuteko indar eskutukoren bat. Ni beiñik beiñ Riktrudisen izakera, esakera, ibillera ta begiradeak konkortuta itxi nituan. Dana zan aiñ... aiñ... eztakit nik zelan esan bere, barru-barruan gozotasun aundi bat emoten ebana. Ez ian, ez edan, ez berotu, ez iñori iaramonik egiñ; kokolotuta, gatzbagetuta, izututa, lotsatuta, Riktrudiseri begiratzea baiño besterik ez neban egiten" (**Auñemendiko Lorea**, I, 78-80. orr.).

---

(55) "(suprimir al individuo origina una pura descripción inmóvil de un universo inerte; suprimir el universo novelesco, produce la invasión de la lírica y la transformación de la novela en poema o balada; inmovilizar las relaciones entre universo e individuo protagonista, acarrea indefectiblemente el **tipo** o **cuadro** costumbrista, siempre antinovelesco, etcétera)". FERRERAS, J.I.; **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870)**, 28. or.

Amando apezpikuaren ustez, "Riktrudis euskal mendietako aingerua" zen (**Auñemendiko Lorea**, I, 112. or.).

Amandoren hitzak bere eginez, honela mintzo da kontalaria Adalbaldoren pentsamenduez, honek Riktrudis ezagutu ondoren:

> "Ta aingeru onen irudia bere biotzaren erdian eroian dukeak, bakartadean gurtuteko asmoagaz, ia ia siñizturik aingerua zala ezagutu eban euskaldun emakumea, ta aingeruen artean ederrenetakoa" (**Auñemendiko Lorea**, I, 112. or.).

Adalbaldoren pentsamenduek ildo beretik jarraituko dute Amandoren etxea utzi ondoren, kontalariak dioenez:

> "beste izate bat eukan gogoan, agiri etzan izate bedeinkagarri bat, euskal mendietako aingerua. Osterantzeko gauza guztiak aingeruaren edergarriak, ertzak, barrenak eta egalak ziran" (**Auñemendiko Lorea**, I, 116. or.).

Riktrudisek aitaren gorpuaren aurrean bere eresia amaitu eta honela zioen "atsotxu" batek, auñemenditar batek:

> "—¡Ze bigun da estitsu agertzen dituan aingerutxu orrek Iesusen legeko erakutsiak eta bere biotzeko gurari doneak!" (**Auñemendiko Lorea**, II, 30. or.).

Konparazio nahiz metafora moduan maiz erabiltzen da aingeru hitza Riktrudis izendatzeko. Bego arestian egindako azalpen ez-eshaustiboa erakuskari.

Riktrudis lorea da. Honela deskribatzen ditu kontalariak bere begiak:

> "Ta begi baltz batzuk bai! eztitsuagoak ziran Mondarrain-mendiko lorarik eztitsuenak baiño" (**Auñemendiko Lorea**, I, 10. or.).

Bere begi beltzen konparazio-gaitzat jotzen den lore hori behin eta berriz erabiliko da kontaketan barrena bera izendatzeko (56).

Riktrudis "beastun bagako usakumetxoa" da (**Auñemendiko Lorea**, I, 26. or.).

Riktrudis bildots otzana da. Pedro Mari Mendiolako morroiak erabiliko du metafora hau Riktrudis izendatzean Portuni galdezka:

---

(56) Ikus **Auñemendiko Lorea**, II, 8. or., 102. or., 104. or., 120. or., etab.

"¿Bildotx otzana gura zenduke zeure atzaparren artean?" (**Auñemendiko Lorea**, II, 18. or.).

Nabarmena da testuan barrena Riktrudis izendatzeko sinbologia biblikoaren erabilera. Sinbolo guztiek izpiritualtasuna eta garbitasuna sinbolizatzen dute.

J.A. Pérez Rioja honela mintzo da aingeruen sinbologiari buruz:

> "Palabra de origen griego, ángel significa **mensajero**, etimología acorde con el sentido cristiano de ministros del Señor como seres puramente espirituales o sobrehumanos, mediadores entre el cielo y la tierra, entre Dios y los hombres y de los que se sirve el Creador para hacer cumplir en la tierra sus designios. De aquí que los ángeles sean el símbolo de lo invisible, de fuerzas ascendentes y descendentes entre el Creador y las criaturas. Anunciadores o mensajeros, sus apariciones se relacionan siempre con una buena nueva: (...). Dentro de las actuales teorías psicoanalíticas, en el llamado 'proceso de individualización' de Jung, el ángel es la imagen arquetípica del 'mediador', la conciliación entre la materia y el espíritu" (57).

Lorearen sinbologiari buruz, berriz, honela mintzo da:

> "En el simbolismo universal no cabe hablar tan solo de la flor, sino de las flores. (...). De modo general, evocan las ideas de fecundidad, fugacidad, belleza, amor, espiritualidad e inmortalidad" (58).

Usoak honako tratamendu hau jasotzen du:

> "Pero ya en el arte antiguo, como luego en el arte cristiano, la paloma simboliza, en general, la pureza y la paz. Evoca la idea de espiritualidad, como los demás animales alados. De aquí que sea un símbolo de las almas, motivo frecuente en el arte visigodo y en el románico. En la Sagrada Escritura, la paloma, significa la inocencia. La ley mosaica consideraba pura a la paloma, la cual constituía la ofrenda de purificación después del nacimiento de las criaturas. (...). Otros dos relatos bíblicos (Noé en el Arca y el Bautismo de Nuestro Señor) se relacionan con dos significaciones simbólicas de la paloma: mensajero de paz, al llevar el ramo de olivo a Noé e imagen del alma del neófito en el bautismo. En ese último sentido, la paloma simboliza al Espíritu Santo, por medio de la cual repre-

(57) PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 65-66. orr.

(58) **Ibidem**, 210. or.

sentan los artistas a la tercera persona de la Santísima Trinidad" (59).

Azkenik, bildotsa honako sinbologia honen erakusletzat jotzen du:

> "El cordero, víctima propiciatoria de la fe entre los judíos, era inmolado sobre el Altar para obtener el perdón de los pecados. Cristo ha sido llamado Cordero de Dios —'Cordero de Dios que quitas los pecados del mundo' dice San Juan Bautista—, porque su propio sacrificio en la Cruz se asemejaba al acto expiatorio judío.
>
> Es, por lo tanto, símbolo de Cristo, de los apóstoles, de los profetas y de los fieles. (...). La característica esencial o máxima virtud del simbolismo es su capacidad de inmolación. (...). Así también en el sentido más amplio y general, el cordero es símbolo de pureza, inocencia, mansedumbre o inmerecido sacrificio" (60).

Nahiz sinbolo biblikoek —aingeruak, usoa, bildotsa—, nahiz biblikoa ez denak —lorea— oinarri amankomun bat daukate: izpiritualtasuna. Sinbolo biblikoek, berriz, baita mandatari izatearena (Berri On baten mandatari —aingeruak, usoa—) edo, bildotsaren kasuan, Kristoren sinboloa izatearena ere.

Gotzon Garatek Riktrudis pertsonaiari buruz dio:

> "Riktrudis aldaketa historikoaren sinbolo da. Jentiltasunetik kristautasunerako aldaketarena, alegia" (61).

Riktrudis Berri Onaren mandatariaren sinbolo bihur daiteke, ez bakarrik eleberrira izen propio baten jabe izanez datozen pertsonaiarik gehienek aingerutzat jotzen dutelako —Portun, Amando, Adalbaldo— edo usotzat —Andre Luzia— edo loretzat —Portun, Amando, Ubero— edo bildostzat —Pedro Mari—; baita Riktrudisen pertsonaia **Auñemendiko Lorea**n barrena eraikitzeko moduagatik ere.

Badago consensus bat eleberria osatzen duten estamentu desberdinen artean Riktrudis aingerutzat jotzeko: bai eleberrira izen propioarekin datozen pertsonaien artean, nahiz frankotar —Adalbaldo—

---

(59) PEREZ-RIOJA, J.A.; Diccionario de Símbolos y Mitos, 334. or.

(60) Ibidem, 139. or.

(61) GARATE, G.; Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea, 43. or.

nahiz euskaldun izan —Portun—; bai izen propiorik gabe datozenen artean —"Ill-gauan" Arnoldoren gorpu aurrean dagoen "atsotsu" bat—; bai kontalariari dagokionez ere. Bestetik, berriz, hor dago eleberrian barrena eraikiz doan pertsonaia geldi hori: bere buruarekin eta inguruarekin desorekarik sortu gabe bizi dena, besteak sortutako desoreketan oreka bilatzera bakarrik higitzen dena, bere bizitza paradigmatikoarekin irakasten duena eta eleberriaren amaieran bere aparteko edertasun eta izaera paregabeaz jesta heroikoa erdietsiko duena: Portun kristautzea eta Auñemendira bakea ekartzea.

Azkenean, Portunek jaso du Riktrudisek zekarren mandatua. Une horietan euskaldunen buruzagi garrantzitsuenarengana heldu da. Fikzioaren hasieran Portunek erretrospekziora joz gogora dakar Riktrudis lehen aldiz ikustean sentitu zuena: "Dana zan aiñ... aiñ.. eztakit nik zelan esan bere, barru barruan gozotasun aundi bat emoten ebana" (**Auñemendiko Lorea**, I, 80. or.). Fikzioaren hastapenetako dei honek fikzioaren bukaeran jaso du erantzuna. Mandatariak lortu du mandatua heleraztea. Edertasunaren eta kristautasunaren edertasunaren garaipena da.

Riktrudis eleberri kostunbristetako pertsonaia legez deskribatua eta eraikia da, pertsonaia-tipo legez; eta ezin esango litzateke heroe epikoa denik **Auñemendiko Lorean** hartzen duen eraketagatik. Baina karakterizazio tipologiko kostunbrista horretan, pertsonaia hau sinbolo moduan itxuratzen duten zenbait ezaugarrik parte hartzen dute, eta honek dinamika epiko bat sortzen du, nahiz eta heroea nekez jo daitekeen heroe epikotzat jasotzen duen deskripzio eta hezurmamitze-moduagatik. Baina Riktrudisek gainditu egiten du dinamika kostunbrista.

G. Lukacs-ek aurkajarri ditu epopeiaren eta eleberri historikoaren heroeak:

> "El carácter pannacional del contenido básico de la epopeya, la relación entre el individuo y el pueblo en la edad de los héroes, exige que en la epopeya la figura principal asuma también la posición central, mientras que en la novela histórica no es ni puede ser más que un personaje secundario" (62).

G. Lukacs-entzat epopeiaren heroea ez da behin ere gizabana-

(62) LUKACS, G.; **La novela histórica, (Obras Completas, IX)**, Ediciones Grijalbo, Barcelona, 1976, 46. or.

koa, indibiduoa (63). W. Kayser-ek ere baiezpen berdina egingo, G. Lukacs-ek hartzen duen filosofo bera abiapuntutzat hartuz: Hegel.

G. Lukacs-entzat edo W. Kayser-entzat epopeiaren heroea ez da gizabanakoa; bai eleberri historiakoarena, ordea (64).

---

(63) "Rigurosamente, el héroe de epopeya no es jamás un individuo. En todos los tiempos, se ha considerado como una característica esencial de la epopeya el hecho de que su objeto no es un destino personal, sino el de una comunidad. Con razón, pues, el sistema de valores acabados y cerrado que define al universo épico crea un todo demasiado orgánico para que en él un solo elemento esté en condiciones de aislarse conservando su vigor, levantarse con demasiada altura para descubrirse como interioridad y hacerse personalidad. (...). Cuando la vida en tanto que vida, encuentra en ella su sentido inmanente, es a las categorías de lo orgánico que les corresponde determinar: la persona y la fisonomía individual nacen de un equilibrio en el condicionamiento recíproco de la parte y del todo, no de una reflexión polémica sobre sí de la personalidad solitaria y extraviada. Por eso la significación que puede revestir un acontecimiento en un mundo cerrado de esa especie es siempre de un orden cuantitativo; la serie de aventuras a través de las cuales se manifiesta ese acontecimiento no adquiere su importancia sino de la importancia que ella tiene para la felicidad o la desdicha de un gran complejo orgánico, pueblo o raza. Si es necesario, por consiguiente, que los héroes de la epopeya sean reyes". LUKACS, G.; **Teoría de la novela**, 70. or.

(64) G. Lukacs-ek W. Scott-en eleberri historikoetan ezartzen du eleberri historikoaren sorrera: "La novela llamada histórica anterior a Walter Scott carece de lo específicamente histórico, a saber, de la deducción de la particularidad de los hombres que actúan a partir de la peculiaridad histórica de su época". LUKACS, G.; **La novela histórica**, 15. or. W. Scott-ek bere eleberrietan sortutako pertsonaiak, indibiduoak, gizabanakoak dira: "La genialidad histórica de Walter Scott, nunca luego alcanzada, se manifiesta en su forma de disponer las cualidades individuales de sus grandes personajes históricos, de tal modo que éstos reúnan en sí mismos los aspectos positivos y negativos más salientes del movimiento de que se trate". LUKACS, G.; op. cit., 39. or.

W. Kayser-ek, G. Lukacs-ek **Teoría de la novela** liburuan hartzen duen abiapuntu berbera hartzen du: "Hegel y Vischer expusieron la difícil situación en que se encuentra el poeta épico en los tiempos modernos. No puede apoyarse en leyendas o mitos creídos; su mundo esta 'organizado prosaicamente', ha quedado sin mitos y sin milagros, y se ha convertido en una 'realidad conocida experimentalmente' (...). Incluso cuando el asunto —como sucede en muchas novelas históricas— es todavía un gran acontecimiento que abarca pueblos enteros, en esta dirección se tratará siempre de vivencias personales: el tiempo de las cruzadas se llama **Ivanhoe** (W. Scott), la ruina de los visigodos, **Eurico** (Alejandro Herculano); el declinar del Renacimiento; **Vittoria Accorombona** (L. Tieck), etc. Los personajes ya no son tan portadores de mundo como Ulises —el rey, el favorito de los dioses, el griego que regresa a su patria—: son personas 'privadas'". KAYSER, W.; **Interpretación y análisis de la obra literaria**, Biblio-

Honenbestez, G. Lukacs-i jarraiki, esan daiteke eleberri historikoaren heroea erdi-mailako pertsonaia dela, "mediano" J.I. Ferreras-en hitzetan, eta indibiduo eta gizabanako legez eraikitako pertsonaia.

Baina Riktrudis, nahiz eta eleberri historikotzat jo den eleberri bateko heroea izan, nekez jo daiteke **Auñemendiko Lorean** gizabanako legez eraikiz doan pertsonaiatzat; eta berdin, maila batean behintzat, erdi-mailako pertsonaiatzat.

Bere status soziala erreferentzi puntutzat hartzen bada, erdi-mailako pertsonaiatzat jo daiteke. Historiaren hastapenetan euskaldun buruzagirik ospetsuenaren alaba bakarra bada ere, historia aurrera doan neurrian "herri-saltzaile" baten alaba bihurtuz joango da. Baina ez hori bakarrik. Badira eleberrian Riktrudisek hartzen duen heroe-protagonistaren maila hartu gabe bigarren mailan geldituko diren pertsonaiak, nahiz eta Riktrudis baino handikiagoak izan: bere senar Adalbaldo dukea edo-ta frankotarren errege Klobis II.a.

Adalbaldo dukearen status soziala Riktrudisena baino handiagotzat jotzen dela baiezteko, aski da eleberriko zenbait pertsonaiak azaltzen duten iritzia jasotzea. Honako alderaketa hau egiten du Riktrudisek Adalbaldo eta bere artean:

> "Aiñ gaztea, aiñ ederra, aiñ aberatsa, kondeen da lenapezpikoen anaia, erregeen laguna, iauregirik apainduenetan bizi dan gizona, zelan gomutau leiteke luzaroan mendiko alaba zirzill bategaz?" (**Auñemendiko Lorea**, II, 46. or.).

Portunek berak ere ametituko du zeharbidez Adalbaldoren handikitasuna, Riktrudis Adalbaldorekin ezkontzeko Ostrabentora joan eta etxerik etxe bere kausarako —frankotarren aurkako gudarako— jarraitzaile bila ari denean:

> "Arnoldo salduta egoan da bere Sorterria saltzeko prest, eriotzea etorri iakonean. Bakotxari berea emon bear iako, ta nik ezagututen dot gaztetan Errizalea izan zala; baiña zartzara, bere alabeagaz txotxinduta, Riktrudis andi ikusteagaitik, errege-usaiñekoakaz ibilteagaitik, eta eliz-gizon arrotzaren esandeak entzunda, edozetara iarri zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 78. or.).

Oso laburra da Klobis II.aren presentzia eleberrian. Frankota-

---

teca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1976, laugarren argitalpenaren laugarren berrargitalpena, 480. or.

rren erregea behin bakarrik dator kontaketara bere ahotsarekin, ekintza noble baten gauzatzea agintzen: auñemenditarrekin bakea.

Beraz, status sozialaren ikuspuntutik esan daiteke Riktrudis ez dela figurarik garrantzizkoena; badirela beste pertsonaia batzu status sozial handiagoa dutenak, nahiz eta eleberrian posizio zentrala ez hartu eta bigarren mailan gelditu.

Status erlijiosoari dagokionez ere antzerako zerbait gertatzen da: Riktrudis "oinezko kristaua" besterik ez da. Mendian jaioa, hazia eta hezia. Bada **Auñemendiko Lorean** beste pertsonaia bat, figura garrantzitsuen moduan itxuratuko ez eta oinezko kristau hutsa ez dena: Amando apezpikua.

Beraz, status erlijiosoaren ikuspuntutik ere esan daiteke Riktrudis ez dela figurarik garrantzikoena; badela beste pertsonaia bat status erlijioso handiagokoa, nahiz eta eleberrian posizio zentrala ez hartu eta bigarren mailan gelditu.

Pertsonaiek eratzen duten sisteman (65), nahiz eta status sozialaren eta status erlijiosoaren aldetik begiratuta erdi-mailako pertsonaia izan, eleberriaren figurarik garrantzitsuena bilakatzen da Riktrudis; izan ere, halakoa da bere protagonismoa, kristau-sinismenaren sistemaren birtute edo ezaugarriei erantzun eta kristau-sinismenaren sistemaren prototipo bihurtzean. Azken finean, Riktrudis Berri Onaren mandatari legez Auñemendira bidalitako mandataria da; eta mandatari honen handitasuna ez dator mundu honetan handiki izatetik nola kristau-sinismenaren sistema orpoz orpo jarraitzetik. Hori besterik ez du egiten Riktrudisęk: kristau-sinismenaren edertasuna erakutsi; eta honek egiten du "handiki"; bera da prototipoa. Honek hurbiltzen du poesia epikoaren heroetara (66). Oraindik, agian, euskal eleberri-

(65) "Cada unidad literaria, desde la frase concreta hasta el orden total de las palabras, puede ser estudiada a través del concepto de sistema". SCHOLES, R.; **Introducción al estructuralismo en la literatura**, Biblioteca Universitaria Gredos, Editorial Gredos, Madrid, 1981, 26. or.

(66) Mais en fait les héros des épopées, quelles que soient leurs origines, présentent en règle générale plus ou moins d'affinité avec les dieux des mythologies. C'est qu'une poésie épique, même lorsqu'elle relate des événements historiques ou contemporains, ne vise jamais à reproduire avec exactitude les faits réels. Elle tend toujours plutôt à présenter des faits réels. Elle tend toujours plutôt à présenter des faits exemplaires, qui serviront de paradigmes aux comportements de ses auditeurs, et, partant, à constituer ses récits et ses personnages en conformi-

gileak erantzunak ditu, ortzian izar finkoak.

Zalantzarik gabe poesia epikoaren eta eleberriaren arteko aldea handia da, eta ez bakarrik hartzen duen forma grafikoari dagokionez —bertsoa, prosa—; forma grafiko hori bera ere ez baita azal hutsa:

> "Se trate de epopeya o de tragedia, la prosodia no es un constituyente último, sino un profundo síntoma, una línea de partida que manifiesta la esencia de la manera más apropiada y más verdadera" (67).

Mundu-ikuskeraren aldaketa, gizonak bere burua mundu honetan kokatzeko modua eta abar luze bat garatzen dira poesia epikotik eleberriaren formara (68). Baina literaturaren teorilari eta kritiko gehienak bat datoz bien artean harremanak daudela aitortzean, nahiz eta harreman hauek deskribatzean elkarrengandik urrundu (69).

Hemen ez da gure asmoa **Auñemendiko Lorea** epopeia edo "cantar de gesta" batetik eleberri batetik baino hurbilago dagoen esatea. **Auñemendiko Lorea** ez da poema bat, ez dago tonu solemnean idatzia... Bakar-bakarrik azpimarkatu nahi da Riktrudis pertsonaia-protagonista prototipo moduan eraikitzen dela, epikaren mundura hurbilduz. Nolanahi ere, epikaren mundura hurbiltzen bada ere,

---

té de modèles prototypiques que l'on retrouve aussi dans les mytes". ATSUHIKO, Y.; "L'épopée" in **Litterature et genres litteraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, París, 1978, 201. or. J. Huerta Calvok genero epiko-narratiboei eskaintzen dien kapituluan Erdi Aroko epopeiatzat jotzen du "Cantar de gesta" delakoa, eta hauei buruz honela mintzo da: "Generalmente estas gestas o hazañas eran referidas a un individuo, que se consideraba prototipo de la raza: Beowulf, Roldán, Rodrigo Díaz de Vivar, etc". Berpizkundean jarraipena izango du poema epikoak, genero honen sustrai paganuak kristautze progresibo bat ezagutzen duelarik. Ik. HUERTA CALVO, J.; "La crítica de los géneros literarios" in **Introducción a la crítica literaria actual**, Editorial Playor, Madrid, 1984, 109-110. orr.

(67) LUKACS, G.; **Teoría de la novela**, 59. or. Jarraian datozen orrialdeetan ikus daiteke nola ikusten duen G. Lukacsek epopeiak aditzera emateko bertsoa nahitaezkoa duela.

(68) Ikuspegi soziologiko batetik kontutan hartzeko dira ildo honetan G. Lukacs-ek, L. Goldmann-ek edo J.I. Ferrerasek egin dituzten ekarpenak.

(69) Ik., esate baterako, AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 241-242. orr. edo HUERTA CALVO, J.; "La crítica de los géneros literarios" in **Introducción a la crítica literaria actual**. Aipatu artikuluan aski esanguratsua da "géneros épico-narrativos" izenburua bera, 111-120. orr.

esan beharra dago mundu honetan ere ezinezkoa dela Riktrudis protagonista pasiboa erabat lekutzea. Agian, Riktrudisek errepresentatzen duen prototipoa eraikitzeko modu hori ez zaio egokitzen ez mundu epikoari, ez eleberriaren narrazio-motari.

D. Agirreren mundua, seguruaski, mitorik gabekoa da, baina ez miraririk gabekoa; eta mirarietan oinarri daiteke. Horregatik, Agirrek ez du prozesu beharrik; Agirreren pertsonaiek ez daukate bidea egin beharrik helmugara heltzeko; biderik egin gabe ere, batpatean helmuga erdiets daitekeelako mirariari esker. Riktrudisek egotearekin soilik, kristautasunaren edertasuna erakustearekin bakarrik, miraria lortuko du: Portun kristautzea, bere otoitzekin Auñemendira bakea ekartzea. Epopeietako heroeek jainkoen laguntza bazuten, Riktrudisek Jaungoikoarena du.

Riktrudisek, pertsonaia-tipo moduan karakterizatzen den pertsonaiak, gainditu egiten badu ere status hau jadanik deskribatu den eran, Auñemendi Aberrirako bidean jarriz, gainontzeko pertsonaiek ez dute honelako jauzirik egingo. Pertsonaia-tipo moduan eraikirik errepresentatzen duten tipoari erantzungo diote fikzioan barrena.

3.1. PERTSONAIA-TIPOAK

Pedro Mari Mendiolako morroiak leialtasuna errepresentatuko du. Morroi leial gisa beteko ditu bere ugazaben agindu eta mandatuak: Riktrudisek emaniko mandatua leial eramango dio Ozinbeltzeko batzarrean dagoen Arnoldori; baita Portuni ere; Arnoldo ugazaba defendatuko du herri-saltzailetzat jotzen dutenen aurrean; Riktrudisek emaniko bigarren mandatua eramango dio Portuni... Portun berak, zentzu peioratiboarekin bada ere, leialtasuna sinbolizatzen duen zakurraren metafora (70) darabil Pedro Mari izendatzeko:

> "¿Da zer dakartzu Mendiolako altzo-txakurra?" (**Auñemendiko Lorea**, II, 4. or.).

Nahiz eta Portunek zakurra determinatzen duen moduagatik zentzu peioratiboa hartu Pedro Mari izendatzeko formulak, ezin uka-

(70) "Es un emblema universal de la fidelidad, por ser ésta la cualidad más característica del perro". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 346. or.

tu Pedro Marik Mendiolako etxeari dion leialtasunak sortua denik; izan ere, Portunek adierazpen hori erabili aurretik kontatu den historian Pedro Marik zerbait erakutsi badu, hori izan bait da: leialtasuna.

Portunek adierazpen horrekin urratu duen bideari jarraiki, Pedro Marik bere burua honela ikusten du:

> "Ni txakurra izan banintz, artzanora izango nintzan, otsoko guztiai ortzak erakusteagaitik" (**Auñemendiko Lorea**, II, 6. or.).

Eta hain zuzen ere, zakurren multzoan artzanorak sinbolizatzen du egokien Pedro Mariren jokabidea **Auñemendiko Lorean** ugazabei leialtasuna izan ez ezik —zakur orok legez— ugazabak zaindu ere egiten bait ditu datozkien erasoetatik. Arnoldok eta Riktrudisek emaniko mandatuak leialtasunez bete ez ezik, ukaldika defendatuko du Arnoldo eliz atean zeuden guztiak herri-saltzailetzat jotzean; baita Riktrudis eta Mendiolakoak Portunen aurrean ere.

Portunek Pedro Mari iraintzeko darabilen irudia harremanetan dago erreferenteak une horiek arte (eta eleberri bukaerarte) izan duen portaerarekin. Aipatutako irudiak bi alderdi ditu, eta bi alderdi hauen konbinazioak egiten du, hain zuzen ere, iraintzaile. Irudi honek, Pedro Marik bere buruarentzat hautatzean, batetik galdu egiten du alderdi iraintzailea eta bestetik mugatu.

"Altzo-zakurra" zakur izatera igarotzen da; eta zein zakur eta artzanora, artaldearen zaintzailea. Artzanorak (71) legez zaintzen du Pedro Marik Mendiola.

Pedro Mari Mendiolako morroiak leialtasunaren pertsonaia-tipoa errepresentatzen du. Honen aurkako pertsonaia-tipoa, berriz, Mendiolako beste morroi batek errepresentatzen du **Auñemendiko Lorean**: Lope Nagik. Batak morroiak zer izan behar duen erakusten du; besteak, zer ez duen izan behar.

---

(71) Zakurrari aurrekoaz gain beste sinbolo hau ere ezartzen dio J.A. Pérez-Riojak: "En la simbología cristiana el perro tiene —además— otra atribución, derivada de su utilización por los pastores: la de guardián y guía del rebaño". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 346. or. J.E. Cirlot-ek ere ezartzen dio zakurrari sinbolo hau. Ikus CIRLOT, J.E.; **Diccionario de símbolos**, 359. or. Pedro Marik, bere burua alderatzean, artzanorarekin alderatzen du, artzai-zakurrarekin, hain zuzen ere. Pedro Mari artaldearen (Mendiola) gidatzailetzat jotzerik ez badago ere, ezin uka dakioke artaldearen zaintzaile izatea.

Lope Nagik desleialtasuna errepresentatzen du. Portunek bere bakarrizketan iradokitzen duena, gero eleberrian barrena desleialtasun gisa gauzatuz joango da. Pedro Mari Mendiolako morroia ugazabari leiala zaio, honen mandatuak betetzen ditu eta Mendiola "otsokoengandik" zaintzen du; Lope Nagi Mendiolako morroia, ordea, ugazabari desleiala zaio, Portunen mandatuak betetzen ditu eta ugazaba "otsokoei" salduko die.

Lope Nagi izenetik bertatik hasten da karakterizatzen. Nagitasuna izango du lagun historia osoan barrena, eta nagitasunarekin batera bere bekatu kapitala: gula.

Lope Nagi alferkeriarekin, zabarkeriarekin eta gularekin identifikatzen da. Horretarako, kontaketara datorren ia une bakoitzean atributu horietaz jantzita dator. Atributu horien errepikari esker —eleberrian dauzkan ia agerraldi guztietan horrela aurkezten da—, Lope Nagi aipatu bizioekin identifikatuz doa.

Amandoren etxea utzi ondoren, bideari lotzen zaio Adalbado. Bidean doala "ikusi eban, esker-aldean, intxaur zugatz azpian iarrita, narruzko zorro bat aurrean, da zekaleagaz egindako ogia ta zeziñ egosia eskuetan eukazala, gizon mots, narras, traskil, motroillo, ipur-lodi bat" (**Auñemendiko Lorea**, I, 116. or.). Hau da Lope Nagiren lehen aurkezpena narrazioan —aurretik zerbait iradokia zuen Portunek, baina ezer zehaztu gabe—. Lope Nagiren atributu bihurtuko dira aurrerantzean, behin eta berriz errepikatuz.

Aurkezpen horren ondoren, Adalbaldok egiten dion lehen galderari "kopau batean lau ontza ogi baltz aoan sartuaz" erantzungo dio; Adalbaldok "aiñ zabar da desbegiratua" ikusi zuenean beste galdera bat egiten dio. Aurkezpenaren ondoren datozen lehen zortzi lerroetan errepikatu egiten da aurkezpeneko egoera. Adalbaldoren azken eskaerari baietz buruarekin erantzuten dio: "aoa bete-betean eukan zeziñaz da ogiz".

Adalbaldo joan zenean, Lope "bere mandxubea amaituta errekan dxangada bat ur edan ebanean, etzin zan zilbotaz gora, zan aiña luze, zorroaren gaiñean burua ipiñita" (**Auñemendiko Lorea**, I, 118. or.). Egoera honetan aurkituko du Portunek hara heltzean.

Portun eta Loperen arteko elkarrizketa azken honen gularen erakusgarri aparta bihurtzen da zentzu guztietan: batetik, Loperen aseezina erakusten duelako; bestetik, gula honek sortzen dizkion

beharrak asetzea eskaintzen diolako Portunek. Tentazioaren prezioa: desleialtasuna Mendiolarekiko. Bizioak birtutea gainditukо du eta desleialtasunaren bidean jarriko du Lope (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 116-122. orr.).

Bizio hauetako batek, hain zuzen ere, jartzen du desleialtasunaren bidean. Lope Nagiren gulari dei egiten dio Portunek, Mendiolako Riktrudisen berriak ekar diezazkion; eta Lope Nagik ekarritako lehen berriek eurek sortuko dute Portunengan mendeku-nahia. Mendekua Arnoldo herri-saltzailetzat jotzean eta albiste hau zabaltzean gauzatzen da. Gertaeren sorreran Lope Nagiren Mendiolako ugazabekiko desleialtasuna dago.

Aurrerago, "Erbesten" Riktrudis eta Adalbaldoren morroi delarik, gauzatuko da ugazabarekiko bigarren desleialtasuna: Adalbaldo hiltzen dutenean, hiltzaileekin dago Lope Nagi mozkor-mozkorturik.

Mendiolako morroien taldea osatzen duen multzotik hiru morroi datoz kontaketara izen propioarekin: Pedro Mari, Lope Nagi eta Ana Mari.

Ana Mari izen propioarekin dator kontaketara (72), baina ez funtzio konkretu bat betetzera; gehienez ere, izen propiorik gabeko morroi horien ordezkari jo daiteke: Pedro Mari "morroirik onena" (73) eta Lope Nagi "morroirik okerrenaren" artean dagoen multzoaren ordezkari, morroi arruntaren ordezkari.

Herri-saltzailetzat jotzen dutela dioen berria Pedro Marik Arnoldori ematean, Lopek ohizko bizioarekin jarraituko du:

> "Egun atan iñok ezeban otordurik Mendiolan egin, Lopek ezpada. Iauregiko guztiak negarrez egozan. Lope Nagik aberetxeko ate-ostean beregandu zituan iaki guztiak mauka mauka iaten ziarduan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 178-180. orr.).

Riktrudisen eta Adalbaldoren ezteien amaieran Ostrabentora

---

(72) Ana Mari hiru bider dator kontaketara izen propioarekin. Lehenengoan, Pedro Mari ipuin bat kontatzen ari delarik, galdera bat egiteko (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 136. or.); bigarrenean Andre Luziak eta Riktrudisek bere izena aipatzen dute, azken honek esku artean egiteko daukan atorra harentzat delako (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 154. or.); hirugarrenean Arnoldok Pedro Mariri egin dion galdera bati erantzuteko (ikus **Auñemendiko Lorea**, I, 172. or.).

(73) **Auñemendiko Lorea**, I, 172. or.

heltzean Lope Nagi, honako komentario hau egiten du Pedro Marik:

> "—Ezteguko ondokiñak iatera dator ori" (**Auñemendiko Lorea**, II, 84. or.).

Une hauetan bertan Lope Nagiren deskripzio hau eskaintzen du kontalariak:

> "Abarka urratuetatik beatz lodi biak agirian ekartzan, txaberama andi diren buruak legez, bernetako soka ta oialak bebera iausita, bernasorki batzuen itxureagaz; ia gerriraiño basas beterikako soiñeko dindirriduna; lepotik bera lenago ikusi eban geuntzan narruzko zorroa; esku batean makilla bat eta bestean edan-ontzi bat ez-txikia; ta arpegi zabal biribilla sagarrik gorriena baiño gorriagoa" (**Auñemendiko Lorea**, II, 86. or.).

Adalbaldok Klobis II.aren aginduak betetzeko egin behar duen bidaiarako bidailaguna hartzeko, haren gulak eskain dezakeen abantaila jo du begiz:

> "Ostatuetan iakia billatzeko ta aukerakoa dan ezkero, bera eruatea otu iat" (**Auñemendiko Lorea**, II, 144. or.).

Riktrudisentzat, Lope Nagi "bere sabela baizen beste gogamenik eztaukan gizon bat" da eta, horrexegatik, Adalbaldorentzat bidailagun aproposa (**Auñemendiko Lorea**, II, 144. or.).

Bidaian zehar, Adalbaldok eta Riktrudisek uste bezala, jatea gogoratuko dio ugazabari (ikus **Auñemendiko Lorea**, II, 158. or.). Adalbaldo hiltzen dutenean, Lope Nagi Portunen lagunekin batera zegoen "ondo ardaoz betea" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.). "Guenak" adieraztera ematen duenez, Lope Nagi "moskor andi baten ostean sormiñak io ta il zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 184. or.).

Morroirik onenak leialtasuna errepresentatzen du; txarrenak, berriz, desleialtasuna. Edonola ere, aurkajarpen honi beste zerbait erantsi beharko litzaioke.

Bi morroi hauek eleberrian barrena garatzen dituzten ekintzek leialtasunaren eta desleialtasunaren pertsonaia-tipo legez eraikitzen dituzte. Baina Lope Nagi pertsonaia-tipo desleialak Pedro Marik pertsonaia-tipo leialak ez bezalako karakterizazioa jasotzen du.

Lope Nagi pertsonaia-tipo desleiala alfer, narras, zabar, mozkor-

ti, arlote, argi gutxiko (74) morroi moduan karakterizatzen da (75). Baina Pedro Mariren deskripzio fisikorik ez da egiten; ezta psikologikorik ere. Hala ere, aginduak betetzeko duen prestutasunak edo Portunekin daukan eztabaidan honek jarritako amuetan ez erortzeko azaltzen duen argitasunak Lope Nagirengandik urrun gelditzen den pertsonaia itxuratzen dute. Honela, desleialtasunaren pertsonaia-tipoa izaera, izateko modu negatibo bati lotzen zaio; leialtasunarena, berriz, izateko modu positibo bati.

Honelako aurkajarpen batek, azken finean, badakar beste irakurketa bat ere: pertsonaia biziodunak erabiltzen dira balore negatiboak errepresentatzeko; birtutedunak, berriz, balore positiboak errepresentatzeko. Ondorioz egiten den lotura —bizioduna, negatiboa eta birtuteduna, positiboa— pertsonaia hauetara ez ezik, gainontzeko pertsonaietara ere hedatzen da. Eta eleberriaren gainerako koordenada narratiboekin batera eraikiz doaz liburuaren helburu didaktiko-moralizatzailea.

Portunek harrokeria errepresentatuko du. Zenbait pertsonaiak

(74) Lope Nagik dioenez, hori da besteek diotena, nahiz eta bera bat ez etorri ikuspegi horrekin: "Motza ta gauzak esango ditue nigaitik baiña, ezagututen dot nik zeiñ zer dan da zetan dabillen" (**Auñemendiko Lorea**, I, 126. or.). Nolanahi ere, fikzioaren garapenean barrena ematen dituen zenbait erantzunek besteek Lope Nagiri buruz diotena baieztatzen dute eta ez honek bere buruaz uste duena. Horren lekuko da auzokoak egindako galderari emandako erantzuna:
"—¿Zelan dago, Lope, ugazaba?
—Ill da.
—¿Ill? ¿Aiñ laster? ¿Zer izan dau bada?
—Ptxe... Ill bearra. Ego aizeak baiño urte geiago eukan-da..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 204. or.).
Berdin Riktrudisi Ostrabenton ematen diona. Honek Mendiolatarrak Peru Padarrak defendatu dituela jakin ondoren, honela jarraituko du elkarrizketa:
"—¿Zer egin deutse?
—Ill.
—¿Ill? ...
—Bai. Lurpean sartu eben beintzat eta..." (**Auñemendiko Lorea**, II, 88. or.).

(75) Portunek "Lope astoa" (**Auñemendiko Lorea**, II, 8. or.) adierazpena darabilenean, animaliarik egokienera jotzen du Lope Nagiren izaera sinbolizatzeko: "Caminando entre el polvo y el sol, aguantando palos sin protestar, paciente y sufrido, el asno, un tanto injustamente, ha pasado siempre por un animal perezoso, tozudo y estúpido desde las fábulas de la más remota antigüedad, viniendo a ser en general, un símbolo de la ignorancia y la obstinación". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 81. or.

harrotzat jotzen du. Portunen harrokeriak sortzen du Aitz barrengo eliz inguruko jazoera; Portunen harrokeriak bilatzen du jazoeraren ondoren mendekua (heriotza da mendekua, aurretik etsaia —Adalbaldo— ahalik eta gehien umilatuz); Portunen harrokeria zauritu eta zapalduak jotzen du Arnoldo herri-saltzailetzat; Portunen harrokeria zapalduak bilatzen du frankotarren aurkako guda Riktrudis Adalbaldorekin ezkontzean...

Ez da oinarririk gabeko harrokeria; Portunen kualitateek zilegizta dezaketena baizik. Kualitate horiek honela deskribatzen ditu Gaixparrek, Uberoren semeak:

> "Ezta bera motel da argibakoa: azkarra da, sendoa, zalla, okerra, ausarditsua, esku biak nun daukazan dakiana" (**Auñemendiko Lorea**, II, 112. or.).

D. Agirreri ez zaio arrotza animalien mundua, alegiek izaerak errepresentatzeko hain oparoki erabilia. Batipat **Auñemendiko Lorean** ugari samarra da animalien munduaren presentzia nahiz konparazio moduan, nahiz metafora moduan, izaeraren bat errepresentatzeko. Riktrudis, Pedro Mari, Lope Nagi, Portun eta Auñemendiko emakumeak (76) animaliren batekin alderatuko dira edo animaliren batekin izendatuko, beren izaeraren ezaugarriren bat sinbolizatzeko.

Otxoaren seme nagusia den Portun Ozinbeltzeko jauregian bizi da. Kontalariak Ozinbeltzera egindako lehen hurbilpena sujerentziaz beteta dator; izan ere, fikzioaren garapenak iradokitzaile bihurtuko duen esaldi batekin emango bait dio amaiera Ozinbeltz kokatzen deneko lekuaren lehen deskripzio orokorrari:

> "Basurdeentzat etzan lekua makala" (**Auñemendiko Lorea**, I, 38. or.).

Behin baino gehiagotan darabilen aurkezpen-modura jotzen du Ozinbeltz aurkeztean. Portunen bakarrizketan Lope Nagi lehen aldiz narraziora datorrenean bezala, Ozinbeltzen lehen deskripzio honen amaiera ere tentsio dramatikoa sortzen hasten da; izan ere, "Basurdeentzat etzan lekua makala" hori fikzioan aurrerago etorriko diren hainbat gertaeraren esaldi iragartzaile bihurtzen bait da, Lope Nagiren lehen aurkezpenean Portunek darabiltzan harridura-markek, di-

(76) Andre Luziak dioenez, "emengo emakume bakotxa leoi eme aserratua baiño aserreago iarten da erbestetar gudariak ikustean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 22. or.).

minutiboek, heiagorek eta abarrek iragartzen eta iradokitzen duten bezala Lope Nagik fikzioan barrena hartuko duen jokabidea ez dela guztiz ortodoxoa izango. Era berean, Ozinbeltzen "basurdeentzat etzan lekua makala" horrek ere balio metonimikoa eta iradokitzailea hartuko du, Portunek historiaren garapenean basurde-jokabidea hartzen duen neurrian. Portunek eleberriaren desarroiloan Gaixparrek bere deskripzioan ezartzen dion kualitate baten gabeziarik ez duela erakutsiko du; are gehiago, sobera duela: ausardia. Honekin batera, nahiz eta aipatu deskripzioan Gaixparrek ez dion kualitate hori ezartzen, fikzioaren garapenak beste kualitate baten jabe ere egin egingo du Portun: lasaikeriarena, desenfrenoarena.

Domingo Agirreren eleberri bateko pertsonaia batentzat bortitzegia dirudi desenfrenoaren kualitate honek lehen begirada batean. Baina ezin ahaztu D. Agirrek pertsonaia dualistak sortzeko daukan joera. "Bigatasun-dualismoa" izenburupean ematen du ezagutzera G. Garatek **Auñemendiko Lorea**ren pertsonaien arteko jazargoa:

> "Pertsonaiak bi taldetan banaturik daude. Alde batean onak, nolabait ere Riktrudisen inguruan bildurik: Riktrudis, honen gurasoak, Amando apeza, Adalbaldo, Pedro Mari morroia, Ubero, koblakaria... Bestean Riktrudisen arerioak, txarrak: Portun eta honi atxikirik dabiltzanak" (77).

Ez da mugatzen **Auñemendiko Lorea** eleberrira soilik pertsonaien bigatasun-dualismo hau; **Garoa**ko pertsonaietan ere guztiz nabaria da (78).

Helburu didaktiko-moralizatzaile bat bilatzeko oso lagungarriak diren pertsonaia dualista hauek sortzeak errazten du desenfrenoa moduko kualitate batera heltzea. Izan ere, nahiz **Auñemendiko Lorea**n nahiz **Garoa**n alderdi batekoak birtutez dira oso aberatsak; bestekoak, berriz, bizioz izango dira oso aberatsak.

Horrela gertatzen zaio Lope Nagiri: bere jan-edan nahia aseezina da; baita Portuni ere: bere harrokeria neurririk gabea da; bere

---

(77) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 44. or.

(78) "Pertsonaien bikoiztasuna" izenburupean aztertzen du K. Otegik **Garoa** eleberriaren dualismoa: "**Garoa**, eleberri bikoitza da, dualista. Hor ageri diren pertsonaiak dualismo horrek markaturik dira". OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 102. or. Baiezpen hori sustraitzen duen azterketa ondoko orrialdeetan ikus daiteke: 102-118. orr.

Riktrudisekiko grina berdin, etsipenik ezagutzen ez duena; frankotarrei dien gorrotoa ere neurririk gabea da.

Riktrudisen maitasuna erdiestea bilatzen du etengabe eleberrian barrena. Portunen grina honek ez du etsipenik ezagutzen. Zentzu horretan oso adierazkorrak dira Mendiolako morroi Pedro Mariri esandako hitzak, honek Riktrudisekiko zein jokabide hartu behar zuen adieraztean: lehenbizi jakin zein zen Mendiolatarren ikuspegia eta, hauek Riktrudisen senartzat ez onartuz gero, Mendiolako inguruetatik alde egitea. Azalpen honen erantzun gisa, bere grinaren indarra zein neurritakoa den erakutsiko du Portunek:

> "—Eta norbere itxaropen gozoari betiko itxi? Lenago il, lenago lurbira guztia erre ta kiskaldu. Eztot nik olango erakidarik ikasi" (**Auñemendiko Lorea**, II, 16. or.).

Ozinbeltzen lehen deskripzio orokorraren amaierako "basurdeentzat etzan lekua makala" balio metonimikoa hartuz joango da fikzioaren garapenean, Portunen esanei eta jokabideei esker, honen ausardia irrazionala eta desenfrenoa basurdea sinboloaren bitartez irudikatuz (79). Fikzioaren hastapenetan iradokitakoa, metonimia bihurtuz doa honen garapenean, Ozinbeltzeko seme nagusiaren zenbait kualitate sinbolizatuz.

Gaixparrek "azkarra da" dio Portunengatik, honen kualitateen deskripzioa egitean. Gaixparrek azaldu orduko fikzioaren garapenak erakutsi duen atributua da; hala nola: zenbait itxuratan oinarrituz egia estaltzeko erabili dituen trikimailuak, gezurrari egiaren itxura eman eta Arnoldo eta Riktrudis herri-saltzailetzat joz; edo Ozinbeltzeko batzarrean; edo Pedro Marirekin daukan elkarrizketan bere benetako sentimenduak estaliz —benetako sentimendu horiek zeintzu diren azaltzen saiatu da kontalari orojakilea, orojakile izateak pertso-

(79) Honela mintzo da J.E. Cirlot basurdearen sinbologiari buruz: "Su sentido simbólico, como el de la mayoría de animales es ambivalente. De un lado, figura como símbolo de la intrepidez y del arrojo irracional hasta el suicidio. De otro, es símbolo de desenfreno". CIRLOT, J.E.; **Diccionario de símbolos**, 259. or. Eremu semantiko beraren barnean gelditzen da J.A. Pérez-Riojaren azalpena, xehetasun gehiago erantsiz: "El jabalí es, en general, símbolo de la intrepidez y el arrojo irracional; por extensión, lo es asimismo, del desenfreno y la brutalidad, impetuosidad, rudeza, sensualidad y vulgaridad". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 251. or. J.A. Pérez-Riojarentzat basurdeak sinbolizatzen dituen kualitate guztiak aurki daitezke Portunengan; baita hedapenez eskaintzen dituenak ere.

naien barne-sentimenduak ezagutzeko ematen dion ahalmenaz baliatuz— eta koiunturak bere helburuaren lorpenerako eskaintzen dion abagaduneari egokituz, nahiz eta koiuntura honek oso bestelakoak diren sentimenduen azalpena eskatu.

Gaixparren deskripzioko "azkarra" atributua maltzurkeria da irakurlearentzat; izan ere, honek bai bait dauka kontalari orojakilearen bitartez Portunek pentsatzen eta esaten duenaren arteko aldearen berri, azpilana zergatik egin duen eta nola estali duen.

Mendiolako morroi Pedro Marik hamaikagarren kapituluan barrena Portunekin daukan elkarrizketan, azeriarenarekin alderatzen du elkarrizketako azken aldera honek hartu duen jokabidea:

> "da orain azeria legez amaituten dozu gure berbetaldia" (**Auñemendiko Lorea**, II, 18. or.).

Azeriak sinbolizatzen du aipatu elkarrizketan bere helburua erdiestearren Portunek azaldutako jokabide-aldaketa. Pedro Mari aldaketaz ohartu eta Portunen jokabide maltzurra azeriarekin sinbolizatzen du. Kontalari orojakileari esker irakurleak Pedro Marik baino berri gehiago izan eta egokitzat jo dezake Pedro Marik egindako alderaketa; ezagutzen bait ditu Portunen barne-pentsamenduak eta hauetan adierazi den maltzurkeria, jokabidez aldatzera eraman duena.

Alderaketa honetan erabilitako azeria sinboloak (80), Portunek historia osoan barrena hartzen duen jokabide maltzurra sinboliza dezake hedapenez.

Gaixparren deskripzioko "okerra" atributua konnotazio negatiboa duten hainbat ezaugarriren azalpen orokortzat jo daiteke: harrokeria, maltzurkeria, pertsonaia-irenslea. Piztiaren eta otsoaren sinboloen bidez sinbolizatzen da Portunen beste ezaugarri hau. Bi sinbolo hauek darabiltza Portun izendatzeko Mendiolako morroi Pedro Marik arestian aipaturiko elkarrizketan. Nahiz metafora moduan nahiz konparazio moduan darabil otsoa:

> "Ni txakurra izan banintz, artzanora izango nintzan, otsoko guztiai ortzak erakusteagaitik" (**Auñemendiko Lorea**, II, 6. or.).

> "Otsoa legez asi zatxataz lenengoan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 18. or.).

(80) "Símbolo tradicional de la astucia y el engaño" dio J.A. Pérez-Riojak. PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 427. or.

Piztia sinboloa, berriz, metafora moduan soilik darabil (ikus **Auñemendiko Lorea**, II, 10. or.).

Artaldea irenstera doan edo irentsi nahi duen "otsoko" edo otso moduan itxuratzen da Portunen pertsonaia. Artaldea Arnoldo, Riktrudis, Adalbaldo eta Andre Luziak osatzen dute eta Mendiolako artzanorak (Pedro Mari morroi leialak) zaintzen.

Portunek otso moduan egin dio aurre Pedro Mari artzanorari, Riktrudisen mandatuarekin Ozinbeltzera joan den morroi leialari. Pedro Marik Riktrudisen izena aipatu orduko asaldatzen da Portun. Kontalariak honela dio: "baiña Riktrudisen izena entzun ebaneko, otsoa okela barrira ioaten dan antzera, Mendiolako alabeagana gogoa ta biotza ioan iakozan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 8. or.).

Adalbaldo hiltzen dutenean, berriz, "Adalbaldo errukigarrizko 'Iesus' bat esanda zalditik bera iausi zaneko, gaiñean eban Portun, begi bietatik otsoen txingarrezko begiradea boteaz, aotik amorroaren bitza ta lerdea eriola" (**Auñemendiko Lorea**, II, 170. or.).

"Pizti madarikagarri" izendatzen du Pedro Marik Portun. Piztiak hil du Arnoldo, eta hedapenez hiltzen dute Andre Luzia ere. Andre Luziak "ill-gauan" kantatzen duen eresian hauei leporatzen die Arnoldoren heriotza:

> "'Zeiñek ian deutsaz, orma zarrari,
> Zeiñek ian deutsaz azpiak?
> Ez prankotarren balenka motzak
> Ezpada euskaldun piztiak'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 26. or.).

Berak dioenez, bere bihotza ere jaten ari zaio piztia:

> "'¡Auñemendi! Pizti dongea
> Biotza iaten neuk daukot...'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 26. or.).

Eta kontalariak dioenez, Andre Luziaren heriotza ekarriko du piztiak hedapenez, "orma zarrari" lotuta zegoen "untzarena":

> "¡Untza ezin bada bizi, orma zarra iausi zan ezkero, arri azpian, ausita, zapalduta, eguzki barik, gorutz burua iasoteko zeri eldurik ezeukala!" (**Auñemendiko Lorea**, II, 44. or.).

Piztiek eta otsoak (pizti mota bat) sinbolizatzen dute Portunen irensgarritasuna. Fikzioan barrena esan eta egiten duena bat dator pertsonaiek eta kontalariak bera kualifikatzean darabiltzaten irudiekin; Portunen esanak eta ekintzak sortuak bait dira.

Eleberrian barrena otsoaren sinboloa ez da Portun izendatzeko edo honen jarreraren batekin alderaketaren bat egiteko bakarrik erabiltzen. Nolanahi ere, irensgarritasuna sinbolizatzeko erabiltzen da otsoaren sinboloa aldi bakoitzean.

Auñemendiko Lorean barrena otsoa animalia basati moduan itxuratzen da, eta animalia basati irensle moduan. Baina irensle izate honek ez dauka beti konnotazio negatiborik eduki beharrik. Irensgarritasuna azaltzeko arrazoiak ematen dio konnotazio negatiboa. **Auñemendiko Lorearen** kontalariak ametitzen du irensle izatea, hartarako arrazoiak leudekeenean. Ez da hori, noski, Portunen kasua.

Eleberrian barrena otsoaren sinboloa auñemenditarrak izendatu edo auñemenditarren jokabideren baten alderaketa egiteko ere erabiltzen da. Andre Luziak honela darabil otsoaren irudia:

> "Eun urte oneetan guda bat amaitu orduko beste bat asi oi daroagu, or beeko prankotarrakaz, gu menderatu ta euren legeen azpian ipiñi gura gaituelako. Oraiñ berrogeta amaseiren bat urte 581-garrengoan, iatzi ziran menditik gureak, otso amorratuen antzera, ta eroan zituen arerioak beterritik zear igesi gure lurretatik kanpora, artalde bat euren aurrean otsoak eroan oi daben era berean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 16. or.).

Beste pasarte batean honako gogoeta hau egiten du frankotarren jarrera komentatuz:

> "¿Zek dakarz gure mendietara iente arrotzak? ¿Zer galdu iake basoan? ¿Zer deutseegu zor? Ezer galdu badabe, emongo iake billatzen dogunean: ezeren zorrik badaukagu, emongo deutsagu arpegia zorrari; baiña gure ekandu zar, oitura on da txaboletako ienteai itxi daioela bakean: bego geldirik arrano goitarren abia, arpegiko narrua bere erpe gogorraren artean itxi gura ezpadabe ikutzailleak; itxi geldirik arkaitz-zuloetan bizi dan otsoari, bere agin-artean zatitua izan gura ezpadau prankotarrak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 20. or.).

Riktrudis ezkondu ondoren auñemenditarrek frankotarren aurka hasitako borrokan zauritutako frankotar batek honela deskribatzen du auñemenditarren eraso baten hastapena: "Arako baten entzun genduan irrintzi bat, garbia, indartsua, luze-luzea, ta ezertarako astirik emon baga euskaldunak gure artean sartu iakuzan, otso gosetuak artaldean sartzen diran gisara" (**Auñemendiko Lorea**, II, 124. or.).

Auñemenditarrak alderatzen dira otsoarekin; otsoa hauek izenda-

tzeko erabiltzen da. Otsoa animalia basati, irensle eta suntsitzaile moduan azaltzen da. Balio hori hartzen du bai Portun eta bai auñemenditarrak sinbolizatzerakoan.

Portun eta auñemenditarrak ez ezik, frankotarrak ere sinbolizatuko ditu otsoak. Peru Padarrak honela dio, Arnoldoren gorpu aurrean honek aberriaren alde egindako ekintzak kantatzean:

> "'Gizondu ziñan gero, ta zure aurrean otsoak bildurrez igesi ioaten ziran; da erroi, buzoka ta miruak sarri ikusten genduzan goietatik iasten zuk ildako euskal-etsaien aragi gordiña iatera'" (**Auñemendiko Lorea**, II, 32-34. orr.).

Otsoaren irudiak sinbolizatzen du Portunen, auñemenditarren eta frankotarren indar irensle eta suntsitzailea; badago, ordea, desberdintasunik: auñemenditarrak sinbolizatzen dituen otsoa irenslea eta suntsitzailea da, baina kolpatua, jasotako kolpeari erantzunez suntsitzaile bihurtua; bestea, aldiz, Portun eta frankotarrak sinbolizatzen dituena, otso erasotzailea da. Batean kolpatu duten otsoa bihurtzen da suntsitzaile; bestean, aldiz, berez da erasotzailea eta suntsitzailea.

Andre Luziak analepsiaz narraziora dakartzan garaietan, Auñemendiko otsoek beren lurrak lapurtzera zetozenei erantzun egin diete; Adalbaldo frankotarrak berak ere ez dauka eragozpenik lehenaldi hori gogoratuz nor izan den erasotzailea aitortzeko:

> "Euskaldunak etziran asiko gure kontra gutarrak bakean itxi baleutse euren mendietan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 100. or.).

Erasotzean, erantzun egiten du euskaldunak; baina bera ez da inoiz erasotzaile. Honelakoa da euskalduna Arnoldorentzat:

> "Euskaldunari bakean izten baiako bere basetxe ta txabolatxoetan, poz-pozik bizi da bere lur, soro, baso, bei, ardi, auntz da beorrai begira. (...). Ezteutse, eurentzat, arra bat lur ostuko iñori; baiña Euskalerriak daukazan mugetatik barrura badator iñor zematuaz edo zerbait kentzeko asmoetan, naiz da izan munduaren iaubea, iarkiko iakoz aurrez-aurre euskaldun guztiak, aitarren (sic) seme, morroi ta nagusi, Ama ta alaba; leoi biurtuko dira danak" (**Auñemendiko Lorea**, I, 100-102. orr.).

Fikzioaren denborak horixe bera erakusten du. Ozinbeltzeko batzarrean Ezpeletako jaun Uberok eta Mendiolako jaun Arnoldok agerian utziko dute Aitz barrengo gertaerako erasotzailea ez dela frankotarra izan, euskalduna baizik. Ozinbeltzeko batzarraren garape-

na kontaketan erakutsi aurretik, kontalariak Amando apezpikuaren gertaera horri buruzko bertsioa erakutsi du; batzarraren ondoren, berriz, gertaera horretako protagonistetako batena erakutsiko du: Adalbaldorena. Zehaztasun gehiago edo gutxiago eskainiz, bat datoz bertsio guztiak eta batek ere ez du aipatutako pertsonaiek esandakoa ukatzen. Batzarkideek Arnoldok eginiko proposamena jarraituko dute eta ez da frankotarren aurkako gerrarik hasiko.

Aitz barrenen erasotzailea euskalduna izan da: Portun. Bakean elizara zihoan frankotarra iraindu du, eta ez dago arrazoirik gudari ekiteko, Peru Padarra koblakariak kopla baten bidez adieraziko duen bezala:

> "Gaur badakit eztala ondo
> Sentzun baga zaunk eitea
> Ta bakean doianari
> Ortz-azurrak ezartea" (**Auñemendiko Lorea**, I, 64. or.).

Riktrudis ezkondu ondoren auñemenditarrek frankotarren aurkako gudari ekiten badiote, Riktrudis frankotar batekin ezkontzea erasotzat hartu dutelako da. Aitz barrengo gertaeran euskalduna erasotzailetzat jo zuen Ezpeletako jaunak, oraingoan frankotarra dakusa erasotzaile, eta begi onez ikusten du guda. Amando apezpikua argibide eske joatean ez du zalantzarik:

> "—Bidezkoa naz. Eztakit ezer garbiro ta iakiteko ustean nator zugana. ¿Zer darabilzue?
> —¿Zer erabilliko dogu? Gudarako asmoa ta gogoa.
> —¿Gudarako asmoa ta gogoa? ¿Zergaitik baiña?
> —Zergaitik, zergaitik. Euskalerriko Lorea eroan deuskuelako" (**Auñemendiko Lorea**, II, 100. or.).

Amandok Riktrudisen ezkontza ez dela frankotarren erasoa izan argitzean (jadanik irakurleak ezagutu, baina artean Uberok ez dakizkien berriak ematean), orduan bakarrik aldatuko da Uberoren jarrera, Amandok emandako albisteen ez-jakintasuna aitortu ondoren:

> "Nik eznekian bada olango gauzarik...
> —Orain badakizu edozeiñi esateko bere.
> —¿Zeiñi gero nik, iauna, zeiñi?
> —Etxera etorriko iatzuz zure iritxi eske.
> —Gaixpar —deitu eban Uberok biurrera txiki bat albokera egin-da— ¿entzun dozak ik ondo apezpiku iaunak esan dituan gauzak?
> —Bai, iauna —erantzun eban ordurarte ixilik egon zan semeak.

—¿Eta?
—Ta emen entzun doguzanak entzun ezkero, ezingo garala gudetara ioan.
Amandok begirada gozo bategaz saritu eban Gaixparren erantzuerea.
—Zuzen esan dok, mutill, zuzena az da —esan eutsan aitak—" (**Auñemendiko Lorea**, II, 110. or.).

Baina ordurako bide luzea egina du benetako erasotzaile den Portunek egiaren itxuraz zabaldutako gezurrak; eta Uberoren azken hitzak iragarritakoa bete egingo da:

"—Baiña berandukoak izango dira, Amando iauna, berandukoak" (**Auñemendiko Lorea**, II, 114. or.).

Beranduegi heldu Uberoren egiaren aldeko ahaleginak, eta errealitate bihurtuko da frankotarren eta auñemenditarren arteko guda. Baina, azken finean, auñemenditarrak erasotuak sentitzean datza guda honen jatorria. Eraso moduan aurkeztu Portunek Riktrudisen ezkontza, eta honen esanari jarraiki erasotzat hartu dute auñemenditarrek.

Otso erasotzaileak sinbolizatzen du Portun. Portun da Aitz barrengo gertaeran erasotzaile: Portunek erasotzen du Arnoldo; Portunek erasotzen du Pedro Mari; Portunek frankotarrak erasotzen ditu Riktrudis ezkondu ondoren; Portunek soldadurik gabe ehizera doan Adalbaldo erasotzen du.

Nahiz pertsonaia desberdinek, nahiz kontalariak otsoaren irudia darabilte eleberrian barrena auñemenditarren, frankotarren eta Portunen jokabideak sinbolizatzeko. Fikzioak, ordea, erakusten du hirurak, bi pertsonaia kolektiboak eta pertsonaia indibidualak, daukatela kualitate legez irensle eta suntsitzaile izatea, eta kualitate hau dela otsoaren sinboloa eraikiz doana. Baina Portun eta frankotarrak —azken hauek fikzioaren denbora hasi aurretik behintzat— otso erasotzaileak sinbolizatzen ditu.

Auñemendiko Lorearen kontalaria etika jakin bat igorri nahi duen izaki legez itxuratzen da kontatzen ari den historiaren bidez. Historia kontatzen ari delarik giza jokabideak arautu nahi dituen izaki moduan eraikitzen dute kontatzen ari denari buruz egiten dituen komentarioek, pertsonaia-tipoak sortzeak, hauetako zeintzuk erantzuten dioten bere etikari eta zeintzuk ez adierazteak...

Riktrudisek eta Adalbaldok, Arnoldok eta Andre Luziak, Ube-

rok eta Gaixparrek, Pedro Marik eta Peru Padarrak, Amandok... erantzuten diote kontalariaren etikari, perfekziora gehiago edo gutxixeago iritsiz, baina beti ere perfekziotik oso hurbil. Eta guzti hauek ez dute otso erasotuaren jokabiderik gaitzesten; bai, ordea, otso erasotzailearena.

Honela, eleberria hobetsiz doan giza jokabidearentzat otsoak sinbolizatutako portaera onargarria edo arbuiagarria izan daiteke. **Auñemendiko Lorea**k hobetsi egiten du otso erasotuaren erantzuna eta otso erasotzailearena gaitzetsi.

Portun irudikatzeko erabiltzen den animalien galeria bukatzeko, mozoloa aipatu behar. Pedro Marik darabil metafora hori Portun izendatzeko, Riktrudisek eginiko galdera bati erantzunez: "Zeiñek uste dozu aterako ebala gure aitaren kontrako salgaista ori? Ozinbelzko mozoloren batek". Jarraian, Riktrudisek are gehiago mugatuko du: "Bada Ozinbelzko mozoloagana ioan bear dozu" (**Auñemendiko Lorea**, I, 178. or.).

Portun pertsonaia kaltegarri moduan eraikitzen da; egiten duen kaltea, berriz, zenbait kasutan norbait hiltzerainokoa da.

Kalte egingo dio Arnoldori, honen ospearen heriotza ekarriz lehenik eta, honek bizkortuta, heriotz fisikoa azkenik. Ondorioz, kalte egingo dio Andre Luziari ("Untza ezin bada bizi, orma zarra iausi zan ezkero"); kalte egingo dio Riktrudisi umezurtz utziz; kalte egingo dio Auñemendiri frankotarren aurkako gerrara eramanez (81); kalte egingo dio Adalbaldori gerrari legez ez doalarik Aitz barrengo basoetan hilez; kalte egingo dio Riktrudisi senarra hilez... Kaltea eta heriotza ereinez doan pertsonaia legez itxuratzen da Portun.

Pedro Marik eta Riktrudisek Portun izendatzeko darabilten metaforak, mozoloarenak, ordurarte Portunek erakutsitako portaera

(81) Ostrabentora heldu ondoren, Riktrudisi eta honekin daudenei Auñemendiko azken gertaeren berri emango die Lope Nagik, horien artean Portun "Euskaldunen nagusi edo andienetakoa beintzat eida". Hau entzutean, Riktrudisek honako komentario ironiko hau egiten du: "—¡Eztago esku txarretan Erria!" (**Auñemendiko Lorea**, II, 88. or.); eta komentarioa Auñemendiri etor dakizkiokeen kalteen zantzu bihurtzen da. Gaixparrek Amandori "ta Portun da gaur emengo gizon bakarra" aditzera ematean, apezpikuak egindako komentarioa ere Auñemendiri etor dakizkiokeen kalteen zantzu bihurtzen da: "—Bada gizon orrek eztau Euskalerria bide zuzenetatik eruango" (**Auñemendiko Lorea**, II, 112. or.).

sinbolizatzen du (82). Fikzioan aurrerantza ere projektatzen da, ordea, portaera berberari eusten dion neurrian, harik eta konbertsiora heldu arte.

Harrokeria, zauritutako eta mindutako harrokeria, errepresentatzen du Portun pertsonaia-tipoak. Bere harrokeria da Aitz barrengo gertaeraren sortzaile; ondoren mendekua, berriz, bere pentsamendu bakarra. Bere mindutako harrokeriak darama Arnoldo herri-saltzailetzat jotzera; bere mindutako harrokeriak darama frankotarren aurkako guda bat hastera Riktrudis Adalbaldorekin ezkondu ondoren... Harrokeriak, etsipena eta barkamena zer diren ez ezagutzeak, bihurtzen du basurde, mozolo, azeri eta otso erasotzaile. Behin edo behin Portunen maltzurkeriak harrokeria gaindituko du —Ozinbeltzeko batzarrean eta Pedro Marirekin daukan elkarrizketan—, baina berriro ere harrokeria bihurtuko da bere ekintzen hari gidatzaile.

Riktrudisen jesta epikoa basurdea, mozoloa, azeria eta otso erasotzailea hiltzean datza. Hauen heriotzak Portun berri bat dakar bizitzara: Portun umila, apala, eta kristaua. Kristautasunak Portun berri baten jaiotza dakar, Portun umilarena, kristaua ez zen Portunen harrokeria garaituz.

Adalbaldok birtutea errepresentatzen du. Eleberrian barrena betetzen doan funtzioan ez ezik, bere portaeran ere Portuni aurkajarriz doa, honek azaltzen duen "bizio" bakoitzeko birtute bat erakutsiz. Aitz barrengo gertaeran otso erasotzaileari otso erasotu legez erantzungo dio. Ondoren ahaztu egingo du jazoera; are gehiago, berak dioenez: "Egunero eskatzen deutsat Aita zerukoari, orduko nire arrotasuna parkatu daidala ta ikutu daiola Portun orri bere biotzean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 92-94. orr.).

Kaltea eta heriotza ereiten duen Portunen aurrean, ontasuna eta bizitza ereingo du. Riktrudisen zoriona lortuko du, gerra gorrotatuko eta bizitza eta bakea maitatu. Zentzu honetan oso argi dauzka erizpideak:

> "Enaz ni guda zalea: —ta au barriro Riktrudiseri begira egoala esaten eban— guda batek bere atzetik dakarz, laguntzailletzat legez, nekeak, goseak, aserreak, gorrotoak, kurrukak, negarrak eta odol-erre-

(82) "El mochuelo (así como el búho) hirió también la imaginación de los griegos, quienes lo personificaron en un ser siniestro y fúnebre o infernal". PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos**, 305. or.

kak; eta nik, alkarrenganako maitetasuna, zer iana, iakinbidea ta biotz-barruko atsegintasuna gura nituke erri guztietan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 96. or.).

Jokabide hau erakutsi du Adalbaldok fikzioaren garapenean barrena, Portunen probokazioei beraiei ere erantzun gabe:

"Portunek beiñ baiño geiagotan adierazoten emon eutsan Adalbaldori, euskaldun batzuen bitartez, bildurti-emetzat eukala, gudara ezeioalako; baiña Adalbaldok gurago eban bildurtitzat euki eiela, ta ez guda ta aserre okerrai laguntasun apur bat geiago emon" (**Auñemendiko Lorea**, II, 138. or.).

Ausardiaren gabeziarik ez da nabari Adalbaldorengan; baina, Portunengan ez bezala, ausardia razionala da, ondorioak neurtzen dakiena:

"Bideak egitera neu ioango nitzateke; baiña indarrean, gogorrean, guda soiñuan ioan bearko neuke, ta ori eztot nai. Eztot gura geiago gorrotorako apukorik ipiñi. Bake-zalea naz, badakizu zeuk, eta bakean nai neuke ioan Euskalerrira, anaien artean legez, ezpanetan irri-barrea ta biotzean poztasun andi bat ditudala" (**Auñemendiko Lorea**, II, 90-92. orr.).

Azken finean, izan ere, Portunen pertsonaiak edozein alorretan erakusten duen inkontinentzia eta neurririk ezaren aurrean, Adalbaldoren pertsonaiak edozein alorretan kontinentzia eta neurria erakusten du.

Adalbaldo zuzentasunaren eta zintzotasunaren ispilua da; berarengan ez dago lekurik maltzurkeriarentzat (83).

Portunen "bizioei" aurkajarriz eraikitzen da Adalbaldoren pertsonaia, Portunen "bizio" bakoitzari aurkajartzen zaion birtute bakoitza erakutsiz.

Adalbaldoren pertsonaia-tipoak giza jokabidea arautu eta gizakiak nolako portaera eduki behar duen erakuts dezake, bai, baina nekez aditzera eman euskaldun batek eta euskal agintari batek nola jokatu euskalduna den neurrian.

Euskalduna, euskara, Euskal Herria, kezka-iturri ditu Domingo Agirrek. **Auñemendiko Loreak**, bere gainontzeko beste bi eleberriek bezala, ez dio ihes egingo kezka honi.

(83) Ikus **Auñemendiko Lorea**, II, 120-122. orr.

Euskaldunaren nortasun-agiriaren xehetasunak eskaintzea eta euskalduna deskribatzea edo euskaldunaren paradigma ezartzea presente dago nahiz **Kresalan** nahiz **Garoan**; bigarren honetan indar handiagoarekin.

Gizakien jokabideek kezkatzen dute Agirre; baina batipat euskaldunaren jokabideek. Hiru eleberriek kontatzen dituzten historiak Euskal Herrian lekutu ditu, pertsonaiak euskaldunak dira eta Euskal Herriaz kezkatuak; beti ekarriko ditu kontaketara honen egoerari buruz hitz egin dezan (dezaten) pertsonaiaren bat(zu).

Adalbaldo pertsonaia-tipoak errepresentatzen duen eredua imitatzeko eskaintzen zaio irakurleari eta Portunek errepresentatzen duena arbuiatzeko. Baina aurkakotasun honek ezin erakutsi euskal irakurleari euskaldunaren bere herriarekiko harremanak nolakoak izan behar duten eta zein eredu jarraitu behar den.

Euskal agintari baten seme nagusia da Portun: Ozinbeltzeko Otxoarena. Fikzioaren garapenean "euskaldunen nagusi edo andienetakoa" bihurtuko da.

Portuni aurkajarriz, giza legearen eredua erakuts dezake Adalbaldok, baina ez euskaldunarena eta euskal agintariarena. Hutsune hau beteko du Arnoldok euskaldunaren eta euskal agintariaren paradigma eskainiz.

"¡Ai, Arnoldo, Arnoldo! Agintaria zu ziñan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 36. or.), kantatuko du Peru Padarrak Arnoldoren gorpu aurrean.

Analepsiz errekuperatutako Arnoldoren aurrehistoriak Arnoldo ausarditsua aurkezten du, auñemenditarren askatasuna gordetzeagatik frankotarren erasoei aurre egiten diena, auñemenditar guztiek onartzen duten agintaria. Fikzioaren denborak agintari ospetsu bat dakar kontaketara: "epai egiaren alde" ematen duena, burutsua, bake-gizona, "leiñargia", erasoei erantzuten diena baina ez erasotzailea, Euskal Herriari "on ugariak" egina, Euskal Herria maite duena. Portunentzat, berriz, Euskal Herria bere helburuen lorpenerako maneiatzen duen ente bat besterik ez da, bere buruaren zerbitzutan jartzen duen indar bat. Hemen kokatzen da bien arteko aurkakotasuna: bataren bizitza Euskal Herriarekiko maitasunak eragina da; besteak, berriz, maitasun hori ahotan hartu besterik ez du egiten, aldarrikatzen duen maitasuna bere helburuen lorpenerako aitzakia bihurtuz.

Andre Luziak ez du nortasun berezi bat, ezta funtzio berezi bat hartzen ere. Bere funtzioa eta nortasuna Arnoldorenari lotuta dago: Hormari itsatsirik dagoen huntza da.

Amandok arartekoaren pertsonaia-tipoa errepresentatzen du. Bere "egizaletasunak", "ontasunak", sortzen du eginkizun horretarako behar den itzala eta konfidantza.

Andre Luziak, Arnoldok, Uberok... aitortzen diote egizaletasuna (84). Pertsonaien aitorpenaz gain fikzioak berak erakusten du egizaletasun hori. Amandok Aitz barrengo gertaeraz emandako bertsioa ez du inork ukatzen. Riktrudisen ezkontzaren inguruko xehetasunak Uberori eskaintzean jadanik irakurleak ezagutzen dituen xehetasunak ematen dizkio, irakurle honen aurrean Amandoren egizaletasuna frogatuz.

Amandok bere burua mandataritzat jotzen du:

> "Nabillen toki guztietan bakezko mandataria naz ni" (**Auñemendiko Lorea**, I, 32. or.).

Baina bakezko mandatari soil baino gehiago bakezko ararteko moduan itxuratzen da eleberrian. Riktrudisen eta Uberoren bidez bilatzen du bakezko arartekotasun hori egitea Aitz barrengo batzarrean; bakezko ararteko legez azaltzen da bere etxean Adalbaldo eta Arnoldo elkartzean; arartekotzaren eginkizuna hartzen du, Adalbaldo eta Riktrudisen maitasuna ezkontzaren bidez gauza dadin; Ostrabentoko eta Auñemendiko bizilagunen ararteko bihurtuko da Riktrudisen ezkontza ondoren.

Pedro Mari, Lope Nagi, Amando, hirurak, dira mandatari, baina ez dira status bereko mandatari legez itxuratzen. Lehen bi mandatarien status soziala morroiena da; hirugarrena, berriz, apezpikuarena; eta honen mandatari-eginkizuna ere desberdina da. Pedro Marik eta Lope Nagik ugazabek emaniko mandatuak bete egiten dituzte; ez dute beren kabuz mandaturik sortzen; "errekadista" hutsak dira. Amando, aldiz, ez da "errekadista" hutsa; berak erabakitzen du ararteko izatea, "bakezko mandatari" izate horri erantzunez.

Pedro Mari eta Lope Nagiren mandataritza pertsonaia batetik bestera albisteak heleraztera mugatzen da; ez daukate helburu epiko-

(84) **Auñemendiko Lorea**, I, 36. or., 42. or. eta II, 108. or.

rik. Bataren helburua morroi leial moduan jokatzea da; bestearena, berriz, bere aseezinak sortuta morroi desleial moduan jokatzea. Baina Amandok bere arartekotzan badu helburu epiko bat: frankotarren eta euskaldunen artera behin betikoz bakea ekartzea. Bake honen lorpenera bideratzen da bere arartekotza: Ozinbeltzeko batzarrean egiten duen arartekotza euskaldunek frankotarren aurkako gerrari ekin ez diezaioten da; Adalbaldo eta Arnoldoren besarkadaren bitartez bi herrien arteko bake-harremanak bilatzen ditu; Adalbaldo eta Riktrudisen ezkontza helburu bererako bide egokitzat jotzen du...

Baina Amando ere ez da heroe epiko moduan itxuratzen. Lehenik eta behin ez dabilelako etengabe bake-bilaketan egoera berriak sortzen; **erantzun** bakarrik egiten du Amandok, Riktrudisek, Arnoldok eta Adalbaldok bezala. Amando ez da ekintza-sortzaile, ekintza-erantzule baizik. Besteek sortutako egoerei erantzun egiten die: Aitz barrengo gertaera Portunek sortu du; kasualitateak sortu du Adalbaldo eta Arnoldo bere etxean suertatzea; maitasuna eta ezkondu nahia Adalbaldo eta Riktrudisen artean erne da; frankotarren eta auñemenditarren arteko borroka Portunek sortu du. Behin egoera desorekatzaileak argiratu ondoren, parte hartzen du Amandok oreka berri bat erdiesteko, bakearen goiburupean eraikitzea bilatzen duelarik oreka berri hori.

Amandoren, Riktrudisen, Arnoldoren, Adalbaldoren mundua egonaren mundura hurbiltzen da; Portunena, aldiz, eginaren mundura. Lehenak berriro ere egonera igarotzen dira bigarrenaren eginari erantzun ondoren.

Amando pertsonaia-tipo moduan eraikitzen da. Eduki badauka helburu epiko bat, baina porrot egingo du erdietsi gabe; azken finean, hainbat desiratutako bakea Riktrudisen otoitzetatik etorriko bait da.

Pertsonaia ugari dator **Auñemendiko Lore**an izen propioarekin narraziora. Baina hauetako zenbait eleberriaren pertsonaiaren batek beraien izenaz egiten duen aipamen soilean gelditzen dira. Zenbait euskal agintariren izenaren aipamen hutsa da batzutan, aipamen hutsa gainditu egiten du beste batzutan.

Amandok aipatutako euskaldun ospetsuen izenak funtzio bakar batekin datoz kontaketara fikzioa kokatzen deneko denboran Portun euskaldun ospetsu horiek baino ospetsuagoa dela aditzera emateko

(85). Riktrudisek aipatutako euskaldun ospetsuen izenak, berriz, Amandok aipatutakoak baino zertxobait gehiago karakterizatuko ditu, izenari kualitateren bat erantsiz; baina funtzioak berdin-berdina izaten jarraitzen du: euskaldun ospetsu horiek baino ospetsuagoa dela Arnoldo, Riktrudisen esana kokatzen den historiaren unean (86).

Riktrudisek eta Amandok aipatutako euskaldun ospetsuen zerrendatik bi bakarrik etorriko dira narraziora bere ahots propioarekin: Diego Etxalar eta Gaixpar, Ezpeletako Ubero jaunaren semea. Hauezaz gain beste bi euskaldun ospetsuk hitz egingo dute eleberrian: Uberok eta Otxoak, Portunen aitak.

Nolanahi ere, guztiz pertsonaia sekundarioak dira. Mendiolakoei eta Ozinbeltzekoei lotuta dago beren existentzia kontaketan: batzuren edo besteen defendatzaile dira, batzuren edo besteen euskarri, autonomiarik gabe.

Otxoa eta Diego Etxalar kontaketara datozenean, Portunek frankotarrekin dituen auzietan honen lagun izateko datoz. Kontaketan daukaten presentzia horretara mugatzen da; Portun defendatzen duten euskal buruzagien ordezkari dira.

Oso ñabarra ez izanik ere, Portunen laguntzaile hauen karakterizazioak badu kidetasunik defendatzen duten pertsonaiaren karakterizazioarekin, nahiz eta Portunek jarraitu eredua errepresentatzen.

Ozinbeltzeko batzarrean jarrera gogortzalean aurkezten ditu kontalariak: Diego Etxalar "ukabill biak gora iasota, begietatik txinpartak dariozala" (**Auñemendiko Lorea**, I, 44. or.) eta Otxoa, berriz,

---

(85) "—¿Baiña lotsagarria ezta Portun fedegaistokoaren azpian euskaldun kristiñau guztiak egotea? ¿Eztago emen beste gizonik? ¿Ametsuko Peru ta Etxegoieneko zalduna ill aldira? ¿Araneder, Askonbegi, Arbide, Sasiondo, Aritzmendi, Ibaiñeta, Aialde, Otegaiñ ta beste euskaldun ospetsuak zer egin dabe? Zure aita onezkero zarra dago baiña ¿etzara, Gaixpar, zu bere Portun aiñako gizona?
—Portunen izenak beste Euskalerriko guztiak illunpetan daukaz, iauna" (**Auñemendiko Lorea**, II, 112. or.).

(86) "Euskalerriak badaukaz gizon goiendeko zintzoak: ara or Saratzuko Lope, indarra besoan, argitasuna adiñean, sua ta garra beregandeko biotzean daukazana; ara or Ametzuko Gaispar, gizon leiala ta zuzendari burutsua; ara or Etxegoieneko zaldun gazte azkar da izen andikoa; ara or Diego Etxalar da Urdatz-ko Gonzalo napartarren gidari errimeak; ara or...
—Alperrik diardun, Riktrudis. Esan dozan da esango dozan gizon guztiak baiño izen andiagokoa da ire Aita" (**Auñemendiko Lorea**, I, 14-16. orr.).

"esku bat aizkora-kirtenean ebala ta bestea ukabildurik (...), izugarrizko amorru batean, da aotik pitza dariola" (**Auñemendiko Lorea**, I, 46. or.).

Beraien hitzek mendekua eskatzen dute Ozinbeltzen, batzarraren oinarria den Aitz barrengo gertaera aztertu gabe. Mendekua eskatzen dute Otxoatarrek ere Riktrudis Adalbaldorekin ezkondu ondoren, eta Diego Etxalar izango da lehenengoa Portunen ikuspegia defendatzen.

Bestelakoa da Uberoren eta Arnoldoren jarrera Ozinbeltzeko batzarrean: mendeku-nahiari gertaeraren azterketa aurkajartzen diote eta azterketaren emaitzen arabera epaitzea Aitz barrengo gertaera. Biak bat datoz jarreran eta epaiketan, baina batzarraren aurrean egiten dituzten azalpenen emaitzek jadanik agerian utziko dute nor den ospetsuena, nor den bietatik joera honen buru.

Uberok defendatu egingo du Arnoldo herri-saltzailetzat jotzen dutenean. Riktrudisen ezkontza ez du begi onez ikusiko, baina informazio faltaz. Berriak Amandoren bidez heltzean, gertaera aztertu eta Riktrudisen aldeko epaia emango du bere seme Gaixparrek bezala, mendeku-nahiak baztertuz hartarako arrazoirik ez dagoelako.

Oso aberatsa eta zabala ez izanik ere, Mendiolako laguntzaile hauek jasotzen duten karakterizazioak badu Arnoldok errepresentatzen duen pertsonaia-tipoarekin kidetasunik: erasoei erantzun, inoiz ere ez erasotzaile bihurtu.

Euskaldun ospetsu eta agintarien statusean ez ezik, status apalagoetan ere badituzte jarraitzaileak Mendiolakoek. Peru Padarrak, Arnoldo bezala hiru maitasun-guneren arabera eraikitako koblakariak, heriotzeraino eta heriotzarekin defendatuko ditu Arnoldoren jokabideak, Arnoldo delako bere euskal agintari-eredua.

Kontaketara izen propiorik gabe datorren euskaldunen pertsonaia kolektiboa Ozinbeltzeko batzarrera bildu ziren gerragizonen antzera karakterizatzen da historian barrena:

> "biotz andikoak, euskaldun guztien antzera indartsu ta azkarrak, mendian iao-ta asirikoen taiuan.
>
> Iñoiz bere siñiztu bagako gauzarik ezeban esango; baiña bai agintarien esana errez siñiztu, ume batek gurasoarena legez. Da bein siñiztuezkero, olango gizonak siñizmenaren alde ipinten dabe laster

adimen ugartua, euren biotz andia... ta ukabill gogorra" (**Auñemendiko Lorea**, I, 56. or.).

Fikzioak frogatu egingo du kontalari orojakileak egindako deskripzioa, deskripzio hori tesi bat bailitzan.

Heldu-arora iritsi ez den haur-talde moduan karakterizatzen da euskaldunen pertsonaia kolektiboa, sineskorren pertsonaia-tipoa errepresentatuz. Euskaldunik gehienek sinetsi egiten dute Portunek Arnoldo herri-saltzailetzat jotzean; euskaldunik gehienek eurenganatu egiten dute, aztertu gabe, Portun zabaltzen ari den mezua, Riktrudis Adalbaldorekin ezkontzean.

Kostunbrismoaren ildoari jarraiki, **Auñemendiko Lorea**ko pertsonaiak pertsonaia tipifikatuak dira (87).

Baina, dena den, **Auñemendiko Lorea**ren kostunbrismoa ez da pertsonaia-tipoak soilik aurkeztera murrizten. Behin baino gehiagotan ekintza ohiturazko koadroak ordezkatzen du. "Euskal etxea" edo "'Erbesteko' bizia" kapituluek titulutik bertatik iradokitzen dute ohiturazko koadrorantz igarotzea. Aditz-denbora existentzialek leku egingo diete aditz-denbora ez-existentzialei Mendiolakoen ohizko bizitza narraziora ekartzeko edo Erbesteko ohizko bizitza narraziora ekartzeko. Bizitza-moduaren kontaketak izateko moduen kontaketa ordezkatuko du (88); erakutsitako eszenak singulartasuna utzi eta ohizko eszena eta eszena modeliko bihurtuko dira. "Euskal etxea" kapituluan Pedro Mari morroiak kontatzen duen ipuina eta ipuin honen inguruan sortzen den elkarrizketa, esaterako, aurretiaz orohar aditzera emandako bizitza-modua ilustratzera dator: "Udako egunetan, lotara baiño lentxuago, atari-aldean egoten ziran **kontu-kontari**" (**Auñemendiko Lorea**, I, 130. or.) aditzera eman duen kontalariak eszena baten bidez ilustratuko du; edo "Olango laurkak egunero ikusi oi ziran Adalbaldoren etxean" (**Auñemendiko Lorea**, II, 132. or.) adierazpen orokorrak amaiera jartzen dio eszena modeliko bati, esze-

(87) "El costumbrismo **tipifica** casos y personas, mientras que la ficción los **singulariza** —aun allí donde les conserva un **minimum** de tipicidad para hacerlos recognoscibles como exponentes de algo, profesión, clase, etc.—". MONTESINOS, J.F.; **Costumbrismo y novela**, Editorial Castalia, Madrid, 1980, laugarren argitalpena, 34. or.

(88) "Una vez más, **los modos de vivir** son los que cuenta, que no los **modos de ser**". **Ibidem**, 121. or.

na singularra izan baina ohizkotasunaren balioa hartzen duen eszena bati.

Domingo Agirrek XIX. mendean usuena den "kapitulua" osagaia hautatu du eleberria zatibanatzeko. Kapitulu bakoitzak titulu bat darama, eta titulu horrek modu mimetiko edo metaforikoago baten bidez laburtu egiten du "kapitulua" osagai horretan kontatzera doana.

Kontaketa-materiala antolatzeko osagai moduan eraikitzen du kapitulua, honi autonomi maila bat emanez kontaketa osoarekiko. Kapituluak atseden-puntua markatzen du, gertaerak garatzen ari direneko lekuaren aldaketa ekarriz, edo denbora-jauzi bat ere ekar dezakeelarik hurrengo kapituluak.

Ohiturazko koadroak aurkezten dituzten kapituluek eten egiten dute kontatzen ari den historiaren haria. Baina inoiz ez zaio kapitulu osoa eskaintzen ohiturazko koadro horri, kapituluaren hasiera-bukaeretan edo tartean historiaren hariari helduko bait zaio historia aurreratzeko. Beraz, ohiturazko koadroek etena badakarte ere, etena kapitulu barneko pasarte bati bakarrik atxikitzen zaio, eta honenbestez esan daiteke ez dagoela kapitulurik historiaren aurrerakuntzarik ez dakarrenik.

Bestalde, ohiturazko koadro hauen funtzionalitatea ez da baliorik gabea eleberriak kontatzen duen historiarekiko. Ohiturazko koadro hauek pertsonaia batzuren bizitzeko modua azalduz, pertsonaia horien izateko modua, jokatzeko modua, jarrera eta abar erakutsiz doaz.

3.2. HELBURU DIDAKTIKO-MORALA

Domingo Agirrek helburu didaktiko bat zeukan eleberri hau idazterakoan, ezkutatzen ez duen helburu didaktikoa. Lehen lerroetan bertan aitortuko du:

> "Gertaera zarren albistarik euki nai badozu, neure irakurle euskaldun biotzekoa; len-lenagoko emakume gozo maitagarri bat ezagutu nai badozu, zatoz neugaz batera Franziaruntz; Auñemendi tantaiak igaro daiguzan biok, euskal-etxe baten barruan sartu gaitezan (atseden bat egiten bakarrik, zerren gero asko ibilli bearko dogun), da gauza bene-benetan ikasgarriak ikasten saiatu gaitezan" (**Auñemendiko Lorea**, I, 6. or.).

Helburu didaktiko-moralak bide estu batera darama; zeren helburu honen barnean Eliza Ama Santu Katolikoaren dotrinaren barruan idatzi beharraren tesituran jartzen bait du bere burua. Guztiz esanguratsua da zentzu honetan oin-ohar batean dioena:

> "Liburutxo au ezta Iainkoiakindeko (**teologiako**) liburua, ta erriak berba egiten daben gizara berba egiten dot nik bertan. Ez neuke gura neure Eliza Ama Done Maite Bedeinkagarriari ondo ez derizkion gauzarik txikiena erakutsi: lenago ill" (**Auñemendiko Lorea**, II, 44. or., 3. oin-oharra).

Auñemendiko Lorea lehen lerroetatik bertatik ezarritako helburu didaktiko-morala betetzera bideratuko da, eleberria sostengatzen duten koordenada narratiboak **irakatsi** aditzari menperatuz.

Irakatsi hau azaleko egituratik sakoneko egiturara doan sare moduan itxuratzen da: anekdota mailako irakatsitik sinbolo mailako irakatsira, kontalariak bere hitzen bidez irakasten duenetik egituratze-modu batek sortzen duen irakatsira.

Bere ahotsaren edo pertsonaiaren baten ahotsaren bidez, kontalaria batzutan arkeologo bihurtzen da, beste batzutan historialari (89); zenbait berbaldi komentatibotan moralista, beste batzutan katekista.

Domingo Agirrek **Auñemendiko Lorean** egiten duen estudio arkeologikoa ez da oso sakona (90), baina bere ahulezia guztiekin ere

---

(89) "Vamos a llamar historia a la sucesión de acciones que en su eslabonamiento forman una figura móvil con unidad de sentido; y vamos a llamar arqueología al estudio de un estado social y cultural con todos sus particularismos de época y de país, y cuyo sentido y coherencia no está en la sucesión sino en la coexistencia y en la recíproca condicionalidad de sus elementos: instituciones, costumbres, técnicas, viviendas, indumentaria, alimentación, instrumental, etc". ALONSO, A.; "Ensayo sobre la novela histórica" in **Ensayo sobre la novela histórica. El modernismo en la "Gloria de Don Ramiro"**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1984, 9. or.

(90) G. Garatek adierazi duen bezala, "Agirrek ez zuen VII. mendeko Euskalerria ongi iruditarazi". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 53. or. Jarraian epai horren oinarriak eskaintzen ditu: "Ez ditugu aro hartako jendearen bizitza-ohitura latzak oso gaingiroki baizik ikusten, ez orduko izakera egosgogorrak, grina indartsuak eta nabariak, aginte gosea, jentilen ikusmoldea eta haien ustez erlijio berriak zekarren saldukeria, ez garaiko burubideari zegokion emoziorik, ez gizarteko egituren molderik sumatzen". "Giroa" izenburupean atal oso bat eskaintzen dio G. Garatek eleberriaren alderdi honi. **Ibidem**, 47-54. orr.

saio txiki horrexetatik hasten da **prodesse et delectare** horaziarrarekiko atxikimendua (91). Historiagile legez, Andre Luziaren ahotsean auñemenditarren azken ehun urteko historiaren laburpen bat eskaintzen du, Riktrudisen ahotsean kristautasunaren sarrerarena Nafarroan, oin-oharretan zein histori libururi jarraitu dion aditzera emanez. Moralista legez, giza jokabideen epaile zorrotz bihurtzen da. Katekista legez, pertsonaia desberdinen ahotan kristau-sinismenaren irakatsiak jartzen ditu, Amando bihurtuz pertsonaia horien esanaren zuzentasunaren edo zuzentasun ezaren epaile, etab.

Baina maila anekdotiko batean ez ezik, egituratze-moduan ere atzeman daiteke helburu didaktiko-morala. Eleberria sostengatzen duten koordenada narratiboak jomuga hori erdiestera bideratzen dira.

Historia bat kontatzeko baino gehiago, narrazioaren denbora historia baten zenbait episodio erakusteko erabiltzen da. Honekin ez da esan nahi **Auñemendiko Loreak** egitura episodikoa duenik, baizik eta historia baten hariari jarraitu baino gehiago, historia horretako zenbait pasarte aukeratu eskaintzen duela (92). Gauza jakina da: kon-

---

(91) A. Alonsok dio eleberri historikoaren egileek helburu hori zeukatela: "Los autores, como repetidamente declararon, acomodando el horaciano **delectare et prodesse** de las retóricas renacentistas y postrenacentistas querían ilustrar y deleitar. Les atraía representar objetos y modos de vida caducados, esto es, de validez limitada a un tiempo y a una región, y justamente en lo que tenían de limitación y de perecidos. En esto consiste la actitud arqueologista". ALONSO, A.; "Ensayo sobre la novela histórica" in **Ensayo sobre la novela histórica. El modernismo en "La Gloria de Don Ramiro"**, 18. or.

(92) Ez dago jakiterik lehen lau kapituluetako narrazioan barrena kontatutako gertaerek zenbat denbora irauten duten. Edonola ere, oso epe laburrean jazotzen dira. Lehen kapituluak Mendiolako jauregia du eszena-leku astelehen arratsalde batean; bigarrenak, Ozinbeltz, Otxoatarren jauregiaren inguruak. Ez dago Ozinbeltzeko batzarra denboraren ardatzean zehatz-mehatz kokatzerik; baina pentsa daiteke astelehen arratsaldean (iluntzean) edo beranduenik astearte iluntzean lekutzen dela. Ez dago zehatz-mehatz kokatzerik, ez delako azaltzen zenbat denbora igaro duten Pedro Mari Mendiolako morroiak edo kontalariak Mendiolako jauregitik Ozinbeltzerakoa egiten; baina gehienez ere hogei eta lau ordukoa da. Arnoldok Pedro Mari morroiari zera esaten dio:

"Ta Riktrudis da Andra Luziari esaiek an nazala biar" (**Auñemendiko Lorea**, I, 42. or.).

Ozinbeltzen batzarrean bilduta dauden astelehen —edo astearte— iluntze hau luzatuz doa kontaketan hirugarren kapituluak eskaintzen dituen eresien bidez, laugarren kapituluak eskaintzen duen Portunen bakarrizketaren bidez, etab.

Bostgarren kapitulua "Esan ditudan gertaerak igaro ziranetik urrengo egu-

talariak ezin konta ditzake eleberriak irauten duen denbora-epe luze

nean" (**Auñemendiko Lorea**, I, 88. or.) kokatzen da; egun horretan bertan gertaturiko jazoerak dakartzate seigarren eta zazpigarren kapituluek ere. Baiezpen hau, seigarren eta zazpigarren kapituluak egun horretan bertan kokatzen direla dioena, zeharka ematen diren zenbait datutan oinarriturik egin daiteke. Bostgarren kapituluan, Ozinbeltzeko gertaerak igaro eta hurrengo egunean doaz Amando bisitatzera Arnoldo eta bere alaba Riktrudis. Amandoren etxean ezagutzen dute Adalbaldo. Zazpigarren kapituluan zera esaten da:

"Goizean Aitagaz Amandogana izan zan egunean, begoan Riktrudis" (**Auñemendiko Lorea**, I, 130. or.).

Egun hau bostgarren kapituluko egun berbera da; ezin izan besterik, besteak beste, honako arrazoi honengatik: orain arte behin bakarrik erakutsi ditu narrazioak Arnoldo eta honen alaba Riktrudis Amandoren etxean, eta "egunean" inesibo mugatu horrek aipatu egun horri bakarrik egin diezaioke erreferentzia. Zazpigarren kapitulu honetan, "goizean Aitagaz Amandogana izan zan egunean" ematen dizkio gorantziak Lope Nagik Riktrudisi Adalbaldoren eta Portunen mandatuei jarraituz.

Kontaketan seigarren kapituluan erakutsi da mandatu hau ematen Adalbaldo eta Portun Lope Nagiri. Honenbestez, esan daiteke egun bateko gertaerek hiru kapitulu hartzen dituztela kontaketan. Hurrengo egunean lekutzen da zortzigarrena.

Oso epe laburrean pilatzen dira gertaerak, egun berean, esate baterako, Riktrudisek Adalbaldo ezagutzen du, honen eta Portunen gorantziak jasotzen ditu, Adalbaldoz maitemintzen hasten da.

Udaberriko astelehen arratsalde batean hasi den historia, egunean eguneko gertaerekin aurreratuz doa, egunero jazoerak pilatuz. Baina bederatzigarren kapituluan eten egingo da gertaerak egunez egun kontatze hau.

Ez dago jakiterik zenbat denbora igaro den zortzigarren kapituluan kontatutako jazoeretatik bederatzigarrenekoetara.

Kontalariak utzi egiten du kontatzen ari zen historia eta fikzioa utzita pasarte diskurtsibo-doktrinal batekin ematen dio hasiera kapitulu berriari. Kontalari orojakileak pasarte diskurtsibo honetan tesi bat aurkezten du, eta kontatzen ari zen historiarekin jarraitu ondoren. Historiaren jarraipen honek pasarte diskurtsiboa frogatzen du tesiaren ilustrazio bihurtzen delarik.

Laburpen baten bidez denbora-epe mugagabe batean jazotako gertaeren berri ematen du "iai bazkal-aurre" batean kokatu arte. Kontalariak laburpena utzi eta eszenara joko du berriro, narrazioa luzatzera, Arnoldo hil bitarterainoko jazoerak jarraituz bi lekugunetan: Mendiolan eta Ozinbeltzen. "Iai bazkal-aurre" horretako gertaeren azalpenak ematen hasiko da kontalaria bederatzigarren kapituluan laburpenaren ondoren, eta hamargarren kapituluaren amaieran heltzen zaio heriotza Arnoldori jai horretako gauean bertan. Hamaikagarren kapituluak Portunek eta Pedro Mari Mendiolako morroiak jai horretako arratsaldean Ozinbeltzen daukaten elkarrizketa eskaintzen du: "iai bazkal-aurre" horretako gertaerek eragindako elkarrizketa, hain zuzen ere. Hamabigarrenak, berriz, hurrengo eguneko gaua, "ill-gaua".

Berriro ere eten bat dakar hamahirugarren kapituluak: "Igaro zan udea. Udaz-

horretan jazotako gertaera guztiak edo pertsonaien pentsamendu guztiak; nahitaez aukeratu behar du. Aukera-lan honetan nabarmentzen da historiaren zenbait episodio erakutsi nahia.

Oso urria da eleberrian berez kontaketa dena. Batipat elkarrizketek eta bakarrizketek osatzen dute **Auñemendiko Lorea**ren hitz-orea. Kontalari orojakileak kontatu eta komentatu egiten du, baina kontaketa ia minimotara darama. Berak, kontatu ordez, nahiago du pertsonaiei hitz egiten uztea: nahiago du berak kontaketa eta komentario labur batean azaldua pertsonaiek beren hitzen bidez baieztatzea. Testua den lekugunea elkarrizketez eta bakarrizketez "betez" doa, narra-

---

kena etorri zan bere aize otz" (**Auñemendiko Lorea**, II, 40. or.). Udazkenak eskaintzen duen paisaiaren deskripzioaren ondoren historiari lotuko zaio kontalaria, Arnoldo hil geroztikako berriak labur-labur eskaini eta berri hauen inguruko komentarioak egiteko. Paisaiarekin bat datorren Riktrudisen egoera animikoa eskaintzen du eta udazkeneko egun batean kokatzen da, egun mugagabe batean, egun horretako Riktrudisen gogoetak eta gertaerak kontaketara ekarriz. Hamalaugarren kapitulua, berriz, hamahirugarrenaren bukaeratik ordu batera lekutzen da, hamahirugarrenaren egun berean, eta Amando eta Riktrudisen arteko elkarrizketa erakusten du.

Berriro etena dator ondoren eta azkenengo gertaeren azalpena Ostrabenton Riktrudis ezkondu ondorengo egun batean kokatzeko eta eszenara igaroz jazoera bat azaltzeko. Hamabostgarren kapitulu honen ondorengo hamaseigarrena ez da denboran kokatzen, baina aurrekoarekiko oso jarraian lekutzen da; Amandok hamabostgarrenaren bukaeran hartu duen erabakiaren gauzatzea bait dakar. Tartean igarotako denbora, Auñemendin igaro du, Ostrabentotik Uberoren etxera. Bide hau labur-labur eskaintzen da Uberoren etxean, Ubero eta Amandoren arteko elkarrizketa erakutsi aurretik.

Berriro etena, hamazazpigarren kapituluan "Erbesteko bizia" eskaintzeko. Tituluak berak iradoki bezala, gertaerak denboran kokatu gabe, ohiturazko kontaketa modura Riktrudisek "Erbesten" zeraman bizitza-mota laburtzen du, "egun bat" ekarriz narraziora Riktrudisen bizitza-mota ilustratzeko. Hamazortzigarrenak urte askoren laburpena eskaintzen du, harik eta Klobis II.a erregek "bein" Adalbaldo deitzen duen arte. Eszenaren erabileraren bidez erakusten da elkarrizketa hori. Adalbaldoren etxerako bidea laburpen esplizitua da. Heltzean Riktrudisekin daukan elkarrizketa. Hurrengo egunean Adalbaldoren irteera, Ostrabentotik erregeren agindua betetzeko. Hemeretzigarren kapitulua hamazortzigarrenaren jarraipena da, Adalbaldo egiten doan bidea jarraitzen du kontalariak, honen gogoetak kontaketara ekarriz, harik eta bere eginkizunak betetzen hasten den arte: Gont-hram-ekin elkarrizketa. Hurrengo eguna otsailaren bia da, Adalbaldo hiltzen duten eguna. Hogeigarren kapitulua berriro laburpen batekin hasten da, harik eta Riktrudis Adalbaldoren hilobi aurrean zegoen egun batean kokatu arte. Portunekin Adalbaldoren hilobi aurrean daukan elkarrizketarekin helduz doa amaierara eleberria. Oso modu laburrean kontatzen da Riktrudisen geroztikako bizitza. Hurrengo kapitulua epilogoa da.

zioari tarte txiki bat, oso txikia, utziz. Honek gehienetan pertsonaien bizitzako egun batzu aukeratzera darama, eta hautatutako egun horretako gertaeraren bat elkarrizketaren bidez testura ekartzera.

Honegatik, hain zuzen ere, hartuz doa episodio-erakuste itxura hori, pertsonaien bizitzako pasarte batzu erakuste hori. "Tarteak", berriz, episodio-erakuste batetik bestera doaz laburpen handi edo isilune batzu sortuz.

Gauza jakina da, baita ere, aldiberean eman daitezkeela hainbat eta hainbat gertaera, baina narrazioak ezin jaso ditzakeela aldiberean. Deigarria da puntu honetan **Auñemendiko Lorea**k azaltzen duen joera: nekez, oso gutxitan, aurkeztuko du erakusten ari den gertaeraren batera jazoten ari den beste gertaeraren bat. Bestelakoa da **Auñemendiko Lorea**ren joera: gertaerak bata bestearen ondotik aurkeztea denboraren ardatzean. Nabaria da "bien bitartean" edo antzeko denborazko lokuzioen erabileraren gabezia. Hau da, ez da aditzera emango zertan ari diren pertsonaia batzu beste batzu zerbait esaten edo egiten ari diren bitartean; gertaerak ere kontaketak eskatzen duen linealtasunera egokitu beharko balira bezala, jazoerek aldiberean gertatzeko ahalmenik ez balute bezala. Hala ere, esan beharra dago behin edo behin —eleberri osoan bi bider— ekartzen direla testura aldiberean eratzen diren bi jazoera.

Auñemendiko Lorearen egitura ez da episodikoa. Baina, agian, narrazio-urritasunagatik eta gertaerak linealki kokatu behar horregatik, pertsonaia desberdinen bizitzako zenbait pasarteren erakuste bihurtzen da, nahiz eta pertsonaien ekintza eta esanetatik sortuz doan historiak pasarte hauei batasuna eman.

Esan daiteke leit-motiv baten azpian eraikita dagoela eleberria idazteko modua, historia testura eramateko modua: erakutsi eta frogatu. Narrazioaren denbora eginkizun honetara bideratzen da. Pertsonaia-tipo ereduak eta pertsonaia-tipo antiereduak itxuratuz doaz eszenetan hartzen duten jarrera, azaltzen duten jokabide eta defendatzen dituzten ideiei esker. Kontalariak esandakoa frogatzen du sarri askotan eszenak. Kontalariaren esanak sumario itxura hartzen du, eta eszenak sumarioaren zabaltzea, anpliatzea. Kontalariak hartzen duen jarrera telebista edo irrati bateko albiste-zerbitzu batekin aldera daiteke: kontalariak titularrak eskaini eta titular horiek sortu dituzten pertsonaiei uzten die ondoren hitz egiten, titularrak zabaldu, hedatu eta zehatz ditzaten.

Oso aproposa bihurtzen da egilearen helburu didaktikoentzat gertaerak elkarrizketaren bidez azaltzea; izan ere, efikazia didaktiko handiagoa ematen bait dio pertsonaiak eszenaren bidez aurkezteak. Eszenaren erabilerak sinesgarritasun handiagoa eskaintzen dio historiari (pertsonaien jokabideak erakusteak egiazkotasun-maila gorenena du, hirugarren batek —kontalariak— haiei buruz esandakoarenak baino askoz handiagoa). Beraiek mintzatzen dira horrela, beraiek jokatzen dute horrela; ez da bestek emaniko bertsioa. Kontalariak oso labur azaldua baieztatu egiten dute pertsonaia horiek, eraginkortasun didaktiko handiagoa emanez.

Baina elkarrizketak eta bakarrizketak oso artifizialak dira. Artifizialak bihurtzen ditu helburu didaktikoarekiko menpekotasunak. Errealitatean eman daitekeen elkarrizketa hipotetikoa isladatzeak baino gehiago axola du kontalariak didaktikoki igorritako mezua irakurleak sinesgarri eta egiazkotzat jotzeak. Hau da, eszenak oso urrun daude pertsonaien arteko elkarrizketaren imitazio mimetikotik eta hurbilago pertsonaiaren narrazio edo kontaketa baten enuntziaziotik. Eta, honenbestez, edozein berri-mota (historikoa, antropologikoa, morala, erlijiosoa...) ekartzen da pertsonaiaren ahotsera. Kontalariak igorri nahi duen edozein berri ekartzen da pertsonaien ahotsera.

Fikzioaren gertaera esanahitsu batzuren aukera egiteari menperatzen zaio kontaketaren denbora; argitasun didaktikoari erantzuten dion erabilera da. Argitasun didaktikoa bilatzen da fikzioak irauten duen denbora narraziora eramatean: eta erakustea eta hauek linealki testuratzea.

Irakurlegaiarengan (93) nahasketa, konfusioa eta zalantza sor dezakeen elementu oro baztertzen du kontalariak. Hartzaile errealak desorientaziorik ezagutu ez dezan, "irakurle orojakile" bihurtzen du. Hartzailea "behar bezala" informatzen du uneoro, fabularen garapenaren egoera puntualek ez dezaten ondorio okerretara eraman. Horretarako, kontalariak aurreko kapituluetan ekintzen eta pertsonaien benetako egoera jakiteko beharrezkoak diren ezagupenak eskaini dizkio. Suspentsea eta harridura pedagogiaren mende daude: konplexutasun oro baztertu eta mezu didaktikoa argia izan dadila.

(93) Ik. PRINCE, G.; "Introducción à l'étude du narrataire" in **Poétique**, IV, 180. or. Agirrek norbaitentzat idazten du, euskal gizartean dakusan irakurle-motaren batentzat. Irakurlegai hau gero irakurle erreal bihurtu nahiz ez bihurtu, agerian gelditzen dena zera da: eskutik eraman behar den irakurle bati zuzentzen zaiola.

Horrela, esate baterako, 15. kapituluan kontalariak eszenaren erabilerara jotzen du irakurleari erakusteko nola Adalbaldok eta Riktrudisek Auñemendiko ondasunak txiroentzat utzi dituzten. Jadanik irakurleak ezagutzen zuen berri hori, Amandok 16. kapituluan Ubero eta honen seme Gaixparri ematen dienerako.

Nekez jotzen du kontalariak suspentsearen erabilerara. Ildo honetan azpimarkagarriak dira zantzuz beterik —baina zantzu bidez bakarrik— aurrez iragarriz doan Adalbaldoren heriotza edo Portunen bakarrizketan aurrez iragarriz doan Lope Nagik kontaketan hartuko duen jokabidea.

Eleberriaren egiturak garbi isladatzen du egitura osatzen duten osagaien erabilera estereotipatua, elementala, primarioa eta primitiboa. Oso txikia da kontaketa osatzen duen hitz-orea (oso laburra da epikaren elementurik prototipikoenaren presentzia); izan ere, kontalariak kontatu baino gehiago komentatu egiten du berbaldi diskurtsibora joz edo pertsonaien arteko elkarrizketak erakutsi baliabide dramatikotara joz. Elkarrizketa horien bidez eta laguntzaz josten du eta hedatzen, bestalde, historia.

Baina, gainera, fabularen garapen sinplifikatua eskaintzen du. Helburu didaktikoa erdiesteko aproposenak diren ekintzak aukeratzen dira, eta beharrezkotzat jotzen diren ezaugarri zehatzekin testuratzen. Ez dago garapen konplexurik, ez girotze anbiziosorik. Teknika berberarekin heltzen zaio pertsonaien tratamenduari: pertsonaiak aukeratu eta mugatzen dituzten ezaugarrietan bakarrik desarroilatzen dira; pertsonaia-tipoak dira konplexutasun psikologiko minimotik ere urrun direnak.

Pertsonaien eta kontaketaren itxuratze estereotipatu hau, gainera, kontaketa lineal batean gorpuzten da; kapituluak bata bestearen ondotik datozen konpartimendu bezala doaz eraikiz. Abenturaren aurreratzea, beraz, sinpletasun handienaren formulaz egiten da, ekonomiarik handienaz. Ekonomizatze hau hausten bada, errepikatzeko bakarrik hausten da, argi eta garbi utzi nahi den pasarteren bat errepikatzeko: edo Aitz barrengo gertaera dela edo-ta Arnoldoren ospea...

Sarri askotan elkarrizketek galdu egiten dute arintasuna eta bizitasuna. Pertsonaiak ekintzan aurkezteaz gainera, beste eginkizun batzutarako erabiltzen dira elkarrizketak: pertsonaien ahotsaren bidez egi-

learen berriak emateko, pasarte historiko edo moral luzeak testuratzeko.

Beraz, honenbestez, honako hau esan daiteke ondorio gisa: **Auñemendiko Loreak** darabiltzan narrazio-elementuak (kontaketaren urritasuna, diskurtsibitatera zabaldurik dauden elkarrizketak, kontalariaren komentario diskurtsiboak, kontaketara ekartzeko egiten den ekintza-aukera, pertsonaia-tipoak, narrazioaren denboraren menpekotasuna argitasunarekiko...) helburu didaktiko ageri batekin erabiltzen direla: irakurleari igorri nahi zaizkion mezu antropologiko, erlijioso eta abarren zerbitzuan.

Eta, jakina, mundu didaktikoa da egituratze-modu honetatik eta egituratze-modu honi esker sortzen den esanahi-mundua: kristautasunaren garaipena, kristautasunera "jaiotzea".

Eleberri primariora bideratzen da kontaketaren elementu egituratzaileen garapenaren sinpletasuna. Agian, ezin zitekeen bestela izan bere historia literarioaren lehen oinarriak jartzen ari den epikan; izan ere, epika idatzira jaiotzen ari da euskal literatura.

III. KRESALA: DENBORA ZIRKULARRAREN HAUSKETAZ, DENBORA LINEALA

> "Asi ziran, bada, lengo bidetik. Eta zein zabala dan itxasoetako bidea, ta zein estu, larri ta keixu ibiltzen diran bide orretan arrantzaleak! Egunak ekatxerako dagozan garaietan, goibel da illun billatu oi daroe sarri zerua, odei baltzez jantzia, odeien artean ezkutaurik dagozan tximista erregarriz betea, ta ur gañean barriz, bizi, ibilkor, erabilkor, indartsu ta itotzailea; egualdia onerako dagoanean, eder da izartsu idoroten dabe goi aldea, gabaz; eguzkiaren errañu sutsuakaz itxas gain dana ikusgarriro zidarturik egunaz; baña beti da andi ta bildurgarria itxasoa, beti aurkituten dau gizonak argal, ziztrin uts da ezereza bere burua itxasoko zabaltasun aulgarriaren altzoan" (**Kresala**, 65. or.).

1. KRESALA: BORROKA ETA ITXAROTE BATEN PARALELOTASUNA

Kresalarekin Domingo Agirrek eleberri historikoa utzi eta "ohiturazkoak" deituriko eleberri-mota horietara igaroko da. **Kresala**, kronologikoki bere bigarren nobela dena, itsaserri batean kokatuko du. **Garoa**, berriz, bere hirugarren nobela eta bukatutakoetan azkenekoa dena, baserrian, Arranondo eta Zabaleta baserria fikzioen garapen-leku bihurtuz.

Aski da **Kresala**ko aditz-formei gainbegiratzea, hauetako askotan ohizkotasunaren marka atzemateko, ohizkotasunaren presentzi moduren baten salatari. Baina hauen ondoan bestelakorik ere badela aditzera ematen du lehen irakurketa horrek.

Ohizkotasunak eta singulartasunak osatuko dute **Kresala** hori, ohizkotasunari lotutako pertsonaien "historiak" eta historia propioa burutuko duten pertsonaiek, alegia. Lehenak denbora zirkular bati atxikiak, bigarrenak denbora singular bati.

Beraz, bi planotan itxuratzen da historia: denbora zirkularrean eta denbora linealean. Eta jazotzen diren gertaerek kokagune desberdinak izango dituzte korrelato gisa: itsasoa eta Arranondo lehenarentzat eta, oinarri semantiko errekurrente batean finkatuz —borroka eta itxaron—, Anjelen kontzientzia eta Bilbo, bigarrenarentzat. Paralelotasun hauek gauzatuko dute **Kresala**ren egitura (1) eta bizkarrezurra hogeitasei kapitulutan barrena.

Eta paralelotasunak ematen dien batasun (2) horretan gorpuztuko dira arranondotarren eguneroko bizitza, arrantzaleen itsasoarekiko borroka eta lehorrekoen itxarotea; baita ekaitzak eta eguneroko bizitza horri dramatikotasun handiagoa eransten dien egurats-egoerak ere, batzuren borroka areagotuaz eta besteen itxarotea larriagotuaz. Eta Mañasiren maitasun-historia itxarote bezala eraikiko da eta gertaera honen beste aldearena kontzientzi argitze bezala.

Baina **Kresala** paralelotasunen gain eraikitako egituratzat jotzean, ez da inolaz ere paralelotasun batzutara murriztu nahi, egitura esanahidun bakartzat hartuz. Hor daude pertsonaien arteko aurkako-

---

(1) "Se entiende por estructura de la novela, como de la literatura en general, el modo en que están dispuestos y organizados los elementos más allá de las palabras. La estructura implica siempre un proceso de construcción". SOUVAGE, J.; **Introducción al estudio de la novela**, 33. or.

(2) "La unidad de la obra no es una entidad simétrica y cerrada sino una integridad dinámica que tiene su propio desarrollo; sus elementos no están ligados por un signo de igualdad y adición sino por un signo de correlación e integración". TINIANOV, J.; "La noción de contrucción" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), 87. or. Eichenbaum-ek Tinianov-en hitz hauek jasoko ditu liburu berean argitaratzen den "La teoría del método formal" artikuluan, 46. or. Paralelotasun hori ageri da **Kresala**n "signo dinámico de correlación e integración" bezala.

tasunak, esate baterako. Besterik nahi da: eleberrian nagusi (3) den egitura giltzarri bilaka daitekeela baieztatu eta hezurdura horretan oinarritutako irakurketa egin, nolabait testuaren euskarritzat joz. Horrela, gainerako baliabideen ekarriak (4) zutabe horien osagarri lirateke, "tarteak betetzen" doazen materiala, alegia.

Printzipio antolatzaile gisa eratuz, paralelotasun horiek etnologiatik literaturarako bidea egingo dute, ohituren deskripzio hutsa gaindituz eta testuari autonomi maila bat emanez. Eta, honela, Arranondoko Garizumaren parean, antxoaren arrantza eta elizara txartel bila joatea jarriko da; abuztuko jaien parean, meza nagusia eta aparteko bazkari eta ospakizunak; negu erdiko ekaitzaren parean, negarra eta otoitzak; maitasun-historia ez-egokituarenean, berriz, gurasoen urre-nahia eta seme-alaben estuasunak. Hitz batean, itsaserriko bizitza "elementu gehigarriz" (5) osatzen da.

1.1. BI PLANOTAN EGITURATUTAKO ELEBERRIA

Kresala bi planotan hezurmamitzen da. Batetik errepikapenaren planoa dago, eguneroko bizitzaren iterazioarena, itsasoak markatutako aldiei lotua (antxoaren arrantza, atunarena...), arrantzaleentzat eta lehorrekoentzat errepikatzen dena. Eta bestetik, singularizazioaren planoa, ekaitz-egunei eta itsasoak sortzen duen arrisku handiagoko uneei lotua, arrantzaleentzat eta lehorrekoentzat ordu larriak ekarri eta ustegabeko egoerak erne ditzakeena; garapen singular baten planoa, alegia. Lehenak Arranondoko ohizko bizitza deskribatuko du

---

(3) Tz. Todorov-en hitzek bidera dezakete gaia: "Si decimos que un libro ilustra más bien una determinada estructura que otra es porque la relación en cuestión predomina en ella". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 79. or.

(4) B. Pottier-ek Izen-Sintagma eta Aditz-Sintagma bereizterakoan, "soporte" eta "aporte" kontzeptuak darabiltza. "Euskarri" eta "ekarri" erabiltzean, testuan "substantiboagoa" eta "adjetiboagoa" izan daitekeenari egiten zaio erreferentzia; biek osatzen dute testua, baina ez pisu berdinaz. Ikus POTTIER, B.; **Presentación de la lingüística**, Ediciones Alcalá, Madrid, 1972, 2. argitalpena, 59. or.

(5) "Es el **elemento añadido**, el reordenamiento de lo real, lo que da autonomía a un mundo novelesco y le permite competir críticamente con el mundo real". VARGAS LLOSA, M.; **La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1981, berrargitalpena, 181. or.

bere lan, neke eta atsedenaldiekin; ohizko orainaldiko aditzen bidez deskribatu ere. Bigarrenak, berriz, noizbehinkako itsasoa, aditz-denbora inperfektuak eta perfektuak erabiliz.

Noizbehinkako itsaso honek irekiko du eleberria eta nolabait itxiko, "irakiten" jartzen den itsaso honek, hain zuzen. Ondorio desberdinak izango dituzten bi **itsaskien** artean garatuko da eleberria. Lehenari zor zaio **Kresala**ko maitasun-historiaren sorrerarako Mañasiren barne-egoeran desoreka eragitea, eta bigarrenaren ondoren gaindituko da gatazka, oreka berria lortuz. Bi ekaitz-egun horien artean, bi une berezi horien artean, gorpuztuz joango da **Kresala**ko historia singularra, Mañasiren historia pertsonala, berdin errepikatuko ez den historia, Arranondoko ohizko bizitza hondo duen abentura indibiduala.

Errepikapenaren planoa (Kantauri itsasoa, Arranondoren artean higitzen den planoa) **Kresala**ren hondoa eraikiz doa, Garizumatik agorraren erdira eta agorraren erditik negura eraikiz ere. Eta benetako egunerokotasunari iruzur eginez, urteko egutegiak zehazten dituen zenbait aldi ekarri ditu berbaldira, Arranondoko eguneroko "ohizkotasunari" aldi batzuren "ohizkotasuna" gainezarriz.

Errepikapenaren plano honek arranondotarrak izango ditu protagonista, sarritan karakterizaziorik txikiena ere izatera helduko ez diren gizon-emakumeak hain zuzen. Eta batzutan izen propioa ozta-ozta izango duten arranondotar hauek, lekuak (itsasoa-Arranondo) eta bizitza-moduak bat egingo ditu **Kresala**ko hondo honen protagonista bezala itxuratuz.

Amankomunean duten hondo honetan, erliebea hartuz joango da zenbait pertsonaia maitasun-historiaren garapenari esker. Eta historia horren egileak eta jasaleak lehen planora iritsiko dira. Nahiz eta historiaren bukaerak ohizkotasunera itzuliko dituen berriro ere.

1.1.1. Protagonista kolektiboaren (6) gain eraikitako mataza (7): denbora zirkularra

Kresala "Ekatxa" izenburu duen kapituluarekin hasten da. Kapituluaren garapena, berriz, tituluak aurreratzen duenarekin bat dator. Kontalariak joera berdina azalduko du gainontzeko kapituluetan ere: mimetikoagoak edo metaforikoagoak, tituluek harreman hertsia gordeko dute datorren kontaketarekin.

> "Ipargoiko aizea, geiagoko barik, bat batera ta guztizko aserre amorratuan sartu zan Arranondoko erritxoan. Bakean da geldirik egozan kale bazterretako paper, zotz, zakar, lasto, buruko ule ta maluta galdu guztiak, arrastaka ta bira-biraka ibilli ta gero, egazti biurtu gura baillirean, jaso ebazan aize orrek etxien buruak baño askozaz gorago" (8).

Aditz-denbora inperfektuak eta perfektuak erabiliz, eleberriaren hasiera honek ekaitz konkretu eta bakan bat kontatzeari ekingo dio, narrazio-denborak (9) adierazpide dituela.

---

(6) K. Otegik A. Lertxundiren **Ajea du Urturik** aztergai duela pertsonaia literarioaren tratamendu berri baten aurrean gaudela dio: pertsonaia kolektiboarena. Aurreko euskal eleberrigintzak ez du pertsonaia kolektiborik ezagutu: "Bada zenbait eleberri euskaraz, kolektibitateari, taldeari, nola-halako garrantzia damaionik. Esaterako, hor ditugu Txomin Agirreren **Kresala** eta Agustin Anabitarteren **Donostia!**. Alabaina, horiek ez dira egiazko pertsonaia bilakatu, ez dira nobel egitura baitan elementu ekintzaile". OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 163-164. orr. Zinez **Kresala**ko protagonista ez da kolektiboa izango, baina lerro hauetan barrena egingo den irakurketan ingurumari huts izatera ere ez da murriztuko. Izendapenik zuzenena ez izan arren, egokiagorik ezean, erosotzat jo da.

(7) "Llamamos trama al conjunto de acontecimientos vinculados entre sí que nos son comunicados a lo largo de la obra". TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de las formalistas rusos**, 202. or.

(8) Jadanik aditzera eman da deskripzio honetan zein argitalpen erabiliko den: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldariak, Oñatin, 1976.ean eginikoa. Azaldu da, baita ere, nola Agirrek oin-oharren erabilerara jo zuen argibideak eskaintzeko. **Auñemendiko Lorea** aztergai hartutako erizpideari jarraikiz, deskripzio honetan jasotzen diren testu-aipamenetara ez dira ekarriko, ez markatuko, ez berak testu mailan eginiko deiak, ezta oin-ohar horiek ere.

(9) "Tiempos cero del mundo narrado" bezala izendatzen ditu Weinrich-ek aditz-denbora inperfektuak eta perfektuak. Ikus WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 98. or. Aipatutako bi aditz-denbora horien erabilerak, narra-

Hastapen hauek besterik pentsatzera bultza badezakete ere, ohizkoenak ez diren aditz-denbora komentatiboek (10) ere izango dute lekua **Kresala** eleberrian. Aditz-denbora komentatibo hauekin eraikiko ditu ohizko Arranondo eta ohizko itsaso hori; baita urtea joan eta urtea etorri behin eta berriz errepikatzen den "egitarau" berari lotua dagoen arranondotarren bizitza ere (11). Eta horrezaz gain, orojakile izateak ematen dizkion lizentziak erabiltzeko baliatuko da kontalaria aditz-denbora komentatiboez: bere digresioak egiteko, kontatzen eta deskribatzen ari dena epaitzeko edo fikzioaren denboratik (12) irteteko.

Aditz-denbora komentatibo hauen bidez gorpuztuko da **Kresala**ren hondoa, bigarren planoa; hau da, arranondotarrak protagonista dituen berbaldia. Eta bigarren plano honetatik hartuko du erliebea (13), narrazio-denboren (14) bidez hartu ere, eleberriko historia sin-

---

zio-denborak izanik, erliebea sortzen du, perfektuak lehen planoa eratzen duelarik eta inperfektuak bigarrena. "El dar relieve según un primero y un segundo plano es la **sola y única función** que desempeñan el imperfecto y el perfecto simple en el mundo narrado" dio Weinrich-ek aipatutako liburuan 210-211. orrialdetan.

(10) Weinrich-ek **tiempos comentadores** deituko ditu. Ik. WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, 70. or. Izenburu horren azpian lekutzen dituen aditz-formak 52. or. eta 194.ean ikus daitezke, lehenean frantsesarenak, bigarrenean gaztelerarenak.

(11) "La novela es el mundo de lo singular" dio Amoros-ek. Eta singulartasuna nekez ezkon daiteke **Kresala**ren pasarte hauetan agertzen den ohizkotasunarekin. Ikus AMOROS, A.; **Introducción a la novela contemporánea**, 24. or.

(12) Jean Ricardou-k fikzioaren denbora eta narrazioarena bereizten ditu. Egile honentzat, bata historiaren denbora da eta besteak historia hori kontaketan nola adierazten den arakatzen du. Bi ardatz hauen arteko alderaketak azalduko du nola erabili den denbora baliabide erretoriko bezala. Ik. RICARDOU, J.; **Problèmes du noveau roman**, 161. or. eta hurrengoak.

(13) "Tiempos de la narración" deitzen ditu Weinrich-ek. WEINRICH, H.; op. cit., 67. or. Izenburu honen azpian jartzen dituen aditz-formak liburu beraren 52. orrialdean aurki daitezke frantsesezkoak eta 194.ean gaztelerazkoak.

(14) "Erliebea", "lehen planoa" eta "bigarren planoa" kontzeptuak ez darabiltzagu zuzen-zuzen Weinrich-ek ematen dien balioarekin. Jadanik azaldu dugu autore honek zein balio ematen dien; atal honetako 9. oin-oharrean, hain zuzen. Gu hemen, berriz, lehen planoa eta bigarren planoa bereiztean, narrazio-denborak eta denbora komentatiboak bereizten ari gara: denbora singularra eta denbora

gularrak, bi ekaitz-egun bakan horien artean garatzen den historia espezifikoak (15).

Beraz, kontalariak jarrera desberdina hartzen du berbaldiarekiko: denbora existentziala darabil komentatzeko eta denbora ez-existentziala kontatzeko. Horrela, ohizkotasun, digresio eta singulartasun bezala taxutuko du eleberria, eta, aldiberean, protagonista kolektibo baten historiaren berbaldi, kontalariaren berbaldi eta Mañasiren historiaren berbaldi izango da.

Ekaitzarekin hasten den kontaketak (aurrerago jakingo da "neguaren erdian" (16) jazo dela gertaera) laster irekiko dio bidea beste historia bati, arranondotarrek horrelakoetan egiten dutenari. Ekaitz-egun horren singulartasunak ohizkotasunaren oihartzunak ditu kontrapuntu: lehorrekoak elizara eta portura joan ohi dira Jaungoikoari laguntza eskatu eta txalupen zain jartzera. Berbaldi mailako "beste olango eretietan legez" (17) horrek arranondotarren ohizko ekintzara garamatza; ekaitz-egunetan txalupak itsasoan direnean egin eta egingo dutenera: otoitz egin eta itxaron. Eta egun horretakoa "horrelako egunetako"-en kategoriara eramango du, singularizaziotik iteraziorako bidea eginez.

Kapituluaren bukaerak, berriro ere, ekaitz-egun singularrera darama kontaketa: "Sardinzarren potiña zan agertu etzan bakarra" (18).

Bikoiztasun horretan garatuko da bigarren kapitulua ere. Batetik, bat bera eta berdina azaltzen da atseden-ordutako bizitza lehenean, orainean eta baita geroaldian ere, geroaldi hurbilean behintzat. Eta, bestetik, berriz, fikzioaren denbora soila da, "Olango etxe zuloetan sartuta **egoten dira**" (19) dioenetik "Olantxe **egozan** Arra-

---

zirkularra, alegia. Erliebea aipatzean, bestalde, denbora zirkular horretan, arranondotarren multzotik "bakanduz" eta historia singularraren egileek hartzen duten garrantziaz ari gara. Beraz, terminoen erabilera ez da sinonimoa.

(15) Hau izango litzateke Amoros-ek aipatzen duen "mundu singularra". Ikus atal honetako 11. oin-oharra.

(16) **Kresala**, 39. or.

(17) **Kresala**, 17. or.

(18) **Kresala**, 20. or.

(19) **Kresala**, 23. or. Azpimarra gurea da.

nondokoak" (20) dioenera.

"Egozan" horren menpe, fikzioaren denboran eszenaratuko dira lehen eta azkenengo aldiz arrantzaleak ardandegian, elkarrizketa hau eszena modeliko (21) eta berbaldi iteratibo (22) bihurtuz. Izan ere, aurrerantzean eta nobela guztian zehar, berbalditik at baina historian presente dagoen lekua izango bait da ardandegia. Nolanahi ere, eszena modeliko hau, atseden-ordutako elkarrizketa hau, sarritan jazoten den gertaera, enuntziazio-ekintza bezala iteratiboa bada ere, enuntziatua bera bakarra da (23) egun horretako ekaitza mintzagai bihurtzean, porturatu ez den Sardinzarren txalupan zentratzen delarik elkarrizketa. Eszena honek, arrantzaleen karakterizazioan lehen urratsak jartzeaz gain, beste funtzio bat ere beteko du: eleberrian barrena gatazka-iturri izango den Sardinzarren txalupakoei buruz lehen informazioa ematea.

Hirugarren kapituluak ildo beretik joko du, ekaitz horrek sortu duen kontaketari jarraiki, Sardinzarren txaluparekin gertatutakoaren berri emanez: Getarian sartu ziren. Abagadune honek bidea irekitzen dio ohizkotasunari: Sardinzarren txaluparen porturatze honi "horrelakoetan" euskal itsaserrietan egiten zaien harrera erantsiko zaio berbaldian, kontaketatik komentariora igaroko da eta Sandinzarren porturatze-modua ohizkotasun horren barnean sartuko da porturatze singular honen kaltetan.

Honenbestez bukatuko da ekaitzak, kolektibo batek jasan duen gertaerak, sortu duen narratibitatea eta komentarioa. Kontalariak ere,

(20) **Kresala**, 23. or. Azpimarra gurea da.

(21) "Denominaremos **escenas modélicas** aquellos cuadros cuyo significado transciende de su propio valor referencial inmediato y no se agota en una denotación a la escena que reviven, porque representa hechos que se repitieron a diario, con variantes desde luego, durante años en la vida de los personajes. Por medio de estas escenas modélicas, los personajes se van constituyendo en tipos novelescos y se van manifestando como caracteres para el lector". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 84. or. **Auñemendiko Loreak** bezala, **Kresalak** eszena modelikoak aurkezten ditu.

(22) Honela zehazten du Tz. Todorov-ek berbaldi iteratiboa: "Un único discurso evoca una pluralidad de acontecimientos (semejantes)". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 64. or.

(23) "La escena da a los hechos descritos un carácter único". BOURNEUF, R.; OUELLET, R.; **La novela**, Editorial Ariel, Barcelona, 1981, 2. argitalpena, 72. or.

kolektibo honekin batera, kontaketarekiko hartzen duen jarrerak adierazten duenez, amaitutzat emango du gertaera hau. Izan ere, batetik, berbalditik erredundantzia oro baztertu eta kontaketa errepetitiboa (24) saihestu nahiko balu bezala, **Kresala**n gertatzen den bigarren ekaitza, "Ondamena", ez du "Ekatxa" legez lehorretik kontatuko, itsasotik baizik, kokagunez aldatuz (25); eta bestetik, berriz, Garizuman kokatuko da laugarren kapituluan, elipsi (26) handi bat eginez.

Hala ere, ekaitza ez da **Kresala**ren hirugarren kapituluan bukatuko den pasartea. Ekaitz honek utziko du arrastorik pertsonaia batengan, Mañasirengan. Eta maitasun-historia testu osora hedatuko da, lehen momentuan azal zezakeen egitura episodikoa gailenduz.

Elipsi luze batez Garizuman kokatzen da kontaketa, "antxobatarako ta txarteletarako" egunetan, hain zuzen. Arranondotarrek garai honetan aurreko urteetan egin ohi dutena egingo dute: itsasoan antxoa eta elizan txartela bilatu. Garizuma Aste Santuarekin bukatuko dute, ohizko elizkizun eta prozesioekin.

Garizumarekin hasitako kapitulua Aste Santuarekin amaitzen da. Eta beste elipsi bati esker, agorraren erdian, atseden-orduetan kokatzen da kontaketa: meza kanpotik ekarritako sermoigilearen sermoiarekin; aparteko bazkaria gonbidatuekin; estropada, aurreskua, alborada... Ohizko egitaraua Arranondoko festetan.

Festen ondoren "lengo bidea" hartuko dute berriro arranondotarrek: arrantzaleek itsasoan, haurrek eskolan, emakumeek eta itsaso-

---

(24) Honela zehazten du Tz. Todorov-ek erlatu errepetitiboa: "muchos discursos evocan un solo y único acontecimiento". TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 64. or.

(25) Honekin ez dugu esan nahi errepetitiboa zatekeenik bigarren ekaitz hori lehorretik ere kontatzea. Badirudi kontaketa-modu honen bidez kontalariak honela dioela: jadanik badakizu, irakurle, lehorrekoek zer egiten duten egun horietan; berriro ez dizut kontatuko. Eta, horrexegatik, lerro orokorrak besterik ez ditu zirriborratuko, ñabarduren kaltetan. Zertarako alferrik jardun eleberriaren hasierako ekaitzari zipristinak bakarrik erantsiko lizkiokeen bigarren ekaitza kontatzen?

(26) Berbaldiaren denbora eta fikzioaren denbora alderatuz, honela zedarrituko du Tz. Todorov-ek elipsia: "es aquél en el que ninguna porción del tiempo discursivo corresponde al tiempo que transcurre en la ficción; se trata evidentemente de la omisión de todo un período, o elipsis". TODOROV, Tz.; op. cit., 63. or.

ratzerik ez daukatenek lehorrean arraina saltzen, garbitzen edo gatzetan jartzen...

Errepikatze honetan, aurreko urteetako egitarauaren ildotik, denbora zirkularraren gurpilean bilduz doa **Kresala**ren hondoa, hau da, arranondotarren eguneroko bizitzaren historia: edo, hobeki esanda, arranondotarren "aldioroko" bizitzaren historia. Eleberrian **aldia** da nagusi eta ez **eguna**; izan ere, eguneroko bizitza ez bait da "fabulagarri" eta "relatagarri". Bai, ordea, negu erdiko ekaitza, Garizuma, atseden-orduak... Tarteak, berriz, elipsi huts bihurtzen dira. Kontalariak egunerokotasuna iragazi eta egunerokotasun horretan "adierazgarrienak" izan daitezkeen uneak besterik ez ditu kontatuko.

Beraz, **Kresala**ri egotzi zaion "costumbrismo" horren salatari hor daude ohizkotasuna adierazten duten aditz-denbora komentatiboak, kontatzeko modua, iraupena eta elipsiek sortzen dituzten etenak. Bada, ordea, besterik: kontaketaren ekonomia.

Ekonomia aipatzerakoan zera adierazi nahi da: kontalariak kontaketa iteratiborako duen joera, kontaketa errepetitiboaren kaltetan. Izan ere, fikzioaren denboran etorriko da beste Garizuma bat ere (hori ziurta daiteke), baina ez du kontatuko; aipatu gabe igaroko da. Garizumak ez bait zuen baliorik maitasun-historiaren garapenean, nahiz eta izan kolektiboaren aldi horretako bizitza-modua agertzeko. Hori eginez gero, garai bezala ordea, balioa galtzen du.

Garizuma, atseden-orduak... arranondotarren bizitza-moduari dagozkio. Eta ez dira tratatuko pertsonaia batzuren ikuspegitik, baizik eta talde sozial batenetik. Hala ere, fikzioaren denboran kokatzeko saio txiki bat egingo du kontalariak aldi bakoitzean: jadanik ezkontz proposamena egina zuen Artoberori Garizuman emango dio erantzuna Josepak; pertsonaia "ezagunak" ibiliko dira Aste Santuko prozesioan (Artobero, Anjel, Mañasi, Josepa); pertsonaia "ezagun" batzu testuratuko atseden-orduetan (Josepa, Mañasi), baina ez zerbaiten agente gisa, baizik eta multzo handi horretan dauden "izendun" gisa. Lehen kapitulu hauetan guztiz nabaria da historia singularraren menpekotasuna ohizkotasunarekiko: Garizuman garrantzitsua antxoaren arrantza eta txartel bila joatea bada, txartel bila doala eszenaratuko da Artobero "ilustrazio" gisa; berdin gertatuko da Aste Santutako prozesioetan ere.

Atseden-orduetan ere "ohizko egitaraua" da nagusi. Elizatik ate-

ratzen direnen elkarrizketatan ez da esaten nortzu diren partaide ere; ez du ajola. Arranondotarrak ari dira sermoiari buruz (27). Ondoren bazkaria, jaia... Eta "ilustrazio" gisa, Mañasiren eta Joseparen presentzia fisikoa jai horretan, ekaitzak Mañasirengan sortu duen desorekaren jarraipenaren konstatazio huts.

"Lengo bidetik" kapituluak ildo berdina erakutsiko du: festen bukaera eta itsasoratzea, alegia, festa-amaieraren egitaraua eta itsasoko lanak sortzen duen nekea.

Ohizko itsasoa, lan eta nekearen itsasoa, testuratzen da labur-labur, eguneroko tragediaren itsaso hau ere beste "aldien" galga berean jarriz. Nekea eta lana ere ohizkotasunera mugatuko dira; ez bait dira nobelagarri, "ohizko eszena" huts baizik. Arrantzaleen semeak zain egongo dira portuan. Baita emakumeak ere. Hurrengo kapituluan esango denez, itsasotik datozenen lana jarraitzeko prest. "Arrain-saltzaileek" emango diote bukaera eleberriaren lehen kapituluetako ohizkotasunari, arrantzak irekitzen duen prozesuari amaiera emanez; eta hemen "ezagunak" diren Tramana eta Brix-ek "ilustratuko" dute arrain-saltzaileen pertsonaia-tipoa. Bien bitartean egon dago historia singularrean gatazka-iturria dena: ekaitzarekin batera etorri den Mañasiren maitemintzea. Ohizkotasunari lotutako erlatu honetan, lehenean dirauela aditzera ematen duten zantzuak (28) bakarrik aurkituko ditugu Aste Santutako prozesioan edo herriko festetan.

Arrain-saltzaileen kapituluaren ondoren, ohizkotasunari eskainitako zikloa ixtera joko du, ohizkotasunaren berbaldia murriztuz eta maitasun-historiarena hedatuz. Historia hau, berriz, "berbaldiz beteko da" ohizkotasunaren kaltetan.

"Aterpen", "Jardun-etxeak"... ohizkotasunari eskainitako diskurtsua osatuz joango dira eleberrian barrena. Eta arrazoi batengatik edo bestegatik itsasoratzerik ez daukatenen lana eta lan egiteko modua deskribatuko dute edo emakumeen etxeetako berriketa azalduko; beti ere, ohizko "ilustrazioekin". Baina "Arrain-saltzaileak"

(27) "—Mutillak —esaten daue, piperra baño gorriago ta buruko ule guztiak tente dituela elizatik urtetean,— axe da eztarria, eztul bat be eztau egin" (**Kresala**, 50. or.).

(28) "Los indicios tienen, pues, siempre significados implícitos (...). Los indicios implican una actividad de desciframiento: se trata para el lector de aprender a conocer un carácter, una atmósfera". BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 22. or.

kapituluaren ondoren, izugarrizko abiada hartuko du maitasun-historiaren garapenak, diskurtsuaren hedapenean ohizkotasunari gailenduz.

Ohizkotasunaren berbaldi honek osatuko du **Kresala**ko hondoko historia, hasierako puntura itzultzen den mugimendua eratuz. Mugimendu borobila. Berriro ere negua dator, eta Garizuma; ez diskurtsuan, baina bai historia inplizituan. Eta arranondotarrak antxoetara eta txarteletara joango dira. Gero abuztua dator, eta jaiak..., aurrerapenik gabeko historia borobilduz.

Higitzen ez den historia honen subjetuak multzo handi bateko partaideak dira. Eta partaidetza horretatik, integrazio horretatik, testuratzen dira. Baina ez gizabanako bezala. Batzutan izen propioa izango dute, bai, baina askotan, Arranondon guztiz arrunta den gaitzizena: Mangoliño, Lapikotxu, Gatzbako... Eta gehienetan izen propiorik gabe emango zaizkigu aditzera, "arranondotar" multzoaren barnean.

1.1.1.1. *Protagonismo kolektiboa*

Arranondotar hauek gizabanako moduan ez badira eszenaratzen ere, talde sozial bezala dauzkaten ezaugarriak gorpuztuz joango dira, kontalariak dioenarekin batera (29), aberastasun handiegirik gabe, gorpuztuz ere. Eta psikologikoki, soziologikoki eta funtzionalki, honako sei ezaugarri hauen arabera karakterizatuko da taldea: a) izena: gaitzizena; b) ogibidea: itsasoa; c) hizkuntza: euskara; d) izaera: zintzoa; e) jakintza: laburra eta f) sinismena: kristautasuna.

Arranondotarrak sei ezaugarri hauetara bilduko dira eta beraien arteko desberdintasunak horien inguruan bukatuko.

Ezaugarri horiek, berriz, oposizioz sortzen dira testuan, sintagma mailan sortu ere, aurkako ezaugarriak dituzten "bedar txarrei" kontrajarriz eta taldearen izena bera adjetibazioz maskara (30) bi-

(29) "Los hombres de tales novelas (los de personaje colectivo) contaban más que como individuos, como porciones de esos grandes conjuntos en que se integraban y que adquirían, novelescamente, la configuración de algo vivo y poderoso". BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**, 123. or.

(30) "El procedimiento de la máscara, es decir, la elaboración de motivos concretos que corresponden a la psicología del personaje, es un caso particular de caracterización indirecta". TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 222. or.

hurtuz. Posizioa eta oposizioa, protagonismoa eta antagonismoa eratzean, aipatutako ezaugarriak dira oposizio-gune, "bedar txar" hauek beste muturrean ditugularik: a) izena: izen arrunta; b) ogibidea: ez-itsasoa (zuzenean); c) hizkuntza: ez-euskara (gaztelera); d) izaera: ez-zintzoak; e) jakintza: ustez jakintsuak eta f) sinismena: ez-elizkoiak.

Bedar txarrak egiten dutenagatik baino gehiago esaten dutenagatik kontrajarriko zaizkio beste taldeari. "Ihardule" baino gehiago "esale" dira.

a) Izena: gaitzizena / izen arrunta

Arranondon gaitzizena izenari gailentzen zaio. Kontalariak legetzat ematen du: "Ezizen geiegi ipinten dotala uste badau irakurleak, jakin daiala lenengotik, Arranondon eztagoala ezizenik eztaukan etxadi bat bakarra" (**Kresala**, 31. or.).

Lege orokor horren arabera, gaitzizenak nagusi dira izen gutxi batzuren ondoan: Esnepel, Kaiua, Ardauzuri... izango dira arranondotarrek sortutako metaforak. Gaitzizen hauen sorreran ez da nabari kontalariaren eskua, nahiz eta berak sortuak izan; gaitzizen hauen erreferentea erabat integraturik bait dago Arranondoko eguneroko bizitzan. Bai gaitzizenak, bai kontaketa osoan zehar agertzen diren hainbat eta hainbat baliabide erretorikok —sarritan erabiltzen diren onomatopeiak, konparazioak eta metaforak (31)— eguneroko bizitza dute sorburu: itsasoa, atseden-orduetako ardandegia, sukaldea...; eta arranondotarren ingurugiroaren oihartzun bilakatzen dira baliabide horiekin lortutako emaitzak. Gaitzizen hauen erabileran eta testuan barrena agertzen diren hainbat eta hainbat baliabide erretorikotan osoa da pertsonaien eta kontalariaren arteko sintonia. Kontalaria hain hurbil dago pertsonaien ezaugarrietatik, bereak ez direnaren ilusioa sortzen du irakurlearengan, hitzaurrean dioenari jarraiki:

> "Bertan agertuko diran gizon da emakumeak eztira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ezpanago ta amesetan ezpanabil, bizi-

(31) **Muuu!** (**Kresala**, 147. or.).
"baña itxasoaren aserre orduetan, urazpian ezkutaurik edo alderdi guztietatik bitsa darioela egoten dira arkaitz danak, esnetan egosten dagozan arto zati lodien antzera" (**Kresala**, 150. or.).
"**Aitak.**— Bai, amak amoan ipinten daben jakiagaz bakarrik ezta jausiko: masia bearko da or, masia" (**Kresala**, 167. or.).

-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserritan ikusi daikez" (32).

Gaitzizen hauek arranondotarrek asmatutakoak dirudite eta ez D. Agirrek arranondotarrei buruz ari dela sortuak (33).

Gaitzizenak erreferentearekin duen lotura oso gutxitan ezagun daiteke. Honen sustraia kontalariak kontaketarekiko duen jokabidean bilatu behar da. Arranondotarren multzo horretan gutxi batzu helduko dira izen edo gaitzizenen baten jabe izatera berbaldian; eta heltzen direnean ere, hirugarren pertsona bezala egingo dute gehienetan (34).Ardauzuri, Gatzbako, Moldakatx, Artobero, Kaiua... arrantzaleen ahotan bakarrik daude presente narrazioan. Elkarrizketetako partaideen mintzagai soil dira. Ausente daude pertsona bezala. Aipatutako pertsonaia guzti horietatik Artobero bakarrik eszenaratuko da lehen edo bigarren pertsona bezala (35), Joseparekin, kontalariarekin... dituen elkarrizketetan. Gainontzekoak ez dira eszenaratuko. Eta kontalariak ere ez du horiei buruzko berri gehiagorik emango. Arranondotarren multzoan difuminatuko dira, gaitzizena bakarrik utziz kontaketatik izen batekin igarotze honen arrasto bezala. Etorkizun bera izango dute "lengo bidetik" hasi ondoren berbaldira datozen izen propiorik gabeko haurren ezizenek: Pipertsuk, Moskorrondorenak...

Zenbaitetan, hala ere, nabari daiteke gaitzizenaren eta erreferen-

---

(32) AGIRRE, D.; "**Kresala**. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1976, 5. argitalpena, 11-12. orr.

(33) Oraingoz uzten dugun gai bati dagokio hizkuntzak eskaintzen zituen baliabideen azterketa: zein-nolako baliabideak eskaintzen zituen une hauetan prosa narratibora jaiotzen zen hizkuntza honek eta zenbaterainoko ahalmena erakusten zuen beste era batetako errekurtsoak erabiltzeko. Jakina da eskolatik at gelditzen zela euskara ordurarte egindako ibilbidean, eta bere hedapena baserri eta itsaserrietan komunikazio-tresna izatera mugatzen.

(34) E. Benveniste gramatiko arabiarren definizioetatik abiatuko da: "Para ellos, la primera persona es **al-mutakallimu**, 'el que habla'; la segunda **al-muhatabu**, 'al que se dirige uno'; pero la tercera es **al-ya'ibu**, 'el que está ausente'". BENVENISTE, E.; **Problemas de lingüística general**, I, Siglo Veintiuno editores, México, 1980, 9. argitalpena, 163. or. Abiapuntu hau baieztera helduko da hirugarren pertsonari buruz, aipatu liburuko 164. orrialdean "se trata en efecto del 'ausente' de los gramáticos árabes" dioenean.

(35) "Se podría pues definir el 'tú' como la **persona no subjetiva**, frente a la **persona subjetiva** que 'yo' representa; y estas dos 'personas' se opondrán juntas a la forma de 'no persona' (=él)". **Ibidem**, 168. or.

tearen arteko lotura arranondotar hauetarikoren batek presentzia narratibo handiagoa duenean, edo kontalariaren deskripzioari edo pertsonaiaren esanari esker. Adibidez, kontalariaren hitzetan "atso gerri lodi, gonamotz, esku zikindun" (36) da Prantziska eta Brixenetan, berriz, "atso popandia" (37); hortik bide erraza dago Tramana ezizenera, deskripzio fisikoak tramanarekin duen antzean oinarrituz. Berdin, Artoberorenean, arranondotarrek jarri dioten gaitzizenari ohore eginez, izen propioa gaitzizenarekin nahasten duenean: "—Orixe be bada ipuña (sic), —esan eieban orduan Artoberok— Saguzarrari Don Julian asmau eideutsie" (**Kresala**, 33. or.). Kontalariak "etzan bera ain argia ta gauzak ikasten erreztasun andikoa" (**Kresala**, 43. or.) dionean berari buruz ez du aurreko esaldi horretan atera zitekeen ondorioa baieztatu besterik egingo.

Itxura fisikoan edo burumuinen trebetasunean edo beste edozein ezaugarritan oinarrituz, gaitzizen hauek arranondotarrek sortutako metafora plastikoak bihurtzen dira. Eta eguneroko bizitzan oso ezagunak dituzten kontzeptu, tresna, arrain eta abarrekin duten antzaren zordun dira "izen" horiek.

Mangoliñok, Lapikotxuk, Mielgak behin bakarrik daukate presentzia narratiboa banakotasun bezala: ardandegiko elkarrizketan. Orduan bakarrik eszenaratzen dira. Hala ere, eszena modeliko honek ez ditu banakotasun bezala karakterizatuko. Hau atseden-orduetako elkarrizketa-eredu bihurtuko da, berriro eszenaratuko ez den leku batean egoteko modu, nahiz eta kontaketan aipatuko den. Elkarrizketa honek "arranondotar arrantzalea" karakterizatzeko balio du eta eszenaratu aurretik kontalariak esan duena "ilustratzeko":

> "Gure arrantzaleak, arpegi baltzeko gizonak, esku gogor da izketa zakarrekoak izanarren, guztiz biotz samurrekoak dira" (**Kresala**, 23. or.).

Hala frogatzen du porturatu ez den Sandinzarren txaluparen paraderoak ardandegian sortutako kezkak. Hura bihurtzen da hizketa-gai. Eta banakotasun bezala aurreko hiru horiek ez dute elkarrizketan aipatzen diren Ardauzurik, Gatzbakok, Kaiuak baino arrasto handiagorik utziko kontaketan.

---

(36) **Kresala**, 16. or.

(37) **Kresala**, 74. or.

Peru eta Mikolen "Aterpeko" elkarrizketak ere ardandegikoak daukan joskera, funtzio eta esanahi berdina du. Kontalariaren sarrera baten ondoren dator. Sarrera hitz hauetan laburbiltzen du:

> "Gizon bakotxak bere arrotasuna dau, etxadi ta erri bakotxak berea. **Ni** esaten da aldan guztian, ni ezin danean **geu**, Arranondo ezin danean **Bizkaia**" (**Kresala**, 86. or.).

Peru eta Mikolen elkarrizketak "ilustratuko" du kontalariaren esana, "arrotasuntxoa" ez ezik, jakituri maila ere agerian utziz. Eta "Aterpeko" elkarrizketako espazioa ere ez da berriro eszenaratuko. Eta ardandegia atseden-orduen igarotze-moduaren adierazgarri bezala, beste hau arrazoi batengatik edo bestegatik itsasoratzerik ez daukaten arrantzaleen lanaren azalpen da. Peru eta Mikolen indibidualitatea karakterizatzera baino gehiago dator "arranondotar arrantzaleen" karakterizazioa beste ekarri berri batez aberastera.

Peru, Mangoliño, Mikol, Lapikotxu... Berdin da izen propioaren nahiz gaitzizenaren jabe izan. Izen horren jabe izateak bakarrik bereziko ditu beste arranondotarrengandik; karakterizazio minimo honek bakanduko (38). Gainontzean kolektibitate horren partaide oso dira. Kolektibitate horrek dituen ezaugarri berberak dituzte. Kontalariaren esanak eta esan hauei ezer gutxi eransten dieten elkarrizketak itxuratzen doazen taldekide huts dira.

Tramanak eta Brixek "astodunak" "ilustratuko" dituzte. Arrain-saltzaileen arteko "txalopa jaubien emazteak, emakume ixil da onak geienetan" (39) kontalariaren esan honetara murriztuko dira soilik, "ilustratu" gabe geldituko dira narrazioan. Ez, ordea, "alogerekoak". Lehenengoetan Tramana eta Brix eszenaratuko dira "lotsagabeenak" eredutzat harturik; bigarrenengoetan, berriz, izenik nahiz gaitzizenik gabekoak.

Batzu —Tramana eta Brix— eta besteak —"astodun alogerekoak"— ezaugarri batzutan maila handiagoa edo txikiagoa izateak besterik ez ditu bereiztuko. Tramanak eta Brixek izango dituzte ezaugarri horiek maila handienean, eta berauek eszenaratuko ditu kontalariak hautaketa jakin bat eginez, pertsonaia-tipoa eszenaratzera-

---

(38) TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 222. or.

(39) **Kresala**, 71. or.

ko: ezaugarriak bortizkien agertzen dituztenak eszenaratu besteen galeran. "Alogerekoak" "ain laster Arrateko, Iziarko, Gardotzako edo Antiguako Amari arrenez, ain laster alkarregaz agiriketan (sic) da batak besteari zitalkeriak esaten" (40) ibiltzen ziren, baina Tramana eta Brix nagusitzen zaizkie alor guztietan: "Eurak ziran emakume agirakari guztien buru ta nagusi; agiraka egitea zan euren poza; nasan batuten zireanen artean gogorrenak eta gaiztoenak izatea euren arrotasuna" (41). Baita bihotz ona agertu behar denean (42) edo otoitzean ere, Tramanak erakutsiko duenez (43).

Tramana eta Brix arrain-saltzaile tipo (44) horren ilustrazioa besterik ez dira izango. Tipo hori azaltzeko, berriz, kontalariak errepresentatibotzat hartu ditu, gainontzeko arrain-saltzaileek baino ageriago uzten zituztelako ogibide honen inguruan biltzen diren emakumeen ezaugarriak. Garbi dago Tramana eta Brix hautatzeko kontalariak duen arrazoia: mutur bateko ezaugarriak deskribatuz gero, tipoa garbiago zehazten da, eta are garbiago, bere oposizioan beste norbait balego erdibide orok izan dezakeen anbiguotasun eta konplexutasunetatik urruti.

Tramana eta Brix, Mangoliño eta Lapikotxu, Peru eta Mikol lehen eta bigarren pertsonan eszenaratzen dira, baina izena besterik ez dute banakotasun moduan karakterizatzeko. Entitate txikikoak dira. Arranondoko jaietan Meza Nagusiaren ondoren elkarrizketa tipiko bat duten arrantzaleak bezalakoak dira edo Arranondo inguruko edozein herritako edozein arrain-saltzaile bezalakoak. Kontalaria indukzioz heldu da arranondotar tipoaren ezaugarrietara. Eta Tramana edo Mangoliño karakterizatu ordez, multzo osoa karakterizatzen du, bere esakunearen subjetua hirugarren pertsona bihurtuz. Eta hirugarren pertsonaren (45) bidez taldea karakterizatzen du. Kontala-

(40) **Kresala**, 75. or.

(41) **Kresala**, 72. or.

(42) Ikus **Kresala**, XXI. kapitulua.

(43) Ikus **Kresala**, XVII. kapitulua.

(44) G. Lukács-ek, literatur ikuspegi errealistari buruz diharduela, honela mugatzen du pertsonaia-tipoa: "la particular síntesis que, tanto en el campo de los caracteres como en el de las situaciones, une orgánicamente lo genérico y lo individual". LUKACS, G.; "Introducción" in **Ensayos sobre el realismo**, Ediciones Siglo Veinte, Buenos Aires, 1965, 13. or.

(45) "La distinción ordinaria de singular y plural debe ser, si no reemplazada, sí cuan-

riak arrain-saltzaileei edo arrantzaleei buruz esandakoa baieztatuko dute eszenek. Eta Tramanak edo Mangoliñok ere, nahiz eta lehen edo bigarren pertsonan eszenaratu, ez dute kontalariak erabili duen hirugarren pertsona horri buruzko berbaldia baieztatu besterik egingo.

"Bedar txarrak" deituriko taldea talde mugatua da. Itsasoetan luzaro ibilitako "ontziagintari zarra"-k bataiatzen ditu izen honekin. Talde horretako partaideek ez dute ez izen propiorik, ezta Arranondon hain ohizkoa den gaitzizenik ere. Bat "iskillos" edo "armaduna" da, Arranondon dauden armadunen burua, kontrabandoa galeraztea eginkizun duena; beste bat, Bilbotik Arranondora noizean behin etortzen den oihal-saltzailea; hirugarrena, kontserba-lantegiko jabea; eta, azkenik, laugarrena, Ameriketan aberastutako Indianoa.

Arranondotarrak/Bedar txarrak aurkakotasuna ez da talde-deiturarekin amaitzen, eta ezaugarri batzu ditu oinarri: gaitzizenik ere ez du arranondotarrei aplikatzen zaien lege orokorretik at gelditutako taldeak. Gaitzizena izateak/ez izateak funtzionalitatea hartzen du bigarren talde honetakoek ez duten heinean eta ezaugarri-iturri bilakatzen da.

Talde honetako bat bakarrik aterako da deskribatutako egoeratik: Indianoa. Indianoa Egurbideko Jose Antonio bihurtuko da maitasun-historia singularrean protagonismoa hartu, pertsonaia kolektibotik pertsonaia indibidualerako bidea egin eta ohizko "bedar txarren" bizitza uzten duenean, bere abentura pertsonalean murgiltzeko, zoriona amets eta Mañasirekin ezkontzea helburu. Paraleloki, jadanik, egina du Mañasik ere pertsonaia kolektibotik indibidualerako bidea ohizko arranondotarren bizitza utzi bait du bere historia partikularra garatzeko: Anjelekin ezkontzea du abentura pertsonal horren helburu.

Azken finean, Mañasi eta Indianoa arranondotarren eta "bedar txarren" ordezkariak besterik ez dira izango abentura singular horretan. Batak eta besteak bi kolektibo horien ezaugarriak eramango dituzte historia singular horretara eta tinko mantendu historia osoan. Honek itoko du denbora singular batean garatzen den maitasun-his-

---

do menos interpretada, en el orden de la persona, por una distinción entre **persona estricta** (='singular') y persona amplificada (='plural'). Unicamente la 'tercera persona', por ser no-persona, admite un verdadero plural". BENVENISTE, E.; **Problemas de lingüística general**, I, 171. or.

toriako pertsonaien banakotasuna. Baina aurrerago itzuliko gara puntu honetara, maitasun-historia hori aztertzerakoan. Hemen Indianotik Egurbideko Jose Antoniorenganako iraganbidearen sustraiak argitzea besterik ez genuen nahi.

Gaitzizenik ez izatean hasten den aurkakotasuna hedatuz joango da beste alorretara. Bizi diren lekuak —Arranondok— bakarrik lotzen ditu bi taldeak, baina zentzu fisikoan soilik; izan ere, arranondotar jatorri-izena eramateko eskubidea ere kendu egiten bait zaie, "bedar txar" deitura dela bitarteko. Elkarrekin ukipenik ez duten bi mundu eratuko dituzte Arranondon. Eta "ontziagintari zarrak" emango die arranondotarren bizitza-modu, aspirazio eta abarren berri. Hark beteko du arranondotarren eta "bedar txar" hauen artean funtzio fatikoa (46), nahiz eta porrot egingo duen eginkizun honetan. Arranondotarrak/"Bedar txarrak" ezin elkarrizketakide izan. Bi mintzaira dira, bi bizimodu, bi mundu-ikuskera... Ezin elkar ulertu.

b) Ogibidea: itsasoa / ez-itsasoa (zuzenean)

> "Baña arrantzaleak badakie, an, itxasoaren barruan dagoala euren da etxeko guztien janaria, ta jan bearrak saiatu eragiten deutsie ikusi barik siñistuko ezlitzatekean ausardi, neke ta arriskoagaz" (47).
>
> "Arrantzaleak baserritarrak baño estutxoago bizi izan oi dira ta eztabie ain ugari gauzea etxera eruaten; bada, diru-aldi dabenean be, ogi-zorrak kitutu (sic) ta praka-jaka mengel batzuk egin ezkero, ezjakoe gauza andirik zizkoetan geldituten" (48).

Behin eta berriz azalduko dira eleberrian arranondotarren ogibidea eta honek utzitako irabaziak. Irabaziak baino gehiago lotzen ditu ogibideak, gizakumeak itsasoan eta emakumeak lehorrean arrainaren inguruan. Arrantzale guztiak itsasoratzen dira eta guztiek jasaten dute arrantzaren lana eta nekea, baina irabaziak ez dira berdinak; ezta erantzunkizuna ere. Hala ere, behin bakarrik aipatzen da gai hau kontaketan. Gainontzean batasunaren eredu da arrantzaleen taldea, itsasotik bizi den klase soziala. Mañasik egiten du bereizketa elebe-

---

(46) Igorleak hartzaileari mezua igorri ahal izateko beharrezkoa da bien arteko ukipena, eta honek determinatzen du funtzio fatikoa. Ikus JAKOBSON, R.; "Lingüística y poética" in **Ensayos de lingüística general**, 352. or. eta hurrengoak.

(47) **Kresala**, 65. or.

(48) **Kresala**, 48. or.

rriaren hasieran, bere bihotzeko bezala agertu zaion Anjelen familia aipatzerakoan: "Txalopa jabeak dituzu ta... Guk barriz potintxu bat baño besterik eztaukagu" (49). Halaxe diotsa lagun duen Josepari, beste maila batean maitasun-historia folletinesko baterako osagai polita jarriz.

Eleberriaren bukaeran Artoberok egingo du estratifikazioa arrantzale-kategoriaren barnean, bere une horietako lanaren berri kontalariari ematean: "Ara, jauna, ni txalopako **patroia** naz, da nik darabiltan potiña Anjelena da. Berak beste bat darabil" (50).

Bi une horietan bakarrik "bereiztuko" dira arrantzaleak pertsonaien ahotan; baina ez kontalariarenean. Kontalariak "emakumeak" bereiztuko ditu, hiru sail eginez: arrain-saltzaileak, "txalopa jaubien emazteak" eta "astodunak"; eta hauen artean, berriz, "asto jaubeak" eta "alogerekoak". Dena dela, arrantzaleak itsasoan lan egiteak bezala bilduko ditu batera emakumeen hiru kategoria horiek ere arraina saltzen lan egiteak. Eta estratifikazio soziala ez da gatazka-iturri bihurtuko.

"Txalopa jaube", "potin jaube", "astodun" nahiz "alogerakoak" izan, arranondotarrak ez dabiltza urretan igeri. Estu bizi dira denak; batzu gehixeago, beste batzu gutxixeago. Eta gehixeago-gutxixeago horretara mugatzen da elkarren arteko desberdintasuna.

Bizimodu estuaren oihartzun gisa garatuko da maitasun-historia. Mañasiren gurasoek txirotasunetik irtetea dute jomuga alabaren ezkontza erabakitzean, "Jardun-etxeak" salatuko duten bezala. "Txalopa-jaubien emaztea" izanik, Sardinzarren emazteak ere gogoan izango du faktore hori bere seme Anjelentzat andregaia hautatzean.

Nolanahi ere, desberdintasun hauek ez dira gatazka-iturri bihurtuko arranondotarren historian. Itsasoa ogibide izateak biltzen ditu arranondotarrak desberdintasun hauen gainetik.

"Bedar txarrak", aldiz, ez dira itsasoko lanetik bizi; ezta diru-urritasunean ere. Kontalariaren hitzetan, "Arranondon lanik gitxien eukienak" (**Kresala**, 100. or.) ziren. Eta beranduxeago, kontalariaren hitzen oihartzuna jasoz, "zuek añako bizibide onik eztaroa iñok Arranondon" (**Kresala**, 155. or.) esango die "Ontziagintari zarrak".

---

(49) **Kresala**, 27. or.

(50) **Kresala**, 231. or.

Ezezaguna zaie "bedar txar" hauei itsasoa, arranondotarren eguneroko leloa eta kezka. "Atxetara" doazen egunean "Ontziagintari zarra" izango dute gidari eta oso nabarmen azalduko da beren arrantzarako trebetasun-falta. "Ontziagintari zarrak" bakarrik gaindituko du froga, gainontzekoak irrigarri utziz. Izan ere, bera da arranondotarren eta "bedar txarren" arteko zubia; bera, eleberriaren hasieran, portuan "ekatxarekin" txalupen zain zegoena, "arrantzale familiarekin" batera. Indianoa, armaduna... ez zeuden han larrialdi hartan; "Ontziagintari zarra" bai. Hau itsasoan lan egindakoa da eta ezagutzen du arrantzaleen bizitza gogorra. Berak ematen die "bedar txarrei" bizitza horren berri.

"Bedar txarren" taldea Arranondon bizi eta arranondotarren bizitza latza (itsasoan, arrantzan eta lehorrean txanponak zaintzen) ezagutzen ez dutenen taldea da. Hauek ez dira eleberriaren muina izango, tituluak (51) berak —**Kresala**— iradokitzen duenez. Baina egon daiteke zalantzarik berbaldian daukaten presentzia eta presentzi moduagatik. Horrexegatik arriskua uxatu nahiko du kontalariak eleberriaren bukaeran. Eta zalantza-izpirik gera ez dadin, bere ahotsa ekarriko du kontaketara, anbiguotasun posiblea hautsiz.

> "Kantauriko umant apalak! Uskeri baten euki daroezu, batzuetan, zuen arrotasuntxoa, ta egitadarik andienak eztituzue aintzakotzat artzen (...).
>
> Jaungoikoagaz batera jaso nai zeunsket nik neure aldetik, eta ara emen orretarako geienbat egin dotan KRESALA.
>
> KRESALA zuek jasoteko, zuek ezagutuagoak, errukituagoak eta maitetuagoak izan zaitezen sortutako liburutxoa da" (**Kresala**, 224. or.).

Tituluan hasita, uneoro kontaketaren bidez iradoki, esan, azpimarratu eta errepikatu duena baieztatuko du azken perpaus hauetan, "Kantauriko umantei" **Kresala**ko protagonismoa esplizituki aitortuz. "Bedar txarrekiko" antagonismoa protagonista hauen ezaugarriak eraikiz joango da kontrastez.

c) Jakintza: laburra / ez-laburra.

---

(51) "Al escoger el título, el autor sugiere dónde pone el acento, en quién o en qué se centra el interés, facilitando así una primera clave" dio R. Gullonek. GULLON, R.; **Psicologías del autor y lógicas del personaje**, 154. or.

"Jakituri laburrekotzat" joko ditu kontalariak arranondotarrak, eta eszenaratzen diren une gutxi horietan nabarmen utziko dute laburtasun hori. Itsas-langintzara eta Elizaren erakutsien ezagutzara mugatzen da jakituria hori.

"Ontziagintari zarrak" baieztatuko du egoera hau, Arranondon bizi den beste talde sozial bat aipatuz: apaizak. Apaizak gelditzen dira egoera orokor horretatik at, eszenara gabe, berbaldian presente dagoen taldea osatuz. Hauek arranondotarren oniritzia eta konfidantza izango dute; ez, ordea, "Bedar txarrena".

"Ontziagintari zarraren" hitzek —"zeñek daki eurak baño geiago Arranondo lango erritxuetan?" (**Kresala**, 105. or.)— agerian uzten dute alor honetako maisutza nork duen Arranondon. Bestalde, arranondotarrek eurek ere aitortzen dute maisutza; ez dago ikusi besterik arranondotar batek agertzen duen lilura, herriko jaietan etorri den sermoigilearen sermoia entzun ondoren:

> "—Eztauka jakituria makala, areik gauza guztiak buruan gordeteko" (**Kresala**, 50. or.).

Nolanahi ere, Arranondoko pertsonaia-tipoak (haur, arrantzale, arrain-saltzaile, "Bedar-txar") eszenara dakartzan kontalariak ez ditu apaizak ekarriko; hauei buruzko iritzirik ere ez du emango. Nahiz eta arranondotarren bizitza bideratzen duten pertsonaia erabakiorrak izan, apaizak ez dira eszenaratuko arranondotarrekiko harremanetan. Fikzioan daude, ekaitz-eguneko otoitzetan, Garizuman, hiletetan... Partaide dira arranondotarren bizitzan, baina ez da beraien ahotsik entzuten, otoitzetan, esaterako, ez bada. Esan daiteke presentziarik handiena duten ausenteak direla. Sortzen duten itzalak salatzen du presentzia hori.

Arranondotarren eszenaratze desberdinek adieraziko dute jakituri urritasuna. Zaharrenek, Peru eta Kitolis bezalakoek, itsasoa izan dute eskola bakarra, haurtzarotik lanera igaro direlarik zuzenean. Gazteagoek, Mañasi edo Josepa bezalakoek, idazten eta irakurtzen ikasi dute herriko ikastetxean. Eleberrian agertzen den haur-taldea eskolara doa. Zaharrenetatik gazteagoeneko bide honetan eskolarizazio-maila handiago baten zantzuak soma daitezke.

Mikolek aditzera ematen duen geografi ezaguera, "aren gisako itxasgizonei" hedatuko die kontalariak. Hauteskunde-garaiko "lazka-matazak", hautagai baten alde edo kontra ematen diren argumentuekin,

jakituria urriaren neurri dira. Horrela azalduz joango da eleberrian arranondotarren jakituri eskasia.

Jakituri urritasun hau isladatuko dute arranondotarren elkarrizketetako gaiek eta gaitzizenek, batzu eta besteak egunero ikusten eta bizitzen denari erabat atxikiak: etxeko bizitza nahiz itsasokoa. Daramaten bizitzari, ukitzen eta hunkitzen dituen errealitateari lotuta egongo dira beti elkarrizketetako gaiak edo gaitzizenak, inoiz hortik irten gabe.

"Ontziagintari zarrak" "gizon argi jakintsuok" adierazpena erabiliko du "Bedar txarrei" zuzentzean, ironiak (52) sortzen duen distantziamendua (53) bilatuz. Izan ere, ironiaren balioa bakarrik eman dakioke adierazpen horri, "Bedar txarrekin" izan duen bataila dialektikoan garaile atera eta hauek irrigarri utzi ondoren erabiltzen bait du. Garaipen eta espresioaren arteko lotura areagotzeko grafiara joko du, ironiaren efektua kurtsibaz azpimarratuz.

Elkarrizketa bera ere "Bedar txarrak" irrigarri uzteko moduan antolatuta dago; "Ontziagintari zarrak" bakarrik argumentatzen du, gainontzekoena gutxietsiz.

"Iskillosdunak" ez du inoiz argumentatuko bere esana. "Gaztelarrez bakarrik itz egin bear da Españian da beste izkera danak osoro ta betiko kendu" (**Kresala**, 101. or.) dio, baiezpen hau egiteko zertan oinarritzen den aditzera eman gabe.

---

(52) "La ironía consiste en la sustitución de la expresión propia por la contraria y ello tanto a nivel de tropo de dicción como de pensamiento. Se dice precisamente lo contrario de lo que se piensa, pero de tal forma que el oyente o lector pueda reconocer a partir del contexto la verdadera intención del hablante. Como el peligro del malentendido es mayor, el autor procura indicar señales contextuales para el reconocimiento de la ironía". SPANG, K.; **Fundamentos de retórica**, Ediciones Universidad de Navarra, S.A. (Eunsa), Pamplona, 1979, 229. or.

(53) J. Lozanok, C. Peña-Marín-ek eta G. Abril-ek "Las figuras de la distancia enunciativa" izenburupean aztertuko dituzte ironia, burla eta parodia. Landowsky abiapuntutzat hartuta zehazten dute distantziamendu ironikoa: "El fenómeno de la distancia irónica podría formularse como la pretensión de que el destinatario atribuya al enunciador una no adhesión a su comportamiento lingüístico (Landowsky, 1981)". LOZANO, J.; PEÑA MARIN, C.; ABRIL, G.; **Análisis del discurso. Hacia una semiótica de la interacción textual**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982, 159-160. orr.

"Ontziagintari zarraren" erantzuna luzea izango da. Historian eta giza komunitate desberdinekiko errespetuan oinarrituko du kontrako jarrera. Hitz batean, argumentatuz osatuko du bere erantzuna, "Iskillosdunak" ez bezala.

"Iskillosdunaren" hitzak modu batera edo bestera koru gisa onartuko dituzte gainontzeko "Bedar txarrek"; baina beti gainean edukiko dute "Ontziagintari zarra", entzuten ez duten ikasle batzuri zuzentzen zaien irakasle bezala. Hauen bi lerrotako esanari zortzirekin erantzungo die, esanaren luzerari esaten denaren pisu handiagoa gaineratuz. Euskara nahiz Eliza nahiz euskaldunen ohiturei buruz "Bedar txarrek" duten baino ezagutza zabalagoa erakutsiko du "Ontziagintari zarrak", arranondotarren ezagueren barnean sartzen den Berrio-Otxoari buruzko xehetasunak emanez eta arranondotarren ezagueratik at gelditzen den beraien bizitza-moduaren oinarriak azalduz. Arranondotarrak euskaraz mintzatzen dira, elizkoiak dira eta gurasoengandik jasotako ohiturak gordetzen dituzte; Garizuman txartel bila joaten dira eta gertaera bati buruz bertsoak sortzen dituzte. Baina aurrekoengandik jasotakoa birproduzitu besterik ez dute egiten: ez diote galdetzen euren buruari zergatik euskaraz mintzatzen diren edo zergatik Garizuman txartel bila joaten diren. Arranondotarrek ez daukate galderarik, ez dute hartutako altxorra zalantzan jartzen. Gurasoen bizitza-modua birproduzitzen dute. "Ontziagintari zarrak" esplizitatuko ditu balore inplizitu horiek. Berak azalduko ditu jakituria urri eta egunero bizi beharraren gorabeherekin nahiko lan daukaten arranondotarren bizitza-moduaren sustraiak. "Bedar txarrekin" dauzkan harremanetan, berak aditzera emango du zein den eta zertan oinarritzen den arranondotar hauen mundu-ikuskera (54); berak arrazoituriko eta kontzeptualizaturiko mundu-ikus-

(54) L. Goldmann-ek kontzientzia ideologikoa eta mundu-ikuskera bereziko ditu. Kontzientzia ideologikoa zedarritu ondoren, honela mugatuko du mundu-ikuskera: "Por otra parte, los grupos sociales privilegiados, cuya conciencia, afectividad y comportamiento se orientan a una reorganización global de todas las relaciones humanas y entre el hombre y la naturaleza o bien hacia una conservación global de la estructura social existente. Esta visión total de las relaciones humanas y entre los hombres y el universo implica en este tipo de conciencia colectiva la posibilidad, y muchas veces la presencia efectiva, de un ideal del hombre y esto nos lleva a diferenciarlo del tipo de conciencia colectiva que hemos llamado ideológica, designándola con el término de **visión del mundo**.

Debemos añadir que muchas veces, en este último tipo de conciencia colectiva, junto a los intereses materiales que siguen desempeñando un papel importan-

kera hori (55).

"Itxasoetan luzaro ibilliriko ontziagintari azkor, zintzo, ta bizi" honek **Garoako** beste pertsonaia baten antz handia du, bai bere karakterizazioari dagokionez, bai kontaketan bete ditzakeen funtzio batzuri dagokionez. Honela deskribatzen du kontalariak "Ontziagintari zarra":

> "Gure Itxasgizona bekoki baltz samarrekoa zan, itz latzekoa batzuetan, biotzean eukan guztia erraz kanpora botaten ekian gizona, edozeñi egia andiak esaten eutsazana, bear zanean; baña oso arima leñargi ta onekoa. Aserre zalea izan ezarren, Euskal-erriari edo Elizeari ikuturen bat iñok egin ezkero, aserretik urriñean etzan ibilten.
>
> Lelo, zio edo gai orregaitik, au da, Elizeari ta Euskal erriari bakean ezin itxi eutsielako, Itxasgizonak askoetan emon eutsen min beragaz batuten zirean erbestetar edo erbesturiko batzuei; baña alan da guztiz be ezeben beragandik iges egiten, maite ebielako, edo dirutsua, Arranondon guztiz ondo ikusia ta eskubide andikoa zalako" (**Kresala**, 100. or.).

Garoako Patxiko, berriz, honela karakterizatzen du kontalariak eszenaratu aurretik:

---

te en su elaboración, los deseos de unidad y coherencia ocupan un lugar mucho más importante que en las estructuras colectivas de carácter ideológico". GOLDMANN, L.; "El estructuralismo genético en sociología de la Literatura" in **Literatura y sociedad. Problemas de metodología en sociología de la literatura**, Ediciones Martínez Roca, S.A., Barcelona, 1977, 210. or.

(55) "Ontziagintari zarrak" ez du ezer berririk asmatzen. Arranondotarrek egiten dutena kontzeptualizatzera mugatzen da. Horregatik badu halako kidetasun bat L. Goldmann-ek literatur obren sortzaileei buruz dioenarekin: "Así, pues, las categorías mentales no existen en el grupo más que en la forma de tendencias más o menos avanzadas hacia una coherencia que hemos llamado visión del mundo, visión que el grupo no crea, pero de la que elabora (y sólo él puede elaborar) los elementos constitutivos y la energía que hace posible su reunión. El escritor importante es precisamente el individuo excepcional que consigue crear en cierto campo, el de la obra literaria (o pictórica, o conceptual, o musical, etc.), un universo imaginario, coherente o casi rigurosamente coherente, cuya estructura corresponde a aquella hacia la que tiende el conjunto del grupo". GOLDMANN, L.; **Para una sociología de la novela**, 226-227. orr. "Ontziagitari zarrak" ez du L. Goldmann-ek aipatzen duen literatur obra hori sortzen, baina bai talde sozial batek landutako osagaiak esplizitatzen; ez irudimenezko mundu bat sortuz prosa narratiboaren bidez, baina bai bilduma bat eginez prosa diskurtsiboaren bidez. Honetan legoke apimarratzen genuen analogia.

"Nere umetako lagun bat zan Patxiko au, erri txiki bateko sendakiña, baño erri aundietakoak baizen argia; berritxu samarra, baño bene benetan jakintsua; edozeñen gaiztakeriak agertzen zituana, baño bakoitzari berea ematen oso zintzoa; euskalerritar itxutua, baño iñorentzat gorroto gabea; zerbait lotsagaldukoa, baño txit egizale purrukatua; mingain zoli garratzduna, baño biotz bigunaren jabe ona; beti erriertan jardun bear zuana, baño jolastzallerik andienetakoa; itxuretan norbaitzuen etsaia, baño egietan askoren maitalea; gizon bero, bizi, ozpindua, baño adiskide leial ziur ziurra" (**Garoa**, 90. or.).

Kontakètan bete dezaketen funtzioen arteko analogia honela laburtuko genuke: soziologikoki biak dira bere giroan prestijioko pertsonaiak: bata dirutsua eta eskubide handikoa, eta bestea sendakin jakintsua.

Bata "eskubide andikoa" bada Arranondon, besteak hori bera erakutsiko du oñatiarren artean: Juan Andresek "Don Prantzisko" deituko dio, eta Oñatiko zalduntxoek denak erasotzen bazituzten ere, "Patxikori onian artzen zizkaten ozpinkeri guztiak eta etzioten min emateko gauza bat egundaño esaten, arpegiz arpegi" (**Garoa**, 147. or.).

Biak dira Euskal Herriaren defendatzaile: batak arrantzaleak eta hauen ohiturak defendatuko ditu, besteak baserritarrak eta hauen ohiturak. Nahiz batak defendatzen dituen baserritarrak, nahiz besteak defendatzen dituen arrantzaleak euskaldunen funtsaren adierazpide izango dira.

Aldiz, ez dute oso gogoko izango "erbestetarren" izaera, eta eleberrietan agertzen diren "erbestetarren" aurka ahaleginduko dira hitzez: bata "Bedar txarrekin", bestea Juan Andresekin, Martinekin Eibarko mitinean...

Karakterizazio psikologikoan duten antzaz gain, nor bere nobelako protagonistek osatzen duten talde sozialetik urruntzen da, baina biek defendatuko dituzte protagonista horiek. **Kresala**n nahiz **Garoa**n daukaten aurkezpen-lekua ere antzekoa izango da: bata portuan, ekaitz-egunean txalupak noiz porturatuko zain, arrantzaleak dauden tokian; bestea, berriz, "Azoka ta deman", baserritarrak dauden tokian. Aurkezpen-lekuaz gain, presentazio-moduak ere lotzen ditu: **Garoa** eta **Kresala**ko kontalariak, kontaketarekiko sarritan hartzen duen jokabideari jarraiki, lehenbizi "Ontziagintari zarra" eta

Patxiko deskribatuko ditu arestian azaldu den gisan, eta ondoren bakarrik eszenaratuko dira deskripzioa baieztatuko duten ekintza edo esanetan.

Berriro ere **Kresala**ra itzuliz, erants dezagun "Ontziagintari zarra" eta "Bedar txarrak" urruntzen direla, ez arranondotarrak, eguneroko bizitzaren inguruan ehotzen den elkarrizketatik. Haiek jotzen dute abstrazio-maila handiagoko gaietara, "ikasiagoak" dira; asti gehiago bait daukate. Eta nahiz eta ironia darabilen kontalariak XII. kapituluan "gizon argi jakintsuok" deitzean, hobeto ezagutzen dituzte, esate baterako, politika-alorreko gorabeherak arranondotarrek baino.

d) Sinismena: elizkoiak / ez-elizkoiak

Arrantzaleak "elizkoiak dira ta naikua ondo jakin oi daroe Kristiñauen ikasbidea, autortuten dabe ona dala ikasbide ori urtean bein itandutea, dana aztu eztakioen" (**Kresala**, 42. or.).

Arrantzale, nahiz arrain-saltzaile, nahiz haur, arranondotarrak kristau-sinismenean bizi dira. Ekaitz-egunetan otoitz egiten dute bitartekoen bidez —Antiguako Ama, San Pedro— edo zuzenean Jaungoikoari laguntza eskatuz, itsasoan olatuekin borrokan dabiltzanak itsaskia garaituta lehorrera daitezen edo bestela zeruko ateak ireki diezaizkien. Horrelako egoeretan arrantzaleek ere otoitz egingo dute itsasoan, giza ahaleginari otoitzarena batuz arriskutik irteteko edo, enbata bizirik garaitzerik ez badago, Jaungoikoaren adiskidetasunean hiltzeko. Nolanahi ere, arranondotarrak ez dira larrialdietan bakarrik oroitzen Jaungoikoaz; eguneroko bizitzan ere kristau-bizitzari lotuko zaie: emakumeek "jardun-etxeetan" batzarrean bilduta errosarioa esango dute lehenbizi; arranondotar ugari joango da ilunabarretan elizan esaten den errosariora; labur esanda, Eliza Amak dioena zintzoki beteko dute.

Kristau-sinismena dute gidari arranondotarrek. Jaungoikoa da larrialdietako Itxaropena eta eguneroko bizitzaren Geroa.

Arranondotar guztiak ez dira galga berdinean elizkoi, zintzotasunean edo jakiturian berdinak ez diren bezala. Baina batzu gehiago (Kitolis), beste batzu gutxiago (gaiztakeriaren bat egin eta Garizuman txartel bila ez doazenak), denak dira elizkoi eta kristau-fedeko; baita lotsagabeenak ere (Tramana eta Brix).

"Bedar txarrak", aldiz, ez dira elizkoiak. Kontalariak ez ditu eszenaratuko ez elizan, ez otoitzean (arranondotarrak, bai); ezta elizaren aurkako ekintzaren batean ere (Indianoa izan ezik, **Kresala**ko historia singularrean). Baina ez dute Jaungoikoaren ministrorik gogoko izango. Destaina-sentimendua izango dute apaizentzat.

e) Izaera: onak / ez-onak

"Arranondon eztago biotz gaiztokorik, arranondotarra bada" (**Kresala**, 184. or.). Hau da arranondotar oro karakterizatzeko balio duen kategoria eta ezaugarri honek bereziko ditu "Bedar txarrengandik".

Protagonista kolektibo honen inguruan hariltzen (56) den mataza oso ahula da. Eleberriaren hasierako ekaitz-egoeratik eguneroko bizitzara doa eta beste ekaitz batek etengo du eleberriaren bukaeran, Arranondoko egunerokotasuna ilunduz. Bigarren ekaitz honetatik berriro ere egunerokotasunera itzuliko dira arranondotarrak, ekaitzek bakarrik eteten duten bizitzara. Egoera batetik besterako aldaketa errepika hutsa da. Nahiz eta gertaera handi edo hunkigarrietan batu, ekaitz-egunean bertan, ekaitz-aurretxoan deiadarka eta elkarren etsai diren Tramanak eta Brixek berdin jarraituko dute aurrerantzean ere: garraxika, batak besteari barre eginez. Ekaitzak ez ditu aldatuko, ez gogoetetara edo errebeldiara eramango. Ekaitz-aurretxoan zirenak izaten jarraituko dute. Berdin gainontzeko pertsonaiek ere.

Arranondotarrentzat ez da gertaera ezezaguna fikzioaren denboran kokatzen den ekaitza. Lehenago izan dira eta geroago ere izango dira. Ezaguna dute bizi duten egoera, baina oraingoan ere ez diote erantzun singularrik emango. Ekaitzak sortutako egoera amaitzean lehenean jarraituko dute. Ekaitzak ez du berengan eraginik.

Denbora igarotzeak eta egoera aldatzeak (ekaitzetik barealdira) ez dute erantzun berririk sortzen arranondotarrengan; ezta izaera-aldaketarik ere. Horrela, gatazka-iturri den itsasoa ez da arranondotarren aldaketa-motore bihurtzen. Aurrerapenik ez dakarren historia da arranondotarrena. Ekaitzetik barealdira aldaketarik ekarri gabe doa. Denbora zirkularra da.

---

(56) "El desarrollo de la trama puede definirse como el paso de una situación a otra caracterizándose cada situación por el conflicto de los intereses, por la lucha entre los personajes". TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 206. or.

Arranondotarrek gizabanako bezala dauzkaten ezaugarriak, gaitzizenetatik hasi eta Tramana eta Brixen "gatzera" (beste arrain-saltzaile askorekin amankomunean duten gatza bestalde, nahiz eta hauek izan "gazienak") edo Peru eta Mikolen harrotasuntxora, ez dira ezaugarri adierazgarriak (57) kontaketan, nahiz eta oso espontaneoak (58) izan. **Garoa**ko gehienak baino espontaneoagoak izanik ere, ez dute funtzionaltasunik, ez dute kontaketarik sortuko, anekdotan ez bada, "gaziak" eta ("harrotasun" piska bat daukatenak) direla adierazteko.

Matazaren hariltzean eraginik gabeko ezaugarriak dira. Tramana edo Brixen lotsagabekeriek ez diote erantzun berezirik emango ekaitzari. Gainontzeko arranondotarrek bezala jokatzen dute. Gatazkaren ondoren, Arranondora baretasuna heltzean, Tramana edo Brixen ezaugarriek sortutako berbaldia ez da funtzionala izango, ezta Peru eta Mikolek sortutakoa ere, ez bait dute gatazkarik sortzen. Kontalariak berak dio zertara murriztu zen Tramana eta Brixen haserrealdi batek arranondotarrengan utzitako ondorena: "ta alan be, erritar gizonak euren txalopetako arazo ta zeregiñetan, ezeri jaramonik egin baga jarraitu eben. Betikoa zan da! Beste batzuk izan baziran baña, Tramana ta Brix... Ba!..." (**Kresala**, 74. or.). Hauteskunde-egunean sortutako iskanbilengatik gartzelaratzeak ere, ez du funtzionaltasunik izango. Beti, eta batipat gertaera berezitako egunetan, erriertan ibili beharrak ekarri duen ondorioa besterik ez da. Kontatu ere ez da kontatuko noiz atera ziren.

Peru, Mikol, Tramana, Brix... pertsonaia-tipo baten ezaugarriak agertzeko aitzakiak besterik ez dira. Beren izaerak ez dakar gatazkarik narraziora; ezta izaera-aldaketarik ere. Behin deskribatzea aski da, behin eszenaratzea nahikoa. Eszenaratze berriek ez dute ezer berririk ekarriko, ez bada nonahi berdin jokatzen dutela adieraztea: portuan,

---

(57) "Les traits d'un message que composent le signifié du sème employé pour le transmettre sont les traits 'pertinents' de ce message. Les autres traits, par lesquels le message en question diffère des autres membres du même signifié, sont, par contre, ses traits 'non pertinents'". PRIETO, L.J.; **Messages et signaux**, Presses Universitaires de France, Collection SUP, Paris, 1972, 2e édition, 65. or.

(58) "Para mí '**Kresala**' aventaja a '**Garoa**' en naturalidad, espontaneidad y conocimiento más íntimo y particular de los personajes y más que conocimiento, sentimiento vivo de los mismos". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, 534. or.

jardun-etxeetan, herriko enparantzan... Kontaketara izenez nahiz gaitzizenez datozen pertsonaia hauek uniformetasuna hausten dute; arranondotar guztiak ez dira berdinak. Baina desberdintasun hauek ez dute funtzionaltasunik haien artean gatazkarik pizteko. Sortzen diren txiki horiek (diru-beharrak antxoa-garaian sor dezakeena edo hauteskundetako iskanbilak) ez daramate egoera berrira, ez dituzte arranondotarren artean harreman berriak sortzen. Azken finean, izan ere, arranondotar guztiak bihotz oneko izateak lotzen bait ditu; "Bedar txarrak" ez bezala. Hauekin kontrajartzen ditu; ez ekintzetan, baina bai esanetan. "Bedar txarrak" dira antagonistak. "Ontziagintari zarrak", arranondotarren ahotsak, halakotzat hartuko ditu:

> "Beste aldetik barriz, gure izkuntza, oitura ta izateko erearen arerio diranak, geure areriotzat daukaguz, da zuek ezin entzun dozue gure izkuntzea, gure oiturak ta izakerea ezin dozuez ikusi: orregaitik begiratuten deutsuegu gure arerioari lez" (**Kresala**, 106. or.).

Hau da **Kresala**ko aurkakotasun funtzionala, eta izaeraz gain ohitura eta hizkuntzara ere hedatzen da. Historian presente, baina berbaldian ausente dago aurkakotasuna. Maitasun-historia singularrean bakarrik egingo da presente historian eta berbaldian, Indianoari esker. Bestela, "Bedar txarrak" eta arranondotarrak ez dira talde bezala esplizituki kontrajartzen. Elkarrekin harremanik ez duten bi talde dira. Ezaugarri desberdinak izateak bakarrik aurkajartzen ditu.

f) Hizkuntza: euskara / ez-euskara

Auñemendiko Lorea eta **Garoa**, D. Agirrek idatzitako lehen eta azkeneko eleberriak bezala, **Kresala** ere Euskal Herrian kokatzen da, eta pertsonaiak nahiz kontalaria bertako hizkuntzaz mintzo dira: euskaraz. **Kresala**k eta **Garoa**k XIX. mendean edo beranduxeago (ez dago zehazterik **Garoa**n) lekutzen dute fikzioaren denbora, eta **Auñemendiko Lorea**n —honen historiaren denbora (59) VII. mendekoa da— hain nabarmen ageri ez den hizkuntz arazo bat salatuko

(59) Eleberriaren barne-denbora adierazteko termino ugari aurki daiteke kritikoen artean. O. Ducrot eta Tz. Todorov-ek "tiempo de la historia" erabiliko dute, horren ondoan kontzeptu mailan sinonimoak diren batzu jarriz. Hitzez hitz transkribatuko dugu: "**el tiempo de la historia** (o tiempo de la ficción, o tiempo narrado, o representado), temporalidad propia del universo evocado". DUCROT, O.; TODOROV, Tz.; "Tiempo del discurso" in **Diccionario enciclopédico de las ciencias del lenguaje**, 359. or.

dute. "Hain nabarmen" horrekin erlatibizatu egin nahi dugu gaia; zeren eta azkeneko bi nobelak **Auñemendiko Lorea**ren denbora errepresentatutik urruti badaude ere, hirurak lotuko bait ditu idazlearen denborak (60). Eta idazlea **Garoa** eta **Kresala**ko denbora kontatuaren garaikoa denez, **Auñemendiko Lorea** ere hizkuntz arazoarekiko sentsibilitatez oratua egon behar. Eleberriko protagonistak, Riktrudisek, euskal mendiak utzi, Ostrabenton "Erbeste" sortu eta Euskal Herri txiki bat bihurtzen duenean, ez dago XIX. mendeko hizkuntz gatazketatik urruti: VII. mendean hartzen duen jarrera XIX. mendeko hizkuntz higaduraren eraginetik hurbil egon daiteke.

Albora ditzagun oraingoz **Kresala** eleberriko fikzioaren denborak testutik at dagoen XIX. mendearekin izan ditzakeen loturak. Itsasotik bizi direnak, zintzoak, jakituria laburrekoak, elizkoiak, arranondotarrak, euskaraz mintzo dira; "Bedar txarrak", kanpotarrak ("Iskillosduna", "Lantegi jaubea"), bilbotarra eta kanpoan ibilitako Indianoa, berriz, erdaraz. Eleberrian **kodea** bera pertsonaien ezaugarri bihurtuko da.

Kanpokoek ez zekiten euskaraz eta ez dute ikasi Arranondora etorrita; hartarako ez beharrik eta ez nahirik zeukaten. Bilbotar oihal-saltzaileak ez du gurasoengandik ikasi. Indianoak atzerrian igaro dituen urteetan ahaztu egin du; erabat ez bada ere, bai arranondotarren eredutik urruntzeko adina. Nahiz oihal-saltzaileak, nahiz Indianoak ez daukate damurik ez jakiteagatik edo erdi ahazturik edukitzeagatik; status (61) bat lortzeko ez bait da premiazkoa.

Herriko "Jaun" hauek dira dirutsuenak eta "jakintsuenak"; arranondotarren aldean behintzat. Eta erdaraz mintzo dira ("Jaun" izena erabiliko du alkateak "errizañaren" bidez udaletxera etor zitezela eskatzeko). Hala ere, ezin esan daiteke kultu/arrunt, erdara/euskara

(60) Aipatu dugun artikulu honetako 363. orrialdean honela mintzo dira O. Ducrot eta Tz. Todorov idazlearen kanpo-denboraz: "El tiempo del escritor también desempeña un papel: quiéranlo o no, los escritores participan de una época cultural, de sus sistemas de representación, etc". DUCROT, O.; TODOROV, Tz.; "Tiempo del discurso" in **Diccionario enciclopédico de las ciencias del lenguaje.**

(61) "Por **status** entendemos, en un sentido amplio, la posición de un individuo o grupo en una jerarquía social. ADAM SMITH afirmaba que la lucha por un **status** más alto es el gran objetivo que divide a los hombres y 'el fin de la mitad del trabajo de la vida humana'". NINYOLES, R. LL.; **Idioma y poder social**, Colección de Ciencias Sociales, Serie de Sociología, Editorial Tecnos, Madrid, 1980, 40. or.

paralelismo zuzena sortzen duenik kontalariak; izan ere, erdaldun horien kultutasuna irrigarri uzten bait du kontalariak. Ez, ordea, "ontziagintari zarrarena" dirutsua eta jakintsua izateari Arranondon prestijioa izatea eransten dionarena. "Ontziagintari Zar" honek, bestalde, paralelismo bat sortzeko arrisku guztiak hausten ditu: hau benetan kultua izanik, euskaraz dakien eta euskaraz mintzo den pertsonaia bezala karakterizatzen du.

Arranondo bi bizitza-moduren kokaleku ez ezik, bi hizkuntza mintzatzen diren lekua ere izango da. Baina kontalariak ez du bi hizkuntzen erabileran efektu estilistikorik bilatuko. Eleberri osoan "esanari" lotutako berbaldia darabil "erakutsiaren" kaltetan. Eta salbuespenera jo gabe, "esan" egingo du erdaraz mintzatzen zirela eta, "baña nik euskaldunentzat egiten dot neure lantxo au ta euskeraz ipiñiko dot beren jardun guztia" (62) erantsiz, euskaraz emango du haien jarduna. Beranduago euskal nobelak (63) erabiliko duen baliabide bat gaitzesiz, erdararik ez testuratuz, indar adierazkor handiagoa eman ziezaiokeen kontrastea arbuiatu du euskaldunentzat idatzi beharraren beharrez.

"Bedar txarren" erdara euskarara itzultzen badu ere, bilatuko du beste batzutan bi hizkuntzen arteko kontrastea. Esate baterako, Bilboko egunkarien erdara erakutsiz, "Ondamenean" egunkari hauen tituluak bere hartan utziko ditu, egunkariek zerabilten hizkuntzaren lekuko eta euskara komunikabide hauetatik at zegoenaren adierazgarri.

Kultu/arrunt aurkakotasunean oinarritzen ez bada ere, "esandako" bi hizkuntzen erabilera talde bakoitzaren mundu-ikuskera osatzera dator. Mundu-ikuskera hau pertsonaiei buruzko ihardunaldian behin eta berriz errepikatutako ezaugarrietan oinarritzen da: nola diren elizkoi/ez-elizkoi, zintzoak/ez-zintzoak....

Kontalariaren "itzulpena" bera zertxobait aldatu egiten da, arranondotarren hizkerarekin alderatzen bada. Tramana, Brix, Kitolis, Peru, Mikol, arrantzaleen hizkerak adierazkortasunaren (64) marka

---

(62) **Kresala**, 100. or.

(63) Besteak beste, R. Saizarbitoriaren **100 metro** aipatuko genuke. Ik. SAIZARBITORIA, R.; **100 metro**, Kriselu, Donostia, 1976.

(64) "El lenguaje, intelectual en su raíz (...) no puede traducir la emoción más que

(65) darama, "Bedar txarrei" egindako itzulpenak ez daramana. Adierazkortasun hori **Kresala** eleberrira hurbildu den hainbatek azpimarkatu du **bizi** hitzaren inguruan (66). Arranondotarrek erruz darabiltzate onomatopeiak (67), gaitzizen metaforikoak, konparazio eta metafora plastikoak eta hain bereak dituzten mintzairaren zenbait ezaugarri ("txo", "guk u", "ez be"); ez ordea, "Bedar txarrak" eszenaratzen diren une labur horietan euskarara itzulitako ihardunaldiak. Bi mintzairen artean ez dago erabateko oposiziorik, bata mintzaira markarik gabekoa eta bestea erabat markatua dela esateko adinakorik ("Bedar txarrek" ere erabiliko dituzte, itzulpen horietan ageri denez, Arranondon hain ezagunak diren "masia" edo "arrantza" lehorreko giza harremanei aplikatuak edo "nik i" bezalako adierazpen bat Indianoak). Baina joera bezala esan daiteke "Bedar txarren" mintzairak arauera (68) jotzen duela eta arranondotarrenak desbideratzera. Arauetik desbideratzeak sortzen duen funtzio estilistikoak berak ere arranondotarren eta "Bedar txarren" artean dagoen hesia areagotu egingo du. Nolanahi ere, oposizio batetik sor daitezkeen ezaugarri estilistikoak alboratuz eta **Kresala** eratuz doan katea sintagmatiko

---

trasponiéndola mediante un juego de asociaciones implícitas. Siendo los signos de la lengua arbitrarios en su forma —su significante— y en su valor —su significado—, las asociaciones se ligan ya al significante, de modo que hagan brotar una **impresión sensorial**, ya al significado, transformando el concepto en **representación imaginativa**. Estas asociaciones se cargan de expresividad en la medida en que la percepción sensorial o la representación imaginativa concuerde con el contenido emotivo del pensamiento". BALLY, Ch.; **El lenguaje y la vida**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1977, 7. argitalpena, 129-130. orr.

(65) Ik. markaren kontzeptua JAKOBSON, R.; **Lingüística. Poética, tiempo. Conversaciones con Krystina Pomorska**, Editorial Crítica, 1981, 98. or. eta hurrengoak.

(66) Besteak beste, ikus Gabriel Manterolaren kritika **Ondarroa**, 1982 aldizkariko 59. or. edo J. San Martinena **Boga-Boga** aldizkarian (mayo-junio, 1964) edo Aita Onaindiaren "Atari antzean" in **Txomin Agirre. Ondarrak**, Gráficas Bilbao, Bilbao, 1964, 25. or.

(67) Brastadea, brast, dsaust, muu, parra-parra...

(68) Testutik at lekutzen den araua zehatz-mehatz mugatzeak sortzen dituen eragozpenak gogoan ditugularik (ik. SPILLNER, B.; **Linguística y literatura. Investigación del estilo, retórica, lingüística del texto**, 55-78. orr.), zilegi bedi, modu operatorio batez, hizketa mailako adierazpen neutro edo adierazpen ez-markatu batean kokatzea arau hori (nahiz eta jakinaren gainean egon adierazpen linguistikoak beti determinatuak daudenaz eta honenbestez oso zalantzazkoa izan daitekeela hizketa mailan esakuntzak guztiz markatu gabeak direneko ustea).

horretan kontrastez eraikiz doazen estimulu estilistikoei (69) so, zera erants daiteke: kontrasteak ezin muga daitezkeela arranondotarren eta "Bedar txarren" mintzairen artekora; izan ere, **Kresala**n badago beste ahots bat ere, kontalariarena, kontaketan presente dagoena. Baina aurrerago aztergai izaki, itzuliko gara puntu honetara. Oraingoz, bego horretan arranondotarren eta "Bedar txarren" mintzairen arteko kontrastea.

Behin eta berriz azpimarratu dugu protagonismo kolektiboan agertzen diren indibiduoak ez direla aurkajartzen, ez izaeraz eta ez funtzionalki; azken finean, denak bait dira bihotz oneko, jakituria laburreko, etab. Eta talde horretan une batez sor daitezkeen gatazkek (antxoa-arrantzan batzutan, hauteskundeetan) ez dute egoera berririk sortuko. "Esan" bakarrik egiten da batzutan errierta heltzen dela arranondotarrengana, baina errierta hauek ez dira narrazioan "zabaltzen": une hori igaroz gero, lehengo fisonomia hartzen du Arranondok, aurretik zegoen harreman-korrelazioa aldatu gabe. Tramana eta Brix espetxeratu egingo dituzte hauteskunde-egunean, baina espetxeratze hau ez da kontatzen egoera berri bat sor dezakeen gertaera bezala, baizik eta hauteskundeetan sortu zen "giroaren" adierazgarri. "Anekdota" horrek Arranondon egun horretan urak noraino heldu ziren aditzera ematen du, besterik ez.

Funtzionalki "Bedar txarrak" eta "arranondotarrak" taldeak bereiztu ditugu, baina aurkakotasun hori ere berezi samarra da. Ez da sortzen "biek" objetu bera nahi (70) eta atzetik abiatzean elkarrekin topo egiten dutelako: ez da horrelakorik. Esate baterako, hauteskunde-kanpainan Tramana eta Brix Indiano eta "Lantegi Jaubearen" aurka agertzen dira, baina iskanbilak herri osoa harrapatuko du.

(69) Ikus RIFFATERRE, M.; **Ensayos de estilística estructural**, 70. or.

(70) A.J. Greimas-ek lehenbizi lau aktante bereziko ditu:
"sujeto VS objeto
destinador VS destinatario". Ikus GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural.Investigación metodológica**, 199. or. Aurrerago bi zirkunstante erantsiz, "adyuvante" eta "oponente" (op. cit., 238-239. orr.). Bikote bakoitzaren arteko harremanak aztertzean, hau erantsiko du lehenari buruz (sujeto VS objeto): "sería una modulación del **poder**"; bigarrenari buruz, "del **saber**" eta hirugarrenean "estaríamos muy tentados de considerarla una modulación del **querer**" (op. cit., 205. or.). "Querer" hau "se convertirá después, mediante el desarrollo de la acción, en un '**hacer**'" eransten du C. Segrek. Ikus SEGRE, C.; **Las estructuras y el tiempo**, 69. or.

Kontalariak ez du aurkeztu nahi aurkakotasun ideologiko bezala, baizik eta arranondotarren bizitzako beste pasarte bat bezala, guztiak harrapatzen dituena:

> "Zoratuta egozan azkenerako arranondotar guztiak eta zorakeri aundiak egiten zituen. Patxi ta Peru: ezegoan eurentzat beste gauzarik Lurbira danean" (**Kresala**, 187. or.).

Bizitza-modu eta bizitza-ikuskerak desberdintzen ditu arranondotarrak eta "Bedar txarrak" eta elkarri jaramonik egin gabe bizi dira, batzu besteek existituko ez balute bezala. Alde bateko nahiz besteko izan, "egin" behintzat "egiten" ez diren pertsonaia hauek Fernán Caballerok bere nobeletan sortutako pertsonaiei buruz G. Gullón-ek dioena gogorazten dute:

> "Caracteres lineales, sin relieve, nada de lo que ocurre afecta su modo de pensar ni les impulsa a cambiar de opinión (...). En un mundo poblado por tipos apenas cabe otra relación que la impuesta por su tipicidad misma. Quien habla no escucha y quien escucha no oye. No hay real intercambio de afectos" (71).

Ez dira aldatzen ez batzu eta ez besteak. Ez diote elkarri entzun ere egiten. Ez dago alde batekoek egiten dutena bestekoek eredutzat hartzeko arriskurik.

Aurkakotasuna batzuk pentsatzen eta daramaten bizitza-modua besteenarekin alderatzean sortzen da, ez ekintzan; batek daukana ez bait du besteak desiratzen. Eta desiorik ezean, ez dago "egiterik" ere; ez luke zentzurik.

1.1.2. Protagonista "indibidualaren" inguruan harildutako mataza: denbora espezifikoa

Denbora zirkularrean erliebea hartuz joango da denbora linealean garatuko den historia: Mañasiren maitasun ez-egokituak sortzen duen historia. Ohizko orainaldiko aditzetatik, aditz komentatibo horietatik, narrazio-aditzetara igaroz mataza haziz joango da, arranondotarren ohizko bizitza hondo izaki, batasuna (72) emanez **Kresalari**.

---

(71) GULLON, G.; **El narrador en la novela del siglo XIX**, 38. or.

(72) "Todo relato consiste en un discurso que integra una sucesión de acontecimientos de interés humano en la unidad de una misma acción". BREMOND, Cl.; "La lógica de los posibles narrativos" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, 90. or.

M. Zaratek esan zuen Anjelen eta Mañasiren maitasun-historia Arranondoko bizimoduari egoki josita dagoela, nahiz eta joskera hori nola gauzatzen den aipatu ez (73).

Maitasun-historia horrek emango dio batasuna eleberriari, eta historiak badu harremanik Arranondoko bizitza-moduarekin. Baina egokitasunari buruz esango genuke izan zitekeela egokiagoa.

Fikzioa ekaitz-egun batean hasten da. Eta horrelako egunetan ohi dutena egingo dute arranondotarrek: otoitz egin eta itsaso zabalera begira zain egon. Alde horretatik nobelaren hasierako ekaitza hainbat bider jasan eta gerora ere jasan beharko dutenaren antzerakoa da. Baina fikzioaren denbora honetan porturatzen ez den txalupa "Sardinzarrena" da. "Sardinzarren" txalupa ez porturatzeak emango dio hasiera gatazkari, nobelaren bukaera arte iraungo duen tirabirari, Garizumako ohituren edo herriko festen egitarauaren gainetik **Kresala**ri batasuna emanez. Horiek gatazka horren garapenean igarotzen diren egun edo aldiak besterik ez dira.

Ekaitzak eguneroko lozorrotik atera du Arranondo, bere biztanleak urduri eta negarrez jarriz. Berdin eragingo dio Mañasiri ere, honen bihotza maitasunera iratzarriz. Txalupak portura ahala, urduritasunetik atsedenera igaroko dira arranondotarrak. Baina "Sardinzarren" txaluparen berririk ezak luzatu egingo du bertako familiarren urduritasuna eta iratzarri (74) Mañasiren sentimendua. Mañasi ordurarte ez zekienaz ohartuko da (75). Eta prest dago bere abentura pertsonala bizitzeko; Arranondoko ohizkotasuna utzi, denbora zirkularretik irten, kolektibotik berezi eta "higitzen" (76) hasteko prest, aurretik izan eta galdu berria duen oreka kontaketaren bukaeran

(73) "Azkenean, gorabera andiak izan ondoren, Mañasi Anjelegaz ezkontzen da. Gai ori Arranondoko (Ondarroako) bizimoduari josita dago. Eta egoki josita egon bere". ZARATE, M.; **Bizkaiko euskal idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera. 1580-1968**, 127. or.

(74) "Sardinzarren" txalupa ez porturatzeak J. Campbell-ek "llamada de la aventura" edo "el despertar del yo" deitu duen hori eragingo du Mañasirengan. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, Fondo de Cultura Económica, 1980, 3. argitalpena, 54. or.

(75) "Zelan gero, neuk be eznekian da? Zeuk dakizuz nire barruko gauza guztiak, eta zuri ezer esan ezteutsutanean..." esango dio lagun duen Josepari (**Kresala**, 26. or.).

(76) Berez, higitu baino gehiago egon egingo da.

berriro ere eskuratzeko. Oreka desberdina izango da, baina oreka azken batean (77).

Ekaitz-ondorengo arrantzaleen ardandegiko elkarrizketa eta Sardinzarren etxekoa erliebea ematen hasten dira historia singularra garatuko duten pertsonaiei.

Urduritasun-iturria agortzean, oraingo honetan itsasoa ez bait da hondamendi-leku bilakatu, Sardinzarren txalupa Getarian, arranondotarrak lehengo baretasunera itzuliko dira. Baina Mañasi egoera berri batean aurkitzen da, eta aurrerantzean ezin elementu horri iruzur egin: Anjelez maitemindurik dago.

Elipsi luze bati esker, Garizumako egunetan kokatuko da historia, negu erdiko ekaitzak sortutako kontaketa amaitzean. Arranondotarren Garizumako ohiturei, denbora zirkularrari denbora lineala lotuz, lehendik zetorren beste prozesu bati jarraituko zaio: Josepak ezkontzaurreko harremanak finkatuko ditu Artoberorekin. Aste Santuko prozesioak ere ohi bezalakoak izango dira, eta pertsonaia "ezagunak" izendatuz; horra hor prozesioetako partaide, besteak beste, Anjel, Artobero, Josepa eta Mañasi. Pertsonaia ezagunak izendatu besterik ez dira egiten, prozesio honek ez bait du historia singularrean beste funtzionaltasunik izango, ez bada Mañasiren sentimenduek lehenean dirautela adieraztea: eszenaratzean Anjelek prozesioan zuen itxurari erreparatzen dio. Zantzu hau besterik ez dio ekarriko Garizumak historia singularrari. Baina Mañasiren maitemintze-prozesuaren berririk ez eman arren, garbi dago gatazkak lehenean dirauela, nahiz eta dramatikotasun handirik ez Mañasirengan nabari.

Garizumako egunetatik agorraren erdira doa kontaketa beste elipsi baten bidez. Ohizko festak eta horietan murgildurik, beste askoren artean, Mañasi eta Josepa.

Desoreka sortu zenetik ia urtebete igaro bada ere, Arranondoko jai hauek ez dute aurrerabide handirik ekarriko oreka berri baten bilaketan. Mañasi Garizumako egunetan bezalatsu azalduko da, gehienez ere urdurixeago. Anjel noiz ikusiko alde guztietara begira egon beharrak eta festa-bukaerako tristurak ekaitz-egunean sortutako sen-

(77) "Todo relato es movimiento entre dos equilibrios semejantes pero no idénticos" dio Tz. Todorov-ek. TODOROV, Tz.; **Introducción a la literatura fantástica**, Premia editora de libros, S.A., México, 1980, 126. or.

timenduen progresioa adierazten dute eta festak egoera aldatzeko eskaintzen zion abagaduneak ez duela probetxurik ekarri.

Mañasi zain dagoen pertsonaia bezala itxuratzen hasten da. Itxarotea izango da negu erdiko iratzartze hari emango dion erantzuna. Eta ondorioz galdera bat sortzen da: nork birreraiki behar du oreka berria, Mañasi egonean badago? Hilabeteetan barrena egon egin da. Denbora igarotzeak sentimenduen iraupena zilegiztatu besterik ez du egin, egunez egun, astez aste, hilabetez hilabete; kontatzen ez bada ere.

Festen ondoren lehengo lanetara itzuliko dira arranondotarrak: gizonak itsasora; emakumeak itsasotik ekarritako lehengaiarekin lehorrean aritzera, arraina garbitzen, gatzetan jartzen edo saltzen. Eta "lengo bidera" itzultze honekin batera **Kresala**ko maitasun-historiak indar handiagoa hartuko du, kontaketan behintzat. Elipsiek sortzen duten anisokroniei (78) esker, gertaerak izugarrizko abiadan jazoko dira bata bestearen ondotik narrazio mailan; ez hainbeste historian.

Mañasiren historia "geldirik" edo sentimenduak heltzen egon diren bitartean, Garizumako ohiturek, herriko festetakoek, arrain-saltzaileen deskripzioek... "bete" dute berbaldia. Orain matazaren aurrerapenean lehen urratsa ematen da, herritarrek zabaldu duten albisteakin: Antoni Errotarekin ezkontzen da Anjel. Eta maitasun-historiak berbaldian leku gehiago hartzera joko du aurrerantzean eta ohituren deskripzioak murriztera, baina ez desagertzera; hor daude, "Aterpen", "Jardun-etxeak"...

Arestian M. Zarateren iritzia jaso dugu, Arranondoko bizimodua eta maitasun-historia egoki jositakotzat jotzen zuena. Harremanetan dauden osagaiak dira, noski. **Kresala**ko kontalariaren asmoa ez da maitasun-historia bat "erakustea", baizik eta labur "esatea", guneak (79) erakutsiz. Eta gunetik gunera doan maitasun-historia antolatu du. "Tarteak" Arranondoko bizitza-moduak beteko ditu edo elipsiak kenduko. Garizumak, abuztuko jaiek, "Aterpeko" elkarrizketek... "beteko" dituzte tarte horiek, maitasun-historiaren prozesu psikolo-

(78) Kontatutako denboraren eta kontaketaren denboraren artean sortutako desfaseari buruz ari gara.

(79) "Momentos de riesgo del relato" bezala mugatuko ditu R. Barthes-ek; aukera egitea eskatzen duten uneak dira. Ik. BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 21. or.

gikoa jarraitzeari uko eginez. **Kresalan**, berez, egunerokotasun soila ez da nobela daitekeen material bezala jasotzen. Egunerokotasunean aukera bat egiten da: pasarterik interesgarri eta kontagarrienak begiz jotzen dira. Horiek ekarriko dute Arranondoko bizitza-modua osatzeko behar den lehengaia (80). Paraleloki, maitasun-historiaren desarroiloan ere jarrera berdina azalduko da; ez bait da historia heltzen ari den prozesu bezala testuratzen. Prozesu hori ezkutatu eta "emaitzak" kontatzen dira. Badirudi Arranondoko bizitza-modua kontatzen zen bitartean edo elipsietan umotu dela prozesua eta testua sekuentziaren gune bakoitza kontatzeko lekua bilakatu dela.

Prozesua kontatuko ez denez, eta gunetik gunera denborak igaro behar duenez, Arranondoko bizitza-modua kontatu behar. Bestela, "hutsune" handiak egongo lirateke narrazio mailan: elipsiak. Baina —sintaxi mailari lotzen gatzaizkiola bakarrik hau esaterakoan— Arranondoko bizimoduaren kontaketak berbaldia sortzen du gunetik gunera doan tarte hori betez, katalisi (81) gisa funtzionatuz maitasun-historiarekiko. Garizumak, atseden-orduek eta betetzen dute Mañasi zain dagoeneko denbora-tartea, ez bait da Mañasiren barne-prozesua kontatzen. Aterpeak, Kitolisek eta abarrek beteko dute gune batetik besterako tartea, herrian Anjel Antoni Errotarekin ezkontzen dela zabaldu denetik, Erriberako eskailereten Anjelek eta Mañasik lehen elkarrizketa daukaten arteko denbora "betez" kontaketan... Berez, narrazioaren mailan (82) esan daiteke Arranondoko bizitza-mo-

---

(80) "La noción de 'material' no sobrepasa los límites de la forma, pertenece a lo formal; es un error confundirlo con elementos exteriores a la construcción". TINIANOV, J.; "La noción de construcción" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 86. or.

(81) Nahiz eta alferrikakotzat ez jo, "zonas de seguridad, descansos, lujos" bezala zedarritzen ditu R. Barthes-ek; BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 21. or. "'Rellenos', afectados de un valor funcional indirecto, en la medida en que, al sumarse, constituyen algún indicio de carácter o de atmósfera y pueden ser así finalmente recuperados por la estructura" dio katalisiei buruz Flaubert-en deskripzio bat komentatzean. Ikus BARTHES, R.; "El efecto de realidad" in **Lo verosímil**, Editorial Tiempo Contemporáneo, Colección Comunicaciones, Buenos Aires, 1970, 95. or., nahiz "L'effet de réel" in **Litterature et réalité**, Editions du Seuil, Paris, 1982, 81. or.

(82) Testuaren berbaldi osoari begira diogu, R. Barthes-ek deskripzio-mailak bereiztean darabilen zentzuan. Ik. BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 15. or. Edo Tz. Todorov-ek

dua "tartekatu" egin dela maitasun-historian. Tartekatze hau ez da logika narratibo (83) baten araberako tartekatzea; izan ere, Garizuma 4. kapituluan bezala ager bait zitekeen beste edozeinetan; berdin "Atseden orduak" edo "Jardun-etxeak". Logika narratibo hori "ilustrazioek" bakarrik gordetzen dute: Garizuman Artobero eta Joseparen arteko harremanak finkatzeak edo Jardun-etxetan eszenaratzen den gaia Indianoa eta Mañasiren arteko ezkontza izatea. Aldi haueta-ko bizitza-modua kontatzea narrazioko beste edozein lekutan egin zitekeen, aldiak ez bait du funtzionalitaterik ekarriko maitasun-historiara. Bizitza-moduaren deskripzioak aldi, toki eta abar desberdinak testuratzera joko du, behin agertzera eta ez errepikatzera, nobelan barrena tartekaturik, arranondotarren bizitza-modua deskribatzera. Maitasun-historia aurrera doala, berriro ere helduko da Garizuma (maiatzaren 7ko data darama Indianoak Mañasiri igorritako eskutitzak), baina ez da aipatu ere egingo. Garizumako ohituren ordez "Jardun-etxeak" testuratuko dira, esate baterako. Helduko da negua ere, baina aurreko neguan ekaitz-egunetan Arranondok hartzen zuen itxura deskribatu badu, orain "Aterpea" izango da deskribagai. Seguruaski "Atseden orduak" ere helduko dira, baina ez aipatu, ordea. Esan daiteke ez dela adierazgarria maitasun-historiarekin arranondotarren bizitza-moduak duen ordena-harremana; beste ordena batean deskribatuta ere, berdinak izango ziratekeen maitasun-historiarekiko harremanak. Bizitza-moduaren deskripzioak historiaren "tarteak" bete besterik ez ditu egingo, errepikapenak eman zezakeen intentsitatetik urrundu, eta hedapena bilatuz, ahalik eta ohitura gehien deskribatzera jo.

Eguneroko prozesua baztertua izan da: Arranondoko bizitza-modua deskribatzean, pasarte batzu besterik ez bait dira hautatu eta tartekatu, maitasun-historia gunetik gunera doan historia bezala antolatu bait da. Bestalde, ekintza da gailen (84) eta ez da pertsonaien garapen psikologikoaren berri ematen edo psikologia honen estudio-

---

darabilen zentzuan, "dispositio" bezala. Ikus TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 157-158. orr.

(83) Cl. Bremond-i jarraituaz. Ik. BREMOND, Cl.; "La lógica de los posibles narrativos" in **Análisis estructural del relato**, 87. or. eta hurrengoak.

(84) Ez dugu honekin esan nahi **Kresala** ekintza-nobela hutsa denik. Baina bai, ordea, maitasun-historiak garatzen duen matazan historia hori aurreratzen duten une haiek bakarrik bihurtzen direla berbaldi.

rik egiten. Horiek horrela, Arranondoko bizitza-moduak edo elipsiek beteko dute pertsonaien prozesua eta prozesu batek eskatzen duen denbora.

Eguneroko prozesuaren kontaketa arbuiatzea fikzioaren denborarekin ere erlazionaturik dago. Fikzioak irauten duen denbora zehazterik ez badago ere, denbora-markek ez bait dute horretarako aukerarik ematen, esan daiteke urte t'erdi baino gehiago irauten duela: negu erdiko ekaitzetik hurrengo negua igaro eta maitzaren 7ra arte, denbora markatu gisa. Historiak eta kontaketak data horretatik aurrera ere jarraitu egiten dute, baita denborak ere; baina ez dago zehazterik zenbat. Epilogotzat jo daitekeen azken kapituluko markek aipatutako maitasun-historiaren bukaera zoriontsuaren urteetara eramaten bait gaituzte —protagonistek seme-alabak dituzte—, bukaera zoriontsu horren une konkretua zehazteko ekarpenik egin gabe. Kontalariak epe horretako gertaerak kontatzeko aukera bat egin beharra zeukan nahi ta nahi ez; ezinezkoa bait da denbora horretako gertaera, sentipen, pentsamendu... guztiak testu-espaziora ekartzea. Epe horren barnean konta zezakeen guztia ez zegoen kontatzerik eta kontalariak hautatu beharra zeukan. Gauzatu den aukera hau da: gunetik gunera doana kontatzea eta tarteak elipsiez eta Arranondoko bizitza-moduaz bete. Hemendik datozkio maitasun-historia honi hainbat ondorio, kritikak nolabait atzeman dituenak (85). Informaziorik ezean, batpateko iratzartzetan eta oinarritutako maitasun-historiak gorputz hartzean, sintagma mailan paradigma mailan maitasun-historia baten garapenak eskaintzen zituen posibilitateetatik primariotasunera bultzatzen du, mundu idiliko baten adierazpen izatera. Oso erreala izan zitekeen eleberria kokatzen den garaian, XIX. mendean, baina alde guztietatik ingenuitatea darion historia izaten jarraitzen du. "Sorgin-ipuinen" antza bilatu dio J. Gorostiagak. Eta izen adierazkor honekin norabide bat adierazten ari da: hain zuzen, forma bezala ipuinari erreferentzia egiten diona, eta forma horren barnean sorginei.

Estilo epikoaren (86) barnean kokatu diren nobela eta ipuinaren

---

(85) "Eta ¿nor da Mañasi ori, **Kresala**'ren asieratik azkeneraño doan geriza ori, sorgin-ipuinetan bezela ezkondu eta zorionekoa izan zan Mañasi?" dio J. Gorostiagak. GOROSTIAGA, J.; "**Kresala**'ren euskalduntasuna eta euskalkerea" in **Boga-Boga**, Ondárroa, mayo-junio, 1964.

(86) E. Staiger-ek estilo lirikoa, epikoa eta dramatikoa bereizten ditu literatur gene-

formak (87) bereizteko saio asko egin da, baina ez kritiko guztien gogokoak (88); izan ere, bakoitza mugatzean arazoak sortzen badira (89), derrigor areagotu behar biak alderatzean.

Ipuina ala nobela den eztabaida alde batera utziko dugu, antzua izan bait daiteke literatur generoen alorrean orohar, eta nobela eta ipuina bereiztean konkretuki, bibliografia desberdinek eskaintzen dituzten alternatiba ugarien aurrean. Dena dela, ezin uka maitasun-historia honetan matazak duen garrantzia, pertsonaien banakotasunaren estudioaren galeratan. Ezta pertsonaiaren autonomiarik eza ere kontalariaren morroi leial bait dira. Bestalde, historiaren prozesua ezkutatu egiten da bere garapenean... Guzti horiek itxura berezi bat emango diote kontaketari eta testu-tipo mailan galderak sortzen dituzte.

J. Gorostiagaren ipuina "sorginak" determinatzen zuen, aipamen argi bat eginez ezaugarri fantastikoak dituen literatur mota bati. Beste gai eztabaidatu bat dugu. Berez "genero fantastikoak" eta "genero errealistak" ere berezi bait dira, emaitzei dagokionez adostasunik ageri ez bada ere (90). Genero-arazoa alboratuz —izan ere, errealismoan bertan, hau da, erreferentearekiko zehatz jokatzea bilatu duen jarrera horretan ere erreferente hori testuratzerakoan erreferentea berreratu

---

roen sailkapena egitean. Estilo epikoari ezartzen dizkion ezaugarriak ezagutzeko ikus STAIGER, E.; **Conceptos fundamentales de poética**, Ediciones Rialp, S.A., Madrid, 1966, 101-152. orr.

(87) W. Kayser-ek epopeia, eleberria eta ipuina bereizten ditu, epikotasunaren ezaugarriak daramatzaten formen artean. Ikus KAYSER, W.; **Interpretación y análisis de la obra literaria**, 460-489.orr.

(88) Anderson Imbert-ek nobela eta ipuina bereizteko erabili diren zenbait ezaugarri biltzen ditu, ondoren nola kasu guztietan ez diren betetzen aditzera emateko. Ikus ANDERSON IMBERT, E.; **Teoría y técnica del cuento**, 43-50. orr.

(89) Nobela definitzeko egin diren saioen arrakasta eskasaren erakuskari gisa ikus lehen ataleko 193. oin-oharra. Ipuina mugatzeak ere antzeko arazoak sortuko ditu. E. Anderson Imbert-ek "Mosaico de definiciones" izenburupean ekingo dio lan honi. Titulua, hemen ere, ipuina zedarritzeko dauden arazoen lekuko da. **Ibidem**, 50-52. or.

(90) Así pues, los numerosos estudios de inspiración semiótica que procuran definir por ejemplo, el 'género fantástico' o el 'género realista' no aportan tantas respuestas como abren nuevos interrogantes". GREIMAS, A.J.; "Prólogo" in **La semiótica del texto. Ejercicios prácticos**, Ediciones Paidós, Comunicación, Barcelona, 1983, 19. or.

egingo bait da, erreferenteari "gehitutako elementuaren" bidez—, onar dezagun **Kresala**ko maitasun-historia hau mundu naturalaren mugak ukitzera behintzat heltzen dela.

Anjel Antoni Errotarekin ezkontzera doala jakin arte, egonean dago Mañasi. Egonez erantzuten dio desoreka sortu dion sentimendu-egoerari. Herrian zabaldu den albiste honek (91) nahigabe sakon bat sortuko dio; baina ekintzara bultzatu gabe, lehen baino elizkoiago eta etxekoiago bihurtuko du.

Korapiloa/peripezia/korapiloa (92) hirukotearen garapenean oinarriturik, batetik besterako igarobidea erritmo azkarrez egingo da berbaldian, lehen peripeziak bigarren korapiloa sortu duenetik. Hortik aurrera matazaren garrantzia gailenduko zaie pertsonaiek eraman zezaketen prozesuari; Arranondoko bizitza-moduaren deskripzioa murriztu egingo da ordu arteko presentziaren aldean, matazaren hedapena zilegiztatu egingo da eta berbaldiz jantzi mataza hau.

Mañasi korapilo batetik bestera eraman duen peripezian, irekita uzten dira beste peripezia bat sortzeko bideak, irakurlearen konplizitatearekin utzi ere. Izan ere, peripezia horren garapeneko zirkunstantzia guztiak kontalariak eta irakurleak bakarrik ezagutzen bait dituzte. Pertsonaiek, berriz, erdizka besterik ez dute ezagutzen gertatutakoa. Gaizki ulertu bati esker garatzen da peripezia, baina pertsonaiek ez dakite. Antoni Errotarekin ezkontzea proposatzen dio Tomasa Andiak bere seme Anjeli, eta proposamen hau eszenaren bidez ezagutzen du irakurleak; baita Anjelen erantzuna ere: ez baietz eta ez ezetz. Horregatik, herrian zabaltzen den berriak ez dauka egiazko funtsik, Anjelen oniritzirik ez duelako; baina bete behar zuen funtzioa beteko du: Mañasiren ezagutzara heldu eta berau nahigabe sakonean murgiltzea.

Mañasik ez daki egiazki Anjelen etxean zer gertatu den. Herritarren ahotan dabilena ezagutzen du soilik; hain zuzen, errealitatearekin bat ez datorren albistea. Anjelek ere ez daki Mañasiren sentimenduen berri; inoiz ez bait dizkio erakutsi. Eta Anjelek ez ditu sumatu

---

(91) "Sardinzarrek, ardantegian, bere semea laster da ondo ezkonduko zala esan eieban: Antonik, lagun artean, erriko mutillik ederrenak bera gura ebala" (**Kresala**, 79. or.).

(92) TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, 207. or.

ere egiten. Egoera honetan kontalariak bakarrik du bataren nahiz bestearen berri. Zuzen-zuzen ezagutzen du gertatzen ari dena. Eta berak jarriko du irakurlea jakinaren gainean, eszenen edo laburpenaren bidez. Honek hurrengo korapilora eramango duen peripezia zilegiztatzen du, baina irakurlearen aiduru egotea eratxi (93). Honela, orain-oraingoz, kontalariaren gogoko den Mañasik ez ditu ate guztiak itxita, eta hurrengo peripezia pertsonaien informazio-falta honetan oinarrituta garatuko da: "Erriberako malletan". Eta Anjelek Mañasiri gezurrik gabe esan diezaioke:

> "Neuk diñotsut eta siñistuidazu, Mañasi: niri oindiño iñogaz ezkontzerik etxat gogoratu" (**Kresala**, 113. or.).

Honek egoera berria sortzen du Mañasirengan: hitz hauek entzutean lehengo nahigabea poz bihurtzen da. Ez dago jakiterik nahigabeak zenbat denbora irauten duen. Kontalariak Mañasiren egoera laburpen batez aditzera emango du, egoera konstante bezala, Anjelen ezkontzaren berria jasotzen duenetik "Erriberako malletan" daukaten elkarrizketaraino iraungo duena aldatu gabe, matizaziorik gabe. Berbaldian "Aterpek", "Kitolisek" eta "Bedar txarrak" beteko dute batetik bestera doan tartea, Mañasiren egoera nahigabetsuak ez bait du narratibitate gehiagorik sortzen. Hartu duen jarrera iraunkorra da, ez aldakorra. Eta nahigabean murgilduta egote hori konstatatu eta deskribatu besterik ez da egiten.

Pozez bete duen Anjelen esanak ere ez du narratibitaterik sortuko. Mañasi ez da poza agertuz eszenaratuko. Eta hurrengo korapilora eramango duen peripezia poz horren segidan etorriko da. Alaitsu bukatzen den kapituluari berriro nahigabeak ekarriko dituen kapitulua lotzen zaio. Poztasunean eta tristuran berdin jokatzen da narrazioan: ez batak eta ez besteak dute kontaketarik sortzen (94).

---

(93) "¿Puede el escritor compartir con el lector los secretos de sus personajes?", galdetzen du E.M. Forster-ek eta segidan erantzun: "La respuesta se ha esbozado ya: más vale que no lo haga. Es peligroso; generalmente conduce a un descenso de la temperatura, a la laxitud intelectual y emocional y, peor aún, a la jocosidad". FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, 87-88. orr.

(94) Ez du jokabide berdina azalduko berrogei eta hamaika urte beranduago euskal nobelan jaioko den Leturiak. Leturiak bere bizitzako "Udan" ez du idatziko bere egunkari eztukua; edo biltzaileak behintzat ez du udan idatzitako paperik aurkitu, nahiz eta horretan saiatu. Eta horrexek eragingo dio biltzaileari gogoetaz betetako ohar bat egitera; besteak beste, honako hau esanez:

Mañasiren egoera berriak ez duela luzaro iraungo aditzera ematen duten zantzuekin bukatuko du kapitulua kontalariak, premonizioz betetako hitzekin:

> "Zer diñostazu irakurlea? Amesetan egongo zala gau atan Mañasi? Jakiña ba.
>
> Baña amesak ames izaten dira beti, itxurazkoak izan-arren" (**Kresala**, 113. or.).

Hurrengo korapiloa sortuko duen peripezia ere azkenurrenekoa sortzeko erabili diren baliabide berdinez egingo da. Kontalariak kapitulu-amaieran aurrikusitakoa hurrengo kapituluaren hasieran hasiko da betetzen, Andre Tomasak bere seme Anjelekin daukan elkarrizketan. Elkarrizketaren gaia errepikaria da: Antoni Errotarekin ezkontzea. Anjelek luzapena eskatu eta gurasoek onartu egingo dute. Egun berean, elkarrizketaren ondoren, errosarioa esan eta etxera zihoala, Antonirekin hitz egiteko abagadunea izango du Anjelek; eta, hizpideak hala ekarrita, ezkontzarako harremanak hautsi egingo ditu. Baina elkarrizketa eta haustura hauek baino lehenago zabalduak ziren berriro ere Arranondon, Anjelen gurasoei esker, ezkontza-berriak. Zabalduak eta Mañasiren ezagutzara helduak (95).

Baliabide berdinekin 1) herrian diote, eta Mañasik hemendik jasotzen du albistea, 2) irakurlearen konplizitatearekin, irakurleak eta kontalariak bakarrik ezagutzen bait dute egoera erreala eta 3) gai berdinarekin —Anjel Antonirekin ezkontzera omen doa— beste urrats bat ematen da matazan.

Berriro ere, kontalariak eta irakurleak soilik ezagutzen dute alde bateko nahiz besteko egoera: badakite Mañasik bere objetu desiratua —Anjelen maitasuna— lortzeko posibilitateak ez direla erabat ahitu; arranondotarren ahotan dabilena Anjelen etxean gertatzen denetik urruti bait dago. Baina Mañasik ez daki.

"Noiz idazten dira-ta egunkariak? Noiz idatzi duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zure arima goibeltasunez bete zuenean. Illuna da poesia. Alaia ez da poesigarri". TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturia-ren egunkari ezkutua**, Leopoldo Zugaza editor, Durango, 1977, 2. argitalpena, 74. or.

(95) "Entzun eban lenago, Anjel Elgoibarren egoan artean, au ta Antoni laster ezkontzen zireala. Ezin sinisturik, alde askotan itandu eban egia ete zan albistea, ta alde guztietan ao batetik zirautsen baietz da baietz: gauza ziurra zala" (**Kresala**, 123. or.).

Anjel Elgoibarren zegoela herrian zabaldu ziren zurrumurruei jaramon eginez, Mañasi Bilbora joango da neskame, informazio-iturri zuzenera jo gabe. Anjelek "Erriberako malletan" esan ziona esango bait ziokeen oraingoan ere edo gogokoagoa izan zitekeen beste zerbait; ordurako "gure mutil onek, bere barruan zerbait" bait zerabilen. Anjel Elgoibartik etorri, gurasoei bere ezkontzarekiko luzapena eskatu eta ondoren kalean bertan Antonirekin ezkontza hautsi eta biharamunean dugu Bilbon Mañasi.

Bilbon bere burua ezkutatu. Horrela erantzungo dio Mañasik sortu zaion egoera zahar-berriari. Egoera zaharra da, bi bider errepikatzen delako gatazka: Anjel ezkontzera omen doa. Eta berria da, nahiz eta peripezia hau sortzeko erabili diren baliabideak zaharrak izan; izan ere, lehenengoak ez zuen osagai berri bat izango bait du. Lehenengo aldian, hilabetetan gertaeren zain egon ondoren —besterik ez bait du egin—, Mañasiri Anjelen ezkontzaren berriak heltzen zaizkionean, Anjelek ez dauka Mañasiren sentimenduen berririk. Bigarrenean, aldiz, "Erriberako malletan" izan den elkarrizketa dela-ta, Mañasik uste du bere sentimenduek salatu egin dutela Anjelen aurrean —eta hala izango da, aurrerago Anjelek berak aitortuko duenez—; eta horrek darama aurrenekoan ez bezalako jokabidea hartzera: lehen inork —lagun duen Josepak izan ezik— ez bait zuen bere barne-egoera ezagutzen; orain, ordea, Anjelek atzeman duen susmo horrekin, herrian zabalduko ote duen beldurrez eta irrigarri gelditu delakoan, nahiago du arriskutik urrundu eta bere burua Bilbon ezkutatu. Lehenengo eta hirugarren egoera desberdinak dira, erdiko bigarrenak desberdintzen dituelako. Motiboen (96) iterazioak ez dakar korapiloen iteraziorik, zentzu hertsi batean egoeren errepikapenik ez dagoelako; izan ere, matazaren aurrerapenean lehen ez zegoen gertaera berriren bat bait dago egoera bakoitza desberdintzeko. Baliabideak eta motiboak berdinak dira; egoerak, ordea, ez.

Mañasi, berriro ere, nahigabeturik eta lotsaturik dago Bilbora

(96) "Por motivo de una acción se entiende el impulso para realizar esta acción". KAYSER, W.; **Interpretación y análisis de la obra literaria**, 75-76. orr. Mañasiri gagozkiola, zentzu hertsi batean, berez eta batipat beti, ez dago "ekintza" kontzeptua aplikatzerik; bizi duen desorekak ekitera baino gehiago egotera bultzatzen duelako. Nolanahi ere, zeharka bederen, ekintzatzat har daitezke "egonaren" poderioz lortuko bait du amesten duena. Bestalde, egona zentzu zabalean hartu behar da, zerbait egiten bait du: Bilbora joan, otoitz egin bere helburuen alde... Esan daiteke zeharkako ekintzak direla Mañasirenak.

abiatzen denean. Baina honek ere ez du narratibitaterik sortuko: ez da kontatuko Bilbora egiten duen bidaia —bai, ordea, bueltakoa— eta laburpen baten bidez emango du kontalariak Bilbon daraman bizitzaren berri. Laburpen honek ez du ustegabekorik eskaintzen; ez dago sorpresarik. Arranondon zeraman bizitza-modua darama: bizitza elizkoia eta etxekoia. Pertsonaia hau ez da aldatzen. Gerta ahalak gerta, jarrera berdina agertzen du. Leku fisikoz mudatu da, baina lehenean dirau: lehen Arranondon zain zegoen, orain Bilbon ere zain jarraitzen du, egoera mingarritik bestek ateratzea espero edo etsiak hartu balu bezala.

Egote honek ez du narratibitaterik sortzen eta ez dago fikzioan zenbat denbora zeraman Bilbon jakiterik. Narrazioan Mañasiren bizitza-modua labur-labur kontatu ondoren, peripezia berri bati hasiera emango dion gertaera garatuko du kontalariak segidan: Mañasik Arranondoko Indianoarekin topo egiten du. Bien arteko elkarrizketari, narrazioan Indianoak egingo dion ezkontz eskaria lotuko zaio, bitartean igarotako "egun batzuk" suntsituz elipsiari esker. Maiatzaren 7ko datarekin igorriko dio Indianoak eskutitza Mañasiri ezkontz proposamena eginez (97) eta gertaerak kokatzeko datu bat gehiago eskainiz: egunari eransten zaion "18 .." horrek XIX. mendean lekutuko du **Kresala**ko historia, nahiz eta urterik ez zehaztu (98).

Beste eskutitz batek eramango du Mañasiren ezezko erantzuna. Eskutitz honetan data ezkutatu egiten da eta honekin gogoeta-denboraren epea.

Kapitulu bat osatzen duten zazpi orrialdeetara mugatzen da narrazioan Mañasiren egoera berriaren kontaketa: bigarren aldiz Anjel ezkontzera doala entzun duenekoa, Bilbora joatea, Bilbon daraman bizitzaren kontaketa, peripezia berri baten hasiera eta ezezko erantzun horrekin oraingoz bukaera emango dien episodioei (99) eskaini-

---

(97) "Ezkongei nago ta ezkontzeko ustean nabil, neugaz pozik biziko dan lagun baten billa. Beste askoren artean zeu aukeratzen zaitut: zeu izango zara niretzako lagunik onena" (**Kresala**, 127-128. orr.).

(98) "Es muy conocido el procedimiento de sustituir por unos puntos suspensivos el año en que ocurren los sucesos de un relato". WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, 76. or.

(99) Zentzu zabalean hartzen da episodioaren kontzeptu hau: batasun eta autonomia-maila bat gordez, osotasuna eratuz doazen beste gertaerekin lotuta dagoen jazoera moduan.

tako berbaldia. Gunetik gunera doa berbaldia, "tarteek" langai nobelagarririk sortuko ez balute bezala. "Tarte" horiek informazio minimoa ematera murrizten dira, bi eskutitzen artean dagoena bezala; horra hor, labur-labur, Indianoak bidalitako eskutitzak Mañasirengan sortu zuen harridura eta Bilbon izandako elkarrizketaren fruitu bezala Mañasiri batpatean heltzen zaion ezkontz proposamenaren esplikazioa. Esplikazio horrekin kontalariak Indianoaren "batpateko iratzartzea" leundu nahi du, sustraiak eleberrian kontatu ez den lehenaldi batean bilatuz eta Bilboko ikustaldia lehendik zetorren "zer" horren katalizadoretzat joz.

Mañasiren ezetzak proposamenak sortutako narrazio-iturriari bukaera emango dio. Baina peripezia berri batean sartzeko abiapuntua izango da: ezezko horrek eramango du Indianoa Mañasiren gurasoengana, gatazka berri bat sortu eta honekin batera mataza aurreratuz.

Mañasik Indianoari emandako ezezkoa ez da ezagutuko Arranondon —Anjelen iritziak ezagutzen ez ziren bezala, gurasoek Antoni Errotarekin ezkondu nahi zutenean—; bai, ordea, Mañasiren gurasoek ezkontza honi ematen dioten oniritzia —Anjelen gurasoek hau Antonirekin ezkontzeari ematen zioten oniritzia ezagutzen zen bezala—. Eta ezkontzera doazen berriak bertako jardun-etxe, batzar-toki eta ardandegiak igaroko ditu —Anjelen kasuan bezala—, korapilo askatzeari begira bete behar zuen funtzioa betez: Anjelen ezaguerara heldu eta honen iratzartzea Mañasirekiko maitasunera zilegiztatu. Funtzio hori, hain zuzen, lehen Mañasiri berriak igortzen zizkioten jardun-etxe, batzar-toki eta ardandegiek betetzen zuten alderantzizko funtzioa da: Mañasiri igortzen zizkiotenek mataza korapilatzen zuten eta peripezia berriak sortzen zituzten.

Anjel ezkontzera omen doa du abiapuntu eta Mañasi ezkontzera omen doa helmuga Arranondoko mintzagaiak. Egoera berria sortzeko erabilitako baliabideak aurreko Mañasiren egoera nahigabetuak sortzeko erabilitako berak dira. Herrian zioten eta Mañasik handik jasotzen zuen albistea. Herrian diote eta Anjelek hemendik jasotzen du albistea orain. Arranondoko jardun-etxe eta batzar-tokiak jarraitzen dute Mañasi eta Anjel elkarrekin kontaktuan jarri eta batetik besterako berri-transmisioa egin eta igorbide izaten. Lehen Sardinzarrak ziren igorle eta Mañasi hartzaile; orain, berriz, Txanogorritarrak izango dira igorle eta Anjel hartzaile. Mezu-igorpenaren garapen-koordena-

dek ere lehenean diraute: lehen mota honetako komunikazioak gaian interesatuen zeuden bi gazteen (Anjel eta Mañasi) informaziorik ezean oin hartzen zuen; orain ere informazio-eza da nagusi irakurlearen konplizitatearekin; Anjelek ez bait du Mañasik dioena ezagutuko, lehen honek Anjelek zioena ezagutzen ez zuen bezala. Igorleak hartzaileari bidaltzen dion esakuneak subjetu-aldaketan bakarrik aurkitu du desberdintasuna, gainontzean errepikatu egiten bait da: "ezkontzera omen doa".

Alde batetik bestera berriak helerazteko eratzen den katea honetan enuntziazioaren subjetuek, egoera erreal baten berri-igorle baino, berri-igorle interesatu moduan sortzen dituzte esakuneak. Etxeko sukaldetik altaboz-funtzioa bereganatuko duten Arranondoko batzar-tokitara berriak egiten duen ibilbide horretan matazaren garapenerako zeharo funtzionala izatera helduko den itxuraldaketa jasango du. Enuntziatu-ekoizleak beraien nahiei erantzuten dieten komunikazio-sortzaile bihurtuko dira eta ez seme-alabengandik jaso dituzten mezuen igorle.

Ez dago komunikazio zuzenik Mañasi eta Anjelen artean, eta zeharkakoa itxuraldaturik iristen zaie. Eta itxuraldaturik heltzen zaizkien berri horien arabera jokatzen dute.

Mañasi Indianoarekin ezkontzen deneko berria jasotzen duenean Anjelek, "Erriberako malletan" izan zuen elkarrizketa datorkio oroimenera, Mañasi salatzen zuen aurpegikera hura gogora. Eta peripezia berri bati hasiera emango dion jarrera hartuko du: Mañasi samindu, Antoni Errotarekin ezkonduz. Anjel Antonirekin ezkontzen zela jakitean, Mañasik hartzen ez zuen bezalako jarrera da Anjelen hau: nahigabeak "ekitera" bultzatuko du Anjel, Mañasi "egotera" bultzatzen zuen bezala: egotera eta otoitz egitera, hain zuzen.

Anjelen jarrera honek hirugarren aldiz eramango du lelo berdina Bilbon dagoen Mañasirengana, Josepak igortzen dion eskutitzaren bidez (100). Berriro negarra eta nahigabea Mañasirentzat.

Hirugarren albiste honek badu orain artekoek ez zeukaten ezau-

(100) "Ixil aldi andia izan da —esaten eutsan Josepak— guzur asko ibilli dira emakumien aoetan, danok uste izan dogu galduta egoala, baña egia da oraingoan, ziur ziur dakit: Anjel laster ezkontzen da Antonigaz" (**Kresala**, 170. or.).

garri bat. "Ezkontzera omen doa" leitmotiva (101) duen matazan elementu berri bat sartzen da, tentsioa areagotuz: orain berdin dakite pertsonaiek, irakurleek eta kontalariak (ilusio hori sortzen du behintzat). Oraingoan Anjelek berak eskatu du Antonirekin ezkontz harremanetan hastea. Ez da gurasoen nahia edo Anjelek besterik esanda herrian berri hori zabaltzea. Ez dago horrelako jokorik. Bat datoz Anjelek, gurasoek eta herriak diotena. Lehen aldia da ez dagoela kontraesanik hiruren artean. Bukaera zoriontsu batera heltzeko irekita gelditzen zen orain arte atea Anjelen gurasoen esana eta semearena bat ez etortzean. Orain, ordea, itxi egiten da atea adostasunera iristen direnean. Eta amaiera zoriontsua zalantzan jartzen da eta matazaren askaera ustegabekoa izan daitekeenaren ilusioa piztu eta kuriositatearen (102) termometroa igo.

Ilusio horrek ez du, ordea, narrazioan luzaro iraungo; izan ere, kapitulu-bukaerako Anjelen "Masiori be emongo jako" (**Kresala**, 167. or.) hori "ezin eban Anjelek iñondik iñora Antonirentzat masirik emon" (**Kresala**, 169. or.) bihurtuko bait da hurrengo kapituluaren hasieran. Eta honekin batera oztopo berrien zantzuak azalduko dira: hain zuzen, saminaren eraginez Anjelek Antonirengana hurbiltzeko dituen eragozpenak aditzera ematen dutenak. Nolanahi ere, "masirik" eman ezin horrek ez darama berehala harremanak haustera. Bere barne-gogoetetan honela dio: "Biziko nintzan ni Mañasigaz" (**Kresala**, 170. or.). Bizi duen testuinguruan horrek ezina adierazten du (103).

(101) W. Kayser-ek "los motivos centrales que se repiten en una obra o en la totalidad de las obras de un poeta" esanez definituko du leitmotiv-a. Ik. KAYSER, W.; **Interpretación y análisis de la obra literaria**, 90. or.

(102) "A todos nosotros nos pasa como al marido de Sherezade: queremos saber lo que ocurre después. Esto es universal, y es la razón por la que el hilo conductor de una novela ha de ser una historia. Algunos no queremos saber nada más; no albergamos nada más que una curiosidad primitiva y, en consecuencia, los demás juicios literarios nos resultan grotescos". FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, 33. or.

(103) R. M. Azkuek "tiempo simple de futuro remoto" bezala definitzen ditu "biziko nintzan" bezalako aditz-formak. Berak adibide gisa dakarren forma "etofiko nintzan" da eta "había de venir" bezala itzultzen du gaztelerara. AZKUE, R.M. de; **Morfología Vasca**, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969, 530. or.

P. Goenagak honela zedarrituko ditu aditz-forma hauek: "kantatuko nuen =

Ondoren datozen "egingo neban", "eukiko eban", "irabaziko neban", "izango zan"... horiek egindako bidea atzeraezina dela ematen dute aditzera; Mañasirekin ezkontzeko aukerak ahitu egin zaizkio oraingoz behintzat Anjeli; eta Antoniri "masia" eman ezinak ere ez du egoera aldatuko.

XX. kapituluaren hasierako Anjelen gogoeta hauei, Indianoak Mañasiri igorritako bezuza erantsiko zaio kapituluaren amaieran, eta eraztun honekin lortuko du matazaren garapenak suspentse-unerik handiena. Suspentsearen sortzaileak (104) dira kapitulu-hasierako Anjelen hitzak, Mañasi errekupera ezinezkotzat jotzen dutenak, eta kapitulu-bukaerako kontalariaren galdera erretorikoa:

> "Asiko etezan biguntzen Indianoaganako gure neskatillearen biotza? Ez jakin, urreak indar andiak dituta" (**Kresala**, 179. or.).

Eta suspentse honekin batera dator elementu errepikari baten inguruan —ezkontzera omen doa— ehotako ehunaren klimaxa (105). Klimax honen ondoren hasiko da askaera-prozesua.

---

kanta (+ futuroa), (– hipotetikoa), (+ iragana)". GOENAGA, P.; **Gramatika bideetan**, Erein, Donostia, 1980, 2. argitalpena, zuzendua eta osatua, 192. or.

Euskaltzaindiak (gaur) **hurbilduko** nintzen "me acercaría, j'approcherais" bezala itzultzen du. EUSKALTZAINDIA; **Euskal aditz batua**, Euskaltzaindia, San Sebastián, 1979. (Taulen prestatzailea: Txillardegi), 12. or.

(104) **Kresala** eleberria **Euskal-Erria** aldizkarian argitara zen atalka, 1901-1905 urteen artean. Hala ere, ez du betetzen beti XIX. mendean hain hedatua egon zen argitaratze-modu honi loturik aipatzen den ezaugarriren bat. R. Bourneuf-ek atalka argitaratzen ziren eleberriei buruz honela dio: "La frase-tipo: 'Una mano enguantada que sostenía un revólver cargado se deslizó por la puerta entreabierta; sonó un disparo...', que ponía el punto final a un capítulo semanal de idéntica extensión, pretende mantener despierta la curiosidad del lector hasta la próxima entrega del periódico". Ikus BOURNEUF, R.; OUELLET, R.; **La novela**, 168. or.

Nekez jotzen du D. Agirrek baliabide honetara. **Kresala**n lehen kapituluaren bukaera "Sardinzarren potiña zan agertu etzan bakarra" (20. or.), bigarren kapituluan jarraipena duena eta goian esandako XX. kapitulu honen bukaerak aipatuko genituzke nabarmenen kuriositate hori bilatzen duten kapitulu-amaiera bezala.

(105) "Momento de tensión culminante entre las fuerzas que se enfrentan en el mundo de la ficción dramática y narrativa. A partir de este momento se desencadena el proceso que llevará al desenlace". JARA, R.; LERTORA, C.; VARGAS, J.; R. de LERTORA, P.; ORTEGA, J.; **Diccionario de Tĕrminos e "Ismos" Literarios**, Ediciones José Porrúa Turanzas, S.A., Madrid, 1977, 31. or.

Arranondotarrek bero-beroan biziko duten hauteskunde-kanpaina baten ondorengo hauteskunde-egunean hasiko da korapilo-askatzea.

Mikolen eta bere adineko beste arrantzale askoren "harrotasuntxoak" ez du gatazkarik sortzen. Bai, ordea, Matxin Koiperen "harrotasunak"; Antoni Errotaren aitarenak, alegia. Hauteskunde-garai honetan, Anjelen gurasoen haserrea ekarriko du. Eta ezkontzaren agente suspertzaileen eraginak komenientzien arabera erabakitako harremanen hoztasuna. Hauteskunde-egunean bertan Anjelen jarrera-aldaketaren lehen zantzuak agertuko dira, Mañasiren aitari Indianoarekin dauzkan zorrak kitatzeko prestatzen zaionean.

XXI. kapituluan hauteskundeen inguruan hasitako askatze-prozesuak jarraitu egingo du XXII.ean, Arranondon hain urri dagoen "urreak" eragindako Indianoaren eta Mañasiren arteko ezkontza haustean. Urre-nahiaren gainetik dagoen arrazoia izango da eragile: Eliza; hain zuzen, arranondotarrak "Bedar txarrengandik" bereizten dituen ezaugarrietariko bat. Elizkoitasunean ere mailak daude Arranondon: Mañasi oso elizkoia da; bere gurasoak, berriz, epel samarrak. Baina, epeltasunak epeltasun, Mañasiren gurasoek ezin onar dezakete ezkontza zibil hutsa.

Bata bestearen ondotik, kapitulu bakoitza bukaera zoriontsua prestatzen ari da amaiera hori gauzatu behar duten gazteak gurasoek ezarritako zametatik askatzen diren neurrian.

Hurrengo kapituluan bertan helduko zaio Mañasiri Anjelen ezkontz proposamena, Artobero eta Josepa ezkonberrien bidez heldu ere; kontalariak orain arteko joerari jarraiki ez bait du "tarterik" kontatuko. Mañasiren helburua lortu da, Mañasiren bilaketa pasiboa amaitu da (106); kontalariaren efektu-kolpe honen bidez amaitu ere. Eta zinez efektu-kolpea, ez bait da kontatzen Anjel ezkontz proposamen horretara eraman duen prozesua.

Mañasik mataza guztian zehar egonean bilatu duen helburuaren

---

(106) "Cuando un proceso de mejoramiento llega a su término alcanza un estado de equilibrio que puede marcar el fin del relato. Si el narrador elige proseguir, debe recrear un estado de tensión y, para hacerlo, introducir fuerzas de oposición nuevas o desarrollar gérmenes nocivos dejados en suspenso". BREMOND, Cl.; "La lógica de los posibles narrativos" in **Análisis estructural del relato**, 102. or.

lorpenak ez du, ordea, kontaketaren amaiera ekarriko; tentsio-iturri berri bat lotuko bait zaio ordu gutxi barru, desoreka orekatzen duen albisteari. Beste ekaitz bat eta ekaitz honen emaitza: Sardinzarren txaluparen hondoratzea, "...¡ ciero bilbainok" dioenez. Berriro ere, negarra eta samina, desoreka sortzeko urrats berria, bortitzena (107); izan ere, itxaropenak errealitate bihurtu ondoren, errealitatea eta itxaropenak betiko galtzera bait doaz.

Kontaketak hartarako "biderik egin gabe" eta batpatean gertatzean, ezkontz eskari txundingarri eta txunditzailearen efektu berdina erdietsiko du azken gatazka honen amaierak, Bilboko egunkariak dioenaren eta berez gertatu denaren arteko kontrasteari esker. Baina kontalariak ez du aurreratuko. Bera Bilbon dago eta, Mañasik dakienarekin bat eginaz, "honekin batera etorriko da" Arranondora hildakoen aldeko elizkizunetara.

Ekintza-egarriak eraginda peripezia batetik bestera etengabe ibili eta prozesuak ezkutatu dituen kontalari hau "gelditu" egingo da une dramatiko hau kontatzeko. Mañasik Bilbotik Arranondora egiten duen bidaia luzatzea bilatzen du, honek "zalpurdian" pentsatzen duena eta ikusten duena testuratuz; orain arte ez bezala, historiaren denboraren erritmoa geratuz; elipsiak pausagatik trukatuz; azken efektu-kolpea Arranondora heltzen direnerako gordez: Anjel elizan dago. Ez dira Sardinzarren txalupako guztiak ito.

Tentsioak amaitzean, mataza ere bukatu egiten da. Epilogo batek emango ditu azken berriak: Anjel eta Mañasi senar-emazteen arteko zorionaren albistea, besteak beste.

Arranondoko ohizko bizitzan lekutu da maitasun-historia, errepikapenean higitzen den bizitzan. Eta eszenario horretan garapen lineal bat izan du. Iraun, berriz, Mañasik eragozpenak gaindituz bere helburua erdietsi bitartean iraun du.

Narrazio-aditzek adierazi dute XIX. mendeko urte batzutan garatu zela historia, orduan eta horrela gertatuko historia bezala itxuratuz, berriro modu berdinean garatuko ez den gertaera bezala

(107) "Una ley general de la narrativa exige que a la sucesión temporal corresponda una gradación de intensidad. Según esta ley, la última experiencia debe ser la más fuerte". TODOROV, Tz.; "Lo verosímil que no se podría evitar" in **Lo verosímil**, Editorial Tiempo Contemporáneo, Colección Comunicaciones, Buenos Aires, 1970, 175. or.

eraikiz eta bere leku-denbora koordenadak izan zituen jazoera bakan bezala gorpuztuz.

1.1.2.1. *Protagonismo "indibidualak"*

Mañasi, Anjel, Tomasa... ez dira benetako pertsonaia indibidualak. Ez daude banakotasun bezala karakterizaturik. Mataza singularrean protagonismo handiagoa edo txikiagoa izan arren, pertsonaia-tipoak dira; pertsonaia estatiko, ideia baten edo batzuren inguruan taxutuak (108).

Mañasik, Anjelek, Sardinzarrek, Txanogorrik... itsasoan daukate ogibidea, arranondotar legez: batzuk arrantzan, besteek arraina lantzen lehorrean. Gazteak zertxobait gehiago eskolatu dira arranondotar gazte gehienak bezala; arranondotar guztiak bezala euskaraz mintzo dira; elizkoiak dira, batzu besteak baino epelago badira ere; eta zintzoak, Indianoa, "Bedar txarren" historia honetako ordezkaria, ez bezala.

Mañasik, matazako protagonista pasiboak, ezaugarri psikologiko eta soziologiko orokor guzti horiek dauzka. Eta, banakotasunari begiratuz gero, **Kresala**ko gainontzeko pertsonaiek ez bezalako neurrian batzu: elizkoitasuna eta zintzotasuna, adibidez.

Eleberri-hasierako Mañasi "ona, lirain maratz garbi ederra" hobeagotu, lirainagotu eta ederragotu besterik ez da egingo matazan barrena. Hori da jasan dituen eragozpen guztien emaitza. Pertsonaia estatikoa da, izaera konstantean, irauten duena. Aldaketarik gabe, izaera horren ezaugarriak gehiago azpimarratu besterik ez du egingo.

Anjeli buruz ere Mañasiz esandakoa errepikatu behar. "Errian dagoan mutillik zintzoena"-k, "aingeruak langoxe ona"-k bere horretan jarraituko du matazan barrena. Ezkontidegaiz aldatzea ez da izaera-aldaketaren ondorena, "iratzartze" baten ondorena baizik: bere ontasunak eta zintzotasunak ezkontidegai ona eta zintzoa eskatuko diote, Antoni ez bezalako bat.

---

(108) "Un caso particular de personaje estático: los llamados **tipos**. En ellos los atributos no sólo permanecen idénticos, sino que también son muy escasos y con frecuencia representan el grado superior de una cualidad o un defecto (por ejemplo, el avaro que sólo es avaro, etc.)". TODOROV, Tz.; "Personaje" in DUCROT, O.; TODOROV, Tz.; **Diccionario enciclopédico de las ciencias del lenguaje**, 251-252. orr.

Sardinzar senar-emazteak eta Txanogorri senar-emazteak "umien zorionari baño euren (gurasoen) uste ta gogoari geiago ta obeto begiratu" (**Kresala**, 115. or.) ohi dioten horietakoak dira; okerrenak emazteak izaki. "Urreak" itsutuko ditu batzu eta besteak, urre-nahi hau gatazka-eragile eta mataza-sortzaile bihurtuz. "Epeltasunak" deskribatuko ditu elizkoitasunean, bi muturretatik urrun: ez daude Indianoa bezain aurka, ez dira Anjel eta Mañasi bezain bero. Horregatik, pertsonaia gizatiar bezala itxuratuz joango dira, matazako pertsonaiarik gizatiarren bezala. Ez ontasunaren muturrean, ez gaiztotasunarenean ere, beraiek hurbiltzen dira gehien gizakiak duen "konplexutasunera", manikeismo merketik urrun samar.

Dena dela, izaeraz ez badira ere mutur batean edo bestean kokatzen, bereziki azpimarkatuko dira matazan izaera horretan funtzionalitatea daukaten ezaugarriak. Eta horiek eraginda bakarrik higituko dira, hain zuzen: "urre-zaletasunak", "elizkoitasunak" eta "askatasunak".

Gurasoen "urre-zaletasuna" izango da gatazka-sortzaile. Haiek, ezaugarri hau eragile, sortu dute desoreka seme-alabengan. Beste ezaugarri batzuren eragiletasunak —"elizkoitasunak" kasu batean eta "askatasunak" bestean— neutralizatuko eta garaituko du indar hori, seme-alaba horiek oreka berri baterako bidean jarriz. Baina ez gurasoak aldatzen direlako edo diruzaletasuna bukatzen zaielako; baizik eta balore horren gainetik besteak daudelako, eta ezkontezinak bihurtzen direnean, balore nobleak gailentzen direlako.

Arranondotar batetik bestera berdinak dira ezaugarri orokorrak. Kantitateak bakarrik bereziko ditu elkarrengandik. Ezaugarri orokor horietakoren bat ukitzean sortzen dira hausturak.

Txanogorri senar-emazteak kristau epel samarrak dira, baina Arranondo "erri sinistetsu"-ak osatzen duen elkartearen partaide. Eta Indianoak zibilez bakarrik ezkontzea proposatzen duenean, ezin onar dezakete, nahiz eta kristau epelak izan; berentzat "kristautasunaren" mugak gainditzen bait ditu.

Balore horien mugak gaindituko ditu Matxin Koipek ere hauteskunde-egunean, Sardinzarri botoa eskatzen dionean. Eta hortik etorriko da hitz emandako ezkontzaren haustura.

Matazaren garapenerako funtzio huts izatera murriztuta dago Antoni, gatazka sortzeko nahitaezko den funtzio bat betetzera. Per-

tsonaia harro samar bezala karakterizatuko du kontalariak bere aurkezpenean. Eta, beste pertsonaia guztiekin bezala, kontalariaren aurkezpena bat etorriko da eszenaratzen den une gutxi eta laburretan pertsonaiaren esanak agertzen duenarekin. Mataza osoan iraungo du aurkezpenetik bertatik dakarren markak. Mañasirengandik berezia, nabarmen uzten du adjetibazioak eleberrian duen presentzia narratiboak nor den kontalariaren gogoko. Jarrera hori azken mugetaraino eramanez, bukaera zoriontsua prestatuko dio Mañasiri. Eta Antoni, berriz, honako deskribapen honekin kondenatuko du (109): "neskazar itxura andikoa, zedenak jandako arpegiagaz gaixoa, bada naparrei edo sakutea izan eieban" (**Kresala**, 234. or.). Bere "bekatu" bakarra, zein eta Anjelekin ezkondu nahia besterik izan ez denean.

Antonik duen presentzia narratibo laburrak, kontalariak eskaintzen dion arreta txikiak, oso pertsonaia funtzionala bihurtzen du. Gatazka sortzera murriztu du bere presentzia. Honek bakarrik justifikatzen du beste arranondotar batzuk baino garrantzi handiagoa izatea kontaketan.

Anjel ez bezala, Indianoa "kristiñau otza ta euskaldun badaezpadakoa" da. Hala dio kontalariak, hala uste du Mañasik eta hala itxuratuko dute bere esanek. Matazan "Bedar txarren" ordezkari gisa funtzionatuz, pertsonaia estatikoa da, gainontzekoak bezala. Ez da aldatuko. Eta Antoni bezala, Mañasiren aurkaria bezala, Anjelen aurkari hau ez da kontalariaren gogoko izango. Eta adjetibazioekin hasten zen mespretxuak amaiera latzera eramanez bukatuko du: Ameriketara joango da berriro diru guztiak xahutu ondoren.

Anjel, Mañasi, Indianoa... matazara ekarritako pertsonaia-tipoak dira. Ezer esan edo egin aurretik karakterizatuak ditu kontalariak. Eta karakterizazio horretatik bertatik determinaturik gelditzen dira: aurrerantzean kontalariak erabilitako adjetibazioari erantzungo diote;

---

(109) "Es indudable que la disposición del autor varía cuando crea personajes que responden a sus propias ideas, o cuando da vida a otros cuyas actitudes e ideas rechaza. En los primeros suele haber una simpatía que se traduce a nivel verbal en adjetivos meliorativos, en juicios favorables, en su triunfo final; a los segundos suele presentarlos con más pasión, o bien distanciarlos mediante un tono irónico, o sarcástico, etc". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 136. or.

espero zitekeen bezala jokatuko dute, adjetibizazio horretatik urrundu gabe; ez dute harritzeko ahalmenik izango (110).

Kontalariak matazaren garapenean bilatzen du irakurlearen harridura, kontaketan pertsonaien egoera-aldaketa ezkutatuz. Esate baterako, Anjelek Mañasiri ezkontz proposamena egiten dionean, pertsonaiek badute txunditzeko ahalmenik (Anjelek bezala batpatean Mañasiz maitemindurik dagoela ohartzean), baina ez erabatekoa; ez dute komentzitzen (111). Pertsonaia estatiko hauek sortu dituen kontalariaren menpe daude, ez dute askatasunik izango eta kontalariak mugituko ditu (112) kupidarik gabe. **Kresala**ko pertsonaiak otzanak dira, ez dira errebelatzen; ez ekaitzak sortzen dizkien hondamendien aurrean —gogoetetan murgilduz edo desesperatuz...—, ez eguneroko bizitzaren gogortasunaren aurrean, ez maitasun ez-egokitu baten aurrean —Mañasi—, ez kontalariaren aurrean. ETSI aditzak laburtuko luke ondoen arranondotarren bizitza. Etsipen berbera dute kontalariarekiko. Ez dute inoiz honen eskutik ihes egingo (113) bere bizitza propioa bizitzera.

---

(110) Nahiz eta **Kresala** XX. mendean argitaratutako eleberria izan, A. Amorós-ek XIX. mendekoari buruz dioen hau aplika dakioke: "La crítica de nuestro siglo se ceba, lógicamente, en la concepción decimonónica, estable, del mundo novelesco. Dice Gide: 'Lo que hace artificiales a los personajes literarios es su consistencia, el hecho de que obren siempre exactamente como uno lo espera'". AMOROS, A.; **Introducción a la novela contemporánea**, 42. or.

(111) E.M. Forster-ek pertsonaia lauak (flat) eta borobilak (round) bereizten ditu. Borobilei buruz, besteak beste honako hau dio: "La prueba de un personaje redondo está en su capacidad para sorprender de una manera convincente. Si nunca sorprende, es plano. Si no convence, finge ser redondo pero es plano. Un personaje redondo trae consigo lo imprevisible de la vida —de la vida en las páginas de un libro—". FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, 84. or.

(112) "Los hombres ya no son individuos, sino peones en un tablero de ajedrez". BOURNEUF, R.; OUELLET, R.; **La novela**, 224. or.

(113) Pertsonaien sortu dituenarekiko errebeldia aitortzen du M. Vargas Llosa-k. **La casa verde** nola landu zuen kontatzen ari dela, nobela horretako "Padre Garciaz" honela mintzo da: "El Padre García iba a ser uno de los 'héroes negativos' de la novela, un personaje que serviría para zaherir y dibujar con rasgos caricaturales el espíritu dogmático y clerical. Pero, como ya me había ocurrido antes, cuando escribía **La ciudad y los perros**, —un personaje, el teniente Gamboa, concebido como uno de los más odiables del libro, resultó uno de los más simpáticos—, comprobé otra vez que una cosa es la novela proyectada y otra la novela realizada (...). Mientras escribía el libro, el fanático incendiario se fue

1.2. KONTALARIA: GELDIRIK DAGOEN DENBORA, ARTXIDENBORA

Egoera linguistiko diskurtsiboek eta narratiboek osatzen dute **Kresala**: lehenek komentatu egingo dute, bigarrenek kontatu. Maiz egiten da batetik besterako igarobidea, sarritan kontatuari singularta-suna kenduz, eta beste batzutan gertatu ohi denarekin parekatuz.

Kresalako mundu komentatuan iterazioaren marka daramaten aditz-denborak eta marka hori ez daramatenak berez daitezke; alegia, ohizkotasun bati atxikiak daudenak eta ohizkotasun horren higidura zirkularrean sartzen ez direnak. Ohizko orainaldiaren bidez aditzera ematen dira lehenak eta orainaldi soilaren bidez bigarrenak.

Esaten genuen aurrerapenik gabeko denboran murgilduta dau-dela arranondotarrak: errepikapenaren denboran. Mañasik ibilbide propioa egingo du denbora espezifiko batean, bere helburua lortu arte. Baina bada beste berbaldi-mota bat, orainaldian aditzera emana, geldirik dagoen denbora izendatzen duguna.

Arranondotarren bizitza ziklo bati lotuta dago: negua (bixigu-tea), Garizuma (antxoa eta txartelak), agorraren erdirarte, atuna... Baina ziklo bati atxikia ez dagoen orok beste tratamendu diskurtsibo bat izango du orainaldiaren bidez. Orainaldi honek artxidenbora (114) bezala funtzionatzen du joera bezala, lehena, oraina eta geroa bere baitan bilduko balitu bezala.

Orainaldi hau **Kresala** osatuz joango da eta aldiberean erliebea sortuz arranondotarren ohizko bizitza deskribatzen duenarekin eta fikzioaren lehenaldiarekin. Hiru testu-motaren sintesi izaki (lehena,

---

transformando, poquito a poco, inexplicablemente, en un golpeado y tierno ser humano, también en una víctima, a quien atormentaban los chiquillos en las calles de Piura llamándolo 'quemador', un viejecito un poco renegón pero todavía capaz de despertar un sentimiento de solidaridad". VARGAS LLOSA, M.; **Historia secreta de una novela**, Tusquets Editor, Barcelona, 1971, 57-58. orr.

(114) "Ahora bien, en cuanto al presente como tiempo fundamental del grupo I, se ha observado más de una vez que puede muy bien concebirse como 'architiempo' o como 'tiempo con perspectiva cero'. (...). El presente no facilita clase alguna de orientación en el Tiempo, pero hemos de señalar una salvedad: el presente no es en modo alguno el architiempo o el tiempo cero en todos los casos, sino sólo en el mundo comentado". WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, 97-98. orr.

entseiu-prosara hurbiltzen da, eta bigarrena, ohitura-eszenetara; hirugarrenak, berriz, fikzioaren statusa du) eta elkarrekin estu loturik, aldatzen ez denetik, errepikapenerako eta espezifikotasunerako bidea egiten du. Esate baterako:

"Errekarte ta mendi egal zoko batean dindilizka **dagoen** erri koskor bat **da** gure Arranondo. Uretan **daukaz** oñak" (**Kresala**, 21. or.) / "Ikustekoa **egoten da** orduantxe Arranondo" (**Kresala**, 49. or.) / "Mañasi Arranondon sartu zanean, uri maite onek ilerri andi bat zirudian" (**Kresala**, 219. or.) (115).

Aldatzen ez den Arranondotik, abuztuko jaietan eduki ohi duen itxurara eta hondamendiaren ondoren zeukan itxurara doa deskripzioa. Alegia, "geldirik" dagoen Arranondotik ziklo bateko Arranondora, eta egun berezi batekora, hain zuzen.

Hiru berbaldi-mota hauek presente daude testuan. Hiru berbaldiek itxuratuko dituzte itsasoa, Arranondo, arrantzaleak edo emakumeak...

Berbaldi-mota hau kontalariarena da; beti eta betikoa behingoari eta ohizkoari lotzeko erabiliko du.

1.2.1. **Kontalaria**

Orohar, historiatik at kokatu eta hirugarren pertsonan kontatzen duen kontalari orojakilea (116) da **Kresala**koa. Fikziotik at kokatzea eta "ser forastero a la realidad ficticia" (117) pareko dira

(115) Hitz horiek guk azpimarratuak dira.

(116) Ikuspuntuei buruz kritiko asko mintzatu da eta sailkapen-mota ugari eskaintzen dute. M. Baquero Goyanes honela mintzo da kontalari orojakileari buruz: "El narrador omnisciente, a la manera tradicional, de tono épico, utiliza la tercera persona para narrar desde fuera los sucesos novelescos, pero sin prohibirse a sí mismo —a su voz de narrador— el comentar, adelantar acontecimientos, el caracterizar moralmente a los personajes etc. El narrador está en todas partes, todo lo sabe, actúa como un dios frente a sus criaturas y procura hacérselo ver así al lector". BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**, 124-125. orr. R. Gullón-ek behatzaile sutsutzat jotzen du kontalari-mota hau. Ik. GULLON, R.; **El narrador en la novela del siglo XIX**, 25. or. Tz. Todorov-ek ikuspuntu subjetibotzat joko du. Ik. TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 68. or.

(117) Ik. VARGAS LLOSA, M.; **La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, 222. or.

zenbaitentzat. Baina **Kresala**ko kontalariak, **Garoa**koak bezala, ez du etsitzen erabat fikzioaz landa egon behar horretan; horrela, azkenengo kapituluan fikziozko pertsonaiekin nahastu eta bere burua nobelaratu egingo du dramatizazioaren bidez, errealitatea eta fikzioa bat eginez, honako mezu honetara hurbilduz: errealitatea eta fikzioa ez dira bi gauza desberdin; aitzitik, guztia bizi dugun errealitatea da; ez dago asmatutako fikziorik. Honela, hitzaurreko egilearen hitzak baieztatzen ditu:

> "Bertan agertuko diran gizon da emakumeak eztira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ezpanago ta amesetan ezpanabil, bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez, neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserritan ikusi daikez" (118).

Kresalari hurbildu zaion hainbat kritikok errealtasun hau azpimarkatu du. Pertsonaiak oso errealak direla, irudimenaren fruitu baino gehiago erretratuak ditugula (119). Pertsonaiak ez ezik, agertzen den guztia ere erreala dela esan da (120). Erreferentearekiko fidelta-sun-maila bat ezin uka **Kresala**ri, nola hainbat pertsonaiaren deskrip-

(118) AGIRRE, D.; "**Kresala**. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, 11-12. orr.

(119) Hauetako kritika batzu aipatuko ditugu:

"Beraz **Kresala**'n diran Mañasi ta Tramana, ta Brix ta gaiñerako askoren irudiak berak ageriki esaten dute oriek Lekeitio ta Ondafoa'ko kaian egileak begiratu dituan nexka ta emakumeak dirala". LHANDE, P.; "Agife irakufgaikiña" in **Itzaldiak**, Martin eta Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, 108. or.

"**Garoa** gozo-gozo, **Kresala** bizi-bizi **Kresala**'rako asmatu zituan norkiak bizi ta berezkoagoak dira; ta ezta arritzeko be: norberak bizi izana egoki, errez ta gartsuago azaldu oi dogu". ONAINDIA, A.; "Atari antzean" in **Txomin Agirre. Ondarrak**, 25. or.

(120) Beste batzuren artean kritika hauek aipa daitezke:

"**Kresala**-n azaltzen dan guztia da egilleak bizitakua. Bertako Tramana, Kitolis, Brix ta abar bene-benetakuak dira". SAN MARTIN, J.; "Txomin Agirreren **Kresala** eta **Garoa** nobeleri iritzi batzuek" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

"Pero Aguirre era ondarrés y quiso dar rienda suelta a sus sentimientos y a sus deseos, ya que no a la imaginación, porque '**Kresala**' no es invención sino retrato, presentando a su pueblo y a los suyos al natural, 'alla vera carne', tal como él los conocía, los veía, los oía, sentía y vivía". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, 534. or.

"El ambiente pintoresco de nuestros pueblos pesqueros, sus costumbres, sus motes, su lenguaje y diálogo todo está fotográficamente captado". VILLASANTE, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 327. or.

zioan, hala ohitura-eszenetan eta ekaitzetan ere. Azkenekoa, esate baterako, hondamendikoa, historikoki koka daitekeen galerna da (121). Baina era berean aitortu behar da errealitateak eskaintzen zizkion lehengaiak landu egin dituela egileak. Elementu guzti horiek birregituratu egin ditu **Kresala** sortzeko. Adibiderik sinpleenera jaitsita ere ikus daiteke lantze hori; ez bait dira berdinak **El Noticiero Bilbainok** 1878.eko galernari buruz ematen duen berria eta **Kresalan** egiten den kontaketa.

Kontalaria ez da hirugarren pertsonaren erabilerara ere mugatuko kontaketan. Bere gogokoak dituen pertsonaien gorabeherak kontatzeko distantziamendu handiegia markatzen dio hirugarren pertsona horrek eta lehen pertsonako pluralaz hurbilduko zaie: "Gure arrantzaleok..." (**Kresala**, 42. or.), "gure neskatillea" (**Kresala**, 177. or.), "Gure Itxasgizona" (**Kresala**, 100. or.).

Ikuspuntu orojakilea erabiltzeak beste edozeinek baino muga gutxiago ezartzen dio. Eta aterako dio etekinik, nahiz kontatzean nahiz komentatzean: eszenara ekarri aurretik pertsonaiaren ezaugarri nagusiak aditzera emanez, gero pertsonaiek "hitz egitean" kontalariaren esana baieztatu egingo dute eta errepikapenaren bidez ezaugarri horiei tinkotasun handiagoa eman; pertsonaien barne-bizitzaren berri ematea komeni zaionean; ezkutatzea, "suspentsea" edo beste egoeraren bat sortu nahi duenean...

Kontaketaren jaun eta jabe izaki, fikzioan sartu ez ezik, fikziotik irten ere egin daiteke kontalaria, asoziazioz edo analogiaz gogora etorritako pasarteren bat kontatzera.

Fikzioan sartzen den kapituluan agerian uzten du bere statusa: ekonomi mailagatik, kultura-mailagatik eta botere-mailagatik arranondotarrek errespetatzen dutela; beraiek baino "gorago" dagoela. Nolanahi ere, badirudi kontraesana dagoela hizkuntz tratamenduan.

Kresalari egindako hitzaurrean honela dio D. Agirrek hizkuntzaren tratamendu-formei buruz:

> "Danok dakigu iru eratako izketea egiten deutsagula euskaldunok alkarri: **i**-gaz esaten dana lenengoa, **zu**-gaz esaten dana bigarrena ta irugarrena **berori**-gazkoa. Lenengoaren zalea naz, zarrena dalako, ta

(121) Ik. ZAVALA, A.; "La galerna de 1878" in **El Diario Vasco**, jueves, 2 de mayo de 1984, 48. or.

opa dot bere bizitza luzea; baña antziña il zan Arranondon da orregaitik ezta emen agertuko izketa zar ori" (122).

Lehen aipatu bezala, kontalariak egileari jarraiki (123) ez du hitanorik erabiliko erreferentearekin zintzo jokatuz; baina bai beste bi tratamendu-formak modu adierazgarri batez. Erreferentearekin bat etorriko liratekeen moduak baina ez horregatik adierazgarritasuna galtzen dutenak izango dira.

Kresalako zenbait pertsonaiak "jauna" edo "andrea" tratamendua daramate beren statusaren arabera. Batzu arrantzaleak dira, beste batzu arrain-saltzaileak... Baina "Bedar txarrak", "Ontziagintari zarra" eta kontalaria "jaunak" dira; Mañasik Bilbon daukan etxekoandrea, berriz, "andrea".

Arranondotarrek elkarrekin hitz egitean "zu" tratamendu-forma darabilte, ez bada seme-alaba eta gurasoen arteko harremana; baina "jaun" bati edo "andre" bati zuzentzean, "berori" (124) erabiliko dute, eta "jaun" edo "andre" horietakoren bat arranondotarrei zuzentzen zaienean, aldiz, "zu".

Txanogorrik Indianoari dio: "Baña, Jauna, zer dakar gure etxe zarrera berori lango gizon batek?". Eta honek erantzun: "Niri ez zuk jaunik esan. Zuk niri **seme** esan behar deustazu" (**Kresala**, 133. or.).

Mañasik Bilbon daukan etxekoandreari dio: "-Ixillik egon bei, Jaungoikoagaitik! Berorren esanakaz, nengoan baño geiago lotsatuten nau". Eta honen erantzuna izango da: "Baña ezteritxozu ain txarto andikia izateari" (**Kresala**, 174. or.).

Artobero "berori" tratamenduz (125) zuzenduko zaio "entzui-

(122) AGIRRE, D.; "**Kresala**. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, 12. or.

(123) "El héroe 'tradicional' con su fábula 'tradicional' es una criatura del autor. Además del héroe y de su fábula crea todavía el autor, un tercero, a saber el narrador. El narrador no es el autor, sino su creación. El narrador, no el autor, cuenta la novela". CONRAD KURZ, P.; "Metamorfosis de la novela moderna" in **La nueva novela europea**, Ediciones Guadarrama, Colección Punto Omega, Madrid, 1968, 35. or.

(124) Salbuespen bat erantsi beharko litzateke: Mañasik ez du Indianoarekin "berori" tratamendu-forma erabiltzen, nahiz eta hau D. Jose Antonio izan.

(125) "Es también cierto que no pudiendo familiarizarse esas flexiones corteses de segunda de plural, hemos (y valga la palabreja) supercortesanizado la forma ordinaria, recurriendo al romance, como de costumbre en tales casos de ñoñez,

zu" batez zuzendu zaion kontalariari; baina bada elkarrizketan tratamendu-mota hau behin hausten duen aditz-forma bat: Artoberok kontalariari "Txalopa jaube andiak **dituzu**..." (**Kresala**, 231. or.) (126) dio Anjel eta Mañasiri buruz. "**Dituzu**" aditz-forma azpimarratu egin du kontalariak berak Artoberoren hitzak testuratzerakoan, berezitasuna seinalatuz berbaldiaren testuinguruan. Zalantzarik gabe, funtzio estilistiko bat izan dezake zukako aditz-forma etiko honek (127) "berori" tratamenduan ematen den elkarrizketa honetan; baina aditzera ematen duen hurbilpenak (128) —Artobero hurbiltzen zaio

---

creando 'vuesa merced' **berori** y 'vuesas mercedes' **berok, eurok** y usando como flexiones verbales las de tercera persona: **berori dago, berok (eurok)** dagoz **(daude)**. AZKUE, R.M. de; **Morfología Vasca**, II, 595. or.

(126) Ez dirudi, inolaz ere, erratatzat jotzerik dagoenik. Lehen argitalpenak, **Euskal-Erria** aldizkarian egindakoak, ez du jasotzen kapitulu hau, ezta honen aurrekoa ere. Beraz, 2. argitalpena har genezake kontsulta-gai bakartzat, D. Agirre bizi zelarik argitalpen hau bakarrik ezagutu bait zuen **Kresala**k liburu gisa. Hemen ere "Tšalopa jaube andiak dituzu..." dio. Ik. **Kresala**, Florentino Elosu-ren echean, Durango, 1906, 2. agerraldia, 219. or.

(127) P. Lafittek bost boz bereziko ditu euskaran. Horietako bat datibo etikoa izaki, honela definitzen du: "Enfin, le verbe peut s'accorder non seulement avec les sujets et les compléments, mais même avec la personne à qui l'on s'adresse. On connaît le **datif éthique** ou de familiarité". LAFITTE, P.; **Grammaire basque. (Navarro-Labourdin Littéraire)**, Elkar, Donostia, 1962, édition revue et corrigée, 193. or.

Aipatzen dugun argitalpen hau Elkar eta Ikas-ek fotokopiatutako 1962.ekoa da. Aurrerago P. Lafittek **-k** marka "pour le tutoiement masculin", **-n** "pour le tutoiement féminin", **-zu** "pour le vouvoiement" erabiltzen direla dio (op. cit., 249. or.).

Txillardegik "errespetua merezi duen" pertsonekin hitz egitean erabiltzen dela dio P. Lafittek "pour le vouvoiement" bataiatzen zuen forma. TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Euskal Gramatika**, Ediciones Vascas argitaletxea, San Sebastián, 1978, 414-415. orr.

(128) Nahiz eta P. Lafittek zioen bezala "pour le vouvoiement" erabili edo Txillardegik dioen bezala "errespetua" adierazten duen aditz-forma izan, ezin uka daiteke, berbaldiaren testuinguruan erabat nagusi den "berori" tratamenduarekin alderatzen bada, bi pertsonaien arteko hurbilpen bat dakarrela. R.M. Azkuek berak, D. Agirreren garaikideak, aditz-forma hauek errespetuzkotzat jotzen baditu ere, elkarrizketako igorle eta hartzailearen artean konfidantza dagoenean erabiltzen direla eransten du: "En cuanto a si estas flexiones merecen el apelativo de respetuosas, he de decir que los jóvenes en general no se atreven a decir a personas que les merecen respeto frases como **gu etofi gaituzu, Jauna**, sino simplemente **gu etofi gera** (gara... etc.), guardando el **gaituzu** para personas a quienes se trata, sí de **zu**, pero con cierta confianza". AZKUE, R.M. de; op. cit., 601. or.

kontalariari— ez du jarraipenik izango. Jarraipenik ez duelako esan daiteke, hurbilpen-funtzioa betetzen duen aditz-forma baino gehiago kontalariak kontaketan barrena hainbat bider erakusten duen hizkuntza landu nahiari erantzuten diola eta, honenbestez, kontalaria "berorikako" tratamendua merezi duen "jauna" dela, "Bedar txarrak" eta "Ontziagintari zarra" bezala; baina, "Bedar txarrak" ez bezala, **euskaraz dakiena** eta **eleberria euskaraz idatzi duena**, euskal ohiturak eta Eliza ezagutzen eta maite dituena; baita "Ontziagintari zarrak" defendatzen dituen baloreekin bat etorriko dena ere eta honek eszenaratze bakan batzutan saio (129) gisa defendatzen dituen baloreak defendatuko dituena; ez modu berdinean, ezta hain garratz ere, baina bai defendatu **Kresala**rekin, fabulazioaren (130) bidez defendatu ere, inplizituago edo esplizituago. Horrela, kontalariak hautsi egingo du "Ontziagintari zarrarekin" eta Mañasiren Bilboko etxekoandrearekin batera eleberrian eraikitzen zihoan dikotomia bat; alegia, "jaunen" edo "andreen" kategoria erdaldun, euskal ohituren gaitzesle eta Elizaren aurkako dela dioena "Bedar txarrak" ordezkari dituela, eta euskaldun, euskal ohituren jarraitzaile eta elizkoiak izan baina "jaun" edo "andre" kategoriarik ez daramaten arranondotarrei aurkajarriz. Horrela hausten du testuan (131) "jaun-andre" kategoriak testutik at, errealitateko balore batzurekin zeukan identifikazioa, batipat hizkuntza batekin: erdararekin (132).

---

(129) Saio gisa diogunean, saioaren zentzurik zabalenean diogu, I. Martín-i eta M. Fernández-i jarraiki: "En su acepción más amplia equivale a tratar algo, probar algo, acometer o esforzarse en algo". MARTIN DUQUE, I.; FERNANDEZ CUESTA, M.; **Géneros literarios. Iniciación a los estudios de literatura**, Editorial Playor, Madrid, 1979, 4. argitalpena, 61. or.

(130) "Euskaldunok ez dugu behintzat euskaraz historiak kontatzen dakigunik gehiegi demostratu". LERTXUNDI, A.; "Ipuingintza sugestioaren bidetik" in **Jakin**, 25, 1982, 47. or.

Zinez, fabulazio-maila oso ahula da **Kresala**n. Azken finean, ez da heltzen historia bat kontatzera.

(131) "La novela es un simulacro de la realidad. Se alza frente a ella y se convierte en modelo". PEREZ GALLEGO, C.; **Morfonovelística**, Editorial Fundamentos, Madrid, 1973, 11. or.

(132) Identifikazio hau zein neurritakoa zen aztertzeak oso luze joko luke hemen. Erakuskari gisa, errealitate horri buruz hiru autorek ziotena aipatuko dugu: "Hacia 1754" (Ik. TELLECHEA IDIGORAS, J.; "Introducción" in LARRAMENDI, M. de; **Corografía de Guipúzcoa**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., San Sebastián, 1969, VII. or.) M. de Larramendik idatzitako **Corografía de Guipúzcoa**n dioena, aurretik datorren egoera baten lekuko bezala, eta D.

A. Edortak dioen bezala, bere garaiko semea da D. Agirre

Agirreren bi garaikidek ziotena, S. de Aranak eta M. de Unamunok alegia, ideologia eta jokabide desberdinetakoak biak, baina errealitatea epaitzean, nolabaiteko adostasuna erakutsiko dutenak, nahiz eta zergatiak aztertzen edo erremedioak proposatzen bi muturretan ibili.

M. de Larramendiren pasarte luze samar bat transkribatuko dugu, aipatzen genuen XVIII. mendeko euskararen errealitatearen berri ematen digulako eta bertako zenbait gogoetaren oihartzuna somatuko dugulako **Kresala**ko "Bedar txarrengan". Hona hemen M. de Larramendiren hitzak, Bizkaiari ere aplikagarriak izango direlakoan:

"Los que debieran estar más instruidos en lo dicho, son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín. (...). Con el tiempo aprenden sólo a hablar aquel poco vascuence que necesitan para oír y despachar a los caseros y puros vascongados, y nada más, o para una visita o conversación, que ni bien es vascuence ni bien romance. Aplicarse éstos a estudiar su lengua con curiosidad y gramaticalmente es condenarlos a las minas del azogue: de donde nace que, confesores, son inútiles para confesar con seguridad de sus conciencias y de las ajenas; que, curas y predicadores, son inútiles para predicar y enseñar la doctrina a los pueblos, que son todos vascongados; que caballeretes y holgazanes, son inútiles para conversaciones y tratados (sic) en vascuence. Esto tiene las excepciones que diré.

Lo peor, y lo que no puede tolerarse, es que toda la culpa de su ignorancia y de su inculta haraganería y vituperable inaplicación se la recargan al vascuence mismo, como que no da más de sí. (...). Digan no da más de sí su poca instrucción y mucha ignorancia en general de las lenguas, de su origen, de sus defectos, de sus perfecciones, y en particular del vascuence, su lengua materna, tan primorosa, a la cual sin punto ni honra la desacreditan sin saber escribir ni leer una carta en vascuence, (...). Excúsanse también diciendo que ya se entiende bastantemente el castellano en los lugares de Guipúzcoa, y que estando ellos más acostumbrados al castellano, echan mano de él en visitas y conversaciones". Ik. LARRAMENDI, M. de; op. cit., 283-284. orr.

M. de Larramendiren **Corografía de Guipúzcoa** argitaratu eta mende bat baino beranduago, egoera larriagoa aurkeztu du M. de Unamunok (1864-1936):

"Conviene decir, ante todo —argumenta don Miguel—, que hoy son más los vascos que tienen el castellano por lengua habitual y que en castellano piensan. En las villas y ciudades de Cataluña todo el mundo, incluso las gentes de carrera, hablan catalán; en las villas de las provincias vascongadas, aun donde se habla vascuence, el lenguaje corriente de las personas de carrera y de mucha parte de la clase media es el castellano. Hay más, y es que se verían apurados para seguir ciertas conversaciones en vascuence. Es suficiente éste mientras se habla de cuanto constituye la vida del labrador; pero no sé cómo se habría de discutir en él de arte o de ciencia". M. de Ugaldek aipatua. Ik. UGALDE, M. de; **Unamuno y el vascuence**, Ediciones Vascas argitaletxea, San Sebastián, 1979, 33. or.

Azkenik, S. de Aranaren (1864-1903) pasarte bat erantsiko dugu, beste ikuspuntu batetik idatzia eta aurrekoen osagarri izan daitekeena. **La Patria** egunka-

(133). Baina ez dago konforme. Beste errealitate bat bilatu nahiko du sortzen duen kontalariaren bidez, matazaren bidez, mataza hau eusten duten pertsonaien bidez eta abar: hain zuzen, euskararen, euskal ohituren, elizkoitasunaren hedadura soziologikoa aldatzen duen errealitate bat. Abiapuntu bezala daukan errealitatearen mimesi (134)

---

rian "Causas del mal" izenburupean 1899. urtean argitaratutako artikuluan zenbait euskaldunen —Euskal Herrian bizi direnen— traizioa salatuko du, traizio hori nola gauzatzen den adieraziz. Beste zenbait xehetasunen artean hau dio:

"E hicieron más, educaron al pueblo en el amor hacia el enemigo y consiguieron por fin que los euskerianos olvidaran completamente a su Patria guardando todos los sentimientos más fervientes de sus corazones para aquellos mismos que ahogaron entre sus brazos a nuestra madre debilitada ya por la división y el abandono de sus hijos. Los cuales miran ya como la cosa más natural el exterminio de la raza, la persecución a todo lo que lleve el sello del espíritu cristiano y el desprecio y olvido de la lengua del euskeldun.

Aunque se crea lo contrario, no es en las grandes poblaciones de Euskeria donde se ve más palpablemente; es en los pueblos pequeños, en las aldeas. En ellas existe la hierba más peligrosa, por lo mismo que teniendo pocos asuntos en qué fijar los aldeanos su atención y siendo casi siempre los propagadores del mal personas influyentes, con facilidad caen aquéllos en el lazo que, ya con mentidas promesas, ya con descaradas amenazas, se les tiende a la continua; al contrario de lo que sucede en las poblaciones, en donde, por lo agitado de la vida y por el menos íntimo roce del elemento podrido con el sano, no es tan fácil ejercer la influencia decisiva y perniciosa que emplean los caciquillos de las aldeas". "Causas del mal" in **Obras completas de Arana - Goiri'tař Sabin**, III, 1730. or.

(133) "Agirre-k etzuan bere denpora utzi etorkizunean murgiltzeko. Bere denporaren ondoraño sartu zan. Denporaren semea zan eta garbi agertzen ditu denporaren markak". EDORTA, A.; "Etorkizuneko gizona" in **Aranzazu**, mayo, 1964, n.º 128, 14. or.

(134) Platon-ek eta Aristoteles-ek ez zuten berdin erabili "mimesi" kontzeptua arteari aplikatzean. Ikus PLATON; **La República o el Estado**, Espasa Calpe, Colección Austral, Madrid, 1980, 14. argitalpena, X. liburua, 277-303. orr. eta **Poética de Aristóteles**, Edición trilingüe por Valentín García Yebra, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 157-162. orr. batipat, non poesia eta historia bereiztea bilatzen duen Aristotelesek. Biak alderatu ondoren honako ondorio hau ateratzen du Vernon Hall-ek: "De aquí que en la poesía resulta más aceptable una imposibilidad probable que una posibilidad increíble (Aristotelesentzat). Esto lleva implícito que el poeta, en lugar de simplemente imitar las cosas de la naturaleza, como afirma Platón, en realidad se acerca más al Ideal, pues —y Aristóteles insiste en esto— el poeta presenta las cosas como debieran ser, y no como son". VERNON HALL, Jr.; **Breve historia de la crítica literaria**, Fondo de Cultura Económica, Breviarios, México, 1982, 26. or. M.H. Abrams-ek ere jasotzen du Platonen eta Aristotelesen arteko desberdintasuna imitazioari buruz. Ik. ABRAMS, M.H.; **El espejo y la lámpara. Teoría romántica y tradición crítica**, 22-27. orr.

soila egitera makurtu gabe, bizi duen errealitatea transzenditzea bilatuko du. Beste errealitate berri bat du amets: **Kresala**koa; hautsi egin nahi du erreferenteak eskain ziezaiokeen berdintasuna ("**jaun**", "**andre**" **berdin erdaldun, ez-elizkoi, ez-euskal ohituren ezagutzaile eta jarraitzaile**) eta errealitate konplexuago bat, desberdina, eraiki.

Nolanahi ere, kontalaria lehen pertsonan (135) fikzioan sartzen denean, ez da pertsonaia konkretu batekin erabat identifikatuko, pertsonaia guztien gainetik dagoen "pertsonaia" bezala itxuratuko da.

Hurbilen dituen "Gure arrantzale" horien gainetik dago kontalaria, horiek ez daukaten kulturaren eta statusaren jabe da, horiek ulertzen ez dituzten hainbat gauza ulertzen ditu, eurena ulertzeaz gain. Izan ere, kontalari honek ezin onar ditzake arrantzale horien jokabide guztiak: antxoa garaiko erriertak, hauteskundeetan sortutako iskanbila eta ekintzak; ezta hainbat aldiz hizkuntza bera ere. Arrantzale horien hizketa "zakarra" gaziegia bihurtuko zaio Tramana eta Brixen ahotan; eta, nahiz eta pertsonaia bizi-biziak sortzen ahalegindu, batzutan "bienséance-a" (136) inposatuko zaio hizketa biziari. Eta "bienséance" horren izenean ezin jarraitu izango du Tramana eta Brixen elkarrizketarekin edo hauen esanekin, eta ezin erretratatu izango ditu osotasunean, elkarrizketa eta esan horiek aski iradokitzen

---

Guk hemen "mimesi" kontzeptua darabilgunean, testutik at dagoen errealitatea kopiatzeari erreferentzia egiten diogu; inolako aldaketarik egin gabe kopiatzeari, alegia.

(135) Michel Butor-ek honela definitzen du izenordeen erabilera eleberrian: "en el interior de un universo novelesco en tanto que es distinto del autor y del lector, la primera representa al autor y la segunda al lector...". Weinrich-ek aipatua. Ik. WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, 34. or.

(136) "Bienséance" kontzeptua trageria klasiko frantsesari lotuta agertzen da. Honela mintzo da A. Rétif, trageria honen ezaugarriak aipatzean: "On est en présence d'un théâtre de la bonne société, où importent les convenances, vraisemblances et bienséances, où les meurtres et les morts ne se déroulent pas sur la scène, mais donneront lieu à des récits tragiques". RETIF, A.; "La tragédie" in **Litterature et genres litteraires**, Librairie Larousse, Encyclopoche Larousse, Paris, 1978, 222. or. Ezaugarri berdina aplikatuko dio R. Picard-ek ere. Ik. PICARD, R.; **Introducción a la literatura clásica francesa**, Ediciones Guadarrama, Madrid, 1970, 64. or.

Trageria frantsesari aplikatutako termino hau erabilgarria iruditu zaigu **Kresala**ko kontalariak hartzen duen jarrera azaltzeko ere; honek ezin bait ditu Tramana eta Brixen esan guztiak "eszenaratu".

badute ere bai ezkutatu dena eta bai Tramana eta Brixen karakterizazioa. Tramana eta Brixen hizketa gaziak behin eta berriz darama kontalaria justifikazioak bilatzera:

> "Askok usteko dau zatarkeri geiegi ipinten ditudala emen: izan leiteke; baña Brixek eta Tramanak esandakoen laurenik eztot ipiñi" (**Kresala**, 74. or.).

Aipatutako "dekoroa" gorde beharrak sortzen dizkio arazoak kontalariari. Besteren hitzak izanik ere, ezin testuratu bait ditzake erdizka besterik bere zentzu estetikoaren aurka doazen pasarte horiek; ezta **Kresala**ko irakurlearen zentzu estetikoaren aurka joan daitezkeenak ere. Eta bata eta bestea nahiko arrazoi dira hitzik edo esaldirik gordinenak ezkutatzeko; edo, nolabait, irakurleari barkamena eskatzeko jarritako "gordinkeria" horiengatik. Kontalari txukun honek ezin ameti dezake hizketa-modu hori.

Beste modu batean, baina kontalaria "gure Itsasgizonaren" gainetik dago: ez da eroriko, ezta honen laztasunean ere.

Kontaketan barrena oso pertsonaia sinpleak sortzen ditu: erraz taxututakoak, konplexutasunik gabekoak, ideia batzuren inguruan itxuratutakoak. Eta matazaren garapenak manikeismo sendoa uzten du agerian: bere gogokoak dituen pertsonaiak saritu eta ez direnak zigortu egiten ditu hirugarren pertsonan kontatzen duenean. Baina, hala ere, fikzionalizatzen denean, ez da pertsonaiekin eztabaidan hasiko; ez da "itsasgizonari" lagun egitera jaitsiko, "Bedar txarrekin" duen borroka dialektiko garratzean parte hartzera; hitz batean, ez du hain nabarmen jokatuko, maltzurrago baizik: borroka gertatzen ari den hondarretara jaitsi gabe. Fikziozko izakia dago hondarretan: itsasgizona; berak erabiliko du adjetibaziorik gogorrena, gainontzeko fikziozko izakiekin batera bizi da eta hauen "txikikerietan" murgilduta dago. Kontalaria, ordea, galderak egiteko bakarrik fikzionalizatzen da, gertatutakoaren "egia" lekukoen bidez jasotzeko; eta komentariorik egin gabe, baloratu gabe, jasotzen ditu erantzunak, zuzenean transkribatuz.

Kontalariak hurbil sentitzen ditu arranondotarrak, eta "gure" hori erabiltzen du hurbiltasuna adierazteko beste zenbait baliabiderekin batera: matazaren garapena, laudorioz betetako adjetiboak, etab. Baina, hala ere, badirudi ez duela pertsonaiekin NAHASI nahi, **batera baina ez nahasian** lemari erantzunaz, "zuekin nago, baina ez naiz zuetako bat" adieraziz.

Fikzioan sartu eta fikzionalizatu egiten da kontalaria; baita kontatzen ari dela fikziotik irten ere, asoziazioz edo analogiaz kontatzen ari denak gertaera edo pertsonaia historikoren bat gogorazten dionean. Nahiz eta historia pasarte batzutan gertaera historikotan oinarritu —hondamendia dakarren galerna lekuko—, gertaerak fikzionalizaturik daude; ez dago Historiak emango lukeen daturik eskatzerik: zenbat izan ziren hildakoak edo zein hedadura geografiko izan zuen. Datu hauek **El Noticiero Bilbainok** (137) jaso zituen eta ez dagokio **Kresala**ko kontalariari zintzo kontatzea. Dena dela, oinarri historikorik izan eta fikzionalizatutako pasarteen ondoan, badaude beste batzu, fikziotik at egon eta halakotzat kontatzen dituenak. Hauek beste plano bat sortzen dute kontaketan: Historiarena, hain zuzen.

> "Izan da Euskalerriko arrantzale bat, zumayarra, Jose Maria Zubia eritxona, baña **Mari**-ren izenagaz ezagutua. Arrantzale orri, (...) orain esan dotan legezko gertaldi baten Donostian ito zalako, bere jazkera ta izakeraren irudi bat egin eutsien uri eder atako gizon agintariak, eta irudi ori an dago Donostiako kaigañean **Mari**-ren gomutagarritzat" (**Kresala**, 34. or.) (138).

Fikzioak asoziazioz sortu duen kontaketa historikoa da. "Legezko" horrek kentzen dio fikzioaren statusa, fikzioa dena eta "Historia" dena formalki bereziz; ez, ordea, funtzionalki. Izan ere, pasarte historiko horiek ez dute fikziotik independente dagoen planorik osatuko narrazioan: fikzioa osatzera datozen elementuak izango dira. Fikzioak iradokita **Kresala**ko historia singularrarekiko katalisiak izaten jarraituko dute, kontaketa "betetzen" doazen pasarteak. Baina egiten dute ekarri funtzionalik, arrantzaleak karakterizatzean kasu

---

(137) Ikus ZAVALA, A.; "La galerna de 1878" in **El Diario Vasco**, jueves, 2 de mayo de 1984, 48. or.

(138) Ez da pasarte historiko bakarra. Arranondon haustekundeak sortzen dituzten "lazka-matazak" beste gertaera historiko bat iradokiko dio kontalariari: arranondotarrek estropada ospetsu batzu galdu zituztenekoa. Ikus **Kresala**, 181-182. orr. R.M. Azkuek jasota dauzka lekeitiarrek ondarrutarrei irabazitako estropada bati ateratako bertsoak, nahiz eta ez dagoen jakiterik **Kresala**n aipatutakoa eta bertso hauek kontatzen duten estropada bera den. Ikus AZKUE, R.M.; **Euskalefiaren Yakintza, (Literatura popular del País Vasco)**, IV, Espasa Calpe, Madrid, 1971, 2. argitalpena, 146-147. orr. Hauteskundeak eurak ere gertaera historikotzat har daitezke. "Lantegi Jaubeak" Arranondoko "errizañek" eraman dien berria entzun ondoren hala dio: "Danadalakoa, goizago dabil. Oraindiño lau egun ezta Sagastak agintea itxi dabelata..." (**Kresala**, 157. or.). Sagasta pertsonaia historikoa dugu, aldi desberdinetan Espainiako Gobernuaren buru izana.

honetan: arrantzaleen izaera eta ibilera "leñargiak" erakutsi eta zeharka protagonistak karakterizatu kategoria orokorraren barnean sartzen diren heinean.

Fikzioak eta gertaera historikoek osatzen duten **Kresala** hori kontatzeko, teknika desberdinez baliatuko da kontalaria: pasarte narratibo eta komentatiboei benetako testu dramatikoak eta literatura epistolarraren ekarriak erantsiko dizkie.

Pasarte narratiboetan hirugarren pertsonan kontatzen du. Pasarte komentatiboetan ere hirugarren pertsona erabiliko du, nahiz eta batzutan "uste dot" baten menpe egon.

Sarritan narrazioa utzi eta komentariora igaroko da, kontaketak iradoki dion zenbait gogoeta testuratuz. Beste batzutan, berriz, kontatua ez baina kontatzera doana izango du gogoeta-eragile. Komentario hauek narrazioarekiko atzera begiradak edo premonizioz beteriko aurrera begiradak (139) izan daitezke, baina fikzioarekiko lotuak doaz beti, neurri handiagoan edo txikiagoan; fikzioak bakarrik justifikatzen bait ditu, gertatu denak edo gertatzera doanak, hain zuzen.

Orainaldian egindako komentarioen bidez, kontaketatik at kontaketaren epaile bihurtzen denetan aipatzen genuen artxidenboran kokatzen da kontalaria. Eta kontaketa bera epaitu ez ezik, antzeko beste edozein egoeratara ere zabaltzen du bere epaia.

Komentario hauek **Kresala**ko zenbait kapitulu independente bezala hartzeko bidean jartzen gaituzte. M. Zaratek (140) aldi hartako seminarioetako ikasketen aztarnak ikusi zituen kapitulu batzutan eta tesia — argumentazioa — korolarioa mugimenduan egituratutako diskurtsutzat jo zituen bai **Garoa**ko kapitulu batzu, bai **Kresala**

(139) G. Genettek narrazioaren denbora aztertzean lau narrazio-mota bereizten ditu. Horietako bi "ultérieure" eta "antérieure" deitu eta honela definitzen ditu: "**ultérieure** (position classique du récit au passé, sans doute de très loin la plus fréquente), **antérieure** (récit prédictif, généralement au futur, mais que rien n'interdit de conduire au présent)". GENETTE, G.; **Figures III,** 229. or. Gure alderagaiak ez dira fikzioaren eta berbaldiaren denbora izan; baizik eta komentarioren eta kontaketaren denbora eta hauen kokatze-modua berbaldian: alegia, komentarioak kontaketan gertatutakoa aurrerago komentatzen duenean edo gertatzera doana aurrez iradokitzen duenean historiarekiko sortzen duen harremana. Termino hauek hautatu ditugu beste batzu baino neutroagoak direlakoan.

(140) ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak,** 25-26. orr.

honetakoak ere. M. Zaratek zioenari jarraituz, uste dugu zenbait kapituluk "tesia — argumentazioa — korolarioa" egituran oinarritutako prosa diskurtsiboa duela osagai, honi erantsitako exenplu (141) gisa funtzionatzen duen prosa narratiboarekin batera. Badirudi diskurtsu ez-figuratiboaren abstraziotik jaitsi eta "adibide" baten bidez ilustratu nahi duela berbaldi ez-figuratibo hori, jende xeheari hurbildu nahian, Bibliako parabolen antzera (142). "Naigabeak", "Jardun-etxeak"... horrela irakur daitezkeen kapituluak dira. Jokabide hau kapitulu mailan ez ezik, ekintza mailan ere ikus daiteke batzutan, kapituluaren atal barnean (143).

---

(141) Ipuina zedarritzeko ahaleginetan, ipuinetik hurbil egon daitezkeen baina ipuintzat jotzen ez dituen hainbat forma narratibo labur bereizten ditu: ohitura-artikulua, berria, mitoa, leienda, anekdota, kasua, exenplua, etab. Exenpluari balore didaktiko bat ematen dio. Ik. ANDERSON IMBERT, E.; **Teoría y técnica del cuento**, 37-43. orr. Ez gara hasiko **Kresala**ko "ilustrazio" hauek zein forma narratibo laburretan sartu eztabaidatzen. "Adibide" gisa funtzionatzen dutela adierazi nahi dugu, "exenplua" jarri badugu ere, konnotazio moralizadoreak alboratuz da, ez bait dute beti moralizatuko; zenbaitetan, besterik gabe, kontalariaren berbaldia ilustratu egiten bait dute.

(142) "A imitación de las parábolas evangélicas los escritores cristianos dedicados a la predicación y a la moral solían, desde muy antiguo, apoyar las explicaciones doctrinales con historietas, anécdotas o fábulas que tenían el valor de ejemplos". RIQUER, M. de; VALVERDE, J.M.; **Historia de la Literatura Universal. De la Antigüedad al Renacimiento**, I, Editorial Planeta, Barcelona, 1970, 3. argitalpena, 362. or.

(143) Ikus, esate baterako, 42-43. orr. Antxoak sortzen dituen lanak deskribatu ondoren, Garizumako bigarren gertaeraren berri ematera igaroko da kontalaria, elizara "txartel" bila joan beharra kontatzera:

"Gure arrantzaleok **gorrira** baizen azkar eztira joaten txarteletara, elizako ezkillatxoak **dilin dilin** luzarokoan dei egiñarren./ Baña ezta gura eztabielako ta Kristiñauen ikasbidea eztakielako bez. Elizkoiak dira ta naikua ondo jakin oi daroe Kristiñauen ikasbidea, autortuten dabe ona dala ikasbide ori urtean bein itandutea, dana aztu eztakioen; zerbait ikasten jarduten dabena be badakit; baña nagitasun apurtxo bategaitik edo, euren jakituri laburra iñoren aurrean erakusteko lotseagatik edo, beste olango zioren bategaitik, dana dala, txartelaren billa elizgelara joateko euren gorputza astundu egiten jakoe./

Alan be ia arranondotar guztiak joaten dira txartelatara (sic), asabe zarren ekandu on orri jarraituaz, euskaldun garbi guztiak egin bear dabien legez; da joaten eztiran bakartxoak, edo guztiak dira motzak eta adin illunekoak, edo gaiztakeriren bat egin dabie oraintsu ta gaiztakeria egin da laster eztaue gura apaiz nagusiaren arpegia ikusi./

Artoberok, etzan bera ain argia ta gauzak ikasten erreztasun andikoa be baña, jatorri onekoa ta guraso begiratuen semea zan, da bekizan Kristiñauak nai ta nai

Nolanahi ere, **Kresala**ko fikzioak badu batasunik ekintza konkretu baten gainetik eta kapituluaren gainetik, gertaeren kateamenduak emana. Eta nahiz eta "Jardun-etxean" emakumeek daukaten berriketaldia, esate baterako, kontalariaren prosa diskurtsiboaren ilustrazio gisa irakur daitekeen (prosa ez-figuratibo horretan dioena, Tramanak eta bere adiskideek frogatuko bait dute ilustrazioan), lehen kapitulutik jarraitu beharra dago kontaketa, elkarrizketa-gaia osoro ulertu nahi bada. Eta elkarrizketa-gaia ez ezik, nobelaren egitura (144) ere baldintzatzen du; izan ere, "Jardun-etxetako" berriketak ez bait du soilik emakumeek zenbat hitz egiten duten ilustratzen; **Kresala**ko maitasun-historiaren garapenerako hain garrantzitsua den albiste-igorpena nola egiten den ere ilustratzen du. Kapituluak titulutik bertatik hasita dira "bien organizada tabicación interior" (145) delakoaren jabe; egitura sortzen ari dira eta eleberriaren osotasun eta batasuna osatzen. Ez baleude dauden bezala egituraturik, **Kresala** beste eleberri bat izango zatekeen.

Kontalariaren digresio hauek orainaldiko aditz-denboran daude aditzera emanak forma (146) aldetik eta eleberriaren osagai dira, bes-

---

ez jakin bear dituan gauza danak, zerbait geiagogaz. Itxasoraterik etzan goiz batean bajoian, bere lagun batzuen atzetik, atoian legez elizara, ta ia atean zanean, ara nun Josepak berak urteten daben elizatik".

Jarri ditugun marra zeiharrek tesia — argumentazioa —korolarioa— ilustrazioa markatzea bilatzen dute. Ilustrazioak agerian uzten ditu aurreko hiru urratsak, Artobero pertsonaia espezifikoak prosa diskurtsiboan esandako guztia beteko bait du:

Prosa diskurtsiboa	**Prosa narratiboa:** ilustrazioa
Tesia: "**gorrira** baizen azkar eztira joaten txartelatara".	"atoian legez".
Argumentazioa: "euren jakituri laburra iñoren aurrean erakusteko lotseagatik".	"etzan bera ain argia ta gauzak ikaten erreztasun andikoa".
Korolarioa: "Alan be ia arranondotar guztiak joaten dira **txartelatara asabe zarren** ekandu on orri jarraituaz".	"jatorri onekoa ta guraso begiratuen semea zan".

(144) Ikus atal honetan bertan 1. oin-oharra.

(145) BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**, 111. or.

(146) Forma eta edukinaren artean egitera goazen bereizkuntza arrazoi metodologikoei bakarrik zor zaie; ez literaturaren ikuspegi bati. Jadanik agertu dugu gure abiapuntua ez dela dikotomia honetan oinarritzen; eta esan ere bai bi planoek lotura hertsiz eta elkar baldintzatuz sortzen dutela eleberria.

te osagaiekin batera —arranondotarren bizitza, maitasun-historia—. **Kresala** hezurmamitu, gainontzeko osagaiek bezala hezurmamituko dute, beren ekarri funtzional eta esanahitsuz, nahiz eta aportazio ideologikoa (147) besteak baino modu mimetikoagoan egin (148).

Arestian genionez, eleberri honetan atzeman daitezke testu narratibo, komentatibo, dramatiko eta epistolarrak; ez bait da narrazio edo komentario hutsa. Eleberrian oso ezaguna eta erabilia den elkarrizketaren ondoan, **Kresalak** baditu pasarte batzu, non elkarrizketetan kontalariaren bitartekotasuna ia galtzen den. Bitartekotasun hau "akotazio" batzutara murriztuko da, antzerkiak bere-bereak dituen tekniketara hurbilduz. Akotaziotan ematen den informazioa oso zabala ez bada ere, errepresentaziorako prestaturiko testuak dirudite, pertsonaien zeinu ez-linguistiko, kinesiko (149), eta guzti:

> "**Indianoak**, Itxasgizonaren esanari jaramonik egin bage: —Jakituriak iturburu on asko daukaz" (**Kresala**, 105. or.).
>
> "**Amak**, negarrez. —Auxe da ordaña! Beragaitik buruausten jo ona ta jo orra ibillita, auxe da ordaña!" (**Kresala**, 119. or.).
>
> "**Tx. eta E.**, konkortuta. —Zer diño, Jauna? Seme? Zelan izan leiteke ori?" (**Kresala**, 133. or.).

---

(147) "Al final, resulta evidente que la colección de afirmaciones del narrador-filósofo modela un plano de la realidad ficticia: el ideológico. (...). Con él forman los parámetros morales, políticos, religiosos y metafísicos dentro de los cuales se mueven los hombres y las mujeres de la novela, las raíces de sus conductas y sentimientos". VARGAS LLOSA, M.; **La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, 224-225. orr.

(148) J. Olezak dio testuko elementu guztiek egiten dutela ekarri ideologiko hori; eta batzuk, pertsonaiek, esate baterako, modu pribilegiatu batez. Honela mintzo da oin-ohar batean: "En última instancia todo elemento (desde el uso de una determinada forma métrica hasta la selección de tal o cual personaje) efectivamente realizado por el texto 'presupone' la selección de ese elemento como más adecuado frente a otros posibles, y habrá que plantearse los motivos de esa selección". OLEZA, J.; "La literatura, signo ideológico: la ideologización del texto literario. Las vías de acceso de la ideología al lenguaje y algunos problemas de su formalización" in **La literatura como signo**, Editorial Playor, Madrid, 1981, 214. or., eta orohar artikulu osoa (176-217. orr.).

(149) Ik. POYATOS, F.; "Paralenguaje y kinésika del personaje novelesco: nueva perspectiva en el análisis de la narración" in **Revista de Occidente**, n.º 113-114, octubre 1972, 148-169. orr. Artikulu honetan keinuen, gorputz-jarreren eta abarren estudioa egingo du F. Poyatosek.

"**Iskillosdunak**, edanontzi bat eskuan artuta. —Jaunak, edan daigun ezkongeiaren osasunerako!" (**Kresala**, 156. or.).

Berez, akotazio hauek jarrera eta emozio batzuren deskripzioaren ordezko bihurtzen dira. Testuinguru berbalak (150) iradokia nahiz iradokiko duena baieste-mailara daramate. Izan ere, testuinguru berbalak eskaintzen du akotazio horiek azaltzen dutena atzemateko adina zantzu: soma daiteke Indianoak ez diola jaramonik egiten "Itxasgizonari", beste zerbaitetaz mintzatzera igarotzen bait da; Txanogorri eta emaztearen harridura ere soma daiteke... Antzerki-errepresentazioan polifonia informazional (151) bat sor dezakete honako elementu hauek: pertsonaien keinu, mugimendu eta abarri buruz akotazioek ematen duten informazioek eta antzerkiak eskaintzen dituen dekoratu, jazkera, eta abarrek; ez, ordea, modu berean gure eleberrian. Izan ere, adierazlea lineala izaki (152), testu idatzi edo esanak ezin lor dezake ez antzerkiaren zeinu desberdinen aldiberekotasuna, ez zeinu desberdinen adierazle-adieraziak batera ematea.

Kontaketan txertaturik garatzen diren testu dramatiko hauek lortzen dute kontalariaren bitartekotasuna ezabatu eta pertsonaiak

(150) "El **contexto verbal** es el discurso mismo en cuanto 'entorno' de cada una de las partes. Para cada signo y para cada porción de un discurso (que puede ser diálogo), constituye 'contexto verbal' no sólo **lo dicho antes**, como pensaba Bally (...), sino también **lo dicho después**, en el mismo discurso". COSERIU, E.; **Teoría del lenguaje y lingüística general**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1969, 2. argitalpena, 314. or.

(151) "¿Qué es el teatro?" galderari honela erantzuten dio R. Barthes-ek, mezu-mota honen berezitasuna azpimarratuz: "Estos mensajes tienen una característica peculiar: que son simultáneos, y, sin embargo, de ritmo diferente; en un determinado momento del espectáculo, recibimos **al mismo tiempo** seis o siete informaciones (procedentes del decorado, de los trajes, de la iluminación, del lugar de los actores, de sus gestos, de su mímica, de sus palabras), pero algunas de estas informaciones se **mantienen** (éste es el caso del decorado), mientras que otras **cambian** (la palabra, los gestos); estamos pues ante una verdadera polifonía informacional". BARTHES, R.; **Ensayos críticos**, 309-310. orr.

(152) Ik. SAUSSURE, F.; **Curso de lingüística general**, 133. or. eta hurrengoak. Adierazlearen linealtasun honek beste baldintza-modu batzu ere badakartza erlatutara denboraren erabileran. Izan ere, Tz. Todorov-ek dioen bezala: "El tiempo del discurso es, en un cierto sentido, un tiempo lineal, en tanto que el tiempo de la historia es pluridimensional. En la historia, varios acontecimientos pueden desarrollarse al mismo tiempo; pero el discurso debe obligatoriamente ponerlos uno tras otro". TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 174. or.

kontalariarengandik "askatzea". Horrela, **Kresala**ko kontalari orojakilea esanaren transkribatzaile huts bihurtzen da. "Esan zuen" batekiko menpekotasuna hautsi eta monotoniari berari ihes eginez, pertsonaiek eszena-tokian jarri eta beren iritziak ematen dituzte.

Orohar, elkarrizketariak bi baino gehiago direnean jotzen du kontalariak baliabide hori erabiltzera, nork zer dioen garbi utziz. Hala ere, akotazio-itxura duten ohar horiek ez dira elkarrizketen hasieratara mugatzen; elkarrizketa aurrera ahala ere sartzen ditu kontalariak (153). Honek errepresentazioa bilatzen du, une konkretutako pertsonaien keinu eta mugimenduak parentesi artean jarriz, eta mementuak ukan ditzakeen zeinu guztiak atzematea, sistema ez-linguistikokoak ohar horien bidez sistema linguistikora ekarriz. Arestian esan bezala, testuinguru berbalaren informazioa deskribatzen eta osatzen du: nork zer dioen edo nork norengatik dioen; beste batzutan, berriz, esandakoa zehazten du. Dena dela, beti unea osoroago errepresentatzea du asmoa kinesikaren zeinuak berbaldira ekartzeak.

Testu dramatikoak ez ezik, literatura epistolarraren ekarria ere soma daiteke **Kresala**n. Hor daude, esate baterako, Indianoak Mañasiri igortzen dion eskutitza eta honek erantzuten diona. Eskutitz hauek ezkontza dute gai: batak proposamena eta besteak ezezkoa. Ez dira **Kresala**ko eskutitz bakarrak. Beste batzutan ere erabiliko da eskutitza mezuak igortzeko. Baina bi hauek bakarrik betetzen dituzte eskutitzaren konbentzioak: data, izenpea, etab. Eta idatzita bezala, zuzenean, jasotzen dute mezua. Gainontzekoak, modu batera edo bestera beste lau, bi horiek ez bezalakoak dira. Eta lau hauek ere desberdinak dira, elkarren artean kontatze-modua erreferentzi puntutzat hartuz.

Hauetako lehena Txanogorrik alaba Mañasiri bidaltzen diona da. Bere adineko beste arranondotar batzu bezala, Txanogorrik ez jakin idazten eta, senar-emazteek diktatu egingo diote eskutitza Mañasiren adinkidea den Josepari. Diktatze-ekintzan eszenaratuko dira, idatzi behar duena zuzenean esanez, ahots-narrazioaren bitartekotasunik gabe. Baina kontalariak zuzenean transkribatzen dituen esaldiak menpeko esaldiak dira: "**Señora** izango dala" (**Kresala**, 137. or). Esaldi konpletibo hauek pertsonaiek esplizitatzen ez duten "idatz iezaiozu" baten menpe daude, baina ez narrazio-ahots baten menpe. Nahiz eta

(153) Ik. **Kresala**, 155. or.

eskutitz honek eskutitzaren forma ez errespetatu, daraman mezua pertsonaien ahotsetik bertatik jasotzen du, kontalariaren bitartekotasunik gabe.

Aurrekoan ez bezala, kontalariaren presentzia somatzen da bigarrenean:

> "erriko irakasla edo **maisuaren** bitartez, egundoko eskutitz larria bialdu eutsien Mañasiri. 'Indargetuta egozala senar-emazteak, oso indargetuta, iñondik ezegola ezeren irabazirik, zorpean sartuta egon bearko ebiela, ta laster gaixotegi edo **ospitalera** joateko bideak egin bearko zirala... Don Jose Antoniori baietza emon ezik (...)'" (**Kresala**, 163. or.).

Ez dirudi eskutitz hau irakasleari diktatzetik sortua denik aurrekoa bezala, "idatz iezaiozu" baten menpekotasunetik baizik. Eta zehar estilo libreari (154) atxiki beharko litzaioke; izan ere, estilo zuzenaren komatxoak eta pertsonaiaren esanaren ñabardura semantiko guztiak ematen badira ere, zehar estiloaren gramatika-formak sartzen bait dira eta aditz deklaratiboa eliditzen. O. Taccak ez luke ametituko zehar estilo libretzat komatxoen erabileragatik (155). Baina, bestalde, ezin uka daiteke, era berean, ahotsen kutsadura (156) den

---

(154) Zehar estiloa edo "discours transposé" deitzen duena definitu ondoren, zehar estilo librearekin alderatzen du G. Genettek: "Il n'en va pas tout à fait de même avec la variante connue sous le nom de 'style indirect libre', où l'économie de la subordination autorise une plus grande extension du discours, et donc un début d'émancipation, malgré les transpositions temporelles. Mais la différence essentielle est l'absence de verbe déclaratif, qui peut entraîner (sauf indications données par le contexte) une double confusion". GENETTE, G.; **Figures III**, 192. or.

(155) Zehar estilo librea definitzean, O. Taccak espreski gaitzesten ditu komatxoak estilo honen erabileran: "Otra cosa distinta es, en cambio, que el narrador cuente tratando de asumir la conciencia, y aun, en muchos casos, el lenguaje presunto del personaje, acercándose a él lo más posible —aunque sin **prestarle la palabra**. Hay aquí un debilitamiento de la voz narradora, tenemos la impresión de estar oyendo a los personajes. Esta modalidad se caracteriza, naturalmente, por la ausencia de guiones y comillas, y de los 'dijo', 'pensó', 'respondió', 'le pareció', 'creyó', 'se preguntó' —que introducen los estilos directo e indirecto, para dejar paso, en cambio, al llamado estilo **indirecto libre**". TACCA, O.; **Las voces de la novela**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1978, 2. argitalpen gehitua eta zuzendua, 81. or.

(156) "Contaminación de voces" titulupean hasiko dira J. Lozano, C. Peña-Marín eta G. Abril zehar estilo librea deskribatzen. Ik. LOZANO, J.; PEÑA-MARIN, C.;

zehar estilo libre horren forma gramatikaletan hainbat eta hainbat konbinazio-mota desberdin erabiltzen direla, XIX. mendeak hain gogoko izan zituen komatxoak bezalako ortografi zeinuak baztertzen badira ere (157).

Hirugarrena estilo zuzenean testuratzen da. Kontalariak tartean sartzen duen aditz deklaratiboak ez du eraginik estilo zuzen horren gramatika-formetan:

> "Ixil aldi andia izan da, —esaten eutsan Josepak— guzur asko ibilli dira emakumien aoetan, danok uste izan dogu galduta egoala, baña egia da oraingoan, ziur ziur dakit: Anjel laster ezkontzen da Antonigaz" (**Kresala**, 170. or.).

Hirugarrenak ez bezala, laugarrenak estilo zuzenaren komatxoak daramatza. Baina eskutitzeko esaldiak kontalariaren aditz deklaratibo baten menpekoak dira:

> "Eskutitzean zirautsien gurasoak 'D. Jose Antonio lurbirako gizonik onena zala ta bere ontasunaren agergarri ona joakola Mañasiri eskutitzagaz batera emongo eutsien gordairu barruan'" (**Kresala**, 177. or.).

Beraz, hona hemen eskutitzek testuan hartzen dituzten formak:

Indianoak Mañasiri: Eskutitz konbentzionala.

Mañasik Indianoari: Eskutitz konbentzionala.

Gurasoek Mañasiri: Eskutitza diktatu-prozesuan.

ABRIL, G.; **Análisis del discurso. Hacia una semiótica de la interacción textual**, 154. or.

(157) Ikus, esate baterako, M. Vargas Llosak **La Casa Verde** eleberrian egiten duen zehar estilo librearen erabilera. Bizpahiru adibide besterik ez ditugu aipatuko hemen:

Bokatiboaren erabilera:

"el práctico iba a apagar el motor, Sargento, ya estaban llegando" (**La Casa Verde**, 9. or.).

Menpekotasunik gabe:

"Pero al Sargento el corazón le decía no habrá nadie" (**La Casa Verde**, 9. or.).

Aditz eraentzalerik gabe:

"Pero entonces no sabían, ahora sí, que se diera cuenta" (**La Casa Verde**, 11. or.).

VARGAS LLOSA, M.; **La Casa Verde**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1977, 16. argitalpena.

(Joseparen bidez)	Pertsonaiek eliditzen duten aditz deklaratibo batekiko menpekotasuna.
Gurasoek Mañasiri:	Eskutitzaren testua.
(Irakaslearen bidez)	Kontalariak eliditzen duen aditz deklaratibo batekiko menpekotasuna.
Josepak Mañasiri:	Eskutitzaren testua. Kontalariak esplizituki darabil aditz deklaratiboa, baina testua ez da horren menpekoa.
Gurasoek Mañasiri:	Eskutitzaren testua. Kontalariak darabilen aditz deklaratibo baten menpeko da testua.

Edozein baliabide erabil zezakeen kontalariak ezkontz proposamena aditzera emateko. Berez edozein baliabide erabil bait daiteke kasualitatearen eta batpatekotasunaren baliabideetan oinarrituz eraikitzen den matazan. Berdin balio dute kasualitate edo batpatekotasuna gertatzen denean bakarrik, historia kontatzen zaigun eleberri hau kontatzeko. (Kasualitatean bakarrik oinarri bait daiteke Mañasik Anjelekiko dituen sentimenduen iratzartzez geroztik gutxienez zortzi hilabete pasatzea elkarri hitzik ere egin gabe. Eta hitzegin badute ere, matazaren garapenerako ez adierazgarri izan eta aipatu ere ez da aipatzen. Eta noiz izango elkarrizketa eta juxtu herriak Antonirekin ezkontzera doala jakitean. Kasualitatea den bezala, Mañasi Bilbora joatean, bertan, juxtu-juxtu kalean, Indianoa aurkitu eta batpatean honek ezkontz proposamena egitea; edo hau jakitean, Anjelen sentimenduak iratzartzea...) Edozein baliabide erabil zezakeen kontalariak ezkontz proposamena aditzera emateko, baina eskutitzarena hautatu du (158).

Eskutitza baliabide bezala erabiltzeak posibilitate berriak eskain-

(158) "Es completamente evidente que el empleo de un cierto ritmo en un sistema que admite otras posibilidades, que admite en una alternativa la elección de una posibilidad o que ofrece cinco procedimientos, igualmente probables, de construcción de un verso, de los cuales el poeta elige uno, este empleo nos dará construcciones artísticas totalmente distintas, aunque la parte materialmente fijada de la obra —el texto— permanezca invariable". LOTMAN, Y.M.; **Estructura del texto artístico**, 69. or. Lotmanek poesiari buruz dioena eleberriari ere aplika dakioke.

tzen dizkio kontalariari berbaldiaren garapenean (159). Baina **Kresalako kontalariak** ez ditu aprobetxatuko. Baliabide berriak ez bait du ordurarteko kontatze-modutik aterako; ezta gerokotik ere. Gunetik gunera doan kontatze-moduan iraungo du kontaketari dagokionez: batpatean, ustegabean, helduko zaio Mañasiri Indianoaren eskutitza eta harridura besterik ez dio sortuko; eta prest dago Mañasiren erantzuna, kontalariak ezkontz proposamenaren sustraiak arakatzeko laburpen bat egin orduko. Eskutitzek ez dute beste narratibitaterik sortu, ez idatzi aurretik, ez idaztean, ez idatzi ondoren. Mezua igortzeko erabili den beste bide bat izatera mugatu da. Mezu-igorpenak duen funtzionalitatera laburtu da bereziki baliabide honen erabilera. Funtzionaltasun bera dute gainontzeko eskutitzek ere, zeren eta Josepak Mañasiri bidaltzen dionaren kasuan ere, esate baterako, eskutitz honetako berriek eragingo bait diote Mañasiren eta etxekoandrearen elkarrizketari, eskutitzak daraman mezuak —beste edozein modutan igor zitekeen mezuak— eta ez eskutitzak berak konta-baliabide bezala. Eskutitzetan ere matazaren garapenerako mezu-igorpenak duen funtzionalitatea gailenduko zaio pertsonaien prozesuari; baita hauen sentimenduen, psikologiaren eta bizipenen prozesuari ere; kontaketa osoan gertatzen den bezala.

Baina horrek ez du esan nahi eskutitzen funtzionalitatea mezu-igorpenean agortzen denik. Badago beste arrazoirik ere horiek kontaketan bertan konta-teknika bezala eta narraziotik at sartzeko; batez ere, eskutitz moduan idatzirik datozen biak. Kontaketari berari erakuskari-bilduma bihurtzeko joera nabari zaio. Izan ere, kontatze-mo-

(159) "La epístola puede servir para introducir factores de suspenso o dilatorios del curso narrativo; para derivar a tiempos pasados o futuros; para marcar direcciones del relato: la del envío, la de la recepción, la de la espera". CASTAGNINO, R.H.; **El análisis literario. Introducción metodológica a una estilística integral**, 221. or. Antzerako ildoa markatuko du J. Rougeot-ek eskutitzaren baliabideak aztertzean:

"La forme épistolaire confère à une histoire certains caractères particuliers: l'événement est rapporté avec quelque délai, mais il multiplie sont effet sur les personnages, puisque ceux-ci en sont touchés lorsqu'ils le vivent, lorsqu'ils l'écrivent, lorsqu'ils ont connaissance des réactions de ceux à qui ils l'ont rapporté. La forme épistolaire permet en outre au romancier de résoudre d'un coup le problème de la vraisemblance: puisque le narrateur est forcément chaque fois un personnage de l'action, il n'est pas arbitraire qu'il puisse rapporter non seulement ce qu'il fait, mais aussi ce qu'il pense, ce qu'il sent". ROUGEOT, J.; "La littérature épistolaire" in **Litterature et genres littéraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, París, 1978, 172. or.

du "iteratibora" jotzen du: behin kontatzen da nola bizi duten arranondotarrek ekaitza lehorrean eta birritan jasango dute ekaitzaren edo galernaren erasoa; behin kontatzen dira Garizumako edo agorreko jaiak eta behin baino gehiagotan ospatzen dira; behin eszenaratuko dira "jardun-etxeak" albiste-zabaltzaile moduan eta, ardangela eta gainontzeko "batzar-tokiak" bezala, behin baino gehiagotan zabalduko dituzte ezkontz berriak... Pertsonaia-tipoetan ere kantitateari eskaintzen zaio aberastasuna kalitatearen kaltetan. Sakontzeko "tokirik" gabe dago bakoitza kontaketan: "Ontziagintari zarra", "Bedar txarrak", baserritarrak, haurrak, arrain-saltzaileak, arrantzaleak. Batpatean "eginda" emandako pertsonaia-tipoak dira, eta gehiago pertsonaia-tipo baten erakuskari, ekintzaren bidez "eginez" sortzen diren pertsonaia-tipoak baino.

Horrela, kontatze-moduan eta pertsonaien erabileran erakuskari itxura hartzen du **Kresalak**. Eta, agian, hau berau zabal dakioke kontalariak konta-teknika desberdinak erabiltzeari. Errepikapenetik eta honek sor dezakeen monotoniatik ihes egiteko barietate handiagoa bilatzen du kontatzeko. Narrazioa, saiakerara hurbiltzen den komentarioa, antzerkiak darabiltzan testu dramatikoak, literatura epistolarraren ekarria, "elea" dirudien Mikolen erlatua eta abar aberastasunaren agergarri dira eleberrian, bakoitzak kontaketan izan dezakeen funtzionalitateaz eta esanahiaz gain.

Bestalde, **Kresala**ri ezin uka dakioke irakatsi-nahia. Batek baino gehiagok azaldu du **Kresala**ren didaktizismoa: baita **Garoa** eta **Auñemendiko Lorea**rena ere (160). Matazaren garapenean zintzoak saritu

(160) Didaktizismo hori seinalatzen duten bi iritzi besterik ez ditugu jasoko. **Kresala** eta **Garoa**ri buruz honela mintzo da P. Lhande: "Biok, bai gure itsasgizonen bai gure nekazarien artean Jaungoikoa'ren maitetasun ta bildurtasunik gabe zorion egizkorik izan ezditekeala darakuskigute". LHANDE, P.; "Agiſe irakuſgaikiña" in **Itzaldiak**, 104-105. orr.

Argi azaltzen ditu X.-ek morala eta eleberriaren arteko harremanak, Avranchesko apezpikuaren hitzak abiapuntu. Honek "il y a romans et romans" zioen. Eta honetan oinarriturik azalduko du X.-ek: "Itz auekin adierazi nai ziguna da irakurgaien artean batzuek irakurgarriak dirala, besteak ez irakurtekoak; batzuek on egiten dutela, besteak kalte; batzuek elizan ez pada ere, elizpean, karreran, ederki bizi ditezkela; besteak berriz ardandegia bizitoki andizurentsuegia dutela.

Euskeraz, Jaunari mila esker, irakurgaiak ezin ezarri ditezke ezker-eskui. Ezkerrean, bat ere ezta, diranak (gutši, gaisoak, oso gutši) eskuian daude; guziak (irurak, irutšo baizik eztira-ta) Elizaren aterbean sortu dira: PERU ABARCA, Moguel zarrak egiña, AUÑEMENDIKO LOREA, Agirre jaunak orain sei zazpi

eta gaiztoak edo hain zintzoak ez direnak zigortu egiten dira. Euskal ohitura garbien apologia da **Kresala**. Oroit txartel bila joatea Garizuman Elizara, esate baterako. Bestalde, deskripzioak, pertsonaien tratamenduak eta abarrek didaktizismoa uka ezinezkoa egiten dute **Kresala**n. Eta hizkuntza bera ere, berez narraziorako tresna izaki, bete-betean harrapatuko du didaktizismoak. Eleberrian barrena, oin-oharretan gaitzesten ditu kontalariak zenbait hitz (161). Berdin egingo du hitz bat ulergaitza izan daitekeela uste badu: oin-oharrean azalduko du bere esanahi edo erdal itzulpena (162). Grafia aldatzera ere joko du hizkuntz arazoak eraginda: kurtsibaz emango du zenbait hitz, erdal jatorria oso agerian dutenean edo erdara hutsa direnean (163). Dena den, kurtsiba ez du erdal hitza eta euskal hitza bereizteko bakarrik erabiliko.

Hizkuntzak berak ere, kontatzeko behar zuen tresnak alegia, arazoak sortzen dizkio kontalariari. Eleberriaren irakurle potentzialak ulertuko ez ote dion beldur da batez ere (164). Ortografiak, lexikoak eta abarrek urruntzen dute euskaraz eskolatu ez den edo ezer gutxi eskolatu den irakurlearengandik (165). Eskolak bete ez duen funtzioa betetzera behartua dago kontalaria: euskara bera irakatsi behar du oin-oharren bidez, nahiz eta oin-ohar horietako zenbait hitz sortzez berri samarrak izan daitezkeen (166); gainera, euskalki des-

urte sortua; irugarrena aita beraren semetšo jaio-berri, itsasbelar-usai gozodun KRESALA". Ik. X.; "**Kresala**" in **RIEV**, I, 1907, 167-168. orr.

(161) **Maestresea** (1).
"Eztakit zelan sartu dan Arranondon itz barregarri au, baña askoren aotik entzun dot, atsekabez" (**Kresala**, 231. or.).

(162) "Gizategia= Sala" (**Kresala**, 26. or.).
"Nausia edo nagusia. Aize-oial edo **belarik** andiena" (**Kresala**, 67. or.).

(163) **alkatea** (**Kresala**, 50. or.).
pañuelo (**Kresala**, 53. or.).

(164) Aski adierazgarria da egileak hitzaurrean dioena. Ondo gogoan izango du kontalariak: "Askori entzun deutsat, eta milla aldiz bai, oso neketsua dala guk egiten ditugun gauzak irakurtea, errezago ipiñi bearrean, dana ipiñi dogula geroago ta gatxago, ta ortik datorrela euskerazko libururik iñok ez ikusi gura izatea". Ikus AGIRRE, D.; "**Kresala**. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, 10-11. orr.

(165) Bakar-bakarrik datu gisa gogoratuko genuke 1880.etik aurrera sortu zirela lehen euskarazko katedrak Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban. Jadanik azaldu ditugu euskara eta irakaskuntza primarioaren arteko loturak, Diputazio eta Udaletxeen jarrerak arazo honetan, etab.

(166) "Zalpurdia. **Coche** gaztelarrez" (**Kresala**, 86. or.).

berdinetako euskaldunei hurbildu behar zaie, idazteko hautatu duen bizkaierak ahalik eta oztoporik txikienak sor diezazkien (167); azkenik, berriz, Arranondoko arrantzaleen mundura hurbiltzea bilatu behar du, arrantzaleen lexiko berezi, hizkera eta hizkera honen konnotazioetara, hain zuzen (168).

Eskutitzen erabilerak ere egin diezaioke ekarririk maila desberdinetan aipatzen ari garen didaktizismo honi. Euskara bera ezer ez edo ezer gutxi ikasi duen irakurle horrek ez du eskutitzak euskaraz idazten ere ikasi. Eta **Kresala**n aurki ditzake bi eredu behintzat. Garbi bait dago eskutitzak testuratzean kontalariak barietateari begiratu diola, erabili dituen testuratze-modu desberdinek erakusten dutenez. Era berean, konbentzionaltzat jo ditugun bi eskutitzek ere badute aldagairen bat izenpean; perpausari lotuta eta perpausean funtzio desberdinak betetzeko egokieran jarriak bait daude izenpe horiek: bata Objetu Zuzena eta bestea Zehar Objetua.

Nolanahi ere, ezin esan kontalaria euskara irakatsi nahiari makurtu denik erabat, nahiz eta asmo hori ere izan, oin-oharretara jo gabe ere, testuan bertan elkarren ondoan darabiltzan zenbait sinonimok aditzera ematen duenez: bataren mailegu-izaera argia denean, aldamenean doa jatorrizko euskaldun hitza; baita mailegutzaren aztarnak denboraren poderioz gorde samarrik dituenean ere (169). Gehie-

---

(167) "Arranondon da beste Bizkaiko erri batzuetan itz baten azkenengo aots edegiak barriro esaten dira, itzaren oyarzunak legez: **Guk u, nik i, arek e**, ta olan" (**Kresala**, 25. or.).

(168) "Txotxo. Gazteagoai edo bardinsamarrai dei egiteko era bat, Arranondon guztiz asko esaten dana" (**Kresala**, 23. or.).
"**Ez be**. Erdaldunen **¡como no!** baño asko geiago esan gure dau, ta itxaserri baten oituten dan esakerea da" (**Kresala**, 69. or.).
"Atuntsua. Arranondoko esakeran, atunetarako garaia" (**Kresala**, 78. or.).
"Mastea. Aize-oial edo **belak** jasoteko abea" (**Kresala**, 84. or.).
"Mokoloia. Tretzako soka ta amoen nastea edo korapilloa" (**Kresala**, 85. or.).

(169) "pike-koipetsu edo **karena**" (**Kresala**, 40. or.).
"zurontzi edo **baldeakaz**" (**Kresala**, 42. or.).
"Eliz-Artzain edo **Obispoak**" (**Kresala**, 45. or.).
"oial-estu edo **zinta**" (**Kresala**, 45. or.).
"erriko buru edo **alkatea**" (**Kresala**, 50. or.).
"Itzaldi edo **sermoia**" (**Kresala**, 50. or.).
"idun-zapi edo **pañuelo**" (**Kresala**, 53. or.).
"itxas-ate edo **barra**" (**Kresala**, 83. or.).
"**zapata**, oinzorro edo trauskoak" (**Kresala**, 93. or.).

netan grafiak bereziko ditu: kurtsibaz idatzia izango da erdal jatorri agerikoa eta bestea euskal jatorrikoa. Sinonimo hauen erabilera euskara jatorra irakatsi nahiari zor zaio gure ustez, oin-oharren funtzioa testuan bertan betez.

Sinonimiarena oso alor eztabaidatua da, eta erabateko sinonimoen existentzia bera ukatu egin da, hitz bakoitzak bere ñabardurak dituelako (170). Eta ezin uka, aipatutakoetan behintzat, hitz bakoitzak bere konnotazioak ez dituenik: ez da berdin "iskillos" edo "armaduna" erabiltzea; ezta Eliz Artzain edo Obispoa ere, etab. Baina kontalariak "edo" juntagailuaren bidez lotzen dituen hitz hauek testuak hala eskatuta baino gehiago darabiltza egoera-testuinguruak (171) edo testuinguru estraberbalak (172) eskatuta: "idun-zapi" esanda ez zutelako ulertuko edo kontalariak "pañueloa" esaten zutenek "idun-zapia" esatea bilatzen zuelako.

Kontaketak hala eskatuta ere erabil zitezkeen "sinonimoak", hitz bakoitzaren "ñabardurei" kontaketan funtzionalitatea bilatuz. Eta hau zenbait kasutan egin du; ez, ordea, aipatu ditugunetan.

Tratamenduz —"berori" tratamendua—, kulturaz, arranondotarrengandik berezia den kontalaria hizkuntzaz ere hala izango da arranondotarrek beren ahotsez hitz egiten dutenean. Hemen bai nabarmentzen direla arestian aipatutako ñabardurak.

Kontalariak bere ahots-narrazioan darabilen mintzairak kontrastea sortuko du arranondotarrek darabiltenarekin eta "Bedar txarrenekin", esana dugunez; eta batipat talde honetako Indianoarenarekin.

"Iskillos edo **armaduna**" (**Kresala**, 99. or.).
"irakasla edo **maisuaren**" (**Kresala**, 163. or.).
"aterpetxu edo **guardasol**" (**Kresala**, 201. or.).
"orduari edo **erlojuak**" (**Kresala**, 202. or.).

(170) Ik. ULLMAN, S.; **Semántica**, Aguilar ediciones, Madrid, 1976, 4. berrargitalpena, 159-175. orr. S. Ullman-ek hizkuntzalari desberdinen ikuspegia jasoko du sinonimiari buruz; eta, iritzi horiek oinarri, erantsiko: "En la lingüística contemporánea se ha vuelto casi axiomático el que la completa sinonimia no existe". Op. cit., 159. or.

(171) Ik. LYONS, J.; **Introducción en la lingüística teórica**, 426-427. orr.

(172) "El **contexto extraverbal** está constituido por todas las circunstancias no lingüísticas que se perciben directamente o son conocidas por los hablantes". COSERIU, E.; **Teoría del lenguaje y lingüística general**, 315. or.

Kontalari kultu honek ortografi mailara eramango ditu arranondotarren joera fonetikoak: hitzak esan dituzten bezala idatziz (173); behin edo behin mintzaira hori imitatzea bilatzen badu ere (174), kurtsiban utziz, egin den aldaketaren azpimarragarri.

Arrantzaleek erdal herrien izenak ez dituzte jatorrizko hizkuntzan ezagutzen. Horregatik edo egokitzapen fonetikoa egina dutelako, egokitzapen eta guzti transkribatuko ditu kontalariak, aldamenean jatorrizko hizkuntzan idazten diren bezala idatziz (175) eta kurtsibaz azpimarratuz.

Lexiko mailan ere atzeman daiteke desberdintasunik kontalariaren eta pertsonaien artean. Erreferente bera izendatzeko bi hitz desberdin darabiltzatenean, kontalariak mailegutzatik ahalik eta gehien urruntzeko joera du (176). Batzutan, arranondotarrak estilo zuzenean mintzatzen ez direnean, zehar estilo libreaz edo azalpenen batetaz baliatuko da, hitz baten edo espresioren baten erantzunkizuna hartu nahi ez duenean. Baliabide horiek horretarako ere erabil ditzake behintzat (177), nahiz eta behin edo behin kontalariak berak ere imi-

---

(173) "**kantau**". Josepak (**Kresala**, 54. or.).
"**kontau**". Txanogorriren emazteak (**Kresala**, 134. or.).
"**eskolau**". Txanogorrik (**Kresala**, 161. or.).
"**Ave mai Puixima**". Txanogorrik (**Kresala**, 159. or.).
"**Abe Mari**", berriz, kontalariak (**Kresala**, 142. or.).

(174) "Deitu eutsien Josepari, **eskolaua** legez" (**Kresala**, 135. or.).

(175) Peruk eta Mikolek esango dute "**Saanderren**", "**Kijonen**", "**Lisburun**", "**Zeruetan**" eta abarretan egon direla. Kontalariak aldamenean parentesi artean idatziko du "Santanderren", "Gijonen", "Lisboan", "Zeutan". Ik. **Kresala**, 86-87. orr.

(176) Kontalariak **ikastetxe** hitza hautatuko du eta pertsonaiek **eskola** erabiliko dute erreferente hori izendatzeko. Ik. **Kresala**, 18., 57. eta 66. orr. kontalariarentzat, eta 68. or., haurrek nola izendatzen duten ikusteko.
Done/San. Ik. "done-rentzat", **Kresala**, 28. or., 40. or., 47. or., 48. or., 142. or. eta "San-entzat", **Kresala**, 28. or., 48. or., nahiz eta behin behintzat Josepak "Done Pedrori" dioen. Ik. **Kresala**, 37. or.
Kantau/erestu. Ik. "kantau-rentzat", **Kresala**, 54. or. eta "**erestu**-rentzat", **Kresala**, 220. or.
Alogera/soldata. Ik. **Kresala**, 84. or.
maixu/irakasle/erakusle. Ik. **Kresala**, 68. or., 69. or., 140. or.

(177) "**Alkateak** bialdu eban Bilboko **diputau** gei bat erriratu zala ta **Jaun** guztiak udaletxera joateko esatera" (**Kresala**, 157. or.).
Kontalariak behin bakarrik darabil "alkate" hitza soilik: "elizkizun guztietan, an egongo zan Kitolis alkate-aulkidaren (sic) atzean" (**Kresala**, 94. or.). Bestee-

tatu arranondotarren hitz edo espresioak (178), joera fonetikoak aipatzean esan dugun bezala.

Pertsonaien mintzaira propioari dagokionez, arranondotarrena ez ezik, Getariatik heltzen den Ankaluzerena ere errespetatuko du kontalariak, kurtsibaz aditzera emanez Ankaluzek mintzatzen duen euskalkiaren forma bereziak (179).

Sintaxi mailako alderaketa oso zaila da **Kresala**n; nekez eszenaratzen bait dira kontalaria eta pertsonaiak status berean. Eleberrian kontalariak batipat kontatu eta komentatu egiten du; pertsonaiak, aldiz, eszenaratze labur batzutara mugatzen dira, orohar, elkarrizketa laburretara. Elkarrizketa bizi horietako esaldi asko laburrak dira, esate baterako, kontalariak kontatzean edo komentatzean darabiltzan esaldi luzeen aldean. Baina, kontatzea eta elkarrizketa desberdinak izaki, nekez aldera daitezke elkarrekin; batentzat erabilitako erizpideak ez bait dira bestearentzat hain baliagarri. Nolanahi ere, badira bi bakarrizketa ideien desarroilo koherentez eta sintaxi-erregelei jarraiki testuratuak: bata Mañasirena eta bestea Anjelena. Elkarrizketek biziak izateko behar dituzten moldeetatik urrun, joskeragatik eta garapenagatik gehiago dirudite (180) kontalariaren bakarrizketak Mañasi eta Anjelen bakarrizketak baino.

Eleberriaren mintzairaren azterketa orain oraingoz honetan utzi-

---

tan, erakunde hau edo erakunde honetako ordezkariak aipatzean, behingoan "erriko buru edo alkatea" (**Kresala**, 50. or.) erabiliko du, bestean "udaletxeko agintariak" (**Kresala**, 221. or.) edo "erri-nagusi edo alkatea" (**Kresala**, 216. or.).

"Diputau" hitza ez du behin ere erabiliko kontalariak. Horren ordez "legegille" (**Kresala**, 187. or.) edo "auzi-erabakitzalleok" (**Kresala**, 190. or.) adierazpenez baliatuko da. Aldiz, "Errizañak" ez ezik, Josepak ere "**Diputau**" (**Kresala**, 204. or.) hitzaz izendatuko ditu "Lazka-matazak" kapituluan hautatu behar zituzten ordezkariak.

Beste modu bat ere erabiliko du kontalariak pertsonaien mintzairara erantzunkizunik gabe hurbiltzeko: zehar estiloa. Baina esplizituki adieraziko du bere esateko modura hurbiltzen dela: "Mutillorren esakeran, ekatxak itxasoaren erdian artu daroan txalopa baten irudira egoan bera: ekatxak urten baño len, edozein tokira joateko eskubidea baeukan; orain ez, orain al zan portura sartu bearko, naita naiezean, **arribadan**" (**Kresala**, 166. or.).

(178) "Txanogorri ta emaztea, onen asmoak ondo urten ebielako, diru-paperetako **santuai** luzaro begira egonda gero" (**Kresala**, 163. or.).

(179) "**Galdure**", "**dia**", "**geo**", "**ezaltzea**", etab. (**Kresala**, 35-36. orr.).

(180) Ik. **Kresala**, 28. or. eta 69. or.

ta, esan daiteke kontalariak eta arranondotarrek erregistro (181) desberdinak darabiltzatela. Eta arestian esaten genuenera itzuliz, kontalaria ez da erabat makurtu euskara irakatsi beharrera. Horrela, arranondotarren hizkera-modua, berak nahi bezain "garbia" eta eredugarria ez izanik ere, gehienetan errespetatu egin du, nahiz eta eredu posible batekiko desbideratzeak kurtsibaz markatu.

Kontalariak hizkuntza mailan ere markatu ditu "gure" arrantzaleekiko distantziak (182). Distantzia hori, berriz, areagotu egiten da "Bedar txarretako" Indianoarekin. Indianoaren erregistroa ez da arranondotarrena, ezta kontalariarena ere; biengandik urrun dabil, barregarri ibili ere: ez ditu euskal hitzik arruntenak ere ezagutuko; erdarakadak edonon sartuko ditu (183). Ahaztu egin ditu arranondotarren bizitza-modua, ohiturak, izaera eta kultura (184); baita hizkuntza bera ere.

Nolanahi ere, bada gertaera harrigarri bat "euskara gaiztoa" duena bezala karakterizatutako pertsonaia honen inguruan. Eszenaratze bakoitza erdarakadarik gabe uzten ez duen pertsonaia honek

(181) "Esas subvariedades del estilo que se corresponden con los diferentes papeles sociales de un hablante dado o de un escritor, pueden llamarse **registros**". ENKVIST, N.E.; "Para definir el estilo: Ensayo de lingüística aplicada" in **Lingüística y estilo**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, 62. or.

(182) "La distancia o el extrañamiento se puede manifestar respecto a expresiones que existen, que son conocidas como usadas por alguien o como tipificadas-usadas por todo el mundo o en algún círculo o jerga particular. Por ello el procedimiento puede ser analizado como no identificación del enunciador con la persona o colectivo que utiliza esa expresión (se presenta así otro enunciador de esas palabras, no idéntico con uno mismo: E' = E)". LOZANO, J.; PEÑA MARIN, C.; ABRIL, G.; **Análisis del discurso. Hacia una semiótica de la interacción textual**, 148. or.

(183) Ik. **Kresala**, 126-127. orr., 131-134. orr., 196-200. orr.

(184) Dirua kontatzeko orduan ere, neurri desberdinak erabiliko dituzte arranondotarrek eta Indianoak. Arranondotarrek erreala darabilte, eta Indianoak "pezeta" edo bestela "ogerlekoa". Txanogorrik lanak izango ditu Indianoak eskainitako berrehun eta berrogei eta hamar pezetak errealetara "itzultzen". "Jardun-etxean" biltzen diren emakumeek Indianoak omen dauzkan "Ia berrogei milla ogerleko" gai harturik (**Kresala**, 128. or., 134. or.) diote: "Ia ba, milloi bat baeidauka zimarroi orrek eta..." (**Kresala**, 144. or.). Noski, aldaketa hori egiteko errealetan eman dituzte Indianoaren "ogerlekoak".

egiantzekotasunik (185) gabeko eskutitza igortzen dio Mañasiri: euskara jatorrean idatzia, kurtsiba bakarra "Banko" hitzera murriztua. Eskutitzaren aurretik eta atzetik erabilitako hizketa-moduarekin hautsiz, eskutitzean soilik baliatzen da euskara "jatorraz".

Eskutitz honen mintzairaz gainera, bada testuan barrena itxaroten zena hausten duen besterik: maila sintaktikoan matazaren garapenean logika narratiboa haustera heltzen da gertaera bat.

Eleberriaren hasieratik Artobero Sardinzarren txalupan lan egiten duenetako bat bezala aurkezten zaigu (186). Hauteskunde-garaian kontatzen zaigu Tramana eta Brix "Alkarren barri ezer lenago jakin barik, biak aurkitu zirean Patxiren aldekoak" (**Kresala**, 186. or.); eta arerioen artean, hau da, Peruren aldekoen artean Matxin Koipe, Antoniren aita zeukatela. Anjelen eta Antoniren ezkontza galtzen hasten da Patxi eta Perugatik, Anjelen gurasoak lehenengoaren alde jartzen direlako eta Antonirenak bigarrenaren alde, zeren eta Matxin Koipe Peruren alde bazegoen, Sardinzar Patxiren alde zegoela ulertu behar da, nahiz eta honek izenik ez duen aipatzen (187).

Kontalariak esplizituki adierazten duenez, "Lazka-matazak" kapitulu honetako kontaketa ez dago hauteskundeetan zer gertatu zen jakitera bideratuta (188), baizik eta arranondotarrek eta "geure lagun batzuk" gertaera hauek nola bizi izan zituzten kontatzera. Eta, noski,

---

(185) "Enfin, de nos jours, un autre emploi devient prédominant: on parlera de la vraisemblance d'une oeuvre dans la mesure où celle-ci essaye de nous faire croire qu'elle se conforme au réel et non à ses propres lois; autrement dit le vraisemblable est le masque dont s'affublent les lois du texte, et que nous sommes censés prendre pour une relation avec la réalité". TODOROV, Tz.; **Poétique de la prose**, Editions du Seuil, París, 1971, 94. or.

(186) "—Ze gizadi darabil Sardinzarrek txalopan?
—Gizadi ona, gazteri indartsua: Ardauzuri, Gatzbako, Moldakatx, Artobero, Kaiua, bere seme Anjel..." (**Kresala**, 25. or.).

(187) "Nik geure alde emotea gura neban, baña ondo egiten dozu. Ontxe emon dot nik neurea, ta Matxin Koipegaz aserratu egin bear izan dot. Gizon arroa! Berak gura dabena egin bear genduala Anjelek eta nik eta gure txalopetakoak. Eztago toki txarrean!" (**Kresala**, 192. or.). Hala dio Sardinzarrek Txanogorriri, Mañasiren aitari.

(188) "eztaigun esan Peruk edo Patxik zeñek txartel geiago izan eban be. Ardura gitxi deusku guri naiz lenengoak naiz bigarrenak garaitu, bada biak ziran nabar samarrak, biak euren buruaren anditasunagaitik ebiltzanak, Euskalerri maitea aotan artuta" (**Kresala**, 189. or.).

hauteskunde-egunean gertatutakoa oso garrantzitsua izango da matazaren garapenean; hemen hasiko bait da korapiloa askatzen eta Mañasiren helburua bideratzen. Horregatik, nahiz eta kontalariari ez gehiegi ardura Peruk ala Patxik irabazi, arranondotarren jarrerak, eta bereziki Sardinzarrenak eta Matxin Koiperenak, berebiziko funtzionalitatea izango dute historia singularraren garapenean. Hori dela-ta, ezin logika narratiboa hautsi gabe ulertu, nola, gertaera hauek igaro eta Mañasiri Anjelen ezkontz proposamena heltzen zaionean, Artoberok honako hau esaten duen:

> "Patxiren aldeko guztiak zentzubakoak dira, Mañasi. Eztago Peru lango gizonik, ona, errikoia, jakintsua, emollea da Peru. Bestea barriz edozer gauza, badakizu zer dan edozer gauza? Orixe da ba. Perutarrak gara gu, ta Anjel be bai" (**Kresala**, 204. or.).

Indianoak batpatean eskutitz bat "euskara jatorrean" idazteak egiantzekotasunik ez badu ere, ez du gehiago matazaren korapiloa askatzen hasten denean kontatzen den bertsioa gero aldatzeak. Aurreko bertsioa gordetzekotan, Artoberok "Patxi" dioen tokian "Peru" esan beharko luke, eta alderantziz (189). Nahiz eta hauteskundeen ekintzak berak kontalaria ez gehiegi erakarri, ez dirudi Artoberoren esandakoez hauteskundeen parodia bilatzen duenik. "Ardura gitxi deusku guri naiz lenengoak naiz bigarrenak garaitu" dio kontalariak, baina ez du ematen pertsonaiei ere galga berdineko ardura zabaltzea bilatzen duenik Artoberoren huts horren bidez; izan ere, halako haserreak eragin ditu Arranondon eta hain garrantzitsua izan da matazaren garapenean. Gainera, ironiaren edo isekaren edo mintzairaren erabileraz kontalariak pertsonaiarekiko urruntasuna bilatzen duenean, marka grafikoetara jotzen du: kurtsibaren erabile-

(189) Ez dugu uste inprimatzerakoan egindako hutsak direnik. Aldaketa ortografikoren batekin edo besterekin, hemen aipatzen ari garen 5. argitalpen honek aurrekoak jarraitzen ditu. Eta auzitara ekarritako puntu hauek ere lehen argitalpenetik datoz horrela. Ikus **Euskal-Erria** aldizkarian, lehen argitalpentzat jo dena, nahiz eta azkenengo bi kapituluak ez ziren argitaratu: Indianoaren eskutitza, XLVIII, 1903, 73. or.; Tramana eta Brixen jarrera, L, 1904, 459. or.; Matxin Koiperen jarrera, L, 1904, 517. or.; Sardinzarren jarrera, L, 1904, 520. or.; Artoberoren esana, LII, 1905, 455. or.

Bigarren argitalpena Durangon egin zen 1906. urtean, Florentino Elosuren etxean. Hemen honako orrialde hauetara jo daiteke: Indianoren eskutitza: 118-119. orr.; Tramana, Brix eta Matxin Koiperen jarrera: 173. or.; Sardinzarren jarrera: 179. or.; Artoberoren esana: 192-193. orr.; Hirugarren argitalpena, berriz, ez dugu aintzakotzat hartuko; 1954.ekoa bait da eta ordurako D. Agirre hilda izan.

rara. Beraz, parodia baten aurrean bageunde, narrazio osoan darabilen jokabidearen arabera, kurtsibara jo eta grafikoz urrutiratzea aditzera emango luke.

Indianoaren eskutitzak eta matazaren logika narratiboa hausteak kontalari orojakileak hartu dituen lizentzien itxura dute beste ezerena baino gehiago. Deigarrienak badira ere, ez dira lizentzia bakarrak; izan ere, kontaketa erabat menderatzen duen kontalari hau gauza izango bait da uneren batean pertsonaien barne-egoera ez duela ezagutzen esateko, berak pertsonaien barne-bizitza errotik ezagutu eta hauen ekintzak komentatzeraino gai denean:

> "Irribarrez kanpotik, barruan zer erabillen eztakigu baña" (**Kresala**, 106. or.).

Azkenik, kontalariak uneoro gogoan daukan **Kresala**ren jasotzailea aipatuko genuke. Eleberri honetako kontalaria irakurle jakin bati zuzentzen zaio. Hala adierazten du, esate baterako, azaltzen duen mundu-ikuskerak, irakurle-multzo batentzat arbuiagarri gerta daitekeenak (190). Baina, are gehiago, kontalariak berak mugatuko du narratarioa, inplizituki ez ezik, baita esplizituki ere:

> "Eztot esan gura estropadeak edo gure arrantzalien indar neurketeak zelangoak diran, batetik nire irakurle guztiak ondo dakielako, ta bestetik nik egingo neukean baño milla bidar obeto besteren batek zeaztu ditualako" (**Kresala**, 58. or.).

Kresalako kontalariak, batetik, badaki zer jakin dezakeen bere irakurlegaiak eta, bestetik, irakurle-eredu bat eratuz doa: pertsonaien gainetik egiten dizkion keinu konplizeak onartuko dituena (191), bere galdera erretorikoei erantzun konkretua emateko aurrez prestu duena (192) eta, batez ere, bere komentarioekin ados egon eta

---

(190) "y todavía hallaremos muchos libros que postulan lectores que rehusamos ser, libros que dependen de 'creencias' o 'actitudes', el término a usar no es importante, que no podemos adoptar como nuestras, incluso hipotéticamente". BOOTH, W.C.; **La retórica de la ficción**, Antoni Bosch, editor, Barcelona, 1978, 129. or.

(191) "Geiegitxoa zan, guk badakigu, gurasoak Mañasiri esaten eutsiena; baña norbere gogoaren alde zerbait jaditxi nai danean, edozeñek daki geiegi esaten" (**Kresala**, 163. or.).

(192) Indianoa barregarri utzita Mañasik ezkontz proposamenari ezetza ematen dionean, kontalariak irakurlearen iritzia eskatuko du: "Ondo egin eban onek alan erantzutea? Nik neure aldetik eztot ezer esan gura" (**Kresala**, 129. or.).

horien bidez hezitzea bilatzen duena (193).

Dei egiten dio euskal ohituren gordetzaile eta elizkoia den irakurleari; balore hauek irtengo bait dira garaile **Kresala**n. Kontalariarekin ados egongo den irakurleari zuzentzen zaio: alegia, arranondotarren bizitza-modua, Mañasiren zain egotea, batpateko iratzartzeak, arranondotarren mintzaira ontzat emango dituen irakurleari. Eta ez du erabat aseko (194) baldintza hauek betetzen ez dituen irakurlegaia. **Kresala**ren kontalaria soslaituz doa narratario bat eta narratario honekin bat letorkeen irakurlegaiak irakurriko du atseginenik eleberria.

1.3. LEKUEN PARALELOTASUNA

Eleberriko fikzioa lau lekutan garatuko da: batez ere, itsasoan, arrantzaleak ordurik gehienak igarotzen dituzten lekuan, eta Arranondon, arrantzaleen atseden-leku eta hauen familien bizi-lekuan. **Kresala**n barrena bi espazio hauei beste bi eraikiko zaizkie paraleloki: Anjelen kontzientzia eta Bilbo.

Paralelotasun hori aipatzean murrizketa egin beharra dago. Anjelen kontzientzi azterketak noizbehinkako "itsaski amorratuarekin" izango du paralelotasuna, hau da, ekaitz-egunetako itsaso arriskutsuagoarekin eta ez barealditako itsasoarekin. Izan ere, une hori oso berezia da arrantzaleentzat, singularra: mementu horietako abenturak heriotzean izan dezake amaiera. Anjelentzat ere kontzientzi azterketan abiatzen deneko une hori oso arriskutsua da, etorkizuna bait dago jokoan: etorkizun zoriontsua ala nahigabetsua. Mañasik, berriz, itxaron egingo du otoitzean, lehenbizi Arranondon eta gero

(193) "Txarra da, irakurlea, anai-errien arteko aserrea, laster aztutekoa izan da be, ta ondo egingo leuke aldabenak olango aserre-bidea sustrai ta asieratik kentzea, gure anaitasuna egunean baño egunean geiago zindotu dedin" (**Kresala**, 185. or.).

(194) "Si el lector 'culto' coge una novela de las llamadas 'rosa', se sentirá incómodo. La ñoñería y ramplonería le apartarán de ella, pues se supone que el lector a quien apelan tiene otra sensibilidad y otra escala de valores estéticos. Del mismo modo, al lector no preparado le resultará muy difícil leer el Ulysses de Joyce, pues para entenderlo y disfrutarlo necesitan ciertos conocimientos que están más allá de la semicultura del hombre medio". GULLON, G.; **El narrador en la novela del siglo XIX**, 20. or.

Bilbon, Arranondon lehorrean daudenek ekaitz-egunetan egiten duten bezala: hanka bat portuan eta bestea elizan. Mañasiren eta Anjelen abentura garatuko deneko lekuak ekaitz-egunetako Arranondo eta itsasoaren parekideak dira, nahiz bata eta nahiz bestea denbora singular batean desarroilatuz, maitasun-historia eta arranondotarren egun horietako urduritasuna eta borroka lotuz. Egotearen eta otoitzaren leku bezala eraikiko dira portua eta eliza, nola Arranondokoa hala Bilbokoa; eta borrokaren eta itxaropenaren leku bezala, Anjelen kontzientzia eta itsasoa.

1.3.1. Itsasoa

Mataza bezala, itsasoa ere ohizko espazio eta espazio singular bezala eraikiz doa. Eleberriaren hasierak eta bukaerak noizbehinkako itsaso beldurgarri hori dakarte: bere haserrean gizonak irensten dituena, arrisku handien eta heriotzaren itsasoa, denbora singular batean eraikitzen den itsasoa, jesta tragikoaren itsasoa. Hasierak eta bukaerak ez ezik, eleberrian txertaturiko bi erlatu laburrek ere itsaso honi buruz ihardungo dute: Mikolen eta hainbeste goraipatu den Kitolisen erlatuek (195).

Nobelaren hasierako "Ekatxa" eta bukaera aldeko "Ondamena" emaitza desberdineko bi "tirabira" dira. Eta kontatu ere, desberdin kontatzen dira. Lehena kontatzeko Arranondon kokatzen da kontalaria; bigarrena kontatzeko, berriz, itsasoan. Bi kontaketak osagarri dira maila batean: batak ekaitzak sortutako ezbeharra lehorrean nola bizi duten adieraziko du eta besteak itsasoan nola bizi duten. Sare berean biltzen dira itsasoa eta Arranondo, "ekaitza" gertaeraren inguruko bi kontaketen bidez.

Eleberriaren hasierako arranondotarren kezkak kezka eta urduri-

---

(195) "Se trata de seis páginas de Domingo de Agirre, en vascuence dialecto vizcaíno. Está en el capítulo onceno de '**Kresala**'. Tienen un valor literario universal". **Ondarroa**, 1982, 58. or. Jose Artecheren iritzia da.
"Aitzea ere ba'dut 'Kitolis' deritzan atala edonungo literatura azalpenik gorenetakoa dala eta au diona eztegu nolanaiko gizona elerti gaietan". ETXAIDE, Y., (Uarrain); "**Garoa** eleberria" in **Euzko Gogoa**, 1951, II, (n.º 9-10), 11. or.
"**Kresala**'ren eta **Garoa**'ren irakuſleak, maiz aſkitu dituzte oleſki edefak irakuſgai gogoangaſi oien oſietan. **Kitolis**, neretzako beintzat, oleſki edefenetakoa da". ETXEGARAY, K.; "Agiſe, oleſkaria" in **Itzaldiak**, Martin eta Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, 86. or.

tasun huts dira; bukaeran, berriz, trageria bihurtuko dira. "Ekatxa" altxa zenean, Brixek dio:

> "—Ai ene, gure txalopak!" (**Kresala**, 16. or.).

Hitz horiek "Ondamenean" jasoko dute erantzuna, kontalariaren ahots-narrazioan:

> "artu ebazan txalopak inguru guztietatik, sare andi batek arrañak artu oi dituan eran; erabilli ebazan lenengo tatarrez, urruingarri, dardaraka, bultzadarik gaizto gogorrenagaz" (**Kresala**, 210. or.).

"Ekatxean" honela deskribatzen du itsasoa kontalariak:

> "da irakiñaren dardareak azal guztian atara eutsazan apar zuriak igarian ebiltzan itxas-artz gizon jantzalleak zirudien" (**Kresala**, 17. or.).

"Ondamenean", berriz, benetako "itxas-artz gizon jantzalle" bihurtuko da:

> "eta sartu zituan, azkenean, alzituan guztiak ainbeste illoi daukazan itxasoaren kolko barruan" (**Kresala**, 210. or.).

"Ekatxean" berriak maitasun-historiari hasiera eman eta egoera desorekatzailea sortuko du:

> "Sardinzarren potiña zan agertu etzan bakarra" (**Kresala**, 20. or.).

"Ondamenean" egunkari bateko albiste laburra bihurtuko da:

> "an egoan bazter baten Arranondoko erri nagusi edo alkateak bialduriko albiste mingarria ta Sardinzarren txalopako guztiak ondatu zirala ziñoan!..." (**Kresala**, 215-216. orr.).

"Ekatxean" arranondotarren zain egotea, urduri egotea txalupak noiz portura helduko begira; "Ondamenean" Arranondokoa ez ezik, Kantauri itsasoaren oinetan dauden hainbat itsaserriren trageria bihurtuko da, egunkariak dioenez:

> "...; **ciero bilbainooo, con la catástrofe del Cantábrico!**" (**Kresala**, 209. or.).

Ekaitza lehorretik edo itsasotik jarraitu dutenek emaitza desberdinak izango dituzte hasieran eta bukaeran: hasierako "gerta zitezkeenak" gertatu egiten dira amaieran.

Mikolen eta Kitolisen erlatuak ere itsasoa karakterizatuz joango

dira. Erlatu hauek "suspenditu" egiten dute **Kresala**ko mataza singularra, arranondotarren bizitza deskribatzen dutenek bezala. "Etenda" uzten dute kontaketa, baina historia kokatzen den garaitik atzera eginez: besteek ez bezala, lehengo itsasoaren eragina dakarte narraziora; besteek, berriz, kronologia jarraitzen dute. Analepsiaren (196) bidez aurreko itsasoa agertzen zaigu, eleberria kokatzen den garaikoa bezalakoa, zenbait unetan heriotza dakarrena. Hala ere, nahiz eta estuasunak igaro, arranondotarrek hara joan beharko dute berriro ere jatekoaren bila.

Mikolen "aitaita" eta Kitolisen garaian bezala jarraitzen du itsasoak eleberriko historia gertatzen denean. Espazio aldakaitz horrek heriotza ekar dezake, "Ondameneko" egunean edo Kitolisen erlatuan bezala. Edo larrialdi hutsean geldi daiteke dena, "Ekatxaren" egunean edo Mikolen erlatuan bezala.

Porturantz eta elizarantz abiatzen eszenaratzen dira arranondotarrak "Ekatxaren" egunean. Eta egiten dituzten otoitzak kontatzen dira. Mikolen erlatuan ere, "aitaitak" esan zionez, porturantz eta elizarantz abiatu ziren (197). "Ondamena" eta Kitolisen erlatua itsasoan kokatzen dira eta nola bizi izan zuten erasoaldia itsasoan kontatzen dute. Jakin badakigu egun horietan ere, "beste olango eretietan legez", otoitzean arituko zirela arranondotarrak, baina ez zaigu kontatzen: ez zaizkigu eszenaratzen arranondotarrak otoitzean. Ekaitz-egun horietako emaitzak, bestalde, desberdinak izango dira.

"Ekatxa"-renean eta Mikolen erlatuan arranondotarrak otoitzean "erakusten" dira edo otoitz egiten dutela "esaten" da. Eta batean iradoki (198) bakarrik egiten den otoitzak lagun eta bestean esan (199)

---

(196) "toute évocation après coup d'un événement antérieur au point de l'histoire où l'on se trouve". GENETTE, G.; **Figures III**, 82. or. Tz. Todorov-ek "erretrospekzioa" deituko dio historiaren puntu batetik atzera begiratzeari. TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 62. or.

(197) "Txalopak ezeiziran agiri, ta olango eretietan oi dan antzera, erriko gizon da emakume danak, oso artega ta arduratsu baeioazan, batzuk eliza nagusira, beste batzuk talai-etxera ta Antiguako baselizara norbait edo beste" (**Kresala**, 90. or.).

(198) "Itxaserrietako umien arrena, euren txapeltxoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien **Aitagurea**, Jaunaren agintaulkira zuzen zuzen doiala uste dot nik, eta eskari orrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baño geiago erakarten dituala etxaldera Kantauria itxasoko arrantzale gizagaixoak" (**Kresala**, 18. or.).

(199) "Alan da ustea. Beste ereti gaizto askotan be ibilli ei da urertzean, da sarri billa-

egiten den Antiguako Amaren lagun, bietan ihes egingo dute arranondotarrek ekaitzaren atzaparretatik. "Ondamenean" eta Kitolisen erlatuan, berriz, itsasoak batzu irentsiko ditu; eta arranondotarrak ez otoitzean "erakusten" dira, ez otoitz egin dutenik espreski esaten.

"Ekatxa"-ren eguneko itsasoak, Mikolen erlatukoak, "Ondamena"-ren eguneko itsasoak, Kitolisen erlatukoak, noizbehinkako itsaso amorratu hori eraikitzen dute, "tirabira"ren bi aurpegiak erakusten: garaipenarena, arrantzaleak lehorreko portura heltzea zilegiztatuko duena, edo hondamenarena, heriotzaren azken portura eramango dituena.

Larrialdiak sortzen dituen itsaso honen ondoan, eguneroko lan eta nekearen itsasoa ere itxuratuko da **Kresala**n, eguneroko jestarena alegia, arranondotarren ogibideari eta Arranondoko bizitzari eusten diena.

Nola protagonista kolektiboaren, hala protagonista indibidualaren gain harildutako mataza aztertzean genioenez, mataza horien garapenean kontalariak ez du berez eguneroko desarroiloa eta bizitza kontatzen: lehenengoan zerbait berezia egiten direneko egunak edo aldiak kontatzen dira eta besteak elipsiaren bidez igaro; bigarrenean ere "zerbait gertatzen denean" eszenaratzen dira pertsonaiak, mataza aurreratuko duen gertaeraren bat jazotzean. Eguneroko itsasoa deitu dugun honetan ere berdin gertatuko da, eguneroko itsasoak ez bait dio kontalariari narratibitaterik sortzen. Narratibitatea "aldietako" itsasoak sortzen du; eta deskripzio labur batzutara murrizten da sarri askotan. Arranondora bizitza dakarren itsaso hau, bestalde, urtaroei lotzen zaie ia-ia —negu, udaberri eta udari—, bakoitzari bere arrain-motarekin.

Neguan izaten da bixigutea, arrantzaleen bizitza inoiz baino neketsuago bihurtuz: "jan gitxi ta lan asko egiteko" garaia da. Garizuman, udaberriaren atarian, antxoa-garaia da. Eguraldi hobeak, baina irabaziak urri samar. Beraz, alabeharrez izan behar iluna Garizumak, Bazko-eguna prestatzeko Elizak jarritako penitentzialdiak (200). Itsasoak berak ere penitentzia dakar.

---

tu eideutsez soñeko barrenak bustirik eta ondartuta". Antiguako Amari buruz ari da Mikol. Ik. **Kresala**, 92. or.

(200) "Eztago geuri atuntsuko irabazitxoak dakarguzanean begiratutea baño. Andre Marietako egunak eta ezer eztan garizumakoak eztira emen bardiñak izaten..." dio Anjelek bakarrizketan (**Kresala**, 170. or.).

Itsasoaren emankortasunaren eta emankortasunik ezaren ispilu da Arranondo: haserre-leku, urritasunean —antxoa gutxi denean sortzen dira erriertak— eta bake-leku eta jolasleku, aberastasunean —"atuntsu"-tatik etorri ondorengo herriko jaietan—. Horrek menpekotasunezko harremanak sortzen ditu itsasoarekiko, bai bait dakite arrantzaleek "an, itxasoaren barruan dagoala euren da etxeko guztien janaria" (**Kresala**, 65. or.).

Udan "eguzki berotan kiskaltzen luzaroko orduetan"; neguan aterperik gabe, lehorrekoak "epel epeletan" daudela, "baña beti da andi ta bildurgarria itxasoa, beti aurkituten dau gizonak, argal, ziztrin, uts da ezereza bere burua itxasoko zabaltasun aulgarriaren altzoan" (**Kresala**, 65. or.). Eta Arranondo beti babes (201), itsasoa ez bezala. Hala ere, Arranondoko bizitzarako nahitaezkoa den leku bezala eraikiko da itsasoa.

Itsaso honek eta bertan egin beharreko lanek nekea sortzen dutela dio kontalariak, baina arrantzaleak neke hori jasaten "erakutsi" gabe. Arrantzaleak ez dira udako beroak eta neguko hotzak eramaten eszenaratuko; ezta lanean ere itsaso zabalean. Antxoaren arrantza kontatzen da, bai; baina hau lehorretik hurbil egiten da. Gainera kontatu, **nola** harrapatzen duten kontatzen da, baina ez arrantzaleek "jasaten" dutena. Badirudi lanaren eta nekearen ohizkotasunak erlatu iteratiboa eskatzen diola kontalariari: egunak joan eta egunak etorri, lan eta neke berak. Beraz, "arrisku bereziek" eta heriotzak bakarrik eskatuko diote modu singulatiboa. Berriro ere, "guneek" sortzen dute berez kontaketa, eta ez ezer bereziren gertaleku ez den itsasoak.

Ohizko itsasoa, lanarena, arrantzarena, ogibidearena, **bizitzaren** itsasoa izango da arranondotarrentzat; noizbehinkako "itsaski amorratuak", aldiz, **heriotzaren** oihartzunak ekarriko dizkie, oihartzun horiek benetako heriotz bihurtuz batzutan.

Bi itsaso hauek Arranondon isladatuko dira. Batak eguneroko bizitza zilegiztatuko du, emankortasun handiago edo txikiagoak estuasun ekonomiko handiago edo txikiago bihurtuz. Besteak urdurita-

(201) G. Bachelard-ek etxeari jartzen dizkion ezaugarrien antzera: "Así frente a la hostilidad, frente a las formas animales de la tempestad y del huracán, los valores de protección y de resistencia de la casa se transponen en valores humanos". BACHELARD, G.; **La poética del espacio**, Fondo de Cultura Económica, México, 1975, 2. argitalpena, 78. or.

suna eta larritasuna sortuko du; eta heriotza heltzen bada, hilerri bihurtuko Arranondo. Baina heriotz hauek ere ez dute aldatuko arranondotarren bizitza: Kitolisek, semea eta laguna itsasoan galdu ditu, baina sendatu ondoren berriro ere itsasora itzuliko da; arranondotarrek larrialdiak eta adiskideen heriotzak pairatuko dituzte, baina lehen bezala itsasoratuko dira berriro ere.

1.3.2. Arranondo

Arranondo da **Kresala**ko espazio irmea, itsasoak eskaintzen ez dien babesa arrantzaleei emango diena. Hala ere, biziko badira, itsaso horrekin aritu beharra daukate borrokan arranondotarrek; itsasoan bilatzen bait dute eguneroko janaria.

Itsasoak eta "zeruak" baldintzatuko dute erabat Arranondo; eta baita bertako arranondotarrak ere. Lehenengoak bizitza nahiz heriotza ekarriko ditu Arranondora; bigarrenak, berriz, heriotz horren ondorenerako itxaropena. Eta arranondotarren bizitza bi "leku" horietara begira garatuko da.

Ekaitz-egunean batzu Arranondoko portuan egongo dira urduri eta estu, txalupak noiz agertuko zain; beste batzu, gehienak, elizan otoitz eginez. Mañasik "Aita San Pedro"-ri "eregi eikeozuez, Jauna, nunbaiteko ateak" (**Kresala**, 28. or.) eskatuko dio. Arranondotarrak Jesusi "itxasotar guztiak osasunez etxeratu eizala eskatuten" (**Kresala**, 19. or.) zeuden.

Ekaitz-egunean Arranondon daudenek otoitz egiten dute arriskuan dauden arrantzaleak lur irmearen babesera hel daitezen. Eta Mañasiren eskariek edo haurren otoitzek gogarazten duten bezala, hori ezean Betiko Babesa aurki dezaten.

Une larri horiek igaro ondoren, eguneroko bizitzari lotuko zaizkio arranondotarrak. Eta eguneroko bizitza horretan ere itsasoari begira biziko dira: antxoa ugari edo urri heltzen den, "atuntsua" nola joan den... Hauek erabakiko bait dute estuasun ekonomiko handiago edo txikiagoko bizitza-maila. Emakumeak eta haurrak han egongo dira "nasa gaiñean", txalupak noiz etorriko zain, arraina txalupetatik atera, garbitu, gatzetan jarri eta saltzeko.

Arranondon daudenak itsasotik datorrenaren zain daudenak bezala itxuratuz joango dira: arrantzaleak badatozen ala ez, arrantza-

rik badakarten eta zenbat dakarten... Dakarten horrek eskatzen dituen lanak egiten hasteko, jakina. Baina lehengaiak itsasotik etorri behar. Han dago "eguneroko janaria", eta honen **zain** emakumeak portuan.

Itsasotik lanez eta nekez ateratako arrainak izango dira Arranondoko eguneroko bizitza: antxoa-garaian, txiroa; "atuntsuan", oparoagoa... Eta Arranondon hartuko dute atseden arrantzaleek: ardangeletan eguneroko lan-saioa amaitu ondoren eta herriko jaietan festa ahalik eta gehien bizi izanez... Baina bai arrantzaleek bai hauen familiek badakite Arranondo ez dela **betiko babesa**. Betiko babes hori ezin ahantz dezakete, Txanogorrik Indianoari gogoratuko dion bezala:

"—Ta zure lege barriak ondo beteaz zer irabazten dot?
—Neure aitagiñarreba izango zara.
—Bai urte batzuetan, baña gero?
—Itxiozu gerokoari.
—Bai gerokoak neu itxiko banindu.
—Bizi zaite ondo aldozun artean.
—Beti gura neuke Jaungoikoagaz ondo bizi.
—Ze Jaungoiko ta... Etzaite txotxiña izan.
—Oraintxe naz iñoiz baño gitxiago.
—Txanogorri, gogoratuizu etxazula ondo etorriko nigaz aserratutea.
—Ezta Jaungoikoagaz aserratutea be" (**Kresala**, 199. or.).

Txanogorrik eta Sardinzarrek eleberriaren bukaeran daukaten elkarrizketan ere gogoratuko dute nahitanahiezko igaro behar hau (202).

Arranondo aldi baterako babesa besterik ez da. Babes honi lotuko zaizkio arranondotarrak, baina bestea ahantzi gabe. Kristau-sinismenak beste horretaz ematen dien itxaropenez oratuko dira. Horregatik, ekaitz-egunean itsasoa beste batzutan baino arriskutsuagoa bihurtu denean, eskatuko du Mañasik portuaren babesa edo bestela betiko portuarena. "Ondamenean", "emoeiezu, Jauna, ito diran guztiai, beti betiko nekerik eza, atsedena, atsegiña" (**Kresala**, 220-221. orr.) eskatuko dute arranondotarrek; betiko babesa, alegia.

---

(202) "Ia ba, betiko ezkiñan jaio ta...
—Ez, ezkara betikoak —jarraitu eban Txanogorrik, astiro astiro bere pipa zarra beteta gero, toxa besteari emonaz— ezkara betikoak eta gazteagoak be ilten dira" (**Kresala**, 235-236. orr.).

Nolanahi ere, ez dute arrisku-une hauetan bakarrik edukiko gogoan Jaungoikoa. Arranondo "erri sinistetsuak" egunero dauka gogoan eta Beronen aginduak betetzen saiatzen da Eliza Amaren bidez, nahiz eta gizon eta argal izan.

Arranondon ilunabarretan errosarioa esaten dute eta jende asko hurbiltzen da elizara errosarioa esatera. Emakumeek "jardun-etxetan" biltzean errosarioa esaten dute, lagun-hurkoa larrutzen hasi aurretik. Egunerokotasun honetan aldian aldiko ospakizunak izaten dira: Garizuman, txartel bila joatea; Aste Santuan, elizkizun eta prozesioak; herriko jaietan, meza nagusia, etab. Betiko babesaren itxaropena ematen dien kristau-sinismen hau noiznahi azalduko dute arranondotarrek.

Itsasotik nekez ateratako arrainek bizitzeko babes bihurtzen dute Arranondo. Baina Arranondo "aldi baterako" babesa besterik ez da. Eta arranondotar guztiek gogoan daukate. Eta Arranondoko emakumeak portuan zain egotea, arranondotar guztien zain egotea bihurtuz joango da beste maila batean: eguneroko lanean baina zain, herriko festetan baina zain. Beti ere Eliza Amaren aginduak gogoan.

Arrisku-leku eta borroka-leku izaki, eguneroko bizitza posible egiten duen itsasoak Arranondo du kontrapuntu: babes-leku eta atseden-lekua; baina babes-leku eta atseden-leku kontingente. Eta kontingentzia honengatik zain daudenen espazio bezala itxuratuz joango da Arranondo; eguneroko bizitza zilegiztatzen duten txalupen zain eta betiko bizitzaren zain; zain egoteko itsasoaren beharra badaukate ere.

Arranondo ez da leku aldakorra. Lehenago ere, Mikolen "aitaitaren" garaian ere, ekaitz-egunetan otoitz eginez egoten ziren zain arranondotarrak, orain bezalaxe. Arranondon ohitura batzu besterik ez dira aldatu. Kontalariak analepsiaren bidez kontatuko ditu aldaketa horiek, gertaeren denboratik atzera eginez, edo prolepsiaren (203) bidez aurrera begiratuz. Horrela, kontatzen duen historiaren aurretiko eta geroztiko ohiturak dakartza narraziora kontalariak. Baina Arranondo berbera erakusten dute Arranondoren lehenak, historia-

(203) "toute manoeuvre narrative consistant à raconter ou évoquer d'avance un événement ultérieur". GENETTE, G.; **Figures III**, 82. or. Tz. Todorov-ek historiaren puntu batetik aurrerago begiratze honi "prospekzio" deitzen dio. Ik. TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 62. or.

ren orainak eta kontalariak historia kontatzen dueneko garaiak. Emakumeek ihardunean jarraitzen dute: ez lehen bezala atarian, etxe barnean baizik; goruak eta ardatzak ez baina, galtzerdiak, gona edo prakak daramatzate jardun-etxe horietara adabakiak jartzera. Aste Santuko prozesioek ere historia kontatzen deneko garaian bezala jarraitzen dute, kontalariak idazten duen garaian: nahiz eta "Ikasle, Gudari, Beronika, Zirineo" eta gainontzeko Pasioko pertsonaiak errepresentatzen dituzten arranondotarrek historia gertatu zeneko urtean baino apainago joan.

Prolepsi eta analepsi labur hauen bidez, lehengo Arranondo, historiaren garaiko Arranondo eta idazten duenekoa lotuz doa kontalaria, bide batez ohituren aldaketak ere aditzera emanez, eta funtsean arranondotarrak bizitza-moduz ez direla aldatu adieraziz: ibilbideak jazkera-aldaketa besterik ez du ekarri. Beraz, kontalariak esan dezake "Arranondo da" eta "gure arrantzaleak dira". Ekaitz-egunetan zain egoten ziren eta egoten dira, otoitz egiten zuten eta egiten dute, historiaren garaian egiten zituzten prozesioak eta kontatzen den garaian ere egiten dituzte...

Aldaketarik ez dakarren denboraren gurpilari lotuak daude arranondotarrak, denbora zirkular bati kateatuak. Denbora zirkular hau betiko atsedena hartzen dutenean amaituko da. Eguneroko bizitzan babesa den Arranondo hau —beti bait da itsasoa arriskutsu— heriotzarekin aldatuko da fisonomiaz, "Ondamenaren" ondoren bezala, non hilerri bat zirudien. Orduan utziko dio Arranondok babes iragankor izateari eta betiko babes-leku bihurtuko da. Bien bitartean, berriz, arranondotarren arteko harremanek eta Arranondoko gertaerek ez dute eragin handirik izango: Tramana eta Brix deiadarka ibiltzen ziren eta ibiltzen dira, eta arranondotarrek jaramonik ere ez diete egiten, betiko leloa bait da; antxoa urri eta elkarrekin haserretuko dira arrantzaleak, baina arranondotarrengana aldaketarik ekarri gabe.

Arranondo babes iragankor bezala itxuratuko da itsasoak sortutako arriskuen eta betiko babesa den "zeruaren" arteko kokaleku. Iragankortasun hori gogoan, arranondotarrak betiko babesaren itxaropenetan bizi dira. Lehenak sortzen du Arranondoko bizitza, baina bigarrena dute azken helmuga, eguneroko otoitzetan, ekaitz-egunetan eta hilerri bihurtzen denean.

Arranondo egiazta daitekeen lekua dugu. Erreferentea Bizkaiko

Ondarroa izan da (204). Arranondo hitza sortzeko Ondarroa hitzetik abiatuz kontalariak letra-jokoren bat egin zuen ala ez eztabaida alboratuz (205), esan daiteke bai Arranondoren deskripzioak, bai ondoan dauzkan herriei egiten zaien erreferentziak Ondarroa jotzen dutela erreferentetzat. Nahiz eta lekua testutik at egiaztatzeko zailtasunik ez egon, baiezta daiteke kontalariak fikzioaren espazio hau ezkutatzea bilatu duela, zertxobait behintzat, herri honekin muga egiten duten beste biak bezala: Musturzulo eta Lekuito (206). Nahita bilatutako ezkutatzea da, eskutitzetan data legez; hauetan data ezkutatzeko darabiltzan puntu etenak lekura ere eramanez, behin behintzat (207). Fikzioaren lekua horietara bakarrik mugatuko balitz bezala, eleberrian agertzen diren gainerako geografi izenak errealitatean duten izen berberarekin testuratzen dira: Orio, Zumaia, "Ondarribia", Getaria, etab. Baina leku-izen guzti hauek behin besterik ez ditu aipatzen pertsonaiaren batek edo kontalariak.

Kresalako historia Arranondon garatzen da. Eta lekugune honen uneoroko baldintza den itsasoa Arranondoko gertaeretara hertsiki loturik eraikiko da. Musturzulok eta Lekuitok erreferente zuzenaren izena ezkutatu eta Arranondo beraren erreferentea ere ezkutatzea lortzen dute: mugarik gabeko herria da. Badirudi kontalariak histo-

(204) "Y es que esta novela tiene por objeto describir la vida y costumbres de un pueblo vasco pesquero, en concreto, del pueblo del autor, Ondárroa, que en la novela aparece camuflado con el nombre de Arranondo, que consta casi de las mismas letras". VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 327. or.

(205) "Salta a la vista que Arranondo es Ondárroa. Muchos creen y se ha escrito públicamente, que tal apelación procede de un juego, un trastueque de letras, para disimular o desfigurar a Ondárroa.

Sin embargo, un somero conocimiento de la toponimia ondarresa da a entender que no hay tal trastueque o combinación, o que es puramente casual.

Basta salir del casco urbano, un corto paseo y se encuentra uno en Arragüeta, Arrandol, Arrando-erreka, Arranondo-sakona, etc. Cabe, pues, pensar que la toponimia local ondarresa le facilitó dicha denominación". ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, 533. or.

(206) "Itšasuri orren berriak KRESALA-ren orrietan bilatuaz, alde batean Lekuito ta bestean Musturzulo daukazkila jakingo dezute. Deban burdinbidea utzita, bere albouri orren galdezka luzarotšo ibĩlita ere, eztituzute beingo-beingoan aurkitu al izango. Tramana ta Bris ta Tšanogorri bezela, beste iru izen oiek ere izengaiztoak dira, batez ere Musturzulo ta Lekuito". X.; "**Kresala**" in **RIEV**, I, 169. or.

(207) "Mendien egalean da itxasoaren ondoan Arranondotik L... raño dagon iru orduko bidea, nik ikusi ditudanetik ederrenetako bidea bada" (**Kresala**, 149. or.).

riaren lekua zinez fikzio-leku bezala agertu nahi duela, gainontzekoetan erreferentearen izena gordez. Baina Bilbok eta Ondarroa den Arranondok ilusio erreferentziala (208) besterik ez dute sortuko.

Izan ere, nahiz eta Arranondoren azpian Ondarroa ikusi, elizaren deskripzioan edo, are gehiago, Arranondoren deskripzioan aditzera ematen denez, **Kresala**ko Arranondok erreferenteak ez bezalako konnotazioak ditu. Arranondo da arrantzaleen atseden-leku; emakume, haur eta zaharren atseden-leku eta lan-leku; ekaitz-egunetako itxaron-leku; hildakoen aldeko elizkizunak egiten diren lekua... Arestian genioenez, Arranondo **Kresala**n babes-leku iragankor bihurtuz doa; Ondarroa izan ala ez, Arranondo dena. Eta areago, berbaldiko kontalariaren ahots-narrazioan batipat, Arranondo "edozein" itsaserri bihurtuz joango da orokortze-prozesu batez. Eta hala, Anjel gazte "umantkorra" eta arranondotar arrantzale "umantkorrak", "Kantauriko umant apalak" (**Kresala**, 224. or.) bilakatuz joango dira berbaldian, "Ondamenaren" eraginaren azpian; izan ere, Arranondo ez ezik, Kantauri itsasertzaren ondoan dauden beste herri batzu ere harrapatuko bait ditu, Santurtzetik Hondarribiraino negarra eta ezbeharra zabalduz. Era berean, Sardinzarren txalupakoei Getarian egin zieten harrera ona, euskal lurrean edozein itsaserritan horrelako egoeretan egiten den harrera ona bihurtuko da (209). Bestalde, Arranondoko haurren otoitzak "Itxaserrietako umien arrena" (**Kresala**, 18. or.) iradokiko dio kontalariari...

Beraz, "Errekarte ta mendi egal zoko batean dindilizka dagoan erri koskor bat" (**Kresala**, 21. or.) den Arranondo edozein itsaserri bihurtuz doa orokortze-prozesu batez kontalariaren ahots-narrazioan, Arranondok "Ondamenean" jasan duen trageria beste itsaserrietara ere zabalduz; zeren eta historikoki horrela gertatu bazen ere, kontalariak nahi izanez gero, Arranondora muga bait zezakeen "Ondamena"-ren emaitza. Agian, beste zenbait arrazoiren artean, honegatik

---

(208) Ik. RIFFATERRE, M.; "L'illusion référentielle" in **Literatture et réalité**, Editions du Seuil, Paris, 1982, 91. or. eta hurrengoak. Erreferentearen eta testuaren arteko harremanak R. Barthes-ek ere aztertu ditu. Ik. BARTHES, R.; "L'effet de réel" in **Litterature et réalité**, 81. or. eta hurrengoak edo nahiz "El efecto de realidad" in **Lo verosímil**, liburuan, 95. or. eta hurrengoak, nahiz "Lo real, lo operable" in **S/Z**, Siglo XXI de España Editores, Madrid, 1980, 66. or.

(209) "Ikusi eztabenak eztaki zelan artu oidituen, edozein erritan, euskal lurrean bada erri ori, itxasoagaz guda ezbardin ikaragarrian ibillita gero legorrera datozen arrantzale anaiak" (**Kresala**, 33. or.).

bilatu du kontalariak erreferente zuzena ezkutatzea: Arranondo fikzio-lekuak, ondarrutarren neke, atsedenaldi eta larrialdiak ez ezik, Kantauri itsasertzean dauden beste hainbat herrirenak ere jaso zitzan.

Nolanahi ere, erants dezagun kontalariarengan soma daitekeela jokabide anbibalente bat: batetik, erreferenteari leial izan nahia (pertsonaia historikoen aipamena...), erreferente hori agerian utzi nahia, eta, bestetik, ezkutatu nahia (eskutitzen datak gordetzea, Bilboko egunkariaren izena ezkutatu nahia, "...ciero bilbaino" izenaren azpian "Noticiero Bilbaino" ezkutatuz, etab.).

1.3.3. **Kontzientzia**

Ekaitza izan zen Mañasiren sentimenduen iratzargailua. Esana dugu Anjelen iratzargailua ere horrelako arrisku-une bat izango dela: Mañasi Indianoarekin ezkontzera doala dioen berria.

Une larritan gertatzen dira batpateko iratzartze hauek, ezkutuan gordeta dauden sentimenduen esnatzeak. Baina **Kresala**n ez ezik, **Garoa**n ere aurki daiteke baliabide honen erabilerarik. Eta errepikapen honek gehiago dirudi egilearen mundu-ikuskerak ametitzen duen gertaera, alabeharrez behin erabiltzen den baliabidea baino.

Garoan Malentxo moja sartzera doanean, bere ama Katalinek hartzen duen jarrerak honako iruzkin hau sortarazten dio kontalariari:

> "Ez, gure maitetasuna ezta danentzat era batekoa, ezta ere beti berdiña. Sakon ta iraunkorra izanarren, lotan egon oida sarri, aztuta, gordeta, estalirik, auspean dagon suaren antzera. Maitetasunak, bere agerraldirako egun, ordu ta garaiak dauzka ta ordurik samurrena maiteari agur egin ber dioneko garaia izaten du" (**Garoa**, 241-242. orr.).

Garoako pertsonaien jokabideak edo une bateko egoerak eragina izan arren (Anjelen eta Mañasiren iratzartzeen ondoren egindako gogoeta izan zitekeen), maitasun-mota desberdina du iturri **Garoa**ko honek. Baina bietan maiteari agur egin behar zaioneko mementuari egiten zaio erreferentzia. Eta Mañasiren eta Anjelen iratzartzeak horrelakotan gertatuko dira: bata, ekaitz-egunean, Sardinzarren txalupa porturatzen ez eta, Anjel galtzeko arriskua duenean, eta bestea, Mañasi galtzeko arriskua ezagutzen duenean, Indianoarekin ezkontzera doala-ta.

Errepikapen hau dela-ta, batpatekotasuna azaltzen da garaile sentimenduen prozesuaren galeratan. Prozesuetan baino gehiago batpatekotasunetan sinisten duen mundu-ikuskera da nagusi, gizona eginez doan izakia ez baina, "gizona da" baieztatzen duen egitura mentala: "gizona da" eta batpatean ohartzen da zenbait gauzaz.

Mañasirentzat bezala, iratzartze hori mingarria izango da Anjelentzat ere (210): "eguardi aurretxoan" hasten duen kontzientzi azterketak Mañasirengana abiatzeko beranduegi ote den susmoa sortzen dio. Iratzartze honen iraupena nobelan beste edozein gertakizunetan ez bezalako denbora-markez aditzera ematen da: kontzientzi azterketa honek "eguardi aurretxotik" "eguardiko amabiterdiak" arte iraungo du. Denboraren baliabide erretorikoari nobelan barrena eman zaion tratamenduarekin kontrastatzen du zehaztasun honek; izan ere, aldiei —Garizuma, negua— edo egunei —Atseden-orduak— lotu zaien kontalariak beste jarrera bat agertuko bait du hemen, kontzientzi prozesuaren hasiera eta bukaera markatuz. Denboraren tratamenduak aldaketa bat jasango du orohar: arranondotarren ohizko bizitzaren kontaketak berbaldian zuen hedapena murriztuz doa eta maitasun-historiari emandakoa handituz. Maitasun-historia zabalduz doan neurrian aurretik ez zeuden bezalako denbora-markak testuratuko dira (211). Eta zehatzena eta markatuena Anjelen kontzientzi prozesuarena izango da.

Epe labur horretako kontzientzi azterketaren mementuan itsasoak berak ere ez du baretasunik; ekaitz-giroan garatuko da —Mañasirena bezala—, lehorretik ikusten badu ere. Paisaia bere barne-egoerarekin bat egingo da: "aizea, neguko egunik txarrenetakoaren antzera, gogor, zematzalle ta soñulari" (**Kresala**, 165. or.). Barne eta kanpo-egoera bortitz honek une larriak sortu eta transformazioak ekar ditzake Arranondora, gogoeta edo prozesurik ez; pertsonaiek ekaitz ondoren ere lehengoari lotuak jarraituko bait dute, lehen

(210) Iratzartze mingarri hauek J. Campbell-ek heroearen abentura mitologikoa aztertzerakoan dioena gogorazten dute: "todos los momentos de separación y de renacimiento producen angustia". CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 55. or. Bai Anjel eta bai Mañasi maitasuna ezagutzen ez zuteneko egoeratik "berezi" eta maitasun-egoeraren ezaguerara jaioko dira.

(211) Zenbait gertaeraren artean igarotzen den denbora lehen baino zehatzago jarrai daiteke, oso zehatz ez bada ere; hala nola, Anjel Elgoibartik etorri eta hurrengo egunean joan zela Mañasi Bilbora, maiatzaren zazpian idatzi ziola eskutitza Indianoak...

bezala. Eta, hain zuzen, egurats-baldintza horietan jaio da Anjel maitasunera, Mañasi maitasunera jaio zeneko egoera analogo batean; egurats-egoera honetan hautsiko dira Anjelen gurasoen ezkontz hitzak eta Mañasiren gurasoenak; egurats-egoera honen ondoren etorriko da Anjel eta Mañasi elkartzea; egurats-egoera honek bihur dezake Arranondo hilerri. Egurats-egoera guzti hauek ez dira "errealak"; ez dute "itsaski amorratua" altxatu eta arranondotarren urduritasuna pizten eta arrantzaleak borrokara eramaten. Baina lehorreko gertaera transformatzaile hauek ekaitz-giroa iradokitzen diote kontalariari eta honek lehorreko gertaerei aplikatuko die metaforaren bidez. Horrela, hauteskunde-garaian sortutako haserreek "ekaitza" ekarriko dute hauteskunde-egunean Arranondon:

> "Baña jausi biar eban egurrak. Ainbeste aize ta zorakerien atzetik, ainbeste bena, goibeltasun ta trumoiren ondorean etorri bear eban ekatxak ta ekatxa etorri zan baltza, zematzallea, ikaragarrizkoa" (**Kresala**, 188. or.).

Eta giro honetan hautsiko dira Sardinzarren eta Matxin Koiperen arteko harremanak, Anjel gurasoen nahiei jarraitu beharretik askatuz, hauen gogokoa zen Antonirekin ezkondu **beharretik** aske geldituz eta beste norabide bat hartzeko egokieran utziz.

Indianoak Txanogorriren etxetik egiten duen irteera ere "ekaitz-giro" batean gertatuko da, Txanogorrik Mañasirekin ezkonduko zeneko hitza hautsi ondoren:

> "Trumoi soñoaren antzeko deadar lodi garratzakaz da bere aotik tximista goriak jaurtiaz urten eban Indianoak Txanogorrinetik" (**Kresala**, 199. or.).

Bi ekaitz "errealei", Mañasiren sentimenduak esnatzen dituen lehenengoari eta Arranondo hilerrian Mañasi eta Anjel elkartzen dituenari, beste hiru ekaitz metaforiko hauek lotzen zaizkie: Anjelen kontzientzi azterketarena eta bataren nahiz bestearen gurasoek konpondutako ezkontz hitzen haustura. Ekaitz-giroa elementu transformatzaile bihurtuko da, harremanak alda ditzakeen elementu. **Kresala**ko motibo egituratzaile bilakatuko da, transformazio kualitatibo guztien oinarri amankomun. Honela labur daiteke ekaitz-giroaren eragina **Kresala**n:

Mañasi **EKAITZAK** maitasunera iratzarri.
Anjel **EKAITZAK** maitasunera iratzarri.
Anjelen gurasoak **EKAITZAK** emandako ezkontz hitza hautsi.

Mañasiren gurasoak **EKAITZAK** emandako ezkontz hitza hautsi.
Mañasi eta Anjel **EKAITZAK** elkartu.
Arranondo "bizi-herria" **EKAITZAK** hilerria.

Genioenez, ekaitz-giro honetan hasten zen Anjelen kontzientzi azterketa; baretasunik gabeko kanpo nahiz barne-egoeran hasi eta epe laburrean bukatu: Mañasiz maitemindurik egonik, hau samintzeko asmoarekin erabakiko du, berriro ere Antonirekin harremanetan hastea, txalupak —kontzientziak— hartuko duen norabidea Antoni dagoen portura heltzea izango bait da. Anjelek ekaitz-giroan egiten duen "bidaia" honen ondoren aurkitzen duenak ez du aseko eta hausnarketa berri bati ekingo dio bizi duen egoeraren jatorria aztertzeko: Arranondon hain urri dagoen urrea da bere ustez egoera honen sortzaile.

Kontzientzian barrena egiten duen lehenengo bidaiak diagnostikoa ematen dio. Baina diagnostikoak Mañasiren pare jartzen badu ere, ez horrela hartzen duen jarrerak; izan ere, Anjelek "gaisotasunari" jarriko dion erremedioa Mañasi samintzea izango bait da, ekitea, eta horrela jakin eraziko die gurasoei Antonirekin harremanak berriro bideratzeko eskatzen dienean. Mañasiren erremedioa, ordea, itxaropenez itxarotea izango da.

Ekin/itxaron aurkakotasunak laburtzen ditu bi jarrerak. Anjelek diagnostiko horren bila egindako "bidaiak" kontzientzia iratzartze-leku eta erabaki-leku bilakatzen du. Berehala izango du oihartzuna erabakiak kontalariarengandik jasotzen duen gaitzespenak (212), Anjel ez bait da zoriontsu hartu duen erabakiarekin. Bigarrengoz kontzientzia aztertzen hasten denean, berriro ere argi dauka diagnostikoa, baina ez irtenbidea. Ez dakusa egoera pairatu beharra besterik, mementuko eta etorkizuneko egoera nahigabetsua eraman beharra.

Kontzientzia diagnostiko-leku izango da, baina ez oztopoak gainditzeko leku. Bai bait daki gurasoen oniritzia izango duela lehen azterketaren ondoren hartzen duen erabakiak eta ez duela haien aurka jarriko. Baina honek porrot egitean, "irteerarik gabeko egoeran" aurkitzen da. Batetik, Mañasi ezkontzera doalako eta, bestetik, gurasoei dien begiruneagatik. Eta kontzientziatik at dauden instantzia hauek oztopoak erretiratzean bakarrik izango da posible bukaera

(212) "Min danean itxi oi dira begiak eta orduan astakeririk andienak egin" (**Kresala**, 166. or.).

zoriontsua: gurasoek ezarritako ezkontzak berauen borondatez haustean.

Anjelen kontzientzi azterketak edo Mañasiren itxaroteak ezin gaindi dezakete gurasoen esana ez betetzea (213). Kanpo-baldintza hau dela medio, Anjelek ez du askatasunik kontzientziak aginduko liokeen eran jokatzeko. Sardinzar Matxin Koiperekin haserretzen denean bakarrik gaindituko da oztopo bat eta Txanogorri Indianoarekin haserretzean bestea. Iratzartzeak eta kontzientziaren diagnostikoak kanpoko oztopo hauek gainditzean bakarrik hartuko dute bukaera zoriontsu baterako norabidea. Eta gatazka ordenua hautsi gabe konponduko da.

1.3.4. Bilbo

Mañasik bigarren aldiz entzuten duenean Anjel ezkontzera doala, Bilbo hautatuko du bizilekutzat, han ezkutatu nahiko du bere burua. "Erriberako malletan" Anjelekin izandako elkarrizketak honen aurrean salatu duela uste du, eta Arranondoko lagunarte eta jardun-etxeetako hizketagai izateko arriskutik urrundu nahiak darama Bilbora Mañasi.

Kresalako Bilbok, nahiz eta erreferentea agerian uzten duen, Bilbo leku-geografikoak ez dituen konnotazioak izango ditu. Bilbon jarraitzen du Mañasik itxaroten eta otoitz egiten, Arranondon bezala; Antiguako Amari zuzentzen zizkion otoitzak orain Begoñakoari zuzentzen dizkiolarik.

Arranondoko portuan emakumeak, haurrak eta zaharrak txalupak noiz agertuko zain egoten dira eta Antiguako Amari otoizka, ekaitzaren atzamarretatik aska ditzan. Halaxe, Mañasik ere Bilbon bere atseden-ordutarako bi bide besterik ez ditu ikasiko:

---

(213) J. I. Ferrerasek aintzinako errejimeneko (errejimen zaharreko, zuzenki errejimen fernandinoari buruz ari da) aginte-harremanak eta nobela-mota bateko ahaidetasun-harremanak erkatzen ditu, errejimen honen itzalean sortutakoarekin, hain zuzen. Besteak beste, honako hau dio: "Un hijo, por muy protagonista novelesco que sea, no se alzará jamás contra su padre, porque este alzarse sería verdaderamente un alzamiento, un ataque a la sociedad, al rey, a Dios; y el rey y Dios y hasta la sociedad pueden ser duros, incomprensibles a veces, pero el siervo, el cortesano, el hijo, deben saber que estos poderes velan por él, le labran la felicidad y le aseguran el porvenir". FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 125. or.

"amabostetik amabostera, jai arratsaldetan, urten oi eban edo elizara edo itxasaldera, beste biderik ezeban ikasi gura ta" (**Kresala**, 125. or.).

Itsasaldea eta eliza. Porturantz eta elizarantz abiatuko balitz bezala, ea noiz datorren "Anjelen txalupa" ikustera eta "Anjelen txalupari" Mañasi dagoen portuko norabidea emateko eskatzera. Arranondoko emakumeen ekaitz-egunetako irtenbidea besterik ez du ikusten: itxaron Jaungoikoarengan itxaropenarekin.

Bien bitartean Anjelek bere kontzientzi azterketan dihardu, ekaitz-giroan murgilduta:

"Mutillorren esakeran, ekatxak itxasoaren erdian artu daroan txalopa baten irudira egoan bera: ekatxak urten baño len, edozein tokira joateko eskubidea baeukan; orain ez, orain al zan portura sartu bearko, naita naiezean, **arribadan**" (**Kresala**, 166. or.).

Anjelek bi lagun dauzka zain: Bilbon, Mañasi, "itsasaldera" begira eta hara joan dadin otoizka; Arranondon, Antoni.

Zain egotea "Anjelen txalupa" Bilbora heltzean bakarrik amaituko da, Artobero eta Josepa mandatarien bidez Anjelen ezkontz proposamena Mañasiri iristean. Orduan esango du Mañasik, ezkontz proposamen honen sustraien bila:

"Jaungoikoaren gauzak dira oneik. Jaungoikoak entzun deustaz nik Begoñako Amaren bitartez egin deutsadazen arrenak" (**Kresala**, 206. or.).

"Txalupa" heltzearen esplikazioa Jaungoikoak eskainitako laguntzan bilatzen du Mañasik; Mañasiren iratzartzea gertatu zeneko ekaitz hartan kontalariak egindako gogoetaren oihartzuna balitz bezala, eleberria bukatzear dagoen une hauetan:

"Itxaserrietako umien arrena, euren txapeltxoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien **Aitagurea**, Jaunaren agintaulkira zuzen zuzen doiala uste dot nik, eta eskari orrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baño geiago erakartzen dituala etxaldera Kantauria itxasoko arrantzale gizagaixoak" (**Kresala**, 18. or.).

Badirudi Mañasiren "arrenak" eraman duela Anjelen eskari hori Bilbora beste ezerk baino gehiagok, gertaerek gainditu bait dituzte Anjelen sentimenduak iratzarri ondorengo oztopoak, berak bere esku zegoena egin badu ere.

Arranondotik Bilbora egiten duen bidaiak edo Bilboko bizitzak berak ere ez dute aldatuko Mañasi. Arranondoren menpe dagoen espazio bezala eraikiko da Bilbo. Izan ere, Arranondotik datozen pertsonaiak —Indianoa— edo albisteek —eskutitzak— bakarrik dakarte Mañasi eszenara edo kontaketara. Gainontzean, Mañasiren desterru-leku den Bilbok ez du Arranondok adinako presentziarik narrazioan. Bilboko bizitza-modua, lana, ohiturak... ez dira Arranondokoak bezala testuratuko. Mañasi zain dagoeneko leku izatera murrizten da.

Anjel ezkontzera zihoala jakin eta Arranondon hartu zuen jarreraren (214) arabera, otoitz eginez eta itxaroten jarraituko du Mañasik Bilbon. Mañasi ez da inoiz errebelatuko; ezta borrokan hasiko ere. Indianoari ezetza eman besterik ez dio egingo. Gurasoak datozkionean eskari honekin, bereari uko egin gabe saiatuko da epeak luzatzen. Bere jarrera egotea izango da, auzia konpontzea edo beste instantzia batzuri balegokie bezala, Arranondon ekaitz-egunetan zain daudenen antzera. Mañasiren gatazka bideratzeko iharduletasuna arranondotar horiena bezalakoa izango da, arrantzaleek edo Norbaitek gatazka bideratuko duelakoan.

Mañasiren egonleku bihurtuz joango da Bilbo, Anjelen kontzientzia ez bezala. Anjelek, berriz, samintzeari ekingo dio. Diagnostikoa ezagutu ondoren ekitea izango da bere erantzuna, txalupa "porturen" batera eramateko "arribadan", Arranondoko arrantzaleek ekaitz-egunetan legez. Azkenean heldu egingo da portura, horretarako berarengandik at zeuden indarrek parte hartu behar badute ere.

Ekin/egon izango dira kontzientzia/Bilbo espazioek sortzen duten oinarri-predikatua, ekaitz-egunetako arranondotar arrantzaleen eginkizunari eta arranondotar emakumeen eginkizunari paraleloki eraikia.

1.4. ITSASOAK MARKATURIKO ERRITMOA

Esan daiteke itsasoa dela narraziotik at egon eta narrazio osoa baldintzatzen duen lekua. Narraziotik at egotea ez dago zentzu absolutuan hartzerik, presente egongo bait da narrazioan antxoaren arrantzan edo "Ondamenean", esate baterako. Baina, nolanahi ere,

(214) "Iñoiz baizen goiztarrago, elizarakoago, baztertuago egin zan, da jolasetara ezeban bere bururik agertu gura" (**Kresala**, 80. or.).

kontaketa bezala duen presentzia hutsala da Arranondorenaren aldean. Eta zer esanik ez, Arranondoko bizitza guztia baldintzatzen duen leku bezala eraikitzen denean.

Ekaitzek eta barealdiek markatzen dute arranondotarren bizitzaren erritmoa: ekaitzetik barealdira doan herri bezala itxuratzen dute lehen egoerak sortutako larrialdiak eta bigarrenaren egunerokotasunak, nahiz eta ekaitzak bizitza-moduan eraginik ez izan, ez bait ditu eramango ez gogoetetara edo beste edozein motatako aldaketetara.

Arrantzaleak lehorrean daudela garatuko da mataza, itsasoan dauden denboraldia elidituz. Horrela Arranondo bihurtzen da kontaketa-erdigune eta ez itsasoko bizitza bera. Matazaren desarroilorako arrantzaleak lehorrean daudeneko abagaduneaz baliatzen da.

Hala, "Itxasoratzerik etzan goiz batean" (**Kresala**, 43. or.) joango da Artobero txartel bila; kanpoan bizpahiru hilabete luze igaro ondoren ospatuko dira herriko festak, kanpoan dauden aldi hori kontatu gabe; "Itxasoratzerik izan etzan goiz baten" (**Kresala,** 77. or.) eskatuko dio ama Tomasak seme Anjeli Antoni Errotarekin ezkon dadila; "itxasora barik" (**Kresala,** 84. or.) gelditu behar izan zuen aldi batean hitz egingo du Anjelek "Erriberako malletan" Mañasirekin eta ama Tomasak bigarren elkarrizketa izango seme Anjelekin; itsasoko lanak markatuko du Anjel eta Antonirentzat gurasoek jarri duten ezkontz eguna —"atunetara baño len, Donibanetarako ezkonduko zireala zabaldu eben erri guztian" (**Kresala**, 116. or.)—; itsasoratzerik ez zen goiz batean murgilduko da Anjel kontzientzi azterketan...

Itsasoak markatzen du **Kresala**ko pertsonaien bizitza. Haren menpe bizi dira, hura bait da Arranondoren bizitza-iturria; baita heriotzarena ere. Maitasun-historian ere, itsasoko zereginetan erabat murgilduta egoteak ez dio astirik emango Anjeli bere etorkizunaz gogoeta egiteko. Baina kontaketan eliditurik egongo da itsasoa eta itsasoko bizitza. Itsasoa **Kresala**n presente dagoen ausentea da.

2. KRESALA: MAITASUN-HISTORIA BATETIK ERLIJIOTASUN TRANSZENDENTE BATERAKO IRAGANBIDEA

Mañasi eta Anjelen arteko maitasun-historiaren ibilbidea, hasi eleberriko lehen kapituluko lehenaren iratzartzetik eta, oztopoz ozto-

po, batzutan naturaz gaindiko laguntzari esker, aurrera eginez, azkenengo ekaitzaren ondoren elkartzen diren arte, egitura mitiko bat hartuz joango da, maitasun-historia honetako urratsak (ekaitza —oztopoak— ekaitza) mitema (215) bihurtuz (iratzartzea —sarbidea— itzulera): bai Mañasik eta bai Anjelek hiru etapak igaroko dituzte elizan "Ondamenaren" ondoren elkartu aurretik. Denbora singular, lineal eta arriskutsudun honetan ibilbidea egin ondoren, Arranondoko ohizko bizitzan eta egitarauean integratuko dira. Ohizkotasunetik irten eta ohizkotasunera itzuli bitarteko abentura hau sarbideko errituak bezala taxutuko da bere sinpletasunean. Ibilbide horren ondoren bizitza zoriontsu batera "birjaioko" dira, ohizkotasunera itzuliko; baina ez aurreko berera, beste batera baizik: nerabe-garaia bukatu da.

Maitasun-historia honi paraleloki eraikia garatzen da arranondotarren bizitza. Hauek ere egun batzutan, itsasoa "irakiten" jartzen denean, ohizko arrantza-lana eta ohizko bizitza utzi eta abenturari ekiten diote; batzuk ez dakite portura heltzea lortuko duten; ezta besteak ere familiakoak eta herritarrak helduko diren. Denak heltzen badira, berriro ere lehen bezalaxe lotuko zaizkio ohizko bizitzari; baina lortzen ez badute, "itzulerarik ez duen bidaia" hasiko dute. Ekaitzak daramatza bidaia horretara, Mañasi eta Anjel bezala. "Como corpo morto cade" hondar gainera iristean hasiko dute bidaia, Arranondo hilerri bihurtuz. Baina ez dira itzuliko, Mañasi eta Anjel bezala; Betiko Atsedenerako bidaia bait da. Maitasun-historiak, arranondotarren bizitzak, beste bidaia bat egingo du esanahi bila **Kresalan** barrena, ekaitza-oztopoak-ekaitza etapak iratzartzea-sarbidea-itzulerako bidaia mitemetan oinarriturik eta heriotza —"sarbidea"— betiko atsedena erritmo-analogian oinarriturik. Hala ere, azken etapan ez daiteke horrelakorik ametitu, azken finean ezinezkoa bait da egitura mitiko eta erlijiotasun transzendente baten artean erritmo-analogia berdin-berdinik ematea, bizitzaren bi kontzepzio desberdin izaki.

2.1. DENBORA SINGULARRETIK DENBORA ZIRKULARRERA

Eleberriaren hasieran ekaitz batek hausten du eguneroko bizitza Arranondon, bertan zeudenak portura nahiz elizara eramanez, une larri horietan Jaungoikoaren laguntza eskatzera.

---

(215) Ik. LEVI-STRAUSS, C.; **Antropología estructural**, Editorial Eudeba (Editorial Universitaria de Buenos Aires), 1980, 8. argitalpena, 186. or. eta hurrengoak.

Arranondotarren urduritasunak txalupak porturatzean amaituko dira. Eta Arranondok eguneroko fisonomia hartuko du: antxoa-garaiko errierta, Garizuman txartel bila joan beharra, Tramana eta Brixen haserrealdiak... Baina ezerk ez ditu ekaitz-egunetako estuasunetara eramango; gainontzeko "egitarauera" erabat ohituta daude. Tramana eta Brixen erriertak ere eguneroko bizitza horren zati besterik ez dira eta arranondotarrak ez dira harrituko: "Betikoa zan da!" (**Kresala**, 74. or.). Estuasun-iturria amaitu, ekaitzak sortutako arriskutik txalupa guztiak lehentxoago edo beranduxeago onik itzuli eta Arranondok eguneroko fisonomia hartzen du ekaitz-egun horren ondoren; ez, ordea, Arranondoko biztanle batek: Mañasik. Ekaitz-egun horretan sortutako desorekak jarraitu egingo du mataza-bukaera arte. Ekaitzak irekita utzi duen zauria itxi artekoan iraungo du **Kresala**ko matazak.

Matazaren bukaerak eta korapiloaren askatzeak beste mundu berri orekatsu bat sortzen du protagonistentzat gatazka-iturrien garaipen bezala: mundu barea eta zoriontsua. Anjel eta Mañasi abenturaren amaierara heldu dira denbora singular batean, lineal batean. Bien bitartean izan dituzten arriskuak igaro eta Arranondoko ohizko "egitarauera" itzultzen dira. Amaitu da abentura singularra, eurena izan eta zehazterik ez dagoen epe mugatu batean gertatua. Nahiz eta etorkizun zoriontsura ez heltzeko arriskutan bizi, Indianoak, Antonik, Sardinzarrek eta Txanogorrik jartzen zituzten oztopoengatik, hauek garaitu eta Arranondoko "ohi" horretan integratuko dira. Orain lehen bizi zuten "gatazka pertsonala" gaindituta ohizko egitaraua edukiko dute Garizumak eta herriko festak eta abarrek Mañasirentzat eta Anjelentzat.

Bi ekaitzen artean garatzen da mataza: bigarrenak ixten du lehenak sortutako gatazka, tartea orekaren bila "ibiltzea" edo "egotea" delarik.

Bi ekaitz horien artean itsasoak ez du gatazkarik sortuko eta arranondotarrak ohizko bizitzari lotuta biziko dira: Garizuman antxoaren arrantza izango dute lanbide eta elizara txartel bila joatea betebehar; Garizumaren bukaeran Jesukristoren Nekaldia eta Heriotza gogoratuko dituzte; agorreko jaien aurretik atunetara joango dira; jaietan urteroko egitaraua izango dute (Meza Nagusia, estropadak...); ondoren neguko bizitza etorriko da, lan asko eta irabazi gutxikoa. Baina bien bitartean ekaitzak sortutako egoera berrian bizi da

Mañasi, "ohizko egitarauaren" barnean, baina honen ohizko baretasunetik kanpo. Garizumak, agorreko jaiek, neguak eta abarrek berriro ere "ohizko egitarau" izan daitezen Mañasirentzat, honek oreka lortu beharko du; kontatzen zaigun urte honetako edo hauetako abentura amaitu; bere bizitza garatzen ari den denbora singular horretatik denbora zirkularrera itzuli; une konkretu batean bere abentura bizi izateko utzi duen sorlekura itzuli; aurrerapenik ez dakarren "ohi", denbora "bare" eta "arriskurik gabeko" horretara bueltatu.

Denbora singularretik denbora zirkularrerako itzulerak denbora zirkular honetako irteerarekin lotura isomorfikoa (216) du: irteera eta itzulera **ekaitza** elementu isotopikoari (217) atxekitzen zaizkio; eguratsaren gora-beherak abenturaren hasierari eta amaierari lotuak daude; arriskua konnotatzen duen gertaera, ekaitza, Arranondoko ohizko bizitzaren babesetik denbora singular batean garatzen den abenturaren "arriskura" irteteko erabiltzen da eta "arrisku" horretatik itzultzeko. Ekaitzak markatuko du era berean Anjelen sentimenduen iratzartzea, sentimendu hauen arakatzea eta txalupa porturen batera bideratzen hastea. Baita etorkizunaren zutabeak jarri nahian hasten denekoa eta zutabe horiek jartzen dituenekoa ere. Lehenengoa lehorrean pairatuko duen ekaitza da, "itsaski amorratuari" so eginez eta ekaitza kontzientzian jasanez; bigarrena, berriz, itsasoan bertan pairatuko du uhinekin borrokan. Etorkizunaren zutabe horien "bila" hastearen unea eta oztopoak gainditurik Arranondoko "ohizkotasunera" itzultzen deneko unea isomorfikoki eraikiko dira, ekaitza elementu errekurrentean oinarrituz.

Abentura hori bideratzen duten kanpoko zirkunstantziek —gurasoek— ekaitz-giroan aldatuko dute txaluparen norabidea —Anjelen kasuan— eta Mañasiren zain egotea bestean.

---

(216) "L'**isomorphisme** est l'identité formelle de deux ou plusieurs structures relevant de plans ou de niveaux sémiotiques différents, reconnaissable du fait de l'homologation possible des réseaux relationnels qui les constituent". GREIMAS, A.J.; COURTES, J.; **Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage**, Hachette, París, 1979, 197. or.

(217) A.J. Greimas-ek isotopia "iteración de una unidad lingüística" bezala definitzen du. Ik. GREIMAS, A.J.; **Semántica estructural. Investigación metodológica**, 107. or. nahiz 110. or. Definizio hori jasoko du F. Rastier-ek "Sistemática de las isotopías" deritzan artikuluan, GREIMAS, A.J. y AA. VV.; **Ensayos de semiótica poética** liburuan, 110. or. Baita ere ikus daitezke GREIMAS, A.J.; **En torno al sentido. Ensayos semióticos**, 6. or. edo GREIMAS, A.J.; COURTES, J.; **Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage**, 197-198. orr.

Beraz, badirudi ekaitz-giroa dela matazaren garapenean denbora singularretik denbora zirkularrerako bidean dagoen egurats-egoera eta denbora batetik besterako ibilbidea zilegiztatzen duena. Etorkizun zoriontsua edo nahigabetsua jokatzen den une arriskutsu horiek egurats-baldintza arriskutsu batzuri lotuak daude eta ekaitza elementu isotopikoa daramate: gatazkaren hasiera eta bukaera, bai Mañasiren kasuan, bai Anjelenean, markatzen duten egitura isomorfikoak.

Mañasiren sentimenduen iratzartzea ekaitza hastean Arranondon zeudenena bezalakoa da. Ekaitzak sortzen duen estuasuna, larrialdia, negarra, otoitza biziko du, lehorrean zeuden beste guztiek bezala, eguneroko bizitzatik atera diren arranondotarrek bezala. Baina hauek eguneroko lanetara itzultzean, Mañasi ez da itzuliko: estuasunean, larrialdian, negarrean eta otoitzean jarraituko du gatazkak dirauen bitartean. Arranondotarrek ekaitz-egunetan egiten dituztenek luzaroago iraungo dute, baina betiko arrastoan, arranondotarrek "olango eretietan" egiten dutena eginez: itxaron eta otoitz.

Arranondotarrak itsasalderantz eta elizarantz higitzen dira horrelako egun berezietan, arrisku handiagoa denean; Mañasi ere higitu egingo da azkenean: Arranondotik irten eta Bilbora joango da gatazka-garai honetan. Bilbo izango da arrisku-aldian Mañasiren portu eta Begoñako Ama arranondotarren Antiguako Amaren ordezko, harik eta Arranondora itzuli arte. Espazio-isomorfia honek —batetik, Bilbon Mañasik itsasaldera eta Begoñako Amaren elizara egiten dituen ikustaldiak eta arranondotar emakumeak ekaitz-egunetan porturantz eta, bestetik, Antiguako Amaren elizara egiten dituzten ikustaldiak— "otoitzean itxaron" elementu isotopikoa darama: bata zain dago Anjel noiz helduko bera dagoen portura, Begoñako Amari otoizka, honen bitartekotasunean itxaropen osoa jarriz; eta besteak ere zain daude txalupak noiz helduko portura Antiguako Amari otoizka, honen bitartekotasunean itxaropen osoa jarriz, larrialdi honetatik atera ditzan. "Otoitz egin eta itxaron" isotopiak lehorrean daudenen pasibotasuna, "egotea", azpimarkatzen du. Ezinak sortzen duen pasibotasuna da, berauen kontroletik at dagoen zerbait jasan beharra: arranondotarrek ez daukate beti atzematerik noiz sor daitekeen ekaitza; ezta itsaso hori baretzeko modurik ere. Ezintasun honetan, berauen gainetik egon eta ahalmen guztiak dauzkan Jaungoikoarengan jarri behar itxaropena, Beronek bakarrik bait du "itxasoetako agintaritza".

Mañasik ekaitz-egun hauetan, arriskua berezia denean, hartuko

duen jarrera Arranondon daudenek hartzen duten berbera da: "itxasoetako agintaritza" ez ezik, "gauza guztien gañeko eskubidea" (**Kresala**, 220. or.) duenez, "bihotzen" norabidea bideratzeko ahalmena ere Jaungoikoari aitortu.

Arranondon zain dagoen gizaki horrek mundu honetan bertan itxaroten du Jaungoikoaren grazia: onik ekar ditzala portura arrantzaleak. Mañasik ere mundu honetan bertan itxaroten du Jaungoikoaren grazia: Anjel bera dagoen porturantz abia dadila. Horrela doa Jaungoikoa **Kresala**n barrena matazaren garapenerako esku erabakiorra bihurtzen, Beronen aurrean gizona oso ahul sentitzen delarik. Jaungoikoaren presentzia erabakior hau —pertsonaien ustetan bederen— kontaketaren erdigune bihurtzen da, bere eskuetan bait dago matazaren garapena modu batera edo bestera bideratzea. Mundu-ikuskera teozentriko bat eraikitzen da: Jaungoikoak "erabakitzen" ditu ekaitzen emaitzak eta maitasun-historiak. Gizonaren ahalmenak murritzak dira.

Genioenez, **Kresala**ko pertsonaiak lauak dira, ideia batzuren arabera taxutuak: pertsonaia iraunkorrak, kontalari demiurgo baten kreazio eta beronen menpe daudenak, mundu honetan finko kokatuak, galderarik gabeak, ezeren aurrean errebelatzen ez direnak. "Ondamenean" ere, hainbat arranondotarrek heriotza eriden ondoren, ez dute etsiko, ez diote Jaungoikoari heriotza hauen zergatiaz galdetuko; aitzitik, "Arranondotar guztiak, elizmai aurrean belaunikoturik, otzan, apal da makur" (**Kresala**, 220. or.) egongo dira. Mañasi ere bere abenturako unerik larrienetan ez da errebelatuko; etsi edo negar egingo du soilik. Sinismenak ematen die finkotasuna.

Ez dute ahalmen handirik kontalariak zuzendu eta honengandik askatu ezin diren pertsonaia hauek; ezta gizaki bezala ere. Ezer gutxi dira euren kasa, pertsonaia antiprometeikoak. Jaungoikoa da gauza guztien erdigune.

Arranondotarrak ekaitz-egunetan portuan zain dauden bitartean, ekaitzak harrapatutako txalupak menderatu ezinik ibiliko dira arrantzaleak: Jaungoikoari otoizka eta olatuen kontra borrokan, txalupak portura eraman ahal izateko; borroka eta itxaropena bateratuz, onik irteteko itxaropena galdu ahala, betiko bizitzarako prestatzen, betiko zoriona itxaropen.

Anjelek kontzientzian izango duen borroka itsasoko borroka

honi eraikiko zaio isomorfikoki, "babesa" isotopia eramanez. Egunero eta batipat ekaitz-egunetan arrantzaleek portuan bilatzen duten babesa bilatuko du Anjelek ere ezkontidearengan: "etxeko poza, etxeko bakea, arrera ona, maitetasuna" (**Kresala**, 170. or.).

Ekaitz-egunetako itsasoari eta egun horietako Arranondori isomorfikoki eraikitako Anjelen kontzientzi azterketa eta Mañasiren Bilboko desterru-aldia bukaerara helduko dira. Bizi izan duten abentura singular horri amaiera eman aurretik eta Arranondoko ohizko bizitzan integratu aurretik, Mañasi Arranondora itzuliko da eta Anjelek itsasoan bertan beste ekaitz bat jasango du Antiguako Amari laguntza eske eta olatuekin borrokan. Garaile helduko da portura. Mañasi eta Anjelen elkartzeak hildakoen aldeko elizkizunetan gatazkak garaitu ondorengo arranondotarren ohizko bizitzari lotzea ekarriko du.

2.2. DENBORA ZIRKULARRETIK SINGULARRERA ETA HEMENDIK BETIKOTASUNERA

Azkenengo ekaitzean, "Ondamenean", arranondotar batzuk itsasoan utziko dute bizitza, Arranondo "bizi-herria" hilerri bihurtuz. Horretan amaitu da arrantzale horien egun bateko "jesta" itsasoan. Baina, nahiz eta arranondotarrak negarrez ari, eta nahitanahiez ito beharraren angustia jasan, **igarotze** bat besterik ez da.

Arranondotarrek badakite ez direla betiko jaio. Otoitz egiten dute estualdietan eta eguneroko bizitzan, lagun-hurkoari lagundu; hitz batean, Jaungoikoak Jesukristoren bidez emaniko bi aginduak bete:

> "—Maisu, zein da legeko agindu nagusia?
>
> Jesusek esan zion:
>
> —**Maita ezazu zeure Jainko Jauna bihotz guztiaz, barne guztiaz** eta adimen guztiaz. Hori da agindu nagusi eta lehena. Eta bigarrena, ez garrantzi gutxiagokoa, hauxe da: **Maita ezazu lagun-hurkoa zeure burua bezala**" (Mt 22, 36-40).

Agindu hauek betetzen ditu Arranondo "erri-sinistetsuak". Bere argaltasunak gorabehera, ahalegintzen dira zuzen betetzen gizakiak diren neurrian.

Hil diren arrantzaleak ere otoitz eginez hil dira. Arranondotar

legez bete dute Jaungoikoaren agindua Eliza Amaren bidez. Eta honela diote arranondotarrek hildakoen aldeko elizkizunetan:

> "bai, emoeiezu, Jauna, ito diran guztiai, beti betiko nekerik eza, atsedena, atsegiña, Zure argia ta arpegi ederra ikustea" (**Kresala**, 220-221. orr.).

Arranondo den eguneroko babesa eta atseden-lekua utzi eta itsasoko eguneroko borroka amaitzean, Jaungoikoaren legea betetzean egunero egindako merituak gelditzen zaizkie hasi berri duten bidaia horretarako. Eta azken sariaren bila doaz, bere kristau-bizitzan irabazitako sariaren bila kontalariak dioenez:

> "Iñork eztitu itxas barruetako zuen lanbide garratzak eta ibilbide leñargiak ikusten ondo, ta gitxik goratuten zaitue bear dozuen añan; baña Jaungoikoak dakus zeru goietatik eta berak goratuko zaitue egunen baten. Berak dauka zuentzat gordeta azkensari ederra, ez erramuetan, igarian edo arraña joten dakizuelako, ezpada eruapen andiko ta biotz oneko kristiñau zintzo ta egiazkoak zarielako baizen" (**Kresala**, 224. or.).

Eguneroko bizitza eta aldi baterako babesa den Arranondo hori utzi, eta eguneroko nekeak eta eguneroko atseden-orduak bukatu, eta badoaz une singular batean betiko atseginaren eta atsedenaren bila, betiko bizitza, denbora zirkularretik artxidenborarako bidaian.

2.3. MAITASUN-HISTORIAREN EGITURA MITIKOA

Egitura mitiko baten oihartzuna dakar **Kresala**ko maitasun-historiaren garapenak. Mañasiren sentimenduen iratzartzaile den ekaitzarekin hasiko da mataza eta honek egingo dio abenturarako deia (218), bere eguneroko bizitzatik berezi eta abentura horretan murgiltzeko (219). Mañasik ekaitz mandatariak igorritako mezua jasoko du eta berarentzat ezezaguna den maitasunaren erresumarantz abiatu-

(218) Ik. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 53. or.

(219) "Se deja de existir en el mundo de todos los días y se penetra en un mundo transfigurado, auroral, impregnado de la presencia de los Seres Sobrenaturales" dio M. Eliadek mitoei buruz ari dela. Ik. ELIADE, M.; **Mito y realidad**, Ediciones Guadarrama, Colección Punto y Omega, Madrid, 1973, 2. argitalpena, 31-32. orr.

ko da maitasunaren atea igarota (220). Egoera berri horretara heldu eta zain geldituko da Mañasi, Anjel berari noiz zuzenduko.

Eta zain dagoeneko garai honetan hasiko dira frogak (221), Anjel Antonirekin ezkontzera doala dioen albistearekin hasita. Baina Mañasi ez da jokabidez aldatuko: lehen bezalaxe jarraituko du zain. Aldaketa bakarra emango du: lehen baino etxekoiagoa eta elizkoiagoa bihurtzea. Itxaropen berriak sortuko dizkio "Erriberako malletan" Anjelekin izandako elkarrizketak, baina itxaropen honek ez du luzaroan iraungo. Eta Anjel eta Antoni ezkontzen direneko zurrumurruak bigarren aldiz zabaltzean, bidaia fisikoa hasiko du, lehen ez bezala. Aurreko bidaia barne-bidaia besterik ez da izan, maitasun-egoera ez ezagutzetik ezagutzera zeramana. Baina oraingoan Arranondo utzi eta Bilbora doa. Bilbon neskame izaki, lehen Arranondon bezala jarraituko du: itxaroten eta Begoñako Amari otoitz egiten. Arranondon hasitako frogek Bilbon izango dute jarraipena, beste froga-mota batzu erantsiz Arranondokoei. Indianoak egindako ezkontz eskariarekin hasiko da Bilboko frogen bidea, Arranondokoei jarraipena emango diena. Anjel ezkontzera doala badakielarik ere, Mañasik ezezkoa emango dio Indianoari; baita honek daukan urreari ere, Arranondon hain urri egon eta hainbeste errierta sortzen dituen aberastasunaren sinbolo tradizional honi. Urre honek estuasun handiak sortuko dizkio Mañasiri frogen bide honetan; izan ere, nahiz eta hasieran bera urre horretara ez makurtu, bere gurasoak makurtu egingo bait dira, gurasoei zor zaien esanekotasuna eta bere guraria aurkajarriz.

Honetan, Arranondotik helduko zaio berriro ere Mañasiri Anjel ezkontzera doaneko albistea. Hau izango du frogen bidean unerik ilunena:

> "Arranondotik urten ebanean, arimako itxaropenak, antxinetatik ainbeste txera palagutan eukazan itxaropen eztitsuak, ilteko zorian eruan zituan Bilbora; baña etziran oso il oraindiño, ta bizirik egozan bitartean, azken agur latza emon baño lenago iñoiz baizen obeto maitatzen zituan, iñoiz baizen obeto losindu ta elikatu, ta bere gurari beroaren bitartez, irudimenean sorturiko gorabera andien bidez, askotan siñistu eban emon eikioela Jaungoikoak bizitza ta osasun sendoa. Ai! Orain ezegoan olangorik. Il jakozan osoro ta

(220) J. Campbell-ek "el cruce del primer umbral" deitzen duena. Ik. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 77. or. eta hurrengoak.

(221) **Ibidem**, 94. or. eta hurrengoak.

betiko itxaropen guztiak, eta itxaropenak ilten diranean arimea baltzez jantzirik gelditu oi da! Orregaitik agiri jakon Mañasiri arpegiko irribarreak ezin ondo estaldu eutsan barruko naigabea; orregaitik ikusten jakon, bekoki goibelaren azpian da begi bitarte bigun gaixoaren zear, arima saminduaren progua ta biotz errukarriaren iljantzia" (**Kresala**, 176-177. orr.).

Maitasun bizitzara hil ondoren, Anjelekin ezkontzeko itxaropen guztiak suntsiturik, arima proguan duela jasoko du aditzeraz bakarrik ezagutzen zuen Indianoaren urrearen berri: eraztun bat. Eta Mañasi bera ere azkenean liluratu egingo du urre horrek. Baina lilura hori ere menderatuko du Mañasik. Baita bere gurasoek ere: berauek hautsiko dute Indianoari Mañasirekin ezkontzeko emaniko hitza. Frogen bideak bere amaierara jotzen du. Mañasik gaindituak ditu frogak. Hala datorkio Arranondotik berria: Anjelen ezkontz proposamena.

Emaile-laguntzaileek (222) entzun dute Mañasiren eskaria. Begoñako Amak jaramon egin eta honen bidez jaso du Jaungoikoak Mañasiren erregua; baita erantzuna eman ere:

"Jaungoikoak entzun deustaz nik Begoñako Amaren bitartez egin deutsadazen arrenak" (**Kresala**, 206. or.).

Frogak gainditu eta itzul daiteke Mañasi Arranondora bere abentura bukatzera; Jaungoikoaren laguntzari esker lortu bait du bilatzen zuena (223). Baina itzulera hau negar-malkotan gertatuko da. Abenturara dei egin zion mandatari hura agertuko da berriro ere: ekaitza. Eta egunkariak dioenez, oraingo honetan Sardinzarren txalupako guztiak hil dira. Mañasik egoera honetan hasiko du itzulera. Lortutako guraria galdutzat emanda eta ekaitz ostean Bilbotik Arranondora egiten duen bidaia horretan igaroko du itzulerako atea (224). Han dago elizan Anjel. Eta Mañasiren arimako lutuari zoriona

---

(222) Ik. PROPP, V.; **Las raíces históricas del cuento**, Editorial Fundamentos, Madrid, 1981, 3. argitalpena, 224. or. eta hurrengoak. "Donantes-ayudantes" adierazpena darabil berak.

(223) "Cuando la misión del héroe se ha llevado a cabo, por penetración en la fuente o por medio de la gracia de alguna personificación masculina o femenina, humana o animal, el aventurero debe regresar con su trofeo transmutador de la vida". CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 179. or.

(224) J. Campbell-ek "cruce del umbral del regreso" deitzen du. **Ibidem**, 200. or. eta hurrengoak.

etorri zaio. Bilboko egote negartiari amaiera emanez, maitasun-bizitzara pizten da.

Genioenez, ekaitza da Anjelen sentimenduen iratzartzea dakarren mandataria ere. Ekaitzaren erdian hasiko da Anjelen kontzientzi azterketa, bere sentimenduen egoera argituko duen "bidaia". Kontzientzi azterketa honekin hasiko da bere abentura, eta maitasun-bizitza horretarako bidean abiaturik igaroko du egunerokotasunetik mundu singular horretara daraman atea. Baina emango dituen lehen urratsek, Mañasi samintzeko Antonirekin ezkontzea erabakiz, atsekabea eta nahigabea besterik ez diote sortuko:

> "Atsekabetua ebillen mutilla beti neskatillearen igesi, ta bizitzeak irauten eutsan artean zorigaiztokoa izan bear ebalakoan" (**Kresala**, 169. or.).

Nahiz eta kontzientzi mailan jasaten duen borroka horretan lehenik Mañasi samintzea bilatu, laster ohartuko da urrats horren norabideaz: bide horrek maitasun-bizitzara ez baina zorigaiztoko bizitzara darama. Horregatik, Mañasiren bihotz-arimak abenturaren bidean maitasun-bizitza hori lortzeko itxaropenak galdu eta "arima saminduaren progua ta biotz errukarriaren il jantzia" duenean, Anjelenak ere "atsekabea" agertuko du, maitasun-bizitza hori lortzeko itxaropenak xahutuz doazen neurrian. "Argituko" dira Anjelen gurasoen begiak hauteskunde-garaian, "argituko" dira Mañasiren gurasoen begiak Indianoarekin daukaten azken elkarrizketan. Eta gurasoek ezarritako trabak gainditu ondoren, hartuko du Anjelek maitasun-bizitzara daraman bidea eta heleraziko dio berri hau Mañasiri. Baina Anjelek ere bere sentimenduak iratzarri zituen ekaitz mandatariaren erasoa jasan beharko du itsasoan, maitasun-bizitzara "jaio" eta Mañasirekin Arranondoko elizan elkartu aurretik. Ekaitzaren ur hauetan garbituta sartuko dira bizitza berrian; hala integratuko Arranondoko eguneroko bizitzan; hala jaioko maitasun-bizitza horretara, abenturaren amaierarekin batera.

Kresalari hasiera ematen dion ekaitzak Mañasiren sentimenduen iratzartzea dakar XIX. mendeko egunen batean. Baina narrazioaren denboran jazotzen den gertaera honek narrazioaren denboratik at kokatzen den **bereizkuntza** (225) deituriko mitema (226) sortzen du.

---

(225) Ik. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 35. or.

(226) C. Lévi-Strauss-ek honela definitzen du mitema: "Postulamos, en efecto, que las

Leku-denborazko koordenada batzutan garatutako jazoera honek narraziotik at (227) narrazioaren mintzairatik egitura mitiko baten sorrerarako lehen mitemari ateak irekitzen dizkio. Oso modu sinplean, "harreman-sorta" konplexurik gabe, Mañasik bere maitasun-bizitzara heldu bitartean jasaten dituen oztopo ugari horiek **sarbidea** (228) deituriko mitema sortuko dute eta, azkenik, ekaitz-ondorenak **itzulera** (229) deituriko mitema monomitoaren batasun nuklearra osatuz.

Anjelen abenturan ere mitema berberak atzeman daitezke historiaren denboratik at: kontzientzi mailako ekaitzak sortzen duen bereizkuntzaren mitema, egunerokotasunaren errainutik ateratzen duena; sarbidearena eta, azkenik, itzulerarena maitasun-bizitza bizi izateko (230). Esan daiteke, esan, sarbideko errituen formula atze-

---

verdaderas unidades constitutivas del mito no son las relaciones aisladas, sino 'haces de relaciones' y que sólo en forma de combinaciones de estos haces las unidades constitutivas adquieren una función significante". LEVI-STRAUSS, C.; **Antropología estructural**, 191. or. Beste liburu batean C. Levi-Strauss-ek mitemek bi planotan funtzionatzen dutela azpimarkatu du: "Tomando prestado un neologismo de la técnica de la construcción, podremos decir que, a diferencia de las palabras, los mitemas están 'pretensados'. Ciertamente, se trata aún de palabras, pero de doble sentido: **palabras de palabras**, que operan simultáneamente en dos planos, el del lenguaje, en el que cada una continúa teniendo su significación, y el del meta-lenguaje, en el que intervienen como elementos de una super-significación que sólo puede nacer de su unión". LEVI-STRAUSS, C.; PROPP, V.; **Polémica Levi-Strauss & V. Propp**, Editorial Fundamentos, Madrid, 1982, 2. argitalpena, 87. or.

(227) Narrazioan ere Lévi-Strauss-ek bi plano bereziko ditu: bata denboraren barnean dagoena eta bestea denboratik at. "La narración está a la vez 'en el tiempo' (consiste en una sucesión de acontecimientos) y 'fuera del tiempo' su valor significativo es siempre actual". Ik. aipaturiko **Polémica Levi-Strauss & V. Propp**, 79. or. Baina beste hitz batzurekin idea berbera formulatuta zuen lehenago **Antropología estructural** liburuan: "Esta doble estructura, a la vez 'histórica' y 'ahistórica', explica que el mito pueda pertenecer simultáneamente al dominio del **habla** (y ser analizado en cuanto a tal) y al de la 'lengua' (en la cual se lo formula), ofreciendo al mismo tiempo, en un tercer nivel, el mismo carácter de objeto absoluto. Este tercer nivel posee también una naturaleza lingüística, pero es, sin embargo, distinto de los otros dos", 189-190. orr.

(228) Ik. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 94. or. eta hurrengoak.

(229) **Ibidem**, 179. or. eta hurrengoak.

(230) "El camino común de la aventura mitológica del héroe es la magnificación de la fórmula representada en los ritos de iniciación: **separación - iniciación - retor-**

man daitekeela **Kresala**ko maitasun-historian, nahiz eta **Kresala**ko heroeak —Mañasik— erdietsi duen garaipena ez izan bere sinpletasunean gizarte oso batek gozatuko duen garaipena; aitzitik, berarentzat bakarrik lortutakoa da, bere etxe-gobernurako soilik (231).

Mañasik helburu hori erdiesteko hau egin du: itxaron eta otoitz egin, lehenbizi Arranondon eta gero Bilbon. Eta azkenean, Begoñako Ama bitarteko, Anjelen maitasuna lortuta itzuliko da Arranondora. Anjelek, ordea, barne-borrokan aurkitu du maitasunaren bidea azkenean, "Ondameneko" ekaitz hartatik bizirik irteteko Antiguako Amarengan itxaropenak jarrita gero. Anjelek eta Mañasik jaso dituzte "laguntzak"; ez, ordea, maitasun-historian batak eta besteak aurkako izan dituztenak: Indianoak eta Antonik. Lehena diruduna da, "badaezpadako" euskalduna eta Elizaren etsaia; ezin, bada, egoera honetan Mañasik eta Anjelek jaso dituzten laguntzak jaso; bigarrenak, berriz, maitasunez ez baina, berekoikeriaz jotzen du Anjelengana:

> "Antoni pozez zoratzen egoan. Etzan bera iñoganako maitetasunak urtuko eban emakumea, Anjelegaz legez beste edozeñegaz ezkonduko zitzatekean, au baño geitxoago izan ezkero besteren bat; baña Arranondon, mutillik eder da aberatsentzat egoan Anjel, neskatilla guztiak gauzarik onena zala ziñoen, da orregaitik egoan ain pozik Antoni, gauzarik onena beretzat zalako. Erriko adiskide guztiak ondamuz begiratuko eutsien berari: orixe zan Antoniren gogamen bakarra" (**Kresala**, 117. or.).

Nahiz batak nahiz besteak ez zuten benetako maitasun-bizitzara jaiotzeko baldintzarik betetzen. Benetako maitasunaren garaipena izango da **Kresala**ren bukaera. Historia sinple eta gardena da (232), "happy end" eta guzti. Baina era berean errealitate serio bat ematen du aditzera: maitasunerako deiaren errituari erantzunez, hasierako

---

no, que podrían recibir el nombre de unidad nuclear del monomito". Ik. CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 35. or.

(231) J. Campbell-ek "héroe local" eta "héroe universal" bereizten ditu. Honela mintzo da: "Típicamente, el héroe del cuento de hadas alcanza un triunfo doméstico y microscópico, mientras que el héroe del mito tiene un triunfo macroscópico, histórico-mundial". **Ibidem**, 42. or.

(232) "En los cuentos el mundo es simple y transparente". ELIADE, M.; **Mito y realidad**, 217. or.

egoeratik (233) beste baterako iraganbidea, gurasoen babesetik irten eta beste bizitza-mota batera "birjaiotzea" (234) egiten da.

Azken albisteak ematen dira "Eskertsu" kapituluan: Mañasi eta Anjelen zoriona eta Indianoaren eta Antoniren porrota. Indianoak zirikatzen erabilitako elementu bera galdu du: dirua; Antonik, berriz, ukan zitzakeen edertasunak. Hona hemen nola ematen zaigun honen berri: "neskazar itxura andikoa, zedenak jandako arpegiagaz gaixoa, bada naparrei edo sakutea izan eieban" (**Kresala**, 234. or.). Mañasi eta Anjel, aldiz, bere abentura denbora lineal batean bizi ondoren, Arranondo den babesean bizi dira, eguneroko bizitzan bizi ere.

Ezin uka **Kresala**ko maitasun-historiak egitura oso erraza duenik; ezta mota honetako maitasun-historia kultura-maila bateko irakurleak gogokoa izango ez zuenik ere. Garbi dago, bestalde, irakurle-mota jakin bat erakar zezakeela, beste hizkuntza batzutako literaturetan gertatu ohi den bezala; baita literaturaren eta subliteraturaren artean kokatu izen den folletoiaren hurbil dagoela ere, hainbat alorretan egon ere: argitalpen-moduaz —zatika— eta testu-egituraz —matazaren garapenaz—. Hala ere, folletoiarekiko hurbiltasun eta guzti, esan dezakegu, arestian esan bezala, egituratze eta lantze bati esker egitura mitiko bat ematera heldu dela D. Agirre eta bigarren mailako irakurketa bat zilegiztatzera. Y. Lotman-ek "sistema de modelización secundaria" (235) deitu duenera. Mintzaira zuen lehengaia landu eta bigarren sistema batean sartzeko aukera eman dio. Maitasun-historia errazetik egitura mitiko bat sortu du bigarren sistema horretan.

---

(233) Ik. PROPP, V.; **Morfología del cuento**, Editorial Fundamentos, Madrid, 1977, 3. argitalpena, 37. or.

(234) J. Campbell-ek honela definitzen du maitasunarekiko deia: "un rito, un momento, un paso espiritual que cuando se completa es el equivalente de una muerte y de un renacimiento. El horizonte familiar de la vida se ha sobrepasado, los viejos conceptos, ideales y patrones emocionales dejan de ser útiles, ha llegado el momento de pasar un umbral". CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, 55. or. Ipuinek "happy end"-a izanagatik, edukin oso serioa dutela dio M. Eliadek: "Pero su contenido propiamente dicho se refiere a una realidad extremadamente seria: la iniciación, es decir, el tránsito gracias al artificio de una muerte y de una resurrección simbólicas de la ignorancia y de la inmadurez a la edad espiritual del adulto". Ik. ELIADE, M.; **Mito y realidad**, 221. or.

(235) Ik. LOTMAN, Y.M.; **Estructura del texto artístico**, 20. or.

2.4. FOLLETOIA EGITURA MITIKO BATERAKO OSAGAI?

Kresalako maitasun-historia adjetibatzean, "popularra" nahiz "folletineskoa" adjetiboak erabil daitezke (236). Hala ere, folletin kutsua ukatu gabe, ez dugu uste zentzu absolutuan horrelako genero batean sar daitekeenik erabat: batetik, arestian genioenez, "maitasun-historia" bera "transzenditzera" heldu eta egitura mitiko horren sorrerari esker "metalenguaia" bihurtzen delako, azalekoari esanahi berri eta sakonagoa gainezarriz; eta, bestetik, pragmatikaren alorrean bertan ihes egingo liokeelako literatur mota honi, sintaxi narratiboari legokionetan emanez hurbiltasunik handiena. Gertaera soziologiko bezala, argitalpen-modu bati eta irakurlego-mota bati zuzendua dago orohar "folletina" (237): zatikako argitalpen-modu bati eta kultur mailaz oso apala eta diruz gabea den irakurle-mota bati. **Kresala**ren argitalpen-modua lotu beharko litzaioke aipatzen genuen honi. Baina eleberria **Euskal-Erria** aldizkarian argitaratu zen, kultur aldizkari batean, hain zuzen. Aldizkari honen sortzaile eta lehen zuzendari izan zen Jose Manterolak honako helburu hauekin plazaratzen dela dio "Nuestra misión" titulupean:

> "A recojer y trasmitir (sic) los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUIA EUSKARA, a dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y tradiciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reuniendo cuanto de más curioso se ha dicho de ellas, reproduciendo los trabajos de más interés, inéditos, agotados ya o poco conocidos de nuestros antiguos y más distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuanto prestan hoy culto y nombre a las letras bascongadas, para hacer asi de nuestra revista

(236) L. Romero Tobar-ek "novela popular" eta "novela de folletín" bereizten ditu. Lehenengoa literatur mota bat izendatzeko erabiltzen du eta bigarrena argitalpen-modu bati erreferentzia egiteko. Ik. ROMERO TOBAR, L.; **La novela popular española del siglo XIX**, Fundación Juan March, Editorial Ariel, Barcelona, 1976, 27. or. eta hurrengoak.

(237) "Folletina" definitzeko zenbait urrats ematen ditu F. Yndurain-ek. Genero honenganako hurbilpena hitz hauekin hasten du: "De todos modos podemos tomar algunas notas caracterizadoras del género, y que derivan de su vehículo impreso y del destinatario. La publicación, por entregas, busca un comprador de escasos recursos, y por ello, dentro de la sociedad decimonónica, de cultura también parva". YNDURAIN, F.; **Galdós entre la novela y el folletín**, Cuadernos Taurus, Taurus Ediciones, Madrid, 1970, 58. or.

un verdadero Album, un archivo manual de curiosidades del país, se dirijirán (sic) todos nuestros esfuerzos" (238).

Aski da aldizkari honen aurkibidea begiratzea, gaiez F. Yndurain-ek "cultura parva" deitzen duen horretatik urruti daudela ikusteko: Agricultura, Arquitectura, Crítica Literaria, Historia, Legislación... (239). Beraz, irakurle "jakitunagoa" eskatzen du.

Literatura komunikazio-egintzatzat jo dugu. Edozein komunikazio-egintzetan bezala, literaturarenean ere baditugu igorlea, hartzailea eta komunikazio-testuinguru bat, gaur egun lehen deskripzio maila batean pragmatika (240) deritzan literatur atalaren aztergai. Pragmatikaren zentzurik zabalenetik abiatuta (241), ikuspegi soziologiko labur batera mugatuko gara soilik une hauetan. **Euskal-Erria** aldizkarian, lehentxeago aipatzen genituen gaiak dauzka **Kresala** eleberriak testuinguru gisa: Arkitektura, Historia, Legegintza, etab. Eleberri folletinesko bati ez dagokion bezalako kultur mailako lankidez inguraturik ageri da Domingo Agirre **Euskal-Erria**ren nominan (242): garaikide dituen poeta, saiolari, ikertzaile... Eta, horrenbestez, esan

(238) Ik. **Euskal-Erria**, I, 1880, 4. or.

(239) **Ibidem**, 292. or. eta hurrengoak.

(240) Pragmatika hau Aristoteles-ek Erretorika deitu zuen atal hartatik oso hurbil dago. J. Romera Castillo-k parean jartzen ditu juntagailu disjuntibo baten bidez: "Retórica o Pragmática". Ik. ROMERA CASTILLO, J.; **El comentario de textos semióticos**, 91. or. eta hurrengoak. F. Carrillok berezi egingo ditu, Pragmatikari Erretorikari baino alor zabalagoa eskainiz: "Entre escritor y lector se establece un juego. Aristóteles lo llamó **Retórica**. Ya señalamos anteriormente la actual recuperación de la retórica clásica gracias a la pragmática. Los conceptos de 'elocutio' y 'dispositio' de la pragmática corresponden a los de la retórica clásica, con la diferencia de que la pragmática envuelve todas las implicaciones propias de la situación de comunicación o contexto, completando más la relación texto-lector". CARRILLO, F.; **Semiolingüística de la novela picaresca**, 34-35. orr. Antzeko ildotik zedarrituko du literatur pragmatika M. C. Bobes Naves-ek: "la pragmática literaria tiene como objeto de estudio inmediato los indicios que ponen la obra en relación con el autor, con los lectores y con los sistemas culturales externos a la misma obra". BOBES NAVES, M.C.; **Grámatica textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 177. or.

(241) "la pragmática tendrá la tarea de estudiar las relaciones entre los signos y sus usuarios" dio T. Van Dijk-ek. Ik. VAN DIJK, T.A.; **Texto y contexto**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, 270. or.

(242) Ik. AMEZAGA, E.; "Nómina de Euskal-Erria" in **Euskal-Erria**, I, 1880 (numeratu gabe).

daiteke **Kresala**ren irakurlegaia **Euskal-Erria** aldizkariaren irakurlea zela hasieran, behinik behin: irakurle eskolatua, kultur gaiez eta batipat euskal kulturaz interesatua. Jakina, irakurle honek ez zuen aldizkaria erosten **Kresala** irakurtzeko. Beste testu-mota batzuren ondoan han zuen eleberri hau ere, eta irakur zezakeen; aldizkariak ez bait zituen zuzen-zuzenean eleberriak edo literatur testuak soilik argitaratzen. Domingo Agirre **Euskal-Erria** aldizkariaren lankide izan zen beste intelektual (243) batzurekin batera, eta bitarteko hau erabili zuen **Kresala** plazaratzeko, "folletinaren" edo "folletoiaren" publikoa hasieratik bertatik baztertuz. Nahiz eta **Kresala**k eragiten duen irakurketa emotiboa eta sentimentaloia izan eta sorpresa-efektuak bilatu zenbait unetan, sorpresa-efektu hauek ez daude nahitanahiez kapitulu-bukaeretara lotuta, hala irakurlea hurrengo zatiaren zain egon dadin (244). Hala ere, behin edo behin aurki daiteke baliabide hau; lehen kapituluaren bukaeran, esate baterako. Izan ere, Domingo Agirrek ezin efektu hau bilatu entrega bakoitzean, bost urtetan barrena argitaratu bait zen eleberria, eta ez osorik. Egoera honetan ezinezkoa zen entrega bakoitzaren ondoren irakurlea zain edukitzea; logikoagoa da pentsatzea irakurle horrek aurretik idatzitakoa irakurri beharko zuela zenbait alditan, baldin eleberriaren haria jarraitu nahi bazuen.

Emanaldi bakoitzaren neurritik testu osora igaroz gero, atzeman daitezke joskera narratiboan folletin honek darabiltzan zenbait ezaugarri: hala nola, ekintzatik ekintzara higitzea, "tarteak" Arranondoko ohiturekin edo beste gorabehera batzurekin betez, pertsonaien "prozesua" aztertzearen galeratan; edo pertsonaien tratamendua bera, ontasunak eta gaiztotasunak modu mugarri batean banatuz sarritan, etab. Baina mota honetako joskera narratiboa ez da folletinaren ezaugarri esklusiboa ere. Hor dugu, besteak beste, literatura fantastikoa deitu dena, non ekintzen garapena gailentzen den joskera narratiboan (245).

---

(243) Jose de Manterolari buruz honako hau irakur daiteke: "Funda la revista Euskalerria donde hace converger los esfuerzos de todos los intelectuales vascos del momento (1880)". **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura**, I, 664. or.

(244) Ik. YNDURAIN, F.; **Galdós entre la novela y el folletín**, 58. or.

(245) "Existe una curiosa coincidencia entre los autores que cultivan lo sobrenatural y aquellos que en la obra, conceden especial importancia al desarrollo de la **acción**, o, si se prefiere, que tratan en primer término de relatar historias". TODOROV, Tz.; **Introducción a la literatura fantástica**, 126. or.

2.5. EGITURA MITIKO BAT ERLIJIOTASUN TRANSZENDENTE BATERAKO

Kresalako maitasun-historiaren gain eraikitako egitura mitikoa, halaber, erlijiotasun transzedente baten metafora eta sinbolo (246) bihurtuz joango da testuan. Hau, besterik gabe, honela planteatzea heretikoa da, baina aurreratu dezagun analogi erritmo osoa ez dela egitura mitiko horren eta erlijiotasun transzendentearen artean ematen; lehenik eta behin ezinezkoa delako. Abiapuntutik bertatik hartzen dugu gogoan L. Díez del Corral-ek esana, Israelen pentsamoldea anti-mitikotzat jotzen duenean:

> "Si el sentido mítico antiguo, por secularizado que se encuentre, fraterniza con una incapacidad para descubrir el sentido auténticamente histórico, singular, creador, irreversible de la historia, la concepción religiosa hebreo-cristiana abre una forzosa visión histórica del mundo y de la existencia humana. Todo fenómeno natural, todo acontecimiento se sitúa no como momento de un proceso circular reiterativo, idéntico —donde se suceden una y otra vez las estaciones, los años solares o el nacimiento, auge y decadencia de los hombres y de los imperios—, sino como miembro individual, singular, irrepetible en un proceso que se despliega entre el principio y el fin de los tiempos" (247).

L. Díez del Corral-ekin batera esan daiteke Platon eta San Agustin ez datozela erabat bat. Honela dio lehenengoak:

---

(246) J.E. Cirlot-ek dio E. Fromm-ek hiru simbolo-mota bereizten dituela. Fromm-ek unibertsala deitzen duena definitzen du: "por la existencia de la **relación intrínseca entre el símbolo y lo que representa**". Ik. CIRLOT, J.E.; **Diccionario de símbolos**, 29. or. Ondoren, J.E. Cirlot-ek M. Elíade abiapuntutzat hartuta gehiago zehaztuko du E. Fromm-en "relación intrínseca" hori: "Consiste en el parentesco esencial, aunque traducido a otro plano de la realidad, entre uno y otro proceso, entre uno y otro objeto, conexión que internamente ha sido definida como ritmo analógico". Ik. CIRLOT, J.E.; op. cit., 30. or. Azkenik, erantsi nahi dugu zer ulertzen duen J.E. Cirlot-ek erritmoaz: "Ritmo denominamos aquí no al 'orden sensible en el tiempo', sino al factor coherente, determinado y dinámico, que posee un carácter y lo transmite al objeto sobre el cual se implanta o del que surge como emanación". Ik. CIRLOT, J.E.; op. cit., 31. or. Sinbolo kontzeptua erabiltzean, kontzeptu honi atxikiko gatzaizkio.

(247) DIEZ DEL CORRAL, L.; **La función del mito clásico en la literatura contemporánea**, Biblioteca Universal Gredos, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 2. argitalpena, 62. or.

"El alma del hombre cual el agua, baja del cielo, y otra vez cae a la tierra, en un ciclo eterno" (248).

San Agustinek, berriz:

"Zeuretzat egin gaituzu, eta gure bihotzak ez du atsedenik zuregana bitartean" (249).

Badago alderik. Hala ere, kontzepzioa hain desberdina izan arren, E. Cassirer-ek dio:

"apenas hay un solo rasgo en el mundo de creencias y representaciones cristianas, una alegoría o símbolo, al que no se le pueda encontrar un paralelo mítico-pagano" (250).

Kresalako kontalariak eta arranondotarrek erlijio transzendente bat dute. Eta zer-esanik ez egileak, Domingo Agirre apaiz katolikoak. Baina, hala ere, ez dugu uste horregatik maitasun-historiaren egitura mitikoa bazter daitekeenik; ezta egitura mitiko horrek sinboliza dezakeena ere: erlijiotasun transzendentea, nahiz eta une garrantzitsu batean sinboloarekin analogi erritmoa hautsi, erlijiotasun transzendente baten ikur bihurtu ahal izateko. Horretarako, erabiltzen den bitartekoaren bidez —egitura mitikoa— hiru geruza sortu dira azaletik sakonenera: maitasun-historia, egitura mitikoa, erlijiotasun transzendentea.

Arranondotarrak eta Arranondon daudenak, ekaitz-egunetan, denbora singular horretan —aditz-denbora narratiboekin aditzera emana, preterito inperfektuen eta perfektuen bidez—, portuan itxaron eta Antiguako Amari otoitz egiten diote, honen bitartekotasunean itxaropenak jarriz. Mañasik ere itxaron eta otoitz egingo du bere abenturaren denbora singularrean, lehenbizi Arranondon eta gero Bilbon, atseden-orduetan itsasaldera eta elizara joanez otoitz egitera.

Genioenez, espazio-isomorfia honek "itxaron" eta "itxaropena"

(248) HIRSCHBERGER, J.; **Historia de la filosofía. Antigüedad, Edad Media, Renacimiento**, I, Editorial Herder, Barcelona, 1976, 8. argitalpena, 124. orrialdean aipatua.

(249) NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA; **Kristau Bidea**, Editorial Franciscana Aránzazu, Jakin, Oñati, 1975, 24. orrialdean aipatua.

(250) DIEZ DEL CORRAL, L.; **La función del mito clásico en la literatura contemporánea**, 63. orrialdean aipatua.

isotopiak zeramatzan. Halaber, ekaitz-egunak egun urduritsuak dira Arranondon ere, larriak, Mañasiren abenturan gertatzen den bezala.

Ekaitz-egunetan, inoiz baino borroka gogorragoan aritu behar dute arrantzaleek itsasoan, olatuak garaitu eta portura bizirik heltzeko. Egun horietako itsaso arriskutsuagotik Arranondoko portura eta babesera heltzeko, badute itxaropen eta laguntzarik, lehorrekoek bezala. Lehen ekaitzean Lapikotxuk dioen bezala:

> "Biziagaz etorri gareanean pozik, eta Antiguako Amari eskerrak" (**Kresala**, 24. or.).

Anjelek ere ekaitzaren eraginak sentituko ditu bere iratzartzean. Arrantzaleak bezala ibiliko da, txalupa nola bideratu asmatu ezinik. "Arribadan" portura nola heldu izango da bere kezka.

Une larri hauek igaro ondoren, ohizko bizitzara eta egitarauera igaroko dira arranondotarrak: arrantzaleek eguneroko lanera, itsasora, beti arriskutsua izan baina barealdiak ere badituen itsasora; eta emakumeak, berriz, "nasa gañera" txalupak noiz etorriko zain egotera, euren eginkizunak betetzen hasteko. Garizuma, Atseden-orduak... Ohizko egitarau horren barnean igaroko dira elizkizunak, lana, atsedena... Eta ezerk ez ditu ohizkotasun horretatik aterako; ezta Tramana eta Brixen iskanbilak ere, hauetara ere ohituta bait daude arranondotarrak. Ekaitzak, nahiz lehorrekoak —hauteskundeak— nahiz itsasokoak, aterako ditu urtero errepikatzen den egitarauetik, denbora zirkular horretatik. Batzutan atzera ohizkotasun horretara itzuliko dira; bestetan ez.

Ohizko bizitzara itzultzen ez direnean, Betiko Bizitzarako bidea hartzen dute arranondotar horiek. Horrela "Ondamenean", une singular horretan, heriotza idoroko du zenbait arrantzale arranondotarrek, euskal itsaserrietako beste zenbaitekin batera.

Susma daiteke egun honetan, "olango eretietan legez", lehorrean zeuden arranondotarrak portuan zain egongo zirela, Antiguako Amarengan itxaropena jarrita otoitzean. Baina ez dira testuratzen. Kontalariak ez ditu lehen kapituluan bezala eszenaratzen, urduritasun-une hauek bizitzen. Behin eta berriro esan dugunez, kontalariak kontatze-modu iteratibo batera jotzen du —Garizuma, esate baterako, historiaren denboran bi bider igaroko dute, baina bigarrena aipatu ere ez da egiten— eta testuan arau bihurtuz doan jokabide horri jarraiki,

itxaron zitekeenari lotzen zaio (251). Hartara, bi ekaitzen kontaketa osagarri bihurtzen da; batak ekaitzaren gertaera lehorrean nola bizi duten kontatzen du eta besteak ekaitz hori itsasoan nola bizi duten; baina bi ekaitz hauek desberdinak dira emaitzei dagokienez. Lehenengoan arranondotarrak otoitzean "erakusten" zaizkigu, eta azkenean denak bizirik itzuliko dira. Kontalariak, kontaketa erabat menderatzen duen fikziozko izaki horrek, zalantza handirik gabe komentatzen duen horrek, "uste dot" baten menpeko jarriko du haurren otoitzak duen indarra arrantzaleak porturatzeko; ez du baieztuko. Bigarrenean arrantzaleen borroka eta otoitza kontatzen dira, baina ez lehorrekoena; eta heriotzen berria helduko da Arranondora. Ez ote zeuden, ba, haurrak otoitzean?, zergatik hil dira?, zergatik hil behar zuten egoera horretan arranondotar elizkoi horiek?, zergatik ez dute jaso lehen kapituluan iradokitzen den naturaz gaindiko laguntzarik?

Kontalariaren esku zegoen, esate baterako, lehenengo ekaitza itsasoan nola bizi duten kontatzea; baita lehorrean daudenek nola bizi duten bigarrena kontatzea ere. Baina heriotzei lotua itsasotik kontatzen du eta bestea lehorretik. Badaezpada ere, lehorrekoen otoitza arrantzaleen porturatzeari lotuta kontatu du. Eta heriotzak heltzen direnekoan, susmatu besterik ez dugu egingo otoitzean arituko zirela, "olango eretietan legez".

Kontalariak, esana dugunez, berbaldian barrena ez du ezkutatzen arranondotarrengandik hurbilago dagoela "Bedar txarrengandik" baino. Hala ere, lehenengoekiko ere markatzen ditu diferentziak. Kontalariak ezin baiezta dezake norainokoa edo zenbaterainokoa den naturaz gaindiko laguntza. Eta narrazioan agertzen duen jokabidearekin —dena daki— kontrastatuz, indar hauen laguntza anbiguoago utziko du, iradokizun mailan baiezpen mailan baino gehiago, nahiz eta "Jaungoikoak ala naita" (**Kresala**, 224. or.) porturatu Anjel "Ondamenean". Arranondotar xeheek ez dute laguntza hau iradokizun mailan uzten. Mikol, Kitolis, Mañasi eta abarrek, kontalariaren eran-

(251) μ taldeak literatur mintzairaren berezitasunak aztertzean zero gradua eta zero gradu honekiko desbiderazioa erabili ditu kontzeptu operatorio gisa. Mintzaira desbideratuari lotu dioten ezaugarrietariko bat bestea bezain "somagarria" ez izatea da: "Les écarts, avons-nous vu, diminuent **toujours** la prévisibilité d'un message, même lorsqu'ils semblent augmenter la redondance (ex.: épithète, répétition, pléonasme, chiasme, etc.). Ils créent donc toujours des attentes frustrées". GROUPE μ; **Rhétorique générale**, 43. or.

tzunkizun mailarik ez daukatenek, erabat sinisten dute laguntza horretan.

Erlatuaren (252) bukaeran hala gertatutakotzat jotzen duela dio Mikolek. Kitolisen erlatuak, berriz, zigorraren berri emango du. Salberik esan gabe, itsasoratzearen ondoriotzat joko du jasan zuten ekaitza, eta batipat beronen emaitza: semea eta lagun bat itotzea.

Mikolen erlatuan, kapitulu-hasierako ekaitzean bezala, honela esango zaigu: "Txalopak ezeiziran agiri, ta olango eretietan oi dan antzera, erriko gizon da emakume danak, oso artega ta arduratsu baeioazan, batzuk eliza nagusira, beste batzuk talai-etxera ta Antiguako baselizara norbait edo beste" (**Kresala**, 90. or.). Ekaitz-ondorenean denek lortuko dute porturatzea Antiguako Amaren laguntzarekin. Kitolisen erlatuak, aldiz, itsasoan nola bizi izan zuten ekaitza kontatuko du, "Ondamenean" bezala; baina ez arranondotarrek zer egin zuten "ereti" horretan, nahiz eta susma daitekeen otoitz egingo zutela.

Hainbat gertaera komentatzen dituen kontalariak ez ditu baieztuko edo ezeztuko gertaera hauek; pertsonaiek esan bezala transkribatuko ditu, kontalari objetibo bihurtuz, pertsonaien esana onetsi edo gaitzetsi gabe. Baina lehorrekoen otoitzak espreski aipatzen direnean, ohizko babesa duten Arranondo horretara helduko dira arrantzaleak: une singular eta arriskutsu horren ondoren, aldi baterako babesa den Arranondo hori erdietsiko dute. Lehorreko otoitz horiek espreski aipatzen ez direnean, ordea, arrantzale batzuk Betiko Babesera daramatzan "bidaiari" emango diote hasiera.

Arrantzaleen ekaitz-egunetako "bidaiarekin" erritmo-analogia du maitasun-historiak. Abenturara deitu orduko, Mañasik utzi egingo du ohizko bizitza, "portuan" zain eta Elizan otoitzean egoteko, eleberriaren hasierako kapituluan Arranondon daudenek egiten duten bezala, Mikolen erlatuan egiten duten bezala; Anjelek "borroka" egingo du ekaitzaren erdian eta, azkenean, ekaitz "errealean" itxaropen guztiak Antiguako Amarengan jarriko ditu, Arranondoko arran-

(252) Mikolen "aitaitak" honi kontatuak oso ezaguna izan behar zuen Arranondon. Antiguako Amak arrantzaleei eskainitako laguntzen berriak jaso ditu J.M. Barandiaranek. Eta Mikolek behin batez gertatutakotzat jotzen duena askotan gertatukotzat bezala kontatua jasotzen du J.M. Barandiaranek. Ik. BARANDIARAN, J.M. y COLAB.; **El mundo en la mente popular vasca. (Creencias, cuentos y leyendas)**, II, 104. or.

tzaleek bezala eleberri-hasierako ekaitz-egunean, Mikolen erlatuan bezala; eta Mañasi eta Anjel, beraien abentura pertsonala bizi izan ondoren, Arranondoko ohizko bizitzara "itzuli" ahal izango dira, eleberri-hasierako ekaitzean bezala, Mikolen erlatuan bezala.

Erritmo-analogia hau beti hain estua izan ez arren, egitura mitiko bat erlijiotasun transzendente baten metaforatzat jotzean, honako hau adierazi nahi genuen: Kitolisen erlatuan —Salberik esan gabe atera zirelako edo— eta "Ondamenean" —ez dakigu zergatik—, Kitolisen txalupako erdiak —bi— eta Sardinzarren txalupakoak hil egingo dira, Sardinzar aita-semeak izan ezik. Ohizko Arranondo horretatik irten egiten dute, eta ekaitza den une singular eta arriskutsu horretan heriotza helduko zaie otoitzean ari direla; Anjeli nahigabetua, atsegabetua, bakardadean zorionik aurkitu ezinik bizirik irteteko itxaropena galduta zebilenean "heriotza" heldu zitzaion bezala. Bien bitartean Arranondon otoitzean itxaroten egongo ziren; Mañasi bezala. Eta heriotzen berria jasotzean, hilerri itxura hartuko du Arranondok; Mañasik bezala Bilbon Anjel Antonirekin ezkonduko zela zioen berria jasotzean. Baina Anjelen borrokak eta itxaropenak eta Mañasiren egoteak eta otoitzak beren saria jasotzen dute, "heriotz" honen ondoren Arranondoko elizan elkar ikusi, abenturari amaiera eman eta babesa den ohizko Arranondora itzuliz; berdin "Ondamenean" ito diren arrantzaleek ere: Betiko Babesa jasoko dute bidaiaren amaieran. Hori eskatzen dute arranondotarrek, Mañasik eta Anjelek eskatzen zuten bezala. Eta kontalariak honela dio:

> "Berak dauka zuentzat gordeta azkensari ederra, ez erramuetan, igarian edo arraña joten dakizuelako, ezpada eruapen andiko ta biotz oneko kristiñau zintzo ta egiazkoak zarielako baizen" (**Kresala**, 224. or.).

Mañasi eta Anjelen abenturako "heriotz" eta "piztuerak" badute paralelorik: hauek itzulerara bezala —itzulerara, baina ez hasierako egoera berberara (253)—, hildako arrantzaleak Harengana abiatuko dira. Mañasik eta Anjelek Arranondoko elizan jasotzen duten saria, arrantzaleek jasoko dutenaren metafora bihurtzen da: Anjelek eta Mañasik Arranondoko ohizkotasunera itzultzea erdiesten dute "bidaiaren" bukaeran; arrantzaleek, berriz, betikotasuna. Horretarako,

---

(253) "Un regreso a la vida para vivirla con más sentido" genion J. Campbell-en hitzetan.

Anjel eta Mañasiren antzera, hauek ere "heriotzetik" igaro behar dute, Jesusek San Joanen bidez dioskun bezala:

> "Jesusek honela erantzun zien:
>
> —Iritsi da ordua, Gizonaren Semea aintzatua izatekoa. Bene-benetan diotsuet: gari-alea lurrera erori eta hiltzen ez bada, bakar gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere burua maite duenak, galdu eginen du; mundu honetan bere burua gutxiesten duenak, betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duena jarrai bekit, eta ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzaria dena Aitak ohoratu eginen du" (254).

Azken sari hau arranondotarrek ez ezik, "Kantauriko umant apalak" ere (**Kresala**, 224. or.) jasoko dute. Titulura (255) itzuliz, Kresala usaina dastatzen duten guztiek jasoko dute saria; eta ez Arranondon bizi diren guztiek ere —"Bedar txarrak" lekuko—, baizik eta usain horren esentziak dastatzen dituztenek, "eruapen andiko ta biotz oneko kristiñau zintzo ta egiazkoak" direnek. Horrela, Arranondo fikziozko leku bihurtuko da, "Bedar txar" gutxi batzuren ondoan Salbazio-bidean dagoen gehiengo baten bizileku. Herri txiki baten leku-denbora koordenadak gaindituz, atzoko —Kitolisen garaia— gaurko —fikzioaren denbora— eta geroko —gero ere izango bait dira honelako gertaerak— jazoerak bilduz, etorkizun itxaropentsu bat eskaintzen du sinismendunentzat.

2.6. MAITASUN-HISTORIA, OHITURAK, GOGOETAK: ELEBERRI BATERAKO OSAGAIAK

Ezin uka horrelako hiru osagai nagusiz baliatu dela D. Agirre **Kresala** idazteko; hain zuzen, nobela deitu den forma literariorako arbuiagarritzat jo diren hiru elementuz. Literatura eta subliteraturaren artean kokatu den "folletoira" hurbiltzen den maitasun-historia,

(254) Jn 12, 23-26.

(255) "A través del **título** se concretiza muchas veces un proceso de acentuación de determinadas facetas o conglomerados de sentidos del texto literario (...), lo que nos lleva a decir que el papel que éste desempeña asume, en el dominio que estamos considerando, un relieve especial en la condición de **elemento marcado**". REIS, C.; **Fundamentos y técnicas del análisis literario**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1981, 101-102. orr.

antinobelatzat jo den kostunbrismoa (256) eta saiora hurbiltzen diren gogoetak izan ditu eleberria egiteko gai. Deskripzioan barrena saiatu gara hiru osagai hauen arteko harremanak aztertzen. Baita, gure ustez, **Kresala** ez folletoi, ez kostunbrismo eta ez gogoeta huts den produktu dela aditzera ematen ere: osagai horien egituraketak, tratamenduak eta abarrek beste "zerbait" sortu dutela azaldu dugu.

Joskera narratiboari dagokionez, "ohituren eszenek" "betetzen" dituzte ekintzen arteko tarteak, hauek maitasun-historiaren prozesuek bete bazitzaketen ere. Prozesurik ezean —Mañasik eta Anjelek behin bakarrik hitz egin dute elkarrekin; ez daukate beste harremanik—, beste zerbaitek esplikatu behar prozesuak esplika zezakeena: Mañasi eta Anjelen arteko harremanen garapena. Eta naturaz gaindiko indarren eraginari dei egiten zaio (kristau-sinismenean oinarritutakoa bada ere, naturaz gaindiko indarra izaki): Jaungoikoak bideratzen du giza harremanen garatu ezina; Jaungoikoari eskaintzen zaio trageria greko klasikoan Olinpotik jaisten zen dibinitateak betetzen zuen funtzioa: korapiloa handiena denean, naturaz gaindiko indar honek konpontzen du auzia. Jaungoikoak "Deus ex machina" bezala funtzionatuz salbatuko du Anjel azkenean ekaitzetik; "Jaungoikoak ala naita" dio kontalariak. Eta horren aurretik Mañasiri ezkontz proposamena egitera eramango du; baita "Jaungoikoaren gauzak dira oneik" esan erazi ere Mañasiri.

Nahiz eta grekoen "Deus ex machina"-k eta Jaungoikoak funtzio berbera bete, ez daude parean jartzerik. Nahiz eta naturaz gaindiko indarren erabilerak funtzio antzekoa izan (257), kristau-sinismenean oinarritutako naturaz gaindiko indar horren eraginak irakurlea hunkitu eta bide bat irakasten dio: jokatzeko modu bat, bizi izateko modu bat, Jaungoikoaren laguntza izan dezan; izan ere, sinismendunak, bizitza-mota bat daramatenak, izango bait dira **Kresala**ko garaile. Irakurleari dagokionez, funtzio sozial hau bete dezake **Kresala**k.

Baina egilearengandik berarengandik ere etor daiteke naturaz gaindiko indarrak erabili behar hori (258): alegia, maitasun-historia-

(256) Ik. FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 130. or.

(257) "Lo sobrenatural conmueve, asusta o simplemente mantiene en suspenso al lector". TODOROV, Tz.; **Introducción a la literatura fantástica**, 126. or.

(258) Peter Penzoldt-ek honako hau dio: "Para muchos autores, lo sobrenatural no era más que un pretexto para describir cosas que jamás se hubieran atrevido a men-

ren prozesua kontatu ezinak sortua izan daiteke baliabide honen erabilera. "Maitasun-historiaren prozesua kontatu ezina" esatean, honako hau diogu: egileak, beronen ideologiak, testuinguruak, batipat euskal eleberriaren irakurlego erreal batek, nekez ametituko zuen maitasun-historia apasionatu bat, dela "haragiaren zalekeriei" lotutako historia, dela, horretara heldu gabe, ezkongaien arteko harremanak (oroit ez direla kontatzen ez Josepa eta Artoberorenak; ezta Anjel eta Antoniren artekoak ere); beraz, jokabide-arautzaile den moralak pertsonen aspirazioen gainetik geratu behar zuen (259), eta horrek baldintzatzen du kontaketa.

Ez dago eleberri espainolera jo beharrik eta J.F. Montesinos-ek remoratzat jo duen "cuestión moral" (260) hori erreferentzi puntutzat hartu beharrik. Gogora zein ortodoxo, moralez estu eta arauzale ziren euskaraz mintzo zen irakurleari zuzentzen zitzaizkion irakurgaiak (zentzu zabalean) (261).

Maila honetako arazoak —moralarenak, irakatsi beharrak— presente daude **Kresala**n ere. Eta, agian, P. Penzoldt-ek zioen bezala, ezin konta zezakeen maitasun-historia beste modu batera; edo, J.F. Montesinos-ek esan bezala, jokabide-arauak eman beharrak galerazten du edo murrizten prozesu psikologikoen garapena. Dena den, idazlearen testuinguru, heziera edo pentsamoldeak aparte, hau da, haren baldintza psikologiko eta soziologikoak alde batera utzita, testuan bertan atzeman daitekeen joera honako hau da: ez dagoela maitasun-his-

---

cionar en términos realistas". Tz. Todorov-ek aipatua. Ik. TODOROV, Tz.; op. cit., 123. or.

(259) Eleberri frantsesa eta Espainian mende berean egiten zen eleberri-mota bat alderatzean, honela mintzo da J. F. Montesinos: "La novela francesa del siglo XIX expresó como ningún otro género literario, las aspiraciones profundas del alma del pueblo del que surgiera. André Gide ha dicho en alguna parte, a mi juicio con gran exactitud, que la novela francesa ha sido siempre obra de moralistas, entendida la palabra, apenas hay que decirlo, a la francesa, y no al modo perediano o fernáncaballerista. Aquélla ha sido obra de estudiosos de la moral humana, no de normadores de conductas y exhibidores de 'modelos'. Por serlo así, el predominio del estudio psicológico ha sido en ella absoluto". MONTESINOS, J.F.; **Pereda o la novela idilio**, Editorial Castalia, Madrid, 1969, 169. or.

(260) Ik. MONTESINOS, J.F.; **Costumbrismo y novela**, 136. or. eta hurrengoak.

(261) Ik., esate baterako, **Euskal-Erria** (1880-1918), **Euskalzale** (1897-1899), **Ibaizabal** egunkaria (1902-1903).

torian garapen psikologikorik, ekintzatik ekintzara doan kontaketa antolatzen duela kontalariak eta naturaz gaindiko eraginek konpontzen dituztela azkenean auziak.

Maitasun-historiaren ondoan, beste osagai bi aipatzen genituen **Kresala**n: ohiturak eta gogoetak.

Itsaserri bateko ohiturak kontatzen dira eleberrian; Garizumakoak, Atseden-ordutakoak, etab.; ohizko orainaldian kontatu ere. Eta **Kresala**z, **Garoa**z bezala, ohiturazko nobela dela esan da behin eta berriz (262).

Zalantzarik gabe, **Kresala**ren osagai dira "ohiturak" eta "kostunbrismoa", formaren aldetik eta edukinaren aldetik (263). Bertan aurki ditzakegu eleberri kostunbristari ezarri zaizkion ezaugarriak (264), dagoenekoz aipatu ditugunak.

Azkenik, kontalariaren gogoetak dauzkagu: kontaketan gertatu edo gertatzera doanari buruzko gogoeta baloratiboak, jokabide batzu gaitzetsiz eta beste batzu onetsiz.

Joskera narratiboari dagokionez, ohiturek eta gogoetek beteko dituzte maitasun-historiaren garapenak utzitako tarteak. Puntu honetan, esan dugu bestela josítako eleberria izan zitekeela **Kresala**: badagoelako lehen kapituluetan ohituren pilatze bat, behin maitasun-historiak abiada hartzen duenean, urrituz joango direnak; badagoelako bi parteen artean "desoreka" bat, "ohiturarik" gehientsuenak mataza korapilotzen hasi arte kontatuz eta, Mañasi, "zain" daukan bitartean eta mataza korapilatzen hasten denean, "ohitura" horien deskripzioa gutxituz.

---

(262) **Kresala**z "excelente cuadro costumbrista de un puertecito vizcaíno" dio L. Mitxelenak. Ik. MICHELENA, L.; **Historia de la Literatura Vasca**, 156. or. Aurretik eta ondoren idatzitako hainbat artikulu eta historik ere "costumbrismo" hau azpimarkatuko dute.

(263) Forma eta edukinaren arteko bereizkuntza, esana dugunez, modu operatiboan bakarrik egiten dugu.

(264) "Las llamadas 'novelas de costumbres' se caracterizan o se definen por su falta de problemática. Género novelístico si se quiere, pero en el que se nos recrea o describe un universo inmóvil con personajes sin problemática propia, sin conflictos con este mismo universo del que surgen". FERRERAS, J.I.; **Introducción a una sociología de la novela española del siglo XIX**, Edicusa, Editorial Cuadernos para el Diálogo, Madrid, 1973, 119. or.

Euskal ohiturak, euskara, moral kristaua... irakatsi, zaindu eta iraun nahia azaltzen du egileak; ez dago ukatzerik. Ezta irakurlegoan izan zuen oihartzuna ere. Honela dio I. Sarasolak:

> "Espero zatekeenez, periodo honetako euskal literatura Euskal Herriaren parte batez iharduki zen. Espero zatekeenez ere, hartzen dena haren estratorik kontserbatzaileena eta etorkizunari buruz garrantzi xipien duena da. Halaber, idazleak, multzo bezala harturik, estrato hortatik sortzen dira ezinbestean" (265).

Hala ere, ez dirudi literatur obra bat erabateko neutralitate moral, intelektual eta estetiko batez idazterik dagoenik (266). Eta gaurko irakurle bati klerikala (267), ideologizatuegia, manikeoegia, primarioegia... irudi dakioke, bai, baina neurri batean ezin irakur dezakeelako, XX. mendearen hasieran euskaldunek irakur zezaketen bezala (268).

Nolanahi ere, kostunbrismo-kutsu, kontalariaren onespenezko eta gaitzespenezko esku-hartze, "garatu" gabeko maitasun-historia eta guzti, osagai bakoitza gaindituz, batasun bezala irakur daitekeen testu bihurtzen da **Kresala**. Hala uste dugu egindako deskripzioaren arabera: "testu-aurrean" (269) atzeman zitezkeen osagai horiek hartzen duten egituraketa gai izan da zentzu-sorketarako (270), esanahi-geru-

---

(265) SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, 59. or.

(266) "Aunque diferentes obras de arte requieren diferentes clases de juicio para su disfrute, (...), ninguna obra ni siquiera la obra lírica más corta, puede escribirse en completa neutralidad moral, intelectual y estética". BOOTH, W.C.; **La retórica de la ficción**, 313. or.

(267) Ik. SARASOLA, I.; op. cit., 61. or.

(268) "Pero, ¿es realmente verdad que el católico o ateísta serio, no importa cuán sensitivo, tolerante, diligente y bien informado esté sobre las creencias de MILTON, disfrute **El paraíso perdido** en el mismo grado posible que uno de los coetáneos o correligionarios de MILTON, de igual sensibilidad e inteligencia? ¿Puede un protestante o judío devoto que aborrece el celibato clerical disfrutar **El hábito de perfección** de HOPKINS como un devoto católico de igual sensibilidad y experiencia literaria?". BOOTH, W.C.; op. cit., 130. or.

(269) Jean Bellemin Noel-ek "ante-texto" kontzeptua erabili du, eta honela definitu: "une certaine reconstruction de ce qui a précédé un texte, établie par un critique, pour faire l'objet d'une lecture en continuité avec le donné définitif". C. Reis-ek aipatua. Ik. REIS, C.; **Fundamentos y técnicas del análisis literario**, 105. or.

(270) "la obra literaria es la expresión de 'algo' y el objetivo del estudio consiste en

za desberdinak sortzeko eta Paradisuko dramarekin jaiotako gizonari Salbaziorako bidea erakusteko. Eta bide hau, agian, parabola batez erakusten du: itxaron, itxaropena, borroka, lexemen sememen (271) errekurrentzian oinarrituz bizitzarako bide eta Bizitzarako Bide bezala.

Kresalak honako hau ez du egiten: **arazoak planteatu** (272). Baina erantzunak badauzkalako. Azken batean, erlijiotasun transzendente batek erantzuten ditu galderak, kontalari ziur baten eskutik eta etsipenez betetako pertsonaien bidez.

---

llegar a ese 'algo' a través del código poético" dio Tz. Todorov-ek. Ik. TODOROV, Tz.; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 21. or.

R. Barthes-ek sorketa hau bi koderen artean kokatzen du: "la creatividad del relato (al menos en su apariencia mítica de 'vida') se situaría así **entre dos códigos**, el de la lingüística y el de la translingüística". BARTHES, R.; "Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, 42. or.

(271) "El semema es el conjunto de los **semas**" dio B. Pottier-ek. Sema honela definituko du: "El **sema** es el rasgo distintivo mínimo de significación, y se distingue por oposición en un conjunto lexical". Ik. POTTIER, B.; **Presentación de la lingüística**, 70. or.

(272) "La obra literaria lograda, pues, más que suministrar respuestas, desarrolla planteos a partir de los cuales enfoca la realidad y señala la existencia de opciones para la conducta humana". MALDAVSKY, D.; **Teoría literaria general. Enfoque multidisciplinario**, Editorial Paidós, Buenos Aires, 1974, 43. or.

IV. GAROA: KONTALARI BATEN EGINTZAN BERBALDI-ERREPIKATZEA

> "Garoa bukatu da.
> Nere irakurgaia esan nahi det, bada mendietako garo landarea bizi da oraindik eta mendiak dirauten artean iraungo du. Eztio ajola egi ta egal guztiak iritariz moztuarren. Sustraia gelditu ezkero, garoa egon dan tokian berriz ere garoa dator. Ai orrela euskalduna zan lekuan euskalduna jaioko balitz, sinistetsuaren lurrean sinistetsua erne, Zabaletan bezela! An bai garoa ezko, iori ta usaitsu! Zabaletako baserrian euskalduntasuna oso lenean daukate, lenean ta berean; arlo, izkera, oitura ta jarraipide guztietan" (Garoa, 299. or.).

1. GAROA: KONTALARI OROJAKILE BATEN EGINTZA BIZIMODU BAT GORESTEKO

Garoa kontalari orojakile baten egintza da bizimodu bat goresteko. Jadanik K. Otegik Garoa eleberriko pertsonaien azterketa egitean aditzera eman zuen kontalari honen erraldoitasuna:

> "Esan daiteke, eta arrazoin sendoz, elemendurik bortitzena, funtsezkoena, Garoa-n autore-kontalaria dela" (1).

(1) OTEGI, K.; Pertsonaia euskal nobelagintzan, 95. or.

Behin eta berriz erabiliko ditu K. Otegik ildo hau berau azpimarkatzen duten adierazpideak:

> "Obraren ardatz, autore-kontalaria da" (2).

Edo beherago:

> "obrako elemendu nagusi bilakatzen da autore-kontalaria. Gehiegizkoa da. Handiegia" (3).

Eleberrian barrena pertsonaia erraldoi bat itxuratuko da, Joanes artzaina. Bera da **Garoan** kontatzen den historiaren ardatza. Baina, azken finean, historia horren protagonista izatera mugatuko da soil-soilik Joanes, eta kontalariak hartuko du **Garoa** den kontaketa-gogoeta bilduma horren protagonismoa.

Bere beste bi eleberriak bezala, Domingo Agirreren testu hau ere, osagarri diskurtsiboz eta osagarri narratiboz eratua dago, fikzioz eta fikziorik gabe. Izan ere, badira "irakurgaian" barrena kontalariaren hainbat eta hainbat ihardunaldi, zenbaitetan luze samarrak, bere filosofiaren adierazle.

Elkarren osagarri diren bi formulaz eratzen da testua, pasarte narratiboen eta pasarte diskurtsiboen osagarritasunaren oinarriaren gain. Bi formula hauen arteko lotura bi modutara egiten da: batzutan, historiaren kontaketako elementu batek ematen dio sorrera gogoetaren bati; beste batzutan, berriz, gogoetak ematen dio sorrera historiaren kontaketari. Honenbestez, orohar, testuaren itxuraketan nabaria da eleberriaren osagai gisa jo diren elementuen (4) eta saiakeraren osagai gisa jo diren elementuen (5) konbinazioa.

Garoa kontalari orojakile baten egintza izatea eta kontalari orojakilea protagonista izatea testuaren luze-zabalera osoan dago, nola maila anekdotikoan hala egituratze-moduan ere.

---

(2) OTEGI, K.; Pertsonaia euskal nobelagintzan, 95. or.

(3) **Ibidem**, 95-96. orr.

(4) "La novela es, pues, ante todo una narración". BOURNEUF, R.; OUELLET R.; **La novela**, 33. or.

(5) J.L. Gómez-Martínez-ek E. Anderson Imbert-en honako azalpen hau jasotzen du saiakerari buruz: "Una aproximación escolar sería ésta: el ensayo es una composición en prosa, discursiva pero artística". GOMEZ MARTINEZ, J.L.; **Teoría del ensayo**, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1981, 106. orrialdean aipatua.

Maila anekdotikoan bertan baieztatzen du irakurgaia bere egintza dela:

> "**Garoa** bukatu da.
>
> Nere irakurgaia esan nai det, bada mendietako garo landarea bizi da oraindik eta mendiak dirauten artean iraungo du" (6).

Kontalariaren hitzek beraiek baieztatzen dute **Garoa** bere egintza izatea. Baina **Garoa** bere egintza izate hori ez da bere hitzen baiezpenera mugatuko. Egituratze mailara eta testuaren antolamendura ere badarama aipatu ezaugarria. Eta bera protagonista bihurtzeko moduan eta bere egintza izateko moduan itxuratzen du testua. Eleberria eraikitzeko modua horretara bideratzen da.

Kontalaria destolestatu egiten da: batetik, narrazio baten kontalari bihurtzen da eta, bestetik, berriz, gogoeta eta komentario batzuren kontalari. Kontalaria bietan da partaide: osagarri diskurtsiboetan eta narratiboetan. Baina berezi egiten ditu partaide izateko moduak. Bietan da esakuntzaren subjetu, baina batetik bestera aldatu egiten da bere esakunearen objetua. Batean, berbaldi diskurtsiboan, ideiak dira, elementu ideologizatuak; bestean, berbaldi narratiboan, berriz, historia, pertsonaiak. Batean, berbaldi diskurtsiboan, kontalariak **hizketan** dihardu; bestean, berbaldi narratiboan, ordea, kontatzen (7). Batean, berbaldi diskurtsiboan, hitz egin egiten du aditz komentatiboak erabiliz eta enuntziazio-modu esperientzialera joz batipat; bestean, berbaldi narratiboan, aldiz, kontatu egiten du aditz narratiboak erabiliz eta enuntziazio-modu historikora joz batipat. Bata, berbaldi diskurtsiboa, kontalari filosofoaren berbaldia (8) da; bestea, berriz, histori kontalariarena.

Histori kontalari honek historia kontatzeko hartzen duen ikus-

---

(6) Ikus **Garoa**, 299. or. Aurrerantzean **Garoa**ko hitzak zuzen-zuzenean ekartzen direnean honako honetan erabili den argitalpen berberetik jasoko dira: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1981, 5. argitalpena. Aurreko eleberri-deskripzioetan ezarritako erizpideari jarraituz, deskripzio honetan jasotzen diren testu-aipamenetara ez dira ekarriko, ez markatuko, ez berak testu-mailan eginiko deiak, ezta oin-oharrak ere.

(7) "Más exactamente, el narrador no habla, como lo hacen los protagonistas del relato, cuenta". TODOROV, Tz; **¿Qué es el estructuralismo? Poética**, 77. or.

(8) M. Vargas Llosak "narrador-filósofo" deitzen duena da. Ikus VARGAS LLOSA, M.; **La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, 222. or.

gunea, besteak beste, "visión 'por detrás'" (9) deiturikoa da. Kontalariak pertsonaiak baino gehiago daki, kontalaria pertsonaiak baino handiagoa da eta guztiz menpean dauzka pertsonaia hauek. Kontalari honek ez dauka mugarik eta erraz igaroko da leku batetik bestera: Zabaleta baserritik Somorrostrora, edo Gaztela herrira, edo pertsonaia baten barne-pentsamenduen berri ematetik beste baten barne-pentsamenduen berri ematera. Izan ere, fikzioan sortu dituen pertsonaia horiek ez dute sekreturik berarentzat eta edonon daudelarik ere ez diote ihes egiten kontalariak beraietaz uneoro daukan ezaguerari. Kontalaria orojakilea da. Kontaketa bere menpean dauka, pertsonaien gainetik begiratzen du eta txotxongilo gisa maneiatzen duen pertsonaia-talde zabalean pertsonaia nagusi bat eraikitzera joko du: protagonista eta pertsonaia-ardatz den Joanes artzaina. Garoako gainontzeko pertsonaiak Joanesen inguruan egituratuko dira, Joanesekiko duten harremanaren arabera. Joanes da neurria eta paradigma. Pertsonaia finko honekiko hurbiltasunak edo urruntasunak neurtuko ditu gainontzekoak. Joanes bihurtuko da Garoaren atal den fikziozko historiaren gune. Baina Joanesen gainetik kontalaria dago: historia kontatzen duen kontalaria, batetik, eta historia horri buruzko gogoetak edo historia horren inguruko gogoetak jalgitzen dituena, bestetik.

Kontalaria bat eta bakarra da. Baina, arrazoi metodologikoei erantzunez, eleberriaren azterketa eta analisia erraztea helburu, zilegi bedi kontalariarekin egin den bereizketarekin jarraitzea, kontalari filosofo eta histori kontalari bikotea mantenduz.

Berbaldi diskurtsiboan barrena kontalari filosofo honek bere ideiak azaltzen ditu, bere mundu-ikuskera, bere ideologia, berak defendatzen dituen baloreak. Eta berbaldi narratiboan ideia horiek defendatuko ditu Joanes pertsonaiak, mundu-ikuskera hori; ideologia eta balore horiek ditu. Hitz batean, berbaldi diskurtsiboak hobesten duen pertsonaia-protagonista sortzen du berbaldi narratiboan.

Azken finean, berbaldi narratiboaren bidez kontatzen den historia exenplifikazio eta ilustrazio moduan irakur daiteke. Berbaldi diskurtsiboak duen abstrazioaren mailatik konkrezioaren mailara doa berbaldi narratiboan. Ideiak historiak ordezkatzen ditu.

Berbaldi diskurtsiboa kontalariaren beraren egintza da. Kontala-

(9) Ikus TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 178. or.

ria bera bihurtzen da protagonista bere ideologia propioa azalduz. Eta berbaldi narratibora igarotzean, ideologia horien paradigma "exenplifikatuko" duen pertsonaia sortzen du: Joanes. Honela bihurtzen da kontalaria **Garoa**-ren protagonista nagusi (10).

Kontalari honek ez ditu gertaerak gizakiaren moldeen barnean kokatzen den buru batetik atzematen, ia jainkozko moldea duen buru batetik baizik (11). Bere pasarte doktrinaletan, gogoetetan, guztia daki eta fikziora igarotzean ere bere galgako pertsonaia bat sortzen du: guztia dakiena, zalantza-izpirik eta duda-mudarik gabea. Kontalari orojakileak pertsonaia "orojakilea" sortzen du. Jainkoa bailitzan jokatzen duen kontalariak ikuspuntu jainkotiar bat hartu eta Jainkoa bailitzan jokatzen duen pertsonaia sortzen du: paradigma.

Kontalari hau helburu jakin batera bideratzen da: bizimodu bat gorestera. Horretarako, fikzioa gogoeta-iturri bihurtzen du edo gogoeta fikzio-iturri, eta elkarri hertsiki loturik dauden bi berbaldiz baliatzen da, elkar osatuz doazen bi berbaldiz.

Bi berbaldiren bidez goresten da bizimodu hau. Berbaldi narratiboak **frogatuko** ditu berbaldi diskurtsiboak jarritako tesiak. Honela, bi berbaldiak bizimodu berbera gorestera bideratzen dira.

Bi motatako argumentutara joko dute bi berbaldiek bizimodu bera goresteko: aldeko argumentuetara eta aurkako argumentuetara. Alegia, berbaldi diskurtsiboak goretsi egiten du bizimodu bat eta honi aurkajartzen zaiona gaitzetsi. Bi aurpegiak azaltzera jotzen du bai berbaldi diskurtsiboan eta bai narratiboan.

M. Zaratek garai bateko Seminarioetako irakaskuntza-moduaren aztarnak somatzen zituen Domingo Agirreren eleberrigintzan, Eskolastikaren eraginak, hain zuzen. Argibide gisa hainbat eta hainbat kapituluren egituratze-modua eskaintzen zuen (12). Baina badirudi

---

(10) Jadanik K. Otegik azaldua du kontalaria ardatz bihurtzearen ezaugarri hau: "Joanes da, noski, pertsonai taldearen ardatz; ez, ordea, elaberriarena; hau, egitura edo taiuketa literariotzat hartuz gero". OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 95. or.

(11) "El proceso más similar al de la vida es el de observar los sucesos a través de una mente humana y convincente, no de una mente casi divina despegada de la condición humana". BOOTH, W. C.; **La retórica de la ficción**, 42. or.

(12) Ikus ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak**, 24-26. orr.

Eskolastikaren eragin hau ez dela Agirreren eleberrietako zenbait pasartetara edo kapitulu batzuren egituraketara soilik mugatzen; izan ere, areago joanez, ematen du eleberria eta testu osoa eraikitzeko modura doala. Helburu didaktikora bideratuak leudeke testuaren arkitektura eta testuaren antolatze-modua.

Oso egokia da helburu didaktikoa —bizimodu bat gorestea— lortzeko antolatze-modu hau. Izan ere, batetik, **errepikatu** egiten da "mezu didaktikoa" berbaldi-mota baten eta bestearen bidez eta, bestetik, bi ereduak aurkezten ditu: jarraitu behar den eredua eta gaitzetsi behar dena, eredu positiboa eta eredu negatiboa. Eredu positiboak bizimodu zoriontsu eta baketsua erakutsiko du eta eredu negatiboak, berriz, egonezina eta bakerik eza.

Antolatze-modu honi esker, bete egingo da egitura-modu honekin kontalariak erdietsi nahi zuen desioa, korolario didaktikoa: bizimodu bat gorestea.

1.1. KONTALARI FILOSOFOAREN BERBALDI DISKURTSIBOA

Gertaera nabaria da **Garoan** (baita **Auñemendiko Lorean** eta **Kresalan** ere); kontalariak behin eta berriz eten egiten du kontatzen ari den historia zenbait pasarte filosofiko-doktrinal tartekatzeko. Historia bat kontatzen ari zen kontalari orojakileak pertsonaiak utzi eta bera dator berbaldiaren lehen planora (13). Baina eten hauek digresioak izanik ere, hertsiki loturik daude kontatzen duen historiarekin. Ez dira noraezean egindako digresioak.

Lehen kapitulutik (14) bertatik hasten dira kontalariaren "gel-

(13) "Pero hay ocasiones en que el narrador omnisciente aparta con toda deliberación a los personajes y a los objetos para ocupar el primer plano del relato y pronunciar, profesoralmente, una sentencia filosófica, una conclusión moral, un refrán o aforismo, una regla de la vida que encuentra un ejemplo concreto que ha narrado o que va a narrar". VARGAS LLOSA, M.; **La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, 223. or.

(14) Kapituluari buruz honela mintzo da M. Baquero Goyanes: "A nadie se le oculta que éste es un elemento, un componente decisivo en la organización de cualquier novela". BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**, 107. or. Kapituluka egituratze hau oso erabilia da, batipat nobela tradizionalean.

diuneak" (15). Besteak beste, Aizkorri gainetik ikusten dena deskribatzeko geldialdi luze samarra egingo du.

Jakina denez, kontalari batek ikusgune moduan "la visión 'desde fuera'" (16) hartzen badu ere, berak sorturiko edozein pertsonaiak baino gutxiago dakienaren ikuspuntua hartzen badu ere, ezin lor dezake objetibotasun osoa (17). Ezinbestekoa da kontalariaren presentzia estilistikoa. Berak hautatzen ditu hitzak, erabiltzera doan baliabide erretorikoak (18)... Eta kontalari orojakile batengan areagotu egiten da presentzia hau.

XIX. mendeko nobelagintzan hainbat arrazoiri lot dakioke, hala nola, argitalpen-moduari (aldizkarietan aldizka-aldizka argitaratzeari, irakurlearengan irakurketa-mota bat eragin nahiari, etab.). Ikus BAQUERO GOYANES, M.; op. cit., 111. or.

Garoa R.I.E.V. (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkarian hasi zen kapituluka-kapituluka argitaratzen 1907. urtean. Handik bost urtera, 1912.ean, XVI. kapitulua argitaratu ondoren, azken lau kapituluak argitaratu gabe uzten ditu R.I.E.V. aldizkariak. Urte honetan bertan, 1912.ean, Durangon argitaratu zen osorik Florentino Elosuren etxean. **Kresala** eleberriarekin gertatzen den legez, urteak igarotzen dira lehen kapitulua argitaratzen denetik azken kapitulua argitaratzen den arte (argitaraturiko azken kapitulua, jakina, ez bata eta ez bestea ez bait ziren osorik argitaratu). Hain tarte handiak ezin erraz zezakeen eleberriaren irakurketa; izan ere, irakurle errealak historiaren nondik-norakoa ahazteko adinako epea bait zuen kapitulu baten irakurketatik hurrengoaren irakurketara, nola eta aldi bakoitzean aurretik argitaraturiko kapitulu guztiak ez zituen irakurtzen.

(15) "Las digresiones asumen tres diferentes funciones. La primera es la de consentir al autor la inserción de nuevo material de la novela (...). Mucho más importante es la segunda función de la digresión: frenar el curso de la acción (...). La tercera función de la digresión consiste en la creación de contrastes". C. Segrek Sklovski-rengandik jasotzen duen aipamena. Ik. SEGRE, C.; **Las estructuras y el tiempo**, 32. or.

(16) Ikus TODOROV, Tz.; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 179. or.

(17) Tz. Todorov-ek, ikuspuntu honetatik kontatzen duen kontalari baten testu-pasarte bat eskaini ondoren, honelako ondorioa ateratzen du: "El narrador es, pues, un testigo que no sabe nada, y aún más, no quiere saber nada. Sin embargo, la objetividad no es tan absoluta como se pretente ('afectuoso y exasperado')". **Ibidem**, 179. or.

(18) J. P. Sartrek zioenaren antzeratsu: "Hablar es actuar: toda cosa que se nombra ya no es completamente la misma; ha perdido su inocencia". SARTRE, J. P.; **¿Qué es la literatura?**, 56. or.

Aipatu lehen kapituluko deskripzio horretan kontalariak goitik beherako norantza hartuta deskribatzen du mendi gainetik dakusana. Lehenik mendi-basoak, beherago belardi-soroak, beherago "euskal uri jakinak", "ta azkenez" "suburdi beltza". Deskripzio honetan oso nabaria da arestian azaldutako presentzia estilistiko hori. Paisaiaren balorazioa egiten du baliabide estilistiko desberdinetara joz, sententzia batekin amaiera emanez deskripzioari:

> "Benetan! Aitzgorri gañetik begiratu ezkero, be aldeko gauza guztiak ume jolasak dirudite.
>
> Mendiak bakarrik dirade andi, mendiak eta beren Egille Jaungoiko altsua" (Garoa, 27. or.).

Sententziak jartzen du azken puntua. Aurretik egindako deskripzioan eleberrian barrena pertsonaia desberdinek izango dituzten bizilekuak azaltzen dira. Irakurleek oraindik ez dakite non garatuko den kontatzera doakien historia, baina lehen kapitulu honetan bertan deskribatzen ditu kontalariak kondentsaturik, gero historian barrena garatuko diren lekuak:

Mendi-basoak: Aloña mendia...
Belardi-soroak: Zabaleta, Azkarraga...
"Uri-jakiñak": Oñati...
"Suburdi beltza": "Erbestea", Nerbioi ibaiaren ezkerraldea.

"Suburdi beltza" espazio-kategoria legez jotzekotan, zentzu sinekdotiko-metaforiko batean beharko luke izan. Badira eleberrian barrena zenbait zantzu, mota honetako irakurketa zilegiztatuko luketenak. Juan Andresen lanbidea Erbestean burnibideak egiteari lotuta dago (19). Eleberrian barrena erbesteratzen den pertsonaia bakarrak burnibidegintza du ogibide. Nerbioi ibaiaren ezkerraldea deskribatzen duenean ere, honela dio kontalariak:

> "antxen dakusgu (...) tximist-gurdien txintxiñak eta sugurdi azkarren tipirri taparra luze adoretsuak" (Garoa, 186. or.).

"Suburdi beltza" "behe-aldeko" lekuguneei dago lotuta eta

---

(19) "Bai, prantzezak, gaztelarrak eta euskaldunak nastean ibilli ziran burnibideak egiten". Aurreraxeago berriro itzuliko da Juan Andres burnibidearen gai honetara: "Gaztelarrak burnibideari perrokarrill esaten zioten, ta prantzezak ostera txemen de per. Ondo esan bear zan baña: txemén de perrr!" (Garoa, 106-107. orr.).

espreski Somorrostro eta honen inguruei eta Erbesteari; Garoan gaitzetsiko diren lekuguneei, hain zuzen ere.

Arestian esan denez, deskripzio honetan nabaria da kontalariaren presentzia estilistikoa. Eleberriak ezagutuko duen garapenari begira, eta lehen orrialdeetatik beraietatik planteatu den irakurketa-moduari begira, kontalariaren presentzia estilistiko horretan aparteko garrantzia hartzen du mendi-basoak eta "suburdi beltza" deskribatzerakoan egiten duen aurkakotasunak:

- "baso andi zugatzez beteak (...) denak ostro berde berriak zeruruntz jasoaz, Jaungoikoari eskeintzen zitzaizkion lorontzi eder batzuk ziruditela" (Garoa, 26. or.)/ "suburdi beltza (...) arrotasunaren agerpena bezela ke mataza lodi zikin bat kopeta gañean arro arro daramala" (Garoa, 27. or.). Basoen eskaintzari —lorontzi eder batzu—, "suburdi beltza"-ren eskaintza aurkajartzen zaio —ke mataza lodi zikin bat—.
- "suburdi beltza bere burni lerrotik barruan laisterka, txistuka ta zarraparrean" (Garoa, 27. or.) doa.

Espreski aditzera ematen ez bada ere, badirudi honen aurrean mendi-basoak egonkorrak direla, egon daudela.

- "ta azkenez, gizonaren jakituri ta alizatearen erakutsirik andienetakoa, suburdi beltza" (Garoa, 27. or.). Gizonaren egintza honi Jaungoikoaren egintza aurkajartzen zaio. Deskripzioari amaiera ematen dion sententzian kontalariak dioenez, "Mendiak bakarrik dirade andi, mendiak eta beren Egille Jaungoiko altsua" (Garoa, 27. or.).

Fikzioaren garapenean barrena bi lekugune hauek aurkajarriz joango dira eta fikzioak frogatu egingo du kontalariaren tesia; izan ere, historiaren pertsonaia-protagonista paradigmatikoaren —Joanesen— leku maitea mendia izango bait da, bere hitz propioekin aitortzen duenez. Kontalariaren "—Ta beti mendian zaude, bakarrik?"— galderari erantzunez, honela dio Joanesek: "—Bakarrik ez, nere Jaungoikoarekin. Nun biziko naiz paketsuago ta obeto?" (Garoa, 22. or.). Joanesen galdera guztiz erretorikoa da, baiezpen huts bihurtuko bait da.

Hitzek ez ezik, fikzioaren desarroiloak ere hori bera erakutsiko du, atal hau aztertzean azalduko denez. Ezin izan bestela. Kontalaria eta honek kontatzen duen historian daukan bozeramailea —Joanes—

beti bat datoz, Joanesek frogatuko bait ditu "exenplifikazioan" kontalariaren berbaldi diskurtsiboko argumentazio positiboak.

Belardi-soroen inguruko lekuguneak ere hobetsi egingo ditu kontalari filosofo honek. Bigarren kapituluaren amaieran dator hobespen hau:

> "A! Zer izango litzake gure baserrietan Jaunaren legeko esi biguna urratuko balitz?" (Garoa, 42. or.).

"Uri-jakiñei" buruzko sententziarik ez du emango kontalari filosofoak, baina aurrerago, historia aztertzean azalduko denez, histori kontalariarentzat tartekoa da lekugune hau; ez da gaitzetsiko edo goretsiko beste toki horiek bezala. Anbiguoago geldituko da, nahiz eta Joanes pertsonaia paradigmatikoak ahalik eta gutxien zapaldu "uri" hauek.

Lehen bi kapituluetan barrena eleberrian zehar pertsonaia-protagonista bihurtuko dena eta honen familia aurkeztu ondoren, hirugarren kapituluan planteatuko da pertsonaia-protagonistak aurkezten duen bizimodutik urrutiratze-nahiak zabalduko duen lehen funtzio kardinala. Kapituluaren tituluak (20) oso ongi laburtzen duen bezala, "bakoitza bere aldetik" bideratzea izango da elementu gatazka-sortzailea. Baina Zabaleta baserrikoek bizi zuten oreka-giroa hautsi aurretik, kontalari filosofo honek bere bizitza-erregela emango du:

---

(20) Kapituluka atalkatze honek "egitura perfektuaren" irudia ematen du: dena ongi neurtua, gauza bakoitza bere tokian, mintzagai konkretu batekin. Perfektutasun hau ongi uztartzen da kontalari eta pertsonaia-protagonista "perfektu" horiekin; "perfektutasunari" dagokionez galga berean daudelarik, hirurak ezaugarri hau azpimarkatzean. Are gehiago: dena lotua eta ongi lotua geldi dadin, kapitulu bakoitzak izenburu bat darama, kapituluaren laburpen gisa, kapitulu horren muina adieraziz.

Kapitulu-titulu guztiak laburpenak badira ere, izenburu horietako batzutan erreferentea ageriagoan gelditzen da beste batzutan baino: "Joanes artzaia", "Baserria", "Bakoitza bere aldetik", "Azoka ta dema", "Erri ta erbestean", "Auleria", "Eguberri txarrak"... Horrelako izenburuetan erraz antzeman daiteke kapituluak jorratuko duen gaia.

Beste batzutan, berriz, baliabide erretorikoren baten erabilerara jotzen du: "Landare berriak", "Loreak eta arantzak", "Ijiji aiene!"... Eleberria kokatzen deneko nekazal mundu horrexetatik atereak dira irudiak. Begibistakoa denez, metafora horiek ez dute sorkuntza-prozesu handirik aditzera ematen. Topikora hurbiltzen dira. Agirrek jaso besterik ez ditu egiten herriarentzat oso ezagunak izan zitezkeen irudi hauek; eta honela uko egiten dio metafora pribatuak eta bere-bereak liratekeenak sortzeari.

"Iritzi bat gure buruan ernetzen bada, berealaxe biraltzen ditu sustraiak biotzeraño, lurrean landareak baño askozaz errezago ta sakonago, ta ezin izaten da, gero, dagoan tokitik atera. Lur ona billatzen du gure animan norbere iritziak" (Garoa, 43. or.).

Historiako pertsonaiek baieztu egingo dute bizitza-erregela hau. Horrela, kontalari filosofoaren ideien froga bihurtzen da historia: Joanes eta Ana Joseparen bigarren semea den Iñazio Marirengan, ezkontzeko nahia erne eta ezkondu egingo da gurasoen oniritziarekin; Joanes eta Ana Joseparen hirugarren semea den Juan Andresengan, berriz, erbestera joan nahia erne da eta gurasoen nahiaren aurka hartuko du Juan Andresek erbesterako bidea; baita bide horri eutsi ere.

Iñazio Mariren ezkondu nahi honek beste gogoeta bat sortuko du kontalari filosofoarengan:

"Ezkongei daudenean, emakume guztiak onak; ezkonduta gero, erdiak balira! Ezkondu artean, neskatxa danak gordeta idukitzen omen dituzte beren gogo, griña, utsune ta orañak, bear eztan orduetan agertzeko. Ta orduan ordukoak. **Baña estali gabe idukita ere, giza-seme gazteak eztakite neska ezkongeiaren txaldankeri, seta gaizto ta alderdi txarrik ezagutzen ta, begiak zabalik erabilliarren, itxu itxuan ezkontzen dira geientsuak.** Nola ez? Batzuk emakumien edertasunari begira itsutzen dira; beste batzuk, esan dezagun obeto, beste askok, neskatxen diru zorroari begiratzen diote; gutxik buru ta biotzari. **Ta ille arroen azpian zentzun gabeko txepetxburu asko izan oida, ta jantzi apañaren barruan bada-ezpadako biotz aldakor txakillak ugari**" (21).

Gizaseme gazteek egoera honetan behar bezalako hoztasunik ez agertzearen froga, Juan Andresek egingo duen aukera da: Dionisia Gomez Jundeiro. Kontalari filosofoaren bizitza-erregela hau abstrazioaren mailatik konkrezioaren mailara igaroko da, historiara; eta hemen aurkituko du exenplifikazioa (22).

---

(21) Garoa, 44-45. orr. Azpimarrak gureak dira.

(22) Historia kontatzen duen kontalari orojakileak frogatu egingo du, historiaren maila honetan kontalari filosofoaren esana:

"Bazebillen an norbait, burutik okozperako zapiduna, gona motz ori lodiz jazten zana, bularrean gurutzeturiko oial zirpiltzuz lotua, gerri zabal, mokor astun, ibilbaldarreko emakumea; bazebillen gau ta egun, goiz ta arratsalde, euskaldun gizasemeaz amesetan, morrosko sendoa non ikusiko, bere barruko itxaropen ta bildurrak mutillari nola esango. Dionisia Gomez Jundeiro zeritzaion, langillien

Ez dira hemen amaituko ezkontzak sortutako ideiak. Beste azalpen baten iturri bihurtuko zaio ezkontidearen aukeratze-modua:

> "Onelako gertaerak ikustean, esan dezake norbaitek eztala ondo seme-alaben ezkontzak gurasoen artean egitea, aien berri gabe askotan. Izan leike: neuk ere esan det lenago beste nunbaiten, guraso batzuek, berekorregiak eta diruzalegiak diranean, erraz dala zorigaiztoko elkarteak egitea; baño aitortu behar det gaur, egiaren alde, badakitela gurasoak, onelako zeregiñetan, etxea jasotzen, ez bakarrik seme alaben kalte gabe, baita ere aien zorionari begiratuaz; sarri ikusten dutela ezkongaia nolakoa dan gazteak baño askozaz obeto, ta eztirala beti txarrenak izaten gurasoak korapillatu dituzten ezkontzak" (Garoa, 50. or.).

Kontalari filosofoaren tesien froga-leku bihurtuko da fikzioa. Iñazio Mariren andregaia, Azkarragako Mikalla, gurasoek aukeratutakoa da. Ongi eginiko hautaketa da, Mikallak ezkontza ondoren ez bait du gatazkarik sortuko Joanes eta honen emazte Ana Joseparen bizimoduan. Dionisia Gomez Jundeiro-rekin, berriz, nekez uler daitezke, hain da nabarmena batzuren eta bestearen arteko muga linguistikoa bera (23). Dionisia Juan Andresek berak hautatu du emaztetzat, gurasoen nahiaren aurka (24).

Ana Josepa bera ere kontalari honek aditzera ematen duen ego-

---

arteko galizitar erari saltzallea zan, Antonio Gomez Moreno **katapazaren** alaba. Arretxek zekizkian ondo Juan Andresen albisteak, bera zan geienbat gure menditarrak Gaztelerrian egoteko zeukan zioa, bera Zabaletako gaztearen lika ta lakio, jabe ta etxekoandre. Bai, Zabaletakoak pozik emango zizkon begi biak Dionisiari, onek eskatu ezkero, bere biotza oso osorik emanda zeukan bezela. Alkarrekin ezkontzeko zeuden neska mutillak!" (Garoa, 114-115. orr.). Orrialde berean, zertxobait aurrerago, beste hitz batzutara joz, are gehiago azpimarkatzen du egoera hau: "Juan Andres emaztegaiaz itxutua zegoan: Dionisiak, paparrean ezartzen zaigun musker baten antzera eutsi zion senargaiari, ta etzion utziko zazpi errietako kanpaiak jota ere" (Garoa, 115-116. orr.).

(23) Ikus Garoa, 190. or.

(24) "Noizbaiten bada ere, aditzen eman zion zer asmo zerabillen Juan Andresek aitari. Ai onen samiña orduan! Ai Ana Joseparen zotiñak! Esan zioten semeorri arren! oroi zezala antxiñakoen esakera jakintsua: **urrutira dijoana ezkontzera, edo da engañatua edo dijoa engañatzera**. Alperrik... Esan zioten, Jaungoikoaren izenean! etor zedilla etxeruntz ainbat lasterren, bazirala Euskalerrian neskatxa onak, ezkonsaria ero ero emango ziotela. Alperrik... Esan zioten ezin zitezkela gurasoak urrutietara joan; etzan itxura, erbestean, edozeñekin!, aide ta guraso gabe, sasiko baten irudian senartzea. Alperrik... Esan zioten negarrez zeudela aitamak, anaiak, illobatxoak" (Garoa, 115. or.).

eretako batean erortzeko arriskuan egongo da bere diru-zaletasunak eraginda: Malen bere biloba kuttuna Moxolo Potolorekin elkartzeko arriskuan (25).

Juan Andresen ezkontzak ilustratuko du kontalari filosofoaren tesiak gaitzetsia; Iñazio Marirenak, berriz, kontalari filosofo horren tesiak hobetsia. Bata kontalariak defendatzen duenaren ilustrazio bihurtuko da eta bestea arbuiatzen duenarena. Bata "itxu-itxuan" egindako ezkontza izango da, norberak hautatutako emaztearekin, eta gatazka sortuko du Zabaleta baserrian; bestea, berriz, gurasoek hautatutako emaztearekin egindako ezkontza, eta ez da gatazka-iturri bihurtuko.

Laugarren kapituluan barrena azaltzen duen gogoetak ere aurkituko du bere ilustrazioa fikzioan:

> "Landare berriari beti begiratzen zaio zarrari baño pozago ta arreta geiagorekin. Zarrak zer eman duan jakiten da, baño ez gazteak zer eman dezakean. Zarra gogorra izan oida, sustraitsua, edertasun gabea, bere oiturari eutsia, txertatzen gaiztoa. Gaztea berriz ezea, polita, biguna, guria, txerterraza. Zarra, iñausitzen danean, zapuztu egiten da, gazteak indar berria artzen du. Zarrak beti dauka zer erantzun, gazteak beti zer ikasi. Gaztean egin bear da lan, zartzan gauza onik izatea nahi badegu" (**Garoa**, 63. or.).

Juan Andresek eta Iñazio Marik tinko eutsiko diote nork bere bizitzari. Joanesen irakatsiek ez dute sustrai sendorik hartu bi seme hauengan, nahiz eta Joanes saiatu den bakoitza bere biziotik urruntzen: Iñazio Mari demazaletasunetik eta Juan Andres diruzaletasunetik (26). Baina "zarra gogorra izan oida" eta alferrikakoak izango dira irakaskuntzak eta aholkuak; izan ere, seme bakoitzarengan areagotzen joango bait da aurretik zekarren "bizioa": Iñazio Mari geroz eta

(25) "Alde batetik diruari begiratzen zion, ta dirua beti zan atsegingarri; baño bestetik norbere hitza jatea etzan itxurazkoa, ta gutxiago, etxekoen berri gabe, aidien kaltean epaia ematea. Gañera, Malentxok zer zerabillen ta ze gogo zeukan jakitea etzetorren gaizki. Arrek nai izan ezkero... baño bestela zer egingo zan ba!" (**Garoa**, 223-224. orr.).

(26) Joanes honela zuzentzen zaie bere bi semeei: "Ire, Iñazio, ezingo aiz egon arbi loreak jaio arte. Joari or Aranzazuko Mendibe A. Prailleagana: arekin **konponduko** aiz i... Ta utzizak bein jokorako griña gaiztoa. Jokoa ezta **errenta**, motell. Juan Andresek eta nik Oñatiko eleiz nagusian daukagu gure Aita. Biok joango gera, seme, alkarrekin, anima aberastera, bada animako aberastasuna obea dek lurrekoa baño, ta iraunkorragoa, gorde nai badegu" (**Garoa**, 34. or.).

demazaleago bihurtuko da, Juan Andres geroz eta diruzaleago. Kontalari filosofoaren tesia frogatua gelditzen da.

Gazteak hezitzen hasiko da Joanes, ilobak hezitzen, hauengan bere irakatsiak txertatzen. "Gaztea berriz ezea, polita, biguna, guria, txerterraza" dela frogatuko du fikzioak. Joanesen ilobak honek txertatutakoari hertsiki lotuko zaizkio etorkizunean: Joanesen irakatsien ispilu bihurtuko dira Malen, Iturraldeko Jose eta Manuel.

Behin eta berriz aholkuak ematen badizkie ere, grina horiekin jarraituko dute bi semeek.

Bostgarren kapituluan barrena kontalari honek azaltzen duen filosofiak ere aurkituko du froga-lekua historian. "Azoka eta dema" gaiak gogoeta luze bat eragingo du kontalari honengan, sententzia batean laburtuz aipatu filosofia: "Nai ta naiezkoak dira Euskalerriko azokak eta ongarriak gañera uri ta etxadi askorentzat, baño ta demak? Ez ongarri, ez nai ta naiezko, baserritarren gogokoak izanarren" (Garoa, 82. or.).

Abstrazioaren mailatik konkrezioaren mailara jaitsiz, Iñazio Mari pertsonaiari dagokio kontalariaren tesia frogatzea. Iñazio Marik bere demazaletasunarekin hondamendira eramango ditu bere osasuna eta Azkarraga baserria (27).

Zazpigarren kapituluan artzantzari buruz daukan ikuspegiaren azalpena osatuz doa kontalari filosofoaren presentzia eleberrian. Artzain-bizitzaren alderdi onak eta arriskuak jadanik azalduak ditu Joanes pertsonaiak lehen kapituluan (28); oraingo honetan kontalariak abstrazioaren mailara daramatza (29). Joanes artzainaren bizimodua artzainaren bizimoduaren azalpenera igarotzen da kontalari filosofoaren ahotsean, jeneralizaziora eramanez hark erakutsitako gizon

(27) Ikus Garoa, 117-118. orr.

(28) Aipatu lehen kapitulu horretan honela mintzo da Joanes bere artzain-bizitzaz: "Nai detan aña jaten det, nai detan aña edan, ta nai detana agindu. Nere ustea da —jarraitu zuan parre antzean— nere ustea da emengo legea, ta nere aginduaren aurrean eztu iñork ezetzik erantzuten. Inguruetako jabe ta jaun bezela bizi naiz" (Garoa, 22-23. orr.). Hurrengo orrialdean mintzo da Joanes artzain-bizitzaren alderdi arriskutsuez: "Ardiak batu bear izaten dira eskortaldera lenbizi, ta pozik bat edo beste galdu ezpazait. Orduan izaten dira istilluak, arren billa gaberdiraño edo bear dan artean..." (Garoa, 24. or.).

(29) Ikus Garoa, 133-135. orr.

bakar baten ikuspegia. Zazpigarren kapitulu honetan bertan Iturraldeko Josek artzantzan daraman bizimoduak eta honi gertaturiko jazoera batek ilustratuko ditu artzain-bizitzaren bi alderdi hauek.

Baina aipatu komentarioak historiarekin duen loturak maila anekdotikoa gainditu eta esanahi sakonago baten adierazle bihur daiteke.

Kontalari filosofoak egiten duen jeneralizazio honen iturria izan daitezke Joanes artzainaren bizimodua edo Iturraldeko Josek artzantzan daramana eta honi gertaturiko jazoera bat: gauez otsoa hurbiltzen zaio. Baina bigarren irakurketa bat ere zilegizta dezake: irakurketa konnotatiboago bat, irakurketa sinbolikoago bat.

Honako hauetara ekar daitezke artzain-bizitzari buruzko kontalari filosofoaren tesiaren lerro nagusiak:

> "Bera da, artzaia da benetan bere buruaren jabe; uritar andikiak baño askozaz lasai ta askatuago dabil; (...); baño arreta gabeko orduren baten bere ardiak geiegi sakabanatu baldin badira, larrabei ta moxalak urrutietara iges egin badute, ekaitza indarrean ta egiñaletan gañera badatorkio edo abere basatiren bat usterik ezean agertzen bazaio, lanak eta nekeak izaten ditu bazkatzalleak, bei ardi moxalak saletxera ekartzen, (...). Bai azkortasuna ta ausardia bear ditu artzaiak zaintzalle ona izango bada" (**Garoa**, 134-135. orr.).

Aurrerago egingo den Joanes pertsonaiaren azterketan, besteak beste, honako planteamendu hau egingo da: pertsonaia hau determinatzen edo mugatzen duen elementu nagusietariko bat bere artzain-izaera dela, artaldearen gidari izatearena dela; baina Aloñako Erregea (**Garoa**, 296. or.) artaldearen gidari ez ezik, familiaren gidari ere bihurtuko da eleberrian barrena, familiaren artzain.

Honela irakur dezakegu pasarte batean: "baño arreta gabeko orduren baten bere ardiak geiegi sakabanatu baldin badira (...), lanak eta nekeak izaten ditu bazkatzalleak, bei ardi moxalak saletxera ekartzen". Kontalari filosofoaren komentarioak maila denotatibo eta anekdotiko batean lotuta daude Joanes edo Jose pertsonaia konkretuek esaten dutenarekin edo pertsonaia konkretu hauei gertatzen zaienarekin. Lotura horretaz gain, beste maila batean, maila sinboliko batean, kontalari filosofo horren komentarioak bigarren esanahi batera igortzen duen erreferente moduan ere funtziona dezake matazaren mailan: Joanes artzainari sakabanatu zaizkion ardiek Joanes artzainari eskortatik ihes egin dioten semeak —Iñazio Mari eta Juan Andres—

iradoki dezakete. Joanes artzaina semeen erakusle ona (artzain ona) izaten saiatu bada ere, behin eta berriz gidari legez aholku zuzenak eman badizkie ere, "arreta gabeko orduren baten" eskortatik irten eta urrutiratu egin zaizkio aipatu seme hauek.

Beraz, Joanes eta Iturraldeko Joseren esanetan edo bizimoduan edo azken honek bizi izandako pasadizoren batean kokatzen da errejimen erreferentzial batean kontalari filosofoaren gogoeta eta historiaren arteko lotura. Errejimen literario batean, ordea, kontalari filosofo horren gogoeta familiaren artzain den Joanesi urrutiratzen zaizkion seme horietan soma daiteke matazan barrena (30).

Zortzigarren kapituluari hasiera ematean azalpen luze bat eskainiko du herri txikietako zalduntxoei buruz, pertsonaia-tipo honen aurkezpen orokorra eginez eta pertsonaia-tipo honi buruz duen iritzia azalduz. Jadanik izenez behintzat historiara ekarriak dituen bi pertsonaia-tipok, Peru Odolkik eta Moxolo Potolok, ilustratuko dute aurrerantzean kontalari filosofoak hemen jarritako tesia:

> "Zaldun oietako geienak zalditarako eztaukate; batzuek, ozta ozta irabazi dute baburrun saldaterako; baña danak dira zeregin gabeak, itxuretan beintzat.
>
> Jan-edanik iñun ezpada, jolasak norabaitera eraman ezpaditu, kafeteri edo ardangelaren baten egon oidira jai ta aste, ia egun osoan, nagi nagi, aulkietan erdi etzinda, ister bata bestearen gañean ipiñita, edo sorbaldaz ate-alboari eutsika, orkoagatik edo emengoagatik marmarrean, urliari edo sandiari atximurka, goiko ta bekoai erruki gabe larrua kentzen.
>
> Gazteak dira geienak, txitatxoak, gizakumeak, adimen laburrekoak; baña beren burua gizonik eldu ta andienarena baño obe ta argiagotzat daukate.
>
> Esana dago eztirala jakintsuak, bai zera! zerbait ikasiak geienez ere,

(30) M. Marghescou-rentzat testu bat nahiz errejimen erreferentzial batetik nahiz errejimen literario batetik irakur daiteke. Testua irekirik dagoen zerbait da, harik eta irakurlea irakurtzen hasi eta irakurtze-prozesu honen bitartez ixten duen arte. Irakurle honen esku gelditzen da nola gauzatu ixte-prozesu hori; berak hauta bait dezake errejimen erreferentzial batetik edo literario batetik garatzea prozesu hori, irakurketa denotatibo bat egitea edo irakurketa konnotatibo bat egitea. Ikus MARGHESCOU, M.; **El concepto de la literariedad. Ensayo sobre las posibilidades teóricas de una ciencia de la literatura**, Taurus Ediciones, Madrid, 1979.

azal azaletik liburutxo bat edo beste ikusi dutenak; edo erbestean denda morroi, pelotari, bizargin, perratzalle ta abar irabazbide errezen billa nolabait ibilliak; baña jakintsu guztien gañetikotzat daukate beren iritzia, ta berak astindu, orraztu ta erabaki oidituzte agintarien arauak eta jakintsuen auziak. Eztago gauza on bat, erri txikietan, zalduntxoen baimenik ezpadu.

Arro aña lotsagabe, gauza okerrari txalo ta egintza onari parre, mendeko gaixoari ziri ta araugille zintzoai destaña, bertako lagunagatik ijiji ta aldameneko ezagunagatik ajaja, eztiote ezeri ta iñori pakean utzitzen, ta ezta inguruetan zalduntxoen isekaz erre ta zauritu gabeko gizonik izaten" (**Garoa**, 143-144. orr.).

Moxolo Potolok exenplifikatuko du zalduntxoen tipoa fikzioan. Historia kontatzen duen kontalari orojakileak dioenez, "Ameriketan izana, Bilbon, Barzelonan ta Madrillen pelotari egona, goizetik gabera eztakit nola dirutua, papar zabalean urrezko katea zuala ta katean ontzurre borobilla, Moxolo Poloto (orrela deitzen zioten) askotan oizan beste **jakintsu** guztien nagusi, buru ta albistari" (**Garoa**, 146. or.). Eta **jakintsu** legez, esate baterako, han egongo da mahaiburuan gainontzeko hizlariekin batera sozialistek Eibarren emaniko mitinean. Harro eta lotsagabe jokatuko du Zabaleta baserriko Malenez maitemintzen denean. Ardandegia eta festa-lekuak ditu bizileku (ikus **Garoa**, 169. or.).

Zalduntxo hauei beste pertsonaia-tipo bat batzen zaie. Horrela dio kontalariak: "Orrelako mutil gazte asko zeuden Oñatin, ta beren artean zarkote, alper, jolasbillako ardozaleren batzuek" (**Garoa**, 145. or.). "Zarkote, alper, jolasbillako ardozale" horiek Peru Odolkik ilustratuko ditu fikzioan.

Historia kontatzen duen kontalari orojakileak honela deskribatzen du Peru Odolki:

"Gaztetan alper, zartzan arlote, beti berekoi ta buru ariña, askatasunari eder ta nagikeriari ondo iruditurik urtean baño urtean okerrago, pixkaka pixkaka begiramen danak galdu zituan, arduragabekerian berengo ondarretaraño erori zan, ta azken aldera, naikua edari euki ezkero, jateak, jazteak eta iñoren esanak ajola gutxi ematen zioten. Orregatik ibilli oizan Oñatiko alderdietan, bazterrik bazter, zulorik zulo, guztien morroi, danen adiskide, oni egurrak txikitu, ari pardela eraman, urliari zama bat jaso ta besteari agindu batzuek egin; erdi lanean ta erdi janean, orain txurrut eta gero moskor, ezertarako ordurik etzuala, nun lo egiñik etzeukala, jai ta asteak

berdin zituala, egunero zarpatsu, askotan soin-ale gabe, noisnai traskil, tarratadaz, koipez ta zirpillez geiegi osatua" (**Garoa**, 249. or.).

Historiako pertsonaiek ere baieztu egingo dute histori kontalariak egindako deskripzio hau. Fikziora izen propiorik gabe datozen pertsonaiek honelako adierazpenak egiten dituzte Peru Odolkiri buruz:

"—Ai, alper, trakets, ardozalea! Billatuko du bai orrek ardoa ta jolasa non dagoan" (**Garoa**, 52. or.).

Beste pertsonaia batzuk "Nagiko" (**Garoa**, 251. or.) determinatzailearen bidez mugatzen dute.

Are gehiago, bere ekintza propioekin erakutsi, frogatu eta baieztatu egingo du kontalari filosofoaren tesia, histori kontalariaren deskripzioa eta beste pertsonaien iritzia.

Peru Odolkiren bizilekua ardandegia da edo festaren bat ospatzen duen lekuren bat. Izan ere, honako leku hauetan lekutzen da Peru Odolki: Iñazio Mariren ezkontzan (ikus **Garoa**, 52. or.), Arrasaten Santo Tomas egunean ospatzen den azoka eta deman (ikus **Garoa**, 94. or.), Urkiolan San Antonio egunez egiten den erromerian (ikus **Garoa**, 169. or.) edo-ta Moxoloren ardandegian (**Garoa**, 146. or., 249. or., 252. or., etab.). Bere noizbehinkako lanbidea morrontza da (31). Gainontzean festarik festa ibiltzea da bere eginkizuna edo-ta ardangelan kontu kontari egotea, kontalari filosofoaren azalpenak dioen gisan.

Bederatzigarren kapituluan lehen-lehenik Urkiolara joaten diren gizakiez mintzatzen da modu abstraktuan. Berbaldi abstraktu hau Joanesek ilustratuko du, batetik, eta, bestetik, Iñazio Marik, Moxolok eta Peru Odolkik. Joanes "donerik errukior, miragillerik andien ta sendatzallerik onenaren jauregira bezela" (**Garoa**, 155. or.) joaten direnen exenplifikazio bihurtuko da; Iñazio Mari, Moxolo eta Peru Odolki, berriz, "jan edanaren usaiak eta jolasaren durundiak jasotzen ditu, ta orrelakoak Donearen oroimenik eztaukate" (**Garoa**, 158. or.).

Gerriko minak darama Joanes Urkiolara; "onenean Jaungoikoak

(31) Behin bakarrik dator narraziora lanen bat betetzen: morroi legez, Moxolo Pototoloren morroi, honek emaniko mandatua Zabaleta baserriko Maleni eramanez (ikus **Garoa**, 151-152. orr.).

gerriko miña Donearen bitartez kenduko ziolata" (Garoa, 159. or.) abiatzen da San Antonio egunez. Eta han egingo du eskaera San Antonioren bitartez. Iñazio Mari "**dantzaurrea** egiten", "Peru Odolki atzezko" eta Moxolo Potolo beste oñatiar batzurekin batera sokan aurkeztuko ditu Malenen ahotsak.

Honela kontalari filosofoak ideien mailan azaldu dituen bi alderdiek, Urkiolaren bi aurpegiek, pertsonaia konkretuen ekintzetan aurkituko dute baiezpena, konkrezioa eta exenplifikazioa.

Aurkajartzen diren bi lekuguneren deskripzioak ematen dio hasiera hamaikagarren kapituluari:

> "bada Bilbotik itsasoruntz goazela ezker aldetik dauden erriak eztirudite Bizkaikoak. Toki aietan Bizkai barrutik agiri dan zeru garbirik ezta ikusten; Gernika, Durango ta Markiñako ibarretan daukagun pake ta txukuntasunik ezta billatzen; etxeko izkuntza maitearen durundi gozorik ezta iñon sumatzen" (Garoa, 185. or.).

Nolabait, deskripzio honek badu kidetasunik lehen kapituluan Aitzgorri gainetik egindako deskripzioarekin. Esan bezala, deskripzio hartan gero eleberrian desarroilatuko den historiako ekintzen lekuguneak aurkezten dira orohar. Hau da, gero, fikzioan, leku orokor horiek leku konkretu bihurtuz joango dira: mendi-basoak: Aloña mendia...; belardi-soroak: Zabaleta, Azkarraga...; etab. Leku propio eta hauen deskripzio izango dira leku arruntak eta hauen deskripzioak.

Antzerako zerbait gertatzen da honako deskripzio honetan ere. Historian Bilboko ezkerraldeak izen propio bat hartuko du: Somorrostro. Hau izango da denboraldi batez Iñazio Mari eta Mikallaren semea den Azkarragako Martinen bizilekua. Bizkaia barneko ibarrekiko kidetasuna izango dute Oñatiko ibarrek, bereziki "Gogordopeko zelaitxo baten" kokatzen den Zabaleta baserriak.

Garoaren kontalaria testu osoaren kontaketan jeneralizaziotik konkreziora doa edo konkreziotik jeneralizaziora. Konkrezio-jeneralizazio, jeneralizazio-konkrezio joko bat da eleberria sortuz doana, nahiz bata nahiz bestea aurkakotasunez eraikiz, aurrerago ikusiko denez.

Berbaldi diskurtsiboko artzaina eta honen bizimodua berbaldi narratiboko Joanes artzaina eta honen bizimodua bihurtzen da. Edo aldrebes: berbaldi diskurtsiboko zalduntxoak eta hauen bizimodua,

berbaldi narratiboko Moxolo Potolo eta honen bizimodua; berbaldi diskurtsiboko zalduntxoei batzen zaien ardozaleen bizimodua, berriz, berbaldi narratiboko Peru Odolkiren bizimodua dugu...

Bizilekuekin berdin gertatzen da: jeneralizazioaren mailan aurkezten diren mendi-basoetatik Aloña mendira, Bilboko ezkerraldetik Somorrostrora...

Hamaikagarren kapitulu honetan ere espazio orokor bat deskribatzen zaigu: Bilboko ezkerraldea. Gero fikzioan Somorrostrok hartuko du indarra. Deskribatzen den leku orokor horretan "jantzi loi, izerdi usai ta begirune gaiztoko langille zikin zetakaz beteak" "antxen dakusgu" (Garoa, 186. or.). Azkarragako Martinek Bilboko ezkerraldeko "gizon gorriak" ilustratuko ditu fikzioan. Kontalari filosofoak honela dio:

> "Gizon gorriak ostera izen gaiztoaren jabeak dira. Asko, geienak, bear bada, guraso zintzoen semeak izatea baliteke; baño gizatxar, lagun oker biurrien artean gaiztakeriak kutsutu ditu" (Garoa, 186. or.).

Histori kontalariak, berriz:

> "Antxen zegoan ta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Iñazio Marin semea, Joanesen illoba. Lagun arteko irakaspen gaiztoak aditzean, lenbizi etzituan aintzakotzat artu nai; gero, seta okerrak akullatuaz, irakaspen aiek onak zirala iruditu zitzaion; urrengo, egiarik andienak zerizkiola esaten ausartu zan, ta azkenez, adiskidien txaloak txit narotu zioten uste dollor ori erraien erdi erdian" (Garoa, 187. or.).

Kontalari filosofoak lekugune hauetan bizi diren "gizon gorrien" karakterizazioak egin eta histori kontalaria Azkarragako Martinen karakterizazio bihurtuz joango da. Eta, azkenik, Azkarragako Martinek fikzioan esandakoek eta egindakoek baieztatu egingo dituzte karakterizazio horiek; izan ere, karakterizazio horien arabera jokatuko bait du Martinek.

Hamaikagarren kapitulu honetan beste gai batek beste berbaldi diskurtsibo bat sortuko du kontalari filosofoarengan: Gabon gaua karakterizatzen duten ezaugarriak bihurtzen zaizkio mintzagai.

Zabaleta baserriko Joanesek eta Ana Josepak kontalari filosofoaren gogoetari erantzuten dion Gabon gau-modua prestatuko dute. Horrela igarotzen saiatuko dira, nahiz eta gero bestelakoa bihurtu

Joanesen jatorri sendoari zetorkion galera bitarteko: ez filosofoak deskribatu duen "gau alaia, gau gozoa", baizik eta "gau triste" eta "gau samintsua".

Hamahirugarren kapituluaren hastapenetan jarritako tesiaren ilustrazio bihurtuko da Azkarraga baserrian daukaten Pedro Migelen erretratua. Kontalari filosofoak dio:

> "Urte batzuetatik onunzkoa da toki guztietan gizirudiak elemenian ikustea. Gaur bai, gaur eztago gizirudi gabeko bazter bat" (**Garoa**, 211. or.).

Ondotik etorriko da histori kontalariarena:

> "Ta garai artan, aspalditxo, bazuten Azkarragakoak beren gizirudia" (**Garoa**, 212. or.).

"Gizirudi" hau Pedro Migelena da, Azkarragakoen ahaide batena. Pertsonaia honen lotura eleberrian kontatzen den historiarekin historia hori aztertzean izango da mintzagai; orduan ikusiko da pertsonaia honen funtzionalitatea eleberrian.

Hamaseigarren kapituluan mutxurdinak bihurtzen dira kontalariaren gogoeta-iturri. Mutxurdinak eta mutxurdin-motak. Historian mutxurdin-mota hauetako bat exenplifikatuko du Luisak, honako multzo hau ilustratuz:

> "Irugarrengo mallan jartzen ditugu egundaño etsiko eztutenak, onek begiratu diola ta arrek agur esan diola beti amesetan dabiltzanak, mutil guztiai abegi ona egiten diotenak, edozein artzeko gertu daudenak, datorrena datorren bezela, gaztea ezpada zarra, ezkongea ezpada alarguna, zalduna ezpada txorroskillea" (**Garoa**, 248. or.).

Mutxurdin-mota hori Luisak exenplifikatuko du abstrazioaren mailatik konkrezioaren mailara igaroz. Hala dio histori kontalariak:

> "Irugarren auetakoa zan gure Luisa, ona, gajoa, baño zentzun gabea. Gizakume gazteak etzioten itz legun bat iñoiz esan, zarkoteak ere benetako eskabiderik etzioten egin; baño etzuan Luisak bizitza guztian ezkontzeko leia utzi, ezta tximak oso zurituta gero ere" (**Garoa**, 248. or.).

Luisaren esanek eta ekintzek ez dute kontalari orojakileak dioena ezeztuko, ez bait dute ez kontalari filosofoak, ezta ere histori kontalariak dioena ezeztuko.

Kontalariaren baiezpen hauen aurretik, Luisak historian egin

dituen agerralditan ezkontzaren gaiarekin zirikatu dute bere solaskideek (32). Eta baiezpen hauen ondotik Peru Odolkirekin ezkonduko da, "ezkondu nahi" hori dela medio. Kontalari filosofoaren azalpenaren froga eta ilustrazio bihurtzen da histori kontalariaren esana. Eta hauen azalpen eta esanaren froga eta ilustrazio, Luisak erakusten duen jokabidea.

Hamazazpigarren kapituluan "Erbestea" gaiaren inguruan antolatzen da berbaldi diskurtsiboa. Zabaletara etorritako Iturraldeko Jose umezurtzaren "erbestaldiak" iradokitako azalpen zuzena da. Izan ere, hark bere barne-bakarrizketaren bidez aditzera eman duen erbesteko sentitze horren ondoren datorren gogoeta bait da, eta hala den neurrian kontalari filosofoak barne-bakarrizketa hori entzun ondoren gai horri buruz duen ikuspegia azaltzera bideratzen dela ematen bait du. Hona hemen azalpena:

> "Erbesteko izate au berezkoa da gizonentzat, edonun ezpada, lekurik geienetan. Erbestekoa da, ez bakarrik alemana Españian edo Zamorakoa Euskalerrian, baita ere donostiarra Bilbon, getariarra Zarautzen, karrika batekoa bestean, auzokoa gurean ta maizegi —ezin ukatu— etxe barrukoa gure biotzean. Askoren iritziz, erritar izatea norbere ustea ta gogokoa izatea baño ezta. O zenbat arrotz alkarren ondoan, berak eztakitela! (Garoa, 272. or.).

Azalpen hori Iturraldeko Joseren barne-bakarrizketaren azken hitz hauen ondoren dator:

> "'Erbesteko aiz emen ta erbesteko izango aiz edozein tokitan; arrotz izango aiz edonun, arrotz iguingarri'" (Garoa, 272. or.).

Berbaldiaren harian, bigarren hau lehenengoaren aurreko bada ere, hauen oihartzun, eleberrian barrena beste zenbait pertsonaiek bizi duten erbestaldiek ere tesi hau bera frogatu eta exenplifikatzen dute.

Azterketa eshaustiboan murgildu gabe, honako adibide hauek jaso daitezke fikzioan, kontalariaren ideia horren erakusgarri.

Juan Andresi denboraldi bat erbestean igaro ondoren etxera lehen aldiz itzultzean, honako hitz hauek zuzentzen dizkio bere aita Joanesek:

> "Igartzen diat: ez ago i ondo emen; eure etxe barruan atzerritarra

(32) Ikus Garoa, 23. or. eta 200-201. orr.

dirudik, jazkera ta izkeragatik baño buru ta gogoagatik geiago, bada ire buru ta gogoa erdalerriko irabazian dauzkak" (**Garoa**, 109. or.).

Halaber, kontalariaren azalpenaren erakusgarritzat jo daitezke Azkarragako Pedro Migelek Ameriketan jasan duen bakardadea (33) edo Azkarragako Mikallak senar demazalearen ondoan jasaten duena (34).

Hamazortzigarren kapituluari ere gogoeta luze batekin emango zaio hasiera. Gaia, berriz, honako hau du: arima-motak eta nola arima-mota bakoitzak bere galgako edo neurriko arima-mota bilatzen duen. Honela ematen dio amaiera aipatu gogoetari:

> "Era berean biltzen dira anima ben garbiak, bakartadea nai dutenak, lurreko aberastasun, andikeri ta gozamen guztiak alde batera utzirik, zerura begira dabiltzanak, Jesusek beretzat aukeratu dituan anima maitegarriak" (**Garoa**, 276. or.).

Joanesen iloba Malentxok exenplifikatuko du jarraian, gogoetari azken puntua jartzen dion ideia hori; Bidaurretako moja-etxean sartzen bait da arima garbi eta bikaineko neska gaztea. Baina aurreko ihardunaldi osoak ere aurkitzen du ilustrazioa fikzioan, fikzioan frogatua eta exenplifikatua gelditu bait da arima-mota ugari daudela. Kontalari filosofoaren hitzetan:

> "Nork esan zenbat eratako anima gauden? Gorputzik aña bai, ta gorputza bezela edertasun ta itxusikeri guztietakoak. Alaiak, illunak, argiak, motzak, ausartak eta zaputzak; bigun, zuzen, zogi, gozoak; erren, txango, ezkel, zitalak; aldakor ta iraunkorrak, dollor ta maitagarriak, azpikeri zaleak eta beren ustea edozein umeri agertzen diotenak; deabruaren itxurako animak eta Jaungoikozko anima garbi atsegiñak" (**Garoa**, 275. or.).

Eleberriaren mataza ehotuz doan pertsonaien galeria zabalak exenplifikaturik utzi du kontalari filosofoaren tesia: Joanesek, Ana Josepak, Jose Ramonek, Iñazio Marik, Juan Andresek, Josek, Manueltxok, Malenek, Martinek, Mikallak, Paulak, Juanitok, Moxolo Potolok, Peru Odolkik, Luisak... Eta ilustratua gelditu da batipat, kontalari filosofoak arima-moten deskripzioari amaiera emateko egiten duen sintesia: "deabruaren itxurako animak eta Jaungoikozko

(33) Ikus **Garoa**, 216. or.

(34) Ikus **Garoa**, 201. or. eta 227. or.

anima garbi atsegiñak". Azkenean, kontalari filosofoak bi taldetan sailkatzen ditu arima-motak, eta fikzioan ere bi taldetan sailkatuko dira: "deabruaren itxurako" arimen paradigma Juanitok eta Martinek ilustratuko dute bereziki; "Jaungoikozko anima garbi atsegiñak", berriz, Malentxok eta Joanesek bereziki, eta hauen aldamenean Jose Ramonek, Manueltxok, Josek, Paulak, eta abarrek.

Hala ere, ez dirudi fikzioan bete-betean egiaztatzen denik, gogoeta luze honetan ezartzen duen beste tesi bat, nahiz eta "hutsa" ez izan, beharbada, oso handia. Honela dio kontalari filosofoak:

> "Ta anima berdiñeko gizadiak aisa billatzen dute batak bestea, naiz ta gorputzez alkarren antzik ez euki. Norbaiten adiskide izateko etzaio gorputzari ainbeste begiratzen, gorputzaren zerzeladak zer ikusirik eztaukate. Argala izan edo lodia, sudur luzea edo sudur motza, lerdena edo korkoxa, eztigu batere ajola. Gure uste, gogo ta iritzikoa izan dedilla ta edozein dator ongi, edozein da era erako adiskide. Eztakusgu, edonun ta edonoiz, nola inguratzen diran gorriak gorrietara, zuriak zuriakana, txoroak txorakerira, elizkoiak elizaruntz, mutillak eta neskatxak, zarrak eta gazteak, goikoak eta bekoak, bakoitza bere aldratxoan, bakoitza beretarrakin, baño andi ta txiki, makal ta indartsu, iaio ta itxusi danak pilla ta moltso batean? Zerk inguratu ditu? Gorputzaren egokitasunak ez, animarenak: animak dira alkarren antzekoak, animak alkarren aide" (**Garoa**, 276. or.).

Kontalari filosofoaren tesia ilustratzen da fikzioan, baina ez erabat. Kontalari filosofoaren esana baieztatuz, histori kontalariak, esate baterako, "Jesus gizonen Artzaia zan (...) ta Zabaletako etxejaunaren adiskide andia" (**Garoa**, 177. or.) esango du, eta fikzioan agerian geldituko da batipat bakoitza bere arimaren neurrira egindako lagunei lotzen zaiela. Honela, Somorrostron "hondatu" duten Martinek eta honen arimaren kidekoa duen Juanitok elkar hartuko dute Zabaleta baserrian Gabon gauean; edo Luisa "tuntunak" pareko senarra aurkituko du: Peru Odolki buruarina... Baina Mikalla bezalako emakume zintzoak merezi ote zuen Iñazio Mari bezalako senar demazale bat, Azkarraga baserria hondatzeraino helduko den senarra? Kontalari filosofoa eta histori kontalaria hobesten ari diren bizitza-erregelak zintzo-zintzo jarraitu dituenak merezi ote zuen kontalari filosofoa eta histori kontalaria hobesten ari diren bizitza-erregelak hautsiko dituena? Ez dirudi hau denik kontalaria eleberrian barrena eraikitzen doan araua.

Azkenik, hemeretzigarren kapituluari hasiera ematen dion azalpenak historiarekin izan dezakeen lotura izango da ondoko lerro hauen gaia.

Aurreko kapituluari amaiera ematen dion histori pasadizo bat dirudi gogoeta-sortzailea. Eta gogoetaren bukaeran historiara itzuli, gogoeta ilustratuz itzultzen da.

Aurreko kapituluaren amaierako histori pasadizoak sor dezake ere lehen tesia:

> "Euskal gizasemeak, bazkari on baten aurrean, errez laga oiditu alde batera naigabe ta zeregin guztiak" (**Garoa**, 287. or.).

Baina eleberri osoan barrena barreiatzen da tesi honen ("Onak eta jatunak omen gera ta...") zergatiaren ilustrazioa. Zabaleta baserrikoak jatun bikainak dira, histori kontalariak dioenez:

> "Jartzen ziran lurrean zabal zabal, aurretiaz begiz jotako kerizpe batean, ipintzen zioten zamau zuri garbiaren gañean janaria, ta iru edo lau **Aita gure** esan ondorean, ia mutillak, ura izaten zan jan-ontzitik aora ta aotik jan-ontzirako joan-etorri gogotsua, ura irentsi bearra, ura besoak luzatzea, ura ostera bakoitzean altzuen aña ateratzea!" (**Garoa**, 36. or.).

Eta ez bakarrik egunerokotasun eta ohizkotasun honetan. Festa berezietan ere asko pozten dira "jaki gozoen" aurrean. Ikusi besterik ez dago zein abegi ona egin zioten Gabon gaueko afariari, histori kontalariaren ahotsean:

> "Pozak etzuan lokarririk Zabaletan. Apari onaren ustean alai, denak zeuden izketan, berriketan, jolasketan, gauza guztiak usaika, eltzeai estalkia kentzen, eskuak igortzitzen, etxekoandre zarraren gaitasunak goren gorenean jartzen" (**Garoa**, 194. or.).

Nahiz eta gero, gatazka bat dela bitarteko afaria garraztu egingo zaien.

Bestalde, esan behar da jadanik azaldua zuela tesia; baita azalpenarekin batera ilustratua ere, Azkarragan ospatu ziren Iñazio Mari eta Mikallaren ezteiak zirela-ta:

> "Gutxik eramango dio euskaldunari jaten da edaten, baña Azkarragako eztaietan danak ziran euskaldunak eta ezin geinke jakin zeñek geiago egin zuan" (**Garoa**, 60. or.).

Behin eta berriz egin zaio erreferentziaren bat janari edo jan-eda-

nari historian barrena. Malentxoren bataioa dela-ta, honela dio histori kontalariak:

> "Bidean, Manueltxok begi-onez begiratzen zion opil gozoari. Bazekian eleizan eskeñi bakarrik, apaizari erakutsi, eutsi ta tati egin ta etxera biurtzen zala opilla, ta ezin aspertu zan beretzat zenbat emango zioten galdezka" (**Garoa**, 73. or.).

Edo-ta Santo Tomas egunean Arrasaten ospatu diren azoka eta demaren bukaeran:

> "baserritar asko billatu nituan bideko ostatuetan premia gabeko jan edanetan" (**Garoa**, 101. or.).

Egia da: hemeretzigarren kapitulu honetako hasierak zuzen-zuzenean aurreko kapitulu-bukaerako histori pasadizoak iradokia dirudi; izan ere, azalpen honetan ezarritako ideiaren batek gogoetaren amaieran bertan aurkitzen bait du ilustrazioa, honako konkrezio honen bidez:

> "Patxiko ta bere langintzako adiskide batzuk, Mari-Teresek bakallaoa ederki jartzen dualata, Eibarren bitu dira" (**Garoa**, 289. or.).

Hala ere, badirudi muga hertsi hauek gainditu egiten dituela, eta gai honen inguruan eleberrian sakabanaturik agertu diren hainbat eta hainbat ilustrazioren orokortze-modu bezala jo daitekeela.

Hemen ez da **Garoa**ren kontalari filosofoaren berbaldi diskurtsiboen azalpen eshaustibo bat egin, baina aipatu da berbaldi diskurtsibo horren bidez kontalari filosofoa eraikiz doan eleberriaren geruza ideologikoa aditzera ematen duen erakuskari bat.

Jakina, eleberriaren alderdi ideologikoa ez du berbaldi diskurtsiboak soil-soilik eraikitzen; hor daude ere eleberriaren alderdi narratiboaren antolamendua eta alderdi honek berbaldi diskurtsiboarekin duen harremana. Baina, zentzu operatibo batekin jokatuz, zilegi bedi, orain-oraingoz, berbaldi diskurtsibo honen bitartez sortuz doan ideologiaren berri ematea, aipatu harremanak aurreragorako utziz.

Berbaldi diskurtsibo honen bidez kontalari filosofoa leku-mota bat hobetsiz doa bizileku legez: orohar, "erbestea" ez dena hobetsiz eta "erbestea" gaitzetsiz. Erbestea Nerbioi ibaiaren ezkerraldearekin identifikatzen du (35).

---

(35) Modu esplizitu batez, hamaikagarren kapituluaren hasieran "Aloña ondotik

Erbestea erabat gaitzesten du, ñabardurarik gabe. Goretsi, berriz, mendi-basoek, zelai-soroek, euskal "uriek" eraikitzen duten espazioa goresten du, baina aurkakotasunaren bigarren leku zabal honi ñabardurak erantsiz: gaitzetsi egingo ditu Oñatiko ardangelak eta Urkiolan gitarra-filarmonikak jotzen dituzteneko lekuguneak.

Halaber, gaitzetsi egingo ditu berbaldi diskurtsiboak gaitzetsitako lekuguneetan bizi diren pertsonaiak eta hauen ekintzak; baita lekugune horiei abegi ona egiten dietenak eta hauen ekintzak ere. Horrela, kontalari filosofoak gaitzetsi egiten ditu Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko "gizon gorriak" eta hauen "nasaikeria", "birao", "likiskeri", "gorroto", etab. Kontalari filosofoak, halaber, gaitzetsi egiten ditu Oñatiko ardangelan biltzen diren zalduntxoak eta hauen isekak, lotsagabekeriak, "gauza okerrari txalo ta egintza onari parre egiteak", etab.; gaitzetsi egiten ditu, halaber, zalduntxo hauei batzen zaizkien ardozale alfer, zarkoteak; baita gitarra-filarmoniken soinura eta jolasaren durundira hurbiltzen diren gazteak ere.

Hobetsi egingo ditu, ordea, berbaldi diskurtsiboak hobetsitako lekuguneetan bizi diren pertsonaiak eta hauen ekintzak: hobetsi eta goretsi baserria eta hemen gordetzen den kristau-fedea, hobetsi eta goretsi mendietako artzaina eta honen bizimodua.

Era berean, leku, pertsonaia eta hauen ekintzekin batera, berbaldi diskurtsiboak denbora-modu bat ere hobetsiko du eta beste bat gaitzetsiko. Hobetsiko du mendi-baso, zelai-soroen egonkortasunari eta aldakaiztasunari loturik dagoen denbora, urtaroek edo naturaren fenomenoek bakar-bakarrik alda dezaketen paisaia egonkor eta gainontzean aldakaitz den hori; gaitzetsiko du, berriz, "suburdi beltzaren", "burniz urratutako mendi gorrien" aldakortasunari loturik dagoen denbora. Bestela esanda, gaitzetsi egingo ditu "gizonaren jakituri ta alizateari" zor zaizkion aldaketak, eta iraunkorra hobetsi. Era berean, lanbide "iraunkorrak" hobesten ditu, aintzinatik datozenak, tradizio handia dutenak, eta lanbide "berriak" gaitzesten, "gizonaren jakituri ta alizate" horri zor zaizkionak. Era berean, gurasoek antolatutako ezkontzak hobesten ditu, "tradizioari" jarraiki eginikoak; eta aldrebeskoak gaitzesten.

Laburtuz, esan daiteke honako lema hau dela kontalari filosofo

---

erbestera erten aldi bat egin bear degu" esan eta Nerbioi ibaiaren ezkerraldera doa.

honen ardatza: tradizioari jarraitzea da egin daitekeen gauzarik hoberena. Tradizioa duen lanbidea hartzea: artzantza, nekazaritza; tradizioa duen pertsonaia izatea: artzaina-baserritarra; tradizioa duen lekugunean bizitzea: mendi-baso-baserrietan. Iraunkortasunaren denbora, aldakaiztasunaren denbora.

Ideologia hau berau defendatuko du historia kontatzen duen kontalari orojakileak narraziora bere ahots propia dakarrenean eta, batipat, kontatzen duen historiaren bidez, historia honek hartzen duen antolamenduaren bidez. Horrela, aipatu ideologia **Garoa** testuan modu iteratibo eta errekurrente batez ematen da aditzera, iterazioaren bidez eta iteratzeko moduaren bidez. Berbaldi diskurtsiboan nahiz narratiboan bai paradigma "positiboak" (jarraitu behar direnak), bai paradigma "negatiboak" (jarraitu behar ez direnak) aurkezten dira; eta horrela, helburu didaktikoa ("**Garoa**ren jarraipena") berrindartu egiten da.

Azkenik, atal honi amaiera emateko, esan dezagun pasarte diskurtsibo guztiek ez dutela ekarri berdina maila ideologiko honen eraketan. Batzuk handiagoa dute, beste batzuk txikiagoa, historiarekin eta beronen antolamenduarekin gertatzen den legez; baina guztiek dute funtzionaltasun-motaren bat **Garoa**ren alderdi ideologiko honen eraketan, aurrerago zehaztuz joango diren harremanen bidez.

1.2. HISTORI KONTALARIAREN BERBALDI NARRATIBOA

Garoaren artikulazio-moduaren azterketan beste urrats berri bat emanez, histori kontalariak berbaldi narratiboa **nola** antolatzen duen (36) izango dugu mintzagai atal honetan.

Histori kontalaria historiatik at kokatzen da, eta hirugarren pertsonan, ez-pertsonan, kontatzen du historia, nahiz eta salbuespen moduan behin edo behin pertsonaia gisa, lehen pertsonan, historiara etorri. Historia erabat mendean dauka. Historiak ez du inolako se-

(36) "Pero la obra es al mismo tiempo discurso: existe un narrador que relata la historia y frente a él un lector que la recibe. A este nivel, no son los acontecimientos referidos los que cuentan, sino el modo en que el narrador nos lo hace conocer". TODOROV, Tz; "Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato**, 157. or.

kreturik berarentzat. Dena ezagutzen du; pertsonaiek beraiek baino gehiago daki. Zinez, kontalari guzti-jakituna edo orojakilea da.

Aipatu ikusgunea hartuz, kontalari honek historia nagusi bat kontatzen du eta historia nagusi honen inguruan garatzen diren beste zenbait istoriotxo; azkenik, zenbait ohituren berri ere ematen du.

Langai honek berbaldian hartzen duen antolamenduaz honako formulazio hau egin daiteke: historia den ilustrazio horrek, eta histori kontalariak bere ahotsaren bidez kontatzen duen ilustrazio horrek, bigarren ilustrazio bat, ilustrazio berri bat, ezagutzen du pertsonaien ahotsaren bidez. Honela, histori kontalariak esanak egiaztatu, frogatu eta erakutsi egiten dituzte pertsonaiek.

Honenbestez, **Garoa**ren alderdi ideologikoa hiru iterazioren bidez eraikitzen dela esan daiteke: kontalari filosofoaren disertazioen bidez, disertazio hauek histori kontalaria bitarteko historian ezagutzen duten konkrezioaren bidez eta konkrezio hauek pertsonaien ahotsean eszenan ezagutzen duten iterazioaren bidez.

Histori kontalariaren esana, bere ahotsaren bidez eginiko kontaketa, eszenaren bidez, pertsonaien ahotsaren bidez, frogatuko den tesia da.

Hona hemen eleberriak kontatzen duen historia nagusia: Zabaleta baserriko familiak bizi dituen gertaerak.

Bigarren kapituluan deskribatzen ditu Zabaleta baserriko familia osatzen duten partaideak (lehen kapituluan deskribatua duen Joanes izan ezik). Eta deskripzio honetan histori kontalariak pertsonaia bakoitzari ezarritako ezaugarriak egiaztatu eta areagotu besterik ez dira egingo historian barrena. Pertsonaien deskripzio honetan agerian gelditutako "akatsek" edo "hutsuneek" sortuko dute kontaketa.

Honela hasten da histori kontalariaren ahotsean Joanesen hiru semeei eskainitako deskripzioa:

> "Iru anaiak ziran kristau onak eta... bai, eleizkoiak; (...). Jose Ramon zan kristaurik bero ta zintzoena, gurasoen urrengo (...). Azoketara geiegi joatea kendu ezkero, etzeukan akatsik Jose Ramonek. Iñazio Mari, noizean bein animako beroaldi on batzuek izanda ere, askozaz epelagoa zebillen geienetan. Apostu zalea zan mutilla, ta jai egunean iñon dema edo aposturik bazan, toki artara joateagatik, erraz utziko zituan Meza nagusi, **bezpera** ta beste eleiz-jai guztiak.

(...). Gañera, bere buruari geiegi zeritzon, arro samarra zan, (...). Juan Andres... etzan mutil okerra, ori ez, etzuan ezergatik bere jaiko eleizkizuna utziko, baña, ala ere, beste anai biak baño otzagotzat zeukaten etxeko guztiak. Diru amesetan zebillen beti, dirua nola irabaziko, urrea nondik lortuko" (Garoa, 32-33. orr.).

Histori kontalariak deskripzio honetan ezarritako ezaugarriak historiaren garapenak frogatu egingo ditu.

R. Jakobsonek sei faktore bereizten zituen hizkuntz komunikazioan, eta faktore hauetako bakoitza funtzio baten sortzailetzat jo. Sei funtzio horietako batek testuinguruarekiko norabidea azpimarkatzen du eta erreferentziala, denotatiboa, kognoszitiboa izenez bataiatu zuen. Hau da aipatu pasartean nagusitzen den funtzioa.

Zilegi bedi funtzio erreferentzial honetan bi funtzio bereiztea: funtzio informatiboa eta funtzio errepresentatzailea. Bi funtzio hauek, testuinguruari erreferentzia egitea amankomunean izanik, erreferentzia egiteko moduak bereizten ditu: lehenak, informatiboak, "errepresentatu" gabe eman egiten du informazioa; bigarrenak, errepresentatzaileak, informazioa "errepresentatuz" ematen du.

Histori kontalariaren esanak funtzio informatiboa du, esan egiten du errepresentatu gabe. Baina historiaren garapenak histori kontalariaren esan hau "errepresentatu" egingo du. Hau da **Garoa**ren histori kontalariak hartzen duen jokabidea.

Hiru semeetatik zaharrena den Jose Ramonek sortzen du narraziorik gutxien; izan ere, bera da hiruetan "kristaurik bero ta zintzoena, gurasoen urrengo", eta horrek ez du gatazka-iturri bihurtzen eta ondorioz ezta kontaketa-sortzaile ere: kontaketa honen bitartez ezin "eredu negatibo" bat errepresentatu. Bestalde, bere aita Joanesek errepresentatuko du jarraitu behar den eredua, Jose Ramonek dituen kualifikazio berberak bait ditu, bikainago izan ere. Horiek horrela, difuminaturik gelditzen da Jose Ramon pertsonaia, eta bukaeran bakarrik hartuko du pisua, Joanesen eta honek errepresentatzen duenaren jarraitzaile bihurtzean.

Iñazio Mari eta Juan Andres bihurtuko dira gatazka-iturri eta kontaketa-sortzaile, bakoitzak "eredu negatibo" bat errepresentatuz.

Funtzio informatiboa betetzen duen kontalariaren esanak ziurtasun-tonu osoz ezarri ditu Iñazio Mariren ezaugarriak honek inolako ezaugarrien ezarketa justifika zezakeen ekintzarik "erakutsi" aurretik.

Funtzio informatibotik funtzio errepresentatzailera igaroz, kontalariak Iñazio Mariren apostuzaletasuna "erakutsiko" du Santo Tomas egunez Arrasaten ospatzen den azoka eta demaren bitartez. Kontalariaren informazioa egiaztatu egiten da, irakurlearen begi aurrean eszena errepresentatuz.

Eszenatik informaziora laster jakingo da kontalariaren bitartez:

> "Iñazio Marik luzaroan jarraitu zion bere jokorako seta gaiztoari" (Garoa, 116. or.).
>
> "Ta jakiña; urte oietan Azkarragak etzuan batere aurrerapenik izan" (Garoa, 117. or.).

Informaziotik errepresentaziora Zabaleta baserrian Iñazio Mari hara joaten zenean ohizkoa zen elkarrizketa eszenifikatuko da kontalariaren esanaren froga gisa, balio iteratiboa duen eszena singulatibo baten bidez, baina eszena modeliko baten balioa hartzen duelarik (37).

Juan Andresi dagokionez ere berdin gertatzen da: funtzio informatiboa betetzen duen kontalariaren esanak Juan Andresen ezaugarriak ezarri ditu honek inolako ezaugarrien ezarketa justifika zezakeen ekintzarik "erakutsi" aurretik.

Funtzio informatibotik funtzio errepresentatzailera igaroz, kontalariak Juan Andresen "diru-ametsak" "erakutsiko" ditu honen barne-bakarrizketa baten bidez:

> "Zergatik, bada, nik irabazi bear eztet, al badet? Dirua irabaztea ta gordetzea baño gauza oberik bai aldago? (Garoa, 44. or.).

Kontalariak emaniko informazioa egiaztatu egiten da eszenaren errepresentazioaren bidez.

Gaztela herrira abiatuko da Juan Andres diru-amets horiek asetzera, eta han utziko du euskaldunaren itxura, baita bere aurreko ohiturak ere.

"Arrotz itxurakoa" (Garoa, 104. or.) zetorrela badio kontalariaren esanak, informazio hau egiaztatu egingo dute eszenaren bidez Oñatiko emakumeen elkarrizketek eta Zabaleta baserrikoek, konta-

(37) Ikus Garoa, 118-119. orr.

lariak emaniko informazioa errepresentazioaren bidez zabalduz eta hedatuz.

"Iritzi oker aien zirikadak lañotu zioten adimena Juan Andresi, gogortu zioten errai-barrua ezin geiagoan, ta aztu zitzaizkon euskal mendiak, euskal oiturak, aideak, gurasoak, sinisteak, oroipenak eta baita ere Jaungoiko Altsu Donearen aginduak" (**Garoa**, 113. or.) dio kontalariaren esanak eta jarraian Juan Andresek berak barne-bakarrizketaren bidez errepresentatu egingo du informazio hori, kontalariaren esana baieztatuz eta frogatuz.

Beraien ondorengoetara helduko da Zabaleta baserriarekiko eta Joanesekiko eten hau. Iñazio Mariren seme Martinek eta Juan Andresen seme Juanitok areagotu egingo dute etena.

Eten eta hausketa hau testuratzean jokabide berbera hartzen du kontalariak: bere esanaren bidez informatu eta pertsonaien arteko elkarrizketaren edo pertsonaiaren barne-bakarrizketaren bidez errepresentatu.

"Antxen zegoan ta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Iñazio Marin semea, Joanesen illoba" (**Garoa**, 187. or.) dio kontalariak. "Antxen", Somorrostron, gertatu zen kontalariak dioenez, nahiz eta oraindik ez den alferrik galdu zutenik frogatu. Informaziotik errepresentaziora igaroz, Martinek Zabaleta baserrian Joanesen menpean bizi zirenekin daukan elkarrizketak eta Gabon gauean otoitzaren aurrean hartzen duen jarrerak erakutsiko dute kontalariaren esana. Kontalariaren esanak "erkintxoa, arro samarra, berekoia, gaizki azia, andizalea" (**Garoa**, 189. or.) dela dio Juanitori buruz, eta Gabonak direla-ta, Zabaletara datozenean, kontalariak aprobetxatu egiten du abagadunea Juanitok hartzen dituen jarrerak eszenaren erabileraren bidez "erakusteko"; eta horrela baieztatua eta frogatua gelditzen da kontalariak aurretik emana zuen informazioa.

Joanesen bi seme hauek eta bi iloba hauek sortzen dituzten gatazken gain eraikitzen da bereziki eleberria: gatazka hauek ditu ardatz eta gatazka hauek medio direla aurkeztuko dira jokabide paradigmatikoak. Hau da, pertsonaia gatazka-sortzaileek nolakoa izan behar ez den erakusten duten neurrian, besteek nolakoa izan behar den erakusten dute. Nolabait, gaitzesten diren jokabideen azalpenak zilegiztatzen du onartzen diren jokabideen azalpena. Alegia, gaitzesten diren pertsonaia hauek "egunerokotasunetik" irtenez beraien

abentura propioa bizi izateko, historiaren garapena eragiten dute, eta horrela goresten diren pertsonaien aurkezpena. Gaitzesten diren pertsonaien iharduletasunari esker eraikitzen dira hobesten diren pertsonaiak, haien "gaizki eginari" esker, besteen ereduzko "egotea".

Pertsonaia-ereduak eraikitzeari begira, Joanesek defendatzen eta goresten duen bizimodutik bi seme eta bi iloba urruntzea da eleberrian barrena sortzen den gatazkarik errentagarriena. Aipatu gatazkak osatuz doaz, ordea, beste batekin: maitasunaren alorrean sortzen diren desegokitzapenekin.

Zabaleta baserriko familiaren inguruko seme eta iloben urruntzeak sortzen duen desegokitzapena osatu egiten da familia horren beraren jira-biran sortzen den maitasunaren alorreko desegokitzapenekin; bigarren desegokitzapen honek ere badu bere ekarria, ahulagoa bada ere, pertsonaia eredu horien finkapenerako.

Azken gatazka hau aurkezteko ere, arestian deskribaturiko gatazkak testuratzean hartutako jokabide berbera hartuko du kontalariak: lehen-lehenik bere ahotsaren bidez informatu, berri eman; ondoren pertsonaien ahotsera jo eta zehar estiloaren bidez kontaturikoa errepresentatu estilo zuzena erabiliz.

Hona hemen kontalariaren esana:

> "Bazan ba beste bat ere ondo biotzetik Malentxo maitatzen zuana. Etxeko umezurtz gaztea: Jose" (Garoa, 125. or.).

Eta berehala eszenaratuko da berri hau, Jose eta Joanesen arteko elkarrizketaren bidez (38).

Berdin gertatuko da honako honekin ere:

> "Moxolo Potolo zegoan itxutuena ta Moxolo Potolo agertu oizan bero ta urdurien ardangelako atari ertzean, parrezka, kiñuka, gezur-eztulka" (Garoa, 148. or.).

Horrela dio kontalariak Moxolo Potolo Malentxoz maitemindurik dagoenaren berria emateko. Eta informaziotik errepresentaziora igaroz, albiste hau eszenaratu egingo da Peru Odolkik Moxoloren mandatua Zabaleta baserrira daramanean (39) edo hemengo etxe-

(38) Ikus Garoa, 129-132. orr.

(39) Ikus Garoa, 151-152. orr.

koandrea den Ana Joseparekin daukan elkarrizketaren bidez (40).

Kontalariak Azkarragakoa (Martin) "Malentxori kiñuka", "kiñuka ta geiegizkeriak esaten ere bai" (**Garoa**, 193. or.) zebilela badio, Gabon gauean egiaztatu egingo da berria Martinek Malentxori esaten dionean:

> "—Neuk maitetuko zaitut iñork baño geiago ta obeto. Ikusiko dezu" (**Garoa**, 197. or.).

Kontalariak pretendente-aktoregotza sortzeko hartzen duen jokabidea errepikatze batean oinarritzen da azken finean, berak emaniko informazioa pertsonaiek eszenifikatzen dutelarik.

Nahiz eta begibistakoa den garapen honek ere ez diola eskutatik ihes egingo, kontalariak gehiago irekitzen dizkio ateak iradokitzearen mailari, sujerentziari, misterioari eta jakin minari pretendente-aktoregotza osatzen duten hiru pertsonaia hauek bizi duten desorekaren garapena eta garapen horrek ezagutzen duen emaitza testuratzean, edo Paulak, Azkarragako Iñazio Mariren alabak, pretendente legez (Josez maitemindurik dago) bizi duen desoreka testuratzean.

Desarroilo hauek testuratzean, kontalaria ez da desagertzen, baina jokabide berri bat hartzen du: pertsonaiei utzi egiten die hitz egiten, utzi egiten die beraien borrokak egiten, utzi egiten die pretendente bat edo bestea hobesten. Diferentziarik garrantzizkoena honako honetan legoke: garapen hori jarraitzean eta desarroilatu aurretik kontalariak ez duela nola amaituko den aditzera ematen.

Joanesen semeek eta ilobek sortutako gatazkak desarroilatu aurretik kontalariak "determinatu" edo sujeritu edo aditzera eman dituen gatazkak dira maila batean.

"Iru anaiak ziran kristau onak eta... bai, eleizkoiak" (**Garoa**, 32. or.) esanez hasten da kontalaria Joanesen hiru semeak deskribatzen, etendura-puntuak erabiliz. Eta ondoren anaia bakoitzaren deskripzioa egiterakoan hauetako bakoitzari jartzen dizkion ezaugarriak desarroilatu besterik ez ditu egingo historiak. Aurretiaz kontalariak jarritako ezaugarriak bete besterik ez dute egiten pertsonaia hauek. Berdin gertatzen da Martin edo Juanitorekin.

Baina pretendente-aktoregoak daraman bilaketan bakoitzak bere

(40) Ikus **Garoa**, 221-222. orr.

laguntzaileak izaki, gehiago dosifikatzen du kontalariak interesa eta "suspentsea". Eta suspentsearen dosifikazio hori, neurri batean behintzat, kontalariak pertsonaiei izaten eta hitz egiten uztean datza; baita emaitza ezkutatzen egiten duen ahaleginean ere, aurretiaz aditzera eman gabe.

Jakina, garapenak eta emaitzek indartu besterik ez dute egiten pertsonaia-ereduen eraikuntza. Baina bada aipatu dosifikazioa zilegiztatzen duenik: desarroiloan Ana Josepak ezkontz tratulari legez hartzen duen garrantzia eta kontalariak Ana Joseparen mugimenduak zentsuratu gabe eta komentariorik gabe uztea.

Une batez pertsonaiak berarengandik aske daudenaren ilusioa sortzen du kontalariak.

Pretendente-aktoregoak bilatzen duen Malentxo ezkutatuz doa erabakia. Urkiolan Iturraldeko Jose pretendentearekin duen elkarrizketan honi emandako erantzuna sujerentziaz beteta dago, baina ez da erabaki baten azalpena:

> "Iñorekin izatekotan, zurekin izango naiz; baño ez itxaron, Jose, ez alperrik itxaron" (**Garoa**, 170. or.).

Sujerentea da, halaber, Malentxok gai honen inguruan Paulari ematen dion erantzuna. Honek galdetu ahala, pretendente guztiak arbuiatuz doa eta bere aukera ezkutatuz doa:

> Jose "Ezalden iretzat bear?
> —Ezten neretzako egiten dana.
> —Ta Martin?
> —Gutxiago.
> —Moxolo?
> —Gutxiago.
> —Baña, nolako emakumea aiz i? Ezten iñor maite?
> —Bai.
> —Andikiren bat?
> —Andiena.
> —Aberatsen bat?
> —Aberatsena.
> —Aitaren, Semearen... Jakin liteke zein dan?
> —Jakingo da. Orain ago ixillik" (**Garoa**, 204. or.).

Kontalari orojakileak aurrera daramatza sujerentzia hauek, berak eskuhartu gabe eta erabakia zein izango den zehatz-mehatz aditzera eman gabe.

Bestalde, kontalaria osatuz doa sujerentzi joku hau, pretendente bakoitzaren uste eta ametsak testuratuz, egoeraz egiten duten balorazioa azalduz eta hauen barne-pentsamenduen berri emanez.

Bilaketaren objetua den Malentxoren erantzun iradokitzaileak, "suspentsedunak" maila batean, osatuz doaz pretendente bakoitzaren itxaropenekin eta **Garoa** eleberriko pertsonaiarik biziena den Ana Joseparen "ahulezien" garapenarekin.

Eleberria eraikiz doan pertsonaia eredu positiboen eta negatiboen galerian, pertsonaia eredu positiboen artean lekutuko da Ana Josepa, Joanesekin, Malenekin, Joserekin eta abarrekin batera. Baina pertsonaiarik kontradiktorioena da. Pertsonaia kontradiktorio bakarra eleberrian. Nahiz eta kontradiktorio izate honek ez eragozpenik jarri pertsonaia eredu positiboan kokatzeko.

Ana Josepa pertsonaia kontradiktorioa da, eta berak sortzen dizkio kontalari orojakileari arazorik handienak, bera itxuratzerakoan noiz edo noiz oharren bat jartzera behartzeraino.

Pretendente-aktorego horren bilaketan, Ana Joseparen izaera honetara ere jotzen du kontalariak "suspentse"-giroa sortzeko. Honen "ahulezietara" jotzen du —diruzalea da eta familiaren ongia bilatzen du itsu-itsuan— eta "ahulezia" hauen azalpena komentariorik gabe testuratzen du. Horiekin eta arestian aipaturiko elementuekin batera sortzen du "maitasun-istorioaren" desarroiloa kontalariaren gidaritzapetik at garatuz doanaren ilusioa.

Funtsean kontalariaren jarrera aldatzen da, honek aurretiaz ez ematean ondoren pertsonaiak errepresentatzera doazenaren berri. Baina, hala ere, garapenak ez dio ihes egingo, emaitzak erakutsiko duenez. Emaitzak berrindartu egingo du pertsonaia-eredu positiboen eta negatiboen eraikuntza.

Bereziki bi gatazka nagusi dira eleberriaren ardatz: 1) beraien bizitza propioa bizi izateko Joanesek hobesten eta goresten duen bizimodua uzten duten semeen eta hauen ondorengo batzuren bizimodu berriak sortzen duen gatazka eta 2) maitasun-desegokitzapenek sortzen duten gatazka. Nahiz batak nahiz besteak desegokitzapena dute oinarri amankomun, desegokitzapena dute elementu isotopiko: desegokitzapena bizimoduan (Joanes eta honen seme eta iloben artean), desegokitzapena maitasunean (Malen eta honen pretendenteen artean, Paula eta Joseren artean, nahiz eta hau egokitzera heldu-

ko den) eta desegokitzapenak Zabaleta baserrian, familia osatzeak ematen dien batasunean garatzen direnak.

Bi desegokitzapenak doaz eraikiz bi munduak, elkarrizketarik ametitzen ez duten bi mundu horiek, nahas ezin daitezkeen bi mundu horiek: Joanes eta honen jarraitzaileena eta Joanesi aurkajartzen zaizkienena.

Nolanahi ere, erantsi beharra legoke beste bi istoriotxoren bidez ere osatuz doala mataza, aipatu desegokitzapen horiek osatuz. Bata Pedro Migel Azkarragaren istorioa da eta bestea Peru Odolki eta Luisarena.

Bi istorio hauek badute loturarik, ahulagoa bada ere, Zabaleta baserrikoen inguruan garatzen den gatazka zentralarekin, beren ekarri funtzional eta guzti.

Hamahirugarren kapituluan kontatzen ari zen historia eten eta erretrospekzio bat egiten du kontalariak, Pedro Migel Azkarragaren istorioa eta honen Azkarragako familiarekiko harremanak kontatzeko. Kapituluaren amaieran justifikatzen du erretrospekzio hau kontalariak, beste zenbaitetan bezala kontaketara lehen pertsonan etorriz:

> "Zar guztiai begirune diet, aztutakoen adiskide naiz, erorita daudenak erruki ditut, eta orregatik irakurburutxo au Pedro Migelen oroitzan egin det.
>
> Goazen orain geure arira" (**Garoa**, 220. or.).

Nahiz eta K. Otegik kapitulu honi buruz esan ez duela funtzio berezirik duenik ematen (41), badirudi, kontalariak emaniko justifikazioaz harantza, baduela istorio honek bere funtzionaltasuna eleberriaren osotasunari begira; edo aurki dakiokeela, behintzat, **Garoaz** egin daitezkeen irakurketen arabera.

Pedro Migel Azkarragaren istorioa ez da hamahirugarren kapituluan ixten; azkenengo kapituluan, baizik: epilogoan. Eta epilogo honek eman diezaioke funtzionaltasuna hamahirugarren kapituluko kontaketari. Izan ere, Pedro Migel Azkarragari esker "salbatzen" du kontalariak Azkarraga hondamenditik. Iñazio Mari ajeatu samarrik

(41) "Hamahirugarren kapituluak ez du ematen betekizun bereizirik duenik. Bakar-bakarrik, autore-kontalariak bere sentimenduak asetzeko idatzi ote duen ematen du. Amaitzean, orain ere, 'Goazen orain gure arira' (...) delakora jo beharrean aurkitzen da autorea". OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 111. or.

badago ere, Azkarraga baserrikoak bakean eta zorionean geldituko dira, azken kapitulu horretan Pedro Migelengandik jasotako herentziari esker. Azkarraga hondamenditik atereaz, goi-aldean eta mendi-baserrietan bakea nagusitzea erdietsiko du kontalariak, behe-aldetan utziz egonezina eta urduritasuna.

Azken finean, Mikalla eta Paula pertsonaia zintzoek ez zuten merezi amaiera zorigaiztokoa, zintzoak bait dira. Eta Pedro Migelen bidez lortuko dute amaiera zoriontsu hori. Honela, kontalariak Pedro Migelen figura ere eman nahi duen irakatsiaren zerbitzura jartzen du, kontalariak goresten duen bizimodua berrindartu egiten duen neurrian.

Peru eta Luisaren istorioak du loturarik txikiena Zabaleta baserriko familiaren inguruan ehoz doazen gatazkekin. Hala ere, pertsonaia hauek ere lagungarri bikainak bihurtuko zaizkio kontalariari hobesten eta gaitzesten duen bizimoduaren eraikuntzan.

Iñazio Mariren adiskide da Peru eta Moxoloren mandatari, Zabaleta baserriko Malentxori igortzen dion mandatuan; Luisak, berriz, ez du inolako harremanik Zabaleta baserrikoekin. Baina bihurtuko dira biak Garoan arbuiatzen den munduaren erakusgarri: bata ardozaleen tipo legez eta bestea inoiz etsitzen ez duten neskazaharren tipo legez.

Kontalariak pertsonaia-tipoak eraikitzeko jotzen du batipat funtzio informatiboa funtzio errepresentatiboarekin konbinatzera. Horrela, Iñazio Marik, Juan Andresek, Martinek edo Juanitok sortzen dituzten gatazkak testuratzean "iterazio" horretara joko du. Berdin jokatuko du Moxolorekin, Peru Odolkirekin edo Luisarekin. Helburu didaktiko jakin batekin: kontalariak esana egiaztatu egiten da pertsonaien ahotsean; eta kontalariak badio, pertsonaia horiek horrela jokatzen dutelako da. Egiaztatu eta iteratu.

Pretendente-aktoregoaren bilaketan eta bilaketaren objetu denaren jokabidean, ordea, ez da somatzen aipatu iteraziorik: kontalariaren esana ez da iteratzen pertsonaien errepresentazioaren bidez edo pertsonaien errepresentazioa kontalariaren esanaren bidez; nahiz eta bilaketa horretan integraturik dauden pertsonaia guztiek eta gertaera honen inguruan parte hartzen duten alderdi guztiek ekintza horretan beraien izaeraren arabera (kontalariak ezarri dien izaeraren arabera) jokatu eta, honenbestez, jazoera honen inguruko berbaldiak pertso-

naia-tipo horien eraikuntza indartu besterik ez egin. Hala ere, iterazio horren gabeziak iradokitzaile eta "suspentsedun" bihurtzen du, neurri batean behintzat, maitasun-desegokitzapen honen garapena.

Pedro Migel Azkarragaren istorioaren atal bat ezkutatu eta efektu-kolpe bat ematen du kontalariak epilogoan. Istorio hau kontatzerakoan ere ez dago aipatu iterazioarik, eta falta nabaria da; izan ere, kontalariak ez bait du pertsonaia-tipo bat eraikitzea bilatzen —indianoarena, esate baterako, **Kresala**n egiten duen bezala—, baizik eta pertsonaia Azkarraga baserrira zoriona ekarriko duen bitarteko moduan erabiltzea: honen bidez berreskuratuko dute oreka berri bat Azkarragan Zabaletakoek dauzkaten senideek.

Garoan gatazka bat baino gehiago planteatzen eta desarroilatzen da. Istorio bat baino gehiago planteatzen eta desarroilatzen (42) da, eta oinarri amankomun baten azpian bizimodu bat, balore batzu, goretsi edo gaitzetsi.

Baina berbaldi diskurtsiboak eta istorio batzuren kontaketak ez ezik, ohitura-deskripzioek ere osatzen dute eleberria. Ohitura-deskripzioa da, hain zuzen ere, **Garoa**ren hirugarren osagaia: Zabaleta baserriko ohizko lanak, ohizko bizitza, Santo Tomasetako Arrasateko azoka, ezkontza...

Utz dezagun albora eztabaida posible bat: ohitura-deskripzio hauek zeharo integraturik dauden ala ez historiaren kontaketan. Eta esan dezagun, historiaren kontaketa eteten badute ere, historia honekiko integrazio-maila bat erdiesten dutela.

Baserria, artzantza, lana, lan-mota, lanorduak eta abarrak Zabaletatarrek zeramaten bizimoduaren erakusle bihurtzen dira; hain zuzen, Iñazio Marik eta Juan Andresek baztertuko duten bizimoduaren erakusle. Hemen legoke deskripzio hauen funtzionalitatea historiaren garapenari begira: alor honetan Joanesen ildoari jarraituko diotenak zein ohitura-motari lotuko zaizkion erakustean eta beraien abentura propioa bizi izateko Iñazio Marik eta Juan Andresek zein ohitura-mota arbuiatuko duten erakustean.

Iñazio Mariren ezkontza, halaber, kontalariari aitzakia bihurtzen

(42) Berez ezin esan daiteke istoriorik garatzen denik, baizik eta istorio baten guneak azaltzera mugatzen dela; izan ere, istorioak berbaldira eramatean, berbaldia istorio horren guneak erakustera mugatzen bait da soil-soilik.

zaio euskal ezteietako ohiturak berbaldira ekartzeko. Zer esanik ez dago historiaren garapenerako gune bat dela Iñazio Mari Joanesen menpetik ateratzen deneko hau; garrantzizkoa bihurtuko bait da matazaren aldetik ezkontzarekin areagotzen duen "bidaia": demazaletasunarena.

Juan Andres, berriz, "Gaztelerrian ta gaztelarren taiuan" ezkontzen da, bere deseuskalduntzean urrats bat gehiago emanez, beste ohitura bat baztertuz: Iñazio Mariren ezkontzan kontalariak erakutsi duen ezkontza-mota. Honela, Juan Andresek hautsi egiten du beste ohitura-mota batekin eta areagotu egiten da Joanes eta honen ohiturekiko urrunketa.

Kontalariak kontrasteak bilatzen ditu nahiz berbaldi diskurtsiboan, nahiz berbaldi narratiboan; baita berbaldi honen barnean ere, nahiz kontatzen duenean, nahiz deskribatzen duenean. Historiako pertsonaiek justifikatzen dituzte deskripzioak: Zabaletako familiaren lanak; Iñazio Mariren ezkontzak; Joanes, Malentxo eta Jose Urkiolara joateak San Antonio egunez; Jose "Lokatza" ostatura joateak; Ana Josepa, Iñazio Mari eta Juan Andres Santo Tomas eguneko Arrasateko azokara eta demara joateak... Baina deskripzio hauek kontrasteak sortuz doaz, azken finean bizimodu bat eta balore batzu goresteko edo arbuiatzeko.

Urkiolan, bi mundu erakustera joko du deskripzioak: "Lokatza" ostatua ez da baserria bezalakoa; dema ez da ongarria...

Kontalariak helburu didaktikoaren menpe jartzen du historiaren egituratze-modua; baita mataza ehotzen doazen deskripzioa eta kontaketa ere. Eta kontrastea bihurtzen du eraikuntza-moduaren oinarri; hobesten eta gaitzesten denaren kontrastea. Batetik, hobesten dena: hobesten den lekua —baserria; mendia: Zabaleta, Aloña mendia—; hobesten den lanbidea —Zabaletakoen lanbidea—; hobesten den ezkontza-modua —Iñazio Marirena—; hobesten den festa-giroa —Joanesena Urkiolan—; bestetik, berriz, gaitzesten dena: gaitzesten den lekua —Somorrostro, Erbestea, "Lokatza"—; gaitzesten den lanbidea —dema, burnibideak egitea—; gaitzesten den ezkontza —Juan Andresena—; gaitzesten den festa-giroa —Iñazio Marirena, Moxolorena, Peru Odolkirena Urkiolan—.

Kontrastea azpimarkatzeko iteraziora jotzen da berbaldiaren mailan nahiz fikzioaren mailan. Berbaldiaren mailan kontalariaren esa-

na pertsonaien errepresentazioaren bidez iteratuz eta fikzioaren mailan, berriz, gaitzesten edo hobesten diren egoeretan behin baino gehiagotan pertsonaia berdinak ihardule moduan aurkeztuz.

Beraz, kontalari honen katoi pedagogikoaren oinarriak kontrastea eta iterazioa dira. Lehenaren bidez kontrastatzen duten patroi moduan aurkezten ditu pertsonaiak; bigarrenaren bidez, berriz, patroi horiek eraikitzen ditu, behin eta berriz ezaugarri berberak errepikatuz nahiz berbaldiaren bidez, nahiz historiaren bidez.

1.3. KONTALARIA-PERTSONAIA DIALEKTIKA

Orojakiletasuna hautatu du ikuspuntu **Garoaren** kontalariak. Historiatik at kokatu eta hirugarren pertsonan kontatzen du.

Baina batzutan ezin etsi dezake historiatik at eta historiara bertara dator, lehen pertsonan historia horretako pertsonaia bihurtuz, kontatzen edo komentatzen ari den gertaerak edo ideiak egiaztatuz, beraien egiazkotasuna garantizatuz, gertaera horien lekuko legez.

Alde guztietan dagoen kontalaria da: Zabaletan, Somorrostron, Erbesten, Ameriketan... Guztia daki, pertsonaiak beraiek baino gehiago. Labur esanda, jainko txiki batek bezala jokatzen du.

Kontalari hau destolestatu egiten zela esan da lehenago. Destolesketa honi esker, kontalari filosofoak defendaturiko ideiak frogatu egingo ditu histori kontalariak historian, iterazio batera helduz ideia berberen defentsan, jadanik azaldu den gisan.

Jainko txiki honek bere galgako pertsonaia sortzen du historian: beste jainko txiki bat: Joanes.

Kontalariak defendatzen dituen ideia berberak defendatzen ditu Joanesek bere ahots propioa darabilenean.

Joanesek esaten badio Iñazio Mariri "Jokoa ezta **errenta**" (**Garoa**, 34. or.), kontalariak dio demak "Ez ongarri, ez nai ta naiezko, baserritarren gogokoak izanarren" (**Garoa**, 82. or.). Kontalariak Bizkaiko ezkerraldea gaitzesten badu, era berean gaitzesten du Joanesek:

> "Zenbat aldiz ikusi ditut emendik agiri diran gure mendiak! Ederragoak ziran len, milla bidar ederragoak. Ezta irudipena: azpietatik zulatu dituzte alderdi batetik besteraño; beren egaletatik tontorretara bide zabalak egin dituzte; beren arrizko ta burnizko erraiak

> eguzkitara ateratzen aidira, ta gure umeak mendi zuloetatik zear dijoazkigu, eztakit nora, bide zabaletatik datorzkigu eztakit nongoak geure gallurretaraño" (**Garoa**, 164. or.).

Kontalariak artzain-bizitza goresten badu —"Bera da, artzaia da benetan bere buruaren jabe; uritar andikiak baño askozaz lasai ta askatuago dabil; opa dituan arauak jartzen dizka bere artaldeari; nai duan tokian billatzen du lorezko oia, nai duan lekuan belar bigunezko maia; deitzonean etzin deiteke ta gogoa datorkionean jaiki; kerizpean zabal zabal dagoala zaintzen ditu bere ondasunak" (**Garoa**, 134. or.)—, Joanesek, halaber, artzain-bizitza goretsiko du:

> "Nere ustea da —jarraitu zuan parre antzean— nere ustea da emengo legea, ta nere aginduaren aurrean eztu iñork ezetzik erantzuten. Inguruetako jabe ta jaun bezela bizi naiz" (**Garoa**, 23. or.).

Erabatekoa da bien arteko adostasuna maila anekdotiko honetan. Baina, maila anekdotiko honetan aldaera estilistiko desberdinen bidez ideia berberak azaltzeaz gain, egituratzearen mailan bertan ere kontalari honek bere bozeramaile bihurtzen du Joanes. Bozeramaile hau pertsonaia paradigmatiko legez eraikitzen du: pertsona batek jarraitu behar duen eredua da. Pertsonaia paradigmatiko hau eleberriaren protagonista bihurtzen du, kontaketaren ardatz.

Guztia dakien kontalariak guztia dakien pertsonaia sortzen du. Neurririk gabeko jakinduria honetan oinarriturik bizitza-erregelak eman ditzakeen kontalariak bizitza-erregelak eman ditzakeen pertsonaia sortzen du. Ahuleziarik eta zalantzarik ezagutzen ez duen kontalariak ahuleziarik eta zalantzarik ezagutzen ez duen pertsonaia sortzen du. Kontalariak bere burua egiaren jabetzat jotzen du; baita pertsonaiak ere. Eta horrek ematen dien itzalaren azpian jokatu eta epaitzen dute.

Joanes pertsonaiaren deskripzioarekin hasten da eleberria eta Joanesen heriotzarekin amaitu, nahiz eta azken kapitulu batek azken albisteen berri eman epilogo moduan.

Joanes bihurtzen da eleberriaren gainontzeko pertsonaien erreferentzi puntu. Honekiko neurtzen dira. Honen epaiak du itzala. Eta, azken finean, **Garoa**n jasotzen diren gertaerak Joanesengan eragina duten neurrian kontatzen dira.

Joanesekiko neurketa hau patroiarekikoa izaki, eleberriaren hasieratik bertatik hasten da: semeak aitarekin alderatu eta hauen galera konstatatzen da nola alderdi fisikoan, hala espiritualean.

"Erkules batzuk ziruditen; baña etzan iñor beren aita izan zan beste. (...) baña, egiaz, bazetorkion nunbaitetik bene-benetako galera Joanesen jatorri sendoari, bada berdineztasun andi ta agiria zegoan artzai orren ta bere semien bitartean" (**Garoa**, 32. or.).

Galera hau erakusten joango da fikzioaren garapena, harik eta eleberriaren amaieran Joanesek heriotzeko orduko balantzean galera hori konstatatu arte:

"Denak ikusten ditu irudimenez. Juan Andres oso urruti, arrotzen artaldean, euskalduntasuna galdurik, Zabaletakoen itxura gabe, seme ziztrin ergelaren guraso... Martin, askozaz urrutiago: illoba oni anima aldatu zaio, ta animak, aldatzean, txit urrutira joan oidira, gorputzak lengo tokian egonarren" (**Garoa**, 295. or.).

Joanesen epaiek eta ikuspegiek dute itzala eleberrian. Joanesek eman behar ditu ontzat edo okertzat erabakiak, eta honen epaiak du bere familiarengan eragina.

Kontalariak Zabaletako Ana Josepa eta Azkarragako Mari Batista beren seme-alaben arteko ezkontza prestatzen erakutsi ditu, baina:

"azkenean ere, bein edo bein, Joanes ta Antonek alkar arturik erabaki ta korapillatu zan Mikalla ta Iñazio Mariren ezkontza" (**Garoa**, 50. or.).

Bere demazaletasuna bitarteko delarik, Azkarraga baserria hondatzera heldu denean, Iñazio Marik ez du Joanes ikusi nahi:

"Seme alaba bi zeuzkan (...). Auetakoren bat eskutik zuala joaten zan noizean bein Zabaletara, Joanes etxean izan ezik. Etzuan nai bere burua aitaren aurrean agertu, onen jardunak min ta lotsa ematen ziotelako; baña artzai zarrarekin iñoiz arkitzen bazan, apalkiro entzun oizituan semeak gurasoaren patxadazko erakuste zuzen ta ongarriak" (**Garoa**, 118. or.).

Ana Joseparen edo Jose Ramonen esanen eta errierten ardurarik ez du azaltzen Iñazio Marik; bai, ordea, Joanesena.

Josek berak, azken finean, lehen-lehenik Joanesi adierazten dio Malentxoz maitemindurik dagoela. Malentxok berak, hartarako abagadunea izan badu ere, beste inori azaldu aurretik Joanesi ematen dio aditzera Bidaurretako moja-etxean sartzeko duen nahia eta honen esku uzten du Ana Josepari berria igortzea.

Ana Josepak Malen Azkarragako Martinekin ezkontzeko asmoa eta nahia darabil eta bi errainen oniritzia du —Azkarragako Mikalla

eta Zabaletara bertara ezkondutako Katalinena—, baina ez albiste honen berri duten zenbaitena —Malen eta Joserena—; hala ere, azken hitza Joanesek du: honen oniritzia behar du. Ana Joseparen pentsamenduan honako gogoeta hau dabil: "bere ustearen etsai iñor izango zanik etzitzaion bururatu ere. Zein gero? Iñor izatekotan, Joanes. Baño Joanesek, besteak bezela, belaunekoen onari begiratzen zion" (Garoa, 208. or.). Baina uste hauen gainetik Joanesen ikuspegia dago, eta honek argi eta garbi adieraziko dio Maleni Ana Joseparen nahia ez zela beteko:

> "—O, ez! Martiñentzat ez: eznion nere baimenik iñola emango" (Garoa, 237. or.).

Gertaerak, beti ere, Joanesekiko harremanetan kontatzen dira. Horrela, Juan Andresen atzerriratzeak nahigabe handia sortu ziola esango da, baina ez da adieraziko Ana Joseparengan edo Jose Ramonengan edo Iñazio Marirengan eragin duen sentimendua. Manueltxo eta Iturraldeko Joserentzat dira "Joanesek, sukaldeko ixillu gañean jarrita, zintzoro agertzen zituan erakustaldi ederrak" (Garoa, 64-65. orr.). Joanesek hezitzen ditu landare berriak.

Gabon-gauean bertan mahaia bedeinkatzean Juanitok eta Martinek otoitzari iseka egiten diotenean ere, Joanes dago gainontzeko mahaikideen pentsamenduan:

> "Begirune beltzak ipiñi zizkioten mutil biai; arpegi guztiak naigabe-soiñekoa jantzi zuten. Alde batetik, etzan etxe artan era orretako itzik beñere entzun, ta bestetik etxeko guztien gogoa Joanesi poz ematea zan" (Garoa, 195. or.).

Honela, Joanes bihurtzen da eleberriaren pertsonaia-protagonista kontaketaren ardatz, gainontzeko pertsonaiek honekiko gordetzen duten hurbiltasun edo urruntasunaren arabera neurtzen direlarik.

Kontalari orojakileak bere kideko sortzen du pertsonaia hau: "orojakile". Kontalariak bezala guztia daki Joanesek.

Joanesek bere lanbideari, artzain- eta baserri-lanbideari, eta bera bizi deneko ingurugiroari loturik dagoenaren ezagupide osoa du, baina ez hori bakarrik; badu, baita ere, gizakien barne-mundua ezagutzeko ahalmena. Semeez duen ezaguera erabatekoa da:

> "Ezagutzen zituan aitak, bazekizkian beren animetako argaltasun guztiak, eta etzuan uzten beta on bat bakarra bear zana semeai esan ta erakutsi gabe" (Garoa, 33. or.).

Gizakien barne-mundua hain ongi ezagutzearen iturria honako honetan dago:

> "Kristoren legea zan Joanesen argia ta argi orretan ikusten zituan, kupidaz, gizonen argaltasun ta ibilpide okerrak" (Garoa, 21-22. orr.).

Azken finean, Garoaren kontalariaren orojakiletasunaren eta Joanes pertsonaiaren orojakiletasunaren iturria bat eta berbera da: Kristoren legea da beraien argi. Eta lege honek emaniko argian oinarritzen dira giza jokabideak epaitzean, ontasunak eta gaiztakeriak banatzean (43).

Kontalari orojakileak badu kontatzen ari den historiaren ezaguera handiagoa: ez dago pertsonaiarik historiaren garapena berak bezain ongi ezagutzen duenik; ezta Joanes ere. Baina Kristoren legearen ezaguera da giza jokabideak arautzeko beren buruei ematen dieten eskubidearen iturri. Lege honen ezaguerari esker ezagutzen dute pertsonaien barne-izaera, epaitzen dituzte giza jokabideak. Egiaren bozeramaile moduan azaltzen dira.

Berez historia denaren ezaguera erabatekoa du kontalariak; ez horrela Joanesek. Izan ere, kontalariak datu guztiak dauzka, baina Joanesek ez. Hala ere, datuak ezagutzera heltzen denean, kontalariak emaniko epai berbera emango du Joanesek.

Joanesek ez du ahalmenik, esate baterako, Gaztelerrian Juan Andresek daraman bizitza ezagutzeko; kontalari orojakileak bai. Baina Juan Andresek han denboraldi bat igaro, Zabaletara etorri eta Joanesek ikusi eta entzutean, kontalariak jadanik eman duen epai berbera emango dio Juan Andresi berari:

> "Ez aiz mendikoa, eztirudik gutarra, joan zaizkik emengo garo usaiak" (Garoa, 108. or.).

Joanesek ez du ahalmenik, esate baterako, Martinek Somorrostron daraman bizitza ezagutzeko; ezta Juanitoren izaera Zabaleta baserrira etorri aurretik ezagutzeko ere. Baina hauek bere aurrean mintzatu edo jarreraren bat hartu orduko, jadanik kontalariak egina duen epaiarekin bat etorriko da Joanesena. Honela laburtzen da

---

(43) Hemen aditzera emanikoa fikzioak azaltzen duenari mugatzen zaio soil-soilik. Ez da aztergai honen asmoa Garoan kontalariak edo Joanesek egiten dituzten azalpenak Kristoren legeari hertsiki lotzen zaizkion ala ez arakatzea.

Gabon gauari Joanesek ateratako ondorioa: "eztia nekarrelakoan beaztuna ekarri det" (Garoa, 197. or.).

Fikzioko pertsonaia legez, Joanesek bere aurrean jazotzen dena bakarrik ezagutzen du, eta ezaguera hau duenean epaitzen du. Kontalariak ahalmen handiagoa du: leku desberdinetan egotekoa eta hauetan jazotzen dena ikustekoa. Baina aldea funtsean honetara mugatzen da: "jakite-mailan" daukatenera; zeren eta datuak Joanesen ezaguerara heldu, eta honek pertsonaien jokabideak ikusteko aukera duen orduko, epai berbera ematen bait du. Kontalariaren eta Joanesen arteko adostasuna erabatekoa da: mundu-ikuspegi berbera dute, giza jokabideak epaitzeko neurri berbera. Balore berdinak defendatzen dituzte. Biei Kristoren legearen ezaguerak ematen die argia gizakia ezagutu eta zeinek izan behar duen gizakiaren jokabidea arautzeko.

Kontalariak historiara darama Joanes. Eta historia honen protagonista legez, berarekin kidetasun osoa duen pertsonaia itxuratzen du: beste jainko txiki bat. Jainko txiki honen eginkizuna kontalariak daukan giza paradigma erakustea izango da, giza paradigma hori exenplifikatzea, konkrezioaren mailan ilustratzea.

1.3.1. Joanes euskaldunen bizimoduaren paradigma bakarra

Joanesek euskaldunentzako bizimodu baten paradigma erakusten du, eta paradigma bakarra, gainera. Ez dago beste aukerarik: aukera bakarra da; gainontzeko alternatibek porrot egiten dute.

Iñazio Mari baserrian bizi da, Azkarragan; baina azokak eta demak ditu lanbide. Ondorena Azkarraga hondatzea da, lur jota uztea.

Bere diru-ametsak eraginda, Gaztelerrira abiatzen da Juan Andres dirua egitera. Egin ere egiten du, baina azkenean diru guztiak galdu eta Zabaletako familiari eskatu beharrean aurkitzen da.

Porrot egiten dute Joanesek markatzen duen bidea uzten dutenek eta behin eta berriz bide hori utz dezaten aholkatu dien Joanesi jaramonik egiten ez dietenek.

Porrot egiten dute Iñazio Mariren seme Martinek eta Juan Andresen seme Juanitok. Lehenak ez du erdiesten bere nahia: Malentxorekin ezkontzea. Gorrotoz bete eta, ez da Malentxoren moja-sarrerako elizkizunetara joango. Epilogoak dioenez:

"Donosti alderuntz iges egin zuan, ta or emen dakuste nasaikerietan kirastua, aragiaren era ta nai guztiak aseaz, osasuna ta dirua banatuaz, animarik ezpalu bezela, biotz gaiztoko, ao txarreko, zeru ta lurreko aginduen etsai" (Garoa, 304. or.).

Bigarrenak ere porrot egiten du. Honela dio Juan Andresek Zabaletako familiari igorririko eskutitzean Juanitori buruz:

"Ikasten zegoalakoan, joko ta nagikerian igaro ditu egunak eta urteak, eta gaur, bizarrez oso jantzi danean, griñak ugari, diruak urri ta irabazteko gaitasunak auzoan. Sendakin izatera ezta eldu, ogibiderik eztauka ezer, iñork eztu ikusi nai: neuk ere ez, gurasoa izanarren. (...). Asi zaio jazkerea, atze ta aurre, orpo ta idun, **pobre de levita** dala adierazten" (Garoa, 301-302. orr.).

Juan Andresen eta Iñazio Mariren porrotek jarraitu egiten dute beren ondorengoengan. Horien Joanesen ereduarekiko desbideratzeak ondorengoen desbideratzeari eragiten die. Kontalariaren iragazitik igarotako Joanesen barne-pentsamenduetan azaltzen denez:

"Iñazio Mari etzan ezeren jabe, ta bere mutilla, Martin, Somorrostrora biraldu zuan zerbait irabaztera: Somorrostrora mutilla ta bazterrak erabiltzeko naikoa indarrik ez etxean!" (Garoa, 177-178. orr.).

Iñazio Mariren demazaletasunak ekarri du Azkarraga baserriaren lur jotzea, eta ondorioz Martin Somorrostrora bidaltzea eta Martinen desbideratzea. Kontalariaren hitzak dira:

"Antxen zegoan —Somorrostron— ta bertan alperrik galdu zuten Azkarragako Martin, Iñazio Marin semea, Joanesen illoba" (Garoa, 187. or.).

Juanito, berriz, gurasoek "gaizki hezitakoa" da, besteak beste. Kontalariak dioenez, Juanito "beltzarana, erkintxoa, arro samarra, berekoia, gaizki azia, andizalea" da. Eta aurrerago eransten duenez, "bere iritzia egin bear izaten du etxean, bere ta gurasoen ustetan aitamak baño argi geiago dualako" (Garoa, 189. or.).

Juan Andresek berak "gaizki hezitze" honi egozten dio semearen desbideratzea Zabaletakoei diru eske bidalitako eskutitzean:

"Eznuan ondo azi, bigunegia izandu naiz, ta ortik nere ondamena" (Garoa, 301. or.).

Izan ere, kontalariak historia osoan agertzen duen filosofiaren

arabera, ezin izan zitekeen bestela. Aitak amets bat bakarra du: dirua egin; eta dirua egin behar horrek eraginda, "sinisteak, oroipenak eta baita ere Jaungoiko Altsu Donearen aginduak" ahaztu egingo zaizkio. Ama, berriz, iturburu narrasekoa da. Beraz, honelako gurasoek ezin eman "behar bezalako hezkuntza".

Nolanahi ere, erantsi beharra dago kontalari honentzat desbideratze-mailak daudela. Desbideratuek ez dute behintzat galga berdineko zigorra jasango. Desbideratzeagatik emandako epaiek ez dute gogortasun berdina azalduko.

Joanesek berak heriotzako orduan Juan Andres, honen semea eta Martin urruti ikusten ditu; ez, ordea, beste desbideratu bat: Iñazio Mari. Hau aurrean dauka, hantxe bertan negarrez.

Iñazio Marik, hain zuzen ere, jasotzen du kontalariak eginiko epaian sententziarik ahulena. "Azkenengo albisteak" diotenez:

> "Iñazio Mari dabil ajeatua. Oñazerik ez, baño ito-bear estuak oiditu. Zankoak andi, burua nagi, mingaña totel, arpegia erorita, kokozpeko larrua idi zarraren antzera lasai, ura itxura dauka gizagaixoak! Ezertako ezta gauza, ia ezta aulkitik jaikitzen, eztu etxetik iñora ertetzen" (**Garoa**, 306. or.).

Azokak, demak, Moxoloren ardanetxeko egonaldiek sortutako zorraren faktura igorri diote eta une hauetan bere gorputza ordaintzen ari da aurretik eginiko "gehiegikeriak". Baina Azkarraga ez dago lur jota, eta Pedro Migel Azkarragak utzitako herentziari esker "sendakiñaren esana jarraituaz, esnea geienbat, baña bere gogoari deizkiona ematen diote: ollo saldea, opil gozo biguña, txurrut bizigarria, eskatzen duana, biotzez, maitero, dena maitero ta limurki" (**Garoa**, 307. or.).

Iñazio Mari ez da degradazio osora heltzen; bai, ordea, Juan Andres, Juanito edo Martin. Iñazio Mari deserrotu egiten da, baina tartean gelditzen da. Eta tartean gelditzen da, Joanesen bizitza-erregela guztiak ez dituelako hausten, besteek hausten dituzten bezala. Eta, nahiz eta desbideratu egiten den, tartean gelditze honek izango du nolabaiteko isladapena bere ondorengoengan ere: semea, Martin, Joanesen bizitza-erregeletatik zeharo urruntzen bada ere, alaba, Paula, bizitza-erregela horien jarraitzaile izango da.

Iñazio Marik bere "bizio" eta guzti garo artean bizitzen jarraitzen du: Azkarragan. Hona ezkondu da gurasoek hautatutako andregaiarekin. Eta, Joanes partaide izan denez ezkontz tratua ixterakoan, emaz-

tea, Mikalla, emakume ona izango da. Ezin izan zitekeen bestelakoa, Joanes hautaleak ezin bait dezake hutsik egin; Kristoren legeak emandako argiari esker gizakien ahuleziak ezagutzeko ahalmena bait du.

Hamazortzigarren kapituluko kontalari filosofoaren berbaldi diskurtsiboa zela-ta, jadanik azaldu da hemen jarritako tesi bat —arima bakoitzak bere neurrira egindako arima hautatzen du hari biltzeko— ez ote den bete-betean egiaztatzen. Eta gakoa, hain zuzen ere, Iñazio Mari eta Mikallaren artean zegoen. Mikalla bezalako pertsonaia zintzoak, kontalariaren bizitza-erregelak hobesten dituen pertsonaiak, merezi ote zuen senar demazale hau?

Dena den, kontalariak Iñazio Mari zigortu egingo du, baina ez Azkarraga; eta Azkarraga zigortzen ez den neurrian etekin bat gelditzen zaio Iñazio Mariri. Izan ere, badago horretarako arrazoirik. Edo-ta, Iñazio Mari deserrotu bakarrik egiten delako (baserrian bizitzen jarraitzen du; gurasoek hautaturiko emazte zintzoarekin bizi da; Joanesek jokoa utz dezala eskatzen dionean hitz ematen dio utziko duela, nahiz eta gero lehenera itzultzen den; borondaterik ez du falta aldatzeko; eta batipat "sinesteak" ez ditu alde batera uzten, Juan Andresek, Martinek edo Juanitok utzi dituzten bezala). Edo-ta Mikalla eta Paula pertsonaiek, kontalariak hobetsitako bizitza-erregelak jarraitzen dituzten pertsonaiek, zigorrik merezi ez dutelako. Edo-ta kontalariak baserrian harrak eta ahuleziak badaudela aditzera eman nahi duelako, baina har eta ahulezia hauek barkagarriagoak iruditzen zaizkiolako. Edo-ta arrazoi guzti horiengatik.

Eleberriak kontatzen duen historian konstata daiteke kontalariak "salbatu" egin nahi duela Azkarraga baserria, eta hondamenditik atera; eta honetarako, hain zuzen ere, ekarri du historiara Pedro Migelen pertsonaia eta honen Ameriketara joatea.

Kontalariak baditu arrazoiak Azkarraga "salbatzeko": batetik, eleberrian eraikiz doan arauak dioenaren arabera salbatu egin behar du; bestetik, Iñazio Mariren desbideratzea ez da Juan Andresena bezain urrun joan.

Eleberrian kontalariak eraikitzen duen arauak honela dio: nik ezarritako bizitza-erregelak jarraitzen dituenarentzat bakea eta zoriona dago; nik ezarritako bizitza-erregelak hausten dituenarentzat, aldiz, zigorra. Juan Andresek, Dionisiak, Juanitok, familia osoak,

zigorra merezi du, eta zigorra izango dute. Baina Azkarragan Iñazio Marik bakarrik merezi du zigorra.

Iñazio Mariren desbideratzea ez da Juan Andresena bezain handia. Baserrian bizitzen jarraitzen du; besterik esaten ez den neurrian, sinesten jarraitzen du; han dago elizan, esate baterako, Malen moja sartzen denean.

Juan Andresek erabateko zigorra jasoko du: bere amets bakarra, bere bekatua, dirua irabazi nahia izaki, dirurik gabe gelditzen da, eskatu beharrean, emaztea gaisorik, semeak ikusi nahi ez duela. Iñazio Marik zigor leunagoa jasoko du, Juan Andresena bezala bere amets eta bekatu bakarrari lotua dagoena: demak osasuna hondatu dio; baina diru-estuasunik gabe bizi da familiak eskaintzen dion maitasunaren babesean.

Moxolo Potolok ere ez du zorionik erdietsiko. Oñatiko zalduntxoen ordezkaria ez da egokitzen kontalariak hobesten duen bizimodura, ez ditu jarraitzen kontalariak eta Joanesek jarritako eta erakutsitako bizitza-erregelak; beraz, kondenatua dago porrot egin eta zigorra jasatera.

Moxolo Potolok ez du bere amets bakarra lortuko: Malentxorekin ezkontzea. Eta "Azkenengo albisteak" diotenez:

> "Moxolok amar arroako buzkantza dirudi. Ain dago baldar, borobil, lindinga ta koipetsu. Zabaletako atsoa urkatzeko ta Bidaurretako eliza erretzeko beta onaren zai dijoazkio urteak" (Garoa, 308. or.).

Peru Odolki ohizko bizitzari jarraitzen zaio, goseak eta egarriak, gose eta egarri hauek asetzeko modua bilatuz.

Beste muturrean kokatzen dira Joanesen jarraitzaileak, kontalariak hobetsitako bizimoduari eta Joanesek paradigma legez erakutsiari atxikitzen zaizkionak. Eragozpen batzu aurkituko dituzte beren ibilbidean hauetako batzuk; baina, aipatu bizitza-erregelei tinko lotzearen ondorioz, bakea eta zoriona erdietsi eta bizimodu horri jarraipena emango diote.

Joanes bera bere jarraitzaileak inguruan dituela hilgo da bakean, urduritasunik gabe, desorekarik gabe, lasai:

> "Jesus, Joanesen aoan besoak zabalik dago, aspaldiko adiskidea Beragan artzeko zai bezela, ta Joanesen animak laztan batean ertetzen

> dio; laztan bero, gozo, luzearen bitartez ematen dio Joanesek Egille Altsuari anima, euskaldun animarik ederrenetakoa..." (Garoa, 298. or.).

Jose Ramonek, semerik zaharrenak, "kristaurik bero ta zintzoena, gurasoen urrengo" (Garoa, 33. or.) zenak, zeharo bigarren maila batean igarotzen du historiaren desarroiloa Joanesen itzalpean. Kontalariak paradigma, Joanes, erakustera jotzen duen neurrian, desagertu egiten da ia-ia Joanesen ondorengo zuzena izango dena. Zabaleta baserriko etxejauna Joanes da, eta etxejaun legez berak ematen ditu aginduak. Berak ematen dizkie "irakatsi onak" ilobei, berarengana jotzen dute aholku eske... Eta ondorioz ia-ia desagertu egiten da Jose Ramon kontaketatik, baina han dago eleberriaren bukaeran Joanesek zuen lekua betez:

> "Jose Ramonek, azal ta barru, aitaren itxura ta egokierak dauzka. Burua zuri ta mintzoa garbi, gorputza lerden ta gogoa zuzen, bein baño ere azkarrago, zarrago ta obeago, Joanes bigarrentzat artu dezakegu. Bera da orain etxeko jauna; berak agintzen du non zer lan egin; berak igotzen du Urbiara antziñetako bide ziorretatik zear; berak bedeinkatzen du maia, baserrian badago; berak erakusten du Jaungoikoaren bildurra oñordekoen artean" (Garoa, 299-300. orr.).

Eleberri osoan zeharo bigarren mailan egon den Jose Ramon pertsonaia lehen planora dator Joanesen heriotzaren ondoren, honen itxura fisikoa bera hartu eta honen funtzioak betez. Berak errepresentatzen du Joanesek erakutsi duen bizimoduaren jarraipena. Berak birkonpontzen du heriotz biologikoak ekarritako galera, paradigma berberari jarraipena emanez.

Zabaletan Joanesen jarraitzaileak bakean eta zoriontsu gelditzen dira eleberriaren amaieran. Hau Joanesek erakutsitako bizitza-erregelak jarraitzearen ondorioa besterik ez da; bizitza-erregela horiek jarraitzen dituztenentzat gordetzen bait ditu kontalariak bakea eta zoriona.

Kontalariaren eta Joanesen helburuen garaipena da. Ulertu nahi duenak uler beza: bizimodu bati lotzen zaiona zorionean eta bakean biziko da; beste batzuri lotuta, porrot egingo du. Porrot ez egiteko bide bakarra Joanesek erakusten duen paradigmari jarraitzea da.

Joanesek aurkeztutako paradigmak Zabaletan ez ezik, Azkarragan ere aurkituko du jarraipena. Iñazio Marirena parentesi hutsa izan

da. Iturraldeko Jose eta Azkarragako Paularen arteko ezkontzak zoriona eta bakea dakar berriro Azkarragara, hurrengo belaunaldia orpoz orpo lotzean Joanesen irakatsiei. Ez dago jadanik desorekarik. Senar-emazte gazteak, biak, bizimodu eredugarriaren jarraitzaile dira, eta ez aurreko belaunaldikoak bezalakoak, zeinetan bat bizimodu eredugarri horri lotzen bazitzaion ere —Mikalla—, bestea desbideratu egiten bait zen —Iñazio Mari—.

Azken finean, kontalariak dioen bezala:

> "Aitona ilzala bi urte badira, baño Joanesen anima bere alderdi ta ondorengoetan bizi dala deritzot" (Garoa, 299. or.).

Joanesen arimak bizirik dirau Zabaletan eta Azkarragan, baita Bidaurretako moja-etxean ere, berak zuzen-zuzenean hezi dituen ondorengoengan bere irakatsiek lortu duten txertakuntzari esker. Hor dago zoriona; hortik at, zorigaitza.

Joanesen bidez erakusten den bizimoduaren paradigma hau ez da edonorentzat; muga propioak ditu; euskaldunentzat da.

Kontalariak ez du eredua edonongo pertsonarentzat aurkezten, baizik eta kokagune geografiko konkretu bat duenarentzat: Euskal Herria.

Ereduari muga geografikoak ez dizkio bakarrik eredu honek darabilen hizkuntzak jartzen —euskarak—; hor dago, baita ere, pertsonaia paradigmatiko honek hartzen duen jarrera.

Joanesek kontaketan erakusten dituen ardura nagusiak berak eginiko honako otoitz honetan laburtzen dira:

> "'Urbiako artzaien Artzaia, gorde gaitzatzu; zaintu zadazu nere etxea, zaindu zazu, arren gure Euskalerria'" (Garoa, 177. or.).

Joanesen erreferentzi puntuak etxea eta Euskal Herria dira behin eta berriz. Malentxori berari ere moja sartzera doanean, honako eskari hau egingo dio:

> "—Bai, egin otoitz nigatik, zure aideakgatik, Euskalerri guztiagatik" (Garoa, 238. or.).

Era berean, kontalariaren erreferentzi puntua ere Euskal Herria eta euskalduna da. Hauen eredu izan dadin sortzen du Joanes pertsonaia.

Kontalariak "euskal basetxe"-ei buruz (44) eta euskaldunei buruz (45) hitz egiten du bere berbaldi diskurtsiboetan; bere berbaldi narratiboan, berriz, euskaldunentzako paradigma sortzen du.

1.3.1.1. *Leku aldakaitzean bizi den pertsonaia*

Leku aldakaitzean bizi da Joanes, euskaldunei aurkezten zaien paradigma. Izugarrizko tradizio luzea duen lekua du egoitza. Izugarrizko tradizio luzea duen lanbidea du ogibide.

Lekugune egonkorra eta aldakaitza da bere bizilekua, urtaroek dakarten paisaia-aldaketari eta aro bakoitzak dakarren uzta-aldaketari bakarrik menperatzen zaiona.

Lekugune hori, Zabaleta baserria, izan du sorleku Joanesek. Eta lekugune hori izango dute sorleku honen ondorengo Jose Ramonek, Manuelek...

Kontalariak honela dio historiari hasiera ematera doalarik:

> "Etxe orretan jaio zan gure artzaia, etxe orretan sortu ziran bere gurasoak eta gurasoen gurasoak" (**Garoa**, 31. or.).

Horri honako hau erants dakioke historiaren amaieran: etxe horretan jaio dira artzainaren jarraitzaile izango diren semea, iloba...

> "Gogordopeko zelaitxo baten, garometa andi batzuen urrean, soro eder narotuz inguraturik, bene benetako patxadan zegoan Zabaleta baserria" (**Garoa**, 29. or.).

Hala dio kontalariak historiaren hasieran eta "patxada" berberean gelditukо da historiaren amaieran, erdietsi bait ditu aurrerantzean ere "patxada" berberean jarraitzeko bitartekoak.

Joanesen bizitza eta lanbidea Zabaleta baserriaren eta Aloña mendiaren artean banatzen da, baserri-lanean eta artzain-lanean.

---

(44) "Baña Jaunaren legea zan Zabaletako argaltasunen sendatzalle ta griña gaiztoen lokarri, euskal basetxe geienetan bezela" (**Garoa**, 42. or.). Edo "Azoka ta dema zalea da euskaldun basetxetarra" (**Garoa**, 81. or.). Etab.

(45) "Eztago euskaldun semerik, euskalduntasuna galdu ezpadu, edozein tokitik, gau orretarako" (**Garoa**, 193. or.). Edo "Ai orrela euskalduna zan lekuan euskalduna jaioko balitz, siñistetsuaren lurrean siñistetsua erne, Zabaletan bezela!" (**Garoa**, 299. or.). Etab.

Zabaleta baserria edo Urbia mendia uzten duenean, bere kristau-sinismenaren agertokitara joateko da: Arantzazura, Oñatiko elizara, Urkiolako San Antonioren elizara, Bidaurretako moja-etxera.

Joanes hiltzean, Zabaletako etxejauntza hartzen duen seme Jose Ramonek Zabaleta baserria edo Urbia mendia izango ditu bizileku eta baserri-lanak eta artzain-lanak ogibide, Joanesek bezala. Urteak joan eta urteak etorri, beti berdin dirauten lekuguneak dira, euskaldunek aspaldidanik dauzkaten ogibideak. Baina, badira bestelako lekuguneak ere Euskal Herrian, aldaketak jasaten ari diren lekuguneak, paisaia aldatzen ari zaieneko lekuguneak: Bizkaiko ezkerraldea.

> "Mendi aietan eztago zuaitzik, eztago lorerik, eztago belarrik ere. Mendi gorri aiek burniz urratu dituzte, izerdiz aña odolez intzatuak dirudite" (Garoa, 186. or.).

Zabaleta baserri edo Urbia mendiaren inguruko paisaiak ez bezalakoa da Bizkaiko ezkerraldekoa. Zuhaitzik gabeko mendiei (Bizkaiko ezkerraldekoak) zuhaizdun mendiak aurkajartzen zaizkie (Urbia ingurukoak); lorerik eta belarrik gabeko mendiei, berriz, loredun eta belardun mendiak; burniz urraturiko mendiei, azkenik, burniz urratu gabeko mendiak. Funtsean, gizonak bere iharduletasunarekin eraldatu duen paisaiari gizonak eraldatu ez duen paisaia aurkajartzen zaio. Mendez mende, belaunaldiz belaunaldi, berdin iraun duen eta dirauen paisaiari, aldatzen ari den paisaia. Paisaia egonkorrari, transformatzen ari den paisaia. Leku aldakaitzari, leku aldakorra.

Baina Zabaleta baserriari eta Urbia mendiari, Joanesen bizilekuei, ez zaizkie bakarrik Bizkaiko ezkerraldeko bizilekuak aurkajartzen, hau da, denboraldi batez bere iloba Martinen bizileku izan diren Somorrostro eta bere inguruak, Juan Andresen bizileku diren Gaztelerriko bizilekuak ere aurkajartzen zaizkie:

> "'Pankorbo zeritzaion erri zakar batean egon zan bera lenbizi, gero Santa Olallan. Alderdi artako erriak baldar ta txiroak ziran geienak; ango lurrak, agor, lau, zabal ta berdiñak, zugaitz ta belardi gabeak; baño batere itxurarik etzutela, ar koskor artean bada ere, garia ematen zuten galanki. Lur aietan etzan artorik; dena garia, edo garagarra, edo oloa, edo zekalea, itxasoa beste luzerako salletan'" (Garoa, 106. or.).

Hau ere, Somorrostro eta bere ingurua bezala, gizona eraldatzen ari den lurra da, gizona transformatzen ari den paisaia, Zabaleta eta Urbiaren inguruak ez bezala:

"'Bai, **prantzezak**, gaztelarrak eta euskaldunak nastean ibilli ziran burnibideak egiten; (...). Euskaldunak egin zituzten, anitz lekutan, lur azpiko bide luzeak; euskaldunak zabaldu ta jantzi zituzten Atapuerta, Karraskal, ta Astorkillaskoak'" (**Garoa**, 107. or.).

Lekuaren mailan aberriari erbestea aurkajartzen zaio; euskaldunen aberriari, arrotzen erbestea. Zehaztasun handiago edo txikiagoarekin bakoitzak bere mugak ditu fikzioan.

Fikzioan lekugune iraunkor moduan itxuratzen da aberria. Euskal mendiek, euskal baserriek eta hauen inguruek, euskal "uriek" osatzen dute bere lurra. Bertako biztanleak euskaldunak dira, euskaraz mintzatzen diren gizakiak. Aldiz, erbestea lekugune ez iraunkor moduàn itxuratzen da, lekugune aldakor moduan. Bere lurrak aldaketaren menpe daude; bertako biztanleak hizkuntza desberdinetan mintzatzen dira, ama-hizkuntza desberdinetan: euskara dela edo frantsesa edo gaztelera edo ingelesa.

Honako hau da kontalariak Bizkaiko ezkerraldeari buruz egiten duen lehen balorazioa: "bada Bilbotik itxasoruntz goazela ezker aldetik dauden erriak eztirudite Bizkaikoak" (**Garoa**, 185. or.). Hurrengo balorazioan, berriz, lekugune horri kidea bilatuko dio:

> "Nerbion inguruari Euskalerriko alderdia baño **Londresko** auzotegia obeto deritzat" (**Garoa**, 186. or.).

Kontalariak antzekotasuna ezartzean gainditu egiten ditu Euskal Herriko muga geografikoak; geografi mailan bertan, fikziotik at errealitatean bertan erbestea den lurralde batekiko parekidetasuna jartzeko.

Nerbioi ibaiaren ezkerralde hau, "Londresko auzotegia", aldaketak jasaten ari da, Juan Andresek aurkezten duen Gaztelerria bezala, eta bertako biztanleek ama-hizkuntza desberdinak dituzte:

> "Enda, oitura ta izkera guztietakoak nastean dabiltz: **ingeles, prantzes** ta españatarrak, euskaldunak eta erdaldunak; Arabar ta Naparrak Galizia ta Asturiaskoen ondoan; Santander, Palenzia, Burgos, Balladolid, Soria, Logroño ta Zaragozakoak Zamudion edo Muxikan, Amoroton edo Errigoitin, Errezillen edo Asteasun, Amezketan edo Ataunen jaio diranakin batera" (**Garoa**, 187. or.).

Fikzioaren alorrean berdin gertatzen da Juan Andresek ezagutu duen Gaztelerrian:

"Bai, **prantzezak**, gaztelarrak eta euskaldunak nastean ibilli ziran burnibideak egiten" (**Garoa**, 107. or.).

Aldiz, aberria lekugune iraunkorra da, gizonak eragindako aldaketen menpe ez dagoena, transformaziorik ezagutu gabe mende askoren tradizioari jarraitzen diona. Bertan euskaldunak bizi dira beren ohitura eta bizimoduarekin, beste "enda, oitura, ta izkera" duten gizakiekin "nahasi" gabe.

Aberri honetako biztanleen eredu legez eraikiko da Joanes pertsonaia, aberri honetako biztanleek jarraitu behar duten paradigma moduan. Hau lekugune iraunkorrean eta aldaketarik gabean bizi da, euskaldunak beren ohitura eta besteekin nahasi gabe bizi diren lekugunean. Martinek eta Juan Andresek itxuratuko dute erbesteratzeak dakartzan galeren eredua, lekugune aldakorrak eta transformazio-bide batean daudenak eta beste "enda eta oitura" batzurekin nahasteak dauzkan ondorioak isladatuz.

Kontalariak, jakina, goretsi egiten du aberriko espazioa, batipat aberri horretako mendi-baserriak, jadanik azaldu den gisan; aldiz, ñabardurarik gabe gaitzesten du erbestea.

Aberrian guztia ez da eredugarri —zeharo eredugarria den pertsonaia bakarra Joanes da—; "ahulezia" batzu badaude eta ahulezia nagusiena azokazaletasuna da, eta hau baino handixeagoa demazaletasuna. Baina "ahuleziak" besterik ez dira; horrelako tratamendua ematen die behintzat kontalariak.

Jose Ramonek daukan akats bakarra "azoketara geiegi joatea" da (**Garoa**, 33. or.). Akats honen frogagarri, kontalariak Santo Tomas egunez Arrasaten ospatutako azokan erakutsiko du. Joanes, ordea, ez dago han. Historiaren aurrerapenean Jose Ramonen akats honek ez du garapen handiagorik ezagutuko. Eta eleberriaren amaieran "Joanes bigarrentzat artu dezakegu" (**Garoa**, 299. or.) dio kontalariak.

Jose Ramonek paradigmaren aurrean badu akats bat —beharbada nahitaezkoa zen akats bat izatea Joanes paradigma moduan eraiki ahal izateko—, baina desarroilorik ezagutzen ez duen akatsa da eta kontalariak zigortzen ez duena pertsonaiei azken epaia egiten dienean; "Joanes bigarrentzat" jotzen bait du Jose Ramon. Zuzendua ote akatsa?

Demazalearen tipoa errepresentatuko du Iñazio Marik. Akats hau azokazaletasun soila baino huts larriago moduan itxuratzen da.

Iñazio Marik Azkarraga hondatzen du, baina azken epaian hondamenditik at gelditzen da Azkarraga, nahiz eta pertsonaia bera osasun gabe uztea den kontalariak ezarritako zigorra.

Jose Ramon eta Iñazio Mari euskal mendi-baserrietan aurki daitezkeen ahulezien eredu dira.

Beherago, euskal herri txikietan edo "urietan", badaude Peru Odolki bezalako alfer eta ardozaleren batzu, historiaren garapen osoan ardoa lortzeko modua bilatuko dutenak. Baina kontalariaren azken epaiak jarritako zigorra aurrerantzean ere horrela jarraitu beharrarena izango da.

Pertsonaia guzti hauek aberrian bizi dira, euskal lurrean, leku iraunkorrean. Euskaraz mintzatzen dira eta ez dira beste "enda eta oitura" batzurekin nahasten. Horrek lotzen ditu guztiak. Baina erbesteratzean hautsi egingo dute Juan Andresek eta Martinek erregela hau; eta, ondorioz, berarengandik oso urruti ikusiko ditu Joanesek, eta kontalariak beraientzat gordeko du zigorrik gogorrena.

Aberria den lekugune horretan ahuleziak ikusten ditu kontalariak, baina ez degradaziorik. Degradazioa erbestean aurkitzen da. Izan ere, erbeste honek aldakortasunari ireki dizkion ateetatik zehar bait doaz ihesi euskal ohiturak eta kristau-sinismena; hala dio kontalariak Nerbioi ibaiaren ezkerraldean bizi diren gizonei buruz eta hala erakusten du Martinen bidez eginiko exenplifikazioak; hala dio kontalariak Gaztelerrian bizi diren gizonei buruz eta hala erakusten du Juan Andresen bidez eginiko exenplifikazioak.

Aberria eta erbestea aurkakotasunez eraikitzen diren lekuguneak dira, lehengoa bigarrena baino ñabardura gehiagorekin aurkezten bada ere.

Aberriaren espazioa euskal mendiek, euskal baserriek eta euskal "uri jakiñek" osatzen dute. Hau da espazio iraunkorra. Baina biztanlegoari dagokionez, kontalariak itxuratzen duen modutik atera daitekeen ondorioak dioenez, espazio horretan zenbat eta gorago bizi, orduan eta birtute handiagodunak dira pertsonaiak; eta zenbat eta beherago bizi, orduan eta birtute gutxiagokoak. Kontalariak hobesten dituen pertsonaiak goian bizi dira. Kontalaria leku horretan beheraka datorren neurrian gehitzen dira ahuleziak.

Garoaren kontalari orojakileak sortzen duen euskaldunentzako bizimoduaren paradigmak, Joanesek, bereziki euskal mendia du bizi-

leku eta artzantza lanbide: urtearen zatirik handiena artzain mendian igarotzen du. Joanesen heriotzaren ondoren, honen jarraitzaileak ere bereziki mendia izango du bizileku eta artzantza lanbide: "berak igotzen du Urbiara antziñetako bide ziorretatik zear" (Garoa, 300. or.).

Beheragora, baserrietara, batzutara bederen, ahulezia batzu heldu dira: Joanesen ordezko moduan jarri aurretik behintzat, Jose Ramon bera azokazaleegia zen; Iñazio Mari ere demazaleegia izan da osasuna galdu duen arte.

Beheragora jaistean, uri edo herrietara, ahuleziak areagotu egiten dira; hor daude, esate baterako, ahulezia horien areagotzearen lekuko Oñatiko zalduntxoak edo Peru Odolki.

Baina, azken finean, pertsonaia-tipo hauek guztiak leku iraunkorrean bizi dira, euskaraz mintzatzen dira, beste "enda eta oitura" batzuk dituztenekin ez dira nahasten eta, horrenbestez, ez dute kontalariaren bizitza-erregela nagusia hausten. Ahuleziak dira.

Kontalariaren bizitza-erregela nagusia hausten dutenak erbestean bizi dira, espazio aldakorrean, beste "enda eta oitura" batzutakoekin nahasian, eta azkenean kristau-sinismena galtzera heltzen dira.

Kontalariak sortu duen pertsonaia paradigmatikoak, Joanesek, tesi hori frogatzen du bere historia propioaren desarroiloarekin; edo, hobeto esanda, Joanes pertsonaia aitzakia bihurtzen zaio kontalariari tesi hori frogatzeko.

Baina kontalariak, eleberri osoa eraikitzeko egiten duen pedagogiaren erabilerari dei eginez, ez du bakarrik froga gisa pertsonaiaren historia propioaren antolamendua erabiltzen, baizik eta, pertsonaiari berari bere ahots propioaren erabileraren bidez, "esan arazi" egiten dio. Pertsonaiak bere ahots propioarekin ikuspegi hau azaltzen du:

> "Gaiztoak or bealdean bizi dira, diotenez; zenbat eta berago, gaiztoagoak; zenbat eta erri andiago, okerragoak eta ugariagoak. Eztakit nik nola dan, baña gizon txarrak gutxitan oidira mendizale" (Garoa, 25. or.).

Joanes pertsonaiak bere ahotsaren bidez baieztatu egiten du kontalariaren ikuspegia.

Mezua argitasun osoz heleraztea bilatzen du kontalariak. Argitasun hori lortzera lagundu egiten du espazioa bera aurkakotasunez

eraikitzeak, baita modu desberdinen bidez mezuaren iteraziora jotzeak ere: kontalari filosofoak bere berbaldi diskurtsiboetan aberri/erbestea aurkakotasuna azaltzen du, lehenaren balorazio positiboa eta bigarrenaren negatiboa eginez. Histori kontalariak exenplifikatu egiten du kontalari filosofoaren tesia historiaren antolamenduaren bidez; eta, are gehiago, kontalariak hobesten duen lekugunean bizi den pertsonaia paradigmatikoaren ahotsera bertara daramatza bere tesiak.

1.3.1.2. *Denbora aldakaitzean bizi den pertsonaia*

Denbora aldakaitzean bizi da Joanes, euskaldunei aurkezten zaien paradigma.

Denbora iragangaitza da berea, ohizko bizitza: epailetik hasi eta azaroraino mendian bizi da, zortzian behin baserrira jaitsiz. Berbaldiari dagokionez, behin bakarrik aditzera ematen du Joanesek berak, ohizkotasuna azaltzen duten aditz-formen bidez:

> "—Bai, bai; udea da emen igarotzen detana, nere baserrian lan andirik ezpadago, Epailletik asi ta Azaroraño. Ala ere, morroia badatorkit, larunbatetan jaixten naiz Zabaletara, nere emazte, seme, illoba ta bazterrak ikusiaz, barruko jantzi garbiak ipiñi ta tabakorri piskabat artzera; ta igandetan igotzen naiz berriz, Aranzazuko eleizan Meza entzun da gero. Morroia larunbatean ezpadator, jai egunean bertan joaten naiz Aranzazura, ta an izaten da ordurako etxekoren bat tabakorri ta jantzi garbiarekin" (**Garoa**, 23. or.).

Aditz-denbora komentatiboak. Aditz-denbora komentatibo hauen bidez doa itxuratuz Joanesen bizitza, Joanesen ohizko bizimodua. Aditz-denbora existentzialen bidez ematen da aditzera Joanesen ekintzen errepikapenaren berri.

Joanesek semeak hezitzen ditu. Semeen heziketa hau ere lehen aldiz berbaldira datorrenean, balio iteratiboa hartzen duen eszena singulatibo baten bidez izango da. Kontalariak berak bere ahotsaren bidez ematen dio balio iteratiboa eszena singulatiboari, Joanesi ahotsa eman aurretik aditz-denbora existentzialen erabilerara joz, "edo ondoen zeritzonean, asten zan galdezka" (**Garoa**, 33. or.) esanez. Eleberriak kontatzen duen historia aurrera doan neurrian, errepikatu egingo da Joanesek aurkezten duen alderdi hau semeen desbideratzeak bitarteko direlarik, aholkuak emango bait dizkie desbideratzen ari zaizkion seme hauei.

Joanesek ilobak hezitzen ditu. Iloben heziketa hau ere lehen aldiz berbaldira datorrenean, balio iteratiboa hartzen duen eszena singulatibo baten bidez izango da. Kontalariak berak bere ahotsaren bidez ematen dio balio iteratiboa eszena singulatiboari, Joanesi ahotsa eman aurretik "Etzuan arrek gaztetxoai zerbait adierazteko mugaldirik beñere galtzen" (**Garoa**, 65. or.) esanez eta ondoren ilustrazio moduan exenplu baten bidez igorriz "adierazi" horiek. Eleberriak kontatzen duen historia aurrera doan neurrian, errepikatu egingo da Joanesek aurkezten duen alderdi hau iloba hauengan sortzen diren kezkak edo nahiak medio direlarik, Joanesengana joko bait dute kezka edo nahi hauek azaltzera; eta egoera honen bidez Joanesen irakatsiak berbaldira ekarriko dira.

Aurrerapenik ez dakarren denbora da Joanesena. Ohizko lana, ohizko ihardunen bidez hezitzen ditu lehenbizi semeak, ondoren ilobak, etab.

Fikzioak irauten duen urteak, gutxi gorabeherako hogei urte horien iraupena, egoteko modu bat azaltzeko erabiltzen da, eta ez ibiltzeko modu bat; ohizkotasun bat azaltzeko, eta ez abentura singular bat. Denboraren igarotzeak ez dakar aldaketarik Joanesen bizitzara.

Joanes hiltzean bere seme Jose Ramonek emango dio jarraipena ohizko bizitza honi: berak heziko ditu ondorengoak, berak bedeinkatuko du mahaia, bera igoko da Urbiara...

Ohizkotasunaren barnean bizi den Joanesi aurkajarriz, ordea, ohizkotasuna alde batera utziz, ohizko baserriko lanak, ohizko mezak eta ohizko aitorpenak utziz, beren abentura propioa —singularra eta pertsonala— bizitzera abiatuko dira hiru semeetariko bi: Iñazio Mari eta Juan Andres.

Iñazio Marik baserriko ohizko lanak eta Joanesek eskaintzen eta erakusten zion ohizko bizimodua utziko ditu, demak eta apostuak bizibide bihurtzeko; Juan Andresek baserriko ohizko lanak eta ohizko bizimodua utzi egingo ditu aberasteko. Ohizkotasuna utzi duten bi pertsonaiek porrot egingo dute eta porrota ondorengoenganaino helduko da.

Urtea joan eta urtea etorri ohizko egitaraua eskaintzen duen Joanesen bizitza utzi egiten dute bi seme hauek. Utzi egiten dute aldaketarik ez dakarren denbora hori, aldaketarik ekarri gabe "errepi-

katzen" den denbora hori. Utzi egiten dute aldaketa, "aurrerapena" dakarren denboraren truk.

Dena den, erantsi beharra legoke beren abentura singularra bizitzeko Iñazio Mari eta Juan Andres lehen une batean gurasoen etxeak eskaintzen zien ohizkotasunetik ateratzen badira ere, abentura hori ohizkotasun bihurtzen dela kontalariak abentura hauei eskainitako berbaldian, abentura hauek testuratzeko moduan eta abentura hauek diskurtsoan antolatzeko garaian.

Iñazio Mariren demazaletasunak berbaldian jasotako tratamendua ohizkotasunean erortzen da. Kontalariak ez dio tratamendu singular bat ematen.

Iñazio Mariren izaeraz informatu eta informazio honetan Iñazio Mariren "akatsaren" berria azaldu ondoren, Santo Tomas egunez Arrasaten ospatzen den deman dakar kontalariak akatsaren errepresentazioa. Egun jakin bat, egun singular bat hautatzen du kontalariak errepresentaziorako eta, bidenabar, errepresentazio honen bidez aurretik emana zuen informazioa egiaztatzeko.

Egiaztatze edo frogatze honen ondoren, akatsak ez du desarroilorik jasotzen berbaldian. Berbaldia den lekugune testual honek ez du erakusten nola doan gehituz eta areagotuz Iñazio Mariren alderdi hau; ezta ere, esate baterako, zerk bultzatzen duen edo nola bizi duen demazaletasun hori. Hitz batean, ez da hitz-orez jazten abentura hau; ez da abenturaren analisirik egiten, ez da aberasten bigarren mailako funtzioen bidez, katalisi, zantzu eta abarrez. Laburpen baten bidez emango du aditzera kontalariak Iñazio Marik grina horri jarraitu ziola:

> "Iñazio Marik luzaroan jarraitu zion bere jokorako seta gaiztoari" (Garoa, 116. or.).

Iñazio Mariren grinaren garapena ez da testuratzen. Grina honek ez du narratibitaterik sortzen. Sekuentzia osatzen duten funtzio kardinalak adieraztera mugatzen da.

Urrutiratu egiten da Iñazio Mari Joanesek eskaintzen zion ohizkotasunetik eta ez aldaketarik ez aurrerapenik zekarren denbora horretatik; aldaketa eta aurrerapena dakarren denbora batera aldatu ere. Baina behin aldaketa egin ondoren aldakaitz bihurtzen da, bizimodu berria ohizkotasun bihurtzen zaio, eta kontatu ere ohizkotasun mo-

duan kontatzen da. Ez da kontatzen Iñazio Marik gizabanako legez nola bizi duen demazaletasuna, utzi nahia edo jarraitu nahia, Iñazio Mariren borroka posiblea...; baizik eta laburpen batzuren bidez ematen da aditzera une konkretu horretan nola dagoen egoera. Abentura singularra ohizkotasun bihurtzen da.

Juan Andresen abenturak tratamendu berbera jasotzen du narrazioan. Ez da berbaldira ekartzen Juan Andresen abenturaren desarroiloa. Balio iteratiboa hartzen duen kontalariaren berri batera mugatzen da garapena berbaldian:

> "Bere gurasoak etzekiten, baño nik badakit nolako bizitza zeraman Gaztelerrian Zabaletako semeak: beste ango adiskidien bizitza berbera, zeken zikoitz diruzalien bizitza" (Garoa, 112. or.).

Martinen, Juanitoren eta abarren abenturek ere antzeko tratamendua hartzen dute.

Abentura singular moduan planteatzen hasten direnak ohizkotasun bihurtzen dira berbaldian. Tratamendu honen bidez gizabanakoak indibiduo izateari utzi eta tipo bihurtzen dira. Abentura bat bizitzeko ohizkotasunetik ateratzen diren pertsonaien abentura pertsonalak, kontalariak ez ditu abentura pertsonal legez antolatzen; izan ere, abentura hauen eta abentura hauetan barrena abiatzen diren pertsonaien "ezaugarri orokorrak" besterik ez daramatza berbaldira.

Berbaldiaren mailan hitz-ore handiagoz jazten da Joanesen bizitza Joanesengandik urrutiratzen direnena baino. Jarraitu behar den ereduaren presentzia handiagoa da narrazioan, jarraitu behar ez direnena baino. Baina, funtsean, nahiz lehenaren kasuan, nahiz bigarrenenean, ezaugarri berberak errepikatzeko leku bihurtzen da berbaldia, eta pertsonaia-tipo horiek eraikitzera bideratzen da.

Iñazio Marik eta Juan Andresek egiten dutena da aitak eskainitako ohizkotasunetik eta ohizko bizimodutik irten beste ohizkotasun batean sartzeko: dema batean, dirua egitea bestean.

Joanesek semeei erakutsiak leku aldakaitzean bizitzea goresten zuen: urratu gabeko mendietan, euskaldunen bizilekuetan, goialdeetan, kristau-sinismenean bizitzea, behealdeko gaiztakeria eta ahulezietatik urrun. Eta maila handiago edo txikiagoan seme horiek eta seme hauen zenbait ondorengok hautsi egingo dute aitaren esanekin eta aitak erakutsitako bizimodu eta ohizkotasunarekin; hala bizi ahal

izango dute beren abentura singularra, nahiz eta abentura singular hau ohizkotasun moduan testuratzen den berbaldian.

Denbora aldakaitza da Joanesena, aurrerapenik ez dakarrena. Eta denbora aldakaitzean bizitzen erakusten eta goresten du Joanesek. Berbaldia den leku horrek egoteko modu bat azaltzen du. Denbora aldakorra da honen seme eta iloba batzurena. Aitari aurkajarriz, aldakaiztasun horretatik atera egiten dira, ibiltzen hasten dira. Baina ibiltze hau egote bihurtzen da. Baina egote hau ez da erakusten Joanesena bezala, baizik eta modu labur batez: kontalariak esaten du egon daudela, aldaketa aldakaiztasun bihurtu dela. Harik eta azken epaian zigorrak banatzen dituen arte.


Eredua erakustera bideratzen da berbaldia. Eta denek zilegiztatzen dute ereduaren erakustea beren ekintzen bidez: denbora aldakaitzean bizi den pertsonaiak eta aldaketa bati hasiera emateko eredu honetatik urrutiratzen direnek. Aldaketa hautatzen dutenen abenturak abentura singular bezala ez testuratzeak ere zilegiztatu egiten du Joanesen bizimodua erakustea; izan ere, abentura singular horiek abentura singular legez kontatuko balira, arras desberdina izango bait zatekeen eleberriaren antolamendua; baita antolamendu honen bidez sortutako esanahi-mundua ere.

1.3.1.3. *Pertsonaia-protagonista aldakaitza*

Garoa kontalari orojakile baten egintzatzat joz eman zaio hasiera eleberri honen azterketari. **Garoa** sortzea da bere egintza nagusia, **Garoa**ren bidez bere objetua bilatuz: bizimodu bat gorestea. Eta hartarako, eleberrian kontatzen den historian bizimodu hori "haragituko" duen pertsonaia gorpuztuko du: Joanes.

Bizimodu bat gorestea da kontalariaren nahia, objetua eta desioa: Euskal Herriaren tradizioak kontalari honi erakusten dion bizimodua gorestea eta bizimodu hori lehen urrats batean Joanesen familiari erakustea eta ondoren euskaldun guztiei. Bizimodu honi aurkajartzen zaizkion pertsonaiek "haragituko" dute objetuarekiko, kontalariak goresten duen bizimodua den paradigmarekiko aurkakotasuna.

Honenbestez, honako eskema aktantzial honen gauzatze moduan aurkez daiteke **Garoa**:



Kontalariaren nahia, objetua bihurtzen da **Garoa**n kontatzen den historiaren protagonista, idea batzuren gorpuztea, bizimodu baten hezurmamitzea.

Garoaren analisi funtzional honek erakusten du kontalariak hartzen duela testu osoaren protagonismoa eta subjetu aktantzialaren papera. Kontalariaren iharduletasunari esker sortzen da bizimodu baten paradigma.

Joanes, historiaren protagonista, egon dagoen "heroe" moduan itxuratzen da. Bere eginkizuna, kontalariak ezarri dion eginkizuna —paradigma bat— erakustea da.

Joanesekin hasten da eleberria eta bere heriotzarekin amaitzen. Azken kapitulu batek heriotz honen ondorengo berriak jasotzen ditu epilogo legez. Lehen kapituluan egiten den pertsonaiaren aurkezpenean pertsonaia zindo, irmo eta tinko moduan deskribatzen da, nahiz fisikoki nahiz izpiritualki. Matazaren garapenean ezagutuko duen aldaketa bakarra —hogei bat urteren buruan— fisikoa izango da; zahartzaroak mermatu egingo bait ditu bere ahalmen fisikoak.

"Baño gorputza lotua ta abaildua gelditu bazitzaion, ez orratik bere anima: anima beñere baño argiago, biziago ta azkarrago zeukan" (Garoa, 176. or.).

Heriotzaren ordua heltzen zaionean, "Joanesek Egille Altsuari anima, euskaldun animarik ederrenetakoa..." (Garoa, 298. or.) ematen dio.

Joanesek ez du ez gatazkarik, ez zalantzarik ezagutzen. Oreka-giroan bizi da, bake-giroan bere inguruarekin, bake-giroan bere erraiekin. Kristoren legea du argi. Kristoren legeak ematen dion argian oinarriturik lotzen zaio bere eguneroko lanbideari: artzantzari, Zabaleta baserriaren etxejauntzari, semeei irakatsi zuzenak emateari, ilobei irakatsi zuzenak emateari...

Eleberriaren hasieran zeuzkan ezaugarri berberekin heltzen da Joanes amaierara. Narrazioa, kontalariak berari eskaini dion berbaldia, bere egoteko modua aurkeztera mugatu da soil-soilik. Egonez erakusten du bere bizimodua. Ez dauka ezer bilatu beharrik, ez dauka ezertan hobetu beharrik. Hasieratik bertatik eginda dagoen pertsonaia da. Eleberriaren hasieratik bertatik paradigma bat da. Eta paradigma hori soil-soilik erakustera mugatuko da berbaldia. Eta abenturarik gabe eta prozesurik gabe garatuko da historia den abentura eta prozesu hori.

Joanesen paper aktantziala kontalariaren ideiak hezurmamitzera bideratzen da, ideia horien plasmaziorako hark sortu duen txotxongilo edo marioneta izatera.

Joanes ez da "heroe ihardule" moduan itxuratzen. Euskal Herrian somatzen ari diren aldaketak direla-ta, ez du ihardungo aldaketa hauen aurka gurutzadako heroearen moduan. Bere iharduletasun bakarra aholkuak eta irakatsi zuzenak ematera mugatuko da bere familiaren barnean eta familiakide zenbaiten desbideratzeak erakusten duen "erasoari" erantzutera.

Historiaren protagonismoa Joanesena da. K. Otegik dioen bezala: "Joanes pertsonaiaz analisi funtzional bat eginaz, kontalariak asmaturiko pertsonai multzoan ardatz dela dakusagu. Besteak haren jirabiran dabiltza. Gaineratiko pertsonaiei dagozkien prolemak, zailtasunak... Joanesi dagozkiolarik aurkezten dira beti" (46).

(46) OTEGI, K.; Pertsonaia euskal nobelagintzan, 75. or.

Baina protagonismo honi, "eleberriaren pertsonai ardatza" (47) izate honi, ez zaio subjetutza aktantziala lotzen.

K. Otegik dioen bezala, "Joanesen funtzioa, nobelako pertsonaien eta ekintzaren ardatz izatea da" (48). Gainerako pertsonaiek bizi dituzten gertaerak Joanesengan oihartzunen bat duten neurrian kontatzen dira. Modu honetan bere eredua erakusten du kontalariak; izan ere, besteei gertaturikoen aurrean Joanesek hartzen duen jarrera bait da batipat eredu hori azaltzeko kontalariak darabilen bitartekoa. Hau da, Joanes bera ez-ihardule izaki, ez ekintzen subjetu izaki (49), kontalariak ezin erakutsi pertsonaia hori ekintzen bidez eta bestela taxutu behar pertsonaia: beste pertsonaien ekintzen bidez, ekintza hauek Joanesengan jasotzen duten erantzunaren bidez.

Beste pertsonaien ekintzek zilegiztatzen dute neurri handi batean paradigmaren azalpena. K. Otegiri jarraiki, hona hemen beste pertsonaien zenbait ekintza, Joanesen jarrera azaltzen dutenak:

> "Malenen jaiotzea poz handi gertatzen zaie Joanes eta honen emazteari; Juan Andresek urrunera joateko hartzen duen erabakiak gogor hunkitzen du Joanes; Iñazio Mari, bere egoeraz lotsaturik, ez da ausartzen aitaren aurrera joatera; Manueltxo, biloba, protagonistaren isladuratzat ematen da; Malenek bere bihotz barrua Joanesi irekitzen dio; Josek bere maitemina Joanesi planteatzen dio, eta honek erabakitzen du zer-nola jokatu; 'Zabaleta' baserrian Juanitok duen jarrera bihurria, batipat pertsonaia nagusiari buruz ikusten da; pertsonaiaren jarraipena azpimarratzen da behin eta berriro, haren ondoren izpirituala jasotzeko Jose eta Jose Ramon ematen direlarik..." (50).

Era honetan egon dagoen pertsonaia, "heroe pasiboa" erakutsi egiten da. Honela, kontalariak berbaldi narratiboan exenplifikatu egiten du berbaldi diskurtsiboan azaldutako objetua eta nahia.

Besteen iharduletasunari esker, besteen abenturari esker, besteak

---

(47) OTEGI, K.; **Pertsonaia euskal nobelagintzan**, 76. or.

(48) **Ibidem**, 76. or.

(49) Jakina, baiezpen hau ez dago zentzu absolutu batean hartzerik, Joanes hainbat eta hainbat ekintzaren subjetua den neurrian: mahaia bedeinkatzen du, Urkiolara doa, etab. Aditzera eman nahi da ez duela zerbaiten gabeziak edo zerbaiten nahiak ekintzara bultzatzen, gabezia hori gainditzeko edo nahi hori erdiesteko.

(50) OTEGI, K.; op. cit., 75-76. orr.

ehotuz doazen historiari esker, itxuratzen da pertsonaia-protagonista, batipat aktante-aurkakoari esker.

Historia zilegiztatu, aktante-aurkakoa osatzen duen aktoregoak, degradatuen eta deserrotuaren aktoregoa osatzen duten pertsonaien ekintzek eta hauek bizi dituzten desorekek eskatzen dien abenturek zilegiztatzen dute.

Iñazio Marik bizi duen desorekak, gatazkak eta bake-girorik ezak, bultzatzen du ekitera eta bere demazaletasuna asetzera. Eta horrela aurkajartzen zaio kontalariaren nahia den bizimoduari, Joanesek hezurmamitzen duenari. Aldiberean, horrela zilegiztatzen du Joanesek errepresentatzen duen bizimodua azaltzea eta deskribatzea. Iñazio Mariren historiaren bidez dauka Joanesek berak balioztatzen dituen baloreen defentsa egiteko aukera. Batetik, horri emandako aholku eta egindako salaketen bidez eta, bestetik, ereduarekiko aurkakotasun bat aurkezten duelako.

Juan Andresek bizi duen desorekak eta gatazkak bultzatzen du ekitera eta bere diruzaletasuna asetzera. Eta horrela aurkajartzen zaio kontalariaren nahia den objetuari, Joanesek hezurmamitzen duen ereduari. Horrela, aldiberean, zilegiztatzen du Juan Andresen historia honek Joanesek errepresentatzen duen bizimodua azaltzea. Eta Joanesi berak balioztatzen dituen baloreen defentsa egiteko aukera ematen zaio, batetik, emandako aholku eta salatutako ahulezien bidez eta, bestetik, ereduarekiko aurkakotasun bat aurkeztuz.

Iñazio Mari eta Juan Andres pertsonaia ihardule bihurtzen dira beren nahiak eskuratzeko Joanesek aurkezten dien egoteko modu horretatik urruntzen diren neurrian, eta hark emaniko aholkuei jaramonik egin gabe beren bizimodu propioari jarraitzen dioten heinean. Horrela egon dagoen objetuari aurkajarri eta historiari, abenturari, sorrera ematen diote, bata apostu bila eta bestea diru bila.

Aitak Azkarraga baserrira ekarri duen hondamendiaren ondorioz Somorrostrora joan den Martin hemen ezagutu duen ideologia berriari atxikiko zaio. Ideologia berri horrek ekitera bultzatzen du, bere ideologia ezagutzera ematera. Eta ideologia honen alderdiren bat azaltzean, aurkajartzen zaio kontalariaren nahiari, Joanesek errepresentatzen duen bizimoduari. Horrela, aldiberean, Joanesek errepresentatzen duen bizimodua erakustea zilegiztatzen du Martinen desbideratze honek; baita Joanesi berak balioztatzen dituen baloreen

defentsa egiteko aukera ematen ere, salatzen dizkion ahulezien bidez, batetik, eta, bestetik, ereduarekiko aurkakotasun bat aurkeztuz.

Galiziatik Zabaleta baserrira etortzen denean Juanito, Martinen ideologiakide azaltzen da eta honekin batera aurkajarriko zaie Gabon gauean Joanesek defendatzen dituen baloreei.

Somorrostron ideologia berri baten jabe egin eta Malentxoz maitemindu den Martin ekitera bultzatzen du desoreka honek, bere nahia erdiestera, Malenekin ezkontzera. Eta modu honetan aurkajarri egingo zaio kontalariaren nahia den objetuari. Horrela, aldiberean, Joanesek errepresentatzen dituen baloreak azaltzea zilegiztatzen du maitasun-istorio honek: batetik, Joanesi berak balioztatzen dituen baloreen defentsa egiteko aukera ematen zaio eta, bestetik, ereduarekiko aurkakotasun bat aurkezten da.

Aktante-laguntzaileak ere, modu batean edo bestean, lagundu egiten du Joanesek errepresentatzen duen eredua azaltzera.

Joanesen emazte Ana Josepa "emakume maratz, pixkor ta begiratua" (Garoa, 31. or.) moduan deskribatzen du kontalariak. "Begiratua" ezaugarria guztiz funtzionala bihurtuko da matazaren garapenerako eta garapen honen bidez, zeharka Joanesen eredua erakusteko.

Bere "akats" txiki honek hainbat eta hainbat ondorio dakartza kontaketara. Horien artean aipamen berezi bat jaso dezakete honako hauek:

—Kontalariak emaniko informazioan azaltzen diren ezaugarriek matazan jasotzen duten desarroiloa bitarteko dela, Ana Josepa eleberriko izaki "pertsonaien" moduan itxuratzen dute.

—Izakirik "pertsonaien" moduan taxutzen delarik, eleberriaren kontalariari buruhausterik handienak dakarzkion pertsonaia da.

—Izakirik "pertsonaien" moduan taxutze honetatik lagundu egiten du kontalariaren nahia den objetua erakustera: Joanesen bizimodua.

Eredu positiboa, Joanes, edo eredu negatiboak aurkezteko, kontalariak pertsonaiak aitzakia huts bihurtzen dituen eleberri batean gaude. Pertsonaiak ideia batzuren hezurmamitze bihurtzen dira eleberri honetan: bat egonean dago eta egote honen bidez eraikitako ere-

dua dugu; beste batzu, berriz, iharduletasun bati esker sortutako ereduak. Pertsonaia lauen eleberri honetan Ana Josepa da pertsonaiarik biziena; esferikotasuneranzko norabidea hartzen duena, ahula bada ere; hezur-haragizko pertsonen kidetasunik handiena hartzen duena, hauek duten konplexutasunera gehien hurbiltzen dena, hezur-haragizko pertsonen kontraesanak, birtuteak eta ahuleziak, arrakastak eta porrotak, anbizioak... dakartzana.

Ana Joseparengan biltzen dira alderdi kontradiktorioak, eleberrira datorren pertsonaien galeria zabalaren barnean beste inorengan biltzen ez diren bezala: diruzalea da, baina aldiberean eskuzabala; errierta bizian iharduten du, baina aldiberean maitekorra da; eutsia eta zekena, baina dirua jalgi behar denean jalgitzen dakiena; errierta bizian aritzen bazaie ere, bere familiaren ongi izatea bilatzen du.

Kontraesan gutxi hauen desarroiloek eratzen dute eleberriaren pertsonaiarik biziena. Eta noiz edo noiz kontalaria oharren bat ematera behartzen dute:

> "Irakurlea: nik eztitut gauzatxo auek Ana Josepa makurtzeagatik ipintzen. Eztira orrenbesteko akatsak, etxekoandrea zan, ta etxekoandre danak egiten diote diruari ongietorri andia; ama zan, ta ama guztiak nai dute beren semeak gallurrik gallurrenean ikustea" (Garoa, 96. or.).

Kontraesan gutxi hauek sortzen dizkiote kontalariari buruhausterik handienak matazaren garapenean, kontraesan hauek medio hartzen bait du Ana Josepak kontalariaren eskuetatik eta honek sortutako pertsonaia lau horietatik "ihes egin" eta bere nortasun propioa hartzeko joera.

Taxutze-modu honetatik bertatik Ana Josepak lagundu egiten du Joanesek errepresentatzen duen paradigma azaltzera.

Kontalariak ez du Joanes aurkezten Arrasaten Santo Tomas egunez ospatzen den azoka eta deman. Dema hau ospatu aurretik argi eta garbi adierazi dio Joanesek Iñazio Mariri demei buruzko bere ikuspegia; baita utzi ditzala aholkatu ere (51). Baina Ana Josepak barne-borroka, kontraesana, azaltzen du semearen apostuen aurrean. Hala dio kontalari orojakileak:

---

(51) "Ta utzizak bein jokorako griña gaiztoa. Jokoa ezta errenta, motell" (Garoa, 34. or.).

"Semeari etzedilla apostuetan sartu esaten zionean, naieza baño bere mutilla parregarri geldituko otezan bildurra ta berak aurreratutako diru ederren arriskua erakusten zuan geiago Ana Josepak. Aurretiaz izaten ziran beti onen erriertak, bada jokoa irabazi ondorean etzegoan Iñazio Mari bezelako mutillik, batez ere txanponen batzuk etxera eramaten bazituan. Iñoiz bein Joanes argiak adierazi oi zion lausotasun au, baño errez aztutzen zitzaion emazteari apuko berria zetorrenean" (Garoa, 95-96. orr.).

"Lausotasun" hau, Ana Josepak bizi duen kontraesan hau, bide bihurtzen da "lausotasunik" ezagutzen ez duen eredua azaltzeko. Iñazio Marik berak bere demazaletasun hau dela-ta, ez du jarrera berbera hartzen amaren eta aitaren aurrean: gutxi axola dio amaren esanagatik, erriertengatik; ez horrela aitanagatik (52).

Martin Malentxoz maitemindu eta desoreka honek ekitera bultzatzen duenean, amonarengan aurkituko du bere objetua erdiesteko laguntzarik handiena. Honela dio kontalari orojakileak Martini buruz:

"Urduri zebillen, bai, oraindik etzan ezkonduta; baño esku onetan zeukan bere leia, ta bazekian zer epai emango zioten aurki. Bera zan etxekoa, bera bakarrik, etxekoa zalako laguntzen zioten amak, izekok eta amonak, onek batez ere, ta amonaren gogokoa bazan, nai ta naiez garaitu bear" (Garoa, 207. or.).

Berriro Ana Joseparen kontraesan bat da, eredua erakusteko bide bihurtzen dena: familiarenganako maitasunak ez dio Ana Joseparri bide "zuzena" ikusten uzten, eta Joanesek errepresentatzen duen eredua aurkezteko aitzakia bihurtzen da honek Maleni esaten dionean:

"—O, ez! Martiñentzat ez: eznion nere baimenik iñola emango" (Garoa, 237. or.).

Ana Joseparen diruzaletasunak dakar honako pentsamendu hau berarengana, Malentxoz maitemindu den Moxolo Potolo desoreka honek ekitera bultzatu eta bere nahia erdiesteko ezkontz eskaria egiten dionean:

(52) "Etzuan nai bere burua aitaren aurrean agertu, onen jardunak min ta lotsa ematen ziotelako; baña artzai zarrarekin iñoiz arkitzen bazan, apalkiro entzun oizituan semeak gurasoaren patxadazko erakuste zuzen ta ongarriak". Baina "Amaren esanakgatik, zorrotz ta garratzagoak izanta ere, etzuan ainbeste ajola izaten Iñazio Marik" (Garoa, 118. or.).

"Bat batera otu zitzaion Ana Josepari eskabideak luzapena bear zuala. Alde batetik diruari begiratzen zion, ta dirua beti zan atsegingarri; (...). Gañera, Malentxok zer zerabillen ta ze gogo zeukan jakitea etzetorren gaizki. Arrek nai izan ezkero... baño bestela zer egingo zan ba!" (Garoa, 223-224. orr.).

Esan daiteke bi zentzutan betetzen duela Ana Josepa pertsonaiak objetuaren laguntzaile papera: batetik, bere "lausotasunekin" lausotasun hauek salatzeko bidea irekitzen dio kontalariari eta, bestetik, mota honetako "lausotasunik" ezagutzen ez duen eredua bera, Joanes, erakustekoa. Ana Josepak eredu horren handitasuna eta edertasuna onartu eta paradigma horri jarraitzera bideratzen da bizimodu horrek errepresentatzen duen eredura bertara heldu gabe.

Ana Josepak kontrastearen eta eredu horri jarraitzeko borondatearen bidez laguntzen du paradigma erakusten. Aktante-laguntzailea osatzen duten beste pertsonaiek, berriz, bi laguntza eskaintzen dituzte ereduaren itzalpean biziz eta jarraitzaileen aktoregoa osatuz: objetu hori erakusten eta eredu horri jarraikiz kontalariaren nahia erdiesten: **Garoa**ren jarraipena.

Malentxoz maitemintzean, desoreka honek ekitera bultzatzen du Jose, desoreka honi irteera bat ematera; eta Joanesengana joko du azkenean bere egonezinaren sustraiak azaltzera. Eta honela zilegiztatuko du paradigmaren azalpena, paradigmaren jokatzeko modua, paradigmaren ikuspegia erakustea.

Malentxorengan moja sartzeko guraria ernetzean desoreka honek ekitera bultzatzen du, bere nahia betetzera; eta Joanesengana joko du, honen izaera paradigmatikoa azaltzeko aukera eskainiz.

Jose Ramon "azoketara geiegi" joaten zela esaten duen une beretik, kontalariak paradigmarekin neurtzen du, nahiz eta gero Arrasateko Santo Tomas eguneko azokan eta deman bakarrik etorriko den narraziora "azoketara geiegi" joate hori frogatzeko, baina karakterizazio horrekin bakarrik kontalariak ereduaren erakustea erdiesten du.

Bestalde, Jose Ramonek, eta honen ondorengo Manuelek, Joanesek aurkeztutako ereduari jarraituz, **Garoa**ren jarraipena zilegiztatzen dute Zabaleta baserrian; baita Josek Azkarraga baserrian ere.

Honela doa eraikiz kontalaria, aktante-subjetua, bere objetua: bizimodu bat, garo-usaina duen bizimodua. Objetu honen bidez,

objetu honengan garo-usain horrek hartzen duen hezurmamitzearen bidez, garo-usain hori lehen-lehenik honen familiari igorriko dio eta zabalpenez euskaldungoari, honek aldaketa-garai hauetan aintzinako euskaldunen bizimodua gorde dezan.

Aldaketen aurrean gorde. Hori da aktante-igorleak aktante-subjetuari igortzen dion ekintza. Eta honen nahia lehenalditik datozen baloreak gordetzen dituen objetu batean gauzatzen da, aldaketak dakartzatenen aurrean lehengo balore horiek defendatuz eta bere familiari eta euskaldungoari balore horiek erakutsiz.

Bat datoz pertsonaia-ereduari forma emateko modua, pertsonaia-eredua antolatzeko modua eta pertsonaia-eredu honen bitartez goraipatzen diren baloreak.

Pertsonaia-eredua egon dagoen pertsonaia bezala taxutzen du kontalariak, egonez balore batzu erakusten dituen pertsonaia moduan; izan ere, igortzen diren balore horiek lehengoa mantentzea eta lehengo baloreak gordetzea erakusten dute eta aldaketei uko egitea. Honela, bada, Joanesek ez du ezer bilatu beharrik; ez du abentura beharrik; ez da pertsonaia ihardulea, heroe pasiboa baizik, besteren ekintzen bidez taxutuz doana. Heroe kontserbadorea nekez ezkon daiteke abenturarekin, kontserbatze hutsak ez bait dakar ekintzarik.

Joanesek zenbait ekintza garatzen ditu eleberrian. Joanes, esate baterako, Malentxoren bataiora doa. Edo Urkiolara edo Joseren bila mendi aldera elurte batean. Baina ez dira prozesu bat eraikitzen duten ekintzak, pertsonaia prozesu bat bizi izatera daramatzatenak, sekuentzia bat zabaltzen dutenak; baizik eta jokatze-modu bat, bizimodu bat eta balore batzu erakusten dituzten ekintzak.

Aldiz, Iñazio Mari prozesu batera eramango du demazaletasunak: Azkarraga hondatzea dakarren prozesura. Baita Juan Andres ere bere diruzaletasunak: diru eske amaitzea dakarren prozesura. Berdin Martin Somorrostrok: ideologia berria dakarrenera... Aurkakoak dira iharduleak: zerbaiten bila dabiltza, abentura batera bideratzen dira. Eta Joanesek errepresentatutako bizimoduarekin eteten duen aktoregoa edo zeharo deserrotzen direnena osatzen dute paper aktantzialaren eraketan.

Edonola ere, prozesu hauek ez dute berbaldirik sortzen eleberrian, ez dira testuratzen. Berbaldi bihurtzen direnak prozesuaren

hastapena eta emaitza dira, eta honela pertsonaia-tipo legez eraikitzen dira eta ez gizabanako legez. Izen propio baten jabe dira, bai, baina matazan barrena jasotzen duten tratamenduak pertsonaia-tipo bihurtzen ditu: batak demazaletasuna errepresentatzen du, besteak diruzaletasuna, hirugarrengoak sozialismoa (kontalari honek ulertzen duen gisan). Abentura singularrak izan zitezkeenak, gizabanako konkretu batzurenak, abentura-tipo bihurtzen dira berbaldian, prozesuak isilunera eramanez. Izen propio baten jabe diren pertsonaia hauen alderdi bakar batek —demazaletasunak, diruzaletasunak— sortzen du desoreka; ondoren alderdi bakar horretan aurrera jarraitzen dutela adierazten da (honetara laburtzen da "prozesua"); eta, azkenik, emaitzen berri ematen.

Iharduletasuna somatzen da laguntzaileen artean ere, jadanik deskribatu den gisan. Eta iharduletasun hau, batetik, eredua, objetua bera, erakustera eta karakterizatzera bideratzen da, nahiz eta karakterizazio honetan mailu batekin bezala beti puntu berean jo; bestetik, berriz, pertsonaia-tipo hauek sortzera bideratzen da, Joanesi aurkajartzen zaizkionekin gertatzen den legez.

Bere arima garbi paregabeak Bidaurretako moja-etxean sartzera bideratzen du Malen, nahiz eta prozesu hau ez den testuratuko, aktante-aurkakoa osatzen zuten pertsonaien prozesuekin gertatzen zen legez. Abentura singularra izan zitekeen hau ere, baina abentura-tipo bihurtzen da, pertsonaia-tipo bat sortzeko: arima ederraren tipoa. Ana Josepak berak bere kontraesanekin euskal etxekoandrearen tipoa errepresentatzen du.

Joanes pertsonaia aldakaitza zela esan da izenburuan, eta hala da. Eleberriaren hasieran kontalariak ezarritako ezaugarri berberekin heltzen da Joanes eleberriaren amaierara. Egoteko modu bat azaltzeko besterik ez da izan berbaldia. Baina Garoako gainontzeko pertsonaiak ere aldakaitzak dira. Kontalariak aurkeztean ezarritako ezaugarriekin heltzen dira eleberriaren amaierara. Iharduletasunak desberdintzen ditu.

Batzu ezaugarri horiek ekitera bultzatzen dituzte, aldatzera. Behin aldatuz gero, ordea, aldaketan aldakaitz bihurtzen dira. Joanes, berriz, hasieratik bertatik da aldakaitza, "ezer egin gabe". Baina ez aktante-aurkakoa eratzen duten pertsonaiak. Hauek Joanesek eskainitako aldakaiztasuna utzi, honengandik urrundu eta aldaketa batean sartzen dira; eta behin bizimodu batetik bestera aldatuz gero, aldakaitz bihurtzen dute bizimodu berria.

Aktante-aurkakoak jasotako tratamenduak paper aktantzial hau betetzen duten pertsonaiak tipifikatzera jotzen du. Pertsonaia hauen alderdi eta ezaugarri bakar bat azaldu, "prozesuak" isilunera eraman eta aldaketan aldakaitz bihurtzen ditu.

Besteek, berriz, aldakaiztasunean erakutsiko dute aldakaiztasuna. Joanesen ordezkari izatera deituak daude Jose Ramon, Manuel eta Jose: garoari jarraipena ematera. Joseren maitemintzetik sortutako abenturak ez dio honi aldaketarik ekarriko: informazio-gabeziak eragindako zenbait gorabeheraren ondoren, Joanesen ordezkari izango da Azkarragan.

Malenen arima garbitik sortutako abenturak ere ez dio honi aldaketarik ekarriko: Joanesengandik fisikoki urrundu egingo da, baina Joanesen argia den Kristoren legea hurbilagotik jarraitzeko.

Ana Joseparen kontraesanetatik sortzen diren abenturek ere ez diote honi aldaketarik ekarriko. Eredua eraikitzeko baliabide izan dira kontrastez, eta euskal etxekoandrearen tipoa ezarri dute (Katalin eta Mikalla errainak zeharo bigarren mailan gelditzen dira, Jose Ramon Joanesekiko gelditzen den bezala. Tipoa Ana Josepak errepresentatzen du; errainak haren esanetara daude).

Joanes da Garoaren pertsonaia-protagonista. Kontalariaren nahia eta honen bizimodu paradigmatikoaren gauzatzea. Kontalari erraldoi bati dagokion pertsonaia erraldoia. Jainko txiki batek sortutako jainko txikia.

Kontalariaren gizaki perfektua. Baina ez dago ukatzerik, oso bigarren maila batean izan badaiteke ere, etxejaunaren aldamenean egon daitekeen etxekoandrearen tipoa sortzeko ahalegina. Mikallak eta Katalinek, batetik, eta Dionisiak, bestetik, laguntzen dute kontrastearen bidez, Ana Joseparen tipo hori sortzera. Hau da lehengo etxekoandrearen tipoa, gazduna hauen geldotasunaren aurrean:

> "Orea egiten eztakizute. Bai gatz gutxiko emakumeak! Maratzagoak izan gera gure egunetan..." (Garoa, 300. or.).

Pertsonaia lauak eta bilakaerarik gabeak dira, beren izaera sinplean tinko eta irmo dirautenak (sinplea konplexua ez den neurrian). Pertsonaien taxutze-modu hau testuaren helburu didaktikora bideratzen da gainontzeko koordenada narratiboen taxutze-moduarekin batera. Erraz ezagutzen dira, erraz identifikatzen, bere sinpletasunagatik eta modu dikotomiko batez eraikita dauden pertsonaiak direlako.

1.3.2. Joanes, euskal patriarkaren sinbolo

Maila anekdotikotik abiatu eta testua eratuz doan lekugune literario horri esker, Joanes euskal patriarkaren sinbolo bihurtzen da. Euskal Herria bera sinbolizatzera helduko da Joanes.

Eleberriak kontatzen duen historiaren hasieran hirurogeitamabi urte ditu Joanesek. Eta hogeiren bat urte igarotzen dira bere heriotzeko ordua heldu arte, zehatz-mehatz zehazterik ez badago ere. Testamentu Zaharreko patriarken gisara, luze samarra da Joanesen bizitza, erlatiboki behintzat. Heriotzaren orduan kontalariak berak alderatzen du Testamentu Zaharreko Gurasoekin:

> "Bere patxadeak, bere begi gozoen leñargitasunak, bere ille ta bizar zuri luzeak, Lege Zarreko Gurasoen itxura ematen diote" (**Garoa**, 295. or.).

Joanesen lanbidea artzantza da, ardiak zaintzea, ardien gidari izatea. Eta ongi zekien eginkizun hau betetzen:

> "Bazekian non idoroko zituan artaldearentzat bear ziran janaririk on ta egokienak.
>
> Bazekian nola sendatu bear ziran beor, bei ta ardien zauri ta gaixotasun ezagutuenak" (**Garoa**, 21.or.).

"Asko ikusia" izaki, Naturarekin loturik bizi den gizon honek Naturaren ezaguera handia du: animalia eta landareena, eguraldi aldaketena, etab. Eta ezaguera honek lagundu egiten dio bere lanbidean. Eta berak erantzunkizun osoaz betetzen duen lanbidea da, iluntzean ardiak eskortara bilduz, bateren bat galdu bazaio hura bilatuz...

Eta Aloña mendian ardiak uzten dituenean ere, artzantzak jarraitzen du Joanesen lanbide izaten: Zabaleta baserrian daukan artaldearena, bere familiarena. Eta badu eginkizun hau ongi betetzeko gaitasunik:

> "Bazekian, gañera, ta au zeukan gauzarik onentzat, guraso zarrak erakutsi zioten Eleizaren legea ta Jesukristok lurrean erabilli zuan bizitza samurra" (**Garoa**, 21. or.).

Kristoren legearen ezaguerak ematen dion argitasunean oinarriturik, Joanes familiaren artzain eta gidari bihurtzen da; hobeto esanda, gidaritza hau erakusten du matazaren garapenean. Semeei aholkuak emango dizkie, hauen bizitza izpiritualaz arduratuko da, ilobak heziko ditu:

"Etzuan arrek gaztetxoai zerbait adierazteko mugaldirik beñere galtzen" (Garoa, 65. or.).

Kontalariak emandako berria baieztatuz, kontaketa enmarkatu baten bidez, Joanes bera fikzioko pertsonaia kontalari bihurtu eta ilobei zuzenduko zaie, gainontzeko familikideak ere entzule dituelarik. Berak ikusitako gertaera bat kontatuko die, eta ondoren gertaera honek erakusten duen moraleja azaldu.

Familiaren gidari legez, berak itxiko du Iñazio Mari eta Mikallaren ezkontz tratua; berak salatuko dizkie ahuleziak urrutiratzen eta desbideratzen ari zaizkion semeei; berarengana joko dute Josek eta Malentxok beren asmoak azaltzera... Bera da gidaria.

Erabatekoa da bere ogibidearen eta familiaren barnean betetzen duen funtzioaren arteko isomorfia. Bere ogibidearen atsegin eta arrisku guztiak ditu familiaren gidaritza honek. Bere ogibideari buruz "nere ustea da hemengo legea" dio, eta bere ustea da Zabaleta baserriko familiaren legea ere. Bere ogibidean arrisku-orduak igarotzen dira ardiren bat ez eskortaratzean, otsoren bat artalderantz abiatzean; familiaren gidaritzapean ere arrisku-orduak igarotzen ditu seme batzu eskortatik ihes egitean, semeren bat ez itzultzean, semeen semeek itzultzeko itxurarik ez dutenean...

Gidaritza isotopiaren azpian eraikitzen da euskal patriarkaren sinboloa, ogibidetzan eta familian betetzen duen funtzioa iteratuz. Horretarako, ogibidetzan nahiz familian betetzen duen funtzioa anekdota desberdinen eta episodio desberdinen pilaketaz sortzen da, eta anekdota edo episodio bakoitza funtzio berbera sortzera edo betetzera bideratzen.

Joanes da artzaina antonomasiaz, eta bere ahots propioaz ematen ditu aditzera artzain-bizitzaren alderdi atseginak eta arriskugarriak. Kontalariak bere berbaldi diskurtsiboaren bidez ematen ditu aditzera artzain-bizitzaren alderdi atseginak eta arriskugarriak (53). Josek "bere lanarekin emaztegai maitea irabazten" artzain gisa eraman zuen bi-

(53) "Manaz betea da, eguzkia goietan dabillen bitarte guztia, mendietako artzaiarentzat. Bera da, artzaia da benetan bere buruaren jabe; uritar andikiak baño askozaz lasai ta askatuago dabil" (Garoa, 134. or.). Baina alderdi honi beste hau kontrajartzen dio: "baño arreta gabeko orduren baten bere ardiak geiegi sakabanatu baldin badira, (...) edo abere basatiren bat usterik ezean agertzen bazaio, lanak eta nekeak izaten ditu bazkatzalleak" (Garoa, 135. or.).

zitzak, artzain-ogibidearen alderdi atseginak eta arriskugarriak ematen ditu aditzera. Kontalariaren berbaldi diskurtsiboak, Joseren artzain-bizitzak, eta Joanesen adierazpenek gidaritza azpimarkatzen dute, eta gidaritza honen bi alderdiak. Iterazioaren eta errekurrentziaren bidez sortzen den funtzioa da gidaritzarena, artzain-bizitzan bere alderdi dikotomikoa guztietan azalduz.

Era beretsuan anekdota desberdinen pilaketaz doa sortuz Joanesen gidari-funtzioa familian: semeei emaniko aholkuak, ilobei eta gainontzeko familikideei kontaturiko gertaera bere moralejarekin, Iñazio Mariren eta Mikallaren arteko ezkontz tratua ixtea, Josek maitemindu ondoren bere barne-egoera azaltzea, Malentxok moja sartzeko nahia adieraztea... Guztiak gidaritza eraikiz doazen episodioak dira puntu berbera iteratuz, unitate linguistiko berbera, funtzio berbera.

"Artzain-bizitza" honek ere, familiaren gidaritzak alegia, bere alderdi atseginak eta arriskugarriak ditu. Heriotzaren orduan, honako hau azaltzen dio balantzeak:

> "Denak ikusten ditu irudimenez. Juan Andres oso urruti, arrotzen artaldean, euskalduntasuna galdurik, Zabaletakoen itxura gabe, seme ziztrin ergelaren guraso... Martin, askozaz urrutiago: illoba oni anima aldatu zaio, ta animak, aldatzean, txit urrutira joan oidira, gorputzak lengo tokian egonarren. Bai, argitik illunera, Jaunagandik Etsaiagana, usoak bele ta arkumeak otso egiteraño. O zer samiña norberak maite duan umea otso biurturik ikusi bearra, sorterri, adiskide ta gurasoen zematzalle! Jaungoikoak ikutuko al zion Martiñi biotzean, Malentxoren bitartez... Malentxo! Ura ere aldendu zan, baño Jesusen artaldera, zeruetako atarira, animak eskatzen duan zorionaren eske" (**Garoa**, 295. or.).

Problemek eta gidaritza honek sortutako arazoek ez dute Joanes aldatu. Ziurtasun osoz iraun du. Problemek ez dute berplanteamendurik ekarri. Jarrera berean jarraitu du Joanesek. Baina alderdi dikotomikoa nabaria da azken emaitzan: batzuk Joanesen eskortan jarraitzen dute; beste batzuk, berriz, alde egin dute. Gidaritzak emaitza moduan ematen dituen bi alderdiak dira, artzainaren gidaritzarekin gertatzen den legez.

Berbaldia, istorioak eratzeko modua, bi gidaritza hauek eratzera bideratzen da, gidaritza isotopiaren gain euskal patriarkaren sinboloa eraikitzeko.

Are gehiago, **Garoa**n Joanes Euskal Herriaren beraren sinbolo

bihurtzera heltzen da, Euskal Herriaren beraren izaera ordezkatuz.

Lekua koordenada narratiboaz mintzatzean eman da aditzera eleberrian eraikiz doan aurkakotasunetariko bat: aberria/erbestea. Honela karakterizatu da aberria: lekugune iraunkorra da, aldaketarik bizi ez duen espazioa, euskaldunak beren ohiturekin eta besterekin nahasi gabe bizi direneko lekugunea. Erbestea, berriz, aldaketak jasaten ari den espazioa da, "enda eta oitura" desberdinetako gizakiak elkarrekin nahasian bizi diren tokia, leku aldakorra.

Aberriaren sinbolo bihurtuz joango da Joanes artzaina. Aberria da bere eskorta, eta bera eskorta honen gidaria.

Urbia gainean duen eskorta (ardiena) eta honen gidaritza zabalduz doa eleberrian Zabaletakoen eskortara (familia) eta honen gidaritzara; baita azken hedapen batean Aberriaren eskortara (euskaldunena) eta honen gidaritzara ere.

Joanesek Urbiako haritz batekin alderatzen du bere burua. Iluntzeetan, oheratu baino lehen, "Joanesek, sukaldeko ixillu gañean jarrita, zintzoro agertzen zituan erakustaldi ederrak" (**Garoa**, 64-65. orr.), dio kontalari orojakileak. Eta "erakustaldi eder" hauen erakuskari gisa, ezagutu zuen gertaera bat kontatzen die Joanesek berak bere familiakideei. Baina ez da Joanesek kontatuko dien gertaera bakarra. Beste batean ere, ohitura honi jarraiki, Urbiako zelaian egindako ametsa kontatuko die. Aurreko gertaeraren amaieran moraleja ateratzen bazien, oraingo honetan ametsetako haritzarekin duen antza azalduko die:

> "—Biok gera mendikoak, biok lagun zarrak, biok asko ikusiak, biok aldegun aña on egin degunak, arrek, ori bai, zer egin duan eztakiala, nik jakiñaren gañean. Alkarren itxurak baditugu, zarrak geralako; baño, egia, ezkera gauza guztietan berdiñak, ezta urrik eman ere" (**Garoa**, 182. or.).

Baina Joanesek berak ezartzen dituen kidetasunez eta desberdintasunez harantza, Joanes bera doa HARITZ bihurtuz, Euskal Herriaren sinbolo (Aberriaren sinbolo, eleberrian gorputz hartzen duen Euskal Herri horren, Aberri horren, sinbolo), **Garoan** sortzen den Euskal Herriaren gidari. Izan ere, halakoa da Joanesen "historia", Joanesek testua den lekugune honetan erakusten duen egoteko modua, Joanesek testua den transformazio-toki horretan hartzen duen itxuratzea.

"Zuhaitza" terminoaren erabilera metaforikoak tradizio luzea du, ez bakarrik literaturaren alorrean, baita literaturaren alorretik at ere. Eta beste hainbeste gertatzen da zuhaitz horien barnean haritzaren erabilera metaforikoarekin. Euskal Herriaren mugen barnean ere oso tradizio luzea du haritzaren erabilera metaforikoak.

Zuhaitzak irudi hirukoitza aurkezten du orohar, bere ezaugarrietatik sortzen diren irudi legez: telurikoa, zerutiarra eta espaziala.

- Telurikoa: lurrari itsatsia, lurretik sortua, ez dago lurrari itsatsi gabeko zuhaitzik.
- Zerutiarra: gorantza garatzen da, goranzko norabidea hartzen du.
- Espaziala: lekuaren alderdi desberdinetara hedatuz doa.

Joanesen aurkezpenean egiten den deskripzio hiperbolikoan bere sendotasuna, gotortasuna, zindotasuna eta luzera (54) azpimarkatzen da:

> "Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.
>
> (...)
>
> Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oñak, zindoak bere bular-auspoak" (**Garoa**, 19. or.).

Zuhaitzak hartzen ditu alderagai kontalariak Joanes deskribatzerakoan: batetik, Joanesen bizilekutik bertatik —mendia, baserria— hartzen ditu bera karakterizatzeko irudiak eta bere ingurune propiora jotzen du iruditegia sortzeko; eta, bestetik, pertsonaiaren deskripziotik bertatik hasten da bere karakter teluriko eta zerutiarra bereziki itxuratzen. Lurra eta zerua dira bere bi erreferentzi puntu nagusiak, behin eta berriz pertsonaia karakterizatzerakoan iteratuko direnak:

> "Oitua zegoan Joanes zerura ta lurrera, gabaz ta egunez, arreta andiz begiratzen" (**Garoa**, 19-20. orr.).

"Asko ikusia" den pertsonaia honen jakituria bi alorretara

(54) Aintzinako sistema espainolean hamabi hazbete balio zuen "oina" neurri-unitateak, hau da, 0,27860 metro. Mundu anglosajoian ere hamabi hazbete hartzen ditu, baina 0,3048 metro.

zabaltzen da: lurraren ezaguerara eta ezaguera zerutiarrera (55). Bere deskripzio fisikoak, bere begien begiradak eta bere ezaguerak bi norabide dituzte: lurra eta zerua. Atal desberdinak deskribatzean bi erreferentzia hauek iteratzen dira. Lurrean itsatsia eta zerura begira dagoen pertsonaia da bere deskripziotik bertatik, bere alderdi fisiko eta adimenaren deskripziotik bertatik, eta alderdi desberdinen deskripzioan iteratzen da. Eleberri osora hedatzen da errekurrentzia hori: Joanes mendian bizi da bereziki eta Jaungoikoa du lagun (56); seme eta ilobei ematen dizkien erakutsiek ere bi ildo hauek erakusten dituzte, lurrari atxikirik bizi eta kristau zintzoak izan.

> "Illobatxo, Joxe, nere semeak: bizi zaitezte baserrian, toki oberik eztagota; maite zazute mendia, maitagarria data; baño mendian bertan piztirik billatzen badezute, alde Jaungoikoaren izenean piztietatik gurutze ondora" (**Garoa**, 70. or.).

Berak honela deskribatzen du bere buruaren alderagai hartzen duen haritza:

> "'Errozabal, gerri lodi, lepoker, buru orritsu, gorengo abarrak ia zeruetan zituana zan aritza. Sustraiak, sendo sendoak, inguru danean lurretik ertenda zeuzkan'" (**Garoa**, 179. or.).

Joanesek egiten duen haritzaren deskripzioan bertan, haritz hau lurrari gotorki itsatsia eta zeruranzko norabide indartsuarekin azaltzen da.

---

(55) "Bazekian non ta noiz jaiotzen ziran gibelurdiñik gozoenak eta zein tokitan zeuden kamamilla, belatxeta, karraskilla ta beste orrelako belar mota gizonarentzat osasungarriak.

Bazekian non idoroko zituan artaldearentzat bear ziran janaririk on ta egokienak.

Bazekian nola sendatu bear ziran beor, bei ta ardien zauri ta gaixotasun ezagutuenak.

Bazekizkian baso guztietako laster bideak eta bost ordu bide inguruko arkaitz zulo ta aterpe denak.

Bazekizkian zer leku zeuzkaten goi urdiñean izarrik nagusienak eta artizarrak batez ere. (...).

Bazekian, gañera, ta au zeukan gauzarik onentzat, guraso zarrak erakutsi zioten Eleizaren legea ta Jesukristok lurrean erabilli zuan bizitza samurra" (**Garoa**, 21. or.).

(56) Joanes ezagutzean, "—Ta beti mendian zaude, bakarrik?" galdetzen dio kontalariak. Joanesen erantzuna honako hau da: "Bakarrik ez, nere Jaungoikoarekin" (**Garoa**, 22. or.).

Zuhaitzaren metafora behin eta berriz erabiltzen da Joanes izendatzeko. Berak darabil beste une batean Malentxori mintzatzen ari zaiolarik:

> "Zu zera, ez bakarrik nere samiñen eztia, baita ere nere luzapena, Zabaletako zuaitz zarraren kimu berri maitea..." (**Garoa**, 237. or.).

Josek ere metafora hau erabiliko du hil zorian dagoen aitona Joanes izendatzeko:

> "O, ez! Zuaitza erortzean itzalik ezta" (**Garoa**, 297. or.).

Eleberria osatuz doazen elementu desberdinak pertsonaia-protagonista honen egonkortasuna eraikitzera bideratzen dira: sustrai sakonak dituelako egon dago Joanes, lurrari gogor itsatsia eta zerurantz begira zeruaren zain.

Bere deskripzio fisiko, adimenezko eta izpiritualak Joanesen egonkortasuna erakusten dute; baita Joanesen irakatsiek ere. Azken finean, eleberriaren hezurdura eratuz doazen koordenada narratiboek zerurantz begira dagoen egonkortasuna erakusten dute: leku egonkorra, denbora egonkorra, pertsonaia-protagonista egonkorra. Eta egonkortasun hau, aktante-aurkakoaren ez-egonkortasunari esker eraikitzen da batipat, eta baita aktante-laguntzailearen laguntzarekin ere.

Aldaketaren menpe ez dagoen lekugune batean bizi da Joanes: zulatu ez dituzten mendietan eta baserrian; lekugune iraunkorrean. Fikzioak gutxi gorabehera irauten duen hogei urteetan ez du inolako aldaketarik ezagutzen. Bilakaerarik gabe, hasieran zeukan karakterizazio berberarekin heltzen da amaierara. Eta beste pertsonaien ihardu letasunari esker eraikitzen den eredu gisa deskribatu da. Zuhaitza eta haritza irudien erabilerek indartu egiten dute pertsonaiaren eraikuntza hau, eta haritzaren sinboloa bera hezurmamitzera eta "haragitzera" heltzen da.

Erabatekoa da Joanes eta zuhaitzaren arteko baterakuntza: biek bat egiten dute. Joanesek eleberrian jasotzen duen tratamenduak eta bere ideiek testua den esanahi-sorkuntza horretan zuhaitzaren sinboloa eraikitzen dute pertsonaia hau sinbolizatzeko.

Joanesek **Garoan** egiten duen "ibilbidea", "bidaia", azaleko eratze-modu batetik sakoneko eratze-modura doa, eta azaleko eratze-modu horren osagaiak sortuz doaz sakoneko eratze-modu hori. Joanesek **Garoan** egiten duen "ibilbidea", "bidaia", Urbiako artaldearen artzain

izatetik Aberriaren (**Garoan** eraikitzen den Euskal Herriaren) artzantzara doa —tartean familiaren artzantza (Zabaletako familiarena) garatzen delarik—, testua den transformazio-toki horretan hartuz doan esanahiei esker:

Urbiako artzaina —Zabaletako artzaina— Aberriko artzaina.

Tradizioan ezarri da **Garoan** barrena berbaldira datozen ekintzen igorletza, Euskal Herriaren bizimodu tradizionala jo da aktante-subjetua (kontalaria) objetu bat, bere nahia den objetua (Joanes), itxuratzera daraman indar legez. Aktante-subjetu honek igorletzarekin bat egin eta bizitza-modu tradizional bat "haragitu" du Joanesengan. Pertsonaia itxuratzean, pertsonaia hori itxuratzeko darabiltzan baliabide guztiak tradizioa azpimarkatzera bideratzen ditu. Zuhaitza bera tradizioaren sinbolo esentzialetako bat da (57).

Hain da osoa eta erabatekoa zuhaitza metaforaren erabilera Joanesen pertsonaia sinbolizatzeko, Joanes hiltzen denean kosmosaren heriotza bera bait dator (58). Zuhaitzak errepresentatzen duen kosmosaren bizitza hil egiten da Joanesen heriotzarekin.

Kontalariak hitz berberak erabiliz, bi bider aditzera ematen du kosmosaren heriotz hau. Behin Joanes hil zorian dagoela, bere heriotza oso hurbil dagoenean:

> "Goibel zerua, odeiak geldi, txoriak ixil, aizearen izpirik ez, soroetan iñor ez, errekastoak ur gabe... izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike" (**Garoa**, 294. or.).

Adierazpen hau iteratu egingo da Joanesen heriotzaren ondoren, bigarren adierazpen honetan kosmosaren heriotz hau leku konkretu batera mugatzen delarik:

> "Zerua goibel, odeiak geldi, txoriak ixil, aizearen izpirik ez, soroetan iñor ez, errekastoak ur gabe... Uribarri aldean izadiaren indarrak bukatu dirala esan leike" (**Garoa**, 298. or.).

Eta, izan ere, haritza hil da, Aberriaren gidaria, Aberriaren itza-

(57) "El árbol es uno de los símbolos esenciales de la tradición". SORAZU, E.; **Antropología y religión en el Pueblo Vasco**, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1979, 189. or.

(58) Honela mintzo da E. Sorazu zuhaitzari buruz: "Representa en el sentido más amplio la vida del cosmos, su densidad, crecimiento, proliferación, generación y regeneración". **Ibidem**, 189. or.

la, nahiz eta haritz honek hil aurretik kimu berriak bota eta haritzak jarraipena aurkitu duen kimu berri horien bidez. Hor daude lekuko gisa Jose Ramon, Zabaleta baserrian, eta Jose, Azkarraga baserrian.

Garoan itxuratuz doan Joanes pertsonaia, berak bere buruaren alderagaitzat jotzen duen haritza bezalakoa da: zaharra, lurrari itsatsia, lurretik zeruko argira begira dagoena, handia, sendoa, mardula, "inguruko zuaitz lagun guztiak baño andiago, sendoago ta mardulago". Joanes bera bait da paradigma, kontalariak sortutako eredua Garoako pertsonaien artean. Honela jarraitzen du haritzaren ihardunaldiak:

> "'Asko ikusia naiz, geroztik, nere bizitza luzean. Ekaitzak neri egin dizkitan iraintasunak ezin zenbatetu ditezke. Sarri artu bear izan det nere gañean kaskabarraren zartada zitala, sarri jo ta zauritu nau odeietatik biziro jetxi dan arri trinko zoliak, milla ta geiago aldiz bai aize indartsuaz burruka gogorrean gau osoak igaro ditut, eta garaietan, guda beltzaren erdian adarrik onenak urratu zaizkit. Sustrai sendoari eskerrak, eztet nere bizitza osoa galdu. Sustraia, sustraia bear da mardula izateko ta ekaitzari arpegi emateko: batetik bestera aldatzen dituzten zuaitzak, lirañak, sustrai gabeak, or erortzen dira buruz bera ta parregarri ekaitzaren aurrean'" (Garoa, 180. or.).

Joanes ere "asko ikusia" da bere bizitza luzean. Ekaitzak, kaskabarrak, harri trinkoak, haize indartsuak... erasotua da, eta "borroka" honetan zenbait adar urratu egin zaizkio. Baina bere sustrai sendoei esker tinko eta zutik iraun du; izan ere, batetik bestera aldatzen dituzten zuhaitzak erori egiten bait dira sustrai gabe.

Guztiz nabaria da paralelotasuna, alegoriatik edo parabolatik Garoan kontatzen den anekdotara eta Joanes pertsonaiaren hezurmamitzera igaroz. Fikzioan, ekaitzak, kaskabarrak, harri trinkoak, haize indartsuak... Joanesek seme eta ilobengandik jaso dituen erasoak ematen dituzte aditzera, maila handiago edo txikiagoan. Iñazio Marik eta Juan Andresek, Juanitok eta Martinek, beren ahulezia, bizio eta ideologia aldaketa medio, erasotu egin bait dute Joanes eta Joanesek errepresentatzen dituen baloreak, ideologia eta mundu-ikuskera, nahiz eta eraso hauek ez duten pertsonaiarengan barne-gatazkarik sortzen, nahiz eta eraso hauek ez duten Joanesen mundu-ikuskera kolokan jartzen, nahiz eta eraso hauek berplanteamendurik eta desorekarik ez dakarten. Ekaitzak, kaskabarrak, harri trinkoak eta haize indartsuak haritzari urratu dizkioten adarrak Juan Andres, Juanito eta

Martin dira. Nahiz eta adarrik onenak urratu, bere ondorengo biologikoak alegia, berak, Joanesek, tinko dirau, sustrai sendoak izaki eta lurrari gogor itsatsita egonik zeruko argia gidari. Eraso guzti hauek ez dute aldaketarik sortu berarengan. Desoreka guzti hauek ez dute eraginik izan berarengan. Eraso guzti hauek ez dira transformazio-iturri bihurtu berarengan.

Ekaitzak, kaskabarrak, harri trinkoak eta haize indartsuak, hots, gaizkiaren indarrek urratu dizkioten adar horiek ez dute lur hartu beste inon ere. Naturaren indarrek harantza eta honantza darabiltzan adar dira.

Haritzak honela dio bere burua gai duen ihardunari jarraipena emanez,

> "'Ainbat goialdeko ipui eta lurpeko gertaera badakizkit, urteak erakutsita. (...). Nere kopetaz goialdera begira ikasi det zenbat argi gozo agertzen diran gabaz zeru urdiñean'" (**Garoa**, 180. or.).

Joanesek ere ezagutzen du non lurgaineratzen dituen lurpeak hainbat eta hainbat jaki edo belar: gibelurdiñak, kamamilla, belatxeta, karraskilla, larrerik hoberenak...; eta baita non aurkitzen ziren goialdetako izarrik nagusienak eta artizarrak ere.

Haritzak eransten du Joanesek eginiko amets horretan:

> "'Baita ere badakizkit gizonen uste ta itxaropen batzuek. Maiz etortzen da nere ondora Urbiako artzai gaztea ta emen atera oiditu, oiulari, bere biotzeko maitetasun zintzo zintzoak. (...). Iñoiz bein jarri oida nere oñetan, zu orain zauden antzera, uri gizon igar bat, eta bakarrik dagolakoan, aitortzen ditu, aopean, bere ondamuak, bere dollorkeriak, lagun urkoarentzat gordeta dauzkan gorroto gordiñak'" (**Garoa**, 181. or.).

Joanesek ere ezagutzen ditu gizonen uste eta itxaropenak. Kristoren legearen ezaguerak ematen dion argian ikusten ditu Joanesek gizonen argaltasunak.

Honela ematen dio jarraipena haritzak Joanesi zuzentzen dion ihardunaldi honi:

> "'Ni izandu naiz egazti mota guztien jantoki, aterpe ta logela; nere gañean esan dituzte txoriak, gau ta egun, beren txirripititxiorik pozgarrienak; nere beso tartean egin dituzte beren kabi ta bizilekuak; (...). Aldetan aña on egin diot edozeñi: nere orri ta ezkurrak,

urtero, aberien oe ta janaritzat eman ditut; nere adar guztiak aga, kerten, makilla, ta esolatzat edo gizonen berogarritzat kendu dizkate'" (**Garoa**, 181. or.).

Joanesen adarretan aurkitu dute jantokia, aterpea eta logela behartsuek (59); Joanesen adarretan aurkitu dute habia morroiek (60). Bere erakutsiez elikatu dira berarengana hurbildu direnak; eta, azkenik, Jaungoikoari eskainiko dio adarrik eta kimurik onen eta maitatuena: Malen (61).


Joanes haritz hori bera da. Joanes pertsonaia haritzaren metaforak sinbolizatzen du, haritz honen bitartez euskalduntasunaren sinbo-

(59) "Amaika eskaleri eskupekoa emanda gaiñera bete zien urdalla Ana Josepak Zabaletako sukaldean, ta baita lo ederra eragin ere aldemeneko guk ezagutzen degun sapai artan!" (**Garoa**, 41. or.). Edo "Gaitz bat zuan Malentxok, aldi batzuetako amonaren esanak siñistu nai badira: esku zabalegia izatea. Eltzekondoa bazan, esne beroa bazan, ogi puska edo geeli zatia, bere atorra edo amaren gonea, berealaxe jan edo jantzi eragingo zion Malenek atarira zetorren beartsuari" (**Garoa**, 121-122. orr.). Malentxok aitona eta Joserekin Urkiolara joaten denean ere, "eskale bati ematen dizka enparatuak" (**Garoa**, 165. or.).

(60) "Pedro Anton etxeko morroi zar maitea zuten, etxeko seme bezela. Etzan ezagun Zabaletan zein zan seme ta zein morroi" (**Garoa**, 41. or.). Iñazio Mari eta Juan Andres etxetik joan zirenean, Iturraldeko Jose, adiskide batzuren seme umezurtza, ekarri zuten. Jose "Pedro Anton morroi zarraren irudira etxekotzat zeukaten" (**Garoa**, 64. or.). Ana Joseparen garrazkeria bat eta informazio-falta tarteko Josek Zabaletatik alde egiten duenean, argi eta garbi emango du bere epaia Joanesek, jantoki, aterpe eta logela izate hori, bere ahots propioaren bidez aditzera emanez: "Zabaletako atean etzaio iñori egundaño bultzarik egin, ez errikori ez erbestekori, ta gutxiago beartsua izan bada. Edozeñek euki du gure maian oporra bete salda eta etzaio ukatuko ere ni bizi naizan artean. Etxe onetako morroiak etxetik ezkondu dira edo bertan il dira, beren gogoz erten ezpadute. Baño ezta Jose gure morroi, ta neke azpian erabilliarren, eztiogu beñere alogerik eman. Etzazute aztu: nere adiskide on baten semea da; neuk esan nion orren aitari, eriotz aurrean, nere illoben antzera maitetuko nuala Jose, ta maite det, maitegarria data" (**Garoa**, 240-241. orr.). Azkenik, Joanesen iloba Paularekin ezkontzean, Joanesen "adar biologikoetan" beraietan aurkituko du habia Josek.

(61) Malentxok moja joateko asmoa azaltzen dionean, honela mintzatzen zaio Joanes: "Zu zera, ez bakarrik nere samiñen eztia, baita ere nere luzapena, Zabaletako zuaitz zarraren kimu berri maitea... Baño neuk ere, nere antzera, Jaungoikoari eskenita zauzkat eta Jaungoikoak ondo artu bear izan du nere oparia. (...). Ni ilda gero joango baziña, neuk utzitakoa emango nioke Jesusi, ta eznuke orrela nai: eztiot neuk utzitakoa eman bear; neuk daukatana, neuk lurrean geien geien maite detan izatea emango diot, naiz ta, zuk etxetik ertetzean, nere biotza zauriturik odola dariola gelditu..." (**Garoa**, 237. or.).

lo bihurtzen delarik. Honenbestez, honela laburtuko litzateke Joanesek **Garoa** testuan egiten duen "ibilbidea", "bidaia":



Haritz horren adarren zabalerak Aberriaren hedapena hartzen du (**Garoa**n barrena itxuratzen den Euskal Herriarena, aberriarena). Bere sustraiak gogor itsatsirik dauzka lurrean eta gurutzea du goiko erpinean.

Garoako haritzari urratu zaizkion adarrak, euskalduntasuna, alegia garo-usaina, galtzean urratu zaizkio. **Garoa**ko haritzari erori zaizkion adarrak euskalduntasuna galdu duten adarrak dira, garo-usaina galdu duten adarrak.

Juan Andresek Gaztelerrira joateko asmoa azaltzen dionean, kezka bat nagusitzen da Joanesengan:

> "Nola nai ere Burgos aldean eztu euskerarik billatuko beintzat, eta euskerari utzitzen badio, euskalduntasuna ere or nunbait ibilliko da euskerarekin batean. Gordeko aldu gure euskera maitea bere biotzaren erdian, **Aita gurea**, esateko bada ere. Ezaldu galduko etxetik daraman garo usaia!" (**Garoa**, 54. or.).

Gaztelerrian denboraldi bat igarota Juan Andres Zabaletara datorrenean, Joanesek bere kezkak gauzatu egin direla konprobatu ahal izango du. Horrela ematen du behintzat aditzera:

> "—Ez aiz mendikoa, eztirudik gutarra, joan zaizkik emengo garo usaiak" (**Garoa**, 108. or.).

Heriotzeko orduan Joanesek Juan Andres bere eskortatik at dakusa, arrotzen artaldean, euskalduntasuna galdurik.

Berak, Joanesek, sinbolizatzen duen euskalduntasuna galdu du Juan Andresek; baita Martinek eta Juanitok ere. Erbestean daude, Joanesek sinbolizatzen duen aberritik at.

Euskal ohiturak eta Jaungoiko Ahaltsu Donearen aginduak ahazteak darama Juan Andres arrotzen artaldera, aberritarren artaldea uztera, Joanesen artaldetik kanporatzera eta "beste enda, oitura eta izkera" batzutakoekin nahasian euskal tradizioarekin etetera. Somo-

rrostroko irakatsiek daramate Martin arrotzen artaldera. Guztiek amankomun duten oinarria euskal tradizioa bertan behera uztea da: euskal ohiturak eta Jaungoiko Ahaltsu Donearen aginduak. Handiagotu egiten da etena Juan Andresengandik Juanito eta Martin mitinlariengana. Lehenak, Juan Andresek, ahaztu besterik ez ditu egiten; bigarrena, mitinlaria, urrats bat gehiago eman eta balore horien aurka altxatzen da. Honela zuzentzen zaio Martin entzulegoari Eibarren emaniko mitinean:

> "'Langilliak: Euskalerrixan jaixo naiz, baña euskaldun izatiak eznau batere arrotzen' (...). 'Gure gañean eztago iñor, ez erregerik, ez Jaungoikorik...'" (Garoa, 291-292. orr.).

Hizkuntzaren erabileran bertan aldaketak somatzen dira. Juan Andresek gaztelera ikasi du, baina Zabaletakoekin euskaraz mintzatzen da; semeak, Juanitok, euskaraz ez daki. Hizkuntza bera galeran doa, haritzari urratutako adarraren adarrak ez du aitonaren hizkuntza ezagutzen. Aipagarria da hizkuntzaren erabilera honetan kontalariak Martinekin hartzen duen jokabidea. Somorrostron jasotako "ikasketen" ondoren euskaraz mintzo da Martin, baina Eibarren ematen duen mitinean ordurarte erabili ez duen euskalkian zuzentzen zaio entzulegoari.

Kontalariak gertaerak Oñati eta honen inguruetan lekutzen ditu, baina pertsonaien hizkera hautatzerakoan ez du Oñatikoa hautatu. **Garoa** den fikzio-mundu horretako pertsonaiek gipuzkeraz hitz egiten dute; izen propio baten jabe egiten diren guztiek bai behintzat. Baina Eibarko mitinera heltzen denean, kontalariak hautsi egiten du testu osoan zehar eraikiz joan den araua —testuingurua—, arau horretatik desbideratzeko, eta ordurarte gipuzkeraz mintzatu den Martin beste euskalki batean mintzatzen jarriz.

Euskalki hori ez dator lehenbiziko aldiz testura Martinek emaniko mitinean. Aurretik kontalariak ekarri ditu berbaldira Oñatiko hizkeraren zenbait ñabardura: haurren ahotsera edo Oñatiko emakumeen ahotsera, izen propiorik gabe narraziora datozen emakume eta haur batzuren ahotsera. Ahots hauen bidez testuratzen dena ez da propioki Oñatiko hizkera; izan ere, hizkera honen zenbait forma nahastu egiten dira hizkera honetakoak ez direnekin; eta forma horiek, gainera, kontalariak grafikoki azpimarkatu egiten ditu kurtsiba erabiliz (62).

(62) Ikus **Garoa**, 75. or. eta 105. or.

Badirudi jokabide hau jokabide kostunbrista hutsa dela: kontalariak koloreztatu eta margotu egin nahi duela izen propiorik gabeko pertsonaia hauen hizkera; "kolore lokala" ekarri nahi duela. Fikzioa-errealitatea harreman horretan kontalariak bere mundu propioa eraikitzea bilatu du; eta horretarako istorio bat asmatu du, pertsonaia batzu sortu ditu, pertsonaia hauek denboraren koordenadetan kokatu ditu, espazio batean lekutu ditu..., pertsonaiei, bere buruari, hizkera bat eman die. Baina, une jakin batzutan, hizkera zertxobait egokitzea bilatu du fikziotik at kokatzen den mapa linguistikoak ezartzen dituen euskalkien aldaeretara, Oñatiko aldaeraren zenbait forma hartuz eta forma hauek pertsonaia berberen esaldietan aldaera horri ez dagozkion formekin nahasiz. Bi bider datoz bakar-bakarrik izen propiorik gabe kontaketara datozen oñatiarrak, eta bietan ematen zaio "kolore lokal" hori hizkerari.

Baina izen propioarekin kontaketara datozen oñatiarrek ez dituzte "Oñatiko hizkera"-ren forma horiek erabiltzen. Joanes, Ana Josepa, Jose Ramon, Iñazio Mari, Juan Andres, Paula, Malen, Luisa, Peru Odolki, Moxolo... ez dira "Oñatiko hizkeraz", ez gipuzkera ez den beste euskalkiren bateko aldaeraz mintzo; ezta Martin ere, Eibarren mitina ematen duen arte. Hemen testuan honaino eraikitzen ari zen araua hausten da.

Eibarko mitinean Martinen aurretik hitz egin duen gizonak gazteleraz hitz egin du; baina, dekoroaren legeak hala eskatuta, kontalariak ez ditu transkribatu gizon honen esanak:

> "Bego Eibarren bizar biko gizontxoaren erakastea: guk eztegu lizunkerien berririk eman bear" (**Garoa**, 291. or.).

Martinen hitzak beste behin bakarrik datoz narraziora Eibarko mitinaren ondoren: epilogoan. Eta bertan Pedro Migel Azkarragaren herentziaren banaketaren ondoren lehengo adiskideen aurrean hartu duen jarrera berria aditzera ematen du. Gazteleraz zuzentzen zaie lehengo adiskide hauei: "**el Nunsio que os de, lo mío para mí es y...**" (**Garoa**, 304. or.).

Zaila eta arriskugarria ere izan daiteke Martinen hizkerak Eibarko mitinean markatzen duen kontrastearen funtzioa zedarritzea testuaren osotasunaren barnean. Baina uka ezinezkoa da, izen propio baten jabe izanez, narraziora datozen pertsonaien hizkerarekin hautsi eta beste hizkera batera igarotzen dela; baita epilogoan bere hitzak beste hizkuntza batez, gazteleraz, ematen direla aditzera ere.

Juan Andres atzerriratzera zihoan unean "euskerari utzitzen badio, euskalduntasuna ere or nunbait ibilliko da euskerarekin batean" zioen Joanesek. Eta Joanesen bildurrak baieztatu egingo dira fikzioan. Semearengan, Juanitorengan, ez dago euskalduntasunaren arrastorik ere; honek ez du euskara uzten lanik izan, ikasi ere ez bait du egin. Eibarko mitin horretan euskalduntasuna zeharo galdu duen Martin gazteleraz mintzatzen ez badakar ere, kontalariak ez ote dio pertsonaia honi gainontzeko pertsonaien hizkera ukatu? Ez ote du kontalariak ukazio honen bidez aditzera eman nahi pertsonaia hau ez dela aski duin gainontzeko pertsonaiek darabilten hizkeraz mintzatzeko? Eibarko mitinean zabaltzen diren mezuak edozein hizkuntza edo hizkeratan aditzera eman daitezkeela alegia, Joanesen hizkeran izan ezik?

Juan Andresek euskal ohiturak eta Jaungoiko Ahaltsu Donearen aginduak ahaztu bakarrik egiten ditu eta Joanesen hizkeraz zuzentzen zaie Zabaletakoei, Juanitok euskal ohiturak ezagutu ere ez ditu egiten eta otoitzari barre egiten dio eta gazteleraz zuzentzen zaie Zabaletakoei. Martinek euskaldun izatea baino nahiago du lurbiratarra izatea, eta Jaungoikoaren existentzia bera ere ukatu egiten du, Joanesek errepresentatzen dituen baloreen beste muturrean kokatuz. Eta, ondorioz, ideia hauek jalgitzen ditueneko Eibarko mitin horretan ez ote darabil beste hizkera bat Joanesek defendatzen dituen baloreen aurkakoak Joanesen hizkeran ezin defenda daitezkeelako?

Joanes pertsonaiaren aberri-gidaritasun hori indartzeko eta sinboloaren eraikuntzan bere ekarria egiteko kontalariak haritzaren irudira jotzen duenean, ez du euskal literaturan nahiz euskal literaturatik at sinbolo gisa maiz erabilitako zuhaitz bat hartu besterik egiten (63). Sinbolo tradizional bat, beraz. Erromatarren garaiko hilarri akitaniarretan beraietan dokumentatzen da Arixo Deo, kristautasuna heldu aurretikako jainkoa. Zuhaitz beneragarriak —gehienetan haritzak— ikusten dira aintzinako santutegien inguruetan. Nahiz eta zuhaitza kultu-objetua izan denik ez den frogatu, badirudi garrantzi handiko elementu sakratua izan dela Euskal Herriari dagokionez.

Zuhaitz beneragarri baten itzalpean egiten dira biltzar publikorik gehienak Aintzinako eta Erdi Aroko euskal historian: Laburdiko biltzarrak Aitzeko hariztian biltzen ziren; Zornotzako merinaldea

(63) Ikus CARO BAROJA, J.; **Ritos y mitos equívocos**. Ediciones Istmo, Madrid, 1974, 353-391. orr.

Aretxabalagañeko zuhaizpean biltzen zen, eta "haritz zabal" hau ikustera joaten zen Bizkaiko jauna Gernikan zin egin ondoren; Durangoko merinaldeko ordezkariak Gerediagako harizpean biltzen ziren; Gernikako harizpean biltzen ziren Busturiako merinaldeko ordezkariak eta Bizkaiko jaurerriko Biltzar Orokorretako ordezkariak...

Haritz honek **Garoan** barrena euskalduntasuna sinbolizatzen du. Euskalduntasun hau honela ulertzen da: lurrari atxikia bizi sustrai sendoen bidez; aldakaiztasunari loturik bizi tinko eta irmo tradizio luzea duen euskal espazioan, aldaketaren menpe ez dagoen espazioan; tradizio luzea duten zereginak ogibidetzat hartu eta lur honi tinko atxikirik ahalik eta punturik gorenenera heldu izpiritualtasunaren alorrean; zeruarekiko ahalik eta hurbiltasunik handiena erdietsi.

Aurreko mendean maiz erabili zen irudi batera (64) jotzen du Domingo Agirrek haritzaren irudia erabiltzean. Baina ez honetan bakarrik; baita berak **Garoan** barrena darabiltzan hainbat dikotomiatan ere: lehen/orain, euskara/erdara, goia/behea (65). Ez dago isolaturik. Badu kiderik nahiz zenbait baliabideren erabileran nahiz zenbait jarrera azaltzean.

2. GAROAREN JARRAIPENA: KONTALARI OROJAKILE BATEN NAHIA, KOROLARIO DIDAKTIKOA

Garoa eleberriaren kontalariaren nahia garoaren jarraipena da:

---

(64) Arbola edo zehazkiago haritza metaforak XIX. mendeko hainbat bertsotara eramaten dira Euskal Herria sinbolizatzeko. Ikus, esate baterako, J. M. Iparragirreren "Gernikako Arbola" in ONAINDIA, A.; **Mila euskal-olerki eder**, I, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 2. argitalpena, 348-349. orr. Edo F. Arrese Beitiaren "Arbola bat" in ONAINDIA, A.; op. cit., 293-294. orr. Edo G. Adema "Zalduby"-ren "Gauden gu euskaldun" in **RIEV**, III, 1909, 396-398. orr. Edo Sabino Aranaren "Euzko Abendearen Ereserkija" in **Obras Completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, III, 2413. or. Edo J.B. Elissanbururen "Eskalduna". Ikus "Poesías de J.B. Elizanburu" in LABAYEN, A.M.; **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1978, 200-202. orr.

(65) Ikus, esate baterako, ARRESE BEITIA, F.; **Olerkiak**, Gráficas Bilbao, Bilbao, 1956? A. Onaindiak prestaturiko argitalpen honetan "kantu errikoiak" sailaren azpian aurkeztuak aztergai bihurtu zituen A. Zelaietak. Azterketan "Binarismo"-ari eskaintzen dio atal bat eta bertan, beste zenbaiten artean, goian aipaturiko hiru horiek deskribatzen ditu. Ik. ZELAIETA, A.; **Foruak eta Euskal Literatura**, Kriselu, Donostia, 1978, 17-49. orr.

garoa "ezko, iori ta usaitsu" sortzea Euskal Herrian. Hori da **Garoa**ren korolario didaktikoa.

Garoa eleberria korolario didaktiko bat ematera bideratzen da. Helburu hori erdiesteko moduan itxuratzen du kontalari orojakileak testua. Kontalari honek dakartzan langaiak eta langai hauen antolamenduan darabiltzan baliabideak, materialak eta material hauei ematen dien forma, garoaren jarraipena bilatzera doaz.

Garoak kontatzen duen historia testuratzean, eleberria den lekugune literario horretara pertsonaiak, ekintzak, lekuak, ohiturak, ideiak... eramatean helburu didaktiko bati menperatzen zaio lekugune literario hori.

Historia hori kontatzeko aktante-subjetuaren papera hartzen duen kontalariak bi baliabide nagusiren erabilerara jotzen du bereziki: aurkakotasuna eta iterazioa. Agian, bi baliabide nagusi hauen erabilerari hirugarren eta laugarren bat erants dakizkieke: hiperbolea eta elisioa. Baliabide hauen gain eraikitzen da **Garoa**. Baliabide hauek eratzen dute **Garoa**ren hezurdura.

2.1. AURKAKOTASUNA

Nahiz berbaldi diskurtsiboan nahiz berbaldi narratiboan aurkajarriz doaz pertsonaiak, aurkajarriz doaz lekuguneak, aurkajarriz doaz ekintzak edo/eta ekintzarik eza, aurkajarriz doaz ideiak, mundu-ikuskera, bizimodua... Berbaldi diskurtsiboko artzainei berbaldi diskurtsiboko "gizon gorriak" aurkajartzen zaizkie, berbaldi diskurtsiboko Bizkaiari berbaldi diskurtsiboko Nerbioi ibaiaren ezkerraldea aurkajartzen zaio, "gizon gorrien" ekintzei, artzainen ekintzak... Berbaldi narratiboan barrena kontalariak aurkezten duen objetuari, paradigmari, Joanesi, eta honek aurkezten duen egoteko moduari bere seme eta iloba batzuren ekintzak aurkajartzen zaizkio; Aloña mendiari, Somorrostro; kristau-fedeari, kristau-federik eza...

2.2. ITERAZIOA

Kontalari filosofoaren berbaldiak exenplifikazioa aurkitzen du histori kontalariaren berbaldian. Lehenak ideien mailan jalgitzen di-

tuen gogoetak ilustrazioa aurkitzen dute bigarrenarengan. Lehenaren jeneralizazioaren mailak konkrezioa aurkitzen du bigarrenarengan. Eta hori, **Garoak** eratzen duen katea sintagmatiko horretan, bi modu desberdinen bidez ideia-iterazio bat emanez.

Nolanahi ere, kontalari orojakilearen destolesketa horren bidez sorturiko iterazioa ez da bakarra **Garoan**. Histori kontalariaren berbaldiak berak eta historiaren antolamenduak berak iterazioa dute eraikuntza-modutzat. Jadanik azaldu den legez, berbaldian kontalariaren esana iteratu egiten da pertsonaiek egiten duten errepresentazioan hainbat eta hainbat bider; azken finean, kontalariak eginiko laburpena zabaldu egiten da pertsonaiek bere ahots propioaren bidez kontalari horren esana errepresentatzen dutenean. Berbaldiak ez ezik, historiaren antolamenduak berak ere iteraziora jotzen du; izan ere, azken finean, eleberrian kontatzen den historia ehotuz doazen sekuentziek, mikroerlatuek, batetik, pertsonaia-tipo bat eraikitzen badute ere (demazalearena, diruzalearena, zalduntxoarena...), bestetik, pertsonaia-ardatzaren, objetuaren, Joanesen egoteko modua erakusteko aitzakia bihurtzen dira eta horrela mikroerlatu zenbait egoteko modu bat (berbera) iteratzera heltzen dira.

Edo beste modu batean planteatuaz: **Garoa** zenbait mikroerlaturen multzoak osatzen du, mikroerlatu hauetako bakoitza honela antolatzen delarik:

Tesia - argumentazioa - korolarioa

Tesiak kontalari orojakileak jartzen ditu. Argumentazioa mikroerlatu baten kontaketaren bidez aditzera ematen du, exenplifikazio baten bidez. Korolarioa, berriz, erraz atera dezake irakurleak mikroerlatu hauen amaiera ikusiz.

Mikroerlatu hauetan argumentazioaren alderdiak, exenplifikazioarenak, bi alderdi ditu: bata tesia frogatzen duena eta bestea aurkako alderdia erakusten duena korolariora heldu aurretik.

Aktante-aurkakoa eratuz doazen mikroerlatuetan, berbaldi-iterazio baten bidez (kontalariaren esana + pertsonaiek beraiek egiten duten esan horren errepresentazioa) tesia frogatzen dutenak paper aktantzial hori betetzen duten pertsonaia desberdinak dira (Iñazio Mari, Juan Andres, Martin...), baina uneoro objetua bera, Joanes, aurkako alderdia erakusten ari da.

Aktante-laguntzailea eratuz doazen mikroerlatuetan tesia frogatzen dutenak paper aktantzial hori betetzen duten pertsonaia desberdinak dira (Ana Josepa, Jose Ramon...), baina uneoro objetua bera, Joanes, edo-ta kontrastez "eredugarriagoa" dela erakusten ari da edo "eredua" dela erakusten.

Planteamendu-modu honen azpian ere ez da falta aurkakotasunik eta iterazioriK. Tesiek beraiek, batzutan, aurpegi bikoitza azaltzen dute: alderdi "positiboa" eta alderdi "negatiboa". Argumentazioak bi alderdiak ilustratzen ditu. Tesiak beraiek, batzutan, iteratu egiten dira berbaldi diskurtsiboaren eta berbaldi narratiboaren bidez; argumentazioak iteratu egiten dira kontalariaren esanaren eta pertsonaiek esan honetaz egiten duten errepresentazioaren bidez, argumentazio desberdinen alderdi bat, positiboa, eredua aurkeztera bideratzen dena, argumentazio bakoitzean iteratu egiten da, argumentazio bakoitzean Joanesen egoteko modua azalduz.

Funtsean, **Garoa**n bitasuna nagusitzen da. Bitasunaren ibilbidearen gain eraikitzen da espazio testual hori, bitasuna sortuz eleberriaren elementu desberdinen printzipio integratzaile moduan, eleberriaren hezurdura mamitzen duen isotopia nagusi moduan.

Bi berbaldi-mota, diskurtsiboa eta narratiboa, berbaldi hauen bidez eraikiz doazen gizakiak eta pertsonaia banakoak (izen propio baten jabe diren neurrian bederen) eta hauen ekintzak mota desberdinetako ekintzak izanik ere (demak, dirua egin...), eleberrian barrena jasotzen duten tratamenduan, bitara laburtzen dira: objetuak, Joanesek, aurkezten duen eredu aldakaitza gordetzera edo eredu aldakaitz horrekin haustera. Berbaldi diskurtsibo eta berbaldi narratiboaren bidez eraikiz doazen lekuguneak, mota desberdinetako lekuguneak izanik ere, eleberrian barrena jasotzen duten tratamenduan, bitara laburtzen dira: Aberria eta Erbestea derizten lekuguneetara. Eleberriak kontatzen duen historiaren iraupena, gutxi-gorabeherako hogei urte horiek, bitasun bat erakustera mugatzen da: denbora horren barnean aldaketa bat jasaten duten pertsonaiak, denbora iragankor batean bizi diren pertsonaiak alegia, eta denbora horretan barrena aldaketarik jasaten ez duten pertsonaiak, hots, denbora iragangaitz batean bizi diren pertsonaiak.

Egituratzearen mailako bitasun honek jarraipena aurkitzen du egituratze-modu honen bidez **Garoa**n barrena sortuz doan esanahi-munduan. Bitasunaren alderdi bat Aberriaren sinbolo gisa eraikiko da, bi-

tasunaren beste alderdiak Erbestea sinbolizatuz. Kontalariak hartzen duen subjetu-aktante paper horretatik erakusten duen objetuak Aberria sinbolizatuko du; objetu horrek errepresentatzen duenetik at gelditzen dena Erbestearen sinbolo bihurtzen da.

Subjetu-aktanteak, kontalariak, bilatzen duen objetua, kontalari honen desioa den objetua, bihurtzen da Aberriaren sinbolo; objetu honi aurkajartzen zaizkionak, berriz, bihurtzen dira Erbestearen sinbolo.

Bitasuna eta bitasunaren iterazioa hautatu du kontalariak **Garoa** egituratzeko oinarri moduan, antolatze-modu honen bitartez esanahi-munduraino eramanez aipatu bitasuna. Baliabide honen erabilera oso pedagogikoa bihurtzen zaio mezu didaktiko bat igortzeko: azken finean, oso modu didaktikoan aurkezten du Aberriaren sinboloa. Bitasunaren bidez paradigma eta paradigmari aurkajartzen zaiona azal ditzake; azkenean, jarraitu behar den paradigma eta arbuiatu behar diren paradigmak bihurtuko direnak, oso erraz atzeman daitekeen korolarioaren bidez.

Bitasuna jo bada ere **Garoa**ren printzipio integratzailetzat, bitasuna ez da, jakina, eleberriaren kontalariak igorri nahi duen mezua modu didaktiko batez antolatzeko darabilen baliabide bakarra. Bitasun honek baditu beste baliabide batzu lagungarri, hala nola, hiperbolea edo elipsia.

2.3. HIPERBOLEA

Kontalariak Aberriaren sinbolotzat eraikitzen duen pertsonaiaren deskripzio hiperbolikoa eskaintzen du: bere ahalmen fisikoak hiperbolikoak dira; bere ezaguera-maila hiperbolikoa da; bere izpiritualtasuna hiperbolikoa da; eleberrian barrena ez da gizaki moduan itxuratzen, gizakiek duten konplexutasunarekin, baizik eta eredu moduan, ahuleziarik eta kontraesanik ezagutzen ez duen eredu moduan. Eredu honi aurkajartzen zaizkionetan, Erbestea sinbolizatzera heltzen diren horietan, karikaturak ordezkatzen du hiperbolea. Zentzu hiperboliko baten bidez birtute guztien jabe izaki eta birtute hauek gradurik gorenenean dituen ereduari zentzu karikaturezko baten bidez neurririk gabeko grinak dituzten pertsonaiak aurkajartzen zaizkio. Kontalaria pertsonaia hauek ridikulizatzeraino heltzen da. Azken

finean, hiperbolea bera bitasunera eramaten da proportzioz kanpoko kualitate positiboak ezarriz ereduari eta proportzioz kanpoko kualitate negatiboak ezarriz ereduari aurkajartzen zaizkienei.

Bitasunari eutsiz eta bitasun honen barnean esajeraziora joz, ez die zalantza eta duda-mudei lekurik uzten. Pertsonaiak mutur batekoak edo bestekoak dira: birtuteduna neurririk gabeko birtuteen jabe, akatsik gabea; grinadunak, halaber, neurririk gabeko grinadun. Hitz batean, ez dago pertsonaiarik, ez dago gizakirik. Paradigmak daude, mota bateko edo beste bateko ereduak, hiperbolearen edo karikaturaren bidez karakterizatuak. Funtsean, modu honetan, erraz identifika daitezkeen ereduak sortzen dira, anbiguidadeari eta konplexutasunari ateak itxi eta mezu didaktiko bat igortzeko aproposak bihurtuz; izan ere, mezu didaktiko horren hartzaileari zeharo modu gardenean igortzen bait zaizkio jarraitzeko bikaina den eredua eta arbuiagarria dena. Hiperboleak pertsonaia erraldoia eraikitzen du, jainko txiki bat; karikaturak, berriz, pertsonaia deformatu batzu, distortsionatu batzu. Batetik, erraldoitasunera jotzen da; bestetik, deformaziora. Tartean geldituko litzatekeen gizakia falta da. Garoan Ana Joseparen pertsonaia bakarrik gelditzen da gizaki bat sortzeko ahalegin moduan, jadanik aditzera eman denez.

2.4. ELIPSIA

Elipsiaren erabilerak berak ere erraztu egiten du pertsonaia-mota hauek sortzea, pertsonaia lau hauek eratzea, erraz identifikatzen diren pertsonaia hauek taxutzea.

Ebidentzia hutsa da eleberriaren kontalariak ezin zitzakeela berbaldira eraman hogeiren bat urtetan zehar jazoriko gertaera, pentsamendu, zertzelada eta pertsonaia horien existentziaren gauza nimiño guztiak. Nahitaezkoa zuen aukera. Aukera-lan honetan, guztiz nabaria da kontalariak hartzen duen jokabideetariko bat: prozesuak isilaldira eraman. Eleberrira dakarren denbora, batipat, gatazkaren denbora da. Ez da gatazka horretara nola heldu diren pertsonaiak aztertzen, ez gatazka horren desarroiloa, ez gatazkaren prozesua. Isilunera eramaten dira. Kontalariak ez dakar analisirik berbaldira: ez nola joan zen Jose Ramonen "azokazaletasuna" sortzen, ez Iñazio Mariren demazaletasuna, ez Juan Andresen diruzaletasuna, ez Martinen ideologia berria, ez nola joan zen egunez egun ernetzen Joseren edo Moxolo

Potoloren edo Martinen Malentxorenganako maitasuna, ez Paularen Joserenganakoa, etab. Kontalariak ez dakar ere berbaldira azokazaletasunaren desarroilorik edo demazaletasunaren desarroilorik edo diruzaletasunaren desarroilorik edo maitemintze desberdinen desarroilorik. Mikroerlatu desberdinen garapen-modua mikroerlatu hori eraikitzen duten funtzio kardinalen berri ematera zuzentzen da. Sekuentzia desberdinetan prozesuen kontaketa isilunera eramaten da. Prozesuak berbaldirik minimoenera eramaten dira.

Elipsi edo laburpen handi hauek medio direlarik, ez dator berbaldira ñabarduraz beteriko zirkunstantziarik, pertsonaiaren estudiorik, ekintzen justifikaziorik... Berbaldiaren denbora gatazkan dauden munduak gatazkan daudela aditzera ematera bideratzen da, gatazkan daudela erakustera bideratzen da.

Egituratze-modu hau, forma hau, bitasuna isotopia nagusiaren gain eraikiz eta berbaldiaren denbora bitasun hori azaltzeko erabiliz, bitasun horretara "prozesuek" ekar zitzaketen "aringarriak" isilunera eramanez, oso modu didaktikoan antolatuz, korolario didaktiko argi batera bideratzen da: garoaren jarraipena.

Garoaren jarraipena da kontalari orojakileak erdietsi nahi duen desioa. Hartarako erakusten du garo-usaina duen Joanes, garo-usaina izan eta garo-usain hori galdu duten pertsonaiak eta garo-usainik izan ez dutenak. Hartarako banatzen ditu zorionak eta zigorrak pertsonaiei eginiko epaian; hartarako ematen die garo-usainari jarraipena ematen dietenei bakea, zoriona, atsegina, eta garo-usainik ez dutenei, aldiz, egonezina, zorigaitza, nekea. Epai honetan banaketa hauek egiteko behar zuen Pedro Migel Azkarragaren pertsonaia: Azkarraga baserrian bakea eta atsegina uzteko, nahiz eta Iñazio Marik demazaletasunak ekarritako ajeak pairatu beharko dituen.

Aktante-subjetua den kontalariaren nahia erdietsi da. **Garoa** testuan barrena bere desioa den objetua, Joanesen bizimodua, erakutsi du. Bizimodu honi jarraipena eman dio, honen zenbait ondorengotara eramanez bizimodu hori, ondorengo biologiko horiengan ere hezurmamituz bere bilaketa den objetua. Testuan barrena kontalariak erakutsi du bizimodu horretatik urrutiratuz eta bizimodu horri aurkajarriz gero, ezbeharra, nekea eta sufrimendua besterik ez direla lortzen. Orain irakurleak du hitza. Azken finean, kontalaria honi zuzentzen zaio **Garoa**rengandik ikas dezan bizitzeko modu bat eta bizitzeko modu honek dituen abantailak eta beste bizitzeko modu

batzuetatik datozen desabantailak. Irakurleak aukera beza. Hori da kontalariaren proposamena. Baina alde batean zoriona dago eta bestean zorigaitza.

V. AGIRREREN NOBELEN POETIKA: POETIKA PRAGMATIKOA

"Irakatsi eta atsegin eman" da Agirrek bere eleberrien bidez erdietsi nahi duen helburua. Horretarako euskal historiara eta bizitzara hurbildu eta modu poetiko eta mitiko batez bersortzen ditu (1). Baina ez du imitatzen edo bersortzen ez euskal historia edo bizitza izan dena, ez idazketaren denboran dena edo etorkizunean izan daitekeena (2), baizik eta bakar-bakarrik historia edo bizitza hori izan zitekeena eta **izan beharko lukeena**, batipat.

Berbaldiak eratzen duen katea sintagmatiko hori euskal historiak izan beharko lukeena sortzeko erabiltzen da eta hori aditzera emateko moduan antolatzen. Eta, honela, berbaldia helburu moral

(1) "Literatura orotan nobela dugu, dudarik gabe, herri-gorabehera eta gizarte-bizitzaren itxurapenik aberatsen eta sakonenetakoa. Ez, jakina, dokumentala eta historikoa, poetikoa eta mitikoa baizik. Nobela dugu, nik uste, gizarte modernoaren mitologiaren formarik nabarien eta garrantzitsuenetakoa". LASAGABASTER, J.M.; "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" in **Jakin**, 22, urtarrila-martxoa, 1982, 151. or. "Balzac, (...) se definió como el **secretario** de la sociedad francesa de su tiempo —mundo de vicios y de virtudes, de pasiones y de luchas, del que él, como **secretario**, establecía el inventario minucioso—". Ik. AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 187. or.

(2) "Bere izaera guztia aurki dezake gaurko gizakiak nobelan: berak asmatzen duen oro eta, aldi berean, bera gainditzen duena, bere orainaldia eta etorkizuna, hots, bere helbidea". LASAGABASTER, J.M.; "Nobelaren joera berriak" in **Jakin**, 25, urria-abendua, 1982, 6. or.

bat bermatzeko lekugune bihurtzen da, helburu bat sortzeko bitarteko, helburu moral bat erdiesteko tresna.

Behar didaktikoen mende daude fabula, fabula egituratzeko modua eta egituratze-modu honen bidez sortzen doan esanahi-mundua. Horretan ez dago alderik eleberri historikoaren eta ohiturazkoen artean. Fabulek itsas herriska eta mendi-baserrietan bizi diren zenbait euskaldunen historiak kontatuko dituzte. Historia hauek antolatzean modu dikotomiko batez egituratzen dira. Dikotomiaren alde batean lekutzen dira itsas herri edo mendi-baserri horiei eta kristau-fedeari atxikirik daudenak; bestean, berriz, lekugune horiek eta kristau-fedea gutxiesten dituztenak (**Kresala, Garoa**) edo, mendi-baserriei atxikirik bizi izan arren, kristau-fedea gorroto dutenak (**Auñemendiko Lorea**). Berbaldia, batipat, dikotomiaren alde batekoak baloreei **nola** dauden loturik erakusteko erabiliko da. Berbaldiak horren berri ematera jotzen du. Eta dikotomiaren beste aldean kokatzen direnen ekintzek irekitzen dituzte horretarako bideak.

Honela, bada, batzuren iharduna besteen baloreekiko atxikimenduaren azalpen bihurtzen da, eta aldiberean bikoiztasunaren erabilera irakasteko modu oso didaktikoa gertatzen.

Behar didaktiko horien mende daude kontalari orojakilearen komentarioak eta komentario hauek historiaren narrazioan hartzen duten antolamenduak. Eta egituratze-modu horretatik sortzen den esanahi-munduak izaki paradigmatikoak aurkeztuko ditu, euskaldunek izan beharko luketenaren sinboloak.

Narratarioa irabaztea bilatzen du, narratarioaren oniritzia eta onespena erdiestea, narratarioa kontatzen ari den historiaren lagunkide eta konplize bihurtzea, narratarioa erakartzea. Eta eginkizun horretarako ez ditu arbuiatuko Erretorika Klasikoak eskainitako baliabideak (3). Kontalariak behin eta berriz bihurtzen du esplizituki zenbait enuntziaturen hartzaile zuzena. Narratarioaren presentzia somatzen da kontaketaren beste aldean, kontaketa honen hartzaile moduan, kontalaria berari zuzentzen zaionean.

---

(3) G. Garatek honela dio **Auñemendiko Lorea** mintzagai duela: "Erretolika Klasikoaren baliapideak nonahi agertzen dira.

Elaberriaren haseran 'captatio benevolentiae' erabiltzen du, hots, irakurlearen onginahia irabazten ahalegintzen da". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 62. or.

Kontalari honek bere zenbait jokabide justifikatu egiten dizkio narratarioari (4). Kontatzen ari den historian lagunkide eta partaide bihurtu nahi du narratarioa, eta horretarako baliabide pragmatiko desberdinetara joko du. Baliabide bakoitzak enuntziatu konkretuari bere ñabardurak eransten badizkio ere, ñabardura hauez harantza enuntziatu-multzo batek amankomunean duen oinarria narratarioa kontatzen ari den historian inplikatzea da, dela lehen pertsona pluralaren erabilera erretorikora joz (5), dela galdera erretorikoak erabiliz (6)...

Partaide egin eta narratarioaren erantzuna bideratu (7), horra hor etengabe bilatuko duen efektua. Bere jokabideak narratarioaren aurrean justifikatu eta narratarioari esplikazioak eman ez ezik, bere erantzuna edo galdera ere eskatzen du. Elkarrizketa zuzen bat bilatzen du narratario honekin. Deitu egiten dio baliabide desberdinen

---

(4) "Ezizen geiegi ipinten dotala uste badau irakurleak, jakin daiala lenengotik" (**Kresala**, 31. or.).

(5) "Badakigu esate oiek geiegizkoak zirala" (**Garoa**, 32. or.). Edo **Kresalan**: "Geiegitxoa zan, guk badakigu, gurasoak Mañasiri esaten eutsiena" (163. or.). Kontatzen ari den historiari buruzko balorazioan partaide egiten du kontalariak narratarioa. Maiz azaltzen da Agirreren eleberrietan lehen pertsona pluralaren erabilera erretoriko hau.

(6) "Zer diñostazu, irakurlea? Amesetan egongo zala gau atan Mañasi? Jakiña ba" (**Kresala**, 113. or.). Narratarioaren partaidetasuna bilatzen da, eta narratario honen arretaren iraupena. Galdera erretoriko bihur dezake sakonagoko egitura batean konparazio bat izan zitekeena ere: "Ta nork esan Malentxoren poza? Senar zintzoak, emazte onak, oroitzen zerate zuen ezkontzarako mugaldea nolakoa zan? Emakume gazte ameslariak, oroitzen zerate zein tirtiri egon ziñaten, jantzi luzez ta ille arroz apaindurik lagun artera lenbizi erten bearreko garaian? Legegizonak, apaizak, sendakiñak, etxe, bide ta zubi asmatzalleak, edozein eratako jakituri eske ibilli zeratenak, gogoan daukazute zuen gozotasuna, ikasteak oso amaitzean, zerbaiterako aginpidea eman zizutenean, lege-gizonen longaña jaztean, aurreneko Meza ematera gertatzean? Ameriketan izandako gizon errikoiak, etzerate aztu, zuen irabaziak sakelean gordeta, 'etxera noa, Euskalerrira noa' esan zenduten orduaz?" (**Garoa**, 277. or.). Malenen une hauetako zoriona deskribatzerakoan ez du, esate baterako, konparazioaren erabilerara jotzen; aitzitik, galdera erretorikoen bidez narratario-mota desberdinak historian inplikatzea bilatzen du eta, jakina, narratario-mota horiei erantzungo lieketen irakurlegai-motak.

(7) "Ez miraritu, irakurlea, Arranondoko arrantzaleak, noizean bein, arrotasunaren ikuturen bat izaten ebiela jakiteagaitik" (**Kresala**, 85. or.). Kontalari honek narratarioaren erantzuna bideratzea bilatzen du, bere orojakiletasunean narratario honek har dezakeen jarreraren ezagupidea ere adierazten duelarik.

bidez: hitzen azpimarkatzeaz baliatuaz, edo komatxoen erabileraz, edo komentarioen bidez, edo modu zuzen batez. Agirreren eleberrien kontalariak narratarioa hautatzen du bidelagun; eta, honek baino gehiago badaki ere, adiskidetasun erretoriko batekin zuzentzen zaio, berak proposaturikoa onetsi dezan.

Historiaren desarroiloa eraikitzen eta aurkitzen kide diren ilusioa edo inpresioa sortu nahi du narratarioarengan. Narratario honekin hitz egin; pertsonaia eta berauen ekintzei buruz bere oniritzia edo gaitzespena eskatu; hauen gainetik begiratu; eleberrira dakartzan iritzi eta oharren partaide egin, kontalariak eginiko oharrak narratarioarenak berarenak balira bezala onartzera gonbidatuz; iritzi eta ohar horietan irakurle idealak har zezakeen jarreraren antzerakoa hartu... Horrela jokatzen du kontalariak narratarioarekin.

Kontalariak epaitu egiten du kontatzen ari den historia; baita historia horretan sortutako pertsonaien jokabideak ere. Eta epai horiekiko narratarioaren adostasuna bilatzen du, adostasun horrekin kontalariak onetsitako jokabideak bizitza-arau bihurtu eta gaitzetsitako jokabideak arbuia ditzan. Kausa honetarako irabazi nahi du narratarioa. Eta kausa honetarako irabazi nahi du sortu duen narratario horren irudiarekin bat letorkeen irakurlegaia, eta azken finean irakurle erreal oro.

Agirreren eleberrietako berbaldia mezu didaktiko bat igortzeko moduan antolatzen da. Eta uneoro dauka gogoan mezu didaktiko horren hartzailea izan behar duena, honen jokabideak aldatu nahi bait ditu.

Edozein idazlanek irakurlearengan erantzun-motaren batzu eragitea bilatzen badu (8), Agirrerenak erantzun jakin bat eragitea bilatzen du: irakurleak bizitza-arau konkretu batzu hartzea. Eta horretarako, bere mezuak eleberri horietan zehar intentzio jakin bat hartzen du: irakurleari ezaguera berriak eman hizkuntzaren alorrean oin-oharren bidez edo sinonimoen pilaketaren bidez edo...; eta irakurleak jarrera desberdin bat badu bizitzaren aurrean, jarrera hori

(8) "Toda obra, además de transmisora de determinados mensajes, es a la vez vehículo de una serie de inducciones de actitudes en el lector, es decir, intenta promover en él determinadas disposiciones de clases de respuestas, al mismo tiempo que descarta otras". MALDAVSKY, D.; **Teoría literaria general. Enfoque multidisciplinario**, 42. or.

aldatu. Agirreren berbaldiak pragmatikoki atsegina izatea ez ezik, modu atsegin batez (9) proselitismoa egitea ere bilatzen du.

Eleberrien egituratze-modua behar didaktiko honi menperatzen zaio (10), irakurlearen hezkuntzari. Prozedura narratiboak horretara bideratzen dira eta, hezi behar honi erantzunez edo hezkuntza-helburu hori dela medio, paradigmak eskaintzen dira, ez gizakiak edo gizabanakoak. Era berean, historia batzuren pasarteak ematen dira, paradigma horiek sortzeko egokienak alegia, eta ez historia bat edo historia baten desarroiloa; eta abentura singularra eta bakana izan zitekeena ohizkotasun huts bihurtzen da... Mezuak ahalik eta gardenena izan behar du. Eta ahal den neurrian, aurpegi bakarreko txanpona eskaintzen zaio irakurleari, konplexutasun oro sor dezaketen elementuak arbuiatuz.

Beraz, honelakoa da Agirreren eleberrietatik sortzen den irakurlegaiaren argazki robota: irakurle akritikoa, erraz limurtzen uzten denarena, otzana, moldatzen erraza, esaten zaion guztia onartzeko prest dagoena, Agirreren mentalitate-mailan dagoena, honek sortutako kontalariaren gidaritza (soka motzean egiten den gidaritza hori) ametitzeko prest dagoena, aditzera ematen duen alderdi ideologiko kontserbatzailearekin bat etor daitekeena...

Horrelako irakurle bati zuzentzen zaio Agirre XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran. Azken finean, gertaerak aurkezten

---

(9) Beste gai bat da XX. mende bukaera honetako irakurlegoaren gehiengoari Agirreren eleberriak atseginak gerta dakizkiokeen ala ez; izan ere, atseginak edo ez-atseginak gertatze honetan bai bait dute zer-ikusia irakurlearen usteek, Booth-ek dioen bezala: "Cualquiera que haya leído la misma novela 'antes y después' observando la extraña pérdida de fuerza que revela una novela cuando uno ha repudiado sus normas, sean de iglesia o de partido, de fe en el progreso, nihilismo, existencialismo o sea lo que fuere, sabe que nuestras convicciones incluso sobre los asuntos más puramente intelectuales no pueden evitar el afectar fundamentalmente nuestras reacciones literarias". BOOTH, W.C.; **La retórica de la ficción**, 131. or. Azken finean, Booth-ek berak orrialde batzu lehenago dioen bezala, idazlan bat atseginez irakurtzeko irakurleak ados samar egon behar du eleberri bakoitzaren egile inplizituak gai guztietan duen ikuskerarekin.

(10) "El lector, como elemento ideológico transformable, condiciona y explica algunos de los rasgos constituyentes de la literatura. Si el autor quiere conseguir alguna transformación ideológica del lector, queda condicionado a su vez y debe someter la forma a la intención". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 191. or.

dituen gisan aurkeztuz, irakurlegaia aukeratuz eta murriztuz doa, idazle honek erabilitako konbentzioak ametitzeko prest dagoen irakurlegora mugatuz.

1. BERBALDIA ENUNTZIAZIO (11) LEGEZ

Agirreren eleberrien kontalariak eta kontalari honek sortutako historian hitz egiten duten pertsonaiek gauzatzen dituzten esaldiek eta sekuentzia linguistikoek berbaldian hartzen duten antolamendu-modua dela bitarteko, berbaldi hori objetu batzu erakusteko lekugune bihurtzen da.

Egon dauden paradigma batzu erakusteko aitzakia bilakatzen da berbaldia: imitatu behar diren paradigmena. Historiak kontatzen dituen kontalari orojakileak berbaldi diskurtsiboaren eta berbaldi narratiboaren konbinaziora jotzen du. Berbaldi diskurtsiboetan komentatu egiten du pertsonaiek beren ahots propioaren bidez esana edo kontalariak berak bere ahotsean esana; kontatzen ari den historia komentatu edo giza jokabideei buruz ihardun. Gogoeta orokor honek, jakina, harreman-moduren bat du jadanik kontatua den historiaren atalarekin edo kontatzera doanarekin. Berbaldi diskurtsibo honek giza jokabideak orohar epaituz lagundu egiten du arestian aipatutako paradigmak eraikitzen, paradigma horiek hartzen dituzten jarrerak hobetsiz eta goretsiz.

Kontalari orojakile honek hobesten dituen paradigmak egon daude. Paradigma horientzat berbaldia ez da zerbait bilatzeko lekugunea; **ihardutekoa** ez baina egoteko modu bat erakusteko lekugunea da. Berbaldi horretan ihardunari helduko diotenak gaitzetsitako paradigmak dira; eta hauen iharduerari esker azaltzen da besteak beste gainerakoen egoteko modua.

Kontalari orojakileak arbuiatzen dituen paradigmak dira zerbait bilatzen dutenak, objetu bat erdietsi nahiak ekitera bultzatzen dituenak, objetu hori lortzeko bide-mota desberdinak zabalduko

---

(11) E. Benvenistek darabilen zentzuan: Saussure-k azaldutako hizkuntza berbaldi bihurtze legez. "La enunciación es este poner a funcionar la lengua por un acto individual de utilización" dio E. Benvenistek. BENVENISTE, E.; **Problemas de lingüística general**, II, 83. or.

dituztenak; nahiz eta bide horietako bat berak ere ez eraman objetura eta porrot egin beti ihardunaz bilatutako objetu horren lorpenean. Dena den, bilatutako objetua erdiesteko zabaltzen dituzten bideak ez dira berbaldi bihurtzen. Esan egiten da bide hau edo bestea zabaldu dutela, baina **nola** doazen bide hori egiten ez da ñabarduraz jazten. Berbaldiak bideak markatzen ditu, baina gero xehetasunez adierazi gabe.

Azken finean, Agirrek bere eleberrietan darabiltzan prozedura narratiboek paradigma batzu sortzen dituzte. Berbaldiaren enuntziazioa antolatzeko modua objetu horiek erakustera bideratzen da, behar didaktiko batzuren menpe jarriz enuntziazioa; izan ere, enuntziazioaren eraketa-modu honetatik eraikitzen da Agirreren eleberriek sortutako mundu didaktiko hori, enuntziazio honen antolamenduak enuntziatu didaktikoa sortzen duelako.

1.1. KONTALARI OROJAKILEA

Ikusgune legez orojakiletasuna hautatzen duen kontalari batek kontatzen ditu Agirreren hiru eleberriak; baina, noiz edo noiz, lekuko moduan kontatu nahi izaten du eleberriko pasarteren bat.

Nolanahi ere, lekuko gisa kontatu nahi duenean ere, lekukotasun hutsa ilusio bat besterik ez da. Izan ere, kontalari honek ere —lekukoaren mozorroa jazten duenak— ez bait du lekuko soila izanez etsitzen, ikusten ari dena komentatu gabe edo une horietan bere inguruetan dauden zenbait pertsonaiaren barne-pentsamenduak testuratu gabe.

Auñemendiko Lorearen kontalaria gertaeren lekuko gisa hasten da kontatzen eleberria, lekuko den neurrian entzuten dituen elkarrizketak transkribatuz. Baina ezin etsi dezake transkribatzaile huts izate horretan; ezta lekuko huts gisa konta dezakeena kontatzen ere: lekuko honek pertsonaien barne-pentsamenduak ezagutzen ditu eta lekuko legez ikusten duena komentatu egiten du. Lekuko moduan Ozinbeltzeko batzarra ezagutzen du eta lekuko moduan hasten da kontatzen **Auñemendiko Lorea**ren kontalaria, baina ez du etsitzen batzarre horretan zeuden zenbait pertsonaiaren barne-pentsamenduak ezagutzera eman gabe. Berdin gertatzen zaio Santo Tomas egunez Arrasateko azoka eta demara doan **Garoa**ren kontalari lekukoari ere:

ez du etsitzen lekuko soil izanez. Ezta 1904.eko agorraren 22an Arranondora doan **Kresa**laren kontalariak ere.

Eleberrietako zenbait pasartetan lekuko legez kontatzen duen kontalari honek gertaerak kontatu bezala jazo direnaren ziurtasuna eskaini nahi du: bere eleberriak **bizi izandako errealitatearen** zati direla eta ez asmaturiko fikzio batenak.

Agirreren eleberri kostunbristetako kontalaria lekuko bihurtzean, eleberrian sortuz doazen pertsonaiekin batzera heltzen da. Kontalaria dramatizatu egiten da, fikzioko pertsonaiekin elkarrizketatuz. Harreman pertsonala du eleberriaren lehengaiarekin; kontalariak bizi izandako moduan aurkezten du eta ez asmatutako moduan. Eta, honenbestez, jazoerak kontatzen dituen gisan gertatu direnaren ziurtasun osoa eskaintzen du, berak bizi izan bait ditu.

Eleberri historikoan lekuko gisa aurkeztu arren zenbait pasartetan, ez da heltzen pertsonaia bihurtzera. Baina eleberri historikoak kontalariak bizi izandako errealitatea kontatzen ez badu ere, kontatutako historia ez da asmaturikoa eta fikzio hutsa; aitzitik, kontalariak lehen pertsonan dioenez, egia.

> "Ames baten gisara sosmau nituan lenengo, gero paper zarretan egiak dirala ikasi izan dot, eta gaur, irakurlea, oraintsu batean neure begiakaz ikusi banitu legez esango deutsudaz zuri" (**Auñemendiko Lorea**, I, 8. or.).

Agirreren eleberrien kontalaria ez da pertsonaia-kontalaria; izan ere, ez du parte hartzen kontatzen dituen ekintzetan, ez du paper zehatz bat betetzen ekintza horietan, ez du historia gainontzeko pertsonaiekin batera ehotzen (baizik eta berak ehotzen du pertsonaia horiena). Gertatzen da kontalari horrek ezagutu egin dituela pertsonaiak kontatzen duen historiatik at eta ezaguera horren berri ematen duela. Urbian ezagutu zuen **Garo**ako Joanes pertsonaia; ondoren bere familia ezagutzeko abagadunea izan zuen; eta berak ikusi eta ezagutu zuen errealitate hori dakar **Garoa**ra, Joanes eta honen familiaren historia.

Kresalako azken albisteak Arranondo bertatik emango ditu, fikziozko pertsonaiekin elkarrizketatuz. Pertsonaia hauek ere ezagutzen ditu eta beraien historia konta dezake. **Auñemendiko Lorea**ren ezaguera ez zaio heldu bizi izandako errealitate legez, baina bai liburuei esker.

Lekuko izaki, bizitzan edo liburuetan ezagutu dituen historiak dira. Historia horietan noiz edo noiz lekuko legez azaltzen da lehen pertsonan, baina historia horiek historiatik at kokatuz hirugarren pertsonan kontatzen ditu orohar kontalari orojakile legez.

Kontalari-mota hibrido moduan azaltzen bada ere, gutxienetan barne-kontalariaren mozorroa jantziz eta lekuko gisa kontatuz, gehienetan kanpo-kontalariaren mozorroa jazten du. Barne-kontalaria denean ez du ekintzetan parte hartzen: gertaerak ikusi eta gertaera horiei buruzko komentarioak egiten ditu.

Funtsean, Agirreren eleberrien kontalariak historiak kontatzeko hartzen duen ikusgunea Jaungoikoarena da: kontalaria aldi berean barnekoa eta kanpokoa zaie berak sortutako pertsonaiei. Barnekoa zaie beraien pentsamendu guztiak ezagutzen dituelako; are gehiago, batzutan pertsonaiek beraiek baino gehiago daki. Barnekoa zaio eleberriari, pertsonaia moduan azaltzen delako noiz edo noiz, nahiz eta ehotzen doazen gatazketan ez parte hartu. Baina aldi berean kanpokoa da, ez duelako pertsonaiekin zeharo bat egiten, ez delako pertsonaia horietakoren batekin identifikatzen, nahiz eta pertsonaia horietako batzu hobetsi eta beste batzu gaitzetsi. Kanpokoa zaio eleberriari, kontatzen duen historian ez duelako parte hartzen, berarengandik at gelditzen den historia moduan kontatzen duelako, eta historia bera hirugarren pertsonan, ez-pertsonan, kontatzen duelako.

Ikusgunea bat eta bakarra da; izan ere, azken finean, lekuko gisa kontatzen duen kontalari horrek ez du lekuko soil moduan kontatzen, lekuko hutsak baino gehiago dakielako eta jakituria hau dela medio ikusten ari dena komentatu edo bere aurrean dauden pertsonaien barne-pentsamenduak aditzera ematen dituelako, orojakile moduan jokatuz. Izan ere, kontalariak kontatzen dituen historiak berak bizi izandako errealitatean edo liburuetan ikasitako egiak bait dira, eta ez asmaturikoak. Horrela, bada, ezaguera oso eta erabatekoarekin kontatzen ditu.

Kontalari honek bi berbaldi-mota daramatza eleberrira: berbaldi diskurtsiboa eta berbaldi narratiboa. Lehenaren bidez bigarrenak kontatzen duen historia komentatu egiten du, baina ez beti historia konkretua soil-soilik; izan ere, orokortze-prozesu baten bidez, historia zehatza laga, izen propioa duten pertsonaiak eta hauen bizilekuak utzi, eta gizakiei eta hauen jokabideei eta bizilekuei buruz ihardungo du. Kontalariaren berbaldia narraziotik komentariora eta komentario-

tik narraziora doa, batean komentatutakoak edo kontaturikoak bestean iradokiz.

Kontatzen ari den historia konkretua bera komentatuz edo historia hau dela bitarteko egiten diren komentario orokorren bidez ematen dio aditzera irakurleari zer pentsatu behar duen garatzen ari diren ekintzei buruz, baita ekintza hauetan parte hartzen duten pertsonaiei buruz ere. Haur bat bailitzan bideratu nahi du irakurlea. Eskutik eraman nahi du historiaren desarroiloan. Horretarako, kontalariak ez du aski fabulari ematen dion tratamenduarekin; osatu egiten du fabula berbaldi komentatiboz. Inposatu egiten dizkio irakurtzeko moduak. Historiaren hastapen-hastapenetatik irakurle-mota baten irudia sortuz doa, eta kontalari honekin bat datorren irakurleak irakurriko ditu atseginenik eleberri hauek (12): kritikoa ez denak, irakurketa-moduak inposatzea ametitzen duenak, kontalariak eskainitako mundu-ikuskerarekin bat etor daitekeenak. Eleberrien garapenari emandako tratamenduarekin kontalariak hezi egin nahi ditu irakurleak (13); beraz, eleberrien bidez heziketa jasotzeko prest dagoen irakurle bat eskatzen du. Hortik datorke, besteak beste, Agirreren eleberriek jaso duten balorazio-modu desberdina.

1.2. PROZESUAK EZABATZEN DITUEN JOSKERA

Agirreren eleberrietan ez dago prozesurik. Eleberri hauek osatzen dituzten sekuentzia edo mikroerlatuen joskeran alderdi hori falta da; izan ere, sekuentzia irekitzen duen funtzio kardinaletik, kontaketaren gune honetatik, gune honi sorrera eman dion desorekatik oreka berri batera igarotzen da, tartean egindako ibilbidea ia isilune edo elipsi batera edo ohizkotasunera eramaten delarik berbaldian.

---

(12) "El autor crea una imagen de sí mismo y otra imagen de su lector; forma a su lector, forma a su segundo ego y la lectura más afortunada es aquella en donde los seres creados, autor y lector, pueden hallar un acuerdo completo". BOOTH, W.C.; **La retórica de la ficción**, 129. or.

(13) "El efecto que causa en los lectores, o el efecto que se pretende que cause una obra literaria, está basado necesariamente en la forma, en la parte objetiva de la comunicación y en ella hay que estudiarlo en relación con el significado". BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, 191. or.

Auñemendiko Lorean ez da testuratzen Portunek nola bizi duen egunez egun Riktrudisez maitemindurik egoteak sortutako desoreka edo Riktrudisek Adalbaldoz maitemindurik egoteak sortutakoa. Ez dira berbaldiz jazten desoreka horietatik sortutako prozesuak. Desoreka horiek eragindako abentura ez da garatzen abentura singular moduan, gizabanako konkretu batek bizi duen berezitasunekin.

Era berean, **Kresalan** ez da berbaldi bihurtzen Mañasik nola bizi duen egunez egun Anjelez maitemindurik egoteak sortutako desoreka; ezta ere **Garoan** diru-goseak Juan Andresengan sortutakoa.

Agirreren eleberrietako pertsonaiek bizi dituzten desorekak oreka-giroren batera helduko dira fikzio-mailan zenbait peripezia jasan ondoren. Baina peripezia horiek (gehienetan modu labur batez) jasotzera mugatzen da berbaldia, besterik gabe peripezia horien berri ematera, peripezia batetik bestera doan tartea edo peripezia bera berbaldiz eta ñabarduraz jantzi gabe. Agirreri ez zaio axola peripezia horietan inplikaturik dauden pertsonaiek nola bizi dituzten aditzera ematea. Edo isiltasunera eramaten dira xehetasunak, gertaera nimiñoak, ñabardurak eta helburu bat erdietsi nahian pertsonaiak eginez doazen bidea, ez-ustekoak izan daitezkeen emaitza-motekin irakurlearen harridura bilatuz edo, bestela, laburbildu egiten dira, peripezien berri emanez, bai, baina pertsonaien eta gizabanako konkretu horien analisi zorrotz bat egin gabe.

Lapurtu egiten zaio berbaldiari desoreken analisi zorrotza, pertsonaiek oreka berri baten bila egin dezaketen ibilbidea, ñabardura pertsonalez, banakoz eta errepikaezinez betetako ibilbide hori, prozesu hori. Eta berbaldia beste zerbaitetarako tresna bihurtzen da: ohituren berri emateko, irakatsi doktrinalak emateko, kontaketa enmarkatuak txertatzeko...; honelako elementuak xahutuz doaz berbaldia.

Ohiturak, pasarte doktrinalak eta markodun kontaketak lekugune narratiboa "betez" doazen bitartean, denbora igaroz doa, bai fikzioari dagokionez, bai narrazioari dagokionez. Eta eleberrian planteaturik dauden desorekak egoera ezkutuan daude, harik eta berriro azaleratzen diren arte, peripezia berri bat dela bitarteko. Azken finean, narrazioaren denborari dagokionez, desoreka hauek egoera ezkutu batetik agerikora igarotzen dira berriro ezkutatzeko etab., ezkutatze-agertze joko bat eratuz: ezkutatze-aldi horiek elipsiek edo jadanik aipaturiko langai narratiboek beteko dituzte kontaketan.

Agirreren eleberriek ez dituzte historiak kontatzen, baizik eta historia baten pasarte aukeratuak: gehiago edo gutxiago zehazturiko egun batean gertaturikoa, handik zortzi egunetara gertaturikoa, handik hiru hilabetera gertaturikoa edo handik urte batzutara gertaturikoa. Nahiz eta denbora-epe laburragoak hartu historia bat ehotzeko, ebidentzia hutsa da eleberrigileak ezin izango dituela denbora-tarte horretan jazoriko gertaera eta pertsonaien barne-pentsamendu guztiak berbaldira eraman. Baina Agirreren eleberrietan nabarmenegi bihurtzen da historia baten pasarte-aukeraketa.

Eleberri hauen kontalariak ekintzak behar ditu berbaldira eramateko. Ñabarduraz betetako egunerokotasuna bera ez bait zaio kontagarri, ekintzatik ekintzara doan tartea ez kontatzea hautatzen du. Hiru eleberrietako kapitulu guztiek ekarriko dute aurrerapideren bat ekintzen garapen honetan. Zentzu honetan ez da kapitulurik "alferrik galtzen"; izan ere, historiaren garapenean aurrerapideren bat lotzen bait zaio kapituluaren existentzia berari. Ekintzek, ekintza hauekin harremanen bat duten elkarrizketa luzeek (batipat **Auñemendiko Lorean**), kontaketa enmarkatuek, ohitura-deskripzioek, pasarte doktrinalek... "osatuko" dute kapituluak eskatzen duen berbaldia, hurrengo kapituluak ere aurrerapideren bat ekarriko duelarik antzerako moduan.

Honela doaz egituratuz Agirreren eleberriak, honela "betez" lekugune narratiboa. "Betetze-modu" honen ondorioetariko bat da "prozesuak" ezabatzen dituen joskera-modua eraikitzea; baita gizabanakoen ordez tipoak sortzea ere.

Kontatzen ari den historia bera saihestuz kontalariak dakartzan elementu deskribatzaile (ohitura-deskripzioak bereziki), narratibo (kontaketa enmarkatuak bereziki) edo saiakerazkoak (pasarte doktrinalak) ikuspegi material edo formal huts batetik "prozesuek" bete zezaketen lekugunea betez doaz berbaldian. Eta ikuspegi funtzional batetik jadanik deskribaturiko funtzioak betez: bizimodu-mota bat deskribatu; irakurlea bideratu, kontatzen ari diren gertaerekiko iritzia azalduz... Eta hala, noraezean testuratutako elementu batzutatik urrundu eta historiak itxuratuz doaz. Azken finean, eleberri hauetan kontatzen diren historietan integraturik dauden elementuak dira; eta, historiekin beraiekin duten harremana dela bitarteko, historia horien bidez eraikiz doan esanahi-mundua sortzera laguntzen dute.

Prozesua ukatzeak, pertsonaiak eginez joateko daukan bidea

ixteak eta izen propio bati izaera propio bat lotzeko daukan bide hori ezabatzeak pertsonaia lauak sortuko ditu: gertaeren hastapenetan hartutako jokabideei tinko lotuko zaizkienak eta prozesuen testuratzeak ekar zitzakeen analisirik gabeak.

1.3. AURKAKOTASUNA: EGOTEKO MODUA / IHARDUTEKO MODUA

Aurkakotasuna da Agirrek darabilen teknika narratiboetariko bat. Agian, berau da hedatuena bere eleberritan. Aurkajarri egiten dira pertsonaien izaerak, pertsonaien bizilekuak, pertsonaien ekintzak... Aurkakotasuna bihurtzen du bere eleberrien funtsezko elementu egituratzaile, eta honen barnean dualismoa.

Aurkakotasunaren ezaugarri bereizle bat iharduletasuna da; iharduletasuna, iharduletasunik ezaren aurrean. Pertsonaia batzuren iharduletasunari esker sortuz doaz gertaeren jarraipen bat den erlatua eta kontaketa (14); baita itxuratuz ere ihardule ez diren pertsonaiak.

Auñemendiko Lorean Portun pertsonaiaren iharduletasunari esker itxuratuz doaz bereziki Riktrudis, Arnoldo edo Adalbaldo. Etengabeko peripezia-iturri bihurtzen da Portunen frankoekiko gorrotoa edo Riktrudisez maitemindurik egotea. Eta peripezia hauen bitartez doaz itxuratuz Portunen grinak; baita Riktrudis, Arnoldo eta Adalbaldoren birtuteak ere.

Kresalan eleberriaren hastapen-hastapenetatik dakusa irakurleak Mañasi Anjelez maitemindurik. Baina maitemindurik egote hau, desoreka hau, ez da Mañasirentzat ekintza-iturri bihurtzen. Bera egon dago, harik eta Anjel Mañasiz maitemindurik dagoela ohartzen den arte. Desorekak ez du ekitera bultzatzen. Mañasi "zain" dagoen bitartean, berbaldia "betez" doa Arranondoko "ohiturekin", Mañasiren maitemindu-egoera horri afektatzen dion beste pertsonaia batzuren ekintzekin (nahiz eta sarritan ekintza enuntziazio batzuren subjetu izatera mugatu). Mañasi "zain" dagoen bitartean eta "zain" dagoela

(14) "Todo relato consiste en un discurso que integra una sucesión de acontecimientos de interés humano en la unidad de una misma acción". BREMOND, Cl.; "La lógica de los posibles narrativos" in **Análisis estructural del relato**, 90. or.

aditzera ematen delarik, hor datoz berbaldira arrantzaleen ohiturak, Anjelen eta Antoniren gurasoen arteko ezkontz tratuak, Indianoa eta Mañasiren gurasoen arteko ezkontz tratuak, etab. Peripezia hauekin betetzen da berbaldia, Mañasi pertsonaiaren tolesgabetasuna itxuratuz. Azken finean, besteen "ekintzen" bidez sortutako gertaera-jarraipenak itxuratzen du desorekan egon dagoen pertsonaia-protagonista. Anjel bera ere egonean dago, han-hemenka ezkontz tratuak garatu eta hauen berriak Arranondon zehar zabaltzen ari diren bitartean.

Garoan Joanes egon dago. Baina egote-modu hau beste pertsonaia batzuren iharduletasuna dela bitarteko ematen da batipat aditzera; Iñazio Mari, Juan Andres, Martin eta abarren iharduletasuna dela bitarteko, hain zuzen.

Azken finean, Agirreren eleberrietako pertsonaia-protagonistak egon daude, eta bigarren mailako pertsonaien esku gelditzen da iharduletasuna.

Riktrudis **Auñemendiko Lorea**n egon dago. Adalbaldoz maitemintzeak desoreka sortu badu ere berarengan, desoreka honek ekitera ez baina zain egotera darama. Riktrudis egon dago. Eta egote honetatik atera eta ekintzara igarotzeko egote hau uzten duenean, **erantzun** gisa da soil-soilik: beste pertsonaia batzuren ekintza edo **erasoei** erantzuteko, Portunen ekintza edo erasoei erantzuteko, bereziki.

Mañasi **Kresala**n egon dago. Anjelez maitemindurik dagoela ohartzeak desoreka sortu badu ere berarengan, desoreka honek ekitera ez baina zain egotera darama. Mañasi egon dago. Eta egote hau ekintzara igarotzeko uzten duenean, **erantzun** gisa da soil-soilik: beste pertsonaia batzuren ekintza edo **erasoei** erantzuteko, herrian zabaldu diren zurrumurruei edo gurasoek egindako ezkontz tratuei erantzuteko.

Joanes **Garoa**n egon dago. Iñazio Marik edo Juan Andresek hartu dituzten bizimoduek mina sortzen badiote ere, min honek ekitera ez baina zain egotera darama. Joanes egon dago. Eta egote hau etxera etorri zaizkion seme edo ilobei aholkuak emateko uzten du, hartu duten bidea uzteko eskatzeko; hitz batean, beste pertsonaia batzuren ekintza edo erasoei erantzuteko.

Agirreren eleberrietan egon dagoen taldea (eta salbuespenik gabe talde honetan dago eleberriaren pertsonaia-protagonista)

aurkajarri egiten zaio ihardulea den talde bati. Modu batean edo bestean, talde ihardule honek eraso egiten dio egon dagoen taldeari; eta eraso hauek direla bide doa itxuratuz egonean dagoen taldea; izan ere, eraso hauen aurrean hartzen dituzten jarrerek laguntzen bait dute batipat pertsonaia horiek itxuratzen.

Eraso-erantzun jokoa dela bide garatzen dira egile honen eleberriak. Binomio honek eleberria amaierara heldu arte iraungo du. Orduan talde erasotuko pertsonaiaren baten heriotzak eta heriotz honek ekarritako ondorioak (Joanesen heriotza **Garoa**n, Adalbaldorena **Auñemendiko Lorea**n) edo pertsonaiaren baten jarrera-aldaketak (Anjel batpatean ohartzen da Mañasiz maitemindurik dagoela **Kresala**n) ematen diote bukaera binomio horrek sortutako jokoari esker ehoz joan den matazari.

Benetako amildegia dago bi taldeen artean. Bizilekuak, izaerak eta abarrek bereizten dituzte egon dauden pertsonaiak eta ihardu-leak, elkar ulertzen ez duen bi mundu eraikiz eleberrietan barrena.

Auñemendiko Loreako Riktrudis ibar eder batean lekuturik dagoen Mendiola etxean bizi da; Portun, berriz, "errekondo zakon batean" kokaturik zegoen Ozinbeltzen.

Kresalako Mañasiren biziguneak Arranondoko gainontzeko arrantzaleenak dira; ez, ordea, Indianoarena: hau ez dakusagu arrantzaleekin eta hauen biziguneekin nahasirik.

Garoako Zabaleta baserria "Gogordopeko zelaitxo baten" dago kokaturik eta Joanes du etxejaun; honen seme Juan Andresek, aldiz, Gaztelako lautada lehorrak ditu bizileku.

Auñemendiko Loreako Riktrudis "bildots otzan" legez karakterizatzen da; Portun, berriz, "otso" legez.

Kontalariaren hitzetan **Kresala**ko Mañasi "arima argidun da biotz samur sentikorraren jaubea" da eta Indianoa "arro andia, siñiskorra ta siñizgaiztokoa"; eta pertsonaia honen eleberriko ekintzek ere horrela karakterizatzen dute.

"Kristoren legea zan Joanesen argia" dio **Garoa**ren kontalariak eta **Garoa**n barrena lege horri jarraikiz azaltzen da Joanes pertsonaia; Juan Andresi, ordea, Gaztelan ahaztu egingo zaizkio "Jaungoiko Altsu Donearen aginduak".

Aurkakotasuna bihurtzen du Agirrek bere eleberrien eraikuntzarako funtsezko zutabe. Aurkakotasunaren alde batean lekutzen ditu bizileku-mota bat dutenak, izaera-mota batekoak, egon daudenak..., eta bestean, koordenada hauetatik kanpo gelditzen direnak.

Eleberrigile honen eleberrietako pertsonaia-protagonistak **beti** du zeharo aurkajartzen zaion pertsonaiaren bat. Antipodatan kokatu eta gainontzeko pertsonaiak polo batekiko edo bestearekiko hurbiltasunak mugatzen ditu.

Azken finean, halako determinismo-kutsu bat darie Agirreren pertsonaiei; izan ere, behin kontalariak beraien izaera karakterizatuz gero, karakterizazio honen arabera jokatzen bait dute. Horregatik, eleberri hauetako aurkakotasunak ez dira hainbeste objetu baten nahiak edo zerbait erdietsi nahiak sortuak, baizik eta izaera-modu batek edo mundua ikusteko modu batek eraikiak.

Egon daudenak egonean badaude, ezertan aldatu beharrik ikusten ez dutelako da. Zerbait erdietsi beharrak edo nahiak ez daramatza ekintzara, ez bait dute ezeren beharrik edo nahirik; eta zerbaitena badute (Mañasiren kasua **Kresalan** edo Riktrudisena **Auñemendiko Lorean**, lehena Anjelez maitemindurik eta bigarrena Adalbaldoz), noiz etorriko den **zain** gelditzen dira; izan ere, pertsonaia hauentzat etorri beharrekoa bada etorriko bait da, eta bestela ez. Beste norbaiten edo Norbaiten esku balego bezala, eta ez norberaren esku desorekak orekatzea.

Iharduleak ihardule badira, grinaren batek sortzen dien desorekagatik da. Desoreka honek ekitera bultzatzen ditu, grinak grina hori asetzea eskatzen dielako.

Lehen taldeak ez du abenturarik sortzen, azken finean izaki perfektuak bait dira; eta ahuleziatxoren bat badute —maitemindurik egotea—, honen aurrean zain gelditzen dira, ETSIPENA bihurtuz egonean jarraitzeko indar. Zentzu honetan ez dira pertsonaia nobeleskoak, antinobeleskoak baizik.

Bigarren taldea da abentura-sortzailea, ez bait dira izaki perfektuak eta ez bait dute ahulezien aurrean etsipena ezagutzen. Ahuleziek ekitera daramatza. Zentzu honetan pertsonaia nobeleskoak dira, eta hauen abenturak direla bide eraikitzen dira nobelak.

Bigarren talde honen ahuleziak taldekideen izaerak determinatzen ditu. Izaera-mailan daukaten oreka-faltak bultzatzen ditu ekitera.

Eta bi taldeak aurrez aurre jartzen ditu, ez hainbeste zerbaiten posesioak, nola bizitzaren aurrean hartzen dituzten jarrera desberdinek; bizi izateko modu desberdinek, alegia.

Azkenean, laburtuz eta asko laburtuz, esan dezagun Agirrek izaera-modu batzuren garapena eraman duela bere eleberrietara, oso modu manikeoan bada ere.

1.4. ITERATZEN DUEN ANPLIFIKAZIOA

Iterazioa, errepetizioa, nabaria da Agirreren eleberrietan, baina ez edonola. Ez da modu anarkikoan testuratzen den iterazioa, baizik eta modu egituratuan testuratzen dena.

Egile honen eleberrietan, orohar, pertsonaia konkretua berbaldira ekintzaren bat garatzera etorri aurretik, bere berri ematen da, baina ez edozein berri, baizik eta matazaren garapenerako guztiz funtzionalak bihurtuko direnak.

Kontalari orojakileak edo honen konfidantza osoko pertsonaiaren batek ematen ditu pertsonaien izaerari buruzko berriak: tesi bat jartzen du. Berbaldiaren atalean jarraian etorriko diren ekintzek egiaztatu egingo dituzte berri horiek, frogatu egingo dute tesi hori.

Orohar hiru mailatan ematen da iterazioa. Kontalari orojakileak edo honek kontaketa osoan hobetsitako fikziozko pertsonaiak ematen ditu beste pertsonaia bati edo batzuri buruzko berriak; bigarrenik, fikzioaren garapenak frogatu egiten du berri hauen egiatasuna; eta, hirugarrenik, kontalari orojakileak bere berbaldi diskurtsiboetan kontatzen ari den historiak iradokitako gaiei buruzko gogoetak egiten ditu; eta, nolabait, modu orokorrean egindako gogoeta hauek ere iteratu egiten dute ideien mailan narrazioa, historia baten bidez aditzera ematen ari dena.

Auñemendiko Lorean Riktrudisen ahotsean aditzera ematen da Portun kristauen etsaia izan eta Riktrudisez maitemindurik dagoela; Amandoren ahotsean aditzera ematen da, berriz, Portun harro samarra dela eta "sinizte bagea". Lehen kapituluko berri hauen "anplifikazio" izango dira Portunek eleberrian barrena garatuko dituen ekintzak. Riktrudisek eta Amandok emaniko berriek tesi bat bailiran funtzionatuko dute matazaren garapenean, mataza honen garapena eta garapen honi eskainitako berbaldia tesi horren frogaleku bihur-

tuz. Azken finean, Portunen ekintza eta esan guztien motorea berri horietan dago. Portun pertsonaiaren izaera eta egoera karakterizatzen duten ezaugarri horiek bihurtuko dira mataza-sortzaile. **Auñemendiko Lorean** barrena Portunek esandakoak eta egindakoak karakteristika horien anplifikazio eta froga besterik ez dira, karakteristika horiek bihurtzen direlarik historia sortuz doazen indar. Ezaugarri eta egoera hauek Portun determinatu eta ekitera bultzatzen dute desorekari irtenbide bat emateko; eta bere ekintzek frogatu besterik ez dituzte egingo jadanik azaldutako karakteristikak.

Riktrudisek, Arnoldok, Adalbaldok... **Auñemendiko Loreako** pertsonaia guztiek eleberrian azaltzen duten jokabideetan ez dago ez-ustekorik; izan ere, azken finean, deskripzio labur batean ezarri zaizkien ezaugarriak "bete" besterik ez bait dute egiten. Portunekin gertatzen den legez gertatzen da gainontzeko pertsonaiek honek eragindako "erasoei" erantzuten dietenean ere: deskripzio bat anplifikatu besterik ez dute egiten, berbaldi-mailan erantzun konkretu bat eman aurretik edo eman ondoren edo-ta erantzun batetik beste batera doan tartean egin den deskripzioari.

Iterazioa Agirreren eleberrietako elementu meneratzaileetako bat da. **Auñemendiko Lorean** nahiz gainontzeko eleberrietan iteratu egiten dira pertsonaien deskripzioak. Jadanik berbaldiaren jarraikotasunean pertsonaiaren batek beste pertsonaia bati buruz eginiko deskripzioa itera daiteke kontalariaren edo beste pertsonaiaren baten edo biren ahotsean. Aldaera estilistiko batean oinarritutako iterazio honi arestian azalduriko iteratzen duen anplifikazio hori gehitzen zaio; baina azken hau, iteratzen duen anplifikazio hau, bihurtzen da funtsezko elementu egituratzaile, honi esker sortuz bait doa historia eta didaktizismoranzko norabidera doan esanahi-mundua.

Auñemendiko Loreari buruz esana esan daiteke ñabarduraren batzurekin **Kresala** eta **Garoari** buruz ere. Kontalari orojakilearen berbaldi diskurtsiboak pisu eta leku handiagoa hartzen du azken bi eleberri hauetan lehenengoan baino; eta baita iterazioak ere berbaldi diskurtsibo honen bitartez. Narrazio-mailan pertsonaien izaera edo egoeraren deskripzioa iteratu egiten da izaera edo egoera hori anplifikatuz; izan ere, aipatu pertsonaien ekintza edo jokabideak deskribaturiko izaera edo egoera horren zabaltze-moduan antolaturik bait daude. Berdin berbaldi diskurtsiboak ere; kontaketak duen konkrezioaren maila uzten badu ere, maila orokorrago bat hartzeko, maila

orokor honetatik kontaketa komentatu egiten du eta komentario hauen bidez iteratu egiten da narrazioa ideia-mailan.

Esan daiteke Agirreren eleberriek nahiz historia nahiz berbaldi-mailan jasotzen dutela errepikapena. Historia-mailan, arestian aipatutako anplifikazio-teknika horren bidez, sarri askotan historia-mailako iterazio hau kontalari orojakilearen komentarioek dakarten iterazioarekin osatzen delarik. Berbaldi-mailan, funtzio informatiboa betetzen duten pertsonaien izaera edo egoeraren deskripzioak iteratu egiten direlako eszenaren eta errepresentazioaren bidez; izan ere, azken finean laburpena zabaldu eta hedatu egiten bait da "errepresentazioan", pertsonaiek jadanik emanda dagoen informazioa eszenifikatzean. Berbaldi-mailan eszenaren bidez anplifikatzen da laburpena. Iterazio honi beste iterazio bat gehitzen zaio batipat ohiturazko eleberrietan: berbaldi diskurtsibora joz, kontalari orojakileak egiten dituen komentarioak.

Kresalako Mañasik, Mañasiren gurasoak, Indianoak, Antonik ...edo **Garoa**ko Joanesek, Ana Josepak, Iñazio Marik, Juan Andresek... ez dute harriburni eginda utziko irakurlea. Beren eginkizuna oso sinplea da: eleberrietako historietan kontalariak edo fikziozko pertsonaiaren batek edo biek jadanik ezarritako karakterizazioa "betez" joatea. Horretarako, karakterizazio-mailan zenbait pertsonaiak azaldutako "ahuleziak" edo desorekak ekitera bultzatuko ditu, eta honela anplifikatuz joango da deskribaturiko "ahulezia" edo desoreka. Eta ihardule gisa itxuratuz ez doazen pertsonaiei ere beren izaera perfektua erakusteko, edo anplifikatzeko, aukera eskaintzen die.

Honela dio G. Garatek **Auñemendiko Lorea** dela-ta:

> "Erretolika klasikoaren aholkuei jarraituz, Agirrek anplifikazio teknika darabil zenbait kapitulutan. Mikel Zarate ongi ohartu zen puntu honetaz" (15).

Guztiz nabaria da jokabide hau Agirreren eleberrietan. Hainbat eta hainbat kapituluren egituraketan agerian gelditzen da teknika-modu honen erabilera. Nolanahi ere, teknika-modu honen erabilera kapitulua bera gainditu eta eleberriak beren osotasunean antolatzeko baliabide bihurtzen du eta eleberrien konposiziorako oinarrizko zutabe.

---

(15) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 39. or.

Dena den, bere testuen hezurdura eratzeko modu hau ez dago kapitulu-mailakoa bezain argi; atzemateko ilunxeagoa da.

Honako hau ere eransten du G. Garatek **Auñemendiko Lorean** ematen den Erretorika klasikoaren presentziaz:

> "Oratoria edo erretolika klasikoaren beste jokabidea 'repetitioa' zen. Predikuetan behin eta berriz, modu askotara eta zuzen edo zeharka, gauza bera esan, entzule-irakurleen burutan fintkiago sar daitezen.
>
> Ideiak ez ezik, batzutan gertakariak beraiek ere behin baino gehiago errepikatzen dira. Portunen eta Adalbaldoren arteko eztabaida berriro eta berriro esaten zaigu. (Ikus I, 32, 42, 90).
>
> Sermoietan etengabe errepikatu eta anplifikatzen dira ideia berdinak. (Ikus I, 22, 100, 102, 108, 164, 166; II, 21 hurr.)" (16).

Anplifikazioa eta anplifikazio honen bidez errepetizioa. Honela eraturiko berbaldi narratiboa zenbait bider ideien mailan berriro errepikatzen da berbaldi diskurtsiboaren bidez.

Egituratze-modu honen bidez mezu didaktikoak igortzea bilatzen du funtsean Agirrek. Mezu didaktikoak aukeratu egiten ditu, eta gero behin eta berriz errepikatu. Irakurlearen arreta sakabana ez dadin, haren arreta puntu batzutan kontzentratzea bilatzen du. Puntu hauek bihurtuko dira testu osoan zehar errepikagai, jadanik deskribaturiko gisan. Azken finean, historiak ideia berberak errepikatzeko moduan eraikitzen dira; eta, ondorio gisa, besteak beste, pertsonaia konplexuak sortzetik urrutiratzen, eta ñabardurak, gertaera nimiñoak, eguneroko historiak testura gabe gelditzen dira.

1.5. IRUDITEGI TOPIKOA. MINTZAIRA ESKURAGARRIA

Agirreren eleberrietako berbaldia mezu didaktikoak ematera zuzentzen da nahiz egitura handietan nahiz txikiagoetan; baita perpausa-mailan bertan ere. Plan bati erantzuten dio, aurretiaz ezarritako egitasmo bati. Eta egitasmo hori **irakatsi** lemaren azpian egina dago, lema horri erantzuteko moduan.

---

(16) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 63. or.

Irakaspenak gutxienez bi norabide hartzen ditu. Batetik, giza jokabideak arautu nahi ditu; hori bilatzen dute eleberrien historien garapen-moduek. Baina, bestetik, hizkuntza bera ere, historiak kontatzeko behar duen tresna ere, irakasgai bihurtzen du bidenabar.

Irakurlearengana heldu nahi du egile honek, eta ahalik eta neurririk handienean erraztu honi bidea. Irakurlea erakarri, irakurgaiak euskaraz irakur ditzan. Honela zioen **Kresala**ri eginiko hitzaurrean:

> "Euskaldun guztiak euskerazko gauzen irakurzaleak egin gura nituke, ta gauza astunak ain gogoz irakurten eztiralako, zerbait errezago ta gogotsuago irakurri daien artu dot ipuin bat egiteko lanbide ta asmoa" (17).

Guzti honek mintzaira eskuragarria eskatzen dio lehenik eta behin. Irakurleak erraz ulertu behar du irakurtzen ari dena. Eta irakurketa erraztuz, halaber, errazago ulertuko du aurkezten zaizkion giza jokabide paradigmatikoek erakusten dutena ere.

Mintzaira eskuragarria da. Baina Agirrek ez du kontzesiorik egiten; lexiko-mailan, esate baterako. Berak bere ustez erabili behar duen terminoa hautatu eta termino hori erabiltzen du, baina irakurlea eta honen euskararen ezaguera hipotetikoa ahaztu gabe. Eta arrazoi-mota desberdinengatik (erabilera urrikoa delako edo neologismoa delako edo...) irakurlearentzat ezezaguna izan daitekeela uste badu, argitu egingo dio aipatu terminoa, oin-ohar baten bidez edo sinonimoen erabilerara joz. **Auñemendiko Lorea** nagusitzen zaie beste bi eleberriei oin-oharren erabileran; hori da, hain zuzen ere, neologismo-ugaritasun handiena duen eleberria.

Oin-oharren bidez argitasunak ematera ez baina sinonimoen erabilerara jotzen du batzutan. Sinonimo hauen erabileran guztiz nabaria da honako jokabide hau: elementu bat hizkuntzan tradizio handiagoa edo txikiagoa duen mailegua da; honen sinonimotzat ematen dena, orohar, sortu berriagoa. Sorkuntza-lan honetan euskal ondare lexikala abiapuntu moduan hartuta ematen zaio bizitza hizperriari. Beste kasuren batzutan, euskal hitz zaharraren eremu semantikoa zabaldu egiten da, maileguaren sinonimo-moduan funtziona dezan: "itzaldi edo **sermoia**"; "idunzapi edo **pañuelo**"; "**zapata**, oinzorro edo trauskoak"; "iskillos edo **armaduna**"; "oial-estu edo **zinta**"; "erriko buru edo **alkatea**"; "Eliz Artzain edo **Obispoak**"; "zurontzi edo **baldea-**

(17) AGIRRE, D.; "Kresala. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, 11. or.

kaz"; "itxas-ate edo **barra**"; "aterpetxu edo **guardasol**"; "orduari edo **erlojuak**" (18); etab. Juntagailu disjuntiboaren bidez eratutako sinonimoak **Kresala**n darabiltza batipat, **Garoa**n desagertu egingo dira eta oin-oharretara mugatuko du modu hain zuzenean hizkuntza irakastea. Juntagailu disjuntibo batek lotzen dituen sinonimo hauetan grafiak bereizten ditu elementu mailegatua eta hizkuntzak berak eskainitako baliabideetatik sortutako elementuak; lehena kurtsibaz idazten du eta bigarrena grafia arruntaz.

Agirreren eleberrietan kurtsiba hainbat eta hainbat hitz mailegatu markatzeko erabiltzen da, nahiz eta horretara ez mugatu.

Eleberri historiko eta ohiturazko eleberrietan izaki perfektuak edo ia perfektuak sortu ditu, hauei aurkajartzen zaizkien izaki ahul eta grinatsuekin batera: izaki abstraktuak, bizpahiru ezaugarritara laburtuak, gizakiaren izatetik urrun daudenak; hain dira sinpleak. Baina ezin izan du abstrazio berdina egin hizkuntza-mailan, pertsonaia hauek beren izaera artifizialaren pareko luketen mintzaira artifiziala mintzatzen jarriz. Agirrek ezin izan du, ez du nahi izan, eleberri hauek kontatzeko hautatu duen kontalariak bezala hitz egitea **Kresala**ko arrantzaleek edo-ta **Garoa**ko baserritarrek.

Kresalari eginiko hitzaurrean zioen eleberriratzen zituen pertsonaiak bizi-biziak zirela eta beraien arteko iharduna guztiz egiazkoa, nahiz eta "gatzgarau andiak" kendu.

Dekoroaren legeak salbuespenik gabe zainduko ditu. Baina kontalariaren hizkeraren errejistroa (19) eta pertsonaiena ez da berdina, nahiz eta, jakina, pertsonaia guztiek ere ez duten berdin hitz egiten. Kontalariaren hizkera oso zaindua da: eredua izatea bilatzen du, ahalik eta euskararik dotoreena erabiltzea, gaztelerazko maileguetatik ahalik eta gehien urruntzea, beste adierazpide batzutara joz horiek ordezkatzeko. Gaztelerazko mailegu kurtsibaz markatuak ugariago dira pertsonaien ahotsean kontalariarenean baino, nahiz eta pertsonaia guztien jarrera ez izan berdina atal honetan. Kontalariaren aho-

---

(18) **Kresala**, 50., 53., 93., 99., 45., 42., 45., 50., 83., 201., 202. orr.

(19) Enuntziazio-baldintza desberdinei zor zaizkien hizkuntz aldaerak. Ik. SEGRE, C.; **Principios de análisis del texto literario**, Editorial Grijalbo, Barcelona, 1985, 83. or. Soziolektoz eta errejistroz berezi egiten da kontalaria berak sortzen dituen pertsonaietatik.

tsak kontrastatu egiten du alor honetan pertsonaia guztienekin, nahiz eta gero kontrasteak eman pertsonaien artean ere.

Kontraste hauek batipat ohiturazko eleberrietara mugatzen dira. Esandakoaren adibide gisa, kontalariarengandik hurbilen dagoen pertsonaia har daiteke: **Garoa**ko Joanes paradigma hori. Joanesek "**konpesatzera**", "**konponduko**" (20) moduko adierazpenak badarabiltza ere, kontalariak bere ahotsean "aitortzera", "ulertuko" erabiliko lituzke (21) adierazpen horien ordez.

Ohiturazko eleberrietan bilatzen du batipat pertsonaien hizketa koloreztatzea. Baina era berean erantsi beharra dago, oso muga estuak jartzen dizkiola koloreztatze honi euskara-eredugarri bat erabili nahiak edo irakatsi behar den edo nahi den euskarak eredugarria izan beharrak.

Aipatu bi hitz horiek besterik ez dizkio azpimarkatzen kontalariak Joanesi. Bi hitz horietara mugatzen da eredugarritasunetik irtetea, bizigarritasunaren aurrean amore emateko; Joanes bezalako artzain baten hizkerara hurbiltzeko artifizial samarra izan bait zitekeen beste aukera egin izan balu. Dena den, ohiturazko eleberrietan nabaria da pertsonaien hizkera zer edo zer koloreztatzea bilatzea, pertsonaia batzutan nabarmenagoa delarik beste batzutan baino; hala nola, Ana Joseparengan **Garoa**n edo Tramana eta Brixengan **Kresala**n.

Mintzaira-mailaren batean pertsonaiari egokitzea bilatzen du (eta hau ohiturazko eleberrietan soil-soilik, zeren eta ez dago beste hainbeste esaterik **Auñemendiko Lorea**ko pertsonaiarik gehientsuenez, Riktrudisen, Arnoldoren eta abarren prediku luze horietaz). Baina, hala ere, mintzaira eredugarria eta eskuragarria erabiltzen saiatzen

---

(20) **Garoa**, 34. or.

(21) Jose Ramoni buruz hitz egiten ari delarik honela dio kontalariak: "Au, bai, au jaiero izaten zan Meza nagusia ikusten, askotan **bezperak** entzuten, naikoa sarri bere utsegiteak aitortzen" (**Garoa**, 33. or.). Joanesek **konponduko** hitza darabilen antzerako testuinguru batean **ulertuko** darabil Azkarragako Mari Batistak: "—Ez orixe, ez Ana Josepa, ta biok ulertuko bagiña..." (**Garoa**, 46. or.). Azkarragako Mari Batistaren ahotseko "ulertuko" hitzari oin-ohar bat eskaintzen dio kontalariak. Honela dio oin-ohar horretan: "**konponduko** esan zuala uste det" (**Garoa**, 46. or.). Honenbestez, pentsa daiteke "ulertuko" hitza kontalariaren ahotsak Mari Batistari ezarri diona dela. **Kresala**n ere mota honetako adibideak aurki daitezke; hala nola, esate baterako, Josepak darabilen "**kantau**" (**Kresala**, 54. or.) horren aurrean kontalariaren ahotseko "erestu" (**Kresala**, 220. or.).

da: euskara zuzena. Eta, jadanik azaldu den gisan, mintzaira zuzen hori irakurleari eskuragarri bihurtzen saiatzen da.

Agirrek bere eleberrietan sortzen edo imitatzen duen iruditegia ere eskuragarria da. Eskuragarritasun honen oinarria, funts-funtsean, iruditegi honen topikotasunean dago. Izan ere, Agirrek, berea eta berea bakarrik litzatekeen iruditegi bat sortu baino gehiago, jadanik erabileraren poderioz ezagun, gastatu eta topiko bihurtu dena bait darabil. Oso gogoko dituen onomatopeia eta pertsonifikazioarekin batera, guztiz nabaria da konparazioaren nagusitasuna metaforaren aurrean. Konparazioa bihurtzen du figura erretorikorik erabiliena; irakurlearentzat eskura erraz den baliabidea, hain zuzen ere. Animaliak, egurats-gertaerak etab. ditu alderagai; hitz batean, esan daiteke Naturan aurkitzen dituela konparaziogaiak.

Beraz, Erretorika klasikoak apaindura erraz moduan jotzen zuena (22) nagusitzen da Agirreren eleberrietan. Tropoen urritasuna nabaria da. Metaforaren erabilerara jotzen duen kasu urrietan metafora topikoak dira, tradizio handikoak eta tradizio hau dela medio irakurleak ezagut ditzakeenak, "herritartu" egin diren metaforak direlako.

Metafora topikoak, termino erreala eta ideala konparazio-partikula baten bidez alderatzen dituzten similak darabiltza, eta nahiz batzu nahiz besteak eleberrira datozen pertsonaien mundutik hurbil egon daitezkeen elementuen bidez sortuak, guztiz popularizatuak dauden elementuak izatean.

Azken finean, ez dio iruzur egiten figura erretorikoen erabilerari. Baina, bai hauek hautatzean eta bai hauek eraikitzean, mintzaira eskuragarri baten markoak hautsi gabe itxuratzen ditu. Eta topikoa nagusitzen zaio sorkuntzari.

1.6. BILAKAERA NOBELESKOA

Agirreren eleberrien arteko alderaketak antz ugari aurkitzen ditu; are gehiago, batipat antzak aurkitzen ditu. Hala ere, zenbait

(22) "Las figuras constituyen la base de una teoría del ornamento. Se distingue el ornamento fácil, que se funda en el empleo de los 'colores retóricos', esto es, de las figuras de construcción o de pensamiento; y el ornamento difícil, caracterizado por el empleo de tropos". GUIRAUD, P.; **La estilística**, 26. or.

desberdintasun nabari dira, batez ere lehenengo eta beste bi eleberrien artean.

Badago halako bilakaera bat bere eleberri historikotik ohiturazko eleberrietara, nahiz eta hiru eleberrien arteko oinarri amankomuna bortitzagoa izan aldeak baino. Hiru eleberrietan antzeko garapena dute koordenada narratiboek: pertsonaia-protagonista ez da ihardulea; pertsonaia-protagonistaren iharduletasuna zain egotera mugatzen da; bigarren mailako pertsonaiak dira iharduleak eta hauen iharduletasunari esker doa sortuz abentura, pertsonaia-protagonistak beren egonetik ateratzen bait ditu bigarren mailako pertsonaia hauen ekintzek ekarritako erasoari erantzutera; pertsonaiak modu dikotomiko batez antolaturik daude, matazaren garapenerako oso funtzionalak bihurtzen diren ezaugarri gutxi batzu aurkajartzen dituztelarik; gertaerek irauten duten epe luze samarra —urte betetik gora— berbaldi bihurtzean, historia batzuren pasarte aukeratuak kontatzeko erabiltzen da eta pasarte aukeratu hauen bidez pertsonaia-protagonistak **nola dauden** erakusteko eta pertsonaia-protagonista hauek erasoei **nola erantzuten** dieten..., horrela mundu tinko, ziur eta gotorra sortuz.

Baina, hala ere, eleberri historikotik ohiturazkoetara alde txiki batzu nabari dira, eta alde txiki hauetan somatzen da bilakaera.

Kontaketaren, narrazioaren, presentzia nabarmenagoa da ohiturazko eleberrietan historikoan baino. Era berean, komentarioaren presentzia nabarmenagoa lehenengoetan bigarrenean baino.

Eleberri historikoan historia kontatzen ari den kontalariaren presentzia baino handiagoa dute berbaldi-mailan pertsonaiek garatzen dituzten bakarrizketa eta elkarrizketek. Azken finean, pertsonaien elkarrizketa eta bakarrizketetatik sortutako berbaldiak ekarri handi bat egiten du hitz-orez jaztera eleberria. Kontalariak utzi egiten die pertsonaiei hitz egiten eta hitz egite honen bidez beraien jokabideak erakusten.

Elkarrizketa hauek oso luzeak dira, eta elkarrizketa batean bilatzea espero den laburtasuna eta bizitasuna falta zaizkie orohar. Pertsonaiak beste pertsonaia bati edo batzuri zuzentzeko hitza hartzen duenean, istorioak kontatzera heltzen da, istorio horien entzule bihurtuz elkarrizketakidea. Honek jokabide berdina har dezake erantzunean. Honela, bada, elkarrizketa **Auñemendiko Lorean** guztiz

artifiziala da sarri askotan, argudioak erakusteko edo istoriak kontatzeko erabiltzen den baliabidea.

Elkarrizketaren atal honetan nabaria da bilakaera eleberri historiko honetatik ohiturazko eleberrietara. Ohiturazko eleberrietan elkarrizketak labur eta biziak bihurtzen dira. Agian, Agirrek ez zuen eragozpenik aurkitu VII. mendean bizi izan ziren Andre Luzia, Arnoldo, Riktrudis, Amando... prediku luzeak ematen jartzeko; izan ere, iraganeko pertsonaia hauekiko urruntasunak ez bait zion horrela jokatzeko oztoporik jartzen. Baina ezin izan zuen beste hainbeste egin berak Arranondon ikusitako arrantzaleekin; ezta Urbia inguruetako artzain eta baserritarrekin ere. Hurbilegi zituen **Auñemendiko Lorea**ko pertsonaien lezio magistralak emateko. Berak bizi zuen eguneroko errealitateak berak ere eragotzi egiten zion hain artifizial hitz egiten duten pertsonaiak sortzea.

Orohar, ohiturazko eleberrietako elkarrizketak laburrak eta biziak dira eta pertsonaia-tipo moduan karakterizatuz doazenak; izan ere, Ana Josepa edo Tramana eta Brix elkarrizketetan erakutsitako hizkera-moduagatik ere karakterizatzen bait dira; baita gainontzeko pertsonaiengandik berezi ere, **Auñemendiko Lorea**n gertatzen ez den bezala. **Auñemendiko Lorea**n Arnoldok, Riktrudisek, Andre Luziak, Adalbaldok, eta baita Pedro Mari morroiak berak ere, berdin edo oso antzeratsu hitz egiten dute. Uniformetasuna nagusitzen da pertsonaien hizkeran. Ohiturazko eleberrietan hautsi egiten da zertxobait uniformetasun hau; ez bakoitzari berea eta berea bakarrik emateko, baina bai batzu eta besteak elkarrengandik bereizteko moduan. Hor daude, esate baterako, Indianoaren, Mañasiren, Tramana eta Brixen, Arranondoko haurren... hizkera-modu desberdinak **Kresala**n edo-ta Joanesena eta Ana Joseparena **Garoa**n. Pertsonaiak beren ahotsez eleberriratzean, kolore desberdinetako hizkera-mota dakarte.

Auñemendiko Loreatik **Kresala** eta **Garoa**ra narrazioak eta komentarioak lekua irabazten dute testuan. Elkarrizketak elkarrizketa natural bihurtzen dira istorioak kontatzen edo argumentuek azaltzen dituzten entzuledun bakarrizketa izateari utziz.

Hiztegi-mailan ere nabari da bilakaera txiki bat eleberri historikotik ohiturazkoetara. Lehenengo eleberrian somatzen den Larramendiren hiztegiarekiko zaletasuna nabarmenki gutxiagotzen da hurrengo bietan.

P. Lhandek dioenez, **Auñemendiko Loreak** ez zuen arrakasta handirik erdietsi:

> "Baña Agiſe'ren lendabiziko irakuſgai ori jakintsu ta euskaltzale batzuen aftean gelditu zan. An zebilzkigun afotz zafen egiteak, Txilperiko, Txildebefto, Teodoriko, ta beste pefetxiko orienak, gure basefitafen egitekoakiñ antzarik etzeukaten. Euskaldun geyenak **Auñemendi'ko Lorea** bildu gabe gelditu ziran" (23).

Abegi ona egin ez zitzaiolako edo, Agirrek eleberri historikoa utzi eta ohiturazko eleberriekin jarraitu zion bere eleberrigintzari, nahiz eta ohiturazko eleberrien ondoren berriro ere itzuliko den historikora, heriotza heldu zitzaionean kapituluren bat edo beste argitaratuta zeuzkan eta bukatu gabe utzi zuen **Ni ta ni-ra**.

Baina eleberri historikoa uztean, "afotz zafen egiteak" ez ezik, "afotz zaf" hauen hizkera-modua eta hiztegi-modua ere uzten ditu.

Andre Luziak, Portunek, Riktrudisek, Amandok, Adalbaldok, Peru Padarrak... Larramendiren hiztegia darabilte, nahiz eta hiztegi honen presentzia batipat kontalariaren ahotsean nabarmendu. Hor daude Andre Luziaren ahotseko "ustakida" (24) edo Portunen ahotseko "erakaia", "erakidarik" (25) edo Riktrudisen ahotseko "azalkai", "goiende", "beregande", "doskaiña", "begirunetu" (26) edo Amandoren "onkai", "oartasun", "zedal", "doaiñ", "dierri", "izutaldi", "oben" (27) edo Adalbaldoren "leikor", "betuste", "meneginde", "illunketa", "ospill" (28); edo Peru Padarraren "deseigoa" (29); baita ere kontalariaren ahotseko "keiña", "betzigo", "iguiñ", "lenapezpi-

---

(23) LHANDE, P.; "Agiſe irakuſgaikiña" in **Itzaldiak**, 107. or.

(24) **Auñemendiko Lorea**, I, 18. or.

(25) **Auñemendiko Lorea**, II, 12. or., 16. or.

(26) **Auñemendiko Lorea**, II, 68. or.; I, 14. or., 16. or., 148. or.; II, 52. or. "Doskaiña" dio **Auñemendiko Loreak**, baina "doskañi" forma dakar M. de Larramendiren hiztegiak. Ikus LARRAMENDI, M. de; **Diccionario trilingüe del castellano, Bascuence y latín**, Bartolomé Riesgo y Montero impresor, San Sebastián, 1745, "sacrificio" sarrera.

(27) **Auñemendiko Lorea**, I, 108. or.; II, 62. or., 62. or., 72. or., 104. or., 106. or., 106. or.

(28) **Auñemendiko Lorea**, II, 142. or., 154. or., 154. or., 154. or., 162. or.

(29) **Auñemendiko Lorea**, II, 34. or.

ko", "aurkeztari", "eute", "gasupa", "banaita", "damorria", "salkindaria", "ioskaiñea", "salgaista", "ziñazkida", "zurrezta", "bezintarte", "otsandigo", "eutalde", "zuiñolde", "lotoskinde", "ziamar", "bakalda", "altiste", "sortitza", "gaikera", "marboilla", "bakunde", "txaberama", "menekio", "premesi", "bapilde"... (30). Larramendik bere hiztegira eramandako hitzak dira (31), baina R. M. Azkuek, esate baterako, bere **Diccionario vasco-español-francés**-en jaso ez dituenak.

Jakina da R.M. Azkuek ez zuela zaletasun handiegirik azaldu Larramendiren hiztegiagatik eta honen neologismoengatik (32); baita hiztegiak beste iturri batzu dituela funtsezko iturri ere, nahiz eta zeharka heltzen zaizkion Larramendik bere hiztegian jasotako zenbait hitz (33).

D. Agirrek eleberri historikotik ohiturazko eleberrietara egindako jauzian Larramendiren hiztegia baztertzera ere jotzen du, nahiz eta ez zeharo baztertu; izan ere, **Kresala**n barrena Kitolis pertsonaiaren ahotsean "esondu" edo "ustekida" (34) hitzak entzun daitezke.

---

(30) **Auñemendiko Lorea**, I, 66. or., 66. or., 70. or., 88. or., 106. or., 106. or., 114. or., 130. or., 132. or., 166. or., 168. or., 170. or., 170. or., 172. or., 174. or., 194. or., 194. or., 194. or., 194. or., 196. or.; II, 8. or., 22. or., 42. or., 54. or., 58. or., 82. or., 86. or., 128. or., 140. or., 176. or.

(31) LARRAMENDI, M. de; **Diccionario trilingüe del castellano, Bascuence y latín.**

(32) Honela mintzo da L. Mitxelena gai honen inguruan: "El es quien, por razones fáciles de comprender dado el pie forzado de su **Diccionario trilingüe** (1745), lanzó la primera nube masiva de neologismos, cuyo eco se escucha en los rincones más inesperados y que Azkue decidió tajantemente rechazar". MICHELENA, L.; **Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue**, Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbao, 1970, 23. or.

(33) Honela epaitzen du L. Mitxelenak R.M. Azkuek Larramendiren hiztegiarekiko hartutako jokabidea: "Por una parte, su actitud crítica con respecto a su antecesor fue excesivamente dura, porque le cerró todas las puertas, sin querer ni enterarse de lo que su antecesor pudo decir, aun haciendo alguna excepción con el **Suplemento**, (...). Con demasiada indulgencia, porque, al tiempo que cerraba a cal y canto las puertas para Larramendi, le dejó abiertos toda clase de portillos y resquicios, gracias a los cuales nos topamos a menudo con el proscrito Larramendi en el **Diccionario** de Azkue.

Es verdad que no lo hallamos con su nombre y apellido, sino encubierto con abundantes sobrenombres". **Ibidem**, 27-28. orr.

(34) **Kresala**, 96. or., 95. or.

Baina, batipat, kontalariaren ahotsean egiten da erabilerarik joriena: "erakaia", "erakarde", "goitandia", "marboilla", "soin-ale", "umant", "zizko", "autaria", "oñazpiko", "lorontzi", "azartona", "dierri"... (35). Edonola ere, aipatu joritasun hau urritasun bihurtzen da **Auñemendiko Lorea**koaren aldean. Eta **Kresala**tik **Garoa**ra oraindik ere askoz modu nabarmenagoan gutxiagotzen da Larramendiren hiztegiaren erabilera, nahiz eta kontalariaren ahotseko beste zenbaitetan, "aizemale" edo "lorontzi" (36) hitzetan, arrasto hori somatu.

Aipatu hitzak dira, besteak beste, R.M. Azkueren hiztegiaren iragazia igaro ez dutenak, nahiz eta aipatutakoren bat beste atzizkiren batekin igaro den; izan ere, "autaria" badio Larramendik, "hautesle" dio R.M. Azkuek (37).

Dena den, batipat **Kresala**n badira hainbat eta hainbat hitz, jatorria Larramendiren hiztegian ez izanik ere, R.M. Azkuerenean jarraipenik aurkitu ez dutenak. Hor daude, esate baterako, diogunaren lekuko "itz-neurtu", "izkiratuta", "izkirakinde", "Eliz Artzain", "etxesaria", "ikastetxea", "Garbitokia", "agintaulkia", "arrasta", "añutsua", "arroñak", "oiñ-zorro", "opil-gozo", "suburdi", "zalpurdi",... (38). **Kresala**n ez ezik, **Garoa**n ere bada horrelakorik: "txitxardiñak", "gizantz", "suburdi", "baratzuri-zuku", "etxe-bizitza", "oe-bigungarri", "buruazpiko", "berogarri", "arranparrillak", "gizirudi", "garrautsa"... (39). Agirrek berak edo bere garaikideek sortutako hitzak dira aipaturiko gehientsuenak eta gerora arrakasta eskasa erdietsi dutenak orohar; izan ere, ez bait dute lortu hedapen handirik egungo hizkuntzaren erabileran.

Agirre edo bere garaikideak edo beren aitzindari hurbil-hurbilak

---

(35) **Kresala**, 85. or., 52. or., 224. or., 66. or., 142. or., 35. or., 45. or., 185. or., 232. or., 232. or., 144. or., 88. or.

(36) **Garoa**, 158. or., 26. or.

(37) Ez da hau Agirreren eleberrietan aurkitutako adibide bakarra: "gaikera" zioen Larramendiri jarraiki **Auñemendiko Lorea**n (II, 54. or.), "gaitasun" dio **Kresala**n (18. or.) R.M. Azkuek beranduago bere hiztegian erabiliko duen atzizkiarekin.

(38) **Kresala**, 104. or., 188. or., 11. or., 45. or., 160. or., 18. or., 18. or., 18. or., 106.or., 195. or., 226. or., 201. or., 49. or., 211. or., 217. or.

(39) **Garoa**, 194. or., 211. or., 27. or., 36. or., 47. or., 57. or., 57. or., 57. or., 194. or., 211. or., 285. or.

aipatu hitzetako zenbait sortzera behartuta zeuden —"suburdi" eta "zalpurdi", esate baterako—, hitz hauekin izendatutako erreferenteak sortu berriak ziren neurrian.

Aipatu kasuetan begibistakoa denez, erreferente berriek eskatutako hitz-sorkuntzarako nahiago izan zuten hitz-elkarketaren baliabidera jo eta euskal ondare lexikala bera hartzea lehengai moduan mailegutzaren bidera jotzea baino.

Baina ez da erreferente berrien sorrera hizperriak sortzeko arrazoi bakarra. Beste zenbait egoera-motatan ere nahiago du hitz-elkarketa edo atzizkien erabileraren bidez hizperriak sortzea eta, neurri batean bederen, ahal duen neurrian, mailegutzaren bidea baztertzea. **Kresala**n "etxesaria" darabil, "errenta" baztertuz; "ikastetxea", "eskola"ren galeratan; "Garbitokia", euskal testuetan barrena tradizioa egina zuen "Purgatorio"aren ordez...

Antzeko jokabidea somatzen da **Garoa**n barrena ere. Jadanik azaldu denez, Larramendiren hiztegiari muzin egin ez badio ere, nahiago du "oe-bigungarri" edo "arroñak" edo "baratzuri-zuku" hizperriak haren "colchoya", "peaña" edo "zopa" baino.

Gorago aipaturiko R.M. Azkueren hiztegian jarraipenik gabeko hitz-zerrenda horretan jasotako hitz guztiak —"itz-neurtu", esate baterako (40)— ez badira Agirrek edo-ta honen garaikideek sortutakoak ere, gehienak garai horrek hizperri-sorkuntzarako erakutsitako zaletasunaren emaitza dira, nahiz eta aitortu behar den badirela atal honetan Agirrek baino askoz hizperri-zaletasun handiagoa erakutsitako gizonak, horien artean aipagarria delarik Sabino Arana bera.

Nahiz eta **Auñemendiko Lore**an Larramendiren hiztegiarekiko atxikimendua **Kresala** edo **Garoa**n baino nabariagoa izan eta aipatu hitz-iturria neurri batean itxi, ez da mailegutzaren baliabidera jo eta "hutsune" horiek "betetzen" joateko; izan ere, euskal ondare lexikala hartzen bait du abiapuntutzat hizperriak sortzeko, bereziki hitz-elkarketaren eta atzizkien bidez, edo bere garaikideek sortutakoak erabiltzen bait ditu.

---

(40) "Hiz neurtu" hitza jadanik Oihenartek erabili zuen 1657. urtean argitara eman zuen "O.ten gastaroa neurthizetan" poema-sortan. Ikus "O.ten gastaroa neurthizetan" in **Les proverbes basques recueillis par le S' D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur**, Lopez Mendizabalen irarkola, Tolosa, 1936, 65. or. Argitalpen hau 1657. urtean Parisen eginikoaren edizio faksimila da.

Hizperri horiek zorte-modu desberdina izan dute hizkuntzaren ibilbidean erabilera-mailan: batzu —"Garbitokia", "ikastetxea"— R.M. Azkuek bere hiztegian jaso ez izanagatik ere, gureganaino heldu dira; gehienei, berriz —"suburdia", "zalpurdia", "oe-bigungarria", "arrasta", "garrautsa"—, beste adierazpen-moduren bat nagusitu zaie.

Auñemendiko Lorean kontalariak jotzen zuen gehien Larramendiren hiztegiaren erabilerara. Zentzu honetan **Kresala** eta **Garoan** ere berdin gertatzen dela esan daiteke. Ohiturazko eleberrietan aipatu hizperriak nahiz Larramendiren hiztegitik jasotako zenbait hitz —gero R.M. Azkuek jaso ez zituenak eta erabilera-mailan ere oihartzunik erdietsi ez dutenak— ez ditu orohar pertsonaien ahotsera eramaten; neurririk handienean kontalariaren ahotsean gelditzen dira. Eta hiztegi-maila honetatik bertatik nabari da errejistro-desberdintasun bat, kontalariaren ahotsaren eta pertsonaien ahotsen artean.

Kresalari eginiko hitzaurrean honela mintzo zen Agirre:

> "Bertan agertuko diran gizon da emakumeak eztira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ezpanago ta amesetan ezpanabil, bizi-biziak dira (...). Euren alkarren arteko jarduna be guztiz da egiazkoa, gatzgarau andiak kenduko deutsadaz baña" (41).

Hau horrela izanik, nekez jar zitzakeen pertsonaia horiek hizperrien bidez bere ihardunak jantziz edo erabilerarik ez zuten Larramendiren hiztegiko hitzez baliatuz. Eta salbuespenen bat edo beste aurki badaiteke ere (42), jokabide hori jarraitzen du **Kresalan** barrena.

Dena den, erantsi beharra legoke, nahiz eleberri historikoan nahiz ohiturazkoetan, neurri handi batean hiztegiaren gaietan jokabide garbizalea hartzen duela Agirrek, baina pertsonaien ihardun egiazko horrekin borroka txiki bat izanez. Borroka honen ondorio dira **Garoan** azaltzen diren zenbait oin-ohar. Aipatu oin-ohar hauek aditzera ematen dutenaren arabera, borroka hori honela esplizitatuko litzateke: pertsonaiek darabilten hiztegia ez da kontalariak nahi lukeen bezain garbia, eta egoera honen aurrean jokabide desberdinak hartzen ditu: batzutan kontaketaren harian gorde egiten du pertsonaiak erabilitako hitza eta oin-oharrera eramaten du horren ordezko izan zite-

(41) AGIRRE, D.; "**Kresala**. Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, 11-12. orr.

(42) Ikus, esate baterako, Kitolis pertsonaiaren ahotseko "ustekida" (**Kresala**, 95. or.) edo "esondu" (**Kresala**, 96. or.).

keen hitz garbiagoa (43), beste batzutan juxtu-juxtu alderantzizko jokabidea hartzen du. Baina narrazio eta oin-oharren mailan ez ezik, kontaketa-mailan bertan ere planteatzen da borroka. Ana Joseparen ahotsean —jadanik azaldu denez, **Garoa**ko pertsonaiarik biziena—, esate baterako, kontalariak hartutako jokabide anbibalentearen ezaugarriak atzeman daitezke.

Ana Joseparen hizkerak berak eta honen barnean darabilen hiztegiak berak ere lagundu egiten du, jadanik deskribaturiko beste baliabide batzurekin batera, Ana Josepa **Garoa**ko pertsonaiarik bizien bihurtzen. Eta hemen sortzen da borroka, bai bait dirudi batzutan pertsonaiaren bizitasuna nagusitzen zaiola kontalariari eta beste batzutan, berriz, juxtu-juxtu aldrebes gertatzen dela: kontalaria nagusitzen zaiola pertsonaiaren bizitasunari.

Hiztegi-mailan arestian deskribaturiko egoera honela gauzatzen da: "pare" dio Ana Josepak eta kontaketa-mailan errespetatu egiten du kontalariak oin-ohar mailara eramanez gogokoago lukeen "biko" (44); "zapatak" dio Ana Josepak (45), nahiz eta kontalariak ez dion muzin egiten "oin-zorro"ri (46); Ana Josepak darabiltzan "prenda" (47), "korrienteak" (48)... hitzak ez dira kontalariak erabiliko lituzkeenak. Baina beste batzutan badirudi kontalariaren hiztegia nagusitzen dela Ana Joseparengan, pertsonaia honen ahotsean egiantzekotasuna galtzen duten "oe-bigungarri", "berogarri" (49)... moduko hitzak jartzean, hain zuzen ere. Eta behin edo behin aipatu anbibalentzia honako egoera honetara heltzen da: kontalariak sorturiko hizperria nahiz mailegua, biak, pertsonaiaren ahotsean jartzen ditu. Horrela, Ana Joseparen ahotsean "etxe-bizitza" hitza jartzen du (50) behin

---

(43) Kontaketaren harian, Ana Joseparen ahotseko "pare" errespetatu egiten du, honen ordezko garbiagoa den "biko" oin-oharrera eramanaz eta, jarraian, egin duen aukeraren arrazoiak emanez: "**Pare** esaten zuan beti Ana Josepak eta **pare** ipiñi bearko degu" (**Garoa**, 56. or.).

(44) **Garoa**, 56. or.

(45) **Garoa**, 57. or.

(46) **Kresala**, 201. or.

(47) **Garoa**, 118. or.

(48) **Garoa**, 264. or.

(49) **Garoa**, 57. or.

(50) **Garoa**, 47. or.

behintzat; beste batean, berriz, honen baliokide litzatekeen "arrio" mailegua (51).

Ohiturazko eleberrietara ere heda daiteke Ana Josepa pertsonaiaren bidez azalduriko fenomeno hau; baita, hiztegi-mailara mugatu gabe, hizkera-mailara ere.

Ohiturazko eleberrietan nabaria da nolabaiteko borroka kontalariaren eta pertsonaien ahotseko hiztegi-mailan; are gehiago, baita hizkera-mailan bertan ere. Eleberri historikoan, ordea, ez da hainbeste nabarmentzen kontalariaren eta pertsonaien ahotsen arteko desberdintasuna. **Auñemendiko Lorean** antzeratsu hitz egiten dute kontalariak nahiz pertsonaiek, ahots bat bakarra balego bezala; **Kresalan** eta **Garoan** hasten da soziolektoei zirrikitua irekiz doazen "taket" edo "kuña" narratibo batzuren presentzia.

Eleberri historikoan kontalariaren beraren ahotsa ageri da pertsonaien ahotsetan. Ez dago "dialekto"-barietaterik Arnoldoren, Amandoren, Adalbaldoren, Riktrudisen, Peru Padarraren... eta kontalariaren ahotsen artean. Pedro Marik berak ere, morroia izanik, ugazabak eta kontalariak bezala hitz egiten du. Portunengan berarengan zenbait birao eta irain azaltzen badira ere, kontalariak inoiz erabiliko ez lituzkeen horietakoak, bere ahotsa kontalariarena bezalakoa da orohar. **Auñemendiko Lorean** ahotsen bat bereizten bada, Lope Nagi morroiarena da. Lope Nagiren ahotsean nabari da gorago aipaturiko kontalariaren eta pertsonaiaren ahotsen arteko borroka, maila apal batean bada ere.

Gehienetan kontalariaren ahotsa nagusitzen da Lope Nagirengan, eta batzutan oso nabarmen gainera. Baina noiz edo noiz kontalariaren ahots horri nagusitu egiten zaio pertsonaiarena, Lope Nagi morroi arlotearena, bi hizkera-motek kontrastatu egiten dutelarik testuan. Bi mintzaira sozial desberdinen arteko kontrastea da pertsonaia berberaren berbaldian: batean inkultua baino kultuago den berbaldi-motaren bidez dator, oso modu sentsiblean; bestean, aldiz, arlote huts moduan. Lehenaren lekuko izan daiteke Portuni Adalbaldoz egindako deskripzioa:

> "—¿Ederra? Gizon txikik (sic) bardinduko daben gizakoa. Zeu baiño piskaren bat andiagoa, azal garbi zuriduna, zerua baizen ederrak diran begi ederren iaubea" (**Auñemendiko Lorea**, I, 124. or.).

(51) Garoa, 265. or.

Baina Lope Nagiren berbaldi honekin erabat kontrastean dago Arnoldo ugazabaren osasunez galdetzen diotenean darabilena:

"—¿Zelan dago, Lope, ugazaba?
—Ill da.
—¿Ill? ¿Aiñ laster? ¿Zer izan dau bada?
—Ptxe... Ill bearra. Ego aizeak baiño urte geiago eukan-da..." (**Auñemendiko Lorea**, I, 204. or.).

Baita Peru Padarraz galdetzen diotenean darabilena ere:

"—¿Zein zan bera?
—Padarra.
—¿Zer egin deutse?
—Ill.
—¿Ill?...
—Bai. Lurpean sartu eben beintzat eta..." (**Auñemendiko Lorea**, II, 88. or.).

Ez dago alde nabarmenik kontalariaren eta pertsonaien artean, ezta pertsonaia desberdinen artean ere; ez hiztegi-mailan —nahiz eta jadanik aditzera eman denez, kontalariak egin Larramendiren hiztegiaren erabilerarik ugariena—, ez baliabide erretorikoen erabilera-mailan (onomatopeia, sinekdoke, metafora...) eta baliabide erretoriko hauek sortzeko erabiltzen diren lehengai-mailan (Naturako elementuak eta fenomenoak animalien nagusitasunarekin), ez euskaldunen jokabideei edo orohar giza jokabideei buruzko ikuspegia eta filosofia azaltzean, ez hizkera-mailan... Bakar-bakarrik Lope Nagiren berbaldian sartuz doazen taket edo kuña narratibo urri batzuk aditzera ematen dute arestian aipaturiko borroka eta borroka honen bidez bere berbaldi osoa hartuz doan karakter nahasi eta hibridoa.

Eleberri historikotik ohiturazko eleberrietara ugarituz doa errejistro-barietatea, pertsonaiek beren hizkera propioaren jabe egitea bilatzen dute, kontalariarengandik eta gainontzeko pertsonaiengandik bereziz.

Kresalan barrena modu batera edo bestera bereizkuntzara jotzen dute Tramana eta Brixen ahotsek; berdin Mikolenak, Artoberorenak eta Indianoarenak, nahiz eta honen hizkera-moduaren karakterizazioa guztiz zentzu negatibo bat erdiesteko erabiltzen den; baita Mañasiren gurasoenak, Arranondoko haurrenak... ere. Mañasi eta "Ontziagintari zarraren" ahotsak dira monokordeenak kontalariarenarekin batera. Dena den, aipatu ahots-multzo hau asko laburbil daite-

ke; izan ere, azken finean Tramana eta Brixen ahotsek eta Mikol, Artobero, Mañasiren guraso eta Arranondoko haurren ahotsek oinarri amankomun handi bat bait dute: oso kultura urriko pertsonaien ahotsak izatearena. Hala ere, kultur urritasun hau modu desberdinez ematen da aditzera: zenbait egoeratan ematen diren erantzunen bidez (52), hitzak testuratzerakoan pertsonaiak erabilitako aldaera fonetikoa errespetatuz zenbaitetan (53), pertsonaia hauen ahotsa hizperri-sorkuntzatik urrutiratuz...

Dena den, **Kresala**n orohar ez da somatzen pertsonaia berberaren berbaldi-mailan nahasketarik edo hibridismorik; modu batera edo bestera kultur urritasun horren erakuskari izango dira aipatu pertsonaien ahotsak, kontalariarena edo "Ontziagintari zarra"-rena ez bezala. Indianoak bere euskara gaiztoaren bidez aditzera emango du berak bere buruaz uste duenaren eta berez bere burua denaren artean dagoen amildegia, alde ikaragarria: jakitun izan ustez, baina berez izan ez.

Garoan ere **Kresala**n deskribatutako egoeraren antzekoa ematen da. Joanesen, Jose Ramonen, Manuelen, Joseren, Malenen... ahotsek azaltzen dute kontalariaren ahotsarekiko disonantziarik txikiena, ia-ia ahots monokorde-sail bat eratuz; baina hauen aldamenean "dialekto"-barietate bateranzko bidea irekiaz doaz Ana Joseparen, Moxolo Potoloren, Iñazio Mariren, Martinen, Juanitoren, Peru Odolkiren... ahotsak. Hauen ahotsetara eramango dira batipat modu batera edo bestera nolabaiteko adierazkortasuna sortzeko ahalmena duten adierazpideak. Ana Joseparen berbaldia, otoitza eta agindua nahasiz, euskal ondare lexikaletik sortutako hizperriak maileguekin... berbaldi-modu hibridoa bihurtzen da kontalariarenarekin eta honen kidekoa dutenekin kontrastatuz. Moxolo Potoloren, Peru Odolkiren, Iñazio Mariren ahotsetan noiz edo noiz, oso gutxitan, azaltzen diren kuñak beraien bizitza "bizikariaren" adierazle bihurtzen dira (54). Juanitok

---

(52) Lekuko egokia izan daiteke Artoberok ematen duen erantzuna "Saguzarra" gaitzizena zeraman pertsonaiaren izena Julian Iragorri zela jakitean: "—Orixe be bada ipuña, —esan eieban orduan Artoberok— Saguzarrari Don Julian asmau eideutsie" (**Kresala**, 33. or.).

(53) Joseparen "**kantau**" (**Kresala**, 54. or.), Txanogorriren emaztearen "**kontau**" (**Kresala**, 134. or.), Txanogorriren "**eskolau**" (**Kresala**, 161. or.) etab.

(54) Ez kontalariak, ez gainontzeko pertsonaiek darabiltzate honako adierazpen-moduak: Iñazio Marik bere anaiari dirua eskatzeko darabilena —"**Ermano**, bost

ez daki euskaraz, eta honen eta bere amaren erdarazko berbaldiek kontrastea sortzen dute gainontzeko pertsonaiek eta kontalariak darabilten hizketarekin. Martinen berbaldia bera ere hibridoa bihurtzen da bere pentsamendu sozialista berbaldi bihurtzen duenean; berbaldi hau aurrekoa ez bezala gauzatuko da, aurreko hizketa-moduaren aldaera baten bidez.

Agirreren pertsonaien hizkeran honako joera hau ematen da beti: kontalariaren mundu-ikuskera eta balore berdinak defendatzen dituzten pertsonaiek dute hizkera-mailan ere hurbiltasun handiena. Hau da, kontalariak hobetsitako giza jokabide paradigmatikoak gauzatzen dituzten pertsonaien eta kontalari horren hizkerek bateratzera jotzen dute. Azken finean, kontalari eta pertsonaia hauen arteko sintonia eta adostasuna ez da esakune edo enuntziatu-mailan soilik gelditzen, baizik eta esakuntza edo enuntziazio-mailara ere eramaten da. "Besteak" sortzen dituenean, esakune-mailan egon daitekeen aldea, neurri batean behintzat, esakuntza-mailara doa orohar.

Esakune-mailako "ahuleziatxoek" eta ahuleziek nolabaiteko isladapena aurkitzen dute esakuntza-mailan. Kontalariaren eta pertsonaien arteko distantziamendua hizkera-mailako distantziamendu ere bihurtzen da, beti eta salbuespenik gabe, oso modu nabarmenean eta behin eta berriz errepikatuz, joera hori ez bada hartzen ere.

Jadanik azaldu denez, jokabide hau batipat ohiturazko eleberrietara eraman du eta ez horrenbeste eleberri historikora. Ohiturazko eleberri hauetan neurtzen dira batipat kontalariaren eta honekin sintonia osoan eta erabatekoan ez dauden pertsonaien arteko distantziak. **Kresala**n Tramana eta Brix, Josepa eta Artobero, Mikol eta orohar Arranondoko arrantzaleak kultur mailak urruntzen ditu bereziki kontalariarengandik; eta ahuleziatxoren batek, Mañasiren gurasoen kasuan bezala, diru-urritasunak eragindakoa. Indianoaren kasuan handiagoa da distantziamendua. Kontalariak hobetsitako baloreetatik

---

duroko bat eman bear diak" (**Garoa**, 119. or.)— edo Peru Odolkik Moxolo Potolori zuzentzen zaionetariko batean darabilena "Igartzen diat, **konpañero**" (**Garoa**, 259. or.) —edo-ta une desberdinetan Moxolo Potoloren ahotsera datozenak —"**Ke** ay, Manuel, lagun zarra" (**Garoa**, 255. or.), "**sentellas**" (**Garoa**, 225. or.), "**Bien, bien**" (**Garoa**, 224. or.)—. Adierazpen-modu hauek kontrastatu egiten dute kontalariak edo honekin sintonia osoan dauden pertsonaiek darabiltzatenekin, askoz ere neutroagoak eta normatiboagoak dira hauenak, besteen adierazpide "zatarragoen" aldean.

urrundu egiten da eta hizkera-mailan ere distantziamendu handiagoa nabarmenduko da, honek egiten duen euskara gaiztoa dela-ta.

Garoan barrena Ana Josepa pertsonaiaren "anbiguotasunak", kontraesanak, ahuleziatxoak, bizitasunak... urrunarazi egiten dio zer edo zer kontalariak hobetsitako paradigmatik. Eta urruntze honek bere berbaldi hibridoan ere aurkituko du isladapenik, horren bidez ere urrundu egiten bait da kontalariaren berbalditik. Juanito eta honen amaren urruntasunak esakune edo enuntziatu-mailan kontalariarengandik esakuntza-mailan bi hizkuntza desberdinetan mintzatzean aurkitzen du oihartzuna. Martinen berbaldiaren hibridismoa urrundu egiten da kontalariarenetik.

Ohiturazko eleberrietan sarritan filtratzen da kontalariaren ahotsa pertsonaien ahotsetan, baina beti ere modu apalean "diferentziara" jotzen da: esakuntza-mailako diferentziak esakune-mailan ere bereiztera.

Zalantzarik gabe, urrunago eraman zitekeen ahots-dibertsifikazioa; baita gehiago azpimarkatu ere. Baina era berean ezin ukatu enuntziazio-mailara ere eramaten dela enuntziatu-mailan egon daitekeen dibertsifikazioa, zenbait taket edo kuña narratiboren bidez, hauek oso urriak badira ere. Bestalde, ez da zeharo harrigarria kuña narratibo hauen urritasuna; izan ere, Agirreren eleberrietan kontalariaren mundu-ikuskerarekin kidetasuna, batasuna eta adostasuna duten pertsonaiek hitz egiten bait dute batipat, eta hauek hizkera-mailan ere hurbil bait dauzka. Askoz ere urriagoa da kontalariak "besteei" eskainitako berbaldia; baita, urritasun honen barnean, dibertsifikazio-markak ere.

2. BERBALDIA ENUNTZIATU (55) LEGEZ

Pertsonai mota lauak aurkezten ditu deskribaturiko enuntziazio-moduaren bidez eraikiz doan enuntziatuak; eginda dauden pertsonaiak eta ez eginez doazenak; bilakaerarik ez duten klitxeak.

---

(55) "En la obra literaria el enunciado es, en último término, el referente de la enunciación: aquello a que el acto de enunciar se refiere, y está compuesto por la objetivación de este acto en un mundo que asume características ficticias". JARA, R.; LERTORA, C.; VARGAS, J.; R. de LERTORA, P.; ORTEGA, J.; **Diccionario de Términos e "Ismos Literarios"**, 58-59. orr.

Pertsonaia hauek beren neurrira egindako mundu batean bizi dira, mundu tinko eta ziur batean, erantzunak dituen munduan, zalantzaren harrak jo gabean. Baina hori horrela da, mundu tinko eta ziur horren oinarriak errespetatu eta legeak betetzen diren bitartean; zeren eta lege horiek haustean, kaosa, ezbeharra, egonezina eta zorigaitza heltzen bait da.

"Tradizioa" (56) da mundu horren oinarriak eraikitzen dituen elementua eta hitz-giltzarria; hain zuzen, iragandako mundua edo/eta igarotzen ari dena, joandako edo/eta badoan denborak berarekin daramatzan baloreak: mundu rurala, mundu rural honetako lanbideak, mundu rural honetan bizi ziren gizakien sinismenak...

D. Agirreren mundu nobeleskoa helburu didaktikoaren menpe dago. Eta honako irakatsi honetara labur daiteke helburu didaktiko horren funtsa: irakurle, jarrai ezazu tradizioa; hor dago zoriona; hortik at, nekea eta zorigaitza.

Tradizioaz zer ulertzen den eta tradizioak zer erakusten duen hedatuz doa, hitz-orez jantziz, tradizioaren mundu hori eraiki arte, kosmobisio hori deskribatu arte, tradizio horren berri ematen duten giza jokabideak berbaldiz betez.

Besteak beste, pertsonaia batzuren jokabideak eta kontalariak egiten dituen komentarioak direla bitarteko datoz berbaldira tradizio horrek ezartzen dituen bizitza-arauak, eta oso modu didaktikoan etorri ere; izan ere, beste pertsonaia batzuren jokabideak, kontalariak egiten dituen beste komentario batzuk eta abarrek jartzen bait diete kontrapuntua, bizitza-arau horien hausketa berbaldira eramanez, nahiz eta hauek leku apalagoa, txikiagoa eta murritzagoa hartu berbaldian.

Kontrapuntu hau dela medio, bi mundu aurkajartzen dira: tradizioari jarraiki bizi den mundu egonkorra eta tradizioarekin hausten duen mundu aldakorra. Dialektika honen barnean garatzen dira eleberriak, mundu egonkorraren perfekzioari mundu aldakorraren inperfekzioak aurkajarriz.

Historiak daraman abiada geldiaraztea bilatzen du Agirrek, eus-

(56) "Tradizioa" hitzaren esanahia ez da Historian eta Tradizio horri buruz Historiak dioenean bilatu nahi, testuetan baizik; hauetan bilatu nahi da kontzeptu horren erreferentea eta kontzeptu horren deskripzioa.

kalduna izan denaren edo/eta denaren ezaugarriak erretratatzeko. Eta, jakina, erretratu horren bidez eta bertatik atera daitekeen irakatsia dela bitarteko, erretratu horrek aldaketarik gabe jarrai dezan.

Distortsio ugari azalduko lituzkete erretratu hauek historian barrena eta idazketaren garaian errealitateak eskain zitzakeen erretratuekin alderatuz gero. Baina Agirreren asmoa ez zen seguruaski izandako edo den errealitatea erretratatzea, baizik eta bere ametsetako euskaldun ideala erretratatzea, garaiko euskaldunek nahiz beranduagokoek BIDE izan zezaten.

2.1. PERTSONAIA LAUAK

Eleberriaren hastapenetatik eginak daude Agirreren eleberrietako pertsonaiak. Beraientzat testua ez da eginez joateko lekugunea, ezta berbaldia ere ibili beharreko bidea; izan, izaera-modu bat erakusteko tokia besterik ez da.

Zenbait pertsonaiarengan aldaketa-modu batzu eman daitezke: **Auñemendiko Lorean** kristautu egingo da Portun ez-kristaua, bere aurreko harrokeria guztiak apaltasun bihurtuz; **Kresalan** Mañasiz maitemindurik ez zegoen Anjel batpatean iratzarriko da Mañasirekiko maitasunera; **Garoan** ideologia sozialistakoa ez zen Martin ideologia honi lotuko zaio. Baina aldaketa hauek ez zaizkie berbaldira ekarritako prozesu batzuri zor. Ez da berbaldi bihurtu Martin ideologia sozialistari lotuz nola doan; ezta Anjel Mañasiz maiteminduz edo Portun kristau-sinismenerantz nola doazen ere. Berbaldiak aldaketaren berri ematen duten laburpen labur batzu besterik ez dira. Pertsonaiek eleberriaren hastapenetan zituzten ezaugarrien areagotzea ere ez da berbaldi bihurtzen; esate baterako, berbaldira gabe geratzen dira Iñazio Mariren demazaletasunaren areagotzea edo zaletasun hori dela-ta, bere buruarekin izan dezakeen borroka; berdin gertatzen da Juan Andresen diruzaletasunarekin ere...

Badirudi honako ikuspegi honi erantzuten diola pertsonaia hauen sorkuntza-moduak: behin pertsonaiak nortasun bat hartzean, horrekin jarraituko du; tinko eutsiko dio nortasun horri (57). Nor-

(57) **Kresalan** tinko irauten du Anjelen nortasunak ere. Bakar-bakarrik gertatzen da zenbait jazoera ez-ustean etorri, eta astiro hausnartzeko abagadunerik ez duela izan. Baina bere egoeraz gogoeta egitean, berehala ohartuko da hartu behar duen bideaz.

tasuna aldatzen bada, ez da pertsonaiak egin duen **ibilbideak** eta prozesu psikologikoak beste nortasun-modu batera eraman dutelako, baizik eta gertaeraren batek **batpatean** aldarazi duelako. Funtsean, pertsonaia ez da bizitzan zehar eginez doan izakia. Egin, nortasun bat hartu bitartean egingo da. Gero, gerta ahalak gerta, bere hartan iraungo du, nola eta gertaeraren batek ez duen nortasuna batpatean aldatzen.

Nortasun horren deskripzioak ere ez du konplexutasun handirik hartzen: nortasuna bizpahiru ezaugarritara mugatzen da. Ezaugarri horiek funtzionaltasun handia izango dute matazaren garapenean, beraiek bihurtuko bait dira mataza-sortzaile eta matazaren euskarri. Oso ongi mugatutako ezaugarriak dira, aurrez ikusten diren jokabideetara daramatzatenak. Ezaugarri horietatik ez da ez-ustekorik sortuko. Hau da, hain muga zehatzak dituzten ezaugarriak dira, ezin sor daiteke beraiengandik jokabide-modu kontradiktoriorik; edo ez da sortzen behintzat. Norabide bakarrekoak dira ezaugarri horietatik ernetako jokabideak. Ezaugarri horietatik ez da zalantzarik sortzen bidegurutzean, ongi sustraituak eta tinkoak direlako. Ez daramate zalantzan jartzera pertsonaiak hartu behar duen erabakia.

Deskribaturiko egoera honetatik zertxobait, oso gutxi, urruntzen direnak eleberriaren protagonismoa ez daramaten pertsonaiaren bat edo beste dira: **Auñemendiko Lorean** Andre Luzia edo **Garoan** Ana Josepa. Hauek sortzen dute kontaketaren unetxoren batean ez-usteko jokabideren bat hartuko dutenaren ilusioa. Funtsean, pertsonaia hauen karakterizazioan azaleratzen den anbiguotasun-punttua da ilusio honen eragilea. Andre Luziari frankotarren aurka sentitzen duen gorrotoak "lausotu" egiten dio adimena zertxobait egoera bat epaitzerakoan, nahiz eta instante batera laburtuko den lausotzea izan; eta egoera zehatz-mehatz argitzen diotenean, lausoaldia igaro eta bere karakterizazio-moduari dagokion erantzuna emango du. Ana Joseparen diruarekiko abegi onak edo familiarekiko maitasunak adimena lausotzen diote zertxobait jarrera bat edo beste hartzerakoan, nahiz eta ez iritsi bere karakterizazio-modutik espero zitekeen bidetik lerratzera. Gainontzean, orohar, oso erraz identifika daitezke pertsonaiak, zintzoro jarraituko bait diete ezarri zaizkien ezaugarri gutxi horiei.

Modu dikotomiko batez eraikitzen ditu pertsonaiak Agirrek, dikotomiaren alde batean kokatuz birtutedunak eta beste aldean

"biziodunak". Eta pertsonaiak lekugune testualean egiten duen "ibilbidea" birtutedun edo "biziodun" legez jokatzea da. Eta arestian aipaturiko salbuespen urri horietan besterik ez da azaltzen fluktuazio-ikuttu bat. Dena den, fluktuazio-ikuttu hau ez da zalantza-izpirik sortzera heltzen; ezta urrutitik ere. Garbi dago dikotomiaren zein alderditan kokatu behar diren aipatu pertsonaiak. Irakurleari aski elementu igorriko zaizkio duda-mudarik gabe argi eta garbi dikotomia horren alde batean koka ditzan.

Batzuren eta besteen jokabideak oinarriztatzen dituen balore-sistemak bereizten ditu funtsean dikotomiaren alde batekoak eta bestekoak. Balore-sistema desberdin horien arteko bereizkuntzaren funtsa "Otsokotarren" ala "Gurutzetarren" barnean kokatzetik dator. Hain zuzen ere, hiru eleberrietan ikus daiteke batzuk talde batean kokatuz jokabide-modu batzu hartzen dituztela, eta besteek bestean jokabide-modu ezberdinak.

Otsokotarra da Portun, sinismen zaharrekoa; Gurutzetarrak dira Riktrudis, Arnoldo, Andre Luzia. Eta sinismenaren inguruko diferentziek eraikiko dituzte **Auñemendiko Lorea**n abentura baten kontaketarako bideak, desoreka-giro bat sortuz. Otsokotarrak dira **Kresala**ko "Bedar txarrak"; eta Gurutzetarrak Mañasi, Anjel, arranondotarrak. **Garoa**n Martin, Moxolo Potolo, Juanito, Juan Andres... dira Otsokotarren taldekoak, eta Joanes, Ana Josepa, Jose, Malen, Jose Ramon, Manuel... Gurutzetarrekoak.

Otsokotarren existentzia gatazka-iturri bihurtzen da Gurutzetarrentzat. Eta inoiz ere ez aldrebes. Modu batera edo bestera Otsokotarrek topo egiten dute Gurutzetarrekin, hauek bere egoera baretsutik atereaz.

Portun otsokotarra gatazka-iturri bihurtuko da Mendiola jauregiko bizilagunentzat. Indianoa otsokotarra gatazka-iturri bihurtuko da Mañasirentzat. **Garoa**ko otsokotarrak gatazka-iturri bihurtuko dira Joanes eta honen jarraitzaileentzat. Baina gurutzetarrak ez dira otsokotarrentzat gatazka-iturri bihurtzen; izan ere, lehen taldekoak egon daude beren ohizko lanak eginez, ezerk ekitera bultzatzen ez dituelarik. Baina bigarren taldekoek desorekaren bat bizi badute, honek ekitera bultzatzen ditu. Eta egonean zeuden gurutzetarrekin topo egin eta erasotu egiten dituzte.

Aurkakotasun garbian dauden bi talde hauetako bat bakarra da

euskalduna; izan ere, besteak hartzen dituen jokabideak direla bitarteko, euskalduntasunaren ezaugarriren bat edo beste galduko bait du, eta horrekin batera baita euskaldun-izaera ere; euskaldun-izaera Agirrek ulertzen duen moduan, jakina.

Portunek, besteak beste, euskalduntasunaren urrezko erregela bat hausten du. Arnoldo gurutzetarrak dioenez (58), euskaldunak erantzun egiten dio erasoari, baina inoiz ez da erasotzailea. Portunek hautsi egingo du arau hau: Aitz barrengo elizaren aurrean bere bidetik bakean zihoan Adalbaldo eraso eta eraso honi jarraipen bortitzagoa ematea bilatzen du Ozinbeltzeko batzarrean.

Indianoak, **Kresala**ko bedar txar batek, besteak beste, euskaldunen hizkuntzagatik mezpretxua erakutsiko du (59), bere beste zenbait solaskide mezpretxu horretan bat datozelarik. Juanitoren amak bere aitaginarreba-amaginarrebaren hizkuntza ez ezagutzeaz gainera, mezpretxatu egiten du (60). Juanitok hizkuntza ez ezagutzeaz gain, Euskal Herria bera ere mezpretxatu egiten du (61). Martinek mezpretxatu egiten du bere sorlekua (62). Juan Andresek, Joanesek dioenez, dirua bakarrik maite du, eta sorterria ere salduko luke diruagatik (63).

Honela, bada, gurutzetarren taldean lekutzen direnek bakarrik gordetzen dituzte euskaldun izaeraren ezaugarriak, euskaldun-izaerari berari "gurutzetar" izatearen karakteristika lotuz.

---

(58) **Auñemendiko Lorea**, I, 100-104. orr.

(59) **Kresala**, XII. kapitulua.

(60) Honela erantzuten dio Dionisiak Ana Josepak eginiko galdera bati: "—**Lo mismo que si me hablara V. gringo. Jesús qué lenguaje**" (**Garoa**, 190. or.).

(61) Honela diotsa Juanitok bere aita Juan Andresi: "—**Si, unos días más entre humo, y cuando vuelva a Santiago ni tendré ojos para estudiar, ni me conocerán los amigos, porque me habré convertido en cecina. Eso, si antes no muero de pulmonía. ¡Qué tierra esta!**" (**Garoa**, 191. or.).

(62) Gisa honetan zuzentzen zaie Eibarren ematen ari den mitinean entzule dituenei: "'Langilliak: Euskalerrixan jaixo naiz, baña euskaldun izatiak ez nau batere arrotzen' (...). 'Euskaldun izatia baño lurbiratarra izatia gurago dot'" (**Garoa**, 291-292. orr.).

(63) Modu honetan zuzentzen zaio Joanes Juan Andresi: "Ik eta beste askok, aoan Euskalerria, Euskalerria; biotzean norbera, norbera! Ta norbera esatean, dirua esaten diat iri. Ezagutze aut: gaztelar ta prantzezak beratzeko gaizki esaten dek, baño aien diruagatik eure sorterria salduko eukalata nago" (**Garoa**, 109. or.).

Euskaldun-izaera hau ez dago muga geografiko konkretu batzu dituen aberrian bizi diren biztanleei atxikirik. Izaera honek hautsi egiten ditu muga geografikoak. Hala dio Riktrudis euskaldun gurutzetarrak, Amando apezpikuak Adalbaldo frankotarrarekin ezkondu eta frankotarren herrian bizi beharko duela aditzera ematean:

> "Eztot nik Euskalerria alde batera itxiko egundaiño. Naroian tokira naroiala patuak edo Iaungoikoak, euskalduna eroango nau, euskaldun biziko naz toki guztietan. Neugaz ioango dira erririk-erri Euskalerria, bere izkerea ta bere ekanduak; euskerea erakutsiko dot non-nai, neure erritarren lege zarra adierazoko dot, al dotan giñoan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 66-68. orr.).

Besterik dira, ordea, Euskal Herria utzi ondoren **Kresala**ko Indianoak eta **Garoa**ko Juan Andresek hartuko dituzten jarrerak. Indianoak ahaztu egiten du euskara Ameriketako egonaldian; euskaldun-izaerak, berriz, honako iritzi hau merezi dio:

> "Ta zer gauzea euskaldun izatea! Zer **kostumbreak** eurenak! Artoa jan, sokilla jo ta iñok eztakian **lenguajean** itz egin, Ameriketan ikusi ditudan **salbajeak** legez, gitxi gora bera (...). Ta **bizimodu** ori maitetu! ¡**Parese mentira**! ...Abadeak daukie **kulpea**, abadeak. Eurak dabiltza beti emengo **abueloen uso kostunbreak konserbau** bear dirala deizka" (**Kresala**, 132. or.).

Kontalariak dioenez, Juan Andresi Erbestean bizi zela "aztu zitzaizkion euskal mendiak, euskal oiturak" (**Garoa**, 113. or.).

Beraz, euskalduntasunari eusten diotenak "gurutzetarren" taldean kokatzen dira, "gurutzearekiko" atxikimendua bera euskalduntasunaren ezaugarri bihurtuz; izan ere, "otsokotarrek" euskalduntasunaren ezaugarriren bat ez ezik, honekin batera kristau-sinismenarekiko atxikimendua ere galdu egiten dute, edo kristau-sinismenik ez dutenak dira.

Euskalduntasunaren urrezko erregela bat hautsi duen Portun fede zaharrekoa da, artean kristautu gabea. **Kresala**ko Indianoak euskara eta euskal ohiturak mezpretxatu ez ezik, Jaungoikoaren existentzia bera ere ukatu egiten du (64). Juanitok eta Martinek otoitzari barre egiten diote Gabon gauez Zabaleta baserrian, txorakeriatzat

---

(64) "'Bai, Jaungoikoak gura badau, Jaungoikorik eztago baña'" dio Indianoak. Ik. **Kresala**, 133. or.

joz. Martinek Eibarren ematen duen mitinean honako ideia hau eralgiko du besteak beste:

> "'Gure gañean eztago iñor, ez erregerik, ez Jaungoikorik ...'" (Garoa, 292. or.).

Juan Andresek Erbestean euskal mendiak eta ohiturak ez ezik, "sinisteak, oroipenak eta baita ere Jaungoiko Altsu Donearen aginduak" (Garoa, 113. or.) ahaztuko ditu.

Euskal mendietan, euskal baserrietan, euskal itsas herrisketan eta euskal herrisketan aurkitzen da bereziki gurutzetarren nortasunaren gordelekua. Lekugune horietan bizi diren euskaldunek gordetzen dute bereziki euskalduntasuna. Hortik kanpo galtzeko edo nortasun hori ez izateko arriskua dago: lekugune horietatik kanpora atera diren Indianoak edo Juan Andresek edo Martinek galdu egin dute; lekugune horiek sorlekutzat izan ez dituzten **Kresala**ko oihal-saltzaile bilbotarra eta iskillos edo armadun erdalduna eta **Garoa**ko Juanito ez dira nortasun horren jabe, Euskal Herriarekin harreman-moduren bat badute ere. Dena den, bada euskal mendietatik kanpo eta Euskal Herritik bertatik kanpo euskal nortasuna duenik: Riktrudis.

Pertsonaia lau hauek gizatalde baten ordezkari bihurtzen dira. Kontaketara ez datoz gizabanako moduan, baizik eta gizatalde bat ordezkatzeko. Pertsonaiak lehenik eta behin tipo bihurtuz doaz eta tipo desberdinak errepresentatuz: morroi leialarena, morroi desleialarena, arrain-saltzailearena, arrantzalearena, euskal etxekoandrearena, demazalearena, diruzalearena... Baina, pertsonaiaren kualitate baten inguruan eraikitako berbaldia dela bitarteko, azaleko egituran sortuz doan pertsonaia-tipo ugari hau bi pertsonaia-tipo soil-soilik errepresentatzera heltzen da maila abstraktoago batean: gurutzetarrak eta otsokotarrak. Azken finean, berbaldia pertsonaia-tipo bihurtzeko lekugune dute. Baina izen propioa izatetik pertsonaia-tipo bat ordezkatzeko egiten duten iraganbidean, geroz eta gizatalde zabalagoen ordezkari bilakatuz doaz; izan ere, pertsonaia-tipo horiek bi taldetan kokatzera helduko bait dira: euskaldun-izaerari eusten dion taldean eta izaera horri eusten ez dionean. Talde hauen barnean protagonismoa hartzen dute pertsonaia batzuk: Riktrudisek, Anjel eta Mañasik, Joanesek. Eleberri desberdinetan protagonismoa hartzen duten pertsonaiak bi talde horietako batean kokatzen dira, euskaldun-izaera gordetzen dutenen taldean, hain zuzen ere; eta beraiek eutsiko diote talde horren barnean eleberri bakoitzean euskaldun-izaera horri gra-

durik gorenenean. Beraiek dira, eleberri bakoitzak osatzen duen sistema horretan, euskararen, euskal ohituren eta kristau fedearen gordetzailerik behinenak. Beraiek eraikitzen dute taldearen paradigma, bakoitza protagonista denekiko eleberrian.

Esan dugunez, Riktrudis Berri Onaren mandatari legez itxuratzen da **Auñemendiko Lorean** barrena, eta Berri Onaren mandatari legez betetzen duen eginkizunarekin jartzen du Auñemendi Aberrirako bidean.

Esan ere esan da Anjelek eta Mañasik **Kresalan** protagonizatzen duten maitasun-historiak arrantzaleen ekaitz-egunetako "bidaiarekin" erritmo-analogia gordetzen duela; eta, modu oso batez ez bada ematen ere, erritmo-analogia hau dela bide, maitasun-historia honen egitura mitikoa erlijiotasun transzendente baten metafora-moduan jo da: "Kantauriko umant apalak" (**Kresala**, 224. or.) "bidaiaren" amaieran jasoko duten Betiko Babesaren metafora moduan.

Joanesek **Garoan** egiten duen "bidaiak" bere aberriaren (**Garoan** eraikitzen den Euskal Herriaren) sinbolo bihurtzera daramala azaldu da; eta "Kristoren legea zan Joanesen argia" (**Garoa**, 21. or.), hain zuzen ere. Heriotza heltzen zaionean, kontalariak dioenez, "laztan bero, gozo, luzearen bitartez ematen dio Joanesek Egille Altsuari anima, euskaldun animarik ederrenetakoa..." (**Garoa**, 298. or.).

Euskalduntasunari gradurik gorenenean eusten dioten nobeletako protagonistek salbazio-bidean jartzen dituzte talde-kideak, salbaziorako bidea zein den erakusten diete. Euskalduntasuna eta euskalduntasun honi atxekia dagoen kristau-sinismendun izatean eredu da bakoitza protagonista deneko eleberrian; eta eredu honetara ahalik eta gehien hurbiltzea da gainontzekoen eginkizuna.

Eredu hauek jarraitzen dituztenek zain dauzkate arrakasta eta bakea lur honetan bertan; beste taldekoek, aldiz, ezbeharra, nekea eta porrota jasoko dute. Izan ere, euskalduntasunaren gordelariek beren jokabideak kristau-sinismenaren argitan aztertzen eta hartzen dituzte, eta argi horrek beti bide zuzena markatzen du: bakerako eta atsedenerako bidea. Hitz batean, beti erantzun egokia ematen die zerbait epaitzeko edo jokabideren bat hartzeko orduan.

Baina beste taldekoek porrot egiten dute argi horri bideak ixtean, argirik gabe noraezean dabiltzan pertsonaia bihurtuz; izan ere, nork bere "grinari" jarraitzea eraikitzen bait dute jokabide-erizpide,

eta honek ez die jarraitu beharreko bide zuzena markatzen, ez die erantzun egokia ematen.

Batzuk euskalduntasuna errepresentatzen dute; besteek euskalduntasuna ez dena. Lehenek euskaldunaren nortasun-agiria ezarri nahi dute; besteek euskalduna ez denarena. Baina hain pertsonaia idealizatuak sortzean, hezur-haragizko euskaldunarengandik urrutiratu egiten da kontalaria; baita gizatalde banako honen ordezkariengandik ere. Eta hauen ordez euskaldunak izan beharko lukeena errepresentatzen du, gizatalde banako honek izan beharko lukeena.

Berbaldia eleberri desberdinetan zehar euskal izaera(k izan beharko lukeena) erakusteko aitzakia bihurtzen da. Euskal izaera hori erakustera deituak dauden pertsonaia-protagonistak eleberriaren hasieratik bukaerara egon dauden pertsonaia moduan itxuratzen dira. Beraientzat berbaldia ez da bilaketa eta aldaketa-leku bihurtzen, baizik eta izaera iraunkorra erakusteko leku. Nolakoak diren erakusten dute eta ez nola doazen eginez. Beraiek egon daude beren izaera erakutsiz. Eta izaera hau erakusten "lagundu" egiten diete euskal izaera hori gabeek sortutako gatazkek.

2.2. RURALISMOA

Eleberrien protagonista izan ala ez, euskal izaera gordetzen duten pertsonaiak euskal mendietan, baserrietan, itsas herrisketan eta herrisketan bizi dira; eta biziki maite dituzte beren bizigune hauek eta beraiei guztiz atxekirik sentitzen dira (65). Lekugune hauek dituzte bizileku gurutzetarrek modu iraunkor batez. Baina gurutzetarrak ez ezik, otsokotar "piztiak" ere aurki daitezke espazio horietan, nahiz eta banaka batzu besterik ez diren. Dena den, otsokotar hauek gehienak ez dira bizigune horietan "otsokotu", hortik kanpo baizik.

---

(65) Riktrudisek utzi egiten du euskal mendia Ostrabentora ezkontzean. Baina ezkondu aurretik bertatik agerian uzten du euskal mendiarekiko sentitzen duen atxikimendua: "Maite dot neure mendia: tokirik ederrena deritxot, eta beragaitik, beste Lurbira guztikoak salduko nituke" (**Auñemendiko Lorea**, II, 66. or.). Ezkontza dela bitarteko Ostrabentora doanean bizitzera, honela dio kontalariak: "Maite eban euskal-mendia. ¡Ai, zenbateraño eban maite! (...). Bere egotordu guztietan euskal-mendirantz begira geldituten zan" (**Auñemendiko Lorea**, II, 116-118. orr.).

Domingo Agirrek bere hiru eleberriak espazio ruralean eraikitzera jotzen du. Ezinbestez **Auñemendiko Lorearen** kasuan, eleberri historikoa izaki, gertaerak kokatzen direneko garaiko —VII. mendea— biziguneekin egiantzekotasuna gorde nahiz; eta berak hala nahita beste bietan, idazketaren garaiaren lehenaldi hurbilean kokatzen dituenetan. Beraz, egiantzekotasuna gorde nahiak behartu gabe beste aukera bat duenean ere —hirian edo meatzaritza-guneetan koka zezakeen, esate baterako— aukera berbera egiten du: mundu rurala.

Transformaziorik eta itxuraldaketarik jasan ez duen lekua aukeratzen du: mendeetako tradizioa duena, mendeetan barrena Naturaren indarrak eragindako aldaketen menpe besterik egon ez dena. Eta lekugune iraunkor hauek bihurtzen ditu euskalduntasuna gordetzen duten pertsonaien bizileku. Pertsonaia tinko, ziur eta iraunkorrentzat, bizileku iraunkorra. Eta bizileku iraunkorrean bizi diren pertsonaientzat, lanbide iraunkorra.

Artzantza, arrantza, nekazaritza... dute ogibide lekugune iraunkorrean bizi diren pertsonaia iraunkorrek. Berbaldiak lekugune, pertsonaia eta ogibide hauen guztiz ikuspegi idilikoa ematera jotzen du, mundu ruralaren apologia eginez.

Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaiak guztiz konformistak dira: beren bizilekuei eta ogibideei guztiz atxikiak, beren erraiekin eta bizimoduarekin konforme daude.

Pertsonaia ez-problematiko hauek edo kontalariak goretsi egiten dute mundu rurala. **Esan** egiten dute bizimodu gogorra dela, baina ez dute berbaldian bizimodu horren laztasuna **erakusten**. Bizimodu hori ez da problematikoa bihurtzen pertsonaia horientzat.

Gogotik egiten dute lan irabazbide urria duen lantegian, baina hau ez da arazo existentzial bihurtzen.

Mundu ruralari atxikirik dagoen lana ohizkotasun-moduan dator berbaldira eta ez egunero bete beharreko eginkizun-moduan.

Mundu ruralari atxikirik dauden pertsonaia hauek gogo onez egiten dute lan. Lan gogorra egin beharra ez da beraientzat gatazka-iturri bihurtzen; aitzitik, umore onarekin lotzen zaizkio lanbideari. Baina ez horrela mundu ruraletik kanpo gelditzen diren lanbideetako langileak; eta ezta lanbide jakinik gabe bizi direnak ere. Mundu ruraleko lanbideak bakarrik dira gogo onez beteak.

Gogo onez eta alai egiten du lan Joanesek egun osoan. Ez dago kexarik. Egun osoan zehar lan egin beharrak ez dio inolako arazo existentzialik sortzen; ezta honen mendean bizi direnei ere; mendean dauden bitartean behintzat. Ez dago, ez, alferkeriarik; ezta lan gogorrak eta ez-erosoak sortutako sosegu faltarik ere. Bai, ordea, mundu rural honetako lanak utzi dituztenetan edo alferkerian bizi direnetan.

Somorrostroko meatzetan dirua irabaztea besterik ez dute bilatzen, "denak alkarren etsai, denak bata bestearen ezin ikusian", "inor maitatzeko gai ez direla, baina bai gorrotatzeko". Erbestean, Gaztelerrian, Juan Andresen lankideek ere gauza berbera bilatzen dute: dirua. Jaungoikoaren aginduak, otoitzak, hizkuntza garbia... baztertu eta jokabideak asmo bakar batera bideratzen dira: dirua irabaztera. Juan Andresek berak ere bide honi helduko dio. Martinek Somorrostroko langileen bideari helduko dio; eta Eibarko mitinean zortzi ordutako lana eskatzen du, alferkerian bizi den Moxolo Potolorentzat gehiegi bada ere.

Lanbide hauetako dirua irabazi behar horrek atsedena eta gogo onez lanean ihardutea eragozten die, dirua irabazi beharra eta honetarako beharrezkoa den lana arazo existentzial bihurtuz.

Baina, dena den, berbaldi-mailan ohizkotasun bihurtzen da nahiz bata nahiz bestea. Kontaketa-modu iteratibora jotzen da mundu ruralaren lanbideei atxikirik dauden pertsonaien lanaren aurreko jarrera aditzera emateko: behin jarrera-modua azalduz gero, lana ez da elementu berbaldi-sortzaile bihurtzen (66). Baina mundu rurala utzi duten pertsonaiek edo alferkerian bizi direnek lanaren aurrean hartzen duten jarrera ere kontaketa-modu iteratibo batez ematen da aditzera; gatazka-iturri bihurtu den elementua ez da elementu berbaldi-sortzaile bihurtzen. Dirua irabazi beharrak sortutako sosegu-falta horretatik ez da "prozesurik" sortzen: eguna joan eta eguna etorri, ez da testuratzen nola bizi den arazo existentzial hau; prozesu psikologiko baterako lehengaia zena ez da berbaldian prozesu psikologiko baterako lehengai bihurtzen. Arazo existentziala arazo esentzial bihurtzen da berbaldi-mailan.

Nahiz eta aurkajarritako lanbide-motek antzeko tratamendua jaso berbaldi-mailan, batzu goretsi egiten dira eta besteak gaitzetsi.

---

(66) Neurri batean jokabide-modu ulerterraza da; izan ere, eginkizun hau gatazka-iturri ez bihurtzean ez bait da berbaldi-sortzaile ere bihurtzen.

Agirrek ez du bereizkuntza tratamendu narratibo desberdin batek eman ziezaiokeen baliabideen bidez bilatu. Bereizkuntza enuntziazio-mailan ez baina enuntziatu-mailan bilatu du. Batzu soseguz atxikitzen zaizkio lan gogorrari; besteak ez. Enuntziatu-mailako bereizkuntza hau tratamendu narratibo-mailan ere bilatu izan balu, elebereria beste bat zatekeen seguruaski.

Mundu ruralari atxikirik bizi diren pertsonaien lanbidea gogorra dela **esan** egiten du kontalariak, baita gogo onez eta alai egiten dutela lan ere, ondoren pertsonaien arteko eszenaren batek ilustra badezake ere; baina enuntziazio-modua, berbaldia, ez da aipatu ezaugarri horiek **erakustera** bideratzen, ez hitz-orez jaztera, ez ñabarduraz betetzera, ez garatzera. Enuntziazio-modu horretatik sortuz doan enuntziatuak mundu rural horren ikuspegi idilikoa ematen du azkenean.

Mundu rurala utzi duten pertsonaiak ere gogor aritzen dira beren lanbidean; eta **esan** egiten du kontalariak. Baina ez dira gogo onez eta alaitsu aritzen, baizik dirua irabazi nahiak eraginda; eta hau ere **esan** egiten du kontalariak. Enuntziazio-modua, berbaldia, ez da egoera hau **erakustera** bideratzen. Baina enuntziazio-modu honetatik sortuz doan enuntziatuak mundu ez-rural horren ikuspegi ez-idilikoa ematen du azkenean.

Garoan ez ezik, **Auñemendiko Lorean** edo **Kresalan** ere, mundu ruralaren apologia egiten da. Goretsi, mundu ruraleko lanbide batean aritu eta alferra ez dena goresten da. Lope Nagi Mendiolako morroia desleiala ez ezik, nagia ere bada. Beraz, kualitate negatiboa errepresentatzen duen tipo bati lotzen zaio nagitasunarena ere. **Kresalan** ere, Bedar txarren taldekoak dira itsasoa zuzen-zuzenean ogibidetzat ez daukatenak. Arrantzaleen lana gogorra da, oso gogorra; baina ernegaziorik gabe lotzen zaizkio lanari. Lan neketsu hau ez zaie arazo existentzial bihurtzen; kontatu ere, kontaketa-modu iteratibo baten bidez kontatzen da arrantzaleen lanbidea. Baina Bedar txarretako zenbaitzuk egun konkretu batean izango dute lanbide honen ez-erosotasuna probatzeko aukera; eta ernegazio-iturri bihurtuko zaie. Azken finean, **Kresalan** ere arrantzale-bizitzaren ikuspegi idilikoa ematen da, ez bait da berbaldi-sortzaile bihurtzen bizimodu honi darion laztasuna. Arranondotarren ohizko lana ohizko lan-moduan eramaten da berbaldira, eta ez egunean-egunean bizi den abentura singular, neketsu eta arriskutsu-moduan; eta honela idiliko bihurtzen

da ikuspegi idiliko baten antipodetan koka zitekeen ikuspegia. Gainera, lanbide hau probatzean Bedar txarretariko batzuk hartutako jarrerak, batetik, arrantzale-bizitzaren gogortasuna azpimarkatzen badu ere, bestetik, agerian uzten du batzurentzat ernegazio-iturri bihurtzen ez dena besteentzat bihurtu egiten dela, bizitza erosoa eramateak eragotzi egiten bait die, egun batez bederen, lanbide horri heltzea gogo onez.

Funtsean, tradizioa gorestera bideratzen da koordenada narratiboen antolamendua. Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaiak euskarari, euskal ohiturei eta kristau-sinismenari atxikirik bizi dira: ezer aldatu gabe eta gurasoen irakatsiari jarraiki, lehendik datozen baloreei atxikirik daude. Izaera hau erakustera murriztuko da pertsonaia hauen "ekintza", balore horiei nola dauden loturik erakustera, alegia: lekugune tradizionaletan bizituz, lanbide-modu tradizionalak ogibide izaki, aldaketaren menpe ez dagoen denbora batean bizituz. Hauen zain dago eleberriaren amaieran bake-giroa eta betiko zorionaren itxaropena.

Protagonista horiek euskal tradizioaren gordetzaileak dira; beti ere, tradizio hori Domingo Agirrek bezala ulertuz; nahiz eta Historiak, esate baterako, besterik esan dezakeen agian.

Euskal tradizioaren gordetzaile legez eraikiz doazen pertsonaia hauei kontalariak "ez die askatasunik ematen", pertsonaia moduan joka dezaten. Mundu-ikuskera oso eta koherente baten adierazle izan behar eta ez daukate alderdiren batean lerratzeko modurik; hau da, pertsonaia hauek ez daukate askatasunik, esate baterako, meatza ateratzen lan egin eta tradizioaren gordetzaile izateko; aski bait da tradizio horri dagokion ezaugarriren batean huts egitea gainontzekoetan ere huts egiteko. Eta ezaugarri horietako bat mundu ruralean bizitzea da, mundu rural honetako lanbideren bat ogibide. Euskal tradizioaren gordetzaileak gorestean mundu rural hau ere goretsi egiten da; izan ere, euskal tradizioaren gordetzaile izateari datxezkion ezaugarri **guztiak** goresten bait dira, eta ez bat edo batzu bakarrik.

2.3. GELDIRIK DAGOEN MUNDUA. MUNDU TINKOA

Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaien mundua geldirik dagoen mundua da. Hauen denbora "iragaten" ez den den-

bora da, geldirik dagoen denbora psikologikoa. Fikzioak irauten duen bitartean pertsonaiak zahartuz doaz, denbora fisikoki igaro egiten da; baina aldaketarik ez dakarren denbora da, denbora iraunkorra.

Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaiak egindako pertsonaiak dira, eta ez egiten doazenak. Pertsonaia iraunkorrak izaki, hastapenetako izaera-moduan irauten dute; eleberria beren izaera-modua erakusteko lekugune besterik ez da. Lekugune iraunkor batean bizi dira, gizonak eragindako transformazioen menpe ez dagoen lekugune batean, mendez mende horrela iraun duen paisaia-modu batean. **Kresala**n, jadanik, mendiek liluratzen zuten kontalaria beraien iraunkortasunagatik:

> "Beti dagoz bere berean, beti era batekoak Jaungoikoak dakien gizaldietan.
>
> Gure aitonak ostera jaioko balira, ezlitukie euren ondorengo asko ezagutuko beste iritxikoak biurturik eta beste itxurakoak dagozalako; baña mendiak bai: mendiak eztira aldakor, lengo lengoak dagoz, beti batean" (**Kresala**, 225. or.).

Mendien iraunkortasuna miresten duen kontalari honek iraunkortasun hau berau bilatu du pertsonaietan ere. Eta "aitonek ezagutuko lituzketen" pertsonaien bidez errepresentatzen du euskalduntasuna. Eta euskalduntasuna honako lemapean eraikitzen du besteak beste: aldaketaren aurrean, lehenari eutsi.

Euskalduntasuna errepresentatzera deituta dauden pertsonaiak kontaketara ez datoz abentura singular bat bizitzera, bide bat egitera edo prozesu psikologiko batean murgiltzera; baizik eta eleberria den lekugune horretan egotera beren izaera erakutsiz; izan ere, ez daukate ezer ikasi beharrik, ez ezertan aurreratu beharrik, ez ezer bilatu beharrik, ez inolako "bidaiarik" egin beharrik. Ereduak jarrita daude, moldeak ezarrita eta bidea eraikita; beraz, ez dago molde horien barnean bizi eta eredu horiek jarraitu besterik. Hauei aurkajarriz, moldeak hausten dituztenak daude, euskalduntasunaren eredu horrekin hausten dutenak. Hauek bide berriak eraikitzera abiatzen dira. Geldirik dagoen mundu tinko horrekin hautsi eta mundu ibiltari eta aldakor bat dute amets.

Portunek tradizioak ezarritako moldeekin hautsi egiten du, erasotu ez dutenean erasotzaile bihurtuz. Ekintza hau berau aski da gel-

dirik zegoen mundu horretatik "jaurtikia" izateko, mundu ziur horretatik erortzeko eta bide bat egin beharrean aurkitzeko.

Planteamendu-modu bera soma daiteke **Kresalan** edo **Garoan**. Kontalariarentzat neurriz kanpokoa den diruzaletasuna asetzeko Juan Andres, euskalduntasunaren bizileku eta lekugune iraunkorrak uztean, geldirik zegoen mundu horretatik erori eta bide bat egin beharrean aurkitzen da. Berdin gertatzen zaio Martini ere, Azkarraga baserriaren hondamendiak lekugune iraunkorra uztera eta Somorrostron ogibidea bilatzera daramanean. Ameriketan aberastutako **Kresa**lako Indianoak euskara ahaztu du "bidaia" honetan; baita Jaungoikoa ere. Eta honela, geldirik dagoen mundu honetatik erori egiten da, edo jaurtiki egiten du euskalduntasuna gordetzen duten pertsonaiak hobesten dituen kontalariak.

Euskalduntasuna gordetzen duten pertsonaiak egonean dauden pertsonaia moduan itxuratzen dira, eta ez ekintzen subjetu moduan. Mundu iraunkorrean lekuturiko pertsonaia iraunkorrak dira. Hortik ateratzen dena "kondenatzen" da mundu aldakorrean ibiltzera, bidearen amaieran porrot egingo duelarik, nola eta aurretik ez den berriro mundu iraunkor horretara itzultzen, oso zaila bada ere.

Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaien munduak erantzunak ditu; eta horrenbestez, euskalduntasuna galdu duten pertsonaiek ez bezala, ez daukate erantzun bila hasi beharrik, ez nork bere bizitza egin beharrik, ez nork bere bizitzarako soluzioak eta irtenbideak bilatu beharrik. Nahikoa dute ezarritako balore batzu, bizitzeko modu bat, bizitza ikusteko modu bat jarraitzearekin. Hori uzten dutenek abiatu behar dute balore berrien bila, bizitzeko modu berri baten bila, bizitza ikusteko modu berri baten bila. Horiek lotu behar zaizkio funtsean mundu aldakor bati.

Dena den, enuntziatu mailako bereizkuntza honek ez du korrelatorik aurkitzen tratamendu narratibo mailan. Antzeko tratamendu narratiboa hartzen dute geldirik dagoen munduan bizi direnek edo mundu honetatik jaurtikiek. Edo bestela esanda, tratamendu narratibo mailan, enuntziazio mailan, egindako desberdintasunak direla bitarteko, ez da enuntziatu mailako desberdintasuna bilatzen.

Enuntziazioaren bidez aditzera ematen den enuntziatua aldatu egiten da batetik bestera, baina teknika narratiboak ez dira aldatzen; izan ere, egonkortasuna kontaketa-modu iteratibo baten bidez aditze-

ra ematen bada, aldakortasuna ere kontaketa-modu iteratibo bihurtzen da.

Bide berri bati heltzeko geldirik dagoen mundua uzten dutenek gelditu egiten duten mundu batengatik ordezkatzen dute geldirik dagoen mundu hori. Ez dute geldirik dagoen mundu tinkoa berbaldi mailan etengabeko bilaketa batean murgiltzeko uzten. Balore batzu, bizitzeko modua eta bizitzari buruzko ikuspegia utzita, beste balore batzu, beste bizitzeko modu bat eta bizitzari buruzko beste ikuspegi bat hartzen dute. Aldatzen dira, bai, baina aldaketan aldakaitz bihurtzen dira. Eta abentura singularra izan zitekeena abentura-tipo bihurtzen da. Kontaketa-modu singulatibo baten bidez aditzera eman zitekeen abentura singularra kontaketa iteratibo baten bidez aditzera ematen den abentura-tipo bilakatzen da.

Azken finean, Agirreren eleberrietan bi mundu egonkor aurkajartzen dira; eta ez mundu egonkor bat eta aldakor bat. Izan ere, ohizko mundu aldakaitz bihurtzen bait da mundu aldakorra, bai enuntziazio mailan eta bai enuntziatu mailan.

Honako hau erakusten zuen eleberrien deskripzioei eskainitako ataletan egin den Agirreren eleberrietako pertsonaien azterketa aktantzialak: batetik, eleberri hauetako pertsonaia-protagonista legez eraikiz doazen pertsonaiek hartutako funtzio aktantziala objetuarena zela; hain zuzen ere, ihardulea ez den funtzio aktantzial bakarra hartzen zutela; eta bestetik, berriz, subjetuaren paper aktantziala betetzen duenak bere nahia den objetua erdiesteko egindako ahaleginari aurkajartzen zaiona ez zaiola aurkajartzen gertaera edo ekintza batengatik, baizik eta ideologiagatik, defendatzen diren baloreengatik, bizitzeko moduagatik, bizitza ikusteko ikuspegiagatik. Gertaera puntuala, ekintza puntuala, kontatzen diren historiak, mataza ahul samarra ehotzen doazen historia hauek, justifikazio eta aitzakia huts bihurtuz doaz, berbaldian ideologia eta mundu-ikuskera desberdintasuna eta aurkakotasuna aditzera emateko.

Funtsean, harreman aktantziala pertsonaiek egiten dutenagatik baino gehiago eraikitzen da pertsonaiak **direnagatik** edo **dauden moduagatik** edo pentsatzeko moduagatik. Egiten dutena ez da izateko modu hori edo egoteko modu hori erakusteko aitzakia bat besterik. Pentsatzeko moduak, mundua ikusteko moduak edo **direnak** determinatzen du egiten dutena, eta ez une konkretu bateko desioak edo arima-egoerak edo une konkretu bateko grinak.

Portunek Riktrudisen maitasuna bilatzen du eta eragozpenak ditu. Baina eragozpen hauek ez zaizkio gertaera konkretu bati zor (bere desioa moja sartzea delako edo gurasoekin bizitzea nahiago duelako edo...), baizik eta ideologiari, bizitza ikusteko moduari edo izaerari: kristaua ez delako ez dio Riktrudisek egundo begiratu ere egin bera maite duen Portuni. Maila ideologikoko eragozpenak dituen maitasun-istorio bat motore moduan duela ehotuz joango da **Auñemendiko Loreako** mataza. Baina ehotze horretan sakonean ezkutaturik geldituko da motorea; izan ere, motore hori azaleratzen denean, ez da modu horretan azaleratuko, baizik eta beste dimentsio batzu hartzen dituzten arazo ideologikoek estaltzen dutelarik. Izaeraz kristaua ez den Portunek ez du etsipenaren birtutea ezagutzen eta aipatu maitasuna erdiestera bideratzen da; baina desio hau ezkutatuz eta ezkutatzen den nahia lortzeko beste izari batekoak diren arazo ideologikoak esplizitatuz jendaurrean: Riktrudisen aita Arnoldo eta Riktrudis bera herri-saltzailetzat joz eta frankoen aurkako gerra bati hasiera emanez... Sentimendu mailako arazo bat arazo ideologiko moduan aurkezten da eta arazo ideologiko bihurtzen, harreman aktantziala batipat ideologia mailan eraikitzera helduz azkenean.

Kresala edo **Garoako** maitasun-istorietan ere, **Auñemendiko Lorean** somatzen den joera nabari da: maitasun-istorio hauetako harremanak ideologi mailako arrazoiak bihurtzen ditu harreman ez-egokitu. Mañasik Indianoa arbuiatzeko darabilen arrazoietariko bat ideologikoa da: Indianoa kristau hotza eta badaezpadako euskalduna izatea. Malentxo eta Martin edo Moxolo Potoloren arteko maitasuna eragozten duen arrazoietariko bat ideologikoa da.

Nahiz eleberri historikoan, nahiz ohiturazkoetan garatzen diren ekintzak aitzakia huts bihurtuz doaz aurkajarritako mundu ideologikoak azaltzeko. Ekintzen tratamenduak, gainontzeko koordenada narratiboek hartzen duten tratamendua bezala, testuek bete nahi dituzten jomuga didaktikoei menperatzen zaizkie. Ekintzen garapenak, gainontzeko koordenada narratiboenak bezala, ez du autonomiarik; mundu-ikuskera eta ideologia desberdinak azaltzeko aitzakia bihurtzen da.

Beraz, ekintzek ez dute autonomiarik: ideologi desberdintasuna itxuratzeko eta bizitza ulertzeko modu desberdinak adierazteko erabiltzen dira. Hori dela-ta, geldirik dagoen mundu tinkoa uzten duten pertsonaiek geldirik dagoen beste mundu batez ordezkatzeko uzten dute azken finean.

Euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaiak egon daude, beren izaera eta euskalduntasun hori zertan datzan erakutsiz. Euskalduntasunak errepresentatutako mundu tinkoa uzten dutenak abiatzen dira bide berriak eraikitzera; eta bide berri hauek ireki beharrak bihurtzen ditu ihardule. Baina, azkenean, arestian esan bezala, ez dira abentura singular bat bizitzera abiatzen; beren abentura kontatu ere, ez da abentura singular legez kontatzen. Izan ere, beren abentura abentura-tipo bihurtzen da; beren iharduletasuna eta ekintzak beste bizikera baten eta beste mundu baten adierazle bihurtzen dira. Aldaketa egin ondoren, mundu aldagaitz batetik mundu aldakorrera igaro ondoren, mundu aldakor honetan aldagaitz bihurtzen dira.

Mundu antinobeleskoa da euskalduntasuna errepresentatzen duten pertsonaien mundua: mundu tinkoa, geldirik dagoena, gatazkarik eta bilaketarik gabea, konformismoarena, erantzunak dituena, aurrerapenik ez dakarren denborarena, abentura singularrik gabea...; baina baita euskalduntasuna utzi dutenen mundua ere. Hori ere mundu antinobelesko bihurtzen da; izan ere, abentura singularrak izan zitezkeenak abentura-tipo bihurtzen bait dira mundu aldagaitzean, eta pertsonaien iharduletasuna aitzakia bat besterik ez bait da, euskalduntasuna errepresentatzen ez duen mundu bat azaltzeko aitzakia hutsa.

"Conato de novela"-tzat joa izan den **Peru Abarcan** itxuratuz doan marko narratibo xumea liburuaren helburu didaktikoei menperatzen zaie, eta helburu didaktiko horien barnean koordenada narratiboak bi bizitzeko modu eta bi mundu-ikuskera azaltzera bideratzen dira besteak beste: Perurena eta Maisu Juanena, euskalduntasuna errepresentatzen duenarena eta euskalduntasun horretatik urrutiraturik bizi denarena. **Peru Abarca** idatzi eta mende batera, marko narratiboak garapen zabalagoa hartzen badu ere, kontaketak kidetasun handia duten helburu didaktikoekin jarraitzen du. **Peru Abarca** idatzi eta mende batera narratibak iruzur egiten dio historiak kontatzeari; ez da gizabanakorik testura ekartzen; bizitza-modu edo pentsamendu-modu prototipikoak aurkeztu nahi edo beharrak ezarritako bide estuan mugitzen da.

2.4. MUNDU DIKOTOMIKOA

Mundu dikotomikoa da Agirrek bere eleberrietan aurkezten duena, eta bi muturrak ongi bereizten dituen mundu dikotomikoa

gainera. Estremoak, muturrak, dakartza eleberrietara; muturren bitartekoentzat ez dago lekurik. Mutur bat hobestera joko du, bestea gaitzestera. Honelako helburu baterako eredu aproposenak hautatzen ditu; pertsonaien galeria zabal horretan ez bait da bakoitzaren kokalekua ezartzeko zalantza-izpirik izango; tartekoak balira, zalantza-iturri bihur zitezkeen.

"Bat bitan banatzen da" lemapean idatziriko eleberri moduan taxutzen dira. Aurkakotasuna, eta aurkakotasun bitarra gainera, da eleberrien elementu egituratzailea. Ardatz horren inguruan moldatzen dira hiru eleberriak; hari gidatzaile horrek josten ditu. Koordenada narratibo bakoitzak bi aurpegiak azalduko ditu. Aurkakotasunaren alde batean eta bestean kokatzen diren ezaugarrien batuketa da nobela.

Zenbait ezaugarri lekutzen da aurkakotasun bitar horren alde batean; eta beste aldean, ezaugarri horien ukazioa. Baina ez dute edozein konbinazio-mota ametitzen. Aurkakotasunaren alde bateko ezaugarri baten presentziak beste zenbaiten presentzia eskatzen du alabeharrez; eta ezaugarri baten gabeziak, beste zenbaiten gabezia alabeharrez. Esate baterako, ezin egon daitezke aurkakotasunaren alde batean Somorrostroko meatzetan lan egitea eta kristau sutsua izatea; ezin eman daiteke konbinazio-mota hori. Izan ere, Agirreren eleberrietan ez dago pertsonaiarik; tesiak, baizik: tesien argumentazioak eta ondorioak.

Pertsonaia apalak eta apalak ez direnak (harroak), leialak eta desleialak, langile finak eta nagiak, kristau-sinismendunak eta kristau-sinismenik gabeak, euskal ohituren gordetzaileak eta euskal ohitura hauekin hausten dutenak... Agirreren eleberrietako unibertsoa jendeztatuz doa, baina nekez aurkituko da pertsonaia moduan jokatuko duen pertsonaiaren bat, hots, historiaren uneren batean, esate baterako, apaltasuna eta historiaren beste uneren batean apaltasunik eza azalduko duena. Agirreren unibertso nobeleskoan, esate baterako, apala denak beti apal jokatuko du edo apal azalduko da. Erregela hau noiz edo noiz hauts dezake bigarren mailako pertsonaiaren batek salbuespen moduan; baina kontalariak edo beste pertsonaiaren batek adieraziko dio, modu batera edo bestera, pertsonaia horri edo irakurlegaiari aipatu pertsonaia "kontraesan" batean erortzen ari dela. **Garo**ako Ana Joseparen edo **Auñemendiko Lore**ako Andre Luziaren adibide urriak aipa daitezke. Aurkakotasunaren mutur batean edo

bestean lekutzen diren pertsonaiak sortu nahiaren ondorioa da. Pertsonaia hauek mutur batean edo bestean kokatuz, eredu batzu aurkezteko aitzakia bihurtuko dira; izan ere, tartekoek ez bait dute eredu garden batzu aurkezteko erraztasunik eskaintzen.

Diren eta ez diren baliabide guztiak erabiliko dira mundu dikotomiko horretako muturrak modu estremosoan azaltzeko. Batzuren perfektutasuna adierazteko hiperbolearen erabilerara jotzen bada, besteak ridikulizatzeko karikaturara joko da. Batzuren deskripzio fisikoak edo dauzkaten dohainenak hiperbolea eskatzen badu, besteenak karikatura behar. Amildegi handi hori dago, esate baterako, **Garo**ako Joanesen eta Eibarko mitinlarien artean, edo **Kresal**ako Mañasi eta Indianoaren artean, edo **Auñemendiko Lore**ako Pedro Mari eta Lope Nagiren artean.

Egile honen eleberrietan ez dago lekurik ez anbiguidadeentzat, ez izpiritu-egoeraren araberako jokabide-aldaketentzat. Gelditzekotan, aukeratzeko askatasun bakarra gelditzen zaio pertsonaiari: alde batean edo bestean kokatzekoa; edo-ta "gurutzetarren" artean edo-ta "otsokotarren" artean. Lehenak, geldirik dagoen mundu batean lekuturik, tradizioak irakatsi diena erakusten egon daude, tradizioaren irakatsia modu perfektuan, hezurraragituz, mundu ruraleko lanbideetan. Bigarrenek, aldiz, utzi egingo dute mundu hori.

Gurutzetarren mundua hobesten du kontalariak, eta mundu horretarako irabazi nahi ditu irakurle guztiak. Mundu hori hobesteko moduan antolatu ditu eleberriak, asmo didaktiko hori gidari. Gurutzetarrak izango dira bere eleberrietako protagonistak. Batipat hauen egoteko modua bihurtuko du kontalariak berbaldi, hauek bizi direneko lekuetan kokatuz bere kontalari-talaia. Noiz edo noiz, hala ere, bere orojakiletasunak ematen dizkion ahalmenak direla bide, talaia hori utzi eta otsokotarren bizilekuetara hurbiltzen da hauen bizimoduen berri emateko. Hiperbolearen baliabide estilistikoa gurutzetarren deskripziorako erabiltzen da; karikaturarena, berriz, otsokotarrentzat gordetzen da... Eta eleberriaren amaieran lehenengoei bakea, atsedena eta zoriona eskaintzen die; bigarrenei, aldiz, egonezina eta zorigaitza.

Nobelak eraikitzeko dikotomia (eta dikotomia bitarra, gainera) ardatz bihurtzea oso da eraketa-modu didaktikoa irakatsi gardena emateko. Izan ere, eredua eta honen kontrarioa aurkezten bait zaizkio irakurleari: nolakoa izan behar duen eta nolakoa ez; baita ereduari jarraiki edo ez, zer letorkiokeen ere.

2.5. EUSKALDUNAREN NORTASUN-AGIRIA

Agirrek bere eleberrietan barrena euskaldunaren nortasun-agiria zedarritzen duten ezaugarriak mugatzea bilatzen du eta aldiberean nortasun-agiri horren apologia egitea.

Nortasun-agiri horren ezaugarrien gordetzailerik bikainenak euskal baserrietan, mendi-basoetan eta herrisketan bizi eta aintzinatik datozen lanbideak dituzte ogibide, hau da, mundu ruralean bizi dira mundu rural honetako ogibide-moduei atxikirik. Pertsonaia hauek euskaraz mintzo eta, gehiago edo gutxiago zehaztutako euskal ohituren gordetzaileak izaki, kristau-sinismenari tinko atxikiak bizi dira.

Bizileku horiek utziz gero, arrisku ikaragarria dago beste "enda, oitura eta izkera" batzutakoekin nahasi eta nortasun hori galtzekoa; hala gertatu zaie Juan Andresi eta Martini, baita **Kresala**ko Indianoari ere; ez bait zuten Riktrudisek bezala erbesteratzerakoan euskal izaera eraman eta Euskal Herri txiki bat egin erbestean.

Agirrek gizatalde baten nortasuna finkatzeko aitzakia huts bihurtzen ditu historiak, nola eleberri historikoaren bidez idazketaren garaiarekiko lehenaldi urrunean lekutzen duena, hala ohiturazkoen bidez lehenaldi hurbilean kontatzen dituenak ere. Hala zehazten ditu Agirrek bere ustez gizataldeak dituen karakteristikak. Kontatzen dituen historietan ez du gizabanako konkretu batzuri bizitza ematea bilatzen, baizik eta pertsonaietan euskaldunaren nortasun-agiria hezurmamitzea. Gizabanakoak bere baitan izan ditzakeen antinomien, handitasun eta miserien abstrazioa egiten da alderdi bakar bat oratzeko; alderdi bakar hori aipatzen da, gizatalde horren nortasuna edo nortasun horren ukazioa azaltzeko aitzakia bihurtuz. Sarri askotan ahul samarra den mataza ehotzen doazen historia ingenuo, sinple eta indargabeak nortasun hori zedarritzeko eta nortasun horri buruzko saio bat egiteko bitarteko bihurtzen dira.

Honela, bada, Agirreri ez zaio euskaldun konkretua axola, ez honen bizitza, ez honen barre eta negarrak, sufrimendu eta pozak, apaltasun eta handinahiak...; baizik eta euskalduna, honen nortasun-agiria. Joanesek, Mañasik, Anjelek, Riktrudisek... ezer gutxi dute gizabanakotik; izen propio baten jabe direla. Beraiek protagonizatzen dituzten historia horietan zehar hartutako tratamenduak ez ditu gizabanako legez itxuratzen, baizik eta nortasun-agiri honen ordezkari legez.

Euskalduna nola bizi den eta zeintzu diren bere kezka eta desioak nobelaren bidez aditzera emateari uko egiten badio, nortasun-agiri hori zedarritu eta mugatzean ez du jo, seguruaski, nortasun hori dena aditzera ematera; nortasun horrek izan beharko lukeena adieraztera baizik. Ez du euskalduna nolakoa den (zen edo izan zitekeen orduan) deskribatzea bilatu, baizik eta euskaldun idealaren irudia azaltzea; Agirrerentzat euskaldun paradigmatikoa litzatekeena, jakina. Ez da euskaldunaren moralaren aztertzaile bihurtu, baizik eta euskaldunaren moralak izan beharko lukeenaren erakusle. Azken finean, ez du seguruaski euskaldunaren nortasun-agiria aditzera ematen, baizik eta nortasun honek izan beharko lukeena; izan ere, nortasun-agiri hori ereduen bidez bilatzen du mugatzea eta ez euskaldun arruntaren bidez. Paradigmen gauzatze konkretuak ditu paradigmara hurbiltzeko bitarteko, baina paradigma oratzera eta gauzatzera heltzen ez diren pertsonaiak. Euskaldunek Joanes edo Riktrudis edo Mañasi bezalakoak izatea bilatuko dute gehienez, halako perfekzio-neurrira iritsi gabe.

Ez zen, seguruaski, epopeiak edo poema epikoak egiteko garaia. Agian, mugimendu erromantikoak iragandako denboraz sentitu zuen lilura zela-ta senti zezakeen Agirrek, besteak beste, Erdi Aroaren deskubrimenduaren bidez, erromantze epikoen hutsunea. Baina testu-mota "prosaikoagoa" hautatu zuen bere kezkei bidea ireki edo forma emateko: nobela; nobela historikoa eta ohiturazkoa.

Nobela historikoa bitarteko, euskaldunek iraganean garatutako jesta epikorik handiena dakar testura, Agirreren idatzietan azaleratuz doan pentsamendu-moduaren arabera: kristautzea. Santu euskaldun batengan hezurmamituko du kristautasunaren edertasuna, eta prototipo honetaz baliatuko da kristautasunak euskaldunengan lortutako garaipena aditzera emateko. Euskaldunaren nortasun-agiri horri eratxekia dagoen ezaugarri legez joko du kristau-sinismendun izatea.

Ohiturazko eleberrietan ere nortasun honen ezaugarriak finkatzen jarraituko du, idazketaren garaiaren lehenaldi hurbilean lekutuz. Horretarako ez du jesta epiko handirik ekarriko, baina lekugune iraunkorretan kokatutako pertsonaia tinko batzuk erakusten duten egoteko moduaz baliatuko da.

3. POETIKA PRAGMATIKO BATERAKO ELEMENTU ERROMANTIKOAK

Hiru eleberriak "modu atsegin batean irakatsi" lemapean idatzita daude; hala ere, ezin uka daiteke elementu erromantikoen presentzia, nahiz eta aipatu lemak urrutiratu egiten duen estetika erromantiko baten muinetik.

Jakina da, mugimendu erromantikoa oso konplexua izaki, literaturaren zenbait aztertzailek ez duela Erromantizismoan aski ezaugarri amankomun aurkitzen mugimendu batez hitz egiteko. Eta ez du aurkitzen, edo zailtasunekin topo egiten dute, erromantizismoak berak zekarren filosofiagatik, hain zuzen ere: gizabanakoa eta beronen obraren berezitasuna azpimarratzen zuelako. Banakotasunaren (67) eta banakotasun honen kreazioaren eta sorkuntza-lanaren gain eraikitzen ditu bere oinarriak (68). Oinarri hauek bitarteko, gogor astinduko du ordurarteko literaturgintza, baita literaturgintza ulertzeko modua ere; izan ere, banakotasuna eta kreazioa azpimarratzeak hamaika bide eta posibilitate eskaintzen bait dizkio literaturgintzari.

---

(67) "El foco irradiante del romanticismo, como el de cualquier otra época, es, en nuestra tesis, el sentimiento individualista (...). Y es este alto grado de individualismo el que nos hace entender, de inmediato, la afición romántica por todo lo que está individualizado, lo que tiene carácter, lo que posee 'color local'. De ahí nacerá tanto el interés de la época por el folklore, y, en general, por lo popular, como el costumbrismo de un Mesonero Romanos o de un Estébanez Calderón". BOUSOÑO, C.; **Epocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Epoca Contemporánea**, I, 27. or.

(68) M. H. Abrams-ek teoria adierazkor edo espresiboen barnean kokatzen du mugimendu erromantikoa. Poetika edo teoria espresibo honen ezaugarriak mugatzen diharduelarik, teoria mimetiko eta pragmatikoekin alderatzen du. Honela egiten du aipatu alderaketa pasarte batean: "La causa suprema de la poesía no es, como en Aristóteles, una causa formal determinada primariamente por las acciones y cualidades humanas imitadas; ni, como en la crítica neoclásica, una causa final, el efecto que se propone ejercitar sobre el auditorio; sino, en vez de ello, una causa eficiente —el impulso, dentro del poeta, de sentimientos y deseos que buscan expresión, o la compulsión de la imaginación 'creadora' que, como Dios creador, tiene su fuente interna de movimiento". ABRAMS, M.H.; **El espejo y la lámpara. Teoría romántica y tradición crítica**, 46. or. Azken finean, C. Bousoño-ri jarraiki esan daiteke honako emaitza hau ekarri zuela Erromantizismoak: "El concepto de 'creación' empezará a sustituir al concepto de mímesis, sin duda como resultado del subjetivismo". BOUSOÑO, C.; op. cit., 38. or.

Ordurarteko hainbat baldintza eta muga deuseztu egiten dira askatasun osoaren izenean: jadanik ez dago zertan errealitatea mimetizaturik; errealitate berriak sor eta asma bait daitezke hitz poetiko eta asmatutako hiztegi, mintzaira eta irudien bidez. Gizabanakoa aske da kreazioaren izenean edozein lizentzi modu hartzeko; liberaturik bait dago inolako arau-motarik errespetatu beharretik.

Agirreren eleberrietan banakotasuna balioztatuko da; baina kreazioa eta sorkuntza falta da, estetika erromantikoak uler zezakeen gisan bederen. Izan ere, erromantikoen sorkuntza ulertzeko modua eta "modu atsegin batean irakatsi" maxima uztartezinak dira: bata ala bestea aukeratu behar.

Nobela historikoaren bidez lehenaldira joko du. Lehenaldi honetan arindu nahi du orainaldiak sortzen dion mina eta sufrimendua. Berez, defendatzen duen balore-sistema higadura bortitz baten menpe dago idazketaren garaian, orainaldian. Gizakiak Agirrek defendatutako balore-sistemari atxikiago bizi ziren garaiak nostalgi iturri bihurtzen zaizkio, eta orainaldiak eskaintzen dion ondoezaren gozagarri.

Ohiturazko eleberriekin aterpea ez du lehenaldi urrunean bilatuko; baina bai, kontakizunak berak defendatutako balore-sistema ondoen gordetzen duten lekugunetan kokatuz.

Neurri batean bederen, ihes egingo dio Agirrek errealitateak sortutako frustrazio eta desenkantuari, hainbat eta hainbat erromantikok gogobetetzen ez zuen eguneroko bizitzaren aurrean hartu zuen jarrerarekin bat eginez. Hainbat eta hainbat erromantikok bezala, orainaldiko bizitzak sortutako egonezina leuntzen duten leku nahiz denboratara joko du. Egia nobeleskoaren arabera Euskal Herrira kristautasunaren garaipena dakarren VII. mendean eta Euskal Herri honetako itsas herriska eta mendi-baserrietan aurkituko du babesa Agirrek; izan ere, orduan gauzatu zen euskaldunen historiako jesta epikorik garrantzizkoena (Agirreren balore-sistemako balorerik preziatuenaren garaipena), eta lekugune horietako euskaldunak bizi dira, hain zuzen, Agirrek defendatutako balore-sistemari tinkoenik atxikirik.

Bere babes eta aterpe diren leku-denborazko koordenada horietan kokaturik, gizatalde baten banakotasuna adierazteko bitarteko bihurtu ditu eszenario horietan jazotzen diren gertaerak. Bitarteko

horiek gizabanako konkretuaren ni-aren azalpena, gizabanako konkretuaren erraien husketa adierazten ez badute ere, gizataldea azaltzea bilatzen dute. Hainbat idazle erromantikok legez, gizatalde bat mugatzen eta bereizten dituzten karakteristiken berri ematea bilatu du. Euskaldunen nortasuna zedarritzen duten ezaugarriak ezarriko ditu Agirrek, gainontzeko gizataldeetatik bereziz.

Hiru eleberri hauen egileak arestian aipaturiko leku-denborazko koordenada horietan aurkitu du euskal nortasuna aditzera emateko kokagunerik aproposena; izan ere, berarentzat euskal nortasuna mugatzen duten ezaugarriak koordenada horietan gordetzen dira modurik garbien eta osoenean.

Azken finean, Agirrek bere balore-sistema propioa euskaldunaren balore-sistemarekin identifikatzera jotzen du; eleberriak bere balore-sistemaren aterpe diren leku-denborazko koordenadetan lekutzen ditu; eta, honela, bidea irekiz doa euskaldunaren nortasunaren berri emango luketen ezaugarriak euskaldunaren nortasunak izan beharko lukeenaz ordezkatuz joateko. Euskalduntasuna errepresentatuz doazen pertsonaiak eguneroko errealitatearen desengainotik ihesi Agirrek duen aterpean besterik ez dira bizi; desengainoa arintzen diote bere balore-sistemak bat etorriz. Azken batez, idazlearen eta errealitatearen arteko desegokitzapena haustera jotzen da, idazlearen eta eleberrien bidez errepresentatutako munduak egokituz. Zer esanik ez dago, honek ere lagundu egiten du aztergai diren idazlanei darien giro idiliko, ideal eta irreal hori sortzen.

Dena den, nahiz eta gaiaren maila honetan gizatalde baten nortasuna hezurmamituz banakotasunaren berri ematera jo, nortasun hau hezurmamitzeko eta ulertzeko moduak eragotzi egin dio sorkuntza-lan hutsa eskaintzea; ezin izan du izateko arrazoia bere baitan soil-soilik lukeen tramankulu bat eraiki, ezin autonomoa den mundu bat moldatu.

Eleberriak "modu atsegin batean irakatsi" lemapean eta testu-antolamendua helburu didaktiko baten azpian jartzeak erromantikoek sorkuntza-lana ulertzen zuten moduan zenbait amore emate dakar; elkarren etsai bait dira bi ikuspegi hauek.

Agirreren eleberrien jomuga didaktikoak erdiestera daude bideratuak historien egituratzeak. Honek, jadanik azalduriko teknika narratiboen artean, mintzaira eskuragarria eta iruditegi topikoa erabiltzera darama, besteak beste, sorkuntza-modu banako eta berezitik urruntzen den mintzaira eta iruditegia, hain zuzen.

Mezu didaktikoa ahalik eta modurik gardenenean eta argienean igorri nahiak mintzaira ulerterraza erabiltzera darama, sinonimo eta oin-oharrez argitzera, iruditegi topikoz baliatzera, abere eta naturako fenomenoei tradizioak emandako balio sinbolikoa probetxatzera.

Tradizionala den mintzaira dakar. Nahiz eta lexiko-mailan hizkuntzaren normalizazio eta normatibizazio-faltak eraginda hainbat hizperri erabili, ahalik eta hiztegirik garbienez, ahalik eta mailegu berri gutxienez baliatu nahiak sortzen duen jarrera da. Tradiziorik ez duten hitzetan jotzen du bereziki hizperrien erabilerara, mailegutza ahalik eta gehien baztertuz. Baina, azken finean, jarrera honetan ere helburu didaktikoari erantzuten dio; izan ere, hizperria irakurlegaiarentzat ezaguna den sinonimoz edo argitasunak eskaintzen dituen oin-ohar baten laguntzarekin aurkezten bait da. Hartara, batetik, eskuragarri du irakurleak eta, bestetik, Agirrerentzat lexiko-modu eredugarria dena eskaintzen dio bide hau onetsi eta mailegu berriak bazter ditzan.

Guztiz tradizionala den iruditegia dakar. Metaforak, konparazio-elementuak; orohar darabiltzan baliabide erretorikoak guztiz tradizionalak dira.

Jadanik aditzera eman denez, gogo onez bereganatzen ditu erretorika klasikoak eskaintzen zizkion baliabideak. Agirreri ez zaizkio batere arrotzak eskolastikak gaiak antolatzeko erabili zituen teknika-moduak eta eleberrien antolamendu-modura bertara eraman ditu, ikasgai probetxuzkoak emateko prozedura narratibo bikain bihurtuz.

Figura erretorikoak sortzeko hartzen dituen lehengaiak ere guztiz tradizionalak dira. Natura da lehengai hauen emaile: zuhaitzak, ekaitzak, abereak... Horietaz baliatzen da eta horiek literaturan nahiz literaturatik kanpo mendez mende egina zeukaten ibilbideaz eta sinbolo-modu topiko bihurturik zeuzkaten elementuaz. Horrela itxuratuko du aditzera eman nahi duen mundua.

Zuhaitzak, usoak, basurdeak, lehoiak, zakurrak, azeriak, otsoak, arranoak, bildotsak... sinbolo mailako esanahia finkatua, mugatua eta zedarritua zuten tradizio luze bat dela bide. Eta erabili ere, erruz erabili dira hauetako gehienak helburu didaktikoa duten testu-motetan; hala nola, alegietan, besteak beste, giza ekintzak errepresentatzeko.

Azken finean, Agirrek iruditegi guztiz topikoa darabil. Iruditegi

honek ez dio Agirreren sorkuntza indibidualari erantzuten; honek herriak edo tradizioak ezagutzera emandako irudiak hartu eta bere testuetara biltzea besterik ez du egiten.

Guzti horrekin ez da, ordea, aditzera eman nahi eleberrigile honen eleberrietan sorkuntzaren arrastorik ez dagoenik; izan ere, berak aukeratzen du deskribaturiko elementuak erabiltzea eta berak erabakitzen deskribaturiko elementuak nola antolatu. Bera da projektua projektatzen duen arkitektoa. Baina projektu hori ezagunak eta maiztasun handiz erabili diren elementu oso tradizionalez osatzen du: identifikaturik dauden elementuekin, elementu topikoekin.

Bere eleberrien helburu didaktikoak irakurlearengana hurbiltzea eskatzen zion, ahalik eta irakurlegorik zabalenarengana heltzea, berak aurkeztutako ereduak mamitu eta bizitzarako bide bihur zitzan. Poetika pragmatikoaren jomugak eskatu bezala, nobelek ahalik eta popularrenak izan behar dute, ahalik eta jenderik gehiena erakar dezaten defendatzen den kausarako. Eta horrek edozein estetika-modu elitistatik, "aukeratuekin" bakarrik komunikatzea ekar dezakeen edozein estetika-modutatik urrundu egiten du; baztertu egiten du irakurlego zabalarekin komunikazioa eten dezakeen edozein baliabide-modu; azken finean, komunikazioak porrot ez egitea funtsezkoa bait da lortu nahi den helbururako.

Jomuga didaktiko bat erdietsi nahiak eragozten dio, lehenik eta behin, eta azken batez, berea eta bereak bakarrik liratekeen baliabideez baliatzea, berea eta berea bakarrik litzatekeen mintzaira eta iruditegiaz baliatzea, mintzaira eta iruditegi horiek berrasmatzea, kreazioa eta sorkuntza azpimarratzea, topikoa baztertzea. Hemen legoke, funtsean, Agirre estetika-modu erromantiko batetik urrunduko lukeen gakoa (69).

---

(69) Indibidualismoa azpimarkatzean, ateak irekitzen zizkien erromantizismoak aipatu ezaugarriei: "Wasserman apenas exagera el individualismo romántico cuando dice que 'la creación de un poema es también la creación de una totalidad cósmica que da significado al poema, y cada poeta debe forjar, independientemente, su propio cuadro del mundo, su propio idioma dentro del idioma'. Esta ambición justifica el interés romántico por el simbolismo y la mitología, y por un simbolismo y una mitología que sean individuales y privados, que descansen en una visión personal, y por lo tanto estén abiertos, con frecuencia, a las más diversas interpretaciones contradictorias". WELLEK, R.; **Historia literaria. Problemas y conceptos**, 189. or. Ikus, halaber, gai honen inguruan lehen atalean egin den planteamendua, bereziki 334-366. orr.

Gizatalde banako bat gorpuztea eta gizatalde honen nortasun-agiria mugatzea bilatu du, nahiz eta nortasun-agiri hori dena baino gehiago izan beharko lukeena hezurmamitu. Baina horretarako ez du bilatu banakoa, guztiz indibiduala, berea eta berea bakarrik litzatekeen adierazpide-modua. Hala ere, seguruaski ez dago kontrajarpenik gaiaren eta gaia tratatzeko moduaren artean; alegia, oso modu sinple eta elementalean esanda, ez dago desegokitzapenik gaiaren eta gaia tratatzeko moduaren artean, ez delako gaia bera gai erromantiko bihurtzen, erromantiko-kutsukoa izan badaiteke ere. Eta, honenbestez, ez geundeke poetika pragmatiko bati jarraiki aurkezturiko gai erromantiko baten aurrean. Gakoa, azken batez, "izan beharko luke" horretan legoke. Ñabardura horrek urrunduko luke gai erromantiko batetik, eta berak hurbilduko luke gai mailan bertan poetika pragmatikoaren didaktismora.

Ukaezina da erromantikoek aldarrikatutako zenbait elementuren edo hartutako zenbait jarreren presentzia: Agirrek inolako kezka eta eskrupulurik gabe nahastuko du hitz-laua eta hitz-neurtua, historia eta kantua, euskara eta erdara edo erdarakadak (erdarakada hauek oso urriak badira ere, testimonialak soil-soilik), euskalkiak, (oroit, esate baterako, Oñatiko hizkeraren erabilera **Garoan**)... Horrela, urrundu egiten da literatur generoei buruzko prezeptiba klasiko arauemaileetatik; eta alor honetan, gainontzekoetan bezala, gainontzeko hauekin koherentzi maila bat gordez: jadanik azaldu den gisan asetzen ez duen errealitateari ihes egin eta gogobetegarriago zaizkion leku-denborazko koordenadetan bilatzen du babesa... Erromantizismoak defendatu zuen askatasuna bere egiten du. Izpiritu erromantikoak bultzatutako eta indarturiko giroan erne zitezkeen eleberri hauek eta izpiritu honen kutsuaz bustiak eta jantziak. Baina etengabe mugak jarri beharrak urrundu egiten dituzte edozein eklosio edo leherketatik: argitasuna gorde behar da, neurria, dekoroa. Eta honen izenean ez dago batzutan zenbait pertsonaiaren esanak edo pentsamenduak transkribatzerik. Irakatsi egin behar da, testu-mota erabilgarria eta zerbaitetarako balio duena egin behar da... eta, azken finean, guztia neurtu eta arautu beharrak hegalak mozten dizkio askatasunari. Eta, jakina, gaia bera, gai erromantikoa izan zitekeena, erromantiko batek ezagutuko ez lukeen gisa gelditzen da: berbaldia den transformazio-toki horrek nortasun-agiri baten arautzaile bihurtu ditu nortasun-agiri baten deskribatzaile izan zitezkeen historiak. Eta honela, ukatu egin die gai erromantiko bihurtzeko zeukaten ahalmena. Desitxuraturik gelditu da gai erromantikoa.

VI. ONDORIO GISA

Kontaketaren alorrean urriak bezain laburrak diren zenbait saio egin ondoren, Domingo Agirrek dakartza euskal literaturara, XIX-XX. mendeen arteko mugan ekarri ere, genero mugagabea deitua izan den eleberriaren konbentzioei jarraikiz irakur daitezkeen lehen hiru idazlanak. Idazle honen aurretik ez da aurkitzen euskal literaturan kontaketaren alorrean ez hain idazlan luzerik, ezta eleberri legez irakur daitezkeen hiru testuren egilerik ere.

Nobelatzat edo antinobelatzat jo ahal izango dira deskribatu diren hiru idazlanak; baina, beti ere, nobela hartzen da erreferentzi puntutzat. Eta epopeia burges izenez ere ezagutzera eman den testu-mota hau deskribatzeko erabili izan diren kategoriak bihurtu dira deskripzio-tresna eta bitarteko.

Aipatu kategoriei jarraikiz egindako hiru testuen deskripzioak garamatza, hain zuzen ere, eleberrian edo hauen ukazioaren aurrean ote gaudenez binomioa hartzera, ondorioen atal honi hasiera ematean.

Nobela-antinobela binomioaren muina eta giltza historia-berbaldia harremanean dago, hots, hiru eleberrietan barrena kontatzen diren historiak berbaldira eramateko moduan, historiek jasotzen duten tratamendu narratiboan. Harreman hau, hain zuzen ere, alde baterako edo besterako norabidearen elementu erabakitzaile bihurtzen da binomioaren barnean.

Euskal literaturaren XIX. mendean ez dago eleberrigintzarik. Baiezpen hau egiten zuen Jose Azurmendik:

> "Ez dago itzulpiderik XIX. mendera, fikzioan ez bada, eta are gutxiago euskaldunok eduki ere ez daukagun XIX. mende nobelistikora" (1).

Eta hala da, baiezpenaren irakurketa-modu literala egiten dela; baita hain literala egin gabe ere, hau da, euskal XIX. mende nobelistikoari zentzu kronologiko hutsa emanez, nahiz mende horretako nobelagintzari erreferentzia egiten zaionean, antonomasiaz aditzera ematen den aldi nobelistikoari: errealismo-naturalismoa.

J. M. Lasagabasterren hitzetan neur daiteke aldi honek eleberrigintzaren alorrean hartzen duen garrantzia:

> "Errealismoaren eta naturalismoaren garaian —hemeretzigarren mendearen bigarren erdian, gutxi gora-behera— finkatuko du nobelak bere nortasun literario eta semantikoa, eta gainera, bere narotasun eta betetasuna" (2).

Agirreren eleberrien azterketa egiterakoan eta bere eleberrigintza-moduaren berri ematerakoan, presente egon da eleberri errealista erreferentzi puntu legez esplizituki edo inplizituki. Nolabait, eleberri errealistaren ezaugarriek jarri dute bereziki patroia, eta nobelagintza-mota hau puntu finkotzat hartuz, puntu finko honekiko alderaketan neurtu dira aztergai den idazlearen hiru idazlanak. Eleberrigintza errealistak ezarri ditu funtsean Agirreren eleberrientzako deskripzio-erizpideak, eta eredu honekiko hurbilketa-urrunketa terminotan neurtu da koordenada narratiboek hartzen duten garapena.

Literatur generoei buruzko gaur egungo Poetika deskribatzaileak dioenez, nobelaren bidez kanpoko mundu objetiboa ematen da aditzera; nobelak bizitza errepresentatzen du (3). Baina eleberri baten errealismoaren neurria ez du errepresentatzen duen bizitza-mo-

---

(1) AZURMENDI, J.; "Nobelaren geroaz eta nobelako hizkeraz" in **Oh! euzkadi**, 13. alea, Abendua, 1981.

(2) LASAGABASTER, J.M.; "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" in **Jakin**, 22, urtarrila-martxoa, 1982, 147. or.

(3) "Tanto la narrativa como el drama se diferencian de la lírica como ya dijimos, por representar el mundo objetivo y la acción del hombre en sus relaciones con la realidad externa". AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 186. or.

tak ematen, baizik eta bizitza errepresentatzeko erabiltzen duen moduak (4). Eta Agirrek bizitza errepresentatzeko darabilen moduak urrundu egiten du kontzientzia modernoaren azalpen bat ematetik, eleberri errealista batek hartuko lukeen eratze-modutik.

Eleberri modernoak partikularismoa, indibidualismoa, berezitasuna eta banakotasuna dakar. Egia esperientzia indibidualarekiko neurtzen du. Esperientzia indibidual hau bakarra da beti eta, honenbestez, berria. Eleberri modernoak historia eta mataza-modu tradizionalak arbuiatuz errepresentatzen du errealitatea, pertsonaia banakotasun legez eraikitzeari arreta eskainiz, pertsonaia honen biziguneak xehetasunez jantziz, pertsonaia honek fikzioan bizi dituen abenturen denboraren berri astiro-astiro emanez, ñabarduraz betez... Baina eleberrigintza-modu hau ez da Agirrerena, nahiz eta honek denbora modernoetan idatzi eleberriak.

Kontatutako historiek ehotuz doazen matazek gizabanakoak eraikitzen dituzte errealismo modernoan, zirkunstantzia berezitan bizi diren gizabanako bereziak eta ez giro-modu orokorrean bizi diren tipo orokorrak (5).

Agirrek izen propio baten jabe egin ditu bere eleberrietako hainbat eta hainbat pertsonaia, ez guztiak; banakotasun bat itxuratzeko lehen urratsa eman du. Baina, hala ere, lehen urrats honek hartutako garapenaren bidez ez da gizabanakorik sortzen; sortu, tipoak, motak, klaseak eta abstrakzioak sortzen dira. Hitz batez, errealismo eskolastikoaren ikuspegia azaleratzen du, eta ez errealismo modernoarena (6).

---

(4) WATT, I.; "Réalisme et forme romanesque" in **Littérature et réalité**, 14. or.

(5) Errealismo moderno honetan, I. Watt-ek dioenez, "les personnages de l'histoire et la scène de leurs actions devaient être situés dans une perspective littéraire nouvelle: l'intrigue devait se jouer entre individus particuliers, dans des circonstances particulières, contrairement à ce qui se passait d'habitude autrefois, où des types généraux d'humanité se détachaient sur un fond déterminé d'avance par une convention littéraire appropriée". **Ibidem**, 20. or.

(6) "Par un paradoxe qui ne surprendra que le néophyte, le terme 'réalisme' en philosophie s'applique en toute rigueur à une vision de la réalité diamétralement opposée à celle de l'usage commun. C'est la vision des réalistes scolastiques du Moyen Age: les universaux, classes ou abstractions, et non les objets particuliers ou concrets de la perception des sens, seraient les vraies 'réalités'". **Ibidem**, 15. or.

Pertsonaia bizpahiru ezaugarritara murriztu eta ezaugarri haueta-ko bat azpimarratzen du. Ondoren pertsonaia ezaugarri horren arabera, eta ezaugarri horren arabera bereziki, eta sarri askotan bakarrik, jokatzen jartzen du. Pertsonaiaren ekintzak edo pentsamenduak edo jarrerak... ezaugarri hori azaltzeko dira, pertsonaia ezaugarri horren arabera taxutzeko aitzakia bihurtuz.

Pertsonaia karakterizatzean eta pertsonaiak historiaren garapenean hartzen duen lekua eta jokabideak hezurmamitzean, bi printzipio nagusiri erantzuten zaio: ekonomikoari eta funtzionalari.

Ez dago galbiderik, bidea bat eta bakarra delako. Ez dago konplexutasunik eta laberintorik, sinpletasuna gailentzen bait da. Agirrek ez du ahaleginik "alferrik" xahutu nahi: ez du karakterizatu nahi pertsonaia kontaketaren garapenean funtzionaltasun oso eta zentralik hartuko ez duen ezaugarriz; era berean, ez du nahi pertsonaiak historian parte hartzea funtzionaltasun oso eta zentralik ez duten episodioetan. Pertsonaiak historian duen partaidetasunak ez du kontrabide eta zeharbiderik, ez bigarren mailako funtzionaltasuna har dezaketen ekintza edo jarrerarik ere: pertsonaia hori mugatzen duen ezaugarrian edo ezaugarri gutxi horietan finkatzera jo behar du. Honela dio eleberrigileak aplikatzen duen lege ekonomikoak: irakurleak karakteristika batean jarri behar du arreta; beraz, uxatu egin behar da karakteristika honekiko arreta sakabana dezakeen oro, karakteristika horrekiko arretari dispertsioa ekar diezaiokeen oro. Dispertsioa uxatuz, arreta-gune horretan kontzentratzea bilatzen da. Karakteristikak funtzionaltasun oso eta zentrala hartzen du.

Alde honetatik egiten den aurrezki ekonomikoak, hau da, arreta-gunea kontzentratuz egiten den aurrezki ekonomikoak, beste alde batetik du gastua. Iterazioa bihurtzen da arreta-gune kontzentratzaile eta aurrezki-xahutzaile; iterazioa bihurtzen da karakteristikaren funtzionaltasun-iturri. Kontalariak pertsonaiari ezartzen dizkion ezaugarriak iteratuz doaz beste pertsonaia batek, jadanik kontalariak lehen pertsonaia horri egin dion ezaugarrizketa-moduaren aldaera estilistiko batera joaz, berrezartzen dizkion ezaugarriak direla bitarteko eta pertsonaiak historian duen partaidetasuna ezaugarri horiek iteratzeko aitzakia bihurtuz.

Lope Nagi edo Pedro Mari pertsonaiak morroi desleialaren edo leialaren tipoa azaltzeko aitzakia huts bihurtzen dira kontaketan. **Auñemendiko Loreak** kontatzen duen historian daukaten partaideta-

suna eta kontalariak bere ahots propioan egiten duen bakoitzaren karakterizazioa honetara bideratzen dira: tipifikazio hori eta tipifikazio hori bakarrik lortzera. Karakteristika hori eta hori bakarrik iteratuko da modu desberdinetan; baita matazaren garapenerako karakteristika funtzional bihurtuko ere.

Nolanahi ere, erantsi beharra dago Agirre ez dela Pedro Mari edo Lope Nagi pertsonaiengan morroi leialaren edo desleialaren tipoa hezurmamitzera mugatzen soil-soilik; tipoak epaitu ere egiten bait ditu, bakoitzari beste karakteristikaren batzu gehituz. Pedro Mari morroi leiala, kristau zintzoa da, neurria gordetzen dakiena, langile fina... Lope Nagi morroi desleiala, aldiz, alferra, traketsa, mozkortia... Azken finean, tipoari hobesten edo gaitzesten den izaera-modu bat gehituz doakio hitz batez; baina ez edozein modutan. Kontalariak hobesten duen izaera-modua oso-osorik gehituko zaio tipo bati; baita besteari ere gaitzesten duena. Honela, bada, izaera-moduak jasotzen duen deskripzio edo analisi laburra hertsiki loturik dago tipoari; izan ere, halako tipoari halako izaera-modua dagokio: hobesten den tipoari hobesten den izaera-modua eta gaitzesten denari, gaitzesten dena. Eta izaera-modu hauetako bakoitza karakterizatzen duten ezaugarriek ez dute edozein konbinazio-mota ametitzen; ezin nahas daitezke ikuspegi etiko edo gizatiar edo moral huts batek ezarritako mugaren alde batean eta bestean kokatuko liratekeen ezaugarriak. Ezaugarri-multzo batek mugatzen du tipo bakoitzaren izaera-modua, baina multzo hori osatzen duten ezaugarriak ezin eman daitezke edozein pertsonaia-tipotan. Tipo batzu ezaugarri-multzo batek karakterizatzen ditu, baina multzo horiek multzo itxiak dira; eta multzo horietako elementu bakar batek ere ezin du beste zenbait tipo karakterizatu. Azken finean, Agirreren eleberrietako kontalariarentzat bi multzo handitan banatzen dira pertsonaiaren izaera-modua karakteriza ditzakeen ezaugarriak; baina bi multzo hauetako bakoitza itxia eta osoa da; multzoen artean ezin eman daiteke ebaketarik. Pertsonaia-tipo batzu A multzoko ezaugarriren batzuren bidez karakterizatuko dira; beste pertsonaia-tipo batzu, berriz, B multzoko ezaugarriren batzuren bidez. Baina ez da INOIZ sortuko bere izaera-moduaren karakterizazioan A multzoko eta B multzoko ezaugarrien konbinazioren bat duen pertsonaia-tiporik. Muga zehatz batek bereizten ditu. Bi mundu dira, berezirik bizi diren bi mundu.

Agirreren mundu nobeleskoa jendeztatuz doan pertsonaien galeria zabal horretako pertsonaia bakoitza multzo horietako batean

kokatzen den zenbait ezaugarriren bidez karakterizatzen da. Ezaugarriren bat edo batzu gradu handiagoan edo txikiagoan izateak berezi-ko du bata bestearengandik.

Auñemendiko Lorean barrena leialtasunaren, desleialtasunaren, harrokeriaren, euskal agintariaren... tipoak errepresentatuz doa; **Kresalan** barrena, arrantzalearena, arrain-saltzailearena, "bedar txarrarena"...; **Garoan** barrena, diruzalearena, demazalearena, euskal etxekoandrearena... Tipo hauetako bakoitzaren izaera-modua multzo batean ala bestean lekutzen diren ezaugarriren batzuk mugatuko dute. Eleberri bakoitza jendeztatzen duen pertsonaien munduan tipoak errepresentatzen du dena delako karakteristika gradurik gorenenean, eta gainontzeko pertsonaiak neurri handiagoan edo txikiagoan hurbilduko zaizkio dena delako tipo horri. Era berean, pertsonaia bakoitza gehiago edo gutxiago hurbilduko da tipo horietako bakoitzaren izaera-modua karakterizatuz doazen ezaugarritara, multzo batean ala bestean lekutzen diren ezaugarri horietara.

Agirrerentzat testua froga-leku bat besterik ez da. Testua ez da pertsonaia batek bere abentura propioa bizi izateko behar duen lekugunea; baizik eta tipoak sortzeko lekugunea. Eleberrietan gizabanako batzuren historiak kontatu ez, baina tesi batzu frogatuko ditu. Tesia ezarriko da, ondoren tesi hau anplifikatuz joango eta azkenean korolarioa aterako da.

Tesia iterazioaren bidez anplifikatzen da, esana eta ekintza bihurtuz iterazio-iturri. Kontalariak pertsonaia bati buruz esana iteratu egin daiteke beste pertsonaiaren baten esanean, kontalariaren esanaren bidez ezarritako tesia frogatuz, egiaztatuz eta anplifikatuz joango da pertsonaiak kontatutako historian duen partaidetasuna dela bide; izan ere, zeharbiderik gabeko partaidetasun hori tesia eta tesia bakarrik frogatzeko aitzakia bihurtuko bait da; eta historiak pertsonaiak eskain zitzakeen potentzialitateetariko bat bakarra erakutsiko du: ezarritako tesiarena.

Modu honetan doa sortuz tipoa, pertsonaiari ezarritako karakteristika bat histori iturri bihurtuz. Karakteristika horren arabera bakarrik funtzionatzen du jarraian pertsonaiak, honek historian duen partaidetasuna karakteristika hori frogatzeko eta anplifikatzeko aitzakia bihurtuz.

Ezaugarria eta ezaugarri honen iterazioaren bidez sortutako

tipoak baditu beste zenbait marka, tipo-mota horri atxikirik daudenak. Historiak eraikitzen duen froga-leku horrek tipo-mota horrek nahitaezko eta alabeharrezko markak dituela erakusten du. Tipoak marka hauek baldintzatu egiten ditu eta baterako edo besterako norabidea ematen die.

Garoako Juan Andres pertsonaia diruzalearen tipoa errepresentatzeko moduan eraikiko da. Bere deskripzioa egitean ezarriko du tesia kontalariak: diruzalea zen eta hiru anaietan kristau-sinismenaren gordetzailerik hotzena. Historiaren antolamendu-moduak diruzalearen tipoa sortuko du; baina, aldiberean, beste marka batzu gehituz joango zaizkio tipo-mota honi: euskal ohituren baztertzaile, kristau-sinismenaren arbuiatzaile.

Pertsonaia-tipoak hezurmamitzen dira; baina, azken batez, Agirre ez da tipoa den abstrazio-maila horretan gelditzen; are maila abstraktoago batera jotzen du: tipoak multzo handiago baten azpimultzo bihurtzen ditu. Multzo batek euskalduntasuna errepresentatzen du edo-ta euskaldun legez bizi direnak; besteak, aldiz, euskalduntasuna ez dena errepresentatzen du edo-ta euskaldun legez bizi ez direnak. Zehazkiago eta zuzenago esanda, multzo batek Agirreren ustez euskalduntasunak izan beharko lukeena errepresentatzen du edo-ta euskaldun legez bizi izateak izan beharko lukeena; besteak, berriz, euskalduntasunak izan beharko ez lukeena edo-ta euskaldun legez bizi izateak izan beharko ez lukeena.

Euskaldun legez bizitzeak izan beharko lukeena errepresentatzen duen multzoan hainbat tipo eraiki ditu **Auñemendiko Lore**atik **Garoa**ra: morroi leialarena, euskal agintariarena, arrantzalearena, euskal etxekoandrearena... Euskaldun legez bizitzeak izan beharko ez lukeena errepresentatzen duen multzoan, berriz, beste zenbait tipo: diruzalearena, morroi desleialarena, harrokeriarena... Lehen multzoko azpimultzoek eta tipoek oinarri amankomun bat daukate: guztiak "gurutzetarrak" dira, kristau-sinismendunak, euskal ohituren eta euskararen gordetzaileak; besterik da bigarren multzoko azpimultzoek eta tipoek daukaten oinarri amankomuna: guztiak "otsokotarrak" dira, inoiz kristau-sinismenik izan ez dutenak edo-ta, izan badute, baztertu egin dutenak, euskal ohiturak edo-ta euskara ahaztu edo arbuiatu egin dutenak.

Izen propiotik (elementutik) tipora (azpimultzora) doa, eta azpimultzotik multzora, geroz eta abstrazio-maila handiago bat bila-

tuz eta garai modernoetako errealismotik urrutiratuz; izan ere, honek gizabanakoa deskribatzen du, beste inor ez bezalakoa den banako horren ñabardura eta xehetasun bereziak eskaintzen ditu, pertsonaia gizabanako berezi legez errepresentatuz.

Leku-denborazko koordenadek ere ez dute indibiduaziorik jasotzen. Ez dago, ez, leku-denborazko koordenada zehatz-mehatz mugaturik; ezta koordenada zehatz-mehatz horietan lekuturiko gizabanakorik ere.

Oso espazio-modu orokorretan lekutzen ditu Agirrek bere eleberrietan sorturiko pertsonaiak. Berak eginiko leku-deskripziorik gehienak punturik urrunen eta ikuspegi panoramikoen eta orokorrenetik, hurbilen, zehatzen eta partikularrenera antolatzen ditu (7).

---

(7) Ikus **Garoan**, esate baterako, Zabaleta baserriaren deskripzioa:

- Zabaleta baserriaren atalak.
- Atal hauetako bakoitzaren aipamena.
- Etxe nagusia: sarrera.
- Atal bakoitzaren deskripzio laburra: labaldekoarena, janari-etxearena eta azkenik etxe nagusiarena.

Edo-ta Iñazio Mariren ezkontz egunaren deskripzioa:

- Egun alaia.
- Zerua.
- Mendiak.
- Zelaiak.
- Zuhaitzak.
- Baratza, lore eta soroak.
- Txoriak.
- Intsektuak.

Edo-ta **Kresalan** Arranondo herriaren deskripzioa:

- Lekutze orokorra.
- Itxura orokorra.
- Kaleak.
- Kale horietan kokaturik dauden sagardotegi eta ardandegiak.
- Sagardotegi eta ardandegietako bezeroak, bezero hauen deskripzioa.

. ...

Edo-ta **Auñemendiko Lorean** Mendiola jauregiarena:

- Lekutze orokorra: Mendi handi biren erdian.
- Etxearen deskripzioa.
- Etxe barnean dagoen egongela eta hemen dauden pertsonaiena.

Ikus **Garoa**, 29-30. orr., 51-52. orr.; **Kresala**, 21-23. orr.; **Auñemendiko Lorea**, 8-10. orr.

Baina azalpen hori ukatu gabe, honako hau erantsiko genioke: deskripzioak —eta hauen barnean, zehazkiago, leku-deskripzioak— horrela antolatzen baditu ere, orokorretik partikularrerako bide horretan inoiz ez da berez partikularra denera heltzen, partikulartasuna zehaztera eta mugatzera iristen. **Auñemendiko Lorea**ko Mendiola jauregiak, pertsonaia-protagonistaren bizilekuak alegia, ez du izen propioaz harantza aparteko ñabardura edo berezitasunik jasotzen; garai hartako edozein jauregiren antzekoa da. Berdin esan daiteke eleberri horretako beste zenbait pertsonaiaren bizilekuei buruz ere. **Auñemendiko Lorea**tik **Kresala**ra edo **Garoa**ra lekuaren deskripzioak hartutako tratamendua ere ez da aldatzen, aztergai den alderdi honetatik bederen. Arranondo edozein euskal itsas herri legez itxuratzen da; ez da aparteko ñabarduren jabe egitera heltzen bere deskripzio fisikoaren aldetik. Itsas herri honen barnean ere ez dago lekugunerik, ez protagonisten etxeak, ez portua, ez ezer, kontalaria singularizatzera daramanik. Zabaleta baserria edozein euskal baserri izan daiteke; Oñati, edozein euskal herriska; Zabaleta baserriko artaldeen egoitza Aloña mendian Euskal Herrian uda-garaian izan dezaketen beste edozein egoitza legez aurkezten da; mitin sozialistaren eszenarioa den Eibarko pilota-lekua ez da leku berezi moduz eraikitzen.

Eleberrigile honen eleberrietan historien garapen-lekuak ez du aurkezpen xeherik jasotzen; oso modu orokor eta zehazgabean testuratzen da. Eleberrietara datozen lekuak zabalagoak edo txikiagoak izan daitezke. Zabalagoak, adibidez, Ostrabento edo Adalbaldok Auñemenditik Ostrabentora egiten duen bidea edo Ostrabentotik Auñemendira egiten duena... **Auñemendiko Lorea**n; Arranondo edo Arranondoko arrantzaleen ibilerak itsasoz arrantzan... **Kresala**n; Oñati edo Juan Andresen bidaiak Oñatitik Gaztelara eta hemendik Galiziara edo Juan Andresen bizilekuak herrialde hauetan... **Garoa**n. Txikiagoak eta murritzagoak, esate baterako, Mendiola jauregiko gizategia edo sala, Riktrudisen gela edo Amandoren etxeko bisitari-gela edo Ozinbeltz jauregiko Portunen gela... **Auñemendiko Lorea**n; Mañasik Bilbon neskame dagoen etxean duen logela edo Mañasik eta Anjelek elkar ikusten dutenean aurkitze-lekutzat dauzkaten eskailerak edo Anjelen eta Antoniren arteko harremanen hausle bihurtuko den lekua... **Kresala**n; Joanesen heriotz orduko gela edo Zabaleta baserriko ataria ...**Garoa**n. Matazen garapenean garrantzizko bihurtzen diren lekugune hauek ere ez dira xehetasunez deskribatzen.

Lekua koordenada narratiboaren erabileran orokortasunera,

zehazgabetasunera eta tipifikaziora jotzen du pertsonaiak itxuratzerakoan gertatzen zen legez, errealismoak dakarren eleberri modernoan elementu hauek egituratzeko modutik urrunduz (8). Leku-modu tipikoak dira hasi leku-modu zabalenetik eta txikienera; izan ere, ez da egiten inolako ahaleginik lekuak indibidualizatzeko, zehazteko, bereizteko, partikularizatzeko, beste edozein ez bezalako aurkezteko. Pertsonaiak bezala lekuak ere juxtu alderantzizkoa den prozesuan murgiltzen dira. Izen propioak ematen dien banakotasunetik abiatzen dira, baina ez xehetasun gehiagoz jantzitako banakotasun batera, baizik eta leku-tipotara: euskal agintariaren jauregia, arrantzatik bizi den itsas herri bat, arrantzale baten etxea, portua, euskal baserria, lautada lehorrak, meatzaritza-guneak... Azken abstrazio-maila batean, **Garoan** bederen, leku-tipo hauek bi multzo handitan kokatzera heltzen dira: batetik, lekugune iraunkorrak, urteak joan eta urteak etorri berdin gordetzen direnak, lekugune egonkorrak, gizonaren eguneroko lanbideak itxuraldatzen ez dituenak, oraingo bizilagunen aitona-amonak ezagutzeko moduan dirautenak eta, bestetik, lekugune aldakorrak, gizonaren eguneroko lanbidea itxuraldatzen ari diren lekuguneak.

Ez da ahaleginik egiten pertsonaiak bizi duen historiaren garapenerako garrantzizko bihur daitekeen lekugunea indibidualizatzen. Ez da bilatzen, esate baterako, pertsonaiak une konkretu batean bizi duen egoera animikoaren arabera ikustea bera dagoeneko lekua edo-ta matazaren garapenean garrantzizko bihurtzera doan leku hori xehetasunez jaztea. Pertsonaia-tipoen bizigune legez hautatu ditu Agirrek lekugune-tipoak.

Denborak ere lekuak hartzen duen tratamenduaren antzekoa hartzen du. Ez da ez zehazten, ez xehetasunez betetzen; oso modu orokorrean eta zehazgabean kokatzen dira historiak.

Hiru eleberriek kontatzen dituzten historien iraupena luzea da, erlatiboki bederen. Historia luze horiek kontatu beharrak historia horietako zenbait pasarte aukeratzera darama; beti ere, historiaren garapenerako aurrerapenen bat ekarriko duten pasarteak hautatuz berbaldira ekartzeko.

Pasarte-aukeraketa guztiz da nabarmena bere eleberrien erai-

(8) "Traditionnellement, le lieu était presque aussi vague et général que le temps, dans la tragédie, la comédie et dans le roman au sens ancien". WATT, I.; "Réalisme et forme romanesque" in **Littérature et réalité**, 33. or.

kuntzan. Kontaketaren denbora hautatutako pasarteen bitarteko isilunez beteko da, batetik, eta, bestetik, hautatutako pasarteetan, egunerokotasunak dakartzan kezkak alboratuz, historian aurrerapena dakarten pasarteez.

Fikzioak irauten duen denbora oso modu zehazgabean eramaten dela kontaketara esatean, zehazgabetasun hori bi zentzutan behintzat deskriba daiteke.

Isiluneek hautsi egiten dute historiaren jarraipena, hutsuneak sortuz. Kontaketak ezin jaso historiaren hainbat eta hainbat ordu, egun, hilabete edo urtetan pertsonaiak nola bizi izan diren edo zer pentsatzen zuten. Denboraldiak, gehienetan zehazten ez direnak, ezkutatu egiten zaizkio irakurleari.

Isilunea hautsi, denboraren ardatzean gehiegi zehaztuko ez den episodio nabarmenak hautsiko du. Agirreren eleberriek historia ezkutatuz eta berriro azalera ekarriz egiten dute aurrera: urperatze edo lurperatze konstante bat urgaineratze edo lurgaineratze konstante batekin konbinatzen da, historiaren desagerketa agerpenarekin. Jarraipena etenak ordezkatzen du.

Isilunearen hausketa, kontatzen ari den historiaren biharamonean, hilabete batzutara edo urte batzutara etor daiteke. Batzutan aipatu diren denbora-neurri mota horien bidez zer edo zer zehazten da; bestetan, hori ere ez. Baina isilunearen hausketak ez du inoiz pertsonaiaren bizitzako egunerokotasunik ekarriko.

Isilunearen hausketa kontalariaren gogoeta diskurtsibo batek ekar dezake; eta orduan gogoeta diskurtsibo honi kontatzen ari den historia partikularrak emango dio jarraipena, gogoeta diskurtsibo horren ilustrazio gisa. Edo-ta kontaketara ekartzeko aukeratu den historiaren hurrengo pasarteak etengo du isilunea. Baina, azken finean, gogoeta diskurtsibo horiek eta ohiturazko koadroen deskripzioek dakartzaten pausaldiak "xahutuz doaz narrazioa". Eta hain hala doaz xahutuz, ez bait da lekuen deskripzio zehatz eta ñabarduraz beterikoarentzat edo denboraren tratamendu xehe baterako "leku narratiborik" gelditzen. Historia-mailan "behartuta dago" aukeratutako pasarteak isilunez tartekatzera; baita isilune hauek laburpen handi batzuekin konbinatzera ere. Eta laburpen hauetan egunerokotasun singularra zatekeena, egun bakoitzak bere egunerokotasun horren barnean har ditzakeen ñabardura txiki eta xehe horiek, egunerokota-

sun-tipoaz ordezkatzen ditu. Egunerokotasun singularrak lekarkeen indibidualizazioa egunerokotasun-tipoak dakarren abstrazio-mailaz ordezkatzen du. Edo beste modu batera esanda, aukera konkretu batzu egiten ditu leku narratiboa "betez" joateko: esanahi-mundu didaktiko bat sortuz joateko aproposak eta efikazak izan daitezkeenak eta aipatu helburu honetarako pedagogikoak izan daitezkeenak. Baina egindako aukerak urrundu egiten du pertsonaien egunerokotasun singularra eta xehetasunez aditzera emandakoa testuratzetik. Ez du baliabide honen erabilerara jotzen bere eleberrietan; izan ere, egunerokotasunak ez du narratibitaterik sortzen. Eta, esate baterako, ez du egunen joan-etorri monotonoaren deskripzioaz pertsonaien bizitzaren errutina aditzera ematea efektu estilistiko bihurtzen; ezta ñabardura xehe eta txikiz zipristindutako egunen joan-etorriaren deskripzioaz pertsonaia horien bizitza esanahi sekundario eta ñabarrez betetzea ere.

Denboraren ardatzean zehazgabeki kokatzen diren historiak dira Agirrerenak. Bere ohiturazko eleberriak idazketaren garaiarekiko hurbil samarra izan daitekeen lehenaldi mugagabean lekutzen dira. Ezta urteak ere ez du mugatzen historiaren hastapenen hurbiltasuna idazketaren garaiarekiko. Hastapen mugagabe hauek abiapuntu, urteren bateko udako egunen batean edo neguan ematen zaie hasiera gertaerei; jarraipena, berriz, "geroago" batek dakarren mugagabetasunarekin (9) edo askoz mugaketa handiagorik ez dakarren "Garizumarekin". Aurrerantzean ere ez da zehaztasun askoz handiagorik ekarriko, nahiz eta behin edo behin data konkreturen batean kokatu gertaeraren bat. Ohiturazko eleberrien aurretik idatzi zuen eleberri historikoa ere ildo berberetik planteatua zuen. Ohiturazkoena ez bezala, idazketaren garaiarekiko lehenaldi urrunean lekutzen zuen historia honen hastapena: urte konkretu batean. Baina gainontzean denboraren antzeko tratamendua azaltzen zuen historiaren garapenak: erreferentzi puntu finko bat ez duen "hurrengo egunak" —ez dagoelako jakiterik zein datari dagokion aurrekoa—, hilabeteak, urtaroak, urteak, edo-ta batzutan aipatu unitate horien bidez neurtzeko aukerarik ere eskaintzen ez duten denbora-tarte zeharo mugagabeak... Bakarra da salbuespena.

(9) Garoaren testuinguruan "geroago" honek aditzera ematen duen denbora-neurria ez da geroaldi hurbil-hurbil batena, baizik eta urrunagoa izan daitekeena. "Geroago" horrek "handik egun batzutara", nahiz "handik hilabete batzutara", nahiz "handik urte batzutara" eman dezake aditzera. Ikus Garoa, 29. or.

Pertsonaiak antolatzeko eta lekua antolatzeko moduan bezala, denboraren antolatze-moduak ere Agirreren ikuspegi antihistorikoa azaleratzen du, beste koordenadek hartzen duten tratamendu narratiboarekin lotura hertsia erakutsiz.

Agirreren eleberriek ez dakarte gizakiaren ikuspegi historikoa; antihistorikoa, baizik. Eleberri hauetan eraikitzen diren pertsonaiak ez dira ñabarduraz beterik deskribatutako lekugunetan bizi, ez dira gizabanako legez itxuratzen; bizi duten fikzioaren denbora ez da zehazten; kontaketaren denborak ez dakar pertsonaia hauen bizitza egunez egun, minutuz minutu, segundoz segundo; denboraren igarotzea ez zaie bilakaera-bide bihurtzen; gerta ahalak gerta, "lehengo lepotik, burua". Izan ere, denboraren igarotzean kokatutako gertaera-jarraipena nekez bihur bait ziezaiekeen pertsonaia hauei aldaketa-iturri; halakoa da gertaera-jarraipen honi kontaketaren denborak eskaintzen dion tratamendua.

Azken finean, Agirreren eleberriak lekuak, pertsonaiak eta denbora ez ezik, gertaerak eta ekintzak ere tipifikatu egiten ditu, elementu horiekin harreman estuan. Kontaketaren denborak gertaerei emandako tratamendua da baliabide tipifikatzailea. Kontaketaren denborak ohizkotasun legez dakartza pertsonaien ekintzak: batzutan, ekintzak testuratzeko forma eta modua bera izango da ohizkoa; bestetan, ohizkotasuna aditzera ematen duten aditz-formak baztertuta ere, kontaketaren denborak emandako tratamenduak erantsiko die ohizkotasunaren balioa. Ekintza-tipo legez kontatzen da ekintza edo ekintza-tipoaren balioa eransten zaio; kontaketaren denborak, formaren aldetik ez bada, beti funtzioaren aldetik ematen dion itxuratze-modua dela bitarteko.

Ohizkotasun bezala gauzatzen dira **Garoan** Iñazio Mariren demazaletasuna edo Juan Andresen diruzaletasuna. Baita **Kresalan** arrantzaleen eguneroko lana eta lehorrean gelditzen direnen eguneroko bizitza ere; hain hala, ohizkotasun bezala gauzatzera heltzen bait da ekaitz-egunek dakarten arrisku eta singulartasuna bera ere. Berbaldi mailan pertsonaiaren ekintzei ohizkotasunaren balioa emate (eman behar) honek bideak ixten dizkio etengabe pertsonaia denboraren harian bizitutako gertaeren poderioz aldatuz joan daitekeen usteari; horrela, aldaketaren bat dagoenean batpateko iratzartzeei edo mirariei egin behar dei; izan ere, prozesu moduan testuratu ez den aldaketa, berbaldi mailan eginez eta sortuz joan ez den aldaketa, bila-

kaera moduan itxuratu ez den aldaketa, batpatekotasunak ordezkatu behar aditzera ematerakoan.

Kontaketa mailan ekintzak ez dira pertsonaiarentzat gatazka-iturri bihurtzen. Pertsonaia ez da garatzen dituen ekintzekin borrokan testuratzen. Ez dago aurkakotasunik pertsonaiaren eta bere ekintzen artean, ez bait du egiten duena kuestionatzen; eta berbaldiak ez du pertsonaia konkretuak nola bizi duen gauzatutako ekintza konkretua jasotzen. Beraz, pertsonaiaren abentura ez da abentura singular legez planteatzen.

Gauzak honela, nekez joan daiteke eginez pertsonaia; lehenik eta behin, bere erraiekin eta ekintzekin ados egonik, bere ekintzetatik ondoriorik ateratzen ez duen pertsonaiak ez duelako "egin" eta aldatu beharrik somatzen; eta, bigarrenik, honelako gauzatze narratibo batean aldaketa orok eta pertsonaia baten egite orok egiantzekotasuna galduko lukeelako. Borrokarik ez badago pertsonaiaren eta beronen ekintzen artean edo, baldin badago ere, borroka hori hitz-orez jazten ez bada, nola eman bilakaera baten egiantzekotasuna?

Dena den, erantsi beharra legoke Agirrek ekarri dituela bere eleberrietara ihardule edo jasale direneko ekintzek gatazkak sortzen dieten pertsonaiak.

Ez Iñazio Mariri edo Juan Andresi, ez Joanesi edo Arranondoko itsas gizon eta lehorrean bizi direnei die sortzen gatazkarik ihardule edo jasale direneko ekintzek, etsipen handiago edo txikiagoaz onartu egiten dituzte eta ez daramatzate berplanteamendutara, beharrik ere somatzen ez dutelako, hain zuzen ere. Baina besterik ere gerta dakieke Agirreren eleberrietako pertsonaiei.

Kresalako Anjeli edo **Auñemendiko Lorea**ko Portuni gatazkak sortzen dizkiete ihardule edo jasale direneko ekintzek. Baina gatazka hauetatik ez da prozesurik sortzen berbaldi mailan: ez da **erakusten** nola doazen aldatuz gatazka horiek direla bitarteko, ez da testuratzen egunez egun pertsonaiak nola bizi duen gatazka horiek sortu dioten egonezina, kontaketaren ardatza ez da erabiltzen gatazkak sortutako lurrikarak pertsonaia bide berriak urratzera nola daraman azaltzeko. Eta honela, nekez eman daiteke aldaketen berri, hauek prozesu baten emaitza bailiran. Prozesurik egon bada, isilunera eraman denez, aldaketak batpateko iratzartze eta mirariak direla bide gauzatu behar, iratzartze eta mirari hauei esker pertsonaiek bizi zuten gatazkari amaiera emanez.

Azken batez, ez batzuk —ihardule edo jasale direneko ekintzak gatazka-sortzaile bihurtzen ez zaizkienak—, ez besteek —ihardule edo jasale direneko ekintzak gatazka-sortzaile bihurtzen zaizkienak— bizi dituzte modu singular, banako, partikular eta berezi batez ihardule edo jasale direneko gertaerak.

Agirreren eleberriek ez dute orainaldiko ekintza iragandako esperientziaren ondorio gisa erakusten, errealismoak, eta are gehiago naturalismoak, erakustea bilatu zuen bezala. Pertsonaien orainaldia ez da lehenaldiaren ondorio moduan itxuratzen: arazoak nola doazen sortuz eta garatuz erakutsi duen lehenaldiaren fruitu gisa.

Eleberriak urrunduz doaz errealismotik. Urrunketaren gakoa kontaketaren ardatzaren erabilera-moduan dago. Kontaketaren ardatz hau eguzki-sistemaren eguzkiaren antzera doa bizitza emanez sistema eratuz doazen osagai guztiei. Kontaketaren ardatzak hartzen duen erdigune horretatik doa bizitza emanez pertsonaiei, hauen ekintzei, hauen bizigunеei, hauen historiak betez doazen bizitza-denborari... Eta erdigune horrek ematen die bizitza modu tipifikatu batez, kokatzen du pertsonaia lekugune orokorretan eta zehazten eta xehetzen ez den denbora batean... Izan ere, azken finean, deskribatu moduan antolatzen da lehengai edo material narratiboa kontaketaren ardatzean. Ardatz hau "betez" doa berbaldi diskurtsiboekin, eszenaren bidez testuratzen diren aukeratutako pasarteekin, kontaketa enmarkatuekin, ohiturazko koadroen deskripzioarekin, modu batera edo bestera iteratuz doazen histori pasarteekin edo ideiekin... Lekugune narratiboa material horien antolamenduan doa xahutuz, eta antolamendu hori tipikoa eta topikoa dena argiztatuz doa eta banakotasuna eta indibidualizazioa dakarren oro ilunpera kondenatuz.

Hitz batean, lekugune narratiboa ez du behar ez gizabanakoak sortzeko, ez gizabanako hauen existentziaren berri emateko, ez indibiduo hauek nola bizi diren aditzera emateko, ez gizabanako hauek bizi duten historian zehatz-mehatz kokatzeko leku-denborazko koordenada horiek ñabarduraz betez (10), ez euskaldunaren jokabide

(10) G. Garatek **Auñemendiko Lorea** eleberri historikoaz diharduela honela dio:
"Agirrek ez zuen VII. mendeko Euskalerria ongi iruditarazi. Ez ditugu aro hartako jendearen bizitze-ohitura latzak oso gaingiroki baizik ikusten, ez orduko izakera egosgogorrak, grina indartsuak eta nabariak, aginte gosea, jentilen ikusmoldea eta haien ustez erlijio berriak zekarren saldukeria, ez garaiko burubideari zegokion emoziorik, ez gizarteko egituren molderik sumatzen". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 53. or.

moralen aztertzaile bihurtzeko; beste honetarako baizik: euskaldunaren jokabide moralen arautzaile eraikitzeko.

Euskaldunaren jokabide moralak arautzeko egokiak eta efikazak izan daitezkeen baliabideen erabilerara jo du: koordenada narratiboen garapena tipifikatzera, aurkakotasuna, iterazioa eta isilunea, histori hutsunea (11) bihurtuz bereziki tipifikazio-iturri eta irakaskuntza garden baterako bitarteko.

Azken batez, Agirrek ezaugarri gutxi batzurekin marrazten ditu bere pertsonaiak. Bizpahiru pintzeladaz eraikitako pertsonaia hauek modu berdinean taxututa dagoen hondo batean lekutzen ditu; eta, behin eta berriz, nekatu eta aspertu gabe, ezaugarri horiek azpimarkatuz doa. Agirrek egiten ez duena da pertsonaia edo hondo horren azterketa xehe bat: honen ordez marraztutako marra urri horiek azpimarratzen ditu iterazioaren bidez.

"Modu atsegin batean irakatsi" lemapean eraikitako eleberriak dira. Lema horri begira asmatu dira kontatutako historiak. Lema horri begira egituratu dira historia horiek. Lema horri begira hautatu da historia horiek aditzera emateko mintzaira (mintzaira eskuragarria) eta iruditegia (topikoz baliatuz eraikia).

Bitarteko hauen bidez igorritako irakaskuntzan aldaezinak diren

---

(11) Nahiz eta M. Zarateren ustez Agirreren eleberrietan hutsunerik ez egon. Honela dio Zaratek:

"Hutsuneak beharrezkoak ditugu arte-lan batean. Eta Oteiza eskultorearen arte-lanetako ezaugarririk nabarmenena hutsunea da.

(...)

Agirrek, ordea, hutsunerik gabe egin ditu bere kuadruak, pilakatu, metatu egiten dituelako kolore ta irudiak kuadru osoan. Egia esan, badu bere indarra ta esanahia gehiegikeriak ere, gauza bat era askotara esanez gero, hobeto adierazten delako; baina betekeria astungarri bihurtu liteke literatura aldetik, nahizta hiztegi, esakera ta expresio-bide aldetik hagitz aberasgarri izan". ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak**, 23. or. M. Zaratek dioen bezala uste dugu ez dagoela hutsunerik egituratze mailan, nahiz eta fabula eta historia mailan ugariak izan. Historia mailako jauziak material narratibo hipotetiko batekiko jauziak dira; baina material narratibo hori ez da forma bihurtu. Edo bestela esanda, material narratibo hipotetiko batek eskaintzen zuen potentzialitatea modu konkretu batean gauzatu da, egitura konkretu batean gauzatu da; eta gauzaturiko egitura horretan "ausentzia" horiek ez dute parte hartzen. Edozein kasutan, egitura horren parte izan zitezkeen potentzialitateak besterik ez dira, zehatz-mehatz neurtu ezin daitezkeen potentzialitateak.

egia moralen berri ematen da, horrela izan diren eta izango diren egia moralen berri, aldaezinak diren baloreen berri. Hondo zehazgabe batean bizi diren pertsonaia zehazgabeak, "historian" txertatzen ez diren pertsonaia mugagabeak bihurtzen ditu; halaber, "historian" txertatu gabe dauden baloreen igorle. Balore iraunkorrak aditzera emateko, errealismoak ekarri zuen indibidualizazioa bere ondorio eta guzti baino bide erosoagoa bihurtzen zaio Agirreri, kostunbrismoak ekarri zuen iragandako edo iragaten ari zen mundua errepresentatu nahia, gatazka-falta, tipifikazioa...

Eleberri errealista eleberri paradigmatiko bihurtzen den neurrian ez da harrigarria eleberri kostunbrista antiparadigmatiko bihurtzea, indibidualizazio/indibidualizazio-falta aurkakotasuna dela bitarteko. Baina eleberri modernoaren muina bera ukatuz bada ere, historia baten itxura bakarrik duten historiak kontatuz bada ere, ezin ukatu-ko zaio Agirreri **itxura** horiei sorrera ematea. Eta, ez hori bakarrik. Agirrek hastapen hauetan ereindako hazitik bizitza luzea eta beste historia-mota batzurekin banatu gabea izango duten historia-itxurak erneko dira euskal eleberrigintzan.

VII. AGIRRE EUSKAL ELEBERRIGINTZAN

1. AGIRRE BIDE-IREKITZAILEA

G. Garatek aldizka sailkatzen du eleberrigintza bere **Euskal elaberrien kondairaren** hasieran. Lehen aldia "Haseratik 1946ra arteko elaberriak" osatzen du; bigarrena, berriz, "1946-1957ra arteko aldia" izenekoak. Nahiz aldi batean nahiz bestean, sailkapenak eskaintzen ditu, lehen aldian "bost talde" bereziz eta bigarrenean hiru; eta jarraian "bost taldek" osatzen duten lehen aldi horren ezaugarri orokorrak eta amankomunak eskainiko ditu (1). Izan ere, bereizkuntzaz harantza berdintasunak bait dira nagusi aldi honetako eleberrigintzan. Gaiak nahiz gai hauek hartzen duten tratamendua patroi bakar baten arabera moldatzen da: Domingo Agirrek ezarritako patroiarenean, hain zuzen ere.

Luze iraungo du euskal lehen eleberrigiletzat jo den Agirrek ezarritako patroiak; mende erdian ez du besterik ezagutuko euskal eleberrigintzak, harik eta XX. mendearen berrogei eta hamargarren hamarkadan euskal eleberrigintzaren tradizio labur eta monolitiko honekin hausten den arte. Orduan apurtuko da tradizio eta monolitismoarekin, orduan baztertuko D. Agirrek ezarritako patroia, orduan sortuko eleberri-mota desberdinak... Eta mota desberdin hauetan gero eta apalago bihurtuz joango da ohiturazko eleberrigintza, nahiz eta hari mehe gisa gaur egunera arte dirauen.

(1) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 35-38. orr.

Nahiz eta aipatu sailkapenean G. Garatek kondaira nahiz abentura nahiz ohiturazko nahiz Ameriketako eleberri legez atalkatu, berdindu egiten ditu eleberri-mota desberdin hauek kontatutako historiak testuratzeko moduak: histori itxurak besterik ez dira; inon ez dago historiarik.

Mende erdian barrena euskalduna bihurtzen da eleberrien motibo nagusi; baina ez gizabanako moduan, tipo moduan baizik. Euskal eleberrigileari ez zaio euskaldun banakoa axola, ez izaki konkretu eta indibidual baten abentura indibiduala; besterik bilatzen du: izaki horren bidez tipo baten berri ematea. Tipoak eta honen historia tipifikatuak ordezkatzen du gizabanakoa eta honen historia singularra.

Ezin uka dakioke J.M. Etxeitaren **Josecho** eleberriari abenturarik. Gertaeren metaketa agerikoa da bertan. Ekintza ekintzaren gainean dator. Hain da nabaria eleberri honetako pertsonaien ezaugarri abentureroa, J.M. Etxeitaren eta P. Barojaren arteko "sinpatia literarioaz" ere hitz egin dela (2), nahiz eta ez den falta izan ahotsik Barojarekiko antza gehiegizkotzat jo duenik (3).

Era berean ez dago ukatzerik Ameriketako lurraldeetan kokatzen direnik J.M. Lertxundiren **Polli eta Pello bi euskaldun bikain**

(2) "La acumulación de incidencias, las múltiples aventuras que se incluyen en su libro, el carácter aventurero de sus personajes, son rasgos que pueden crear en nosotros la impresión de que existe una simpatía literaria entre ETXEITA y BAROJA" dio J. Kortazarrek. Ikus KORTAZAR, J.; "Notas sobre la novela de José Manuel Etxeita (1842-1915)" in **Fontes Linguae Vasconum**, n.º 33, Septiembre-Diciembre 1979, 553. or. A. Etxebarriak jaso eta bereganatu egingo du J. Kortazarrek irekitako bide hau: "Errealismoaz gain, beste eragin edo kutsu bat nabari daiteke, Kortazarren haria jarraitzen dogularik, Etxeitaren nobelagintzan, Errealismoarena baizen argia ez, baina eragina azken baten: Barojarena. Zer dabe antzeko Barojaren eleberriek eta Etxeitarenek? Euretan agertzen diran hainbat eta hainbat jazoera eta abentura; pertsonaiak abenturero hutsak dirala". ETXEBARRIA, A.; "Etxeita eta bere nobelagintza" in ETXEITA, J.M.; **Josetxo**, Labayru Ikastegia, Editorial Vizcaina, Bilbao, 1982, 15-16. orr.

(3) A. Etxebarriaren ikuspegi hau gehiegikeriatzat jotzen du I. Iñurrietak: "Gehiegikeria iruditzen zaigu halaber aipatzen den Barojarekiko antza. Jakina, Etxeitarengan ere aurkitzen ditugu gertakizun ugari elkarren ondotik nahiko abaila bizian kateatuak. Baina nabaria da nolabaiteko dosifikazio falta: ustez une 'aljido'ak behar luketenak, adierazkortasun bereziaz emanak izan beharrean, indarrik gabe, belaxka azaltzen zaizkigu. Eta ez da inondik ere ageri Barojaren nobeletan ustekabean harrapatu ohi gaituzten kolpe poetikoen aztarnarik". IÑURRIETA, I.; "'Josetxo', negarti eta negargarri" in **Argia**, 955 zka., 1982, 29. or.

eta **zintzoen kondaira** (1910) edo J.M. Etxeita beraren **Jaioterri Maitia** (1910) edo R.M. Azkueren **Ardi galdua** eleberrietako historiak; ezta XVII. mendean lekutzen direnik ere lehenbizi frantsesez idatzi eta gero **Argia** astekarian euskaraz argitaratu zuen P. Lhanderen **Yolanda** (1921) eleberri laburreko gertaerak.

Abenturen gain —**Josecho**— eta Ameriketara inmigraturiko euskaldunen gain eraikitako historiak ere ezagutuko ditu euskal eleberrigintzak 1946.aren bitartean, D. Agirreren **Kresala** eta **Garoa** bezala ohituren gain eraikitako eleberriez gainera —Jean Barbierren **Piarres** (1926-1929), Agustin Anabitarteren **Usauri** (1931) eta **Donostia** (1932) eta Toma Agirreren **Uztaro** (1937)— edo-ta D. Agirreren **Auñemendiko Lorea**ren antzera gertaera historikoen gain moldatutakoez aparte —**Yolanda**—.

Testura eramaniko langai nagusiak bereizten ditu gehienez ere batzu eta besteak, baina ez hainbeste langai hauek testuratzeko moduak; ezta testuratze-modu honetatik sortuz doan esanahi-munduak ere. Izan ere, testuratze-modu horretatik ez bait da inoiz tipifikazio bati ihes egingo dion elementurik sortzen.

Gertaerak lehenaldi urrunean koka daitezke —VII. edo XVII. mendean— edo lehenaldi hurbilean —ohiturazko eleberriak deiturikoetan—; Euskal Herrian —ohiturazko nahiz eleberri historikoetan— edo Euskal Herritik kanpo —Amerikan—; baina, azken finean, funts handirik gabeko bereizketa bihurtzen dira desberdintasun hauek.

Funts handirik gabeko bereizkuntza bihurtzen dira, nahiz eta desberdintasun-iturri bilaka zitekeen hazia eraman; baina patroi bakar baten arabera moldatu dira. Berdin da lehenaldi urrunean kokatu edo Ameriketan kokatu: ez dago esanahi-mundu desberdinik sortzeko indarrik. Lehenaldi urrunak edo Amerikak eskaintzen zien adierazi duten munduaz landa oso bestelakorik azaltzeko paradarik, baina ez dute hori hautatu.

Aldi honetako euskal eleberrigileak zerbaiti ihes egin badio, eleberrietako historien koordenada narratiboak indibidualizatzeari egin dio ihes. Honetan datza patroi-berdintasuna.

Euskal Herria utzi eta Ameriketara joango da. Hala eskatzen dio seguraski euskal eleberrigileari bizi duen errealitateak. Fikziotik at dagoen eguneroko bizitzak erakusten dio euskaldunaren Ameriketa-

rako inmigrazioa. Baina errealitate hau fikziora daramanean, ez dio nortasun propio eta bereziko euskaldun banako horrek axola, ez bere aspirazio eta desengainoak, ez bere haserre eta pozak, ez eguneroko borrokak eta lanak sortzen dioten nekeak... Hitz batean, ez dio axola pertsonaia singular batek leku-denborazko koordenada singular batzutan bizitako abentura singularrak.

Honela, testuratzean hartzen duten orokortze-prozesua dela bide, urrundu egiten dira errealismotik eleberri errealista baterako langai aproposak zirenak (4).

Lehenaldi hurbila utzi eta lehenaldi urrunean murgilduko da, baina ez koordenada historiko konkretu batzu itxuratzeko (5), ez garai historiko bateko giroa hausnartu (6) eta giro horretan pertsonaia historikoen kualitate indibidualak eratzeko.

Iruzur egingo dio eszena eta koadro kostunbristen sarrerak kontaketari dakarkion moteltasun eta gelditasunari; baita ipuin eta kantenei ere. Eta samaldan datozen abentura eta gertaerak kontatzeari ekingo dio; baina abentura hauek ere "historikoki" kokatu gabe jarraituko dute. **Josechoren** abenturak ez dira gertaera-leku jakinetan jazotzen, baizik eta oso zabaletan; baina, gertaera-lekua handia nahiz txikiagoa izan, ez da partikularizatzen. Berdin gertatzen zaio abenturak denboraren ardatzean kokatzerakoan; baita abentura horiek bizi dituzten pertsonaiak itxuratzerakoan eta abarretan ere.

---

(4) "Le réalisme du roman ne réside pas dans le genre de vie qu'il représente, mais dans la manière dont il le fait". WATT, I.; "Réalisme et forme romanesque" in **Littérature et réalité**, 14. or.

(5) Honela mintzo da G. Lukacs W. Scott-en eleberrigintzaz: "Scott hace que las grandes cualidades humanas de sus héroes, igual que sus vicios y sus limitaciones, broten de un suelo histórico claramente configurado". LUKACS, G.; **La novela histórica**, 51. or.

(6) Guztiz baliagarriak dira P. Lhanderen **Yolandarentzat** ere, **Auñemendiko Lorearen** alderdi hau aztergai duelarik, G. Garatek esanak: "Agirrek ez zuen VII. mendeko Euskalerria ongi iruditarazi. Ez ditugu aro hartako jendearen bizitze-ohitura latzak oso gaingiroki baizik ikusten, ez orduko izakera egosgogorrak, grina indartsuak eta nabariak, aginte gosea, jentilen ikusmoldea eta haien ustez erlijio berriak zekarren saldukeria, ez garaiko burubideari zegokion emoziorik, ez gizarteko egituren molderik sumatzen". GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, 53. or. P. Lhandek ere ez du iruditarazten XVII. mendeko Euskal Herria.

Euskal eleberrigileek antzeko teknika narratiboak darabiltzate, azken batean, 1946. urtera arteko aldi honetan: eszena kostunbrista, kanta, kopla, ipuin eta abarren sarrera handiago edo txikiagoarekin. Berdintsu bihurtzen dituzte beren historiak berbaldi, berdintsu eratzen eleberrien bizkarrezurra eta egitura. Eta kontalari orojakileen esku utziko dute historia hauen kontaketa, salbuespen bakanen batean ezik (7).

Euskal eleberrigileak ez du euskaldun banakoaren azterketa egitea bilatzen, nahiz eta hartarako aukera paregabea eskaintzen zien materialen erabilerari ukorik ez egin (8). Eta leku-denborazko koordenada xehe eta banako batzutan ere ez du kokatzen.

Aitzitik, euskal eleberrigileak euskal tipo batzuren berri ematea bilatzen du; are gehiago, oraindik ere abstrazio-maila handiago batera joz, euskal tipoek izan beharko luketenaren berri ematen du gehienetan.

Eta **Auñemendiko Loreatik Uztarora** —eta baita "conato de novela"tzat jo den **Peru Abarcatik Uztarora** ere— hari mehe fin baten lotura soma daiteke, euskal tipo guztiek daukaten oinarri amankomuna: Euskal Herriarekiko, euskal ohiturekiko, euskararekiko eta kristau-fedearekiko atxikimendua (9).

---

(7) R.M. Azkuek eskutitzen erabilerara jo du **Ardi galdua** azaltzerakoan. Hamaika eskutitzen bidez testuratuko da Emeterio Olazarretaren fede-galtze eta berreskuratzea. Ik. AZKUE, R.M.; **Ardi galdua**, Jesusen Biotzaren elaztegian, Bilbon, 1918.

(8) Adibide aproposa izan daiteke arestian aipaturiko R.M. Azkueren **Ardi galdua** egindako azalpena ilustratzeko. Ikusi besterik ez dago P. Lhandek 1919. urtean zioena: "Aussi ne faut-il chercher dans ce roman ni intrigue tont soit peu complexe, ni analyses sentimentales. Peut-être, même, l'auteur eut-il réussi à faire une oeuvre plus populaire s'il n'eût pas abordé un sujet qui demande précisément une étude profonde des sentiments les plus cachés; je veux dire, la conversion d'une âme". LHANDE, P.; "Chronique de littérature basque" in **RIEV**, X, 1919, 194-195. orr.

(9) Azterlan hau idatzita zegoela argitaratu den R.M. Azkueren **Latsibik** ere ez du ezeztatzen goian egin den baiezpena. Honela dio K. Olanok: "Luze mintzo jaku une berean Azkue, egiazko euskaldunen bihotzetan Lege zaharra eta Jaungoikoa, Aritza eta Gurutzea banatu ezinaz. Gernikako Arbola bitarteko, Euskal Herria eta Jaungoikoaren arteko itun idealak, mundu mugitu ezin, ahistoriko, arkaiko eta rural baten ikuspegi idealizatua suposatuko leuke. Santi Latsibi bezalako euskaldun eredugarriak beharko litzatekez Azkuek defenditzen eban ideologiaren proiektuak burutzeko". OLANO, K.; "R.M. Azkuez eta bere obraz zertxobait" in AZKUE, R.M.; **Latsibi**, XXII. or.

Badira eleberri hauetan barrena aipatu baloreei atxikirik bizi ez diren pertsonaia-tipoak, jatorriz euskaldunak; baina eleberrien garapen-modua saiatuko da euskal tipoen eremutik jaurtitzen, euskal tipoak nolakoa izan behar duen azaltzeko aitzakia bihurtuz azkenean. Eredua nabarmenagotzeko bide bilakatuko da tipo antieredua.

Aldi honetako eleberrigilearentzat bada euskal izaera bat. Euskaldunak badu nortasun-agiri bat. Bada euskaldun legez jokatzeko modu bat. Izaera hori, nortasun-agiri hori eta jokatzeko modu hori azaltzeko aitzakia bihurtu dituzte eleberriak.

Esentzien esparruan higitzen da euskal eleberrigintza eta ez existentziarenean. Euskalduna bere orokortasunean axola zaio eta ez euskaldun konkretua.

Aipatu helburura bideratzen dira eleberriak, eszena kostunbristak ekarriz nahiz etengabeko abenturetan murgilduz, nola Amerikетan lekutuz hala lehenaldi urrunera begiak itzuliz.

Euskal eleberrigileak badu oraindik jomugarik: euskal izaeraren nondik-norakoa finkatu eta irakurlea izaera horretara lotu dadin gonbidatzea. Izan ere, eleberriek erakusten dutenez, izaera-modu hori gordeaz bakarrik erdiets bait daiteke zoriona; hortik at porrota eta sosegurik eza besterik ez dago.

Euskal eleberria nortasun bat finkatzeko eta nortasun horretara erakartzeko bide bihurtzen da, helburu jakin baterako tramankulu.

Beste hainbat alorretara bezala, isilaldia ekarriko du 1936.eko gerrak eleberrigintzara ere, baina ez etenik. Gerratean argitara zen Uztaroren ildotik etorriko da bederatzi urte beranduago J.A. Irazus-

---

Argitaratu berri den **Latsibi**ren eskuizkribua noiz idatzi zen ez da zehaztu. Fr. L. Villasanterentzat **Ardi galdua** baino lehen idatzi zuen: "1919. urtean (sic) argitaratzen du Azkuek **Ardi Galdua** deritzon elaberria, gipuzkera osotuan egina. **Latsibi**, berriz, bizkaieraz dago, eta xehetasun honek beronek ere **Latsibi** lehenagokoa dela susmarazten digu". VILLASANTE, Fr. L.; "Hitzaurrea" in **Latsibi**, XII. or.

S. Onaindiarentzat, berriz, beranduago idatzitakoa da: "'Ardi Galdua'-ren ondoren idatzi zuen". ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. Bi menderen artean, 1895-1920**, III, 84. or. Ikuspegi hau berau da M. Alberdirena ere: "XX. mendeko bigarren hamarkadan idatzitako elaberria dala pentsatu leiteke, data zehatzik emoteko frogarik ez daukagun arren". ALBERDI, M.; "Argitalpenaren prestakuntza" in AZKUE, R.M.; **Latsibi**, XXXII. or. Dena den, **Auñemendiko Loreatik Uztarora** doan tarte horretan lekutzen da bere idazketa-garaia.

taren **Joañixio** (1946). Argitaletxea, Buenos Aireseko Ekin, geldi daiteke gertaera sozio-politiko batzuren salatari eta lekuko, baina J.A. Irazustak honako azpititulu hau jar ziezaiokeen gainontzean bere eleberriari: "katea ez da eten".

G. Garatek aldi berri baten hasiera ezartzen du data horretan: aldi errealistarena, hain zuzen ere (10). Beraz, urrats berri baten hastapena markatuko luke J.A. Irazustaren **Joañixiok**.

Euskal elaberrien kondairari hasiera eman aurretik azaldua zuen G. Garatek ikuspegi hau. "Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko eleberri errealista" artikuluan (11), hain zuzen ere.

"Nortasun eta ikuskera oso ezberdinak izan arren, idazle errealista guzietan zenbait ezaugarri orokor aurkitzen dugu, halere" (12) dio G. Garatek. Eta ondoren ezaugarri orokor horien azalpena eskaintzen du: oharpenari eta behaketari toki nagusia eskaintzea, indibiduo topiko edo orokorra ez baina, eguneroko bizitzatik ateratako heroe indibiduala testuratzea, "neutralitatea" aurkitzea edo irakurleak behintzat aurkitu nahi izatea, bizitza bere garraztasunean ikusi nahi izatea alderdi on eta txarrekin...

Erizpide hauei jarraituz, eleberri errealistatzat jotzen du **Joañixio**, honako ezberdintasun hauek somatzen dituelarik, besteak beste, aurreko eleberrigintzaren aldean:

> "Ezin dugu berdindu elaberri hau aurreko elaberri goxoekin. Garraztasun sarkorra dario, halabeharraren kutsua ere bai. Joañixio Ameriketara joan beharra, han eraman behar duen bizimodu latza, Maitexaren bere osaba (sic) ezkondu beharrekiko duda-mudak, ezkonduz geroztikako ajeak, den dena mingostasunez bustirik dago" (13).

---

(10) GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (1). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, 37. or.

(11) GARATE, G.; "Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko eleberri errealista" in **Anaitasuna**, 418, 1982, 23-26. orr.

(12) **Ibidem**, 25. or.

(13) **Ibidem**, 24. or. G. Garate artikulu honetan barrena xehetuz doa **Joañixion** nabari diren aldeak. Honela dio beste pasarte batean: "Ez dugu hemen baserriaren eta hiriaren arteko dikotomia xinplea aurkituko, **Garoan** eta **Uztaron** bezala. Ameriketatik etorri eta Joañixiok berak garbi ikusten du baserrian ezingo duela etsi. Tolosara kalera ezkontzen da. Joañixiok ausartki aurre egiten die bizitzaren alder-

Badago alderik J.A. Irazustaren **Joañixio** eta aurreko eleberrigintzaren artean, G. Garatek dioen bezala: aurreko eleberrigintza bezain gozoa ez izatea, Ameriketara joan beharra, Maitexaren zalantzak ezkontzeko orduan, baserria eta hiria ez aurkajartzea **Garoan** edo **Uztaron** bezala (14), Panpako bizimodu gogorra, etxean dirurik ez eta emigratu beharra, kontalariaren komentario moralistak gutxitu eta ia desagertzea, eta abar. Baina, hala ere, ezin ahal izango genuke J.A. Irazustaren **Joañixio** eleberri errealistatzat jo D. Agirreren eleberrigintza aztertzean erabilitako erizpideen arabera, I. Watti jarraitu bait diogu eleberri errealista mugatzeko; aitzitik, eleberri-mota honetatik baino hurbilago ikusiko genuke jadanik deskribatua den D. Agirreren eleberrigintza-modutik.

Eta aipatu erizpideei jarraiki, honako hau esango genuke funtsean: oso errealista izan daiteke **Joañixiok** errepresentatzen duen bizitza-modua, baina ez bizitza-modu horrek eleberrian barrena hartzen duen gorpuzte-modua.

J.A. Irazustak sortutako pertsonaia-protagonista pertsonaia-tipo moduan itxuratzen da eleberrian barrena jasotzen duen tratamendu-modua bitarteko: modu orokor batez eta ez gizabanako moduan

---

di goza-gaitzei. Aurreko elaberrietan ikusten den moralismoa bakantxo agertzen da hemen". Eta jarraian: "Panpa, berriz, Joañixioren begietan azaltzen den bezala pintatzen digu Irazustak: dirua egiteko tokia maitasunik ez dion ikuspegitik ikusita, alegia". Beste pasarte batean, berriz: "Irazustak ez digu esaten Joañixio nolakoa den. Ekintzan ikusten dugu, bizirik. Ameriketara doa, etxean bizimodurik ez duelako eta gurasoek esaten diotelako. Ez da inongo heroerik, **Garoaren** Joanes heroe utopikoaren antzera. Joanesen baitan ezarri nahi izan ditu Agirrek 'egiazko' euskaldunen bertuteak. Joañixio antiheroe dela esango genuke". Eta aurreraxeago: "Maitexaren izatea ere egoki eta errealismoz agertzen zaigu. Osabarekin ezkontzeko diren eragozpenak garbi ikusten ditu. Haseratik zalantzan dabil, osabaren aurrean lotsatu eta adinaren aldea astun egiten zaiolarik. Borroka latza dabil eta halere osabarekin ezkontzea erabakitzen du". **Ibidem**, 24-25. orr.

(14) Dena den, erantsi beharra legoke nolabaiteko erreferentzia egiten zaiola baserria/kalea aurkakotasunari. Honela mintzo zaio bere ama Joañixiori, hau Panpara joan aurretik: "Ola batean sartu ta osasuna galdu. Ori naiko ez dala kalean anima galdu. Kaletik datozen soñuk ez dira gure oituerantzat atsegin". IRAZUSTA'TAR, J.A.; **Joañixio**, Editorial vasca Ekin, Buenos Aires, 1946, 34. or. Ez da kale alde hori zeharo eta behin eta berriz gaitzesten **Garoan** bezala, baina **Joañixion** ere baserrian gordetzen dira ohitura onak eta kale aldean ikusten galtzeko arriskua.

(15), pertsonaia lau moduan, historiaren harian bilakaerarik ezagutzen ez duen pertsonaia moduan (16). Ez da taxutzen bilaketa bat bitarteko eginaz doan pertsonaia moduan.

Etarteko familia ere orain arte euskal eleberrigintzara etorritako euskal familien antzera karakterizatzen da. Ez dira Joanes eta Zabaleta baserrikoak bezain onak, kristau zintzoak...; hitz batean, ez dira hain eredugarriak. Baina funtsean balore berdinak defendatzen jarraitzen dute (17), eta balore hauen defentsa egiteko moduan eramaten dira berbaldira.

Kontatzen den historiaren gertalekuak oso modu orokorrean, zehazgabean aurkezten dira: partikularizazioa ekarriko liokeen ñabardura, xehetasun eta abarrik gabe. Gertalekuen deskripzio zehazgabe hori aurkakotasun baten berri ematera bideratzen da batipat: Euskal Herria/Panpa. Euskal Herriko lur, zelai, mendi... eta abarrak Panpa-

(15) Azken finean, Telex eta Erramon indianoak Joañixioren antzekoak dira: Euskal Herriarekin amets eginez bizi direnak, onak, zintzoak...; Joañixiok, aipatu ezaugarriak edo besteren bat maila handixeagoan izatea: herri-min handixeagoa, elizkoiagoa, zertxobait zintzoagoa... Baina Joañixio bera ere ez da kontaketan gizabanako moduan hezurmamitzen, tipo moduan baizik, indiano-tipoa ordezkatuz: Ameriketara joan, herri-mina barnean daramatela bizi, gogotik lan egin, aberastu, itzuli...

(16) Bizi dituen abenturek ez dute gogoeta-prozesurik sortzen Joañixiorengan; ezta aldaketarik ere prozesuren bat bitarteko. Hainbeste sufrimenturen iturri den Panpa ez da gogoeta-iturri eta bilakaera-sortzaile bihurtzen. Joan orduko, etxera itzultzeko irrikitan dago, eta horrela igarotzen ditu urteak. Damutu egiten da joateaz; heriotza heltzean damuturik dagoela dio. Baina hau, azken finean, ez zaio gogoeta-prozesu bati zor; izan ere, joateko gogorik ere ez zuen, eta Panpan urteak igaro ahala gehitu besterik ez da egiten egoera animiko hori. Ikusi besterik ez dago etxekoei idatzitako eskutitz batean dioena: "Emen an bezela elizara joaterik ez dagola, baño gañerakoan len bezela" (**Joañixio**, 99. or.). Mutil zintzoa joan eta zintzoa itzuliko da, amak eskatu bezala. Ameriketak badakartza zenbait galera: bizi diren inguruetan elizarik ez egotea, elizkoitasuna galtzea, eraman duten bizimodu gogorra dela-ta, ajeatu samarrik itzultzea, etorri ondoren zereginik ez eta, aspertzea... Bizitzak ekarri dizkien galerak dira, baina ez bilaketa baten ondorio.

(17) Etartekoak langile zintzoak dira, kristau zintzoak: ilunabarrero errosarioa esaten dute, errosarioa baino luzeago ondoren zetozen aitagureak, hamaika eskaera-modu desberdin egiteko: "bata txerria gizentzeko, bestea beia ez antzuteko, urrengoa sagar-lorea ongi etortzeko, bat geiago ume egiteko zegon beiak txekorra ez baño txala izateko, ta Jainkoak daki zenbat geiago" (**Joañixio**, 12-13. orr.). Igandeetan meza, igande-arratsaldean bezperak...

koei aurkajartzen zaizkie (18), **Garo**ako Zabaleta baserria eta bere inguruak "Erbesteri" aurkajartzen zaizkion gisan. Aurkakotasuna ez da paisai modura mugatzen: **Garo**an bezalatsu bizimoduari, jende-motari eta abarri ere hedatzen zaio (19).

Denborak ere lekuarenaren antzeko tratamendua hartzen du: gertaeren jarraipena oso modu abstraktuan itxuratzen da; eta ez da harritzekoa. Izan ere, denborak ez bait du giza harremanen aldaketan garrantzirik; denbora ez da bihurtzen gizaki eta gizakien harremanen aldaketa-iturri. Esate baterako, pertsonaia-protagonistak Argentinako Panpan egiten duen egonaldi luzea oso modu abstraktuan testuratzen da (20). Panpako bizitza garratz hori garratza dela **esan** bakarrik egiten da; ez da **erakusten.** Ez zaio pertsonaia-protagonistari bizitza garratz hori egunez egun bizi erazten. Ez da kontaketara egunean eguneko samin hori ekartzen (21)... Eta, azkenean, denbora abstraktu hori ez da bihurtzen pertsonaia-protagonistaren aldaketa-eragile.

---

(18) Hona hemen ilustrazio moduan deskripzio bat: "Lur ortan (Panpari buruz dihardu) guztin geien geiena zelaia da; ta zelai orri esaten zaio 'pampa'. Ez da beaz txantxetako izena: Euzkadin mendia esango ba gendu bezala (...). Baño trena abitu zanean gogoratu zan zelai aundi batean zijoala. Baso gutxi, garia, oloa ta artoa ugari. Errik bata besteangandik urruti" (**Joañixio**, 66. or.).

(19) Egindako azalpenaren argigarri, hona hemen Joañixiok berak guraso euskaldunak izan, baina Ameriketako lurraldeetan jaiotako Batixtari aurkezten dion "leku-aurkakotasuna": "Zure gurasoen baztarrak ezagutuko ba ziñuz, ni bezelaxe ango gauzakin ametsetan egongo ziñake: nunai etxeak, jateko denetik, mirabeak gezurrik esaten ez dakienak, emakume txukunak, gizon zintzoak, mendik edozein tokitan exeri ta aieri begira orduk eta orduk egotekoak, ango erreka otsa, danbolin soñua, dantzak, irrintzik, ango bertsolarik, ango zuaitzak, etxe aurrean intxaurra, aurreraxeago sagarra; baratzan azak, tipulak, marrubik eta zer dakit zenbat geiago ..." (**Joañixio**, 110-111. orr.).

(20) Ez dago ikusi besterik, esate baterako, kapituluren baten izenburua: "Egun bat" (**Joañixio**, 81-86. orr.). Kapitulu honetan aditzera ematen da nolakoa den Joañixioren Panpako egun bat, egunez egun daraman bizitza kontatu gabe: egun batekoa gainontzekoen eredugarri. "Behin batean eta besteren batean" gertaturikoek eratzen dute kapitulua, eta azkenean Panpan zeramaten bizimodua aditzera ematen da. "Egun bati" eskaintzen zaion kapituluak "Egun bereziak" kapituluan aurkitu du bere kontrapuntua (**Joañixio**, 87-98. orr.), zeinetan egun seinalagarrietan egiten zutena aditzera emango den.

(21) Ilustrazio argigarria izan daiteke honako pasarte hau: "Joañixio ez ezik geok ere aspertuko giñake beste amabost urte pampan bere atzetik ibili bear ba genduke ta egokiagoa izango da urte batzueri erain ta bat batean Joañixion berrogeitamalautan jartzea" (**Joañixio**, 136. or.).

Laburbilduz, oso errealistak izan daitezke eleberrira eramaten diren langaiak eta eleberriak errepresentatzen duen bizimodua, baina ez dugu uste berdin gertatzen denik langai horiek eta bizimodu horrek testuan hartzen duen itxuratze-moduarekin.

Nolabait, J.A. Irazustaren **Joañixion** ere D. Agirreren eleberrietako itxurazko paradoxarekin topo egin dezakegu: honek itxuraz gai erromantikoa zerabilen modu ez-erromantiko batez; J.A. Irazustak, berriz, itxuraz gai errealista darabil modu ez-errealista batean. Baina, agian, nahiz batengan nahiz bestearengan itxurazkoa besterik ez da "desegokitzapen" hau, azkenean gaiak ez direlako ez batean erromantiko bihurtzen, ez bestean errealista, nahiz eta kutsu erromantikokoak edo errealistakoak izan; modu batean ala bestean balore batzuren defentsa gardena eta eredugarria egin nahia edo egitea hautatzea izan da eragozle.

Jadanik azaldu den legez, badago alderik D. Agirreren eleberrietatik **Joañixiora**; baina eleberria itxuratzeko moduan ez da azken finean funtsezko aldaketarik eman; ezta ondorioz gorpuzte-modu honetatik sortzen doan esanahi eta mundu-ikuskeran ere: esentzien esparruan higitzen jarraitzen du euskal eleberrigintzak eta ez existentziarenean. Gozotasun gutxiagorekin, kontalari hain erraldoirik gabe..., baina balore berdinak defendatzen jarraitzen du euskal eleberrigileak, hastapenetako ildo beretik. Honela dio K. Otegik, J.A. Irazustaren eta J. Eizagirreren eleberrigintzaz mintzo delarik:

> "Jokaera garbiak, dantza tolesgabeak, emakume txukunak, bakea eta zuzentasuna goraipatzen dira, eta elizako ezkilaren inguruan antolatutako bizimoldea eta 'Jainkoaren lurra' den Euskal Herri bat isladatzen; aberria, euskara eta euskal izaera babesteko idazten da. Balore guztiok familiaren elkartasunean eta baserri giroan gordetzen dira ongien, 'baserritar izatea liteken gauzik ederrena' delarik. Egitura bakun, kapitulu borobil eta antolaketa linealeko eleberriak dira; aurreko ohitur nobelarekin alderatuz aipa daitekeen berrikuntza xumea zera da, istorioaren zenbait unetan hunkigarri izateraino iristen den errealismo dramatiko apal baten agerpena" (22).

Euskal eleberrigintzak pertsonaia kristauez eta euskaltzalez hornituz jarraitzen du, balore hauek defendatuz, Euskal Herria idealiza-

(22) OTEGI, K.; "Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa" in **Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto**, Lan Kide Aurrezkia, Donostia, 1985, 434. or.

tuz; izan ere, azken finean, Euskal Herrian bakarrik aurki daiteke zoriona: mendiz, gizaki on eta kristauez osaturik dagoen aberri honetan. Har dezagun mende honen bigarren erdiaren atariko Joañixioren honako adierazpide hau:

> "noizbait etxeratzen ba naiz lenengoa lurrari muñ egitea egingo det. Ura Jainkoan lurra da. Nik Jainkoari zor dioten eskerrik aundina an jaioa izatea da. Urrengoa nere ezurrak an ustea izango da" (**Joañixio**, 111. or.).

Eta gogora ditzagun mende bat lehenago J.M. Iparragirrek kantatzen zituen "Nere gitarra" kantako edo "Ara nun diran" kantako ahapaldiren batzu. Ba ote dago alderik?

Beste erbestaldi bat ekarriko du J.A. Irazustak bere bigarren eta azken eleberrira ere, **Bizia garratza da** (1950), nahiz eta erbestaldia ez izan **Joañixion** bezala diruak eragina, baizik eta gerra zibilaren ondorio. Baina atzerriratze-modu honen dramatikotasunak ere ez ditu euskal eleberrigintzaren zutabe nagusiak astintzen. Eta azken finean, K. Otegik dioen bezala,

> "garai beltzak eta negargarriak dira eta ez dago sorketarako giro aproposik, ezta dirudienez euskal herriaren drama latza baliostasun literarioz adierazi eta interpretatzeko gaitasunik ere" (23).

J. Eizagirreren **Ekaitzpean** (1948) eleberriak ere G. Garatek bereizten duen 1946-1957 aldiaren sailkapenean eleberri errealisten saila osatzen du, J.A. Irazustaren bi eleberriekin batera. Gaitzat gerra hartzen badu ere, ez du asmatuko "euskal herriaren drama latza" modu literarioz adierazten eta interpretatzen.

Gai garratza dakar, bai: gerra. Baina, azkenean, testuratutako historian berbaldia madarikatzen den gerrak ez du xahutzen, baizik eta maitasun-historia batek, beste zenbait ongarrirekin, hala nola, Aritzondo baserriko bizimodua. Gerrak hondoan dagoen oihala dirudi.

Ekaitzpean dela-ta, **Joañixio** eleberriaren koordenada narratiboaz eta esanahi-munduaz egindako azalpena errepikatu behar: koordenada narratiboen erabilera tipifikatua dela-ta, tipifikazio honen bitartez balore batzu defendatzen dituela.

---

(23) OTEGI, K.; "Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa" in **Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto**, 434. or.

J. Eizagirreren **Ekaitzpean** eleberriarekin ere baserriaren laudorioa egiten jarraitzen du euskal eleberrigintzak: baserria da euskaldun zintzo eta kristau fededunen bizilekua. Hemen gordetzen da euskal nortasunaren agiria (24), eta nortasun hau eman nahi da aditzera.

J. Eizagirrek ere gerraurreko eleberrigintzan nabarmendu ziren bi kezka nagusirekin jarraitzen du: batetik, eleberria euskal nortasuna finkatzeko tramankulu bihurtu nahi du eta, bestetik, euskaraz irakurtzera ohituta ez dagoen irakurleari irakurketa-lana arindu nahi.

Gerraurreko eleberrigileentzat baserria zen euskal nortasun-agiriaren gordelaririk behinena; baserrian bizi ziren euskararen, euskal ohituren eta kristau-fedearen gordetzailerik bikainenak; horiek erakusten diote euskaldunari nola bizi eta zein jokabide hartu bizitzako egoera desberdinetan. Baserria dute sorburu, bizileku edo helmuga **Garoako** Zabaleta baserritik hasi eta **Uztaroko** Dorronsoro baserrira bitarteko pertsonaiak. **Josecho** eleberriko Josetxo baserritik aterako da bere ibilaldi luzeari hasiera emateko; **Jaioterri Maitiako** neska-mutilak beraien Ardi-baso zoragarrira itzuliko dira; gerra ostean bizi beharrak eraginda ateratzen da Joañixio Etarte baserritik eta Aritzondo baserria dakar J. Eizagirrek **Ekaitzpean** eleberrian.

Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duten euskal irakurleengana heldu nahia ere nabaria da gerraurreko eleberrigileengan: esaterako, R.M. Azkuerengan edo D. Agirrerengan. Nahiz batak nahiz besteak gogoan izan zituzten beren eleberriak taxutzerakoan, irakurleek aurki

---

(24) Horretara bideratzen da Aritzondo baserriak eta bertako bizilagunek eleberrian hartzen duten tratamendua. Baina hori ez ezik, hainbat eta hainbat pasartetan pertsonaia lau, irmo, finko, gatazkarik gabeko hauek ere beren esanetara daramate: "'Bai, ori ala izango da —dio Xabier'ek— bañan kaletar aundizki-alabei ere Malen'ek ezer zor ez diote, eta, berari esana dioten bezela, euskaldun zintzo ta zerbait dakien batentzat baserritar izatea izan liteken gauzik ederrena da, euskaltasuna, gure euzko-odola eta gure euzko-izaera guztia, garbi ta egokiena gordetzen dan tokia baserria dalako...'" (**Ekaitzpean. Ipuinberri**, Editorial vasca Ekin, Buenos Aires, 1948, 149-150. orr.). Izan ere, baserria da euskaldunen sorlekua:
4n GUDARI.—Ikusten al dezute?... beti gure baserritarra esku-zabal... bear duenari berak duan guztia ematen dakiena...
2n GUDARI.—Bai, motell... orregatik nekazarien aldekoak gu beti izan gaituk...
1n GUDARI.—(4n Gudariari) Bañan ez uste i bakarrik aizela baserritar, euskaldun guztiak baserritik gatxetorrek, gure aurrekoak baserritarrak izan ituan... eta ori dek gure gorapenik aundiena..." (**Ibidem**, 56. or.).

zitzaketen oztopoak (25). Gerra ondoren, berriz, honela mintzo da J. Eizagirre bere eleberriari eginiko "Aurretik" atalean:

> "Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezago irakurtzeagatik egintza honen geiena alkarrizketa-eran antolatu det. Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere errez antzeztu liteke" (26).

Eta, jakina, irakurlearekiko jarrerak Azkueren edo Agirreren eleberrigintza-modua bezala baldintzatu zuen Eizagirrerena ere. Izan ere, azkenean, **Ekaitzpean** batipat elkarrizketez eta akotazioz osaturik bait dago (27), eta egituratze-modu honek besterik gabe izugarrizko eragina du koordenada narratiboen garapen-moduan.

Hain dago sustraiturik euskaldunaren zintzotasunaren ikuspegia, hain barne-muinetaraino sartuta euskal baserri eta herrisketako bizilagunak euskal izaeraren gordelari behinenak direla, Garaidi ikertzaileak ere ez du hiltzailerik aurkituko Egurmendiren emaztearen "hilketan". Honela, bada, euskal lehen polizi eleberria ere [J.A. Loidiren **Amabost egun Urgain'en** (1955)], polizi eleberri berezia da, lehenik eta behin hilketarik eta hiltzailerik gabeko polizi eleberria delako.

Fikzioaren hastapen-hastapenetatik finkatzen ari den euskal izaera horrek ez du inor hiltzea ametitzen. Eta Urgain bezalako euskal herriska batean ezin egon zitekeen hiltzailerik.

---

(25) Alderdi honi dagozkion zenbait komentario eskaini dira D. Agirreren eleberrigintza deskribatzerakoan. R.M. Azkueri dagokionez, hona hemen **Ardi galduaren** taxutze-modua dela-ta, P. Lhandek dioena: "Nous regrettons que M. L'abbé Azkue ait eu l'idée de composer son roman en forme de lettres: non point parceque ce genre est démodé aujourd'hui (hélas! il ne peut y avoir rien de démodé en litterature basque puisque tout y est si récent, sauf la langue!) mais parceque l'intérêt fort bien amorcé dans le corps des parties est brisé à tout instant et dispersé. L'auteur a pensé sans doute que le Basque, qui ne lit point de romans mais qui lit fort bien, au contraire, des correspondances rédigées en euskara, se plierait plus aisément a cette forme. La raison est valable. Mais cet avantage ne compense pas les inconvénients signalés plus haut: le décousu, la dispersión de l'intérêt". LHANDE, P.; "Chronique de littérature basque" in **RIEV**, X, 1919, 195. or.

(26) EIZAGIRRE'TAR, J.; "Aurretik" in **Ekaitzpean. Ipuinberri,** 4. or.

(27) Kapitulu bakoitzaren hasieran, sarrera moduan edo, kontatu egiten du. Eta ondoren, ilunabar batean edo egun batean, pertsonaia desberdinak jartzen ditu elkarrizketa luzean. Eta, honela, eleberrian ehotzen ari den historia elkarrizketen bidez ematen da ia-ia osorik.

Azkenean, J.A. Loidiren eleberria hilketarik, inkestarik eta hiltzailerik gabeko polizi eleberria bihurtzen da. Garaidi ikertzailearen ibilera eta harat-hunatekin adierazten da herriska bateko giroa eta hala "betetzen" berbaldia ikerketaren datuak ezkutatuz, harik eta azken bi kapituluetara heldu arte; kapitulu hauetan biltzen dira lehen testuratu ez diren ikerketaren emaitzak.

Urgaingo herriska euskaldun horretan hiltzaile bat egoteak hautsi egingo zukeen eleberri honen idazketaren garairaino fikzioan indarrean egon den mundu-ikuskerarekin, eta honen aurrean J.A. Loidik honela jokatu du: itxurazko hilketa asmatu, itxurazko ikerketa egin eta hiltzailearen figura deuseztatu, hilketarik egon ez delako. Euskal gizarteak hilketak eta hiltzaileak ezagutu edo ez, fikzionalizatu gabe jarraitzen dute.

J. Etxaide hasiko da euskal eleberrira eramaten den mundu idiliko horrekin zertxobait hausten. Berak zabaltzen dio leihatila ordurarte ezezaguna zen grinen munduari, eta honela hasten da euskal eleberrien mundua idilismoen eremua uzten. Bi eleberri historikoren bidez [**Alostorrea** (1950) eta **Joanak joan** (1955)] agertzen dira hainbat "keria" pertsonaien bizitzan: bortizkeria, doilorkeria, maltzurkeria, lizunkeria... Baina, hala ere, muin-muinean kristau onak dira, eta aberriarekiko, Euskal Herriarekiko, atxikimendua barnean daramatenak.

Dena den, nobelak taxutzeko moduan ez da berrikuntzarik nabarmentzen, ezta ondorioz aditzera eman nahi den munduan ere. Kontalariak orojakilea izaten jarraitzen du. Era berean, nahiz eta gerra ondoko lehen eleberriek erakutsi zuten ildotik komentario diskurtsibo moralizatzaileen alorra zertxobait zaindu, pertsonaiek argi-ilunik gabeak (28) izaten jarraitzen dute... Agirreri ez bezalako erudizio historikoa badario ere Etxaideri, lehenak ez bezalako ahalegina egiten badu ere kokagunetzat dituen garai historiko horietako giroa itxuratzeko eta koordenada berezi horietan pertsonaiak lekutzeko, kutsu erromantiko handiagoa darie errealista baino.

---

(28) Honela mintzo da L. Mitxelena **Joanak-joan** eleberriko pertsonaiei buruz: "Zurrundurik bezala ageri dira —besteak Piarres galdu bearrean, bere burua ondatu bearrean Piarres—, eztakite beren erraiak urratzen besterik. Ezta gogo-giro aldakor-xotillik. Ezta, itz batean, argi-illunik, eta argi-illunean dago maiz gizatasun mardula". MITXELENA, L.; "**Yon Etxaide**, JOANAK-JOAN. Kuliska Sorta, 9-10'gn. zenbakia. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz'en, 1955" in **Egan**, 5-6, 1955, 69-70. orr.

Gaur ahobatez onartzen delakoan gaude: euskal eleberrigintzaren eraberrikuntzan mugarri zehatz bat jartzekotan, 1957. urtean Txillardegik eta beronen **Leturia-ren egunkari ezkutuak** ezartzen dutenean jarri behar.

Garaiko kritika ohartu zen hura ez zela ohizko euskal eleberrigintza, euskal irakurlea irakurtzera ohituta egon zitekeen molde hartakoa (29). Beste itxuratze-modu bat zekarren eta, beste itxura-modu honen bidez, munduan lekutzeko eta mundua ikusteko beste modu bat. Ondorengo kritikak auzitara ekarriko du hainbat alderdi eraberrikuntza hori deskribatzerakoan eta neurtzerakoan, baina beti ere mugarri hori eraberrikuntza-erreferentziatzat hartuz.

Euskal eleberrigintzak Agirrez geroztik 1957. urtera arte egin duen ibilbideaz eskaini den azalpen panoramiko honek agerian uzten du ez dela eraberrikuntzarik egon mende erdi luze batean. Agirrek ezarritako patroiaren ildotik jarraitzen du.

Eraberrikuntza-falta hau bitarteko, geroz eta gehiago isolatzen da literaturaren panoraman euskal eleberrigintza berankor, ahul eta urria.

Eraberrikuntza-falta hau bitarteko, lehenik eta behin euskal letren panoraman bertan hasten da isolatzen. Euskal Herrian jaioak izanik gazteleraz idatzi zuten zenbait idazleren eleberriekiko hasten da urruntzen eta, azkenik, Mendebaldeko Europako literatura handiari so, amildegi ikaragarri bihurtu da bien arteko tartea.

2. ELEBERRIGINTZA EUSKAL LETREN PANORAMAN

Azterlan osoan barrena erreferentzi puntutzat hartu diren testu-tipoekin jarraituz, poesigintzaren eta antzerkigintzaren alorrekiko harremanean lekutuko da labur-labur euskal eleberrigintza.

Mende honen hogeitamargarren urteko hamarkadaren inguruan

---

(29) Ikus, esate baterako, MITXELENA, L.; "Sarrera-itz batzu" in TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturia-ren egunkari ezkutua**, 5-17. orr.; edo-ta ETXANIZ, N.; "Txillardegi. 'Leturiaren egunkari ezkutua'" in **Euzko Gogoa**, orrila-garagarrila, 1957, 113-115. orr.; edo-ta IBINAGABEITIA, A.; "Txillardegi. 'Leturiaren egunkari ezkutua'" in **Euzko Gogoa**, 1957, 111-113. orr.

kokatzen da —ahobatez esatekotan gaude— euskal poesigintzaren eraberritzea, Lizardiren, Lauaxetaren... eskutik.

Albora dezagun eraberrikuntza honen koordenaden deskripzio xehea, ñabardura asko alde batera uztea badakar ere. Eta muga gaitezen bete nahi duen eginkizunerako —eleberrigintza lekutu euskal letren panoraman— egokia den eta azterlanean barrena egin den planteamenduarekiko koherentea eta adierazgarria ere izan daitekeen funtsezko bi ezaugarri hauetara:

—Lizardi poetak hausten du luzaroan euskal poemagileek beren poemetara eramandako bertsolaritzaren hainbat elementurekin. Lizardiren garaiak bertsoaren eta poesiaren arteko bereizkuntza ezarriko du (30).

—Lizardi poeta poesia diskurtsiboa baztertu eta poesia metaforikora igaroko da (31).

Dena den, bi ezaugarri aipatzen badira ere, hauen inguruan taxututako lerroek agerian utziko dute elkarri oso hertsiki loturik daudela.

Eta, izan ere, bi ezaugarri horiek gordetzen dituen poemak edo poema-liburuak **irakurleak** eskatuko ditu hartzailetzat (32), lantze

---

(30) I. Sarasolak A. d'Abbadieren mezenazgopean nahiz Donostiako "itz-jostaldien" batzordearen antolamendupean eratutako lore-jokoak mintzagai izan ondoren, honako balorazio hau egiten du: "Ondorioz, ez da erraz bertsolaritzaren eta poesia landuaren arteko muga nondik pasatzen den erabakitzea, garaiko poeta kultoenen obran ere bertsolaritzaren elementu asko aurki baitaiteke, are haien artean garaiena izan zen Jean-Baptiste Elissanbururen obraren zenbait zatitan eta Felipe Arreseren prosaismo poetikoan. Poesia eta bertsoaren arteko bereizkuntza hau osoki gerta dadin, Lizardiren garaia heldu arte itxaron behar da". SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, 40-41. orr.

(31) "Eta Lizardik, hizkuntza poetiko baten lantze hori, oharkabean edo guztiz ohartuz, ordurarte euskal poesian ezagutzen ez zen maila batetara jaso zuen. Poesia diskurtsibu batetatik poesia metaforikora pasatzen zaigu". LETE, X.; "Xabier Lizardi edo poesia gailen" in LETE, X.; ZELAIETA, A.; LERTXUNDI, A.; **Xabier Lizardi, olerkari eta prosista**, Ed. Franciscana Aránzazu, Jakin liburu sorta, Oñati, 1974, 15. or.

(32) Esandakoa ez dago zentzu hertsian hartzerik. Lizardiren edo Lauaxetaren zenbait poemak ere aurkitu du kantaririk ere igorpen-modutzat. Igorpen-modu hau ere ezagutu duten poemak izango dira gainera idazle hauen ezagunenak. Baina, hala ere, egindako baiezpena gorde daitekeelakotan gaude, gutxienez zentzu honetan: idaz-

eta sortze-prozesu oso zaindua eta berezia —ezin izan Agirreren eleberrietan erabiltzen den mailuarekin puntu berean jo eta jo monotono eta uniforme hori soil-soilik, baizik eta tonalidade gehiago eman ditzakeen hitz-eskultorearen lana— egilearen aldetik, eta beren indar propioz sostengatzen diren testuak emaitzatzat.

Poesia "una metáfora constante y generalizada" moduan jo da (33). Metaforaren barnean, berriz, aspaldi samar egindako bereizketa bat gogora daiteke, "metáfora de uso" eta "metáfora de invención" (34) eta, modu orokorrago batez hartuz eta tropo honetatik bera barneratzen duen figuraren kontzeptura igaroz, "figuras de uso" eta "figuras de invención" (35).

Orohar, Agirreri garaikide zaion poesigintza eta bere poesigintza propioa, eta bere lehenaldi hurbilak landu zuen poesigintza, eta ez hain hurbilak ere —lehen atalean xehetasun gehiago eskaini da—, "figuras de uso" eta, zer esanik ez, "metáforas de uso" hauen gainean eraikia da. Badirudi Lizardirekin "figuras de invención" horiek —zenbait ikuspegitatik propioki figurak diren bakarrak (36)— sor-tresna bihurtzen direla.

---

ketaren garaian irakurle bati zuzendu zitzaizkion, garai horretantxe bertso-igorpenerako erabilitako beste bide batzutatik urrunduz. Testuen formak berak hala eskatzen zuen, egileak hala erabaki zuen, hartzaileak nekez dastatu ahal izango zituen, beste bide horien bidez igorri bazitzaizkion.

(33) Ikus COHEN, J.; **Estructura del lenguaje poético**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1977, bigarren berrinprimaketa, 112. or. J. Cohenek azalpen hori egitean bere egiten du H. Adank-ek egina zuena eta H. Adank; **Essai sur les fondements psychologiques et linguistiques de la métaphore affective**, Ginebra, 1939, liburura igortzen du.

(34) **Ibidem**, 113. orrialdeko oin-oharra.

(35) P. Fontanierrek aurreko mendearen hastapenetan eginiko bereizketa da. Bien arteko bereizketa atzemateko adierazgarriak izan daitezke G. Genettek P. Fontanierren **Comentairetik** jasotzen dituen hitz hauek: "'On pourrait, dit-il dans le **Commentaire**, prouver par mille exemples que les figures les plus hardies dans le principe cessent d'être regardées comme figures lorsqu'elles sont devenues tout à fait communes et usuelles'". GENETTE, G.; "Introduction. La rhétorique des figures" in FONTANIER, P.; **Les figures du discours**, Flammarion, Paris, 1968, 9-10. orr.

(36) Baldin eta figurak definizioz desbiderazioa badakar (ikus, esate baterako, GROUPE μ, (J. Dubois, F. Edeline, J.M. Klinkenberg, P. Minguet, F. Pire, H. Trinon); **Rhetorique générale**, 35. or.), "figura de uso" adierazpena kontraesan huts bihurtzen da; erabilerazkoa izaki, ezin izan desbiderazio.

Egileak honelako aukera egitean, mintzaira norbere izateak suposatzen duen banakotasunaren iragazitik iragaztea hautatzean, berrasmatu egiten du aldi bakoitzean mintzaira testuan. Mintzaira berrasmatzean, gure ohizko berbaldi prosaikoaren legeak uztean, "pertzepzioaren, somaketaren iraupena eta zailtasuna gehitu egiten da" (37), eta nekez somatu ahal izango du entzule batek entzun ahalean. Irakurri egin beharko du.

Eleberriak irakurleak eskatzen zituela esan bada, irakurketa pribatu batera zuzendua dagoen testu-tipotzat jo bada, arestian deskribaturiko poesia-motak ere irakurleak eskatuko ditu batipat eta bereziki.

Puntu honetara helduta, bi galdera sortzen dira gutxienez: zergatik eraberrikuntza poesian eta ez eleberrian?, eleberriari irakurlego zabal baten euskarria ukatu bazaio, lortu ote zuen ba euskal poesiak eleberriak erdietsi ez zuena?

Oso labainkorra eta arriskutsua da kausen galdera egitea eta erantzuna ematea. Dena den, hurbilpen bat egitea bilatuko da. Azpian egon daitezkeen kausek ez dute agian zerikusirik izango hemen azaldutakoekin; baina hemen azalduko direnak, egon, egon zitezkeen.

Ez dago ukatzerik tradizioak behintzat corpus laburragoa eskaintzen ziola Agirreri Lizardiri baino; baita Agirre baino beranduagoko eleberrigileari ere (A. Anabitarte dela edo T. Agirre bera). Euskaldunak bertsoagatik azaldu du interesa ekintza ritualen alorrean, ez horrela prosagatik (38). Kalitateak, igorpen-moduak (ahoz, erdi-ahozkotasunean lekutu direnak, idatziz)... bereziko ditu, baina Lizardik eta orohar eraberrikuntza honetan partaide diren idazleek Agirrek aurkitu ez zuen bezain landua aurkitu zuten soroa: ereiten

(37) Honela mintzo da V. Shklovski artearen xede eta prozedurez: "La finalidad del arte es dar una sensación del objeto como visión y no como reconocimiento; los procedimientos del arte son el de la singularización de los objetos, y el que consiste en oscurecer la forma, en aumentar la dificultad y la duración de la percepción". SHKLOVSKI, V.; "El arte como artificio" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkezturiko antologia), Siglo Veintiuno editores, México, laugarren argitalpena, 60. or.

(38) K. Echegarayk gogoratu zuen jadanik: "A esa abundancia de verso, no acompañó igual abundancia de prosa". ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 38. or.

hasteko prest egon daitekeen soroa. Are gehiago, "figuras de uso" horren erabilerara erruz jo zuen poesigintzak, baina "egindako bidea" zen: ildo herritarren barnean ibilitako poesigintza zen, baina ibilitakoa; poesia "diskurtsiboa", baina poesia... Eraberritzaileen eginkizuna ez da huskeria. Neurri herritarrez, joskera narratiboz, joskera narratibo-dramatikoz, erabilerazko figuraz, mintzaira aurrikusgarriz eta, hitz batean, poetaren subjetibotasunetik iragazi ez diren poema ugariz beteta dago tradizio hori, nahiz eta besterik bilatu duen poemarik ere aurkitu, ez bait dira guztiak lanketaz eta sorkuntza-mailaz berdinak. Beraz, eraberrikuntzak bere gain duen egitekoa ez da badaezpadakoa. Baina Agirrek eta gerraurreko eleberrigileek ez zuten humus hori bera ere aurkitu.

Honela dio J.I. Ferrerasek:

> "en un novelar, sin una producción de novelas, sin un grupo de novelistas, sin una industria editorial y sin un público, no nacen, no pueden nacer títulos de excepción, obras importantes" (39).

Euskal eleberrigintzari produkzioa bera ere falta zaio, poesigintzari ez bezala.

Tradizioak hartzen duen pisuak bereizten ditu mintzagai diren euskal poesigintza eta eleberrigintza. Baina desberdintasun hau ez ezik, besteren bat ere aurkitu ahal izango da.

Eleberriaren mintzaira eta poesiarena ez dirudi berdinak direnik. M. Bakhtin oinarri duela, honela mintzo da J.M. Lasagabaster eleberriaren mintzairari buruz:

> "Esos lenguajes que se acumulan y se combinan en el recinto textual de la novela tienen referentes sociales: la estratificación de los diferentes usos lingüísticos como expresión de la diversidad social: la lengua nacional que se diversifica en dialectos sociales, idiolectos de los grupos, jergas profesionales, lenguajes de los géneros, de las generaciones, de las ideologías" (40).

---

(39) FERRERAS, J.I.; **Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830)**, 307. or.

(40) LASAGABASTER, J.M.; "La novela vasca al borde de la realidad" in **II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura Biltzarra. Euskal literatura eta bere intertestualitatea**, II, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1988, 164. or.

Lirikaren mintzairan ez ditugu erreferentzia sozial horiek atzematen, ez ditugu "dialekto sozialak" entzuten. Poetaren "ego" bortitz horren iragazitik iragazten bait da erreferentzia soziala, erreferentzia soziala poemara ekartzen bada ere, edo, ekartzen denetan ere, subjetibitate bat azaltzeko aitzakia bihurtuz (41). "Ni" baten berbaldiak ordezkatzen ditu soziolektoak.

Eleberria hautatzen dute sortzeko bide Agirrek eta bere ondorengo eleberrigileek, hots, poesigintzaren eraberrikuntzari garaikide zaizkion eleberrigileek. Aukera honek, eleberria hautatzeak adierazpen-bitartekotzat alegia, kanpoko mundua, "ego"-arengandik at gelditzen diren kanpoko gauzak, mundu "objetiboa" errepresentatzea bilatzera daramatza (42). Eta kanpoko mundu horretan soziolektoekin topo egiten dute. Besterik da, ordea, soziolekto horiek testua den esparru horretara eraman zituzten ala ez, edo alor honetan hartu zuten jokabidea.

Diglosi egoera erakusten die kanpoko mundu horrek. Azterlan honen lehen atalean esaten denez, erdi-mailako klase sozial profesionalek ez dute euskaraz ikasi eta ez dira euskaraz bizi. Eta hemendik bertatik hainbat eta hainbat jerga profesionalek, talde-idiolektok ez dute bizitzarik errepresentagaitzat hartu nahi den mundu horretan.

Azken finean, euskaldungoak mintzaira uniformea eskaintzen ez badu ere, ezin uka talde-idiolektoek murrizketa gogorra ezagutzen dutenik euskararen errealitate linguistikoan.

Euskal eleberrigintzaren eraberrikuntzak, neurri batean behintzat, egoera diglosikoaren hausketa ere eska zezakeen, nahiz eta egoera diglosikoaren hausketak ez zeukan besterik gabe zertan eraberrikuntzarik ekarri.

Agirrek eta mende erdi luze batean zehar berak erakutsitako

---

(41) R. Jakobsonek genero poetiko desberdinak funtzio poetikoarekin eta berbaldian eman daitezkeen beste funtzioekin jarri zituen harremanetan. Funtzio poetikoa da nagusi guztietan, baina horren nagusitasunaren azpian besteren bat ere nabarmentzen da. Hala dakus lirika: "orientada hacia la primera persona, está íntimamente ligada a la función emotiva". Ik. JAKOBSON, R.; "Lingüística y poética" in **Ensayos de lingüística general**, 39. or.

(42) Honela lekutzen du epika aurreko oin-oharrean aipaturiko R. Jakobsonek: "La épica, que se concreta a la tercera persona, involucra de manera firme el aspecto referencial del lenguaje". **Ibidem**, 39. or.

ereduaren ildotik idazten duten eleberrigileek ez dute, azken finean, euskal mundua errepresentatzea bilatzen, ezta orohar mundua errepresentatzea ere; baizik eta munduak eta bereziki euskal munduak izan beharko lukeena. BEHAR LUKE horren menpe dago beren eleberrigintza. Eta BEHAR hori ez zaio, azken finean, arrotza izango ezta hizkuntz erabilerei ere; aitzitik, hizkuntz erabilera hauek BEHAR LUKEEN MUNDU hori eraikitzeko bitarteko bihurtuko dira gainontzeko elementuekin batera.

Egoera diglosikoak maila desberdinetako oztopoak jartzen zituen dialekto sozialak testuratzeko. Eta egoera diglosiko honen aurrean euskaraz bizi ziren talde sozialak bakarrik testuratzera jo zuten, baserritarrez, arrantzalez eta abarrez hornitutako eleberriak eskainiz. Hala ere, bazegoen hizkuntz erabileren mailan etekin handiagoa ateratzerik egindako aukeran bertan. Izan ere, esate baterako, ez ote du, ba, adierazpenik aurkitzen hizkuntz erabileran **Auñemendiko Lore**ako Pedro Mari morroiaren eta honen ugazaba Arnoldoren arteko desberdintasun sozialak edo morroi horren eta Riktrudis Mendiolako alabaren artekoak? **Auñemendiko Lore**an, EZ.

Ezin esan Agirreren eleberrietan, eta orohar mintzagai diren eleberrietan, desberdintasun sozialek edo-ta ideologikoek eraginiko hizkuntz erabilera desberdinik ez dagoenik (**Kresala**n, esate baterako, Indianoa eta "itsasagintari zarra") edo-ta karakterrek edo betetzen duten funtzioek eraginikorik (**Garoa**n, esate baterako, Ana Josepa eta Joanes). Agirreren eleberriei dagozkienak izan dira mintzagai idazle honen eleberrien deskripzioari eskaini zaizkion ataletan.

Baina, hala ere, zentsura-ekarle erraldoi bihurtzen da BEHAR LUKE hori. Pertsonaien hizkuntz erabilerak baldintzatzen ditu eta tonalitate bakar baterako norabidean bideratzen dituen faktore bihurtzen dira azken finean dekoroa gorde beharrez eraikitako mundu dikotomiko horretan antiereduak errepresentatzera behartzen diren pertsonaia horien ahotsari eskainitako tarte laburra (laburra ereduen ahotsari eskaintzen zaionarekiko), mintzaira eredugarria irakurleari eskaini nahia, hau bere hizkuntzan jantziagoa bihur dadin...

Beraz, egoera diglosikoa ez da derrigor hizkuntz erabileren eragile bakarra. Baldin eta zinez Euskal Herriko (zentzu geografikoan) gizartea errepresentatzea bilatu izan balute, egoera diglosiko hori maila desberdinetako arazoen iturri-sortzaile latza bihurtuko zate-

keen, baina Euskal Herriko gizarteak izan beharko lukeena errepresentatzea hautatzean ez du halako eraginik hartzen.

Izan ere, euskal prosaren tradizioak erakusten duen erabilgarritasunetik askatu ezinik ote dabil artean bizitza laburra ezagutu duen euskal prosa narratiboa?

Euskal prosak irakurlegoa hezitzea bilatu du salbuespenik gabe. Poesiaren alorrak, berriz, beti gorde dio lekuren bat zain epikureoaren adierazpenari, igorpen-modu desberdinetan bada ere. Eleberrigintzak zuzia jasotzerakoan ere hezitzea bilatuko du. Baina zain epikureo horrek prosan lekurik izan ez zuen bezala, eleberrigintzan ere ez du aurkituko. Esan dezagun oso modu sinple, eskematiko eta orokorrean, orokortze-prozesu orok dakartzan arrisku guztiekin: euskaldunak izan beharko lukeenean hezitzeko espazio (eleberria) bihurtzen da, santitate-bizitzan eta euskaran hezitzea bilatzen zuen espazioa (prosa diskurtsiboa). Bi zutabe nagusiren gainean eraikitzen da izaera hori: santitatea eta euskara. Balore hauei atxikitze hutsa —euskara, komunikazio-tresna bera ere balore bihurtzen bait da— beste zenbait baloreren sortzaile izango da besterik gabe: zintzotasuna, euskal ohituren jarraitzaile izatea... Lehen bi balore horiek beste zenbait erdiestea inplikatzen dute, aipatu balore hauek bi horiei atxikiak daudelako.

Beraz, badu oraindik ere eginkizunik euskal eleberrigileak: bere gain hartu du nortasun batek izan beharko lukeena adieraztea. Hainbat faktore estraliterariok —maila sozio-politikoan lekutuko liratekeenak, besteak beste— kolokan jartzen duen nortasun hori edo kolokan jar dezaketena gordetzeko lekugune bihurtuko da eleberria. Aseezina zerien erromantikoei, eta aseezinik jarraitzen du Euskal Herriak zenbait amets errealitate bihurtu ez direlako. Ametsek ametsen errainuan dirauten denboraldi honetan orroe bihurtzen da izpiritu erromantikoa eta XX. mendearen lehen erdiko eleberrigintza osora heltzen da bere oihartzuna. Eleberrigintza honek eskainitako lekugunean aurkituko du babesa ametsak, zeini errealitateak desarroilo naturala ukatzen dion. Eleberrigintza bihurtuko da gordeleku: euskaltasunaren esentzia gorde behar du; beraz, ezin bihur daiteke euskaldunaren existentziaren berri eman dezakeen lekugune. Eta bere gain hartu duen eginkizun honek —kanalizazio naturala aurkitu ez duten amets batzuren gordeleku bihurtzea— eragozten dio euskal eleberrigintzari modernitatera jaiotzea, modernitateak gizakiaren

zentzu historikoa duen neurrian, honen historizitatea aldarrikatzen duen neurrian, gizakiaren existentziari lotzea suposatzen duen neurrian (43). Etengabeko aldaketari lotuz gero, zeinek eta nola gordeko ditu kanalizazio natural baten gabeziak higadura ikaragarri baten menpe jar dezakeen nortasun hori? Euskal gizakiaren existentziaren berri ematera bideratuz gero, zeinek eta nola gordeko ditu honen esentziak?

Eleberrigintzak bere gain hartuko du euskaldunaren ezaugarri prototipikotzat jo diren haien gordeleku bihurtzea eta are prototipikoago izaten laguntzea. Eta hemen ez dago lekurik ez euskaldunaren existentziarentzat, ez euskaldun banakoarentzat eta ez beronen kezkentzat. Esentziak gainezarri egiten zaizkio existentziari. Esentziak diren edo-ta izan beharko luketenaren berriemaile bihurtzen da eleberrigintza.

Poesia, berriz, ez da bideratu euskal mundua dena edo izan beharko lukeena errepresentatzera, mundu hori erreferentzitzat hartu badu ere. Eta horrexegatik, eta bere "ego"-aren iragazitik iragazi duen neurrian, eleberrigintzaren "aje" horietatik at gelditzen da.

Beraz, nahiz eta euskal eleberrigintzaren eraberrikuntzak egoera diglosikoaren hausketa eskatu, besterik gabe, egoera diglosikoaren hausketak ez zuen eraberrikuntzarik ekarri behar derrigor, izan beharko lukeen mundua errepresentatzen jarraitzen zuen neurrian.

Dena den, egoera diglosikoak eleberrigileari aurkezten dion arazoa ez da hutsala, berarengandik at gelditzen den mundu horrekin dituen harremanak direla-ta. Izan ere, nobelaren nahiz antzerkiaren mintzairek erreferente sozialak aurkitzen dituzte. Eta hona helduta, guztiz adierazgarria iruditzen zaigu K. Echegarayk 1901. urtean euskal antzerkia dela-ta egindako azalpena:

> "Los personajes que desfilan por las tablas son siempre, con rarísimas excepciones, pertenecientes á las mismas clases sociales: labradores, pescadores, obreros, indianos, alguno que otro galán joven,

(43) P. Guiraud-ek Erretorika mintzagai duela, ez dakusa berau erregela-bilduma soil moduan, baizik eta areago kultura baten adierazpen moduan, mundu-ikuskera baten adierazpen moduan. Erretorikaren markoaren hausketa XVIII. mendean lekutuko du. Mende honek muga bat ezartzen bait du bi mundu-ikuskeren artean, nahiz eta muga zehatza ez izan. Jeneralizatuz —eta asko jeneralizatuz— esentzialista eta existentzialista deitu ahal izango lirateke muga horiek. Ik. GUIRAUD, P.; **La estilística**, 35-39. orr.

como diríamos en lenguaje de bastidores, por caso raro. Se obra así por exigencias de la verosimilitud y de las leyes o cánones del arte dramático. Como esas son las clases que de ordinario se valen del vascuence en sus conversaciones cuotidianas, ellas son las únicas que pueden presentarse en escena hablando el idioma de Aitor, sin que esto pugne con la realidad y les impide volar por horizontes más extensos, en que quizá pudieran desarrollar más libremente sus facultades" (44).

K. Echegarayren ustez egiantzekotasuna gorde beharrak ezartzen dizkio "bizitza-murrizketa" hauek euskal antzerkigileari. Eta ez ote da ari egoera diglosiko hori "bizitza-murrizketa" ezartzen euskal eleberrigintzan? Kasualitate hutsa ote kanpoko mundua errepresentatzen duten bi testu-tipoek eraberrikuntzarik ez ezagutzea "ni" baten azalpena bilatzen duen lirikak aire berriak dastatu nahi dituenean?

K. Echegarayk planteatzen duen egiantzekotasunaren arazoa konplexua da (45), eta gaurkotasunik galdu ez duena, gainera (46).

---

(44) ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, 49. or.

(45) Egiantzekotasunaren esparrua labainkorra izan daiteke. Zeren eta ez ote dago gai honen inguruan idazlan konkretu bati barnekoa izan dakiokeen egiantzekotasuna kanpokoa den egiantzekotasun batekin (errealitate soziolinguistikokoa, ideologikoa) nahasterik? Alegia, ez ote daiteke gerta barne-egiantzekotasunak eskaturik kanpoko egiantzekotasuna haustea eta irakurleak artifizial ez aurkitzea barne-koherentzia duelako? Gogoan hartzen dugu J.M. Lasagabasterrek M. Zarateren **Haurgintza minetan** eleberriko polizien kilimatraka ulertezin hori dela-ta azaldutakoa: "El recurso, que es, en el fondo inverosímil, sirve a una finalidad de la novela más alta que la mera reproducción verosímil de la realidad: expresar, mediante la dialogía discursiva, el enfrentamiento irreconciliable de actitudes e intereses entre dos grupos sociales, más allá o con independencia de una posible diversificación lingüística". LASAGABASTER, J.M.; "La novela vasca al borde de la realidad" in **II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura Biltzarra. Euskal literatura eta bere intertestualitatea**, II, 170. or.

(46) Euskal kontaketagintzaren eta errealitatearen harremana behin eta berriz bihurtu da mintzagai hizkuntza eta hizkera mailan. Batua/euskalkiak, euskara/erdarak eta abarrek kontaketan duten erabilera, edo izan dezaketena edo izan beharko luketena, kanpo-errealitatearekin modu bateko edo besteko harremana gordetzeko...; horra hor azken urte hauetako kritikari arrotzak ez zaizkion gaiak. Ikus, esate baterako, HERNANDEZ ABAITUA, M.; "Hizkuntza, hizkera eta erdera euskal narratiban" in **Oh! euzkadi**, 12. alea, 1981; edo-ta artikulu honi erantzun gisa J. Azurmendik eskainitakoa: "Nobelaren geroaz eta nobelako hizkeraz" in **Oh! euzkadi**, 13. alea, 1981; edo-ta aurreko oin-oharrean aipatutako J.M. Lasagabasterren hitzaldia bera.

Baina, dena den, ez dago ukatzerik egoera diglosikoak ere izan dezakeela eraginik euskal eleberrigintza dialekto sozialen garapen-leku ez bihurtze horretan, garai honetako antzerkia bihurtu ez zen bezala. Eta zinez, nahiz eta bien artean desberdintasunik izan, ez da berdintasunik ere falta: testu-tradizio urria, egiantzekotasuna gordetzeko oztopoak jartzen dizkien egoera diglosikoa, dialekto sozial mailako murrizketak direla bide, arazo-gehikuntza sorketa mailan...

Nolanahi ere, poesiaren eraberrikuntza eta eleberrigintzaren ankilosatze honi eskainitako berbaldi honetan, bada beste alderdi bat, berbaldi horren osagarri bihur daitekeena: harrerarena, hain zuzen ere.

Agirrek eta bere ondorengo eleberrigileek ezin izan zuten irakurlego zabal batera iritsi (47); ezta, seguraski, eraberrikuntzaren bideari heldu zioten poetek ere.

Lehen atalean erdi-mailako irakurlegoaren azaleratze eta zabaltzeari lotu zaio besteak beste eleberriaren garapena. Esan ere esan da horiek ez badute euskaraz irakurtzen, nekez izan dezakeela euskal eleberriak irakurlego sendorik. Egoerak ez du aldaketa kualitatiborik izan hogeigarren mendearen lehen erdian, irakurlegoaren hedapenari dagokionez; baina ez da erdeinagarria, mendea aurreratu ahalean, gero eta hedatuagoa den eskolaratzetik sortuz doan irakurlego potentziala. Hala ere, ez dago ahazterik eskolaratze honek gazteleraz izaten jarraitzen duela. Hitz batean esanda, indarrean diraute XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran euskararen eta euskal irakurlegoaren hedapenaren kaltetan eragin zuten faktore soziolinguistiko eta linguistikoek, nahiz eta alderdiren batean leunago zitezkeen.

X. Lizardik edo Lauaxetak jakin behar dute: beren hizkuntz

---

(47) J.A. Irazustak edo-ta J. Eizagirrek euskarazko irakurleak sortzeko bide ikusten dute eleberrigintza. Honela zioen J.A. Irazustak: "Eun urtetik ununtz irakurle mordoak sortu dira. Orain nunai idatzi leike asko ta merke, salduko dan ustean. Eta alaxe gertatzen da. Bañan gu eun urte oietan besteren mendean izan gera, gure izkuntza gutxik irakurtzen zuela; ikastoletan erdera besterik ez; eta, nolatan edestizunak idatzi?, norentzat?; nork irakurri lezazkikean?

Uts ortan gaude. Uts ortatik ateratzeko norbaitek asiera eman bear, bestela beti utsean egongo giñake. Ta alaxe asi nai nuke nere au ditugun pixkeri bat geiago erantsitzeko". IRAZUSTA'TAR, J.A.; "Sarrera" in **Joañixio**, 7-8. orr. Honela, berriz, J. Eizagirrek: Euskara "mintzatu ta irakurri bearrean gera, eta irakurtzeko irakurgaiak bear ditugu noski". EIZAGIRRE'TAR, J.; "Aurretik" in **Ekaitzpean. Ipuinberri**, 4. or.

aukerak, garatu nahi duten poesigintza-moduak eta poesigintza-modu hau ezagutzera ematen erabilitako kanalizazio-moduek ezin ditu hartzailego zabal batekin harremanetan jarri; ez dute popularitasun ikaragarri bat bitarteko betikotasunik lortuko. X. Lizardik edo Lauaxetak erabakia dute: beren garaiko "aukeratuekin" edo, elastikotasun handixeago edo txikiagoarekin, "oso aukeratuekin" hitz egingo dute. Beren poesia dasta dezaketen euskaldun gutxi horiei zuzentzen diete landutako superhitza.

Kanta (bertsolarien gisa) eta bertso-papera baztertu egin dituzte igorpen-modutzat, poesia metaforiko baten bilaketan enpeinatzen ari dira... Eta euskaldungoaren gehiengoak, baita garai-modu hauetan ere, lehen atalean esaten zenez, bertso-paperak edo bertso-paper hauen bidez eskaini eta batipat narratiboa den bertsogintza dastatzen jarraitzen du.

Hizkuntz aukerak ere ez ditu eraman balore batzuren defentsa-leku bihurtzera testuak. Alderdi politikoren batekin edo egoera sozio-politiko batekin hartu zuten konpromezurik, baina beren sorkuntza-lana autonomiaren bideetan jartzeko eragozpenik gabe.

Ez eleberrigintzak, ez eraberrikuntzari lotutako poesigintza honek aurkituko du euskarri handirik irakurlegoarengan; baina beharbada eleberrigintzaren garapenak euskarri handiagoa behar zuen, edo nahi zuen, eta ez zuen erdietsi. Aldiz, poesigintza honek ez zuen nahi izan amore ematea popularrago izateagatik.

Agirrek eta bere ondorengo eleberrigileek prosa narratibo "kultua" hautatzen dute adierazpen-modutzat, irakurketa pribatua eskatzen duen kontaketa-prosa.

G. Arruek eskaini zuen **Brabanteko Jenobeba** batipat entzupen publikoa bitarteko (familian edo jostundegian egina) heldu zen euskaldungoaren ezaguerara. Erakargarri bihurtu ziren testuaren leiendazko osagaiak edo beste osagairen batzu eta abegi ona egin zion hartzailegoak. Bestalde, historia hori, historiak hartutako taxutze-modua, erabilitako mintzaira... egokitu egiten zitzaizkion entzupen publikoari; alegia, entzunez dastatzeko moduko historia kontatzen zuen: historia hori eraikitzen erabilitako baliabideek entzunez jasotzea zilegiztatzen zuten.

Baina nekez igorri zitezkeen bide horren bitartez Agirreren eleberriak, edo A. Anabitarterenak, edo J. A. Irazustarena, eta orohar

mintzagai den aldi honetako eleberrigintza. Testuek hartzen duten itxuratze-moduek eragotzi egiten dute hartzailearenganako kanalizazio-modu hau.

Beraz, irakurketa pribatua eskatzen dute, X. Lizardiren edo Lauaxetaren poemen antzera eta, honenbestez, oso urria den irakurlego bati zuzentzea.

Baina badirudi euskal eleberrigileek ez dutela irakurlegoa hautatzean asmatzen; hobeto eta zehatzago esanda, ez dutela narratarioa (48) eraikitzean asmatzen.

Agirreren eleberrietako kontalariek edo J.A. Irazustarenek edo tartean lekutzen diren eleberrietako kontalariek kultura oso apaleko pertsonaiak hautatzen dituzte beren eleberriak eraikitzeko: baserritarrak, arrantzaleak...; hitz batean, pertsonaia herritarrak; eta jadanik azaldutako koordenaden barnean ematen dute horien bizimoduaren berri. Beraz, badirudi talde sozial honi zuzentzen zaiola bereziki eleberrigintza hau, euskaldungoaren gehiengoa barneratzen duen talde sozialari, hain zuzen ere. Honenbestez, hemen lekutzen da narratarioa. Horra igortzen du eleberri hauetan sortuz doan narratario otzan eta erraz limurtzen uzten denak, eta badirudi geruza sozial horretan kokatzen diren irakurleengan aurkituko lukeela kidea.

Baina talde sozial hori euskalduna bada ere, oso bakan eta urri izan da eskolatua, gazteleraz edo frantsesez izan ere; alfabetatu eta eskolatu urri horiexek dira, hain zuzen ere, zenbaitetan alfabetatuak ere izan ez diren haiei ahots goraz testuak irakurtzen dizkietenak. Mendea aurreratu ahalean alda daiteke zerbait egoera, baina luzaroan dirau XX. mendearen hastapenetan.

Eta talde sozial hau ez da orohar eleberrigintza honen irakurle bihurtzen; izan ere, "erdi-ahozkotasuna" deituriko estiloan edo ahozko hutsean dastatzen bait ditu batipat ekintza ritualak. Hor dituzte gogoko arreta-guneak, hor kontatzen bait da entzun nahi dutena. Agirrek eta honen ondorengo eleberrigintzak irakurketa isila eta

(48) G. Prince-rentzat, kontaketa batean egilea eta kontalaria bereizten diren bezala irakurlea eta narratarioa ere berezi egiten dira. Kontalariak bere berbaldia pertsona-mota batzuri zuzentzen die: hauek osatzen dute narratarioa. Kontaketek beren "irakurleak" edo "entzuleak" sortzen dituzte. "Irakurle" edo "entzule" hauek bat etor daitezke ala ez irakurle errealekin. Ik. PRINCE, G.; "Introduction à l'étude du narrataire" in **Poétique**, IV, 1973, 178-196. orr.

banakakoa eskatzen die. Eta baserritarrez, arrantzalez... eta herri xehez beterik badaude ere, ez dizkie beraiek gogoko dituzten historiak kontatzen. Amore ematea izan ala ez izan, talde sozial hori irakurketara erakartzeko kontzesioak izan ala ez, hor dago Agirreren eleberrietan, eta aldi honetako eleberririk gehienetan, osagai folletineskoaren presentzia. Eta gauza jakina da zein talde sozialetan lekutzen den batipat folletinaren irakurlea.

Baina euskal eleberrigintzan folletina osagai bat besterik ez da, beste zenbaiten artean. Eta beste zenbait hauek eragotzi egiten diote —edo oztopoak jarri behintzat bai— folletinzaleari dastatzea.

Agian hartzailego zabalagoa lortuko zuketen ildo hau gehiago zabaldu izan balute, entzupen publiko baten bidez jasotzeko moduan itxuratuz. Baina ez zuten aukera hau egin, ezta "aukeratu" gutxi batzuri zuzentzea erabaki ere, dirudienez; osagai folletineskoa bera, kontalariek irakurleari zuzentzean hartzen duten jarrera (sarri askotan haur bat bailitzan gidatu nahian), hezi nahi elemental eta primario hori... ezin izan daitezke "aukeratuekin" hitz egiteko elementurik aproposenak. Elitismo xume batetik ere urrundu egiten ditu azkenean euskal munduak izan beharko lukeena errepresentatu nahian hain planteamendu primario, sinple, ulerterraz eta edonorentzat eskuragarria izango dena egin behar horrek.

Beraz, urria zen poesigintzaren eraberritzaileen irakurlegoa, eleberrigintzarenean bezala; hala ere, uste dugu lehenengoen testuetatik jalgiz doan irakurle inplizituak aurki dezakeela, bakan bada ere, irakurlerik gizarte-errealitatean; testu horien itxuratze-moduak ez dirudi beste eskakizunik duenik. Baina besterik gerta daiteke eleberrigintzarekin: narratario horrek oso irakurle gutxi aurkitzea errealitate sozialean, berez askoz irakurlego zabalagoa izatea bilatzen zuenean.

Irakurle inplizitu eta irakurlegoaren arteko harremanean eleberrigintzak eta poesigintzak azal dezaketen desberdintasun honek ere izan dezake zerikusirik eraberrikuntzarekin.

Poetak eraberrikuntzari lotu zaizkio, eraberrikuntza honek hartzailegoaren hedapenean izan dezakeen kostua bere gain hartuz —gutxi batzurentzako produktu bihurtzea, alegia (49)—. Eleberrigileek

(49) Honela zioen Jautarkolek **El Día** egunkarian 1933.ean, X. Lizardiren **Biotz-begietan** argitara berritan: "No está hecho para los lectores que están acostumbrados a

lehenean diraute, hartzailego zabala eskuratu nahian seguraski; baina, narratario-irakurle adostasunik eza bide, ez batzurentzat ez besteentzat den produktua eskainiz, batzuren eta besteen arteko gutxi batzurengana helduz.

Faktore hauek nahiz besteren batzu egon daitezke XX. mendearen lehen erdian eleberrigintzak ezagutzen duen ankilosatzean eta poesigintzaren eraberrikuntzan. Baina, nahiz eta besterik egon eta beste hauek eraginkorragoak izan, ez dugu uste lerro hauetan azaldutakoak funtsik gabeak izan daitezkeenik.

Gatozen labur-labur eleberrigintzaren eraberrikuntzak zer dakarren ikustera, egindako azalpenaren argitan.

Eleberrigintzaren eraberrikuntzaren hastapenak Txillardegiren **Leturia-ren egunkari ezkutua**rekin 1957. urtean lekutuz, honako eraldaketa hauek somatzen dira orain artean azaldu diren faktore horiei so:

—Txillardegik eten egiten du eleberrigintza mende erdi batean ehotuz joan den tradizio urri eta ahula. Baina etendura hau ez da seguraski mende honen hogeitahamargarren hamarkadaren inguruan poesiaren eraberrikuntzak bere aurreko poesigintzarekiko suposatu zuenaren galga berekoa. Euskal poesigintzaren tradizioa beregana zezaketen poeta horiek eta tradizio horren errautsetatik indar eman poesigintza berriari. Baina Txillardegik eta bere ondorengo beste zenbait eleberrigilek eten egiten dute; tradizio ahul horrek existituko ez balu bezala eraikitzen dituzte beren eleberriak. Edo areago: tradizioa erreferentzi puntutzat hartzen bada, berarengandik ahalik eta urrutien lekutzeko da.

Beharbada tradizio horrek ez zukeen ezer probetxuzkorik eta hautsi beharra zegoen erabat. Beharbada ongi sustraitu gabeko tradizioa zen. Dena dela, poesiaren eraberrikuntzak eta eleberrigintzak tradizioarekiko jokabide desberdinak hartzen dituzte. Honako konstatazio hau izan daiteke horren argigarri: poesigintzaren eraberrikuntzan soma daitezke "maile-

poesía de fácil comprensión. Es un salto gigantesco el que este libro representa en el momento actual". L. Otaegik aipatua **El Día** egunkariaren ekainaren zortziko alera igortzen du. Ik. OTAEGI, L.; "Lizardiren poetikaz" in **Jakin**, 29, 1983, 41. or.

guak", eta lan desberdinetan aztertu da (50); baina etena dakarren eleberria nahiz beste eleberrigintza-modu batetik etena dakarten eleberriek aztertzean, "mailegutza" nabarmenegia dutela azpimarkatu da (51). Beraz, badirudi poesiaren eraberrikuntzak erakarritako "maileguak" altxor propioan integratu ahal izan zirela, baina eleberrigintzak erakarritako "maileguek" ez zutela praktikan altxorrik aurkitu bertan integratzeko.

—Txillardegik eta orohar bide desberdinetatik eleberrigintzaren eraberrikuntzari heltzen dioten eleberrigileek zeharo baztertu dute kanpoko munduak izan beharko lukeena errepresentatzea. Baina kanpoko mundua errepresentatzeari ere iruzur egin diote batipat nobela liriko baterantz abiatuz eta nobela liriko honen esparruan babesa bilatuz.

Errealitate soziolinguistikoak murrizketak ezarriz jarraitzen du dialekto sozialetan. Hirurogeigarren hamarkadan euskara batuaren hastapenak ezartzeari ekingo zaio. Egiantzekotasunaren arazoak arazo izaten jarraitzen du. Are gehiago: euskara batu horren eta euskalkien arteko koexistentziak, besteak beste, gehitu egiten ditu egiantzekotasunaren alor horretako arazoak...

Nobela-mota liriko baterantz bideratze hau, "ego" bat bihurtzea espazio nobelesko, ez da oharkabean gertatu, eta gogoeta nahiz galdera-iturri bihurtu da (52). Dena den, arestian azal-

---

(50) Ikus, esate baterako, KORTAZAR, J.; "Ohar parea Lizardiren iturriez" in **Jakin**, 29, 1983, 103-106. orr.

(51) Hona hemen J.M. Lasagabasterren hitzak: "Nere iritziz, mekanikoegia gertatu da orohar kanpoko ereduon imitazioa, gure euskal nobelagintzaren aldetik, gure nobelaren tradizioak bereganatu, asimilatu eta integratu gabe, hain zuzen". LASAGABASTER, J.M.; "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" in **Jakin**, 22, 145. or.

(52) "Parece como si los narradores tuvieran miedo a enfrentarse con la realidad histórico-social, pasada o presente, o a narrar desde la aséptica distancia de un narrador externo y objetivo". Eta aurreraxeago: "¿Se deberá tal vez a una especie de atracción ancestral de lo lírico, tan enraizado en la tradición literaria vasca? ¿O se trata más bien de una simple realización en la literatura vasca de ese dato bastante común a la narrativa contemporánea que es un progresivo desleimiento de las fronteras entre lo épico y lo lírico?". LASAGABASTER, J.M.; "Introducción a la narrativa vasca actual" in **Antología de la narrativa vasca actual**, 37. or.

duriko panorama linguistiko-soziolinguistikoa eragozpen-iturri bihurtzen zaio euskal eleberrigilearen sorketa-lanari, eleberrigintzak kanpoko mundua errepresentatzea bilatzen duen neurrian. Ildo honetan adierazgarriak izan daitezke J.M. Lasagabasterren hitzak:

> "La novela vasca, no puede menos de tener, los mismos límites que tiene el euskara, como seña de identidad y de diversificación social. Es aquí donde se hace problemática la relación del novelista con la lengua: en el punto mismo donde el sistema abstracto, el código, se hace uso social específico de un grupo" (53).

—Aurreko aldiko eleberrigintzan, poesiaren eraberrikuntzan ez bezala, narratario eta irakurlearen arteko harremanetan ezkongaiztasun bat ikusten zen; orain mintzagai den eleberri eraberritu honetan, berriz, ezkongaiztasun horrekin hautsi egiten dela dirudi.

Euskal irakurlegoa historikoki urria izan da, eta urria izaten jarraitzen du. Baina eleberrigintzaren eraberrikuntzan saiatu diren eleberrigileei ez zaie irakurlegoa hedatzeko ahaleginik somatzen; ez dute amore ematen.

Aurreko aldiko eleberrigintzaren lekua baserritarrek, arrantzaleek eta hauen bizimoduek bezala, hiritarrak eta beronen kezkak hartuko dute oraingoarena. Eta badirudi testu hauetan barrena itxuratuz doan narratarioak ere euskaldun erdi-mailako hiritar urri horrengan aurkitu nahi duela irakurlea, irakurlego hori talde sozial handiagoetara hedatzeko amore eman gabe. Testuen itxuratze-moduak hartzaile mugatu samar bat aurkitzen du. Eta horrela nahiz poesigintzaren eraberrikuntzak nahiz eleberrigintzarenak —aurreko eleberrigintzak ez bezala— **publikoak** sortzera lagunduko dute, publiko-modu homogeneo eta uniformearen amaiera-bidea jarriz. Badirudi estratifikazio eta heterogeneotasun markatu eta konstante baten ordua ere heldu dela euskal poesigintza-eleberrietara eraberrikuntzarekin batera.

Dena den, faktore estraliterarioen eragina ez zaio, seguraski, arrotza deskribaturiko egoera honi. Euskalduna gero eta gehiago ari da eskolaratzen eta eskolatu bihurtzen gure egunetara hurbildu aha-

(53) LASAGABASTER, J.M.; "La novela vasca al borde de la realidad" in **II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura Biltzarra. Euskal literatura eta bere intertestualitatea**, II, 178. or.

lean; haziz doa euskararen presentzia eskolaratze-orduan; komunikabideen garapenak erraztu egiten du ideien eta estiloen harat-hunata... Azken batean, aldatuz doa errealitate soziolinguistikoa eta kulturala: gutxiago ala gehiago, zuzen ala oker, koloreztatua ala kolorazio handirik gabe, gutxiagotzen ari da dialekto sozialen murrizketa: ez da nobedade hutsa zenbait talde sozial nahiz etnikori euskaraz entzutea... Zenbait faktore estraliterarioren aldaketa bera ere lagungarri bihur dakioke eleberriaren garapen sendoari.

3. EUSKAL LETREN PANORAMAREN ESPARRUA ZABALDUZ

Lehen atalean esaten zenez, kronologikoki eusko alegigileen ondoren idatzi zituzten beren alegiak euskal alegigileek, eusko leiendagileen ondoren etorri ziren euskal leiendagileak, eusko eleberri historikoen ondoren euskal eleberri historikoa, eusko kostunbrismoaren ondoren euskal kostunbrismoa.

XIX-XX. mendeen arteko mugan ematen zaio hasiera mende erdi luze batez jarraipena emango zaion euskal eleberrigintza historiko-kostunbrista baten tradizioari. Baina XIX-XX. mendeen arteko muga horretan beste norabide batzu hartuz etengo du eusko eleberrigintzak —adjetibo hori eztabaida ideologikorik gabe erabiltzen jarrai badaiteke behintzat— J.V. Araquistain, V. Arana, F. Navarro Villoslada, J.M. Goizueta, A. Campion eta abar eraikiz joan ziren tradizio historiko-leiendazkoa.

Lehenik eta behin, M. Unamuno euskaldunberriak edo-ta P. Barojak hizkuntz aukera bat egiten dute edo-ta, seguraski, ez dago aukerarik: beren irudimen-mundua hizkuntza horretan bakarrik adieraz zezaketen. Ezagunak dira lehenak euskarari buruz jalgi zituen iritziak (54), eta ez litzateke hau horiek gogoratzeko lekua; ezta beraiei buruz eman diren interpretazioetan gelditzekoa ere. Zarata gehiagorekin edo gutxiagorekin, zenbait sentsibilitate gehiago edo gutxiago zaurituz, egindako aukeraren arrazoiak justifikatuaz ala ez, azkenean

(54) Ik. adibiderik aipatuenetako moduan UNAMUNO, M. de; "Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901" in **La raza y la lengua (Obras completas, IV)**, Escelicer, Madrid, 1966, 237-248. orr. "El bizkaitarrismo y el vascuence" artikuluan baietsi egiten ditu aurrekoan azalduriko ikuspuntuak (op. cit., 251-255. orr.). Ramiro de Maeztu ere bere alde azaltzen da artikuluxka labur batean: "Un comentario de Ramiro de Maeztu sobre el discurso de Unamuno" (op. cit., 248-250. orr.).

nahiz batari eta nahiz besteari —eta aipatu ere egin ez diren eta erreferentzi puntutzat hartu ere egingo ez diren beste batzuri—, hizkuntza batek (gaztelerak, kasu honetan) egin zien dei sorketarako (55). Bigarrenik, hautsi egiten dute eusko tradizio historiko-leiendazkoa.

Garbi dago: hizkuntz aukerak berak at uzten ditu aurrerago azaldu diren euskal eleberrigintzaren hastapen-garapenetako hainbat berezitasunetatik (tradiziorik eza, dialekto sozialak, irakurlegoa...). Baina horren ondoan esan beharra dago hautsi egiten dutela eusko tradizio hurbilarekin ere.

Eleberri historikoa landuko dute Unamunok —**Paz en la guerra** (1897)— eta Barojak —**Zalacain el aventurero** (1909) edo **La leyenda de Jaun Alzate** (1922)—. Baina eleberri historikoa eleberri historiko-errealista bihurtzen da berengan; eleberri historiko-leiendazkotako heroe ez-problematikoa, berriz, heroe problematiko; eta historia, azterketa arkeologiko baterako lan-tresna ez, baina irudimen sortzailearena. Ez da atzera begiratzen Euskal Herriko gizartearen ezaugarri prototipikoak bilatzeko asmotan; ez dago ezeren apologiarik egin beharrik. Eleberria ez da apologi leku.

Barojak Euskal Herrira begiratzen duenean, nahiz bere lehenaldira nahiz idazketa-garaiko orainaldira, kontatu ez den historia hura kontatzeari ekingo dio; izan ere, bere begirada sarkorrak aurreko kontaketagintzak aurkitu ez zituen heterodoxoak aurkitu bait ditu, esentzien gordelari ez diren haiek, beraien bizitza propioa egiten dutenak.

Agirreren eleberrigintza eta berak hasten duen aldia mintzagai, "ortzian izar finkoak" dituztela esan da. Galderarik gabeko mundua dakarte, erantzunak dituena. Halakoa zekarten eusko kontaketagile historiko-leiendazkoek ere. Besterik da Barojaren mundua. J.M. Lasagabasterrek honela dio **La leyenda de Jaun de Alzate**ri buruz:

---

(55) J.M. Lasagabasterrek honela dio P. Barojaz diharduelarik: "Baroja escribió en la única lengua en que podía hacer literatura, que es exactamente lo que les ocurre a la inmensa mayoría de los escritores; porque en el fondo no es el escritor el que escoge la lengua, sino ésta la que llama, provoca y domina, de algún modo, al escritor. Las excepciones a esta regla, poquísimas en la historia de la literatura, no se dan desde luego entre nosotros". LASAGABASTER, J.M.; "Las novelas de la tierra vasca: Lectura con moraleja" in **III Jornadas Internacionales de Literatura. Pío Baroja**, San Sebastián, 11-15 abril, 1988. (Hitzaldiak inprimategian).

"El mundo de Jaun de Alzate, refractario a la harmonía preestablecida de la providencia cristiana y abandonado por los viejos dioses vascos, es un mundo sin amarras, capeando malamente las embestidas del Destino" (56).

Eusko-euskal kontaketek atzera begiratzen dutenean, loriaz betetako lehenaldia aurkituko dute; eta lehenaldi hori errekuperatzea, ezagutzera ematea bilatuko dute helburu jakin batekin: orainaldiak gorde ditzala lehenaldi horretara egin duten bidaian aurkitutako baloreak. Barojak egiten duen bidaia ez da horretarako izango; gizabanako konformagaitz, errebelde batzuren existentzia adierazteko baizik.

Funtsean, jarrera desberdin honek bereizten ditu, batetik, eraberrikuntza dakarten eusko eleberrigileak eta, bestetik, hauei garaikide zaizkien euskal eleberrigileak eta aurretikako eusko eleberrigintza.

Eraberritzaileek gizabanakoak aurkitu dituzte errealitatea begiztatu dutenean eta ez prototipoak; historiak kontatu dituzte eta histori itxurak baztertu; banakotasuna aurkitu dute erreferentzi puntutzat hartutako errealitatean eta ez esentziak hezur-haragitzen dituzten izaki batzu. Azken batean, batzuentzat testua ibilbide existentzial bat adierazteko lekugune bihurtzen da, besteentzat esentzia batzuren gordelari.

Eta, izan ere, errealitatearen aurrean kokatzeko eta errealitatea ikusteko bi modu desberdin dira funtsean.

L. Mitxelenak Txillardegiren **Leturia-ren egunkari ezkutuari** hitzaurrea egitean, eleberri honen lau aldiak, lau tempoak, direla-ta, Lizardiren **Urte-giroak** (lau sasoi, halaber) gogoratzen ditu, eta Txillardegiren eta Lizardiren mundua alderatzen. Pasarte luze samar bat aldatuko dugu hona, ondorio mailan oso argigarria izan daitekeelakoan:

"Ezta zalantzarik Lizardi'gan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, etzen paretetan artesi-

(56) LASAGABASTER, J.M.; "Las novelas de la tierra vasca: Lectura con moraleja" in **III Jornadas Internacionales de Literatura. Pío Baroja**, (inprimategian).

turik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi ta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal-erria zeukan, euskal-lurraldea zugaitz ugariz jantzita. Etzuen inongo amets-erritara iges egin bearrik. Aski zuen aurrean zeukana kontatzearekin.

Engañatua zebillen. Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta eztirela berealakoan paketuko" (57).

Lizardik munduan lekutzeko modu horretatik eraberritu ahal izan zuen poesigintza, baina beharbada lekutze-modu horretatik ezin eraberritu zitekeen eleberrigintza, batak eta besteak errealitatearekiko gordetzen duten harreman desberdinagatik. Alegia, bataren jarrera lirikoarentzat errealitatea aitzakia besterik ez da bihurtzen bere subjetibitatearen azalpenerako, baina eleberrigileak gizartearen bizitza bera adieraztea bilatzen du, eta gizarte horretako gorabeherak adieraztean —ez erreportaia dokumental moduan, jakina— bizitza bera errepresentatzen du eta honekin batera bizitza ikusteko modua.

Lurrikarak helduta zeuden Barojaren garairako. Barojak berak XIX-XX. mende-mugako krisi-garaitik idazten du, eszeptizismotik, jarrera ez-erlijioso batetik. Ez dago egiarik, egiak daude... Eta, honenbestez, ez ditu derrigorrez gurasoengandik datozkion sineste, bizimodu, uste eta iritziak bere hartan ontzat eman behar; ez dauka agindurik ematen dion federik, ez dauka bizileku sendorik. Ibili dabilen mundua da berea. Euskal kontaketagileak eta bere aurretikako eusko kontaketagileak geldirik dagoen munduan bizi dira: mundu ziurrean.

Barojaren mundua astintzen zuen lurrikara ez zen euskal eleberrigileengana heldu; ez ziren ohartu edo-ta nahiago izan zuten beren mundu tinkoan bizi izaten jarraitzea. Eta euskal eleberrigintza errealismotik iragazi gabe gelditu zen, historiak kontatzen asmatu gabe, errealitatea narratiboki adierazi gabe.

Geografikoki hain hurbil zuten Barojaren oihartzuna heldu ez bazitzaien, are gutxiago heldu zitzaien mende honen hogeigarren hamarkadaren inguruan "iraultza nobelesko" izendapenez ere ezagutu den eleberrigintzaren aldaketa ikaragarria. Lurrikara sakona dago oinarrian, mundu-ikuskera aldaketa bortitza gizartean, eta eleberriak

(57) MITXELENA, L.; "Sarrera-itz batzu" in TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturiaren egunkari ezkutua**, 12. or.

aldatu egingo ditu teknika narratiboak gizakiak munduan hartzen duen kokamendua adierazteko. Kokamendu berria adierazteko, beharturik dago teknika narratiboak aldatzera; izan ere, teknika hauek ez bait dira apaindura hutsa, Agirreren eleberrigintza aztertzean ikusi ahal izan denez; aitzitik, mundua ikusteko moduaren adierazpen-bitarteko. Baina euskal eleberrigileak lehenean dirau: J. Joyce-ren, V. Woolf-en, A. Gide-ren, M. Proust-en edo F. Kafka-ren izenek ez diote ezer esaten beroni, edo ezer esango ez baliote bezala azaltzen da behintzat.

Gerra bat, bigarren mundu-gerratea (1939-1945), eta honen inguruan sortzen den giro hitsa, balore-krisia helduko da eleberrigintzara. Aurreko aldietan bezala, eleberriak jasoko du gizartera heldu den egoera berria, gizartea harrapatu duen dardara. Existentzialismoaren bidez adieraziko du filosofiak; eta popularTu, jende-multzo handiagoetara helerazi eleberriak.

Bai, lurrikara hau helduko da euskal gizartera eta euskal eleberrigintzara. Lurrikara hau izango da, hain zuzen ere, Txillardegiren **Leturia-ren egunkari ezkutua** adierazten hasiko dena.

Txillardegiren mundua da eta bere mundu hori adierazi nahi du. Eta horretarako egokiak izan daitezkeen adierazpen-bitartekoak behar ditu. Hutsune handi bat da eleberrigintzaren tradizioa; tradizio horretan ez dago historiarik, histori itxurak baizik. "Mailegutza" bortitza inposatzen da. Ez dago praktikan altxor propiorik maileguak integratzeko. Eta mailegua maileguaren gainean dator. Eta, izan ere, errealismoaren eta naturalismoaren garaian finkatu baditu eleberriak "bere nortasun literario eta semantikoa, eta gainera bere narotasun eta betetasuna" (58), euskal eleberrigintzak ez ditu finkatu. Eta nobela berpiztu egiten bada "behin eta berriro bere hautsetatik, Fenix hegaztia bezalaxe, bere sorburu errealistarekin lotzen duten zilbor-hestetik bizi-jarraipenerako arnasa eta kemen berria hartuz" (59), euskal eleberrigintzak ez dauka errautsik zeinetatik berpiztu.

Ez dirudi Agirrek jarritako hastapenak aldatsik gabeak izan zirenik. Baina horra hor, euskal eleberrigilearentzako desafio berria.

---

(58) LASAGABASTER, J.M.; "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" in **Jakin**, 22, 147. or.

(59) **Ibidem**, 147-148. orr.

VIII. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

AUÑEMENDIKO LOREA. LEHEN BI ARGITALPENEN ARTEKO HIZKUNTZ DESBERDITASUNAK:

Euskalzale, II, 1898 — Euskalzalen moldagintzan, Bilbon, 1898

AUÑEMENDIKO LOREA

Euskalzale, II, 1898	Kap.	Or.	Euskalzalen moldagintzan, Bilbon, 1898	Kap.	Or.
—bearko	I	19	—bèarko	I	9
—izanaz	I	19	—izan naz	I	9
—emakume	I	19	—emakuma	I	10
—beltz	I	19	—baltz	I	11
—Euskal-Erriaren	I	19	—Euskal-erriaren	I	11
—iasten	I	19	—iausten	I	12
—!eure anaiak,...!	I	19	—!eure anaiak,...!	I	12
—!ai, orduan!	I	20	—!ai orduan!	I	12
—bazan	I	20	—ban	I	12
—Euskal-Erriak	I	20	—Euskalerriak	I	13
—zintzoak: Saratzuko...	I	20	—zintzoak: ara or Saratzuko...	I	13

—Gonzalo,	I	20	—Gonzalo	I	13
—urte, 581	I	20	—urte 581	I	13
—gureak	I	20	—Iatzi ziran menditik gureak	I	13
—eruan	I	20	—eroan	I	13
—lurretik	I	20	—lurretatik	I	13
—apindupekoak	I	20	—agindupekoak	I	14
—iakuzan	I	20	—iakozan	I	14
—Tenial	I	20	—Jenial	I	14
—guda zurrumurroa	I	20	—guda-zurrumurroa	I	15
—Zerk	I	26	—Zek	I	15
—kabia	I	26	—abia	I	15
—Izango	I	26	—ioango	I	16
—Noiztik az eurezkorra?	I	27	—Noiztik az aiñ eurezkorra?	I	17
—Maite ta maite abee	I	27	—Maite dozuz ta maite abee	I	17
—ni noiana	I	27	—ninoiana	I	17
—aingezu	I	27	—aingeru	I	18
—andre	I	27	—andra	I	19
—amaitu ondorean	I	27	—amaitu-ondorean	I	20
—kampora	I	27	—kanpora	I	20
—guztia	I	28	—guztiz	I	21
—ainbezte	I	28	—ainbeste	I	22
—Onenbeztegaz	I	28	—onenbestegaz	I	22
—naigabeak	I	28	—naibageak	I	22
—euskaldun arteko	I	28	—euskaldun-arteko	I	22
—naigabeak	I	28	—naibageak	I	22
—landa luze bat dago iarrita	II	34	—landa bat dago luze luze iarrita	II	23
—errekako	II	34	—erretako	II	23
—ule	II	34	—uel	II	23
—darizkiola	II	35	—dariozala	II	25
—geunskuzulakoan	II	35	—eunskuzulakoan	II	26
—batzun	II	35	—batzuk	II	26
—iritšia	II	35	—eritšia	II	26
—zakurrak	II	35	—tšakurrak	II	27
—¿zer... matasea?	II	35	—!zer... matasea!	II	27
—besoa	II	35	—beso	II	27
—išil-išilik	II	35	—išil-išilik	II	27
—Euskal-erriaren	II	35	—Euskalerriaren	II	28
—sartu	II	35	—sartuko	II	28
—adimentua	III	46	—adimendua	III	29

—bestien	III	46	—besteen	III	29
—Euskal-erri	III	46	—Euskalerri	III	29
—ustez	III	46	—antzera	III	29
—bezte	III	47	—beste	III	30
—mugonean	III	47	—magonean	III	30
—abagunietan	III	47	—abaguneetan	III	30
—"gudarokoa"	III	47	—"gudarakoa"	III	30
—emaste	III	47	—emazte	III	32
—Osinbeltzek	III	47	—Ozinbeltzek	III	32
—zeruruntz	III	48	—zerurontz	III	35
—orratiño	IV	53	—orraitiño	IV	36
—tsokerreria	IV	53	—tsokorreria	IV	36
—eakazan	IV	53	—eukazan	IV	36
—azterrenik	IV	53	—asterrenik	IV	37
—dotan	IV	53	—dodan	IV	37
—orreke	IV	53	—orrek e	IV	37
—esagutu	IV	53	—ezagutu	IV	37
—irabasteko	IV	53	—irabazteko	IV	38
—gaintsurizkat	IV	53	—gaintsurizkak	IV	38
—erakutzi	IV	53	—erakutsi	IV	38
—atseratuko	IV	53	—atzeratuko	IV	38
—es	IV	54	—ez	IV	38
—esagutu	IV	54	—ezagutu	IV	37
—Zakurrak	IV	54	—Tsakurrak	IV	38
—tsen	IV	54	—sen	IV	38
—noizian	IV	54	—noizean	IV	38
—benik	IV	54	—beinik	IV	39
—atiak	IV	54	—ateak	IV	39
—gorputs	IV	54	—gorputz	IV	40
—nebilenean	IV	54	—nenbilenean	IV	40
—gorputs	IV	54	—gorputz	IV	40
—zartadean	IV	54	—zartadeak	IV	41
—azkenengo	IV	55	—azkenenko	IV	42
—¿Zeintzan...?	V	61	—¿Zein zan...?	V	43
—kondien	V	61	—kondeen	V	43
—zeu ze	V	61	—zeure	V	43
—batera	V	61	—batez	V	44
—arretso	V	61	—arrentso	V	44
—etezebiltzan	V	61	—etezenbiltzan	V	44
—gaistokoaren	V	61	—gaiztokoaren	V	44
—irabasteko	V	61	—irabazteko	V	44
—gisakoena	V	61	—gizakoena	V	44
—oiñotzut	V	61	—oiñotsut	V	44

—Berialašen	V	61	—Berealaše	V	45
—naigabe	V	61	—naibage	V	45
—irabasteko	V	61	—irabazteko	V	45
—deutzat	V	61	—deutsat	V	45
—Atari aldean	V	61	—Atari-aldean	V	45
—etorriko	V	61	—etorri	V	45
—esagutu	V	61	—ezagutu	V	45
—itaunduten	V	61	—itanduten	V	46
—buruak	V	62	—burua	V	46
—esagutu	V	62	—ezagutu	V	47
—gaistokeri	V	62	—gaiztokeri	V	47
—bestenparauen	V	62	—beste enparauen	V	47
—ausokoai	V	62	—auzokoai	V	47
—ausoko	V	62	—auzoko	V	47
—diadarka	V	62	—deadarka	V	47
—badeutzut	V	62	—badeutsut	V	48
—naigabe	V	62	—naibage	V	48
—leuskizue	V	62	—leuskizue euskaldunok	V	48
—guda zaleak	V	62	—guda-zaleak	V	48
—aurrenaurrenengo	V	62	—aurren aurrenengo	V	49
—deritsaionenetatik	V	62	—deritšenetatik	V	49
—azurre-taraiñoko	V	62	—azurretaraiñoko	V	49
—onian	V	62	—onean	V	49
—atserritarrentzat	V	62	—atzerritarrentzat	V	49
—gauzia	V	63	—gauzea	V	49
—mingarria	V	63	—mingarria zuek	V	50
—esagutuak	V	63	—ezagutuak	V	50
—eruanaz	V	63	—eroanaz	V	50
—Zeuregana oriše esatera etorri naz	V	63	—Oriše esatera etorri natšatzu	V	50
—Zaizala, Arnoldo	V	63	—Zaizala	V	50
—bizar zuri	V	63	—bizar-zuri	V	51
—aurketaria	V	63	—aurkeztaria	V	51
—ogetamar-enbat	V	63	—ogetamarrenbat	V	51
—berdenagoa	V	63	—lerdenagoa	V	51
—gorriška	V	63	—gorrizka	V	51
—ziñuan	V	63	—ziñoan	V	51
—esagutu zaiezuen	V	63	—ezagutu daizuen	V	51
—urtietan	V	63	—urteetan	V	51
—eginkisun	V	63	—eginkizun	V	51
—esagutuko	V	63	—ezagutuko	V	51
—laguntzak	V	63	—laguntzat	V	52
—orren	V	63	—orrek	V	52

—oiarzon	V	63	—oiarzun	V	52
—ausokoari	V	63	—auzokoari	V	52
—arima barruan	V	63	—arima-barruan	V	52
—gaizkiezalen	V	63	—gaizkiesalen	V	52
—izango niretzat	V	63	—izango da niretzat	V	52
—erakutziko	V	63	—erakutsiko	V	52
—neurien	V	63	—neureen	V	52
—esagutu	V	63	—ezagutu	V	52
—dinaskuzu	V	63	—dirauskuzu	V	53
—esagututen	V	63	—ezagututen	V	53
—andikua	V	64	—andikoa	V	53
—esagutu	V	64	—ezagutu	V	53
—maluki	VI	70	—mailuki	VI	54
—motz	VI	70	—mots	VI	55
—Adiskidea	VI	70	—Aiskidea	VI	55
—ezalda	VI	70	—ez alda	VI	55
—baten	VI	71	—katen	VI	56
—deitzotzu	VI	71	—deitšozu	VI	57
—beinberez	VI	71	—bein berez	VI	57
—zeu	VI	71	—zu	VI	57
—eteduan	VI	71	—etedoan	VI	58
—egin	VI	71	—egiñ	VI	59
—da	VI	72	—ta	VI	59
—nagusi-etsekoandrak	VII	78	—nagusi-etšekoandrak	VII	61
—iaio-ta	VII	78	—iaio ta	VII	61
—ziarduan	VII	78	—ziarduen	VII	61
—Baserrietako	VII	79	—Basarietako	VII	61
—iauregi ondoko	VII	79	—iauregi-ondoko	VII	62
—Zeuretzat	VII	79	—zuretzat	VII	62
—atari aldera	VII	79	—atari-aldera	VII	62
—etsen	VII	79	—eutsen	VII	63
—Euskal-errira	VII	79	—Euskalerrira	VII	64
—bide kurutzetan	VII	79	—bide-kurutzetan	VII	65
—neskatšak	VII	86	—neskatiĺeak	VII	66
—Uste orretan sartu ziran beste otsein guztiak bere	VII	86	—Beste otsein guztiak bere uste orretan sartu ziran	VII	66
—etzan	VII	86	—etzana	VII	66
—egin ostean	VII	86	—egin-ostean	VII	66
—ete dau	VII	86	—etedau	VII	67
—egun usaiñagaz	VIII	86	—egun-usaiñagaz	VIII	68
—nai-ezko	VIII	86	—nai ezko	VIII	69
—ziñuanez	VIII	86	—ziñoanez	VIII	69

—bearlekua	VIII	87	—bear lekua	VIII	70
—bas-elizatsõ	VIII	87	—baselizatsõ	VIII	70
—ziñuan	VIII	87	—ziñoan	VIII	70
—urridsa aldodana	VIII	87	—urria al dodana	VIII	70
—badaukat	VIII	87	—daukat	VIII	70
—oñetakoak	VIII	87	—oiñetakoak	VIII	71
—orralzaldaera	VIII	87	—orratzaldaera	VIII	71
—jira bira	VIII	87	—jira-bira	VIII	71
—Zu zaran	VIII	87	—I azan	VIII	72
—eztozu	VIII	87	—ezton	VIII	72
—gogorte guztian	VIII	87	—gogarte guztiak	VIII	72
—daukana	VIII	90	—daunana	VIII	72
—eukana	VIII	90	—euana	VIII	72
—eukan	VIII	90	—euan	VIII	72
—dituzuta	VIII	90	—dituzu-ta	VIII	73
—Aspaldietako gudak prankotarrakgaitik egundaiñoko gauzarik onenak esan zituan	VIII	90	—Autortu euskun aspaldietako gudak prankotarrakgaitik izan zirala ta euskaldunakgaitik egundaiñoko gauzarik onenak esan zituan	VIII	73
—diñozu	VIII	90	—diñon	VIII	73
—eztozu	VIII	90	—ezton	VIII	73
—eutsànaz	VIII	90	—eutsanaz	VIII	73
—emoten euskunaz	VIII	90	—emoten	VIII	73
—eutsan	VIII	90	—eustan	VIII	74
—litzatekez da	VIII	90	—litzatekez-da	VIII	74
—iruditu	VIII	91	—irudituko	VIII	74
—zeutsula	VIII	91	—eutsula	VIII	74
—Entzuizu	VIII	91	—Entzuin	VIII	75
—deustazu	VIII	91	—deustan	VIII	75
—neutsulako	VIII	91	—neualako	VIII	75
—zeu	VIII	91	—eu	VIII	75
—deustazu	VIII	91	—deustan	VIII	75
—biotz barruan	IX	101	—biotz-barruan	IX	76
—tolostura artean	IX	101	—tolostura-artean	IX	76
—deutsuen	IX	101	—deitsuen	IX	76
—gzian	IX	101	—gizan	IX	76
—Ezta izaten beti errez erantzutea	IX	101	—Ezta beti errez izaten... erantzutea	IX	78
—prankotarra ikusi ebela Amandoren	IX	101	—prankotarra Amandoren etsean	IX	78

etšean			ikusi ebela		
—eutsan	IX	101	—eutsen	IX	78
—dozu	IX	102	—dok	IX	80
—iatzu	IX	102	—iak	IX	80
—daust	IX	102	—deust	IX	80
—nagosiaren	IX	102	—nagusiaren	IX	80
—bizintarte	IX	102	—bezintarte	IX	80
—naiezko	IX	102	—naiezkoa	IX	80
—zeuk	IX	102	—euk	IX	80
—egizu	IX	102	—egik	IX	80
—deutsu	IX	102	—deusk	IX	80
—zeuk	IX	102	—euk	IX	81
—deutsazue	IX	102	—deutsek	IX	81
—zure	IX	102	—ire	IX	81
—zu	IX	102	—i	IX	81
—Il barria	IX	103	—Il-barria	IX	81
—etše-iaun	IX	103	—etše iaun	IX	81
—Ozinbeltzaldetik	IX	103	—Ozinbeltz-aldetik	IX	81
—aldirenbat	IX	103	—aldiren bat	IX	81
—giza	IX	103	—gisa	IX	81
—Iaregiko	IX	103	—Iauregiko	IX	82
—atoekaleakgaitik	IX	103	—ardurakgaitik	IX	82
—gizagaišoa	X	118	—gisagaišoa	X	83
—urtien	X	118	—urteen	X	83
—izen goitia	X	118	—izengoitia	X	83
—gisakoak	X	118	—gizakoak	X	83
—semien	X	118	—semeen	X	83
—ilziralako	X	118	—il ziralako	X	83
—erakutzi	X	118	—erakutsi	X	83
—gizonagaz	X	118	—gizonagan	X	84
—bestien	X	118	—besteen	X	84
—esagutu	X	118	—ezagutu	X	84
—ziñuan	X	118	—ziñoan	X	84
—erakutzi	X	118	—erakutsi	X	84
—esagutu	X	118	—ezagutu	X	84
—piškabat	X	118	—piška bat	X	84
—da ta	X	118	—da	X	84
—eruateko	X	119	—eroateko	X	85
—iazorik	X	119	—iasorik	X	85
—atsekabea	X	119	—atsekakea	X	85
—ziñuen	X	119	—ziñoen	X	85
—zestu	X	119	—zeetu	X	85
—gisategira	X	119	—gizategira	X	85

—oidaruen	X	119	—oidaroen	X	85
—dozuna	X	119	—donana	X	85
—dau	X	119	—dan	X	86
—emaste	X	119	—emazte	X	86
—aldoguna	X	119	—al doguna	X	86
—baia	X	119	—baiña	X	86
—deutzun	X	119	—deutsun	X	86
—iaunagana	X	119	—iauna gana	X	86
—beti	X	119	—bati	X	87
—erabilkola	X	119	—erakilkola	X	87
—ez-dautsudazu	X	119	—ez-dantzudazu	X	87
—oe ondotik	X	119	—oe-ondotik	X	87
—baina	X	119	—baiña	X	87
—emasteak	X	119	—emazteak	X	87
—esagutu	X	119	—ezagutu	X	88
—nitzateke	X	119	—nintzateke	X	88
—gisategi	X	120	—gizategi	X	88
—bistu	X	120	—biztu	X	88
—betoskinde	X	120	—lotoskinde	X	89
—bera	X	120	—kera	X	89
—lasto moltsoa	X	120	—lasto-moltsoa	X	89
—alebau	X	120	—aleban	X	89
—ziñuan	X	120	—ziñoan	X	89
—iratzaturik	X	120	—iratzarturik	X	89
—arretariz	X	120	—arretarik	X	89
—arluan	X	120	—arloan	X	89
—bazaz	X	120	—basaz	X	90
—zituan da	X	120	—zituan-da	X	90
—esagutu	X	120	—ezagutu	X	90
—sartutean	X	124	—sartzean	X	90
—ondorean	X	124	—ta bereala	X	90
—naigaberen	X	124	—naibageren	X	90
—naigabetu	X	124	—naibagetu	X	90
—Parka eske	X	124	—Parka-eske	X	90
—ate ondoan	X	124	—ate-ondoan	X	90
—gaistakeria	X	124	—gaiztakeria	X	91
—eruan	X	124	—eroan	X	91
—euen	X	124	—eben	X	91
—aldatu ondorean	X	124	—aldatu-ondorean	X	91
—izertaka	X	124	—izertara	X	92
—Sakramentua edo Orio Donea	X	124	—Orio Donea edo Sakramentua	X	92
—espanetaraiño	X	124	—ezpanetaraiño	X	92

—eruan eban	X	124	—eroan ekan	X	92
—parkaeria	X	124	—parkamena	X	92
—bikaiñargidotarra	X	124	—bikaiñ argidotarra	X	92
—ausokoak	X	124	—auzokoak	X	92
—ioan etorrian	XI	134	—ioan-etorrian	XI	93
—atari ondoan	XI	134	—atari-ondoan	XI	93
—Altzo-tšakurra	XI	134	—altzo-tšakurra	XI	93
—esagututen	XI	134	—ezagututen	XI	93
—bilutotasuna	XI	134	—bilutstasuna	XI	94
—agin artean	XI	134	—agiñ-artean	XI	94
—gozea	XI	134	—gozoa	XI	94
—erakutzi	XI	134	—erakutsi	XI	94
—esagun	XI	134	—ezagun	XI	95
—eskonduteagaitik	XI	134	—ezkonduteagaitik	XI	95
—samina	XI	134	—samiña	XI	95
—gaistoa	XI	134	—gaiztoa	XI	95
—Pedro Mari-ren	XI	134	—Pedro Mari ren	XI	95
—zituena	XI	134	—zituana	XI	95
—Barre gurea	XI	134	—Barre-gurea	XI	95
—esagututea	XI	135	—ezagututea	XI	96
—Egiazkoaren	XI	135	—egiazkoaren	XI	97
—piska	XI	135	—pizka	XI	97
—zaralata	XI	135	—zarala-ta	XI	97
—amatau	XI	135	—amatatu	XI	97
—buru apur	XI	135	—buru-apur	XI	98
—Ibasi	XI	135	—Ikasi	XI	98
—eruapena	XI	135	—eroapena	XI	98
—gaistoago	XI	135	—gaiztoago	XI	98
—lenbait-len	XI	135	—lenbait len	XI	99
—piska	XI	135	—pizka	XI	99
—barreguria	XI	135	—barregurea	XI	99
—zatšatuz	XI	135	—zatšataz	XI	99
—altzaituba	XI	135	—altzaitu ba	XI	99
—Eskerrikasko	XI	135	—Eskerrik asko	XI	99
—ausoak	XII	140	—auzoak	XII	100
—etšeatako	XII	140	—etše atako	XII	100
—biotzen	XII	140	—biatzen	XII	100
—batengaiñean	XII	140	—baten gaiñean	XII	100
—gorputza	XII	140	—gorpua	XII	100
—argi mutiletan	XII	140	—argi-mutiletan	XII	100
—eliz soiñekoakaz	XII	140	—eliz-soiñekoakaz	XII	100
—gaistakeri	XII	140	—gaiztakeri	XII	101
—gauzaz	XII	140	—guzaz	XII	101

—urbedeinkatuko	XII	140	—ur bedeinkatuko	XII	101
—gisateko	XII	140	—gizategiko	XII	101
—Erakutzi	XII	141	—Erakutsi	XII	101
—erezi	XII	141	—eresi	XII	102
—eguski	XII	141	—eguzki	XII	102
—alebanik	XII	141	—al ebanik	XII	102
—baleuka	XII	141	—balenka	XII	102
—ausoan	XII	141	—auzoan	XII	102
—iatan	XII	141	—iaten	XII	102
—lege zalea	XII	141	—lege-zalea	XII	103
—gisategiko	XII	141	—gizategiko	XII	103
—umesurtza	XII	141	—umezurtza	XII	103
—eguskia	XII	141	—eguzkia	XII	103
—gaistoak	XII	141	—gaiztoak	XII	103
—Esteustee	XII	141	—Ezteuste	XII	103
—daustee	XII	141	—deuste	XII	104
—erezi	XII	141	—eresi	XII	104
—erakutziak	XII	141	—erakutsiak	XII	104
—ereziak	XII	141	—eresiak	XII	104
—dan	XII	141	—dau	XII	104
—erezia	XII	141	—eresia	XII	104
—ereztu	XII	149	—erestu	XII	104
—erezlari	XII	149	—ereslari	XII	104
—ilzanetik	XII	149	—il zanetik	XII	104
—ereziak	XII	149	—eresiak	XII	105
—erezi	XII	149	—eresi	XII	105
—etorkozan malko-ariak	XII	149	—etorkozan-malko-ariak	XII	105
—menditatarrak	XII	149	—menditarrak	XII	105
—Odei aldean	XII	149	—Odei-aldean	XII	105
—goengoetan	XII	149	—gorengoetan	XII	105
—arkaitz zuloetako	XII	149	—arkaitz-zuloetako	XII	105
—zenutsen	XII	149	—zeuntzen	XII	105
—Au	XII	149	—an	XII	105
—ibai ondotik	XII	149	—ibai-ondotik	XII	106
—aizkora otsa	XII	149	—aizkora-otsa	XII	106
—oinak	XII	149	—oiuak	XII	106
—iatsuzan	XII	149	—iatzuzan	XII	106
—areriuak	XII	149	—arerioak	XII	106
—gaistoagaz	XII	149	—gaiztoagaz	XII	107
—ereziari	XII	149	—eresiari	XII	107
—Ĩ gaua	XII	150	—Ĩlgaua	XII	107
—esagututen	XII	150	—ezagututen	XII	107
—au	XIII	156	—an	XIII	108

—orri mueta	XIII	156	—orri-mueta	XIII	108
—muna azpietan	XIII	156	—muna-azpietan	XIII	108
—ate ostietan	XIII	156	—ate-ostietan	XIII	108
—erreka ondoetan	XIII	156	—erreka-ondoetan	XIII	108
—izan dakoakaz	XIII	156	—izandakoakaz	XIII	108
—aiseak	XIII	156	—aizeak	XIII	108
—piskabat	XIII	156	—pizka bat	XIII	108
—gorosti	XIII	156	—gorozti	XIII	108
—eguskiari	XIII	156	—eguzkiari	XIII	108
—españen	XIII	156	—ezpanen	XIII	109
—Ama alabak	XIII	156	—Ama-alabak	XIII	109
—eruan	XIII	156	—eroan	XIII	109
—arpegiz-arpegi	XIII	156	—arpegiz arpegi	XIII	109
—Egileari begiratu zion	XIII	156	—Egilea	XIII	109
—semien	XIII	156	—semeen	XIII	109
—umesurtza	XIII	156	—umezurtza	XIII	110
—Ausokoak	XIII	156	—Auzokoak	XIII	110
—negar gurea	XIII	156	—negar-gurea	XIII	110
—aidien	XIII	156	—aideen	XIII	110
—utzik	XIII	156	—utsik	XIII	110
—Esagutu	XIII	156	—Ezagutu	XIII	110
—alaba	XIII	157	—alaka	XIII	111
—erakutzi	XIII	157	—erakutsi	XIII	111
—esagutu	XIII	157	—ezagutu	XIII	111
—iai-oa	XIII	163	—iaioa	XIII	112
—data	XIII	163	—da-ta	XIII	112
—griña tartean	XIII	163	—griña-tartean	XIII	112
—erakutziko	XIII	163	—erakutsiko	XIII	112
—eruapena	XIII	163	—eroapena	XIII	112
—kurutze azpira	XIII	163	—kurutze-azpira	XIII	112
—eruango	XIII	163	—eroango	XIII	112
—ondo-izate	XIII	163	—ondo izate	XIII	112
—eruateko	XIII	163	—eroateko	XIII	113
—Bealdietan	XIII	163	—Bealdeetan	XIII	113
—gisara	XIII	164	—gizara	XIII	114
—erakutzi	XIII	164	—erakutsi	XIII	114
—arlua	XIII	164	—arloa	XIII	115
—piskabaten	XIII	164	—piska baten	XIII	115
—Orrezgaiñera	XIV	182	—Orrez gaiñera	XIV	116
—egiñ ondorean	XIV	182	—egiñ-ondorean	XIV	116
—Eztiñotzu	XIV	182	—Eztiñotsu	XIV	116
—argi arraiñu	XIV	182	—argi-erraiñu	XIV	117
—Osatuteko	XIV	182	—Osateko	XIV	117

—beiñikbein	XIV	182	—beiñik beiñ	XIV	117
—argi erraiñu	XIV	182	—argi-erraiñu	XIV	117
—erakutziaz	XIV	182	—erakutsiaz	XIV	117
—itsuriak	XIV	182	—itsureak	XIV	118
—gozatsuagaz	XIV	182	—gozotsuagaz	XIV	119
—ona arteko	XIV	182	—ona-arteko	XIV	119
—apezpiku	XIV	182	—apezpiko	XIV	119
—piska	XIV	182	—pizka	XIV	119
—eztaguz	XIV	183	—eztoguz	XIV	120
—tsarra	XIV	183	—tsarra alda	XIV	120
—natorren guztian	XIV	183	—natorrenetan	XIV	121
—zuaz	XIV	183	—zoaz	XIV	121
—buruari	XIV	183	—buruarentzat	XIV	121
—sortuten da gure...	XIV	183	—gure...	XIV	121
—eztakigula	XIV	183	—eztakigula sortu oida	XIV	121
—bestien	XIV	183	—besteen	XIV	121
—irudituten	XIV	183	—iruditen	XIV	121
—erri-maitetasuna	XIV	183	—erri maitetasuna	XIV	121
—bestien	XIV	183	—besteen	XIV	122
—esagutu	XIV	183	—ezagutu	XIV	122
—data	XIV	183	—da-ta	XIV	122
—iasoerea	XV	190	—iazoerea	XV	123
—eskonduteko	XV	190	—ezkonduteko	XV	123
—oe aurrera	XV	190	—oe-aurrera	XV	123
—baziralata	XV	190	—bazirala-ta	XV	124
—onian-onian	XV	190	—onean onean	XV	124
—errege usaiñekoakaz	XV	191	—errege-usaiñekoakaz	XV	124
—erakutzia	XV	191	—erakutsia	XV	124
—aldogunak aldoguna	XV	191	—al dogunak al doguna	XV	125
—asartuten	XV	191	—azartuten	XV	125
—lurrun artean	XV	191	—lurrun-artean	XV	125
—Eliza aurreko	XV	191	—Eliza-aurreko	XV	125
—zalata	XV	191	—zala-ta	XV	125
—ebenian	XV	191	—ebenean	XV	126
—piskabat	XV	191	—piska bat	XV	126
—bien	XV	191	—bein	XV	126
—esagutu ordurako	XV	191	—ezagutu-ordurako	XV	126
—trumoi egunetan	XV	191	—trumoi-egunetan	XV	127
—ekandu zalea	XV	191	—ekandu-zalea	XV	127
—len-legez	XV	191	—len legez	XV	127
—esagutu	XV	191	—ezagutu	XV	127
—dauken senean	XV	191	—euki izango darue, Amando adiskidetzat	XV	127

			dauken senean		
—zinuan	XV	192	—ziñoan	XV	128
—agirean	XV	192	—agirian	XV	128
—oĩlak	XV	192	—oialak	XV	128
—bazaz	XV	192	—basaz	XV	128
—edan ontzi	XV	192	—edan-ontzi	XV	128
—Ezaik	XV	192	—esaik	XV	128
—erariata	XV	192	—edaria-ta	XV	128
—dalata	XV	192	—dala-ta	XV	129
—leikezalata	XV	192	—leikezala-ta	XV	129
—itsĩkota	XV	192	—itsĩko-ta	XV	129
—egin	XV	200	—egun	XV	129
—Fedegaistoko	XV	200	—Fedegaiztoko	XV	130
—gizagaisoarena	XV	200	—gizagaisoarena	XV	130
—egin dakoan	XV	200	—egindakoan	XV	130
—Bake zalea	XV	200	—Bake-zalea	XV	130
—iatsu	XV	200	—iatzu	XV	131
—geiegizko	XV	200	—geiegizkoa	XV	131
—guria	XV	200	—gurea	XV	131
—daukaguta	XV	200	—daukagu-ta	XV	131
—apezpikuak	XV	200	—apezpikoak	XV	131
—zabaltzaĩiei	XVI	206	—zabaltzaĩeai	XVI	133
—lotsagabien	XVI	206	—lotsabageen	XVI	133
—iaole	XVI	206	—iagole	XVI	133
—egin	XVI	206	—iges	XVI	133
—agursik	XVI	206	—agurrik	XVI	133
—Larrosorotik	XVI	206	—Larrasorotik	XVI	134
—lazter	XVI	206	—laster	XVI	134
—eruan	XVI	207	—eroan	XVI	135
—eruan	XVI	207	—eroan	XVI	135
—Oretan	XVI	207	—Orretan	XVI	135
—dodalata	XVI	207	—dodala-ta	XVI	135
—esagutu	XVI	207	—ezagutu	XVI	136
—arraskero	XVI	207	—arrezkero	XVI	136
—gisakoak	XVI	207	—gizakoak	XVI	136
—esagutu	XVI	207	—ezagutu	XVI	136
—gaistoakaz	XVI	207	—gaiztoakaz	XVI	136
—esagutu	XVI	207	—ezagutu	XVI	137
—izutalbiak	XVI	207	—izutaldiak	XVI	137
—Zuek	XVI	215	—Zuk	XVI	137
—lakina	XVI	215	—lakiua	XVI	138
—Iñora ezin ioan neiteke ta	XVI	215	—	XVI	139

—buiña	XVI	216	—baiña	XVI	140
—garen-gorrengo	XVI	216	—goren-gorengo	XVI	140
—erezi	XVII	223	—eresi	XVII	141
—askoz	XVII	223	—azkoz	XVII	142
—senar emazteak	XVII	226	—senar-emazteak	XVII	143
—eban	XVII	226	—eben	XVII	144
—egaletatik	XVII	226	—egaletik	XVII	144
—gesertuak	XVII	226	—gosestuak	XVII	145
—"dšauts"	XVII	227	—"dšaust"	XVII	145
—esaguturik	XVII	227	—ezaguturik	XVII	145
—albaneu	XVII	227	—al baneu	XVII	145
—guztien	XVII	227	—guztietarako	XVII	146
—ausokoai	XVII	227	—auzokoai	XVII	146
—natzateun	XVII	227	—natšatzun	XVII	146
—Au	XVII	227	—An	XVII	147
—atan	XVII	227	—aitak	XVII	147
—Esagutu	XVII	227	—Ezagutu	XVII	147
—aldogun	XVII	227	—al dogun	XVII	147
—iatsu	XVII	227	—iatzu	XVII	147
—gazan	XVII	227	—goiazan	XVII	147
—esitsi	XVII	227	—esetsi	XVII	148
—Tšiki-tšikatatik	XVIII	238	—Tšiki-tšikitatik	XVIII	149
—eruaten	XVIII	238	—eroaten	XVIII	149
—fratu	XVIII	238	—frutu	XVIII	149
—alortugariak	XVIII	238	—alort ugariak	XVIII	149
—euron	XVIII	238	—emon	XVIII	149
—itandu	XVIII	238	—itanduten	XVIII	150
—nai iaso	XVIII	238	—iaso nai	XVIII	150
—Klobis II garrenaren	XVIII	238	—Klobis II-garrenaren	XVIII	151
—iauregi ta	XVIII	238	—iauregira	XVIII	151
—gogozko	XVIII	238	—gozozko	XVIII	151
—eztau	XVIII	238	—eztan	XVIII	151
—badeust	XVIII	238	—badeustazu	XVIII	151
—... deutsut	XVIII	238	—... deutsut-iarraitu eban erregek	XVIII	151
—eztau	XVIII	238	—eztan	XVIII	152
—kriskantza	XVIII	238	—triskantza	XVIII	152
—betetzera	XVIII	239	—betetera	XVIII	152
—erregere	XVIII	239	—erregeren	XVIII	152
—iatsu	XVIII	239	—iatzu	XVIII	153
—senar emazteak	XVIII	242	—senar-emazteak	XVIII	154
—umien	XVIII	242	—umeen	XVIII	154
—saldi gaiñetan	XVIII	242	—zaldi-gaiñetan	XVIII	155

—arriskoak	XVIII	242	—arriskuak	XVIII	155
—bidietan	XVIII	242	—bideetan	XVIII	155
—urtietan	XVIII	242	—urteetan	XVIII	155
—maitiena	XVIII	242	—maiteena	XVIII	156
—etšakidaz	XVIII	242	—etzakidaz	XVIII	156
—laguntasun bearrik	XVIII	242	—laguntasun-bearrik	XVIII	156
—piskaka-piskaka	XVIII	242	—pizkaka-pizkaka	XVIII	156
—Jesusi	XVIII	242	—Jesusen	XVIII	156
—irudi aurrean	XVIII	242	—irudi-aurrean	XVIII	156
—batak-bestea	XIX	252	—batak bestea	XIX	157
—fedegaistokoak	XIX	252	—fedegaiztokoak	XIX	158
—leidakean	XIX	252	—lekidan	XIX	158
—Orrezgaiñera	XIX	252	—Orrez gaiñera	XIX	158
—zoazalata	XIX	252	—zoazala-ta	XIX	158
—piškabat	XIX	252	—piška bat	XIX	158
—bide ondoan	XIX	252	—bide-ondoan	XIX	158
—badasteok	XIX	252	—bidaztiok	XIX	159
—biĩatu	XIX	252	—ibiĩi	XIX	159
—errutšu	XIX	252	—erritšu	XIX	159
—nitzateke	XIX	252	—nintzateke	XIX	159
—eualata	XIX	252	—euala-ta	XIX	159
—Ardi narru	XIX	252	—Ardi-narru	XIX	159
—naikua	XIX	252	—naikoa	XIX	160
—diñuen	XIX	252	—diñoen	XIX	160
—artu ondorean	XIX	253	—artu-ondorean	XIX	161
—arerioekandik	XIX	253	—arerioakandik	XIX	161
—uruiñ	XIX	253	—urruiñ	XIX	161
—astu	XIX	253	—aztu	XIX	161
—berdgandetasun	XIX	261	—beregandetasun	XIX	162
—eukazalata	XIX	261	—eukazala-ta	XIX	163
—Gont-hram ek	XIX	261	—Gont-hramek	XIX	163
—errukigarrizko	XIX	262	—erruki garrizko	XIX	164
—begirada	XX	268	—begira da	XX	167
—astu	XXI	268	—aztu	XXI	170

2. ERANSKINA

KRESALA. LEHEN BI ARGITALPENEN ARTEKO HIZKUNTZ DESBERDINTASUNAK:

Euskal-Erria,	XLV, 1901 XLVI, 1902 XLVI, 1902 XLVII, 1902 XLVIII, 1903 XLIX, 1903 L, 1904 LI, 1904 LII, 1905	Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1906, 2-garren agerraldia.

KRESALA

Euskal-Erria (1901-1905)	Tomoa	Kap.	Or.	F. Elosu, Durango, 1906	Kap.	Or.
—ipuintšu	XLV	—	501	—ipuintšu	—	5
—eskeltsu	XLV	—	501	—eskeltšu	—	5
—tšori errian	XLV	—	501	—tšorierrian	—	5
—aoturik	XLV	—	501	—asturik	—	5
—bere	XLV	—	502	—be	—	6
—prinzipioa	XLV	—	502	—principioa	—	7
—bere	XLV	—	502	—be	—	7
—gure	XLV	—	502	—nai	—	7
—esaten dabe	XLV	—	502	—esan daroe	—	7
—bere	XLV	—	502	—be	—	7
—Badakit	XLV	—	502	—Eztaukat astuta	—	7
—gichiagokoa	XLV	—	502	—gitšiagokoa	—	8
—badot	XLV	—	503	—batot	—	8
—aoetan	XLV	—	503	—auan	—	8
—bere	XLV	—	503	—be	—	8
—bere	XLV	—	503	—be	—	8
—bere ez	XLV	—	503	—bez	—	8
—izkira legeai	XLV	—	503	—izkira-legeai	—	9

—izkira lege	XLV	—	503	—izkiralege	—	9
—izan ezkero	XLV	—	503	—izanezkero	—	9
—esan	XLV	—	503	—esate	—	9
—bere	XLV	—	504	—be	—	10
—gatzgaran	XLV	—	504	—gatzgarau	—	10
—sartu	XLV	I	553	—sartu zan	I	12
—tamaluta	XLV	I	553	—ta maluta	I	12
—an	XLV	I	553	—au	I	12
—tallatuen	XLV	I	553	—tellatuen	I	12
—egin eutsan	XLV	I	553	—egieutsan	I	13
—andre	XLV	I	553	—emakume	I	13
—pote	XLV	I	553	—poto	I	13
—zidar ots	XLV	I	553	—zidar-ots	I	13
—iakon	XLV	I	554	—jakon	I	13
—bere ez	XLV	I	554	—bez	I	13
—bere	XLV	I	554	—be	I	13
—guztiak	XLV	I	554	—danak	I	13
—bere	XLV	I	554	—be	I	14
—igortziaz	XLV	I	554	—igortzika	I	14
—iakon	XLV	I	554	—jakon	I	14
—eskutan narik	XLV	I	554	—eskutan nairik	I	14
—bere	XLV	I	554	—be	I	14
—begira zan...	XLV	I	554	—begira egozanak ia ezeben ezer ikusten; agiri zan...	I	14
—baltzera	XLV	I	554	—baltzeran	I	14
—ebiltean	XLV	I	554	—ebiltzan	I	14
—ziar	XLV	I	555	—zear	I	15
—ebela	XLV	I	555	—ebiela	I	15
—eztaukenak	XLV	I	555	—eztaukienak	I	15
—Itšaserrieta	XLV	I	555	—Itšaserrietako	I	15
—daben	XLV	I	555	—dabien	I	15
—amaitu eskea	XLV	I	555	—amaitu eben eskea	I	15
—Igarbearen	XLV	I	555	—Igarlearen	I	16
—bere	XLV	I	556	—be	I	16
—benetago	XLV	I	556	—benetako	I	16
—urten ebenean	XLV	I	556	—urtebenean	I	17
—jakuezan	XLV	I	556	—jakoezan	I	17
—ebela	XLV	I	556	—ebiela	I	17
—bakotzak	XLV	I	556	—bakotšak	I	17
—esagututzen	XLV	I	556	—esagututean	I	17
—ezpalituz	XLV	I	556	—ezpalitue	I	17
—deituten eutsen	XLV	I	556	—deituteutsien	I	17
—erakusteben	XLV	I	556	—erakustebien	I	17

—bustiten eustsenean	XLV	I	556	—bustiteutsienean	I	17
—bere	XLV	I	556	—be	I	17
—kabietan	XLV	II	577	—iri edo kalietan	II	18
—dabe	XLV	II	577	—dabie	II	18
—ardantegiak	XLV	II	577	—ardangelak	II	19
—erreskadadan	XLV	II	578	—erreskadan	II	19
—koipetsuaren	XLV	II	578	—koipetšuaren	II	19
—barabillen	XLV	II	578	—darabillen	II	20
—dauken	XLV	II	578	—daukien	II	20
—bere	XLV	II	578	—be	II	20
—berez	XLV	II	578	—bez	II	20
—diñue	XLV	II	579	—diñoe	II	20
—deuskuenean	XLV	II	579	—deuskunean	II	21
—eman	XLV	II	579	—emen	II	21
—bere	XLV	II	579	—be	II	21
—bere	XLV	II	579	—be	II	21
—bere	XLV	II	579	—be	II	21
—Zumaiako	XLV	II	579	—Zumayako	II	21
—eutsen	XLV	II	579	—eutsien	II	22
—bere	XLV	II	580	—be	II	22
—bere	XLV	II	580	—be	II	22
—bere	XLV	II	580	—be	II	23
—palagau	XLV	II	580	—tšeratu	II	23
—bere	XLV	II	580	—be	II	23
—bere	XLV	II	580	—be	II	23
—Angelen bere ez?	XLV	II	580	—Angelek bez?	II	24
—bere	XLV	II	580	—be	II	24
—bere	XLV	II	581	—be	II	24
—bere ez	XLV	II	581	—bez	II	24
—beñberez	XLV	II	581	—beñ bez	II	24
—bere	XLV	II	581	—be	II	24
—bere	XLV	II	581	—be	II	25
—bere	XLV	II	581	—be	II	25
—bere	XLV	II	581	—be	II	25
—bere	XLV	II	582	—be	II	26
—esagutuzteben	XLV	II	582	—esagututeuen	II	26
—bage	XLV	II	582	—bagea	II	26
—Angelek	XLV	II	582	—Angelen	II	26
—bere	XLV	II	582	—be	II	27
—dauke	XLVI	III	70	—daukie	III	28
—dauke	XLVI	III	70	—daroe	III	28
—badeutse	XLVI	III	70	—badeutsie	III	28
—etsadiko	XLVI	III	70	—etšadiko	III	29

—badeutse	XLVI	III	71	—badeutsie	III	29
—Arranondoko-en	XLVI	III	71	—Arranondokoen	III	29
—bere	XLVI	III	71	—be	III	29
—bestean	XLVI	III	73	—besteak	III	34
—daukaguta	XLVI	III	73	—daukaguz ta	III	34
—Artoleroren	XLVI	III	73	—Artoberoren	III	34
—bere	XLVI	III	74	—be	III	34
—bere	XLVI	III	74	—be	III	34
—bere	XLVI	III	74	—be	III	34
—bere	XLVI	III	74	—be	III	34
—bere ez	XLVI	III	74	—bez	III	35
—Orain	XLVI	IV	248	—Oraiñ	IV	36
—187...ko neguaren	XLVI	IV	248	—oraiñdik ez antziña ta neguaren	IV	36
—potin-andirik	XLVI	IV	248	—potin andirik	IV	36
—eztaukela	XLVI	IV	248	—eztaukiela	IV	36
—erakusteben	XLVI	IV	248	—erakustebien	IV	37
—eukezan	XLVI	IV	249	—eukiezan	IV	37
—orrañ	XLVI	IV	249	—arrañ	IV	37
—oidabe	XLVI	IV	249	—oidabie	IV	38
—bere	XLVI	IV	249	—be	IV	38
—tatzuetan	XLVI	IV	249	—batzuetan	IV	38
—izkankillea	XLVI	IV	249	—izkanbillea	IV	38
—bere	XLVI	IV	249	—be	IV	38
—bere	XLVI	IV	249	—be	IV	38
—irabaztea gaitik	XLVI	IV	249	—irabazteagaitik	IV	38
—eskupekotšuak	XLVI	IV	249	—eskupekotšoak	IV	39
—bere	XLVI	IV	250	—be	IV	39
—baita bere	XLVI	IV	250	—baita	IV	39
—emotea	XLVI	IV	250	—emotea be	IV	39
—deutsez	XLVI	IV	250	—deutsiez	IV	39
—eztabelako	XLVI	IV	250	—eztabielako	IV	39
—bere ez	XLVI	IV	250	—bez	IV	39
—bere	XLVI	IV	250	—be	IV	40
—jakue	XLVI	IV	250	—jakoe	IV	40
—bere	XLVI	IV	250	—be	IV	40
—daben	XLVI	IV	250	—dabien	IV	40
—bakartšuak	XLVI	IV	250	—bakartšoak	IV	40
—dabe	XLVI	IV	250	—dabie	IV	40
—eztabe	XLVI	IV	250	—eztaue	IV	40
—bere	XLVI	IV	250	—be	IV	40
—eutsen	XLVI	IV	250	—eutsien	IV	40
—geigo	XLVI	IV	251	—geiago	IV	41
—nagoz	XLVI	IV	251	—nago	IV	41

—bere	XLVI	IV	251	—be	IV	41
—amabirak	XLVI	IV	251	—amabiak	IV	41
—daukez	XLVI	IV	251	—daukiez	IV	42
—leundunak	XLVI	IV	251	—leunduak	IV	42
—eruateben	XLVI	IV	252	—eruatebien	IV	42
—onenako	XLVI	IV	252	—oneneko	IV	42
—erantzuteutsen	XLVI	IV	252	—erantzuteutsien	IV	43
—negor	XLVI	IV	252	—negar	IV	43
—kegiak	XLVI	IV	252	—begiak	IV	43
—gogoz	XLVI	V	308	—gagoz	V	44
—dauken	XLVI	V	308	—daukien	V	44
—ill ezpadabe tšalen bat	XLVI	V	308	—tšalen bat illezpadabe	V	44
—bere	XLVI	V	308	—be	V	44
—eztabe	XLVI	V	309	—eztabie	V	45
—bere	XLVI	V	309	—be	V	45
—dabe	XLVI	V	309	—dabie	V	45
—dauke	XLVI	V	309	—daukie	V	46
—dabe	XLVI	V	309	—dabie	V	46
—bere	XLVI	V	309	—be	V	46
—era egoki	XLVI	V	309	—ereti	V	46
—bat-otzara	XLVI	V	309	—bal-otzara	V	46
—dabe	XLVI	V	309	—dabie	V	46
—dabe	XLVI	V	310	—dabie	V	47
—dabie	XLVI	V	310	—daue	V	47
—bere	XLVI	V	310	—be	V	47
—dabe	XLVI	V	310	—dabie	V	48
—bere ez	XLVI	V	310	—bez	V	48
—bere	XLVI	V	310	—be	V	48
—iritšiten	XLVI	V	310	—irizten	V	48
—dautse	XLVI	V	310	—dautsie	V	48
—bere	XLVI	V	310	—be	V	48
—lenenago	XLVI	V	310	—lenengo	V	48
—samau	XLVI	V	310	—zamau	V	48
—eztabe	XLVI	V	310	—eztaue	V	48
—bere	XLVI	V	311	—be	V	49
—bere	XLVI	V	311	—be	V	49
—dabela	XLVI	V	311	—dabiela	V	49
—bere	XLVI	V	311	—be	V	49
—ez	XLVI	V	311	—eztira	V	49
—bere	XLVI	V	311	—be	V	49
—bere	XLVI	V	311	—be	V	49
—eukiten dabe	XLVI	V	311	—euki daroe	V	49

—bere	XLVI	V	400	—be	V	50
—bere	XLVI	V	401	—be	V	51
—urteben	XLVI	V	401	—urtebien	V	52
—bere	XLVI	V	401	—be	V	52
—len bere esan dot eta	XLVI	VI	401	—Barriro diñot	VI	53
—zan	XLVI	VI	401	—zala	VI	53
—diz dizka	XLVI	VI	402	—diz-dizka	VI	54
—zubiak	XLVI	VI	402	—zubi zar da barria	VI	54
—errekardaitzeak	XLVI	VI	402	—		
—eutsela	XLVI	VI	402	—eutsiela	VI	54
—bere	XLVI	VI	402	—be	VI	54
—esaentsan	XLVI	VI	402	—esaeutsan	VI	54
—ebela	XLVI	VI	403	—ebiela	VI	55
—egiban	XLVI	VI	403	—egieban	VI	55
—bere	XLVI	VI	403	—be	VI	55
—bere	XLVI	VI	403	—be	VI	56
—ebentokian	XLVI	VI	403	—eben tokian	VI	56
—illundu ta	XLVI	VI	403	—illunduta	VI	56
—bere	XLVI	VI	403	—be	VI	56
—bere	XLVI	VI	403	—be	VI	56
—bere	XLVI	VI	404	—be	VI	57
—bere	XLVI	VI	404	—be	VI	58
—bere	XLVII	VII	129	—be	VII	59
—ebelako	XLVII	VII	129	—ebielako	VII	59
—ebela	XLVII	VII	129	—ebiela	VII	59
—astertuteben	XLVII	VII	130	—astertutebien	VII	59
—emoteutsezen	XLVII	VII	130	—emoteutsiesen	VII	60
—barrenagarri	XLVII	VII	130	—barregarri	VII	60
—ebela	XLVII	VII	130	—ebiela	VII	60
—ezentzen	XLVII	VII	130	—ezeutsien	VII	60
—kanpoai	XLVII	VII	130	—kanpai	VII	60
—bere	XLVII	VII	130	—be	VII	60
—bere	XLVII	VII	130	—be	VII	60
—dabe	XLVII	VII	130	—dabie	VII	61
—ibiltzen	XLVII	VII	130	—ibilten	VII	61
—ekaitzerako	XLVII	VII	130	—ekatserako	VII	61
—tsimistu	XLVII	VII	130	—tsimista	VII	61
—dabe	XLVII	VII	131	—dabie	VII	61
—galantant	XLVII	VII	131	—galant	VII	62
—bere	XLVII	VII	131	—be	VII	62
—adarren	XLVII	VII	132	—dakarren	VII	63
—Pipertsu-rena	XLVII	VII	132	—Pipertsurena	VII	63
—ono	XLVII	VII	132	—ona	VII	63

—eben	XLVII	VII	132	—ebien	VII	64
—eben	XLVII	VII	132	—eukien	VII	64
—eutsen	XLVII	VII	132	—eutsien	VII	64
—ebela	XLVII	VII	133	—ebiela	VII	65
—bere	XLVII	VIII	161	—be	VIII	66
—dabe	XLVII	VIII	161	—dabie	VIII	66
—eutsenak	XLVII	VIII	162	—eutsienak	VIII	67
—ezeutsen	XLVII	VIII	162	—ezeutsien	VIII	67
—izateben	XLVII	VIII	162	—izatebien	VIII	67
—bere	XLVII	VIII	162	—be	VIII	67
—jakuezanean	XLVII	VIII	162	—jakoezanean	VIII	67
—etsaia	XLVII	VIII	162	—arerioa	VIII	68
—pat-arragaz	XLVII	VIII	163	—patarragaz	VIII	69
—eutsenean	XLVII	VIII	163	—eutsienean	VIII	69
—bere	XLVII	VIII	163	—be	VIII	69
—eben	XLVII	VIII	163	—ebien	VIII	70
—gozo	XLVII	VIII	164	—eztitsu	VIII	70
—bere	XLVII	VIII	164	—be	VIII	70
—deutset	XLVII	VIII	164	—deutsiet	VIII	70
—neuk bere	XLVII	VIII	164	—nik	VIII	70
—zain	XLVII	VIII	164	—zañ	VIII	71
—bere	XLVII	IX	196	—be	IX	72
—zarrena	XLVII	IX	196	—bakarra	IX	73
—Eatau	XLVII	IX	197	—Eztau	IX	73
—bere ez	XLVII	IX	197	—bez	IX	73
—besterik	XLVII	IX	197	—baño besterik	IX	74
—bere ez	XLVII	IX	197	—bez	IX	74
—esa leku	XLVII	IX	197	—esar leku	IX	74
—bere	XLVII	IX	198	—be	IX	76
—arima barruko	XLVII	IX	198	—arima-barruko	IX	76
—zal	XLVII	X	225	—zar	X	77
—bein	XLVII	X	225	—beiñ	X	77
—bere	XLVII	X	225	—be	X	77
—Bein	XLVII	X	225	—Beiñ	X	78
—egorri	XLVII	X	225	—etorri	X	78
—bein	XLVII	X	226	—beiñ	X	79
—bere	XLVII	X	226	—be	X	79
—izatebela	XLVII	X	226	—izatebiela	X	79
—bere	XLVII	X	227	—be	X	79
—arraña	XLVII	X	227	—arrañak	X	80
—bere	XLVII	X	228	—be	X	82
—bere	XLVII	X	228	—be	X	82
—bere ez	XLVII	X	228	—bez	X	83
—bere	XLVII	X	228	—aren	X	83

—Orrek	XLVII	X	229	—Orreik	X	83
—bere	XLVII	X	229	—be	X	83
—be ez	XLVII	X	229	—bez	X	83
—betondokoren	XLVII	X	229	—betondoren	X	83
—euskulako	XLVII	X	229	—euskuelako	X	84
—egientzen	XLVII	X	230	—egieutzen	X	84
—urreñean	XLVI	X	230	—urriñean	X	85
—uretzean	XLVII	X	231	—urertzean	X	86
—Tiraba	XLVII	X	231	—Tira ba	X	86
—Kitolis	XLVII	X	231	—Kitolisen	X	86
—oñezorro	XLVII	XI	444	—oñzorro	XI	87
—traskoak	XLVII	XI	444	—trauskoak	XI	87
—bere	XLVII	XI	444	—be	XI	87
—elizjiran	XLVII	XI	444	—ilizjiran	XI	88
—bere	XLVII	XI	445	—be	XI	88
—izala	XLVII	XI	445	—itzala	XI	88
—				—uragea edo	XI	89
—beroteten	XLVII	XI	445	—berotuten	XI	89
—			446	—inkesaka	XI	91
—bere	XLVII	XI	447	—be	XI	92
—bere	XLVII	XI	447	—be	XI	92
—bere	XLVII	XII	469	—be	XII	93
—bere	XLVII	XII	469	—be	XII	94
—bere	XLVII	XII	469	—be	XII	94
—alan da bere	XLVII	XII	470	—alan da guztiz be	XII	94
—edertu	XLVII	XII	470	—ederto	XII	95
—bere	XLVII	XII	470	—be	XII	95
—izkera guraso	XLVII	XII	470	—izkera-guraso	XII	95
—Eztiñok	XLVII	XII	470	—Eztiñot	XII	95
—Euskal-erriko	XLVII	XII	470	—Euskal erriko	XII	95
—eztabela	XLVII	XII	470	—eztabiela	XII	95
—bere	XLVII	XII	470	—be	XII	95
—menderatutzera	XLVII	XII	471	—menderatutera	XII	96
—delan	XLVII	XII	471	—zelan	XII	96
—dere	XLVII	XII	471	—be	XII	96
—damurik bere eztot	XLVII	XII	471	—eztot damurik be	XII	96
—bilbotarrak	XLVII	XII	471	—bilbotarrok	XII	96
—bere	XLVII	XII	471	—be	XII	97
—bere	XLVII	XII	471	—be	XII	97
—bere ez	XLVII	XII	472	—bez	XII	97
—erestuten	XLVII	XII	472	—ereztuten	XII	98
—errestu	XLVII	XII	472	—ereztu	XII	98
—Berrio-Otsoaren	XLVII	XII	472	—Berrio-otšaren	XII	98

—basterik	XLVII	XII	472	—besterik	XII	98
—erestuten	XLVII	XII	472	—ereztuten	XII	98
—bere	XLVII	XII	472	—be	XII	98
—erestuteko	XLVII	XII	472	—ereztuteko	XII	98
—danok	XLVII	XII	472	—danak	XII	99
—bere	XLVII	XII	472	—be	XII	99
—Nire	XLVII	XII	472	—Niri	XII	99
—bere	XLVII	XII	473	—be	XII	99
—badeuskazu	XLVII	XII	473	—badeuskuzu	XII	100
—bere	XLVII	XII	473	—be	XII	100
—dura	XLVII	XII	473	—gura	XII	100
—bere ez	XLVII	XIII	535	—bez	XIII	104
—bere ez	XLVII	XIII	536	—bez	XIII	105
—dozuea	XLVII	XIII	536	—dozue	XIII	105
—bere	XLVII	XIII	536	—be	XIII	106
—bere	XLVII	XIII	536	—be	XIII	106
—etseruntz	XLVII	XIII	537	—etšeruntz	XIII	106
—euren	XLVII	XIV	598	—batzuk	XIV	107
—asko	XLVII	XIV	598	—beste batzuk	XIV	107
—	XLVII	XIV	598	—onek	XIV	107
—	XLVII	XIV	598	—arek	XIV	107
—batez bere	XLVII	XIV	598	—geienak	XIV	107
—	XLVII	XIV	598	—(gurasoen)	XIV	107
—gurasuok	XLVII	XIV	598	—	XIV	107
—bere	XLVII	XIV	598	—be	XIV	108
—oi	XLVII	XIV	599	—	XIV	108
—bere	XLVII	XIV	599	—be	XIV	108
—egon zirean da	XLVII	XIV	599	—egon da	XIV	108
—eben	XLVII	XIV	599	—ebien	XIV	108
—bere	XLVII	XIV	599	—be	XIV	109
—iñoganado	XLVII	XIV	599	—iñoganako	XIV	109
—lez	XLVII	XIV	599	—legez	XIV	109
—eutsien	XLVII	XIV	599	—eutzien	XIV	109
—eztenduke	XLVII	XIV	599	—etzenduke	XIV	109
—ogikeko	XLVII	XIV	600	—ogipeko	XIV	110
—isillik	XLVII	XIV	600	—išillik	XIV	111
—aurik	XLVII	XIV	600	—aorik	XIV	111
—bere	XLVII	XIV	600	—be	XIV	112
—ezete	XLVII	XIV	602	—ezetz	XIV	113
—Sardinzarrek-be	XLVIII	XV	70	—Sardinzarrek be	XV	114
—illunakaz	XLVIII	XV	70	—tamalakaz	XV	114
—burubageani	XLVIII	XV	70	—burubagea ni	XV	114
—lentsuago	XLVIII	XV	71	—lentšuago	XV	115
—Ezekian	XLVIII	XV	71	—Ezekizan	XV	116

—etsеatatik	XLVIII	XV	72	—etse atatik	XV	117
—bere	XLVIII	XV	72	—be	XV	117
—bere	XLVIII	XV	73	—be	XV	118
—antsiñatsutik	XLVIII	XV	73	—antsiñatsutik	XV	119
—bere	XLVIII	XV	73	—be	XV	119
—bere	XLVIII	XV	74	—be	XV	120
—bere	XLVIII	XVI	133	—be	XVI	121
—ulertuten	XLVIII	XVI	133	—gogoratuten	XVI	121
—bada ezpadak	XLVIII	XVI	133	—bada ezpadako	XVI	122
—lez	XLVIII	XVI	134	—legez	XVI	122
—Arranundora	XLVIII	XVI	134	—Arranondora	XVI	123
—	XLVIII	XVI	135	—esan beio	XVI	124
—bere	XLVIII	XVI	135	—be	XVI	124
—lez	XLVIII	XVI	136	—legez	XVI	125
—bere	XLVIII	XVI	136	—be	XVI	125
—geu	XLVIII	XVI	136	—guk	XVI	126
—bere	XLVIII	XVI	133	—be	XVI	126
—ankazurik	XLVIII	XVI	137	—ankazurrik	XVI	127
—guztiai	XLVIII	XVII	171	—gustiai	XVII	129
—naiz	XLVIII	XVII	171	—nai	XVII	130
—edo zergaitik	XLVIII	XVII	171	—edozergaitik	XVII	130
—daudiezan	XLVIII	XVII	172	—daukiezan	XVII	130
—jardun, etse	XLVIII	XVII	172	—jardun-etse	XVII	131
—bere	XLVIII	XVII	172	—be	XVII	131
—sagardautegietan	XLVIII	XVII	172	—sagardautegian	XVII	131
—dabie	XLVIII	XVII	172	—daue	XVII	131
—eukiten dabie	XLVIII	XVII	173	—euki daroe	XVII	132
—Etzala	XLVIII	XVII	173	—Eztala	XVII	132
—bere	XLVIII	XVII	173	—be	XVII	132
—	XLVIII	XVII	173	—edo etsekoandre	XVII	133
—beregaistoak	XLVIII	XVII	173	—bere griña gaistoak	XVII	133
—oraň	XLVIII	XVII	174	—oraiň	XVII	134
—itzaň	XLVIII	XVII	175	—itzaiň	XVII	136
—itzaña	XLVIII	XVII	175	—itzaiña	XVII	136
—bere	XLVIII	XVII	176	—be	XVII	137
—olantse	XLVIII	XVII	176	—olantse	XVII	137
—baño	XLVIII	XVII	176	—baña	XVII	137
—murruskadaruna	XLVIII	XVII	176	—murruskadaduna	XVII	137
—betetik	XLIX	XVIII	146	—batetik	XVIII	138
—oraň	XLIX	XVIII	146	—oraiň	XVIII	138
—aň	XLIX	XVIII	146	—aiň	XVIII	138
—aň	XLIX	XVIII	146	—aiň	XVIII	138
—itsasoak	XLIX	XVIII	147	—itsasoak	XVIII	139
—atsarran	XLIX	XVIII	147	—atsarrañ	XVIII	140

—bere	XLIX	XVIII	147	—be	XVIII 140
—orañtše	XLIX	XVIII	147	—oraiñtše	XVIII 140
—Lantegi Jaubeak	XLIX	XVIII	148	—Lantegi-Jaubeak	XVIII 141
—andienaga	XLIX	XVIII	148	—andienagaz	XVIII 141
—arrantšoen	XLIX	XVIII	148	—arrañtšoen	XVIII 141
—bere artean	XLIX	XVIII	148	—berarengo	XVIII 142
—oraintše	XLIX	XVIII	148	—oraiñtše	XVIII 142
—olantse	XLIX	XVIII	148	—olantše	XVIII 142
—arrantšuren	XLIX	XVIII	148	—arrañtšuren	XVIII 142
—kresaletan	XLIX	XVIII	149	—ur gezalagaz	XVIII 142
—itši	XLIX	XVIII	151	—itzi	XVIII 146
—lez	L	XIX	173	—legez	XIX 148
—dabenan	L	XIX	173	—badau	XIX 148
—bialduta	L	XIX	173	—bialdu	XIX 148
—eta	L	XIX	173	—ete	XIX 148
—eztan	L	XIX	173	—eztau	XIX 149
—esanba	L	XIX	173	—esan ba	XIX 149
—erakutzitu	L	XIX	174	—erakutzita	XIX 149
—politagorrik	L	XIX	174	—politagorik	XIX 150
—errukarriak--gaitik	L	XIX	175	—errukarriakaitik	XIX 151
—bere	L	XIX	175	—be	XIX 151
—aiñ	L	XIX	175	—añ	XIX 151
—aiñ	L	XIX	175	—añ	XIX 152
—aiñ	L	XIX	175	—añ	XIX 152
—joakozan	L	XIX	175	—jaokozan	XIX 152
—illuntasun	L	XIX	175	—keriz	XIX 152
—bere ez	L	XIX	175	—bez	XIX 152
—beñ	L	XIX	175	—beiñ	XIX 152
—egokia	L	XIX	175	—itšurazkoa	XIX 152
—itsasoa	L	XIX	175	—itšasoa	XIX 153
—lez	L	XIX	176	—legez	XIX 153
—itsasoak	L	XIX	176	—itšasoak	XIX 153
—	L	XIX	176	—legez	XIX 153
—	L	XIX	176	—beretzat	XIX 153
—noizbaiten	L	XIX	176	—noiz edo noiz	XIX 153
—bere	L	XIX	176	—be	XIX 153
—beñipeiñ	L	XIX	176	—beñipeñ	XIX 154
—egozozan	L	XIX	176	—egozan	XIX 154
—argiri	L	XIX	176	—argiari	XIX 154
—orañ	L	XIX	177	—oraiñ	XIX 154
—orañ	L	XIX	177	—oraiñ	XIX 154
—orañ	L	XIX	177	—oraiñ	XIX 155
—berandutšuago	L	XIX	177	—berandutšoako	XIX 155

—lagun-zaltzalle	L	XX	232	—lagun zaltzalle	XX	156
—lez	L	XX	232	—legez	XX	157
—bere	L	XX	233	—be	XX	157
—oraingoan	L	XX	233	—oraiñgoan	XX	157
—illun	L	XX	233	—tamal	XX	158
—Ya ba	L	XX	233	—Ia ba	XX	158
—badata	L	XX	234	—bada ta	XX	159
—antzera	L	XX	234	—taiuan	XX	159
—ainbesteraño	L	XX	234	—añbesteraño	XX	159
—				—Bai, andrea	XX	159
—Eliz-emakumea	L	XX	234	—Eliz emakumea	XX	160
—zaiñ	L	XX	235	—zañ	XX	160
—Zaltzallea	L	XX	235	—saltzallea	XX	161
—on	L	XX	235	—ona	XX	161
—jaiago	L	XX	279	—jaio	XX	162
—uste aldozu	L	XX	279	—ustealdozu	XX	162
—benik	L	XX	280	—beñik	XX	163
—beiñ	L	XX	280	—beñ	XX	163
—palagau	L	XX	280	—losindu	XX	163
—bearzan	L	XX	280	—bear zan	XX	164
—beur	L	XX	281	—bear	XX	165
—kenduentsazan	L	XX	281	—kendueutsazan	XX	165
—jauntzi	L	XX	282	—jantzi	XX	166
—zaiñ	L	XX	282	—zañ	XX	166
—poeitagoa	L	XX	282	—politagoa	XX	167
—Agertu	L	XXI	456	—Zeaztu	XXI	168
—Agergarria	L	XXI	456	—Zeazgarria	XXI	168
—mingotsak	L	XXI	457	—mingotšak	XXI	169
—odar-joteak	L	XXI	457	—adar-joteak	XXI	169
—aiñ	L	XXI	457	—añ	XXI	169
—olanko	L	XXI	457	—olango	XXI	170
—ariñ-ariñga	L	XXI	457	—ariñ-aringa	XXI	170
—beiñgoan	L	XXI	457	—beñgoan	XXI	170
—bialzen	L	XXI	458	—bialtzen	XXI	171
—tsarrekoak	L	XXI	458	—tšarrekoak	XXI	171
—gizagajoa	L	XXI	458	—gizagaišoa	XXI	171
—guztiak	L	XXI	458	—danak	XXI	171
—donkakerirako	L	XXI	459	—dongakerirako	XXI	173
—aberastarik	L	XXI	517	—aberasturik	XXI	174
—Tramanaran	L	XXI	518	—Tramanaren	XXI	175
—	L	XXI	518	—erriak	XXI	175
—erosi	L	XXI	518	—irabazi	XXI	175
—arraioko	L	XXI	518	—arraioka	XXI	176
—alkondaran	L	XXI	518	—alkondarean	XXI	176

—zituela	L	XXI	518	—zituala	XXI 176
—egin	L	XXI	519	—egiñ	XXI 177
—zeiñ	L	XXI	519	—zeñ	XXI 177
—eukiagaitik	L	XXI	519	—eukiteagaitik	XXI 178
—ezezan	LI	XXII	103	—ezeban	XXII 181
—esateientsan	LI	XXII	103	—esateieutsan	XXII 182
—arlate	LI	XXII	104	—arlote	XXII 182
—ezenkielata	LI	XXII	104	—ezeukielata	XXII 182
—baño tšukunago	LI	XXII	104	—baizen apañago	XXII 183
—mutill-zar-au	LI	XXII	104	—mutil zar au	XXII 183
—egiutsien	LI	XXII	104	—egieutsien	XXII 183
—batak-besteari	LI	XXII	104	—batak besteari	XXII 183
—precisokoak	LI	XXII	105	—prezisokoak	XXII 185
—orain dala ogeta eztakit zenbat urte	LI	XXII	106	—antziñatšu da baña	XXII 185
—zarrakgaitik	LI	XXII	106	—zarren alde	XXII 186
—beingoan	LI	XXII	106	—beñgoan	XXII 186
—beiñ	LI	XXII	107	—beñ	XXII 188
—eutsaralako	LI	XXII	107	—eutsazalako	XXII 188
—arutšatšoago	LII	XXIII	453	—arutsatšoago	XXIII 189
—giñoi azan	LII	XXIII	454	—giñoiazan	XXIII 190
—oraintše	LII	XXIII	454	—oraiñtše	XXIII 190
—bee	LII	XXIII	454	—bez	XXIII 190
—atanbe	LII	XXIII	454	—atan be	XXIII 190
—zuan	LII	XXIII	454	—zu an	XXIII 190
—esaentsien	LII	XXIII	454	—esaeutsien	XXIII 191
—ezkaguz	LII	XXIII	454	—ezkagoz	XXIII 191
—zori oneko	LII	XXIII	455	—zorioneko	XXIII 191
—Indiano arentzat	LII	XXIII	455	—Indianoarenzat	XXIII 191
—egiazko okaz	LII	XXIII	455	—egiazkoakaz	XXIII 192
—siñistu	LII	XXIII	455	—ziñistu	XXIII 192
—bein	LII	XXIII	455	—beñ	XXIII 192
—Antoni gazkoa	LII	XXIII	455	—Antonigazkoa	XXIII 192
—guztien	LII	XXIII	455	—guztiak	XXIII 192
—jakon	LII	XXIII	456	—jako	XXIII 193
—beren	LII	XXIII	456	—bere	XXIII 193
—biotzetik	LII	XXIII	456	—biatzetik	XXIII 193
—atera	LII	XXIII	456	—atara	XXIII 193
—dentsut	LII	XXIII	456	—deutsut	XXIII 193
—erastunagarra	LII	XXIII	456	—erastunagana	XXIII 193
—Indiagoana	LII	XXIII	456	—Indianoagana	XXIII 194
—etšekoandrea	LII	XXIII	456	—etšekoandreak	XXIII 194
—Iztotsut	LII	XXIII	456	—Eztotsut	XXIII 194


—ze lan	LII	XXIII 456	—zelan	XXIII 194
—egundu	LII	XXIII 456	—egundo	XXIII 194
—bai mena	LII	XXIII 457	—baimena	XXIII 195
—zamean	LII	XXIV 457	—zanean	XXIV 196
—erte	LII	XXIV 457	—ertz	XXIV 196
—erreokaz	LII	XXIV 457	—erreakaz	XXIV 196
—oiduna	LII	XXIV 457	—oidana	XXIV 196
—Ondartza edo Arenaleko	LII	XXIV 457	—Arenaleko	XXIV 196
—danbada	LII	XXIV 457	—danbadak	XXIV 196
—tšiminiaen	LII	XXIV 457	—tšiminiren	XXIV 196
—mendeak	LII	XXIV 458	—mendean	XXIV 196
—bokearen	LII	XXIV 458	—bakearen	XXIV 197
—badira	LII	XXIV 458	—balira	XXIV 197
—bez	LII	XXIV 458	—legez	XXIV 197
—ebazan	LII	XXIV 458	—euezan	XXIV 197
—poztor	LII	XXIV 458	—pozkor	XXIV 197
—enen	LII	XXIV 458	—euen	XXIV 197
—ze lan	LII	XXIV 458	—zelan	XXIV 197
—zaiñ	LII	XXIV 458	—zañ	XXIV 197
—astiriki	LII	XXIV 458	—astirik	XXIV 197
—anoi	LII	XXIV 458	—andi	XXIV 197
—dize-oialak	LII	XXIV 458	—aize-oialak	XXIV 197
—emotentzen	LII	XXIV 458	—emoteutzen	XXIV 198
—alaran	LII	XXIV 458	—alarau	XXIV 198
—Ezintsien	LII	XXIV 458	—Ezieutsien	XXIV 198
—bildurgarriko an	LII	XXIV 459	—bildurgarrikoan	XXIV 198
—oinaz	LII	XXIV 459	—oiuaz	XXIV 198
—igetik	LII	XXIV 459	—igesik	XXIV 198
—autzera	LII	XXIV 459	—antzera	XXIV 198
—jaurtitentsien	LII	XXIV 459	—jaurtiteutsien	XXIV 198
—abidea	LII	XXIV 459	—abiadea	XXIV 198
—Ekatšari	LII	XXIV 459	—ekatšari	XXIV 198
—gauza	LII	XXIV 459	—gauzea	XXIV 198
—ur-celai	LII	XXIV 459	—ur-zelai	XXIV 199
—entsi	LII	XXIV 459	—eutsi	XXIV 199
—etsipennega ugarrien	LII	XXIV 459	—etsipen negargarria	XXIV 199
—egintsien	LII	XXIV 459	—egieutsien	XXIV 199
—Etziron	LII	XXIV 459	—etziran	XXIV 199
—joandoko	LII	XXIV 459	—joandako	XXIV 199
—ishillatsunagaz	LII	XXIV 459	—išiltasunagaz	XXIV 199
—ichaserri	LII	XXIV 459	—itšaserri	XXIV 199
—Elanchobe	LII	XXIV 460	—Elantšobe	XXIV 200

—ichaserrietakoen	LII	XXIV 460	—itšaserrietakoen	XXIV 200
—jakin	LII	XXIV 460	—janik	XXIV 200
—Beingo	LII	XXIV 460	—Beñgo	XXIV 200
—char	LII	XXIV 460	—tšar	XXIV 200
—egozau	LII	XXIV 460	—egozan	XXIV 200
—bakotzaren	LII	XXIV 460	—bakotšaren	XXIV 200
—zercezan	LII	XXIV 460	—zerezan	XXIV 200
—zirautzen	LII	XXIV 460	—zirautsen	XXIV 200
—sarritsuegui	LII	XXIV 460	—sarritšuegui	XXIV 200
—itsasgizonak	LII	XXIV 460	—itšasgizonak	XXIV 200
—oreik	LII	XXIV 460	—orreik	XXIV 200
—goroago	LII	XXIV 460	—geroago	XXIV 200
—zireon	LII	XXIV 460	—zirean	XXIV 200
—gosoaren	LII	XXIV 460	—gosearen	XXIV 200
—gizagaisoentzat	LII	XXIV 460	—gizagaišoentzat	XXIV 200
—jalastu	LII	XXIV 460	—jolastu	XXIV 200
—tsanpon	LII	XXIV 460	—tšanpon	XXIV 200
—bakotsari	LII	XXIV 460	—bakotšari	XXIV 200
—ta zer ta jaiadil	LII	XXIV 460	—ta zer jaialdi	XXIV 201
—tsarrena	LII	XXIV 460	—tšarrena	XXIV 201
—ipiñi	LII	XXIV 460	—ipuñ	XXIV 201
—iru dira	LII	XXIV 460	—irudira	XXIV 201
—ibillirea	LII	XXIV 460	—ibillerea	XXIV 201
—urbia	LII	XXIV 460	—urlia	XXIV 201
—anai	LII	XXIV 460	—anaia	XXIV 201
—Ercules	LII	XXIV 460	—Erkules	XXIV 201
—Santso	LII	XXIV 460	—Santšo	XXIV 201
—zalduntso	LII	XXIV 460	—zalduntšo	XXIV 201
—begortzeko	LII	XXIV 460	—legortzeko	XXIV 201
—aiñ	LII	XXIV 460	—añ	XXIV 201
—ubertu	LII	XXIV 460	—ulertu	XXIV 201
—atirik	LII	XXIV 460	—astirik	XXIV 201
—etsaldeko	LII	XXIV 461	—etšaldeko	XXIV 201
—emotentsan	LII	XXIV 461	—emoteutsan	XXIV 201
—etseko	LII	XXIV 461	—etšeko	XXIV 201
—esaentsanean	LII	XXIV 461	—esaeutsanean	XXIV 201
—itsasaldekoa	LII	XXIV 461	—itšasaldekoa	XXIV 201
—itsita	LII	XXIV 461	—itšita	XXIV 201
—zer-zan	LII	XXIV 461	—zer zan	XXIV 201
—lagun-uskoaren	LII	XXIV 461	—lagun-urkoaren	XXIV 201
—gitsi	LII	XXIV 461	—gitši	XXIX 201
—gen	LII	XXIV 461	—geu	XXIX 202
—ezasaguna	LII	XXIV 461	—ezesaguna	XXIX 202
—ichureagaitik	LII	XXIV 461	—itšureagaitik	XXIX 202

—gentarren	LII	XXIV 461	—geuntarren	XXIX 202
—gen	LII	XXIV 461	—geu	XXIX 202
—malko ari	LII	XXIV 461	—malko-ari	XXIX 202
—mingotsak	LII	XXIV 461	—mingotšak	XXIX 202
—isutzen	LII	XXIV 461	—isurtzen	XXIX 202
—ez esagunak	LII	XXIV 461	—ezesagunak	XXIX 202
—egean	LII	XXIV 461	—egoan	XXIX 203
—lansoak	LII	XXIV 461	—lausoak	XXIX 203
—ezietan	LII	XXIV 461	—ezieban	XXIX 203
—tsalopako	LII	XXIV 462	—tšalopako	XXIX 203
—antsen	LII	XXIV 462	—antše	XXIX 203
—inguroan	LII	XXIV 462	—ausoan	XXIX 203
—zeiñ	LII	XXIV 462	—zeñ	XXIX 203
—etseko	LII	XXIV 462	—etšeko	XXIX 203
—gaisua	LII	XXIV 462	—gaišoa	XXIX 203

3. ERANSKINA

TOMAS BERMINGHAM-EK ANTONIO ARZAC-I IGORRITAKO ESKUTITZA



San Sebastian Diciembre 9-1901.

Sor Dn Antonio de Arzac.
Mi distinguido amigo:
Hace ya 32 años – esto cuenta en 1869 – que mi difunto padre (q.e.p.d.) escribió 5 folletos de Vascuence, los cuales fueron repartidos gratis, por toda la provincia de Guipúzcoa.
Me calco de tantos años juzgaba ya que sería empresa difícil, por no decir imposible, el hacer la colección de los mismos, pues creía que ya no existiría ninguno a consecuencia de haber salido hasta ahora fallidas cuantas pesquisas habría efectuado en aquel sentido, cuando en estos últimos días registrando libros y papeles viejos tuve la suerte de dar con algunos ejemplares de dichos citados folletos escritos, como verá, sin pretensiones literarias de ninguna

género, de una manera sencilla y natural, pues tengo el mayor gusto en regalarle un tomito que contiene dichos folletos, como recuerdo del ensayo literario que en nuestro primitivo idioma hizo el autor de mis días.

Queda de Vd afmo y atto amigo

Q. S. M. B.

Tomás Bermúdez

IX. BIBLIOGRAFIA

1. ATAL BIBLIOGRAFIKOAREN ATARIAN ZENBAIT XEHETASUN

Atal bibliografiko hau eratzen erabilitako erizpideak izango dira mintzagai ondoko lerroetan. Bi ardatz nagusiren inguruan taxutuko dira gai hau planteatzean eginiko aukerak.

1.1. IDAZKERA

Egile nahiz hauen idazlanen tituluen idazkerak ortografian eragiten dituen aldaerak ez ezik, morfologiara hedatzen diren aldaerak ere aurkezten dituzte, izen-aldaketez gain. Adibidez: atal bibliografiko honetan Carmelo de Echegaray-k, Karmelo Etšegarai-koak, edo Karmelo Echegaray-koak edo Karmelo Etxegaray-k izenpeturiko tituluak jasotzen dira; edo-ta Luis Michelena-k edo Luis Mitxelena-k edo Koldo Mitxelena-k (1).

(1) Gauza jakina da, eta atal bibliografiko hau berau adibide hainbat bider, aldaera hauek, ez beti, baina bai gehienetan, obra konkretua egiteko erabili den hizkuntzaren baitan daudela. Izen-deiturak ere obra idazteko erabili den hizkuntzari egokitzen zaizkio. Orohar, esate baterako, Carmelo de Echegaray-k izenpetzen ditu gazteleraz eginiko idazlanak eta Karmelo Echegaray-koak euskarazkoak. Euskarazkoetan aldaera gehiago aurkezten ditu gaztelerazkotan baino, baina aldaera horiek ortografi mailakoak dira soil-soilik sarri askotan. Eta ez da harrigarria, gainera, euskarazkoetan aldaera gehiago aurkeztea ortografia arautu gabe dagoen garai historikoan.

Jakina, gertaera honek muturreko bi aukera egiteko modua eskaintzen du:

—Idazlanaren aipamen bibliografikoari fideltasun osoa gorde eta orduan, ezinbestez, egile berberak sarrera desberdinak izango lituzke eta egiletza baten batasuna zenbait zatitan banatuko litzateke honenbestez.

—Idazlanaren aipamen bibliografikoari zor zaion fideltasuna hautsi eta egiletza baten batasuna gorde, hautatutako izen-deitura baten azpian aurkeztuz aipatutako idazlanak.

Nahiz aukera batek nahiz besteak haustura dakar aipamen bibliografikoak eskatzen duen transkripzio literalarekin. Zentzu hertsian esanda, existitzen ez duten egile-idazlan harremanak ezartzen dira.

Arazo honen aurrean, honako jokabide hau hobetsi da ondoren datorren atal bibliografikoan:

—Atal bibliografikoak aurkezten dituen sail bakoitzaren azpian batasuna bilatzera jo da egiletza mailan, nahiz eta batasun hau ez den sail bakoitzaren gainetik bilatu.

—Egiletza mailako batasuna gordez, idazlanaren aipamen bibliografikoak eskatzen duen fideltasuna gordetzera jo da. Horretarako egilearen izendapen bat hautatu da eta aldaera desberdinei sarrera eman. Aldaera horien jabe d(ir)en idazlana(k) idatziz aldamenean sarrera horietako bakoitzak hautatutako izendapenera igortzen du. Dena den, Agirrerekin salbuespena egin da. Modu bakar batez idatzi dira bere izen-deiturak eta ez zaie sarrerarik eman hain ugariak zituen aldaerei.

—Izendapena hautatzeko ez da erizpide bat eta bakarra erabili: aitzitik, erizpide desberdinen konbinazioaren emaitza da. Kontutan hartu dira, batetik, azterlan hau euskaraz idatzia izana; bestetik, idazleak berak euskaraz idazten zuenean maiztasun handienarekin erabiltzen zuen izendapena; eta, azkenik, ahalik eta erantzunik sinpleena ematea, berez konplexu azaltzen den atal hau oraindik konplexuago ez bihurtzearren.

Erantzunik sinpleena ematea erizpide bihurtu delako, hain zuzen ere, ez da egiletza-batasuna gorde sail bibliografikoaren gainetik; hau

da, dena delako egilearen aipatutako idazlanak izendapen bakar batez aurkeztutakoak badira, bere hartan utzi da izendapen hori, nahiz eta beste sail batean egile horrentzat beste izendapenen bat erabili den. Adibidez, K. Echegaray izendapenaren azpian aurkezten dira idazle honen aipatutako testuak; eta testu horietako zenbait izenpetzerakoan beste aldaeraren bat bazerabilen, hemendik abiatuta hautatutako horretara igorri da; baina azterlanen sailean aipatzen diren obra guztiak C. de Echegaray-k izenpetuak dira. Erantzunik sinpleena ematea bilatu delako, hain zuzen ere, ez da azterlanen sailean deirik egin C. de Echegaray K. Echegaray-rekin identifika zedin; izan ere, arazorik ez zegoen lekuan arazoa sortzeko arriskua bait zegoen, nahiz eta horrela jokatuz sailaren muga gaindituz egiletza-batasuna ez den gorde.

Erantzunik sinpleena ematea erizpide bihurtu delako, hain zuzen ere, egileen deituretatik "-ko" kasu-atzizkia ezabatzera jo da; baita "-tar" ere, nahiz eta zenbait idazlan atzizki horiek lagun dituztela izenpeturik daudela aditzera eman den, baina aditzera eman ondoren atzizkirik gabeko deiturara igorri da. Adibidez, Azkueko Resurreccion Maria-k idatzi zuen **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**; Azkuetar Eusebio Maria-k izenpetzen zuen **Parnasorako Bidea**. Baina gertaera honen lekukotasuna utzi ondoren, Azkue sarrerara igorri dira nahiz bata eta nahiz bestea.

Agian ez da jokabiderik aproposena eta zuzenena izango, baina bai sinpleena eta erosoena; izan ere, besteak beste, atzizki horiek gaztelerazko "de" preposizioak ez bezalako arazoak sortzen dituzte ordena alfabetikoari begira. Ezaguna da "de" preposizio honek ez duela inolako eraginik ordena alfabetikoa ezartzerakoan, izenaren ondoren lekuturik ez bait du ordena alfabetikoan baliorik hartzen. Baina euskarari dagokionez, atzizkia deiturari atxikia datorrenez, izango luke, printzipioz, eraginik ordena alfabetikoan (2).

Bestalde, zenbaitetan marratxo baten ondoren eta bestetan marratxorik gabe datorren atzizkia gordetzeak —ohitura mailako gaia izan daitekeen arren— deitura "desitxuratu" egiten du. Edo, beste

(2) Jarritako adibidera itzuliz, atzizkia gordetzeak edo ez gordetzeak eragina du R.M. Azkueren eta E.M. Azkueren ordena alfabetikoan: Azkueko R.M.-ren ondoren etorriko litzateke Azkuetar E.M., baina Azkue E.M.-ren ondoren etorriko litzateke Azkue R.M.

modu batera esanda, egile horren deitura atzizki eta guzti "errekonozitzen" ohitu gabe egotean (3), identifikagaitz bihurtzen da, azterketa-lan osoan bilatu nahi izan den argitasunetik urruntzeko arriskura eramanez.

Ortografiatik morfologiara eta morfologiatik semantikara igaroz, bada atal honetan aurkibide onomastikoan arazorik sortzen duen elementurik ere: gaitzizenen erabilera, izenpetu gabeko testuak.

Jadanik azalduriko erizpideei jarraituz, egiletza-batasuna ahalik eta fideltasunik handienaz, argitasuna eta erosotasuna zaintzera jo da arazo hauei aurre egiteko garaian ere. Horrela, ezaugarri hauek azaltzen dituzten testuak sailkatzerakoan, gaitzizenei edo-ta izenpetu gabeko testuei egiletza jakin bat aitortu zaien neurrian, egile horri dagokion sarreran lekutu dira emandako erreferentzia bibliografikoan barrena —izen-deituren aldamenean, parentesi artean, gaitzizenen kasuan eta erreferentzia bibliografikoaren amaieran, parentesi artean, izenpetu gabekoetan— eskainiz aipatutako testuak aurkezten duen izenpe zehatza.

Azkenik, atal bibliografiko honek ortografi, morfologi eta semantika mailan planteaturiko eragozpenen aurrean hartutako jokabideei amaiera emateko, azal ditzagun azentu ortografikoari dagozkionak. Zenbait euskal idazleren deiturak nahiz beren euskal idazlanen titulu batzu noiz edo noiz azentu ortografikoz horniturik datoz, beste aldaera bat aurkeztuz ortografian.

Azentu hauek urri eta bakan azaltzen dira nahiz idazleen deituratan nahiz idazlanetan, gehienetan azenturik gabe idaztera jo bait

(3) Aurreko mendean lekutzen da azterketa-lan hau. Gauza jakina da garai horretan —ustez kaparetasun handiago baten adierazle zelako edo— jatorria aditzera ematen zuen elementu gramatikala maiztasun handiarekin erabili zela. Gaur egun, hainbat eta hainbat liburu berrargitaratzean, egileen deituretatik elementu gramatikal horiek desagertu egin direla konstata daiteke. Gaurregungo hainbat idazlanen berrargitalpenetatik desagertu egin dira, arrazoiak edo alor honetan jarraitutako erizpideak aditzera eman ez badira ere. Ikusi besterik ez dago Agirreren eleberrien azken argitalpenetan nola desagertu diren bere deituratik nahiz "-ko" atzizkia nahiz "de" preposizioa. Baina aurki daiteke beste eredurik ere: idazleak berak jatorria adierazteko erabili zuen "de" preposizioa gordetzen duenik (ikus AZKUE, R.M. de; **Diccionario Vasco-Español-Francés**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984) eta idazleak berak jatorria adierazteko erabili zuen "-ko" atzizkia ezabatu duenik (ikus AZKUE, R.M.; **Bein da betiko. Batxi guzur**, Euskal Editoreen Elkartea, Erein, Donostia, 1986).

zuten. Horregatik, nahiz eta jokabide oso ortodoxoa ez izan, azentu ortografiko hauek ezabatu egin dira erabat. Eta ezabatu egin dira argitasunaren izenean, hain zuzen ere. Izan ere, ez ezabatzeak sarrera gehiago ekartzea eskatzen zuen atal honetara eta, honenbestez, irteera-modurik sinple eta erosoenetik urruntzea.

1.2. SAILKAPENA ETA MUGAK

Bost sailetan banatu da atal bibliografikoa: D. Agirreren testuak, beste zenbait egileren testuak, D. Agirreri buruzko azterketak, beste zenbait azterketa eta azterbide, aldizkariak. D. Agirreri dagozkion bi ataletan ezik, gainontzean azterlanean zehar aipatu den bibliografia jaso da soil-soilik.

1.2.1. Domingo Agirreren testuak

D. Agirreren eleberrigintza aztertzea izan da azterlan honen gune nagusia. Eta atal bibliografiko hau ere gertaera horren islada bihurtu nahi litzateke, nahiz eta horrela jokatzean atomizatu samarturik gelditu atala.

Atomizatu samarturik gelditu arren, atal hau antolatzean erizpide nagusi bat jarraitu da: azterlanerako egin den planteamendura egokitzea. Eta horrexegatik, hain zuzen ere, ematen zaio hasiera atalari Domingo Agirreren testuekin, sail berezi bat eskainiz egile honi.

Sail honetan ez dira Agirreren eleberriak jasoko soil-soilik. Idazle honen eleberrien deskripzioa arretagune garrantzitsu bihurtu bada ere, ez dago ukatzerik egile honen eleberriak sortu zireneko testuinguruan lekutu direla (4) eta eleberri horien testuingurua osatzen dutela egile honek argitaratu zituen gainontzeko testuek ere.

Nahiz eta atal bibliografiko honek azterlanean egin diren aipamenak bakarrik jasotzea helburu izan, salbuespena egin da D. Agirreren testuekin eta egile honi buruzko azterketekin: aipatuz gain beste testu eta azterketa batzu ere ekarri dira bertara.

---

(4) Ez bedi uler testuinguru hori maila sinkroniko hutsean; adarrak diakroniara ere hedatu behar dira; ez bait da nobelagintza honen sorrera-modua alboratu.

Salbuespen hau ez da besterik gabe egin, honako hauek bederen azpimarkatzeagatik baizik:

—D. Agirreren eleberrigintzaren azterketa bihurtu dela aztergai nagusi, egile hau eta beronen obra aztergune bihurtuz.

—Bere eleberrigintzaren azterketa helburu zelarik, eleberrigintza hau garatzen deneko testuinguruan kokatzea eskatu dela. Testuinguru honek erakutsitako hainbat daturen adierazle bihurtu nahi litzateke D. Agirreri eskainitako atal hau. Ez da Agirre datu horien testigantza eman dezakeen bakarra, baina bai egoera orokorraren islada. Bera hautatu da egoera orokor hori adierazteko, azterketagune bihurtu delako, hain zuzen ere. Testigantza honen bidez, testuinguruak eskainitako zenbait daturen erakusle bihurtzen da atal hau: euskal kontaketagileek ez zuten kontaketaren alorra bakarrik landu, ezta literaturaren forma naturalen (5) esparrua ere soil-soilik —literaturaren forma natural hauen barnean lekutzen diren genero tradizionalak fantasiaren mundura igortzen dute, azken finean— poesiaren alorrean poema-solteak paratu ziren batipat eta ez poema-liburuak. Lore-joko eta euskal festen antolamenduek —jadanik deskribatu diren mugekin bada ere— hartzen duten garrantzia euskal literaturaren sustapenean, aldizkari kultural horien babesa literatur testuen argitalpen-leku bihurtzean...

Ez dago eshaustibotasunik eskatzerik D. Agirrek idatzitako testuei eskaintzen zaien zerrendan. Lehenik eta behin, idazle honen eleberrigintzaren azterketa planteatu delako azterketagune. Gainontzeko testu nahiz beste edozein alorretako argibide, jakina, eleberrigintza horren azterketaren menpe jarri ditugu lagungarri diren neurrian erabiliz. Gainera ez da inoiz aurkeztu helburutzat Agirreren idazlanen bilduma bat egitea edo honen obra osoaren azterketa. Eta, bigarre-

(5) V.M. de Aguiar e Silvak eginiko bereizkuntzari jarraituz, "En el propio lenguaje crítico, el vocablo 'género' se refiere tanto a las grandes categorías de la lírica, de la narrativa y del drama, como a las diferentes especies englobadas en estas categorías —tragedia, comedia, novela, etc.—. Por esto proponen algunos críticos, a fin de evitar ambigüedades, la designación de **formas naturales** de la literatura para la lírica, la narrativa y la dramática, reservando la designación de **géneros literarios** para las especies históricas determinables dentro de aquellas **formas naturales**. AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, 179. or.

nez, bilduma oso bat eskaintzeak (argitaratutakoena izanda ere) oso lan sistematiko eta luzea eska dezakeelako; hain daude bere idazlanak barreiatuak: aldizkaritan, euskal festen oroimengarri desberdinetan, aldizkari eta egunkaritan berrargitaratuak...

Beraz, testuei eskainitako atal hau erakuskari zabal eta errepresentatiboa besterik ez da izango, jadanik azaldutako helburuei erantzunez. Eta abiapuntutik bertatik uzten dira bilketa honetatik at antologi edo histori moduan argitaraturiko liburuetan plazaturiko Agirreren idazlanak nahiz idazlan hauen atalak (6). Baita azken urte hauetan aldizkariren batean argitara zitekeen idazlanen baten atalak ere. Jasotzen diren idazlanen erreferentzia bibliografikoek idazlan hauen lehen argitalpena edo-ta sortu ziren garai horretan ezagutu zituzten argitalpenak izango dituzte oinarri eta, edozein kasutan, geroztikako argitalpenen bat erantsia. Eleberriak —aztergunea— salbuespen bihurtuko dira, jaso egingo bait da hauek ezagutu dituzten argitalpen desberdinen erreferentzia bibliografikoa.

Aurkezpenari dagokionez, azpisail-mota desberdinetan atalkatuta aurkeztuko da, azpisail hauek bihurtuz landu zituen testu-tipo desberdinen erakuskari. Bertan Agirre "irakurgaigilea", "izkirimirigilea", "irakurkizungilea" (7), poeta, sermoigilea, itzultzailea... azalduz joango da, landu zituen alor desberdinen lekukotasuna utziz.

Azpisail hauek planteatzean ere ahalik eta planteamendu-modurik erosoenera jo da. Testu-tipo desberdin batzuren bidez azaldu zuen aditzera eman nahi zuen mundua: eta berak testu-tipo horiek bataiatzean erabilitako izendapena edo-ta bere garaian erabilitakoa hautatu da hona aldatzeko, zenbait teorizazioren argitan edo egin zitekeen beste edozein sistematizazio-motatara jo gabe.

1.2.2. Beste zenbait egileren testuak

Agirreren testuez gain —eta testu hauen ezagueran sakontzeko, hain zuzen ere—, beste zenbait egileren testuak ere aipatu dira. Aipatu testu horiek garaikideak zaizkio gehienetan, baina ez beti.

---

(6) **Kresala** eleberriko "Kitolis" kapitulua, esate baterako, behin eta berriz bihurtu da eleberri honen erakuskari, testu aukeratu.

(7) Irakurgai, izkirimiri, irakurkizun hitzen bidez aditzera ematen dituzten kontzepturako ikus SOTA, M. de la; LAFITTE, P.; AKESOLO, L. de y COLAB.; **Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca**, V, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980, 2198. eta 2300. orr.

Batipat garaikide zaizkion testu hauen argitan atzeman da bere testuak hauekin duten lotura. Agirreren eleberrigintza, euskal testuartekotasun batean lekutzea bilatu da lehenik eta behin, gero, marko hori irekiz hizkuntza honen eta bere testuen mugak gaindituz, testuartekotasun zabalagora hedatzeko. Baina garaikide zaizkion testu hauetara mugatu gabe, hizkuntza-espazioaren koordenadetan ez ezik luzatu egin dira denborarenean ere adarrak.

Garaikide zitzaizkion testuak argituz joan dira euskal prosa narratiboaren hastapen hauen itxuratze-modua eta agerian uzten Agirreren eleberrien itxuratze-moduarekin izan dezaketen lotura. Eleberri hauek bere garaiko zenbait testurekin izan dezaketen harremana dela bide, eleberrigintza isolatu baten azterketa gainditu egin da testu-multzo baten partaide eta garai baten sorkuntza-modua eratuz doan elementu legez azalduz eta praktika testual hau marko zabalago baten argitan lekutuz. Agirreren testuak, azken finean, ez dira agerpen isolatu bat ez euskal literaturan, ez literatura orokorrean. Hala dirudi behintzat. Eta, honenbestez, literaturaren lehengaia den hizkuntzaren hesia igaroz, nahiz eta oso modu apalean eta murritzean, esparru zabalago bati egin zaio erreferentzia, esparru zabalago honetako testuekiko harremanak azaleratzeko.

Garaikide zaizkion testuak ez ezik bere aurrekoak eta gerokoak ere aipatu dira; izan ere, nahiz eta modu xumez, praktika testual hori dinamikoki aurkeztu nahi izan bait da, eleberrigintza hori kate baten katebegia eratuz doan praktika moduan. Eta, honenbestez, batipat euskal testugintzan eta bereziki kontaketaren alorrean kokatu nahi izan da. Bai bait dirudi badagoela nolabaiteko haria, mehea edo ez hainbeste, praktika testual hau lotuz doana...

Erreferentzi puntu hauek Agirreren eleberrigintza testu-multzo baten barnean —testu-multzo honen itxuratzeak bizi izan dituen koordenadekin— lekutzeko tresna bihurtu dira, eta testu hauek jasotzen dira atal honetan.

Aipatu testu guzti hauei ez zaie arreta berbera eskaini: batzu gehiago aztertu dira beste batzu baino. Nolanahi ere, guztiek lagundu dute leku-denborazko koordenada testualetan kokatzen Agirreren eleberrigintza.

Aurkeztu, egiletzak ezarritako ordena alfabetikoaren arabera

aurkezten dira, bertan azaltzen diren testu-tipo desberdinen artean inolako bereizkuntzarik egin gabe.

1.2.3. Domingo Agirreri buruzko azterketak

D. Agirreren testuei atal bat eskaini zaien bezala, eskaini zaie beste bat idazle honi edo bere obrari buruzko azterketei ere.

D. Agirreri buruzko azterketen alorrean jasotzen den bibliografia ere ez da aipatutakora soilik mugatuko. Zehazki, atal honetan, egile honen testuenean bezala, aipatu dena baino zabalagoa da kontsultatu den bibliografia.

Ez dago ukatzerik beste euskal idazle askori baino azterketa-lan gehiago eskaini zaiola. Eta azpi-sail hau da esandakoaren lekuko zuzena. Baina aldiberean zenbait gogoeta sortzeko iturri bihurtzen da ugaritasun hori.

Agirreri buruzko azterketa-lanen gain eginiko analisi batek, eta batipat analisi hori eleberrigile honen eleberrien deskripzioa egiteko hartu den ikusguneari egokitzen bazaio, honako hauek uzten ditu agerian:

—Azterketa-lanen esparruan lekututako hainbat erreferentzia bibliografiko eleberri hauen argitalpenen bati buruzko berriemateak dira edo-ta argitalpenen bati eginiko hitzaurreak. Ezin eska dakieke ez batari eta ez besteari eleberrien estudio bat egitea. Ez bait da hori beren helburua, baizik eta argitalpen konkretua komentatzea batipat eta zenbait argibide eskaintzea gehienez: idazlearen bizitza, obra edo argitaratzen den obra konkretua.

—Badira bere bizitzari buruzko zertzeladak eskaini dituzten azterketak: apaizgintzarako bidea, apaizgintza, bere izaera...

—Badira beste zenbait azterketa, metodo biografikoa (8) oinarritzat hartu dutenak.

---

(8) "El **método biográfico** confronta la obra con el artista. De éste se recoge y ordena cuidadosamente todo tipo de noticia útil, con el auxilio de la misma obra, de posibles epistolarios o diarios y de ocasionales testimonios contemporáneos". PAGNINI, M.; **Estructura literaria y método crítico**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982, 3. argitalpena, 133. or.

—Badira beste zenbait azterketa, epai-kritika (9) oinarritzat hartu dutenak.

—Badira zenbait azterketa, kritika inpresionista (10) oinarritzat hartu dutenak ere.

Dena den, eta laburbilduz, esan daiteke batipat zenbait data seinalagarriren inguruan kontzentratu direla azterketa-lan hauek: bere heriotzaren inguruan, argitalpen berri baten inguruan, urteurrenen baten inguruan... Orohar laburrak dira eta aipatu metodoen zantzuak nabarmentzen dira aztergaira egindako hurbilpenetan.

Kopuruari dagokienez, azterketa-lan gutxienek bideratu dute beren ikusgunea Agirreren obraren baten deskripzioa egitera.

Azalduriko azterketa-lanen ezaugarriak bitarteko, ez da atal bibliografiko honen erabilera zabala egin. Azterketa-lanik gehienak ez ziren azterketa-lan honen ikusgunera egokitzen. Bestela esanda, ezin egin zezaketen ekarri handirik hemen hartutako ikusgunearen muinera, beste ikusgune batetik eginak direlako. Baina, dena den, begibistakoa denez, guztiz interesgarri eta baliagarri bihurtu dira hainbat alderdi osatzeko. Arestian aipaturiko deskripzio horien ekarria hurbildu da gehien hemen hartutako ikusgunera; beraz, erdigunerago kokatzen da azterlan hauek eskainitako laguntza.

Aurreko azpisail horri bezala egile honi buruzko azterlanen zerrendari ere, ez dago eshaustibotasunik eskatzerik. Dena den, eshaustiboa ez bada ere, Agirre eta honen obrari buruz idatzi denaren oso erakuskari zabala da zerrenda. Abiapuntutik bertatik gelditzen da zerrenda honetatik kanpo euskal literaturaren historiek D. Agirreri eskaini dizkioten orrialdeen aipamena. Azterketa-lan honetan aipatutako euskal literaturaren historiek hurrengo azpisailean izango dute lekua. Besteak beste, aurrezki-faktoreak gomendatzen du honelako aukera egitea: euskal literaturaren historiez egin den erabilera ez

(9) Kritikoaren lehen eta oinarrizko eginkizuna epaitzea da kritika-mota honentzat. Ikus WELLEK, R.; **Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). Los años de transición**, III, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1959. Zenbait azterketa Agirreren eleberriak epaitzera bideratu da.

(10) Inpresio subjetiboak eskaintzen dituelako deitzen da kritika subjetiboa. Ikus, esate baterako, Vernon Hall-ek Anatole France-ri eskaintzen dion atala (VERNON HALL, Jr.; **Breve historia de la crítica literaria**, 213-216. orr.), edo goian aipaturiko R. Wellek-en liburua.

da Agirreren idazlanen azterketara murrizten; aitzitik, esparru zabalagora hedatu da beraien laguntza, garai honetako testu nahiz idazleei buruzko zertzeladak eskainiz. Azpisail honetan beraien erreferentzia bibliografikoa emateak ez zuen hurrengoan ez ematea zilegiztatzen; beraz, ondorengo azpisail orokorragorako utzi dira errepikatzeari iruzur egiteko.

Arrazoi beragatik utzi dira azpisail honetatik kanpo Agirre edo honen obra aipagai, erreferentzi puntu edo-ta azterlan zabalago baten atal —atal hori zehatz-mehatz mugaturiko atal legez oharretara eraman ez denean behintzat— hartzen zuten azterketa-lan haiek. Azterketa-lan hauetaz egindako erabilera ez da Agirreren eleberrien azterketara mugatu; eta, honenbestez, egokiago dirudi ondorengo azpisail orokorrago horretan lekutzea.

1.2.4. **Beste zenbait azterketa eta azterbide**

Honako azterketa eta azterbide hauei toki egiten zaie azpisail honetan: D. Agirreren testuak nahiz testu horiek kokatzen direneko testuingurua (garai honen koordenada sozio-politiko, linguistiko, testuak, etab.) nahiz Agirreren testu horiek aurreko edo beranduagoko euskal literaturaren beste zenbait fruiturekin izan ditzaketen harremanak aztertzeko tresna izan direnak.

Bertara ekarritako erreferentzia bibliografikoak azterketa-lanean aipatutakoak dira soil-soilik. Mota desberdinetakoak dira, estudio honen zutabeak bezala: historia (politikoa, linguistikoa, eta zer esanik ez, literarioak), teoria literarioa, kritika literarioa...

Azterketek ez ezik azterbideek ere eman diote izenburua atal honi, bertan aurkitu ahal izango bait dira azterlan honen oinarri teoriko eta metodologikoak eraikitzen erabilitako bideak.

1.2.5. **Aldizkariak**

Azkenik, azpisail bat egin zaie aldizkariei. Bertan jasotzen dira aldizkariak eta aldizkari hauen aipatutako orrialdeen zerrenda. Bereziki honako bi arrazoi hauek gomendatu dute azpisail hau eraikitzea:

—Azterlan honetako hainbat eta hainbat berri aldizkarietatik jaso dira. Batzuk egiletza jakina dute; beste batzu, izenpetu gabekoak dira edo kolektiboren baten izenean partaideren

batek igorritako eskutitz, akta, informea...; beste batzu, egiletza jakinik gabeak (aldizkarien erredakzioak seguraski), hainbat berriemate (bibliografikoak, pasadizoak...), testuren baten argitalpenari eginiko oharrak... eskaintzen dituzte.

Egiletza jakineko artikuluek egiletzaren azpian dute beren aipamena; izenpetu gabekoek edo kolektiboren baten izenean partaideren batek igorritako idatziek, kolektiboaren izenaren azpian; dena delako idatziaren izenburuek, berriz, ezarritako ordena alfabetikoaren azpian dute berea. Baina egiletza jakinik gabeko berri edo oharrei toki egiteak aurkezpen-arazoak sortzen zituen zerrenda bibliografikoan (11). Guztiak aldizkariak eskainiak direlarik, aldizkarien zerrenda honetan aipatutako orrialdeetan bakarrik dute beren lekua.

—Bestalde, beste erizpide nagusi bat ere izan da atal bibliografiko hau osatzean: ahal zen neurrian, azterketa-lanaren planteamenduaren eta azterketa-lanak agerian utzitako zenbait zertzeladaren lekuko bihurtzea. Honela, atal honetan, euskal fikziozko prosaren sorreran aldizkariek izandako garrantziaren aztarna utzi nahi izan da, sorrera horren azpiegiturari eginiko ekarria ispilatu.

Jakina, aipatu diren beste aldizkari guztiei ere egin zaie toki atal honetan, fikziozko prosa honen sorrerarekin harremanik izan ala ez. Dena den, hala ere, zerrenda horretan aipatuenak diren bi aldizkariek (**Euskal-Erria, Euskalzale**) jokatu zuten garai honetan paperik garrantzitsuena arestian azalduriko azpiegitura-eraketan.

(11) Batzu "Misceláneas" izenburu orokorraren azpian lekutu zitezkeen, izenburu orokor horren azpian jasotzen diren mota desberdinetako berriek osatzen bait dute atal horietako bat. Beste batzuk aukera hori ere ez zuten eskaintzen; ez bait zuten egiletzarik, ez orokorra eta ez partikularra zatekeen titulurik.

2. BIBLIOGRAFI ZERRENDA

2.1. DOMINGO AGIRREREN TESTUAK

2.1.1. Irakurgaiak (Eleberriak)

AGIRRE, D.; "Auñemendiko Lorea" in **Euskalzale**, II, 1898, (19-20, 26-28, 34-36, 46-48, 53-55, 61-64, 70-72, 78-79, 85-87, 90-91, 101-103, 118-120, 124, 134--135, 140-141, 149-150, 156-157, 163-164, 181--183, 190-192, 199-200, 206-207, 215-216, 223, 226-227, 238-239, 242, 251-253, 261-262, 267-268. orr.).

—**Auñemendiko Lorea**, Euskalzalen moldagintzan, Bilbon, 1898.

—**Auñemendiko Lorea**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1966, bi liburuki, 2. argitalpena.

—**Auñemendiko Lorea**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986. (Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano).

—"Garoa" in **RIEV**, I, 1907, (42-47, 172-179, 453--463. orr.), II, 1908, (359-368, 625-637. orr.), III, 1909, (274-285. orr.), IV, 1910, (21-31, 298-304. orr.), V, 1911, (86-96, 405-420. orr.), VI, 1912, (174-196, 425-440. orr.).

—**Garoa**, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1912.

—**Garoa**, Euskalzaleak, Beñat Idaztiak, Donostia, 1935, bigafen agefaldi obetua.

—**Garoa**, Aranzazu argitaldaria, irugarren agerraldi obetua, 1956.

—**Garoa**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1966, laugarren argitaldia.

—**Garoa**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1981, 5. argitalpena.

—**Garoa**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1983, seigarren argitaldia.

—**Garoa**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1987. (Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria).

—"Kresala" in **Euskal-Erria**, XLV, 1901, (501-504, 553-556, 577-582. orr.), XLVI, 1902, (70-74, 248--252, 308-311, 400-405. orr.), XLVII, 1902, (129--133, 161-164, 196-199, 225-231, 444-447, 469--474, 534-537, 598-602. orr.), XLVIII, 1903, (70--74, 133-137, 171-176. orr.), XLIX, 1903, (146--151. orr.), L, 1904, (172-177, 232-235, 279-282, 456-459, 517-521. orr.), LI, 1904, (103-107. orr.), LII, 1905, (453-462. orr.).

—**Kresala**, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n 1906, 2. agerraldia.

—**Kresala**, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1954, 3'garren ateraldia.

—**Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1967, laugarren argitaldia.

—**Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1976, 5. argitaldia.

—**Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1984, seigarren argitaldia.

—**Kresala**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986. (Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe).

—**Kresala**, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak saila, San Sebastián, 1988. (Edizio-prestatzailea: Jon Arretxe).

—"Ni ta ni" in **Euskal-Esnalea**, VII, 1917, (169-173, 200-203, 210-215. orr.).

2.1.2. **Ipuinak**

AGIRRE, D.; "Anton Betozko" in **Euskalzale**, I, 1897, (60-61, 67-68, 75-76. orr.).

—"Buruazurra. Ichas aldeko irakurgeya" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (276-278. orr.). Halaber "Buruazurra. Itšas aldeko irakurgeia" in **Euskalzale**, I, 1897, (354. or.); nahiz "Buruazurra. Itxasaldeko irakurgeia" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Idia elizan" in **RIEV**, IX, 1918, (69-70. orr.).

—"Lenbiziko samiña" in **Ibaizabal**, I, 1902, garagarrilla-ren, 29, (1-2. orr.), uzta-ren, 6, (3. or.), uzta-ren, 13, (1. or.).

—"Mainton Itzontzi" in **Euskalzale**, I, 1897, (187-188. orr.).

2.1.3. **Izkirimiriak**

AGIRRE, D.; "Izkirimiriak" in **Euskalzale**, I, 1897, (46, 54, 59, 134. orr.), II, 1898, (5. or.). Halaber, "Bost ipuin txiki: Emango nion, Erloju konpontzen, A zelako mallukia!, Iges aiña, Pazientzia" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

2.1.4. **Irakurkizunak**

AGIRRE, D.; "A. Larramendi-ren bizitza-ren berri labur bat" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1890, (67-83. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXIII, 1890, (545-561. orr.); nahiz **Euskalzale** II, 1898, (388-389, 397-398, 421-424. orr.).

—"Convertimini" in **Euskalzale**, III, 1899, (50. or.).

—"Etšebarriatar Silberio Franzisko Iauna" in **Euskalzale**, III, 1899, (58-59. orr.).

—"Gabona ta Egunona" in **Euskalzale**, III, 1899, (397-398. orr.).

—"Iesus-Umearen estalkia" in **Euskalzale**, II, 1898, (402. or.).

—"Itzaurrea" in MOGEL, B.A.; **Ipui Onak**, Martín Mena y Cía, Donostia, 1912, (IX-XVI. orr.).

—"Iziar-ko Ama-ren kondaira laburtshoa" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1894, (65-78. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXXIII, 1895, (72--77, 133-137, 166-171. orr.).

—"Juan-etorri bat Erroma-ra" in **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (135-137, 184-185, 205-207, 251-252, 272-274, 394-396, 445-448, 458-464, 553-559. orr.), XXVII, 1892, (39-41, 72-76, 104-105. orr.), XXVIII, 1893, (237-241, 236-266. orr.). Halaber, "Ioan-etorri bat Erromara" in **Euskalzale**, III, 1899, (90-91, 108-109, 117, 141, 158-159, 175-176, 181-182, 190-191, 203-204, 211-212, 219-220, 231--232, 243-244, 259-261, 267-268, 274-275. orr.).

—"Juxta Crucem" in **Euskalzale**, III, 1899, (98. or.).

—"Maitetasuna" in **Euskalzale**, II, 1898, (108-109. orr.).

—"Lañoa ta Griña" in **Euskal-Esnalea**, I, (33-34. orr.).

—"Marina Saenz Likona-tarra" in **Euskalzale**, I, 1897, (247. or.). Halaber, **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Pulvis es" in **Euskalzale**, II, 1898, (59-60. orr.).

—"Zumaya" in **Euskal-Erria**, XLIII, 1900, (278-280. orr.).

2.1.5. Hitz neurtuak

AGIRRE, D.; "¡Ai, balekite!" in **Euskal-festak Oyarzunen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1897, (17-20. orr.). Halaber, **Euskal--Erria**, XXXV, 1896, (12-14. orr.); nahiz **Euskalzale**, I, 1897, (266. or.).

—"Agure kanta" in **Euskal-festak Mondragonen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1896, (24-28. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXXV, (12-14. orr.); nahiz **Euskalzale**, I, 1897, (186. or.).

—"Ama bat" in **Euskal-Erria**, XXIII, 1890, (365-366. orr.). Halaber, **Euskalzale**, I, 1897, (22. or.); nahiz **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Arantzazu-ko Amari" in **Aranzazu**, n.º 441, 1966, (378. or.).

—"Aritzari ta Euskaldunei" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (376. or.).

—"Beste lora batzuk" in **Euskalzale**, I, 1897, (142-143. orr.).

—"Ereziak Iesusi" in **Euskalzale**, II, 1898, (8. or.).

—"Gernika-ri" in **Euskal-Erria**, XXXV, 1896, (350-351. orr.).

—"Ipuia" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (145. or.).

—"Ichas-aldian" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (390-393. orr.). Halaber, "Itsas aldian" in **Euskalzale**, II, 1898, (58-59. orr.).

—"Ichas-Ertzian" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1891, (37-40. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (562-565. orr.).

—"Jesusen biotzari" in **Euskal-Erria**, XXXVI, 1897, (474-476. orr.). Halaber, **Euskalzale**, I, 1897, (179-180. orr.); nahiz **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Kantariak" in **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (388. or.). Halaber, **Aranzazu**, n.º 437, 1966, (II. or.).

—"Mariñela" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (525. or.).

—"Naikua juat" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (562--563. orr.).

—"Negua" in **Aranzazu**, n.º 436, 1966, (II. or.).

—"Ondarribi" in **Euskal-Esnalea**, IV, 1914, (118--119. orr.).

—"On Pedro Nobia Salzedo-kuaren jaiotzako lelengo eunkidan" in **Euskal-Erria**, XXII, 1890, (53-55. orr.).

—"Seiaskatsõ bat" in **Euskalzale**, II, 1898, (403-404. orr.). Halaber, **Euskalerriaren Alde**, I, 1911, (355--356. orr.); nahiz **Euskal-Esnalea**, I, 1911, (170--171. orr.); nahiz "Seiaskatxo bat" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Zarako lorea" in **Euskalzale**, I, 1897, (43. or.).

—"¡Zer pakea!" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengaria,** Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1894, (29-30 orr.). Halaber, **Euskal--Erria**, XXXII, 1895, (39-40. orr.).

2.1.6. Itzulpenak

AGIRRE, D.; "El Bascuence" in **Euskal-Erria**, XXIV, 1891, (60--61. orr.). A. Arzac-en "Euskara" hitzaldiaren itzulpena.

—"La montaña" in **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (540. or.). A. Arzac-en "Mendiya" poemaren itzulpena.

—"Lafaldeko Lorea" in CAMPION, A.; **Narraciones Baskas**, III, Zabalkundea sorta, Zarautz, 1935, (78-133. orr.).

—"Mi tierra" in **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (541. or.). A. Arzac-en "Nere lurra" poemaren itzulpena da.

—"¡Pobrecilla!" in **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (540. or.). A. Arzac-en "Gasua" poemaren itzulpena da.

—"Un bascongado ilustre y filólogo eminente. Breve noticia biográfica del P. Larramendi" in **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (105-110, 129-134, 161-167. orr.). D. Agirre beraren "A. Larramendi-ren bizitza-ren berri labur bat" irakurkizunaren itzulpena da.

2.1.7. **Hitzaldiak**

AGIRRE, D.; "Eskefik asko. Nexka baten itzalditxoa" in **Euskal-Esnalea**, XV, 1925, (201-202. orr.).

—"Euskeraren alde" in **Euskal-Esnalea**, VI, 1916, (118-121. orr.).

2.1.8. **Sermoiak**

AGIRRE, D.; "1898-ko Agorraren 18-an Gipuzkoako Diputazio Chit Goituaren Aurrean On Domingo Agirre Abadea-k Meza nagusian egintako SERMOYA. Zestua-ko eleizan" in **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, (285-308. orr.).

2.2. BESTE ZENBAIT EGILEREN TESTUAK

ADEMA, G., (Piarres Uxaleguy); "Errepublika" in **RIEV**, III, 1909, (229-233. orr.).

(Sempertarra); "Betiri-Sanx" in **Neurtiztarien gudua. Saraco bestan**, Imprimerie A. Lamaignère, Bayonne, 1874.

("Zalduby"); "Chants patriotiques" in **RIEV**, III, 1909, (396-400. orr.).

- "Fables" in **RIEV**, II, 1908, (757-774. orr.).
- "Pilotariak" in **RIEV**, II, 1908, (90-94. orr.).

AGIRRE, T., (Bafensoro); **Uztaro. Gure efiaren bizierari buruz, edesti jakingafia**, Editorial Vasca irarkolan, Bilbao'n, 1950, bigafen argitaldaria.

AGIŔE'TAŔ, T., (Bafensoro); **Uztaro**. Ikus AGIRRE, T.

ALZAGA, T.; "Iziar" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1889, (23-26. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXI, 1889, (573-575. orr.).

—"Okendo" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1891, (25-28. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (529-532. orr.).

ALZAGA-KO, T.; "Okendo". Ikus ALZAGA, T.

———— "Antiguako Ama Virjiña" in **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza,** Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879, (21-25. orr.), (egilearen izenik gabe). Halaber, **Revista Euskara**, II, 1879, (264-268. orr.).

ANABITARTE, A.; "Donostia. Joan dan mende-atzenean Donostia nolakoa zan" in **Augustin Anabitarteren idaz lanak**, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1986, (103--197. orr), bigarren agerraldia. Ikutua. (Lehen argitalpena: Editorial Vasca, Bilbao, 1932).

—"Usauri. Erri kozkor baten izaera eta oiturak" in **Augustin Anabitarteren idaz lanak**, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1986, (15-101. orr.), bigarren agerraldia. Ikutua. (Lehen argitalpena: Editorial Vasca, Bilbao, 1931).

APAOLAZA, A.; **Patxiko Txerren**, Auspoa Liburutegia, 8, Tolosa,

1962. (Lehen argitalpena: **Pachicu Cherren**, J. López, Vergara, 1890).

ARANA GOIRI, S.; "Euzko Abendearen Eresefkija" in **Obras Completas de Arana-Goiri'taf Sabin**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, (2413. or.), (hiru liburukiz osaturiko obra).

ARANA-GOIRI'TAŔ, S.; **Obras completas**. Ikus ARANA GOIRI, S.

ARANA, V.; "El Basojaun y la Maitagarri. Recuerdo del Duranguesado" in **Revista de las Provincias Euskaras**, I, 1878, (43-46, 66-72, 93-96, 117-120, 140-144, 185--192, 213-216, 237-240, 256-264, 279-288. orr.).

—**Jaun Zuria o el caudillo blanco. Leyenda histórica, original del siglo IX...**, Impr. Revista de Vizcaya, Bilbao, 1887.

—"La leyenda de Lelo" in **Revista de las Provincias Euskaras**, IV, 1880, (63-72, 102-106, 183-191. orr.).

—**Los últimos iberos. Leyendas de Euskeria**, Fortanet, Madrid, 1882.

ARAQUISTAIN, J.V.; **El Baso Jaun de Etumeta. Novela histórica vascongada**, Fr. Muguerza, Tolosa, 1882.

—**Tradiciones vasco-cántabras**, Impr. de la Provincia, Tolosa, 1866.

ARRESE BEITIA, F.; "Ama euskeriari azken agurrak" in **La Semaine de Bayonne**, 1879, VIII, 6.

—"Arbola bat" in ONAINDIA, A.; **Mīla euskal-olerki eder**, I, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 2. argitalpena, (293-295. orr.).

—"Astarloa asko yakinari alabantzak" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, (454-457. orr.).

—**Olerkiak**, Euskal Idazleak Euskaltzain-

dia'ren ardurapenean, Gráficas Bilbao, Bilbao, (1956?). (Edizio-prestatzailea: A. Onaindia).

—**Olerki Sorta bat**, Euskal Editoreen Elkartea, Elkar, Donostia, 1987. (Edizio-prestatzaileak: Boneta, Aldabaldetreku, Goikoetxea).

ARRESE TA BEITIA, F.; **Olerkiak.** Ik. ARRESE BEITIA, F. "Astarloa asko yakinari alabantzak". Id. "Ama euskeriari azken agurrak". Id.

ARESE BEITIA, F.; "Arbola bat". Ikus ARRESE BEITIA, F.

ARRUE, F.I.; "Euskaldunen bikaiñtasuna" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1886, (19-24. orr.). Halaber, **Euskal-Erria,** XVI, 1887, (196-201. orr.).

ARRUE, G.; "Aspaldi ayetako gure asabak euskaldunak ziran; gu ere bai omen: ala uste" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1882, (35-45. orr.). Halaber, **Euskal-Erria,** VII, 1882, (549-557. orr.).

—"Gurasoakin zu nola, zure umeac zurekin ala" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1881 (29-35. orr.). Halaber, **Euskal-Erria,** V, 1882, (97-101. orr.); **Euskalzale,** I, 1897, (343-344, 356-357. orr.).

—**Santa Jenobebaren bizitza,** Euskal Editoreen Elkartea, Erein, Donostia, 1987. (Edizio-prestatzailea: L. Akesolo). (Lehen argitalpena: **Santa Genovevaren vicitza antziñaco demboretaco condairen ederrenetaco bat; persona prestu guztientzat; baña berezquiro amacquin beren seme-alabentzat era egoquian Zarauzco escola-maisu D. Gregorio Arrúec ipiñia,** Pedro Gurruchaga-ren moldiztegian, Tolosan, 1868 garren urtean).

—"Zarauzko ondekidatzea" in **Euskal-festak Donos-**

tian. **Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1884, (23-27. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XII, 1885, (471-474. orr.).

ARRUE, G. de; "Gurasoakin zu nola zure umeak zurekin ala". Ikus ARRUE, G.
"Zarauzko ondekidatzea". Id.

ARRUEKO, F.I.; "Euskaldunen bikaiñtasuna". Ikus ARRUE, F.I.

ARTOLA, J.; "Bizi bedi Euskera" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1888, (39-49. orr.).

—"Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1886, (55-66. orr.).

—"Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1887, (37-42. orr.).

—"Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1889, (51-56. orr.).

—"Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1890, (33-42. orr.).

ARTOLA, Ramon; "Altabizkarko kantua" in **Neurtizlarien gudua. Elizondoko Bestetan garhait saria eraman duen kantua Ramon Artola, Donestiakoak egina**, Imprimerie Lamaignère, Bayonne, 1879. Halaber, **Revista Euskara**, II, 1879, (244-246. orr.).

—"Euskarazko Ipui berriyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1884, (41-58. orr.).

—"Ipuiak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1885, (27-59. orr.).

—**Sagardoaren graziya ta beste bertso asko**, Auspoa liburutegia, 1, Tolosa, 1961.

ARTOLA, Rosario ; "Ipuiyak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1892, (31-36. orr.).

ARZAC eta ALBERDI, A.; "Aztua" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (293-295. orr.); nahiz **Euskal-Erria**, X, 1884, (158-160. orr).

—"Baga" in **Euskal-Erria**, XXIII, 1890, (202. orr.).

—"Pachi ta Konchesi" in **Euskal-Erria**, X, 1884, (7-14, 33-37. orr.).

AXULAR, P.; **Gero**, Jakin, Arantzazu, Oñati, 1976. (Lehen argitalpena: **Guero**, G. Milanges Erregueren Imprimagaillea baithan, Bordelen, 1643).

AZKUE, E.M.; **Parnasorako Bidea**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1979. (Argitalpen hau 1896. urtean, Bilbon, Astuitar J.-n moldagintzan egin zen lehen argitalpenaren faksimila da).

AZKUE, R.M.; **Ardi galdua**, Jesusen Biotzaren elaztegian, Bilbon, 1918.

—"Batsi guzur" in **Euskalzale**, I, 1897, (131-132, 140-141, 155-156, 165-166, 172-173, 189-190, 221-222, 309-310, 317-318. orr.), (egilearen izenik gabe).

—"Bein da betiko" in **Euskalzale**, II, 1898, (276, 283-284, 290-291, 301-302, 312, 318-319, 342, 350, 366-367, 373-375, 390-391, 413-414. orr.), (egilearen izenik gabe).

—**Bein da betiko. Batxi guzur**, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak saila, Erein, Donostia, 1986. (Edizio-prestatzailea: I. Pagola).

—**Euskalefiaren Yakintza, (Literatura popular**

del País Vasco), Espasa-Calpe, Madrid, 2. argitalpena, lau liburuki; I: 1959; II: 1966; III: 1969; IV: 1971.

—"Kristobal andia" in **Euskalzale,** I, 1897, (92-93, 99-100, 109-110. orr.), (egilearen izenik gabe).

—**Latsibi**, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989.

—**Lenengo irakurgaia. Bein da betiko**, Imprenta de la Casa de Misericordia, Bilbao, 1893.

(Ezti-Abauak); "Peru Matraka ta Pedr'Anton" in **La Abeja**, I, 1889, (30-32. orr.), II, 1890, (55-60. orr.), III, 1890, (92-96. orr.), IV, 1890, (126-128. orr.), V, 1890, (156-160. orr.), VI, 1890, (188--192. orr.).

AZKUEKO, R.M.; **Lenengo irakurgaia. Bein da betiko.** Ikus AZKUE, R.M.

AZKUETAR, E.M.; **Parnasorako Bidea**, Ikus AZKUE, E.M.

BARBIER, J.; **Piarres**, S. Sordes, Baionan. Lehen zathia: 1926; bigarren zathia: 1929.

BAROJA, P.; **La leyenda de Jaun de Alzate**, Espasa Calpe, Colección Austral n.º 177, Madrid, 1983, zortzigarren argitalpena (Lehen argitalpena: R. Caro Reggio, Madrid, 1922).

—**Zalacaín el Aventurero. Historia de las buenas andanzas y fortunas de Martín Zalacaín de Urbía**, Espasa Calpe, Colección Austral n.º 346, Madrid, 1984, hamazazpigarren argitalpena. (Lehen argitalpena: E. Domenech, Barcelona, 1910).

BAROJA, S.; **Hirni ama alabac, drama en dos actos, en vascuence y en verso de doce sílabas, con su traducción en prosa castellana**, Izturiz, Pamplona, 1882.

—"Pudente. Opera en tres actos" in BAROJA, S.;

Bertsoak, Pudente, Tormesko Lazarotxoa, Kontuak, Txertoa argitaldaria, Donostia, 1988, (79-124. orr.). (Hitzaurrea: J. Caro Baroja; Argitaldia: P. Urkizu). (Lehen argitalpena: A. Baroja, San Sebastián, 1878).

BELAUSTEGI, J.J.; **Ipafagiſe'ren oleſki-eresien bilduma ta eſti--iritsi labuſa**, Koldobika Rodrigez'en moldistegia, Oñati, 1933.

BERMINGHAM, J.; **Bi ganbarac**, impr. E. Lasserre, Bayonne, argitalpen-urterik gabe.

—**Herejien eta bezte gauza batzuren gañean Pachicuren eta Mañubelen bigarren berriqueta**, Imp. Veuve Lamaignère, Bayonne, argitalpen-urterik gabe.

—**Mañubel eta Pachicu**, argitalpen-lekurik eta argitalpen-urterik gabe.

—**Pello Mariren ganbara**, impr. E. Lasserre, Bayonne, argitalpen-urterik gabe.

—**Tereſcharen zukaldea. Pachicu, Mañubel, Teresha, D.° Pablo eta Josche Domingo, alcarrequin berriquetan**, Imp. de Veuve Lamaignère, Bayonne, argitalpen-urterik gabe.

_____ **Berxutako gudua Done Palioco Bestan**, Imprimerie Lamaignère, Bayonne, 1877.

_____ **Berxutako gudua Sarako Bestan**, Imprimerie Lamaignère, Bayonne, 1878.

BILINTX, (I. Bizcarrondo); **Bertso ta lan guziak**, Auspoa Liburutegia, 12, Donostia, 1962.

BISCAITARRA; "Jaungoicua ta errija" in **Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan**, Imprimerie A. Lamaignère, Bayonne, 1874.

CAMPION, A.; "Agintza" in **Euskal-Erria**, XVI, 1887, (29-30. orr.).

—"Denbora Anchiñakoen Ondo-Esanak" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1881, (19-28. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, V, 1882, (33-36, 65-69. orr.); **Euskalzale**, I, 1897, (295, 302-303, 306-307. orr.).

—"Okendoren eriotza" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (517-525. orr.). Halaber, **Euskalzale**, I, 1897, (227-228, 252-253, 268. orr.).

CARDABERAZ, A.; **Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac**, Antonio Castilla-ren echean, Iruñean, 1761.

DARROUPE-HARLUZ; "Amerikarik bidalia" in **Revista de las Provincias Euskaras**, III, 1879, (183-186. orr.).

DASKONAGERRE, J.B.; **Atheka-gaitzeko oihartzunak**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1970. (Lehen argitalpena: impr. Vve Lamaignère, Bayona, 1870).

DETXEPARE, B.; **Olerkiak**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1978. (Lehen argitalpena: **Linguae Vasconum Primitiae**, Franciscum Morpain, Burdigalae, 1545).

DUVOISIN, J.P.; **Baigorriko zazpi liliak**, Elkar, Donostia, 1987. (Edizio-prestatzailea: J. San Martin).

—**Laborantzako liburua edo Bi aita semeren solasak laborantzaren gainean**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1978. Argitalpen hau Andre Lamaigneren moldiztegian, Bayonan, 1858.ean eginikoaren faksimila da.

—**Laborantzako liburua edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean**, Euskal Editoreen Elkartea, Kriselu Editoriala, Donostia, 1986. (Edizio-prestatzailea: P. Altuna).

ECHEGARAY, B.; "Irakurgai chiki bat" in **Euskal-Erria**, XXVIII, 1893, (509-510. orr.).

ECHEGARAY, K.; "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1882, (47-50. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, VII, 1882, (561-563. orr.); **Euskalzale**, III, 1899, (269. or.).

—"Andeka" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (549--554. orr.).

—"Antziñako gertaerak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1888, (19-24. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XX, 1889, (7-12. orr.); **Euskalzale**, II, 1898, (255-256, 259-260. orr.).

—"Euskal-Erria" in **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (1-4, 33-37, 65-68. orr.); nahiz **Euskalzale**, II, 1898, (271-272, 273-275, 285-287. orr.).

—"Euskaldun bikaiñ bat" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1890, (25-30. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (362-367. orr.).

—"Gurasoaren zigorra" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1884, (17-22. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XII, 1885, (368-372. orr.); **Euskalzale**, III, 1899, (251-253, 263. orr.).

—"Kontu zarrak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1891, (19--23. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXV, 1891, (553-557. orr.).

—"Maieko bedeinkaera" in **Euskal-Erria**, XII, 1885, (313-314. orr.).

—"Malko bedeinkatuak" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1887, (19-27. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, (46-50, 88-92. orr.); **Euskalzale**, II, 1898, (189-190, 198-199, 203-204. orr.).

—"Pedro Beretarrakoari" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (216-220. orr.); nahiz **Euskal-Erria**, IX, 1883, (172-174. orr.).

—"Zertako" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (258. or.); nahiz **Revista Euskara**, VI, 1883, (254. or.).

ECHEGARAY-KO, K.; "Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren asiera". Ikus ECHEGARAY, K.
"Aitor-en etorrera edo Euskal Erriaren aziera". Id.
"Antziñako gertaerak". Id.
"Euskal-Erria". Id.
"Euskaldun bikaiñ bat". Id.
"Gurasoaren zigorra". Id.
"Kontu zarrak". Id.
"Maieko bedeinkaera". Id.
"Malko bedeindatuak". Id.
"Pedro Beretarrakoari". Id.
"Zertako". Id.

ECHEGARAY, C. de; "Andeka". Ikus ECHEGARAY, K.

ETŠEGARAI-KO, K.; "Aitor-en etorrera edo Euskalerriaren asiera". Ikus ECHEGARAY, K.
"Antšiñako gertaerak". Id.
"Euskal-Erria". Id.
"Gurasoaren zigorra". Id.
"Malko bedeinkatuak". Id.

EIZAGIRRE, J.; **Ekaitzpean. Ipuinberri**, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1948.

EIZAGIRRE'TAR, J.; **Ekaitzpean**. Ikus EIZAGIRRE, J.

ELISSANBURU, J.B., (Piarres Adame); "Apecha eta Lorea" in **Revue des Basses-Pyrénées et des Landes**, I, 1884, (231-232. orr.).

(M. Elizamburu,***); "Apecha eta lorea"; "Nere etchea" in **Urruñaco Eliza-Besta. Coplarien gudua**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 1862.

(Joanes Berjes); "Artzaingoa" in **Sarako Eliza-Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère, Bayonne, 1865.

—"Maria" in **Sarako Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère, Bayonne, 1866.

—**Piarres Adame**, Euskal Editoreen Elkartea, Elkar, Donostia, 1986. (Lehen argitalpena: **Piarres Adame Saratarra. Zembait hitztorio laphurdiko eskuaran**, impr. Garet, Pau, 1888).

—"Poesías de J.B. Elizanburu" in LABAYEN, A.M.; **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1978, (179-221. orr.).

ETCHEBERRY, A.; "Chorien besta" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1888, (51-53. orr.).

ETXAIDE, Y.; **Alos-Toŕea**, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1950.

—**Joanak-Joan**, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1955.

ETXAIDE'TAR, Y.; **Alos-Toŕea**. Ikus ETXAIDE, Y.
—**Joanak-Joan**. Id.

ETXEITA, J.M.; **Josetxo**, Labayru Ikastegia, Editorial Vizcaina, Bilbao, 1982. (Aurkezlana: A. Etxebarria. Moldakuntza eta Hiztegitxoa: A. Arejita). (Lehen argitalpena: **Josecho**, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1909).

—**Jaioterri Maitia**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1988. (Sarrera: I. Sarriugarte). (Lehen argitalpena: **Jayoterri Maitia**, Florentino Elosu-ren echean, Durango-n, 1910).

FENELON-DUVOISIN; **Telemake. Ulisen semearen gertakuntzak**, Elkar, Donostia, 1988. (Edizio-prestatzailea: P. Urkizu).

———— **Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain**, Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore, argitalpen-leku eta argitalpen-urterik gabe.

GARMENDIA, J.; **Obras inéditas de Iztueta. (Poesía, correspondencia, testamentos)**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.

GERRA, J.K.; "Ama Birjiña Aranzazu-koaren kondaira" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1890, (53-66. orr.). Halaber, **Euskalzale**, III, 1899, (14-15, 19-20, 35-36, 56, 59-60, 71-72. orr.).

GERRA-KO, J.K.; "Ama Birjiña Aranzazu-koaren kondaira". Ik. GERRA, J.K.

GILBEAU, M.; "Enadac, edo Sor Herriaren oroitçapena" in **Revue des Basses-Pyrénées et des Landes**, I, 1883, (66-67. orr.).

—"Orruel arpeko zuhurra" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 1880, (23-25. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, I, 1880, (165-166. orr.).

GUILBEAU, M.; "Orruel arpeko zuhurra". Ikus GILBEAU, M.

GOYETCHE, L.; **Fableac edo aleguiac Lafontenenetaric berechiz hartuac**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1978. Argitalpen hau Forec eta Lasserrec, Bayonan, 1852.can eginikoaren faksimila da.

HARITSCHELHAR, J.; **L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun**, Bilbao, 1970.

HERGARAYEN; "Bildotcha eta Oxoa"; "Belea eta acheria" in **Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan garhait saria eraman duten bi kantuak Hergarayen izenean ekharriak**, Imprimerie Lamaignère, Bayonne, 1873.

HIRIBARREN, J.M.; **Eskaldunac**, Foré eta Lasserren Imprimerian, Bayonan, 1853.

IPARRAGIRRE, J.M.; "Gernikako Arbola" in ONAINDIA, A.; **Mila euskal-olerki eder**, I, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, 2. argitalpena, (348-349. orr.).

IRAZUSTA, J.A.; **Joañixio**, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1946.

IRAZUSTA'TAR, J.A.; **Joañixio**. Ikus IRAZUSTA, J.A.

ITURRALDE y SUIT, J.; "El puente de Miluce" in **Revista Euskara**, V, 1882, (325-333. orr.).

ITURRIAGA, A.P.; **Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa**, Hernani, 1842. Ikus **Jolasak**, Euskal Editoreen Elkartea, Kriselu, Donostia, 1987. (Edizio-prestatzailea: P. Altuna).

—**Fábulas y otras composiciones en berso bascongado dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos**, I.R. Baroja, San Sebastián, 1842.

IZTUETA, J.I.; **Viejas Danzas de Guipúzcoa. Gipuzkoa'ko Dan-**

tza Gogoangarriak, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.

———— "Jesus-en lagunkidako Aita Manuel Larramendiren bizkontaera" in **Euskal izkribatzaleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza,** Antonio Baroja-ren moldizkiran, 1879, (27-29. orr.), (egilearen izenik gabe). Halaber, **Revista Euskara,** II, 1879, (270-272. orr.).

J.J.M.; "Aita besoetakoa ta ume-besoetakoa" in **Euskalzale,** I, 1897, (397-398. orr.). Fernán Caballero-ren ipuin baten itzulpena.

JOAN; **Joanen ebanjelioa** 12, 23-26.

LARDIZABAL, F.I.; **Testamentu zarreco eta berrico condaira edo munduaren asieratic Jesu-Cristo-ren evangelioa apostoluac eracutsi zuten arterañoco berri, escritura santatic atera eta euscaraz ipiñi dituenac apaiz–,** Eusebio Lopez-en moldizteguian, Tolosan, 1887. (Lehen argitalpena: Gorosabel, Tolosa, 1855).

LARRETA eta ARZAC, J.; "Irakurgaya" in **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1881, (36-40. orr.). Halaber, **Euskal-Erria,** V, 1882, (129-132. orr.).

—"Miluzeko zubiya" in **Revista Euskara,** VI, 1883, (243-247. orr.); nahiz **Euskal-Erria,** IX, 1883, (225-228. orr.).

LARRETA-AZELAIN, J.; "Irakurgaia", in **Euskalzale,** III, 1899, (33-34, 42-43, 53-54. orr.). Halaber, "Irakurgaya" in **Euskal-Erria,** XIX, 1888, (356-360, 392-394. orr.).

LARRETA-AZELAINGO, J.; "Irakurgaia", ("Irakurgaya"). Ik. LARRETA-AZELAIN, J.

———— "Liburu bateko pasarte bat" in **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza**, Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879, (26-27. orr.), (egilearen izenik gabe). Halaber, **Revista Euskara**, II, 1879, (268-270. orr.).

LHANDE, P.; **Yolanda**, Argia'ren idaztiak, Donostia, 1921.

LERTXUNDI, J.M.; **Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira**, J. Baroja ta Semeen moldiztegian, Donostian, 1910.

LIZARDI, X.; **Olerkiak**, Erein, Donostia, 1983. (Aintzin solasa: X. Lete. Oharrak eta hiztegia: J.M. Lekuona, A. Lertxundi, X. Lete).

LOIDI, J.A.; **Amabost egun Urgain'en**, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1955.

LOPEZ eta ALEN, F.; "Antziñako Nafar-mendiko oroitz bat" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1890, (19-24. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXIV, 1891, (81-86. orr.).

—"¡Arrantzalia!" in **Euskal-Erria**, XIX, 1888, (148-150. orr.); nahiz **Euskalzale**, III, 1899, (26-27. orr.).

—"Donostia" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1888, (25-30. orr.).

—"Lezoko Santo Kristoren eleizachoa" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1889, (19-22. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXI, 1889, (568-571. orr.).

MANTELI, S.; "Jose Chiki. Un cuento guipuzcoano a la media noche" in **Euskal-Erria**, LIII, 1905, (500-506. orr.).

MATEO; **Mateoren ebanjelioa** 22, 36-40.

MOGEL, B.; **Ipui Onak**, Auspoa liburutegia, 28. zka., Donostia, 1963, 3. argitalpena. (Lehen argitalpena: **Ipui Onac ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco,** Antonio Undiano liburuguillearen echean, Donostian, 1804).

MOGEL, J.A. de; **El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la universidad de Basarte ó Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan**, Asociación Gerediaga, Bilbao, 1981. Argitalpen hau, 1881. urtean, Durangon, Julian de Elizalderen etxean eginikoaren faksimila da.

—**Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu bear deutseen konfesinoari ondo egina izateko ateratzen dau argitara Bizkaiko euskeran**, Euskalzalen moldagintzan, Bilbon, 1897. (Lehen argitalpena: F. Larumbe, Vitorijan, 1803).

—**Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac edo cembat gauzac lagundu bear dien confesio ta comunioari ondo eguiña izaiteco. Ateratzen du arguira Guiputz itzqueran, cristau euscaldunen oneraco Don Juan Antonio Moguel ta Urquizac Marquinaco cura edo animazaia**, Ezquerro, Iruña, 1800.

MURGA MUGARTEGI, R.; "Arrechinaga" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1891, (29-31. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXVI, 1892, (19-21. orr.).

NAVARRO VILLOSLADA, F.; **Amaya o los vascos en el siglo VIII**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976. (Lehen argitalpena: **Amaya o los vascos en el siglo VIII. Novela histórica**, Maroto, Madrid, 1879).

_____ **Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan garhait saria eraman duten bi kantuak Hergarayen izenean ekharriak**, Imprimerie Lamaignère, Bayonne, 1873.

_____ **Neurtiztarien Gudua Sarako Bestan**, Imprimerie A. Lamaignère, Bayonne, 1874.

OIHENART, A.; "O.ten gastaroa neurthizetan" in **Les proverbes basques recueillis par le S' D'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur**, Lopez Mendizabalen irarkola, Tolosa, 1936, (1-75. orr.). Argitalpen hau 1657. urtean Parisen eginikoaren edizio faksimila da.

ONAINDIA, A.; **Miĩa euskal-olerki eder**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, bi liburuki, 2. argitalpena.

OTZANDIO; "Maritšu" in **Euskalzale**, II, 1898, (371-372, 382-383, 389-390, 395-396, 412-413. orr.).

ROCHELT, O.; **El Alcalde de Tangora**, Imp. y Enc. de Eléxpuru Hermanos, Bilbao, 1910. (Lehen argitalpena: Eléxpuru Hermanos, Bilbao, 1906).

RUIZ de ARBULO, I.; "Gabon" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1887, (59-64. orr.).

SAIZARBITORIA, R.; **100 metro**, Kriseilu, Donostia, 1976.

_____ **Sarako Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère, Bayonne, 1866.

_____ **Sarako Eliza-Besta. Berxutaco gudua**, Imprimerie de veuve Lamaignère, Bayonne, 1865.

SOROA, M.; **Alcate berriya. Jostaketa euskarara moldatuba gizon bacarrentzat...**, Pozo, Donostian, 1885.•

—**Gabon; ¡¡Au ostatuba!!**; Anton Kaiku, Auspoa Liburutegia, 2, Tolosa, 1961.

—**Iriyarena; cuadro de costumbres iruchulas, original de Omar-Celin-Dasor (seud.). Representado en el Teatro principal de San Sebastián las noches del 12 y 19 de mayo de 1878**, J. Osés, San Sebastián, 1878.

—**Urrutiko inchaurrak... Jostirudia bi egintzan...**, E. López, Tolosan, 1887.

TARTAS, J.; **Onsa hilceco bidia. Ivan de Tartas Arueko erretoraz euscaraz eguina. Moneineco Jaun Margui zari dedicatia**, I. Rovyer, Orthecen, 1666.

TRUEBA, A. de; "La cruz más santa. Leyenda del siglo XV" in **Euskal-Erria**, XIX, 1888, (144-147, 179-182, 200-203, 462-468, 489-495. orr.).

TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturia-ren egunkari ezkutua**, Leopoldo Zugaza, editor, Durango, 1977, 2. argitalpena.

ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua** izeneko eskuizkribuaren faksimil gisako argitalpena, Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarra, Gasteiz, 1975.

UNAMUNO, M. de; **Paz en la guerra**, Espasa Calpe, Madrid, Colección Austral n.º 179, Madrid, 1980, hamargarren argitalpena. (Lehen argitalpena: Fernando Fe, Madrid, 1897.).

_____ **Urruñaco Eliza-Besta. Coplarien gudua**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 1862.

VARGAS LLOSA, M.; **La Casa Verde**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1977, 16. argitalpena.

ZABALA, A.M.; "Gabon gau bat Euskal-Erriko baserri batean" in **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Igna-

zio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1887, (43-57. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, XXI, 1889, (488-498, 534-538. orr.).

ZABALA-KO, A.M.; "Gabon gau bat Euskal-Erriko baserri batean". Ikus ZABALA, A.M.

ZALACAIN, G.; **Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat** G.Z. moldatuac. Tolosan, P. Gurruchaga, 1875.

ZAVALA, A.; **Bilintx. Indalecio Bizcarrondo. 1831-1876. Bizitza eta bertsoak (Vida y poesías)**, Colección "Izurun", Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1978.

_____ "¿Zer nitzan? ¿Zer naiz?" in **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza**, Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879, (17-20. orr.), (egilearen izenik gabe). Halaber, **Revista Euskara**, II, 1879, "¿Cer nitzan? ¿Cer naiz?" titulupean, (260-264. orr.).

2.3. DOMINGO AGIRRERI BURUZKO AZTERKETAK

A.I., (Aita Iturria); "Itz bi" in AGIRRE, D.; **Garoa**, Aranzazu argitaldaria, irugarren agerraldi obetua, 1956, (III-XVIII. orr.).

AGIRRE, D.; "**Kresala.** Oarkera batzuk itzaurrea legez" in **Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1976, 5. argitalpena, (7-13. orr.).

ALBERDI, M.; ARRETXE, J.; "Sarrera" in AGIRRE, Tx.; **Kresala**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986, (7-24. orr.).

AMENABAR, J.; "Garoa" in **Euskal nobelaren azterketa**, Izarraizpe irakaskuntza-kooperatiba, 1982, (41-58. orr.).

ANASAGASTI, P. de; "Domingo de Aguirre" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (292-296. orr.).

—"La arrolladora personalidad de Domingo Aguirre" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (279-282. orr.).

ARANO, R.M.; "Sarrera" in AGIRRE, Tx.; **Auñemendiko Lorea**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1986, (7-19. orr.).

AROCENA, F., (F.A.); "Los seis grandes" in **Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País**, XIV, 1958, (455-457. orr.).

ARRETXE, J.; "Txomin Agirre" in AGIRRE, Tx.; **Kresala**, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak saila, Donostia, 1988, (21-35. orr.).

ARRUE, A.; "Domingo Agirre ta itxasoa" in **Zeruko Argia**, garagarrilak 14, (14. or.).

—"Nere iritzia" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

ARTECHE, J. de; "Barrura Begira" in **Zeruko Argia**, garagarrilak 14, 1964, (15. or.).

AZKUE, R.M.; "Agiñe, beretefgoan" in **Itzaldiak**, Martin eta Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, (67-80. orr.).

AZPIRI'TAR, J.M.; "Txomin Agirre" in **Zer**, 53 zka., 1982, (5. or.).

BILDARI; "Nuestros muertos" in **Euskalerriaren Alde**, X, 1920, (37-39. orr.).

BITAÑO; "Domingo Agirre Badiolaren euskerazko idazlanak" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

E.M.; "Domingo Agiñe Jauna" in **Euskal-Esnalea**, X, 1920, (17-18. orr.).

EDORTA, A.; "Etorkizuneko gizona" in **Aranzazu**, mayo, n.º 128, 1964, (14-15. orr.).

ECHEGARAY, K.; "Itzaurrea" in **Euskalzale**, II, 1898, (12-13. orr.).

—"Agiñe, oleñkaria" in **Itzaldiak**, Martin eta

Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, (81-95. orr.).

ERKIAGA, E.; "Agirre ondarrutarra" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

ESKAURIATZA, X.; "Garoa-ren BI ARPEGIAK kapitulua" in **Euskeraren iker atalak**, 1, Mikel Zarate Iker Mintegia, Labayru Ikastegia, (29-50. orr.).

ETCHEPARE, J.; "Eritzi eta kitzika. Garoa" in **Gure Herria**, II, 1922, (442-448, 634-647, 680-691. orr.), III, 1923, (4-14. orr.), IX, 1929, (103-109, 312-319. orr.).

ETSEGARAI-KO, K.; "Itzaurrea". Ikus ECHEGARAY, K.

ETXAIDE, Y., (Uarrain); "Garoa eleberria" in **Euzko Gogoa**, II, (n.º 9-10), 1951, (10-19. orr.).

ETXEGARAY, K.; "Agife olefkaria". Ikus ECHEGARAY, K.

GAMA; "Txoriarentzat eta gizonarentzat arnasa lez ..." in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

GAMIZ; "Garoa" in **Agur**, 106 zka., 1973, (8. or.).

GANDIAGA, A.; "Elorriaren eta Garoaren eskolan" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (283-284. orr.).

GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (II). Kondaira elaberria, eta Txomin Agirreren Auñamendiko lorea**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1985.

GARRIGA, G.; "Inventario Bibliográfico Vasco: Año 1898, 205. Año 1906, 499. Año 1912, 743" in **Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos**, 1951, (187. or.), 1955, (171-173. orr.), 1958, (92-93. orr.).

GOROSTIAGA, J.; "**Kresala**'ren euskalduntasuna eta euskalkerea" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

INZAGARAY, R.; "Agur dagitzut" in **Euskal-Esnalea**, II, 1912, (267-268. orr.).

IRIGARAY, A.; "Garoa.- D. Agiſe.- Beñat Idaztiak; Legazpi, 5. Donostia" in **RIEV,** XXVI, 1935, (196-197. orr.).

_____ "Izpaſak: GAROA, por Domingo de Agiſe" in **Euzkerea**, enero-febrero, (448-449. orr.).

_____ "Izpaſak: "GAROA" in **Euzkerea**, marzo-abril, 1935, (520. or.).

KAMIÑAZPI; "Domingo Agirre abade Jaunaren eungarren urtea" in **Boga-Boga**, mayo-junio, (numeratu gabe).

—"Euskal dantziari indarra emon daiogun" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

LARRAÑAGA, J.C.; **El costumbrismo en Garoa**, Memoria de Licenciatura, Universidad de Deusto, (aurkezte-urterik gabe).

LHANDE, P.; "Agiſe irakuſgaikiña" in **Itzaldiak,** Martin eta Mena'ren etxean, Donostia'n, 1923, (97-121. orr.).

—"Bulletin de litterature basque: Domingo de Agirre" in **RIEV**, XI, 1920, (148-160. orr.).

LAUAXETA, (E. Urkiaga); "Garoa" in **Euzkadi**, otsailak 14, 1935, (1. or.).

LOJENDIO, J.M.; "... Busti egiten zaizkit begiak" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

MANTEROLA, G.; "Agiſe'taf Domeka'ren gorasaſeari buruz. Agiſe euskeltzale" in **Yakintza**, II, 1934, (323--334. orr.).

MANTEROLA'TAR, G.; "Agiſe'taf Domeka'ren gorasaſeari buruz. Agiſe euskeltzale". Ikus MANTEROLA, G.

MITXELENA, L.; "DOMINGO AGIRRE. GAROA. Irugarren agerraldi obetua. Aranzazu Argitaldaria, 1956" in **Egan**, 5-6 zka., 1956, (145-147. orr.).

—"**Domingo Agirre**. KRESALA. 'Kulixka-sorta', Itxaropena. Zarautz, 1954" in **Egan**, 2-4 zka., 1954, (42. or.).

MUJICA, G.; "Domingo de Aguirre" in **Los titanes de la cultura vasca,** I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1962, (71-79. orr.).

(J.M. de Ojarbide); "Figuras contemporáneas. Domingo de Agirre" in **Euzkadi,** 2527 zka., urtarrila, 28, 1920.

OLAIZOLA, J.M. de; "Emisión tres centenarios vizcaínos" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

OLAZAR'TAR, M.; "Auñamendi'ko lorea" in **Zer**, 57. zka., 1982, (8-9. orr.).

ONAINDIA, A.; "Atari antzean" in **Txomin Agirre. Ondarrak**, Gráficas Bilbao, Bilbao, 1964, (5-41. orr.).

—"Txomin Agirre olerkari" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

SAN MARTIN, J.; "Txomin Agirreren **Kresala** eta **Garoa** nobeleri iritzi batzuek" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

_____ "Txomin Agirre gizon eta idazle. Kritikak" in **Ondarroa,** 1982, (57-59. orr.).

URTEAGA, L.; "Domingo Agirre, apaiza" in **Zeruko Argia**, garagarrilak 14, 1964, (14. or.).

VILLASANTE, Fr. L.; "Bizi-xehetasunak. Domingo Agirre gizaki aldetik" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (274-278. orr.).

—"Domingo Aguirre. 'Garoa' y Oñate" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (285-286. orr.).

—"Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak" in **Aranzazu**, septiembre-octubre, 1966, (287-291. orr.).

—"KRESALAREN laugarren agerraldia" in AGIRRE, D.; **Kresala**, Arantzazuko

Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1967, laugarren agerraldia, (5-6. orr.).

—"Zabaleta eta Baltzategi" in **Zeruko Argia**, garagarrilak 14, 1964, (14. or.).

X.; "Kresala" in **RIEV**, I, 1907, (167-171. orr.).

ZARATE, M.; "Txomin Agirreren literatura-teknika batzuk" in **Euskal Literatura. Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak,** Leopoldo Zugaza Editor, Bilbao, 1977.

ZUBICARAY, A. de; "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca" in **La Gran Enciclopedia Vasca**, IV, Bilbao, 1969, (529-548. orr.).

—"Entzun edo igarri ta paperetan jarri" in **Boga-Boga**, mayo-junio, 1964, (numeratu gabe).

—"Itxas-miñak jotako Txomin Agirre" in **Zeruko Argia**, garagarrilak 14, 1964, (15. or.).

—"Txomin Agirre euskal iraultzallea" in **Zer**, 3 zka., (11. or.).

—"Txomin Agirre, ondarrutarra" in **Zer**, 2 zka., (11. or.).

ZUPIRIA, B.; "Sarrera" in AGIRRE, Tx.; **Garoa**, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1987, (7-26. orr.).

2.4. BESTE ZENBAIT AZTERKETA ETA AZTERBIDE

ABRAMS, M.H.; **El espejo y la lámpara. Teoría romántica y tradición crítica,** Barral editores, Barcelona, 1975.

ADORNO, T.W.; **Teoría estética**, Taurus Ediciones, Madrid, 1980.

AGUIAR E SILVA, V.M. de; **Teoría de la literatura**, Biblioteca

Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1975. (Berrinprimaketa da).

AKESOLO, L.; "Azkue aita-semeak. (Jorratzaile batzuk jorratzen)" in **Karmel**, 2, 1979, (26-37. orr.).

—"Azkue aitasemeak aurrez aur barriro: Parnasorako Bidea eta Poesía Bascongada" in **Karmel**, 4, Bilbao, 1988, (6-18. orr.).

—"Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri" in ULIBARRI y GALINDEZ, J.P.; **Gutunliburua** izeneko eskuizkribuaren faksimil gisako argitalpena, Arabako Diputazioaren Kultur biltzarra, Gasteiz, 1975, (V-XII. orr.). Halaber, **Euskera**, XVI, (35-48. orr.).

—"Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait" in ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, Euskal Editoreen Elkartea, Erein, Donostia, 1987, (21-29. orr.).

ALBERDI, M.; "Argitalpenaren prestakuntza" in AZKUE, R.M.; **Latsibi**, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989, (XXVII-XXXV. orr.).

ALBORG, J.L.; **Historia de la Literatura Española. Siglo XVIII**, III, Editorial Gredos, Madrid, 1974, (lau liburukiz osaturiko obra).

—**Historia de la Literatura Española. El Romanticismo**, IV, Editorial Gredos, Madrid, 1980, (lau liburukiz osaturiko obra).

—**Historia de la Literatura Española. Edad Media y Renacimiento**, I, Editorial Gredos, Madrid, 1975, 2. argitalpen gehituaren berrinprimaketa, (lau liburukiz osaturiko obra).

ALLENDE SALAZAR, A.; "Carácter general de la literatura vasca. Discurso presentado al claustro de la Universidad Central de Madrid en 1878" in **Euskalerriaren Alde**, V, Edi-

torial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, (300-305, 329-338, 358-367, 390-403, 424-434, 456-470, 491-499, 519-525, 550-555, 585-591. orr.).

ALONSO, A.; "Ensayo sobre la novela histórica" in **Ensayo sobre la novela histórica. El modernismo en "La Gloria de Don Ramiro"**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1984, (7-81. orr.).

ALONSO, D.; **Poesía española. Ensayo de métodos y límites estilísticos**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1952.

ALTUNA, P.; "Duvoisin" in DUVOISIN, J.P.; **Laborantzako liburua edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean**, Euskal Editoreen Elkartea, Kriselu Editoriala, Donostia, 1986, (21-33. orr.).

—"Etxepare herri poeta" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, (321-341. orr.).

ALZOLA, N.; "XIX'garren gizaldiko euskal izkribuak. Eusebio Maria Dolores de Azkue euskal olerkariak Bonaparte printzipearendako Bizkaiko euskalkira itzuli zuen 'Dies irae'" in **Euskera**, IV, 1959, (57-62. orr.).

AMBROGIO, I.; **Ideologías y técnicas literarias**, Akal Editor, Madrid, 1975.

AMEZAGA, E.; "Nómina de Euskal-Erria" in **Euskal-Erria**, I, 1880, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1979, (numeratu gabe).

AMOROS, A.; **Introducción a la novela contemporánea**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, 3. argitalpena.

ANDERSON IMBERT, E.; **Teoría y técnica del cuento**, Ediciones Marymar, Buenos Aires, 1979.

ARANA GOIRI, S.; "El proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, (361-364. orr.).

—"El partido carlista y los fueros vasko-nabarros" in **Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, II, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, (1067-1252. orr.), (hiru liburukiz osaturiko obra).

—"Nota final" in **Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, (2012-2013. orr.), (hiru liburukiz osaturiko obra).

—"Apuntes" in **Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, (2081-2082. orr.), (hiru liburukiz osaturiko obra).

—"Causas del mal" in **Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1980, 2. argitalpena, (1729-1731. orr.), (hiru liburukiz osaturiko obra).

ARANA Y GOIRI, S. de; "El proyecto de Academia Bascongada del Sr. Artiñano". Ikus ARANA GOIRI, S.

ARANA-GOIRI'TAR, S.; **Obras completas**. Ikus ARANA GOIRI, S.

ARANA MARTIJA, J.A.; **Resurrección María de Azkue**, Caja de Ahorros Vizcaína, Departamento Cultural, Colección "temas vizcaínos", Bilbao, 1983.

ARANTZADI, E. de, (Kizkitza); **Ereintza: Siembra de nacionalismo vasco,** (1894-1912), Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1980.

ARISTOTELES; **Poética**, Edición trilingüe por Valentín García Yebra, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1974.

AROCENA, F.; "La versión guipuzcoana del '**Peru Abarka**', de Moguel. Exámen preliminar" in **Boletín de la**

Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Año IV, Cuaderno 2.º, 1948, (165-194. orr.).

ARTIÑANO, A. de; "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, (481-492. orr.).

———— "Ateneo Científico, Literario y Artístico de Vitoria. Juegos Florales. Programa" in **Euskal-Erria**, XIX, 1888, (88-90. orr.).

ATSUHIKO, Y.; "L'épopée" in **Litterature et genres litteraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, París, 1978, (199-214. orr.).

AZKUE, R.M. de; "Arrgibidea" in AZKUETAR, E.M.; **Parnasorako Bidea**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1979, (3-19. orr.).

—**Diccionario Vasco-Español-Francés**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, (bi liburukiz osaturiko obra).

—**Morfología Vasca. Gramática básica dialectal del Euskera**, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969, (hiru liburukiz osaturiko obra; Azkue, Altube eta Eguskitzaren eranskinak, 3. liburukian).

AZKUETARR, R.M.; "Arrgibidea". Ikus AZKUE, R.M. de.

AZURMENDI, J.; "Nobelaren geroaz eta nobelako hizkeraz" in **Oh! euzkadi**, 13. alea, abendua, 1981, (numeratu gabe).

—"Euskaldunen aberria euskara dela, eta beste gauza batzu. Victor Hugo Euskal Herrian" in **Jakin**, 37, urria-abendua, 1985, (137-166. orr.).

BACHELARD, G.; **La poética del espacio**, Fondo de Cultura Económica, México, 1975, 2. argitalpena.

BALLY, Ch.; **El lenguaje y la vida**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1977, 7. argitalpena.

BAQUERO GOYANES, M.; **Estructuras de la novela actual**,

Editorial Planeta, Barcelona, 1975, 3. argitalpena.

BARANDIARAN, J.M. de; "Inauguración" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Editorial Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, (19-21. orr.).

—y COLAB.; **El mundo en la mente popular vasca. (Creencias, cuentos y leyendas)**, I, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1960, 2. argitalpena.

—**El mundo en la mente popular vasca. (Creencias, cuentos y leyendas)**, II, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1972, 2. argitalpena.

—"Cuentos y leyendas" in **Obras Completas. Eusko Folklore**, II, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, (239-353. orr.), (hogeitabi liburukiz osaturiko obra).

BARTHES, R.; "Lo real, lo operable" in **S/Z**, Siglo XXI de España Editores, Madrid, 1980, (66-67. orr.).

—**Crítica y verdad**, Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1981, laugarren argitalpena.

—"El análisis retórico" in **Literatura y sociedad. Problemas de metodología en sociología de la literatura**, Ediciones Martínez Roca, Barcelona, 1969, (34-49. orr.).

—"El efecto de realidad" in **Lo verosímil**, Editorial Tiempo Contemporáneo, Colección Comunicaciones, Buenos Aires, 1970, (95-101. orr.).

Halaber, "L'effet de réel" in **Litterature et realité**, Editions du Seuil, París, 1982, (81-90. orr.).

—"Elementos de semiología" in **La Semiología**, Serie Comunicaciones, Editorial Tiempo Contemporáneo, Buenos Aires, 1976, laugarren argitalpena, (15-69. orr.).

—**Ensayos críticos**, Editorial Seix Barral, Biblioteca Breve, Barcelona, 1977, 2. berrargitalpena.

—"Introducción al análisis estructural de los relatos" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, (9-43. orr.).

_____ "Batzarre del 2 de Enero de 1881" in **Revista Euskara**, IV, 1881, (3-8. orr.).

_____ "Bascuence en la enseñanza, El. (A las Diputaciones Hermanas) in **Euskal-Erria**, XXXIX, 1898, (372-373. orr.).

_____ "Batzaldia" in **Euskalzale**, I, 1897, (8. or.).

_____ "Batzaldia" in **Euskalzale**, II, 1898, (8. or.).

BELTZA, (E. López Adán); **El nacionalismo vasco (1876-1936)**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1976.

_____ "Berako Besta. Euskarazkoak. Fiestas euskaras de Bera" in **Euskal-Erria**, I, 1880, (6-9. orr.).

BENVENISTE, E.; **Problemas de lingüística general**, I, Siglo Veintiuno editores, México, 1980, 9. argitalpena.

—**Problemas de lingüística general**, II, Siglo Veintiuno editores, México, 1979, 3. argitalpena.

BILBAO, J.; **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Eusko Bibliographia. Cuerpo C**, Editorial Auñamendi, Estornés Lasa Hnos., San Sebastián. Aipatutako liburukiak; I: 1970; II: 1972; III: 1973; IV: 1974; V: 1974; VI: 1976; VII: 1977; VIII: 1978.

BILINTX, (I. Bizcarrondo); **Bertso ta lan guziak**, Auspoa Liburutegia, 12, Donostia, 1962, ("Bilintx. Indalecio Bizcarrondo Ureña", "Itz--aurrea" eta bere poemei eginiko oin--oharrak: A. Zavala-renak?).

BOBES NAVES, M.C.; **Gramática textual de "Belarmino y Apolonio". Análisis semiológico**, Ensayos Planeta, Cupsa editorial, Barcelona, 1977.

—"La crítica literaria semiológica" in **Crítica Semiológica**, Cátedra de Crítica Literaria, Universidad de Oviedo, Oviedo, 1977, (11-75. orr.).

—**Gramática del Cántico. Análisis semiológico**, Editorial Planeta, Barcelona, 1975.

BONAPARTE, L.L.; **Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés**, London, 1863.

BOOTH, W.C.; **La retórica de la ficción**, Antoni Bosch, editor, Barcelona, 1978.

BOURNEUF, R.; OUELLET, R.; **La novela**, Editorial Ariel, Barcelona, 1981, 2. argitalpena.

BOUSOÑO, C.; **Epocas literarias y evolución. Edad Media, Romanticismo, Epoca Contemporánea**, I, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1981, (bi liburukiz osaturiko obra).

BREMOND, Cl.; "La lógica de los posibles narrativos" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, (87-109. orr.).

BRIOSCHI, F.; DI GIROLAMO, C. Y COLAB. (BLECUA, A.; GARGANO, A.; VAILLO, C.); **Introducción al estudio de la Literatura**, Editorial Ariel, Barcelona, 1988.

BRUUN, G.; **La Europa del siglo XIX (1815-1914)**, Fondo de Cultura Económica, México, 1979, 3. berrinprimaketa.

CAMPBELL, J.; **El héroe de las mil caras. Psicoanálisis del mito**, Fondo de Cultura Económica, 1980, 3. argitalpena.

CAMPION, A.; "Discurso en las fiestas euskaras de Azpeitia el día 30 de septiembre de 1901" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, (149-160. orr.).

—"Discurso en las fiestas euskaras de Irún, el día 27 de Septiembre de 1903" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, (173--202. orr.).

—"Las lenguas y las nacionalidades" in **Euskal--Erria**, XIII, 1885, (488-490. orr.).

—"Conferencia acerca del origen y desarrollo del regionalismo nabarro, dada en la Lliga de Catalunya la noche del 3 de Junio de 1981" in **Discursos políticos y literarios de Arturo Campión**, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976, (25-47. orr.).

CARO BAROJA, J.; **Ensayo sobre la Literatura de Cordel**, Círculo de Lectores, 1988.

—**Ritos y mitos equívocos**, Ediciones Istmo, Madrid, 1974.

CARRILLO, F.; **Semiolingüística de la novela picaresca**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982.

CASTAGNINO, R.H.; **El análisis literario. Introducción metodológica a una estilística integral**, Editorial Nova, Buenos Aires, 1976, 10. argitalpen gehitua eta eguneratua.

CASTILLA, S.; "Discurso leído por el Sr. Presidente de la Junta Directiva, D. Salvador Castilla, en el Batzarre de

15 de Julio de 1878" in **Revista Euskara**, I, 1878, (145-150. orr.).

_____ "Cátedra de Bascuence en Navarra" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, (404. or.).

_____ "Certámen científico, literario y artístico que en honor del glorioso S. Fermín, patrono de esta Ciudad, se celebrará en la misma por acuerdo del Excmo. Ayuntamiento, con arreglo al siguiente Programa" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (75-79. orr.).

_____ "Certámen científico, literario y artístico en Pamplona" in **Euskal-Erria**, X, 1884, (251-253. orr.).

_____ "Certámen científico, artístico y literario de Pamplona, en 1884. Dictámen del jurado" in **Euskal-Erria**, XI, 1884, (357-367. orr.).

_____ "Certámen literario en la ciudad de Pamplona" in **Revista Euskara**, V, 1882, (146-148. orr.). Halaber, **Euskal-Erria**, VI, 1882, (219-220. orr.).

_____ "Certámen literario de Pamplona" in **Euskal-Erria**, VII, 1882, (74-76. orr.).

_____ "Certámen de Begoña" in **Euskal-Erria**, I, 1880, (9. or.).

CHURRUCA, C. de; "Proyecto de Academia Bascongada" in **Euskal-Erria**, XXXVII, 1897, (411-414. orr.).

CIRLOT, J.A.; **Diccionario de símbolos,** Editorial Labor, Barcelona, 1981, 4. argitalpena.

_____ "Congreso Basco en Hendaya" in **Euskal-Erria**, VL, 1901, (242-243. orr.).

COHEN, J.; **Estructura del lenguaje poético**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1977, bigarren berrinprimaketa.

CONRAD KURZ, P.; "Metamorfosis de la novela moderna" in **La nueva novela europea,** Ediciones Guadarrama, Colección Punto Omega, Madrid, 1968, (11-45. orr.).

CONSISTORIO de JUEGOS FLORALES; "La primera enseñanza. Instancia. Excmo. Ayuntamiento de la Ciudad de San Sebastián" in **Euskal-Erria**, V, 1901, (215-217. orr.).

CORCUERA, J.; **Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)**, Siglo XXI de España Editores, S.A., Madrid, 1979.

COSERIU, E.; **Teoría del lenguaje y lingüística general**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1969, 2. argitalpena.

_____ "Creación de Cátedras de Bascuence" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, (129-134. orr.).

DARANATZ, J.B.; "Correspondance du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXI, 1930, (70-97, 334-368. orr.).

—"Une page du Capitaine Duvoisin" in **RIEV**, XXII, 1931, (555-558. orr.).

DASKONAGERRE, J.B.; "Euskalduneri" in **Atheka-gaitzeko oihartzunak**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., San Sebastián, 1970, (15-16. orr.).

DIEZ DEL CORRAL, L.; **La función del mito clásico en la literatura contemporánea**, Biblioteca Universal Gredos, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 2. argitalpena.

DI GIROLAMO, C.; **Teoría crítica de la literatura**, Editorial Crítica, Grupo Editorial Grijalbo, Barcelona, 1982.

DONOSTY, J.M.; "Literatura. Crónica y comentarios" in **Euskal-Erria**, LXIII, 1910, (49-54. orr.).

DOUBROVSKY, S.; **Pourquoi la nouvelle critique. Critique et objectivité**, Mercure de France, 1966.

DUCROT, O.; TODOROV, Tz.; **Diccionario enciclopédico de**

las ciencias del lenguaje, Siglo Veintiuno argentina editores, Buenos Aires, 1975, 2. argitalpena.

DUVOISIN, J.; "Comédie des Basques" in **Album Pyrénéen. Revue Béarnaise**, 2.me année, mars, 1841, (207-215. orr.).

EAGLETON, T.; **Literatura y crítica marxista**, Editorial Zero, Madrid, 1978. (Sarrera eta notak: A. Sorel).

ECO, U.; **Lector in fábula. La cooperación interpretativa en el texto narrativo**, Editorial Lumen, Barcelona, 1981.

ECHEGARAY, C. de; **Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel**, VI, Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López, Tolosa, 1901.

—"Revista de libros. Bein da betiko" in **Euskal-Erria**, XXXI, 1894, (331-339. orr).

—"Trueba" in **De mi Tierra Vasca. Miscelánea Histórica y Literaria**. Imprenta del Corazón de Jesús, Bilbao, Primera Serie, (275-296. orr.), (bi liburukiz osaturiko obra).

ECHENIQUE, P.M.; "Inauguración" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Editorial Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, (21-25. orr.).

EICHENBAUM, B.; "La teoría del método formal" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), (21-54. orr.).

EIZAGIRRE, J.; "Aurretik" in EIZAGIRRE'TAR, J.; **Ekaitz-**

pean. **Ipuinberri**, Editorial Vasca Ekin, 1948, (4. or.).

EIZAGIRRE'TAR, J.; "Aurretik". Ikus EIZAGIRRE, J.

_____ "El certámen científico, artístico y literario de Pamplona" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (40-44. orr.).

ELIADE, M.; **Mito y realidad**, Ediciones Guadarrama, Colección Punto y Omega, Madrid, 1973, 2. argitalpena.

ELORZA, A.; **Ideologías del nacionalismo vasco (1876-1937). (De los "euskaros" a Jagi Jagi)**, L. Haranburu-Editor, San Sebastián, 1978.

_____ **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B. Enciclopedia Sistemática Arte, Lengua y Literatura**, Editorial Auñamendi, Estornés Lasa Hnos., San Sebastián. Aipatutako liburukiak; **Literatura**, I: 1978, 3. argitalpena; **Literatura**, II: 1970; **Literatura**, III: 1973.

ENKVIST, N.E.; "Para definir el estilo: Ensayo de lingüística aplicada" in **Lingüística y estilo**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974, (17-74. orr.).

ERLICH, V.; **El formalismo ruso. Historia-Doctrina**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1974.

ESCARPIT, R.; "Q'est-ce que la litterature" in **Littérature et genres littéraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, Paris, 1978, (7-15. orr.).

_____ "Escuela Normal de Guipúzcoa, La" in **Euskal-Erria**, XLI, 1899, 319. or.

ESTORNES ZUBIZARRETA, I.; **Carlismo y Abolición foral. En torno a un centenario, 1876-1976**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1976.

ETXAIDE, Y.; **Amasei seme Euskalerri'ko**, Editorial Itxaropena, Kuliska sorta, 19-20 zka., Zarautz, 1958.

ETXANIZ, N.; "**Txillardegi** - LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA. Bilbao 1957" in **Euzko Gogoa**, orrilla-garagarrilla, 1957, (113-115. orr.).

ETXANIZ'TAR, N.; "Txillardegi ...". Ikus ETXANIZ, N.

ETXEBARRIA, A.; "Etxeita eta bere nobelagintza" in ETXEITA, J.M.; **Josetxo,** Labayru Ikastegia, Editorial Vizcaina, Bilbao, 1982, (7-18. orr.).

ETXEBARRIA, M.; **Sociolingüística urbana. El habla de Bilbao,** Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1985.

_____ "Euskal-Erria. El bascuence en las escuelas. Diputación provincial de Guipúzcoa. Dictámen presentado a la misma por la Comisión de Fomento y aprobado en sesión de 12 de Noviembre de 1895" in **Euskal-Erria,** XXXIII, 1895, (449-463. orr.).

_____ "Euskal-Erria. El bascuence en las escuelas. Un acuerdo patriótico" in **Euskal-Erria,** XXXIV, 1896, (50-55. orr.).

EUSKALTZAINDIA; **Euskal aditz batua,** Euskaltzaindia, San Sebastián, 1979. (Taulen prestatzailea: Txillardegi).

—**Euskararen liburu zuria,** Euskaltzaindia, Bilbo, 1978.

_____ **Euskal-festak Azpeitiya-n. Oroimengarria,** Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1901.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1882.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1884.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1885.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria,** Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1886.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1887.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1888.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1889.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1890.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1891.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1892.

_____ **Euskal-festak Donostian. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1894.

_____ **Euskal-festak Mondragonen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1896.

_____ "Euskal festak Mondragonen, 1896" in **Euskal-Erria**, XXXIV, 1896, (365-369. orr.).

_____ **Euskal-festak Oyarzunen. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1897.

_____ "Euskal festak Oyarzunen, 1897" in **Euskal-Erria**, XXXVI, 1897, (375-379. orr.).

_____ **Euskal-festak Zestua-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1898.

_____ "Euskal festak Zestuan, 1898" in **Euskal-Erria**, XXXVIII, 1898, (272-277. orr.).

_____ **Euskal-festak Zumarraga-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1899.

_____ "Euskal festak Zumarragan, 1899" in **Euskal-Erria**, XLI, 1899, (10-15. orr.).

_____ **Euskal-festak Zumaya-n. Oroimengarria**, Victoriano Iraola-ren moldizkidan, Donostian, 1900.

_____ "Euskal-itz jostaldiak Donostian, 1885. Bilguma bereziaren egintza" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, (112--114. orr.).

_____ "Euskal-itz jostaldiak Donostian, 1886. Bilguma bereziaren egintza" in **Euskal-Erria**, XVI, 1887, (47-49. orr.).

_____ **Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña orretarako artu diran prestamen, eta sariztatuak izan diran izkribu-antolamenduen oroitza,** Antonio Baroja-ren moldizkiran, Donostian, 1879.

_____ **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, argitaletxe eta argitalpen-lekurik gabe, 1880.

_____ **Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria**, Ignacio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran, Donostian, 1881.

_____ "Euskarazko itz-jostaldiak Donostian" in **Euskal-Erria**, I, 1880, (43-45. orr.).

_____ "Euskarazko itz-jostaldiak Donostian, 1880. Batzar--epallearen egintza" in **Euskal-Erria**, I, 1880, (127--129. orr.).

FERRERAS, J.I.; **El triunfo del liberalismo y de la novela histórica (1830-1870),** Taurus Ediciones, Madrid, 1976.

—**Introducción a una sociología de la novela española del siglo XIX,** Edicusa, Editorial Cuadernos para el Diálogo, Madrid, 1973.

—**La novela por entregas, (1840-1900)**, Taurus Ediciones, Madrid, 1972.

—**Los orígenes de la novela decimonónica (1800-1830),** Taurus Ediciones, Madrid, 1973.

_____ "Fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo, Las" in **Revista Euskara**, II, 1879, (232-237. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Bilbao. Euskal festak Bilboon" in **Euskal-Erria**, VI, 1882, (143-146. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Bilbao" in **Revista Euskara**, V, 1882, (117-119. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Durango" in **Euskal-Erria**, XII, 1885, (281-283. orr.).

_____ "Fiestas euskaras de Durango" in **Euskal-Erria**, XV, 1886, (97-103. orr.).

_____ "Fiesta euskara del 21 de Diciembre, La" in **Euskal--Erria**, VII, 1882, (598-599. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Fuenterrabía" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (159-160. orr.).

_____ "Fiestas en Fuenterrabía. Dictámen del Jurado" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (265-269. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Guernica" in **Euskal-Erria**, XVIII, 1888, (346-348. orr.), XIX, 1888, (264-270. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Marquina" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (257-259. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Marquina. Con permiso de la autoridad competente" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (117-120. orr.).

_____ "Fiestas euskaras en Marquina" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (253-254. orr.).

_____ "Fiestas y Juegos Florales en Fuenterrabía" in **Revista Euskara**, VI, 1883, (232-242. orr.).

FOKKEMA, D.W.; IBSCH, E.; **Teorías de la literatura del siglo XX**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1981.

FORSTER, E.M.; **Aspectos de la novela**, Editorial Debate, Madrid, 1983.

FUSI, J.P.; **Política obrera en el País Vasco (1880-1923)**, Ediciones Turner, Madrid, 1975.

GARASA, D.L.; **Los Géneros Literarios**, Editorial Columba, Nuevos Esquemas, Buenos Aires, 1971, 2. argitalpena.

GARATE, G.; **Euskal elaberrien kondaira (I). Euskal elaberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1983.

—"Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko eleberri errealista" in **Anaitasuna**, 418, 1982, (23-26. orr.).

GARCIA DE CORTAZAR, F.; MONTERO, M.; **Historia contemporánea del País Vasco**, Editorial Txertoa, San Sebastián, 1982.

GARCIA BERRIO, A.; **Significado actual del formalismo ruso**, Editorial Planeta, Barcelona, 1973.

GARCIA GUAL, C.; **Los orígenes de la novela**, Ediciones Istmo, Madrid, 1972.

—**Primeras novelas europeas**, Ediciones Istmo, Madrid, 1974.

GARRIDO GALLARDO, M.A.; **Introducción a la teoría de la literatura**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1975.

GENETTE, G.; **Figures, III**, Editions du Seuil, Paris, 1972.

—"Fronteras del relato" in **Análisis estructural del relato**, Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, (193-208. orr.).

—"Introduction. La rhétorique des figures" in FONTANIER, P.; **Les figures du discours**, Flammarion, Paris, 1968, (5-17. orr.).

GOENAGA, P.; **Gramatika bideetan**, Erein, Donostia, 1980, 2. argitalpena, zuzendua eta osatua.

GOLDMANN, L.; "El estructuralismo genético en sociología de la Literatura" in **Literatura y sociedad. Problemas de metodología en sociología de la literatura**, Ediciones Martínez Roca, S.A., Barcelona, 1977, (205-234. orr.).

—**Para una sociología de la novela,** Editorial Ayuso, Madrid, 1975, 2. argitalpena.

GOMEZ MARTINEZ, J.L.; **Teoría del ensayo,** Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1981.

GOROSTIDI, M.; "Importancia de las lenguas regionales" in **Euskal-Erria,** XIV, 1886, (135-141. orr.).

GRANJA PASCUAL, J.J.; "Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana" in **Fontes Linguae Vasconum,** n.º 43, enero-junio 1984, (155-179. orr.).

GREIMAS, A.J.; **En torno al sentido. Ensayos semióticos,** Editorial Fragua, Madrid, 1973.

—"Prólogo" in **La semiótica del texto: Ejercicios prácticos. Análisis de un cuento de Maupassant,** Ediciones Paidós, Comunicación, Barcelona-Buenos Aires, 1983, (15-20. orr.).

—**Semántica estructural. Investigación metodológica,** Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1976, 2. berrinprimaketa.

y AA.VV.; **Ensayos de semiótica poética,** Editorial Planeta, Barcelona, 1976.

; COURTES, J.; **Sémiotique. Dictionnaire raisonné de la théorie du langage,** Hachette, Paris, 1979.

GROUPE μ, (J. Dubois, F. Edeline, J. - M. Klinkenberg, P. Minguet, F. Pire, H. Trinon); **Rhétorique générale,** Editions du Seuil, Paris, 1982.

GUIRAUD, P.; **La estilística,** Editorial Nova, Buenos Aires, 3. argitalpena.

GULLON, G.; **El narrador en la novela del siglo XIX,** Taurus Ediciones, Madrid, 1976.

GULLON, R.; **Psicologías del autor y lógicas del personaje,** Taurus Ediciones, Madrid, 1979.

HARITSCHELHAR, J.; **Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)**, Société des Amis du Musée Basque, Bayonne, 1969.

HERELLE, G.; "Cómo surgió en mí la idea de estudiar el Teatro Vasco" in **Yakintza**, I, 1933, (351-354. orr.).

—"Etudes sur le théâtre basque. Les problèmes relatifs aux pastorales" in **RIEV**, IX, 1918, (80--140. orr.).

HERNADI, P.; **Teoría de los géneros literarios**, Antoni Bosch, editor, Barcelona, 1978.

HERNANDEZ, M.; "Hizkuntza, hizkera eta erdera euskal narratiban" in **Oh! euzkadi**, 12. alea, 1981, (numeratu gabe).

HIRSCHBERGER, J.; **Historia de la filosofía. Antigüedad, Edad Media, Renacimiento**, I, Editorial Herder, Barcelona, 1976, 8. argitalpena, (bi liburukiz osaturiko obra).

HJELMSLEV, L.; **Prolegómenos a una teoría del lenguaje**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1980, bigarren argitalpenaren lehen berrinprimaketa.

HUERTA CALVO, J.; "La crítica de los géneros literarios" in **Introducción a la crítica literaria actual**, Editorial Playor, Madrid, 1984, (83-139. orr.).

———— "Informe presentado al Excmo. Ayuntamiento Constitucional de Pamplona por el Jurado del Certámen literario en la sesión pública del 13 de Julio de 1882" in **Revista Euskara**, V, 1882, (277-284. orr.).

IBINAGABEITIA, A.; "**Txillardegi**. - LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA. Bilbao 1957" in **Euzko Gogoa**, orrilla-garagarrilla, 1957, (111-113. orr.).

IBINAGABEITIA'TAR, A.; "**Txillardegi** ...". Ikus IBINAGABEITIA, A.

IÑURRIETA, I.; "'Josetxo', negarti eta negargarri" in **Argia**, 955 zka., 1982, (28-29. orr.).

IRAZUSTA, J.A.; "Sarrera" in IRAZUSTA'TAR, J.A.; **Joañixio**, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1946, (7-8. orr.).

IRAZUSTA'TAR, J.A.; "Sarrera". Ikus IRAZUSTA, J.A.

ITURRIAGA, A.P.; "Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada" in LASA, J.I.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1968, (150-160. orr.).

JAKOBSON, R.; "Lingüística y poética" in **Ensayos de lingüística general**, Editorial Seix Barral, Biblioteca Breve, Barcelona, 1981, 2. argitalpena, (347--395. orr.). Halaber, Ediciones Cátedra, Madrid, 1981. (Aurretiko azterketa: F. Abad).

—**Lingüística. Poética, tiempo. Conversaciones con Krystina Pomorska,** Editorial Crítica, Barcelona, 1981.

JAMAR, B.; "Sobre la poesía vascongada" in **Euskal-Erria**, LV, 1906, (401-409. orr.).

JARA, R.; LERTORA, C.; VARGAS, J.; R. de LERTORA, P.; ORTEGA, J.; **Diccionario de Términos e "Ismos" Literarios,** Ediciones José Porrúa Turanzas, Madrid, 1977.

JUARISTI, J.; **El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca**, Taurus Ediciones, Madrid, 1987.

—**Euskararen ideologiak (1)**, Kriselu, Donostia, 1976.

—"La literatura vasca: polifonía de intertextualidades" in **Muga**, n.º 38, diciembre, 1984, (66-79. orr.).

_____ "Juegos Florales en la ciudad de Fuenterrabía. Euskal-

-pestak Ondarribiko urian (Gipuzkoa)" in **Euskal-Erria**, IX, 1883, (120-125. orr.).

_____ "Juegos Florales euskaros" in **Euskal-Erria**, III, 1881, (215-216. orr.).

_____ "Juegos Florales euskaros" in **Euskal-Erria**, IV, 1881, (258-261. orr.).

_____ "Juegos Florales euskaros. Acta del Jurado" in **Euskal-Erria**, IV, 1881, (281-282. orr.).

KAYSER, W.; **Interpretación y análisis de la obra literaria**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1976, 4. argitalpenaren 4. berrargitalpena.

KORTAZAR, J.; "Eusebio Azkueren poesiagintza" in URIARTE, J.A.; **Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino**, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987. (J. Kortazar, M. Billelabeitiak prestatutako edizioa), (25-42. orr.).

—"¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Mogel?" in **Fontes Linguae Vasconum**, n.º 35-36, mayo-diciembre, 1980, (253-277. orr.).

—"Notas sobre la novela de José Manuel Etxeita, (1842-1915)" in **Fontes Linguae Vasconum**, n.º 33, septiembre-diciembre, 1979, (551-556. orr.).

—"Ohar parea Lizardiren iturriez" in **Jakin**, 29, 1983, (103-107. orr.).

—"Sarrera" in URIARTE, J.A.; **Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno**, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987. (J. Kortazar, M. Billelabeitiak prestatutako edizioa), (9-11. orr.).

KRISTEVA, J.; **El texto de la novela**, Editorial Lumen, Barcelona, 1981, 2. argitalpena.

LABAYEN, A.M.; "Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras" in **Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras**, Auñamendi argitaldaria, Donostia, 1978, (8-178. orr.).

—**Teatro euskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1965, (bi liburukiz osaturiko obra).

LAFITTE, P.; **Grammaire basque. (Navarro-Laburdin Littéraire)**, Elkar, Donostia, 1962, édition revue et corrigée.

LAKA, I.; "Parnasorako bidea-ren hizkuntzaz" in **Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio Urquijo'**, XIX-1, Donostia, 1985, (217-234. orr.).

LAPESA, R.; **Introducción a los estudios literarios**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974.

LARRAMENDI, M. de; **Diccionario trilingüe del castellano, Bascuence y latín,** Bartolomé Riesgo y Montero impresor, San Sebastián, 1745.

LARZABAL, F.B.; "J.B. Elissanburu eta Oxalde, bi gorri. I. Elissanburu" in **Ekaina. Revue d'Etudes Basques,** Editée par l'Association culturelle Amalur, n.º 15, 1985, (155-167. orr.).

LASA, J.I. y COLAB.; **Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1968.

LASAGABASTER, J.M.; "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna" in **Jakin,** 22, urtarrila-martxoa, 1982, (137-154. orr.).

—"Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" in **Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak**, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, (343-368. orr.).

—"Introducción a la narrativa vasca actual" in **Antología de la narrativa vasca actual**, Edicions del Mall, Barcelona, 1986, (11-43. orr.).

—"La crítica semiológica en España" in **Mundaiz**, n.º 13, marzo, 1979, (7-24. orr.).

—"La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica" in **Mundaiz**, n.º 26, julio-diciembre, 1983, (34--52. orr.).

—"La literatura vasca entre 1700 y 1876" in **Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa. Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. Mendeak**, Editorial Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1984, (251-277. orr.).

—**La novela de Ignacio Aldecoa. De la mímesis al símbolo**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1978.

—"La novela vasca al borde de la realidad" in **II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura eta bere intertestualitatea**, II, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1988, (157-181. orr.).

—"Las novelas de la tierra vasca: Lectura con moraleja" in **III Jornadas Internacionales de Literatura. Pío Baroja**, San Sebastián, 11-15 abril, 1988. (Hitzaldiak inprimategian).

—"Nobelaren joera berriak" in **Jakin**, 25, urria-abendua, 1982, (6-36. orr.).

LAZARO CARRETER, F.; "El mensaje literal" in **Estudios de lingüística**, Editorial Crítica, Barcelona, 1980, (149-171. orr.).

LEKUONA, J.M.; **Ahozko Euskal Literatura**, Erein, Donostia, 1982.

—"Bi literatur Estilo Gurean" in **Mundaiz**, uztaila-abendua, 30 zka., 1985, (59-64. orr.).

—"Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz", Euskaltzaindian sarrera-hitzaldia, testu mekanografiatua.

LEKUONA, M. de; "Dijoazkigunak. Zapirain'dar Juan Krutz" in **Yakintza**, II, 1934, (403-406. orr.).

—"Aozko literatura Errenteria'n. Juan Krutz Zapirain" in **Oarso**, 1973, (51-52. orr.).

—"Iturriaga ta Ikastolak (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri Ernani'ko Ikastolan)" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. Kondaira (D)**, Kardaberaz bilduma-27, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, (529-535. orr.), (hamaika liburukiz osaturiko obra).

—"Juan Bautista de Erro eta Azpiroz" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 6. Kondaira (D)**, Kardaberaz bilduma-27, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, (507-527. orr.), (hamaika liburukiz osaturiko obra).

—"La poesía popular vasca. Itzaldi, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean, Bergarako Udaletxean, 1930" in LEKUONA'TAR, M.; **Idaz-lan guztiak. 1. Aozko Literatura**, Kardaberaz bilduma-22, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, (187-257. orr.), (hamaika liburukiz osaturiko obra).

—"Prólogo" in **Genoveva de Brabante por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain**, Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore, Argitalpen-leku eta argitalpen-urterik gabe, (III-XII. orr.).

LEKUONA'TAR, I.; "Dijoazkigunak. Zapirain'dar Juan Krutz". Ikus LEKUONA, M. de.

LEKUONA'TAR, M.; "Aozko literatura Errenteria'n. Juan Krutz Zapirain". Ikus LEKUONA, M. de.

"Iturriaga ta Ikastolak. (Bere jaiotzako 200 urte betetzearen gogoangarri Ernani'ko Ikastolan). Id.

"Juan Bautista de Erro eta Azpiroz". Id.

LERTXUNDI, A.; "Ipuingintza sugestioaren bidetik" in **Jakin,** 25, 1982, (37-50. orr.).

LETE, X.; "Xabier Lizardi edo poesia gailen" in LETE, X.; ZELAIETA, A.; LERTXUNDI, A.; **Xabier Lizardi, olerkari eta prosista,** Ed. Franciscana Aránzazu, Jakin liburu sorta, Oñati, 1974, (11-43. orr.).

LEVI-STRAUSS, C.; **Antropología estructural,** Editorial Eudeba (Editorial Universitaria de Buenos Aires), 1980, 8. argitalpena.

; PROPP, V.; **Polémica Levi-Strauss & V. Propp,** Editorial Fundamentos, Madrid, 1982 2. argitalpena.

LHANDE, P.; "Chronique de littérature basque" in **RIEV,** X, 1919, (190-200. orr.).

LOTMAN, Y.M.; **Estructura del texto artístico,** Ediciones Istmo, Madrid, 1978.

LOZANO, J.; PEÑA-MARIN, C.; ABRIL, G.; **Análisis del discurso. Hacia una semiótica de la interacción textual,** Ediciones Cátedra, Madrid, 1982.

LUKACS, G.; **La novela histórica, (Obras Completas, IX),** Ediciones Grijalbo, Barcelona, 1976.

—**Teoría de la novela,** Edhasa, Barcelona, 1971.

—"Introducción" in **Ensayos sobre el realismo,** Ediciones Siglo Veinte, Buenos Aires, 1965, (7-30. orr.).

LYONS, J.; **Introducción en la lingüística teórica,** Editorial Teide, Barcelona, 1975.

MAEZTU, R. de; "Un comentario de Ramiro de Maeztu sobre el discurso de Unamuno" in UNAMUNO, M. de;

La raza y la lengua, (Obras completas, IV), Escelicer, Madrid, 1966, (248-250. orr.).

MALDAVSKY, D.; **Teoría literaria general. Enfoque multidisciplinario**, Editorial Paidós, Buenos Aires, 1974.

MANTEROLA, J.; **Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara**, III, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1981, (hiru liburukiz osaturiko obra). (Argitalpen hau 1877 —Imprenta de Juan Osés, San Sebastián— eta 1880 urteen artean —Establecimiento tipográfico y Librería de Antonio Baroja, San Sebastián— egin zen lehen argitalpenaren faksimila da.

MARGHESCOU, M.; **El concepto de la literariedad. Ensayo sobre las posibilidades teóricas de una ciencia de la literatura**, Taurus Ediciones, Madrid, 1979.

MARTIN DUQUE, I.; FERNANDEZ CUESTA, M.; **Géneros literarios. Iniciación a los estudios de literatura**, Editorial Playor, Madrid, 1979, 4. argitalpena.

MARTINEZ BONATI, F.; **La estructura de la obra literaria. Una investigación de filosofía del lenguaje y estética**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1972.

_____ **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros por su Comisión Directiva y leída en Junta General del día 2 de Septiembre de 1883**, Hijos de I.R. Baroja, 1883. Halaber, Euskal-Erria, IX, 1883, (205-213.orr.).

_____ **Memoria presentada al Consistorio de Juegos Florales Euskaros, de esta ciudad por su Comisión directiva el día 10 de setiembre de 1885**, Imprenta de los Hijos de Ramón Baroja, San Sebastián, 1885.

_____ **Memoria presentada al consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad por su Comisión**

directiva el día 2 de julio de 1889, Hijos de I.R. Baroja, San Sebastián, 1889.

———— "Memoria del Sr. Presidente de la Asociación Euskara de Navarra leída en el Batzarre de 12 de Enero de 1879" in **Revista Euskara**, II, 1879, (3-11. orr.).

MICHELENA, L.; **Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue.** Ikus MITXELENA, L.

—**Historia de la Literatura Vasca.** Id.

—"Los vascos y su nombre". Id.

—**Sobre el pasado de la lengua vasca.** Id.

MITXELENA, K.; "Liburu sorta zaharberritu baten atarian". Ikus MITXELENA, L.

MITXELENA, L.; **Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue,** Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbao, 1970.

—**Historia de la Literatura Vasca**, Ediciones Minotauro, Madrid, 1960.

—"Los vascos y su nombre" in **RIEV**, enero-junio, 1984, (9-29. orr.).

—**Sobre el pasado de la lengua vasca**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1964.

—"Liburu sorta zaharberritu baten atarian" in ARRUE, G.; **Santa Jenobebaren bizitza**, Euskal Editoreen Elkartea, Erein, Donostia, 1987, (9-19. orr.).

—"F.I. de Lardizabal, TESTAMENTU BERRIKO KONDAIRA EDO HISTORIA. Euskal Idaz-lanak Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1957" in **Egan**, 3-4, 1957, (232-233. orr.).

—"MARCELINO SOROA LASA. **Gabon. Au ostatuba!! Anton Kaiku**, Auspoa Liburutegia, 2. Tolosa'n, 1961" in **Egan**, 1-3, 1961, (143--144. orr.).

—"Sarrera-itz batzu" in TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Leturia-ren egunkari ezkutua,** Leopoldo Zugaza, editor, 2. argitarapena, Durango, 1977, (5-17. orr.).

—"**Yon Etxaide**, JOANAK-JOAN. Kuliska sorta, 9-10'gn. zenbakia. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz'en, 1955" in **Egan**, 5-6, 1955, (69-71. orr.).

MOGEL, B.A.; "Irakurle euskaldunari" in MOGEL, B.A.; **Ipui Onak**, Auspoa Liburutegia, 28. zka., Tolosa, 1963, 3. argitalpena, (37-43. orr.).

MONTESINOS, J.F.; **Costumbrismo y novela,** Editorial Castalia, Madrid, 1980, 4. argitalpena.

—**Pereda o la novela idilio,** Editorial Castalia, Madrid, 1969.

MOURLANE MICHELENA, P.; "Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX. Fragmentos de un ensayo" in **Primer Congreso de Estudios Vascos**, Bilbaína de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, Bilbao, 1919, (621-643. orr.).

MUKAROVSKY, J.; "Apéndice: Lenguaje standard y lenguaje poético" in **Escritos de Estética y Semiótica del Arte**, (Aukera, Hitzaurre, Notak eta Bibliografia, J. LLovet-enak), Colección Gustavo Gili, Barcelona, 1977, (314-333. orr.).

NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA; **Kristau Bidea,** Editorial Franciscana Aránzazu, Jakin, Oñati, 1975.

NINYOLES, R. Ll.; **Idioma y poder social,** Colección de Ciencias Sociales, Serie de Sociología, Editorial Tecnos, Madrid, 1980.

OLANO, K.; "R.M. Azkuez eta bere obraz zertxobait" in AZKUE, R.M.; **Latsibi**, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989, (XV-XXV. orr.).

OLEZA, J.; "La literatura, signo ideológico: la ideologización del texto literario. Las vías de acceso de la ideología al lenguaje y algunos problemas de su formalización" in **La literatura como signo**, Editorial Playor, Madrid, 1981, (176-226. orr.).

OMAECHEVARRIA, Fr. I.; **Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco**, Editorial Icharopena, Zarauz, 1959.

ONAINDIA, S.; **Euskal Literatura. XIX mendea**, II, Etor, Bilbo, 1973, (bost liburukiz osaturiko obra).

—**Euskal Literatura. Bi menderen artean, 1895--1920**, III, Etor, Bilbo, 1974, (bost liburukiz osaturiko obra).

ORMAETXEA, N. (Orixe); **Jainkoaren billa**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1971.

"Euskal-Literatura'ren atze edo edesti labufa" in **Euskal Esnalea**, XVII, 1927, (148-156, 169-173, 191-196, 205-215, 228-237, 246-252. orr.).

OTAEGI, L.; "Lizardiren poetikaz" in **Jakin**, 29, 1983, (18-25. orr.).

OTEGI, K.; "Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa" in **Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto**, Lan Kide Aurrezkia, Donostia, 1985, (434-448. orr.).

—**Pertsonaia euskal nobelagintzan**, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1976.

OTERMIN, A.; **Aproximación al ritmo de la prosa de Axular**, Memoria de Licenciatura, Universidad de Deusto, 1973.

PAGNINI, M.; **Estructura literaria y método crítico**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982, hirugarren argitalpena.

PARAISO DE LEAL, I.; **Teoría del ritmo de la prosa**, Editorial Planeta, Barcelona, 1976.

PEREZ GALLEGO, C.; **Morfonovelística,** Editorial Fundamentos, Madrid, 1973.

PEREZ-RIOJA, J.A.; **Diccionario de Símbolos y Mitos,** Editorial Tecnos, Madrid, 1980, 2. argitalpenaren berrinprimaketa.

PETRALANDA, A.; "Felipe Arrese Beitiaren estiloa" in **Euskeraren Iker Atalak,** 3, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Aurrezki-Kutxa, Bilbo, 1985, (187-206. orr.).

PICARD, R.; **Introducción a la literatura clásica francesa,** Ediciones Guadarrama, Madrid, 1970.

PLATON; **La República o el Estado,** Espasa Calpe, Colección Austral, Madrid, 1980, 14. argitalpena, X. liburua.

PORTAL, M.; **Análisis semiológico de "Pedro Páramo",** Narcea, S.A. de Ediciones, Madrid, 1981.

POSSE y VILLELGA, J.; **La vida social en el País Vasco. Lecciones pronunciadas en la VI Semana Social de Pamplona,** Imp. y Lib. de Florentino de Elosu, Durango, 1914.

POTTIER, B.; **Presentación de la lingüística,** Ediciones Alcalá, Madrid, 1972, 2. argitalpena.

POYATOS, F.; "Paralenguaje y kinésika del personaje novelesco: nueva perspectiva en el análisis de la narración" in **Revista de Occidente,** n.º 113-114, octubre, 1972, (148-170. orr.).

PRIETO, A.; **Ensayo semiológico de sistemas literarios,** Editorial Planeta, Barcelona, 1975, bigarren argitalpena.

PRIETO, L.J.; **Messages et signaux,** Presses Universitaires de France, Collection SUP, Paris, 1972, 2. argitalpena.

PRINCE, G.; "Introduction à l'étude du narrataire" in **Poétique,** IV, 1973, (178-196. orr.).

———— "Programa del Certámen científico, literario y artístico que en honor del glorioso San Fermín, patrono de la ciudad de Pamplona, se celebrará en la misma por

acuerdo del Excmo. Ayuntamiento. Año 1886" in **Euskal-Erria**, XIV, 1886, (303-306. orr.).

———— "Programa del certámen científico, literario y artístico que por acuerdo del Excmo. Ayuntamiento de Pamplona, ha de celebrarse en aquella capital en honor de su glorioso Patrono San Fermín, en la primera quincena del mes de Julio próximo" in **Euskal-Erria**, VIII, 1883, (367-369. orr.).

PROPP, V.; **Las raíces históricas del cuento,** Editorial Fundamentos, Madrid, 1981, 3. argitalpena.

—**Morfología del cuento,** Editorial Fundamentos, Madrid, 1977, 3. argitalpena.

RASTIER, F.; "Sistemática de las isotopías" in GREIMAS, A.J. y AA. VV.; **Ensayos de semiótica poética,** Editorial Planeta, Barcelona, 1976, (107-140. orr.).

REIS, C.; **Fundamentos y técnicas del análisis literario,** Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1981.

RETIF, A.; "La tragédie" in **Litterature et genres litteraires,** Librairie Larousse, Encyclopoche Larousse, Paris, 1978, (215-224. orr.).

RICARDOU, J.; **Problèmes du nouveau roman,** Editions du Seuil, Collection "Tel Quel", Paris, 1967.

RIFFATERRE, M.; **Ensayos de estilística estructural,** Editorial Seix Barral, Biblioteca Breve, Barcelona, 1976.

—"L'illusion référentielle" in **Literatture et realité,** Editions du Seuil, Paris, 1982, (91--118. orr.).

RIQUER, M. de; VALVERDE, J.M.; **Historia de la Literatura Universal. De la Antigüedad al Renacimiento,** I, Editorial Planeta, Barcelona, 1970, 3. argitalpena, (hiru liburukiz osaturiko obra).

—**Historia de la Literatura Universal. Del Romanticismo a nuestros días**, III, Editorial Planeta, Barcelona, 1971, 3. argitalpena, (hiru liburukiz osaturiko obra).

ROBERT, M.; **Novela de los orígenes y orígenes de la novela**, Taurus Ediciones, Madrid, 1973.

RODRIGUEZ MARIN, R.; **La novela en el siglo XIX**, Editorial Playor, Madrid, 1982.

ROMERA CASTILLO, J.; **El comentario de textos semióticos**, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1980, 2. argitalpen zuzendua eta gehitua.

—"Teoría y técnica del análisis narrativo" in **Elementos para una semiótica del texto artístico. (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, bigarren argitalpena, (111-152. orr.).

ROMERO TOBAR, L.; **La novela popular española del siglo XIX**, Fundación Juan March, Editorial Ariel, Barcelona, 1976.

ROUGEOT, J.; "La littérature épistolaire" in **Litterature et genres littéraires**, Encyclopoche Larousse, Librairie Larousse, Paris, 1978, (169-178. orr.).

SAN MARTIN, J.; "Aintzin solasa" in DUVOISIN, J.; **Baigorriko zazpi liliak**, Elkar, Donostia, 1987, (5-14. orr.).

—"Iparragirre erromantikoa" in **En el centenario de su muerte. Iparragirre. Bere heriotzaren mendeurrenean**, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Donostia, 1982, (222. or.).

—"Itz-aurrea" in APAOLAZA, A.; **Patxiko Txerren**, Auspoa Liburutegia, 8, 1962, (15--19. orr.).

—"Romantizismoaren lekukotasuna Euskal literaturan. Iztueta erromantikoa" in **Literaturaren inguruan**, Hordago Publikapenak, Donostia, 1980, (69-83. orr.).

SARASOLA, I.; **Euskal Literaturaren Historia**, Lur editoriala, Donostia, 1971.

—"Hitzaurrea" in **Gabriel Aresti. Obra guztiak (1). Poemak (1)**, Luis Haranburu Editorea, Kriselu, Donostia, 1976, (10-99. orr.).

SARTRE, J.P.; **¿Qué es la literatura?**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1976, 6. argitalpena.

SAUSSURE, F.; **Curso de lingüística general**, Editorial Losada, Buenos Aires, 1971, 10. argitalpena.

SCHOLES, R.; **Introducción al estructuralismo en la literatura**, Biblioteca Universitaria Gredos, Editorial Gredos, Madrid, 1981.

SEFCHOVICH, S.; **La teoría de la literatura de Lukacs**, Universidad Nacional Autónoma de México, México, 1979.

SEGRE, C.; **Las estructuras y el tiempo**, Editorial Planeta, Ensayos Planeta, Barcelona, 1976.

—**Principios de análisis del texto literario**, Editorial Grijalbo, Barcelona, 1985.

SELDEN, R.; **La teoría literaria contemporánea**, Editorial Ariel, Barcelona, 1987.

SERDAN, E.; "Los juegos florales en Alaba" in **Euskal-Erria**, XIX, 1888, (437-441. orr.).

SHKLOVSKI, V.; "El arte como artificio" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, (Tz. Todorov--ek aurkeztu eta prestaturiko antologia), Siglo Veintiuno editores, México, 1980, laugarren argitalpena, (55-70. orr.).

SHUMAKER, W.; **Elementos de teoría crítica**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1974.

SOLOZABAL, J.J.; **El primer nacionalismo vasco**, L. Haranburu--Editor, San Sebastián, 1979.

SORAZU, E.; **Antropología y religión en el Pueblo Vasco**, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1979.

SOTA, M. de la; LAFITTE, P.; AKESOLO, L. de y COLAB.; **Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca**, V, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1980. (Bederatzi liburukiz osaturiko obra).

SOUVAGE, J.; **Introducción al estudio de la novela**, Editorial Laia, Barcelona, 1982.

SPANG, K.; **Fundamentos de retórica**, Ediciones Universidad de Navarra, S.A. (Eunsa), Pamplona, 1979.

SPILLNER, B.; **Lingüística y literatura. Investigación del estilo, retórica, lingüística del texto**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1979.

STAIGER, E.; **Conceptos fundamentales de poética**, Ediciones Rialp, S.A., Madrid, 1966.

TACCA, O.; **La historia literaria**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1968.

—**Las voces de la novela**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1978, 2. argitalpen gehitua eta zuzendua.

TALENS, J.; "Práctica artística y producción significante. Notas para una discusión" in **Elementos para una semiótica del texto artístico. (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, bigarren argitalpena, (15-60. orr.).

TELLECHEA IDIGORAS, J.; "Introducción" in LARRAMENDI, M. de; **Corografía de Guipúzcoa o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de**

Guipúzcoa, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., San Sebastián, 1969, (I-XXXV. orr.).

THALAMAS, J.; **Aspectos de la Vida Profesional Vasca,** Beñat Idaztiak Editor, Donostia, 1935.

TINIANOV, J.; "La noción de construcción" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos,** Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), (85-88. orr.).

—"Sobre la evolución literaria" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos,** Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), (89-101. orr.).

TODOROV, Tz.; **Introducción a la literatura fantástica,** Premia editora de libros, México, 1980.

—"Las categorías del relato literario" in **Análisis estructural del relato,** Ediciones Buenos Aires, Serie Comunicaciones, Barcelona, 1982, (155-192. orr.).

—"Lo verosímil que no se podría evitar" in **Lo verosímil,** Editorial Tiempo Contemporáneo, Colección Comunicaciones, Buenos Aires, 1970, (175-178. orr.).

—**Poétique de la prose,** Editions du Seuil, Paris, 1971.

—**¿Qué es el estructuralismo? Poética,** Editorial Losada, Buenos Aires, 1975.

TOMASHEVSKI, B.; "Temática" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos,** Editorial Siglo XXI, México, 1980, 4. argitalpena, (Tz. Todorov-ek prestatu eta aurkeztutako antologia), (199-232. orr.).

TORDERA SAEZ, A.; "Teoría y técnica del análisis teatral" in **Elementos para una semiótica del texto artístico. (Poesía, narrativa, teatro, cine)**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980, bigarren argitalpena, (155-199. orr.).

TOVAR, A.; **Mitología e ideología sobre la lengua vasca**, Alianza Editorial, Madrid, 1980.

TRNKA, B.; MATHESIUS, V.; TRUBETZKOY, N.S.; VACHEK, J.; JAKOBSON, R.; **El Círculo de Praga**, Editorial Anagrama, Barcelona, 1971. (Edizio-prestatzailea: J.A. Argente).

TUÑON de LARA, M.; **Estudios sobre el siglo XIX español**, Siglo Veintiuno de España editores, Madrid, 1971, 7. argitalpena.

TXILLARDEGI, (J.L. Alvarez); **Euskal Gramatika,** Ediciones Vascas argitaletxea, San Sebastián, 1978.

UBERSFELD, A.; **Lire le Théâtre,** éditions sociales, Paris, 1982, azken notadun 4. argitalpena.

UGALDE, M. de; **Unamuno y el vascuence,** Ediciones Vascas argitaletxea, San Sebastián, 1979.

ULLMAN, S.; **Semántica,** Aguilar ediciones, Madrid, 1976, 4. berrargitalpena.

UNAMUNO, M. de; "Anton el del pueblo" in **De mi país. Descripciones, relatos y artículos de costumbres**, Espasa Calpe, S.A., Colección Austral n.º 336, Madrid, 1964, 5. argitalpena, (123-127. orr.).

—"Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901" in **La raza y la lengua (Obras completas, IV)**, Escelicer, Madrid, 1966, (237-248. orr.).

—"El bizkaitarrismo y el vascuence" in **La raza y la lengua (Obras completas, IV)**, Escelicer, Madrid, 1966, (251-255. orr.).

URKIZU, P.; **Euskal Antzertia**, Eusko Jaurlaritza, Donostia, 1984.

—**Euskal Teatroaren Historia**, Kriselu, Donostia, 1975.

—**Lengua y Literatura Vasca**, Luis Haranburu editor, San Sebastián, 1978.

URRUTIKOETXEA, J.; **Karlismoa**, Elkar, Donostia, 1984.

UZTAPIDE, (M. Olaizola); **Lengo egunak gogoan**, I, Auspoa Liburutegia, Tolosa, 1974, (bi liburukiz osaturiko obra).

VAN DIJK, T.A.; **Estructuras y funciones del discurso**, Siglo Veintiuno Editores, Madrid, 1980.

—**Texto y contexto**, Ediciones Cátedra, Madrid, 1980.

VANSINA, J.; **La tradición oral**, Editorial Labor, Barcelona, 1968, 2. argitalpena.

VARGAS LLOSA, M.; **Historia secreta de una novela**, Tusquets Editor, Barcelona, 1971.

—**La orgía perpetua. Flaubert y "Madame Bovary"**, Editorial Seix Barral, Barcelona, 1981, berrargitalpena.

VV.AA.; **Geografía histórica de la lengua vasca**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1960, 2. argitalpena.

VELASCO, L. de; **Los Euskaros en Alava, Bizkaia y Gipuzkoa**, Imprenta de Oliveres, a cargo de A. Xumetra, Barcelona, 1879.

VERA LUJAN, A.; **Análisis semiológico de "Muertes de Perro"**, Cupsa Editorial, Madrid, 1977.

VERNON HALL, Jr.; **Breve historia de la crítica literaria**, Fondo de Cultura Económica, Breviarios, México, 1982.

VICENS VIVES, J.; **Historia de España y América. Burguesía. Industrialización. Obrerismo. Los siglos**

XIX y XX. América independiente, V, Editorial Vicens-Vives, Barcelona, 1961, (bost liburukiz osaturiko obra).

VILLASANTE, Fr. L.; **Historia de la Literatura Vasca**, Editorial Aránzazu, Burgos, 1979. (Berrikusi eta osaturiko 2. argitalpena).

—"Hitzaurrea" in AZKUE, R.M.; **Latsibi**, Euskaltzaindia eta Labayru Ikastegia, Bilbao, 1989, (IX-XIV. orr.).

VINOGRADOV, V.V.; "Sobre la teoría de la estilística" in **Teoría de la literatura de los formalistas rusos**, (Tz. Todorov-ek aurkeztu eta prestaturiko antologia), Siglo Veintiuno editores, México, 1980, laugarren argitalpena, (81-84. orr.).

VINSON, J.; **Essai d'une bibliographie de la Langue Basque**, 1* eta 1**, Caja de Ahorros Vizcaína, Departamento Cultural, Colección Bibliográfica, Bilbao, 1983. (Argitalpen hau Parisen 1891.ean egindakoaren berrinprimaketa da).

—"Concours de poésie basque a Sare" in **Revue de Linguistique et de Philologie Comparée**, Paris, 1870, (366-376. orr.).

WATT, I.; "Réalisme et forme romanesque" in **Litterature et réalité**, Editions du Seuil, París, 1982, (11-46. orr.).

WEINRICH, H.; **Estructura y función de los tiempos en el lenguaje**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1974.

—"Para una historia literaria del lector" in GUMBRECHT - JAUSS - WEINRICH - KHOLER - KUHN - GRIMMINGER; **La actual ciencia literaria alemana. Seis estudios sobre el texto y su ambiente**, Ediciones Anaya, Salamanca, 1971, (115-134. orr.).

WELLEK, R.; **Conceptos de Crítica Literaria**, Universidad

Central de Venezuela, Ediciones de la Biblioteca, Caracas, 1968.

—**Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). El Romanticismo, II**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1962, (bost liburukiz osaturiko obra).

—**Historia de la Crítica Moderna (1750-1950). Los años de transición**, III, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1959, (bost liburukiz osaturiko obra).

—**Historia Literaria. Problemas y conceptos**, Editorial Laia, Barcelona, 1983.

WELLEK, R.; WARREN, A.; **Teoría Literaria**, Biblioteca Románica Hispánica, Editorial Gredos, Madrid, 1974, 4. argitalpena, 2. berrinprimaketa.

YNDURAIN, F.; **Galdós entre la novela y el folletín**, Cuadernos Taurus, Taurus Ediciones, Madrid, 1970.

ZARATE, M.; **Bizkaiko euskal idazleak. Bizkaierazko literaturearen kondaira antzera. 1580-1968**, Derioko Seminario-Ikastetxea, Bilbao, 1970.

ZAVALA, A.; "Bertso paperak" in **Jakin**, 14/15, Apirila-Iraila, 1980, (115-133. orr.).

—**Bilintx. Indalecio Bizcarrondo. 1831-1876. Bizitza eta bertsoak (Vida y poesías)**, Colección "Izurun", Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1978.

—**Bosquejo de historia del bersolarismo**, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1964.

—"La galerna de 1878" in **El Diario Vasco**, jueves, 24 de mayo de 1984.

—**Xenpelar bertsolaria**, Auspoa Liburutegia, 88-89-90, Donostia, 1969.

—**Zapirain anaiak. Juan Krutz (1867-1934), Joxe**

(1873-1957), Auspoa Liburutegia 123-124-125, Tolosa, 1975.

ZELAIETA, A.; **Foruak eta Euskal Literatura**, Kriselu, Donostia, 1978.

—**Peru Abarcaren berrirakurtzea**, Kriselu, Donostia, 1979.

ZERAFFA, M.; **Novela y sociedad**, Amorrortu Editores, Buenos Aires, 1973.

2.5. ALDIZKARIAK

Abeja, La, Bilbao, (1889-1890).
—I, 1889.eko abendukoa, 30-32. orr.
—II, 1890.eko urtarrilekoa, 55-65. orr.
—III, 1890.eko otsailekoa, 92-96. orr.
—IV, 1890.eko martxokoa, 126-128. orr.
—V, 1890.eko apirilekoa, 156-160. orr.
—VI, 1890.eko maiatzekoa, 188-192. orr.

Album Pyrénéen. Revue Béarnaise, Pau, (1840-1841).
—II, mars, 1841, 210. or.

Anaitasuna, Bilbo, (1961-1982).
—418 zka., 1982, 23-26. orr.

Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo", Donostia, (1967-).
—XIX-1, 1985, 219. or.

Aranzazu, Aránzazu, (1921-).
—mayo, n.º 128, 1964, 14. or.
—septiembre-octubre, 1966, 19-20. orr.

Argia, Donostia, (1980-). (**Zeruko Argia**, 1919-1936; 1954-1980).
—955 zka., 1982, 29. or.

Aurrerá, Madrid, (1883).

Bai, jauna, bai, Pamplona, (1883).

Boga-Boga, Ondárroa, mayo-junio, 1964.

Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, San Sebastián, (1945-).
—Año IV, Cuaderno 2.º, 1948, 170. or.

Diario Vasco, El, San Sebastián, (1934-).
—1984-V-24, 48. or.

Egan, San Sebastián, (1948-).
—5-6, 1955, 69-70. orr.
—5-6, 1956, 145-147. orr.
—3-4, 1957, 233. or.
—1-3, 1961, 143. or.

Ekaina. Revue d'Etudes Basques, Bayonne, (1982-).
—n.º 15, 1985, 155. or., 161-162. orr.

Euskal Esnalea, Donostia, (1911-1931).
—VII, 1917, 169-173. orr., 200-203. orr., 210-215. orr.
—XVII, 1927, 231. or.

Euskal-Erria, San Sebastián, (1880-1918).
—I, 1880, 4. or., 6-9. orr., 43. or., 127. or., 165-166. orr., 226. or., 292. or.
—II, 1881, 95. or.
—III, 1881, 215-216. orr.
—IV, 1881, 259. or., 282. or.
—V, 1882, 33-36. orr., 65-69. orr., 97-101. orr., 129-132. orr.
—VI, 1882, 94. or., 143-146. orr., 219. or.
—VII, 1882, 74-76. orr., 549-557. orr., 561-563. orr., 598. or.
—VIII, 1883, 161. or., 368. or., 451. or.
—IX, 1883, 42. or., 63. or., 119. or., 121. or., 172-174. orr., 212. or., 225-228. orr., 258. or., 266. or., 355. or., 517-525. orr., 549-554. orr.
—X, 1884, 7-14. orr., 33-37. orr., 158-160. orr., 252. or.
—XI, 1884, 362. or.
—XII, 1885, 281. or., 368-372. orr., 471-474. orr.
—XIII, 1885, 383. or., 488. or., 490. or.
—XIV, 1886, 112. or., 129-134. orr., 135. or., 192. or., 303. or. eta hurrengoak.
—XV, 1886, 101. or., 252. or., 364. or., 404. or., 454-457. orr., 481. or.

—XVI, 1887, 29-30. orr., 47. or., 255. or.
—XVII, 1885, 313-314. orr.
—XVIII, 1888, 46-50. orr., 88-92. orr., 347. or., 380. or.
—XIX, 1888, 89. or., 144-147. orr., 148-150. orr., 179--182. orr., 200-203. orr., 268-269. orr., 356--360. orr., 392-394. orr., 437. or., 446. or., 462-468. orr., 489-495. orr.
—XX, 1889, 7-12. orr.
—XXI, 1889, 488-498. orr., 534-538. orr., 566. or., 568--571. orr., 573-575. orr.
—XXII, 1890, 53-55. orr., 145. or., 276-278. orr., 376. or., 525. or., 562-563. orr.
—XXIII, 1890, 202. or.
—XXIV, 1891, 81-86. orr.
—XXV, 1891, 1-4. orr., 33-37. orr., 65-68. orr., 529-532. orr., 553-557. orr.
—XXVI, 1892, 19-21. orr., 362-367. orr.
—XXVIII, 1893, 509-510. orr.
—XXXI, 1894, 332. or., 334-335. orr., 336. or.
—XXXIII, 1895, 450. or.
—XXXIV, 1896, 54. or., 365-369. orr.
—XXXVI, 1897, 375-379. orr.
—XXXVII, 1897, 411. or., 413. or., 415. or.
—XXXVIII, 1898, 272-277. orr.
—XXXIX, 1898, 10. or., 190. or., 372. or.
—XLI, 1899, 10-15. orr., 319. or.
—XLV, 1901, 215. or., 242. or., 501-504. orr., 553-556. orr., 572-578. orr.
—XLVI, 1902, 70-74. orr., 248-252. orr., 308-311. orr., 400-405. orr.
—XLVII, 1902, 129-133. orr., 161-164. orr., 196-199. orr., 225-231. orr., 444-447. orr., 469--474. orr., 534-537. orr., 598-602. orr.
—XLVIII, 1903, 70-74. orr., 133-137. orr., 171-176. orr.
—XLIX, 1903, 146-151. orr.
—L, 1904, 172-177. orr., 232-235. orr., 279-282. orr., 456-459. orr., 517-521. orr.
—LI, 1904, 103-107. orr.
—LII, 1905, 453-462. orr.
—LIII, 1905, 500-506. orr.

—LV, 1906, 407. or.
—LXIII, 1910, 49. or.

Euskalerriaren Alde, San Sebastián, (1911-1931).
—V, 525. or., 554. or.

Euskalzale, Bilbao, (1897-1899).
—I, 1897, 8. or., 24. or., 32. or., 40. or., 56. or., 64. or., 80. or., 92-93 orr., 99-100. orr., 109-110. orr., 111. or., 131-132. orr., 140-141. orr., 155-156. orr., 160. or., 165-166. orr., 168. or., 172-173. orr., 184. or., 189-190. orr., 209. or., 221-222. orr., 227-228. orr., 252-253. orr., 268. or., 295. or., 302-303. orr., 306-307. orr., 309-310. orr., 317-318. orr., 343-344. orr., 354. or., 356-357. orr., 397-398. orr., 416. or.

—II, 1898, 8. or., 12. or., 13. or., 19-20. orr., 26-28. orr., 34-36. orr., 46-48. orr., 53-55. orr., 56. or., 61-64. orr., 70-72. orr., 78-79. orr., 85-87. orr., 90-91. orr., 101-103. orr., 118-120. orr., 124. or., 134-135. orr., 140-141. orr., 149-150. orr., 156-157. orr., 163-164. orr., 181-183. orr., 189-190. orr., 190-192. orr., 198-200. orr., 204-205. orr., 206-207. orr., 208. or., 215-216. orr., 223. or., 225-227. orr., 238-239. orr., 242. or., 251-253. orr., 255-256. orr., 259-260. orr., 261-262. orr., 267-268. orr., 271-272. orr., 273-275. orr., 276. or., 283-284. orr., 285-287. orr., 290-291. orr., 301-302. orr., 312. or., 318-319. orr., 342. or., 344.or., 350. or., 352. or., 360. or., 366-367. orr., 368. or., 371-372. orr., 373-376. orr., 382-383. orr., 388-389. orr., 389-390. orr., 390-392. orr., 395-396. orr., 397-398. orr., 400. or., 412-413. orr., 413-414. orr., 416-420. orr., 421-424. orr.

—III, 1899, 14-15. orr., 19-20. orr., 26-27. orr., 33-34. orr., 35-36. orr., 42-43. orr., 53-54. orr., 56. or., 59-60. orr., 71-72. orr., 320. or., 328. or., 336. or., 344. or., 352. or., 360. or., 376. or., 384. or.

Euskera, Bilbao, (1919-1936; 1953-).
—IV, 1959, 57-62. orr.
—XVI, 1971, 37. or., 38. or., 42-43. orr.

Euzkerea, Bilbao, (1929-1936).
—enero-febrero, 1935, 448. or.
—marzo-abril, 1935, 520. or.

Euzkadi, Bilbao, (1901-1902; 1905-1915).

Euzkadi, Bilbao, (1913-1937).
—1920-I-28.

Euzko Gogoa, Guatemala (1950-1956); Miarritze (1957-1959).
—II, (n.º 9-10), 1951, 11. or.
—orrila-garagarrila, 1957, 111-115. orr.

Fontes Linguae Vasconum, Pamplona (1969-).
—n.º 33, septiembre-diciembre, 1979, 553. or.
—n.º 35-36, mayo-diciembre, 1980, 253-257. orr.
—n.º 43, enero-junio, 1984, 157-158. orr.

Gure Izarra, París, (1888).

Ibaizabal, Bilbao, (1902-1903).

Jakin, Tolosa (Bigarren aldia: 1977-).
—14/15, apirila-iraila, 1980, 118-119. orr., 120-122. orr., 125-126. orr.
—22, urtarrila-martxoa, 1982, 145. or., 147-148. orr., 151. or.
—25, urria-abendua, 1982, 6. or., 47. or.
—29, urria-abendua, 1983, 41. or., 103-106. orr.

Karmel, Bilbao, (1958-).
—2, 1979, 26-37. orr.
—4, 1988, 9. or.

Messager de Bayonne, Le, Bayonne, (1851-1864).
—1885-XII-6.

Muga, San Sebastián, (1979-).
—n.º 38, diciembre, 1984, 68. or., 74. or.

Mundaiz, San Sebastián, (1975-).
—marzo, n.º 13, 1979, 22. or.

—julio-diciembre, n.º 26, 1983, 39. or.
—uztaila-abendua, 30 zka., 1985, 61. or.

Nivelle, La, Saint Jean-de-Luz, (1883-1886).
—1886, X, 14.
—1886, XI, 14.

Oarso, Rentería, (1963-).
—1973, 52. or.

Oh! euzkadi, Donostia, (1980-1983).
—12. alea, azaroa, 1981.
—13. alea, abendua, 1981.

Ondarroa, Ondárroa, (1982-)
I, 1982, 58. or., 59. or.

Revéil Basque, Le, Pau, (1886-1894).
—1887, VI, 26.
—1888, III, 18.

Revista de las Provincias Euskaras, Vitoria, (1878-1880).
—I, 1878, 43-46. orr., 66-72. orr., 93-96. orr., 117-120. orr., 140-144. orr., 185-192. orr., 213-216. orr., 237-240. orr., 256-264. orr., 279-288. orr.
—II, 1879, 290. or.
—III, 1879, 183-186. orr.
—IV, 1880, 63-72. orr., 102-106. orr., 183-191. orr.

Revista de Occidente, Madrid, (1923-).
—n.º 113-114, octubre, 1972, 148-169. orr.

Revista Euskara, Pamplona, (1878-1883).
—I, 1878, 148. or.
—II, 1879, 6. or., 154. or., 236. or., 238. or., 244. or., 260-264. orr., 264-268. orr., 268-270. orr., 270-272. orr.
—IV, 1881, 4. or.
—V, 1882, 118-119. orr., 146-148. orr., 283. or., 325-333. orr.
—VI, 1883, 77. or., 159-160. orr., 176. or., 177. or., 240--241. orr., 243-247. orr., 254. or., 293-295. orr., 319-320. orr.

Revista Internacional de los Estudios Vascos. Revue Internationale des Etudes Basques (RIEV), París-San Sebastián, (1907-1936; 1983-).

—I, 1907, 42-47. orr., 167-168. orr., 169. or., 172-179. orr., 453-463. orr.
—II, 1908, 90-94. orr., 359-368. orr., 625-637. orr., 757--774. orr.
—III, 1909, 227-229. orr., 229-233. orr., 274-285. orr., 396-400. orr.
—IV, 1910, 21-31. orr., 298-304. orr.
—V, 1911, 86-96. orr., 405-420. orr.
—VI, 1912, 174-196. orr., 425-440. orr.
—IX, 1918, 125. or.
—X, 1919, 194-195. orr.
—XXI, 1930, 339-340. orr., 348. or., 349. or., 358-359. orr., 360. or., 361. or., 363. or.
—XXII, 1931, 555-558. orr.
—XXVI, 1935, 196-197. orr.
—enero-junio, 1984, 11-29. orr.

Revue de Linguistique et de Philologie Comparée, París, (1867--1916).

—III, 1870, 367. or., 368. or.

Revue des Basses-Pyrénées et des Landes, París, (1883-1886).

—I, 1883, 66-67. orr.
—I, 1884, 231-232. orr.

Semaine de Bayonne, La, Bayonne, (1868-1918).

—1879-VIII-6.

Yakintza, San Sebastián, (1933-1936).

—I, 1933, 351. or.
—II, 1934, 323. or., 403-406. orr.